



EUSKO LEGBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA  
2006



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA - 2006. URTEA  
ARARTEKOA

© ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

L.G.: VI-100/07.



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA  
2006



**AURKIBIDEA**





<b>AURKEZPENA .....</b>	<b>25</b>
<b>I. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, KEXA-ESPE-DIENTEAK ETA OFIZIOZKO KEXAK BIDERATZEAN.....</b>	<b>27</b>
1. GIZARTE EKINTZA.....	35
<b>1.1. Sarrera .....</b>	<b>35</b>
<b>1.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak .....</b>	<b>50</b>
A) Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza ⇒ <i>Eremu soziosanitarioa garatzeko eta bizitokirik gabeko per-             sonak gizarte baliabideetatik kanpo uzteko prozeduretan             bermeak hobetzeko beharra .....</i>	50
B) Ezgaitasunen bat duten pertsoneri eskainitako laguntza ⇒ <i>Elbarritasun kalifikazioa berrikusteko eskaera prozedura....</i>	52
C) Adinekoei eskainitako laguntza ⇒ <i>Adinekoentzako egoitza batean igaro beharreko gutxieneko             epea, beste zentro batera lekualdatzeko betekizun moduan</i> 53 ⇒ <i>Foru Aldundiak egoitza ordaintzeko diru-laguntza eten zion,             bere etxebizitza dohaintzan eman zuelako.....</i> 55 ⇒ <i>Pentsiodunen bizi baldintzak hobetzeko laguntzak .....</i> 58 ⇒ <i>Adinekoentzako egoitza batean ordaindu beharreko prezio             publikoa: baloratu beharreko elementuak.....</i> 59	
D) Eskubideak eta askatasunak ⇒ <i>Karabana batean bizi diren pertsonak erroldatzea.....</i> 60 ⇒ <i>Pertsonak eraikuntza berrietan erroldatzea, udalak horien             gaineko auzia duenean etxebizitzan sustatzailearekin .....</i> 61	
E) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa ⇒ <i>Zor konpromisoa sinatzea egoitzan sartzeko eskaera dataren             menpe zegoen .....</i> 63	
F) Diruzko gizarte prestazioak ⇒ <i>Oinarrizko errentaren prestazioa inolako arrazoirik gabe             etetea.....</i> 64 ⇒ <i>Helbide aldaketa ez zen udaleko erroldan islatu. Ondorioz,             diru prestazioak zuhurtziaz eten ziren (oinarrizko errenta eta             kotizazio gabeko pentsioa), ez, ordea, prestazioa eskuratzeko             eskubidea .....</i> 65 ⇒ <i>Oinarrizko errentaren prestazioa eteteko inolako arrazoirik             ez egotea.....</i> 68	

2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA .....	69
<b>2.1. Sarrera</b> .....	69
<b>2.2. Aukeratutako kexak</b> .....	71
A) Merkataritza	
⇒ <i>Interesdun izaera eta merkatarari, ostalari eta profesionalen elkarte baten esku-hartzea izan zuen espedientean dokumentuen kopiak lortzeko eskubidea</i> .....	71
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Turismoaren arloko erreklamazioak amaitutzat jotzeko arrazoiak adierazi beharra</i> .....	72
3. KULTURA ETA ELEBITASUNA .....	75
<b>3.1. Sarrera</b> .....	75
<b>3.2. Aukeratutako kexak</b> .....	77
A) Kultur jarduerak	
⇒ <i>Udal instalazioak erabiltzeko baimena: legezketasun printzipioa</i> .....	77
B) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Publizitatean sexu berdintasunari eskaintzen zaion tratamendua</i> .....	79
4. HEZKUNTZA .....	80
<b>4.1. Sarrera</b> .....	80
<b>4.2. Aukeratutako kexak</b> .....	84
A) Eskubideak eta betebeharrak	
⇒ <i>Eskola-garraioa</i> .....	84
B) Haur hezkuntza	
⇒ <i>Dulantziko Udaleko haur eskola. Onarpena</i> .....	86
C) Unibertsitateko hezkuntza	
⇒ <i>Psikopedagogiako lizentziaturako praktikak baliozkotzea</i> ...	88
D) Eskola-garraioa	
⇒ <i>Eskola-garraioko zerbitzua. Ibaiondo LHI</i> .....	90
⇒ <i>Hezkuntza-plangintza. Ea udalerrian bizi den adingabe batek eskolatzeko dituen aukerak</i> .....	92
5. FUNTZIO PUBLIKOA .....	94
<b>5.1. Sarrera</b> .....	94
<b>5.2. Aukeratutako kexak</b> .....	100
A) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Irakaskuntzaren alorreko ordezkapenak, lanpostu hutsen eskaintzan izandako akatsa</i> .....	100
B) Hizkuntz normalizazioa	
⇒ <i>Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUF) lan eskaintza publikoa. Hizkuntzaren inguruko eskakizunak</i> .....	101
C) Beste eskubide eta betebeharrak	
⇒ <i>Administrazio kontratazioa: lan kontratuetako subrogazioa</i> .....	105

D) Barne sustapena	
⇒ <i>Ofizialorde plaza betetzeko barne sustapena. Azkoitiko Udala</i>	106
E) Hautaketa	
⇒ <i>Donostiako Sustapena sozietatearen hautapen prozesua.....</i>	108
6. OGASUNA.....	110
<b>6.1. Sarrera</b> .....	110
<b>6.2. Aukeratutako kexak</b> .....	114
A) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Interesdunak eskabidean adierazitakoa ez den beste banku kontu batean egindako abonua saiakera.....</i>	114
⇒ <i>Administrazioaren jarduera: herritar batek doakoa ez den zerbitzuaren prestazioa eskatzen dionean administrazioari, honek alde zuzenetik eta banaka eman behar dio horren zenbatekoaren berri.....</i>	115
B) Foru zergak - PFEZ	
⇒ <i>Ohiko etxebizitza birgaitzeagatiko kenkariak gozatzeko beharrezko agiriak.....</i>	116
⇒ <i>Ohiko etxebizitza errentamendua: hutsik dagoen etxebizitzaren programaz baliatutako etxebizitzaren errentarientzako kenkari berezia.....</i>	118
C) Udal zergak - OHZ	
⇒ <i>Higiezin baten titularkidetasuna: OHZ titularkide batek ordaintzea.....</i>	118
⇒ <i>Etxebizitzarekin lotutako ganbara baten katastro balorazioa</i>	120
D) Udal zergak - TMIZ	
⇒ <i>%33ko ezgaitasuna egiaztatzea zerga administrazioak TMIZn salbuespena aitortzeko.....</i>	120
⇒ <i>Behin ezgaitasunagatiko salbuespena aitortuta, horren indaraldia mugagabea izango da, betiere, aitortpena eragin zuten inguruabarrak aldatzen ez badira.....</i>	122
E) Udal tasak	
⇒ <i>Saneamendu zerbitzua eskaintzea ezinbesteko baldintza da dagokion tasaren ordainketa eskatzeko.....</i>	124
⇒ <i>Txingudiko Zerbitzuak mankomunitateak ur kontsumoak fakturatzeko darabilen sistema.....</i>	127
7. HERRIZAINGOA.....	129
<b>7.1. Sarrera</b> .....	129
<b>7.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	153
A) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Ertzaintzak adingabeen harrera zentro batean eginiko esku-hartzeei buruzko datuak publikoki zabaltzea.....</i>	153
⇒ <i>Prozesatu ostean absolbitu zuten, eta berak egitea ezinezkoa zen delitu batengatik badaezpada espetxean eduki zuten pertsona bat. Ertzaintzak inkomunikatuta eduki zituen hiru</i>	

	<i>atxilotuk egindako adierazpenegatik auzipetu zuten delitu hartan, eta adierazpenok torturapean egin zituztela salatu zuten atxilotuek .....</i>	157
	⇒ <i>Pertsona baten atxiloketa, euskaraz adierazteko duen eskubidea bermatzen ez den artean Ertzaintzaren aurrean identifikatzeari uko egiteagatik .....</i>	163
B)	<i>Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa</i>	
	⇒ <i>Udaltzaingoak ukatu egin dio txostena ikusteko aukera.....</i>	167
C)	<i>Kontratazio erregimena, ondarea eta erantzukizun administratiboa</i>	
	⇒ <i>Manifestazio batean Ertzaintzak istiluen aurka eginiko jardueran pertsona bati eragindako kalteak konpontzea .....</i>	168
D)	<i>Herritarren segurtasuna</i>	
	⇒ <i>Irungo San Martzial jaietako egitarau ofizialetik kanpo eginiko artilleriaren deskarga simulazioetan ere segurtasun neurriak hartzea .....</i>	171
E)	<i>Trafikoa</i>	
	⇒ <i>Administrazioak ez zuen beharrezko arduraz jokatu zehapen prozeduran jakinarazpen pertsonala egin behar zueneko helbidea zehazteko orduan.....</i>	172
	<b>7.3. Ertzaintzaren ziegen eta udal atxiloguneen egoera .....</b>	174
8.	<b>JUSTIZIA.....</b>	177
	<b>8.1. Sarrera .....</b>	177
	<b>8.2. Aukeratutako kexak .....</b>	191
	A) <i>Espetxe gaitako jarduerak</i>	
	⇒ <i>Epaitegiak akatsak egin zituen delitu bat baino gehiago egiten diren kasuetan zigorrak benetan betetzeko gehieneko mugari buruzko arauak aplikatzean .....</i>	191
	B) <i>Justizi Administrazioaren funtzionamendua</i>	
	⇒ <i>Erregistro Zibilean dauden seme-alaba propioaren datuen ziurtagiria internet bidez eskatu eta postaz jasotzeko orduan izatezko bikoteak jasaten duten bereizkeria ezkonduetako bikoteen aldean .....</i>	193
9.	<b>INGURUMENA .....</b>	196
	<b>9.1. Sarrera .....</b>	196
	<b>9.2. Aukeratutako kexak .....</b>	203
	A) <i>Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan</i>	
	⇒ <i>Galdategi jarduera batek eragindako kutsadura akustikoa eta atmosferakoa .....</i>	203
	⇒ <i>Zereal siloak husterakoan eragindako hauts emisioak .....</i>	204
	B) <i>Sailkatutako jarduerak bizitegitarako lurzoruan</i>	
	⇒ <i>Ostalaritza-establezimenduen ondorioz eragozpenak: musika-ekipoa kentzea .....</i>	206
	⇒ <i>Gazteak eta lonjak.....</i>	208
	⇒ <i>Supermerkatu bateko zamalanek eragindako zaratak .....</i>	211

C) Ingurumenaren gaineko afekzioak	
⇒ <i>Anbulantzien zarata</i> .....	212
⇒ <i>Udaletxearen fatxadako erlojuaren kanpai hotsek eragindako eragozpenak</i> .....	213
10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK .....	216
<b>10.1. Sarrera</b> .....	216
<b>10.2. Aukeratutako kexak</b> .....	222
A) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Leku publiko batean hartutako familia baten irudia udal liburuxka batean erabiltzea</i> .....	222
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Osoko bilkura bateko aktaren kopia emateari uko egitea</i> ....	224
C) Azpiegiturak	
⇒ <i>Gasteiz-Eibar autobidearen proiektuan harri lubeta egiteak etxebizitza batean izandako eragina</i> .....	225
D) Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna	
⇒ <i>Kalte-ordaina emateko erabakia itundutako amaierako formula gisa erabiltzea prozedura bat bukatzeko</i> .....	226
E) Tokiko zerbitzu publikoak	
⇒ <i>Bide segurtasuneko arazoak hiri zeharbideetan</i> .....	227
⇒ <i>Ikastetxe baten inguruetan zaborrontziak jartzearekin ados ez egotea</i> .....	228
F) Garraioak	
⇒ <i>Irisgarritasun unibertsala metroan</i> .....	228
11. ANIMALIEN BABESA .....	230
<b>11.1. Sarrera</b> .....	230
<b>11.2. Aukeratutako kexak</b> .....	232
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Bizirik dauden animaliak kalean saltzea</i> .....	232
12. OSASUNA .....	233
<b>12.1. Sarrera</b> .....	233
<b>12.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	239
A) Erabiltzaileen eskubideak	
⇒ <i>Gastuak itzultzea eta itxaron zerrendak. Gaixoen eta osasun sistemaren arteko berdintasuna</i> .....	239
⇒ <i>Sistema publikoak eskaintzen dituen tratamenduak: informazioa</i> .....	241
⇒ <i>Zenbait gaixo bakarrik ez uzteko diru-laguntzak emateko irizpideak</i> .....	242
⇒ <i>Ortodontziako tratamenduak: mugak</i> .....	243
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Gaixo batek mediku bati buruz egindako kexak eta honek hari buruz egindakoak</i> .....	244
⇒ <i>Medikuak gaixoari errespeturik ez izatea</i> .....	245

13. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA.....	247
<b>13.1. Sarrera</b> .....	247
<b>13.2. Aukeratutako kexak</b> .....	248
A) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Ordezkaritza bateratua eta sindikala: aldeak</i> .....	248
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Sindikatuak zehapen prozeduretako interesdun gisa</i> .....	249
14. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA .....	251
<b>14.1. Sarrera</b> .....	251
<b>14.2. Aukeratutako kexak</b> .....	257
A) Hirigintzako diziplina eta aurria	
⇒ <i>Negozio lokala prest uzteko obra-lizentzia berandu eman izana</i> .....	257
B) Hirigintzako kudeaketa	
⇒ <i>Eibarko Udaleko hiri antolamendurako plangintzak Txonta auzoa biziberritzeko aurreikusi duen jarduera garatzeko baldintzak</i> .....	258
C) Hirigintzako antolamendua	
⇒ <i>Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioen Aurrelaburpenean aurreikusitako bidearekin ados ez egotea</i> .....	260
⇒ <i>Ibarrako Plangintzaren Arau Subsidiarioak berriz aztertzeke espedientean parte hartzeke aukerarik ez ematea</i> .....	261
15. ETXEBIZITZA .....	263
<b>15.1. Sarrera</b> .....	263
<b>15.2. Aukeratutako kexak</b> .....	278
A) Etxebizitza erosteko eta birgaitzeke laguntzak	
⇒ <i>Administrazioaren isiltasuna etxebizitza librea erosteko laguntzen arloan</i> .....	278
B) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Udal etxebizitzak erosi ahal izateke oinarrizke errentatik lortutake diru-sarrereke uko egin behar izatea</i> .....	279
C) Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna	
⇒ <i>Errentan utzi diren udal titulartasuneko etxebizitzak mantendu eta kontserbatzeke lanen kudeaketa</i> .....	281
16. ZENBAIT GESTIO.....	283
<b>16.1. Sarrera</b> .....	283
<b>16.2. Aukeratutako kexak</b> .....	283
⇒ <i>Erlijio zentro bat hauteskunde lokal gisa erabiltzea</i> .....	283
⇒ <i>Apostasia gauzatzeke zailtasunak</i> .....	285

<b>II. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK</b> .....	287
1. Adin tartearen garrantzia adoptatzeko egokitasuna erabakitzerakoan .....	289
2. Oinarrizko errentaren prestazioa arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuan aipatzen den bizikidetzako unitate ekonomiko independentea berrikusteko beharra.....	295
3. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak Euskal Herriko udal zergen eremuan.....	305
<b>III. ATALA. TXOSTEN BEREZIAK</b> .....	315
1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EGIN ZIREN GOMENDIOAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK.....	317
2. 2006. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIAK .....	319
2.1. Etxerik gabe eta larriki baztertuta dauden pertsonen oinarrizko premiei emandako erantzunari buruzko txosten berezia.....	319
2.2. Ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzko txosten berezia.....	327
3. 2006. URTEAN EGITEN ARI DIREN TXOSTEN BEREZIAK.....	337
3.1. Hurrengo txosten berezia: gazteei zuzendutako etxebizitza politika publikoak EAEn .....	337
3.2. Hurrengo txosten berezia: adingabeek balioak bereganatzea.....	340
3.3. Hurrengo txosten berezia: terrorismoaren biktimen egoera eta beharrak EAEn .....	343
3.4. Hurrengo txosten berezia: gizarte esku-hartzearen sektorean lan egiten dutenen lan baldintzak .....	345
3.5. Hurrengo txosten berezia: Euskal Autonomia Erkidegoko arreta sozio-sanitarioaren egoera .....	348
3.6. 2006an zehar hasitako beste txosten berezi batzuk.....	349
<b>IV. ATALA. LEHENTASUNEZKO TALDEAK</b> .....	351
1. Berariazko arreta emakumeen eta gizonen berdintasunari.....	355
2. Berariazko arreta adinekoei .....	388
3. Berariazko arreta adingabeei.....	415
4. Berariazko arreta ezgaitasunen bat duten pertsoneri.....	495
5. Berariazko arreta atzerritarrei.....	505
6. Berariazko arreta ijito herriari .....	516
7. Berariazko arreta gizartean baztertuta edo miserian bizi diren pertsoneri .....	518

8. Berariazko arreta terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei .....	526
9. Berariazko arreta gay, lesbiana eta transexualei .....	527
10. Berariazko arreta espetxeratuei .....	529
11. Berariazko arreta gaitz kronikoa duten pertsoneri.....	533

**V. ATALA. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK.....** 535

1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK.....	537
1.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak .....	537
1.2. Arartekoak ematen dituen ikerketa bekak eta Arartekoaren argitalpenak .....	546
1.3. <i>Derechos Ciudadanos</i> deritzan ararteko autonomikoen aldizkari berria .....	548
1.4. UPV/EHUko Udako Ikastaroetako jardunaldiak: “Arartekoa, XXI. mendeko Ombudsmana” .....	550
2. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDERATUTAKO JARDUERAK.....	552
2.1. Herri defendatzaileen koordinaziorako XXI. jardunaldiak.....	552
2.2. Europar Batasuneko Estatu kideetako eskualdeetako herri defendatzaileen V. Mintegia .....	560
2.3. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XI. Biltzarra eta Batzar Orokorra.....	561
2.4. Arartekoaren eta Gasteizko Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren arteko lankidetzeta hitzarmena.....	563
3. ARARTEKO ERAKUNDEAREN BESTELAKO JARDUERAK.....	566

**VI. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN .** 567

1. OHAR ETA DATU OROKORRAK.....	569
2. ESTATISTIKA ALORREZ ALOR .....	574
3. ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA .....	579
A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak.....	580
B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak.....	581
C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak .....	582



D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kegak.....	587
E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kegak .....	587
4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA) .....	588
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA) .....	592
6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA) .....	603
7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK) .....	605
8. OFIZIOZKO JARDUERAK.....	607
9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK).....	608

## **VII. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA.....**

1. SARRERA ETA OHARRAK .....	613
2. ARARTEKOAK 2006. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA .....	618
A) Eusko Jaurlaritza .....	618
B) Foru aldundiak .....	619
C) Udalak .....	620
D) Beste erakunde publiko batzuk .....	624
3. ARARTEKOAK 2006. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA .....	625
A) Eusko Jaurlaritza .....	625
B) Foru aldundiak .....	627
C) Udalak.....	628
D) Beste erakunde publiko batzuk.....	632

## **VIII. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN.....**

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK.....	637
A) Eusko Jaurlaritza .....	637
B) Tokiko administrazioa .....	637

2	ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK .....	639
	A) Eusko Jaurlaritza .....	639
	B) Foru administrazioa .....	639
	C) Tokiko administrazioa .....	639
3.	ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK.....	642
	A) Eusko Jaurlaritza .....	642
	B) Foru administrazioa .....	642
	C) Tokiko administrazioa .....	643
4.	BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO .....	644
	Tokiko administrazioa .....	644
<b>IX. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK .....</b>		<b>645</b>
1.	BERDINTASUN PRINTZIOA.....	648
2.	OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK .....	653
	2.1. Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea .....	653
	2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubi- deak.....	655
	2.3. Intimitaterako eskubidea.....	655
	2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa.....	656
	2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen prin- tzipioa .....	658
	2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak .....	659
	2.7. Hezkuntzarako eskubidea .....	660
3.	HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK .....	661
	3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezketasun printzipioak .....	661
	2.2. Jabetza pribaturako eskubidea .....	662
4.	GIZARTE ESKUBIDEAK.....	663
	4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa .....	663
	4.2. Osasunerako eskubidea .....	665
	4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea .....	666
	4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea .....	667
	4.5. Urritu fisikoen, sentimenezkoen eta psikikoen eskubideak (ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak) .....	669
	4.6. Adinekoen eskubideak .....	670
5.	LABURBILKETA.....	671

**ERANSKINAK**

<b>I. ERANSKINA. KEXA-ESPEDIENTEEI DAGOZKIEN GOMENDIOEN ZERREDA.....</b>	<b>673</b>
1. GIZARTE EKINTZA	
9/2006 Gomendioa, martxoaren 23koa, Adunako Udalari egina, herritar bat eta bere bi semeak erroldan sar ditzan eta bi adingabeen hezkuntzarako eskubidea berma dezan .....	676
12/2006 Gomendioa, maiatzaren 30koa, Gasteizko Udalari egina, patologia duala duten pertsonen ematen zaien arreta hobetu dezan eta aterpeko araudia administrazioen zigor-ahalmena arautzen duen prozedurara egokitu dezan .....	680
18/2006 Gomendioa, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekin-tza Sailari egina, (...) tutoretzapeko adingabea babestean jarrera eraginkorra izan dezan.....	684
26/2006 Gomendioa, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuari egina, berriz hausnar dezan kexagileei, ezarritako adin mugaren irizpidean oinarrituta, adoptatzeko egokitasun ziurtagiria ez emateko erabakia ..	690
2. KULTURA ETA ELEBITASUNA	
19/2006 Gomendioa, ekainaren 27koa, Irungo Udalari egina, helburu hauekin:	
1. Irungo herritarrentzat berdintasunezko jai esparru bat lor dezan eta beharrezkoak diren ekintza positiboko neurri guztiak zuzen ditzan, formalki eta materialki. Neurri horien artean dago berdintasunean oinarritutako jai-egitaraua zabaltzea.	
2. Bertan behera utz dezan Alarde tradizional deritzan jar-duera pribatuari era material edo sinbolikoan laguntzeko edozein udal ekintza, Alarde horrek ez baitu emakumeen partaidetzarik onartzen.....	696
22/2006 Gomendioa, abuztuaren 29koa, Hondarribiko Udalari egina, Alarde publiko ez diskriminatzailearen antolakuntza dei dezan, edo, nolana ere, baimendutako Alardean Jaizkibel konpainia mistoa integratzea berma dezan, eta baimena emateko baldintza gisa ezar dezan datorren irailaren 8rako aurreiku-sitako alardean Jaizkibel konpainia barne hartzea .....	705
28/2006 Gomendioa, abenduaren 27koa, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari egina, Donostiako gas fabrika zaharrean kalifikaturiko on-dasunak ezarrita dauden babes-irizpideei jarraiki gordeko direla berma dezan .....	714

### 3. HEZKUNTZA

- 11/2006 Gomendia, maiatzaren 16koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina, Langraiz Okan bizi eta Gasteizko (...) BHIIn, D ereduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari diren adingabeei onartutako eskola-garraiorako laguntzak edo diru-kopuruak berriz azter ditzan 721
- 24/2006 Gomendia, urriaren 30ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina, familiek adierazitako bizilekuak errealitatearekin bat etortzea indartzeko neurriak susta ditzan, laguntza publikoez mantentzen diren ikastetxeetako ikasleak onartzeko prozesuetan..... 725

### 4. FUNTZIO PUBLIKOA

- 5/2006 Gomendia, otsailaren 23koa, Urnietako Udalari egina, enplegu sustapenaren arloan jarduerak garatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion langile-beharrak berriz defini ditzan, eta behar horiek betetzeko modua Konstituzioko berdintasun, mehezimendu eta gaitasun printzipioetara egokitu dezan..... 730
- 6/2006 Gomendia, martxoaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina, ahalmen urriko pertsonak EAEko irakasleen funtzio publikoan erabat integratuko direla ziurta dezan ..... 733

### 5. OGASUNA

- 23/2006 Gomendia, irailaren 20koa, Zornotzako Udalari egina, helbideratutako ur ordainagiri bat kobratzeko erabili den premiamendu prozedura baliorik gabe utz dezan eta ordainagiriak banku bidez helbideratzeari buruzko araudia alda dezan, herritarrentzat argiak eta ezagunak diren eskaeren ondorioen muga-egunak ezarri ..... 738
- 25/2006 Gomendia, azaroaren 17koa, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari egina, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari buruz orain erabiltzen duen interpretazio-irizpidea bazter dezan. irizpide horri jarraiki, Aldundiak garraiobidea matrikulatu aurretik egiten diren eskabideak bakarrik jotzen ditu bideragarritzat ez zergapetzea, zerga-salbuespena edo zerga-murrizketa onartzeko ..... 741

### 6. HERRIZAINGOA

- 1/2006 Gomendia, urtarrilaren 31koa, Bilboko Udalari egina, baliorik gabe utz ditzan herritar baten kontra izapidetu ziren bigarrenengo eta horren ondorengo trafikoko zigor-prozedurak, apartatze-ekintza bakar batengatik elkarren jarraian egin ziren salaketek eragindakoak ..... 745

10/2006 Gomendia, apirilaren 4koa, Gasteizko Udalari egina, kexak sortarazi dituen polizi jarduera iker dezan eta kexagileek jarduera hori salatuz udalaren bulegoetan aurkeztu zituzten idazkiei erantzun diezaien .....	751
16/2006 Gomendia, ekainaren 22koa, Gasteizko Udalari egina, trafiko arloan zigor bat nahitaez betearazteko premiamendu bidea indarrrik gabe utz dezan, horregatik jaso dituen diru-kopuruak itzul ditzan eta preskripziozko arauak aplikatzeari buruz iritzia eman dezan. ....	756
17/2006 Gomendia, ekainaren 26koa, Gasteizko Udalari egina, trafiko arloko zigor prozedura bat indarrrik gabe utz dezan eta, hala bada-gogio, horregatik kobratutako diru-kopuruak itzul ditzan..	760
<b>7. INGURUMENA</b>	
13/2006 Gomendia, ekainaren 20koa, Muxikako Udalari egina, industri jarduera bat legeza dezan eta beharrezko ikusketak egin daitezen, kautelazko neurririk hartu behar den ala ez erabakitzeko .	765
14/2006 Gomendia, ekainaren 20koa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari egina, industri jarduera bateko isurpen-gune batzuk araupetzera behartu dezan, eta horien gainean beharrezko kontrol jarduerak egin daitezen .....	765
<b>8. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK</b>	
2/2006 Gomendia, otsailaren 10ekoa, Orioko Udalari egina, kalteengatiko ordaina jasotzeko eskabide bat bidera dezan, legez ezarritako prozeduraren arabera eta berme guztiak betez.....	776
20/2006 Gomendia, uztailaren 3koa, Portugaleteko Udalari egina, berraztertze errekurtso bat berariaz ebatz dezan, herri-bidean gertatutako erorketa batek eragindako lesioei dagokienez bere ondare-erantzukizuna onar dezan eta behar den kalte-ordaina ordain dezan .....	780
21/2006 Gomendia, uztailaren 19koa, Donostiako Udalari egina, alde zahar-rako sarbidean dagoen gontza batek kaltetuaren ibilgailuan sortu zituen kalteengatik hark egin duen ondare erantzukizunezko erreklamazioa onar dezan eta sortutako kaltearen zenbatekoa ordain diezaion .....	787
27/2006 Gomendia, abenduaren 20koa, Derioko Udalari egina, herri-bidean mahaiak eta aulkiak jartzea arautzen duen ordenantza bete dezan .....	792
<b>9. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA</b>	
3/2006 Gomendia, otsailaren 20koa, Atxondoko Udalari egina, lurzati bat ixteari buruz hirigintzako legeria beteko dela bermatzeko neurri egokiak har ditzan.....	796

4/2006 Gomendia,	otsailaren 22koa, Ordiziako Udalari egina, helburu honekin: Oianguren eraikinaren eta horren jabetzen aprobetxamendu eta ustiapenerako emakida esleitzeko sinatu zen kontratua baliogabetu dezan, zehazki, proiektuaren hautabide edo aldaera bezala aurkeztutako zatia.  Aisialdi eta atsedenerako instalazio eta erabilpen berriak gauzatzeko eta ustiatzeko proiektua esleitzeko araudiak aurreikusten duen lege prozedura erabil dezala, behin plan berezia eta IEA legeak agindu bezala bideratzen direnean. ....	799
7/2006 Gomendia,	martxoaren 16koa, Aramaioko Udalari egina, planeamenduko arau subsidiarioetatik ken dezan nekazaritza tresnak gordetzeko txabolak eraikitzeko exijitzen den erroldatze-baldintza .....	807
8/2006 Gomendia,	martxoaren 23koa, Legazpiko Udalari egina, elkarte gastronomiko baten titularrari zaratak sorturiko eragozpenak saihesteko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak har ditzala eska diezaion .....	811
10. ETXEBIZITZA		
15/2006 Gomendia,	ekainaren 20koa, Gasteizko Udalari egina, udal horrek sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzetarako irispidean berriz azter dezan gutxienez bost urtez erroldatuta egoteko baldintza .....	816

<b>II. ERANSKINA: GARRANTZI BEREZIA DUTEN ARARTEKOAREN BESTE EBAZPEN BATZUK.....</b>		<b>823</b>
1.	Arartekoaren ebazpena, 2006ko azaroaren 6koa. Horren bidez, Sestaoko Udalari, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Harremanetako eta Hirigintzako Departamentuari jakinarazi zaizkie Sestao birgaitzeko prozesuari buruzko ondorioak eta gomendioak.....	825
2.	Txingudi inguruan hiri-hondakinen errausketa-instalazioa jartzeko proiektuaren gaineko kexa-espeditenteei amaiera ematen dion ebazpena .....	846
3.	Iradokizuna, 2006ko azaroaren 8koa, Plentziako Udalari egina, helburu hauekin: – iradokizun honetan helarazi dizkiogun funtsezko gogoetak onar ditzala: alegia, udalaren etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzan, babes publikoko etxebizitza guztientzat, eskuratzeko baldintza komun batzuk finkatu beharra dagoela, eta	

- gainontzeko herri-administrazio eskudunekin batera, babes publikoko etxebizitzentzat adostutako araudi komuna zehazteko balizko prozesuan parte har dezala. .... 854

### III. ERANSKINA: GRAFIKOAK..... 859

- 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregularitasuna administrazioaren jokoeran 2006an burututako kexetan ..... 861
- 2. Diagrama: Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra..... 861
- 3. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-2006)..... 862
- 4. Diagrama: 2006an jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren..... 862
- 5. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa jardue-  
ra alorren arabera..... 863
- 6. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa era-  
gindako administrazioen arabera ..... 863
- 7. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen  
banaketa alorren arabera..... 864
- 8. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen  
banaketa sailen arabera ..... 864
- 9. Diagrama: Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen  
banaketa alorren arabera..... 865
- 10. Diagrama: Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa  
alorren arabera..... 865
- 11. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera  
(1989-2006)..... 866
- 12. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera  
10.000 biztanleko (1989-2006)..... 866
- 13. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erreklamatzailen  
ezaugarrien arabera ..... 867
- 14. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkun-  
tzaren arabera ..... 867
- 15. Diagrama: Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren  
arabera..... 867
- 16-17. Diagramak: 2006an arreta zuzeneko bulegoetan jasotako  
bisitak (kopurua eta ezaugarriak) ..... 868
- 18. Diagrama: Banaketa adin taldeen arabera..... 868
- 19. Diagrama: Kexa bilakatutako bisitak..... 869
- 20. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2006). Banaketa alorrez  
alor ..... 870
- 21. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2006). Eragindako admi-  
nistrazioen arabera banaketa..... 870

---

- 22-27. Diagramak: Erreklamatzailerak Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak).....	871
- 28-29. Diagramak: Arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da” dioten erreklamatzailerak Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa.....	874
<b>GAIEN AURKIBIDEA .....</b>	<b>875</b>



## AURKEZPENA

Iazko urteko txostenaren aurkezpena Euskaltzaindiari hartutako “Ekin eta Jarrai” goiburuari fidelak izateko asmoa genuela adieraziz amaitu nuen. Izan ere, oso ondo laburbiltzen du Ararteko erakundearen jardueren oinarrian egon beharreko espiritua, jarraitasuna eta berrikuntza bateratuz, hau da, gure lanabesak zabaltzeko alor berriak bilatu behar ditugu etengabe, euskal administrazio publikoen jardueren edo jardun ezaren aurrean pertsonen eskubideen alde eginez.

2006. urteari dagokion Ararteko erakundearen urteko txostenak, zorionez aurkezteko aukera dudanak, joan den urtean Arartekoan, Euskadiko Ombudsmanean, lan egiten dugun 48 pertsonok egindako jarduera- eta ekintza-multzoa jasotzen du, Erakundea arautzen duen Legeak ezarritako moduan. Ohore bat da niretzat erakunde hau zuzendu eta ordezkatzea. Aurten, berrikuntza moduan, txostenaren testua formatu bikoitzean aurkeztuko dugu: liburuan, orain arte bezala, eta CD-Rom euskarrian. Horrela, batetik, txostenaren hedapena hobetzen lagunduko dugu, eta, bestetik, etorkizunean papera deuseztatu, eta txostena modu interaktiboagoan aurkeztu ahal izateko saiakera egingo dugu.

Txostenean Ararteko erakundean izapideturiko kexa-espeditteen berri ematen da, gaika sailkatuta. Sailkapena erakundean eraturako gai arloen arabera, eta herritarrek euskal administrazio publiko baten jardunari buruz –edo jardun ezari buruz– aurkeztutako erreklamazioaren arabera egin da. Kexaren prozedurak, logikoki, arazoan agertzen den administrazioak esateko duena entzutea eskatzen du, haien jarrera zein den zehazteko. Aurten ere, zoritxarrez, azpimarratzekoa da kasu askotan (informazio estatistikoan antzeman ahal izango den moduan) delako administrazioak ez duela behar bezain azkar erantzuten edo bidalitako informazioa ez dela nahikoa izaten, alegia, eginiko eskaerarekin bat ez datorrela. Horrek guztiak eragin negatiboa du guk eskaintzen dugun zerbitzu publikoaren kalitatean.

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen arabera, Arartekoa “*Legebiltzarraren goi ordezkaria da eta Konstituzioaren I. tituluak jasotako eskubideak defendatzeaz arduratzen da, legea beteko dela bermatuz*”; baina, gure zereginik behinena hori den arren, ez dugu kexak izapidetze hutsera mugatu behar. Kexekin zerikusia ez duten jardueren artean, lehenik eta behin, prestazio publiko, baliabide, dispositibo edo errealtateen gaineko ezohizko txostenak nabarmendu nahi nituzke; horiek hobetzeko helburuarekin aztertu behar dira, EAEko gizon-emakume guztiak berdintasun egoera batean baliatu daitezten dagozkien eskubideez.

Ezohizko txostenez gain, eta lehen ere adierazitako helburuari helduz, Arartekoak hainbat jarduera egiten dituela adierazi behar dut, urraketa, defizit, arrisku edo ahulta-

sun egoeran dauden talde edo pertsona multzoekin, oinarrizko eskubideak erabiltzeari dagokionez. Bilerak egiten ditu, bai gizarte erakundeekin, bai administrazio publiko ezberdinen arduradunekin; jardunaldi, biltzar eta mintegietan parte hartzen du; ikerketarako bekak ematen ditu, etab. Baliabide horiek guztiak estuki loturik daude adierazitako egoeren gaineko informazio zehatza eta eguneratua izateko helburuarekin. Horrela, ondorenean, administrazio eskudunei zuzenduriko gomendioak egingo dira. Hamaika talderen errealitatea da geroz eta intentsitate handiagoarekin lantzen dena: emakumeak; adingabeak; adinekoak; ezgaitasunak dituzten edo funtzionaltasun alternatiboko pertsonak; atzerritarrak edo etorkinak; gutxiengo etnikoak; indarkeria terroristaren biktimak; gayak, lesbianak, transexualak eta bisexualak; espetxean dauden gizon-emakumeak; pobrezian bizi diren pertsonak, eta gaixotasun kronikoak zein buruko gaixotasunak dituzten pertsonak. Ombudsman erakunde honek esandako alor horietan lan proaktiboa eta eragilea egiteak esan nahi du Arartekoak adingabearen, emakumearen, adinekoaren eta abarren defendatzailea izan behar duela, Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria den aldetik. Azpimarratu nahi dugu aipatutako kolektiboen alde lan egiten dugunean garrantzitsua eta balio handikoa dela zeharkako ikuspegia; horrela, bereizkeria, bazterkeria, ezberdintasunak eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako arrisku izan daitezkeenak deuseztatzearen alde lan egiten dugu, eta baita adierazitako taldeen eskubideen errespetuaren alde ere.

Giza eskubideak defendatzen dituen erakundea garen heinean, aurten ere indar bereziarekin azpimarratu behar dugu beharrezkoa dela giza eskubideen kultura sendotzea. Horrela, bai botere publikoek, bai herritarrek, alegia, gutako bakoitzak, giza eskubideen errespetuaren printzipioa sustatu eta sendotzeko lan egin behar du. Orain dela gutxi argitaratu nuen iritzi artikulu batean jasotako hitzak erabiliz, giza eskubideak babestu eta hobetuko badira, herritarrok konpromisoa hartu behar dugu, zorrotzak izan behar dugu eta eskubideak bete eta babesteko balio demokratikoak sendo barneratuak izan behar ditugu; agerikoa denez, arlo horretan oraindik asko dago egiteko Euskadin, guk uste. Giza eskubideen etikaren eremuan kokatu behar dugula iruditzen zait, eremu horretatik abiatuta, hainbat konpromiso proposatzeko: ETArri desager dadila eskatzea, gizarte ekintzan jardutea beharra duten pertsonen lagunduz; solidaritatea praktikan jarri, eta gizarte kohesioaren alde egitea; botere publikoei arlo guztietan kalitateko demokrazia eskatzea, giza eskubideak urratzen dituzten edo behar bezala bermatzen ez dituzten egoerak salatuz.

ARARTEKOA  
*Iñigo Lamarca Iturbe*

## **I. ATALA**

ARARTEKO ERAKUNDEAREN  
JARDUERARIK  
GARRANTZITSUENETAKO  
BATZUK ALORREZ ALOR,  
KEXA-ESPEDIENTEAK ETA  
OFIZIOZKO KEXAK BIDERATZEAN



Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkioten kexak ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarrizko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.678 kexak eta 2006 urtean hasi ditugun ofiziozko 64 jarduerak askotariko arazoan erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal herritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena saihesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe –ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa baten bidez–. Hala ere, ofiziozko espedienteak “OF” erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, “erreklamazioa” atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedientea aztertzea eta ebatzea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.

2006an berrikuntza garrantzitsu batzuk izan dira. Hirigintzaren eta Etxebizitzaren alorra bi azpialor autonomotan banatu da, etxebizitzari buruzko kexek hartu duten garrantziagatik. Gizarte Ongizatearen alorrak Gizarte Ekintza izena hartu du, kontzeptuei dagokionez izendapen egokiagoa dela pentsatu baita. Animalien Babesaren alor berria sortu da, nahiz eta jasotako kexa-kopuruari dagokionez ez den oso nabarmena. Azkenik, azpialorren araberako sailkapen berria egin da. Kasu batzuetan, ahaleginak egin dira azken urteotan sortzen ari diren jarduteko esparru berriak islatzeko edo alor bakoitzean kexak modu egokiagoan banatuta gera daitezzen lortzeko.

Alorren eta azpialorren araberako sailkapen berria honako hau da:

- Gizarte Ekintza
  - Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza
  - Familiari eskainitako laguntza
  - Haur eta gazteei eskainitako laguntza
  - Emakumeei eskainitako laguntza
  - Ezgaitasunen bat duten pertsoneri eskainitako laguntza
  - Adinekoari eskainitako laguntza
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Beste batzuk
  - Diruzko gizarte prestazioak
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  
- Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa
  - Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza
  - Merkataritza
  - Kontsumoa
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Industria
  - Beste batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Turismoa
  
- Kultura eta elebitasuna
  - Kultur jarduerak
  - Elebitasuna
  - Kirola
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Beste batzuk
  - Kultur ondarea
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  
- Hezkuntza
  - Ikasleentzako onarpena
  - Batxilergoa
  - Bekak eta beste laguntza batzuk
  - Ikastetxeak – itunak
  - Ikastetxeak – instalazioak
  - Ikastetxeak – antolakuntza
  - Jantokia
  - Eskubideak eta betebeharrak
  - Helduen hezkuntza
  - Haur hezkuntza
  - Lehen hezkuntza

- Derrigorrezko bigarren hezkuntza
  - Hizkuntz irakaskuntza
  - Unibertsitateko irakaskuntza
  - Arte irakaskuntzak
  - Arte irakaskuntzak – Musika
  - Lanbide heziketa
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Hezkuntza-premia bereziak
  - Beste batzuk
  - Hezkuntza-plangintza/programazioa
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Eskola-garraioa
- Funtzio publikoa
- Irisgarritasuna
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Prestakuntza
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Bateriaezintasunak
  - Lizenziak eta baimenak
  - Hizkuntz normalizazioa
  - Antolamendua: kidegoak eta eskalak
  - Beste batzuk
  - Beste eskubide eta betebeharrak
  - Barne sustapena
  - Lanpostu hornikuntza
  - Lanpostuen zerrenda
  - Ordainsariak
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Diziiplina-erregimena
  - Hautaketa
  - Administrazio egoerak
  - Ordezkapenak
  - Lanpostuen balorazioa
- Hainbat gestio
- Haurren eskubideak
  - Hainbat gestio
- Ogasuna
- Udal zerga bereziak
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Foru aldundiek toki zergei dagokienez garatutako kudeaketa-lanak
  - Foru zergak – PFEZ
  - Foru zergak – OEZ

- Foru zergak – BEZ
  - Foru zergak – oinordekotzak eta dohaintzak
  - Udal zergak
  - Beste batzuk
  - Prezio publikoak – EAE
  - Foru prezio publikoak
  - Udal prezio publikoak
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - EAeko tasak
  - Udal tasak
- Herrizaingoa
- Atxiloketa-zentroak
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Jokoak eta ikuskizunak
  - Beste batzuk
  - Babes zibila
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Hauteskundeak
  - Herritarren segurtasuna
  - Segurtasun pribatua
  - Trafikoa
- Justizia
- Espetxe gaietako jarduerak
  - Doako laguntza juridikoa
  - Abokatu eta prokuradore elkargoak
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Ordezko zigorren betearazpena
  - Justizi Administrazioaren funtzionamendua
  - Justizi Administrazioaren giza baliabideak eta baliabide materialak
  - Adingabe lege-hausleak
  - Beste batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
- Ingurumena
- Sailkatutako jarduerak lurzoru urbanizaezinean
  - Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan
  - Sailkatutako jarduerak bizitegitarako lurzoruan
  - Natur gune babestuak, floraren eta faunaren babesa
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Hondakinak eta isurketak



- Herri lanak eta zerbitzuak
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Azpiegiturak
  - Beste batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Tokiko zerbitzu publikoak
  - Garraioak
  
- Animalien babesa
  - Irisgarritasuna
  - Ikuskizunak eta jarduerak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Gune zoologikoak
  - Beste batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Animaliak edukitzea
  
- Osasuna
  - Osasun laguntza
  - Erabiltzaileen eskubideak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Beste batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzuna
  - Buruko osasuna
  - Osasun publikoa
  
- Lana eta gizarte segurantzza
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Beste batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna
  - Gizarte segurantzza
  - Lana
  
- Hirigintza eta lurralde antolamendua
  - Irisgarritasuna
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Hirigintza-diziplina eta aurria
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Hirigintza-kudeaketa
  - Hirigintza-antolamendua
  - Beste batzuk
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna

- Etxebizitza
  - Irisgarritasuna
  - Etxebizitzaren beharra egiaztatzea
  - Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak
  - Eskubideak eta askatasunak
  - Etxebizitza babestuetan eraikuntza-akatsak eragindako kalteak
  - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
  - Beste batzuk
  - Etxebizitza babestuak esleitzeko prozedura
  - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna

## 1. GIZARTE EKINTZA

### 1.1. SARRERA

2006an 116 kexa jaso dira arlo honetan, hau da, erregistratutako kexa guztien % 6,91.

Eragindako administrazioak kontuan hartuta, banaketa hurrengoa da:

- Foru administrazioa .....	58
- Toki administrazioa .....	39
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	25

Administrazio horietako bakoitzak eskumen ezberdinak ditu adierazitako alorrean, beraz, hiru administrazioen artean gizarte alorreko eskumenak banatzen diren moduak neurri handi batean zehazten du administrazio bakoitzak jasotako kexa-kopurua. Banaketa konplexua da. Eskumen ezberdinen antolamendua Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen eta Gizarte Zerbitzuen Alorreko Egitekoak Zehazteko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren bidez egin da. Horiek zerbitzu eta prestazioak egokitzen dizkiete administrazio ezberdinei: Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei.

Alor horretan proposaturiko gaien edukiari arreta emanez gero, azpialorren hurrengo sailkapena ikusi ahal izango dugu:

- Diruzko gizarte prestazioak .....	41
- Nagusiei eskainitako laguntza .....	19
- Familiari eskainitako laguntza .....	16
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	13
- Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza .....	9
- Ezgaitasunen bat duten pertsonen eskainitako laguntza .....	7
- Eskubideak eta askatasunak .....	3
- Beste batzuk .....	3
- Haur eta gazteei eskainitako laguntza .....	2
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	2
- Emakumei eskainitako laguntza .....	1

Kexa izapidetzeaz gain, txostena ere aurkeztu da Legebiltzarrean; hots, *Gure Erki-degoan etxerik gabeko eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen oinarrizko premiei ematen zaizkien erantzunak* ezohizko txostena.

Bestalde, berrikuntza moduan, aurreko txostenak atal bat eskaintzen die bazterkeria-egoeran dauden pertsonen, arreta zehatza behar duen gizarte taldea delako. Horrela, antzemaniko premiak, eskura dauden baliabideak, gabeziak, eta abar aztertuko dira.

2006. urtea garrantzitsua izan da gizarte politikaren alorrerako, **Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Horiei Zuzendutako Arreta Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea** (2006ko abenduaren

15eko EAO) eztabaidatu, eta onartu egin zelako. Lege hori 2007ko urtarrilaren 2an jarri zen indarrean.

Adierazitako eztabaida bat etorri da Eusko Jaurlaritzak, gizarte zerbitzuen inguruan, bultzatu duen hausnarketarekin. Gobernuaren eratzeko koalizio akordioan Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa garatzeko konpromisoa jaso zen, horren bidez **gizarte zerbitzuen euskal sarea** antolatu eta planifikatzeko. Egia esan, oso interesgarria izango litzateke euskal sarea eratzea, eta betekizunak, zerbitzuak eta prestazioak bateratzea, hiru lurralde historikoetan egun agertzen diren aldeak orekatzen joateko.

Mahai gainean jarritako kontuen artean, hurrengo hauek agertzen dira:

- Gogobetetasun bermeak bilduko dituen **zerbitzu multzoa** ezartzeko beharra, hiritarrek exiji dezaketen eskubide subjektiboaren izaera izatera iris daitekeen gutxieneko estaldura eduki dezan. Ondorenean, gizarte zerbitzuen lege berria egitea.
- Gizarte Zerbitzuetako Funtzioak Banatzearen Inguruko 155/2001 Dekretua **zalantzan jartzea**, batez ere pertsona autonomoen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arteko ezberdintzea. Horrekin batera, administrazio bakoitzari dagozkion funtzioak finantzatzea.
- Oinarriko gizarte zerbitzuen gabezia batzuk, erakunde honek hainbat gomen-diotan ere azpimarratu izan duen moduan. Adibidez, oinarriko gizarte zerbitzuei buruzko ezohizko txostenean bildutakoak: gizarte langileek kudeaketa-lanei eskainitako gehiegizko denbora zuzeneko arretarenaren kaltetan, edo udalerrri ezberdinetan gizarte langile bakoitzeko erabiltzaile ratio ezberdina.
- Prestazio batzuetan antzemaniko desberdintasuna, udalerrria eta lurraldea zein den gorabehera.
- Sistema **unibertsala bihurtzea**. Puntu hori ere erakunde honek azpimarratu izan duena da. Horren bidez, gizarte zerbitzuak pertsona guztiei irekiko zaizkie, beren errentak eta ondarea zeintzuk diren alde batera utzita.
- Erakunde pribatuekin dagoen harremana.
- Erantzukizunen banaketa, **erakundeen arteko koordinazioa**, lurraldeen arteko eremuan ere.

Lehen ere adierazi dugun moduan, eztabaida eta hausnarketa horiek bat datoz gizarte zerbitzuei eragiten dien Mendekotasun Legea indarrean jartzearekin. Hori dela eta, une egokia da gizarte zerbitzuei diseinu berria emateko, eta horiek hobetzeko eta sendotzeko.

**“Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala bultzatu eta haiek zaintzeko” estatu mailako lege** berri horri dagokionez, garrantzitsua iruditu zaigu bere edukia jasotzea, araudi berriak berrikuntza dakarrelako eta adierazitako alorrean helmenekoa delako. Bertan jasotako arauak gizarte zerbitzuetan dute eragina eta autonomi erkidego guztietarako gutxieneko edukia ezartzen dute. Azpimarratu behar da, orain arte, gizarte zerbitzuek garapen autonomikoa eta lokala izan dutela. Lege honek eguneroko funtsezko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrei arreta ematea sustatzen du. Pertsona horien artean, honako hauek daude: zahartzearen ondorioz bizitzako azken faseetan arreta behar duten adinekoak; eta gaixotasun kroniko, sortzetiko asaldura edo errepidean zein lanean izandako istripu baten ondorioz ezinduta geratu diren pertsonak.

Arreta-eskaeraren gehikuntza “zahartzearen zahartzeak”, oro har biziraupen tasa handiagoek, famili eredu berrien ondorioz gertatutako gizarte aldaketek eta emakumea lan merkatuan sartzeak eragin dute.

Legeak babes sistema berria dakar –Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomiarako eta Horiei Zuzendutako Arretarako babes sistema–; horrek gizarte zerbitzuetan eragina du, mendekotasun egoerei arreta eskaintzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko beharrari erantzuten baitio, bizi kalitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko.

Arestian aipatu bezala, gizarte zerbitzuak autonomi erkidegoek garatu dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoa oso kritikoa izan da lege horrekin, eskumen autonomikoei eraso egiten ziela pentsatu baitzuen. Gauza da gizarte zerbitzuak beren beregi administrazio autonomikoak eta toki administrazioak garatu dituzte eta, gure kasuan, Lurralde Historikoen Legea aplikatuz, foru aldundiek. Gizarte laguntza autonomi erkidegoen eskumena da. Horregatik, legeak administrazio publiko guztien lankidetzeta eta parte-hartzea aurreikusi du, funtsezkoa dena bere aplikaziorako. Gainera, ezartzen dituen prestazioetako asko (telelaguntzako zerbitzuak, etxex etxeko laguntza, egoitzazerbitzuak, eguneko zentroak, laguntza teknikoak edo eguneroko bizitzan beren kabuz moldatzeko beharrezko tresnak...) dagoeneko garatu dituzte hemengo administrazio, udal eta aldundiek, gizarte zerbitzuen legea garatzeko 155/2001 Dekretuak ezarri zuen eginkizun banaketarekin bat etorriz. Bestalde, osasun zerbitzua ere Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatzen du, beraz, gizarte eta osasun zerbitzuen arteko koordinazioa beharrezkoa izatea azpimarratzen duten adierazpenek kontuan hartu beharko lukete eskumen banaketa hori eta erkidego batzuetako esparru soziosanitarioaren definizioan, sorreran eta garapenean eginiko urratsak, gure erkidegoakoaren kasua adibidez.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, uste dugu beharrezkoa dela lege horren ezaugarrietako batzuk azpimarratzea. Horien artean hurrengoak azpimarra ditzakegu: laguntzaren erantzukizuna publikoa izatea, zuzeneko edo zeharkako kudeaketa bidez garatuko dena; mendekotasun egoeran dauden pertsona guztientzat laguntza hori eskuratzeko eskubidea unibertsala izatea; familien papera, etxean mendekotasun egoeraren bat jasaten duen norbait izatea ahalbidetzeko laguntza emanaz, eta administrazioen arteko lankidetzeta beharrezkoa dela adieraztea, mendekotasun egoeran dauden pertsonen beren beharretara hobekien egokitzen zaizkien gizarte eta osasun prestazioak eskura ahal izan ditzaten.

Horrela, autonomi erkidegoak arduratuko dira mendekotasun maila ebaluatuko duten organoak izendatzeaz, edozein prestazio eskuratzeko alde aurretik egin beharreko urrats gisa. Horiek horrela, Arabako Biltzar Nagusiek, azaroaren 20ko 12/2006 Foru Arauaren bidez, kasuan kasuko foru organoari plantilla handitzeko baimena eman diote; era horretan, profesional osagarri horiez baliatuta, hobeto egin ahal izango die aurre zeregin horiei. Autonomi erkidegoek adieraziko dute baita ere zein prestaziotarako eskubidea duten eta, horretarako, banakako arreta-programa ezarriko dute.

Legeak gutxieneko babes maila ezartzen du, Estatuko Administrazio Orokorrak Estatuko lur eremuko edozein lekutan bizi diren herritar guztientzat eskubideen gutxieneko eduki komuna berma dezan. Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomi erkidegoek lankidetzeta- eta finantzaketa-erregimena ezarriko dutela aurreikusten du beste prestazio eta zerbitzu batzuk garatzeko, eta autonomi erkidegoek beste babes mailaren bat ere eskaini ahal izango dutela, hori egoki iritziz gero. Autonomi erkidegoekin koordinatzeko, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomiarako eta Horiei

Zuzendutako Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseilua sortzea erabaki da. Kontseilu horretan honakoak aztertuko dira: prestazio ekonomikoen baldintzei eta zenbatekoari buruzko kontuak; onuradunek zerbitzuen kostuan izango duten parte-hartzea zehazteko irizpideak; eta mendekotasun egoera aitortzeko baremoa.

Oraingoan, Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoari 2,6 milioi euroko diru-laguntza ematea erabaki du, abenduaren 29ko 1633/2006 Errege Dekretuaren bidez. Ordainketa bi administrazioen artean kasuan kasuko lankidetzaz hitzarmena sinatu ondoren egingo da, legean aurreikusitakoari jarraiki.

Bestalde aipatzen da onuradunek pixkanaka lagunduko dutela zerbitzuak ordaintzen, dituzten errentaren eta ondarearen arabera eta eskainitako zerbitzu mota eta horren kostua kontuan hartuta.

Partaidetza-sistema ere ezarriko da, mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta hauen senideen ordezkari gisa diharduten erakundeek eta onuradunek esku har dezaten, hurrenez hurren, kontsulta-organoen eta kontseiluen bidez.

Zerbitzuak zentro eta programa publiko edo itunduen bidez (lehen ere aipaturikoak), zerbitzuaren kontrataziora atxikitako prestazio ekonomikoen bidez (zerbitzuen eskaintza publikorik ez dagoenean), familiak eskainitako zaintzengatik konpentsazio ekonomikoaren bidez edo laguntza pertsonalizatuaren prestazioaren bidez (etxebizitzan bizikidetzaz eta bizigarritasun baldintza egokiak agertzen direnean) eskainiko dira. Prestazioen katalogoari dagokionez, aurten hainbat kontsulta jaso ditugu foru aldundiek ordura arte ardurapean hartu ez zituzten zenbait prestazioren inguruan, besteak beste, zaintza famili ingurunean eskaintzeagatik diru konpentsazioa edo ezinduei zuzendutako laguntza pertsonalizatuko prestazioa. Horregatik, azken kasu honetan administrazio eskudunari zuzendu gataizkio (Arabako Foru Aldundiari), araudi hau aplikatzeko aurreikuspenen berri eman ziezagun.

Lege hau pixkanaka aplikatu behar da, mendekotasunagatik prestazioak jasotzeko eskubidea datozen urteetan joan dadin eraginkor bihurtzen, mendekotasun mailaren arabera. Horrela, 2007an III. mailako mendekotasuna (hots, mendekotasun handia) aitortzen zaienei aplikatuko zaie. Era berean, prestazioen katalogoa (eguneko zentroak, etxeko arreta-zerbitzuak, telelaguntza...) 2007 eta 2015 artean ezarriko da.

Azken batean, legeak mendekotasun egoeran dauden pertsonen eskaintako arreta-sistema berria sortzea proposatzen du, baina horretarako ezarritako prestazioak normalizazio, gertutasun eta izaera komunitarioko garapen garrantzitsua izan duten gizarte zerbitzuen ardura dira, behinik behin gure autonomi erkidegoan. Beharbada horregatik, esan dezakegu lege honi egin dakizkiokeen kritika nagusienetako bat zehaztugabea dela da, onartzen diren eskubidearen eta prestazioen benetako edukia eta garrantzia araz garatu behar direla eta autonomi erkidegoekin sinatu beharreko akordioen menpe geratzen direla aipatzen baitu.

Aurten ere, **gizarte eta osasuneko alorraren garapenean** izandako aurrerapausoak bildu nahi ditugu, une honetan berebiziko garrantzia duen arazoa izateagatik gizarte zerbitzuentzako. Gure txosten eta gomendioetan azpimarratu izan dugun moduan, gizarte zerbitzuek gainezka egiten dute erabiltzaileen osasun arretako beharretatik, eta alderantziz, erabiltzaile batzuen osasun laguntza eta tratamenduak baldintzaturik daude gizarte baliabideen eskasiagatik. 2005-2008 Euskal Herriko Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako Plan Estrategikoaren aplikazioan ez da oraindik aurrerapauso esanguratsurik egin, nahiz eta Planaren Jarraipen Batzordea

eratu den, RAI-RUG III mendekotasunaren balorazio sistemaren ezarpena bezalako ekimenak gauzatu diren, gizarte zerbitzuetatik eta osasunekoetatik emango den Euskal Herriko zerbitzu soziosanitario multzoaren garapenean jarduera protokoloak antolatu izan diren, etab.

2006ko azaroaren 24ko eztabaidaren ondorioz, Eusko Legebiltzarrak hainbat ebazpen onartu zituen, ezinbestekoak horiek Euskal Herriko Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako Plan Estrategikoa garatzeko. Jada aipatu ditugun alde batzuen gaineko ebazpenez gain, azpimarratzekoak dira finantzaketa egonkor eta beharrezkoarekin, plana “mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala bultzatu eta haiek zaintzeko” estatu mailako legera egokitzearekin edo gizarte zerbitzuen lege berriak esparru soziosanitarioa arautzeko gomendioarekin zerikusia dutenak.

Bestalde, ebazpen batek Ararteko erakundeari eskatzen dio azterketa eta txostena egin ditzala arreta soziosanitarioaren egoerari eta premiei buruz. Horri dagokionez, osasun arloari jakinarazi zaio jada ekin zaiela txostena egiteko beharrezko jardunei.

Arlo soziosanitario honekin zerikusia duten zenbait kexa jaso ditugu, eta beste batzuk **gizarte bazterkeria jasaten ari ziren pertsonekin** zerikusia zutenak izan dira. Zehazki, baliabideak falta dituzten pertsona batzuk alkoholarekiko duten mendekotasuna uzteko jarraitu nahi duten programarekin zerikusia izan dutenak dira. Horiek agian ez dute etxebizitzarik, edo arazoak izan dituzte gizarte baliabideen kudeatzaileekin (kaleratzea...), edo gizarte baliabideak ez dira haien beharretara egokitzen edo ez dute tratamenduaren alde egiten (adibidez gainerako erabiltzaileek alkohola kontsumitzen dutenean). Horixe da hain zuzen alkoholarekin arazoak zituen pertsona batek behar izandako laguntza zehatzaren kasua, gerora lan munduan sartzeko. Izan ere, hainbat urtetan lanean aritu izan bada ere, larrialdiko baliabideek ez dute gaitasunik pertsona bakoitzaren inguruabarretara egokitzeko. Kasu horietan osasun tratamenduari egokitu-riko gizarte baliabideak bermatu beharko liriateke, konponbidearen arrakasta bermatzeko edota horren alde egiteko, alegia, eremu soziosanitarioa arinki eta modu koordinatuan garatu behar da.

Arazo berdina azaldu zen beste espediente batean, ofiziozkoa kasu hartan. Kexalaburpenean kontsulta daiteke espediente hori, 6/2006O erreferentziarekin. Espediente horretan Gasteizko Udaleko kaleko hezitzaileek kalean bizi zen pertsona batek desintoxikazio programa bat onartzea lortu zuten, baina hari ezinezkoa izan zitzaion horrekin hastea, gizarte baliabiderik ez zegoelako (bizitoki eta elikadura egokia). Gizarte zerbitzuei ezaguna zitzaien patologia dualeko kasu bat zen, eta erabiltzen zituen gizarte baliabideetan indarkeriazko egoerak azaldu izan zituen. Bi kasu horiek argi uzten dute bi sistemak elkarren menpe daudela. Gizarte zerbitzuek osasun zerbitzuak behar dituzte eta osasunekoek gizartekoak. Koordinazio faltaren ondorioz, martxan jartzen diren baliabide askok ez dute inolako emaitzarik ematen, eta are okerragoa dena: arreta-faltako egoerak edo arreta desegokikoak izaten dira. Zenbait talderentzako hainbat urrats egiten ari badira ere esparru soziosanitarioan; adineko pertsonentzako, adibidez, ez dira aurrerapauso berdinak antzematen ari gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonentzako egiten ari direnekin alderatuta.

Azken kexa horrek, halaber, geroz eta garrantzi handiagoa izango duela uste dugun kontua jarri zuen mahai gainean. Gizarte zerbitzuen garapenaren ondorioz, geroz eta beharrezkoagoa da ahalik eta araudi osatuena izatea. Oraindik hainbat gai daude arautzeaz, nahiz eta azken urte hauetan urratsak egin izan diren prestazio ekonomiko

nagusien araudia, adineko pertsonena bezalako talde batzuentzako baliabide eta azpiegituren ezaugarriak, erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrak, etab. arautzeko.

Arautu zain dauden alorren artean gizarte baliabideen arau-hauste eta zigor erregimenak daude. Baliabideetan badira bizikidetzako arauak eta toki ikusgaietan kokatzen dira, baina, orokorrean, arau horiek otsailaren 20ko 2/1998ko Legeak ezarritako printzipio eta araudiaren zigor eskumenera egokitzea falta da, adierazitako espediente ebatzi zuen gomendioan proposatu genuen moduan (6/2006O). Edozein zehapen prozeduran ezinbestekoa da interesdunak esateko duena entzungo dela bermatzea, hari ebazpena jakinaraziz. Bertan, gertakariak ezarriko dira modu arrazoituan eta frogatuztat harturikoak zehaztuko dira, urratu ahal izan den araua zehaztuz. Horrekin batera, ezarritako zigorraren berri eman beharko zaio, organo bideratzaileak har ditzakeen behin behineko neurriekin batera. Ebazpen proposamena interesdunei jakinarazi behar zaie, haiek beren alegazioak egin ahal izan ditzaten. Pertsona horiek ez dute helbiderik izaten, ezta jakinarazpenak jasotzeko ere, beraz, jakinarazpenak egiteko beste moduren bat aurreikus daiteke, adibidez helbide jakin batera ebazpen proposamenaren bila joan daitezela adierazi. Toki jakin hori gaueko aterpetxea edo erreferentziako gizarte zerbitzua izan daiteke. Ondorenean, ebazpenarekin ere gauza bera egingo litzateke. Gure ustez, zigorrak ezartzeko eskumena erabiltzerakoan, edozein babesgabetasun egoera ekiditeko beharrezkoak diren bermeak errespetatu behar dira, edozein esparrutan erabilia ere.

Kezkatu egiten gaituelako aipatu nahi dugun beste alde bat **derrigorrezko tratamendu mediko-psikiatriko anbulatorioa** da. Oso gai delikatua da, pertsona bati laguntzea delako xedea, baina, aldi berean, hiritar moduan dituen eskubideak errespetatu behar dira. Askotan, lehen ere adierazi dugun moduan, arazo bikoitza duten pertsonak dira, gizarte mailakoa eta osasun mailakoa hain zuzen. Alkoholarekin eta substantzia toxikoekin izandako harremanak hondamen pertsonal eta sozial garrantzitsua ekarri die pertsona horiei. Berriro ere patologia dualeko pertsonak topatzen ditugu, eta gizarte arreta izatearekin batera tratamendu medikoa jarraitu behar dute, nahiz eta ez diren horretaz ohartzen. Horrelako egoerek askotan ondorio negatiboak izaten dituzte beren familiengan, arazoak gainezka egiten dielako. Ondorioz, kalteturiko pertsona-ingurua areagotu egiten da. Aita baten eskaera jaso genuen, bere alabaren egoeran esku har genezan. Arazoak aipatu berri duguna uzten zuen agerian eta bere alabarentzako derrigorrezko tratamendu medikoa lortzeko jarduerak eskatu zizkigun. Jarduteko jarraibide batzuk eman genizkion eta adierazi, ezinezkoa zitzaigula zentzu horretan esku hartzea. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da Diputatuen Kongresuan aspalditik dagoela izapidetze bidean Prozedura Zibilaren Legea aldaraziko duen lege proposamen bat. Horren bidez mota horretako derrigorrezko esku-hartzeak posible izatea lortu nahi da.

Aurten aurrerapausoak egiten ari dira gizarte babesaren arauen esparruan, bai Estatu mailan ikusi bezala, bai gure autonomi erkidegoan (nahiz eta atariko fase batean dagoen), bai gainerako autonomi erkidegoetan. Horrela, gizarte zerbitzuen Foru Lege nafarra onartu da, abenduaren 14ko 15/2006 Legea hain zuzen. Bertan, gizarte zerbitzuen hartzaileek izango dituzten eskubideen eta betebeharren katalogoa ezartzen da, bizitoki izaerako gizarte zerbitzuen erabiltzaileei eskubide eta betebeharrak zehatzak jarritz. Eskubide eta betebeharrak zehaztea eta gizarte eskubideen alorreko prestazioak arautzea estatu sozial, demokratiko eta zuzenbidezkoaren aurrerapausoak dira, eta positiboak iruditzen zaizkigu, erantzukizun publikoak gain hartzen dituztela esan nahi duelako.



Arreta soziosanitarioarekin jarraituz, **adineko pertsonengan** duen eragina aipatu behar dugu. Zentzu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 26ko 235/2006 Foru Dekretua onartu zuen. Horren bidez, mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitzen foru sareko egoitza-unitate soziosanitarioetara sartzeko araubidea eta laguntza-zerbitzua emateko baldintzak arautu ziren.

Arau horren arabera, unitate horiek mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeko zuzendurikoak dira “...gizarte eta osasun zaintzako beharrian bereziak dauzkate (...) ospitalizazio sanitarioaren eta egoitzako laguntza sozialaren artean dagoen espazio batean”. Erabiltzailearen profila adierazten da: bizitzaren amaiera aldera zaintzak behar dituztenak, prozesu akutu batetik sendotzen edo suspertzen ari direnak, jokabide nahastea duten pertsonak, eta gaixotasun infekzioso-kutsakorrek eduki, eta geriatrikoetan eman ezin dakiekeen isolamendu edo kontrol neurriak behar dituztenak. Unitate horietan gehienez egon daitekeen denbora urtebetean ezartzen da, betiere, Adinekoen Alorreko Balorazio eta Orientabide Soziosanitarioko Batzorde Teknikoaren berriarazko baimena ez badu denbora gehiagorik geratzeko. Batzorde hori, halaber, abenduaren 26ko 234/2006 Foru Dekretuaren bidez sortu eta arautzen da. Bertan, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak (Osasun Saila) eta Bizkaiko Foru Aldundikoak (Gizarte Ekintza Saila) daude, eta haien xedea prestazio soziosanitarioa adinekoentzako egoitza-unitateetan koordinatzea da. Planarekin batera, hitzarmena sinatu zen bi erakundeen eta Osakidetzaren artean. Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 26an onartu zuen lankidetzaren hitzarmen hori. Eskema horrek antza handia du Gipuzkoan 2003an ezarri zenarekin, Gurutze Gorriaren zentro soziosanitarioan laguntza emateko (zentro bakarra lurralde osoan). Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta aipaturiko bi osasun organoek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten orduan. Aldea da azken lurralde horretako zentroan eskaintzen den laguntza soziosanitarioak adierazitako egoeretan egoteagatik mendekotasun egoeran dauden pertsona guztiak hartzen dituela, haien adina zein den alde batera utzita; aldiz, Bizkaian, adinekoei mugaturiko laguntza da, unitate horiek talde horrentzako jarritako egoitzetan sartzeko direlako. Edonola ere, aurrerapauso garrantzitsua dela uste dugu alor soziosanitarioarentzako, garatzea horrenbeste behar duen alorra izaki. Izan ere, mota horretako zaintzak behar dituen pertsona-kopurua geroz eta handiagoa da, batez ere adinekoen artean. Arabaren kasuan, ez dugu adierazitakoen antzeko inolako akordioaren berririk. Bere foru aldundiak, ordea, plaza itunduak ditu Osakidetzaren egonaldi luzeetarako ospitale batean (Lezan), eta baita Gasteizko beste osasun zentro pribatu batean ere. Bertara egokitzat jotzen dituen pertsonak bidaltzen ditu.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu arreta soziosanitarioko zentroak edo unitateak ezartzea, izan ere zentro baten arreta behar duen pertsona-kopurua geroz eta handiagoa da –adierazi den moduan, adinekoak bereziki–. Zentroak, gainera, arreta medikoa eta erizaintza-zerbitzuak bermatu behar dizkie.

Halaber, iazko txostenean **Bizkaiko** Lurralde Historikoaren foru sarearen **egoitzetarako araudi berriak** adinekoei ekarritako ondorioak adierazi genituen. Aurten, araudi horren aplikazioaren gaineko lehen balorazioa jasoko dugu. Lehentasunezko arreta behar duten taldeen arazoa aztertzen den kapituluari buruz ari gara –kasu honetan adineko pertsonena–. Bertan, haiei eragiten dieten gai ezberdinen artean, Bizkaian izandako eztabaida jasoko dugu, araudi berriaren aplikazioaren lehen balorazio batekin batera. Aldi berean, beste bi lurralde historikoetako araudia ere aipatuko dugu, jasotako kexak bezalaxe.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak **beren etxeetan mendekotasun egoeran dauden adinekoak zaintzen dituzten pertsonen laguntzeko babes programa** jarri du martxan. Programak **“Zainduz”** izena du eta urriaren 11ko 151/2006 Foru Dekretuaren bidez onartu zen. Arau horren arabera, programaren helburuak hurrengo hauek dira: adineko pertsonaren egoera larriagotu dadin ekiditea; mendeko pertsona familia eta gizarte esparruan gera dadin sustatzea; mendeko senide bat duten familiei laguntza osoa eta etengabekoa ematea; eta Bizkaian mendeko adineko pertsonen eta horien familiei zuzenduriko gizarte baliabide multzoa modu koordinatuan eta eraginkorrean erabiltzea. Dekretua aplikatzeko lankidetzahitzarmenak sinatzea aurreikusi da aldundi horren eta lurraldeko toki erakundeen artean. Horrela, adinekoen, herritarren, gizarte boluntarioen eta zaintzaileen zuzenduriko programaren jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak martxan jarriko dira. Zaintzaileen prestakuntza eta informazio zerbitzuak eskainiko zaizkie, taldeko babes psikologikoarekin eta autolaguntzako taldeekin batera. Jarduera horiek foru aldundiaren eta tokiko erakundeen artean finantzatu dira erdiban, betiere, zenbait muga izanda.

Araba eta Gipuzkoako foru aldundiek badute aspalditik mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean izan eta zaintzen dituzten familientzako arreta-programa. Gainera, Gasteizko Udalak bere programa propioa du. Aurtengo amaiera aldera, **Bilboko Udalak “Zaintzea”** izeneko plana jarri du martxan, familia zaintzaile horien informazioa eskaintzeko zentro bat irekiz. Xedea familiei informazioa eta aholkularitza ematea, zaintzarako trebeziei buruzko ikastaroak eskaintzea, babes psikologikoa eskura jartzea eta zaintza lanetan berdintasuneko babesa sustatzea dira –gizon eta emakumeen artean–.

Oso garrantzitsua da arretako sare informalarik arreta ematea, etxean zaintzaile diren pertsonen jasan beharreko gaitz fisiko eta emozionala arintzeko. Gehienetan, gainera, emakumeak izan ohi dira. Gure erkidegoan mendekotasunari buruzko araudi berriaren ezarritako zerbitzuak eta prestazioak garatzen ari zireneko moduaren beste adibide bat da hori.

Ikus daiteke programa horien guztiak etxean mendekotasun egoeran dauden adinekoak daudenerako direla, ez, ordea, adinekoak izan gabe baina ezintasun larriren bat izanda, mendekotasun egoeran dauden beste horientzako. Azken horien familien eskaria txikiagoa izango da beharbada, pertsona ezin du arretari zentro zehatzetan laguntzen dietelako. Hala eta guztiz ere, horrelako laguntzarik jasotzen ez duten horientzat egokia izango litzateke adierazitako programak zabaltzeko aukera aztertzea, eta mendekotasun egoeran dauden pertsona ezin duak zaintzen dituzten familiei ere eskaintzea.

Adineko pertsonentzako egoitzen barruan, **unitate psikogeriatrikoak** aipatu nahi ditugu, bereziki ahulak bihurtzen dituzten mendekotasun zehatza duten pertsonak zaintzen dituztelako. Mendekotasun psikikoak ari gara hain zuzen. Hori dela eta, pertsona horien eskubideak babesteko bermeak arretari behar direla uste dugu. Horrek esan nahi du unitate psikogeriatrikoetan sartu izanaren gaineko kontrola egin behar dela, bai zentroan sarrera berria denean, bai zentroko geriatría-unitatetik bertatik egotzeko lekualdaketa denean kasua. Xede horretarako egokia litzateke zentroek –publiko eta pribatuak– jarduteko protokolo bat izatea, eta bertan baimen zehatza zentroko medikuaren proposamena berretsiko duen organoren baten aldeko txostena sartzea. Plazak publikoak badira, organo hori dagokion balorazio batzordea izan daiteke. Gainera, edozein motatako aldaketa egin aurretik, erabakiaren berri eman beharko litzaioko

familiari. Protokolo hori zentro bakoitzak izan beharreko barne erregimeneko araudian sar daiteke, edo aipatu gutxienez.

Adierazi berri duguna adierazteko arrazoia kasu jakin baten gaineko ezagutza izatea da: adineko pertsona bat egoitza bateko unitate geriatrikoan ingesatu zuten, eta gero zentro bereko unitate psikogeriatrikora aldatu zuten, antza, adierazi ditugun berme guztiak errespetatu izan gabe. Erabakia egoitzak hartu zuen, zentroko medikuaren txostena kontuan hartuz bakarrik. Familiak horren berri behin lekualdaketa eginda izan zuen. Orduan, familiak –lekualdaturiko pertsonak bezalaxe– bere senideak arreta psikogeriatrikoa behar izatea zalantzan jartzen zuela adierazi zion zentroari, eta baita lekualdaketa erabakia irizpide medikoei jarraiki hartu izana ere. Ez zuten, ordea, arrakastarik izan. Plaza itundua izan arren, foru sailak ez zuen erabakian esku hartu. Ondorioz, familiak beste txosten mediko kontraesankor batzuk bildu zituen, zegokion foru sailari aurkeztu zion arazoa, eta pertsona zentroz aldatu zuten, unitate geriatriko batean kokatuz, eta ez unitate psikogeriatrikoan.

Adierazitakoak bezalako egoerek mahai gainean jartzen dituzten zalantzak ekiditeko egokia litzateke zentro guztiek jarduteko protokoloa izatea, neurria modu zuzenean hartzen dela bermatzeko. Zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak ekainaren 2ko 394/2006 Foru Agindua onartu zuen. Horren bidez unitate psikogeriatrikoetako baldintzak ezarri ziren. Arau horrek adierazitako unitateak definitzen ditu, eta haien helburuak ezartzen ditu. Halaber, bete beharreko baldintzak zehazten ditu, bai baldintza materialak (eremu fisikoa eta antolamendua), bai funtziozkoak (sarrera-modua eta egonaldia), bai langileenak (kualifikazio eta prestakuntza mota).

Funtziozko baldintzei emango diegu arreta (adierazitako foru aginduaren 42. artikulua). Bertan, besteak beste, honakoa adierazten da: *“Unitate hauetan sartzeko gai diren erabiltzaileak hautatzeko, oinarri hauek hartuko dira: Gizarte Politikarako Departamentuak unean-unean mendekotasuna balioztatzeke erabiltzen duen sistema”*. Halaber, honakoa adierazten da: *“Unitate hauetan sartzeko berarekin ekar dezake adineko pertsonen beren eskubideak murriztea; horregatik, protokolo bat antolatzeke aukera kontuan hartu behar da, kontu hauek jasotzeke: a) Unitate psikogeriatriko batean sartzeko baimenak. b) Epailearen baimena zein kasutan behar den zehaztu behar da. c) Medikuen txostena eta familiakoen edo tutoretzan dihardutenen baimena zein kasutan den nahikoa zehaztu behar da. c) Eusteko neurri fisikoak edo kimikoak ezartzeko baimenak”*.

Jarraibide horiek oso positiboak dira, muturreko ahultasun egoeran dauden pertsonen eskubideak babesten dituztelako.

Berriro ere azpimarratu nahi dugun kontua **laguntza-zerbitzuen gertutasun** printzipioarena da, **erabiltzaileen inguru naturalarekiko**. Printzipio hori normalean onartzen eta dagozkion arauetan islatzen den printzipioa da. Printzipioak garrantzi berezia du, adineko pertsonentzako egoitzez mintzatzen garenean. Gertu egotea eta senideekin harremanetan egotea, eta gertuko inguru fisikoan eta ezaguna denean kokatzea bereziki garrantzitsua da pertsona horientzat. Arrazoi hori dela eta, administrazio publikoek gertutasun horren alde jardun behar dute, adierazitako arrazoia agertzean pertsona bat egoitza batetik bestera mugitzea erraztuz. Hori betetzen da jada Bizkaia eta Gipuzkoan. Arabaren kasuan, ofiziozko jarduna hasi dugu Aldundiarekin. Kexa-laburpenean ikus daiteke, 5/2006OF espedientean.

Adineko pertsonen gaia jorratzen ari garenez, ezin ditugu alde batera utzi **tutoretzapeko apartamentuak** eta horiek arautzen dituen araudiak izandako aldarazpenak. Martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua aldatzen duen urriaren 10eko 195/2006 Dekretuaz ari gara, adinekoentzako etxez etxeko gizarte zerbitzuei buruzkoa hain zuzen. Aldarazpen horrek ondorioak ekarri dizkie tutoretzapeko apartamentuei. Adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzu hori agertzen zen jada aipaturiko 1998ko dekretuan, baina azaletik eginiko aipamena zen. Izan ere, une hartan, existitzen ziren apartamentu bakarrak titulartasun publikokoak ziren. Aitzitik, ondorenean ekimen pribatuak ugaritu egin ziren –titulartasuna eskualdatuz eta, askotan, ezaugarri horietako zentro batek duen filosofiatik eta horien buruan egon beharreko printzipioetatik urrun zeuden esleipen formulekin–; ondorioz, araudia zehatzagoa izatea komenigarria zen, dekretu hori egungo errealitatera egokitzeko. Horrela, 195/06 Dekretua onartu da, tutoretzapeko apartamentuei araudi berria emanez, titulartasuna publikoa edo pribatua den alde batera utzita. Aurreko araudiaren bitartez, apartamentu horiek sartzen ziren jada egoitzako gizarte zerbitzuen barruan, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsoneri zuzendurik. Dekretu berriak honakoa eranstean dio definizio horri: *“adinekoen ostatu premiei eta segurtasun premiei erantzuteko gizarte baliabidea da, eta ostatu egokirik ez duten, elkarbizitzari edo bakardadeari lotutako arazoak dituzten edo merkatuko etxebizitza bat eskuratzeko baliabiderik ez duten adinekoek izango dute lehentasuna”* (2.a art.). Gainera, hurrengoak bezalako beste berrikuntza batzuk biltzen ditu: apartamentuen kudeaketa gizarte zerbitzuak kudeatzen dituen erakunde batek egingo du; apartamentuaren jabetza eskualdatzea debekatzen da, bai erabat eskualdatzea, bai neurri batean eskualdatzea; eta erabiltzaileak apartamentua erabiltzeari uzten dionean, horretarako edozein arrazoi izanda ere, *“... apartamentuaren erabilera-erakunde kudeatzaileari itzuli beharko zaio, zerbitzua eskatzen duten eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten beste pertsona batzuei esleitzeko”* (IV. eranskina, 6.1, 6.4 eta 6.5 atalak).

Halaber, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 21eko 2/2006 Lege berriak txandakako bizitokien gainean jasotzen duen ezarpena aipatu behar da, horrelako ekipamenduetarako lurzoru erreserbak ezartzeko aukera ematen duelako. Derrigorrezkoa da 20.000 biztanletik gorako udalerrietan. Xedapen gehigarrian adierazten den moduan, bizitoki horien titulartasun publikoa derrigorrezkoa da eta, besteak beste, adineko pertsoneri zuzentzen zaizkie. Horrela, titulartasun publikoko lurzoria denez, apartamentu horiek benetan adierazitako zerbitzuaren eskatzaile diren pertsonekin uztartu beharrezko arazoa konpondu nahi da.

2006an bi **plan gerontologiko** onartu dira: **Bizkaikoa** eta **Gasteizkoa**. Lehenengoa, urriaren 11n onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, eta 2007-2011 tarterako ezarri zen. Bigarrena, Gasteizko Udalak onartu zuen, urriaren 20an, eta 2006-2010 tarterako ezarri zuen. Bi administrazioen plangintza-baliabideak dira biak, adineko pertsonen eremuan esku hartzeko. Horrela, geroz eta zaharragoa den biztanle multzoak agertzen dituen behar berriei arreta eskainiko zaie. Bi planek ezarri dituzten jarduerak martxan jartzearen jarraipena egingo dugu.

Adineko pertsoneri eragiten dienarekin jarraituz, aurten adineko pertsonentzako egoitzei buruzko kexa batzuk ere jaso ditugu. Horretarako izandako arazoak honako hauek izan dira: egoitzaren senide eta erabiltzaileen batzorderik eratu ez izana zentroan; udan izandako tenperatura altuek ekarritako ondorioak gutxitzeko elementurik ez izatea,

eta prezio publikoen zenbatekoa. Lehengo biak behar bezala ebatzi ziren, eta hirugarrenean egokia izan zen Administrazioak eginiko aplikazioa. Azken kasu horretan, prezioa altua zen, baina bat zetorren araudiarekin, erabiltzaileak bere ohiko etxebizitza saltzetik eskuratutako diru likidoa zeukalako. Etxebizitza saldu izan ez balu, ordaindu beharreko kopurua askoz ere txikiagoa izango litzateke eta, gainera, erabiltzaileak bere etxebizitza mantenduko luke, egunen batean oinordekoen eskuetara igaroz. Horrek egun egiten ari den zor aitortpenaren gaineko hausnarketarekin du zerikusia. Hori aipatu egin dugu 1130/2006 zenbakiko kexa-laburpenean.

Berrito aipatu beharreko beste zerbitzu bat **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua-rena (ELZ)** da. Zerbitzu horrek garapen ezberdina izan du toki bakoitzean eta araudi komunik ere ez da egon. Ondorioz, euskal udalerrri ezberdinetan eskaintako arreta maila oso ezberdina izan da. Gipuzkoako Aldundiak egoera horri aurre egin nahi izan zion, zerbitzu hori lurraldean eskaintzeko gutxieneko betekizun komunak jarritz. Horretarako, 2005ean esparru akordioa sinatu zuen lurralde horretako udalekin, eta ELZaren araudi eredu onartu zuen. Ondorenean, 2006an zehar, udalerrri bakoitzak bere araudi propioa onartu du. Horren ondorioz, noski, Gipuzkoan aurretik antzemandako egoera hobetu egin da nabarmenki, izan ere prestazio horrek gutxienez eskaini beharreko zerbitzuak zeintzuk diren eta nola eskaini behar diren zehaztu du.

Hala eta guztiz ere, antzeman ahal izan dugu lurralde horretako udalerrri batzuk onartutako erregelamendua ez zaiola adierazitako akordioaren jarraibideari atxiki, zerbitzua emateko moduari dagokionez. Horrela, ELZ udalak eskaini beharrean horretarako kontrataturiko enpresa baten bidez (formula ohikoena), udalerriren batek laguntza behar duen pertsonari laguntza zuzena eman dio, hark bere gain hartuz zaintzailea kontratatzeko ardura. Horretarako, ELZen onuradunei banan-banan emateko diru-laguntzen programa onartu da, haiek izan daitezzen zerbitzua ordainduko dutenak. Prestazio eredu hori udalerrri bizkaitarren batean ere topa daiteke.

Erakunde honek adierazi zuen ELZ prestazioaren eredu horren aurkako iritzia, zuzeneko diru-laguntzaren bidezkoa hain zuzen. Iritzi hori zerbitzuaren gainean eginiko azterlanean hainbat kasu topatzean adierazi genuen. Emaitzak 2002. urteari zegokion memorian sartu genituen (70-72. orr.). Orduan ere honakoa adierazi genuen: *“Modalitate honetan onuradunarengan lagatzen da etxeko laguntzailea bilatu eta kontratatzeko ardura guztia eta, gainera, zenbait eragozpen ere badauzka...”*, adibidez: zerbitzua gizarte zerbitzuetatik esleitutako eginkizunen arabera egiten dela ezin kontrolatzea; kontratatutako pertsonak ez dauka, normalean, gaiari buruzko berriazko prestakuntzarik; sistema honek familiarengan lagatzen du ohiko pertsona hori ez dagoenean (gaixorik edo oporretan dagoelako) ordezkoa bilatzeko ardura. Hori dela eta, aurkeztu genituen hobekuntza-proposamenen artean hurrengoak aurki daitezke: *“6) Prestazio motetatik onuradunari banakako diru-laguntza ematea kendu beharko litzateke. Udalak izan behar luke zerbitzua ematen duena.*

Halaber, autonomi erkidego osorako ELZak arautzeko araudia onartzea proposatu zen, betekizunak bateratuz eta zerbitzuak, adierazitako eremuan, bete beharko lituzkeen gutxieneko oinarriak ezarriz.

Orain, berriz ere, Eusko Jaurlaritzak araudi hori onartzea komenigarria dela azpimarratzen dugu, Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legeak ematen dizkion eskumenak erabiliz. Hori guztia mendekotasun lege moduan ezagututakoak zerbitzu horretan –eta beste batzuetan– izango duen eragina alde batera utzita bideratu behar da. Lege horri

buruz hitz egiterakoan adierazi dugun bezala, arretaren erantzukizuna publikoa dela ezartzen da, beraz, adierazten ari garenari zuzenean eragiten dio. Gainera, dagokion sailak ELZak sustatu eta hobetzea egungo Eusko Jaurlaritza eratzeko koalizio akordioan jasotako puntua da. Akordio hori koalizioa eratu zuten alderdiek sinatu zuten, beraz, presazkoa da.

**Arreta-zentro berrien sorrerari** dagokionez, Bizkaian eguneko zentro eta egoitza berriak irekitzen jarraitzen dute, bai adineko pertsonentzako, bai pertsona ezinduentzako. Halaber, beste zentro berri batzuk irekitzea aurreikusi da hurrengo urteetarako. Bizkaiko Foru Aldundiak azken urteetan eginiko esfortzu garrantzitsua onartu egin behar da, izan ere arreta-zentroen kopurua areagotzen saiatzen ari da, lurralde osoko behar bereziko taldeei laguntzeko. Horrekin, batetik, beste lurralde historikoe-tako arreta-ratioetara gerturatzea lortuko du, eta, bestetik, arreta horren kalitatea eta kantitatea hobek izatea lortuko du.

Gipuzkoako Foru Aldundian ere esfortzua egiten dabilta zentzu horretan, Gipuzkoako puntu ezberdinetan adinekoentzako arreta-zentro ezberdinak eraikitzen ari direlako. Hori lurraldeko Gizarte Zerbitzuen Mapak agerian utzi zituen emaitzei –laguntza-estalduran ezberdintasunak antzeman ziren Gipuzkoako eskualde ezberdinetan– eta, ondorioz, lurralde historiko horretako Batzar Nagusiek eginiko gomendioei emaniko erantzuna izango litzateke.

Arabaren kasuan, datuek agerian uzten dute estaldura-maila altua mantentzen jarraitzen dutela, nahiz eta bizi ditugun gizarte eta demografia aldaketen eraginak ere jasango dituen. Eraginen artean biztanleen zahartzaro tasa altuak eta laguntza-eskariaren hazkuntza aurki daitezke.

Beste kontu batzuei dagokienez, **gizarte zerbitzuetako etika-batzordeen** gaiari heldu nahi diogu. 2002. urteari dagokion gure txostenean adierazi genuen foru aldundi batzuk bioetika edo laguntzazko etika gizarte zerbitzuetara gerturatzeke ildoan ari zirela lanean (180. or.), gai horretako aholku batzorde bat sortzeko xedez. Lan honetako oinarrizko zutabeetako bat langileak alor zehatz horretan bereziki prestatzea da. Orain, Bizkaiko Foru Aldundia batzorde horiek sortzen saiatzen ari da eta, horretarako, urtero egiten duen azken bileran abenduaren 26ko 232/2006 Foru Dekretua onartu du. Horren bidez, gizartean esku hartzeko etika-batzordeak sortzeko arauak ematen dira. Diziplina arteko eraketa duten kontsulta-organoak dira, osasunaren alorrean martxan daudenen antzekoak, eta gizartean esku hartzeko zentro eta zerbitzuetan sortu ahal izango dira. Kideek prestakuntza bioetikoa izan beharko dute, batzorde horien funtzio nagusia aholkularitza eta laguntza eskaintzea delako, bai zerbitzu horien erabiltzaileei, bai profesionali. Horren bidez, gizarte esparru horretako lanean ager daitezkeen gatazka etikoetan erabakiak hartu ahal izango dira. Batzordeek txostenak eta gomendioak egingo dituzte aztertutako kasu zehatzen gainean, eta jarduteko protokoloak proposatuko dituzte, gatazka etikoak agertu ohi dituzten egoeretan jarduteko. Batzorde horiek baliabide erabilgarria izango dira gizarte zerbitzuetako langileen eguneroko lanerako.

Aitzitik, aipatutako dekretuak ez du batzordeek nolabaiteko baimen administratiboren bat izateko aukera aipatzen, eta ez du horiek izena emateko foru erregistrik sortzen ere, foru administrazioak horien berri izan ahal dezan. Dekretuak ezartzen duena da batzordeek Gizarte Ekintza Sailaren egiaztatgiria jasotzeko aukera dutela, horixe nahi duten kasuan (batzordeek), behin gutxienez urtebete jardunean aritu eta gero. Dekretuak ere ez du aplikazio eremua zehazten, hau da, Bizkaiko gizarte zerbitzuetako zentro

guztiei aplikatuko zaien edo ez, titulartasuna alde batera utzita, beraz, guztiei eragiten diela ulertzen dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundia ere badakigu lanean aritu dela azken urteotan, gizarte zerbitzuen laguntzarako etikarantz abiatzeko ildo horretan. Garrantzi berezia eman diote etorkizunean etika-batzordeak eratuko dituzten langileak prestatzeari, behin horien araudia onartuta (ziurrenik, 2007an). Araban ez dugu antzeko ildoren berririk izan.

Etika-batzordeak oso baliabide eraginkorrak direla uste dugu, gizarte ekintzaren lanari berari atxikitako erabakiak hartzeko, askotan ez dira gainera erabaki errazak izaten. Batzordeak aurrerapausoa dira gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta duintasunerantz.

**Elbarritasunei eta ezgaitasunen bat duten pertsonen** buruz, abenduaren 1eko 1414/2006 Errege Dekretua aipatu nahi dugu. Horren bidez ezgaitasunen bat duen pertsona zer den zehazten da, ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunerako, bereizkeria ezerako eta irisgarritasun unibertsalerako abenduaren 2ko 51/2003 Legearen eraginetarako. Errege dekretu honek adierazitako legearen 1.2 artikulua garatzen du. Horren interpretazioa oso gatazkatsua izan da eta ebazpen judicial ezberdinak eragin ditu. Onartutako arauaren arabera, % 33ko elbarritasuna dutenak Gizarte Segurantzak onartutako ezgaitasun iraunkorreko pentsiodunekin, edozein mailan, eta pentsiodun pasiboekin parekatzen ditu. Hori Estatu mailako araudia bada ere, gure autonomi erkidegoko pertsona-kopuru garrantzitsuari eragiten diolako aipatzen dugu. Haiek onura ezberdinak –zerga eta lan esparrukoak– eskuratzeko aukera izango dute eta horietako batzuek euskal administrazioei eragiten diete.

Azkenik, aurten azpimarratu nahi ditugun beste kexa batzuk hurrengoak dira:

Berriro ere, ugariak dira udalek **erroldatzeko** emaniko ezezkoarekin edo ematen ez duten erantzunarekin zerikusia duten kexak. Gai hori herri lanen eta zerbitzuen alorrean ere jorratzen da. Alor honetan 8/2006 espediente zenbakia duen kexa-laburpena erantsi dugu. Horren gainean gomendio bat egin zen, erroldatzeak zerikusia duelako gizarte eskubideak eskuratzearekin, horien artean osasun arreta, eskolatzeta eta gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten laguntza eta prestazioak. Gure jarrera txostenetik txostenera berdina da: udalerrian benetan bizi diren pertsona guztiak erroldatu behar dira, behin hura identifikatu, eta bertan bizi dela ziurtatzen denean. Gai hau arautzen duen araudia oso argia da zentzu horretan. Iaz Oiartzungo Udalari eginiko uztailaren 18ko 12/2005 Gomendioa jaso genuen txostenean. Horren bidez, interesduna udaleko erroldan inskribatzea onarrez eskatu zitzaion. Orduan ez genekien emaitza zein zen. 2006an jakin ahal izan dugunez, udalak pertsona hori erroldatzea erabaki du. Azpimarratu egiten dugu udalen araberrako aplikazio ezberdina antzematen dugulako, araudia guztientzako berdina izanda.

Arreta espezifikoko taldeei buruzko kapituluari, 2005eko txostenean argitaratutako gomendio orokorraren jarraipena egiten da; hots, “Udalek Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren erroldako izen-ematea eta iraungipena erabakitzeko eta datuak beste administrazio publiko batzuei uzteko erabiltzen duten prozedurari buruzko zenbait gogoeta”. Atal hori aipatu dugu biztanle etorkin ugarieneko udalen praktika ezagutzeko, erroldan izena ematearekin eta aurreko gomendioan aztertutako gainerako kontu guztiekin zerikusia zutenen gainean.

**Diruzko gizarte prestazioei** dagokienez, hainbat kexa jaso ditugu gizarte prestazio ekonomikoen gainean, batez ere oinarrizko errentaren eta gizarte behar larrietarako

laguntzen inguruan. Arrazoiak anitzak izan dira, baina bereziki bi azpimarra daitezke: oinarrizko errentaren kasuan, laguntza eten eta horrek dakartzan ondorioen gainekoa; gizarte behar larrietarako laguntzen kasuan, berriz, urte berria hasten den bakoitzean horien ordainketan antzematen den atzerapenari buruzkoa.

**Oinarrizko errentaren prestazioa etetea** erabakitzeko prozedurei dagokionez, administrazioek (Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Gasteizko Udalak) arrazoiak eman digute adieraztean helbide aldaketaren berri emateko betebeharra urratzea edo jarraipena egiteko hitzordura ez bertaratzea ez direla etetea erabakitzeko ezarritako arrazoiaren artean agertzen aplikatu daitezkeen araudian (Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerara Arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua). Hori dela eta, ezinezkoa da ezarritako ondorioak aplikatzea, eta pertsonari zegozkion kopuruak ez itzultzea, prestazioaren onuradun izateko baldintzetan ez dela inguruabar aldaketarik egon baieztatzen denean. Administrazioak haiei zegozkien kopuruak ordaindu behar ditu kasu horietan, 160/2006 espedientearen gertatu zen moduan (kexa-laburpenak azter daitezke).

Bizikidetzako unitate ekonomiko independenteari buruz ere hitz egin nahi dugu. Etxebizitzaren prezioek zailtasunak ekartzen dizkiete baliabide gutxi dituzten pertsonari. Etxebizitza batean bizi ahal izateko formula ezberdinak ezarri dira, normalean ikasleek erabiltzen dituztenak hain zuzen. Orain, ordea, familiek ere horrelakoak erabili behar dituzte. Gerta daiteke etxebizitza partekatzen duten pertsona horietako batzuk lanean aritzea, baina gerta liteke, halaber, diru-sarrerarik ez duten pertsonak izan, eta oinarrizko errenta eta gizarte behar larrietarako laguntzak eskatzen dituztenak izatea. Egungo araudiak ez ditu azken kasu horiek kontuan hartzen, unitate bakartzat hartzen dituelako guztiak. Ezohizko kasu batzuetan, adin txikiko seme-alabak ardurapean dituzten helduak direnean adibidez, araudiak jasotzen du bizikidetzako unitate ekonomiko independente ezberdinak etxebizitza berdinean sartzeko aukera. Hori seme-alabek adin nagusitasuna eskuratzean amaitzen da. Aitzitik, adin muga hori ez dator bat gizarteak agerian uzten duen errealitatearekin, 18 urteko gazteak prestakuntza-aldian erabat sarturik egon ohi direlako.

Azken batean, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta, ondorioz, familiak derrigorean bildu beharrak edo bizikidetzako modu alternatiboak topatu beharrak zaildu egiten du oinarrizko errenten eta gizarte behar larrietarako laguntzen eskaerak izapidetzea, dagozkien dekretu arautzaileak aplikatuz. Laguntza horien hartzaileak bizikidetzako unitate ekonomiko independenteak dira. Eredu tradizionalaren arabera, unitate horietan familia bat eratzen zuen pertsona bat edo batzuk egoten ziren. Egungo ordea, gerta liteke etxebizitza berean bizi direnek inolako famili loturarik ez izatea, eta, horrelakorik izatekotan, batera bizitzaren arrazoiak famili gune independentea osatzeko aukerarik ez edukitzea, etxebizitzaren arazoaren ondorioz. Paradoxa antzeman daiteke. Batetik, etxebizitza partekatzearen arrazoiak baliabide nahikoak ez izatea izan ohi da, eta prezioak oso altuak dira. Bestetik, pertsona batzuk ez dute baliabide ekonomikorik, baina ezinezkoa zaie unitate bat eratzen dutela ziurtatzea. Arazoa ebazterakoan, lurralde historiko bakoitzak konponbide ezberdina aurkitu du. Interpretazioan antzemaniko alde horiengatik Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari eskaera helarazi zaio, interpretazioak egiterakoan erabili beharreko betekizunak argi ditzan. Horren berri eman genuen jada gure aurreko txostenean. Itxaronaldi luzearen ondotik, Erakunde Artekoko Batzordeak betekizun horiek argitu zain daudela erantzun digute. Garrantzitsua da adieraztea denborak aurrera egiten duela eta guk oraindik ez dugula behin betiko



betekizunen berririk. Arartekoa kezkatuta dago egoera horrekin eta izaera orokorreko gomendioa egin du, adierazitako gaia jorrazteko. Gomendio hori txosten honetan kontsulta daiteke. Berriro ere, araua interpretatzeko irizpideak argitzea garrantzitsua dela berresten dugu, etxebizitzaren prezioek hain altuak izaten jarraitzen duten bitartean, pertsona eta familia askok ez duelako etxebizitza partekatzea baino aukera gehiagorik, eta horrek ez du esan nahi diru-sarrerak partekatzen dituztenik. Etxebizitzen prezioen ondorioz, pertsona askok etxebizitza partekatu behar dute, bai lanpostu batetik eratorritako diru-sarrerarik ez duten horiek, bai lanpostu ezegonkorrak dituztenek. Pertsona horiek dira egoera okerreanean daudenak, hau da, baztertuta geratzeko arriskuan. Hori dela eta, ez du zentzurik, hain zuzen ere, haiei horrelako laguntzak ukatzea.

**Oinarrizko errentaren prestazioari** dagokionez, seme bat zaintzeko ardua duen emakume baten kexa jaso dugu. Garbitzaile moduan lan egiten du, eta eszedentzia eskatu du lantokian seme jaioberria zaintzeko (1508/2006 kexa laburpena). Emakumeak oinarrizko errentaren zati bat jasotzen du, lanarengatik eskuratzen zituen diru-sarrerak urriak zirelako. Gizarte zerbitzuek jakinarazi diote oinarrizko errenta osoa ez ordaintzeaz gain, orain arte jasotzen ari zena ere ez diotela emango, laneko lotura uztearen erabakia boluntarioa izateagatik. Gauzak horrela, guk uste dugu familiaren zaintzaren errealitateari emaniko arreta-faltaren arazoaren aurrean gaudela. Gizarte erantzukizuna da amek seme-alabak zaintzearen alde egitea. Gainera, oinarrizko errenta ematea arautzen duen araudia biziraupenerako oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen beharrak asetzera zuzendurikoa da eta bertan ez da ezartzen adierazitako arrazoien ondorioz laguntza etengo denik.

Halaber, beste prestazio ekonomiko bat aplikatzeko irizpide bakarra falta dela antzeman dugu, hain zuzen ere Gizarte Ongizateko Fondoko Pentsioa. Mahai gainean jarri ziguten kasu baten ondotik, Europar Batasunetik kanpoko atzerritar batek aurkezturikoa, pentsio hori eskuratzeko aukera izateko egoitza baimena exijitzen zela antzeman ahal izan genuen Araba eta Bizkaian, Gipuzkoan nazionalitate espainiarra izatea exijitzen zen bitartean.

Fondo horiek arautzen dituen araudia ez da oso argia. Maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretua da; horren 2.1 artikulua (onuradunek bete beharreko baldintzei buruzkoa) 38/1988 Dekretuak aldarazi zuen. Artikulu horrek, a) atalean, atzerriko pertsonak hartzen ditu orokorrean, haien egoera zehaztu gabe, eta Europar Batasunekoak diren edo ez adierazi gabe, nahiz eta mota batekoa zein bestekoa izan, egoera juridikoak ere oso ezberdinak diren. Argi dago legea idaztean, 1988an, gure autonomi erkidegoan ikus zitekeen atzerritar kopuruak, Europar Batasunetik kanpokoak bereziki, ez zuela egun ikus daitekeen kopuruarekin inolako antzik.

Hori dela eta, beharrezkoa da 129/1986 Dekretuaren 2.1 artikuluko a) atala egungo egoerara eguneratzea, eta Batasunetik kanpoko atzerritarren egoera argitzea, adierazitako pentsio hori eskuratzeari dagokionez. Horren xedea araua autonomi erkidego osoan modu homogeneoan aplikatuko dela bermatzea da, tratu ezberdintasuneko egungo egoerak ekidinez. Zentzu horretan, idazki bat helarazi diogu Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari.

Bizkaiko Foru Aldundiak **elbarritasun mailaren aldarazpena** egitea erabaki izateko erabilitako prozedurei dagokionez, pertsona baten kexa jaso dugu (1050/2006 kexa-laburpena). Hark ez zuen zuzentzat jo elbarritasun maila berrikusteko erabilitako prozedura. Jarraitutako prozedura aztertu eta, gure ustez, prozedura ordenamendu

juridikoarekin bateragarria ez dela esateko dauden arrazoiak jaso ditugu gomendio batean. Foru Aldundiak ebazpen baten bidez amaitu zuen prozedura eta, bertan, prozesua iraungita zegoenez, espedientea itxi egingo zela adierazi zuen. Gure ustez, ordea, prozedura amaitzen duen ebazpenak interesdunek mahai gainean jarritako gai guztiak ebatzi beharko lituzke, ordenamendutik eratorritako beste batzuekin batera. Aldeak esanguratsuak dira, interesdunei bermeak eman nahi zaizkien kasuan.

Elbarritasunen balorazioaren gainean ere kexa batzuk jaso ditugu, Bizkaiko egoerari buruzkoak. Izan ere, denbora luzea igarotzen omen da eskaera egiten den unetik benetan balorazioa jasotzen den unera bitarte. Elbarritasun deklarazioak eskaera egiten den unetik eraginkorra izan arren, atzerapen horrek kalteak ekar diezazkieke deklarazio hori laguntza batzuk eskuratzeko behar duten pertsoneri.

Azkenik, kexa-espedientea izapidetu dugu **eskaera baten kopiak zigilua izatearen garrantziagatik**. Kasu honetan arazoaren gunea eskaera noiz formalizatu zen ziurtatzea zen, zegokion oinarrizko gizarte zerbitzuan. Egoera 495/2006 zenbakiko kexalaburpenean argitzen da. Eskaera, lehenik eta behin, adierazitako oinarrizko zerbitzuan sartu zen, baina udalean egun batzuk geroago erregistratu zuten formalki. Ondorioz, data alde horrek, eragina izan zuen kasu honetan. Arazoa izan zen interesdunak ez zuela adierazitako zerbitzu administratiboak zigilatutako dokumenturik, eta ezin zuela aurkezpen datarik ziurtatu. Kasu hau ikusita, komenigarria da zerbitzu administratibo orok –Administrazioak eskaeraren bat entregatzeko edo izapideren bat hasteko adierazitakoa izatea, oinarrizko gizarte zerbitzuak kasu– zigilua duen kopia ematea, eskaera aurkeztu duenak benetan aurkeztu duela ziurtatzeko erabil ahal dezan. Horrela, tokia eta data jasotzen dituen kopiaren bidez, interesdunek beren jarduna justifikatu ahal izango dute, horrelakorik eskatzen zaien kasuan.

## 1.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza

⇒ *Eremu soziosanitarioa garatzeko eta bizitokirik gabeko pertsonak gizarte balia bideetatik kanpo uzteko prozeduretan bermeak hobetzeko beharra (6/2006OF)*

- Erreklamazioa

Ofiziozko espediente bat hasi genuen, hedabide ezberdinek Gasteizen bizitokirik gabeko pertsona bat hil zela adierazi zutelako, inolako gizarte arretarik jasotzen ez zuela zehaztuz.

- Azterketa

Udalak pertsona horrek jasotako arreta biltzen zuen gizarte txostena helarazi zигun. Besteak beste, Harrera Sozialerako Udal Zentrotik bota zutela jakinarazi ziguten, indarkeria erabili izanagatik. Patologia duala zuen eta buruko gaixotasunak zituen, baita alkohol eta droga zaletasuna ere. Horrek, zenbaitetan, bizikidetzaz zailtzen zuen. Ordudunik aurrera, antzeko gertakariak jazo ziren eta udaleko beste harrera-zentro batzuetatik

ere bota zuten, adibidez, Aterpe gaueko aterpetxetik, Estrada eguneko zentrotik, Casa Abiertatik...

Pertsona hori nor zen jakin genuenean espediente honen baitan, Ararteko erakundera jo izan zuela ziurtatu ahal izan genuen. Arrazoia udalak Osakidetzaren desintoxikazio programan sartzeko beharrezkoak zituen bizitokia eta jana emateari uko egin izana izan zen. Baldintza horiek ezinbestekoak ziren programan onartua izateko (1337/2005 espedientea). Hil zen egunean bertan gure bulegotik pasa zen, bere espedientearen egoeraren berri izateko. Jakinarazi zigunaren arabera, aterpetxean ez zioten ohean lo egiten uzten, eta ez zioten janari txartelik ematen. Halaber, desadostasuna agertu zigun aterpetxeko langileen aldetik jasotako tratuagatik.

Patologia duala duten bizitokirik gabeko pertsonen arretarako gizarte eta osasun baliabideak behar dira, batera, alkohola eta drogak gehiegi kontsumitzeak dakarren arazoagatik. Horren ondorioz, askotan, gizarte baliabideetatik bota egiten dituzte, eta oinarritzko beharrak estali gabe geratzen dira, eta jardunbide kaotikoak agertzen dituzte baliabideetan sartuz eta ateraz, etengabeko jarraipeneko gizarte lana egiteko aukera galaraziz.

Paradoxikoa iruditu arren, kasu honetan kaleko hezitzaileek esku hartu zuten eta desintoxikazio tratamendua hastera bultzatu zuten. Hark, ordea, ez zuen horrekin hasteko aukerarik izan, bizitokiaren eta janaren baldintzak ez zituelako betetzen.

Hori dela eta, koordinazioa falta izan zen osasun eta gizarte eremuen artean, eta baita pertsona horien gizarteratzean esku hartzen duten gizarte baliabideen artean ere. Izan ere, kaleko hezitzaileak ere ez ziren gai izan pertsona horri baliabide egokiak eskaintzeko. Espediente horretan argi geratu zen zailtasunak zeudela baliabide ekonomikorik gabeko pertsonen gizarte eta osasun beharrei aurre egin ahal izateko. Horri gehitu behar zaio gizarte zerbitzuek pertsona honen arazoen berri 2004ko urria baino lehenagotik zutela. Existitzen ziren baliabideekin ezin izan zen ez gizarteratzea, ez hobekuntza edota osasuna egonkortzea lortu.

Eskakizun maila baxuko baliabide horiek garatzen duten lana oso garrantzitsua da, nora joan ez duten pertsonen bizimodua duina bihurtzen eta haien oinarritzko beharrak asetzen saiatzeko direlako. Hala eta guztiz ere, gizarte zerbitzuek aurre egin beharreko zailtasunek beren eskumenak gainditzeko dituzte batzuetan, adibidez osasunarekin uztarturiko arazoengatik –droga edo alkohol kontsumoaren ondorio–, burutik gaixo egoteagatik edo ezgaitasunen bat izateagatik. Ondorioz, pertsona batzuk ez dute beren arazoari egokituriko gizarte edo osasun arretarik jasotzen, ez dagoelako baliabide nahikorik. Erakunde honen ustetan, pertsona horiek ezin dira beharrezkoa duten arretarik gabe utzi, eta esfortzua egin behar da oinarritzko beharrei aurre egiteko baliabideak izateko, batez ere neguan. Horrela, kanporaketa zehapentzat izanda amaitzen diren prozedurak zehapeneko administrazio erregimenaren buruan egon beharreko legezko bermeak eta printzipioak errespetatuko dituela ziurtatuko da.

Kanporaketa horiek zentroko langileen aldetiko ahozko adierazpen bidez egiten ari dira, zehatzeko moduko gertakariak jazotzen ari direnean edo hortik gutxira. Ondorenean, Gizarteratze Zerbitzuko Balorazio Batzordea bildu egiten da, eta jardunbidea baloratzen du. Ondorenean, pertsona hori botako den egun kopurua zehazten da. Gero, ebazpena ematen da, eta interesdunari jakinarazteko aukerarik ez dagoenez helbide faltagatik, horren berri ematen da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren bidez (ALHAO). Aitzitik, argitaratutako ebazpenetan, ez da ez hartzailea, ez botako den denbora adierazten, 30/1992 Legearen 37.2 artikuluan onartutako intimitaterako

eskubidea bermatu egin behar delako. Horrela, interesdunak ez du zehapenaren berririk izango, erreferentziako gizarte zerbitzuetara joaten den arte (tarte horretan pertsona horrek ezingo du baliabidea erabili). Ezarpen horiek nahikoak izango dira agian zenbait kasutan, ez, ordea, guztietan, zehapena ezagutzearen baldintza interesduna berriro gizarte zerbitzuetara joatearen menpe dagoelako, eta hori, erabiltzaile batzuen profilak ikusita, ez da ziur kasu guztietan gertatuko. Horrela, gerta liteke kasu batzuetan informazio hori ez eskuratzea.

Erakunde honen ustez, Aterpe aterpetxea, udalaren gizarte zerbitzua den heinean, Administrazioaren zehapen eskumena arautzen duen araudiari atxiki behar zaio, erabiltzaile guztiek dituzten eskubideen bermatzaile izaki, eta are gehiago kontuan hartuta eskumen hori erabiltzearen ondorioak pertsonen oinarrizko beharrei eragiten dietela, kasu honetan elikadurari eta bizitokiari. Zentzu horretan, komenigarria litzateke kanpoan uzteko prozedura bat etortzea otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritako zehapen prozedura administratiboarekin.

- Emaizta

Gasteizko Udalari zuzendutako gomendioa egin da, eta bertan jasotako testu osoa I. eranskinean ikus daiteke. Baliabide soziosanitarioak jartzeko beharrari buruzkoa da, Osasun Sailarekin koordinatuz. Halaber, zehapen eskumenak araudira eta herri administrazioen zehapen prozeduretara egokitu behar direla adierazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren kartaren betetze mailan aurrerantz egitearekin batera. Iradokizun eta kexen erregimenean ere gauza bera aplikatu beharko litzateke.

## B) Ezgaitasunen bat duten pertsonen eskaintako laguntza

⇒ *Elbarritasun kalifikazioa berrikusteko eskaera prozedura (1050/2006)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa bat adierazi zion Bizkaiko Foru Aldundiari, elbarritasun kalifikazioa berrikusteko Bizkaiko Foru Aldundiak jarraitutako prozedura dela eta.

- Azterketa

Bizkaiko Foru Aldundiak, berrikuspen prozeduren izapidetzean, 1971/1999 EDaren 9. artikulua interpretazioa egiten du: erabakia hartzeko nahikoa da txosten medikoak, psikologikoak, edo, behar izango balira, sozialak izatea, horiek baimenduriko profesionalak eginikoak izan badira. Azterketa mediko batek eskaerak atzeratzen dituela uste du, eta ez du diagnostikoa aldatzen.

Jarraitzen den prozedura hurrengoa da: berrikuspenaren eskatzaileak eskura dituen txostenak aurkezten ditu, berrikuspen eskaerarekin batera. Sailak dokumentuak ziurtatzen ditu, eta nahikoak ez direla uste badu, txosten berriak aurkezteko eskatzen dio interesdunari hiru hilabeteko epean. Hari ere adierazten zaio, dokumentazioa aurkeztu ezean, prozesua artxibatu egingo dela, 30/1992 Legearen 92. artikulua aplikatuz. Aldundiaren ustetan, iraungitzearen irudia aplikatuta ere, interesdunak aukera du mailaren berrikuspen beharra ziurtatuko duten dokumentu berriak aurkezteko.

Erakunde honen ustez, araudiak ez du kasu guztietarako ezartzen erabakia hartzeko beste profesional batzuen txostenak aztertu behar direla; horretarako, “interesdunen inguruabar bereziek horixe gomendatzen dutela” adierazi behar da (1971/1999 EDaren 9. artikulua).

Prozedura artxibatzearekin amaitzea ere ez dator bat ordenamendu juridikoarekin. 30/92 Legearen 87. artikulua dio iraingitze deklarazioa prozedurari amaiera emateko moduetako bat dela, ebazpena bezalaxe. Aldea da ebazpenak interesdunek adierazitako gai guztien gaineko erabakia hartu behar duela, prozeduratik eratorritako beste batzuen gainekoa bezalaxe. Gainera, ebazpena arrazoitu egin behar da. Arrazoiak bermea dira herritarrentzat, beren eskaerei uko egiteko egondako arrazoiak ezagutzeko aukera ematen baitie. Iraungitzeagatik jarduerak artxibatzeak ez ditu berme berdinak. Gaitzespenarekin batera agertzen den txostenak iraingitzea adosteko izapideak betetzeari buruzkoa da bakarrik. Gaixotasuna larritu ez dela adierazteko arrazoirik edo baremoaren gaineko aipamenik ez da egiten. Gainera, elbarritasun mailari dagokionez, 1971/1999 EDaren 11. artikulua derrigorrezkoa dela dio berariazko ebazpena ematea aurretik onartutako elbarritasun maila berrikusteko izapideturiko prozedura guztiei. Horregatik guztiagatik, uste dugu ez datorrela bat legearekin iraingitze deklarazioa berrikuspen prozedurak amaitzeko erabiltzea, Aldundiaren arrazoiak egokiak izan gabe –txostenak aurkezteko aukera berria egonda–. Izan ere, prozedura administratiboak ezartzen ditu ere horretarako bideak, entzunaldiaren izapidea adibidez, 30/92 Legearen 84. artikuluan jasotzen den moduan. Gainera, iraingitze deklarazioak ez du partikularren jardueren preskripzioa ekartzen bere horretan, haiek berrikuspenerako eskaera berria aurkez dezaketelako, kasu batzuetan inolako eperik itxaron beharrik gabe. Horrela, prozedura arautzen duen araudiak ebazpena egin zen egunetik hasita bi urteko epea ezartzen duen arren, diagnostikoan nahikoa akats frogatzen bada edo mailaren onarpena ekarri zuten inguruabarrean nahikoa aldaketa gertatu bada, ez dago eperik. Lege ezarpen horrek bermerik gabeko eskaerak errepikatzea ekiditen du, eta administrazioaren jardun eraginkorraren alde egiten du.

- Emaizta

Gomendioa egin da eta Aldundiari proposatu zaio, elbarritasun maila berrikusteko prozedura alda dezala, eta kasu batzuetarako azterketa medikoak egiteko aukera sar dezala hain zuzen. Horrekin batera, elbarritasun maila berrikustea eskatzen duten eskaera guztiak berariaz ebatz ditzala eskatu zaio.

### C) Adinekoei eskainitako laguntza

⇒ Adinekoentzako egoitza batean igaro beharreko gutxieneko epea, beste zentro batera lekualdatzeko betekizun moduan (5/2006OF)

- Erreklamazioa

Ofiziotzako espediente bat ireki genuen, Arabako adinekoentzako egoitza publiko batean igaro beharreko gutxieneko epeagatik, antzeko beste egoitza batera aldatu ahal izan aurretik. Egun, araudiak sei hilabete igaro izana eskatzen du –moldatzeko aldia

deitzen zaio-. Epe hori gehiegizkoa iruditzen zaigu, batez ere kontuan hartzen badugu adinekoa bere familia eta gizarte ingurutik urrun dagoela, eta itzuli egin nahi duela.

Jarduera hori adierazi zitzaigun kasu zehatz baten ondorioz bideratu zen. Gasteizko pertsona bat Lezan zegoen (40 km-ra) eta bere hirira aldatzea eskatu zuen. Arabako Foru Aldundiak lekualdatzea ukatu zion, une hartan oraindik ez zituelako legeak exijituriko sei hilabeteak bete.

Aldundiak emandako erantzuna bat zetorren araudiarekin, baina exijitzen den denboraldi hori laburtu egin beharko litzatekeela uste izan genuen, zenbait kasutan agertzen diren inguruabarrak kontuan hartzean, aipatu berri dugun kasuan bezala adibidez. Hori dela eta, jarduera horri ekin genion ofizioz.

- Azterketa

Gizarte zerbitzuetako zentroen foru sarean erabiltzaileak sartzeko eta lekualdatzeko erregimena arautzen duen araudia otsailaren 25eko 18/2003 Foru Dekretuak onartu zuen. Araudi horren arabera, egoitzen arteko lekualdaketa eskatzeko beharrezkoa da jatorriko egoitzan moldatzeko aldia bete izana. Moldatzeko aldi hori sei hilabetetan kokatzen da (29.1 eta 33.1 artikulua). Aldi hori eskatzean ez da kontuan hartzen interesduna dagoen egoitzaren eta bere familia inguruaren artean egon daitekeen distantzia. Horrela, egungo araudiak modu berean tratatzen ditu bi lekualdatze mota: batetik, hiriaren barruan bertan egiten direnak, eta, bestetik, zenbait kilometrora dagoen egoitzara egin nahi dena, familiarengana hurbiltzeko xedez. Horixe izan zen guri adierazi ziguten kasua.

Arabako Foru Aldundira jo genuen eta haiei adierazi, egun guztiok onartu ohi dugula adineko pertsonak beren ohiko ingurutik ahalik eta gertuen egon behar dutela. Horrela, Gizarte Zerbitzuen Legeak gertutasun hori ezartzen du zerbitzu horien buruan egon beharreko printzipioetako baten moduan. Legeak honakoa dio: "...*biztanleak beren inguru pertsonal, familiar eta sozialean barneraturik egotea*". Halaber, deszentralizazioaren aldekoa da, gertutasun printzipio hori kontuan hartzean (3.4 eta 3.8 artikulua). Ideia bera jaso zen adinekoentzako egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzko legean (martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua). Bertan, honakoa adierazi zen: "*egoiliarrek familia, gizarte, politika eta kulturaren arloetan dituzten ohiturak elkarbizitzako ohiko ingurunean mantentzen dituzten bultzatuko da*" (4. artikulua).

Aldundi arabarraren araudiak honako eskubidea onartzen die foru egoitza batean bizi diren adinekoei: "*Ohiko familia, afektibitate eta gizarte ingurunearekin harremanak izaten jarraitzea*" eta "*ohiko bizitokitik hurbilen duen zentrorra joateko aukera izatea...*" (Foru Aldundiaren menpe dauden adinekoentzako zentroetako oinarriko estatutua onartzen duen otsailaren 20ko 19/2001 Foru Dekretuaren 11.2 artikuluko k) eta l) atalak).

Aurrekoa betetzea zaila izaten da pertsona bat bere ingurutik urrun kokatzen den egoitza batean bizi denean. Egoera horrek esfortzu berezia eskatzen die senideei, egoitzan bizi denari bisita egiteko mugitu egin behar dutelako. Horregatik uste dugu, lekualdatzeak arautzean, egoera berezi edo ezohikoak kontuan hartu beharko liratekeela, adibidez: egoitzen arteko distantzia eta pertsonaren ohiko ingurua, egoitzara iristeko dauden bideak eta garraio publikoa, besteak beste. Egungo araudiak ez ditu horrelako aldeak kontuan hartzen, gertu dagoen zentro batera edo oso urrun dagoen beste batera aldatzea berdinki tratatzen dituelako.

Jatorriko egoitzan igaro beharreko moldatze aldiari dagokionez, Zentroetako Oinarrizko Estatutuak “*lehenengo hilabeteetan*” ezartzen du aldi hori (17.1 artikulua), eta ez sarrera eta lekualdatze erregelamenduak jarritako sei hilabeteetan.

Lekuz aldatu ahal izateko exijitzen den aldi hori beste bi foru aldundietan eskatzen dena baino nabarmenki altuagoa da. Horrela, Gipuzkoan moldatzeko aldia bi hilabetekoa da, baina lekualdaketa edozein unetan eska daiteke arrazoia jatorriko tokira gerturatzea bada (apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren 20 eta 22.2.b) artikulua). Bizkaian interesduna bere ingurura gerturatzeko lekualdatzea lehentasunerako arrazoia da itxaron zerrendan. Halaber, moldatzeko hiru hilabete aldia exijitzen da “... *aparteko kasuetan izan ezik (Adinekoak Baloratzeko Batzorde Teknikoak jo behar ditu apartekotzat)*” (azaroaren 20ko 209/2005 Foru Dekretuaren 27, 32 eta 28. artikulua).

Adierazitakoagatik guztiagatik, uste dugu arauak egoera ezberdinak hartu beharko litzkeela kontuan eta adierazitako araudietan azpimarraturiko printzipio eta filosofiei jarraiki aplikatu. Horrela, zentro batean igaro beharreko gutxieneko sei hilabete aldiak ez luke derrigorrezko baldintza izan behar, interesdunaren gizarte eta famili ingurutik ahalik eta gertuen kokatzen den beste egoitza batera aldatu ahal izateko. Horrek egungo araudia aldatzea eskatzen du.

Gainera, azpimarratzekoa da foru sarera (lehenengoz) sartu nahi denean, araudiak onartzen duela ezohiko egoerak baloratzeko eta gizarte baliabidea eskuratzeko eskubidea onartzeko aukera, exijitzen diren baldintzetakoren bat betetzen ez bada ere (23. art.). Aitzitik, ez da aukera berdina eskaintzen lekualdaketa bada eskatzen dena (31. artikulua eta hurrengoak). Halaber, Ararteko erakunde honek, 2005ean eginiko “*Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak*” izeneko ezohizko txostenean, gomendatu izan zien jada herri administrazioei gizarte zerbitzuei gertutasuna ematen saia zitezela –egoitzak barne–, eta erabiltzaileen gizarte inguru naturaletik gertu koka zitzatela (18., 24. eta 34. gomendioak bereziki).

- Emaizta

Jasotako erantzunean, besteak beste, honakoa adierazi zitzaigun: “*Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak lekualdatze erregimena gehiago malgutzeko aukera hausnartuko du, bereziki udalerrri ezberdinetan kokatzen diren zentroen artean eskatzen denean. Bestalde, sailak 6 hilabete aldia igaro aurretik lekualdatzea justifikatuko luketen ezohizko egoerak aztertuko ditu*”.

Denbora tarte bat igarota, berriro ere sail horri zuzendu gatzazkio, hausnarketaren egoeraren eta atera ahal izan diren ondorioen berri jakin nahirik. Txostena idazten ari izan garen unean, erantzunaren zain gaude.

⇒ Foru Aldundiak egoitza ordaintzeko diru-laguntza eten zion, bere etxebizitza dohaintzan eman zuelako (972/2006)

- Erreklamazioa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailak adineko pertsona bati egoitza ordaintzeko onartutako diru-laguntza eteteko espedientea hasi zuen. Erabakiaren arrazoia pertsona horrek une hartan bere bizitokia zen egoitzara joan arte bere ohiko etxebizitza izandakoa senide bati dohaintzan eman izana izan zen. Foru erakundeak apirilaren 3ko

63/2001 Foru Dekretuaren 11. eta 15. artikulua urratzen zirela arrazoitu zuen. Etete hori erabakitzen zen kasuan, adinekoak ezingo zion egoitzaren ordainketari aurre egin. Hori dela eta, familiak erakunde honetara jo zuen.

- Azterketa

Adierazitako foru sailak banakako laguntza onartu zion adinekoari, adinekoentzako egoitzan sar zedin. Laguntza 63/01 FDaren babesean onartu zitzaion. Horixe zen kasu honetan aplikatu beharreko araudia, nahiz eta ondorenean beste araudi berria onartu zen.

Lehen azterketa hartan, ez zitzaigun iruditu dekretu horrek babes nahikoa ematen zuenik egindako dohaintzak nahitaez laguntza etetea eragin zezan. Aldiz, aurtengo urtarrilaren 1ean indarrean jarritako araudi berriak erabateko estaldura ematen dio laguntzaren eteteari gertakari hori agertzean. Kasu hartan, ordea, 63/01 FD zen aplikatu beharrekoa.

Gainera, adierazi berri duguna alde batera utzita, kasu honetan agertzen ziren inguruabar berezi batzuk kontuan hartu behar zirela uste izan genuen:

- a) Batetik, justizi auzitegiak dohaintza hori berrikusten ari ziren. Prozeduraren arrazoi adinekoaren seme-alaba batzuk aurkezturiko salaketa izan zen, dohaintza baliogabe zezala eskatuz. Seme-alaba haien ustez, amak eginiko jarduera ez zen bere borondate propiotik atera, baizik eta dohaintzaren onuradun izandako senideak horretara bultzaturik eginikoaren ondorio, hark eraman baitzuen egoitzatik notariotzara. Seme-alabetako batzuk gertakariaren berri izan zutenean, Fiskaltza jakinaren gainean jarri zuten, kalteturiko pertsonaren eskubideetan gehiegikeria egon izan zitekeela uste izan zutelako. Izan ere, adinekoaren buru gaitasunak ez zeuden bere onenean, egun gutxi batzuk geroago eginiko azterketa medikoan baieztatu ahal izan zen moduan. Ondorioz, fiskaltzak berak eskatuta, pertsona hori legalki ezgaitua deklaratzeko prozedura hasi zen eta erabat ezgaitu deklaratu zuten.
- b) Bestalde, diru-laguntza eteteak kalte larria zekarkion adinekoari, egoitza ordaintzeko baliabiderik gabe geratzen zelako, nahiz eta zentroaren arreta behar izaten jarraitu.

Horregatik guztiagatik, informazioa eskatu genion Gizarte Ekintza Sailari, laguntza etetea proposatzeko izandako oinarri juridikoaren berri eman ziezagun. Ondorenean, proposamena eabazpen bihurtu eta etetea konfirmatu zen.

Foru sailak emaniko erantzunaren arabera, erabakia jada aipatutako 63/01 FDan oinarritzen zen. Adinekoak bere betebeharrak ez zituela bete adierazi zen, eta dohaintzarekin diru-laguntza onartzea ekarri zuten inguruabarrak desagertu zirela.

Gaia xehetasun osoz aztertu eta berretsi egin genuen xedapen horrek ez zuela lege babes nahikorik ematen, kalteturiko pertsonari hain ondorio negatiboak ekarriko zizkion neurria hartu izateko. Hori dela eta, idazki berria helarazi genion adierazitako foru sailari, eta gure jarrera honela arrazoitu:

- FDak ez du zehazten zeintzuk diren jada laguntzaren onuradun direnen betebeharrak, ezta horiek ez betetzeak zer zehapen edo zigor izan dezakeen ere.



Ondorioz, adinekoari ezin egoz dakioke betebeharren bat bete ez izana. Hori oinarrizko puntua da, izan ere, legaltasun printzipioaren arabera, erabaki horren arrazoiak arauan agertu beharko luke. Kasua, ordea, ez zen hori. Gainera, etetea zehapen baten parekoa zen, beraz, prozedurak antza handia agertzen zuen zehapen prozedurarekin, eta azken hori bereziki estua izan ohi da tipikotasunaren printzipioarekin. Ondorioz, ez betebeharrak, ez horiek ez betetzetik erator daitezkeen ondorioak, ez zeudenez ezarrita, neurria hartzeko lege babes nahikorik ez zegoela iruditu zitzaigun.

- Foru Sailak zehazki aipaturiko foru dekretuaren artikuluek (10, 11, 13, 15) ez zuten, gure ustez, hartutako neurria justifikatzen:
  - Sailarentzat dohaintza salmentaren parekoa zen, eta adinekoak dohaintzan emaniko ondasunaren balioa dirutan zuela uste izan zuen. Araudiak ez du dohaintza modu horretan ulertzen.
  - Dohaintzari dagokionez, araudiak horri uko egin beharra ezartzen du, diru-laguntza eman *aurretiko* betekizun moduan, diru-sarrerak baloratzean. Emakidaren ondorengo uneari buruz, ordea, ez zuen ezer adierazten eta horixe zen kasu honetan gertatzen zena.
  - Diru-laguntza emateko arrazoiak ez ziren desagertu, pertsona horrek ez zuelako une horretan lehen baino baliabide ekonomiko gehiago, baizik eta gutxiago. Hori dela eta, laguntza beharrak hortxe jarraitzen zuen, eta lehen baino handiagoa ere bazen. Ezgaitasun epaiak “... *narriadura kognitibo larria...*” adierazi zuen, eta, beraz, egoitza batean sartzea erabaki zen.
  - Pertsona horrek ez zuen inolako betebeharririk bete gabe utzi, besterik gabe dekretuak ez zuelako inolako betebeharririk jasotzen.
  - Lagapenaren ebazpenean adierazitakoa ere ez zuen bete gabe utzi: “ondarean jazotzen den edozein aldaketaren berri eman”. Edonola ere, horrek etetea ondoriotzat izan ahal izateko, testu arautzaile batean oinarritu beharko luke, baina ez zuen oinarrikerik izan, ebazpena izaera partikularreko administrazio jarduera izan zelako.
- Gainera, dohaintzak interesdunaren ondarearen aldaketa ekarri bazuen ere, ez zien inolako aldaketarik ekarri dohaintzan emaniko etxebizitzari zegozkion bi aldeei: batetik, interesdunak jabetza soilak eman zuen, eta bizirik zegoen bitartean gozamina beretzat gorde zuen. Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen dohaintzan emaniko etxebizitzaren gaineko inolako eskubiderik galtzen, ez zuelako horrelakorik bere gain. Izan ere, interesdunak ez zuen zor konpromisoa sinatu, 63/01 FDak ez zuelako horrelakorik eskatzen.

Aurreko guztiarekin batera adierazi genuen gure asmoa ez zela aldundiko egoitzen erabilzaileei ondarea kentzera zuzenduriko jarduerak babestea. Aitzitik, horiek ekiditera zuzenduriko neurriak orokorrean aplikatu behar den araudian jaso beharko lirateke aurretik. Modu horretan bakarrik izango litzateke posible administrazioaren jarduna araudiarekin bat datorrela eta pertsonen eskubideei errespetua diela bermatzea.

Araudi berria urtarilaren 1ean jarri zen indarrean eta, lehen ere adierazi dugun moduan, horrek bai jasotzen dituela adierazitako egoerak. Araudi berria, ordea, ezin aplikatu dakioke kasuari, banakako eskubideen xedapen murriztaileak atzeraeraginik

gabekoak direlako (EKren 9.3 artikulua) eta legaltasun printzipioa aplikatu behar delako.

Adierazi berri dugunagatik guztiagatik, laguntza eteteko ebazpenak gure ordenamendu juridikoan ezinbestekoak diren printzipioak urratzen zituela uste izan genuen. Ondorioz, Foru Sailari ebazpena berrikus eta baliogabe zezala eskatu genion. Horrela, interesdunak hasieran egokitu zitzaion laguntza jasotzen jarraituko luke.

- Emaiza

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak interesdunak egoitzan jarraitu ahal izateko diru-laguntza etetearen erabakia berretsi zuen, jada aipaturiko arrazoiak oinarritzat izanez. Erakunde hau ez zen ados egon arauaren interpretazio horrekin, baina esku hartzeko gure aukera guztiak agortuta, espedientea artxibatu genuen.

⇒ *Pentsiodunen bizi baldintzak hobetzeko laguntzak (1086/2006)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek Arartekora jo du gizarte plataforma baten izenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak uko egin ziolako lanbide arteko gutxieneko soldata baino pentsio baxuagoa duten Gizarte Segurantzako pentsiodunei (besteak beste, alargunei) laguntzak emateari. Halaber, interesik gabeko kredituak ere eskatu ditu etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko eta adierazi du beharrezkoa zela adinekoei dagozkien eskubide, zerbitzu eta prestazioen inguruko informazioa.

Bestalde, pentsiodunen baldintza ekonomikoak hobetzeko planteatu diren aukera ezberdinen berri eman dute, horien artean, Araban lanbide arteko gutxieneko soldatetik beherako errenta duten pertsonentzat dauden laguntzak: bizi baldintzak eta kalitatea hobetzeko laguntza-prestazioak izenekoak.

- Azterketa

Aipatzen dituzten alarguntzako pentsioak euskal administrazio publikoen eskumena ez diren arren, egia da oso zenbateko txikiko pentsioak daudela eta, etxebizitzak irisgarri egiteko, inbertsio ekonomikoak egin behar direla. Horregatik, eta Arabako aurrekariak ere kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ginen. Honek erantzun digu berak ez duela inolako eskumenik Gizarte Segurantzako pentsioen arloan. Hala ere, adierazi du 2007ko aurrekontuan traba arkitektonikoak ezabatzeraz bideratutako laguntza ekonomikoak barneratzea aurreikusita duela.

Euskal Autonomia Erkidegoak ez du eskumenik Gizarte Segurantzako pentsioen arloan, baina bai gizarte gaien arloan, eta, hala, informazioa eskatu genion Eusko Jaurlaritzari. Beste informazio eskaera honen bidez galde egin genion ea inolako aurreikuspenik baduten lanbide arteko gutxieneko soldata baino pentsio txikiagoak dituzten adinekoren bizi baldintzak hobetzeko, gizarte bazterkeriari aurre egiteko dispositiboetan egindakoez gain.

- Emaiza

Eusko Jaurlaritzak noiz erantzun zain gaude.

⇒ *Adinekoentzako egoitza batean ordaindu beharreko prezio publikoa: baloratu beharreko elementuak (1130/2006)*

- Erreklamazioa

Adineko pertsona bat egoitza batean sartu zuten eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindu beharreko prezioa ezarri zion. Interesdunak, ordea, gehiegizkotzat jo zuten kopurua.

- Azterketa

Apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuak Gipuzkoan mendekotasun egoeran dauden pertsona adinduentzat plazak eskuratu eta esleitzeko erregimena arautzen du. Bertan ezarritakoaren arabera, erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa haren errentak, ondarea eta bizikidetzako unitatearen pertsona-kopurua kontuan hartuta zehazten da (8. artikulua). Pertsona horren per capita errenta osoa 24.000 eurokoa bada, plazaren zenbateko osoa ordaindu behar du, betiere, 3.000 euro gordez bere erabilera propiorako. Baliabide horiek agortzen dituenean, per capita diru-sarreraren % 85 ordainduko du, betiere, lanbideen arteko gutxieneko soldataren % 20 bere erabilera propiorako izango duela bermatuz (10. artikulua). Bestalde, kasu honetan aplikatu beharreko prezio publikoak abuztuaren 2ko 52/2005 Foru Dekretuaren bidez arautu ziren.

Kasu zehatz honetan, aldundi horretako Gizarte Politikarako Departamentuak pertsona hori aldundiaren titulartasuneko egoitza batean sartzea baimendu zuenean, eguneko ordaindu beharreko gehieneko prezioa ezarri zuten, haren mendekotasun maila eta diru-sarrerak kontuan hartu ondoren. Aitzitik, prezio hori berrikuspen zain geratu zen, kalkulaturako diru-sarrerak ziurtatzeko eskatutako dokumentu batzuk aurkeztu ondoren.

Aplikaturako prezioa zuzena zen aurreko araudia aplikatzean. Aitzitik, interesdunaren ordezkariak zalantzan jarri zuten zuzentasun hori, ondorenean adieraziko dugun egoera agertu zelako:

Interesduna igogailurik gabeko eraikin batean bizi zen. Inguruabar hori arazo bihurtu zenean, etxebizitza hori saldu zuten eta bizitzeko beste bat alokatu, bere beharretara egokiturikoa hain zuzen. Alokairua aurretik eginiko salmentatik eskuratutako diruarekin ordaindu zuten. Denboraldi bat igarota, bakarrik bizi zen pertsona horrek egoitza baten laguntza behar izan zuten eta, ondorioz, zentro batean ingresatu zuten. Une horretan, ordaindu beharreko prezioa kalkulatzeko diru-sarreraren zenbaketa egitean, gehienekoa agertu zen. Horren arrazoia, esan den moduan, bere pentsioaz gain, etxebizitzaren salmentatik eskuratutako diruaren zati bat izatea izan zen. Aitzitik, etxebizitza saldu izan ez balu, pentsioaren zenbatekoa bakarrik hartu izango zen kontuan, ohiko etxebizitza kontuan izan gabe. Horixe izan zen erreklamatuzaileak adierazi ziguna.

Horri dagokionez, foru dekretu horrek honela dio: *“Ez da kontuan hartuko ohiko etxebizitza, baldin eta bertan famili unitateko beste kideak gelditzen badira, edo haren balioa oinarritzko errenta jasotzeko ezarritako gehieneko zenbatekoak baino txikiagoa bada”* (10.1 artikulua). Aplikatu beharreko balio horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2006ko maiatzaren 15eko Aginduan agertzen direnak dira. Horren bidez, katastroko gehieneko balioak ezartzen dira, jabetzako etxebizitzaren ezohizko balioa kontuan hartzeari dagokionez, bizitokiko udalerrira zein den gorabehera.

Donostiarako ezartzen diren balioak (horixe zen kasu honetan aplikatu beharrekoa) honakoak dira: 205.000 (eguneratu gabe) eta 475.000 (eguneratuta). Hiri horretan balio eguneratua erabiltzen da. Hori dela eta, ohiko etxebizitzaren katastroko balioa ez denean maila horretara iristen, ez da konputagarritzat hartzen.

Erreklamatzaillearen kasu zehatzari arreta emanez, prezio publikoa pentsioaren zenbatekoa bakarrik kontuan hartuz kalkulatu izan balitz, aplikatu zitzaiona baino kopuru nabarmenki txikiagoa izango zatekeen ordaindu beharrekoa eta, aldi berean, pertsona horrek bere etxebizitzaren jabetza gordeko zukeen. Erreklamatzaillea ez zegoen ados egoera eta ondorio alderaketa horrekin.

- Emaizta

Aplikaturako prezio publikoa zuzenbidearekin bat zetorren. Interesdunari prozedura argitu zitzaion xehetasun osoz, araudiak gaian adierazten zuenarekin batera. Espedientea artxibatu egin zen, baina kasua interesgarria zela iruditu zaigun, egungo zor aitortenaren gaineko hausnarketarako.

## D) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Karabana batean bizi diren pertsonak erroldatzea (8/2006)*

- Erreklamazioa

Adunako Udalak erroldatzeko eskaera ukatu zion bi seme-alabekin karabana batean bizi zen familiari. Karabana kokatzen zen lursailaren jabeak baimena eman zien bertan kokatzeko. Ukapena oinarritzeko emandako arrazoia etxebizitzaren kokapentzat urbanizaezina izatearen kalifikazioa zuen lursail baten helbidea ematea izan zen. Gainera, karabana bertatik kentzeko agindua eman zuen, baserriaren lursailetan kokatzea ez zuelako legezkatzat jotzen. Izan ere, antolamenduaren arau subsidiarioen arabera, ez da inolako urbanizazio lanik, kanpinik edo banaka nahiz taldeka kanpatzeko baimenik onartzen lurzoru urbanizaezinean. Halaber, ukapenerako arrazoi moduan adierazi zuten udalak ezin zuela onartu udalerrian osasungarritasun baldintza egokirik eta bainurik gabeko familia ugari kokatzea.

- Azterketa

Etxebizitza bat okupatzeko titulurik ez zuten pertsonen erroldatze eskaerei udalek emaniko ezezkoarengatik hainbatetan esku hartu du Arartekoak. Halaber, karabane-tan bizi diren edo aterperik eta bizitokirik gabe dauden pertsonen kasuan jardun du. Erakunde honek kasu guztietan emaniko erantzuna gauzak ezberdindu behar direla da, hain zuzen ere, etxebizitza okupatzeko titulu legitimoa izateak edo ez izateak, bizitoki moduan adierazitakoak bizigarritasun baldintzak betetzeak, edo benetan bizi den udalerrian erroldatzeko eskubideak dituen lege ondorioak. Erroldaren gaineko araudiak erroldan izena emateko jartzen duen baldintza bakarra tokian benetan bizitzearena da. Horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen arabera: *“Españian bizi den pertsona oro behartuta dago ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan izena ematera”* (TAOLaren 15. art.)

Erroldan inskribatzea onartzeak ez du esan nahi okupazioari edota lurzoruaren erabilera desegokiari onarpen legala ematen zaionik. Hori dela eta, bizitokiaren udalerriko erroldan izena emateko pertsona guztiek duten eskubidea eta betebeharrak ezberdindu behar dira, etxebizitza bat okupatzeko titulutik edo haren bizigarritasun baldintzetatik. Errolda kudeatzearen ardurak duenak eskatzailearen nortasuna baieztatu eta benetan udalerrian bizi dela ziurtatu behar du. Tituluaren edo lurzoruaren erabileraren ziurtatzeak beste prozedura batzuk bete behar ditu. Ondorioz, adierazitakoak ez dira nahikoa arrazoi izena ematea galarazteko, ezta karabana batean bizitzea edota udalerriko hirigintza-antolamenduko arauak onartzen ez duten lurzoru erabilera egitea ere. Izan ere, ordenamenduak bestelako bide juridikoak ditu ondasun pribatuaren edo jabari publikoaren okupazio egoerei aurre egiteko, lurzoru publikoaren erabilera desegokia egiten denean.

Erroldatzea ukatzeko ere ez da nahikoa arrazoi beste pertsona batzuk bertan ezar daitezkeela adieraztea. Administrazio publikoak legearen eta zuzenbidearen barruan jardun behar du, eta ez iritzi subjektiboetan edo balizko kasuetan oinarrituz. Konstituzioak bermatu egiten du botere publikoek arbitrariotasunik gabe jardungo dutela, beraz, edozein jarduera legearen babesean egin behar da.

Izena ematea galaraztearekin batera, auzotarraren izaera eskuratzea ere galarazten da, TAOLaren 18. artikuluan ezarritako eskubide eta betebeharrak erabiltzeko aukera bezalaxe. Bizitokia kokatzen den udalerriko erroldan izena ematea eskubideak eskuratzearekin uztarturik dago. Horietako batzuk oinarritzakoak dira, adibidez, parte hartzeko eskubidea, zirkulazio aserako eskubidea, edo hezkuntza jasotzeko eskubidea, gizarte zerbitzuetarako, osasunerako... Eskubide horien mugak oinarritzako edukia errespetatuko duen arauan bildu behar dira, Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 8ko 11/1981 Epaiak ezartzen duen moduan. Kasu honetan, ez dago lege babesik, erroldatze araudiak ez duelako eskatzailearen nortasuna eta udalerrian benetan bizi izatea ziurtatzearena ez den bestelako mugarik ezartzen.

Azken batean, garrantzitsua da erroldaren funtzioa eta hori kudeatzen dutenena beste kontu edo gatazka juridikoetatik ezberdintzea. Azken horietarako, ordenamendu juridikoak nahikoa mekanismo du egokitasun juridikoa bermatzeko, kasu honetan bezala. Udalerrian benetan bizi diren pertsonen ezin uka dakieke erroldan izena emateko aukera, erroldaren arauditik, izaeratik eta funtzioetatik kanpoko arrazoietan oinarrituz, are gehiago erabaki hori haien eskubideen eta adingabeen babesaren kaltetan izango bada.

- Emaizta

Udalak onartu ez zuen gomendio bat egin zen. Ondorenean, kexaren adierazleek epaitegietara jo zutela jakin ahal izan genuen, beren eskubidea defendatu ahal izateko. Ondorioz, gure esku-hartzea eten genuen.

⇒ *Pertsonak eraikuntza berrietan erroldatzea, udalak horien gaineko auzia duenean etxebizitzaren sustatzailearekin (1226/2006)*

- Erreklamazioa

Etxebizitzaren sustatzailearen eta udalaren artean auzia zegoenez, azkenak erroldatzeko aukera ukatu die eta, ondorioz, baita auzotar izateak dakarren zerbitzu publikoaren onuradun izateko aukera ere.

- Azterketa

Udalak arduratzen dira errolda egiteaz, eta erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealitatearekin bat etor daitezten (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 17. art.). Hortaz, erroldak eta udalerrian bizi diren pertsonen errealitateak bat etorri behar dute.

Errolda administrazio erregistroa da. TAOLaren 16. artikulua zera dio: *“udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak...”*. Administrazio erregistroek ez diete datuei funtsezko inolako ondorio juridikorik ematen; “administrazio informazioa” ematen duten erregistroak dira eta nagusiki antolakuntzako “ad intra” funtzioa dute. Behin erroldatuta, herritar bihurtzen da erroldatua (TAOLren 15. art.). Gainera, egoitza benetan bertan ote duen frogatzen da (TAOLren 16. art.), baina ez okupazioa legezkoa ote den. Aldiz, erregistro juridikoetan (besteak beste, jabetza-erregistroan, merkataritzakoan, etab.) inskribatzen diren datuek badituzte funtsezko ondorio juridikoak. Harreman pribatuak babesten dituzte, segurtasun juridikoa ematen baitiete.

Udal errolda eguneratzeari buruz udalei ematen zaizkien argibide teknikoak ezartzen dituen Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariaren eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiaren 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenean, emandako datuak benetakoak diren egiaztatzea noraino iristen den argitzen da 3. atalean (“Datuak egiaztatzea”): *“... udalak herritarrari etxebizitzaren okupazioa egiaztatzeko titulua eskatzeak ez du esan nahi toki administrazioek jabego, hiri errentamendu edo izaera juridiko-pribatuko kontuak epaitzeko eskumena dutenik; esan nahi du helburu bakarra herritar hori benetan adierazitako herrian bizi dela egiaztatzea dela. Horregatik, titulu hori jabetzako eskritura edo errentamendu kontratua izan daiteke, baita etxebizitzaren zerbitzu baten hornidura-kontratua ere (ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa, etab.); gerta daiteke **halakorik ez izatea ere (kasu hau izango litzateke norberarena ez den jabetza publiko zein pribatu baten titulu gabeko okupazioa)**. Azken kasu horretan, udal kudeatzaileak beste bitarteko batzuk erabili beharko ditu herritarra benetan etxebizitza horretan bizi dela egiaztatzeko (udaltzaingoaren txostena, zerbitzuaren inspektzioa, etab.) eta, hala bada, udal erroldan izena eman beharko dio, kontuan izan gabe jabe legitimoa bere eskubideez baliatzen den agintarian edo auzitegi eskudunen aurrean (horiek ez dira inoiz erroldaren kudeatzaileak izango)”*.

Aurrerago, 4. atalean (“Baztertuen erroldatzea”) dio helburua datu bat jasotzea dela: *“aurreko arauan esan bezala, erroldak islatu behar duena da udalerriko herritar guztien benetako bizilekua zein den. Errealitate hori gertatzen den bakoitzean erroldan jaso behar da. Erroldan izena ematea eta etxebizitzaren titulartasunari buruzko auzi juridiko-pribatuak zerikusirik ez duten bezala, gauza bera gertatzen da etxebizitzaren inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoekin.*

Ondorioz, udal errolda udalerriko herritarrak jasotzen dituen administrazio erregistroa da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 16. artikulua araberan, urtarrilaren 10eko 4/1996 Legeak emandako erredakzioan (TAOL). Udalerrian bizi diren pertsona guztien egoitza eta inguruabarrak islatzea da, besterik gabe, bere funtzioa, okupazioaren legezatasuna edo bizigarritasun baldintzak zalantzan jarri gabe; alegia, ez da sartzan eztabaida juridiko pribatuetan, ezta inguruabar fisiko, higieniko-sanitario nahiz bestelakoren batean ere.

- Emaizta

Udalak familiak inskribatu zituen udaleko erroldan.

## E) **Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

⇒ *Zor konpromisoa sinatzea egoitzan sartzeko eskaera dataren menpe zegoen (495/2006)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek eskaera aurkeztu zuen 2005eko abenduan, bere gurasoak egoitza batean sartzeko. Bilboko Udaleko zegokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan aurkeztu zuen eskaera. Ondoren, ezarrita dagoen moduan, espedientea Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari helarazi zitzaion, haiek balorazioa egin eta ebazpena eman zezaten.

Foru sail horrek senideari adierazi zion gurasoek zor konpromisoa sinatu behar zutela, 2006-01-01ean indarrean jarritako araudiak ezarritako moduan. Aitzitik, hark uste izan zuen betekizun hori ez zela kasu honetan bete beharrekoa, eskaera 2005 amaitu baino lehen aurkeztu zuelako. Horri erantzunez, aldundiko sailak adierazi zuen espedienteen ez zela eskaera udaleko erregistroan sartu zen data agertzen, beraz, erreferentzia moduan foru erakundearen sartu zen data hartzen zutela, alegia, 2006ko urtarrila.

- Azterketa

2005eko abenduaren 31ra bitarte Bizkaian adinekoak egoitzetan sartu ahal izateko –foruak emaniko diru-laguntzen bidez– aplikatu behar zen araudiak ez zuen zor konpromisoa ezartzen (apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretua). Aitzitik, betekizun hori jasotzen da foru sareko adinekoentzako egoitzetan sartu ahal izateko araudi berrian. Araudi hori 2006ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean (abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretua). Azken dekretu horren xedapen iragankorrak honela dio: *“Adinekoak Foru Aldundiaren egoitza publikoetan apirilaren 3ko 63/2001 Foru Dekretuaren itzalpean sartzeko aurkeztu diren eskaerak... foru dekretu hau indarrean jartzen denean ebatzita ez daudenak foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera izapidetu eta ebatziko dira; nolahi ere, eskatzaileak salbuetsita geratuko dira zorra aintzatetsi beharretik”*.

Hori dela eta, eskaera aurkeztu zuen data –2006ko urtarrilaren 1 baino lehen edo ondoren– faktore erabakigarria izan zen, zor konpromisoa sinatzera derrigortuta zeuden edo ez zehaztu ahal izateko. Erreklamatzailerak ez zuen berak adierazitako data frogatzen zuen dokumenturik.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailera eta Bilboko Udalera jo genuen. Azken horri alde zehatz ezberdinen gaineko informazioa eskatu genion, oinarrizko gizarte zerbitzuan izandako sarrera-data zehazteko asmoz.

Gure ustez hori zen kontuan hartu beharreko data. Batetik, udal bulego hori zen eskaera aurkezteko 63/01 FDaren 4. artikulua ezarritako tokia. Bestetik, posta-zerbitzuko bulego batean aurkeztu izan balu –artikulu berak eta 30/1992 Legeak onartzen duten modua da ere–, bidaltze data hartuko zen eta interesdunak zigilatutako kopia bidez frogatuko zukeen.

Gizarte Ekintza Sailari dagokionez, salbuespena aplikatzearen aldekoak zirela adierazi ziguten, betiere, eskaera 2005ean aurkeztu zela ziurtatzen bazen.

- Emaizta

Bilboko Udalak baieztatu zigin eskaerak 2005eko abenduaren 20an sartu zirela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan eta bi egun geroago udalaren erregistro nagusira bidali zirela, handik Bizkaiko Foru Aldundira eramateko, hark ebatz zitzan.

Gizarte Ekintza Sailari txostenaren edukiaren berri eman genion. Hark eskaerak 2006ko urtarrilaren 1ean aurkeztu zirela baieztatu ahal izan zuen eta, beraz, 209/2005 FDaren xedapen iragankorra aplikatu zuen, eskaera horiei zor konpromisoaren salbuespena aplikatzearena hain zuzen. Horrela, espedientea itxi zen interesdunaren aldeko ebazpenarekin.

## F) Diruzko gizarte prestazioak

⇒ *Oinarrizko errentaren prestazioa inolako arrazoirik gabe etetea (160/2006)*

- Erreklamazioa

Sestaoko biztanle batek, Bizkaiko Foru Aldundiak oinarrizko errenta ordaindu ez ziola ikusita, bere udaleko gizarte zerbitzuetara jo zuen. Bertan jakinarazi zioten horren arrazoa jarraipena egiteko txandara agertu ez izana zela. Ondorioz, oinarrizko errentaren prestazioa eten zioten eta beste eskaera bat egiteko txanda eman zioten. Kexan aipatu zuen prestazioa inolako arrazoirik gabe eten zela, bere inguruabarrak berdinak baitziren; ez zen bizilekuz aldatu, baina, gizarte zerbitzuei bere garaian jakinarazi zien bezala, komunitatean zenbait arazo egon ziren eta, horien ondorioz, gutunak ez zitzaizkion ondo heltzen.

- Azterketa

Sestaoko Udalaren erantzunaren arabera, bi jakinarazpen saiakera egin ziren posta ziurtatu bidez, oinarrizko gizarte zerbitzuetara joan zedin. Egoera horrek oinarrizko errentaren titularren betekizunak ez betetzea eta/edo baldintzak galtzea ekar zezakeen. Ondorioz, Sestaoko Udaleko gizarte zerbitzuek oinarrizko errentaren prestazioa zuhurtziaz etetea erabaki zuten, prestazio hori arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Erreklamatzailleak adierazi zuenaren arabera, oinarrizko errentaren prestazioagatik jaso behar zuen diru-sarrerara ez ziotela egin ikustean, gizarte zerbitzuetara jo zuen eta hitzordua eskatu. Hilabete batzuk geroagorako eman zioten hitzordua. Udalari alde horren gaineko informazioa eskatzean, hark honakoa erantzun zigan: “*bakarrik, lehenengo harremanerako ezartzen da zazpi lanegun baino gehiagoko denbora ez igarotzea, lehenengo harremanaren eta zerbitzuetako profesionalekin izan beharreko lehenengo elkarrizketaren artean. Hori dela eta, lehenengo harremana ez denean, hitzordua geroagorako eman daiteke, kasu honetan bezala, hortik hilabete batzuetara bertaratzeko*”.

Gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 25. artikulua eta apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 44. artikulua ezartzen dutenaren arabera,



zuhurtiazko etetea prestazioa onartzeko edo mantentzeko ezarritako eskakizunetakoren bat jada ez betetzea dakarren egoeraren zantzuak antzematen direnean aplikatuko da. Aldundiak hiru hilabeteko epea du laguntza mantendu, eten edo bertan behera uzteko erabakia hartzeko. Araudiak eskubidea etetea arrazoiak ezartzen ditu. Kasu honetan ez zen araudian ezarritako arrazoirik agertzen (Legearen 24. artikulua eta Dekretuaren 39.a) etetea erabakitzeko (onarpenerako exijitu ziren baldintzetakoren bat behin-behinean ez betetzea, gizarteratze hitzarmen bat negoziatu edo sinatzeari ezezkoa ematea, gizarteratze hitzarmenean adostutako jardueretakoren bat ez betetzea...).

Hitzordura agertu ez izana zantzu moduan hartu zen (Legearen 25. art. eta Dekretuaren 44. art.): *“laguntza onartzeko edo mantentzeko baldintzetakoren bat ez dela betetzen erakusten duten zantzuak antzematea”*. Horrek ez du, ordea, honakoa esan nahi: *“eskubidea izateko eskatutako baldintzetakoren bat ez betetzea aldi batez”* (Legearen 24. artikulua eta Dekretuaren 39.a). Ez inolako inguruabar aldaketarik izan; eta, hala, eskaera berria aurkeztu ondoren, oinarrizko errentaren prestazioa ordaintzeari ekin zioten berriz ere.

Dekretuaren 43. artikulua honakoa dio: *“Laguntza bertan behera utzi eta gero, berriz ere laguntza eskuratzeko aukera izaten bada, laguntza bertan behera uztea eragin zuten arrazoiak amaitu eta hurrengo egunetik hasiko da ostera sortzapena”*. Kontua, beraz, hitzordura ez joatea oinarrizko errenta aldi batean ez ordaintzeko legezko arrazoiak den edo ez zehaztea da –kontuan hartu behar da Administrazioarekin harreman hori izatea betekizunetako bat dela eta gizarte zerbitzuen alorreko erakunde eskudunek ezer eskatzerakoan betetzera derrigortuta dagoela (adierazitako dekretuaren 7.7 art.)–, kasu honetan gertatu zen bezala, edo, alderantziz, zuhurtiazko etetea erabaki ondoren, Foru Aldundiak laguntza mantentzea erabaki dezakeen, une horretara arte jaso ez diren kopuruak ordainduz atzerapen moduan –horretarako 44.3 artikulua aplikatuko litzateke: (*“...Badaezpada laguntzarik ez ematea erabakitzen baldin badu Foru Aldundiak, laguntza ematen jarraitu, bertan behera utzi edo iraungi edo ez erabakitzeko hiru hilabeteko epea izango du”*)–.

- Emaizta

Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi genion, gure iritziz, egindako prozedurak ez dituela lege aurreikuspenak betetzen, ezta pertsonaren eskubideak bermatzen ere. Hitzordura ez agertzea ez da dekretu horren 43. artikulua pean dagoen prestazioa etetea legezko arrazoiak. Ondorioz, ez dago legezko arrazoirik zenbait hilabetez prestazioa ez jasotzeko; hilabete horietan, gainera, ezin izan du gizarte zerbitzuetara joan, beste eskaera bat egiteko hitzordurik ez duelako. Foru Aldundiak gure gogoetak onartu zituen eta ordaintzeke zegoen zenbatekoa ordaindu zion kaltetuari.

⇒ *Helbide aldaketa ez zen udaleko erroldan islatu. Ondorioz, diru prestazioak zuhurtziaz eten ziren (oinarrizko errenta eta kotizazio gabeko pensioa), ez, ordea, prestazioa eskuratzeko eskubidea (1087/2006)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek oinarrizko errentak jasotzen zituen eta kotizazio gabeko pensioarekin osatzen zuen. Hark eta bere familiak bizitokitza zuten etxebizitza –han

errolaturik zeuden– utzi behar izan zuten, eraitsi egingo zutelako. Ondorioz, beste etxebizitza batera joan ziren, lehenengo hartatik gertu, udalerrri berdinean. Azken etxebizitza hori horretarako legitimaziorik izan gabe okupatu zuten, ez zuten helbide aldaketarik egin udaleko erroldan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzerako Departamentuak familia hori ez zela errolaturiko helbidean benetan bizi jakin zuenean, bi prestazioak eten zituen zuhurtiaz, egoera argitu bitarte.

- Azterketa

- 1) Erroldari dagokionez, udal errolda eguneratzeko udalentsat argibide teknikoak ezarzen dituen 1997ko uztailaren 4ko Ebazpena, Estatistikako Institutu Nazionaleko lehenakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakora, jo behar dugu.

Horren arabera, “... erroldak udalerrriko auzotar bakoitza bizi den helbidea islatu behar du. Errealitate hori gertatzen den bakoitzean erroldan jaso behar da. Erroldan izena ematea eta etxebizitzaren titulartasunari buruzko auzi juridiko-pribatuak zerikusirik ez duten bezala, gauza bera gertatzen da etxebizitzaren inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoekin. Ondorenean, aurrekoarekin bat etorri, udalak pertsona horiek erroldan inskribatu behar dituela adierazten du, behin adierazitako tokian bizi direla baieztatuta, bai haiek eskatuta, bai ofizioz (ebazpen horren 4. atala).

Aurrekoarekin bat etorri, erroldaren arazoa ebazteko, erreklamatzailari adierazi genion erroldan helbide berriarekin inskribatzea –bera eta familia– formalki eskatu behar zuela. Aldi berean, harremanetan jarri ginen Irungo Udalarekin. Izan ere, hark emaniko ebazpenaren arabera, familia horren helbide aldaketa islatu behar zuen erroldan, behin benetako helbidea ziurtatuta.

Horixe egin zuen udalak eta hark emaniko erroldatze ziurtagiria lehen aipaturiko foru sailera bidali zen, zuhurtiaz etenda zeuden prestazio ekonomikoetan eragina izan zezan –oinarrizko errenta eta kotizazio gabeko pentsioa–.

- 2) Prestazioei dagokionez, Aldundiak zuhurtiaz eteteko hartutako erabakia egokia zela eta araudiaren babesa zuela uste izan genuen. Aitzitik, behin etendura eragin zuen arazoa ebazita, eta prestazio horiek jasotzeko eskubidea izaten jarraitzen zutela ikusita, horiek berriro ordaintzen hasi beharko liritekeela adierazi genuen, zuhurtiazko etendura hori jazo zen unetik aurrera. Izan ere, ez zen inolako arrazoirik egon, ez eskubidea eteteko, ez adierazitako bi prestazioak eten edo bertan behera uzteko, horiek arautzen dituzten araudiak ez zirelako urratu. Zentzu horretan, aldundi horretako Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentura jo genuen.

Hain zuzen ere, bi prestazioen onuradunak helbide aldaketaren berri emateko betekizuna urratu zuela adierazi genuen. Ez betetze hori, ordea, ez da bere horretan prestazioa eskuratzeko eskubidearen etenduraren edo bertan behera uztearen arteko arrazoietan azaltzen, bakoitzari dagokion araudian. Araudi horien arabera, helbideak autonomi erkidegoan edo Estatuan egon behar du. Hori betetzen zen aztertutako kasuan. Betekizuna ez betetzearen ondorioei dagokienez, kotizazio gabeko pentsioaren araudiak ez du inolako ondoriorik ezartzen. Oinarrizko errentarenak, aldiz, hutsegite

arintzat jotzen du eta ohartarazpenarekin zigortzen du, betiere, aldaketaren ondorioz prestazioa ez bada behar ez bezala jasotzen. Kasu honetan prestazioa behar bezala jasotzen ari zen. Hori adierazteko, hurrengo ezarpen hauetan oinarritu ginen:

- Oinarrizko errentarako, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean (19., 52. eta 56.1 art.), eta prestazio hori arautzen duen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuan (7.3., 39. eta 44. art.).
- Kotizazio gabeko pentsiorako, martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretuan (7., 10. eta 16. artikulua).  
Aurrekari horiekin adierazitako foru sailera jo genuen, eta informazioa eskatu genion prestazioen ordainketari berriro ekingo zitzaion edo ez jakiteko eta, erantzuna baiezkoa izanez gero, noiztik aurrera izango zen.

Foru departamentuaren aldetik jasotako erantzunean adierazi zitzaigun eroldaren gaia ebatzi eta bi prestazioak ordaintzeari ekin zitzaiola berriro: kotizazio gabeko pentsioaren kasuan, zuhurtiazko etenduraren datatik aurrera. Oinarrizko errentaren kasuan, ordea, ez zen une beretik aurrera hasiko. Erabakia hartzeko, foru erakundeak 199/1999 Dekretuaren 43. artikuluari heldu zion: *“Laguntza bertan behera utzi ondorengo sortzapena. Laguntza bertan behera utzi eta gero, berriz ere laguntza eskuratzeko aukera izaten bada, laguntza bertan behera uztea eragin zuten arrazoiak amaitu eta hurrengo egunetik hasiko da ostera sortzapena”*.

Ez ginen ados egon kasu horri 43. artikuluko aplikatzearekin, izan ere eskubidearen etendurari buruz ari dela uste dugu (dekretu bereko aurreko artikuluetan jorrotutako gaia da -39.etik aurrera-, eta baita legearen 24. artikuluan ere), baina ez zuhurtiazko etendurari buruz (dekretuaren 44. artikuluan jasotakoa), eta azken hori zen kasu hartan gertatu zena. Hain zuzen ere, legearen 24. artikuluko 4. ataleko zati bat -eskubidea bertan behera uzteari buruzkoa- bat dator dekretuaren 43. artikuluekin. Hori dela eta, dekretuaren 43. artikulua aplikatzea ez zitzaigun zuzena iruditu. Ondorioz, idazki berria helarazi genion adierazitako foru departamentuari. Bertan, jakinarazi berri dugunaz gain, honakoa ere adierazi genion:

- Departamentuak dekretuak 44. artikuluan (eta 30/1992 Legearen 72. artikuluan) jasotako zuhurtiazko etendura egin zuela, prestazioa jasotzen jarraitzeko exijituriko baldintzetakoren bat betetzen ez zela adierazten zuten zantzuak zeudelako. Erabakiaren iraunaldia egoera argitu bitartekoa zen. Horixe adierazi zen zuhurtiazko etenduraren foru ebazpenean.
- Ondorioz, behin gertatutakoa argituta eta familiak oinarrizko errenta jasotzen jarraitzeko baldintza guztiak betetzen zituela baieztatuta (errolaturik EAEn egotearena barne, inoiz bertatik kanpo egon izan gabe), ez zela bidezkoa ez laguntza etetea, ez bertan behera uztea, baizik eta horrekin jarraitzea (dekretuaren 44.3 art.).
- Eskubidea etetea eta kautelazko etendura irudi ezberdinak dira, eta bakoitzaren ondorioak ere ezberdinak dira. Hori dela eta, ezin pareka daitezke. Gure ustez, bi kontzeptuak nahasten ari ziren. Horrela, zuhurtiazko etendura aplikatu nahi zen, eskubidearen etenduraren ondorioekin, kasu horretan hasten baita berriz ere ordainketa behin etetearen arrazoiak amaituta. Aitzitik, kasu honetan, jada

adierazi dugun moduan, ez zen eteterako arrazoirik egon. Aldundiaren interpretazioak, gure ikuspuntutik okerra zenak, erreklamatzaillea kaltetzen zuen, prestazioa hiru hilabetez jaso gabe uzten baitzuen.

- Emaidza

Horregatik guztiagatik, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuari eskatu zitzaion interesdunari zuhurtziatzko etenduratik hasi eta prestazioari berriro ekin arte jaso gabeko hileko kopuruak ordain ziezazkiola. Departamentuak atzeratutako hiru hilabeteetako ordainketak egitea onartu zuen. Ondorioz, espedientea itxi egin zen.

⇒ *Oinarrizko errentaren prestazioa eteteko inolako arrazoirik ez egotea (1508/2006)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa adierazi zion Bizkaiko Foru Aldundiari, une horretara arte jasotzen zuen oinarrizko errentaren prestazioa etengo ziotela jakinarazi ziotelako, lanean eszedentzia boluntarioa eskatzeagatik, seme jaioberria zaindu ahal izateko.

- Azterketa

Oinarrizko errentaren prestazioaren helburua bizirauteko oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen beharrei erantzutea da.

Pertsona horrek garbitzaile moduan lan egiten zuen eta eszedentzia eskatu zuen lantokian seme jaioberria zaintzeko, ez baitzuen semearen zaintzaz arduratuko zen inor. Emakumeak oinarrizko errentaren zati bat jasotzen zuen, lanarengatik eskuratzen zituen diru-sarrerak urriak zirelako. Eszedentzia boluntarioa eskatu zuela jakinarazi zuenean, oinarrizko errentaren prestazioa eten egingo ziotela adierazi zioten, lanik ez egiteko erabakia “boluntarioa” izateagatik. Foru Aldundira jo genuen eta haiei adingabe baten zaintzak dakarren gizarte erantzukizunaren gaineko gure hausnarketak helarazi genizkien. Oinarrizko errentaren prestazioa bertan behera uzteko arrazoiei buruzko iritzia ere helarazi genion (apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 45. art.), ez baitira langabeziagatik prestazioarentzako ezarritako berdinak. Azken kasu horretan bai hartzen dela laneko lotura boluntarioki utzi izana, prestazioa bertan behera uzteko arrazoi moduan.

- Emaidza

Oraindik ez dugu Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunik jaso.

## 2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

### 2.1. SARRERA

2006an guztira 14 kexa aurkeztu dira nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoaren arloan; alegia, ekitaldi honetan erakundean jasotako kexa guztien 0,83% .

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	8
- Foru administrazioa.....	3
- Toki administrazioa .....	3

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauetan banatzen dira:

- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura.....	6
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza .....	3
- Kontsumoa.....	3
- Merkataritza .....	1
- Industria .....	1

**Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren** arloan, oraindik zenbait kexa aurkeztu dira biztanleak dituzten espazioetatik gertu ehizan aritzeak sortzen dituen arazoengatik. Irungo biztanle batek kexa aurkeztu zuen, bere etxetik 100 metrora baino gutxiagora kokatutako ehiza-postuak erabiltzearen ondorioz urtero jasan behar dituen eragozpenengatik. Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Inguruaren Garapenerako Departamentura jo genuen laguntza eske eta bertan adierazi ziguten postu horiek ehizarako lerro eta postuen erregistrotik kendu zituztela eta beharrezko izapideak egin zituztela horiek suntsitzeko. Hala, beraz, erreklamatzailerak aurkeztutako arazoa konponduta geratu zen.

Atal honetan bertan, basurdearen ehizan diharduen talde baten izenean aurkeztutako kexa izapidetzen ari gara (behin betiko balorazioaren zain dago). Bertan zioenez, sail eskudunak ez du ebazpenik eman, ehiza-denboraldia hasi baino lehen, ezarritako epean aurkeztu zuen baimen eskabidearen inguruan. Pertsona horrek adierazi zigun, horrela jarduteko modua ezagutzeko gestio ugari egin zituen arren, oraindik ez zuela inolako erantzunik jaso.

**Merkataritzaren** atalean, salmenta ibiltarian jarduteari buruzko zenbait kexa-espeditze izapidetu ditugu. Horrela, artisau batek kexa bidez jakinarazi zigun, besteak beste, ez zitzaizela utzi Bizkaiko udalerrri bateko nekazaritza eta abeltzaintzako azoka batera joaten. Azoketan parte hartzea kasuan kasuko baimena izatea dakarren salmenta ibiltariko jarduera da, merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearekin bat etorritik. Udalei dagokie mota honetako ekitaldietan parte hartzen duten erakusketariek arautegi hori behar bezala betetzen dutela zaintzea eta kontrolatzea.

Gainera, azpimarratu behar dugu beharrezkoa dela era horretako jarduerak antolatzeko erakundeek administrazio publikoen funtzionamendua bideratzen duten printzipioekin bat etorriz jardutea, bereziki, deialdiaren publizitatea eta, parte hartu nahi dutenetatik, baldintza egokiak betetzen dituzten guztien parte-hartze publikoa bermatzera zuzendutakoekin.

Halaber, jatekoa kalez kale saltzeko baimenaren titularrak aurkeztutako erreklamazioa ere aipatu behar da; bertan adierazi zuen ez zegoela ados eskatu zuen kokapen aldaketari uko egin izanarekin. Bere erabakia arrazoitzeko, udalak adierazi zuen, pertsona horrek eskatu zuen aldaketa egin ahal izateko, postuak berriro esleitu behar zirela eta hori lehiaketa publikoko prozesuaren bidez bakarrik gauza zitekeela; salmenta ibiltaria arautzen duen udal ordenantzak zioenaren arabera, prozesu horretan kokapena lortu nahi luketen guztiek hartuko lukete parte.

Azkenik, merkataria, ostalaria eta profesionalen elkarte batek aurkeztutako kexa aipatu dugu atal honetan. Kexa hori udalak euren partaidetza izan zuen Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Plan Berezian jasotako proiektuak betetzearen inguruko dokumentazioaren azterketa utzi nahi izan ez zela aurkeztu zuten (ikus 109/2006 laburpena).

**Turismoaren** sektorean, biztanle batek adierazi zuen ez zegoela ados Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailera bidali zuen erreklamazioa amaitutzat jotzeko hartu zen erabakiarekin. Kexa irakurrita ikus zitekeen, gainera, pertsona hori ez zettorrela bat jakinarazpena idatzita zegoen moduarekin, ez zuelako uzten edukiaren aurka egiten, ezta erreklamazioa amaitutzat jotzeko arrazoiak ezagutzen ere (ikus 585/2005 laburpena).

Beste ekitaldi batzuetan bezala, Ararteko erakundearen izapidetu diren **industria-  
ren** arloko kexek ez dute zehazki Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen den industri jardueran eragina izan, baizik eta alboko alderdietan. Horrela, azpimarratu beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzien Fakultatearen bidez lor daitezkeen elektronikako ingeniari titulu ofiziala onartzearen inguruan aurkeztutako kexa.

Kasu honetan, kexa sustatu duen pertsonak, EHUren bidez zientzia fisikoetan (elektronika eta automatikaren adarreko espezialitatean) lizentziatua eta elektronikako goi mailako ingeniaria denak, jakinarazi du Industria, Merkataritza eta Turismo Sailera jo duela Fisikoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsitako proiektu elektrikoak bideragarriak ote ziren ikertzeko.

Interesdunaren arabera, eskaera honen aurrean lortutako erantzun bakarrak honakoa baino ez du adierazi: *“hasiera batean, eta oro har, proiektu elektrikoak sinatzeko eskumena eremu elektroteknikoan prestakuntza nahikoa duten erdi edo goi mailako eskola teknikoetako tituludunei dagokie (industria ingeniari teknikoak edo goi mailako ingeniariak). Zentzu horretan, zientzia fisikoetako lizentziatura ez litzateke titulazio egokia izango horrelako proiektuak sinatzeko, bere aldetik edo bere eskolaren aldetik, kasuan kasuko eskumena legez eman zaiola egiaztatu ezean.”*

Erakunde honek badu EHUren iritzi irmoaren berri; horren arabera, *“...egungo ingeniari elektronikoen, goi mailako eskola teknikoen, eskola politeknikoen, unibertsitate eskolatik edo fakultatetik datozen alde batera utzita, prestakuntza nahikoa dute eremu elektroteknikoan. Kexaren xedeari jarraiki, Zientzia eta Teknologia*

*Fakultatetik datozen tituludunen kasuan, zehazki, horiek goi mailako beste edozein ingeniariaren maila baliokidea dute”.*

Hori dela-eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailera jo behar izan dugu, beren jarrera azter dezaten eskatzeko, EHUren Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanook helarazitako informazioa kontuan hartuta. Hala ere, aurkeztutako kexari behin betiko tratamendua noiz eman ahal izango diogun zain gaude.

## 2.1. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Merkataritza

⇒ *Interesdun izaera eta merkatarari, ostalari eta profesionalen elkarte baten esku-hartzea izan zuen espedientean dokumentuen kopiak lortzeko eskubidea (109/2006)*

#### • Erreklamazioa

Merkatarari, ostalari eta profesionalen elkarte batek kexa adierazi zuen, besteak beste, udalak ukatu egin zielako Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Plan Bezeien barruan (PERCO eta PERCOTUR), eta Eusko Jaurlaritzaren deialdiari jarraiki, diru-laguntzak lortzeko aurkeztutako proiektu zehatzak betetzerakoan ordaindu ziren fakturak aztertzea.

Elkarte honek kasuan kasuko deialdian aurkeztutako proiektuak aukeratzeko prozesuan parte hartu zuen eta bat etorri zen Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean egindako eskaerarekin. Inguruabar horiek guztiek diru-laguntzak banatzeko kasuan kasuko balorazioko puntuen batura adierazten zuten.

#### • Azterketa

Udalak, gure informazio eskaerari erantzunez, proposatutako kontuak aztertu zituen. PERCOko fakturak ukatzeari dagokionez, udalak adierazi zuen ez zuela programa horietako faktura xehatuak aztertzea ukatu, baizik eta faktura horien kopia ematea, eta erantsi zuen bazegoela azterketa hori egiterik, baldin eta eskatzaileak zegokion ordezkari aurretik egiaztatzen bazuen; hori eginez gero, interesdun izaera beregana zezakeen erreferentziako administrazio prozeduran.

Kontu horren inguruan, udalari adierazi genion, gure ustez, espediente batean interesdun izaera duenak horietan jasotako agirien kopiak lortzeko eskubidea duela eta, beraz, kasu honetan, fakturak aztertzeaz gain, espedienteko faktura baten edo batzuen kopiak lortzeko aukera ere egon beharko lukeela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37.8 artikulua adierazten duen bezala.

Kontu horren ildotik, alkatetza-dekretua zalantzarik ez, egindako eskaera ukatzeko arrazoiak izan baitzen ez zirela interesdunak espediente horretan eta fakturak ez zirela publikoak, eskatzailea elkartearen ordezkaria zenik behar bezala egiaztatuta ez zegoela ere aipatu arren.

Hori horrela, gure iritziz, forma-akatsen bat antzeman izan balitz ordezkartzaren egiaztapenean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako izapidea egin beharko zatekeen eskaera zuzentzeko eta, horretarako, agiri egokiak ekarri beharko ziratekeen; hortaz, izapide hori bete gabe, ukapena ez litzateke legezkoa izango.

- Emaidza

Udalari jakinarazi genion erreklamazioa aurkeztu zuen elkarteak fakturak aztertzeko eta egoki irizten zituzten kopiak lortzeko eskubidea zuela, dokumentazioa eskatu zuen pertsona fisikoak zegokion ordezkartza egiaztatzen bazuen.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Turismoaren arloko erreklamazioak amaitutzat jotzeko arrazoiak adierazi beharra (585/2005)*

- Erreklamazioa

Biztanle batek kexa aurkeztu zuen Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Bizkaiko Lurralde Bulegoak hartu zuen erabakiaren aurka; honen bidez, turismoaren arloan jarri zuen erreklamazioa amaitutzat jo zen.

Kexari jarraiki, erreklamatzaila ez zetorren bat ez ebazpenaren funtsarekin, espediente amaitutzat jo zelako, ez formarekin, Administrazioak bidali zion jakinarazpena idatzita zegoen moduak ez ziolako uzten edukiaren aurka egiten, ezta erreklamazioa amaitutzat jotzeko arrazoi zehatzak ezagutzen ere.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzaren sail horri txosten eskaera egin genion, zein jardun garatu zituen eta horiek zein emaitza izan zuten argitzeko. Era berean, eskaeran bertan adierazi genion, ebazpena irakurri ondoren, ezin jakin zitekeela salatutako kasua zergatik ezin zen turismoaren arloko administrazioko arau-hauste gisa hartu, zeintzuk izan ziren Bizkaiko Lurralde Bulegoak egindako kudeaketa-lanak, zein azalpen eman zituen jatetxeak...; horiek horrela, aipatu genuen beharrezkoa zela jakinarazpenen edukia hobetzea.

Behin espediente aztertuta, sailari iradokizuna bidali genion eta, horren bidez, saila hiru alderdiren inguruan ohartarazi nahi izan genuen.

1. Erreklamazioa Bizkaiko Lurralde Bulegoan sartu zenetik erreklamazioa jaso zuela jakinarazi eta horri jarritako erreferentzi zenbakiaren berri interesdunari eman arte denbora asko igaro zen. Jakinarazpena erreklamazioa erregistroan sartu zenetik sei hilabete baino gehiago igaro zirenean bidali zen. Denbora-tarte hori gehiegizkoa da eta ezin justifika daiteke.

Kontu horri dagokionez, eta kontsumo eta turismoaren arloko erreklamazioek dituzten berezitasunen kaltetan izan gabe, azpimarratu genuen erreklamazioa aurkeztu dutenei honako berri ematen duen jakinarazpena bidali beharko litzaziekeela: kexa



jaso dela, horri jarritako erreferentzi zenbakia eta prozedura hauek dakartzaten espezifikotasunak. Informazio hori berehala eman beharko litzateke.

Hain zuzen ere, turismoaren erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak arautzeko den abenduaren 24ko 317/1996 Dekretuak berak 15.3 artikuluan dio beharrezkoa dela 15 egun baliouduneko epean erreklamatzailari hartu-agiria bidaltzea. Era berean, aurreko hausnarketaren ildotik, saila turismoa antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legeak arau-hauste arin eta larrietarako ezartzen duen preskripzio epearen inguruan ohartarazi genuen.

Arau horren 78. artikulua dio lege horretan jasotako arau-hausteez hiru hilabetera preskribatzen dutela arau-hauste arinak badira eta sei hilabetera arau-hauste larriak badira.

Erreklamatzailak salatutako gertakariak, frogatuz gero, ezin etor zitezkeen bat turismoa antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legeak tipifikatzen dituen arau-hauste batzuekin. Zehazki, bi arau-hausterekin: bata, arina (65.b art.: “bezeroak behar besteko errespetuz eta begirunez ez hartzea”); eta, bestea, larria (66.n art.: “erreklamazio orririk ez egotea edo, eskatutakoan, horiek emateko prest ez egotea”).

Beren preskripzio epea ikusita (hiru eta sei hilabete, hurrenez hurren), bi arau-hauste horiek jada preskribatu zuten sailak turismoaren arloko erreklamazioa jaso zuela jakinarazi zuenerako, baina ez Bilboko KIUBak turismoaren arloko erreklamazioa sailari helarazi zionerako. Horixe gertatu zen, behintzat, salatu zuen behin-behineko arau-hauste larriekin.

Gainera, Bilboko KIUBak erreklamazioa Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Bizkaiko Ordezkaritzako Turismo Arloa bidali zuenean ere ohartarazi zuen KIUBak ez zuela jatetxearen erantzunik jaso, kudeaketa-lanak egin zituen arren, eta adierazi zuen, bere ustez, arau-haustea egon zitekeela.

Arau-haustea egiaztatzerik egon zen ala ez alde batera utzita, gertakarien balorazioa iritzi kualifikatuak bermatuta zegoen eta, hala ere, une hartan horrek ez zuen egin jardunei hasiera ematea. Kudeaketa-lan horiek sei hilabete atzeratu ziren eta, beraz, hasi zirenerako, erreklamazioan jasota zeuden arau-hauste posibleek preskribatu zuten, igarotako denboragatik.

2. Bizkaiko Lurralde Bulegoak adierazi zigunaren arabera, erreklamazioa amaitutzat jotzeko ebazpenaren oinarria izan zen erreklamazioan azaldutako gertakariak ezin zitezkeela frogatu; baieztapen hutsak ziren eta establezimenduaren ordezkariak horien aurka egin zuen, orobat frogatuta ez zeuden edo frogaz ezin zitezkeen baieztapenen bidez.

Hain zuzen ere, frogarik ezean, ezin da establezimenduaren aurkako zehapen prozedura izapidetzen hasi. Hala ere, gure ustez, argi eta garbi jakinarazi beharko litzaioke erreklamatzailari arazoa berak adierazitako gertakarien frogarik ez egotea zela eta, beraz, halako elementurik gabe, sailak ezin zuela salatutako enpresaren aurkako zehapen espedienterik hasi, enpresak leporatzen zitzaizkion gertakariak ezeztatu egin zituelako.

Nolanahi ere, jakinarazpenean aukera eman beharko litzaioke erreklamatzailari, gertakarien bere bertsioa frogatzeko bitarteko osagarriak ekarri ahal izanez gero, halaxe egin zezan, horiek aztertu ahal izateko.

3. Azkenik, erakunde honek adierazi zuen beharrezkoa zela ahalegina egitea herritarrei zuzentzen zaizkien jakinarazpenak ulergarriagoak izan zitezkeen. Ildo horretatik,

argiakoak izango ziren erantzun eredu berriak sortzea proposatu genuen, horien bidez, administrazioako arau-hausterik egon ez zela pentsatzera zeramaten arrazoiak zehaztu ahal izateko: salatutako gertakariak ez daudelako arau-hauste gisa tipifikatuta, ezin delako gertatutakoa frogatu, alderdiek bertsio kontraesankorrak baitituzte gertatutakoaren inguruan...

Era berean, sailari iradoki genion iker zezala zein arrazoik eragin zuten erreklamazioaren hartu-agiria bidaltzeko izandako atzerapena, etorkizunean disfunczio bera gertatzea ekiditeko.

- Emaidza

Erreklamatzailari Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean garatu genituen jardunen berri eman genion, baita sailari zerbitzua hobetzeko iradokizuna zuzendu izanaren arrazoiari berri ere.

### 3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

#### 3.1. SARRERA

2006an guztira 32 kexa jaso dira arlo honetan. Honela banatuta egon dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	19
- Toki administrazioa .....	10
- Foru administrazioa .....	6

Gaiaren arabera, honela sailka daitezke:

- Elebitasuna .....	17
- Eskubideak eta askatasunak .....	4
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	4
- Kultur ondarea .....	3
- Kirola .....	2
- Beste batzuk .....	1
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	1

Elebitasunaren atalean, lehenik eta behin, Osakidetzaren lehenengo lan eskaintza publikoa aipa dezakegu, bertan, baldintzetako bat euskaraz jakitea izan baita. Beste eremu batzuetan bezala, osasunaren eremuan ere zehaztu beharra zegoen, plantillen eta lanpostuen zerrenden bidez, zein langilerentzat den derrigorrezko baldintza hizkuntz eskakizuna izatea.

Aurreko txostenetan ere aipatu izan dugu, hasiera batean, langile guztiak ez dutela zertan euskaraz jakin behar; alderantziz, Administrazioak berak bermatu behar du herri-tarrek aukeratutako hizkuntz ofizialean mintzatzeko duten eskubidea. Horren ondorioz, enplegu publikoa lortzeko euskaraz jakitea eskatzen denean, modu objektiboan egiaztatu behar da baldintza hori betetzea ezinbestekoa dela.

Horixe da, hain zuzen ere, eremu guztietan lanpostuetarako hizkuntz eskakizunak zehaztearen xedeetako bat; eta halaxe gertatzen da justizi administrazioaren eremuan ere. Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Administrazioaren hizkuntz normalizaziorako neurriei buruzko ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaz mintzatzekoan, Auzitegi Konstituzionalaren 270/2006 Epaiak, zenbait zehaztapen eginda, adierazten du Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela Justizi Administrazioako gorputzetan hizkuntz normalizaziorako neurriak ezartzea; aldiz, kanpo uzten ditu epaileak, magistratuak eta idazkari judicial eta fiskalak eta, horiei dagokienez, neurriak ezartzea Estatuaren eskumena dela dio.

Espero dugu egiturazko neurri horiek euskara erabili nahi duten pertsonen eskubideak hein handiagoan bermatzea ahalbidetuko dutela. Desiragarria da baita ere Justizi Administrazioak oro har neurriak hartzea, euskara erabiltzeko eskubidea etorkizunean

ondorio guztietarako gauzatu ahal izango dela ziurtatzeko eta aurten izan dugun egoeraren baten moduko muturreko egoerarik saihesteko.

Dirudenez, batzuetan, euskara erabiltzeko eskubidea badagoela ukatu gabe, eskubide hori bahetu egiten da, ohikoa den bezala, hizkuntz ofizial horretan mintzatu nahi duen pertsonak gaztelaniaz ere badakielako.

Horretatik abiatuta, ziurrenik pentsatuko dugu herritarraren jarduteko ahalmena babestuta geratzen dela eta, beraz, baita entzuna izateko eskubidea ere; eta hori, noski, funtsezkoa da edozein prozedura edo prozesutan.

Beharbada harremanak testuinguru horretan garatzen direlako –hau da, herritarrek gaztelaniaz ere badakite eta, beraz, ez dira babesgabetasun egoeran geratzen–, interpretari benetan eman behar dioguna baino erabilera handiagoa ematen diogu, hizkuntz ofizial bati buruz ari garelako kontuan izanda.

Gure ustez, saihestu egin behar da euskaraz mintzatzeko eskubidearen oinarria jarduteko ahalmenari eta entzuna izateko eta/edo babesa jasotzeko eskubideei lotzeak dakarren arriskua, hizkuntz eskubidea hutsaldu ez dadin.

Ez dago zalantzarik, interpreteak erabilia, pertsona batek hizkuntz jakin bat erabiltzeko duen eskubidea aitortzen dela. Hala ere, neurri hori behin-behinekotzat baino ezin jo daiteke, erabiltzen den hizkuntza ofiziala baldin bada. Horregatik, beste eremu batzuetan bezala, arrazoizkoa dirudi pentsatzea, hemen ere, euskaraz jakitea ahalbidetzen duten neurriekin bakarrik lortu ahal izango dela gure autonomia-erkidegoan bi hizkuntz ofizialak parekatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei dagokionez, oraindik ere hainbat kexa jaso ditugu, euskara erabiltzeko eskubidea bete ez delako. Horiek aztertu ondoren, eragindako administrazioei helarazi zaizkie. Kexa hauek izan dute fruiturik; kasu batzuetan, kexa eragin zuten jarduerak zuzentzeko balio izan dute eta, beste batzuetan, igarotako egoerak izaki, horien berri eman eta etorkizunean halakoak saihestu ahal izateko.

Irakaskuntzaren alorrean, zenbait pertsonak kexa aurkeztu dute, ikasketak euskaraz egiteko aukerarik ez zutelako. Kontuan izanik oraindik ezin direla irakaskuntza guztiak bi hizkuntz ofizialetako edozeinetan egin, Euskal Herriko Unibertsitateari zuzendu gintzaizkion, bere balorazioa ezagutzeko. Bere erantzunaren bidez jakin ahal izan genuen Euskara Errektoreordetza plan bat prestatzen ari zela hurrengo lau urtetarako eta, bertan, egin beharreko urratsak eta horretarako beharrezko bitartekoak jasoko zirela. Planaren helburuetako bat, hain zuzen ere, Arkitektura Teknikoko ikasketak dira.

Hortaz, ez geunden hizkuntz eskubidea zalantzan jarri den kasu baten aurrean, baizik eta, aurreikusitako urratsak eginda, eskubide hori zein unetan berma daitekeen zehaztea helburu zuen errealitate baten aurrean.

Helduen euskalduntzeari dagokionez, kexak eragin ditu, baita ere, pertsona batzuei euskara ikasteak dakarkien kostuak. Botere publikoek kontuan hartzen dute euskara ikastea; hala, zenbait udalek, laguntzak emanda ez ezik, HABEren deialdien bitartez ere esku hartzen dute euskaltegi homologatuetan egindako ikastaroek duten kostuaren zati bat finantzatzen.

Gai hau aztertu eta horren inguruan ez-legezko proposamena egin zenez, kexa aurkeztu zutenei jakinarazi genien egungoa baino finantzaketa-maila handiagoa emateko uzia ez dela oharkabe joan Legebiltzarrean.

Horri zegokionez, eta [www.parlamento.euskadi.net](http://www.parlamento.euskadi.net) web orria aipatuta, adierazi genien Eusko Legebiltzarraren 2006ko apirilaren 27ko Osokoak ez-legezko proposamena onartu zuela, 2006an Eusko Jaurlaritzak azterlana egin zezan helduek euskara ikasteko aukera gehiago eta hobekak izatea ekarriko lukeen kostuaren inguruan, ahalik eta pertsona gehienek horretarako aukera izan dezaten. Proposamena egokia iruditu zitzaigun.

Jakina denez, Arartekoaren jarduera, nagusiki, egoerak aztertzea da, pertsonak adierazi bezala, euskal administrazio publiko batek beren hizkuntz eskubidea urratu ote duen ikusteko. Ikuspegi horretatik, eta, hasiera batean behintzat, gure eremu berean jarduten duenez, ezin utz dezakegu aipatu gabe, duela gutxi, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren baitan, Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua (ELEBIDE) sortu dela, bi hizkuntz ofizialen arteko oreka lortze aldera.

Kulturari dagokion atalean, azpimarratu beharrekoak dira, beren ondare balioa dela medio, zenbait elementuren inguruan gauzatu diren jarduerak. Jarduera horien artean, laburpen gisa, bi jaso ditugu: Donostiako gas fabrikaren zentral elektrikoaren eraikinerako aurreikusitako babes araubideari buruzkoa; eta Donostian dagoen Aieteko Jauregiaren ingurukoa, 2006an kultur ondasun gisa sailkatu zena, monumentu multzoaren kategorian.

## 3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Kultur jarduerak

⇒ *Udal instalazioak erabiltzeko baimena: legezketasun printzipioa (314/2005)*

- Erreklamazioa

Elkarte batek eskaera egin zion Ermuko Udalari, udal instalazio batean pailazo emanaldia antolatu ahal izateko. Kexa aurkeztu zutenek 2005eko martxoaren 8an Udaleko Bozeramaileen Batzarrak hartu zuen akordioaren berri emateko jakinarazpenaren kopia erantsi zioten idazkiari. Akordio horren bidez, uko egin zitzaion emanaldi hori antolatzeke eskatu zen erabilera baimentzeari, pailazoen taldeko kideetako batek ez zuelako gaitzetsi bera zinegotzi zuen Gipuzkoako udalerrri horretako zinegotzi bat ETAk hil izana.

- Azterketa

Botere publikoek kexa hau eragin zuenaren moduko eremuetan hartzen dituzten erabakiak beren jardueren gidari izan behar duten printzipioei lotuta daude, besteak beste, legezketasun printzipioari, honen pean egonik, baita ere, Ararteko erakundearen esku-hartzea. Ikuspegi horretatik, ez zirudien uko egiteko arrazoiek kexa eragin zuten erabakia justifikatzen zutenik.

Gure informazio eskaerari erantzunez jasotako idazkian, pailazoen taldeko kideetako baten inguruabar pertsonalak aipatu ondoren, udalak Ararteko erakundeari jakinarazi zion legezketasun printzipioari buruz egin genuen aipamena orokortasun bat zela, ez baitzen zehaztu zein agindu urratu zen.

Arrazonamendu hori ikusita, ezinbestekoa zen gogoraraztea ez genuela esan nahi agindu zehatz bat urratu zenik, baizik eta legezketasun printzipioa urratu zela; printzipio horren baitan, administrazioaren ekintza oro legeak aurretik eman eta legeak berak eraiki eta mugatzen duten ahalmenaz baliatzea da. Ikuspegi horretatik, udalari zegokion arrazoiak azaltzea, bere jarduerak legezketasun printzipioa errespetatzen zuela esateko.

Gure informazio eskaerari erantzunez jaso genuen idazkiak, interesdunek aurkeztutakoaz gain (Bozeramaileen Batzarraren akordioa), ez zuen beste inolako informazio gehigarririk eskaintzen. Horrelakorik gabe, udalari jakinarazi genion zergatik uste genuen kexa eragin zuen erabakiak legezketasun printzipioak ezartzen dituen mugak gainditu zituela.

Printzipio horrekin bat etorri, administrazio publikoen zuhurtziarako ahalmenak ezarritako xedea lortzeko erabili behar dira. Horregatik, udalak kasu honetan eskatu zen erabilera baimentzeko ezartzen zituen baldintzek lokalaren xedeari lotuta egon behar zuten.

Kasu honetan, baimena ukatzeko arrazoiak ez zuen inolako erlaziorik lokalaren xedearekin eta, beraz, horretatik ondoriozta zitekeen udala aldendu egin zela baimen guztiek bete beharreko helburutik.

Xedea egiaztatzeaz gain, udalak hartutako administrazio erabakiaren zuhurtziarakotasuna kontrolatu egin behar denez, beharrezkoa izan zen baita ere horren arrazoiak ikustea.

Udalak erabakia arrazoitu zuen. Kontua da ez dela nahikoa edozein arrazoi ematea, ematen direnak egokitu egin behar baitira administrazioak zuhurtziarako bere ahalmena erabili ahal izateko justifikazio gisa Zuzenbideak onartzen dituenetara. Bestalde, Ermua zinearen erabilera ukatzeko erabakiari dagokionez, gure ustez, taldeko kide baten jokabideari buruzko inguruabarra (alegia, bera zinegotzi zuen Gipuzkoako udalerrri bateko zinegotzi baten heriotza eragin zuen atentatu terrorista ez gaitzestea) ez da garrantzitsua lokal publikoaren erabilera ukatzeko erabakia arrazoitzearen ondorioetarako.

Egindako eskaera ez onartzeko Bozeramaileen Batzarraren erabakian aipatu zen arrazoi eztabaidatuak osagai moral edo etikoa zuen eta, beraz, ikuspegi horretatik, ulertzekoa zen jokabidea leporatu izana; ez, ordea, legezketasun zorrotzaren ikuspegitik, ordenamenduan ez baita jasotzen eskatzaileei erabilera ukatzeko erabakiak aipatzen duenaren moduko tratu desberdintasunik. Baldintza horrek ez du inolako babesik egungo gure ordenamenduan, ez ondasunen erabilera baimentzeari dagokionez, ez administrazio ahalaz baliatzeko beste edozein adierazpeni dagokionez.

Pentsa liteke Ararteko erakundeak egindako balorazioa desberdina izango zela erabakiak erabilera ukatzeko arrazoi gisa pailazoetako bati leporatu zion jokabidea ez-zilegi penal baten ikuspegitik aztertu izan balitz; kasu horretan, atentatua ez gaitzestea inplizituki terrorismoaren alde egitea dela esango genukeen. Hori hala balitz ere, ezingo genuke alde batera utzi, betiere legezketasun printzipioaren ikuspegitik, beharrezkoa litzatekeela lokalen erabileretatik salbuestea oinarrituko lukeen aurreikuspena egotea; hala, delitu hori egin duen orori lokalak erabiltzea eragotziko litzaiok zigor gisa.

- Emaiza

Ararteko erakundeak balorazio juridiko horren berri eman zion alkateari, horretan oinarritu baikinen kexa eragin zuen erabakia, Bozeramaileen Batzarraren akordioan jasotako inguruabarrari dagokionez, legezketasun printzipioa egokitzen ez zela ondorioztatzeko.

Bere erantzun laburrean, hark adierazi zigun une oro bete zela indarrean dagoen legeria. Gure balorazioaren oinarri gisa hartutako arrazoibideetako bat bera ere aztertu gabe, horren jakitun geratu zirela baino ez zuen aipatu.

Ararteko erakundeak alkateari jakinarazi zion sentitzen zuela haren erantzunaren zentzua, kexa eragin zuen Ermuko Udalaren erabakia ez baitzeturten bat botere publikoen jardueren gidari izan behar duen legezketasun printzipioarekin.

## B) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Publizitatean sexu berdintasunari eskaintzen zaion tratamendua (408/2006)*

### • Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen eta horren bidez adierazi zuen ez zegoela ados telebistako publizitate jakin batekin, bere ustez, eduki sexistatzat har daitekeena barnertzen zuelako.

Bertan gizonetzkoari buruz ematen zen irudian jarri zuen arreta, gizonak bi jarduera aldi berean egiteko gai ez balira bezala aurkezten baitziren.

### • Azterketa

Zalantzan jarri zuen ustez umorezkoa zen ikuspegi hau, oinarririk ez zuelako, eta halako kasuetan sentikortasun handiagoa izan beharko litzatekeela adierazi zuen, emakumezkoen dagokienez, sexu berdintasunaren arloko arau-hausteak zaintzeko orduan izaten denaren modukoa.

Helarazi zizkigun elementuak ikusita, adierazi genion, bere idazkia ondo ulertu bagenuen, bereizkeriarik gabeko tratamendua eskatzen zuela; alegia, sor litezkeen aldeak behar bezala justifikatuta egotea.

Zalantzarik gabe, horixe da erakunde honen helburuetako bat. Nolanahi ere, eman zaizkigun eginkizunak betetzerakoan, gure eskumen esparruan kokatu behar dugu.

Kontu horri buruz, adierazi genion gure oinarriko lanak euskal administrazio publikoen jarduera gainbegiratzea dela, egintzak legezketasunari lotzen zaizkiola bermatzeko. Ikuspegi horretatik, esan zitekeen aurkeztu zigun kasua esku hartzeko gure aukeretatik kanpo geratzen zela.

Hala ere, jakinarazi genion beste mota bateko erakundeetara jo zezakeela, horien artean, Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitzara. Erakunde hori apirilaren 27ko 78/1998 Dekretuaren bidez sortu da (maiatzaren 11ko EHAA) eta Emakundera atxikita dago. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (martxoaren 2ko EHAA) dio arlo honetan hori garatu arte egongo dela indarrean.

Aholkularitzaren eginkizunen artean, honako hauek daude, aipatu dekretuaren 3.3) artikularen arabera: *“Publizitate sexistari dagokionez jasotzen diren salaketak bideratzea...”*

### • Emaizta

Egindako gogoeten arabera, eta horiek kexa aurkeztu duenari helarazi ondoren, bidezketzat jo genuen gure esku-hartzea etetea kontu honi zegokionez.

## 4. HEZKUNTZA

### 4.1. SARRERA

2006an 113 kexa jaso dira hezkuntzaren arloan; hau da, erakundeak garatzen duen jarduera osoaren %6,73.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	85
- Toki administrazioa .....	13
- UPV/EHU .....	10

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako gai edo azpiarlo hauei buruzkoak izan dira:

- Eskubideak eta betebeharrak .....	22
- Ikasleen onarpena .....	16
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	12
- Bekak eta beste laguntza batzuk .....	10
- Haur hezkuntza .....	9
- Hezkuntza-premia bereziak .....	9
- Eskola-garraioa .....	7
- Unibertsitateko irakaskuntza .....	6
- Arte irakaskuntzak .....	4
- Jantokia .....	3
- Lanbide heziketa .....	3
- Beste batzuk .....	3
- Hezkuntza-plangintza/programazioa .....	3
- Ikastetxeak – instalazioak .....	2
- Hizkuntzen irakaspena .....	2
- Batxilergoa .....	1
- Ikastetxeak – itunak .....	1

2006an, hezkuntzaren arloari buruzko sarrera honi hasiera emateko, Legebiltzarrak duela gutxi abian jarritako ekimena aipatu nahi dugu; gure ustez, horrek modu iraunkorrean eguneratzen joan beharko litzatekeen hezkuntza-zerbitzua taxutzeko lanei bultzada erabakigarria eman ahal izango die. Joan den azaroan **“eskola-mapa”** delakoaren inguruan legezkoa ez den proposamen gisa izapidetutako ekimenaz ari gara. Izan ere, jakina den bezala, eskola-mapa plangintza estrategikoko tresna da eta horrekin bat etorritz artikulatu behar dira ia hezkuntza-baliabide guztiak.

Ekimen horren inguruan, alderdi positibo gisa azpimarratu nahi dugu eskola-mapa hau prestatzeko irizpideek parte-hartzea ahalbidetzen dutela; horiez esan ohi da, aurretik, erreferentziazko eragile sozial eta hezkuntzakoekin alderatu behar direla. Erakunde honetan hezkuntza-plangintzaren edo programazioaren arloari dagokionez



izapidetutako kexa askok agerian utzi dute komenigarria dela parte-hartzearen alderdi horretan gehiago sakontzea, beti ez baita behar beste zaindu.

Era berean, eta hau ere alderdi positibo gisa, nabarmendu nahi dugu ekimen horrek, eskola-plazen plangintza zonakatuarekin batera, **inbertsioen plan estrategikoa**ren definizioa jasotzen duela, horien bidez eskaera berriei aurre egiteko instalazio nahikoak eta egokiak bermatze aldera. Azken urteotan, erakunde honek ikusi ahal izan du hainbat egoeratan Hezkuntza Administrazioak ez duela jakin hezkuntza-eskaintza nahikoa aurreratzen, besteak beste, egoitza-eremu berrietatik sortzen joan diren eskaerei erantzun ahal izateko. Egoera-mota horren adibide gisa, Lakuabizkarrako (Gasteiz) egoitza-eremuaren kasua aipa daiteke; izan ere, bertan, nabarmen atzeratu da hezkuntza-instalazioen eta ekipamenduen hornidura familiak ezarri direnetik eta, horren ondorioz, gorabehera ugari sortu dira ikasleak onartzeko prozesuetan, zenbait instalazioen egokitzapen lanetan, etab.

Gainera, inbertsioen plan estrategikoa definitzeak, zalantzarik gabe, hezkuntza-erabilerarako eraikinen **irigarritasun** unibertsala bermatzeko Hezkuntza Administrazioak adierazi dituen konpromisoak betetzea erraztuko du. (Horri dagokionez, ikusi 6/2006 Gomendioa, martxoaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina, EAEko funtzio publikoan ezgaitasuna duten pertsonen erabateko integrazioa berma dezan).

Erakunde honen iritziz, komenigarria litzateke, orobat, eskola-mapa berriak ekarri behar duen bultzada erabakigarria eta oraindik eztabaida-fasean den egungo **hizkuntza-ereduen** berrikuspena bateragarri egitea, eredu horiek zehaztea funtsezko faktorea baita etorkizuneko hezkuntza-eskaintza taxutzeko prozesuan.

Hori esanda eta ekitaldi honetan erakunde honek izapidetu dituen kexen errealitatean arreta jarritz, azpimarratu behar dugu 2006 ez dela salbuespen izan kexak aurkezteko joera nagusian; horien arabera, **hezkuntza-ibilbideak berriro definitu** behar dira, familien ikastetxe eskaeran eragina duten faktoreekin bat etorriz. Horixe gertatu da, adibidez, Eako (Bizkaia) familia batek hala eskatuta izapidetu den kexarekin, beren alaba Ispasterreko ikastetxean eskolatzea nahi baitzuten (ikusi 856/2006 kexa-laburpena). Gauza bera gertatu da Baliarrainen (Gipuzkoa) bizi diren familia batzuek hala eskatuta izapidetutako kexarekin. Espedienteak, oinarrian, adingabeen eskola-garraioari buruzko alderdietan jarri duen arren arreta, funtsean, aurkeztutako kexak erakusten digu beharrezkoa dela Ikaztegieta eta Alegiako ikastetxe desberdinak hartzen dituen eremuko hezkuntza-ibilbideak berriro zehaztea.

Bestalde, 2006 bereziki polemikoa izan da **ikasleak onartzeko prozesuei** dagokienez, plaza nahikoak ez egoteak lehentasunezko onarpen irizpideak aplikatzea baitakar, besteak beste, honakoak: famili errenta, famili bizilekuaren gertutasuna, etab. Gure ikuspegitik, kexa horietako asko ere egungo hezkuntza-plangintzak dituen gabezien ondorio dira.

2006an horren inguruan izapidetutako kexei dagokienez, bada bat garrantzi berezia bereganatu duena. Kexa hori Basauriko Arizko LHlan egindako onarpen prozesuari buruzkoa da eta hori izapidetzerakoan ikusi ahal izan dugu eroldako datuak neurrigabe erabili direla. Informazio gehiago nahi izanez gero, urriaren 30eko 24/2006 Gomendioaren testua kontsulta daiteke; horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu genion neurriak har zitzala familiek aitortutako bizilekuak eta errealitateak modu

egokiagoan bat etor zitezen, ikasleak funts publikoko ikastetxeetan onartzeko prozesuetan bizileku horien gertutasuna aintzat hartu eta baloratzeari dagokionez.

Ikastetxeetako onarpenari buruzko atal berean, zero eta hiru urte arteko haur hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duen udaleko haur eskolaren titular den Alegria-Dulantziko Udalaren aurrean garatutako jarduna aipatu behar dugu, erakunde honen esku-hartzearen ondoren izandako erantzunagatik (ikusi 913/2006 kexa-laburpena).

**Hezkuntza-premia bereziei** erantzuna edo arreta eskaintzeari dagokionez, aurten ere, gure ohiko jarraipen lanarekin jarraitu dugula aipatu behar dugu “*EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna*” izeneko ezohizko txostenean egindako gomendioak betetzen ote diren bermatzeko. Jarraipen lan honen ondorioak adingabeen problematikari arreta berezia eskaintzearen inguruko kapituluak jaso dira.

Atal honetan bertan, kezkarria iruditu zaigu ikustea, kasuren batean, arreta berezia eskatzen duen gaixotasun batek jotako adingabeak eskolatzeko zailtasunak egon direla. Hala izan denetan, Ararteko erakundeak, jada konstante bihurtu den bezala, gogora ekarri du adin txikiko haurrentzako hezkuntza-eskaintzak Euskal Eskola Publikoaren Legeak agindutakoari men egin behar diola, alegia, aukera-berdintasun eraginkorra bermatu behar duela jatorrizko desberdintasunak (besteak beste, **osasan premia bereziei dagozkienak**) orekatzea ahalbidetzen duten diskriminazio positiboko neurrien bidez.

Azken kontu horri dagokionez, beste kexa bat ere aipatu behar dugu; hots, neuropediatriako osasun zerbitzuak hala aginduta adimen gaitasunak neurtzen dituen “WISC-R” izeneko proba egin behar duten adingabeak dituzten zailtasunen ingurukoa. Gure iritziz, kexa honek ere garbi uzten du komenigarria dela hezkuntzaren nahiz osasunaren arloko arduradunek modu koordinatuan jarduteko programari ekitea, osasun premia bereziak dituzten ikasleei zuzendutako arreta-neurriak hartzeko.

Era berean, beren kopuruagatik, azpimarratu beharrekoak dira hezkuntza-laguntza berezia behar duten eta ikastetxe pribatu itunduetan eskolatuta dauden seme-alabak dituzten familiek aurkeztutako kexak. Oraindik izapidetze fasean dauden kexa hauen jatorria, dirudienez, laguntzako langile baliabideen doikuntza berriro definitze aldera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako batzordeak onartu dituen irizpide berrietan dago.

Azkenik, hainbat familiek hala eskatuta izapidetutako kexa aipatu behar dugu, horiek J.M. Barandiarán BHIan eskolatuta dauden beren seme-alabek hezkuntza-prozesua curriculum anitzeko taldean sartuta osatzen joatea nahi baitzuten. Bai familien bai tartean ziren irakasleen ikuspegitik, talde horren emaitzak oso positiboak izan dira esperientziak bere baitan hartu dituen gazteen hezkuntza-ibilbiderako. Hala ere, Hezkuntza Administrazioak erabaki du ez duela esperientzia hori 2006-2007 ikasturte honetan aplikatuko.

Zerbitzu osagarriei dagokienez, besteak beste, **eskola-garraioari**, berriz ere hezkuntza-plangintzako kontuak dira jasotako kexa asko azaldu eta sortzen dituztenak. Jada aurreratu dugun bezala, halaxe gertatu da Gasteizko Ibaiondo LHIan eskolatutako ikasleei buruz izapidetutako kexekin. Ikastetxe honen inguruan sortu diren berezitasunek ohartarazi gaituzte interesgarria izan zitekeela kexa horiek jarraian datorren laburpenean barneratzea (ikusi 719/2006 eta 943/2006 kexa-laburpenak).

Halaber, hainbat kexa egon da Langraiz Okan (Araba) bizi diren eta DBHko ikasketak egitera Gasteizera joan diren D ereduko ikasleei garraio zerbitzua eskaintzearen

inguruan. Kexa horietan erakunde honek bi gomendiotan (hurrenez hurren, 1/2004 eta 11/2006 erreferentzi zenbakikoetan) aztertu duen problematika bera agertzen da.

Baina, esan dugun bezala, hezkuntza-plangintzako kontuekin zerikusia duten lehen kexa horiez gain, kontua da eskola-garraioko zerbitzuak gero eta kexa gehiago sortzen dituela. Horregatik, 2006an jorratutako gaien artean, landa-eremuan bizi den familia batek hala eskatuta hasi den kexa aipatu nahi dugu. Izan ere, familia horrek, banakako laguntzak edo kopuruak jasotzeko aukerarekin konforme ez eta Hezkuntza Administrazioari eskatu dio famili eta lanbide premiak adiskidetzeari ahalbidetuko dion ibilbide propioa antolatzeaz ardurua dadila (ikusi 1022/2005 kexa-laburpena).

Azpitarratu beharrekoak dira, halaber, landa-eremuetan bizi diren eta 16 urtetik gora dituzten unibertsitateaz kanpoko ikasleen eskola-garraiokoari buruz aurkeztutako kexak; kontu horren inguruan ekimen bana garatu dituzte Eusko Legebiltzarrak eta Arabako Biltzar Nagusiek.

Lerro batzuk atzera, sarrera honen hasieran, eskola-mapa berriarekin batera bultzatu nahi den inbertsio plan estrategikoaren berri eman dugu. Erakunde honen iritziz, desiragarria litzateke, plan honekin batera, azterlana ere egitea **Haurreskolak** partzuergoaren menpe dauden **haur eskoletako** egungo **instalazioen** errealitateari buruz. Izan ere, 2006an, aurretik ez bezala, zenbait kexa jaso ditugu Galdakao eta Bilbo bezalako udalerririk desberdinetan instalazio horietako batzuk egoera eskasean daudela esaten.

Bestalde, arreta berezia eskaini nahi diogu **ikastetxeetako bizikidetzari** buruzko atalari. Berriki, erakunde honek ezohizko txostena aurkeztu du ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruz. Txosten horren berri xehetasunez ematen dugu txosten honen III. kapituluari.

Kexei dagokienez, tamalez, aipatu behar dugu gero eta arazo gehiago direla “bullying” izenaz ezaguna den ikastetxeko indarkeria edo jazarpeneko kasuei buruzko kexak. Hori adingabeen problematikari arreta berezia eskaintzen dion kapituluari aipatu da.

Baina, horiez gain, hainbat kexa jaso ditugu zenbait irakasle ardurapean dituzten ikasleekiko izandako jokabidea zalantzan jarriz nahiz irakasleen aurkako indarkeriazko kasuen berri emanez. Kexa horiek aztertzerakoan, erakunde hau Hezkuntza Administrazioaren berehalako konpromisoa bilatzen saiatu da, gure iritziz, ikastetxeetan indarkeriazko ustezko kasuak detektatu ondoren, funtsezkoa baita administrazioak azkar erantzutea indarkeriarekiko zero tolerantzia nagusi izango den eskolako giroa lehengoratzeko; horrek tratatu txarren biktima direnei beharrezko laguntza ematea bermatzen lagunduko du eta, era berean, zigorgabetasuneko susmorik sortzea ekidindo du.

Jarraian, beren originaltasuna dela-eta, hezkuntzaren arlo honetan izapidetutako beste kexa batzuk nabarmendu nahi ditugu. Horien artean dugu Atelier izeneko **goi mailako dantza-ikastetxea** eraikitze proiektuari buruzko kexa. Hezkuntza Administrazioak erakunde honi azaldu dio, egun, sektore horretako eskaria eta bere ezaugarriak ikusita, ez dirudiela goi mailako irakaskuntza horiek ezartzea, horretarako aurretik egin beharko liratekeen arautze lanekin batera, oso epe motzera lehentasuneko denik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat.

Azpitarratu beharrekoak dira, baita ere, **sexuaren arabera banatutako hezkuntza-ereduak** dituzten ikastetxe jakin batzuen inguruko bi kexa, ikastetxe horiek, besteak beste, Gaztelueta ikastetxeak, laguntza publikoak jasotzen baitituzte. Orokorrak diren arren, jasotako kexak ikastetxe horrek eskaintzen dituen heziketa-zikloei buruzkoak izan dira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean egindako izapideei esker berretsi

ahal izan dugu ez dagoela diru-laguntzarik heziketa-ziklo horiek emateko beharrezko ekipamenduen hornidurarako. Baina, azalpen horretatik haratago, kontua da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez duela baloratu nahi izan kexa horietan aipatzen den benetako eztabaidagaia, hots, sexuaren arabera banatutako hezkuntza-ereduen legezko-tasun posiblea; jarrera horrek, ordea, ez du erakunde hau harritzen, hezkuntza-eredu horrek Auzitegi Gorenaren duela gutxiko erabakietan izan duen babesaren kontuan hartuta.

Azkenik, **Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolari** buruzko kexaren berri eman nahi dugu, oraindik izapidetze fasean dagoena. Kexa aurkeztu duen pertsonak eskolaren erabakia salatu du; honen bidez, haren matrikula baztertu da eta, ondorioz, ez zaio utzi 2006-2007 ikasturte honetarako programaturako ikastaroan parte hartzen. Lehenengo azterketa eginda, erakunde hau harrituta geratu da, eskolak formalizatu dituen matrikulak onartu ahal izateko, gaitasun proba gaingitu beharko dela ikusita. Hori horrela, gure ustez, geure buruari galde egin behar diogu ea zein erantzukizun egotz dakioken eskolari irakaskuntza jakin batzuk egiteko interesa agertu duten ikasleengan ondoren erantzunik jaso ez duen legezko konfiantza sortzeagatik.

**Unibertsitateko irakaskuntzari** dagokionez, azpimarratu behar dugu, 2006an, kexa-kopuru esanguratsua jaso dela ikertzaileak atzerrian trebatzeko **doktoratu ondo-ko beken** ordainketan izandako atzerapenaren ondorioz; kexaren adierazleek eurek azaldutakoaren arabera, horrek izugarri zailtzen du helmugako herrialdean egonaldi normala izatea.

Orobat, EHU'n psikopedagogiako lizentziatura egiten ari den ikasle baten esperientzia ere aipatu nahi izan dugu, eta horregatik sartu dugu aukeratutako kexen artean; ikasle horrek lizentziaturako praktikak **baliozkotzea** eskatu du (ikus 244/2006 kexa-laburpena).

Azkenik, Vitoria-Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan dagoen **eskola-egutegiaren** inguruko kexa aipatuko dugu. Bertan adierazi da desfasea egon daitekeela 2006-07 ikasturte honetarako programaturako eskola-dedikazioaren eta ikasketa-planeko zehaztapenetan oinarrituta egin daitekeen balioespenaren artean.

## 4.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta betebeharrak

⇒ *Eskola-garraioa (1022/2005)*

- Erreklamazioa

Sopuertan bizi den familia batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen Obekuri auzoan geralekua jar zedin lortzeko, Zallako Mimetiz LHlan eskolatutako beren seme-alabei eskaintzen zaien eskola-garraioaren zerbitzua hobetze aldera.

- Azterketa

Kexa honen inguruan egindako lehen gestioei esker, familia honen asmoa aztertea ahalbidetuko ziguten aurrekariak ezarri genituen. Horrela, honakoak zehaztu ahal izan genituen:

- Dirudienez, eskola-garraioko B8704 zerbitzuaren ibilbidea antolatzerakoan, inoiz ez ziren kontuan hartu Balmasedako ertzainetxeak egindako txostenean jaso ziren bideko eragozpenak (*200 metroko alde handia dago; ez dago ikuspenik leku ilunetan eta zoruan lirdinga ere sor daiteke; etab.*).
- Kexa aurkeztu dutenek adierazi dute (eta Hezkuntza Administrazioak ez du gezurtatu), antza, ez zegoela eragozpenik Sopusertako Obekuri auzoa eskola-garraioko beste ibilbide batean barneratzeko (esaterako, San Viator ikastetxe itunduarenean).
- Dirudienez, Hezkuntza Administrazioak garrantzi handiagoa eman zien antolaketa-arazoei, bideko arazoei baino. Hala, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako txostenean azaltzen zen bezala: *“eskola-garraioko B8704 zerbitzuaren ibilbidea, Sopuserta eta Artzentaleseko ikasleak biltzen dituen, ibilbide luzea da; hori osatzeko, goizez 50 minutu inguru behar dira eta arratsalde ordu bete (443/2001 ED, 11. art.: “ibilgailuan ematen den denbora, gehienez, ordubetera ez iristea”.) Banakako laguntzen deialdiaren bidez ibilbide hau sortu zenetik, Artzentaleseko auzoetako ikasleak Artzentaleseko San Miguel auzoko geralekuraino joaten dira, hala egin ezean, eskola-garraioko zerbitzu hau bideraezina izango bailitzateke, bere iraupenagatik. Guztira 22 ikasle dira, haur eta lehen hezkuntzakoak; hortaz, 2005-2006 ikasturtean ibilgailuak 22 eserleku izan behar ditu eta ezin da eserleku gutxiagoko ibilgailurik erabili (443/2001 ED, 4.12 art.: “... adingabeak eserleku banatan joango dira”).*

Hori horrela, aurrekari horietatik abiatuta, erakunde honetan beharrezkotzat jo genuen (eta halaxe jakinarazi genien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunei ere) honako erabaki hauek berriro hausnartzea:

- Sopusertako Obekuri auzoa eskola-garraioko zerbitzuaren ibilbideetakoren batean sar ote zitekeen, soil-soilik bidearen ezaugarri objektiboak aintzat hartuta; horrela, kasuan kasuko administrazio bulegoek horren inguruan hartzen zuten erabakia ordutik aurrera antola zitezkeen eskola-garraioko ibilbide guztietan aplikatuko zen; eta
- B8704 zerbitzuaren garraio premiak berriro antolatzerik ba ote zegoen (zerbitzua bitan banatzea eta bakoitzean ikasle kopuru txikiagoa hartzea, etab.), kexa aurkeztu zuen familiak adierazitakoen moduko premiei erantzun ahal izateko; izan ere, familia horrek behin eta berriro aipatu zuen Hezkuntza Administrazioak proposatutako irtenbideak (garraiorako banakako laguntzak emateak) ez zela laguntzen famili eta lan arloko premiak behar bezala adiskidetzen.

- Emaizta

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, erakunde honek emandako azalpenei jarraiki, jakinarazi zuen berariazko ibilbidea (B8705 zerbitzua) ezarriko zuela

2006-2007 ikasturterako, lau eserlekuko ibilgailuaz baliatuta (taxia), Obekuri auzoko eskaerari erantzuteko.

Ikasturte hasieran zenbait gorabehera izan ondoren, hezkuntza-arduradunek aurretik adierazitako konpromisoa betetzeko ardura hartu zuten. Erakunde honetatik eskola-garraioko zerbitzu hori abian jarri zela egiaztatu genuen eta, beraz, gure esku-hartzea amaitutzat jo genuen.

## B) Haur hezkuntza

⇒ *Dulantziko Udaleko haur eskola. Onarpena (913/2006)*

- Erreklamazioa

Bi anaia biki Alegria-Dulantziko udaleko haur eskolan izan ziren 2005-2006 ikasturtean. Horien gurasoek ez zuten 2006-2007 ikasturterako inskripzio eskaera berritu, haiek eskolan jarraituko zutela ziurtatzeko izapide hori ez zela beharrezkoa pentsatu baitzuten. Gauzak horrela, behin inskripzio epe hori igarota, eskolako zuzendaritzak haurretako bat onartuko zela bakarrik ziurtatu zuen eta bestea plaza huts posibleen itxaron zerrendan sartu zen.

- Azterketa

Alegria-Dulantziko udaleko haur eskolan laguntza eta egonaldi zerbitzuaren prestazioa arautzen duen ordenantzak, hainbat aurreikuspenean artean, prozedura arautua ezartzen du haurrak eskola horretan sartzeko eta matrikulatzeko egin behar diren izapideei buruz. Gure ikuspegitik, ordenantza hau ez da uste bezain kategorikoa urteko inskripzioaren eskakizunari dagokionez. Horregatik, egungo jarduteko moduarekin jarraitu nahi izanez gero, komenigarria litzateke ordenantzaren testuari urtero berritzeko eskaeraren izapidea beharrezkoa dela dioen berariazko aurreikuspena eranstea, nahiz eta, erakunde honen iritziz, formalitate horrek ez lukeen arriskuan jarri behar eskolan jarraitzeko bermea, behin haurrak bertan direnean, argi eta garbi formalitate hori betetzen ez bada edo familiek berariaz uko egiten ez badiote behintzat.

Nolanahi ere, izaera erabat formala duten gogoeta horiek alde batera utzita, Alegria-Dulantziko Udalak era honetako arrazoiez baliatuta azaldu zuen bere erabakia: *“udal honek Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa den zerbitzua eskaintzen du eta bere asmo bakarra auzotarrei zerbitzu egokia ematea da. Udal honek ezin du egungo plaza-kopurua gehitu, espaziorik eta bitarteko materialik ez duelako”*. Bere hitzetan: *“araudia bete ezean, babesik gabe geratuko lirateke bai haur hezkuntzako eskola kudeatzen duen enpresa bai udala bera”*.

Hori ikusita, gure esku-hartzea ikerketa egitera bideratu genuen, Euskal Autonomia Erkidegoko zero eta hiru urte arteko haurrentzako haur eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren aurreikuspenak eta Alegria-Dulantziko haur eskola horri buruz genituen plangintza-datuak alderatuta.

297/2002 Dekretuaren artikuluko aurreikuspenen arabera:

1. Zero eta hiru urte artekoentzako haur eskolek gehienez honako haur kopuru hau izango dute baimendutako unitateko:

- urtebetetik beherako haurrentzako unitateak: 1/8
  - urtebeteko haurrentzako unitateak: 1/13
  - bi urteko haurrentzako unitateak: 1/18
2. Eskolak ez badu kopuru nahikoa, unitate berean adin desberdinetako haurrak taldekatzea baimendu ahal izango da, honako ratio hauekin bat etorritik:
- 0 urteko eta urtebeteko haurrentzako unitateak: 1/7
  - urtebete eta 2 urteko edo 0, 1 eta 2 urteko haurrentzako unitateak: 1/10
3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, haurraren adina eta garapen psikosoziala, zonako arreta-premiak eta antzeko inguruabarrak kontuan hartuta, haur eta unitate arteko zenbakizko erlazioa gehitzea edo gutxitzea baimendu ahal izango du salbuespenezko kasuetan, baita taldeak beste modu batzuetara antolatzea ere.

Eskolari buruz ezagutzen ziren datuekin bat etorritik, urtebete eta 2 urte arteko haurren gelak bat zetozen bakoitzean gehienez 13 haur egon behar dutela dioen ratioarekin; bestalde, 0 urte eta urtebete arteko haurren gelak bakoitzean gehienez 8 egon behar dutela dioen ratioarekin zetozen bat. Zero eta bi urte arteko haurrentzako gela mistoa ere bazegoen eta horretarako ezarritako haur kopurua 7koa zen, nahiz eta mota honetako geletan ikasleen gehieneko ratioa gutzira 10 haurrekoa izatera ere hel daitekeen.

Bestalde, udalaren web gunean argitaratu ziren onartuei eta baztertuei buruzko datuekin bat etorritik, ikasle erlazioa, ordea, honako hau zen:

<i>Onartuak</i>	Urtebete eta 2 urte: 28	<i>Onartu gabekoak</i> 3
	0 urte eta urtebete: 9	

Horrela, bazirudien ez zirela bete gela mistorako plaza guztiak, hasiera batean 0 urteko eta urtebeteko haurrentzat pentsatuak. Esan genezake gutzira 4 plaza hutsik zeudela.

Eskolan matrikulatutako haurrez arduratu behar duten profesionalen dagokienez, horien kopurua ere dauden gelen arabera dagoenez, ez zirudien gela mistoan zeuden haurren kopurua gehitzeak bertan eragina izan behar zuenik profesional gehiagoren beharrari dagokionez. Antza, gauza bera gertatu behar zuen beharrezko espazioen tratamendurekin, proiektatutako gela-kopurua aintzat hartuta.

Hori horrela, eta aurrekari horiek kontuan izanda, erakunde honek ondorioztatu zuen Alegria-Dulantziko Udalak ahalegin handiagoa egin behar zuela familia honen semeek eskolan onartuak izateko zituzten aukerak berriro hausnartzeko, gogoan izanda konfigurazioak ikasle kopurua gehitzea ahalbidetzen zuela gela misto gisa 0 eta 2 urte arteko haurrentzat aurreikusitako gelan, ez bakarrik adingabe hauek merezi duten derrigorrezko hezkuntza-arreta emateko, baizik eta baita beren gurasoen lan eta famili arloko premien adiskidetzeari bultzatu eta errazteko.

#### • Emaizta

Alegria-Dulantziko alkateak erakunde honi jakinarazi zion familia horren beste semea ere onartu zutela eskolan. Hala ere, gure esku-hartzearen emaitza onuragarria

hainbat gaitzespenek lausotu zuten. Horren ondorioz, agerian utzi behar izan genuen kontu honi dagokionez gure lanak izan zuen xede bakarra biki hauek onartuak izateko aukerak aztertzea izan zela; bestela ezin izan zitekeen bezala, aukera horiek 0 eta 2 urteko haurrentzat aurreikusitako gelaren konfigurazioak, gure ustez, ikasle kopurua gehitzeko zuen ahalmenaren menpe jarri ziren. Gure asmoa inoiz ez zen beste adingabe batzuekiko neurrigabe edo bidegabe jokatzea, antza, udal arduradun batzuek halaxe interpretatu zuten arren.

### C) Unibertsitateko hezkuntza

⇒ *Psikopedagogiako lizentziaturako praktikak baliozkotzea (244/2006)*

#### • Erreklamazioa

EHUko psikopedagogiako lizentziaturako ikasle batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen kasuan kasuko unibertsitate bulegoek lizentziatura horretako praktikak (*practicuma*) baliozkotzeko bere eskaera onar zezaten. Bere asmoaren alde, pertsona horrek adierazi zuen, bere ustez, irakasle gisa zuen lanbide espedienteak sobera betetzen zituen praktika horien prestakuntza-helburuak.

Halaber, interesdunak aipatu zuen, lehenik, *practicumaren* koordinatzailearekin jarri zela harremanetan eta horrek esandakoak bere asmoa gauzatzea lortuko zuela pentsarazi zion. Denboraldi luze bat igarota inolako berririk izan ez zuenez, baliozkotzearen onarpenaz galde egin zuen. Orduan, bere eskaerari erantzunik eman ez zitzaionez, baliozkotze eskaera ofiziala egin behar izan zuen. Epez kanpokotzat jotzeaz gain, agintaritzak akademikoek eskaera baztertu zuten, hasierako harremanetan inoiz agerian jarri ez ziren arrazoiengatik.

#### • Azterketa

Lehen eta bigarren zikloko irakaskuntzetarako kudeaketa-arauegiak, egokitzape-nei eta baliozkotzeei buruzko VII. kapituluak, ez du zalantzarako biderik ematen, 70. artikuluan honakoa baitio: “*baliozkotze eskabideak ikastetxeetako idazkaritzetan aurkeztuko dira, horiek ezarritako epeetan, eta Baliozkotze Batzordeek edo horien baliokide direnek ebatziko dituzte, urte bakoitzeko abenduaren 1a baino lehen*”.

Horrek azaltzen zuen Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak erakunde honen hasierako esku-hartzeari erantzunez bidalitako informazioan honakoa ohartaraztea: “*Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko idazkaritzan ez dago inolako agiririk baliozkotze eskaerarako ezarritako administrazio prozedura bideratu dela egiaztatzen duenik*”; eta, jarraian, honakoa ondorioztatzea: “*erreklamazioa ez zen ezarritako protokoloari jarraiki aurkeztu eta, beraz, ez da bidezkoa hori kontuan hartzea*”.

Hala ere, interesdunak kexa-idazkiarekin batera ekarritako dokumentazioa arretaz irakurrita, hura eta *practicumeko* koordinatzailea hainbatetan harremanetan egon zirela ikusi ahal izan genuen. Aldi horietatik guztietatik, bada bat bereziki azpimarragarria dena. *Practicumeko* koordinatzaileak interesdunari bidalitako posta elektronikoa batean, argi eta garbi onartu zen interesdunak baliozkotze eskabidea aurkeztu zuela, baina ezinezkoa



zela horri erantzutea. Era berean, posta horiek garbi uzten zuten, data jakin bat arte, koordinatzaileak eta interesdunak izandako harremanak traba handirik gabe gauzatu zirela. Data horretatik aurrera, ordea, arintasuna galdu zen eta ordura arte kezkatzeko arrazoa izan ez ziren eskakizunak eta formalitateak ezartzen hasi ziren.

Erakunde honek badaki administrazio prozedura orok berme garrantzia duela. Horregatik, formalitate horiek behar bezala errespetatu daitezela interes gehien dutenak izan ohi gara.

Baina, hori gorabehera eta kontuan izanik, nola ez, EHUren kudeaketa-arautegiko aurreikuspenak, kexa-espeditentia izapidetzerakoan ohartu ginen, gure ustez, unibertsitateak formalitate horiek behar ez bezala edo bidegabe erabili nahi izan zituela, baliozkotze eskabidearen berri izan ez balu bezala jokatu baitzuen; kontua da, ordea, eskabideak ohiko formalitateei men egiten ez bazien ere, jakina zela interesdunak bidali zuela, *practicumeko* koordinatzaileak horri bidali zion posta elektronikoa erakusten zuten bezala.

Bestalde, administrazio harremanetan nagusi izan behar duen bidezko konfiantzaren printzipioak duen garrantzia ere azpimarratu genuen. Gure ikuspegitik, *practicumeko* koordinatzailearen jarduteko moduak garbi utzi zuten aurretik elkarrizketak izan zituztela eta, horietan, interesdunari lortu nahi zuten baliozkotzea bidezkoa zela pentsarazi zitzaioala; izan ere, koordinatzailea isilik egon zen hainbat hilabetez, interesdunak 2005eko ekainean posta elektronikoz aurkeztu zuten baliozkotze eskabideari emandako tratamendua berrets diezaiola eskatu zion arte. Jakina denez, printzipio horrek, administrazioaren eta partikularren arteko harremanetan fede onez jokatu behar delako printzipio tradizionalarekin batera, ez du uzten kanpo gertakari edo adierazgarri jarraiki eragindako itxaropenarekin bat ez datozen neurriak hartzen, gertakari edo adierazgarri horien ondorioz, partikularrak lortu nahi duen administrazio jardunaren legezkotasun itxuran ustea izatea egin baitaiteke. Printzipio honen norainokoari edo birtualtasunari esker, kasuan kasuko egintza baliozabetu egin daiteke eta, hala, interesdunari sortutako bidezko igurikimenak lehenera ekar daitezke.

Aurrekoaren ildotik, hain zuzen ere *practicumeko* koordinatzailearekin izandako lehen elkarrizketek (horietan, antza, aurrekariak ere bazirela onartu zen) interesdunarengan uste ona sortu zutelako eta ondoren aurkako adierazpenik egon ez zelako jo genuen bidezkotzat fakultateko dekanordeek 2006ko otsailean formalki egin zen baliozkotze eskaera ukatzeko eman zituzten arrazoiak baloratzea, arrazoi horiek ez baitzuten arriskuan jartzen interesdunarengan legezko uste ona sortu izanaren benetako aukera.

Hain zuzen ere, lehenik eta behin, argudiatu zen interesdunak aipatutako lanbide esperientzian ez zeudela *tutore* eta *irakasle* irudiak, beharrezkoak diren arren praktikak egin eta baloratzeko. Izan ere, psikopedagogia-hezkuntza bereziko *practicumerako* diseinatutako programak bi irudi hauen parte-hartzea praktikak garatu eta, gero, baloratzeko funtsezkoa izatea egiten du. Hala ere, aurretiazko lanbide esperientziari balio akademikoa ematea helburu duten baliozkotze prozesuetan biak egon daitezten nahi izateak, gure ustez, edozein lanbide errealiteri baliozkotze aukera ukatzea dakar, nahiz eta, paradoxikoki, praktika hauen bidez, lortu nahi den gauza bakarra ikasleak lanbide praktikaren errealitatearekin harremanetan jartzea den. Gainera, jokabide hori, une hartan saihestezina bailitzan aurkeztu zena, ez zettorren bat aurrekariak onartzearekin edota 2005eko ekainean *practicumeko* koordinatzaileak eskainitako baliozkotze aukerarekin.

Bigarrenik, argudiatu zen interesdunak curriculum vitae gisa bere lanbide esperientzia azaltzeko bidali zuen idazkian ez zeudela horren egiazkotasun eta baliozkotasunaren fede eman zezaketen kasuan kasuko agiriak, nola jatorrizkoak hala konpultsatuak. Berriz ere, beste formalitate baten aurrean geunden eta, hori ikusita, unibertsitateak administrazio prozedura arautzen duen legearen 71. artikuluan aurreikusitakoa erabili eta aplikatu beharko zukeen. Horrek beren beregi dio interesdunek eskabidea ongitu eta hobetu egin beharko dutela, beharrezko baldintzak betetzen ez dituztela pentsatzen denean, ustez kasu horretan gertatzen zen bezala. Fakultateko dekanoa arrazoi hori sendotzen saiatu zen, honakoa adieraziz: “*eginkizunak aipatu baino ez badira egiten, ezinezkoa da lanbidean garatutako irakasle jarduerak *practicumean* garatutako eginkizunekin alderatzea eta parekagarri egitea*”. Baina, gure iritziz, berriz ere, jarrera horrek ez zuen interesdunari eskaini behar izango litzaizkioken ongitze bideen berri.

Azkenik, aipatu berri ditugun horiek dekanordeek erabilitako arrazoi bakarrak izan ziren arren, fakultateko dekanook, erakunde honen laguntza-eskaerari erantzuteko asmoz Idazkaritza Orokorra bidalitako txostena prestatzerakoan, beste arrazoi bat ere ematen zuen; alegia, baliozkotu beharreko irakasle eginkizunak ez zetozela bat helburuekin eta ez zituztela errespetatzen *practicumean* ezarritako berariazko jarraipenerako irizpideak. Erakunde honen ustez, beste arrazoi horrek motibazio ahalegin handiagoa eskatzen zuen.

- Emaizta

Unibertsitateari proposatu zitzaion interesdunaren baliozkotze eskaerari emandako tratamendua berrikus zezala, bere jarduna administrazio jardura ororen oinarri izan behar duten fede onaren eta legezko uste onaren printzipioetara bideratzen saiatzeko. EHUK proposamena onartu zuen, nahiz eta, azkenean, baliozkotze aukerari uko egin zion. Horren eraginez, beste kexa-espediente bati eman zaio hasiera.

## D) Eskola-garraioa

⇒ Eskola-garraioko zerbitzua. Ibaiondo LHI (713/2006 eta 943/2006)

- Erreklamazioa

Ibaiondo-Ibailakua LHlko ikasleen gurasoen elkarteak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari helarazitako demandaren berri eman zion erakunde honi. Horren bidez, eskatu zuten eskola-garraioko zerbitzu osagarria eskaintzen jarrai zezatela ikastetxe berria eraiki bitartean Pío Baroja LHlko instalazioetara behin-behinean joan behar izan zuten ikasleei.

- Azterketa

Hasiera batean, erakunde honek egindako laguntza-eskaerari erantzunez, hezkuntza-arduradunek adierazi zuten prest zeudela haur eta lehen hezkuntzako eta DBHko lehen zikloko eskola-garraioko erabiltzaileek bete beharreko baldintzak urtero ezartzen dituen zirkularrari erantsitako irizpide orokorrak errespetatzeko (funtsean, ikaslearen

bizilekuaren eta eragin eremuagatik dagokion ikastetxearen arteko distantzia bi kilometrokoa edo gehiagokoa izatea).

Horrela, hezkuntza-arduradunek azaldu ziguten, Ibaiondoko ikasleei dagokienez, arazo nagusia distantziaren baldintza betetzen ez zuten ikasleen artean sortu zela, antolatutako garraio-ibilbideak, batetik, Gasteiztik gertu dauden herrietan bizi diren eta Ibaiondo LHlari dagozkion ikasleak eta, bestetik, ikastetxetik 2 km-ra baino gehiagora bizi diren Gasteizko bertako 6 ikasle hartzen baititu. Orobat, adierazi zuten eskola-garraiorako ezarritako irizpideak aplikatzerakoan beste moduren batera jarduteak eta, hala, ikasle eskatzaileen alde egiteak diskriminazio tratua eragingo lukeela gainerako ikasleei dagokienez.

Logikoki, lehen informazio horretan oinarrituta, gurasoen elkartera jo genuen eta jakinarazi genien nekez gaitzets zitezkeela Ibaiondo LHlan eskola-garraioko zerbitzuari dagokionez egindako aurreikuspenak, adingaberen batek, haur eta lehen hezkuntzan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan eskola-garraiari dagozkion irizpide orokorrak direla-eta onartutako zirkularreko baldintzak bete arren, zerbitzu hori jasotzen ez zuela egiaztatuko ez balitz.

Hala ere, beste familia batzuek hala eskatuta, beste kexa-espeditente bat izapidetu behar izan genuen eta, horren bidez, Hezkuntza Administrazioak hasierako jarrera aldatu zuela ikusi ahal izan genuen. Hala, eskola-garraiari buruzko erabaki pribatiboa bazegoela egiaztatu ahal izan genuen. Erabaki horren ondorioz, berez beste ikastetxe batzuetakoak ziren (hau da, beste ikastetxe batzuen eragin eremuan bizi ziren), baina 03-04, 04-05 eta 05-06 ikasturteetan Ibaiondo LHlan, D ereduan, eskolatuta egon ziren ikasleei eskola-garraioko prestazio osagarria eskainiko zitzaien lehen hezkuntzako eskolatze aldi osoan, betiere, Ibaiondo LHlitik 1,5 km-ra baino gehiagora bizi baziren.

Kontua da, aldaketa ikusi eta baloratu ostean, ez genuela ulertzen zergatik jo zuen Hezkuntza Administrazio horrek salbuespenezkotzat Ibaiondo LHlan eskolatutako ikasle horien egoera, "lekuz aldarazi" direla esaten baita. Beste hainbat ikasle ere egoera horretan daude, baina, beren bizilekuetatik destinoko ikastetxera egin beharreko joan-etorrietan 2 km-ko gutxieneko distantzia egiten ez dutenez, ez zaie zerbitzu osagarri hori ematen. Hain zuzen ere, erakunde honetan kexa aurkeztu zuten beste familia batzuek ere beren alabak egoera berean zeudela adierazi zuten: lekuz aldarazitako ikasleak ziren (antza, beren berezko ikastetxeak Toki Eder eta Barrutia ikastolak ziren), baina Ibaiondo LHlan eskolatuta zeuden, beren bizilekuetatik 1,560 km-ra.

Eskola-garraiari buruzko kexak izapidetuta egiaztatu ahal izan genuen Hezkuntza Administrazioak aurretik ere bazekiela, hezkuntza-zerbitzuak eskuratzeko erabateko aukera-berdintasuna ziurtatu nahi baldin badu, beharrezkoa dela aplikazio orokorreko irizpide objektiboak ezartzea; irizpide horiek, eskola-garraioko zerbitzu osagarriari dagokionez, TE 1/2006 zirkularrean jasota daude.

Horregatik, bereziki ohartarazi nahi izan genuen aurretik ezarritako irizpide objektibo horiek aplikatzerakoan egindako salbuespen orok behar bezala arrazoituta egon behar duela eta, behin hori onartuta, salbuespenezko tratamendua ematea eragin duten inguruabarren modukoak aurkezten dituzten kasu guztietara zabaldu behar dela. Esku artean dugun kasuan, Hezkuntza Administrazioak uste du salbuespen gisa hartu behar direla berez beste ikastetxe batzuetakoak diren, baina 03-04, 04-05 eta 05-06 ikasturteetan Ibaiondo LHlan eskolatuta egon diren ikasleak, betiere, Ibaiondo LHlitik 1,5 km-ra baino gehiagora bizi badira.

- Emaizta

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabaki “pribatibo” hau mantendu zuen eta adierazi zuen beste kexa horretan aipatzen zen ikasleen kasuak ez zuela zerikusirik erabakiaren edukiarekin. Horren inguruan aipatu zuen horien bizilekuak, 2003-2004 ikasturtean Ibaiondo LHaren eragin eremuan egoteaz gain, ez zeudela 1,5 km baino gehiagoko distantziara.

⇒ *Hezkuntza-plangintza. Ea udalerrian bizi den adingabe batek eskolatzeko dituen aukerak (856/2006)*

- Erreklamazioa

Ean bizi den familia batek bere alaba Ispasterreko ikastetxe batean eskolatu nahi du, beharrezko zerbitzu osagarri guztiekin (garraioa eta jantokia).

Hezkuntza-administrazioak, jada ezarrita dauden hezkuntza-ibilbideak aintzat hartuta (eskola mapa), behin eta berriz adierazi du Ea “Urdaibai” aldean sartuta dagoela eta alde horretako ikasleek Barrutia LHIn eskolatu behar dutela. Salbuespen bakarra onartzen du: Bedaroa deritzan herrigunea. Herrigune horretan bizi diren adingabeak Ispaster ikastetxera joaten dira, Eako Udalak berak hala eskatuta 2005-2006an onartu zen zonifikazioaren ondorioz.

- Azterketa

Egiaz, abenduaren 27ko 479/1994 Dekretuko aurreikuspenen arabera –horren bidez Euskal Herriko eskola-bilguneak behin-behinekoz ezarri ziren (EHAA, 6. zenbakia, 1995eko urtarrilaren 10ekoa)–, Ea udalerria Busturiako bilgunean sartuta geratu da (bilgune berekoa da Arratzu udalerria ere, non Barrutia ikastetxe publikoa baitago); Ispaster udalerria, aldiz, Lea Artibaiko bilgunean sartuta dago.

Bestalde, egia da, orobat, hezkuntza-administrazio horrek arauzko hainbat xedapenetan azaldu duenez, eskola-bilgunea ikastetxean eta irakaskuntzari laguntzeko gaintzeko zerbitzuen antolaketa eta plangintzarako erreferentzia-markoa dela. Horrela, ahaleginak egiten dira eskola-bilgune bakoitzak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzamaile guztiak estaltzeko behar diren gutxienezko ikastetxeak eta zerbitzuak izan ditzan, bizilekutik gertu eskolatzen saiatzeko.

Erreferente formal horietatik abiatuta, agerikoa da ezer gutxi aurpegira dakiokela hezkuntza-administrazioari zera argudiatzen duenean: familia horrek eskatzen dituen zerbitzu osagarriak jasotzeko, beraien alabak eragin-eremuaren arabera dagokion ikastetxean eskolatuta egon behar duela, batez ere eremu edo bilgune hori hezkuntza-zerbitzu guztiak (eskola-garraioaren ibilbideak...) antolatzeko oinarri bihurtzen delako.

Hala ere, aztertzen ari garen kasuan, ez da ahaztu behar beste errealitate bat ere badagoela, 1994an erabakitako zonifikazioaren ezarpen mekanikotik itzurtzen dena eta, normala denez, zenbait salbuespen onartu beharra dagoela pentsarazten duena. Salbuespenok oraindik onartzeke dagoen behin betiko eskola-mapan sartuta gera dai-tezke hurbileko etorkizunean.

Horren haritik, kexagileek argudiatzen dutenez (eta hezkuntza-administrazio horrek eragozpenik gabe onartu duenez), Ea udalerrian bertan bada, aldi berean, beste

errealitate bat ere: Bedaroa herrigunea, hain justu. Bedaroako haurrek, aipatu ditugun formaltasunak gorabehera, onartua dute Ispasterren eskolatzeko aukera, jantoki eta garraio zerbitzu osagarri guztiekin; salbuespen hori, adierazten denez, 2005-2006 ikasturteaz geroztik onartuta dago, Eako Udalak hala eskatuta.

Beste datu objektiborik izan ezean eta aipaturiko hori planifikazio-neurri objektibo eta arrazoitua dela sinisturik, pentsatzen dugu hezkuntza-administrazio horrek erabaki horren bidez gauza bakarra lortu nahi duela, egiaz: hezkuntza-plangintzan nagusitu behar duten helburuetako bat (bizilekutik gertueneko tokian eskolatzan saiatzea) ziurtatzea.

Hala ere, aurrekari horrexegatik hain zuzen, ezinbestekoa da, erakunde honen ustez, administrazio horrek balorazio arrazoitua egin dezan familia horren proposamenaren gainean, nahiz eta horrek orain 12 urte onartutako zonifikazioa alde batera uztea ekarri. Izan ere, bestela, nekez justifika daiteke haur hori, zerbitzu osagarri guztiekin, Ispaster ikastetxean eskolatzeko egin den eskabidea sail horrek etengabe ukatzeak benetan sortzen duen egoera bidegabea.

Proposatzen den jarduera-lerro horren bidez, erakunde honek ez du eragotzi nahi, inolaz ere, garraio eta jantoki zerbitzuak onartzeko erabiltzen diren irizpide orokorrak aplikatu daitezkeen. Hori argitzea komeni da. Azken batean, ez da ahaztu behar bizilekueremuko ikastetxeetatik urruti dauden udalerrri edo herriguneetan bizi diren ikasleek joan-etorrian ibili behar dutelako onartzen direla zerbitzuok. Eztabaidatu beharreko kontua beste bat da, ordea: familia horren eskolatzeko-proposamenari erantzun arrazoitua ematea, eremu horretarako diseinatu den hezkuntza-plangintzari kasu eginez.

Arartekoak badaki hezkuntza-plangintzarekin zerikusia duten horrelako gaitan gogoan izan behar dela administrazioak aukeratzeko duen ahalmena. Hala ere, horrelako keak izapidetxean behin eta berriz adierazten ari garenez, aukeratzeko ahalmen hori erabiltzean, arrazoi objektiboak eta nahikoak eman behar dira beti, hartutako erabakietatik arbitrariotasun susmo guztiak urruntzeko.

Hezkuntza-administrazioak arrazoi gisa adierazi digu seme-alabak Barrutia LHIn eskolatuta ditzuten beste familia batzuek ez dutela kezarik egin (ustez, Ean bizi diren familiez ari da, bestela datu horrek ez du zentzurik). Horrek adieraz dezake azken urteotan, familia bakar batek ere ez duela zalantzan jarri hezkuntza-administrazioak eskolatzearen arloan egin duen zehaztapena. Hala ere, 2005-2006 ikasturterako onartutako zonifikazioan Bedaroako ikasleentzat jada eskolatzeko-aldaketa bat onartu eta gero (ez da hori egiteko arrazoirik eman, soilik Eako Udalak eskatuta egin zela adierazi da), ulertzekoa da beste familia batzuek ere antzeko tratamendua nahi izatea. Ulertzekoa dela diogu, eremu horretan bizi diren adingabeek egin beharreko joan-etorriei buruzko datu objektiboek alde nabarmenak erakusten dituztelako (Ea-Ispaster: 5 kilometro / Ea-Arratzu. 17 kilometro). Hori ikusita, hezkuntza administrazioak gutxienik beste arrazoi batzuk eman behar ditu egungo ibilbideak aldatzea ezinezkoa dela –ezta etorkizuneko eskola maparako kontuan hartzeko proposamen gisa ere– azaldu eta justifikatzeko.

- Emaizta

Txosten honen prestakuntza bukatutzat jotzeko unean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak familia horren kasua ezin dela salbuespena izan adierazten jarraitzen du. Hala ere, eskola mapa berriz aztertzen denean, eragindako sektoreei kontsulta eginez, oraingo ibilbideak alda daitezkeela ohartarazi digu.

## 5. FUNTZIO PUBLIKOA

### 5.1. SARRERA

2006an 101 kexa jaso dira funtzio publikoaren arloan. Hori arlo guztietan izapidetutako erreklamazioen %6,02 da.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	50
- Toki administrazioa .....	22
- Foru administrazioa .....	13

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauekin erlazionatuta egon dira:

- Hautaketa .....	47
- Ordezkapenak .....	10
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	8
- Beste batzuk .....	8
- Eskubideak eta askatasunak .....	6
- Hizkuntz normalizazioa .....	5
- Lanpostu hornikuntza .....	5
- Beste eskubide eta betebehar batzuk .....	4
- Barne sustapena .....	3
- Irisgarritasuna .....	1
- Prestakuntza .....	1
- Ordainsariak .....	1
- Administrazio egoerak .....	1
- Lanpostuen balorazioa .....	1

Joan den urtean funtzio publikoaren arloa barneratu genuen lehenengoz eta, bertan, 2000n EAEn egindako LEPeke **hautapen prozesuei** berriz ekitea nahi zuten oposizilogileek aurkeztutako kexen berri eman genuen. Zorionez, jada esan dezakegu 2006an ebatzi direla luze geratuta egon diren prozesu hauek eta horrek ez duela kexa berezirik eragin.

Horren inguruko gorabehera bakar gisa, EAeko Administrazio Orokorrek eskaintako plaza edo lanpostuen hautaketa zalantzan jarri duten funtzionario batzuek sortutakoa aipa dezakegu; horien ustez, plaza horietako batzuetan ez zen lekualdatze lehiaketa egin aurretik. Hala ere, Administrazioak adierazi zigunez, horren bidez 2000ko LEParen ondoren sortu edo aldatu ziren zenbait lanpostu huts eskaini nahi izan zitzaizkien langile berriei. Are gehiago, jokabide horrek Neurri Fiskalei, Administratiboei eta Gizarte Arloko buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen babesari izan du; 103. artikulua funtzionario publikoen lanpostuak betetzeko erregimena aldatu du eta onartu du, langile

berrientzako deialdietan barneratutako plazei dagozkien lanpostu hutsei dagokienez, ez dela beharrezkoa aurretik lehiaketa egitea lehendik funtzionario direnen artean.

Era berean, aipa dezakegu zenbait oposizioegilek zalantzan jarri dutela EAeko Administrazio Orokorrean eta Foru eta Toki Administrazioan egindako zerbitzuak eta gainerako administrazio publikoetan egindakoak desberdin baloratu izanaren inguruko epaien ondorioak ez direla zabaldu –epai horiek balorazio irizpide hori diskriminatzailea zela aditzera eman zuten–; aurkakoa gertatu da Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen laugarren xedapen iragankorrari dagokionez emandako erabaki judizialekin, horiek zabaltzea Administrazioak berak ofizios agindu baitu (Agindua, 2005eko abenduaren 9koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena – abenduaren 12ko EHAA, 234 zk.). Kasu honetan, Funtzio Publikoko zuzendariak behar bezala azaldu dituen segurtasun juridikoko arrazoiek modu berean jokatzera eragotzi dute.

Espero dugu, 2000ko LEP honen esperientzia ikusita, EAeko Administrazio Orokorrek bere langile beharren kudeaketa normalizatu eta ordenatua egiteko bideari ekin ahal izatea.

Nolanahi ere, eta kontu honen inguruan administrazio publiko desberdinek interes eta arreta berezia izan dezaketen arren, kontua da langile hautaketari buruzko gaiak direla kexa gehien eragiten dituztenak.

Horrela, beldur gara oso berriki egin den Osakidetzaren 2006ko LEPak kexa ugari eragingo dituen, horren izaera masiboagatik bada ere. Izan ere, dagoeneko zenbait kexa jaso dira hautaproba batzuk taxutzearen inguruko hainbat alderdiri buruz: zenbait kategorietarako (besteak beste, familiako medikuaren kategoriarako) aurretik ezarrita dauden galdera-sortak, etab.

Baina, 2006an iragarritako deialdi guztietatik, bada bat modu berezian azpimarratu beharrekoa, horren inguruan kexa ugari jaso baita; deialdi hori Donostiako Sustapena sozietateak egindakoa da. Deialdi horretan parte hartu nahi izan duten herritarrek askotariko alderdien berri eman diote erakunde honi, azter zitzan, baina, zalantzarik gabe, gehien nabarmendu eta gailentzen dena aurretiazko esperientzia kontuan hartzearen ingurukoa izan da. Gai horri buruz Arartekoak ebazpena eman zuen 2006ko uztailaren 11n. Horren xehetasunak jarraian 794/2006 erreferentziarekin erantsi den kexa-laburpenean aipatu ditugu.

Halaber, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen plazak betetzeko iragarri zituen hautapen prozesuen inguruan jasotako kexak azpimarratu nahi ditugu. Oraindik izapidetze prozesuan dauden kexa horietan, adierazleek ustez babesgabetasun egoera dena gainditu nahi dute eta, horretarako, behin eta berriro eskatu dute prozesuko lehen proba gisa egindako azterketa psikoteknikoan lortu ziren emaitzak azal ditzatela.

Bestalde, ez dugu alde batera utzi nahi ezta ere administrazioko eta zerbitzuetako langile gisa diharduen funtzionario talde batek hala eskatuta EHUri dagokionez hasi berri dugun jarduna. Interesdun horiek erakunde honen bitartekotza eskatu dute eta ohartarazi dute ez dutela inolako aukerarik lanbide ikasketak egiteko, ez baitago barne sustapeneko prozeduren deialdian egin daitezkeen lan eskaintza publikoen kudeaketa normalizaturik.

Hain zuzen ere, barne sustapeneko prozedura horien ildotik, interesgarritzat jo dugu, kexa-laburpen gisa, Azkoitiko Udalak jendaurrean jarritako deialdia aipatzea ins-

pekzio eskalako ofizialorde arduradun kategoriari dagokion plaza jabetzan betetzeko, barne sustapen gisa eta oposizio-lehiaketa bidez (ikusi 386/2005 laburpena).

2005. urteko txostenean, Urnietako Udalak bere langile beharretako batzuk kudeatzeko zerabilen moduan antzemandako disfunzioen berri eman genuen. Orduan adierazi genuenez, Urnieta Eraiki, SA sozietate publikoaren zerbitzura langile bat kontratatzeke adierazi zen xedeak (lan aholkularitza eskaintzearenak) sozietate horren estatutuek jasozten zuten xedearekin inolako zerikusirik ez zuela egiaztatu ahal izan genuen, sozietate hori udalean hirigintzako jardunak sustatzeko eratu baitzen. Hori horrela, azkenean, gomendioa egin da jardun horren inguruan (5/2006 Gomendioa, otsailaren 23koa, Urnietako Udalari zuzendua, lan sustapeneko jarduerak garatzeko beharrezko irizten dituen langile beharrak berriro definitu ditzan eta behar horiek Konstituzioan jasotzen diren berdintasunaren, merezimenduen, gaitasunaren eta publizitatearen irizpideetara egoki ditzan); gomendio horri, ordea, ez zaio jaramonik egin.

**Lanpostuak betetzeari** buruzko atal honetan bertan, 2005ean ere aipatu genuen hainbat kexa jaso genituela mugitzeko urritasuna duten irakasleen aldetik, mugikortasuna errazteko neurri positiboak hartu behar zirela ohartaraziz, hain zuzen ere, destinoko beren ikastetxeetan irisgarritasunik ez zegoelako. Kexa hauen ondorioz garatutako jardunak martxoaren 2ko 6/2006 Gomendioa egitea ekarri du. Horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu zitzaion ezgaitasuna duten EAEko funtzio publikoko langileen erabateko integrazioa berma zezala, jarduteko hiru ildoren bitartez: lehena, ikastetxeetan irisgarritasun unibertsala sustatzea; bigarrena, EAEko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzura dauden irakasleen sarbidean eta lan baldintzetan benetako aukera-berdintasuna lortzera bideratutako ekintza positiboak aplikatzea; eta hirugarrena, ekintza positibo horien eraginkortasuna ziurtatzea, bereziki, ezgaitasun arrazoiak direla medio ematen diren zerbitzu eginkizunak irakasleen erabateko laneratzea ahalbidetuko duten destino irisgarrietan gauzatuko direla bermatzen duten neurri osagarriak abian jarrita.

Beste kontu batzuei dagokienez, zehazki, **administrazio egoeren** arloari dagokionez, uste dugu aipatu beharrekoa dela eszedentzian egon den eta zerbitzura itzuli nahi duen Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionario batek hala eskatuta izapidetu dugun kexa. Kontu honetan esku hartzeko genituen aukerak aztertzerakoan, udalari proposatu diogu berriro azter dezala titularrrik gabeko administrari laguntzaile postuak betetzearen inguruan duen jokabidea; une honetan, antza, postu horiek beharrezko hizkuntz gaikuntza ez duten bitarteko hautagaiak betetzen dituzte. Harrituta geratu gara administrazio horrek oinarrizko azpieskalari (kasu honetan, administrazio orokorreko laguntzaileenari) dagozkion lanpostu hutsak betetzeko hizkuntz gaikuntza egokia duen hautagairik ez dagoela esan duenean, batez ere, kontuan hartuta Vitoria-Gasteizko Udalak baduela arautegi propioa (hots, aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketa arautzeko erregelamendua) eta, bertan, hautagairik ez dagoenean zerrendak handitzeko mekanismoak jasotzen direla. Beharrezkotzat jo dugu proposamen hori egitea, bereziki, funtzionario hau itzul dadin ez onartzeko kontuan hartzea nahi den arrazoa ikusita (...*interesdunari dagokionez, zerbitzu aktibora itzuliz gero, behin-behinean atxikita geratuko litzakete eta, beraz, hurrengo lehiaketan parte hartu beharko luke behin betiko atxikita geratzeko. Hau, ordea, ez litzateke posible interesdunak ez baditu betetzen eskainitako lanpostu hutsen baldintzak. Horrela, (...) modu iraunkorrean behin-behineko egoeran geratuko litzateke eta, hala, funtzio*



*publikoa erregulatzen duten arauetako kontraesana sortuko litzateke*), horrek alde batera uzten baitu, lanpostu hutsa behar bezala garatzeko aurreikusitako hizkuntz eskakizunak betetzen dituen edozein bitarteko hautagairekin alderatuta, interesdunak duen eskubide handiagoa edo egoera hobea.

Hizkuntz normalizazioaren arloan, 2006an Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUF) lan eskaintza publikoa izan da kexarik aipagarrienak eragin dituen. Joan den urtean Bilboko Ur Partzuergoak iragarritako hautapen prozesuekin gertatu zen bezala, erakunde honek ahaleginak egin ditu GUFeren 2006ko LEPan barneratutako lanpostuetara heltzeko euskararen ezagutzari dagokionez ezarri den nahitaezko eskakizuna erakunde horretarako aurretik ezarritako hizkuntz normalizazioko mailekiko nahikoa proportzionala ote zen zehazteko, lanpostu publiko hauetarako sarbidean diskriminazioa egon dela esan ez zedin. Kasu honetan, eta Ur Partzuergoaren kasuan ez bezala, kontua da ez dugula gehiegikeriarik antzeman 626/2006 erreferentziarekin jasotako laburpenean zehazten diren arrazoiengatik.

**Baimenei eta lizentziei** dagokienez, berriz ere, kontu honi buruz jasotako kexa gehienak **erantzukizun pertsonalak eta lanbide erantzukizunak** adiskidetu nahi dituzten langileek aurkeztutakoak izan dira. Kexa hauek aztertzerakoan, desberdintasun nabarmenak egiaztatu ahal izan ditugu adiskidetze neurri hauek kudeatzeko moduan, funtzio publikoko sektore bat edo beste izan.

Horrela, osasunaren arloan, ikusi ahal izan dugu Osakidetzak ez duela lanaldi murrizketako erregimena aldatu nahi, behin murrizketa epe jakin baterako baimenduta, eta horren inguruan argudiatu duela horrek kudeaketa-eragozpenak sortuko litzuzkeela, esaterako, egin beharreko ordezkapenei dagokienez. Zalantzarik gabe, guztiok ohartzen gara kudeaketa-eragozpen horiez. Nolanahi ere, horien ondorioak ahalik eta gehien minimizatzeko ahaleginak egiten dira, murrizketa-neurri horiei heldu nahi dieten interesdunek horiez baliatu ahal izateko denboraldia eta baldintzak adierazi eta, nolabait, “adostu” ditzaten eginda. Baina, beharrezkoa da konturatzea, gure ikuspegitik, eragozpen horiek ezin dutela hori ez den beste eraginik izan; alegia, kudeaketa-eragozpenak edo zailtasunak besterik ez. Inolaz ere ezin har edo erabil daitezke famili eta lan premiak benetan adiskidetzen laguntzeko langileei onartu zaizkien eskubideak murrizteko oinarri gisa.

Irakaskuntzaren sektorean, aldiz, ordezkoak dira lanaldi murrizketako baimenak onartzeko gutxieneko baldintzak eskatzen dituztenak, neurrigabekotzat hartzen dituzten egoerei amaiera emate aldera (esate baterako, ordeztu diren langileak berriz ere lanaldi osoan hasten direnean Gabonetan eta Aste Santuan, ordezkoak baztertu egiten dira). Horri dagokionez, erabaki dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari beste hezkuntza-administrazio batzuen kudeaketa-eremuan (adibidez, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Valentziako Generalitatearen eremuan) dauden bestelako esperientzi alderatuengatik inguruan ohartaraztea; esperientzia horietan, ahaleginak egin dira irakasle funtzionarioen lanaldi murrizketarako eskubidea eta ikasleen hezkuntzarako eskubidearen ondoriozko antolaketa-eskakizunak bateragarri egiteko. Ildo horri jarraiki, aipatutako bidetik ekimen propioak egiteko aukera iradoki zaie, hori guztia, noski, lan baldintzak arautzeko akordioaren nahitaezko esparrua aintzat hartuta.

Ez dira eztabaidatik libre geratu administrazio orokorraren eremuan garatutako ekimenetako batzuk ere. Horixe gertatu da Funtzio Publikoko sailburuordeak urtarrilaren 4an emandako 1/2006 Ebazpenarekin (horren bidez, legezko zaintzan aritzeko, ikasketa

ofizialak egiteko edo kargu politikoari dagozkion eginkizunak betetzeko borondatezko lanaldi murrizketen inguruko instrukzioa onartzen da). Horren eraginpeko batzuek ulertu dute ebazpena gehiegikerietan jausten zela; beren ustez, murrizketa-baimenak dago-kion ordainsari egokitzapena baino ezin ekar zezakeen eta ezin zezakeen eraginik izan zerbitzuak lanaldi osoan eskaintzen zituzten langileei bezalaxe eurei ere onartu behar zaizkien beste eskubide batzuetan, esate baterako, oporretan. Erantzuna izan du baita ere egiteke dagoen ordainsari egokitzapena ekitaldi bakarrean gauzatzeko hartu den erabakiak, azken bost urteotan murrizketa-baimenak kudeatu diren moduagatik.

Are originalagoa izan da, zalantzarik gabe, Ertzaintzako funtzionario batek adierazitako kexa. Kexan esan zigunaren arabera, lanaldia murrizteko erregimenari heldu zionetik atxiki zaizkion eginkizunak ez datoz bat amatasuna baino lehenago zituen maila eta espezialitatearekin. Bere iritziz, honela jarduteak Ertzaintzaren lan baldintzak arautzen dituen akordioak seme-alaba zaintzeko murrizketa-erregimenari heldu ahal izatea zein baldintzatan onartzen duen kontuan ez hartzea dakar. Une honetan, Herrizaingo Saila ukitzen duen jarduna dugu hasita, interesdunari eginkizunak berriro esleitu izana justifika dezaketen antolakuntzako arrazoiak ezagutze aldera; hori guztia sexuagatiko diskriminazioa izan dela esan dezakeen balizko salaketa argitzen saiatzeko.

**Ordainsarien** arloan, psikologo klinikoen talde batek hala eskatuta izapidetutako espedienteari amaiera eman diogula adierazi nahi dugu. Joan den urtean, interesdun horien asmoen berri eman genuen; horiek Osasun Administrazioari eskatu zioten berriro azter zezala psikologia klinikoko espezialitatea EAEko osasunaren arloan barneratzeko aukera, baita osasunaren alorreko beste profesional batzuei onartzen zitzaizen eskusibotasun osagarri espezifikoak emateko aukera ere. Espezialitatearen onarpenerako ez zen gehiegi itxaron behar izan eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko funtzionario lanpostuak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren argitalpenarekin batera etorri zen (irailaren 7ko EHAA, 170 zk.). Hala ere, ez da gauza bera gertatu eskusibotasun osagarriaren onarpenarekin, bere garaian biologoen kategoriaren gertatu zenaren antzera. Erakundeak ahaleginak egin ditu ordainsari eskaera honen inguruko ekimen posibleak langileen ordezkariekin batera hasitako negoziazio prozesura bideratzeko. Baina, gure ikuspegitik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak eskaera bidezkoa dela onartu ondoren –gutxienez, inplizituki–, ezin dezake horren tramendua osasun administrazio horren aldetik libre xedatzeko baldintzaren pean jarri, bereziki kolektibo txiki bat dagoelako tartean (psikologo klinikoena) eta horiek negoziazio prozesuan duten eragina, noski, erlatiboa delako. Horregatik, gure ustez, eta biologoen kategoriak parte hartu zuen aurrekarian kontuan hartu zituzten irizpide berdinei jarraiki, erakundeak *motu proprio* hartu behar du bere gain ordainsari aldaketa hori ahalbidetzeko ekimena. Badakigu, bestalde, kolektibo honen egoera 2004ko azaroaren 14an Legebiltzarreko Osasun Batzordean aurkeztu zela.

**Lanaldiari** buruzko kontuei dagokienez, Barakaldo, Donostia eta Gasteizko erregistro eta banaketako zerbitzu komunetan diharduten justizi administrazioako langile talde batek adierazitako kexa aipatuko dugu. Kexa hau Giza Baliabideetako Zuzendari-tzak hartutako ebazpenaren ondotik aurkeztu da, horren arabera, oporretan egindako guardiak ez zirela ordainduko ezarri baitzen. Kexa adierazi dutenen iritziz, erabaki honen bidez administrazioak, emandako jarraibideetatik abiatuta, 2003ko uztailean finkatu zen eta, orduan ere, kexa eragin zuen praktika urratu zuen; jarraibide horien arabera, administrazioak berak berariaz onartu zuen ez zuela inolako eragozpenik erregistro eta

banaketako zerbitzu komunetara atxikitako funtzionarioek guardiak elkarren segidan egiteko.

**Ordezkapenen** arloan, gorabeherarik azpimarragarrienak irakaskuntzaren sektorean izan dira. Horrela, 517/2006 erreferentziarekin laburpen gisa eskainiko dugun kezaz gain, irakasle ordezko gai batek hala eskatuta izapidetu duguna ere aipatu behar dugu. Horrek, bereziki, ikasturte hasierako plaza hutsen esleipenean eskaintzen diren lanpostuak taxutzeko oinarritzat hartzen diren irizpideak argitu eta azal ziezazkioten nahi izan du, batez ere, lanpostu horiek mistoak direnean eta gaztelania espezialitatearen ordu zama atzerriko bigarren hizkuntzari dagokiona baino handiagoa denean.

Orobat, aipatu beharrekoa da derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko lanpostuetarako ordezko gaien zerrendetan sartzeko baldintzei buruz duela hainbat hilabetez hizpide ditugun kexen izapidetzea. Hain zuzen, joan den urteko txostenean jada eman genuen horien berri.

Orduan genioen bezala, arautegi orokorrarekin bat etorritz, plaza horietan aritzeko beharrezkoa da lizentziatura edo baliokidea izatea, aurretik ziklo horretan aritu ziren irakasleen kidegoko karrerako funtzionarioen kasuan izan ezik. Hala ere, euskal hezkuntzaren eremuan ordezkapenen arloa arautzen duen ebazpenak, irakasle titulua baino egiaztatzen ez duten pertsonen plazak eskaintzen eta titulu horrekin zerrendetan sartzen uzten jarraitzeaz gain, lizentziadunek izena ematea eragotzi ere egiten du, plazen legezko hartzaileak horiek izan arren.

Azkenik, erakunde honek bere esku-hartzea eten behar izan du, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak gai hori aztertu eta ebatzi duela jakin baitugu. Nolanahi ere, ohartarazi behar dugu aparteko zailtasunak izan ditugula espediente horiek izapidetzerakoan, besteak beste, gure eskaerei berandu erantzun zaie, horien eduki materiala ez da kontuan hartu edo ez zaigu informazio esanguratsua helarazi gai horren inguruan behin betiko ondorioak atera ahal izateko.

**Erretiroei** dagokienez, irakasle talde baten esku-hartzeko eskaera jaso dugu. Irakasle horiek hirurogei urte inguru dituzte eta beren ibilbidea 1963-1969 urteen artean hasi zuten, ikastoletako andereño gisa. Aurrerago, 1994an, orain dela hamabi urte, funtzionario izatea onartu zuten, haien ikastolak publiko bihurtzeko prozesuaren ostean. Irakasle horiek kaltetuta sentitzen dira, behin-behineko borondatezko erretiroa hartzera behartzen dituen egoera hori destinoko ikastetxeetan irakasle lanetan diharduten beste langile batzuen aukerarekin alderatzean. Horrela, alde batetik, lan kontratua duten langileen aukerak aipatzen dituzte, horiek txanda-kontratuaren figurari hel baitiezaioke. Bestalde, azpimarratu dute orain dela gutxi onartu den hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, bigarren xedapen iragankorrean, borondatezko erretiro aurreratua hartzeko aukera ematen diela hirurogei urte beteta dituzten funtzionarioei, betiere, ordura arteko hamabost urtetan aktiboan egon badira eta Estatuarentzat hamabost urtez jarraian lanean aritu direla ziurtatuta badute.

Beste hainbat kexa ere jaso ditugu Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketako bekadun diren zenbait pertsonen aldetik. Horiek, bekadun izanik gizarte babesaren arloan beren egoera erregularizatzea lortu ondoren, aurreko aldiak ere erregularizatu ote daitezkeen galde egin dute, prestazio jakin batzuk (besteak beste, erretiroa) eskuratu ahal izango dutela ziurtatzeko.

Azkenik, eta amaitzeko, labur-labur aipatuko ditugu **laneko jazarpen** posibleko kasuei buruz izapidetutako kexak. Horien artean, mobbing-ari buruzko informaziorako

Europako zerbitzuko (SEDISEM) presidenteak hala eskatuta hasitako kexa dago. Horren bidez, erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, bere zerbitzura zegoen eta aurretik ere jazarpen egoerak salatu zituen langile bati buruz Hezkuntza Administrazioak abiarazi zituen diziplinazko jardunak azter zitzen. Egindako eskaerari erantzunez, erakunde honek kexa-espeditenteari hasiera eman zion, baina, azkenean, eten egin behar izan genuen; izan ere, interesduna zela medio abiarazitako diziplinazko jardunen baitan emandako ebazpena ezagutu ondoren eta horren larritasuna eta garrantzia ikusita (iraizpen zehapena), interesdunak berak adierazi zigun bide judicialera joko zuela.

Une honetan, Herrizaingo Saila ukitzen duen jarduna ere badugu hasita, Polizi Zientifikoaren Unitatean diharduten agente talde batek hala eskatuta. Jardun horren baitan, aurretiazko eginbideak daudela ikusi ahal izan dugu. Gure ustez, horien helburua diziplinazko erantzukizunak eragin ditzakeen laneko jazarpeneko jokabidearen arrasto nahikoak ba ote dauden aztertzea da.

## 5.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Irakaskuntzaren alorreko ordezkapenak, lanpostu hutsen eskaintzan izandako akatsa (517/2006)*

- Erreklamazioa

Kexa jaso genuen irakaskuntzako espezialitate jakin batzuetan ordezkapenak egin nahi zituen pertsonaren aldetik; hona hemen espezialitateak: OHO, Filologia: gaztelania eta ingelesa; OHO, Filologia: euskara; eta OHO, hasierako zikloa eta ziklo ertaina.

Bere kexa Hezkuntza Administrazioaren jarrerak eragin zuen, honek ez baitzuen ezer esan hark une hartan Gasteizko LHlan zuen plaza esleitzerakoan izandako gora-beheraren ondoren aurkeztu zuen erreklamazioaren inguruan.

Interesdunaren arabera, gorabehera hori administrazioari egotz zekioken kudeaketa-akats gisa hartu beharko zatekeen –lanaldi murrizketako erregimeneko plaza hutsa zen eta bera ez zegoen era horretako ordezkapenetan interesatuta–, gorabehera horren ondorioz hari eragin zitzaizkion kalteen nahitaezko ordainketa sailak onartu eta bere gain har zezan.

- Azterketa

Behin kexa izapidetzen hasita, Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren ebazpenaren berri izan genuen; horren bidez, atzera bota zen interesdunak egindako erreklamazioa.

Hala ere, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ondoren, izangai honen kasuak merezi zuen tratamendua behar bezala eman ahal izan genion.

Administrazioak berak onartu zuen akatsa egin zela ordezkapen posibleak eskaintzerakoan eta beharrezkoa zela, ahal zen neurrian, eragindako kalteak ordaintzea. Izan ere, hasieratik, administrazioak hiru neurri posible iradoki zitzaizkion interesdunari:

<i>Lehena</i>	berriz ere ordezkoen zerrendetan sartzeko aukera.
<i>Bigarrena</i>	beste ordezkapen bat egiteko aukera, ezkontza-lizentziaren ondoriozkoa.
<i>Hirugarrena</i>	oker eskaintako ordezeko plazan jarraitu eta erreklamazioa aurkezteko aukera, ordainsarien ingurukoa.

Horietatik guztietatik, hirugarrenak zirudien irtenbiderik egokiena. Hortaz, ulertzekoa da interesdunak horren alde egitea.

Aurrekari hauekin, beharrezkoa zen Administrazioak aldeko ebazpena ematea erreklamazioaren hasierako gaitzespenarekin bat ez zettorrela adierazteko interesdunak aurkeztu zuen erreklamazioaren inguruan.

- Emaizta

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak interesdunak aurkeztutako errekurtsioa onartzeko eta horren aldeko ebazpena emateko erabakiaren berri eman zion erakunde honi.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa izan da baita ere errekurtsioa aurkeztea udan lan egindako denboragatik interesdunari zegokion kopurua benetan ordainduko zitzaiola bermatzeko.

## B) **Hizkuntz normalizazioa**

⇒ *Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) lan eskaintza publikoa. Hizkuntzaren inguruko eskakizunak (626/2006)*

- Erreklamazioa

Esku hartzeko zenbait eskabide jaso genituen Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen lan eskaintza publikoari buruz. Kexa eskaintzan barneratutako plazetako askori zegokien hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa zelako aurkeztu zen.

- Azterketa

Auzitegi Konstituzionalaren ondoz ondoko erabakietan berretsi ahal izan da ezerk ez duela eragozten botere publikoek, dagozkien eskumenen esparruan, hizkuntza ofizialak ezagut daitezten agintzea funtzionario plaza jakin batzuetara heltzeko, kontuan izanda beren betebeharra dela herritarrek hizkuntza horiek erabiltzen dituztela bermatzea eta horien ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea, hori guztia, Espainiako Konstituzioaren 14. eta 23. artikuluan xedatutakoa behar bezala errespetatuz (besteak beste, Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa).

Horrela, enplegu publiko batzuetara heltzeko baldintza gisa koofiziala den berezko hizkuntza –gure kasuan, euskara– jakin behar dela ezartzea funtzio publikora baldintza berdinetan sartu ahal izateko konstituzio bidez ezarritako merezimendu eta gaitasun printzipioekin bat datorren eskakizuna dela pentsatu behar da. Hala ere, eta konstituzio mailako erabakietan aipatu izan den bezala, eskakizun horrek kasuan kasuko postuan aritzeko beharrezko gaitasunarekiko proportzionala izan behar du (Auzitegi Konstituzionalaren 46/1991 Epaia, otsailaren 28koa).

Horixe izan zen, beraz, eskaintza honen inguruan hasitako espedientean eztabai-datu beharreko benetako kontua, alegia, ea GUFEn 2006ko LEPea barneratutako lanpostuetara heltzeko euskara jakin behar zela zioen nahitaezko baldintza, Konstituzioko merezimendu eta gaitasun printzipioen kontrakoa izan ez arren, erakunde horretarako finkatu ziren hizkuntz normalizazioko mailekiko behar bezain proportzionala zen zehazten saiatzea, enplegu publiko hauetara heltzeko diskriminazioa egon izan zitekeela gehiago entzun beharrik ez izateko.

Eginkizun hori gauzatu ahal izateko, gure ustez funtsezkoa den tresna erabili genuen. EAeko administrazio publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaz ari gara, bertan jasotzen baitira lanpostu horietara heltzeko eta horietan aritzeko aurreikusitako hizkuntzaren eskakizuna proportzionala izateari edo ez izateari dagokionez balorazioa egin ahal izateko giltzarriak.

Antolamendu orokor horrez gain, esku artean dugun kasuan, GUFek berak onartutako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana ere erabili genuen, azken batean, foru erakunde honen hizkuntz politika formulatzen baitu, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan aurrez finkatutako helburuak betetzearren.

Plan honek, hirugarren plangintza-aldiari buruzkoak (2003-2007) eta 2006ko maiatzaren 9ko BAOn, 87 zk.an, argitaratuak, zenbait erabaki zehazten ditu; erakunde honen iritziz, erabaki horietatik honakoak azpimarra daitezke:

#### Derrigorrezkotasun-indizea gutxieneko irizpidetzat hartzeko aukera:

Bizkaiko Foru Aldundiak, III. plangintza-aldirako dagokion derrigorrezkotasun-indizea %37.35ekoa dela ulertzen du, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11. artikulua aplikatuz eta 2001eko zentsuarekin bat etorriz. Horrez gain, honela ulertzen du nahitaez bete beharreko indize hori: derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleitzen zaien lanpostuen ehunekoa ezin izan daiteke, inola ere, kopuru horretatik beherakoa, baina horrek ez du esan nahi ezin gaindi daitekeenik arau bidez ezarritako derrigorrezkotasun-indizea. Derrigorrezkotasun-indizea gutxieneko irizpidetzat hartzeko aukera horrek, 86/1997 Dekretuaren 12. artikuluan du oinarria. Aipatutako artikulua, foru aldundietako unitate deszentralizatuei atalok diharduten lurralde eremuari ezar dakioken indizea egokituko zaiela xedatzen du. Begi-bistakoa da, Foru Aldundiak eta bere erakunde autonomiadunek Lurralde Historikoko eskualde eta gune desberdinei zerbitzuak euren unitate deszentralizatuen bidez emateaz gain, komunikazioaren teknologiaren garapen oso azkarrari esker zerbitzu zentralen bitartez ere eskaintzen dizkiela. Hortaz, zerbitzu zentraleri ere eskatu behar zaie unitate deszentralizatuen inguruabarretara egokitu daitezela hizkuntzari dagokionez, hots, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen ehunekoari dagokionez.

#### Administrazio-unitate berriak ezartzeko proposamena

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, nahitaez bete beharreko bere indizeagatik, jendearentzako arretarakoak eta izaera soziala duten administrazio-unitateak elebiduntzat jotzea, eta ez izaera orokorrekoak.

(...)

Eskuz egiten diren zereginak garatzen dituzten langileak baino ez dituzten administrazio-unitateak, haien izaera soziala izan arren ez dira elebiduntzat hartzen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gomendioari jarraiki.

### Derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen proposamena

a) Eutsi egingo zaio aurreko plangintzako irizpide orokorrari, elebiduntzat harturiko administrazio-unitateetako lanpostu guztiei derrigorrezkotasun-data esleitzeko irizpideari, alegia.

Beraz, honako hauei esleituko zaie derrigorrezkotasun-data:

- \* administrazio-unitate elebidunetako lanpostu hutsei,
- \* lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten titularren lanpostu guztiei, eta
- \* unitate horietako lanpostuak izanik ere, II. plangintza-aldian derrigorrezkotasun-datarik esleitu ez zitzaizen lanpostuei.

Nolanahi ere, aurreko plangintza-aldian bezala, hirugarren atalak honako salbuespen hauek izango ditu:

1. Lanpostu baten titularrak euskalduntze-prozesu bat hasi behar izanez gero, eta prozesu hori 86/1997 Dekretuaren 46 a) artikuluan xedaturikoaren arabera, salbuespena lortzeko ezarritako adina bete ondoren amaituz gero, halako lanpostuari ez zaio derrigorrezkotasun-datarik esleituko. Hala ere, dd esleitu zaio egoera horretan dagoen lanpostu baten titularrari, baina elebidun gisa izendatutako administrazio-unitate baten lanpostu bakarra da (Bermeoko Pentsiodunen Etxea).
  2. Edonahi ere, lanpostuaren titularra, III. plangintza-aldiaren barruan, erretiro egoeran badago, derrigorrezkotasun-data esleituko zaio.
  3. Ez zaie derrigorrezkotasun-datarik esleituko, hutsik geratu ondoren iraungitzeak diren lanpostuei.
  4. Era berean, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren irizpideari jarraituz, ez zaie derrigorrezkotasun-datarik esleituko administrazio-unitate elebidunetako lanpostuei, baldin eta dagozkien egitekoak eskulanak edo kontserbazio- nahiz mantentze-lanak badira.
  5. Administrazio-unitate elebidunen batean lanpostu berdinak baleude, eta haietariko bati baino gehiagori derrigorrezkotasun-data esleitu behar balitzaie eta, ondorioz, aldi beraren barruan lanpostuon betetzailen hizkuntza-trebakuntzari ekin behar balitzaio, halako kasuetan euskara-mailarik altuenaren eta adinik txikiaren irizpideak aplikatu dira derrigorrezkotasun-dataren esleipena zehazteko.
- b) Irizpide orokorrak eta haren salbuespenez gain, III. plangintza-aldian, titularrak bere lanpostuari derrigorrezkotasun-data ezartzeko eskatu badu, esleitu egingo zaio.
- c) Lanpostua kokatzen deneko administrazio-unitatearen izaera edozein delarik ere, ezarian-ezarian eta progresiboki derrigorrezkotasun-data ezarriko zaio, herritarrak foru erakundearengana hurbiltzen diren lehenengo unean jendearekiko harreman zuzena duten langileen kolektiboari.

Erabaki horien ondorioz, euskararen erabilera normalizatzeko GUFeko prozesuak honako datu hauek aurkezten ditu:

- GUFEn plantilla osatzen duten lanpostuak guztira: 797.
- Aurretik derrigorrezkotasun data duten lanpostuak: 240.
- Aurreko aldiko derrigorrezkotasun indizea: %30,11.
- Derrigorrezkotasun data izango duten lanpostu berrien proposamena: 266.
- Proposamenaren ondoren derrigorrezkotasun data duten lanpostuak: 506.
- Derrigorrezkotasun indize berria: %63,48.

Planaren beraren testuan GUFek arrazoitzen duenarekin bat etorritz, beharrezkoa da konturatzea, derrigorrezkotasun data berrien proposamena guztira 266 lanpostutara heltzen baldin bada ere gehienez (hots, orain arte esleitutakoak baino %111 gehiago), 23 langilek bakarrik, alegia, %8,6k, egiaztatu behar dutela, gainerako derrigorrezkotasun datak behin betiko betetzeko eskakizunarekin bat datozen langilea aukeratuta beteko diren lanpostu hutsei edo hori egiaztatuta duten titularren lanpostuei baitagozkie. Azken kasu honetan 95 langile daude (%35,71); alegia, beren lanpostuan derrigorrezko eskakizuna izan ez arren, jada egiaztatuta dute. Hortaz, GUFek dio, emaitza horiek ikusita, merezi izan duela aurreko aldietan langileen hizkuntz prestakuntzaren arloan egin izan duen ahalegina.

Halaber azaldu du, deigarria bada ere derrigorrezkotasun indize berria %63,48koa izatea (alegia, aurrekoa baino %100 handiagoa), kontuan izan behar dela erakundeak garatzen dituen eginkizunek izaera soziala izateak berekin dakarrela hori osatzen duten administrazio unitate guztiak elebiduntzat jotzea.

Egia da, GUFeri dagokion eginkizun motaren ondorioz, bere administrazio unitate asko izaera sozialekotzat hartu behar direla; horrek, halaber, euskararen erabilera normalizatzeko eska lekiokkeen ahaleginean ere ezinbesteko eragina du, kontuan hartuta zein derrigorrezkotasun indize edo nahitaez bete beharreko zein indize dagokion bere jardun eremuko ezaugarri soziolinguistikoei jaramon eginez.

Lerro batzuk atzera azaldutakoarekin bat etorritz, badirudi GUFek 86/1997 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoa aplikatuta justifikatu nahi duela egoera; xedapen horren bidez, derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostuen ehuneko kasuan kasuko eremuetako inguruabar zehaztetara egokitzen da, unitate deszentralizatuen bidez jarduten denean.

Erakunde honen iritziz, GUFek onartutako Normalizazio Planean jasotako datuek ez dute uzten ikusten ea erakundeak benetan zehaztaper lanik egin duen bere jardun eremu desberdinetako hizkuntz errealitate desberdinen arabera eta, hala bada, ea lan horrek kontrako ondorioa izan zezakeen euskal hiztunen indizea txikiagoa den lekuetan.

Horregatik, pentsa dezakegu nahitaez bete beharreko indize altua izaera sozialeko unitate guztiak mekanikoki unitate elebiduntzat jotzearen ondorioa dela, 86/1997 Dekretuaren 17. eta 20. artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuz (izan ere, horietan berariaz jasotzen da zerbitzuaren izaera edo tipologia kontuan hartu beharreko faktoreetako bat dela nahitaez bete beharreko indizearen arabera finkatutako gutxieneko helburuen ondoriozko derrigorrezkotasunak ezartzerakoan).

Jokatzeke modu horrek garbi azaltzen du, abiapuntu gisa GUFeri aplikatu beharreko indizea edo ehuneko %37,35koa izan arren -2001eko zentsuko datuen



arabera-, bere administrazio unitateek nagusiki izaera soziala izanik, zergatik heldu den azkenean ezarritako ehunekoa %64tik gertu dagoen proportzio esanguratsuago horretara (%63,48).

Jokabide horren aurrean, uste dugu GUFEk jarrera zuhurragoa ere izan zezakeela, 86/1997 Dekretuko aurreikuspenen aplikazio integratuaren alde eginez; alegia, pixkanaka normalizatzen joatearen gutxieneko helburuak lortzea, administrazio unitate elebidunak ezartzeari dagokionez, zentsuko datuetatik ateratzen den nahitaez bete beharreko indizearen arabera dagoela. Jarrera horrek normalizazio erritmo baratzagoa jartzea ahalbidetuko zukeen eta, hala, GUFE osatzen duten administrazio unitateek nagusiki izaera soziala izateak ez zukeen egingo unitateak automatikoki elebiduntzat jotzea, egun lanpostu huts ugari dauden arren.

Horrela, erakundearen Normalizazio Planaren bidez, egun hutsik dauden lanpostu ugari horiek beste modu batera tratatu ahal izango lirarteke, adibidez, hirugarren plangintza-aldiak (2003-2007) derrigorrezkotasun posibleak finkatzeko ezartzen dituen gehieneko epeekin bat etorri eman ahal izatea behin betiko.

Horri dagokionez, erakunde honen iritziz, GUFEk normalizazio prozesuari buruz egiten duen balantzean ez dira kontuan hartu erakundearen aldi baterako premiei birtarteko moduan aurre egin dieten langileen hizkuntz aukerak.

Nolanahi ere, eta GUFEk onartutako planaren hariari eutsiz berriz ere, gogoan izan behar dugu 86/1997 Dekretuak ez duela lanpostuak hutsik egotea derrigorrezkotasunak ezartzeko faktore posibleen artean kokatzen (alderdi hori erakunde honen beste eskuhartze batzuen oinarri ere izan da, esate baterako, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren deialdiari jarraiki hasitako jardunarena –erf. zk.: 323/2005–). Alabaina, egia da baita ere, partzuergoa osatzen duten administrazio unitateek nagusiki izaera soziala izateak dakarren estaldura formaletik haraindi, idazki honen hasieran aipatu ditugun Auzitegi Konstituzionalak emandakoen moduko erabaki judizialen bidez (Auzitegi Konstituzionalaren 46/1991 Epaia), inolako zalantzarik egin gabe arrazoizkotzat jo dela langile berriei hizkuntza koofizialaren ezagutza baldintza gisa jartzea, administrazio publiko orok bete beharreko eraginkortasun printzipiotik eratorritako arrazoietan oinarrituta.

- Emaizta

Aurreko ondorioetatik ikus ahal izan genuen ezin gaitzets zitezkeela GUFeren 2006ko LEPea ezarritako hizkuntz baldintzak, itxuraz, behar besteko proportzionaltasuna zutelako, ez bakarrik langile berriak hartzeak eskaintzen dituen aukerak ahitzea eskatzen duten eraginkortasun arrazoiengatik, baizik eta, azken batean eta eska da-kioken nahitaez bete beharreko indizea kontuan hartuta, baita plazak kokatzen diren administrazio unitateen tipologiatik ere (elebiduntzat jotako unitate sozialak).

### C) Beste eskubide eta betebeharrak

⇒ *Administrazio kontratazioa: lan kontratuetako subrogazioa (62/2006)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Udalak Aterpe zerbitzurako administrazio kontratua esleitu zuen. Kexa egungo administrazio kontratua arautzen duten klausulek jasotzen ez duten betekizunari

buruzkoa zen; hots, esleipendun suerta zitekeen enpresa berriaren subrogazioa administrazio kontratazioko kasuan kasuko prozedura hastean indarrean dauden langile kontratuetan.

- Azterketa

Uzi hori izan zen Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluan sustatu zen 2005eko maiatzaren 27ko adiskidetze/bitartekotza-prozeduran egindako bitartekotza-proposamenak aztertu zituen puntuetako bat.

Proposamen hori bertan aipatzen den epaia (2004\7202 EJ) oinarri hartuta egin zen; hala, beraz, pentsatu genuen, beste enpresaren bat esleipendun suertatuz gero, Aterpe zerbitzua baino ez zela eskualdatuko eta ez ondare elementuak; hau da, funtsean ondorengotza gertatuko zela aurreko enpresak garatzen zuen jardueran.

Horregatik, informazioa eskatu genuen baldintzen agirietan subrogatzeko betebeharra barneratzeko aukeraren inguruan.

- Eraitza

Gure informazio eskaerari erantzunez, udalak jakinarazi zigun, beren ustez, beren jarduera bat zetorrela administrazio kontratazioaren arloko legeriarekin, subrogazioan eragina duen sektore hitzarmena dagoenean, hori kasuan kasuko baldintzen agirietan jasotzen baitira.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, erantzunaren amaieran adierazi zuen, berriki egin den eta subrogazioaz hitz egiten duen Udalhitz akordioa (lehen, Arcepafe) sinatu ez duten arren, une hartan horri buruz ari zirela Gasteizko Udalean. Honetara helduta, Ararteko erakundeak udalari jakinarazi zion esku-hartzea etengo zuela, etorkizunean hartzen zen erabakiak ahalik eta ongien elkartuko zituelakoan tartean diren interesak, nola zerbitzukoak hala lanekoak. Orobat, kexa aurkeztu zuenari zuzendu gintzaizkion eta gure esku-hartzea etengo genuela jakinarazi genion.

Ondoren, konturatu ginen Aterpe zerbitzuaren helburu berriak definitzeko eratu zen udaleko lan mahaiaren alderdietako bat, hain zuzen ere, langileen jarraipena bermatzeko aukera zela.

## D) Barne sustapena

⇒ *Ofizialorde plaza betetzeko barne sustapena. Azkoitiko Udala (1386/2005)*

- Erreklamazioa

Kexa jaso zen Azkoitiko Udalak jendaurrean jarritako deialdiak ezarri zituen parte hartzeko baldintzen inguruan. Deialdi hori inspezio eskalako ofizialorde arduradun kategoriari dagokion plaza jabetzan betetzeko egin zen (2005eko abenduaren 12ko GAO, 233 zk.).

- Azterketa

Kexa aztertu ondoren, ikusi ahal izan genuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen seigarren xedapen iragankorra aplikatuta, behetik hurrengo eskalako kategoria

batzuetako funtzionarioek ere parte har zezaketela, horien artean, agenteek. Hori gora-behera, xedapen iragankor horren aplikazioak ez zien behar besteko babesa eskaintzen kexa eragin zuten beste alderdi batzuei. Hona hemen alderdi horiek:

a) sei urte bete behar izana benetako zerbitzuetan.

Gure iritziz, Euskal Poliziaren Lege honen xedapen iragankorrak alternatiba bi baino ez ditu eskaintzen:

- \* 59 b) artikuluan orokorrean exijitzen den gutxienerako lau urteko denbora jaistea eta, dagokionean,
- \* Behetik hurrengo eskalako kategoria batzuetako funtzionarioen parte-hartzea ahalbidetzen denean, lanean eman beharreko gutxienerako denbora finkatzea, hori ere zehazteko, baina inoiz ez beheko hurrengo kategoriatik lehiatzeko exijitzen dena baino gutxiago.

Horregatik, ez genuen ulertu Azkoitiko Udalak emandako arrazoia: “*GU-TXIENEZ bete diren zerbitzuek hurrengo kasu honen iraupen berdina edo handiagoa izan behar dute: barne promozio bidez lehiatzeko (6 urte) lehen mailako agenteak bete behar duena zati 2 urte, agente lanpostutik lehen mailako agente lanpostura lehiatzeko, eta lau urte lehen mailako agente lanpostutik ofizial ondoko lanpostura lehiatzeko. Herrizaingo Sailari edo organo eskudunari dagokie betekizun hori luzatzea. Garbi utzi nahi dugu, guk ulertzen dugunez, luzatze horrek zentzua izan zezakeela agenteen promozioa denean. Baina ez zuela zentzurik lehiatzaileak lehen mailako agenteak direnean. Horiei, gehien jota, eman duten denbora laburtu edo murriztu lekieke, baina ez 6 urte arte luzatu.*”

b) lehiatzaile titularren edo jardunean dauden lehiatzaileen parte-hartzea Inspektzio eskalan (ofizial ondokoa).

Parte hartzeko aukera hori onartzeak, itxuraz, barne sustapenaren alegiazkotasuna alde batera uzten zuen. Kontraesankorra zen, inspektzio eskalan lanpostuaren titulartasuna exijitzea, deialdiak lortu nahi zuena beste gauza bat zenean, hau da, lehiatzaileek egoera hori lortzea eta finkatzea. Udalaren arabera, “*oraingo ofizial ondokoari lanpostu berria (ofizial ondoko arduraduna) betetzeko probetara aurkezteko aukera eman nahi izan dio*”. Ohartarazi genuen, inguruabar horrek, hau da, aldi batean premia horiek betetzen ibili ziren lehiatzaileek parte hartzeak, ezin zuela nahitaezkoak diren beste betekizun batzuen (esate baterako, titulazioaren) salbuespena ekarri.

#### • Emaizta

Azkoitiko Udalak 2006ko otsailaren 9ko Alkatetza Dekretuaren kopia helarazi zion erakunde honi; horren bidez, aurretik argitaratutako oinarriak aldatzea onartu zen, kexan nahi zenaren bidetik. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2006ko otsailaren 16koa, 32. zk.)

## E) Hautaketa

⇒ Donostiako Sustapena sozietatearen hautapen prozesua (794/2006)

- Erreklamazioa

Hainbat kexa jaso ziren Donostiako Sustapena sozietateak iragarritako hautapen prozesuaren inguruan. Horietako batzuetan, aurretiko esperientzia deialdian eskainitako lanpostuetako bakoitzera heltzeko baldintza izatea jarri zen zalantzan.

- Azterketa

Erakunde honek adierazi behar izan zuen sozietate horrek iragarritako hautapen prozesuak, eratu zen moduan, Konstituzioak ezarritako berdintasun printzipioa modu nabarmenean jartzen zuela zalantzan. Izan ere, gure ustez bidezkoa ez zen banaketa-faktorea jartzen zuen interesdun izan zitezkeen pertsonen artean.

Esperientzia, noski, merezimendua da. Orobat, hori izateari garrantzia ematea berdintasunaren aldekoa da eta, tratu desberdintasuna justifikatzeko balioa den heinean, erabat bateragarria da Konstituzioko 14. artikuluekin eta dagokion garrantzia eman behar zaio zenbait irizpide kontuan hartzean, besteak beste, zerbitzuak eskaintzeko eraginkortasunarena.

Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak berak adierazi duen moduan (Auzitegi Konstituzionalaren 60/1994 Epaia): *“no surgiría ningún problema si se considerasen los servicios prestados, no como un requisito necesario para poder participar en el concurso, sino como un mérito a valorar en una fase posterior del concurso, pues ello no puede estimarse como desproporcionado, arbitrario o irrazonable. El problema surge cuando el citado requisito se considera en la Orden como presupuesto o requisito excluyente o sine qua non para que los aspirantes puedan participar en el concurso, por cuanto implica que, en principio, se excluye a potenciales candidatos (...) y se les veda la posibilidad de que pudieran mostrar su capacidad y mérito. En efecto, con la anterior regla se descarta ya inicialmente a unos aspirantes al concurso, lo que produce como efecto práctico una restricción previa y una desigualdad de trato (...) y esta sola circunstancia no puede considerarse razonable o imprescindible en esta fase previa del concurso, pues es en el momento de valoración de los méritos cuando procedería la valoración de esta circunstancia”*.

Modu honetan, eta auzitegi horrek adierazitako arrazoibideari jarraituz, erakunde honek azaldu nahi izan zuen beharrezkoa zela adostea sozietate horrek iragarritako hautapen prozesuak tratu ezberdintasuna ezartzen zuela interesdun izaera izan zezaketen pertsonen artean, eta tratu ezberdintasun hori ezin jo zitekeela onargarritzat, kontuan hartuta aurretiko esperientziak, sarbide baldintza edo irizpide gisa agertzean, horrelakorik ez duten hautagai guztien aukerak galarazten zituela. Horrek guztiak alde batera uzten ditu gainerako merezimendu eta gaitasun guztiak eta horiek hautapen prozesuan kontuan hartu daitezke eta kontuan hartu behar dira.

Bestalde, erakunde honek ere adierazi zuen sozietate horren pertsonifikazioak, zuzenbide pribatuko enpresa formulen arabera, izaera instrumentala duela eta ezaugarri horrek ez duela zuzenbide publikoaren legaltasunera makurtzearen liberazioa ekartzen. Horixe da sozietate horrek errespetatu behar duena eskumen administratiboak garatzen dituenean, langileen hautapenean adibidez. Sozietatearen estatutuek modu argian

onartzen dute hori 3. artikuluan (4. puntua), honakoa adieraztean: *“jarduteko gaitasuna erabiltzerakoan, sozietateak publizitate eta lehia printzipioak aplikatuko ditu kontratazioan, eta berdintasun, merezimendu eta ahalmenarenak, berriz, langileak kontratatzerakoan, indarrean dagoen araudiak ezarritako moduan.”*

Estatutuek jasotako ezarpen hori Estatuaren Administrazio Orokorren Antolaketa eta Funtzionamendua arautzen duen 6/1997 Legeak 55.2 artikuluan ezarritakoarekin bat dator. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak berariaz aipatzen du azken hori, eta ez du inolako dudarik agertzen honakoa zehazten duenean: hots, erakunde publikoentzat lan egiten duten langileak Konstituzioak ezarritako berdintasun, merezimendu eta ahalmen printzipioen arabera deialdi publiko bidez hautatu behar direla.

Gauzak horrela, egia esan legatsun administratiboari edo zuzenbide publiko zurrunenari dagokion jardura esparruan gaude, eta entitateak aipaturiko merkatal pertsonifikazioak ez du ahalbidetzen hainbatetan aipaturiko berdintasun, merezimendu eta ahalmen printzipioak alde batera uztea.

- Emaizta

Erakunde honek Donostiako Sustapena sozietateari iradoki zion beharrezkoak ziren neurriak hartzeko gauzatzen ari zen hautapen prozesua berrikusteko. Batez ere, iragarritako lanpostuetarako sarbide gisa eskatzen zen aurretiko esperientziaren baldintza berrikustea eskatu genion. Horren guztiaren helburua etorkizunean entitate horren esanetara lan egingo zuten langileen hautapenak errespetatu beharreko Konstituzioaren printzipioen bidean jartzea zen.

Sozietateak erakunde honi jakinarazi zion egindako gomendioak errespetatuko zituela eta, hala, hautapen prozesua arautzen duten baldintza orokorrak aldatuko zituela, hautapen prozesuan parte hartu ahal izateko aurretiko esperientziaren eskakizuna kenduta.

Hala ere, jasota utzi behar dugu kexa gehiago jaso direla aurretiko esperientziaren balorazioari azkenean eman zaion tratamenduaren inguruan. Kexetan arrazoitutakoarekin bat etorriz, eta erakunde honen gomendioei jarraiki aldatutako oinarrien testua argitaratu ondoren egiaztatu ahal izan dugunez, oinarri berri horiek, merezimenduak baloratzeko puntuazio irizpideak ezartzerakoan, ez dutela zalantza egiten lan esperientzia baliokidea lanpostu bakoitzerako finkatutako gutxieneko esperientzian oinarrituta puntuatzeko, kasuan kasuko baldintza espezifikoetan; hori dela-eta, esperientzia gutxiago duten izangaiek ez dute punturik lortuko atal honetan. Horrela, lan esperientziak, nahiz eta hasiera batean sozietatearentzat ezinbestekoa izan hautapen prozesuan parte hartzeko, merezimendu balio oro galdu du, gutxieneko denbora hori baino gehiagoko lan esperientzia bakarrik baloratzen baita. Horren ondorioz, berriz jardun behar izan dugu.

## 6. OGASUNA

### 6.1. SARRERA

2006an 75 kexa jaso dira ogasunaren arloan, hau da, erregistratutako kexa guztien %4,47.

Eragindako administrazioei dagokienez, zergen alorreko kexak honela banatu dira:

- Toki administrazioa .....	45
- Foru administrazioa .....	25

Beren edukiari erreparatuz gero, jasotako kexak honako gai hauen ingurukoak izan dira:

- Udal zergak .....	23
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	20
- Udal tasak .....	13
- Foru zergak – PFEZ .....	9
- Udal prezio publikoak .....	3
- Foru zergak – OEZ .....	2
- Beste batzuk .....	2
- Foru prezio publikoak .....	2
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	1

Urtero ikusten dugu zergen alorreko kexak, kasu askotan, partikularrek aurkeztutako eskabideak eta errekurtsioak ebazteko legeak Administrazioari ezartzen dizkion **epeak ez betetzeagatik** sorten direla.

Testuinguru horretan, eta foru eremuari erreparatuz, gogora ekarri behar dugu gai honi dagokionez 2005ean arauetan egin ziren aldaketek, beste zenbait berritasunen artean, Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Historikoetan berraztertze errekurtsioa ebazteko epea hilabete batetik hiru hilabetera luzatzea ekarri zutela. Horrela, hiru lurralde historikoetan indarrean dauden zergei buruzko arau orokorrak 3 hilabeteko epea ematen diote kasuan kasuko foru ogasunari.

Ikuspegi eskubide-bermatzaile batetik begiratuta, erakunde honen ustez, legeak Administrazioaren alde egiten duen kontzesio hori atzerapausoa da zergen alorreko administrazio jardueran kalitate helburu hobezinak lortu nahi izateari dagokionez. Hala ere, aldi batean eta bestean jasotako kexak alderatuta, kontua da ez dugula aldaketa nabarmenik antzeman eragindako administrazioen jarduteko moduan, legezko beste epe batzuk ezarri izanaren ondorioz; aitzitik, oro har, erakunde honetan salatutako atzerapenak hiru hilabetetik gorakoak izan dira eta halaxe izaten jarraitzen dute.

Hori guztia dela-eta, berriz ere azpimarratu beharrean gaude ezinbestekoa dela administrazio publikoak kontu honetaz kezkatzen hastea eta horretaz behin betiko arduratzea, behar besteko irmotasunez eta errealismoz; horretarako, gogoan izan behar dute

legearen arabera gauzatu behar dituztela beren jarduera guztiak, bai alderdi materialari bai denborazkoari dagokionez, bi alderdi horiek ahalbidetzen baitute teoriarren herriarrek dituzten legezko bermeei benetazko estaldura eraginkorra ematea.

Zehazki zergen alorrean sartzeko, ondoren, aurten erakundearen jardueran aztertu ziren gai garrantzitsuenen lagina jaso dugu:

PFEZri dagokionez, erregistrotao kexak askotarikoak izan dira. Aurreko urteekin alderatuta, ikusi ahal izan dugu kudeaketari buruzko gaiak lekua uzten joan direla zergari buruzko arauen ingurukoei. Azken hauen artean, ondokoak aipa daitezke: garaje eta trastelekuen tratamendua –etxebizitzarekin batera erregistroan finka bakar gisa agertzen badira bakarrik dira kengarriak–, ohiko etxebizitza birgaitzeagatikoen kenkaria aplikatzeko eskakizunak, errentan hartzeagatikoen kenkaria eta (gehien errepikatzen dena) guraso bakarrekoen famili unitateen zerga-ordainketa, bereziki, banantze edo dibortzio kasuetan (zergak ordaintzeko modalitatea, seme-alabengatikoen kenkari partekatua, elikadura-pentsioagatikoen kenkaria...).

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerba Bereziak (ZGZB), **matrikulazio zerga** izenaz ezagunagoa denak, kexa asko eragin ditu 2001az geroztik, artikuluetako batean familia ugariagatikoen murrizketa egingo dela erantsi baita (onura hori zerga-oinarriaren %50ekoa da). Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, oso murrizketa garrantzitsua da, baina ez da oso ezaguna horren hartzaile izan daitezkeen artean. Horren inguruan gutxi jakitez gain, esan behar da ibilgailua saltzen duen kontzesionarioa bera izan ohi dela, eroslearen inguruabar pertsonalen eta familiakoen berririk izan gabe, salerosketa-eragiketari dagozkion administrazio izapideak egiteaz arduratzen dena, besteak beste, Administrazioan zerga autolikidatzeko izapidea.

Matrikulazio zergari buruzko araudiak ezgaitasunen bat izateagatikoen salbuespena jasotzen den bezala azaltzen du eta, bai salbuespena bai murrizketa erreguzko onura gisa sailkatzen dira; hau da, eraginkorak izan daitezkeen, ezinbestekoa da subjektu pasiboak alde aurretik eskaera egitea eta Administrazioak onarpena ematea.

Alabaina, zerga kudeatzerakoan, Administrazioak, baldintza horrez gain, beste baldintza osagarri bat ere erantsi du, gure ustez, legean aurreikusitakoan artean ez dagoena; alegia, bai eskaera bai onarpena ibilgailua matrikulatu aurretik egitea. Horrela, zergaren autolikidazioa egiterakoan, eta arrazoiak edozein izanda ere, ez bada jasota geratzen erosleak ezgaitasunen bat duela edo familia ugaria duela, Administrazioak, ondoren, ez du inolako aukerarik ematen egindako akatsa zuzentzeko, interesdunak frogak izan arren zerga likidatzerakoan jada betetzen zituela salbuespena edo murrizketa aplikatzeko eskakizun guztiak.

Erakunde honek uste du jarduera horrek ez duela behar besteko lege babesa eta halaxe adierazi du 25/2006 Gomendioaren bidez (ikusi I. eranskina) (gomendio horrek Arabako Foru Ogasunari buruz hasitako kexa-espeditentari amaiera eman dio).

Udal eremuari dagokionez, aipatu behar dugu **OHZk** 2005ean baino kexa gehiago eragin dituela, nagusiki, Bizkaiko udalerrietan bizi diren pertsonen aldetik.

OHZ erregulatzen duten foru arauen arabera, balio katastralak zortzi urtean behin berrikusi behar dira. Hala ere, aurreikuspen hori, praktikan, ez da arauak nahi lukeen besteko maiztasunarekin betetzen. Gure autonomia-erkidegoan, ez betetzerik larriena, zalantzarik gabe, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokio, oraindik 70eko hamarkadaren hasierako balioen ponentziak baititu indarrean.

Katastroa ez berrikusteak edo hori berandu egiteak (nahiz eta honek, logikoki, neurri txikiagoan), garai desberdinetan eraikitako etxebizitzaren artean itxuraldatzeak gertatzea eta batzuk eta besteak neurri bakar batekin ez neurtzea eragiten dute; hala, eraikuntza berriak egungo merkatu irizpideekin baloratzen dira, foru aldundiek lurzuaren eta eraikuntzaren balorazioari buruz onartutako arauak aintzat hartuta; aldiz, higiezin zaharrak lurzuaren eta eraikuntzaren balioa eguneratzen dute bere garaian onartutako balioen ponentzian jasotako balorazio irizpide eta tauletan oinarrituta eta balio horiei lurralde historiko bakoitzeko Aurrekontuei buruzko Foru Arauan urtero onartzen den eguneraen koefizientea aplikatuta. Horrela, udalerrietan berriki zabaldu diren eremuetan etxebizitzak egungo merkatuaren prezioa ordainduta eskuratu duten pertsonak ez daude ados katastroan beren higiezinak duten balorazioarekin, horien balioa, OHZren ondorioetarako, hirien erdigunean kokatutako etxebizitzena baino handiagoa izaten baita batzuetan, nahiz eta, teoriarik, guztiak merkatu balioa erreferentzi gisa hartuta baloratu beharko lirartekeen.

Bestalde, berriz ere azpimarratu behar dugu zerga honi buruzko keaxak, askotan, erreklamazioak ebazteko Administrazioak formula estandarizatuak gehiegi erabiltzearen ondoriozkoak direla. Finkaren balioari eta kokapenari buruz kasuan kasuko katastroan jasotzen diren datuak eman ondoren, ebazpenaren bukaerako testuak eskabidea gaitzetsi egin dela jakinarazten du, arrazoi espezifikoki eta argirik eman gabe. Erantzun horrek, noski, ez du biztanlea gustura utzi, bizilagunak berak baino gutxiago ordaintzen duela ikusten baitu, nahiz eta bien etxebizitzek antzeko azalera eta ezaugarriak izan; gainera, oraindik ez daki zergatik eman zaion bere etxebizitzari aurkeztutako erreklamazioa ebazten duen akordioan jasotako balioa.

Higiezin baten balio katastrala da soilik OHZren likidaziorako erreferentzi puntua; alderantziz, higiezinaren gaineko zergekin zerikusia duten beste zerga batzuetan ere aplikatzen da. Halaxe gertatzen da **Hiri Izaerako Lurren Balio Gehikuntzaren gainerako Zergarekin** (gainbalio zerga).

Zerga honen zerga-oinarria gehienez ere hogeitaz hiri izaerako lurren balioak izan duen benetako gehikuntza da. Balio gehikuntza kalkulatzeko, lurzuaren balio katastrala erabiltzen da eta, hala, lortzen den kuota likidazioaren xede den higiezinaren balio katastralarekin erlazioan dago zuzenean.

Aurretik aipatu dugun bezala, Bizkaiko udalerrietan oraindik ez da katastroa berrikusi eta, hori dela-eta, balio katastralak oso txikiak dira, eraikuntza berrietan izan ezik. Horren eraginez, zerga hau likidatzeak udalari zekarzkie diru-sarrerak oso txikiak ziren, katastroko balorazio eguneratuago batek ekar zitzakeenekin alderatuta.

Balio zaharkituak aplikatzearen ondorioz zerga horrek diru-bilketan zuen ondorio negatiboa arintze aldera, 7/2005 Foru Arauari esker, Bizkaiko udalerriek, aldi baterako bazen ere (hots, balio katastralak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauan ezarritako moduan berrikusi artean), lurzuari eman dakiokkeen gutxieneko balioa zehazteko legez ezarri ziren arau teknikoak aplikatzearen ondorioz lortutako balio erreala hartu ahal izan zuten higiezinaren balio erreferentzi gisa, zergaren oinarria zehaztearen ondorioetarako. Halako kasuetan, udalak ezarritako zergaren karga-tasak ezin du % 10etik gorakoa izan.

Udaletako diru-kutxetarako duen ondorio positiboa dela bide espero zitekeen bezala, aukera hori zerga arautzen duten ordenantzetan barneratu da Bizkaiko zenbait udaletan. Hala ere, diru-bilketari dagokionez horrek dituen ondorioak oso desberdinak



izan dira: zenbait udalerrik % 1eko karga-tasa aplikatu dute eta beste batzuek, berriz, %10era ere heldu dira; hau da, 7/2005 Foru Arauak ezartzen duen gehienekoa aplikatu dute hasiera-hasieratik. Horixe izan da Barakaldoren kasua, bertan, kuota-gehikuntza ikusgarriak erregistratu baitira.

Neurri horrek eragindako zenbait pertsonak oso haserre daudela adierazi diote erakunde honi, ez bakarrik alderdi ekonomiko hutsari dagokionez, baizik eta baita legea indarrean sartzeaz zegoela beren udal bulegoetan informaziorik eman ez dietelako. Kontua da hainbat erreklamatazile bertara joan zirela 2005. urtearen amaiera aldera, higiezina saldu aurretik ordaindu beharko zuten zergaren zenbatekoa kontsultatzeko eta, diotenez, ez zaie behar bezala informatu.

Legezketasun hutsaren ikuspuntutik, aipatu behar dugu udal horien jarduera zuzena izan dela, beren ordenantzak ezarritako legezko izapidetara jarraiki aldatu baitira eta horien edukia 7/2005 Foru Arauan xedatutakora egokitzen baita. Hala ere, ikuspegi praktikotik begiratuta, uste dugu % 10eko karga-tasa ezartzea ez dela bidezkoa izan, zergan presio fiskala neurrigabeki handitzea eragin baitu, nahiz eta hori ekiditerik egon zen, zerga-tasa neurrizkoagoa aukeratuta edo aipatu karga-tasa hainbat urtetan pixkanaka aplikatuta.

**Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergak** (TMIZ) hainbat kexa eragin ditu 2006an, zergan ezgaitasunagatiko salbuespena aplikatzearen ondorioz, aurreko urteetako ildo beretik. Aurreko txostenetan ere adierazi genuen moduan, salbuespen horren aplikazio eremua zabaltzeko hartutako erabakiak, legezko ondorioak 2004tik aurrera izan zituenak, ez zuen harrera ona izan tokiko erakundeen artean. Horrela, egiaztatu ahal izan dugunaren arabera, zenbait udalerrik hori gauza ez zedin ahaleginak egin dituzte oinarrizko legerian aurreikusitako aplikazio eskakizunak zurrunago eginda. Horretarako, zenbait eskakizun osagarri erantsi dituzte beren ordenantzetan eta horien legezketasuna zalantzan jarri dute bai kaltetuek bai erakunde honek.

Problematika honi dagokionez orain arte izapidetu ditugun kexa-espedituetan jasota utzi dugun bezala, gure ustez, jarduera horien bidez toki erakundeek indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratzen dute, maila konstituzionaleko printzipioak hausten baitituzte (lege erreserba, ezgaitasunen bat duten pertsonen babesa, arauzko jardueraren mugak).

Gainera, uste dugu salbuespen horren inguruan udalak garatutako jarduera mugatzailea, adierazi dugun bezala, administrazio batek ezgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzeko helburu teorikoari dagokionez duen benetako konpromiso maila plastikoki neurtu ahal izateko baliagarria izan daiteke, zeharka bada ere.

Erakunde honek uste du salbuespen horren egungo baldintzekin bat ez datozen udalek orain arte garatu dituztenekin zerikusirik ez duten beste jarduera batzuk garatzea pentsatu beharko luketela. Gure iritziz, era guztietako aldaketak eta/edo hobekuntzak egin daitezke salbuespen hau aplikatzeko eskakizunetan, baina bide posible bakarra zerga erregulatzen duen Foru Arauaren egungo artikulua aldatzearena da. Horren ildotik, TMIZri dagokion ezgaitasunagatiko salbuespena araututa dagoen moduarekin bat ez datozen udalei premia eskatzen diegu kontu hori foru organo eskudunei aurkez diezaiotela eta arauetan egoki irizten dituzten aldaketak proposa ditzatela salbuespen hori modu baketsuan eta legalki aplikatu dadin lortzeko.

Berritasunik nabarmenena, ordea, jaso ditugun hainbat kexetan adierazi zaigun eta oraindik ebatzi gabe dagoen beste arazo batek eragin du; hain zuzen ere, TMIZri

dagokion ezgaitasunagatik salbuespena atzeraeraginez aplika dadin udalei egin zaien eskaerak. Kexa horietan hainbat pertsonak eskatu die hori udalei, baina hauek ukatu egin diete, beren ordenantzetan ezarritako mugapenak oinarri gisa hartuta. Erreklamatazaileek hartutako ildotik eman du bere iritzia Zergen Zuzendaritza Orokorak V0248-5 zk.ko kontsulta loteslean. Horren bidez adierazi du salbuespena onartzeko administrazio egintzak interesdunarentzat ondorio onuragarriak dakartzanean izango du atzeraeragina, betiere, kasuan kasuko egoera dagoeneko egintzaren atzeraeragineko datan badagoela egiaztatzen bada eta horrek ez baditu beste pertsona batzuen bidezko eskubideak edo interesak urratzen.

Txosten honek aztertzen duen ekitaldiaren amaieran, oraindik bi espediente daude zabalik kontu honen inguruan, bata Portugaleteko Udalari dagokiona eta bestea Getxokoari dagokiona.

## 6.2 AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Interesdunak eskabidean adierazitakoa ez den beste banku kontu batean egindako abonua saiakera (1458/2005)*

- Erreklamazioa

Biztanle batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen Barakaldoko Udala asko berandutzen ari zelako trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergan ordaindu zuen gehiegizko kopuruaren itzulketa. Gehiegizko kopurua zerga-aldia amaitu aurreko datan ibilgailuari baja eman izanaren ondorio zen.

- Azterketa

Interesdunaren espedientea izapidetze prozesuaren zein egoeratan zegoen eta zein kudeaketa-lan egin ziren ezagutze aldera, informazio osagarria eskatu genion eragindako administrazioari.

Udalak jakinarazi zigun eskatzaileak aipatutako itzulketa jada gauzatu zela. Bestalde, atzerapenaren justifikazio gisa, aplikazio informatiko berria erabili zela aipatu zen eta, dirudienez, ezarri zenean zenbait arazo eragin zituela. Era berean, adierazi zitzaigun erreklamatazaileari zegokion kitapena itzultzeko udalak zuen kontu zenbakiak ez zuela behar bezala funtzionatu, arrazoi posibleak aipatu gabe, eta banku erakundeak abonua itzuli zuela.

Txostena aztertu ondoren, eta hori erreklamatazailearen alegazioekin alderatu ondoren, ikusi ahal izan genuen eragindako alderdietako bakoitzak oso ikuspegi desberdinetan oinarrituta baloratu zutela arazoa. Horrela, udalak kontu zenbaki bakarra aipatu zuen eta bertan ezin izan zuela kopururik sartu; orobat, aditzera eman zuen ez zuela ofiziozko beste gestiorik egin orduz geroztik. Alderantziz, interesdunak zioen banku kontuaren zenbakia adierazi zuela itzulketa-eskabidean, bere alde sortzen zen kitapena jasotzeko, eta zenbaki horrek ez zuela zerikusirik aurreko urteetan zerga ordaintzeko erabili zuen helbideratze kontuarenarekin; orobat aipatu zuen udalak ez ziola jaramonik egin eskabidean emandako kontu zenbakiari.

Berriz ere udalera jo genuen erreklamatazailearen iritzi kritikoarekin bat gertozela jakinarazteko eta argi utzi genuen egoera inkoherentea zela. Interesdunak bete zuen itzulketa-eskabidean bazegoenez abonurako banku kontuaren zenbakia jartzeko eremu bat, Administrazioak zenbaki horretan sartu beharko zukeen eskatzailearentzako dirua eta zenbaki horrek lehentasuna du beste edozeinen aldean.

- Emaizta

Azaldutakoaren antzeko egoerak berriro gerta daitezten ekidite aldera, Barakaldoko Udalari iradoki genion berrikusi eta egunera zitzala bere ordainketa-prozesuak eta izapi-deak, nola teknikoak hala administratiboak, bere jarduerak behar besteko koherentzia izan dezaten berak diseinatu eta onartu dituen inprimaketan jasotako eskaerekin.

⇒ *Administrazioaren jarduera: herritar batek doakoa ez den zerbitzuaren prestazioa eskatzen dionean administrazioari, honek alde aurretik eta banaka eman behar dio horren zenbatekoaren berri (200/2006)*

- Erreklamazioa

Herritar batek adierazi zigun ez zegoela ados bizilekua zuen udalaren jarduerarekin, honek 22,30 euroko tasa igorri baitzuten txosten bat egiteagatik.

Kexan adierazi zuenaren arabera, bere garaian, kontsulta egin zuen udal bulegoetan, bere etxe berrian jarri den eta suhesi funtzioa duen atea hirigintzaren ikuspegitik legezkoa ote den jakiteko. Itxuraz, inoiz ez zioten adierazi gestio horren truke kobratu egingo zitzaionik, ez eskaera egin aurretik, ezta ondoren ere. Azkenik, idazki berean azaldu zuen aipatu kontsultari 6 hilabetera baino gehiagora erantzun zitzaiola, udal bulegoetan kontsulta galdu egin zitzaielako.

- Azterketa

Kexa hau aplikatu beharreko zergen alorreko udal arautegiarekin alderatu ondoren, egiaztatu ahal izan genuen udalak agiriak bidali eta emateagatik tasagatik egin zuen likidazioa legezkoa izan zela. Tarifen arabera, tasa hori “egikaritzapen unitate edo sektore gisa har daitekeen finkari aplikatu dakioken hirigintzako erregimenaren inguruko idatzizko kontsultaren” esparruan egin zen.

Hala ere, aurkeztutako arazoaren bigarren alderdia aztertzen hasteko (alegia, interesdunaren haserrea, eskatu zuen zerbitzuaren prezioa alde aurretik ez jakinarazteagatik), Bilboko Udalari honako ohar hauek helarazi genizkion, kontu horren inguruan zuen iritzia ezagutzeko ahalbidetuko zigun erantzuna lortzeko eta, hala, alderatutako datuetan oinarritutako azken balorazioa egiteko:

1. Herri administrazioek herritarrekiko informazioaren alorrean garatzen dituzten jarduerak doako izaera izaten dutenez, erabat beharrezkoa eta exijitzeko modukoa dela uste dugu eskatzaileari kobratuko zaion tasa duten zerbitzuak ematen dituzten sailek, kasu honetan bezala, aurretiko informazio sistema osoa izatea. Sistema hori ohiko arauetatik kanpo garatzen diren eta ordainketa izango duten zerbitzuak eskatzen dituztenei zuzenduko zaizkie.

2. Esku artean dugun kasuan bezalakoetan, eskatzailearen nahiaren eta administrazioak ematen duen dokumentuaren eduki materialaren artean lotura egokia eman dadin, eta itxaropen faltsuak ez sortzeko, egokia izango litzatekeela uste dugu, jarduera administratiboarekin hasi aurretik eta ondorioz tasa ordaindu behar izan aurretik, administrazioaren eta eskatzailearen arteko komunikazioa ezartzea, kontuaren alde guztiak argi gera daitezzen.

Udalak honela erantzun zigun:

*“...Hirigintza eta Ingurumen Saila arduratuko da, Arartekoak iradoki bezala, Administrazioak agiri bidezko informazioa eskatzen duten pertsonari alde aurretiko jakinarazpena egin ote diezaiokeen aztertzeaz, betiere, burokrazia ez luzatzeko moduan eta kontuan hartu gabe sinatzaileak dioena; alegia, auzotar guztiek dakitela era horretako nahiz beste mota batzuetako agiriak bidaltzeak tasa sortzen duela (nahiz eta orain ez dugun aztertuko horren zenbatekoaren bidezkontasuna) eta, beharbada horregatik, gero eta ohikoagoak direla formalitate gutxiagoko kontsultak (zuzenekoak, telefono bidezkoak, posta elektronikoz egindakoak, etab.).*

*Nolanahi ere, prozesu bat jarri da abian udaletxe osoan, administratuei ematen zaien informazioa hausnartzeko; prozesu horretan, azaldutakoaren moduko kasuen azterketa barneratu beharko litzateke. “*

- Emaizta

Gure aldetik, onuragarritzat jo genuen erantzun hori, udala nolabait prest baitzegoen herritarrentzako zerbitzuen prestazioan hobekuntza zehatzak egiteko, guk proposatutakoaren ildotik. Puntu honetara iritsita, eta erakunde hau sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legeak ezartzen dizkigun eginkizun mugak ikusita, amaitutzat eman genuen gure esku-hartzea kontu honi zegokionez, eta adierazi genuen, gure ustez, udalak azkenean hartzen dituen neurri zehatzek dagoeneko zuzeneko erlazioa duela bere burua antolatzeke legezko gaitasunarekin.

## B) Foru zergak. PFEZ

⇒ *Ohiko etxebizitza birgaitzeagatiko kenkariaz gozatzeko beharrezko agiriak (1166/2005)*

- Erreklamazioa

Erreklamatzailerak bizi zen higiezinako jabekideen komunitateak birgaitze lanak egin zituen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bideratuta, birgaitze lan babestutzat har zitezten.

Arazoa interesdunak PFEZren aitortpena aurkeztu zuenean sortu zen, Arabako Foru Ogasunak ez baitzion egin lortu nahi zuen kenkaria.

- Azterketa

Zerga Administrazioak Ondare urbanizatu eta eraikia zaharberritzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren 4. artikuluan oinarritu zuen bere jarrera, zehazki, birgaitze lanen titularrari dagozkion eskakizunak betetzeari dagokionez. Aipatu dekretuari jarraiki, komunitateko laguntza-eskabidearekin batera, zenbat bizilagunek gozatu nahi duten PFEZn birgaitzeagatiko kenkariaz, banakako laguntzako hainbat eskabide aurkeztuko dira (banakako laguntza jabekideenarekin bateragarria eta horren osagarria da).

Kasu honetan, interesdunak jabekideen komunitatearen inguruko ebazpenaren kopia aurkeztu zuen eta, horren arabera, lanak birgaitze babestukotzat hartzen ziren; komunitatearen ordezkariak bidalitako ziurtagiria ere ekarri zuen eta, bertan, lanak finantzatzen laguntzeko eman zuen kopuru zehatza jaso zen. Aldiz, ez zuen erantsi Etxebizitza Sailak ematen duen ebazpena; hau eskatzaile bakoitzari ematen dio, banakako titular bakoitzari dagozkion lan babestuak zehazte aldera, eta, besteak beste, babes daitekeen aurrekontua eta finantza-laguntzak (halakorik egonez gero) biltzen ditu.

Pentsatu genuen, beharbada, banakako laguntzen inguruko interesdunaren eskabidea ez zela guztiz osatu. Nolanahi ere, bistakoa zen ez zuela bat egin komunitateak Etxebizitza Sailari aurkeztu zion eskaerarekin.

Horrela, hasiera batean, akats formalak baino ez zela izango uste izan genuen eta hori ondoren konpondu ahal izango zela, espedientean inolako eragin negatiborik izan gabe, interesdunak inoiz ez baitzuen Etxebizitza Sailaren finantza-laguntza lortu nahi izan; aitzitik, lanak birgaitzeko jardun babestutzat hartzeak PFEZn ekarriko liokeen onuraz gozatu baino ez zuen nahi izan.

Arrazoi horretan oinarrituta, sailari eskatu genion interesdunari zegokion birgaitze lanen espedientea berrikus zezala; orobat, arren eskatu genion azter zezala ea bideragarria zen haren aldeko banakako ebazpena ematea eta, bertan, birgaitze babestuko jardutzat hartzea komunitatean zuen partaide kuotari zegokion lanak.

Hala ere, sailak uko egin zion gure eskaerari. Adierazi zigunez, lortu nahi genuen berrikuspena ezinbesteko kasua zela justifikatuko balitz bakarrik egin ahal izango litzateke, betiere, horrek eragotzi izan balio laguntza ordenantza arautzaileak jasotzen duen unean (alegia, lanak hasi aurretik) eskatzea. Halako justifikaziorik ez balego, sailak dio ezin duela espedientea berrikusi; izan ere, horrek zalantzan jarriko luke aginduan ezarritako izapidetze prozedura, baita ebazpena lanei ekin aurretik lortzeko eskakizuna ere, eta, gainera, zailtasunak eragingo lituzke esku artean dugunaren moduko espediente batean denbora-mugarik ez egoteak. Espediente horretan 100 etxebizitza baino gehiago daude eta, horietatik, erdiak baino gutxiagok eskatu zituzten laguntzak arazuko epeetan.

- Emaizta

Kasu honetan ezin izan zenez arrazoitu ezinbestekak eragin zuela banakako laguntza-eskaera bere garaian aurkeztu ezin izatea eta Etxebizitza Sailak halako kasu batean bakarrik onartuko lukeenez espedientea berrikusteko, interesdunari jakinarazi genion aurkeztutako kasuan jarduteko gure aukerak jada agortu zirela eta, beraz, amaitutzat eman genuen espediente honetako gure esku-hartzea.

⇒ *Ohiko etxebizitza errentamendua: hutsik dagoen etxebizitzaren programaz baliatutako etxebizitzaren errentarientzako kenkari berezia (668/2006)*

- Erreklamazioa

Gipuzkoan bizi zen erreklamatzailer baten arabera, justifikatu gabekoa eta diskriminatzailea zen 316/2002 Dekretuak arautzen duen Hutsik dagoen Etxebizitzaren Programaz baliatutako etxebizitzaren errentariek programa horretan sartu gabeko etxebizitza alokairuan jarri zutenei zegokiena baino kenkari handiagoaz gozatzea PFEZn (zerga-aldian ordaindutako zenbatekoen %25 eta %20, hurrenez hurren).

- Azterketa

Erreklamatzailerak aurkeztutako arazoari aplikatu dakiokoen arautegia zehatz-mehatz aztertu ondoren (Gipuzkoako Lurralde Historikoan PFEZ erregulatzen duen 8/1998 Foru Arauaren 76.1 artikulua, Hutsik dagoen Etxebizitzaren Programa arautzen duen 316/2002 Dekretuari eta babes ofizialeko etxebizitzaren 315/2002 Dekretuari lotuta), ikusi ahal izan genuen aztertutako zerga-arautegiak berdintasun printzipioa arriskuan jar zezaketen egoerak sor zitzakeela, Hutsik dagoen Etxebizitzaren Programaz baliatutako etxebizitza batean alokairuan bizi ahal izateko ez baitira soilik babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko baldintzak bete behar, baizik eta baita ausazko eskakizun bat ere; alegia, kasuan kasuko zozketan esleipendun suertatu izatea.

Horrela, esanenez Hutsik dagoen Etxebizitzaren Programako zozketa batean esleipendun suertatzeko zoria izan duen pertsona bati bost puntu gehiagoko kenkaria (%20tik %25era) aplikatzen zaiola PFEZn. Alderantziz, pertsona horri ez bazaio etxebizitzarik esleitu zozketan eta, ondorioz, merkatu libreko etxebizitza alokatuan bizi behar badu, bere zorte txarrak PFEZn ere eragiten du, ezin baitzaio %25eko kenkaria aplikatu eta %20ko kenkariarekin konformatu behar baitu.

Hausnarketok Gipuzkoako Foru Ogasunari helarazi genizkion eta laguntza eskatu genion, aurkeztutako arazoaren inguruko txostena bidal diezagun.

- Emaiza

Gipuzkoako Ogasunak irmotasunez onartu zuen lurralde historiko horretako PFEZn ohiko etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria ez zegoela behar bezala araututa eta zerga aldatzeko prozesuan arazoari aurre egiteko konpromisoa hartu zuen. Prozesu horrek, une hartan bidean zenak, 2007tik aurrera arautegi berria aplikatzea eragingo du.

### C) **Udal zergak. OHZ**

⇒ *Higiezin baten titularkidetasuna: OHZ titularkide batek ordaintzea (1302/2005)*

- Erreklamazioa

Gasteizen kokatutako higiezin baten titularkide batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, ez baitzeturten bat udalaren jarduerarekin, honek uko egin baitzion titularkide bakoitzari partaidetza-ehunekoaren arabera Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan

zuen kuota bidaltzeari, nahiz eta, kexan jasotakoari jarraiki, berari jabetzaren %3,5998 baino ez zegoen.

Udalak, zerga-zor honen izaera solidarioan oinarrituta, zenbateko osoa igortzen zion urtero.

- Azterketa

Funtsezko gai hori aurrekoetan ere antzera aurkeztu zitzaigunez, udalari txostena bidaltzeko eskatu genion, honakoen berri izan genezan:

1. Udalaren ustez, zein alde dauden kasu honen eta 2002an izapidetu zen espediente baten artean, batean eta bestean irizpide desberdinak erabiltzeko; izan ere, orduan, udalbatzak titularkide bakoitzari ordainagiriak banakatzea onartu zuen.
2. Udalbatzak zein iritzi duen erakunde honek Eusko Legebiltzarrarentzako 2002ko txostenean jasotako gomendio orokorraren inguruan; horren bidez, toki erakundeek gomendatu zitzairen likidazioak igorri eta udal zergen ordainagiriak eska diezazkiotela titularkide diren pertsonetako bakoitzari, betebeharrean duten partaide kuoten arabera.

Gasteizko Udalak idazkia bidali zigun eta, bertan, ez zuen ezer aipatu eskatu genuenaren inguruan; alderantziz, titularkide bakoitzari kuota osoa likidatzeko oinarritzat hartu zuen zerga-arauegia baino ez zuen jaso eta behin eta berriro azpimarratu zuen, legearen arabera, zerga ordaintzerakoan titularkideen artean elkartasunez jokatu behar dutela.

Hiru aldiz ere eskatu behar izan genuen aurkeztutako arazoei berariaz erantzun ziezaiela. Hirugarren errekerimendua egin ostean, udalak jakinarazi zigun, kasu honetan, ez zegoela aurreko espedienteen zegoen salbuespenezko inguruabarrik, erreklamazioak eta bere semeak guztira jabetzaren %33,33 baitzuten eta beste bi titularkideek %33,33 bakoitzak.

Era berean, hasierako jarrera berresteaz gain, udalak jakinarazi zigun, horretarako legezko inolako betebeharririk izan gabe ere, posta ziurtatuz gainerako titularkideei idazki bana bidali zela, zegoen kuota-zatia ordaintzeko betebeharra gogorarazteko.

- Emaizta

Ezin esan genezakeenez interesdunak parte-hartze txikiagoa zuela jabetzan, ezta beste arrazoi berezirik zegoenik ere, gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen eta adierazi genuen Gasteizko Udalaren jardura, kasu horretan, indarrean zeuden legetara egokitu zela.

Hala ere, ikuspegi praktikotik, interesgarria iruditu zitzaigun Udalbatzak aztertzea ea OHZ ordaintzeko betebeharra gogoraraziz higiezinaren gainerako titularkideei bidali zizkien berariazko eta banakako jakinarazpenek emaitza hobea izan zuten, administrazio kostuari eta kudeaketa-eraginkortasunari dagokienez, jabetzako partaidetza-ehunekoaren ondoriozko kuotaren zatia jabeetako bakoitzari igorrita baino, espediente hau izapidetzerakoan iradoki genuen bezala.

Halaxe adierazi genion udalari eta espedientea itxiko gurela ere jakinarazi genion.

⇒ *Etxebizitzarekin lotutako ganbara baten katastro balorazioa (64/2006)*

- Erreklamazioa

Biztanle batek galdetu zigun ea legezkoa zen bere jabetzako higiezinaren inguruan egindako katastro balorazioa; izan ere, Administrazioak etxebizitzaren parte gisa hartzen baitzuen ganberaren azalera, hau etxebizitzako egongelari lotuta baitzegoen eskaileraren bidez. Erreklamatzaileak adierazi zuen hirigintzako arautegiak era honetako espazioei ezartzen dizkien mugapenek eurek justifikatzen dutela etxebizitza bat bezala baloratuak ez izatea.

- Azterketa

Bai Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak berraztertzeko errekurtsori buruz emandako ebazpenak bai Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak haren aurka aurkeztu zen erreklamazio ekonomiko-administratiboari erantzunez emandakoak garbi utzi zuten higiezin horren katastro balorazioa ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Gasteizko lurzorua eta hiri eraikinen balioei buruzko txostenean aurreikusitako ildoei jarraiki egin zela (txosten hori urriaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 793/2004 Erabakiaren bidez onartu zen).

Txostenak “Eraikinen balioa zehaztea” izeneko atalean dioenaren arabera, estalkiarteko solairuko eraikuntzaren balioa solairu arrunteko eraikuntzari dagokiona izango da, eremu hori ez bada trasteleku gisa edo antzera erabiltzen.

Lurzorua balioari dagokionez, txostenean “Lurzorua balioa zehaztea” izeneko atalak berariaz ezartzen du lurzorua balioa egotzi behar zaiela etxebizitza-erabilera duten estalkiarteko solairuei dagozkien eraikuntzei.

- Emaiza

Erreklamatzaileak aurkeztutako bi erreklamazioei erantzunez Zerga Administrazioak eman zituen ebazpenetako bakoitzak indarrean dagoen arautegiaren zuzeneko aplikazioan oinarritzen duenez bere jokoera, gure ustez, kasu honetan ez zegoen inolako arrazoirik ordenamendu juridikoa urratu zela esateko, ezta inolako administrazio jardunik ere erakunde honen esku-hartzea justifikatzeko.

## D) **Udal zergak. TMIZ**

⇒ *%33ko ezgaitasuna egiaztatzea zerga administrazioak TMIZn salbuespena aitortzeko (1122/2005)*

- Erreklamazioa

Ezintasun iraunkor osoagatik Gizarte Segurantzako pentsioduna den pertsona batek erakunde honetara jo zuen eta adierazi zuen Gasteizko Udalak ez ziola ezgaitasunagatiko salbuespena onartu TMIZn, ez zuelako bere ezgaitasuna egiaztatu Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako Sailak ematen duen ziurtagiriaren bidez.



- Azterketa

Udalak emandako ebazpen ezesleak, lehenik eta behin, ezinduen aukera-berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko 51/2003 Legearen 1.2 artikulua aipatzen zuen.

Xedapen horrek honela dio:

*“Lege honen ondorioetarako, ezinduak izango dira %33ko elbarritasuna edo handiagoa aitortuta dutenak. Nolanahi ere, %33ko elbarritasuna edo handiagoa duten pertsonak izango dira bai ezintasun oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak, baita zerbitzurako ezintasun iraunkorra izateagatik erretiro pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunak ere. Elbarritasun maila arauz ezarritako moduan ziurtatuko da eta Estatu osoan izango da baliozkoa.”*

Bestalde, udal ebazpenak toki erakundeek Kontzertu Ekonomikoarekin bat etorritzergatik ezarri eta eskatzeko duten autonomiaren oinarri diren arauen berri eman zuen eta, amaitzeko, zerga-ordenantzak aipatu zituen udalerriek zergen alorrean duten erregelamendu ahalmenaz baliatzeko bitarteko gisa; horien artean, bereziki, Gasteizko TMIZ arautzen duen ordenantzari egin zion aipamena, horren arabera, “organo eskudunak luzatutako elbarritasun ziurtagiria” aurkeztu behar baita.

Guri dagokigunez, zalantzan jarri genituen udalak emandako arrazoiak eta interesdunaren jarrera babestu genuen; alegia, ezintasun iragankor osoagatik pentsioaren onuradun izateak dakarren eta aukera-berdintasunari buruzko legeak onartzen duen balorazio inplizitua gauzatu behar dela.

Udalak gure proposamena onartu ez zuen arren, interesdunak egun batzuk atzera Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako zuzendariak eman zuen ebazpena helarazi zigun; horren bidez, %33ko elbarritasun maila aitortu zitzaion, EAEko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak 2005eko ekainaren 14ko Epaiari adierazitako azken irizpideari jaramon eginez. Aipatu ebazpenak honela zioen:

*“(…) andreaki %33ko elbarritasun maila aitortzea, ezinduen aukera-berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz; horretarako, ez dira aplikatu abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritako baremoak”.*

Antza, une hartara arte, Arabako Foru Aldundiak ez zuen era horretako agiririk luzatu nahi izan, 2005eko ekainaren 14ko Epaiari eman zen arte EAEko Auzitegi Nagusiak erabili zuen irizpidea ezintasun iragankor oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa jasotzen zuen Gizarte Segurantzako pentsiodun guztiei automatikoki %33ko elbarritasun maila ez onartzearena izan baitzen.

Hala ere, 2005eko ekainaren 14ko Epaiari irizpide aldaketa eragin zuen eta, horri esker, 51/2003 Legeak behar besteko garrantzia bereganatu zuen administrazio publikoekiko harremanetan, horien manuek erabat lotesten baitituzte.

- Emaidza

Udalari erreklamataileak helarazi zigun beste agiri bat bidali genion eta, horren bidez, berehala aitortu zitzaion TMIZn salbuespenaz gozatzeko eskubidea.

⇒ *Behin ezgaitasunagatiko salbuespena aitortuta, horren indarraldia mugagabea izango da, betiere, aitorpena eragin zuten inguruabarrak aldatzen ez badira (528/2006)*

- Erreklamazioa

Anoetar batek kexa helarazi zigun eta, horren bidez, zalantzan jarri zuen udalak izandako jokaera 2005ari dagokion Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan ezintasunagatiko salbuespena aplikatzearen inguruan.

Erreklamataileak idazkian zioenez, eta erantsi zituen agiriekin bat etorri, 2004ko martxoaren 8an bere ibilgailurako salbuespena aplikatzeko eskatu zuen. Salbuespena urte horretako ekainaren 4an onartu zitzaion. Hala ere, hurrengo urtean, eta salbuespenaren aplikazioa baldintzatzen duten inguruabarretako bat bera ere (%33ko elbarritasuna edo handiagoa izatea, ibilgailuaren titularra izatea, erabiltzaile bakarra izatea) aldatu ez zen arren, ez zitzaion salbuespena aplikatzen jarraitu; izan ere, udalaren iritziz, onura horrek urtebeteko indarraldia zuen eta interesdunak ez zuen 2005ari zegokiona epe barruan eskatu.

- Azterketa

Udalari honako gogoeta hauek helarazi genizkion:

1. TMIZ arautzen duen udal ordenantzak, 2004 eta 2005. urteetan udalari horretan indarrean zegoenak, ezintasunagatiko salbuespena aplikazio mugagabea duen onura gisa eratan du, argi eta garbi, hauxe baitio 2.1.e) artikularen bigarren paragrafoan: *“Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan”*.

Arau horri jarraiki, zera esan behar dugu: nahiz eta kexagileari ezintasunagatiko salbuespena onartu zion udal erabakiak iraunaldia 2004. urtera mugatzen zela adierazi, gure iritziz, muga horrek ez du babes juridikorik, bada bai zerga arautzen duen 11/1989 Foru Arauak, bai 2005ean indarrean zegoen udal Ordenantzak ere, kontrakoa xedatzen dute berariaz, alegia, emandako salbuespenak bere horretan iraungo duela, onarpena eragin zuten zertzeladak aldatzen ez diren bitartean.

Arrazoi beragatik -legezko oinarririk ez izatea-, ezin gara ados egon udal horrek 2005eko urriaren 27ko bere erabakian erabiltzen duen premisarekin, deialdia urtero egiten dela eta eskabideak ere maiztasun berberaz egin behar direla dioenean, hitzez hitz.

2. Kexagileak 2005erako egin zuen eskabidea atzera bota zuen erabakian, udal horrek 2005eko ekainaren 16ko bandoa aipatu zuen. Bando horren arabera, ekainaren 24an bukatu zen aztertzen ari garen salbuespena eskatzeko epea. Aipaturiko bandoan oinarrituta, erabaki horrek epez kanpokotzat jotzen du interesdunaren eskabidea (urrian egin zuen, udalak zergaren kuota bidali ziola egiaztatu bezain laster).

Arauk eta Ordenantzak salbuespen hori mugagabetzat jotzen dutenez gero, zentzuzkoa da ulertzea, kexagileak egin zuen bezala, uztailaren 16ko udal bandoan iragartzen den epea ez zela lehendik salbuespena onartuta zutenentzako, baizik eta eskatzaile berrientzako bakarrik.

Bestalde, gure aburuz, udal bandoek ez dute legeria berriztatzeko ahalmenik, baizik eta herritarrei arau jakin batzuen indarraldia gogorarazteko dira, edo arau horiek zein tokitan ezarriko diren zehazteko.

Azken batean, udal bandoa 2004an salbuespena izan zutenentzako ere bazela ulerturik ere, gure ustez, tresna horrek ez dauka berez eraginkortasunik salbuespena onartzeko egintzari legez ematen zaion indarraldia laburtzeko.

3. Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 14. artikulua agintzen duenez, tributuak ezarri eta betearazteari dagokionez udalerriek burutu ditzaketan jardueren kontra, interesdunek erreklamazio ekonomiko-administratiboa egin ahal izango diote Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboari, berraztertze errekurtsoaren berariazko edo isileko ebazpenaren kontra, hala nahi badute, administrazioarekiko auzibidera jo baino lehen.

Alabaina, kexagileak jarritako berraztertze errekurtsoa atzera bota zuen erabakian, udal horrek ez zuen eskaini, ikusi dugunez, aurka egiteko bide hori. Gure iritzian, administrazioaren legez kanpoko jarduera zen hori, konpondu beharrekoa, baldin eta 30/1992 Legearen 89.3 artikuluan ezarritakoa zuzen bete nahi bazen eta zergadunaren babesik eza eragotzi nahi bazen.

- Emaita

Udalak inolako eragozpenik gabe onartu zituen gure gogoetak eta, oro har, bere irizpidea zuzenduko zuela adierazi zuen. Horren ildotik, interesdunari 2005ean salbuespenaz gozatzeko eskubidea aintzatetsi zion.

Bestalde, udalak isiltasuna gorde zuenez erreklamatzailari udal ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzeko zuen eskubidearen berri ez emateko arrazoen inguruan, berriz ere informazio espezifikoa eskatu genuen. Udalak erantzun zuen ez zuela nahita egin eta ondoren interesdunari helarazi zitzaizkion erregularizazio ebazpenetan zuzendu zuela akatsa.

## E) Udal tasak

⇒ *Saneamendu zerbitzua eskaintzea ezinbesteko baldintza da dagokion tasaren ordainketa eskatzeko (192/2004)*

### • Erreklamazioa

Bilboko egoitza baten titularra zen ongintzako erakunde batek bere desadostasuna adierazi zion erakunde honi, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak saneamendu tasa kobratzen zuelako, nahiz eta higiezin horri ez zitzaion saneamendu zerbitzurik eskaintzen ari.

Eragindako komunitateak adierazi zuen egoitzak hondakinak ezabatzeko irtenbide bakarra zuela (hobi septikoa), ezin ziezaiokeelako etekinik atera udaleko saneamendu eta estolda-sareari. Ildo horretatik, erreklamatazaileek adierazi eta dokumentatu zuten ongintzako erakundeak berak egiten ziola aurre eraikinean instalatutako hobi septikoa garbitzeak zekarren kostu ekonomikoari.

Beste hitzetan esanda, egoitzaren titularrek salatu zuten bitan ordaindu behar zutela hondakin uren tratamendua: batetik, Ur Partzuergoari zegokiona, saneamendu tasa aldian-aldian ordainduta; eta, bestetik, higiezin jarritako hobi septikoa garbitzeari zegokiona.

### • Azterketa

Ararteko erakundea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin harremanetan jarri zen, gure ustez, hutsegitea izan behar baitzuen zentro hori Partzuergoaren eskumendekoa den Udalsareak, S.A. enpresak garbitu beharreko hobi septikoen inbentarioan jasota ez egotea.

Lehen erantzunean, Partzuergoak, kasu honen inguruko informazioa eta datu espezifikoak aurkeztu gabe, adierazi zuen egoitza Saneamendu Planeko azpiegiturak dituen eremu batean kokatuta dagoela eta, Isurketei buruzko Araudiaren arabera, azpiegitura horien baitan hobi septikoa ezabatu behar zirela. Egoitzak oraindik ez zuen halakorik egin.

Horri dagokionez, Hondakin Uren Isurketari eta Arazketari buruzko Araudiaren 4. artikulua (1989-03-16ko BAO, 63. zk.) dakarren aurreikuspena aipatu zen; horren arabera, hondakin uren hustuketarako herriko sarearen erabilera derrigorrezkoa izango da, oro har, erabiltzaileen establezimendua hurbilen dagoen herriko estolderiatik 200 metro baino hurbilago dagoenean. Horretarako, erabiltzaile horiek beharrezko neurriak hartuko dituzte eta hondakin uren isurketa udaleko aipatu saneamendu sarean egin dadin beharrezko obrak burutuko dituzte.

Datu horrek informazio berria zekarrenez eta erreklamazioa aurkeztu zuen erakundeak garbi utzi zuenez ez zitzaizela jakinarazi, besteak beste, sarea hurbiltzeko lanak amaitu zirenik, epe jakin bat zuenik sarean integrazeko edo horretara ez lotzeak zein ondorio izango zituen, erakunde hau Bilboko Udalarekin jarri zen harremanetan, udaleko saneamendu sarearen titular zen heinean, kontu horien inguruko azalpenak eman ziezazkigun.

Bere erantzunean, toki erakunde horrek adierazi zigun 2003ko abenduan amaitu zirela udaleko saneamendu sarea hurbiltzeko lanak. Hala ere, onartu zuen, kolektore berria linealki 150 bat metrora kokatuta egon arren, egoitza saneamendu sarean integrazeko arazoak zeudela, nagusiki, lur eremuan malda zegoelako eta lurzoru partikularrean

eragina izango zuelako; hori dela medio, beharrezkoa zen bide zorrak eratzea titulartasun pribatuko partzela horietatik. Era berean, txostenarekin batera aurkeztutako planoan ikus zitekeen bezala, konexioa egiteko beharrezkoa zen errepidea zeharkatzea.

Gure ustez, zailtasun horiek garbi uzten zuten higiezinari ez zitzaiola saneamendu zerbitzua benetan eman. Hortaz, Ararteko erakunde hau Udalsareak, S.A. enpresari zuzendu zitzaion eta adierazi zion, higiezin honen kasuan, udaleko saneamendu sarearekiko konexioa egiteak arazoak zekartzala. Era berean, eta kexaren xedea gutxienez neurri batean konpontze aldera, hobi septikoa garbitzeko lanak Ur Partzuergoak Udalsareak enpresaren bitartez eskaintzen duen landa eta hiri izaerako hobi septikoak garbitu eta horietatik datozen likidoak biltzeko zerbitzuaren bidez egitea proposatu genuen. Era berean, gure txosten eskaeran, arren eskatu genuen jakinaraz ziezagutela ea Udalsareak enpresak ezer aipatu zion erreklamazioa aurkeztu zuen ongintzako erakundeari hobi septikoa kendu eta herriko saneamendu sarearekin konektatu beharraren inguruan.

Erantzuna Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak berak bidali zigun. Honek gune isolatuetan kokatutako hobi septikoei ematen zaien tratamendua aztertu zuen modu teorikoan eta oro har.

Onartu behar dugu, emandako informazioa gorabehera, oraindik ez genekiela Partzuergoak, nahiz bere zerbitzuen bidez nahiz bere eskumendekoa den Udalsareak, S.A. enpresaren bidez, egoitzari jakinarazi ote zion hobi septikoa kendu eta udaleko saneamendu sarean integratu behar zuela.

Ekarrirako txostenean, kexa eragin zuen kasu zehatzari buruz ematen zen azalpen bakarra zen muga-kasua zela eta, beraz, zailtasunak zekartzala; hala ere, udaleko estolda-sarea gertu zegoenez, isurketen arazoa konpontzeko, beharrezkoa zen egoitza sare horretan integratzea eta, horretarako, higiezinan instalatutako hobi septikoa kentzea.

Zehazki, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren jarrera bi arrazoitan oinarrituta zegoen:

- a) Hondakin Uren Isurketari eta Arazketari buruzko Araudiaren 4. artikulua dakarren aurreikuspena; horren arabera, hondakin uren hustuketarako herriko sarearen erabilera derrigorrezkoa zen, oro har, erabiltzaileen establezimendua hurbilen zegoen herriko estolderiatik 200 metro baino hurbilago zegoenean. Horretarako, erabiltzaile horiek beharrezko aurreikuspenak egingo zituzten eta hondakin uren isurketa udaleko aipatu saneamendu sarean egin zedin beharrezko obrak burutuko zituzten.
- b) Jardueraren baten kokaleku ziren gune isolatuetako hobi septikoei Galindoko plantaren arazketa-zerbitzua jasotzen zuten doan Partzuergoaren aldetik eta horien garbiketa-kostua eta garrarioa, berriz, titularraren kontura zihoazen. Gune isolatu horietan, irtenbidea udaleko estolda-sarea zabaltzea edo araztegi espezifikoak egitea zen. Partzuergoaren hitzetan, tratamendu horren arazoia zen erakundeak inbertsio handiei egin behar zuela aurre gune isolatu horiei saneamendu azpiegitura publikoak emateko.

Guk, ordea, honakoa pentsatzen genuen:

1. Zerbitzua benetan ematea ezinbesteko baldintza zen tasa ordainarazteko. Horren inguruan, adierazi genuen, udaleko saneamendu sarea luzatu arren, ez genuela

ikusten zertan hobetu zen, objektiboki, egoitzari saneamendu zerbitzuaren prestazioa, kontuan izanik, bereziki, ez zela erraza kasu honetan udaleko saneamendu sarearekiko konexioa egiteak zekartzan arazoak gainditzea.

2. Erakunde honek ez zuen oztoporik jarri abonatuak saneamendu tasa ordain zezaten, bere etxeetan hobi septikoak egon arren, betiere, Ur Partzuergoak bere gain hartzen bazituen, tasaren zenbatekoaren kontura, hobi horiek garbitzeagatikoa gastuak, ur beltzen garraioa eta horien arazketa. Hala ere, hori ez zen egoitza honen kasua.
3. Erakunde honek ez zekien, ez oro har ez kasu zehatz honetan, nola artikulatzen zen erabiltzaileek jasotzen zuten informazioa, administrazioaren iritziz, sarean integratzeko betebeharrak sortzen zenean; orobat, ez zekien zein epe ematen zitzaizkien, ezta, betearazpen aginduari jaramonik egin ezean, zergen eta hirigintzaren arloan sor zitezkeen ondorioei buruz zein informazio jasotzen zuten ere...; izan ere, nekez uler zitekeen administrazio publiko baten jarduerak biztanleengan ondorioak izatea, hauei ez bazitzaien jakinarazten jarduera publiko horrek beren eskubide eta interesetan eragina izango zuela. Informazio hori funtsezkoa zen, baina Ararteko erakundeari ez zitzaion helarazi, eskatu zuen arren.
4. Gure iritziz, eta esku artean genituen datuetan oinarrituta, saneamendu sare orokorra ez zen egoitzaren eskura jarri eta, beraz, ez zen bidezkoa tasa kobratzea, hobi septikoa garbitu eta bertako hondakinak garraiatu eta tratatzeko zerbitzua eskaini ezean.

Zerbitzua erabiltzailearen eskura jartzeko, beharrezkoa izan beharko luke, distantziaren eskakizunaz gain (Isurketei buruzko Araudian aipatzen zen bakarra), beste zenbait faktore ere kontuan hartu eta aztertzea: luraren orografiak eragindako zailtasun teknikoak, titulartasun pribatuko partzeletan izan zezakeen eragina, errepideak zeharkatzeko beharra...; izan ere, batzuetan, faktore horiek bideraezina egiten zuten integrazioa.

- Emaizta

Azkenik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Arartekoari jakinarazi zion, helarazi genizkion gogoetetako batzuekin bat ez zetorren arren, kasua aztertuko zuela, higiezinaren sare orokorrarekin konektatzerakoan ikusitako berezitasunak zirela medio: errepidea zeharkatzeko beharra, lurren jabetza partikularrak... Inguruabar horiek kasua berezia izatea egiten zuten eta, beraz, ez zen arrazoizkoa higiezinaren titularrei eskatzea eraikuntzako eta zuzenbideko lan konplexuez ardura zitezela higiezinaren sare orokorrarekin konektatu ahal izateko.

Hortaz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Arartekoari jakinarazi zion egoitza honi baja emango ziola saneamendu tasan eta kontzeptu honen baita jasotakoa itzuliko ziola.

Behin kasu zehatz honi irtenbidea aurkituta eta erreklamazioa aurkeztu zuen komunitateari gure esku-hartzearen emaitza adierazi ondoren, kexa-espedientea itxi genuen.

⇒ *Txingudiko Zerbitzuak mankomunitateak ur kontsumoak fakturatzeko darabilen sistema (645/2006)*

- Erreklamazioa

Bidasoako herritar plataforma batek zalantzan jarri zuen Txingudiko Zerbitzuak, S.A. enpresak ur hornidura, saneamendu eta zabor bilketako tasei zegokienez bere abonatuei igorri zizkien likidazioetako batzuen legezkotasuna.

Zehazki, erreklamatazileek urte baten bukaeratik eta hurrengoaren hasierara arteko fakturak aipatu zituzten. Plataformak salatu zuen, nahiz eta udal ordenantzek ordaindu beharreko kuota urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin aldatu ohi dituzten, mankomunitate horrek fakturatutako aldi osoan aplikatzen duela sistematikoki igoera, doikuntzako inolako hainbanaketarik egin gabe.

- Azterketa

2006an uraren prezioak arautzen dituen Ordenantzaren 11. artikulua dio kuota finkoak hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean sortzen direla eta kuota aldakorrak, berriz, ur kontsumoen irakurketak egiten diren nean.

Bestalde, Zabor Bilketako Ordenantzaren 10. artikuluari jarraiki, sortzapen una hiruhileko natural bakoitzeko lehen eguna da, hau da, uraren kuota finkoaren kasuan bezala.

Arau esparru horrekin bat etorritik, Txingudiko Zerbitzuak-Servicios de Txingudi, S.A. enpresak urtean lau faktura bidaltzen zituen, bana hiruhileko natural bakoitzeko. Faktura horietako bakoitzean kuota finkoak eta kuota aldakorrak likidatzen ziren. Kuota finkoa beti fakturazioaren xede zen hiruhileko naturalari zegokion eta kuota aldakorra, berriz, hiruhileko natural horretan egindako irakurketari, nahiz eta uneko hiruhileko naturaleko zenbait egun eta aurreko hiruhilekoko gainerako egunak ere barneratzen zituen.

Horrela, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoari buruzko fakturak aurreko urteko azken egunei zegozkien kontsumo jakin batzuk barneratzen zituen eta horiek hurrengo urterako finkatutako prezioaren arabera kobratzen ziren.

Plataformak aipatu jarduera egokia ote zen zehaztea zuen helburu, hau da, ordenantzetan jasotakoarekin bat ote zetorren, edo, alderantziz, ur kontsumoaren zati bat baimendutakoa baino altuagoa den prezioaren arabera kobratzen ote zen.

Kexa aztertzen hasita, lehenik eta behin esan behar dugu, teknikoki, sortzapena zerga-oinarria gauzatzen den una dela; bestela esanda, arauetan aurreikusitako ondorio juridikoen hasiera zehazten du. Sortzapenaren una erabakigarria da aplika daitekeen arautegia zehazteko.

Premisa horiekin bat etorritik, eta lehen atalean aipatu dugun arautegia betez, 2006ko lehen hiruhilekoari dagokion faktura honela banakatu beharko litzateke:

URA:                    Kuota finkoa (hornidura, saneamendua eta saneamenduko PB):  
2006ko ordenantzan aurreikusitako tarifekin bat etorritik likidatzen da, sortzapena urtarrilaren 1ean gertatu baita; hau da, zerga-aldia-  
ren lehen egunean (Ordenantzaren 11.1 artikulua).  
Kuota aldakorra (hornidura, saneamendua eta saneamenduko  
PB): fakturatutako aldia ez dator bat hiruhileko naturalarekin, egun

batzuk 2005. urteari baitagozkie eta gainerakoak, berriz, 2006ari. 2006ko ordenantzan aurreikusitako tarifekin bat etorriz likidatuko da, sortzapena kontagailua irakurtzen denean gertatzen baita (Ordenantzaren 11.2 artikulua).

**ZABORRAK:** 2006ko ordenantzan aurreikusitako tarifen arabera, uraren kuota finkoarekin gertatzen den bezala, sortzapena zerga-aldiaren lehen egunean gertatzen baita; hau da, hiruhileko naturaleko lehen egunean (Ordenantzaren 10. artikulua).

Ondorio gisa, esan behar dugu aztertutako datetara arte indarrean zegoen arautegiak beharrezko estaldura juridikoa eskainiko diola Txingudiko Zerbitzuak-Servicios de Txingudi, S.A. enpresaren fakturazio sistemari. Halaber, onartu behar da kontsumitzailearekin bidezkoagoak izango diren beste sistema batzuk ere diseinatu daitezkeela, baina ezin dela horiek aplikatzeko eskatu araututa ez baldin badaude.

Hain zuzen ere hobekuntza-ildo honetatik, espediente hau izapidetzerakoan Txingudiko Zerbitzuak-Servicios de Txingudi, S.A. enpresak jakinarazi zigun, zenbait herritarrek egindako eskaerei erantzunez, aldatu egin zuela ur hornidurari, saneamenduari eta gainerako zerbitzuei buruzko prezioak eta uraren ziklo osoan aurreikusitako jarduerak arautzen dituen ordenantza, urte bakoitzeko lehen hiruhileko naturalean egindako fakturazioa hainbanatze aldera. Horrela, zerga-oinarriaren zati bati aurreko urtean indarrean zegoen tarifa aplikatuko zaio eta oinarriaren gainerakoari, berriz, urte berrian indarrean dagoen tarifa. Hainbanaketa aurreko urteari dagozkion irakurketa-aldiko egunak eta uneko urteari dagozkion irakurketa-aldiko egunak kontuan hartuta egingo da.”

Aurreikuspenen arabera, ordenantza berri hori 2007ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

- Emaita

Erreklamatazaileei helarazi genizkien aztertu genuen fakturazio sistemaren inguruan atera genituen ondorioak eta jakinarazi genien 2007rako mankomunitateak aldatetak iragarri zituela ordenantzetan; hauek zerbitzuaren erabiltzaileentzat bidezkoagoa den hainbanaketa-sistema eskainiko dute.



## 7. HERRIZAINGOA

### 7.1. SARRERA

2006. urtean Ararteko erakundeak 135 kexa jaso ditu Herrizaingo arloan, hau da, aldi horretan aurkeztutako kexa guztien % 8,04. Kexak honela banakatzen dira, eragindako administrazio publikoak aintzat hartuta:

- Toki administrazioa .....	84
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	49
- Foru administrazioa .....	1

Hizpide izandako gaiak kontuan hartuta, honela banatu dira:

- Trafikoa .....	85
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	19
- Eskubideak eta askatasunak .....	18
- Herritarren segurtasuna .....	8
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna .....	3
- Beste batzuk .....	1
- Babes zibila .....	1

Gainera, 4 espediente izapidetu ditugu ofizioz, honako gai hauei buruzkoak:

- Herritarren segurtasuna .....	2
- Atxiloketa-zentroak .....	1
- Eskubideak eta askatasunak .....	1

Aurten **trafikoari** dagokionez erregistratu den kexa-kopurua nabarmen hazi da 2005. urtearekin alderatuta eta, oro har, aurreko urteetan baino gehiago izan dira.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Bilboko Udalaren jardueretan zentratu dira, nagusiki, nahiz eta Donostia, Gasteiz, Barakaldo, Basauri, Durango, Getxo, Portugalete eta Santurtziko Udalei ere eragin dien, kopuru askoz ere txikiagoan izan arren, eta beste udal administrazio batzuei ere bai, hala nola, Zornotza, Arrasate, Bermeo, Ermua, Galdakao, Lekeitio, Mundaka, Oiartzun, Errenteria eta Sorluzekoei; horietako gehienek kexa bakarra jaso dute.

Kexa horietako batzuetan ez dugu inolako jarduerarik egin dagokion administrazioarekin, izan ere, planteatutako gaiak aztertu ondoren, kexaren arrazoi zen administrazio jardueran ez zegoen lege aldetik inolako arau-hausterik.

Beste kasu batzuetan, ez dugu esku hartu, zegokion prozedura ez baitzen oraindik amaitu. Hala ere, zehaztu behar dugu kexa horiek ez ditugula zenbatu hasieran ageri diren datuetan. Multzo honetan, Leioako (Bizkaia) Artazako tunelaren sarreran baimendutako abiadura gainditzeagatik Herrizaingo Saila izapidetzen ari zen zehapen

prozeduren zenbait alderdi zalantzan jarriz jaso ditugunak aipatu behar ditugu. Gora-beherak, nagusiki, administrazioak prozedura hasteko egintzaren berri emateko behar izan zuen denboraren ingurukoak ziren. Erreklamatzailen iritziz, horren ondorioz, beste zehapen prozedura batzuei eman zitzaien hasiera haien aurka; adierazi zigutenez, lehen prozedura hura lehenago jakinarazi izan balitz, beste prozedura horiek saihestu ahal izango ziratekeen.

Nahiz eta kexa horietatik gehienetan Herrizaingo Sailak ez zituen gainditu prozedurari hasiera emateko egintza jakinarazteko legez ezarritako epeak eta, hertsiki legearen ikuspegitik, bere jardura zuzena izan zen, erakunde honek uste du arlo honetako zehapenek modu eraginkorragoan beteko luketela dagokien eginkizun prebentiboa eta pedagogikoa, interesdunak arin jakiten badu arauak urratu dituela eta zeintzuk izango diren bere ekintzaren ondorioak, horrela, bere portaera aldatzeko aukera izan dezan.

Gure iritziz, helburu hori lortzeko, beharrezkoa da administrazioak al bait arinen esku hartzea eta, beraz, desiragarria litzateke prozedurazko izapideen jakinarazpena berehala gauzatzea.

Aurreko urteetan bezala, 2006an eremu materialean izan diren kexek funtsean zehatzeko araubidean dute eragina eta, bereziki, zehapenak ezartzeko prozeduran. Kexa horietan lehendik ere aurkeztu ziren kontuak aipatu ziren, besteak beste, jakinarazpen pertsonalak egiteko modua eta prozeduren izapidetze estandarizatua.

Horrela, ikusi ahal izan dugu jakinarazpen pertsonala emateko bigarren saiakera ez dela beti ordu desberdinetan egiten, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua ezarritakoari jarraiki, eta, postaz egindako bigarren jakinarazpen saiakerak huts egiten duenean, administrazio espedienteak ez duela jasotzen hartzailearen postontzian bigarren saiakeraren abisua utzi denik, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuak onartu zuen posta-zerbitzuen prestazioari buruzko araudiaren 42. artikuluan ezartzen duen bezala.

Horregatik, "Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiaturik egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean" izeneko gomendio orokorraren edukia ekarri behar dugu gogora berriz ere (2002ko ohiko txostena) eta arreta bereziz jokatzeko eskatu nahi diegu tartean diren administrazio guztiei aipatu eskakizunak bete ditzaten.

Egokia iruditzen zaigu beste behin ere nabarmentzea, Auzitegi Gorenak 2004ko urriaren 28ko Epaian azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikuluari dagokionez ezarri zuen lege doktrinaren arabera, bigarren jakinarazpen saiakera lehenengoaren ordu desberdinean egin dela ulertzeko bien artean hirurogei minutuko aldea egon behar duela gutxienez.

Era berean, berretsi behar dugu jakinarazpen pertsonalen kasuan (Correosi agintzen zaio hori egitea) zehatzeko administrazioa bera dela bigarren jakinarazpen saiakerak huts egin izanaren oharra interesdunaren postontzian utzi dela egiaztatu behar duena espedientearen, eta, jakin dugunez, askotan ez da halakorik egiten, egiteko hori posta-langileari dagokion uste okerraz. Horrenbestez, betekizun hori bete dela egiaztatzen duen agiria era arautu eta automatikoan espedientearen jasotzeko neurriak hartzea komeni dela adierazi behar dugu berriz ere.

Halaber, dei egiten diegu trafikoaren arloko zehapen prozedurak izapidetzen dituzten administrazioei oso arduratsu joka dezaten jakinarazpen pertsonalak zein helbidetan

egingo dituzten erabakitzerakoan. Gai hori planteatu da, adibidez, aurten amaitu dugun kexa batean. Jurisprudentzia konstituzionalean oinarrituta, uste dugu administrazioak ez zuela dagokion ardura osoz jokatu, eta jarraian ageri den hautaketan sartu dugu (910/2004).

Bilboko eta Donostiako Udalen aurkako hainbat kexa aztertu ondoren, ohartu gara jakinarazpenak jada araua hautsi duen ibilgailuarekin zerikusirik ez duten pertsoneri bidali zitzaizkiela edo interesdunak Estatuko trafiko erregistroetan aldatuta zeukan helbidera bidali zirela. Trafikoarekin lotutako udal erregistroen kudeaketan disfunczioaren bat gertatzen ari delakoan, administrazio horiei beharrezko neurriak hartzea proposatu diegu beren datuak Estatuko erregistroetan jasotakoekin bat etor daitezzen, eta, hartara, gai horretako zehapen eskumenak modu egokian gauzatu ahal izan ditzaten.

Prozeduren izapidetze estandarizatua izan da, beste urte batez, guk esku hartzeko arrazoia. Arazo hau planteatu da, adibidez, zehapen prozedura bati dagokionez jarduteko modua zalantzan jartzen duen kexa batean; hasieran bi ertzainek, abiadura gainditu izana egiaztatu zuen radar mugikorraren arduradunak eta aurrerago ustezko arau-haustea egin duen gidariari jakinarazpena egin zionak esku hartu zuten. Erreklamatazailak eztabaidatzen zuena zen bigarren agenteak jakinarazitako salaketaren buletinean gidari gisa bere emaztea agertzen zela, eta, berez, bera zihoala gidari. Hala ere, egiaztatu ahal izan genuenaren arabera, prozeduran gertaera hori berretsi zuen agentea radarrak arduratzen zena zen, ez jakinarazpena egin zuena.

Era honetako kexak behin eta berriz jasotzeak berriz ere hau adieraztera behartzen gaitu: prozedura horiek izapidetzerakoan aurrez zehazturiko ereduak erabiltzeak ezin du interesdunen berme eta eskubideen galerarik ekarri, "Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna: aurrez taxututako ereduaren erabilera zehapen prozedurak izapidetzean. Zenbait arazo defentsarako eskubidearen inguruan" (2003ko ohiko txostena) gomendio orokorrean adierazten dugun ildotik.

Urte honetan berriz piztu den beste gai bat hainbat zehapen ezartzeari buruzkoa da, eta erakunde honen iritziz, arau-hauste jarrera bakarra da. Hainbat zehapen jarri izana salatu da duela gutxi Bilboko Udalarik dagokionez. Erreklamatazailaren arabera, udalak hainbatetan zehatu zuen ia ondoz ondoko egunetan edo egun berean ere egindako beste hainbeste salaketaren ondorioz, ibilgailua bide publikoan aparkatuta zegoelako, abandonatuta egoteko zantzuekin. Kexa izapidetzerakoan udalak izan duen jarrerak, hau da, gure balorazioari materialki ez erantzuteak, kexa aurkeztu duenak helarazi zizkigun gertakariak zuzenak direla ondorioztatzen behartu gaitu eta, gertakari horietatik abiatuta, administrazio horri urtarrilaren 31ko 1/2006 Gomendioan helarazi genizkion gogoetak berrestera ere behartzen gaitu (I. eranskinean dago testu osoa). Udalak ez ditu gure gogoetak onartu bi kasuetako bakarrean ere.

Zehatzeko araubidearekin loturarik gabeko trafiko arlo honetako alderdiei dagokionez, abandonatutako ibilgailuak bide publikotik erretiratzeari heldu behar diogu, kexak eragiten jarraitzen baitu. Horrek beste behin ere tartean diren administrazioek arlo honetako beren jardura 1998ko gure ohiko txostenean gai honi buruz jasotzen dugun gomendio orokorrera egokitzeko beharra nabarmentzera behartzen gaitu.

Aurten gure iritzia eskatu digute Durangoko Trafikoa eta Aparkamendua arautzen dituen Ordenantzarekin (TAO) zerikusia duten hainbat gairen inguruan, hala nola, xedapen horrek egoiliar txartela eskuratu ahal izateko ezartzen duen betekizuna: ibilgailuaren titularrak eta gidaria pertsona bera izatea. Aurreikuspen hori aplikatzearen ondorioz,

txartela ukatu zitzaion ezgaitasuna duen pertsona bati, zeinak, ibilgailuaren titular izan arren, ez zuen gidabaimenik, eta beste ibilgailu baten jabeari ere bai; haren izatezko bikoteak gidatzen zuen ibilgailua, eta TAO eremuaren barruan bizi ziren, baina jabeak ez zuen aipaturiko baimenik. Udalak, jakinarazi digunez, Ordenantza aldatzeko izapideak hasi ditu, besteak beste, era honetako egoerak barne har daitezzen.

Urte honetan zenbait kexa ere jaso ditugu udal administrazio batzuek ordenamendu juridikoak agintzen dizkien eginkizunak betetzen ez dituztela salatuz, trafikoaren zaintzari, arau-haustea salatuz eta zehatzeari eta bide segurtasuna bermatzeari dagokienez. Gai hau planteatu digute, esaterako, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuetan, pasabideetan eta debekatutako bestelako lekuetan oker aparkatzeari dagokionez, eta ikastetxeetatik hurbileko eremuetan bide segurtasunik ezari dagokionez.

Horrez gain, kexa bat aipatu behar dugu, non eta erreklamatazaileak adierazten zigan Getxoko Udalarari bera bizi den kaleko aparkalekuen antolaketa aldatzeko proposamena egin ziola, izan ere, bere iritziz, bide segurtasuna hobetzen zuen eta, gainera, aparkaleku gehiago jartzeko aukera ematen zuen. Adierazi zigunaren arabera, udalaren beraren txosten tekniko batek abalatu zuen irtenbide hori.

Udalek legez hiri-bideetan ibilgailuen trafikoa antolatzeko, aparkaleku erabilerako espazio publikoen erabilera arautzeko eta helburu horretarako egokia dena xedatzeko zuhurtzarakotasun marjina zabala dutela dakigun arren, eta arlo horretan hartu beharreko erabakien konplexutasunaz jabetzen garen arren, egokia iruditzen zaigu erreklamatazaileak eman zizkigun datuak udalak kontuan hartzea, eremu horretako bide eta oinezkoen segurtasuna al bait ongien bermatzeko neurriak baloratu eta har ditzan, hala badagokio.

Udalak hasieran eman zigan informazioak ez zigan erreklamatazaileak proposatutako aparkalekuen antolaketaren gainean eta, haren ustez, proposamen horrek zekartzan abantailen gainean zein balorazio egiten zuen adierazten, ez eta zergatik iruditzen zitzaion egungo antolaketak bere horretan jarraitu behar zuela, eskatu bezala. Horregatik, berriz egin behar izan genion eskaera, horren berri eman ziezagun. Txosten hau amaitu genuenean, ordea, ez genuen lortu udalak bigarren eskaerari erantzuterik, eskaera egin genionetik ia bost hilabete igaro ziren arren eta errekerimendua bidali behar izan genion arren.

Aurten amaitutzat eman dugu gure esku-hartzea Barakaldoko Udalaren aurkako kexa batean, non eta interesdunak adierazten zigan ez zitzaiola berariaz eta formalki jakinarazi zergatik erretiratu zuten bere ibilgailua bide publikotik, udalak ez baitzion jakinarazi eta ez baitzen kausa hori dela eta inolako zehapen prozedurarik izapidetu. Zenbait urte igaro ondoren eta hainbatetan gaiaren inguruko interesa azaldu ondoren, udalak, azkenik, erretiratu izanaren arrazoiak jakinarazi zizkion, baina une hartan ez zuen inolako defentsarik onartu, garaiz kanpokotzat jotzen zuelako. Espedientea amaitu dugu, eta iruditzen zaigu jokabide hori ez zela egokia izan, udal administrazioaren jardura beraren (ez zizkion defentsa egin ahal izateko behar zituen datuak eman) ondorioz, interesdunak ezin izan zuen bermez errekurritu erretiratzeko ekintza hura gertatu zenean.

Azkenik, idatziz jaso behar dugu Herriaren Defendatzaileari bere eskumeneko gaiak planteatzen zituzten hainbat kexa bidali zaizkiola, hala nola, atzerrian eskuratutako gidabaimena baliokidetzeko eskaera ukatzea, ziklomotoreentzako gidabaimena lortzeko arazoak, Estatuko trafikoko administrazio zerbitzuen jardunbidea, ibilgailua

erretiratzea eta arloko arautegia urratzeagatiko zehapen prozedurak Estatu mailan izapidetzearekin lotutako gaiak, jakinarazpenak egiteko modua edota hizkuntz eskubideak ez bermatzea.

Kexa bat bidali diogu Frantziako Errepublikako mediateur-ari ere, haren esku-meneko gai bat aipatzen baita. Erreklamatzaila Frantziako errepidean zihola trafiko arauak hausteagatik salatu zuten eta salaketaren buletinaren jarritako zenbatekoa unean bertan ordaindu behar izan zion salaketa jarri zion agenteari. Adierazi digunez, beldur da, zehapena ordaindu ondoren, dagokion zehapen prozedura ez izapidetu izanaz eta bere eskubideak ezin erabili izateaz eta poliziaren egozpenetik ezin defendatu izateaz.

\* \* \*

Herrizaingo arloaren barruko gainerako gaiei dagokienez, aurten jaso ditugun kexetan, nagusiki, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila eta Bilbo, Donostia, Barakaldo eta Irungo Udalak aipatu dira.

Atal honetan, lehenengo eta behin, poliziaren aldetik tratu desegokia edo agenteek polizi bulegoetatik kanpoko jardueretan gehiegizko indarra erabili izana salatzen duten kexak nabarmendu behar ditugu beste behin, horrelakoak izan baitira jaso ditugun gehienak.

2006an, kexa horietako gehienak Ertzaintzaren ingurukoak izan dira, eta bereziki Ertzaintzak Gasteizen eginiko jardueren ingurukoak.

Iaz ez bezala, arrazoi hauetan oinarritutako kexa bakar batek ere ez du izan protagonista gisa adingabekorik. Aldiz, atzerritarrekiko esku-hartzeen inguruko kexak jasotzen jarraitu du.

Azken horiei dagokienez, aipatzekoa da hiritar batek Donostiako Udaltzaingoak Haizearen Orrazietan hari eta haren lagun bati emaniko tratua salatuz aurkeztu ziguna; adierazten zigunez, bertaratzeko erabili zuten ibilgailua gaizki aparkatuta zegoela iritzi zioten udaltzainek; hortik hasi zen dena eta bien atxiloketarekin amaitu zen.

Kexa aurkeztu duenak adierazten zigunez, agenteek ibilgailuak trafikoaren arautegia urratzen zuela adierazi ziotenean, gidaria lokalizatzeko eskaini zen, handik hurbil baitzegoen, ibilgailua erretiratzeko, edo bera ere ibilgailua erretiratzeko prest agertu zen, baina, antza, haiek uko egin zioten bere eskaintzari, ibilgailua bide publikotik erretiratzeko agindu zioten eta salaketa jarri zioten oker aparkatzeagatik.

Horrez gain, adierazi zigun bi lagunek zuten whisky botila hustu ziotela geroago agenteek, "*potrotan jarri zitzaielako*" egiten zutela esanez, eta erreklamatzailaren lagunak sakelako telefonoaz horren argazki bat ateratzeko asmoa zuela igarri zutenean, jo eta atxilotu egin zituztela. Antza denez, bi lagunek hainbat lesio fisiko jasan zituzten eta arreta medikoa behar izan zuten atxiloketan.

Erreklamatzailak helarazi zigun salaketaren buletinaren kopia aztertu genuen, eta bertan adierazitakoaren arabera, lerro horiaz aparkatzea debekatuta dagoen lekuan aparkatzeagatik jarri zen salaketa. Gure iritzi, agiri honen edukari eta kexan adierazitakoari erreparatuta, zalantzakoa zirudien ibilgailua erretiratzearen legezotasunak, izan ere, trafiko arautegiaren arabera (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 71. artikulua), neurri hori hartzeko legez ezarritako kasuren bat gertatu beharko litzateke –agenteak salatutako gertakaria ez dago horien artean– eta ibilgailua erretiratzera behartutako pertsonak hala egiten ez badu, eta, antza, hori ere ez zen

horrela izan kasu honetan, izan ere, kexa aurkeztu duena prest agertu baitzen, berak dioenez, gidariari hura kentzeko dei egiteko edo berak erretiratzeko.

Gure iritziz, erreklamatazileak emaniko datuekin, zalantzakoa iruditzen zitzaigun salatutako gertaera agente salatzaileak ezarritako manuaren menpe jarri ahal izatea, bai eta arau-hauste larritzat jotzea ere, hark egin bezala.

Hala jakinarazi genion Donostiako Udalari, gertaerak iker zitzaiz eta aurreko alderdi horiek balora zitzaiz. Hala izan dela egiaztatuz gero, agenteen jokabidea egokia izan ote zen aztertzerakoan kontuan hartu beharko litzatekeela adierazten genuen. Era berean, erakunde honek indarraren erabilerari dagokionez eginiko gomendioak bete diren jakinarazteko eskatu genion, irismen orokorra dutela baiteritzogu [“San Frantzisko zonan atzeritarrekiko burututako polizi jarduerari” buruzko txostenaren 7.) gomendio zehatza, 1998ko ohiko txostena].

Txostena amaitutakoan oraindik ez genuen eskatutako informaziorik gaiaren inguruko behin betiko irizpena eman ahal izateko.

Halaber, beste kexa bat ere aipatu beharrean gara. Erreklamatazileak adierazten zigunaren arabera, Bilboko Udaltzaingoaren ibilgailu bat San Frantzisko zonako denda baten aurrean geratzen ikusi zuen; denda atarian hiru gizon afrikar zeuden, azal beltzekoak, lasai-lasai hizketan. Lekukoaren arabera, patruilakide batek identifikatzeko eskatu zien pertsona horiei, barrezka eta ulertzen ez zuten hizkuntza batean hizketan entzun zituztela, eta, beraz, agenteek barrez ari zitezkeela pentsatzen zutela esanez. Kexa aurkeztu zuenak ziurtatzen zuen, gainera, agenteetako batek indar fisikoa erabili zuela, bere iritziz, oso modu bidegabean, gizon haietako baten aurka, eta hormara begira jarri zuela. Azkenik, agenteek lanbide identifikazioko zenbakiak emateari uko egin ziotela adierazten zigun, nahiz eta gertakari zenbakia eman zioten.

Bilboko Udalarengana jo genuen, gogoraraziz, aipaturiko “San Frantzisko zonan atzeritarrekiko burututako polizi jarduerari” buruzko txostenean, erakunde honen iritziz, polizi arduradunek agenteek pertsonen kanpoko ezaugarrietan edo estereotipoetan soilik oinarrituta esku-hartzeak egitea prebenitzera bideratutako mekanismoak ezarri behar zituztela, hala nola, agiri bidez behar bezala jasotzea kasu bakoitzean polizi jarduera justifikatzen duten arrazoi zehatzak, eta agenteek beren lanbide identifikazioko zenbakia edo bestelako gakoak (zeinen esanahia publikoa ez den) eman behar izatea hiritarrak hala eskatuz gero, eta abian den jarduerari dagokion zenbakia ematea nahikoa ez izatea, behin-behineko erantzukizunaren izaera pertsonala dela eta.

Udalaren arabera, agenteen partean eta haiek kexa ezagutzeari egin zuten txostenean oinarrituta, polizi jarduera ez zen neurriz kanpoko izan. Agiri horien edukiaren arabera (kopiak bidali zizkigun), agenteen ustez arrazoituta zegoen identifikazioa, izan ere, identifikatutakoetako bati keinu susmagarria antzeman zioten, zerbait ezkutatu nahi balu bezala, baina ez zioten ezer aurkitu. Halaber, agenteek adierazi zuten erreklamatazileari lanbide identifikazioko zenbakia eman ziotela, beren esanetan, eman zioten jardueraren zenbakian agertzen baitzen datu hori.

Udalaren informaziotik ondorioztatu genuenaren arabera, polizi arduradunek polizi jarduera honen gainean ateratako ondorioak agenteek bi agiritan emaniko bertsioan bakarrik oinarritzen ziren, eta, gure iritziz, hori ez zetorren bat arlo honetan jarraitu behar diren eta “Polizi kidegoek kontrol tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” (2003ko ohiko txostena) izaera orokorreko gomendioan jaso genituen jarraibideekin.

Nabarmendu beharrekoa da beste lekuko batek aurkeztu zigun kexa ere, Bilboko Alde Zaharrean gizon beltz bat atxilotzerakoan Ertzaintzak gehiegizko indarra erabili izana salatzen zuena. Erreklamatzailleak adierazten zigun, bestalde, bertan egoniko edonork agertuko liekeela desadostasuna agenteei, izan ere, indarra neurritz kanpo eta justifikaziorik gabe erabili baitzuten, eta, gainera, agenteetako batek haren aurkako arauzko defentsa egin zuela eta bortxatzailea zela adierazi ziola ere azaldu zigun. Pertsona horrek azaldutako gaitzespenak jasotako erantzuna desegokia iruditu zitzaizola adierazten zen kexan, bai agentearen mehatxuzko keinuarengatik, bai atxilotzeko arrazoari buruzko informazioa emateagatik. Azken kontu horri dagokionez, ez da lehenengo aldia erakunde honetan hori planteatzen dena, eta kexa aurkeztu zuenak adierazi zigun beldur zela, datu hori emanda, agenteak polizi jarduera zilegiztatu nahi ote zuen hura ikusi zutenen eta atxilotuak ustez eginiko ez-zilegi penalaren larritasunean gehiegizkotzat jotzen zutenen aurrean. Geroago jakin genuen ez zela hori izan atxilotetaren arrazoia.

Hala ere, Herrizaingo Sailak ukatu egin zuen lekukoari informazio hori eman izana eta atxilotetan erabilitako indarra atxilotuaren beraren indarkeriazko jokaerarekin justifikatu zuen.

Indarra behar ez bezala erabiltzeagatik edo tratu desegokia emateagatik jaso ditugun kexetan erakunde honek hainbatetan aipatu dituen arazoak jarri dira agerian, besteak beste, indarraren erabilera kontrolatu beharra, epaileak hasieratik hutsegitezat hartzen dituen jokabideez baliatuta atxilotetak egitea, agenteei desobeditzeagatik salaketa polizi jarduera zalantzan jartzen delako edo kritikatzin delako aurkeztu dela pentsatzea eta atxilotuari gorputz miaketa egiteko modua.

Kontu horietako asko, adibidez, trafikoko gorabehera batean izandako Ertzaintzaren esku-hartzearen aurkako kexa batean jaso dira. Gertakari horretan, ibilgailuaren gidaria atxilotu zuten, trafikoko segurtasunaren aurkako delitua egin zuelako, baita harekin zihoana ere, ustez agenteei desobeditzeagatik. Lehena absolbitu egin zuten bide judizialean eta bigarrena, berriz, desobedientzia hutsegiteagatik kondenatu zuten. Kexa horretan adierazi zen, orobat, agenteek neurritz kanpoko indarrez jardun zutela eta agenteei desobeditzeagatik atxilotu zuten pertsonari guztiz biluzarazi eta gorputz miaketa egin ziotela atxilotuta egon zen denboran.

Halako arazoak ikusi dira, baita ere, desobeditzeagatik Ertzaintzak atxilotu zuen beste pertsona baten kexan. Honek ez zuen identifikatu nahi izan, hala egiteko eskatu zioten agenteekin euskaraz egin nahi izan baitzuen, baina hauek, antza, ez zeuden hala egiteko moduan. Erreklamatzailleak adierazi zigun polizi bulegoetan erabat biluztera behartu zutela. Jakin ahal izan genuenez, atxiloteta eragin zuten gertakariak hutsegitezat hartu ziren bide judizialean. Kexa hau laburbildu dugu jarraian ageri den hautaketan (246/2006).

Halaber, arazo horietako batzuk agerian jarri dira Barakaldoko Udaltzaingoaren jardueraren gaineko kexa batean. Erreklamatzailleek adierazi ziguten beren semeari ematen ari ziren tratua dela-eta (antza denez, hormara begira zeukaten bide publikoan, besoak gora zituela, eta hari joka ari ziren) kidego horretako agenteei azalpenak eskatu zizkietenean eta haien lanbide identifikazioko zenbakia eskatu zietenean, atxilotu egin zituzten, indarrez, horiek ere. Horrez gain, adierazi ziguten polizi bulegoetan haietako bat –giharretako gaitz baten ondorioz mugikortasun mugatua duena– lurrera erori zela eta ezin zela altxatu. Ondorioz, agenteak irainka hasi zitzaizkion, hainbat ostiko jo zizkieten eta arrastaka eraman zuten ziegaraino, eta klinikoki tratatu beharreko lesioak eragin

zizkioten. Antza denez, atxilotu horri berari gorputz miaketa egin zioten komisarian, erabat biluztuta. Bestalde, kexan adierazten zen agenteek bide publikoan gertatutakoa ikusi zuten bi lekukoak atxilotzeko mehatxua egin zutela, ez bazioten gertatzen ari zena gainera azalpenak eskatzeari uzten.

Horrenbestez, erakunde honek gai hauen inguruan aurrez aipaturiko “San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako polizi jardueri” buruzko txostenean eta “polizi bulegoetan pertsonen miaketak egiteko diligentzia” izenekoan (2001eko ohiko txostena) eginiko gomendio orokorrak betetzeko beharra nabarmentzeko behararekin jarraitzen dugu.

Kontu hauei dagokienez, komenigarria iruditzen zaigu gogoraraztea indarraren erabilpenak azken bidea izan behar duela, eta egokitzapen eta neurri legezko printzipioak errespetatu behar dituela eta, gure ustez, hierarkikoki buru direnek kasuan kasu kontrolatu eta berretsi behar duten zentzuzko iritzian oinarrituta egon behar duela. Gure ustez, kontrol hori gauzatu ahal izateko ezinbestekoa da erabaki hori oinarritu duten arrazoiak eta esku-hartzea egin den modua zehazki idatziz jasotzea.

Jaso ditugun kexak eta gai hauen inguruko interesa agertzen dugunean polizi arduradunek ematen dizkiguten erantzunak ikusita, iruditzen zaigu gomendio horiek ez direla beren osotasunean betetzen ari, eta, kasu askotan, ez dira horien alderdi batzuk martxan jartzeko behar diren tresnak ezarri ere.

Horri dagokionez, adibidez, aurreko ohiko txostenean -eremu honetako kexen hautaketan (1010/2004)- azaldu genuen kexa espediente baten kasua aipatu behar dugu, non eta Herrizaingo Sailak adierazi zigun adierazitako neurriak helaraziko zizkiela polizi arduradunei, bete zitzaizkion. Hala ere, urte honetan zehar, beste kexa baten izapidetzea dela-eta, adierazi digu ez duela mekanismorik erabilitako indarraren egokitasuna goikoek epaitzeko.

Bide judizialean hasieratik hutsegite gisa kalifikatutako gertakariengatik eginiko atxiloketei dagokienez, eta agenteek hala baloratu gero atxiloketarik izango ez litzatekeen kasuei dagokienez, hainbatetan adierazi dugu zeinen zaila den Prozedura Kriminalaren Legearen 495. artikulua praktikan aplikatzea, batez ere agenteek erabili beharreko balorazio irizpideak zehazterakoan. Horregatik, eta urtez urte guregana heltzen diren agenteei desobeditzeagatik eginiko atxiloketa-kasu gehienak bide judizialean hasieratik hutsegite gisa kalifikatzen direnez, polizi arduradunek atxiloketa horien gaineko prebentzio mekanismoak eta ondorengo kontrol mekanismoak ezartzeko beharra nabarmendu behar dugu, bai eta kontrol kuantitatiboa egiteko beharra -kopururik handienak batez ere agente edo patruila batzuetan pilatzen diren aztertuz- eta partikularraren gaineko ebazpen judizialak kontrolatzeko beharra ere -zenbat atestatu hasieratik hutsegitez hartzten diren egiaztatzeko, kondenen proportzioa zenbatekoa den ikusteko, etab.-.

Atxiloketan pertsonen miaketa egiteko moduari dagokionez, beste behin ere aipaturiko “Polizi bulegoetan pertsonen miaketak egiteko diligentzia” gomendio orokorrean horri buruz adierazi genuen jarrera berretsi behar dugu, izan ere, jaso ditugun kexak, tartean diren administrazioek eman dizkiguten azalpenak eta aurreko atxiloketa-zentro batzuetara egin ditugun bisitaldietan bildu ditugun datuak kontuan hartuta, ez dira betetzen zenbait alderdi.

Hala, erakunde honek nahiko maiz ikusi du ez dela agiri bidez jasotzen miaketa egiteko modu zehatza, eta horrek zaildu egiten du ondorengo kontrola. Hori gertatu



da, esaterako, dugun informazioaren arabera, aurrez aipatu dugun eta hautaketan jaso dugun kexan (246/2006); txostena amaitzerakoan ez genuen lortu Herrizaingo Sailak argitzerik ea erreklamatazailerak erabat biluzarazi zuten, hark ziurtatu bezala.

Behin eta berriz errepikatzen dira desobedientziagatiko atxiloteta-kasuetan gorputz miaketa erabat biluztuta egitea salatzen duten kexak ere, aipatu duguna kasu, eta, gure ustez, oro har, ez dago justifikatuta norberaren intimitaterako eskubidea murrizten duen neurri hori.

Nabarmendu behar dugu miaketa erabat biluztuta egitea ezin dela inoiz atxiloteta-  
ren zigor gehigarri gisa erabili, ez eta atxilotua makurrarazteko edo haren indar morala hondatzeko erabili.

Eta, azken batez, berriz adierazi behar dugu polizi funtzionarioek naturaltzat hartu behar dutela interesdunek hala eskatzean beren jardueraren gaineko azalpenak ematea eta beren lanbide identifikazioko zenbakia ematea; ez dituzte gertakari horiek agenteekiko errespeturik ezaren edo desobedientziaren seinale gisa hartu behar.

Era honetako kexetan ohikoa izaten da jurisdikzio penalean diligenziak izatea agente esku-hartzaileek egiten duten atestatuaren ondorioz. Batzuetan, eraginpekoek beraiek agenteak ere salatzen dituzte.

Era horretan, askotan, polizi arduradunek, Ararteko erakundea arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikulua babesean, adierazitako inguruabarra erabiltzen dute kexaren iturri den polizi jarduera ez ikertzeko, egin duten ikerketaren berri ez emateko edo gure esku-hartzea baztertzeko. Hori gertatu da, adibidez, aurtun Irungo eta Gasteizko udaltzaingoen aurkako bi kexatan (2005ean hasi ginen horiek izapidetzen), eta horren berri eman genuen aurreko txostenean. Gasteizko kasuan, udalak izan zuen jarrerak gomendio bat egitera behartu gintuen –I. eranskinen kontsulta daiteke testu osoa (apirilaren 4ko 10/2006 Gomendia)–, zegokion ikerketa egin zezan ahal bezain laster. Azkenean, egin zuen ikerketa, baina, gure ustez, mekanismo hori eraginkorra izateko denbora gehiegi igaro ondoren. Ildo berean, kasu hau ere aipatu behar dugu: tratu txarrak jasan zituzten hiru pertsonak pertsona bati leporatu zizkieten hainbat egintza, baina hark ez zuen egintza horiek burutzerik izan. (ikus herrizaingo sail honetan, 287/2005 eta 951/2005 zenbakiko espedientei dagokien kexaren laburpena).

Berriz adierazi behar dugu berehalakotasuna erabakigarria dela ikerketak gertatutakoa argitzeko duen xedea arrakasta izateko gutxieneko berme batzuekin bete ahal izateko. Gaia honela ulertzeak garamatza honakoa defendatzera: polizi arduradunek dagokion prozedura hasi behar dute kexa baten berri izan orduko, funtsik gabeko kexa dela agerikoa denean salbu. Irungo Udalaren jarduera bezalakoak baztertzera ere bagaramatza, izan ere, azaldu dugun espedienteen bi hilabete baino gehiago behar izan zuen egin genion lehenengo eskaerari erantzuteko eta adierazteko gure eskaera aztertzen ez hastea erabaki zutela agenteek beren esku-hartzea zela eta egin zuten atestatutik eratorritako prozedura penalean zegokion ebazpen judiziala ematen zen arte.

Kontu horren inguruan egin genizun gomendio orokorra, hots, “Polizi kidegoek kontrol tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako”, betetzen ari ez dela ikusita, behartuta gaude han adierazitako gure jarrera agertzera; hala, prozedura penal bat egotea ez da oztopo polizi arduradunek agenteen jokabide zehatz batek eragin duen kexa ikertzeko, nahiz eta kexa eta prozesu penalaren arrazoia bat izan (jasotako kexetan hori, ordea, ez da ohikoa). Gure ustez, hori ez da oztopo

poliziaren jokabidea diziplina-ikuspegitik eta kontuan hartu beharreko jarraibideetara egokitu den aztertzeo ere.

Erakunde honen iritiz, diligentzia judizialak egoteak ez du Arartekoaren esku-hartzea baztertzen kasu hauetan, nahiz eta onartu behar den inguruabar horrek gure egitekoa mugatzen duela.

Otsailaren 23ko 3/1985 Legearen 13. artikulua horrelako kasuetan debekatu diguna bide judizialean planteatzen ari diren gai zehatzak aztertzen hastea dela deritzogu. Gure ustez, manu horrek ez digu eragozten kasu hauetan gure esku-hartzea kokatzen dugun prebentzio eremuan jardutea, polizi arduradunei dei eginez jarraibide batzuen arabera jardun dezaten; gure ustez, agenteen jokabide zehatz baten gaineko kexa jasotzean jarraibide horiei erreparatu behar diete (aipaturiko gomendio orokorrean ezarri ditugu jarraibide horiek), eta gomendio hori betetzen dela egiaztatu behar dute, edo erakunde honek eginiko bestelako gomendio orokorrak bete diren egiaztatu behar dute. Ez dugu uste prozesu judizialaren xede ez diren kexaren alderdiak aztertzea eragozten digunik ere.

“Polizi kidegoek kontrol tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorrari dagokionez, ohikoa izaten jarraitzen du polizi arduradunek egiten duten ikerketa agente esku-hartzaileek eginiko atestatua aztertzea eta, gehienez ere, gertatutakoaren beren bertsioa biltzera mugatzeak. Hori gertatu zen aurreko bi kexetan eta hori gertatu da azken txostenean azaldu genuen Bilboko Udaltzaingoaren aurkako beste kexa batean, atzerritar bat atxilotu eta, kexaren arabera, agenteek eman zioten tratu txar fisikoari buruzkoan (tratu txar horrek eragindako hainbat lesio tratatzeko arreta medikoa behar izan zuen, antza). Eta, aurrez aipatu bezala, hori bera gertatu da atal honen hasieran aipatu dugun polizi kidego horrekin berarekin zerikusia duen kexan.

Hori dela-eta, berriz ere aipatu behar dugu salatutako gertakariak ikertzea ezin dela gertakarietan parte hartu zuten agenteen bertsioa onartzera edo horiek esaten dutena jasotzera mugatu, horrek kexa erabat baztertzea ekarriko lukeelako.

Hortaz, behartuta gaude honakoa berresten jarraitzea: tartean diren administrazioek jarduera protokolo argi eta zehatzak ezarri behar lituzkete arlo horretan, eta zehatz-mehatz azaldu behar lituzkete kexa bat jasotzean jarraitu behar diren pausoak eta ikerketa egiteko jarraibideak, aipaturiko gomendio orokorrean azaldutakoaren ildotik.

Aurten kexa ugari jaso dugu Bilbon eta Gasteizen 2002an eta 2006an hurrenez hurren eginiko manifestazioetan Ertzaintzak eginiko esku-hartzearen inguruan.

Lehenengoari dagokionez, kexak aurkeztu dituztenak manifestazioan aipaturiko polizi kidegoak istiluen aurka eginiko jardueraren ondorioz begi bat eta testikulu bat, hurrenez hurren, galdu zuten bi pertsona dira. Erreklamatazileek jasandako kalteak ordain ziezazkieten Herrizaingo Sailaren aurrean egin zituzten ondare erantzukizuneko eskaerak gaitzetsi izana da kexa horien arrazoia. Kexa horietako bat laburbildu dugu jarraian ageri den hautaketan (692/2006).

Beste kexak martxoaren 3an Gasteizen hogeita hamar urte lehenago Zaramaga auzoan izan ziren zoritxarreko gertaeren biktimen omenez egin zen baimendutako manifestazioaren ingurukoak dira.

Kexak aurkeztu zituztenek zalantzan jarri zituzten agenteek manifestazioan parte hartu zutenen aurka erabilitako indarra –basatitzat jotzen dute-, bai eta polizi eraso egiteko aukeratutako lekua eta unea ere. Kontatu zigutenaren arabera, poliziak alde

aurretik abisurik eman gabe eta manifestariak Legutianoko atean sartuta zeudenean esku hartu zuen, eta, erreklamatzailen iritziz, horrek beharrezkoa ez zen arriskua sortu zuen, bertan bildutakoan artean izua eta ikara sortuz; haietako gehienek baimendutako manifestazio batean zeudela uste zuten (arrazoiz) eta ez zekiten zer ari zen gertatzen.

Batzuek adierazi zuten, gainera, egun batzuk atzera espetxean hil ziren ETako bi presoan argazkiak –dirudienez, horiek erakusteak justifikatu zuen poliziaren eraso– martxoaren 3ko Biktimen Elkarteko zenbait kidek zeramatzatela manifestazioaren aurreko aldean eta Ertzaintzak oso ondo ezagutzen zituela. Horrek, beren iritziz, erraztu egiten zuen haiek identifikatu eta salatzea, agenteek ez-zilegi penalean erori zirela uste bazuten. Hortaz, ez zen beharrezkoa beste mekanismo batzuetara jotzea, inguruabarrak ikusita, saihestu nahi zena baino kalte handiagoa eragin baitzezaketen eta arriskuan jar baitzitezkeen —eta, dirudienez, halaxe gertatu zen— manifestazio baimendura joanda argazki horien berri ez zuten pertsona gehienen osotasun fisikoa. Erreklamatzaille horiek zalan-zan jartzen zuten aipatutako elkarteko bi kideren atxiloketan erabilitako indarra ere.

Herrizaingo Sailarengana jo genuen kexek planteatzen zituzten gaietarako buruzko informazioa eman ziezagun, bai eta erabili zen indarraren ezaugarri zehatzen berri (erabilitako tresnak, zein inguruabarren edo noren aurka erabili ziren, etab.) eta polizi arduradunek neurri horien beharraz, arrazionaltasunaz eta proportzionaltasunaz eginiko azterketaren berri ere eman ziezagun. Halaber, bi atxiloketa horiekin zerikusia duten polizi atestatuaren kopia bana emateko ere eskatu genion.

Aipaturiko Sailak, bidali zigun lehenengo informazio idazkian manifestazioan indarra erabili izana onartzen zuen eta agente batzuk aipaturiko bi presoan argazkietara iritsi nahian zebiltzala manifestariak izandako jarrera bortitza eta iraingarriarekin justifikatzen zuen. Era berean, onartu zuen agenteek indarra erabili behar izan zutela atxiloketan eta hori atxilotutako pertsonen indarkeriazko jokaeraren beraren bidez justifikatu zuen.

Jarduera batean eta bestean erabilitako indarrari dagokionez, bere lehen informazio idazkian aipatu sailak balorazio iritzia baino ez zuen eman eta hori egokia, proportzionala eta justifikatua izan zela adierazi zuen. Aitzitik, ez zuen ematen halako ondorioa oinarritzen lagun zezakeen elementurik, ezta bestelako daturik ere erakunde honek polizi jarduera aztertu ahal izateko agenteen esku-hartzeak bete behar zituen kongruentzia, egokiera, proportzionaltasun eta kaltegarritasun txikienaren printzipioetikiko errespetuaren ikuspegitik [Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko maiatzaren 13ko Lege Organikoaren 5.2.c) artikulua eta Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 34. artikulua]. Aztertu ere ez zituen egiten poliziaren esku-hartzeak printzipio horiek errespetatu ez zituela adierazteko erreklamatzailerek beren kexetan aipatu zituzten inguruabar zehatzak. Azken batean, informaziorik ere ez zuen ematen indarraren erabilera dela-eta egin genituen gomendioak betetzearen inguruan, horren berri emateko eskatu genuen arren.

Herrizaingo Sailak ez zigun helarazi atxiloketei zegokien atestatuaren kopia ere; horren bidez, atxiloketaren eta ekitaldi horretan erabilitako indarraren zehaztasunak ezagutuko genituzkeen eta, horrela, gure kontrol lana behar bezala garatu ahal izango genukeen. Orobat, ez zitzaizkigun azaldu hala jardutearen arazoak ere.

Horiek horrela, berriz ere laguntza eskatu behar izan genion, gai horiei guztiei erantzun ziezaien eta aipaturiko agiriak eman ziezazkigun.

Aurrekoen bestelako eremuetan, aurrean jaso ditugun kexak hainbat gairen ingurukoak dira.

Hala, adibidez, ikusmen arazo larriak dituen emakume beltz batek gure esku-hartzea eskatu zuen, izan ere, adierazi zigunaren arabera, atxilotu egin zuten akats bat tarteko, ONCEko kupoiaren bere saltokitik etxera zihoala, nahiz eta atxilotu zuen agenteari behin eta berriz adierazi zion bere abizena ez zettorrela bat bilatzen zutenarenarekin eta, bere esanetan, hori egiaztatzen zuen agiria erakutsi zion arren.

Aurten datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten kexa batzuk ere jaso ditugu, hala nola, adingabeko baten amonak aurkeztutakoa; polizi jarduera bat zela-eta Ertzaintzak hedatu zuen prentsa-ohar batean bere alabaren eta bilobaren datu pertsonal osoak eta zehatzak azaltzen zirela eta, osotasunean hartuta, biak erraz identifikatzeko modua ematen zuela adierazi zigun. Kexa aurkeztu zuen amonaren iritziz, albistea ulertarazteko ez zen beharrezkoa datu horiek ematea.

Halaber, herritarren segurtasunik ezeko une batzuetan poliziak erantzun egokirik ez eman izana salatzen duten kexa batzuk ere aurkeztu dizkigute. Horrelako kasu bat azaldu digu, adibidez, Bilboko bizilagun batek; bere ustez, Zorrotzako zentroak pairatzen dituen era honetako arazo berri eta arazoa konpontzeko neurriak hartzeko eginiko eskaeren aurrean udalak agertu duen isiltasunaren berri eman digu.

Eta, azken batez, berriz ere poliziak delitu ekintza baten salaketa jasotzeari uko egiteari buruzko gaia piztu da, aurten Donostiako eta Irungo udaltzaingoan inguruan, bi kasuetan lapurreta tarteko dela.

Bestalde, nabarmendu beharrezkoak direla iruditzen zaigu 2005ean izapidetzen hasi ginen bi kexa, eta jarraian ageri den hautaketan laburbildu ditugu. Horietako batek urte horretan Irungo San Martzial jaietan programa ofizialetik aparte eginiko artilleriaren deskarga simulazio batzuen segurtasun hutsune zehatz batzuk azaltzen zituen (865/2005). Beste kexaren arrazoia Hondarribiko Udaltzaingoak kexa aurkeztu zuenari hari eragiten zion esku-hartze batean kidego horrek eginiko txostenen kopia ez ematea izan zen (1402/05).

2005ean izapidetzen hasi ginen beste kexa baten azterketa dela bide, kexa horretan azaltzen zenaren arabera ertzainak erreklamatazailearen etxera joan baitziren -informazio ofizialaren arabera, onartuta, nahiz eta ez zegoen inolako agiritan jasota eta erreklamatazaileak ukatu egiten zuen arren-, Herrizaingo Sailari kasu hauetan interesdunaren adostasuna idatziz jasotzea iradoki diogu, Konstituzioaren 18.2 artikulua babesturiko eremua errespetatu izanaren erabateko ziurtasuna izateko.

Aurten amaitutzat eman dugu gure esku-hartzea iaz ofizioz hasi genuen espedienteetan; Langraiz Okan 2004an eta 2005ean Ertzaintzak Gasteizko Zabaltzen adingabeen zentroan egin zituen jarduerak jasotzen zituen idazkia ematen ari zirela jakitean hasi ginen horrekin, eta horren izapidetzearen berri eman genuen azken urte honetako txostenean. Tamalez, gure esku-hartzeak ez du balio izan agiri hori oker erabili zuena nor izan zen argitzeko -jakin dugunaren arabera, Herrizaingo Saitetik zetorren agiria, hark udalari bidali zion, alkateak hala eskatuta-, ez eta erabilera oker hori nola eta zein eremutan gertatu zen argitzeko ere. Hala ere, bi administrazioek oker jokatu zutela ondorioztatu dugu. Jarduera hau laburbildu dugu jarraian ageri den hautaketan (40/2005).

Aipaturiko espedienteak izapidetzeak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek jarraitzen dituzten jardunbideak ezagutzea komeni dela ikusarazi digu polizi helburuekin biltzen dituzten datuak ofizioz ezeztatzeari dagokionez, ezeztapen hori lege aldetik bidezkoa den kasuetan (Datu Pertsonalak Babesteari

buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4.5 eta 22.4 artikulua), gure esku-hartzea arlo honetan behar bezala bideratu ahal izateko xedez.

Helburu horrekin, Herrizaingo Sailarengana eta hiru hiriburuetako udaletara jo dugu Ertzaintzaren eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udaltzaingoan jarduteko modua zein den jakiteko, adierazitako lege aurreikuspenak betetzeari dagokionez.

Txostena ixterakoan oraindik ez genuen lortu Donostiako Udalak gure eskaerari erantzuterik, ez eta Bilboko Udalak hasieran eman zigun informazioa osatzerik (ez zitzaigun nahikoa irudit).

“Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek jokaera kodeak erabili behar dituzte inmigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako” gomendio orokorraren (2004ko ohiko txostena) jarraipena egiteko jarduera batzuk ere egin ditugu aurten. Jarduera hauek, bereziki atzeritarren kolektiboari eskainitako atalean azaldu ditugunek, kasu batzuetan gomendioa ez dela bete egiaztatzeko bidea eman digute.

2006. urtean zehar aurreko urteetako espediente ugari itxi behar izan ditugu, izan ere, gure esku dagoen guztia egin dugu tartean diren administrazioek adierazi diegun eran jardun dezaten edo alderdi jakin batzuen gaineko informazioa eman diezaguten, kontuan hartuta gure jarduerari ekin genionetik denbora dezente igaro dela eta gure planteamenduak harmen eskasa jaso duela.

Espediente horietako bat pertsona baten desagertzearen inguruan izapidetu genuena da; horren berri eman genuen azken txosteneko kexen hautaketan (489/2005 espediente). Tamalez, aurten ez dugu lortu kexa eragin duen jardunarekin zerikusia duten erakundeek (Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak, Ertzaintzak eta Gasteizko Udaltzaingoak) defendatu genuen jardueraren baterako azterketa egitea, ez eta proposatu genuen protokoloa prestatzea ere, antzeman genituen disfuntzioen arrazoiak zehaztu eta, lortutako datuetan oinarrituta, berriro gerta ez zitezen beharrezkoak ziren neurriak hartzeko.

Hainbatetan interesa azaldu arren, ezin izan dugu lortu Herrizaingo Sailak informazio argirik ematerik aipaturiko protokoloa ezartzeko dituen aurreikuspenei dagokienez.

Sail horrek eman zizkigun azalpenetatik ondorioztatu genuenaren arabera, kexaren iturri den jardueraz egin duen azterketa, azkenean, bere berezko eremura mugatu da, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzaren eremura zehazki, proposatu genion ildoan jarduteko prest zegoela adierazi zigun arren.

Gure iritziz, azterketa hori positiboa den arren, ez da nahikoa, izan ere, 2005eko txostenean adierazi genuen bezala, antzeman ditugun disfuntzioek hipotesian Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari, Zuzendaritza horren menpe dagoenari, ez ezik, Ertzaintzari eta Gasteizko Udaltzaingoari ere eragin diezaiekete, eta horrek, gure ustez, gertatutakoaren azterketa bateratua eskatzen zuen.

Txostenean bertan adierazi genuen moduan, gure ustez, arlo horretako ekimena Herrizaingo Sailari zegokion, kontuan hartuta apirilaren 3ko 1/1996 Legeak gai horretan eskumenak ematen dizkiola eta kontuak Ertzaintzari eta Udaltzaingo guztiei ere eragiten diela.

Ikuspegi horretatik, oso onuragarritzat hartzen ditugu Gasteizko Udaltzaingoak bere esparruan hartu dituen neurriak, baina, aldi berean, ohartzen gara horiek mugatuta gera daitezkeela Herrizaingo Sailak kontu horretan aurrea hartzen ez badu.

Atal honetan, aurreko txostenetan hizpide izan dugun kexa espediente bat aipatu behar dugu berriz ere, Ertzaintzak Bilboko San Frantzisko auzoan atzerritar batekin izan zuen jarduerari buruzkoa.

Urte honetan zehar ez dugu lortu Herrizaingo Sailak 2004ko txostenean aipatzen genuen informazioa ematerik. Bi urte baino gehiago igaro da lehenengo aldiz informazio hori eskatu genionetik, eta horren inguruan ekin eta ekin aritu garen arren, gure eskaerari inoiz arretarik jarri ez diotenez, uste dugu ez duela zentzurik eskaera egiten jarraitzeak.

Informaziorik ez dugunez, pentsatu behar dugu kasu honetan Herrizaingo Sailak ez dituela bete ezohizko txostenean “Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako polizi jarduerari buruz” egindako izaera orokorreko gomendioak. Horren bidez, polizi egoitzetatik kanpo atxilotuak identifikatu eta arakatzeko, beren gauzak kontrolatzeko eta haiei gorputz miaketa egiteko modua ezarri zen eta jarduera horiek eta indarraren erabilpena agirietan jasota utzi beharra zehaztu zen.

Halaber, pentsarazi digu sail horrek ez duela zehatz-mehatz aztertu kexa eragin duen polizi jokabidea, jardunbide egokietara egokitzen den ala ez kontuan hartuta, “Polizi kidegoek kontrol tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” izeneko izaera orokorreko gomendioan ezarri genituen parametroei jarraiki, gure iritziz, hala egin beharko zukeen arren.

Bide publikoan estatua bizidun gisa mimo antzeppenak egiten dituzten bi pertsonak Bilbo, Donostia eta Gasteizko kaleetan jarduera hori gauzatzeko zituzten arazoak zirela-eta 2003an aurkeztu ziguten kexa ere aurten amaitu dugu. Adierazi zigutenaren arabera, Bilboko eta Donostiako udaltzainek egiten ari ziren antzeppena uztera behartu zituzten, eta Gasteizko Udalak ez zien erantzun horren inguruan bidali zioten baimen eskaerari.

Hiru udaletara jo genuen kexaren iturri ziren jarduera zehatzen berri eta bide publikoan antzeppen mota hauek egin ahal izateko bete behar diren baldintzen berri eman ziezaguten.

Hasieran Gasteizko eta Donostiako Udalek eman ziguten informazioa ikusita, udalerrri horietan antzeppen horiek egiteko inolako baimenik ez zela behar eta, beraz, modu askean egin zitezkeela ondorioztatu genuen.

Bilboko Udalak, bestalde, informazioa hori hiru aldiz eskatu behar izan ondoren eta hirugarren eskaera betetzeko beste hiru errekerimendu bidali behar izan ondoren, oso modu generikoan jarduera horretarako baimena behar zela eta baimen hori jabari publikoa okupatzean kokatzen zela adieraztera mugatu zen. Azalpen horien generikotasunaren aurrean, aipaturiko antzeppenak baimentzeko bete behar diren baldintza materialak eta eskakizun hori babesten zuten manu arautzaileak zein ziren azaltzeko eskatu genion. Eta araubide baimentzailea antzeppenek espaloien erabilera komun berezia dakartela iriztetik eratortzen bada, administrazio horrek -guk dakigunaren arabera, Gasteizen eta Donostian ez bezala- jabari publikoaren erabilera komun berezizat hartzeko dituen arrazoi espezifiko eta zehatzei buruzko informazioa eskatu genion.

Udal administrazioak azkenean kontu horiei guztiei eman zien erantzuna aurrez bidali zizkigun hiru jakinarazpenei heltzea izan zen, eta haietako bakar batek ere ez zuen gai horiei buruzko ezer adierazten.

Jarduteko modu horrekin (hori aurpegiratzen diogu udalari) erakunde honen helburuei ez zaiela laguntzen ikusita, udalaren informazioaren arabera aplikatzen ari

zen araubide baimentzaileak babes legalik ez zuela ondorioztatu behar izan dugu, izan ere, erakunde honek egin zuen azterketak ere ez zuen esku-hartze horrek behar duen gaikuntza arau-emailea aurkitzeko balio izan.

Horregatik, eta udal administrazioak eman ziezazkigukeen -ez zen hala gertatutakuek gure azterketaren emaitza ezeztatu zezaketen arren, iruditzen zaigu kexa aurkeztu dutenek bide publikoan egiten zuten jarduera ezin zela adierazitako murrizketaren menpe geratu, baldin eta murrizketa horrek ez bazuen nahitaezko babes arau-emailek, eta, beraz, Udaltzaingoa ezin du galarazi soilik baimenik ez izatean oinarrituta.

Kexaren iturri izan ziren polizi jardueren dagokienez, Bilboko Udalak eta Donostiako adierazi zituzten ezin izan zutela jakin zein jarduera izan ziren, ez baitziren agiri bidez jaso. Bigarren horrek bilaketa batzuk egin zituen tartean izan zitezkeen agenteekin, baina Bilboko Udala ez zen haiek identifikatzen saiatu ere egin. Ez zuen gertatutakoaren ikerketarik ere egin -gure ustez, egin beharrekoa dena-, ez eta jarduteko modu hori justifikatu ere.

Donostiako Udalak ez zigun argitu agenteei antzezpen mota hauen kasuan nola jokatu behar duten azaldu zienik, eta gure ustez, hala egin behar zuen. Bi administrazioetako bakar batek ere ez zigun eskatu genien informazioa eman agenteen dokumentatu gabeko jarduera kontrolatzeko ezarri zituzten kontrol mekanismoei dagokienez, eta hori ere ez laguntzea iruditzen zaigu.

Bestalde, Gasteizko Udalak hiritarren idazkiak erantzunik gabe geratzeko egoerak (kexa honen iturri izan dena, kasu) etorkizunean gertatzea saihesteko zenbait neurri hartu zituela adierazi zigun arren, gure esku-hartzeak ez zuen lortu erreklamatazaileei berriaz erantzun ziezaien, eta, gure ustez, hala egin behar zukeen.

2006an, halaber, Bilboko Udalak pertsona bati taberna ixteko ordutegia ez bete-zteagatik ezarri zion zehapena zela-eta gure iritzia eskatzen zeneko espediente amaitu dugu.

Erreklamatazaileak adierazi zigun ez zela aipaturiko tabernaren jabea eta, arau-haustea egin zen egunean negozioaren ardura bere gain zuen arren, establezimenduaren jabearekiko laguntasunagatik zegoela han (hura gaixorik baitzegoen), eta ez harekiko inolako lan harremanengatik. Horregatik, bere ustez, ordutegiak ez betetzearen erantzukizuna soilik negozioaren titularrari zegokion.

Era berean, azaldu zigun ez zuela zehapen prozeduraren izapideen berririk izan udala zehapena behartuta gauzatzen saiatu zen arte, eta, bere esanetan, horren ondorioz, ez zuen defendatzeko aukerarik izan.

Zehapen prozedurari buruz udalak helarazi zigun espediente administratiboa aztertu ondoren, ikusi ahal izan genuen prozedurari hasiera emateko erabakia eta ebazpen proposamena ez zirela behar bezala jakinarazi eta espediente administratiboan ez zirela behar bezala azalduta geratu zehatzeko ebazpenaren jakinarazpen pertsonala eman zireneko inguruabar zehatzak, hori egoki egin zela ondorioztatu ahal izateko. Horrek azaltzen zuen, gure ustez, interesdunak ez zuela zehapen prozeduraren berri izan.

Gure iritziz, zehapen prozedura hasteko erabakiak, behar bezala jakinarazi ez zenez, ezin zuen legez prozedura hasi, eta ez zuen haren hurrengo izapideetarako estaldura egoki gisa balio, zehatzeko ebazpena barne, izapide horiek behar bezala jakinarazi baziren ere.

Bestalde, gure iritziz, udalak ezin zion erreklamatazaileari kexa eragin zuen zehapena egotzi, baldin eta aurretik egiaztatzen ez bazen establezimenduaren titularrak arau-haustea

saihesteko betebeharra bete zuela (Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 37. 2 artikulua). Genituen datuekin, kasu honetan ez zen egiaztatu inguruabar hori, eta, gure ustez, hori beste arrazoi bat zen zehapenak balio ez izateko.

Gogoeta hauek helarazi genion udalari, bere iritzia azal ziezagun, baina bere erantzunean, mimo antzezpenen kasuan bezalaxe, aurrez eman zigun txosten bat aipatzera mugatu zen, eta hain zuzen ere haren azterketa izan zen, espediente administratiboarekin batera, kexaren gure balorazioa eragin zuena. Txosten horrek, noski, ez zion erantzuten aipatu genituen kontuetako bakar bati ere.

Gure planteamenduari erantzun materialik eman ez ziola ikusita, udalari helarazi genizkion ondorioei eutsi behar izan genien, eta zehapena ondoriorik gabe utz zezan eta, hala bazegokion, interesdunari hark zehapena zela-eta ordaindutako zenbatekoa itzul ziezaion dei egin genion.

Udalak ez zion erantzun beste idazki honi, eta, beraz, gure adierazpenei ez zela kasurik egin ondorioztatu genuen.

Era berean, erreklamatazileak egun batzuk lehenago jasan zuen trafikko istripua zela-eta udal bulegoetan aurkeztu zuen eskabideari Donostiako Udalak erantzunik ez ematearen inguruko espediente bat amaitu dugu, administrazio horrek adierazi genion eran jarduterik lortu gabe.

Bere eskaeran, interesdunak zalantzan jarri zuen udaltzain talde baten jarduera. Izan ere, berak esandakoaren arabera, bitan hurbildu ziren istripua gertatu zen lekura, baina gelditu ere ez ziren egin, nahiz eta bere ibilgailuak galtzadaren zati bat hartu eta, ondorioz, bide zirkulazioa arriskuan jartzen zuen. Interesdunak, istripua gertatu zenean, poliziaren esku-hartzea eskatu zuen telefonoz Udaltzaingoaren Koordinazio Zentroan. Bide eremuko seinaleztapen eta argiztapen baldintzak ere zalantzan jarri zituen eta baldintza horiei buruzko txostena egitea eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea eskatu zuen.

Interesdunaren eskabideari ez erantzuteari dagokionez, udalaren ustez, hasieran, ez zuen erantzun behar, eskabideak ez baitzuen txostenaren eskaera zehatza jasotzen. Guk eskaera hori jasotzen zuela eta berariazko ebazpena ematera behartuta zegoela behin eta berriz adierazi ondoren (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikulua), hala zela onartu zuen, baina ebazteari uko egiten jarraitu zuen, haren ustez, erreklamatazileak barne txosten bat eskatzen baitzuen. Udalaren jarrera berri hori ikusita, legez interesdunaren eskabidea berariaz ebazteko betebeharra zuela adierazi genion, bertan planteatzen zituen gai guztiak jasoz eta ez soilik txostenari zegozkionak, eta emaniko ebazpena jakinarazteko betebeharra ere bazuela adierazi genion. Gure iritziz, kexa adierazi zuenak bere idazkian egindako eskaeraren benetako zentzuari buruz udalak hasiera batean izan zezakeen zalantza oro interesdunak berak erakunde honengana jo zuenean desagerrarazi behar zatekeen, izan ere, interesdunak gure esku-hartzea eskatu zuen udalak dokumentu hori eman ziezaion. Gure ustez, une horretatik aurrera, udal administrazioak espedientea izapidetzerakoan interesdunaren eskaerari ez erantzuteko behin eta berriro eman zigun justifikazioa bertualtasunik gabe utzi zen. Gainera, justifikazio horrek ezin zuen inolako eraginik izan erreklamatazileak udaltzaingoaren patruilaren jarduerari eta istripua gertatu zen bide eremuko seinaleztapen eta argiztapen baldintzei dagokienez bere eskaeran adierazi zuen kexan, ez eta gai horiei erantzunik eman ez izana funtsatu ere.



Polizien eta Udaltzaingoaren Koordinazio Zentroaren jardueraren aurkako kexari dagokionez, udalaren informazioak agertzen zuen patruilaren kasuan polizi arduradunek ez zutela gertakariak argitzeko inolako ikerketa jarduerarik egin eta burutu zuten ikerketa bakarra, Udaltzaingoaren Koordinazio Zentroaren jarduera argitzeko, erreklamatzailaren abisua jaso zuen agentearen beraren txostena eskatzea izan zela. Hori guztia, erakunde honek, arlo honetan dituen aukera oso mugatuaren barruan, ikerketa bideratzen saiatzeko ahaleginak egin zituen arren (polizi arduradunek sistematikoki baztertu zituzten eta kasu askotan ez ziguten beste azalpenik eman) eta erreklamatzailak bere eskaeran aipatu duen arren bertan zenbait oinezkok gertatutakoa ikusi zutela eta bere lekukotasun baliotsua eman ahal izango zuketela.

Ezbeharrak gertatu zenean istripua izan zen lekuko bide seinaleztapen zehatzari eta argiztapenari dagokionez, udalak helarazi zigun informazioa istripua gertatu ondorengo egunetako egoerari zegokion, eta, erreklamatzailaren esanetan, ordurako aldaketa handia egin zegoen eremu horretan. Gure iritziz, kexa zela-eta eginiko txosten teknikoek argi azaltzen zuten arren noizkoak ziren, udalak bereari eusten zion istripu gertatu zen garaikoak zirela esanez, zergatik azaldu gabe eta eremu horren konfigurazioan izan diren aldaketei buruzko inolako gogoetarik egin gabe, antza, bertako bide seinaleztapenari eta argiztapenari eragiten ziotela kontuan hartuta.

Beste espediente bat ere amaitu dugu; bertan, erreklamatzailak (Ertzaintzak atxilotu egin zuen zezenketen aurkako kontzentrazio batean, aginpidedun agenteekiko desobedientzia larriagatik, eta kontzentrazio horren berri emateko betebeharrak bete ez izanaren erantzule izatea egotzen zioten, berak baitzaraman bertan erakutsitako kartelen poltsa) adierazten zuen ez zegoela ados atxilotu zuten agenteek eginiko atestatuarekin. Bere esanetan, ez zen egiazki jaso gertatutakoa agenteek agertu zuten erresistentzia motari dagokionez eta poltsak berak zeramatzala adierazteari dagokionez. Berak adierazi zigunaren arabera, ez zuen inolako indarkeriarik erabili, atestatuan bestelakorik adierazi arren, izan ere, eskuak garondan zituela lurrean eserita egotera mugatu zen. Horrez gain, ukatu egiten du poltsak berak zeramatzanik, atestatuak hori adierazi arren. Bestalde, agenteek ausaz eta inolako arrazoizko zantzurik gabe aukeratu zuten kontzentrazioaren antolatzaile gisa identifikatzeko. Halaber, polizi bulegoetan gorputz miaketa erabat biluztuta egin ziotela adierazi zigun. Azkenean, adierazten zuen bere ustez kontzentrazioaren berri emateko betebeharrak ez betetzeagatik zehapen prozedura denbora gehiegian izapidetzen jarraitu zela, polizi atestatuak zela-eta eginiko prozedura penalean emaniko epaiak kontzentrazioaren antolatzaileak ez zela onartu zuenez geroztik. Adierazi zigunez, Herrizaingo Sailak bazuen kexaren berri eta ikertu zuen.

Sail horrengana jo genuen horri buruzko informazio eske, ikerketaren edukiaren berri eman ziezagun eta polizi atestatuaren eta zehapen prozedurari zegokion espediente administratiboaren kopia bana bidal ziezagun. Hainbatetan errepikatu behar izan genion eskaera, ematen zigun informazioak ez baitziren gure eskaerari erantzuten. Azkenean, nahi genuen informazioa lortu genuenean, kexa eragin zuten gertakariak argitzeko egin zituen ikerketak erreklamatzailaren bertsioa jasotzera, polizi atestatuak aztertuz, zehapen prozeduraren izapidetze egoera ezagutzera eta epai penalaren kopia bat lortuzera mugatu zirela egiaztatu genuen. Gure ustez, ikerketa jarduera hori ez zen inolaz ere nahikoa polizi atestatuak gertatutakoa leialtasunez jaso zuen argitu ahal izateko erreklamatzailak bere desadostasuna agertu zuen bi gertakariei dagokionez.

Gure iritziz, gainera, atestatuaren ondoriozko prozedura penalean emaniko epaiak erreklamatzailereen bertsioa abalatzzen zuen, erresistentzia pasiboan agertu zuela adieraziz, eta arrazoiak ematen zion kontzentrazioaren arduraduna ez zela adieraziz eta halakotzat hartzeko behar adinako zantzurik ez zegoela argudiatuta.

Agenteek erreklamatzaileri atxilotetan eman zituen tratuari eta polizi bulegoetan hura miazteko moduari dagokionez, Herrizaingo Saila ikerketak salatutako gertakariak ezin izan zituela egiaztatu jakinaraztera mugatu zen, ez zigan azaldu zein izan ziren ondorio horretara heltzeko kontuan hartu zituen auresuposizioak.

Tamalgarria iruditzen zaigu jarduteko modu hori, erakunde honi bere kontrol egitekoa gauzatu ahal izateko behar dituen datuak ukatzen baitizkio eta agenteen jokararen gaineko bere balorazioa egitea galarazten baitio. Kexaren kasuan, jokaera hori bereziki larria zen, izan ere, Herrizaingo Sailak ikerketaren edukari buruz eman zigan informaziotik ondorioztatu genuenaren arabera, hark ez zion adierazitako bi alderdietako bakar bati ere heldu.

Gure iritziz, jarduteko modu horrek nabarmen murriztu zituen gertakariak argitzezko aukerak eta ez zuen lortu erreklamatzailereak bere kexan hura eragin zuen polizi jardueraren zuzentasunari buruz agertu zizkigun zalantzak argitzerik.

Bestalde, eman zigan informaziotik ondorioztatu genuen ez zela idatziz jaso erreklamatzailereen miaketa nola egin zen, ez eta, atestatuan adierazten zenaren arabera, agenteek hura menderatu eta poliziaren ibilgailuan sartzeko erabili behar izan zuten indarra zer nolakoa izan zen ere.

Zehapen prozedurarekin jarraitzeari dagokionez, Herrizaingo Sailak justifikaziorik ez zuenez, erreklamatzailereen kexa arrazoitua zela ondorioztatu genuen, izan ere, prozedura izapidetzen jarraitu zutela eta administrazio horrek epaiaren berri izan zuenetik gutxi gorabehera 2 hilabete eta erdi igaro ondoren oraindik artxibatze erabakia ez zutela eman egiaztatu genuen.

Eta, horrenbestez, amaitutzat eman dugu gure esku-hartzea trafikoko gertakariaren ondoriozko polizi jarduerari buruzko kexan. Erreklamatzailereak erakunde honetara jo zuen, izan ere, adierazi ziganaren arabera, pertsona batek (ez zeraman Ertzaintzaren bereizgarriarik eta ez zen kidego horretako kide gisa identifikatu -nahiz eta hala izan eta zerbitzuan egon, gero Herrizaingo Sailak eman zigan informazioaren arabera-) bere ibilgailua autobidean gelditzera behartu zuen, bide segurtasuna arriskuan jarritz. Pertsona horrek, gainera, uniformez jantzitako patruila bat bertaratzeko eskatu zuen trafikoko arau-hauste bat zela-eta interesdunaren aurkako salaketa formalizatzeko -eta patruila bertaratu egin zen, nahiz eta, antza denez, ez zegoen izapide hori egiteko moduan-. Halaber, handik kilometro batzuetara zegoen ordainlekuraino joatera behartu zuen, eta han polizi kidego bereko beste patruila bat zegoen; hark egin zuen, azkenean, salaketa, bere ustez, denbora gehiegian zain eduki ondoren. Kexa aurkeztu zuenak adierazi zigan uniformerik gabeko agentearen jokaerak ikaratu egin zuela eta irainduta sentitu zela, bere ustez, ez baitzuen ertzaina den aldetik behar bezala jokatu.

Herrizaingo Sailak tratua une oro egokia izan zela eta jarduera trafikoko arau-haustea egin zuena identifikatzeko beharrak eragin zuela defendatu zuen.

Gure ustez, azalpen ofizialek ez zituzten polizi jardueraren alderdi batzuk justifikatzen, aplikatu beharreko araubide legala kontuan hartuta. Lehenengo eta behin, gure iritziz, erreklamatzailere geroago identifika zitekeen; gure ustez, horrela hobeto errespetatuko liriteke lege aurreikuspenak, izan ere, trafiko arautegiak salaketetan nahitaez

ustezko arau-haustea egin duen ibilgailua jasotzea exijitzen du, ez salatuaren nortasuna (ezaguna denean bakarrik jaso behar da hori). Ezaguna ez bada, zehatzeko administrazioak erraz lor dezake datu hori trafikoko erregistroen bitartez.

Bestalde, aipaturiko arautegiak unean bertan jakinaraztea agintzen du baldin eta ibilgailua geldiarazteak inolako arriskurik sortzen ez badu -hori zalantzan jartzen zuen erreklamatazaileak- eta nahitaezko salaketa bada -gure ustez, kasu honetan ez zen nahitaezkoa-. Hala, uniformerik gabeko agentea ez zen trafikoa zaintzeko zereginetan ari, eta, beraz, gure ustez, ezin zuen nahitaezko salaketarik jarri, borondatezkoa baizik. Hortaz, ez zegoen berehala jakinaraztera behartuta. Nolanahi ere, bazituen ibilgailua identifikatzeko datuak interesdunari bere helbidean salaketaren berri emateko, azkenean egin zen bezala, alferrik izan bazen ere.

Hori dela-eta, honako alderdi hauei buruzko informazioa eskatu genion Herrizaingo Sailari: 1) agenteak zergatik behartu zuen erreklamatazailea bere ibilgailua autobidean gelditzera, gauez eta, erreklamatazailearen hitzetan, trafikoa segurtasunerako arrisku nabaria sortzeko moduan; 2) zergatik utzi zituen une hartan zituen eginkizunak geroago ondorio berberekin egin ahal izango zuen salaketa bat egiteko; 3) zergatik bertaratu zen beste patruila, zirudienez, erreklamatazaileak ustez eginiko trafiko arau-haustea salatzen bertaratu bazen eta halakorik egin ezin bazuen; 4) zergatik interesdunak beste patruila zegoen lekuraino joan behar izan zuen, hark nahitaezko salaketarik egin ezin bazuen, ez baitzuen gertatutakoa ikusi; eta 5) erreklamatazaileak zergatik itxaron behar izan zuen gehiegizkoa zirudien denboran patruilak salaketaren buletina bete arte, datu guztiak zeuzkatela kontuan hartuta.

Herrizaingo Saila eginiko ikerketaren arabera polizi jarduera interesdunaren gidatzeko moduaren ondorio izan zela eta ez zela inolako irregulartasunik egin edo, behintzat, ezin izan zela halakorik egiaztatu adieraztera mugatu zen, eta ukatu egin zuen erreklamatazaileari tratu desegokia eman izana. Hala ere, onartu zuen tentsio pixka bat izan zela proportzionaltasun printzipioan.

Aipaturiko azalpenak aztertu ondoren eta, gainera, kontuan hartuta salaketaren ondorioz hasi zen zehapen prozeduran erantzukizunik ez zegoela adierazi zela gero, eta, espedientearen izapideak hasi genituenetik denbora asko igaro den arren, puntu eztabaidagarriak argitzeko aurrerapausorik lortu ez genuenez, eta, beraz, puntu horiek polizi jardueraren zuzentasunari buruz sortzen zituzten zalantzak argitzerik lortu ez genuenez, gure hasierako usteak berretsi behar izan genituen jardueraren desproporzionaltasunari, funtsik ezari eta aplikatu beharreko arautegira ez egokitu izanari dagokienez, eta amaitutzat eman genuen gure esku-hartzea.

Azkenik, jasota utzi nahi ditugu Herriaren Defendatazaileari eremu honetan bidali dizkiogun kexak, haren eskumeneko gaiak planteatzen baitzituzten; funtsean Nortasun Agiri Nazionalarekin zerikusia zutenak ziren, autoan labana edukitzeagatik zehapen baten ingurukoa zen beste bat, eta Polizia Nazionalak Suedian hilda aurkitu zuten euskal hiritar baten heriotza eta gertakariak nola jazo ziren haren familiari jakinarazteko moduari buruzkoa beste bat.

Azken kexa hori Suediako eta Norvegiako erakunde homologoei ere bidali diegu, bi herrialde horietako administrazioei eragiten zieten gaiei buruzkoak baitziren, pertsona horren heriotza zein inguruabarretan gertatu zen argitzearekin lotuak.

Martxoan, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak egin genion gomendioa bete-  
tzeko garatu zituen azken jardueren berri eman zigun. Gomendio hori ertzain etxeetan  
ziegen eremuko korridoreetan jartzen diren kameren bidezko bideo grabaketetan  
oinarritutako kontrol sistema ezartzeari buruzkoa da eta 1999ko ohiko txostenean jaso  
genuen (urriaren 6ko 81/1999 Gomendioa).

Horri buruz adierazi zigun bideo grabaketen sistema ezarri zuela Krimen Gaietarako  
Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko atxiloketa-zentroetan eta deklarazioak hartzen diren  
lekuetara hedatu zuela. Era berean, kamerek atxilotuak ziegen eremuan ibiltzen direneko  
leku guztiak kontrolatzen dituztela jakinarazi zigun, komunak eta ziega barruak izan ezik.  
Adierazi zigunaren arabera, sistemak eguneko 24 orduetan funtzionatzen du, kamerek  
hartzen duten eremuan mugimenduren bat hautematean automatikoki grabatzen du, eta  
ez du kamerak deskonektatzeko aukerarik ematen, ez eta grabaketak eteteko ere.

Erakunde honek oso onuragarritzat jo zuen Krimen Gaietarako Ertzaintzaren  
Dibisioaren menpeko polizi zentroetan ere bideo grabaketen sistema ezarri izana eta  
deklarazioak hartzen diren lekuetara ere hedatu izana. Behin eta berriz adierazi dugun  
bezala, gure ustez, bi neurri horiek aurrerapauso handia dakarte atxilotuen osotasuna-  
ren eta duintasunaren aurkako jardunbideen prebentzioan, eta tresna egokia da eremu  
horretan izan daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko.

Hala ere, sistemak aipaturiko gomendioan adierazi genituen baldintzak betetzen  
zituena egiaztatu behar genuela uste genuen. Horretarako, Herrizaingo Sailak eman zigun  
informazioa eta urte honetan “Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak”  
ezohiko txostenaren eta gomendioaren beraren jarraipena egiteko jardueren esparruan  
Arkaute, Oiartzun eta Deustuko atxiloketa-zentroetara egin ditugun bisitaldietan lortutako  
datuak aztertu genituen.

Erakunde honen iritiz, gogoan hartzea komeni da mekanismo honek, eraginko-  
rra izan dadin, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituela. Honela jaso genituen  
gomendioan:

- “1. Grabaketen arduraduna: Herrizaingo Sailak zehaztuko du zein pertsonak  
edo batzordek erabakiko duen zein atxiloketa grabatu, eta gero sistematikoki  
aztertuko duen grabatutako materiala. Begien bistakoak diren arrazoiengatik,  
arduradun horiek atxilotetak gauzatzen eta atxilotuak zaintzen dituzten unitateen  
jardunarekiko eta antolaketarekiko independenteak izan beharko dute.
2. Ertzaintzak egiten dituen atxiloketa guztiak grabatu ezin direnez gero, nahikoa  
litzateke haietako batzuk grabatzea, baina, betiere, lanean diharduten agenteek  
mekanismoa martxan jarri dela jakin gabe.
3. Grabaketetan lortutako materiala sistematikoki aztertzea alde batera utzita,  
euskarri bideografiko hori arrazoizko denboraldi batean gorde beharko litzateke  
–denbora hori zehaztu beharko da–, erakunde eskubide-bermatzaileek kontrolatu  
ahal izateko. Atxilotuak gero salaketa jarriko balu, material hori gorde beharko  
litzateke, prozedura judiziala bukatu arte.
4. Erregistro bat sortu behar da, agiri bidez jasota gera daitezzen egindako gra-  
baketak, baita grabaketak hasieran ikustean nabaritu diren gorabeherak ere,

halakorik izan bada. Horrela, erakunde honek edo eskubideak babesteko beste erakunde batzuek sistemaren funtzionamendu orokorrari buruzko informazioa lortu ahal izango dute”.

Atxiloketa-zentroetako hizketakideek eman zizkiguten informazio ofizial eta azalpenetatik ondorioztatu genuen jada Ertzaintzak egiten dituen atxiloketa guztiak grabatzen direla. Horregatik, bat-batean gomendioak zentzua galdu zuen grabaketak hautatzeari buruzko zenbait alderdiri dagokionez, eta hala adierazi genion Herrizaingo Sailari.

Horiek horrela, gainerako baldintzak betetzen ziren aztertzeari ekin genion, eta honako balorazio hau egin dugu:

- a) **Grabaketen arduradun** bat izateari dagokionez, Herrizaingo Sailak hasieran eman zigun informazioak ez zuen esplizituki halakorik aipatzen. Zeharka eta partzialki jasotzen zuela zirudien, helarazi zigun agiriak, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko polizi zentroetako grabaketa sistemaren ezaugarriak azaltzerakoan, Unitateko buruari ardua batzuk ematen zizkionean, hala nola, segurtasun kopiak zenbateko periodikotasunez egin behar diren erabakitzea, sistemaren ekipo informatikoak dauden gelarako sarbidea izatea eta erresebatutako espazio horretarako sarbidea baimentzea.

Hala ere, informazio hori ez zetorren bat polizi zentroetara eginiko bisitaldietan bildu genituen datuekin. Datu horien arabera, informazioa Herritarren Segurtagunerako Dibisioaren atxiloketen grabaketari zegokion, ez Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioak egiten ditueni; horien kontrola, ulertu genuenez, beste arau batzuen araberakoa zen.

Hain zuzen ere, zentro horietan gure hizketakideek eman zizkiguten azalpenetatik ondorioztatu genuenaren arabera, grabaketak ez dira modu berean kontrolatzen dibisio batean eta bestean.

Hala, adierazi zigutenarekin ulertu genuenaren arabera, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioan grabaketen erantzukizuna dibisio horretarako segurtasun funtzioak gauzatzeaz arduratzen diren zerbitzu nagusiek dute, eta horretarako izendatutako pertsonak egiten dute operatibo bakoitzerako.

Ulertu dugunez, Herritarren Segurtagunerako Dibisioaren atxiloketen kasuan bakarrik izango luke ardua hori Unitateko buruak.

Aurreko datuak egiaztatuz gero, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren grabaketen arduradunak atxiloketak eta atxilotuen zaintza gauzatzen dituzten unitateen funtzionamenduarekiko eta antolaketarekiko independente izateko baldintzak beteko zituela pentsatzen genuen.

Aldiz, ez litzateke eskakizun hau beteko Herritarren Segurtagunerako Dibisioaren atxiloketetan, baldin eta, zirudien bezala, atxiloketez eta zaintzaz arduratzen den unitatea bera bada grabaketen arduraduna.

Gure gogoetak helarazi genizkion Herrizaingo Sailari, puntu horiek argi ziezazkigun. Bere erantzunean, sailak soil-soilik adierazi zuen ez dagoela inor zein grabaketa egin behar diren erabakitzeko erantzukizuna duenik –dioenez, atxiloketa guztiak automatikoki grabatzen direlako– eta zehaztu zuen unitateko buruak ezin duela erabaki horretan sartu.

Azalpen ofizialek, ordea, ez zieten planteatu genituen gaiei heldu (ez ziren zein atxiloketa grabatu erabakitzeko ardurari buruzkoak), eta ez zizkiguten azaldu genizkien zalantzak argitu. Aipatu dugun moduan, kontu horretan bi alderditan jarri genuen arreta: atxiloketa-zentroetara egindako bisitetan lortutako datuak alderatzean eta grabaketen erantzukizuna zeini dagokion ezagutzean, gomendioan aipatutakoaren ildotik (grabatutako materialak aztertzea, gorabeheren erregistroa egitea, gordetzea, etab.); izan ere, datu horiek ez zetozen bat Sailak hasiera batean igorri zigan informazioarekin eta bertan soil-soilik Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioa aipatzen zen.

Hala ere, Sailak erantzunarekin batera eman zizkigun agiri osagarriek barne hartzen zituzten arlo horri dagozkion polizi argibideetan sistemari buruz sartu dituzten erabakiak. Zehaztapen horiek, hitzez hitz hartuta, bi dibisioen menpeko zentroei eragiten diete eta bat datoz Sailak hasiera batean jakinarazi zizkigunekin sistemak Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren eremuan izango dituen ezaugarriei buruzko agirian; horren arabera, hasieran aipatutako erantzukizun eginkizunak unitateko buruari dagozkie.

Hortaz, eta agiri horietan jasotzen den bezala, bi dibisioetan grabaketen erantzukizuna unitateko buruari badagokio (hori bat ez etorri arren bisitatutako zentroetako solaskideek Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren atxilogetei dagokienez eman zizkiguten datuekin), grabaketen arduraduna ez litzateke atxiloketa- eta zaintza-unitateekiko independente izango.

- b) **Grabatutako materiala sistematikoki aztertzeari** dagokionez, Herrizaingo Sailak hasieran eman zigan informazioak ez zuen alderdi hau aipatzen.

Polizi zentroak bisitatzen lagundu zigutenek emaniko azalpenetatik ondorioztatu genuenaren arabera, kontrol hori Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren atxiloketetan egiten da, baina ez Herritarren Segurtasunerako Dibisioarentan.

Azalpen horietatik ondorioztatu genuen Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren atxiloketetan azterketa dibisio horretarako segurtasun funtzioak gauzatzeaz arduratzen diren zerbitzu nagusi berberak egiten dutela, astean behin.

Hizketakideei ulertu genienaren arabera, Informazio eta Análisi Unitateak egiten dituen atxiloketen kasuan, zerbitzu nagusi horietako bi pertsonak grabaketak zuzenean eta modu iraunkorrean ikusten dituzte atxiloketa guztian zehar, hasten denetik diligentiak amaitzen diren arte.

Antza denez, ez da horrela jokatzeko Krimenak Ikertzeko Unitateko atxiloketetan, ez eta Herritarren Segurtasunerako Dibisioak egiten dituenetan; kasu horietan ez legoke zuzeneko ikuskatzerik. Bisitaldietan lortu genituen datuen arabera, azken dibisio horri dagozkion atxiloketak ez lirateke gero sistematikoki aztertuko ere.

Herrizaingo Sailari adierazi genion, gure gogoetak zuzenak baziren, gomendioaren alderdi hau Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren atxiloketetan bakarrik betetzen zela, baina ez Herritarren Segurtasunerako Dibisioarenetan.

Bere erantzunean, Sailak soil-soilik adierazi zuen, bere ustez, ez zela beharrezkoa hori aztertzea, dibisio baten eta bestearen arteko banaketa eginda; bere hitzetan, atxiloketa guztiak grabatzen direnez, susmoa, kexa edo salaketa aurkezten bada bakarrik aztertzen da kasu zehatza; orduan, grabaketaren kopia egiten dute eta kasuan kasuko ikerketak iraun artean gordetzen dute.

Informazio horri erreparatuta, berriro aipatu behar dugu hori ez datorrela bat ertzain etxeetan jaso genituen datuekin eta, beraz, gomendioaren puntu hori ere bete gabe gelditu dela.

- c) Herrizaingo Sailak hasieran eman zigun dokumentazioaren arabera, **grabaketan lortutako materiala gordetzeko epea** 3 hilabetekoa da, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa urratzearen ondoriozko sumario judicial edo prozedura administratiboa bateko zati ez baldin bada behintzat; kasu horretan, zaintza mugagabearen geratuko litzateke dagokion epaitegiaren edo instrukzio-egilearen esku.

Aurreko baldintzen kasuan bezalaxe, informazio hori ez zetorren bat polizi zentroetan bildu genituen datuekin ere.

Lagundu zigutenen azalpenetatik ondorioztatu genuenaren arabera, adierazitako epea Deustuko komisarian aplikatzen da, baina ez bisitatu genituen beste bi zentroetan. Gainera, azken bi zentro horietan gure hizketakideek azaldu zigutenarekin ulertu genuenaren arabera, ez da epe bera izaten zentro eta dibisio guztietan. Hala, adibidez, Oiartzungo zentroan, Herritarren Segurtasunerako Dibisioaren atxiloketen kasuan, haiek adierazi zigutenaren arabera, epea zinta erabilgarri guztiak osatzen direneko unearen erreferentziaren arabera finkatzen da eta, ulertu genuenaren arabera, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioak egiten dituen atxiloketetan ez dago aurrez zehazturiko epe zehatzik.

Herrizaingo Sailari azaldu genion epe orokorra ezarri behar zuela grabatutako materiala grabatutako jardunen ondoriozko erantzukizun administratibo eta penal posibleak preskribatzeko gehieneko epean gordeko zirela bermatzeko eta, orobat, kontuan hartu behar zuela giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeek (besteak beste, Ararteko erakundeak) esku hartzeko duten epea.

Gure balorazioari erantzunez, Sailak azpimarratu zuen, kasu guztietan, gutxienez 3 hilabetez gordetzen dela eta aztertzen ari direla tarte hori 6 hilabetera luza ote daitekeen. Hala ere, ez zuen ezer adierazi epeak erantzukizun posibleak preskribatzeko gehieneko epean eta giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeen jarduera ahalbidetzeko moduko epean materiala gordeko dela berma dezan (adierazitako bi epeek ez dute hori ziurtatzen) egin genuen proposamenari buruz.

Horregatik, berriz azaldu behar izan diogu aipaturiko proposamena.

- d) Egindako grabaketak eta horiek ikusterakoan antzemandako gorabeherak dokumentu bidez jasota geratzeko erregistroa sortzeari dagokionez, Herrizaingo Sailak hasieran bidali zigun informazioak ez du ezer esaten horren inguruan.

Puntu horretan, bisitaldietan lagundu ziguten pertsonak adierazi ziguten ez zegoela halako erregistrorik eta ez zela antzemandako gorabeheren gaineko txostenik egiten.

Hala ere, Herrizaingo Sailari gai horri buruzko informazioa eskatu genion, izan ere, hizketakideek esandakoa hala dela egiaztatuz gero, eskakizun honi dagokionez ere gomendioa ez dela betetzen erakutsiko luke horrek.

Aipaturiko Sailak erantzun zigun ez zitzaiola beharrezkoa iruditzen erregistratzea, sistemak berak erregistratzen baititu eginiko grabaketak eta horietan jasotzen baitira atxiloketa guztiak.

Informazio ofizialak, ordea, ez zuen aztertzen gorabeheren erregistroari buruzko alderdia; horrez gain, kontuan hartuta, aurretik onartu bezala, ez dela sistematikoki aztertzen grabatutako materiala eta ertzain etxeetara egindako bisitetan bildutako datuetan esaten dena, ondorioztatu genuen ez dagoela erregistrorik eta, beraz, gomendioaren puntu hau ere ez dela bete.

Bestalde, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioa eta Herritarren Seguritasunerako Dibisioa partekatzen dituzten polizi zentroetara egindako bisitetan ikusi ahal izan genuen dibisio bakoitzak bere grabaketa ekipoak dituela, bereizitako getetan, eta ezaugarri ezberdinekoak.

Bereziki deigarria egin zitzaigun Oiartzungo atxiloketa-zentroko ekipo batzuen eta besteen arteko aldea eta horiek dauden gelen arteko aldea ere.

Alde horretatik, Herritarren Seguritasunerako Dibisiorako gela ziegekiko eremu independente batean dago, sarbide mugatua du, antza, eta ekipoak gordetzeko armairuak dauzka. Ekipoak handi samarrak ziren.

Aldiz, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioari dagokion ekipoak oso arrunta zirudien, ziegen eremuko gela batean zegoen, mahai baten gainean, grabaketa sistematik kanpoko ekipo informatiko baten ondoan. Iruditu zitzaigunaren arabera, gela beste eginkizun batzuetarako erabiltzen da eta bertarako sarbidea ez dago grabaketa sistema erabiltzeko baimena duten langileentzat mugatua. Mugatua dago, antza, ekipoaren



erabilera; dibisio horretako zerbitzu nagusietako segurtasuneko langileek bakarrik dute horretarako baimena.

Gogoeta horren berri eman genion Herrizaingo Sailari, eta eki-poetarako sarbidea mugatua dagoela adierazi zigun, konfigurazio desberdin horretarako arrazoiak zein diren azaldu gabe eta Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioari dagokion gelarako sarbideari buruz azaldu genizkion zalantzak argitu gabe.

Aipaturiko erantzuna ikusita, leku horretarako sarbidea Sailaren esanetan sistemak dituen ezaugarri berezien arabera mugatuta ez dagoela ondorioztatu dugu (mugatuta egon behar luke, ordea).

Polizi zentroetara eginiko bisitetan egiaztatu genuen deklarazio gela guztiek ez dituztela grabaketa kamerak, nahiz eta bisitatu genituen zentro guztietan ezaugarri horietako kamera bat behintzat bazegoen.

Herrizaingo Sailak adierazi digu sistema geletako batek bakarrik duela, alegia, inkomunikazio erregimenean dauden atxilotuek deklaratzeko duteneko gelak. Hala ere, informazio hori ere ez dator bat bisitetan bildu genituen datuekin, gure solaskideek esan zigutenez, deklarazioak atxiloteta guztietan grabatzen baitira, eta ez soilik inkomunikazioetan bakarrik.

\* \* \*

Ezin dugu sarrera hau amaitu eremu honetan ordenamendu juridikoak Ararteko erakundeari ematen dion egitekoa gauzatzeko ditugun zailtasunak nabarmendu gabe (aurrez azaldu ditugu zailtasun horietako batzuk).

Zailtasunak, batzuetan, gure laguntza eskaerari erantzuterakoan guk eskatutako informazioa ez ematearen ondorio izaten dira, eta horrek nabarmen baldintzatzen du gure azterketa, kexan azaldutako gertakariak egiazkotzat jotzera edo dagokion jarduera administratiboaren gaineko hipotesitik abiatzera behartzen baikaitu.

Beste batzuetan, arazoan jatorria informazioa bidaltzeko gehiegizko atzerapena edo gure gogoeten gaineko baloraziorik ez egitea izaten da.

Horregatik, berriz ere laguntzeko printzipioa eskatu beharrean gara, era honetako jardunbideak saihesteko, eta beste behin berretsi behar dugu adierazitako jarduerak oztopo handia direla gure eginkizunak behar bezala gauzatu ahal izateko, eta asko murrizten dituztela ordenamendu juridikoak beren interesak defendatzeko eskura jartzen dizkien tresnetako bat erabiliz erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak.

## 7.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Ertzaintzak adingabeen harrera zentro batean eginiko esku-hartzei buruzko datuak publikoki zabaltzea (40/2005OF)*

- Erreklamazioa

2005. urtearen amaieran erakunde honek jakin zuen Langraitz Okako zenbait leku publikotan udalerrian adingabeen harrera zentroa jartzearen aurkako ohar bat zegoela

ikusgai, eta ohar hartan Ertzaintzak Gasteizko Zabaltzen zentroan urte horretan eta aurreko urtean eginiko jarduerak zehazten zirela. Oharrean zehatz-mehatz zerrendatzen ziren esku-hartze horiek, polizi jardueren kopurua, data eta horien arrazoa adierazita. Horrez gain, eskuz idatzitako testu bat ere bazekarren: *“Hauek dira Ertzaintzak herrian ezarri nahi zaigun Adingabeen Zentroan eginiko zenbait jarduera, eta gure alkateak “oraingoz” ez du jarduera hasteko lizentzia ukatu nahi. Baina zergatik? Denok aurka gaude eta! Jakina, jarduera gehiago ere izan dira, ia egunero izaten dira horrelakoak, eta Udaltzaingoaerenak faltako lirateke”*.

- Azterketa

Gertakari horien larritasunaren aurrean, eta hain datu zehatzak Ertzaintzatik bertatik edo Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren beste instantziaren batetik etorritakoak izan zitezkeela kontuan hartuta, Sail horrengana jo genuen ikerketako barne prozedura has zezan, informazioa bere esparrutik zetorren argitu ahal izateko, eta, hala bazegokion, erantzukizunak azaltzeko.

Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun aipatutako oharrean agertzen zen informazioa udalerriko alkateari eman ziola, horren gainean egin zion eskaera bati erantzunez, polizi datuak eta Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Sailak eman zizkionak alderatzeko asmoa zuela-eta, eta zentroak udalerrian ez zuela inolako arazorik sortuko adierazi ziola.

Horrez gain, udalari bidali zion idazkiaren kopia bat bidali zigun. Era horretan, egiaztatu ahal izan genuen ikusgai zegoen orria idazki horren hitzez hitzeko kopia zela, edukiaren zati bat ezabatuta.

Hori ikusita, udalarengana jo genuen, barne ikerketa egin zezan aipaturiko informazioa udaletxetik bertatik eman edo zabaldu zen argitzeko xedez.

Udalak gure eskaerari erantzun zion oraindik gertakariak ez zituela ikertu adieraziz, hilabete lehenago ikerketa hori informazio batzorde berezi baten bidez erabaki baitzuten, eta batzorde hori hurrengo osoko bilkura arruntean eratzea aurreikusi baitzuten.

Alkateari agiraka egin genion ia hilabete behar izan zuelako udal erabakiaren berri guri emateko eta ikerketa oraindik hasi gabe zegoelako. Halaber, adierazi genion ikertzen berehala hastea erabakigarria dela halako ikerketa baten arrakasta berma dadin eta bere helburua bete dezan; hain zuzen ere, gertatutakoa argitzea.

Bestalde, udalak ikerketa nola antolatuta egingo den erabakitzekeo zuhurtziarakotasun marjina zabala duela onartu arren, gure ustez, horri buruz hartzen zuen erabakiak ez zukeen hasieran halako atzerapenik ekarri behar, atzeratze horrek egitekoaren eraginkortasuna murrizten baitu gertakariak jazo zireneko garaitik aldentzearen ondorioz.

Gure iritziz, ordenamendu juridikoak berak mekanismo batzuk eskaintzen zituen berehalakotasun printzipioa eta, adierazi zigunaren arabera, ikerketa udalak kasu horretan aukeratutako moduan egitea bateratu ahal izateko. Gure ikuspegitik, udalbatzak gai hau jorratzeko ezohiko bilkura bat egitea (mekanismo horien artean dago) tresna egokia zen oreka hori lortzeko (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Korporazioen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren araudiaren 78. artikulua eta hurrengoak).

Horregatik, gure ustez, udalak emaniko arrazoiak ez zuten ikerketaren atzerapena justifikatzen, eta azaldu zizkigun oztopoak gainditu eta ikerketari ekin behar zion luzamendurik gabe, berehala udalbatzaren ezohiko bilera deitu eta eginez eginkizun hori izango zuen organoa sortzeko.

Udalak bilera egin zutela eta jada batzordea sortu zutela jakinaraziz erantzun zигun.

Geroago, ikerketaren emaitzaren berri eman zигun, eta batzordeak irizpen honekin amaitu zuela adierazi zигun: *“Prestatutako galderei udaleko kide guztiek emaniko erantzunen bidez eginiko ikerketaren ondorioa hau da: inork ez du adierazi agiri hori kanpora eman izana”*.

Udalaren azalpenetatik ondorioztatu genuenaren arabera, ikerketa galdetegi baten bidez udaleko kideen iritzia biltzera mugatu zen, eta ez zигuten horren edukia helarazi. Ez zizkiguten erantzunak ere eman, ez eta bozkatu zuten proposamena ere.

Alderdi horien gaineko informaziorik ezak erakunde honi eginiko ikerketei buruzko iritzi zuzena ematea eragozten ziola ohartu arren, zinegotziei eginiko galderek gertaeren gaineko erantzukizunaren aitortpena lortu nahi bazuten eta barne ikerketaren prozedura guztia horretara mugatu bazen, udalak eman zizkigun datuetatik ondorioztatzen den bezala, planteamendu horrekin ikerketa hasiera-hasieratik porrotera bideratua zegoela uste dugu.

Herrizaingo Sailak, bestalde, ez zuen ikertu ea alkateari bidali zion agiriaren erabilera okerra bere esparruan bertan egin zen, datuak ofizialki udalari jakinarazi izanaren babesean.

Gertakariak jazo zirenez geroztik jada hilabete ugari igaro zenez, eta gure esku-hartzeak gertakari horiek argitzerik lortu ez zuenez, eta tartean ziren bi administrazioek erantzukizuna norena izan zen argitzeko agertzen zuten interesik eza kontuan hartuta, gertatutakoa ahal bezain laster eta zorrotz iker zezaten egin genizkien errekerimenduei entzungor egiten ziotela ikusita, gai horri tiraka jarraitzeak ez zuela zentzurik erabaki genuen.

Udalari datuak jakinarazteari dagokionez, Herrizaingo Sailak adierazi zигun informazioa 2003ko irailaren 2ko Aginduan araututako “AKZ jarduerak” polizi fitxategitik lortu zela (irailaren 2ko EHAA), eta horren helburua *“polizi zerbitzuen jardueren jarraipen denbora errealean egitea”* da, berariaz datu pertsonalak babesteari buruzko arautegiaren menpe jarrita. Horrez gain, adierazi zигun, bere iritziz, ez zegoela horrelako daturik, ez baitzuten aipatutako pertsonen nortasuna jasotzen.

Sailak administrazioen arteko lankidetzaren printzipioarekin justifikatzen zuen informazio hori udalari bidali izana.

Datuak babesteko oinarriko eskubidea garatzen duten arauak aztertu genituen (EE 18.4 art.). Arau horiek debekatu egiten dute administrazio publikoek elkarri datu pertsonalak jakinaraztea, kasu hauetan izan ezik: a) eskumen horiek edo arlo horren inguruko eskumenak gauzatzeko baldin bada; b) helburua gero datuak helburu historiko, estatistiko edo zientifikoekin tratatzea baldin bada; edo c) eraginpeko pertsonak baimentzen baldin badu (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikulua). Geneukan informazioaren arabera, ordea, gure kasua ez zen salbuespen kasu horietakoa.

Baina Herrizaingo Sailari bezala guri ere iruditzen zitzaigun adierazitako arauak identifikatutako pertsona fisikoei edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei dagozkien datuak izatea exijitzen duela [Lege Organiko beraren 3.a) artikulua].

Azken gai horri dagokionez, udalari eman zitzaion polizi jardueraren zenbakiak informazio horretan aipatzen ziren adingabeen nortasuna zailtasun handirik gabe jakiteko bidea ematen zuen, eta, ondorioz, gure iritziz, informazio horrek, formalki behintzat, babestu beharreko datu pertsonal izaera hartzen zuen. Hala ere, gure ustez, datu hori

konsultatzen abiatuta adingabeen nortasuna ezagutu ahal izateko aukera legez datu horiek eskuratzeko baimena duten Herrizaingo Sailaren instantzietara mugatzen zen soilik, fitxategian eta segurtasun agirian ezarritako araubideari jarraiki. Horregatik, identifikatzeko aukerak fitxategia erabiltzen den eremura mugatzen zirela uste dugu, eta, gure iritziz, ondorio horrek arrazoizko zalantzak sor zitzakeen aipaturiko informazioa ikuspegi materialetik pertsonaltzat hartu ahal izateari dagokionez.

Gure iritziz, Herrizaingo Sailak interpretaziozko zalantza horiek argitu behar zituen eta datuak ez zirela jakinarazi behar interpretatzearen aldeko irtenbidea aukeratu behar zuen.

Gure ustez, zaugarritasun handiko egoeran dauden adingabeei eragiten dien jakinarazpena den aldetik, hala ezartzen zuten haurrei eta nerabeei buruzko arau zehatzek; pertsona horien interes handiagoari eta horien eskubideak babesteari ematen diote lehentasuna beste edozein interes legitimoren gainetik, eta, gainera, esparru hori gordetzeko betebeharrak zehatza ezartzen dute (Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Lege Autonomikoa). Gure iritziz, adingabeen erantzukizun penala arautzen duten arauak, administrazio publikoei erreserba eta konfidentzialtasun araubide kualifikatua ezartzen dioten heinean, lehen mailako interpretazio elementua ematen diote, adierazi bezala Herrizaingo Sailaren jardura orientatu behar zukeena (Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudia, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onartua) .

Era berean, Herrizaingo Sailak baloratu behar zuen bere jarduerak kalte egiten ziola babes berezia behar duen kolektibo bati, eta hori ez zettorrela bat adingabeak babesteko arauekin, ez eta administrazio publikoek arlo horretan duten egitekoarekin, erakunde honek “erakundeen gidaritza bereziki ahulak diren kolektiboentzako zerbitzuen sorreran” gomendio orokorrean (2001eko ohiko txostena) ezarritako arau eta jarreraren arabera.

Gure ikuspegitik, lankidetzaren printzipioak -Herrizaingo Sailak horretan oinarritzen zuen datuen jakinarazpena- ezin zuen jardura hori babestu, izan ere, printzipio horren eta adingabeen eskubide eta interesen arteko lehian, azken horien alde egin behar litzateke nahitaez, babesteko behar handiagoa dute eta.

Gogoeta berberetan oinarrituta, alkatearen eskaera desegokia iruditzen zitzaigun, ez baitator bat ordenamendu juridikoak administrazio publikoei adingabeei dagokienez jartzen dien egitekoarekin. Horrela jokaturik erabat aldentu zen, erakunde honen ustez, jarraitu behar zituen ildoetatik.

Bestalde, Herrizaingo Sailak “AKZ jarduerak” polizi fitxategiko datuen trataera egiazatu behar zuela uste genuen; fitxategi hori 2003ko irailaren 2ko Aginduren bidez arautu zen, eta azkenean udalari bidali zitzaizkion datuak lortzeko egin zuen horretarako eskumena zuenak eta beharrezko barmekin, alderdi hori ez baitzegoen argi bidali zigun informazioan.

- Emaiza

Gure esku-hartzeak eragindako egoera zehatza atzerazina zela ikusita, Herrizaingo Sailari eta udalari halakorik berriz gerta ez dadin beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatu genien eta espedientea amaitu genuen, gai honen inguruan egin genezakeena egin genuelakoan.

Hala ere, bi administrazioei adierazi genien espedientea amaitzea ez zela inolako eragozpena, egoki ikusiz gero, aipatu genizkien hausnarketa eta iradokizunei buruz administrazio horrek zituen iritziak erakunde honi helaraz ziezazkioten. Hala ere, ez batak, ez bestea, ez zien gure balorazioari erantzun.

⇒ *Prozesatu ostean absolbitu zuten, eta berak egitea ezinezkoa zen delitu bategatik badaezpada espetxean eduki zuten pertsona bat. Ertzaintzak inkomunikatuta eduki zituen hiru atxilotuk egindako adierazpenegatik auzipetu zuten delitu hartan, eta adierazpenok torturapean egin zituztela salatu zuten atxilotuek (287/2005, 951/2005)*

- Erreklamazioa

Bi pertsonak kexa bana jarri zuten Arartekoarenean, Ertzaintzak beren semeen eskubideen urraketa desberdinak egin zituelakoan, Ertzaintzak “kale borrokako” hainbat ekintzaren inguruan Audientzia Nazionalen aurkeztu zuen ikerlan zabal baten esparruan. Ekintzetako batean “koktel molotov” batzuk jaurti zituzten Guardia Zibilaren kuartel baten kontra, hiru urte lehenago.

Ikerlanean Ertzaintzak atxilotu eta inkomunikatu zituen hiru pertsonen adierazpenen jasotzen ziren, zeinen arabera gure lehen erreklamatzailaren semeak eraso hartan parte hartu baitzuen, atxilotuekin batera. Ezinezkoa zen, gazte hark, egun berean, ordu berean, trafikoko istripu bat izan zuelako, gertaeren tokitik 37 kilometrorra, eta Ertzaintzak berak argiketa-orria egin zuen gainera. Beraz, argi eta garbi zegoen gazteak ez zuela, inola ere, leporatzen zitzaion ekintza hartan parte hartzerik izan. Gerora, gure bigarren erreklamatzailak, atxilotutako hiru pertsonetako baten aita, Arartekoarenean salatu zuen adierazpenok torturapean egin zituztela hiru gazteek. Adierazpenok epailearen aurrean berretsi zituzten eta, epaileak, horietan oinarrituta, istripua jasandako gaztea ere auzipetu zuen. Gaztea badaezpada espetxean sartuta zeukaten lehendik, kuarteleko eraso harekin zerikusirik ez zeukaten egitate batzuegatik, epaileak, egitate haien egile izan zitekeelako zantzu material batzuen arabera, Ertzaintzari atxilotzeko aginduta. Ez zeukaten, ordea, kuarteleko eraso leporatzeko beste inolako frogarik, aipatutako adierazpen haiek kenduta, kontuan hartuta, gainera, gero ikusiko dugunez, berak ez zuela hura egiterik izan. Auzipetuak epailearen aurrera lehenengoz eraman zutenean esana zion berak egun hartan, leporatu gura zioten Guardia Zibilaren kuartelaren kontrako eraso gertatu zen ordu berean, trafikoko istripua izan zuela, eta Ertzaintzak horren argiketa-txostena zuela. Epaileak, ordea, eraso leporatzen zioten hiru adierazpenetan oinarrituta, kausa horregatik ere badaezpada espetxean edukitzea agindu zuen, eta hala egon zen harik eta Audientzia Nazionalak istripuaren argiketa txostena jaso eta Estatuko Abokatutzak eta Fiskaltzak akusazioak kendu zituzten arte. Egund berean, espetxean egoteko beste kausarik ez zuenez, askatu egin zuten.

- Azterketa

Bi erreklamazioak aztertu ondoren, Arartekoak berme sistemen urraketa agerikoa egon litekeela iritzi zion, eta leporatzen zizkioten egitateetan errugabea zen pertsona bati galera handiak eragin ziezazkiokeela. Ararteko erakundeak esku hartzeko zituen aukerei dagokienez, Ertzaintzak eta Herrizaingo Sailak kasu horretan zelan jokatu zuten aztertzea

erabaki zuen. Horretarako, hainbat galdera planteatzen zituen, hasteko, ea zelan izan zitekeen Ertzaintzak epaileari pertsona batek delitu larri batean parte hartu zuela zioen ikerketa bat eramatea, egitateen egun berean Ertzaintzak berak argiketa-txostena egina zuenean, non, akusazioak berak ere azkenean onartu zuen modura, parte-hartze hori ezinezkoa zela frogatzen baitzen. Bestalde, ea zergatik ez zuten argiketa txosten hura Audientzia Nazionalera azkarrago bidali. Eta, nolana ere, deigarria zen hiru pertsonak, inkomunikatuta, eta elkarren arteko harremanik barik, laugarren baten kontrako akusazio faltsu berean bat egin izana. Erakunde eskubide-bermatzaile honen ikuspegitik, horrek eta, horrekin batera, atxilotuek tratu txarrak jasan zituztela-eta jarri zuten salaketak jarduera polizialaren gaineko ikerketa egitera behartzen zuen Herrizaingo Saila. Horregatik, 2005eko ekainaren 30ean kasuari buruzko informazioa eskatu genion Herrizaingo Sailari. 2005eko irailean bidali ziguten erantzunean, barruko inolako ikerketarik egin ez zutela baietsi ez eze, ez zuten egitateak argitzeko nahikoa informaziorik ere ematen eta, horrela, 2005eko urriaren 5ean beste gutun bat bidali genion Administrazioari, bidalitako informazioa hiru galderari erantzunez osatzeko eskatuz:

- a) Herrizaingo Sailak zioen trafikoko argiketa-txosten hura 2005eko otsailaren 9an bidali zuela Madril, 2005eko otsailaren 1eko data zekarren Audientzia Nazionalaren ofizioa jaso eta biharamunean. Baina ofizio hura bidaltzeko agindua ematen zuen Audientzia Nazionalaren probidentziak aurreko errekerimendu bat, bete ez zutena, aipatzen zuen. Ondorioz, erakunde honek Herrizaingo Sailari eskatu zion, barne kontroleko organo eskudunaren bidez, berriro egiaztatzeko eta guri jakinarazteko ea 2004an dokumentuzko probaren inguruan Auzitegi Nazionalaren errekerimendurik jaso ote zuen.
- b) Atxiloketen ingurumarietara dagokienez, Herrizaingo Sailaren erantzunean istripua jasandako gaztearena baino ez zuten aipatzen. Atxiloketa hura ez zen gure erakundearen zalantzak piztu zituen, gaztea zelan atxilotu zuten azalpenak zentzuzkoak iruditu baitzitzaizkigun, eta gainera gure esku hartzeak hizpide zuen Guardia Zibilarren kuartelaren erasoaz bestelako gertaera batzuenengatik atxilotu zuten. Gure esku hartzeari interesatzen zitzaizkion atxiloketak gazteak kuartelaren erasoan parte hartu zuela torturapean adierazi zutela salatu zuten pertsonenak ziren, eta ez ziguten atxiloketa horien gaineko ezer esaten. Ondorioz, berriro eskatu behar izan genien adierazpen haiek eta adierazpen haiei buruzko txostenaren datuak emateko, eta berriro galdetu genien ea Herrizaingo Saila prest zegoen barne ikerketa egiteko, behartuta zeudela azpimarratuz, besteak beste, Arartekoak 2003ko ohiko txostenean argitaratu zuen gomendio orokorra beteko bazuten.
- c) Azkenik, Herrizaingo Sailari eskatu genion guri adierazteko nola jakinarazi zitzaion familiari hiru pertsona horietako bat atxilotu egin zutela. Arestian aipatu bezala, haren aitak kexan dioenez, bere semea oporretatik zetorrela atxilotu zuten eta Ertzaintzak ez zion haren familiari horren inguruan ezer jakinarazi. Hori dela-eta, gurasoek semeak istripua izan zuela pentsatzen eman zuten gau osoa.

Erantzunik jaso ez genez, 2006ko otsailaren 10ean beste errekerimendu bat bidali genion aipatutako sailari, lehenbailehen erantzuteko eskatuz. Erantzuna ez zen 2006ko ekainaren 7ra arte eman. Hori beste txosten baten bidez egin zuen. Bertan ez zen inolako alegaziorik barneratu atzerapena justifikatzeko eta, gaiaren mamiari

zegokionez, gauza bera errepikatzen zuen: istripua izan zuen gaztearen atxiloketan ez zen irregulartasunik egon, Ertzaintzak Audientzia Nazionalaren aginduak betez egin baitzuen; ez zen barne ikerketarik hasi gaztea salatu zuten atxilotuei ustez eragin zitzaizkien tratu txarren inguruan, ez zelako beharrezkotzat jo, kontuan izanik aitortenak, horiek egiteko deklaratazaileek zituzten arrazoiak edozein izanda ere, epaitegian berretsi zirela eta, beraz, ez zelako logikoa pentsatzea Ertzaintzak eragindako legez kanpoko presiopean egin zirela; ezinezkoa zen aitorten horien inguruan eskatutako informaziorik ematea, horiekin erlazonatutako guztia Audientzia Nazionalera bidali zelako, autoetan barneratzeko; 2005-02-01 baino lehen ez zuen Audientzia Nazionalaren beste errekerimendurik jaso, erreklamaziogileak izandako trafiko-istripuaren txostena bidaltzeko; pertsona horren gurasoei bere atxiloketaren berri ez emateari dagokionez, sailaren erantzunak ez zuen horren inguruan ezer aipatzen.

- Emaizta

Erantzuna ikusita, espedientea amaitutzat jotzea erabaki genuen, eta, ondoko arrazoiengatik, Herrizaingo Sailak kasu honetan izandako jarduera irregularra zela ebatzi genuen.

1. Hasteko, luzamendutan ibili zirelako gure erakundeari laguntzeko, eta ez zigutelako eskatutako daturik bidaltzen. Herrizaingo Sailak lehen idatzia zentzuzko epe baten barruan helarazi zigun, baina ez zizkigun egindako galderarik gehienak erantzun eta, horregatik, bigarren informazio eskaera bat bideratu genion eta, hilabeteko epea eman arren, ez ziguten, idatzizko errekerimendu bat tarteko, 8 hilabete beranduagora arte erantzun. Prozeduran zehar, eta Arartekoak eskatuta, maiatzean bilera egin genuen bi erakundeotako ordezkariok, kexa-espediente desberdinak jorratzeko, baina sailak ez zigun espediente zehatz honetaz ezertxo ere argitu eta, laster bidaliko ziguten erantzunaren edukia ikusteko esan ziguten. Bigarren informazio eskari bati erantzuten 8 hilabete luzatzea laguntzeko borondaterik ez dagoela erakusten du, gure iritziz.
2. 2003ko abenduan, akusatuaren defentsak, errugabea zela frogatzeko, epaitegiak Herrizaingo Sailari trafikoko argiketa-txostena eskatu eta erasoko kuartelaren eta istripuaren tokiaren artean zelako distantzia zegoen zehazteko eskatua zuen. Txostena 2005eko otsailaren 9an bidali zuten Audientzia Nazionalera, Herrizaingoak zioenez, errekerimendua aurreko astean jaso zutelako. Alabaina, autoetan jada 2004ko azaroan txosten hura eskatzeko lehen ofizio bat izan zela aipatzen zuten Audientzia Nazionalaren probidentziak ageri ziren. Kontraesana argitzeko, 2004an dokumentu froga horri buruz Audientzia Nazionaletik jasotako edozein errekerimenduren berri emateko eskatu genion Administrazioari. Azkenean erantzuna jaso genuenean, sailak zioen ez zuela lehendik esandakoaz bestelako datu berririk, eta horrek pentsarazi zigun, eta hala jaso genuen gure ebazpenean, horretan sailak irregularki jokatu zuela.

Baiespena zalantzan jar zitekeen, Arartekoak Herrizaingo sailburuak Legebiltzarreko Herrizaingo Batzordearen aurrean gerora eman zituen datuak ikusi ondoren aitortu zuenez, datu horietatik gertakarien zentzuzko azalpena atera

baitzitekeen. Egia da Ertzaintzak istripuaren argiketa-txostena epaileak horri buruzko informazioa eskatu eta hiru hilabetera bidali zuena. Alabaina, eta Audientzia Nazionalak ondorengo probidentzia batean lehen errekerimendu horretan istripuaren txosten osoa bidaltzeko eskatu zuela zioen arren, badirudi delako ofizio hori ez zutela defentsak eskatu eta hamar hilabete beranduagora arte bidali, eta gainera istripua gertatu zen tokiari buruzko xehetasunak baino ez zituen ematen, nortzuk zeuden inplikaturik galdetzea ahaztuta. Bigarren errekerimendu batean, hiru hilabete geroago, eskatu zuen Audientziak txostena osorik bidaltzeko, eta halaxe egin zuen Ertzaintzak; horrela, defentsak epaileari frogara hori eskatu eta hamahiru hilabetera, akusazioa sinestezina zela frogatu ahal izan zen.

Datu horiekin ez zegoen, beraz, Herrizaingo Sailak puntu horretan irregulartasunez jokatu zuenik ondorioztatzerik. Egia esan, ez zatekeen gaizki-uleturik izango baldin eta, informazioa eskatu genionean, Herrizaingo Sailak sailburuak Eusko Legebiltzarreko Herrizaingo batzordean kasu honi buruz agerraldia egin zuenean eman zituen azalpenak eman izan balizkigu, zortzi hilabetez isilik egon beharrean, eta erantzunean 2004an Audientzia Nazionaletik jaso zituen sumario horri buruz jaso zituen idatziak aipatu barik utzi beharrean. Hala ere, espedientearen alderdi honetatik ateratzen dugun ondorioa da bi erakundeen arteko komunikazioa hobetu behar dugula, berriro halakorik ez gertatzeko.

Horretako ezerk ez du, ordea, inola ere zurriz pertsona bat badaezpada espetxean izan zutela poliziak hasiera-hasieratik zeukan dokumentu batean errugabea zela erakusten zen delitu batengatik. Garbi dago bermeen sistemak oraingoan huts egin duela, eta pertsona bat egin ez zuen zerbaitengatik preso edukitzea ahalbidetu duela. Jakina, horrek ez du akusazio okerrik egiteko asmo txarrez jokatu zenik ondorioztatzeko aukerarik ematen. Baina ukalezina da, epaileak berak beren beregi ere badioelako, pertsona hori auzipetu eta espetxeratzeko agindua erabakitzeke oinarri bakarra parte-hartze horretaz dagoen frogara bakarra izan zela: Ertzaintzaren ikerketan gaztea errudun zela zioten hiru adierazpen aurkeztu zizkietela. Era berean, Estatuko Abokatutzak eta Fiskaltzak akusazioa kendu zuten, lehenago esan bezala, prentsan hasiera-hasieratik salatu zen txosten hura zegoela jakin orduko. Ondorioz, badirudi ikerketan zorrotzago aritu behar zutela eskatu behar zitzaizela, inoiz agindu behar ez zuten auzipetzearen ondoriozko kalte-galerak saihestuko baitziratekeen.

3. Gure erreklamatuak zioten adierazpen haiek egin zituztenak polizien tratu txarren bitartez behartu zituztela horretara. Kasu hartan oso ingurumari berezia zegoen, salatutako tratu txarra gertatu zenik frogatzeko balio ez zuen arren, barne ikerketa xehatua egin behar zela eskatzen zuena. Hara, bakanduta egon arren, hiruak bat etorri ziren beren adierazpenetan, eta egitate haietan parte hartzea ezinezkoa zitzaion laugarren bati eraso hura leporatzeko kontakizunaren xehetasunetan.

Gure ikerketa, kasu honetan, ez zen ea tratu txarrik izan zen ala ez zehaztera bideratu, auzi hori epaitegietan ebatzi baitzen; guk Herrizaingo Sailari, salake-



taren berri izatean, ea polizien tortura eta tratu txarrak prebenitzeko ardura duten nazioarteko erakundeek finkatutako jarraibideen haritik jokatu zuten ala ez galdetu genion: batez ere, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak, eta Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeak eta, bereziki, NBEko Batzar nagusiak 2000ko abenduaren 4ko 55/89 Ebazpenean jasotako torturaren eta bestelako tratu edo zigor anker, jasangaitz edo umiliagarriren ikerketaren eta dokumentazio eraginkorren gaineko printzipioek ziotenaren haritik, alegia. Arartekoaren iritziz, jarraibide horiek talka egiten dute Herrizaingo Sailak salatutako tratu txarren inguruko inolako ikerketarik ez abiatzeko erabakia argudiatzeko eman zizkigun bi arrazoiekin.

Batetik, sailak ez zituen salaketak ikertu, Ertzaintzaren aurrean eginiko aitortpenak epaitegian berretsi zirelako. Herrizaingo Sailak dioenez, *“aitortpena egin zutenek X jauna auzipetzeko izan zituzten arrazoiak beraiek bakarrik ezagutzen dituzte, baina argi dago ezin izan daitekeela erakunde horrek susmatzen duen presio polizialarengatik. Izan ere, horrela balitz ez da logikoa pentsatzea epaileak berretsi egingo zuenik.”*

Ararteko erakundearen ustez, arestian esandako erakundeetan finkatutako doktrinaren haritik, epailearen aurreko berrespina ez da tratu txar edo torturarik izan ez dela ziurtasunez baieستeko nahikoa. Sarritan polizi egoitzetan egindako adierazpenak instrukzio epailaren aurrean berresten dira, baina epaiketean, kasu honetan bezala, gezurtatu. Bestalde, zenbait kasutan, berrespina eginagatik ere, azkenean tortura edo tratu txarrak izan dela frogatu izan da. Ondorioz, gure ebazpenak hauxe dio: *“Noski, horrek guztiak ez du bere horretan frogatzen esku artean dugun kasuan bidegabekoa izan zitekeen presio polizialik egon zenik, baina bai kentzen diola baliozkotasuna Herrizaingo Sailak aurkezturiko arrazoibideari, presio hori egon ez zela adierazten zuenari hain zuzen”*; ondorioz, pentsatu genuen gure betebeharra zela sail horri salaketak iker zitzala eskatzea, arestian aipatutako erakundeetako edozeinek egingo lukeen bezala.

Bestalde, Herrizaingo Sailak zioenez, ezin zituzten salaketa horiek barruan ikertu, epaitegietan ere bideratuta zeudelako eta, han, azkenean, artxibatu zituzten. Ararteko erakundeak badaki kexa eragin duen jarduera polizialaren gainean zigor prozesua gauzaten ari bada, horrek hainbat muga jartzen dizkiola administrazioaren esku-hartzeari, horien artean prozesu horretan epaitzen ari diren jokabideak gaitzesteko debekua, epailearen ebazpena itxaron behar izatea zehapena eman ahal izateko, eta jurisdikzio maila horretako epai batek frogatutzat ematen dituen gertakariak egiazkotzat hartzea. Hala eta guztiz ere, erakunde honek bere irizpidea azpimarratu behar du. Horren arabera, zigor izapideak egotea ez da oztopo poliziarren jardunbidea ikertzeko, nahiz eta kexaren xedea eta zigor prozesuarena bat etorri, eta ezta jardunbide horren azterketa egiteko diziplinari dagokionez ere, hori jarraitu beharreko portaera irizpideetara egokitzeke; betiere, epai irmoa egon arte ebazpenik ematen ez den bitartean. Horixe bera adierazi genuen *“Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako”* izeneko Gomendio Orokorrean (Eusko

Legebiltzararentzako ohizko txosteneko 488. orr. eta hurrengoak). Bertan, modu xehatuan jaso zen gure ikuspuntua eta bere justifikazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak adierazi genuen interpretazioa babesten zuen, 91.5 artikuluan honakoa adieraztean agenteen aurkako zigor prozedurak egiten ziren kasuetarako: *“Euskal Herriko Poliziako kideen kontra zigor legezko prozedura hasteak ez du galaraziko egintza berengatik alde aurreko informazioa edo dagokion diziplinazko espedienteaz izapidetzerik, eta, hala badagokio, espedientepeko aldi baterako geldialdia ezarriko zaie eta egoki diren bestelako bermezko neurriak ere hartuko dira. Hala ere, aipatutako prozedura horiek zigor legez emandako epaia sendetsia denean bakarrik erabaki ahal izango dira, aipatzen dituen ekintza frogatuen adierazpenak Administrazioa lotzen duela”*.

Betebehar orokor horren salbuespen bakarra kexan izan dezakeen gezur edo sinestezintasun izaera da, baina hori ez da kasua, suposamendu honetan agertzen ziren gertakariak kontuan hartuta. Horregatik, berretsi behar dugu Herrizaingo Sailak atxiloteta haiek ikertu behar zituela, gure ustez.

4. Amaitzeko, Herrizaingo Sailaren jarduera kritikatzeko gure azkeneko arrazoia da ez zizkigutela bigarren erreklamatazilearen atxiloteta gurasoei behar bezala jakinarazi zieten inguruko zalantzak argitu.

Beste ezeren aurretik, esan behar dugu gaia ez dela hutsala, inondik ere. Inor atxilotu dutela eta non daukaten jakinarazi behar da, Nazio Batuek 2004ko otsailean Estatu Espainiarrari, NBEko Kontalari Berezia 2003an egindako bisitaren ostean, egin zion 67 c) gomendioak dioenez. Eta horixe da, hain zuzen, Manfred Nowak Nazio Batuen ECOSOCeko Giza Eskubideen Batzordeko kontalari berriak 2006ko martxoaren 21ean gomendio haien betetze mailaren gainean aurkeztu zuen txostenean adieraziz ituen kezka-motiboetako bat. Izan ere, txosten horretan Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren aipu bakarrean horixe du hizpide: sail horrek Inkomunikazio Erregimenean Atxilotuta dituen Pertsonen Asistentzia Koordinatzeko Protokoloaz aritzean hauxe dio: *“salaketa-gaileen senideak kexu dira familiak etxeko atxilotua fisikoki non eta zelan dagoen jakiteko protokoloa operatiboa ez delako. Poliziaren eledunak familiari ematen dizkion albisteak estereotipatuak dira eta ez dute, inoiz ere, atxilotuari buruzko datu zehatzik ematen”*.

Beraz, gaia garrantzitsua denez, eta familiak atxilotetaren berri egunkarietan izan zuela alegatu zuten, Herrizaingo Sailari horri buruzko informazioa eskatzea erabaki genuen. Arartekoa ohartzen da Nazio Batuen eskakizun horiek ikerketaren eta atxilotua zaintzearen ardura duen polizi indarraren segurtasun arrazoiekin bateragarriak izan behar dutela. Baina ez dirudi arrazoi horiek atxilotuaren seniderik gertuenei telefonoz deitu eta senidea non eta zergatik atxilotu duten esatea eragotzi behar dutenik eta, izan ere, sailburuak berak, gerora, Herrizaingo Batzordearen aurrean, kasu honetan hala egin zutela argitu

zuen, arropa eta gauza pertsonalak erroteko aukera ere eman. Guri, ordea, ez ziguten halako ezer erantzun bidali ziguten idazkian eta, horregatik, zalantza haiek argitu barik geratu zitzaizkigunez, hala jaso genuen gure ebazpenean.

Arrazoi hauek guztiek Herrizaingo Sailak kasu honetan zuzen jokatu ez zuela pentsarazi ziguten.

⇒ *Pertsona baten atxiloketa, euskaraz adierazteko duen eskubidea bermatzen ez den artean Ertzaintzaren aurrean identifikatzeari uko egiteagatik (246/2006).*

#### • Erreklamazioa

Pertsona batek erakunde honetara jo zuen Bilboko metroan izan zen gorabehera bat zela-eta tartean suertatu zenez, Ertzaintzak eman zion tratuari buruzko kexa adierazteko; agenteek haren hizkuntz eskubideak bermatu arte identifikatzeari uko egiteagatik atxilotu zuten.

Interesdunak adierazi zigunaren arabera, metroko langileek hala eskatuta, Ertzaintzak esku hartu zuen; izan ere, langile horiek pentsatu zuten emakumeak nahitaez behar den txartelik gabe bidaiatu nahi zuela metroan, eta poliziarri deitu zioten. Erreklamazioaren bertsioaren arabera, egindako deiaren ondorioz uniformatu gabeko bi agente etorri ziren eta horiek identifikatzeko eskatu zioten, gaztelaniaz. Adierazitakoari jarraiki, emakumeak euskaraz erantzun zien eta euskaraz aritu nahi zuela jakinarazi zien ertzainei; baina, ertzainetako batek eskaera hori berariaz baztertu zuen eta honela esan zion: “*Euskaraz dakit baina zurekin ez dut hitz egingo*”. Adierazi zigunez, kexa aurkeztu zuenak, orduan, euskaraz hitz egiteko eskubidea zuela esan zuen berriz, azken ertzain horrekin edo hizkuntz gaitasun nahikoa duen hirugarren batekin. Baina ez zuen lortu.

Erreklamazioa adierazi zuenaren arabera, lau ertzain uniformatu azaldu ziren, lehenengo bi ertzainek eskatuta. Erreklamazioa esan zuen etorri berriei ere euskaraz egin ziela, baina ez zutela erantzun. Gero, airean eraman zuten auto ofizial batera eta esku-burdinak jarri zizkieten indarkeriaz. Bien bitartean, euskaraz zekien uniformatu gabeko ertzainak umiliatu eta honela esan omen zion mespretxuz: “*Zu ez zara euskalduna*”.

Kexa aurkeztu zuenaren arabera, ertzainek ez zioten jakinarazi, une horretan, zergatik atxilotzen zuten, ezta atxilotuaren eskubideak zeintzuk ziren edo nora zeramaten ere.

Erreklamazioaren ustez, poliziarren jardunbidea neurritz kanpokoak izan zen, ertzainek euskararik ez zekitelako atxilotu zutelako edo, jakinda ere, erabili nahi ez zutelako. Bere ustez, edonola ere, horrela jarduteak erakusten zuen ertzainek ez zutela jakin egoera kontrolatzen; izan ere, berarekin euskaraz aritzeko egoeran egonda ere, ez zuten egin, eta horren orde, atxilotu egin zuten, identifikatzeari uko egin ziolakoan.

Era berean, bere ustez, neurritz kanpokoak izan ziren, bai atxiloketan erabilitako indarkeria, bai esku hartu zuen ertzain kopurua. Adierazi zuenez, pertsona txikia da eta ez zuen inolako erresistentziarik jarri, euskaraz hitz egiteko bere eskubideaz baliatzen baino ez zen ahalegindu.

Bestalde, erreklamatazaileak adierazi zuen polizi bulegoetan atxilotuta egon zen denboran ere ez zirela bere hizkuntz eskubideak errespetatu, eskubideen informazio akta gaztelania hutsean zegoelako, eta berarekin harremanetan egon ziren ertzainetatik bi baino ez zirelako aritu euskaraz.

Azaldu zigunaren arabera, komisarian ere ez ziren errespetatu atxilotu gisa dituen eskubideak. Horri dagokionez, adierazi zuen guztiz biluzarazi zutela eta eskubideen informazio akta libre utzi zuten une berean erakutsi ziotela.

Amaitzeko, erreklamatazailea kexu zen atxilotu zuten ertzainak ez zirelako epaitegian azaldu epaiketa azkarrerako ertzain etxean eman zioten zitazioan agintzen zen egunean, eta, horren ondorioz, beste egun batean aurkeztu behar izan zuelako.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun kexa argitzeko egin zuen barne ikerketak ezin izan zituela egiaztatu erreklamatazaileak salatzen zituen gertakari batzuk, ez baitzegoen frogarik. Hala, ezin izan zen frogatu identifikatzeko eskatu zien bi agenteetako batek esplizituki euskaraz baztertu zuela hizkuntza horretan hitz egiteko eskaera, bazekiela, baina harekin ez zuela erabiliko adieraziz. Eta ez zen frogatzerik izan, bestalde, ertzainen ibilgailura eraman bitartean egin zizkion mespretxuzko adierazpenak.

Horrez gain, adierazi zigun ikerketatik ateratako ondorioak ez zetozeela bat kexa aurkeztu zigunak adierazi zigunarekin, aipaturiko bi agenteek harekin euskaraz egiteari berariaz uko egin izanari dagokionez.

Ondorio horien arabera, aipaturiko agenteak, antza, gutxieneko euskara ezagutza zuenak, hizkuntza horretan egin zion identifikatzeko eskaera erreklamatazaileari, hark hizkuntza horretan hitz egitea eskatu zuenean. Ondorioak, funtsean, agenteetako batek ustezko desobedientzia delitu larria dela-eta interesdunaren aurka eginiko atestatuan eginiko adierazpenean eta atestatuaren ondoriozko prozedura penalean emaniko epaian oinarritzen ziren. Herrizaingo Sailak helarazi zigun aipaturiko epaiaren kopia, eta bertan adierazten zen *“euskara pixka bat zekien agenteak euskaraz eskatzeko ahalegina egin zuen”*.

Ikerketak, halaber, emaitza desberdina agertu zuen erreklamatazaileak polizi bulegoetan atxilotu gisa dituen eskubideak justu-justu askatu aurretik jakinarazi zizkiotela adierazteari dagokionez. Atestatua ikusteko aukera izan genuen eta, haren arabera, diligentsia hori atxilotuta egin baino 40 minutu lehenago hasi zen. Hala ere, epaiketa azkarrerako interesdunari komisarian eman zioten zitazio zedulak eskubideen jakinarazpen akta ere bazekarrela ikusi genuen. Zedula hori, atestatuaren arabera, justu-justu aske utzi aurretik jakinarazi zitzaion, eta, beraz, erreklamatazaileak alderdi honen gaineko kexa adierazi zigunean eskubideen bigarren jakinarazpenaz ariko zela pentsatu genuen.

Aipaturiko irizpen judiziala eta aipaturiko datuak kontuan hartuta, eta interesdunak agenteetako batek egin zizkion mespretxuzko adierazpenei dagokienez eman zuen bertsioari sinesgarritasuna eman diezaiokeen frogarik ezean, kexaren alderdi hauen inguruan esku hartzen jarraitu ahal izateko oinarririk ez genuela ikusi genuen.

Hala ere, Herrizaingo Sailaren ikerketak egiaztatu zuen erreklamatazaileak atxilotu gisa dituen eskubideak jakinarazteko agiria gaztelaniaz idatzia zegoela, nahiz eta diligentsia hori euskaraz ere egin zitekeen.

Informazio ofizialaren arabera, polizi bulegoetan euskaraz jardun ziren erreklamatazailea eta agenteak, agenteen euskarazko hizkuntz gaitasuna mugatua zen arren.

Herrizaingo Sailak onartu zuen puntu horretan bere jarduera ez zela behar bezalakoa izan. Hala ere, horrela jokatzeko arrazoiak argitu behar litzuzkeela uste dugu, bai eta interesdunari eskubideen informazio akta, behintzat, zergatik ez zitzaion euskaraz eman, sistemak horretarako aukera ematen zuela kontuan hartuta.

Gure ikuspegitik, kasu honetan, beharrezkoa zen ikerketa, atxiloketa, hain zuzen ere, interesduna bere hizkuntz eskubideak horiek bermatzerik ez zuten agenteen aurrean erabiltzen saiatu izanarekin lotu baitzen.

Gure iritziz, kexak agerian jarri zuen aipaturiko Sailak mekanismo egokiak ezartzeko beharra, atxilotuek euskara erabiltzeko eta atxiloketarekin lotutako agiriak hizkuntza horretan egiteko dituzten eskubideak murriztuta gera ez daitezen.

Herrizaingo Sailak Ertzaintzarekiko harremanetan eskubide hau bermatu ahal izateko dituen zailtasunez jabetu arren, polizi bulegoetatik kanpo batez ere, plantilla osoak horretarako behar adinako hizkuntz gaitasunik ez duten bitartean, erakunde honetan planteatu diren antzeko beste gai batzuetan bezala, bien bitartean eskubidea erabiltzeko dauden mugek sailhestezinezkoak bakarrik izan beharko dute.

Ikuspegi horretatik, berriz adierazi behar diogu Sail horri pertsona batek euskara erabili nahi duenean hizkuntza hori ez dakien agente batekin, hark aurrez egiaztatu beharko du, inguruabarrek horretarako aukera ematen badute behintzat, ea operatibo horretako beste agenteren batek hizkuntza hori hitz egiten duen. Kexaren kasuan, azalpen ofizialen arabera, ez zen posible polizi bulegoetatik kanpo horrela jokatzetik, izan ere, agenteetako lehenengoak bakarrik zekien euskaraz eta, azalpen horien arabera, gero bertaratu ziren agenteen esku-hartzea lehenengoei laguntzea izan zen, eta, gertakariak nola garatzen ari ziren ikusita, luzapenik gabe alde egin zuten lehenengoek.

Gainera, gure ustez, polizi taldeak antolatzerakoan Herrizaingo Sailak arreta jarri behar lieke hizkuntz alderdiei, ahal den heinean baliabide egokirik ezak dakartzan ondorioak murrizte aldera.

Agenteek erreklamatzailari atxiloketaren arrazoia, atxilotu gisa dituen eskubideak eta nola zeramaten unean bertan ez jakinarazi izanari dagokionez, atxiloketa egin zuen agenteak beste bertsio bat eman zuen. Aurka egiteko elementurik izan ez arren, egiaztatu ahal izan genuen eskubideen informazio aktan zegokion atala zuriz zegoela, eta, beraz, administrazio horri errepikatu behar izan genion atal horretan idatziz jaso behar duela atxilotuari behar adina informazio eman zaiola “*egozten zaizkion ekintzei buruz eta askatasuna kentzeko arrazoiak*” azaldu zaizkiola (Prozedura Kriminalaren Legearen 520. artikulua), eta aktaren konfigurazioak era horretan egin ahal izateko egokia izan behar duela.

Ikerketak erakutsi zuen, halaber, zitazio judiziala egiterakoan akats bat egin zela. Herrizaingo Sailak adierazi zigunaren arabera, ez zekin non gertatu zen akatsa, ez eta bere esparrukoa edo justizia administrazioaren esparrukoa zen. Antza denez, zitazioan ageri zen data eta bulego judizialekoa bat ez zetozela egiaztatzeaz gain, ez zuen bestelako ikerketarik egin gai horren inguruan. Hori ikusita, gure ustez, gai horiek argitu behar zituen, eta, behar izanez gero, beharrezko neurriak hartu behar zituen horrelako koordinazio hutsegiterik berriz gerta ez dadin.

Gorputz miaketari dagokionez, alderdi garrantzitsu hori argitzeko ahalegin handia egin arren, Herrizaingo Sailak ez zigun jakinarazi interesduna arropa guztia kentzera behartu zuten diligenzia horretan.

Gainera, azalpen ofizialen arabera, kexa aurkeztu duenaren atxiloketaren ondoriozko atestatuan ez zen jaso nola egin zitzaion gorputz miaketa, ea arroparen bat

kentzera behartu zuten. Antza denez, alderdi hauei dagokienez agiri bidez jaso den bakarra miaketa “sakona” izan zela da, eta horrek, azalpen berberen arabera, ez zuen esan nahi erabat biluzarazi zutenik, nahiz eta, adierazi zigutenez, era horretan egindako guztiei kalifikazio hori ematen zitzaien.

Herrizaingo Sailari informazio falta hori leporatzen diogu, hipotesietatik abiatu eta alderdi hau aztertzerantz behartzen baikintuen. Halaber, gaiari buruzko iritzi zuzena ematea eragozten zigun, bai eta erakunde honek legez duen kontrolatzeko egiteko behar bezala gauzatzea eta, azken batez, erreklamatazaileari erantzun arrazoitua ematea ere.

Hala ere, genituen datuekin gaia aztertu genuen, “polizi bulegoetan pertsonen miaketak egiteko diligentzia” (2001eko ohiko txostena) gomendio orokorra erreferentzia gisa hartuta. Datu horiekin, Herrizaingo Sailak, erreklamatazailearen gorputz miaketa egin zen moduaren gaineko behar adinako informazio zehatza jasotzeko beharrari dagokionez, aipaturiko gomendia ez zuela bete ondorioztatu genuen.

Informazio ofizialaren arabera, interesdunaren gorputz miaketa haren eta agenteen segurtasuna babesteko xedez egin zen. Informazio horren aurrean, gomendio hartan adierazitakoa berretsi behar izan genion aipaturiko Sailari, izan ere, gure ustez, kasu horietan, erabat biluzaraztea soilik atxilotua oso arriskutsua izateak justifikatuko luke, egozten zaion delituak edo atxilotetan agertutako jarrerak agerian uzten duenean, eta, eman zizkigun azalpenen arabera, ez zen halakorik gertatu kexa horren kasuan; interesdunari egozten zitzaion delituak ez zuen inolako arriskurik erakusten, eta ez zen hark halako jarrerarik azaldu zuenik ere jaso. Halaber, oro har, gure iritziak, erabat biluzaraztearen legezotasuna zalantzarria dela berretsi genion kautelazko neurri gisa askatasuna kentzea ustez identifikatzeari uko egin izanaren ondorio denean.

Horregatik, interesdunaren gorputz miaketa, hark kexan ziurtatu bezala, erabat biluztuta egin zela egiaztatuz gero, jarduteko modu hori alden du egingo litzateke gomendioan adierazi genituen jarraibideetatik eta, beste informaziorik ezean, ez luke justifikaziorik izango.

Horiek horrela, Herrizaingo Sailari adierazi genion ezinbestekoa zela kexa aurkeztu zuenak zentzu honetan jarduteko moduaren zuzentasunaren inguruan piztutako zalantzak argitzea, gure ustez, argitzeke baitzeuden.

Maila orokorragoan, administrazio horrek atxilotuen miaketa egiteko diligentzia aipaturiko gomendio orokorrean ezarritako jarraibideetara egokitzeko mekanismo zehatzagoak ezarri behar zituela iruditzen zaigu, eta atxilotetaren inguruko argibide orokorretan jarraibide horiek barne har ditzan iradoki genion, tresna egokia baiteritzogu helburu hori lortzeko.

Azkenik, erreklamatazailea atxilotzeko arrazoiak bide judizialean hasieratik hutsegite gisa kalifikatu zirela ikusi genuen. Datu hori kontuan hartuta, eta, gomendioan adierazi genuen bezala, gure iritziak ere, oro har, zalantzarria denez ustez identifikatzeari uko egiteagatik kautelazko neurri gisa askatasuna kentzea, beharrezkoa iruditzen zaigu Herrizaingo Sailak erreklamatazailearen atxiloteta “San Frantzisko zonan (Bilbo) atzerritarrekiko burututako polizi jarduerai” buruzko txostenean (8.e gomendio zehatza) adierazi genuen prebentzio ikuspegitik aztertzea eta baloratzea ea, inguruabarrak ikusita, justifikatua zegoen ala, aldiz, egokiagoa zatekeen agenteek komisariara eramatea identifikatu eta desobedientziagatik ustezko hutsegitea egozteko beharrezkoak diren datuak hartzeko. Gure ikuspegitik, azterketa honetan ez dute garrantzirik larrialdi inguruabarrek (informazio ofizialaren arabera, horrek behartu zituen agenteak interesduna atxilotzera) eta,

antza, aurrez metroko langileei bere datu pertsonalak emateari uko egin izanak, izan ere, gure ustez, administrazio bi gertakari horietan oinarritzen zen atxiloketa justifikatzeko.

- Emaizta

Gure balorazioa helarazi genion Herrizaingo Sailari, horren gainean zuen iritzia eman ziezagun eta guk adierazitako ildoan jarduteko prest dagoen azal ziezagun. Horrez gain, bidezko izanez gero, egingo zituen jardueren berri eman ziezagun eskatu genion.

Txostena amaitzerakoan, aipaturiko Sailak oraindik ez zion erantzun gure eskaerari, nahiz eta artean ez zen horretarako epea amaitu.

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

⇒ *Udaltzaingoak ukatu egin dio txostena ikusteko aukera (1402/2005).*

- Erreklamazioa

Kexa aurkeztu zuenak erakunde honetara jo zuen Hondarribiko Udaltzaingoak ez zielako bere bi eskaerei erantzun; eskaera horietan kidego horrek haren emazte ohiak eskatuta bien semea bisitatzeko araubideari dagokionez eginiko esku-hartzean prestatutako txostenen kopia eskatzen zuen. Aldiz, adierazi zigunaren arabera, kopia hori eman zitzaion bere emazte ohiari.

- Azterketa

Hondarribiko udalak jakinarazi zigun ez ziela erantzun eskaera horiei. Halaber, adierazi zigun, bere iritziz, interesdunari ezin ziola hura ikusteko aukerarik eman, izan ere, polizi jardueren barneko zatiak ziren, ez espediente administratibo batekoak.

Informazio hori ikusita, udalari gogorarazi genion legez behartuta zegoela eskaerak berariaz eta idatziz ebaztera, bai eta haiei uko egitea arrazoitzera eta horren gainean hartutako ebazpena interesdunari jakinaraztera ere (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42, 43, 55, 37.4 eta 58 artikulua). Gainera, betebeharrak hori atzerapenik gabe betetzeko dei egin genion, horretarako ezarritako epea nabarmen gaituzte zeukala uste baikenuen.

Gaiaren funtsari dagokionez, gogorarazi genion, administrazioko fitxategiak eta erregistroak ikusteko eskubidearen legezko konfigurazioaren arabera -Konstituzioan aitortua dago eskubide hori [Konstituzioaren 105.b) art.]-, araudian tasatutako kausaren batengatik bakarrik uka zitekeen agiri administratibo bat (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua). Eta, gure iritziz, udalak helarazi zizkigunak ez zeuden kausa horien artean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluan erabiltzen duen "espediente" terminoa ekainaren 16ko 18/2003 Gomendioan azaldutako zentzuan hartuta, edozein jarduera administratibo agiritan jasotzea bezala.

Gure ustez, ez zegoen justifikatuta erreklamatzailari isilean ukatutako agiri berberak haren emazte ohiari eman izana, soilik hark eskatu zuelako poliziaren esku-hartzea. Izan ere, legearen ikuspegitik, biak dira interesdun; esku-hartzea sustatu duena eta, sustatu ez arren, haren eraginpeko eskubide eta interesen titularra dena (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. eta 37. artikulua); hori zen, genuen informazioaren arabera,

erreklamatzaillearen kasua izan zitekeena, poliziaren jardueraren eragin zuzena zuena, eskatu zuenak bezalaxe.

- Emaizta

Gure balorazioari erantzunez, udalak adierazi zigun jada bidali zizkiola kexa aurkeztu zuenari hark eskatutako agiriak.

Informazio hori ikusita, espedientea amaitu genuen, kexak planteatutako arazoa konpondu zela iritzita.

### C) **Kontratazio erregimena, ondarea eta erantzukizun administratiboa**

⇒ *Manifestazio batean Ertzaintzak istiluen aurka eginiko jardueran pertsona bati eragindako kalteak konpontzea (692/2006).*

- Erreklamazioa

2002ko irailaren 14an “Gora Euskal Herria” lemarekin Bilbon egin zen manifestazioan Ertzaintzak istiluen aurkako jardueran botatako gomazko pilota baten ondorioz begi bat galdu zuen pertsonak gure esku-hartzea eskatu zuen, Eusko Jauriaritzako Herrizaingo Sailak ukatu egin baitzion arrazoi hori dela-eta pairatu zituen kalteen ordaina emateko egin zion eskaera.

Interesdunak adierazi zigunaren arabera, lesio horren ondorioz, bere lanbidea gauzatzeko erabateko ezgaitasun iraunkorra duela adierazi zen.

- Azterketa

Herrizaingo Sailak horretarako izapidetu zuen ondare erantzukizuneko prozedurari dagokion espediente administratiboaren azterketak aukera eman zigun administrazio horrek erreklamatzaillearen ondare erantzukizuneko eskaera ezeztatu izanaren arrazoa hau izan zela egiaztatzeko: haren iritziz, jasan zuen lesioa pairatzeko betebeharrak juridikoa zuen, bere borondatez jarri baitzen arrisku egoera batean, eta, beraz, behartuta baitzegoen ekintza horren ondorioak bere gain hartzera.

Sailak balorazio hori egin zuen, honako alderdi hauek kontuan hartuta: interesduna manifestazio batean parte hartzen ari zen, eta poliziaren esku-hartzearen ondorioz kaltea jasan zuen burualdean, baina berak bazekien manifestazio horretan ordena publikoan gorabeherak izan zitezkeela, deialdi hori legez kanpokotzat jo baitzen judizialki.

Herrizaingo Sailaren planteamendua kontuan hartuta, lehenengo eta behin, kasu horretan kaltearen zuzenbide-kontrakotasun baldintza dagoen (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 141.1 artikulua), izan ere, ondorioztatu genuenaren arabera, hori zen ukatze ebazpenak interesdunari hark nahi zuen ordainketa onartzeko hautematen zuen oztopo bakarra.

Gure ikuspegitik, interesduna manifestazioan parte hartzen ari zela baieztatzeko ukatze ebazpenak oinarritzat zituen gertakariak ez zuten behar besteko irimotasunik halako ondorio batera iristeko. Gure iritziz, ez zen egiaztatuta geratu interesduna manifestazio burutik hurbil zegoenik. Egiaztatuta geratu zena da, interesdunak eskaeran



hala onartu duelako, ekitaldia igarotzen zen kalean zegoela, bertatik polizien lerroa ikus zezakeela, baina, espediente administratiboaren arabera, hori manifestazioak eginiko ibilbideko edozein lekutatik ikus zitekeen.

Froga arazo hauek idatziz jaso genituen, baina, erreklamatzailleak adierazitako irizpidearekin bat eginez, iruditu zitzaigun, aldi berean, interesdunaren jarrera zuzenbidezkoa edo zuzenbidearen kontrakoa izan zen argitzeko gertakari horiei eman zekiekeen garrantzia asko erlatibizatzen zuten manifestazioa egin aurretik eta ondoren izan ziren inguruabarrek. Eta inguruabar horiek, gure ustez, oinarririk gabe uzten zuten interesdunak halako gertaerak jazo zitezkeela bazekiela baloratzea.

Gai honekin lotuta, kexa aurkeztu zuenak adierazi zigunaren arabera, *“poliziaren jarduera oso eztabaidagarria izan zen, izan ere, erreprimitutako martxaren aurreko egunetan hainbat politikarik, baita Eusko Jaurlaritzako kideek ere, zenbait elkarrizketatan publikoki nabarmendu zuten deitutako martxaren zilegitasuna, eta horrek benetako nahasmena sortu zuen aipaturiko deialdiaren legezketasunean edo legez kanpokotasunean; hortaz, herritar kopuru handia bertaratu zen bai manifestari gisa, bai herritar gisa espaloietan ekitaldia ikustera, baina betiere deialdiak legezketasun abal guztiak zituela sinetsita”*.

Erakunde honek aurrez ere izan zuen aukera horren gaineko iritzia azaltzeko, Herrizaingo Sailaren esku-hartzearen zenbait alderdi argitzeko xedez izapidetu genuen ofiziozko espediente batean, eta horren berri eman genuen 2002ko ohiko txostenean. Espediente horretan erreklamatzailleak adierazitakoaren antzeko ondorioa atera genuen; sail horrek deialdiaren legezketasunaz zabaldu zuen informazioa anbigua zela eta manifestazioa baimenduta zegoela edo, behintzat, Ertzaintzak onartuko zuela pentsarazten zuela iruditu zitzaigun. Horretarako Sailak berak emaniko azalpenen gainean prentsak zabalduzako informazioan eta haren jardueran oinarritzen gara, bai eta prentsa ohar ofizialetan ere.

Erreklamatzailleak, kexarekin batera, egun haietan prentsan zabaldu ziren informazio batzuen kopia bidali zigun. Informazio horiek indartu egiten zuten Herrizaingo Sailak manifestazioaren aurreko egunetan, bai eta manifestazio egin zen egunean bertan ere, publikoki eman zituen azalpenak anbiguoak izan ziren tesia. Anbiguoak izateaz gain, ekitaldia ez zegoela debekatuta eta Ertzaintzak esku hartu behar izanez gero ere, nolana ere, bertan sor zitezkeen gorabeherengatik izango zela ulertarazten zuten, ez manifestazioa ez-zilegi penala zelako edo judizialki hala deklaratu zelako.

Jasan zituen lesioei dagokienez bide penalean izandako irizpen judizialak ere helarazi zizkigun. Haietako batzuetan aipatu zen kontu hori, eta ustez manifestazioa egiteko debekurik ez zegoela adierazi zuten.

Bestalde, genituen datuen arabera, Herrizaingo Sailak ez zuen ebazpen arrazoitua eman manifestazioa debekatzeko, legez horretarako betebeharra eduki arren, baldin eta debekatuta zegoela kontsideratzen bazuen edo ordena publikoan eragin zezakeela iruditzen bazitzaion (biltzeko eskubidea arautzen duen uztailearen 15eko 9/1983 Lege Organikoaren 10. artikulua), baizik eta isiltasunarekin erantzun zien ekitaldia antolatu zutenek egindako nahitaezko jakinarazpenari.

Erakunde honen iritziz, azaldutako inguruabarrek erreklamatzaillearen azalpenaren alde egiten zuten; manifestazioa legezkoa edo legez kanpokoa izatearen inguruko nahasmena sortu zen herritarrengan, eta Herrizaingo Sailak ez argitzeaz gain (gure ustez, argitu egin behar zuen arren), azalpen publiko anbiguoekin eta ekitaldiaren jaki-

narazpenari siltasunarekin erantzunez ekitaldia egin ahal izango zela ulertarazi zuen, eta ertzainek esku hartu behar izanez gero gorabeheraren bat zegoelako izango zela, ez manifestazioa egitearengatik bakarrik.

Gure iritziz, adierazitako inguruabarrak, Herrizaingo Sailak prozedura izapidetze-rakoan saihestu egin zituenak, ordea, erabakigarriak ziren manifestazioan parte hartze hutsa edo kalean hura ikustea, bere horretan, poliziaren erantzunaren ondorioz lesioak jasateko arriskuan zeudela onartzea zekarren jarrera gisa hartzea alde batera uzteko.

Gure ustez, inguruabar horiek ere erabakigarriak ziren interesdunak ekitaldia gauzatzekoan gorabeherak izango zirela jakiteko moduan egotea baztertzeko.

Gainera, Sailaren jarduerak berak erakusten zuen manifestazioa egin aurretik ez zuela hauteman manifestazio hori gauzatzekoan ordena publikoan eraginik izango zenik, izan ere, hala iruditu izan bazitzaion, ebazpen arrazoitua eman beharko zukeen deialdia debekatuz, uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoaren 10. artikuluan jasotzen diren baldintzetan, baina, dugun informazioaren arabera, ez zuen halakorik egin.

Manifestazioa egin zen moduak ere ez zuen jarrera batek eta besteak (ekitaldian parte hartzeak edo ikusteak) ukatze ebazpenak adierazten zuen arriskua onartzea zekarrela ondorioztatzeko biderik ematen, izan ere, espedientearen arabera, ibilbidearen erdia egin bitartean ertzainek manifestazioan parte hartzen eta ikusten utzi zuten, eta manifestari batzuk erdian jarrita zegoen polizi lerroa igarotzen saiatu zirenean sortu ziren gorabeheren erantzuna izan zen Ertzaintzaren karga.

Bestalde, Herrizaingo Sailak ezin izan zuen egiaztatu erreklamatazileak gorabehera horietan aktiboki parte hartu zuenik; hori, gure ustez, nahikoa froga litzateke arrisku egoeran jarri zela onartzeko.

Espediente administratiboaren datuak eta manifestazioa egin zeneko inguruabarrak kontuan hartuta, ez zegoen, gure ustez, behar adinako oinarrikerik interesdunak poliziaren esku-hartzearen biktima izateko arriskua bere gain hartzen zuela ohartu behar zuela modu arrazoituan baieztatu ahal izateko -bai manifestazioan parte hartu bazuen, bai kaletik begira bazegoen, manifestazioaren burutik nahiko hurbil-. Herrizaingo Sailak emandako informazioarekin eta ekitaldiaren berri izan eta haren jarduteko moduarekin, aurrez baztertuta zegoela zirudien ordena publikoan arazoak izatea.

Gure iritziz, ez zen egiaztatuta geratu Ertzaintzaren esku-hartzea neurritsua izan zenik, ez baitziren ondorio horretara iristeko behar diren datuak ematen.

Horregatik, ondorioztatu genuen kasu honetan ez zela betetzen Auzitegi Gorenaren doktrinak kaltea jasateko betebeharrak juridikoa dagoela kontsideratzeko ezartzen dituen baldintzak, izan ere, doktrina horretan legez kanpoko edo indarkeriazko manifestazio batean polizi kargaren ondoriozko kaltea jasateko betebeharrak juridikoa dago poliziaren erantzuna neurritsua izan bada bitarteko, modu eta inguruabarrei dagokienez, eta lesionatutakoa arrisku egoeran jarri bada, manifestazio horretan bere borondatez parte hartuta.

Euskadiko Aholkularitza Batzorde Juridikoak prozeduran eman zuen nahitaezko irizpenean azaldu zuenez, Herrizaingo Sailaren irizpidearen aurka, erreklamatazileak ez zuen jasandako lesioa pairatzeko betebeharrak juridikorik, eta haren jokaerak ere ezin zuen hausturarik ekarri ondare erantzukizuna baztertzeko duen lotura kausalean, izan ere, espediente administratiboan ez zen egiaztatuta geratu kexa aurkeztu zuenak oso arduragabekeria larria egin zuenik edo horretarako asmorik zuenik poliziaren aginduak nabarmen desobeditzearekin edo modu arduragabearen arriskua bere gain hartzearekin, jurisprudentziak eskatzen duen bezala.

Hala ere, Batzordearen iritziz, biktimaren jokabideak bazuen nahikoa birtualtasun Herrizaingo Sailaren erantzukizuna arintzeko, eta eskatutako kalte-ordainaren zenbatekoa murrizteko. Izan ere, haren iritziz, arduragabekeriaz jokatu zuten, manifestazioaren buruan edo han inguruan jarraitzea erabakitzearekin, aurrera egitea galarazten zuten polizi lerroa zegoela eta tentsio egoera nagusi zela ikusita.

Ez gentozen bat balorazio horrekin, izan ere, gure ustez, espedientean ez zen egiaztatu erreklamatazalea manifestazioaren buruan egon zenik. Bestalde, ez zen frogatu, gure ustez, poliziak esku hartu zuenean zegoen lekutik alde egiteko modurik izan zuenik, ez eta horretarako behar adina denbora izan zuenik ere, edo hura guztia zer itxura hartzen ari zen ikusita justifikaziorik gabe bertan arrazoizkoa zen baino denbora gehiago egin zuten.

Espedienteak ez zuten egiaztatzen manifestazioa sakabanatzeko alde aurretiko abisurik (bozeramaileei soilik polizi lerrotik aurrera ezin zutela jarraitu zuzenean jakinaraztea ez besterik) edo aurretiazko indarkeriazko gertakaririk izan zenik. Aldiz, frogatzen zuten poliziaren karga ekarri zuten istiluak hasi zirenean ekitaldiaren bozeramaileak polizi taldeko nagusiekin hizketan ari zirela.

Aholkularitza Batzorde Juridikoak berak onartu zuten ezin zela baieztatu poliziak esku hartu aurretik indarkeriazko edo gorabehera larriekiko egoerarik zegoenik interesduna jabetzeko moduan. Aldiz, hark bere eskaeran adierazitako gertakariak agerian uzten zuten Ertzaintzaren esku-hartzeak ezustean harrapatu zuela bera.

- Emaizta

Aurreko argudio horietan oinarrituta, gure ustez, Herrizaingo Sailak ez zuten bete doktrina jurisprudenzialak kexa aurkeztu zuenak kaltea jasateko betebeharrak juridikoa zuela edo haren jokaerak kausalitate lotura erabat edo partzialki hauts zezakeela irizteko ezarritakoa kasu horretan gertatu zela frogatzeko eginkizuna.

Horregatik, eta, gure ustez, horiek direnez interesdunak eskatutako ondare erantzukizuna onartzeko prozeduraren izapidetzean hauteman ziren oztopo bakarrak, erantzukizun aitortu eta erreklamatazaleari jasandako lesioaren kalte-ordainak ematea bidezkoa zela iritzi genion, zenbatekoa zehazteko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 141. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituta.

Gure balorazioa helarazi genion aipaturiko Sailari, adierazi genion ildoan jarduteko prest zegoen jakinaraz ziezagun, edo, hala egin ezean, bere iritzia zein argudiotan oinarritzen zuen azal ziezagun.

Gure eskaerari erantzunez, interesdunak bide judizialera jo zuela adierazi zigun, eta, beraz, gure erakundea sortu zuten Legearen 13. artikulua betez, amaitutzat eman behar izan genuen gure parte-hartzea gai honetan.

## D) Herritarren segurtasuna

⇒ *Irungo San Martzial jaietako egitarau ofizialetik kanpo eginiko artilleriaren deskarga simulazioetan ere segurtasun neurriak hartzea (865/2005)*

- Erreklamazioa

Irungo bizilagun batek gure esku-hartzea eskatu zuten, adierazi zigunaren arabera, 2005eko San Martzial jaietan artilleriaren deskarga simulazio baten lekuko izan baitzen,

eta, bere ustez, bide segurtasuna eta oinezkoena arriskuan jarri baitzen, beharrezko segurtasun neurririk gabe egin zelako.

- Azterketa

Bidali genion laguntza eskaerari erantzunez, Irungo Udalak jakinarazi zigun ez zuela kexak salatzen zuen bezalako gertakaririk jazo izanaren berririk, eta gertaerak jazo zireneko lekua ez zegoela deskargak egiteko baimendutako eremuaren barruan, ez eta jaiaren ibilbide ofizialean ere.

Informazio hori erreklamatzailarekin kontrastatu genuen. Hark adierazi zigun ohikoa izaten dela jaietan konpainia bakoitzak kantinera bere etxean jasotzea eta jai-ekitaldiak amaitutakoan berriz etxera laguntzea, eta bi une horietan dagokion konpainiak karga piroteknikoak leherrarazi ohi dituela. Antzaenez, konpainia bateko kantinera kexan adierazi zizkigun gertakariak jazo ziren lekutik gertu bizi zen.

Informazio berri horrek arrazoizko itxura eman zion interesdunak kontatutakoari, eta udalari jakinarazi genion egiazta zezan. Gure kezka agertu genion horrelako jarduerak egitarau ofizialeko ekitaldien segurtasuna bermatzeko baliabideetatik kanpo geratu ahal izateari dagokionez, izan ere, hala izanez gero, pertsonen eta bideko trafikoaren segurtasuna arrisku nabarian jar lezakete, eta ekintza ofizialak babesten dituzten arau berberen menpe jarri beharko liriateke. Era berean, adierazitako praktika egiaztatuz gero, jaien hurrengo edizioetan berriz halakorik gertatzea saihesteko beharrezko diren neurriak har zitzaizkien egin genion.

- Emaiza

Udalak jakinarazi zigun, 2006. urteko jaiak hurbil zirela, honako neurri hauek hartu zituela: 1) jai ekitaldiak sustatu dituztenei deskargen lekua zehazteko exijitzea; 2) adierazitakoak ez diren beste leketan deskargak egitea debekatua dagoela eta horretarako emaniko baimenean ezarritako segurtasun neurriak kontuan hartzeko betebeharra jakinaraztea; eta 3) jai egun berean artilleriaren arduradunari argibide horiek gogoraraztea, dagozkion ekitaldiak hasi aurretik.

Neurri horiek egokiak iruditu zitzaizkigun kexa eragin zuena bezalako kontrolatu gabeko leherketak berriro gerta ez zitezen. Horregatik, espedientea amaitu genuen, udalari aurrerantzeko jaietan ere neurri horiei eusteko beharra gogorarazita.

## E) Trafikoa

⇒ *Administrazioak ez zuen beharrezko arduraz jokatu zehapen prozeduran jakinarazpen pertsonala egin behar zueneko helbidea zehazteko orduan (910/2004).*

- Erreklamazioa

Pertsona batek gure esku-hartzea eskatu zuen Errenteriako Udalak trafiko arautegia urratzeagatik zehatu zuelako eta ez zuelako zehapen prozeduraren izapideen berririk izan betearazte bidera iritsi arte. Antzaenez, erreklamatzaila bizilekuz aldatu zelako izan zen eta, zirkulazioaren gaineko udal zergaren ondorioetarako eta, oro har, ondorio

fiskaletarako udalari jakinarazi zion arren, ez zuen aldaketaren berri eman Ibilgailuen Erregistroan, horretarako betebeharra bazuen ere. Udal administrazioak jakinarazpen pertsonal guztiak Erregistro honetan ageri zen helbidera bidali zituen, arrakastarik gabe, hartzailea ezezaguna zelako, eta ez zuen kontuan hartu helbide berria, Erregistroan ageri zen helbidean interesduna ezezaguna zela ikusi zuenean jakin zuena. Aldiz, zehapena nahitaez betearazteko prozeduraren jakinarazpenak helbide berrira bidali zituen.

- Azterketa

Konstituzio Auzitegiaren irailaren 13ko 145/2004 Epaian oinarrituta, kexaren antzeko kasu bat aztertzen baitu, gure iritziz, interesdunak trafikoko arautegiak ezartzen dituen betebeharrak bete ez zituen arren, helbide berria arloko agintariei ez jakinarazteagatik, udalak ere ez zuen zegokion diligentziaz jokatu, datu hori ezagutzen baitzuen edo ezagutzeko aukera nabarmenak baitzituen, aurrerago betearazte prozeduran erakutsi bezala. Halaber, jarduteko modu horrek erreklamatzailerak konstituzionalki defendatzeko modurik gabe utzi zuen nabarmen.

Bestalde, interesdunak helarazi zigun dokumentazioa aztertzean ohartu ginen, gainera, zehapen prozedura zehatzeko ekintza jada preskribatuta zegoenean hasi zela.

Gure ustez, bi akatsek zehapenaren baliorik eza agertzen zuten, eta hala adierazi genion udalari.

- Emaita

Gure balorazioari erantzunez, udalak jakinarazi zigun zehapena balio gabetuko zuela, arau-haustea preskribatua zegoela iritzita. Halaber, adierazi zigun jakinarazpen pertsonalak behar bezala egin zirela iruditzen zitzaizkela, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren geroagoko epaian babestuta (2005eko maiatzaren 18ko Epaia - JUR 2005/221640).

Informazio hori ikusita, espedientearen amaitu genuen, kexa eragin zuen zehapena ondorioz gabe utzi ondoren, esku hartzen jarraitzeak zentzurik ez zuela ondorioztatuta.

Hala ere, amaierako idazkian udalari adierazi genion, gure iritziz, bere iritzia oinarritzeko epaian aztertutako kasua funtsezko elementu batean desberdina zen kexa eragin zuenarekin eta Konstituzio Auzitegiak aztertu zuenarekin alderatuta, izan ere, Auzitegi Nagusiak aztertutako kasuan zehatzeko administrazioak ez zuen helbide berria ezagutzen, eta kexaren kasuan, ordea, Konstituzio Auzitegiak epaitutakoan bezala, administrazio horrek ezagutzen zuen helbide berria.

Horrez gain, adierazi genion, gure iritziz, bi irizpen judizialen arteko kontraesana, nolahi ere, Konstituzio Auzitegiak emanikoaren alde ebatz zitekeela; ez zion inolako garrantzirik eman defentsarako eskubidearen ikuspegitik (Konstituzioaren 24. artikulua) jakinarazpenak trafikoko legeriak adierazten duen helbidera bidali izanari, ez eta interesdunak bere helbide berria legeria horrek zehaztutako erregistroei jakinarazteko betebeharra ez bete izanari.

Horiek horrela, administrazio horri dei egin genion etorkizuneko bere jardueraz azaldutako doktrina konstituzionalera egoki zezan.

### 7.3. ERTZAINZAREN ZIEGEN ETA UDAL ATXILOGUNEEN EGOERA

Urtero, Ararteko erakundeak hainbat jarduera burutzen ditu, *Ziegak*. *Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloteta-zentroak* izeneko txosten berezian (1991koa) egin genituen gomendioak zenbateraino bete diren jakiteko. Horretarako, aurten, erakunde honen ordezkari batzuk Arkaute, Oiartzun eta Deustun kokatuta dauden ertzain-etxeak ikustera joan dira.

Bisiten ondoren, zentro horien egoerari eta atxilotuek jasotzen duten tratamendua- ren inguruko polizi jardunei buruz egin genuen balorazioa Eusko Jaurlaritzaren Herrizain- go Sailari helarazi genion. Hala, kontu horren inguruan eta helarazi genizkion argibideen inguruan zuen iritzia hamabost eguneko epean helaraz ziezagula eskatu genion. Txosten hau amaituta dugun honetan, eta orduz geroztik bi hilabete igarota, Administrazioak ez dio gure eskaerari erantzun eta, ondorioz, ezin izan dugu bere erantzuna jaso.

Horregatik, gure oharrak bakarrik aipatuko ditugu hemen, gaika bilduta, eta ez zentroka; beraz, horietako batzuetan ikusitako hiru lekuak aipatuko dira, eta beste batzuetan, berriz, hiruretakoren bat bakarrik, kasu bakoitzean zehaztuko dugunez. Gure helburua honako ideia hau indartzea da: proposa litezkeen hobekuntzak ez direla bisitatu den eta kasuan kasuko disfunzioa duen zentroan soilik aplikatu behar, baizik eta disfunzio hori duten zentro guztietan.

#### 1. Instalazioen egoera materiala

- 1.1. Garbitasun eta mantentze egoera: oro har egokiak dira, nahiz eta Oiartzunen trafiko gaietarako ziegen eta krimen gaietarako ziegen arteko korridore komuneko paretek, garajearekin lotzen den gelaren ondoren dagoen eremuan, zikin-orban handiak zituzten. Gune horretako paretetan eta itxarongela gisa erabiltzen den gunekoan zenbait pitzadura ere baziren. Administrazio zonako ate eta pareta batzuk ere hondatuta zeuden. Deustun, geletako pareta batzuetan zikinkeria zegoen eta atean eta paretetan, berriz, inskripzioak. Kontuan hartuta ateak eta paretak, irizpide onari jarraiki, pintura garbikorrarekin estalita daudela, ez dirudi zailtasunik egongo denik horien mantentzea hobetzeko; hori, ordea, ez da hala administrazio gunean.
- 1.2. Gelen argiztapenari dagokionez, aurreko bisitaldietan ikusi zen beharrezkoa zela Oiartzunen eta Arkauten argiaren intentsitatea graduatzeko sistema jartzea barruan, atxilotua zaintzea eta horrek atsedean hartzea bateragarri egin ahal izateko. Halaxe egin da Oiartzunen; ez, ordea, Arkauten. Hemen argia piztuta geratzen da eta ez du inolako graduaziorik.
- 1.3. Bainugeletan ere beharrezkoa da segurtasun baldintzak eta atxilotuaren eskubideak (kasu honetan, intimitaterako eskubideak) bateragarri egitea. Horretarako, iradoki zen garaiera ertaineko panela jartzea komunaren aurrean, eta halaxe egin da hiru kasuetan. Hala ere, Oiartzunen eta Deustun panela jartzea nahikoa den arren nahi zena lortzeko, ez da gauza bera gertatzen Arkauten; izan ere, hemen komuna oraindik guztiz agerian geratzen da atetik, hau beti gardena baita.

- 1.4. Adingabeentzako berariazko gelak: 2003ko gure txostenean argi utzi genuen hobekuntza nabarmena izango zela Deustuko 16 geletako bat ondorio horietarako gaitzea eta gomendatu genuen neurri hori Adingabeen Erantzukizun Penalaren Legea aplikatuz atxilotetak har ditzaketen instalazio guztietara zabal zedila. Ez Arkauten ez Oiarzuen ez da gomendioa bete, arduradunen arabera, ez dutelako adingaberik jasotzen. Hala ere, onartu dute gerta daitekeela eta, beraz, beste edozein gela erabili beharko luketela. Hori ez dator bat aipatu legearen erregelamendua onartzen duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren 3.5 artikulua horri dagokionez ezartzen duen eta ondorio hauetarako oraindik indarrean dagoen betebeharrarekin.

## 2. Atxilotuekin zerikusia duten polizia-jarduerak

- 2.1. Herrizaingoaren arlo honen sarreran, atxilotetetan gorputz miaketa egiteari buruz dugun iritzia aipatzen da.

Gure bisitetan, ikusi ahal izan genuen bi alderdiri dagokienez ez dela betetzen 2001ean Arartekoak kontu horri buruz egin zuen gomendio orokorra: atxilotua erabat biluztea, ohiko jarduera den ala ez kontuan hartu gabe, atxiloteta-prozesuaren fase bakoitzean haren zaintzaz arduratzen diren langileen irizpidearen pean geratzen da. Bestalde, neurri hau proportzionaltasun irizpideetara egokitzen dela kontrolatzea bereziki zaila da, gertatzen denean, ez baita jasota geratzen ez atxilotuen liburuan ez atxilotetaren gorabeherak biltzen dituen burotikako erregistroan. Miaketa “azalekoa” edo “sakona” izan den baino ez da aipatzen. Hori oso generikoa da, horrek ez baitu esan nahi atxilotua erabat biluztera behartu denik, nahiz eta, hala egiten denean, miaketa “sakona” izan dela agertzen den.

- 2.2. Atxilotuaren eskubideen inguruko informazioari dagokionez, hobe daitekeen alderdi gisa atxilotetaren arrazoiak jakinarazteari dagokiona aipa dezakegu. Jakina denez, Prozedura Kriminaleko Legearen 520. artikulua dio kaltetutako pertsonari nahitaez jakinarazi behar zaizkiola “*egotzi zaizkion gertakariak eta askatasuna kentzea eragin duten arrazoiak*”. Kontsultatu genituen atestatuetan, hala ere, egiaztatu ahal izan genuen aktak, zentzu horretan, delitu mota izendatu baino ez duela egiten eta, beraz, legeko xedapen horren argitan, ez litzateke egokia izango.

Litekeena da atxilotuak egotzi zaizkion gertakarien berri izatea, hitzez esan zaizkiolako. Hala ere, erakunde honek uste du eskaini diren azalpenak idatziz jasota uzteak eskubidea benetan errespetatu izanaren bermea indartzen duela. Aurretik egindako bisitetan, agerian utzi genuen eskubideen berri emateko aktetan gabezia hori zegoela eta sailak adierazi zuen zuzenduko zuela; horregatik, ez dugu ulertzen zergatik ez diren jarri oraindik horretarako bitartekoak. Azpimarratu behar dugu, nahiz eta ez den beharrezkoa deskribapen xehatua egitea, agiriak, gutxienez, atxilotuari horren ildotik eskaini zaion informazioaren laburpena jaso behar duela; horrela, atxilotuak egotzi zaion egintzaren edo omisioaren berri baduela ziurtatuko da eta ez bakarrik egintzaren edo omisioaren kalifikazio juridikoaren berri.

- 2.3. Gure bisitetan, atxiloteta gertatzen denetik atxilotua aske edo epailearen esku utzi arte gertatzen diren fase edo gorabehera guztien erregistroa egiteko, atxilotuen

liburua bailitzan, erabiltzen den aplikazio informazioaren funtzionamendua egiaztatu ahal izan genuen. Horri esker, jarraipen zehatza egin daiteke eginbide desberdinak non eta noiz gauzatzen diren. Gure ustez, horrek, grabazio sistemarekin batera, une oro eskubideen garantia indartzen laguntzen du. Hori guztia oso modu positiboan baloratzen dugu.

Hala ere, Oiartzunen ikusi dugu burotikako liburuak, atxilotua gelatik atera den aldi guztiak adierazten zituen arren, kasu batzuetan oro har “eginbideak egitera” baino ez zuen aipatzen horretarako arrazoi gisa. Gure ustez, aipatu ditugun berme ondorioetarako, hori ez da nahikoa, gelatik atera den bakoitzean zein eginbiderako atera den jasota geratu behar baitu.



## 8. JUSTIZIA

### 8.1. SARRERA

Auzitegiek beren zereginak gauzatzera izan behar duten askatasunaren ondorioz, beren erabakiak ezin izaten dira beren jurisdikzio ordenaz kanpotik ikuskatu. Horrek Arartekoaren esku-hartze aukerak mugatu egiten ditu pertsonen eskubideei eta interesei zuzenean eragiten dien eremuan; eragin hori dela bide, gainera, gure erakundearen erreklamazio ugari aurkezten dira eremu horrekin lotuta.

Ezin izaten ditugu onartu, azaldutako muga dela-eta, beren jurisdikzioaren mende dauden kontuei lotuta epaileek izandako irizpidearekin desadostasunak azaltzen baitituzte. Bai, ordea, kexen zioek epaitegien menpe dauden giza baliabideekin edo bitarteko materialekin zerikusia dutenean, bai epaitegien antolaketa dagokionez, bai zerbitzuei azkartasunez eta kalitatez erantzuteko demokrazia aurreratu bateko Justizia Administrazioak izan beharko lukeen gaitasunari dagokionez. Abokatuen eta prokuradoreen elkargoen funtzionamendua ere arduratzen gara, administrazio korporatibo horri baitagokio elkargoko kideek beren eginkizuna, herritarrek eskubideak eta legezko interesak auzitegien aurrean baliatzea, alegia, modu egokian betetzen dutela zaintzea.

Espedientea abiatzea eragin duten erreklamazioen artean, gaikako banaketa hau egin daiteke:

- Espetxe gaietako jarduerak .....	16
- Justizia Administrazioaren funtzionamendua .....	15
- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak .....	8
- Doako laguntza juridikoa .....	7
- Eskubideak eta askatasunak .....	3
- Beste batzuk .....	2

**Justizia Administrazioaren funtzionamenduari** dagokionez, gure jarduerari legetik eratorrita jartzen zaizkien mugez aparte eta askatasun judiziala errespetatu beharraz aparte, auzitegien iritzia mendeko egon diren gaietarako kexa guztiak ez dira automatikoki baztertzeko. Batzuetan, horien atzean informazio falta dagoela ikusten dugu, edo disfuntzioak prozeduraren garapenean, hasi jakinarazpen akatsetatik eta jardueretan izandako atzerapen ez oso arrazoizkoetara. Beste kasu batzuetan, ebazpen baten edukia eta hark errealitatean izan duen islaren arteko desadostasunak atzeman daitezke, legegilearen helburuak zapuzten dituzten eta jendeari beren eskubideak baliatzea eragozten dioten oztopoak sortzen dituzten betearazpen faseko hutsuneengatik. Egoera horiek kudeaketa zuzenean bidez gaintzen laguntzen saiatzen gara, eta, esan beharra dago kudeaketa horietan epaileen eta fiskalen aldetik normalean erabateko lankidetzak jarraitzearekin topo egiten dugula, eta hori bene-benetan eskertzen dugu.

**Atzerapen judizialei** buruzko kexa asko aurkeztu dira aurreko urtean, Justizia Administrazioaren langileen grebaren eraginez. Hala eta guztiz ere, jurisdikzio gehien-gehienetan atzeman ahal izan da hobekuntza orokorra epaitegiei eta auzitegiei loturik egiten den ahaleginaren ondorioa izan da. Bi jurisdikzioetan, halere, izapideak egiteko izandako atzerapenak bereziki kezagarriak dira.

Horietako bat familiaren jurisdikzioa da, eta horri dagokionez oraindik ere kexak iristen ari zaizkigu, neurriak hartzerakoan, frogak egiterakoan eta epaia emateko epeetan izandako atzerapen onartezinaren inguruan. Horrek guztiak prozesuan islatzen den famili arazoa okertu besterik ez du egiten, eta ukitzen dituen pertsonengan duen kaltea handiago izaten da pertsona horien egoera ahulagoa den heinean; adingabeetan, gainera, eragin berezia dauka. Gai hori aurrerago jorratuko dugu xehetasun handiagoz.

Bestea administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da. Gure lehengo urteko txostenak urteetan gelditu egondako prozedura batengatik egindako erreklamazio baten berri ematen zuen; erreklamazio horren ondorioz, Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako lehendakariarengana jo genuen. Kasua azaltzeaz gain, gure kezka adierazi genion errefortzu planaren eraginkortasunaren inguruan. Oso-oso antzeko kexa baten ondorioz 2003an jakinarazi zitzaigunez, plan horrekin etorkizunean atzerapenak gertatzea saihestu eta Sala horren egunean jartzea lortu nahi zen.

Erantzunean, lehendakari jaunak, Sala horrek egindako txosten osoa helarazi eta hasitako kexa espediente artxibatu egin zela jakinarazi zigun, Sala hari atxikitako magistratuen solairuko egoera ikusita, salatutako atzerapenaren ziozko irregularitasunak egon zirenik ezin baitzen esan. Horrek erakusten duenez, beraz, instantzia bakarreko administrazioarekiko auzi kontu batean epaileentzat hiru urteko tartea “normala” da gaur egun dituzten bitartekoekin. Edonola ere, dirudienez epe motzean egoera aldatuko dela pentsatzeko arrazoirik ez dagoela da kezkgarriena, kexa honen zioz Salako magistratu-lehendakariak egindako txostenean ematen den beste datu bat ikusita. Izan ere, magistratu-lehendakariak bertan adierazten zuen bere garaian onartu zen errefortzu plana Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ez zuela berrituko 2006rako.

Beste erreklamazioa eragin zuen kasuarekin amaitzeko, Salak jakinarazi zuenez, garai hartan (2006ko urtarrila) prozedura frogaldia hasteko zain zegoen, baina frogaldia ezin izango zen abiatu hura baino lehenago zeuden eta izapide berdinen zain zeuden beste espediente batzuk ikusi arte. Hala, kontu honekin 2006ko ekainean bukatzea aurreikusten zen. Baina, gure erreklamatazaileak esan digunez, txosten hau egiterako auzia oraindik bukatu gabe dago eta, gainera, frogak aurkezteko epea 2007ko maiatzera arte atzeratu da. Horrekin batera, hau aipatu zuen:

*“Jakinarazi behar dizuet frogak aurkezteko lau lekuko nituela; lekukoek adierazpen bat sinatu zuten ezbeharraren hurrengo egunean, baina denboraren poderioz, 6 urte baino gehiago, lekukoetako bat hil egin da, beste batek notario aurrean adierazi du bere osasuna eta adinarengatik ez dela gomendagarria lekukotasuna ematea, hirugarrenak iritzia aldatu du eta ez du lekukotasunik eman nahi. Laugarrena soilik joango da lekukotasuna ematera, ez bada ezer gertatzen..... Horrek erakusten du justizia garaiz aplikatu behar dela”.*

Hori guztia ikusita, begien bistakoa dirudi orain arte martxan jarritako planak eraginkortasun mugatua izaten ari direla Euskal Autonomia Erkidegoak justizi zerbitzu nahiko azkarra izateko helburuarekin lotuta eta arazoa bereziki larria dela Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari dagokionez.

Gainerakoan, zerbitzu horren kalitatea beste faktore batzuen mende dago ere, eta horien inguruan kexak jasotzen jarraitu dugu. Kexa horiek labur-labur aipatuko ditugu jarraian.

**Epaitegiek eta auzitegiek erabilitako hizkerari** dagokionez, pasa den urteko gure txostenak zehatz-mehatz aztertu zituen hizkera horren gabezia nagusiak. Urte bat geroago, zitazio inprimaketan hobekuntza nabari dela esan behar dugu, nahiz eta noizean behin saihestu egin beharko liratekeen formulak erabiltzen jarraitzen den; formula horiek ez dute inolako informazio materialik jasotzen norbait epaitegira deitzen den ekintzen edukiaren inguruan, hala nola, hau adierazten zaionean: *“Zitazioaren arrazoia: eginbideak egitea”*.

Ebazpenen kalitate komunikatiboari dagokionez, ulermen arazoak sortzen dira oraindik ere, eta ez soilik hiztegi iluna erabiltzen delako edo akats sintaktikoak edo puntuazio akatsak daudelako: azaltzeko argitasunaren kontua da, ebazpenaren beraren kalitate juridikoarekin zerikusia duena. Ikus daitekeen moduan, epailearen ebazteko gaitasuna handiagoa den heinean, gaitasun handiagoa du gertakari edo oinarri juridiko jakin batzuetatik abiatuta ondorio batera iristeko jarraitu duen prozesu deduktiboa era ulerkorrean, baina ez horregatik ohizko bihurtuz edo ñabardurak galduz, azaltzeko. Baina ezin esan daiteke, eta hau azpimarratu egin nahi dugu, hori gertatzen denik gure epaitegiek eta auzitegiek ematen dituzten ebazpen gehien-gehienekin. Argitasuna eskatzeak, bestalde, ez du esan nahi epaileak jarraitu duen arrazonomendua urrats guzti-guztiak zehatza-mehatz azaldu behar direnik. Baina ezin dugu aipatu gabe utzi oraindik ere auto eta epai askotan gertatzen dela epaileak kasu askori aplikatu dakiokeen irizpide abstraktua azaltzera mugatzea eta, horren ondoren, zuzenean, ebazpena ematea, irizpide hori, bere iritziz, kasu horri zergatik aplikatu dakiokeen azaldu gabe eta irizpide horren ondorio zehatzak azaldu gabe. Jakina, disfuntzio horrek irtenbidea du, errekursoaren bidetik, kasurik nabarmenetan. Hala ere, orain dela denbora askotik dago arrazoi faltagatik ebazpena aurka egiteko aukera, baina horrek ez du eragotzi hizkera judicialaren kalitate komunikatiboan dagoen hutsunea oraindik ere arazo izaten jarraitzea. Arrazoi beragatik, horren irtenbidea ez da izango kasu partikularretan arrazoi hori dela bide jarritako errekursoek izan dezaketen zortearen araberakoa. Aitzitik, hobetzeko konpromisoa behar da, epaileei ez ezik gainerako eragile juridikoei ere eragingo diena, eta, hala, neurri zehatzak hartzea eskatuko duena, *“Justiziaren aurrean herritarrek dituzten eskubideen gutunaren”* esparruan ebaluatuko direnak; gutun hori Diputatuen Kontseiluaren 2002ko apirilaren 12ko osoko bilkuran onartu zen aho batez.

\* \* \*

**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoen jardunak** ere gure esku-hartzea eragin dezake, baldin eta profesional jakin batzuen jardueraren kontra jarritako salaketak tratatzeko orduan elkargoek duten moduan kexatzen badira herritarrak. Aurten horri dagozkion bermeetan atzerapausoa nabaritu dugula aipatu behar dugu. Eta ez salaketa horiek kasu gehienetan arretaz eta zorroztasunez izapidetzen ez direlako. Baizik eta lan horretan atzerapenak eta arduragabekeriak sortzen diren kasuak gutxi izan arren, lehendik gure iritzia azaltzeko aukera izan dugun beste alderdien antza dutelako. Gainera, kasu horietako gure gomendioak elkargoek onartu egin dituzte etorkizunerako funtzionamendu arau gisa.

Zenbait diziplina espedienteetan ikusi ahal izan ditugun arazoak dira, hain zuzen, horietako batzuk, izapideak egiteko prozesuan atzerapenak erakusten baitituzte beharrezkoak ez diren izapideak errepikatzeagatik, bai eta arrazoitze falta artxibatze

ebazpenean ere. Legekarien Euskal Batzordeak hartutako irizpide orokorra ere hemen sartzen da; horren arabera, salatzailea ez dute interesdun gisa hartzen norbaitek artxibatze hori errekurritu nahi badu.

Aipatutako lehenengo arazoa bi kexak erakusten dute, biak Arabako Abokatuen Elkargoaren kontra jarritakoak; kexa horietan ikus daitekeenez, jarraitu den prozedurak bai alderdi salatzaileak bai salatutakoak beren eskubideak baliatzeko eta beren legezko interesak defendatzeko aukerei eragin die praktikan.

Lehenengo kexan, Ofiziozko Txandaren Batzordeak salaketak ukitzen zuen abokatuarengana jo zuen, eta salaketa horren berri eman zion alegazioak egin zitzen. Horrez gain, izapidearen berri eman zion erreklamatzailari. Espedientetik ondoriozta daitekeenez, abokatuak lehenago Abokatuen Elkargora jo zuen, eta izaten ari zen arazoak azaldu eta bere bezzeroaren interesen defentsa uzteko eta, besteak beste, zego-kion ofiziozko txandan bere baja eskatzeko arrazoiak eman zituen. Pentsatzen dugu Batzordeak gaiaren berri izan zuelako abokatuak ez zuela beharrezkotzat jo alegazio gehiago egitea. Edonola ere, salaketaren ondorengo bost hilabeteetan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Arartekoaren esku-hartzearen ondorioz, Ofiziozko Txandaren Batzordeak abokatuari eskatu zion erreklamatzailaren kexari lotutako alegazioak “*premia*z” berriro egin zitzen. Abokatuak, orduan, Batzordera zuzendu eta, aurreko bere idatzietara joz, gertatutakoaren inguruan zuen bertsioa azaldu eta espedientea artxibatzea eskatu zuen. Hilabete geroago, gaia Batzorde Deontologikora eramatea erabaki zuela adierazi zion aipatutako Batzordeak. Batzorde Deontologikoa, ondoren, kexa egin zuenarengana zuzendu zen kexa jaso zuela esateko eta “*aurretiazko informazio aldia zabaldu zela*” jakinarazteko; informazio aldi horren berri izango zuela adierazi zioten. Egun berean, Ofiziozko Txandaren Batzordeak hamar eguneko epea eman zion abokatuari berriro ere bere “*alegazioak eta deskarguak*” adieraz zitzen. Izapide hori gauzatu ondoren, Elkargoak berriz erreklamatzailarengana jo zuen, hiru hilabete geroago, eta dekanok sinatutako idatzi batean, kexa jaso izana adierazteaz gain –kexa ia urtebete lehenago egin zen–, honako hau eskatu zion: “*lehenengo eta behin, eta hamar eguneko epean, bere salaketa berretsi dezala eta, hala badagokio, salaketaren izapideak egitea onartu daitekeen zehazteko behar diren dokumentuak edo aurrekariak osatu, azaldu edo aurkez ditzala eta jakinarazpenetarako helbidea eman dezala. Horrez gain, epe hori ezer egin gabe igarotzen bada, salaketa artxibatzea erabaki ahalko dela jakinarazten da*”.

Erreklamatzailak ez zuen beste idatzirik aurkeztu, eta hortaz, Gobernu Batzordeak bi alderdiei jakinarazi zien hasitako aurretiazko informazio espedientea artxibatzea erabaki zela, salaketa ez baitzen berretsi. Erakunde honek bukatzeko esan behar du izapideak behin eta berriro alferrik egiteaz gain eta prozeduraren atzerapenez gain –segurtasun juridikorik eza nahiz epeen preskripzioa eragin duena–, prozesua bukatzeko moduak zalantza asko sortzen dituela. Ez da logikoa gaia Ofiziozko Txandaren Batzordetik Batzorde Deontologikora pasatzean izapideak egiteko prozesu guztia berriro hastea. Gainera, une horretara arte alderdiek egindako adierazpenei ez zitzaien jaramon egin eta erreklamatzailak, Elkargoari igorritako idatzietan nahiz Arartekora jotzeagatik bakarrik, inplizituki adierazi zuen berrespena eskatu zen. Proporzionaltasun eta zuzentasun zentzu minimoarekin ere ez dator bat berrespena 10 eguneko epean egiteko eskatzea Elkargoaren erantzunaren zain ia urte bat zeraman erreklamatzailari, hala

egin ezean artxibatu egingo baitzen –hori gertatu zen azkenean, hain justu–. Azkenik, bere deskarguan abokatuak baliatutako argudioen berri ez zaionez interesdunari inoiz ere eman, normala da alegatzeko arrazoi gehiago ez izatea.

Bukatzeko, esan beharra dago Elkargoak ez ziola inolako erantzunik eman beste ofiziozko abokatu bat izendatzeko erreklamatzailerak egin zuen eskaerari; Arartekoak, gainera, bere lehenengo esku-hartzean mahaigaineratu zuen eskaera hori.

Aipatu ditugun kexetako bigarrenen, pertsona bat kexu zen Elkargoko Gobernu Batzordeko kide zen abokatu baten kontra jarritako salaketaren inguruan Elkargoaren aldetik informazio gutxi eta erantzun falta zegoelako. Urtebete lehenago, abokatu beraren aurka jarritako kexa bati dagokionez Elkargoak izan zuen kudeaketa moduarengatik beste espediente bat hasi zen gure erakundean, hain justu, antzeko arrazoigatik.

Salaketa 2003ko abenduan jarri zen Elkargoaren aurrean, baina 2005eko maiatzean abokatuak ez zituen oraindik alegazioak egin; hala, denbora tarte horretan gauzatzeko eskatu zitzaizkion betekizunak ez betetzeak ez zuen inolako eraginik izan. Gure esku-hartzearen ondorioz, izapide hori azkenean gauzatu egin zen, baina Elkargoak ez zigun eman kasuaren inguruan eskatu genion informaziorik; gaia Ofiziozko Txandaren Batzordetik Batzorde Deontologikora eraman zutela soilik jakinarazi ziguten. Berririk ez genuenez, 2006an errekerimendu bat bidali genion Elkargoari informazio hori bidal ziezagun, eta bere lankidetzat falta eragiten ari zen kaltea ikusarazi genion. Bi hilabete geroago, gaia Legekarien Euskal Batzordera eraman zela esanez erantzun zigun, Batzorde horrek baitzuen eskumena elkargoetako Gobernu Batzordeetako kideen kontra jarritako salaketetan, eta hori da, hain zuzen, salatuaren kasua, Batzordeko kidea baita halaber.

Ez genuen beste jakinarazpenik jaso 2006ko irailaren 25era arte. Orduan, “*zure eskaerari bukaera emateko*”, Elkargoak Legekarien Euskal Batzordearen ebazpena bidali zigun; ebazpen horren bitartez, uztailean salaketa artxibatu egin zen, iritzi elementu bakarrak salatzailearen eta salatuaren aitortpen kontraesankorrak zirela ikusita.

Abokatuaren jardunean erantzukizunik egongo balitz ere, erantzukizuna preskribatuta egongo litzateke igarotako denbora luzea ikusirik; arazo hori bera azaldu zitzaigun Arabako Elkargoko eta Gipuzkoako Elkargoko espediente banatan. Bestalde, denbora tarte horretan ez zen inolako izapiderik egin gertakariak aztertzeko, alderdien bertsioak jasotzea kenduta. Gure iritzi, horrek guztiak, erakunde honen lanarekin berandu eta bukatu gabeko lankidetzaz gain, espedientearen izapideak egitean atzerapenak eta akatsak azalarazten ditu, eta horiek aurkeztutako erreklamazioari eraginkortasuna kendu diote.

Aipatutako beste arazoak islatzeko, Legekarien Euskal Batzordearen aurrean errekurtsua aurkeztzen saiatu zen pertsona batek jarritako erreklamazioarekin gertatutakoa aipatuko dugu. Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak artxibatu egin zuen arau-hauste deontologiko batengatik salaketa, eta horren auka egiten saiatu zen pertsona hori. Errekurtsua aurkezteko epea hilabete batekoa zen, baina erreklamatzailerak lau hilabete behar izan zituen bere idatzia Elkargora bidaltzeko; horregatik ulertu zen artxibatzea irmoa zela. Hala ere, elkargoaren erabakia, hots, abokatuaren jokabidea zuzena izan zela, hark bidalitako dokumentazioan oinarritu zen, baina ez zuen horren edukia eza-gutzera eman. Elkargoak une hartan ez zuenez onartu dokumentazio hori ikusi ahal izateko erreklamatzailerak egin zuen eskaera, salatzaileak ezin izan zituen errekurtsu bidez gezurtatu Elkargoaren erabakiaren oinarriak eta, ondorioz, babesgabetasun egoeran geratu zen.

Halakorik saihesteko, Kontseiluari proposatu genion beharrezkoa zela Batzordeak Gipuzkoako Elkargoari alegazioen edukia eskatzea eta hori erreklamatzailari helaraztea, eta adieraztea horien berri jasotzen zuenetik errekurtsua aurkezteko epea noiz zenbatzen hasten zen; edo, bestela, abokatu horren aurka egindako erreklamazioa artxibatzeko arrazoirik ez zegoenez, aurkeztutako idazkia artxibatzeko erabakiaren aurka garaiz eta behar zen moduan jarritako errekurtsotzat hartzea eta, beste izapiderik gabe, horren inguruko ebazpena ematea. Hori guztia gaiaren mamari dagokionez ebatz zitekeena gorabehera.

Horri erantzunez, Batzordeak adierazi zuen artxibatzeko erabakia irmoa zela, hilabeteko epean ez baitzen horren aurkako errekurtsorik aurkeztu. Egoerari arrazoizko irtenbideak emateko Arartekoak proposatutako ideiak ere ez zituen onartu, honako bi arrazoiketa hauetan oinarrituta:

- *“Zuk azaldutako gertakariak, aipatutako ebazpena arrazoituta ez dagoela adierazten duenak, hein batean eragotzi egiten du haren aurka errekurtsu egokia jartzea. Bestalde, ebazpena onartzea ahalbidetzen du, arrazoitze falta baita hutsune hori duten ebazpenen aurka egiteko arrazoietako bat”.*
- *“Beste alde batetik, salatzailak espedientea artxibatzea ahalbidetu duten arrazoi zehatzak zein ziren ez ezagutu arren, errekurtsuan beti egin zitzakeen bere iritziz artxibatze hori aldatuko ez zuten eta, aitzitik, espedientearen izapidetzea jarraitzea bermatzen zuten alegazioak”.*

Balorazio horrekin bat etortzea ez da posible, Elkargo Profesionaleen Legea eta Abokatutzaren Estatutuen Legea garatzen duen Diziplinazko Prozeduraren 2004ko ekainaren 25eko Erregelamenduko 16. artikuluari jarraiki. Agindu horretatik argi eta garbi ondorioztatzen da Elkargoak salaketa dela-eta erabaki duenaren berri izateko eskubidea ez ezik, erabaki hori zergatik hartu duen azal diezaioten eskubidea ere baduela. Logikoa da, beraz, hala egitea, erabakia inpugnatzeko bidea formalki irekita egon arren, nekez egin ahal izango baita horren aurka oinarri gisa dituen arrazoiak ezagutzen ez badira; hala eginez gero, errekurtsua aurkezteko eskubideak funtsezko edukia galduko luke. Horrek, kasu honetan bezala, erabakia deuseztatzeko aukera ekar dezake, horren inguruan Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 63.2 artikulua lege gorputz beraren 89.3 artikuluari lotuta ezartzen duenarekin bat etorritik.

Kasu honetan, gainera, ez dago zalantzarik erreklamatzailak, errekurtsua aurkezteko epe barruan horretarako bere asmoa adierazi ondoren, eskubide hori behar bezala erabiltzea eragozten zion oztopoa –materialki arrazoirik ez izatearena– kentzeko eskatu zuen eginbide berean. Bestalde, egia da ez zela epe barruan aurkeztu errekurtsua, honek, erabakia deuseztatu ahal izateko zioa gora joz, artxibatzeko erabakia inpugnatzeko aukera emango baitzion. Hala ere, egia da baita ere horren jakinarazpenak ez zituela aipatzen bidezkoak ziren errekurtsuak, ezta horiek aurkezteko epeak ere, datu horiek nahitaezkoak izan arren, Diziplinazko Prozedurari buruzko Erregelamenduaren 16.4 artikulua eta 30/1992 Legearen 89.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

Hori guztia gorabehera, artxibatzeko erabakia irmo bihurtu eta, ondorioz, aurkaezina zela esatea, Elkargoak egin duen bezala, erreklamatzailak, inpugnatu ahal izateko,

epe barruan errekurtsua jarri behar zuela esatea bezala da, horren bidez erabakiaren oinarrien aurka modu arrazionalan egiteko, horien guztien berri eman ez zitzaion arren. Ezin da logika hori onartu, hala eginez gero, arazo bat egotea bere jardunaren bidez eragin duenarentzat onuragarria dela onartzea eta Diziplinazko Prozeduraren Erregelamenduak erreklamatazileari ematen dion errekurtsorako eskubidea benetako edukirik gabe uztea ekarriko bailuke. Hori saihesteko, Legekariaren Euskal Batzordeak, inguruabarrak ikusita, eta erakunde honek proposatu bezala, artxibatzeke erabakiaren aurka garaiz eta behar den moduan jarritako errekurtsu gisa onartu beharko zukeen erreklamatazileak aurkeztu zuen idazkia, eta jardunak erabakia hartu baino lehenagora atzera eramatea aukeratu beharko zukeen, Elkargoak beste erabaki bat eman zezan, deuseztatu ahal izateko zioei jaramonik egin gabe, edo, bestela, errekurtsua zuzenean ebatzi beharko zukeen, espedientea jaso eta proposatutako arazoaren funtsa aztertu ondoren. Hori guztia zegokion garaian ez egiteagatik erantzukizun posibleak preskribatuta egon ala ez. Hori beste arrazoi bat da kasu honetan bi korporazio instantziek izandako jarduera okerra dela esateko.

Azkenik, Gipuzkoako Elkargoak erreklamatazileak eskatutako dokumentazioa (salatutako abokatuaren alegazioak) bidaltzeari uko egin izanak erakunde honek Batzorde horri zuzendu zion 1/2005 Gomendia, urtarrilaren 21ekoa, urratzen du. Horren bidez, adierazi zitzaion, etorkizunean, funtzionamendu arau orokor gisa kasuan kasuko agirien berri eman ziezaiela Prozedura administratiboan parte hartu dutenei –baita diziplina-espedienteen salatzaile gisa agertu direnei ere–. Urratze hori bereziki esanguratsua da, Batzorde horrek gomendioaren edukia onartzen zuela jakinarazi baitzion Arartekoari 2005eko uztailaren 19an jasotako idazkian. Halaxe jaso genuen Eusko Legebiltzarrentzako urteko gure txostenean eta, beraz, tamalez, aipatu jokabidea okerra eta inkongruentea izan zela adierazi beharrean gaude.

\* \* \*

Herritarren kexa askotan aipatzen diren esparru jurisdikzionaleri dagokienez, beste urte batez ere **arlo penalean** jasotakoak aipatu behar dira, kaltetzen diren eskubideak eta askatasunak oinarritzakoak baitira. Inkomunikazio erregimeneko atxiloteten eremuan gertatzen dira oraindik ere horrelako erreklamazio gehienak. Tortura kasuetarako Nazio Batuetako errelatore bereziak, Manfred Nowak-ek, 2006ko martxoaren 21eko ECOSOCeko Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu zuen txostenean kezkarritzat jotzen zen datu bat nabarmentzen dute erreklamazio horiek, errelatoreak Espainiara egindako azken bisitan egin zituen gomendioen jarraipenari lotuta: poliziaren aldetiko tratu txarrei buruzko salaketa gehienak bide judizialek artxibatzea inolako frogarik gauzatu gabe edo froga bakar bat gauzatu (salatutako agenteen bertsioa jasotzea).

Erabaki jurisdikzionalen arloan jarduteko dugun aukerei legeak ezarritako mugek berretsi besterik ez dute egiten, arlo horri dagokionez, argi eta garbi gezur-itxurakoa ez den edozein tortura salaketa behar bezala ikertzeko beharra, 2004ko abenduaren 21ean egin genuen adierazpenean luze eta zabal justifikatzen genuen moduan. Aitzitik, bai esku hartu dezakegula, eta, gainera, gure eginbeharra da hala egitea, euskal polizi autonomikoak edo udaltzaingoek ikerketa hori barruan egin dutela ziurtatzeko beren agenteen jarduera bati lotutako salaketa denean.

Hori gertatu zen jaso genituen bi keharekin, hain zuzen, inkomunikazio erregimean atxilotuta zeuden pertsonen tratua txarrak ematea egotzi baitzitzaion Ertzaintzari. Ez da erakunde honen lana salatutakoaren gisako gertakari larriak benetan gertatu ziren edo ez zehaztea, eta horri dagokionez, zegozkion eginbide judizialak ireki ziren bere garaian, eta horiek, azkenean, artxibatu egin ziren. Baina, aitzitik, bai da gure lana funtzionarioen aldetik tratua txarrak edo tortura egoteko aukeraren inguruan sortutako edozein susmo argitzeko administrazio eskudunak lagundu dezan zaintzea.

- Salaketak aztertzerakoan ekimen, gardentasun eta eraginkortasunez jardutea, salaturiko pertsonen bertsioa lortzea baino haratago eramanez.
- Agintaritzaren judizialari ikerketaren esparruan eska dezakeen informazio guztia berehala helaraziz, eta horrekin batera, ikerketa garatu bitartean sor daitezkeen informazio guztia bidaliz.
- Baieztatutako datuetatik abiatuz, arrazoibide logikoa erabiliz irregulartasun arrastoak badaudela edo ez daudela baloratzeko garaian eta, ondorioz, barne ikerketa ireki edo jarraitu behar den ala ez zehaztuz.

Aipatutako irizpideei jarraituz Herrizaingo Sailaren jarduna aztertu ondoren, kasu honetan behar bezalako emaitzarik ez zegoela ondorioztatu genuen, xehetasun handiagoz Herrizaingoaren Arloaren kexa atalean biltzen den moduan.

Bizikidetzako porrotei buruzko kexen artean, auzitegiek ordena penalean erantzun behar izan dieten artean, ez dago **emakumeen kontrako indarkeria sexista** bezain larriarik, ziur asko. Horren berri eman behar dugu beste urte batez ere, ukitutako ondasun juridikoen garrantziagatik: bizitza, osotasun fisikoa, askatasuna eta duintasuna. Baina baita delinkuentzi mota horiek eragiten dituen kalteak kasu partikularren batuketa gainditzeko duelako ere. Izan ere, emakumea izate hutsagatik erasotzailearen mende egon behar denaren bizitzaren alderdi guztiak baldintzatzen dira, eta gaitasuna garatzeari uko egiten zaio indarkeriazko erreakzio baten beldur. Gizarteko kideen berdintasun eraginkorra eragozten duten oztopoak gainditzeko konpromisoa hartu duen gizarte batentzat genero indarkeriaren eragin hori onartezina da berez, eta testuinguru horretan ondasun indibidualen aurkako eraso orori esanahi berezia ematen dio.

Gizarteko gaitz honen kausak eta ondorioak azpimarratzeko, zenbait neurri abiarazi dira, eta neurri horien artean penalak, nahiz eta ezinbestekoak izan, ez dira panazea eta ez dute bilatzen den fruiturik ematen, baldin eta hezkuntza eta gizarte arloko ekintzekin batera ez badoaz. Horiez guztiez hitz egingo dugu “lehentasunezko arreta talde” gisa emakumeei zuzendutako txosten honen zatian.

\* \* \*

Ordena zibilean, **banantze eta dibortzio prozedurek** zenbait kexa sorrarazi dituzte prozeduren atzerapenei lotuta. Izan ere, prozedura horiek auzi guztietan arazoak sortzen dituzten arren, familiaren arloan bereziki larriak izaten dira bi alderdientzat. Kasu guztietan agintari juridikozionalak horren berri eman diegu. Agintariek ez dute irregulartasunik topatu horri dagokionez, bitarteko erabilgarriak kontuan hartuta, batez ere justizia administrazioan urte honetan bizi izandako grebak eragindako zirkunstantzia berezietan.



Pentsio konpentsatzaileei lotuta epaitegiek ezarritako neurriengatik eta elika-gaiengatik ere erreklamazioak jaso ditugu, bai eta ohizko etxebizitzaren erabileragatik ere. Zenbait erreklamatzailer kexu ziren, halaber, bikotekidearengandik banantzeak beren seme-alabengandik banantzea ekarri zuelako, nahiz eta hori ez izan beren nahia eta ez izan seme-alabak zaintzen jarraitzeko gaitasunik edo nahirik. Era berean, printzipioz zaintza eta babespe partekatuaren kontra dauden epaile eta fiskalen kasuak nabarmentzen dituzten erreklamatzailerak, zaintza hori biak bat etorrira proposatu den arren, bai eta alderdietako batek zaintza bera bakarrik gauzatzeko nahiaren kasuak ere. Eremu honetan gure esku-hartzea galarazita dago, gorago aipatutakoari jarraiki ikus daitekeen moduan. Hala ere, kexek urtez urte transmititzen diguten babesgabetasun eta bidegabekeria sentipenaren aurrean, gutxien-gutxienik lau alderditan jarri behar dugu arreta:

Lehenik eta behin, emakumeak urte mordo bat etxea eta seme-alabak zaintzen igaro duenez, bizitzarekin modu autonomoan aurrera jarraitzeko emakumea gizonarekiko desabantaila egoeran dago banantzeen ehuneko handi batean. Gainera, desabantaila are handiagoa izango da seme-alabak, ohikoa den moduan, bere kargu gelditzen diren heinean. Ondorioz, genero ikuspegia barne hartzea beharrezkoa da, baina ez arrazoi hori dela bide pobrezia eta mendekotasun egoerei sozialki aurre egiteko orduan soilik, baizik eta familia banantzearen ondorioz adostutako neurri ekonomikoak betetzea eta betearaztea modu eraginkorrean eskatzeko bitartekoak diseinatzekoan eta ezartzekoan ere.

Beste alde batetik, esperientziak gero eta argitasun handiagoz erakusten du kome-nigarria dela bitartekaritza mekanismoak bultzatzea auzibidera jo beharrik izan gabe gai hauen inguruan sortutako arazoak kudeatzea ahalbidetuko duten erabakiak lortzeko.

Hirugarrenik, seme-alaben babespe partekatua familiako erantzukizunak emakumeen eta gizonen artean banatzeko modu orekatua eta, beraz, nahigarria, da, eta, horrez gain, eguneroko gertutasunak soilik ematen duen lotura emozionala seme-alabek bi gurasoekin gordetzea laguntzen du. Hainbat modalitate egon daitezke, eta modalitateak aldatu egin daitezke denboran aurrera egin ahala adingabearen garapen etapetara egokitzeko. Ez da esan ere egin behar, bestalde, adingabearen interesa nagusitu behar dela neurri hori nahiz ukitzen duen beste edozein neurri erabakitzerako orduan. Hala eta guztiz ere, eta ildo horretan Kode Zibilaren azken aldaketek gai honi dagokionez aurrerapena bilatzen zuten arren, epaileen eta fiskaltzaren eremuan, oraindik ere gizartean dagoen ideologia patriarkalaren hondarrak antzeman daitezke. Ideologia horrek rol ezberdinak ezartzen ditu sexuaren arabera eta, eremu publikora sartzeko emakumeak diskriminatzen dituen moduan, gizonen aldean emakumeek seme-alabak zaintzeko gaitasun handiagoa dutela ere pentsatzen du; hala, haien zaintzaz arduratuko direnak, hala eskatuz gero, emakumeak izan daitezela da “naturala” –eta ondorioz adingabearen interesarekin lotzen dena–. Aurreiritzi bidegabekia da eta, desberdintasun faktore ororen moduan, pertsona guztiei egiten die kalte, nahiz eta batzuetan badirudien emakumeei mesede egiten diela.

Azkenik, familia epaitegiei atxikitako talde psikosozialek dituzten bitartekoak areagotu beharko lirateke; gaur egun, gaitasun profesionala izan arren, epaileari errealitate konplexu baten berri eman behar izaten diote talde horiek maiz, nahiz eta errealitate horrekin harreman oso txikia izan, familiaren hausturarengatik ukitutako pertsonekin izandako elkarriketa txiki bat, alegia. Azaldutako gaien inguruan epaileak

hartu beharreko erabakiak nekez asebeteko dituenez pertsona guztiak modu berdinean, komenigarria litzateke gutxienez erabakia informazio sakonagoarekin batera lagunduta egotea, zirkunstantzia psikologiko eta ekonomiko eta lan eta sozializazio arloko zirkunstantzia guztiak sakontasunez egiaztatzean eta baloratzean oinarrituta, bai alderdi bietan bai bere seme-alabekiko elkarrekintzan sortzen direnak.

**Erregistro Zibilari** dagokionez, bi kexa iritsi dira erakunde honetara pasa den urtean. Lehenengoan, zerbitzu horretarako sarbidean ezkondu gabeko bikoteen diskriminazioa saihesteko arauzko aldaketa behar zela aipatzen zen, hurrengo atalean jasotzen den laburpenean xehetasun handiagoz azaltzen den moduan. Beste kexa herritar brasildar batek egindakoa zen. Arartekoaren esku-hartzea eskatzen zuen portugesez egindako adopzio espediente mardul bat gaztelaniara itzultzeko kostuari aurre egiteko zuen ezintasunaren aurrean; espediente horren arabera, emakumearekin Gasteizen bizi zen haur bat adopzioan hartzea baimendu zien Santoseko Haur eta Gazte epaileak (Brasil) bera eta bere senarrari. Itzulpen hori nahitaezko baldintza zen espedientearen baliozkoa izan zedin Erregistro Zibil Nagusian emakumearen semeorde ez ezik senarraren semeorde gisa ere inskribatzea ahalbidetzeko prozeduran; senarrarekin dibortzioaren izapideak egiten ari zen, eta senarra inskripzio horren aurka azaldu zen adopzioa bere oniritzirik gabe egin zela argudiatuz.

Arartekoaren iritziz, bi arazoirengatik hartu behar zuen esku gai honetan: lehenik, zegokion organoak azkenik hartuko zuen erabakia erreklamatzailaren aldekoa izan ala ez, erreklamatzailak eskubidea zuelako bere egoera ekonomikoa oztopo bat izan ez zedin bere eskubideen oinarri ziren dokumentuak balio zezaten Erregistro Zibilaren aurrean. Bigarrenik, eta garrantzitsuagoa, egoeraren ziurgabetasunak adingabeak kalte nabariak eragiten baitzizkion. Brasilgo agintarien aurrean adingabeak aitaordea eta amaordea zituen, epai judizial batez izendatutakoak eta pasaportearen halakotzat azaltzen zirenak, eta Espainiako agintarien aurrean datu horiek amari zegokionez soilik balio zuten. Horren ondorioz, etxebizitza eskuratzeko, adibidez, jaiotza ziurtagiria aurkeztu beharko luke, eta ziurtagiri hori Brasilen emandakoa denez, seme-alabatasun desberdina izango luke Espainiako agintarien aurrean duenaren aldean. Berdina gertatuko litzateke bere legezko ordezkarien oniritzia eskatzen duen bere bizitzako edozein jardueretan (Brasilera joateko bidaliak, ebakuntza kirurgikoak, etab.): eskatutako baimena desberdina izango litzateke agintaritzaren baten edo bestearen aurrean. Hortaz, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin harremanetan jarri ginen; berak egin zuen itzulpena Kudeaketako Unitate Teknikoaren bitartez, eta kostuak dibortzio prozedurako autoetan jadanik emandako doako justiziaren kontura joan ziren.

\* \* \*

**Epaitegien funtzionamenduaren** inguruko erreklamazioen artean, legeak gure esku-hartzea aurreikusten dutenetan, zenbait kexa jaso ditugu bulego judizialarekin lotuta, bulego horren lana gauzatzen den baldintza materialengatik eta herritarrei arreta eskaintzeko dituzten bitartekoengatik.

Emakume batek adierazten zuenez, Vitoria-Gasteizko Guardiako Epaitegira joan zenean salaketa bat aurkezteko asmoz, inolako intimitaterik eta pribatutasunik gabe egin behar izan zuen, erakusmahai batean, zain zeuden pertsonen inguratuta eta dokumentuen bila zihozten funtzionarioen artean, eta horiek guztiak argi eta garbi entzun

zezaketen esaten ari zena. Arazo oso intimoa eta pertsonala azaltzeko beharra duen arau-hauste penal baten biktimari eskaini beharreko arretak hori egiteko leku pribatua behar duela pentsatzen zuen, eta berak salaketa jartzerakoan izan zituen baldintzek pertsonen duintasunari eraso egiten diete eta justiziara jo behar duten pertsonentzako disuasorioa da.

Justizia Sailaren aurrean kexa aurkeztu ondoren, Sail horrek adierazi zigun intimitatea behar bezala babesteko Justizia Jauregian erabilera anitzeko gela bat dagoela bai aitortpena hartzeko bai salaketak jartzeko. Kexa eragin zuen egoera gertatzerik zegoela ez zekien eta salaketa kasu horretan erakusmahaian jasotzeko arrazoi zehatzak ez zituen ezagutzen; agian memento horretan gela hori okupatuta zegoen eta baliteke salatzaileari itxaronarazi nahi ez izatea edo kasuak lehentasunezko baldintza bereziak ez izatea.

Edonola ere, horrelakorik berriro gertatzea saihesteko premiaz jardute aldera, instrukzioko magistratuei proposatu zitzaizen erabilera anitzeko gelaren itxarongela ordenagailu eta mahai batez hornitu zedin erreklamatzailak zuzentasunez eskatzen zuen baldintzetan aitortpena hartu eta salaketak jaso zitezten. Guardiako Epaitegiaren espazioaren berrantolaketa bitartez arazoari behin betiko irtenbidea emateko abiarazitako ekimen batzuen berri ere eman zigun. Azkenik, bere barkamena erreklamatzailari helaraz geniezaion eskatu zigun, eta, hala, horrek guztiak gure aldetik oso balorazio positiboa jaso zuen.

Beste pertsona batek laguntza eskatu zigun Guggenheim museoan baimenik gabe ikusgai jarri zen bere jabetzako pintura obra bat topatzeko. Museoako bisitariak obra ikusteko aukera izan zuten zenbait ordutan, bere garaian ospea lortu zuen “arte efimeroaren ekintza” zela konturatu gabe. Museoak gertakaria salatu zuen Ertzaintzan, eta Ertzaintzak margolana berreskuratu eta froga gisa aurkeztu zuen Guardiako Epaitegiaren aurrean. Epaitegiak, azkenean, eginbideak artxibatu egin zituen. Baina autoreak ez zuen margolana berreskuratzerik lortu, nahiz eta hiru urte baino gehiagoan behin eta berriz saiatu zen. Izan ere, polizia esaten zuen gainerako frogekin batera kasuak arduratzen zen epaitegian entregatu zuela, eta epaitegiak, berriz, margolana ez zuela jaso esaten zuen, ez baitzen gordailutze judizialean azaltzen. Gure kudeaketek ere ez zuten emaitzarik izan epaitegian, baina bai Ertzaintzan. Galtzearen arduradun izan ez arren, Ertzaintzari eskertu behar diogu Arartekoarekin lankidetzan aritu izana gordailutze hori arakatzeko “Torbellino de Amor” deituriko margolana aurkitu arte; armak erabiliz bankuko sukurtsal baten lapurretako frogan artean sailkatuta zegoen. Ezin izan zen jakin zer arrazoiengatik bukatu zuen margolanak han.

Nahiz eta gorabehera horiek guztiek obrari ezkutuko izaera eman dioten zirkulu artistikoetan, galdu eta azkenean aurkitu zen margolanak ez zuen ez balio ekonomiko ez prozesal handirik. Hala ere, salaketa edo atestatu batekin doazen objektuek edo frogak balio hori izan dezaketela gogoratzeko balio izan zigun gertakari horrek. Hala, kontu handiz ibiltzea nahitaezkoa da, eta Guardiako Epaitegira eramaten denean akta batean jaso beharko litzateke guztia xehetasunez.

\* \* \*

Eremu honetan ditugun eskumen mugengatik ere, **askatasunik ez duten pertsonak** auzitegien aurrean beren eskubideak baliatzeko balio izan du batzuetan Ararte-

koaren esku-hartzeak. Hori gertatu zen Langraizko espetxetik Guinea Bissauko herritar batek aurkeztutako kexa batekin, esate baterako; pertsona horrek Espainiako lurraldetik kanpora botatzeko gobernu proposamena zuen, aintzat hartu gabe Bilbon adin txikiko seme bat zuela; semea amarekin bizi zen, eta aitarekin zuen harremana ez galtzeko semeak zuen eskubideak kanpora botatze hori gauzatzea eragozten zuen. Umearen ama aurkitu eta gero, zirkunstantzia hori Probintzia Auzitegiari adierazi genion; auzitegiak emakumea deitu zuen bere aurrera, eta adingabearena egia zela egiaztatu ondoren, kanporatzea baztertu egin zuen. Horrek guztiak, gainera, Gizakia Helburu programaren bitartez, erreklamatazailearen toxikomaniaren gainean esku hartze ahalbidetu zuen; egin zuten lanak, beti bezala, gure goraiapamena merezi du.

Espetxean zegoen pertsonaren datu garrantzitsuak Justizia Administrazioaren aurrean jakitera emateko lanak ere beste esku-hartze bat eragin zuen, eta esku-hartze hori aipatzea komenigarria da, sistemaren hutsuneak eta disfuntzioak erakusten baititu, eta horien eragin negatiboak, ohikoa den moduan, hartzaileen artetik ahulenak gehiago ukitzen ditu. Gai penal baten izapideak egitean gertatu zen justifikatu gabeko atzerapen bat dela-eta jarritako kexa batekin hasi zen. Gai penal horrengatik prebentziozko presosalduan zegoen gure erreklamatazailea. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuari gaiaren berri eman ondoren, horri zegokionez ezin zuela ezer egin adieraziz erantzun zion Ikuskaritza Zerbitzuak interesdunari, kexak aipatzen zuen prozedura bere espertxeratzea agindu zuen Instrukzioko Epaitegien ez zegoelako.

Hortaz, hoberen hoberenean, kausa beste epaitegiaren batera bidaliko zuten arrazoiren batengatik, gure erreklamatazaileari jakinarazi gabe. Hala, ustezko irregulartasunak salatzeke Kontseiluaren aurrera joateko eskubidea gauzatzea eragotzi egiten zitzaion modu horretan; eta txarrean, existitzen ez diren eginbideen arabera egongo litzateke gizona prebentziozko presosalduan. Hala ere, kontua da, Kontseiluaren Diziplina Erregimen Atalaren Ikuskaritza Zerbitzuak azterketa gehiago ez egitea erabaki zuela, salatzaileak epaitegiaren erreferentzia ematen akats bat egin zuela ziurtzat hartuta, eta, ondorioz, jarduerak artxibatu egin ziren.

Artxibatzearen erabakia jakinarazi eta gero, eta egoeraren absurdoaren aurrean, erreklamatazaileak, azken aukera gisa, erakunde honetara jo zuen. Epaitegiarekin harremanetan jarri ondoren, eta hasieran eman ziguten erantzunak –Kontseiluari eman zioten berdina– epaitegiko arduradunei zentzurik ez zuela ikustarazi ondoren, gaizki-ulertuaren jatorria aurkitu genuen, azkenean. Epaitegien zenbakietan aldaketa bat egon zen barruko berrantolaketa baten ondorioz, eta inor ez zen arduratu epaitegi horien aginduz espetxean zeuden pertsonen pertsonalki aldaketa horren berri emateaz. Ondorioz, bere auzia bideratzen zuen epaitegiak berdina izaten jarraitzen zuen, baina zenbaki desberdina zuen. Hori guztia Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiar jakinarazi genion; Kontseiluak kexa espediente berrira ireki zuen, eta berrira artxibatu egin zuen irregulartasunik aurkitu gabe.

Izan duen garrantziagatik aipatzea merezi duen arlo honetako beste erreklamazio bat akats judicial larri baten biktima izaten ari zela adierazten zuen preso batek jarritakoa izan zen, zeina arlo honetako kexen atalean jasota gelditu den.

Espetxean dauden pertsonen mahaigaineratutako beste gai gehienak espetxeko sailkapenean edo baimenak ematean gertatutako ustezko irregulartasunen ingurukoak izan ziren. Gauza gutxi egin dezakegu kasu horietan gure erakundetik, kontuan hartuta tartean dagoen administrazioa Espainiako administrazio nagusia dela eta kexa sorrarazi

duten erabaki asko Espetxeratuena Zaintzako Epaitegiak berretsi dituela, eta horrek esku hartzea eragozten digu.

Esku hartu dugu, ordea, eta arrakastaz, gainera, arrazoi humanitarioak direla-eta espetxeko arautegia zorrotz aplikatzearen ondorioz espetxeratutako pertsonak jasotzen ari ziren erantzunari alternatibak ematea eskatzen zuten egoeren aurrean.

Hori gertatu zen bi emakumeren kasuan; lehenengoari, ustezko segurtasun arrazoiak direla-bide, espetxean konfiantzazko terapeuta batek tratatzeko egin zuen eskaera ukatu egin zioten. Bere kexan adierazten zigunez, laguntza hori ezinbestekoa zuen bere atxilotetaren ondorioz jasandako min psikologikoa gainditzeko prozesuan. Izan ere, atxilotetan Guardia Zibilak pistola bat erabilia bortxatu egin zutela salatu zuen. Gure kudeaketek harrera ona izan zuten Espetxeetako Zuzendaritza Nagusian, eta eskatutako terapeuta baren bisita baimentzea onartu zuen azkenean.

Bigarrena Langraizen hirugarren mailako espetxe tratamenduan sailkatuta zegoen emakume bat zen. Zentroak berak ezarri zion programara ez zen egokitzen, eta horrek arazo batzuk sorrarazi zituen, eta, azkenean, baimena kendu zitzaion eta bigarren gradura itzuli behar izan zen. Egoera horrek izugarriko eragina izan zuen emakumearengan, 12 eta 14 urteko bi seme-alaba baitzuten; seme-alabak Bizkaiko Foru Aldundiak harreran hartuta zituen, eta seme-alaba horien ardura hartzea pentsatzen zuen laster, baldintzapeko askatasunetik ateratzean, zigorraren azken fasean baitzegoen. Horren guztiaren ondorioz, gose greba hasi zuen, eta Zaintzako epailearekin hitz egiteari ere uko egiten zion. Martutenera eraman zuten, eta han, frustrazioaren ondorioz, arduragabetu eta behin eta berriro zigorretan erori zen. Gure iritziz, espetxe batera ez egokitzeak askatasunean deliturik egin gabe bizitzeko gaitasunik ez izatea eragiten ez duela erakusten duen kasu paradigmatikoa da hau, izan ere, sozializatzeko aukerak dituen edozein pertsonari bizitzeko erregimen itxia ezartzen diotenean sentitzen duen baztertzearen ondorioa izaten da maiz. Horrek arrisku pronostikorik dagoenik inolaz ere esan nahi ez duen arren, emakumeak bere zigorra espetxeaz kanpoko bitarteko batean bukatu zezan zigor agintaritzen aurrean egin genituen kudeaketek tupust egin zuten, araudiaren arabera, bere diziplina historiaren oztopoarekin, astetik atera okerrera egiten baitzuen. Hori, halere, denbora pasatzen uztea bezala zen, emakumeak nabarmenki okerrera egiten zuten bitartean. Azkenean, eta Goiztiri Elkartearen lankidetzari esker, emakumea kartzelatik ateratzea lortu genuen zigorraren gainerako zatia elkarte horrek kudeatzen duen emakume presoentzako etxebizitzan bete zezan. Etxebizitza horretan, kanpoko laguntza izateaz gain, bere seme-alabekin egoteko aukera izan zuen, eta ondorioz, bere osatzea, maila guztietan, nabarmena izan zen.

Zenbait pertsonak bidali ziguten kexarekin lotuta, halaber, *Médiateur* erakundearen bitartez esku hartu genuen. Frantziako Mieux espetxean askatasunik gabe zeuden hiru euskal herritarren egoeraren ingurukoa zen kexa. Gose greba bat hasi zuten bisita erregimenarekin, espetxe barruko dispertsioarekin eta familiartekoengandik jasotzen zuten diruaren erabilerari lotuta zenbait hobekuntza eskatzeko; gai horietan guztietan gainerako presoekin erkatuta jasotzen zuten tratua diskriminatzailea zela pentsatzen zuten.

Frantziako legeak ezartzen duenez, *Médiateur*-aren esku-hartzea Asanblada Nazionalako edo Senatuko kide baten bidez eskatu behar da, edo sailen bateko ordezkariaren baten bidez ere. Alabaina, bistako arrazoiengatik erreklamatzailleek bide horietara duten sarbidea mugatua dela kontuan hartuta, bai eta hiru pertsona horiek bizi zuten

egoeraren larritasuna aintzat hartuta ere, erakunde horren lankidetzaz zuzenean eskatu genuen, arrazoi humanitarioak zirela bide, pertsona horien eskubideen defentsan beharrezko neurriak har zitzen. Egindako kudeaketen berri eman genien familiei, bai eta egoera horri lotuta gure homologo frantsesak egindako jardueraren berri ere; egoerak hobera egin zuen, azkenean.

Askatasunik ez duten pertsonen suizidio kasuekin edo arrazoi ez naturalengatik hiltzearen kasuekin lotuta gauzatutako bi esku-hartze motekin osatzen dira zigor arloko jarduerak. Lehenengoa pertsona horien familia batzuek bidali zizkiguten kexen ingurukoa da; heriotzaren zirkunstantziei buruz administrazioak informazio gutxi eman zuelako agertzen ziren kexu. Gertakariaren berri emateko espetzeak dei bat bakarrik egiten zuela adierazten zuten, eta azalpenak eskatzeko, kasuari lotuta irekitako eginbideez arduratzen zen epaitegira zuzentzen zituzten. Epaitegiak, ordea, ez ziren inolako informaziorik eman nahi izaten, jardueretan abokatuarekin eta prokuradorearekin azaltzen ez ziren bitartean. Baina gure erreklamatazaileek ez zuten ez asmorik prozesu penalean parte hartzeko ez, konfiantzazko abokatuen bitartez, halakorik egiteko bitartekorik. Gertatutakoari buruzko informazio azkarra, argia eta zehaztua soilik nahi zuten. Horren aurrean, egoera horretan pertsona maite bat galtzearen minari biktima gisa behar bezalako errespetuz tratatuak ez izatearen sentipena gehitzen zion isiltasuna besterik ez zuten aurkitzen.

Hala, Vitoria-Gasteizko Fiskaltzaren lankidetzaz eskatu genuen, eta haren bitartez jaso genuen informazio garrantzitsu guztia, zeina berehala familiei helarazi genien. Fiskalak, gainera, kasu bakoitzean epaitegiari bi gauza eskatzea onartu zuen: alde batetik, familiari jakinarazpen ofiziala egin ziezaiola, gehiago ikertu behar zela pentsatuz gero, jardueretara agertu eta egokituz jotzen zituzten frogak egin zitzaten eskatzeko; eta, bestetik, aurrerantzean antzekorik gertatuz gero, familiei beharrezko informazio guztia eman ziezaiotela, informazio hori izatea beren eskubidea baita, prozedurara parte hartzea erabaki ala ez.

Preso dauden pertsonen suizidioan Administrazioak egintzarengatik edo omisioarengatik izan dezakeen erantzukizunaren ikerketari dagokionez, pasa den urtean salaketa batzuk jaso genituen, arrazoi osoz estatuak gertakari horien biktimen segurtasuna bermatu behar duela azpimarratzen dutenak, biktimek duten atxikipen bereziaren harremanaren arabera. Eta hortik ezin denez ondorioztatu erantzukizuna zegoenik, aurreikusi zitekeen arrisku autolitiko baten aurrean eska daitekeen eginbiderik ez zegoela frogatu ezean, aukera hori kasu partikular bakoitzean ikerketa nahikoa egitearen araberakoa izan beharko da. Bestela, suizidioarengatik edo droga kontsumitzearen erreakzioarengatik gertatzen diren barruko heriotzen maiztasunak eta ondorio faltak, bai eta gertakari horiarengatik espetzeetako funtzionarioen aurka salaketak jartzeak ere, "normalizatu" egingo du azkenean erauzi egin behar dugun errealitatea. Gertakari zehatzen ikerketa, bestalde, gure eskumenaren eremutik at gelditzen da, bai judizializatuta dagoelako bai administrazio nagusiaren jardura delako; horregatik, herri defendatzaileari eta fiskalari bidali genien. Hala eta guztiz ere, eta gure eginkizuna eraginkortasun osoz betetzeko, Arabako Fiskaltzari 10/06 informazio eginbideen jarraipenaren inguruan galdetu genion; eginbide horiek presoen heriotzei eta presoek espetzeetako funtzionarioen aurka jarritako salaketei lotuta ireki ziren. Orain arte, den-denak artxibatu egin dira.

## 8.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Espetxe gaietako jarduerak

⇒ *Epaitegiak akatsak egin zituen delitu bat baino gehiago egiten diren kasuetan zigorrak benetan betetzeko gehieneko mugari buruzko arauak aplikatzean (443/2006)*

#### • Erreklamazioa

90eko hamarkadaren erdialdean, gure erreklamatzailerak, drogekiko zuen mende-kotasuna zela-eta, zenbait maula egin zituen herri batzuetan, guztietan antzeko *modus operandi* erabilia: dokumentu batzuk lapurtzen zituen –indarkeriarik erabili gabe beti–, dokumentuak bere izenarekin bete eta kreditu erakunde batean edo zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde batean baliatzen zituen. Hala, bere aldeko ondare lekualdaketak lortzen zituen nahiko kopuru txikiengatik. Horren ondorioz, hainbat zigor jaso zituen jokabide errepikapena zela-eta, unitarioa zen arren, kasu bakoitzean hiru delituren pean erortzen baitzen: gauzetan indarra erabiliz egiten den ebasketa edo lapurreta, faltsifikazioa eta maula.

Zigor horiei jarraiki, 1998ko urtarrilaz geroztik espetxean zegoen, eta bertatik eskatu zuen, 2000ko irailean, betetzen ari zen 23 auziei Kode Penalak zenbait zigor era jarraituan bete behar dituzten pertsonen kasuetarako ezartzen duen gehieneko muga aplikatzea. 2001eko martxoan, bere zigorrak betearazteaz arduratzen zen Donostiako epaileak autoa eman zuen, eta, horrekin, muga hori 20 urtetan ezarri zen. 2003ko urrian, beste bost zigorren betearazpena agindu zuen epaitegiak, garai berean gertatu ziren antzeko gertakariengatik; guztira, beste sei urte luzeko espetxealdia ekarri zioten. Hala, gure erakundera jo zuenean, erreklamatzailerak hogeita sei urte baino gehiagoko espetxe zigorra betetzen ari zen.

#### • Azterketa

Bere kexa zehatz-mehatz aztertu ondoren, zigorra betetzeko gehieneko mugari buruzko arauak kasu honi aplikatzean akats larriak egin zirela ondorioztatu genuen. Legeak auzitegien mende dagoen kasu baten aurrean jardutea eragozten digun arren, gai honetan esku-hartzea larria zela bi alderdik erakusten zuten: alde batetik, pertsona honi oker likidatu zitzaion zigorrak 15 urte baino gehiagotan gainditzen zuen aipatutako araudia aplikatuz zegokion betetzearen gehieneko muga. Bestalde, arrazo hori zela-eta espetxean zortzi urte baino gehiago zeramatzan arren, betetzeko gelditzen zitzaion denborak espetxe baimenak eta, batez ere, baldintzapeko askatasuna eskuratzea eragozten zion. Bere zigorra ondo kalkulatu izan balitz, berehala eskuratu ahal izango zukeen baldintzapeko askatasuna, kontuan hartuta bere espetxe historiala eredugarria zela. Horregatik uste dugu bidegabekeria larria izateaz gain, bidegabekeria konpontzeko zerbait egitea premiazkoa dela.

Kode Penaleko 76. artikulua xedatzen duenez, pertsona bati zigor bat baino gehiago ezartzen zaionean, nahiz eta prozesu desberdinetan izan, ez da espetxean egon behar zigorretatik larrienari dagokion denboraren hirukoitza baino denbora gehiagoz. 2000. urteaz geroztik, gutxienez, Auzitegi Gorenak ondorengo irizpide hau adierazita

zuen: metagarriak dira, ondorio horietarako, zigor horietatik azkena eragin duen delitua gertatzearen mementoan, zigorra ezarrita ez duten delituengatik zigor guztiak, euren artean analogiarik edo harremanik egon ala ez. 7/2003 Lege Organikoak eragindako Kode Penalaren aldaketak, artikuluko horretako 2. paragrafoa aldatzerakoan, zuzenbide positiboan jurisprudentziako lerro hori islatzen du esplizituki.

Hori da gure erreklamatazaileari ezarritako zigorraren kasuan, zigor luzeena 3 urte eta 6 hilabetekoa baitzen. Hortaz, horien guztien betetze muga 10 urte eta 6 hilabeteko presoaldia izan beharko litzateke. Horren ordez, egindako delituak bi taldetan banatzearen akatsa egiten du 2001eko martxoko auto judizialak, eta bi talde horiei muga hori berezita eta era metagarrian aplikatzen die: alde batetik, delitu patrimonialei –ebasketak, lapurretak eta maulak–, eta, bestetik, faltsifikazio delituei. Lehenengo taldeko delituri larrienarengatik zigorra 3 urte eta 6 hilabetekoa da, eta 3 urte eta 2 hilabeteko bigarren taldeko delituri larrienarengatik; beraz, hortik ateratzen den epai betearazlea 20 urtekoa da, guztira.

Ondoren likidatu zitzaizkion beste bost auziei dagokienez, horietatik hiru, larrienak, betetzen ari zen epaiak eman baino lehen egindako delituak zirela eta gertakariak garai berekoak zirela egiaztatu ahal izan genuen, eta, beraz, denak prozesu beraren barruan auzipetu zitezkeen. Horregatik, erreklamatazaileak eskubidea zuen zigor horiek epai betearazle bakar batean aurrekoei batzeko, bai eta betetzearen muga osoa bat-egite horretan zigor guztietatik handienaren hirukoitza izateko ere. Horrela eskatu zion 2003ko maiatzean epaitegi berari, baina, berriro ere hanka sartuz, epaitegiak zigor horiei dagozkien gertakarien datak eta haien betearazpena eskatzeko datak nahastu egin zituen, eta, hala, geroagoko gertakariak zirela ondorioztatu zuen. Hortaz, urte bereko urriko autoan eskaera ukatu egin zuen eta, beraz, 2001eko epai betearazlearen 20 urteei horiei zegozkien beste bost gehitu zitzaizkien.

Horrek guztiak disfunzio nabarmena eragiten zuen, zigorra zehazteko arau positiboak oker aplikatzearen ondorioz. Disfunzio hori dela-eta, erabat gehiegizkoa zen zigorra betetzen ari zen erreklamatazailea, denbora tarte berdinean garrantzi txikiko maulak egin ordez, adibidez, bortxaketa, bahiketa edo armak erabiliz lapurreta kopuru berdina egin izan balu zegokionaren zigorra baino handiagoa.

Ildo horri jarraiki, gainera, maula eta faltsifikazio delituak ez ziren jokabide bakarrekoak, kasu guztietan Kode Penaleko 74. artikuluko delitu jarraituak baitira; delitu horien zigorrak, handienak direnez, erreferentziatzat hartu ziren bider hiru eginda bat-egitea kalkulatzeko. Ondorioz, delitu jarraipenaren aplikazioak erreklamatazailearen kasuan erruzatzearen aurkako eragin nabaria izan zuen, ez balitz aplikatuko, Kode Penalean aurreikusitako muga zigor handienaren hirukoitza kalkulatzeko zehaztuko bailitzateke; zigor horiek askoz txikiagoak ziren eta gauzatutako jokabide partikular bakoitzari zegozkionak izango lirateke. Hori erruduntasun printzipioaren kontra doa, izan ere, eragotzi egiten da zigorra zehaztean egileak gertakariarengatik edo, ekintza bat baino gehiagoko kasuetan, gertakariaren baturarengatik, egileak duen erruduntasunaren larritasuna gainditzea. Gure aburuz, ez da lekuz kanpo gelditzen hausnarketa hori adieraztea, teknizismo juridikoez haratago, proportzionaltasun ikuspegitik arrotz suerta ezin zaigun gaia bere ikuspegi errealean kokatzea laguntzen baitu: gizon honek egin dituen delituen antzekoengatik ezartzen den 26 urte, 2 hilabete eta 16 eguneko zigorra printzipio juridiko-penalekin bat badator; printzipio horiek, gertakariarengatik erruduntasunaren arabera, zigorraren merezimendu maila zehazten dute gure sisteman.



Epai betearazlea ondo aztertuz gero, nahiz eta aipatzen ari garen erabaki judizialak ez ziren bere garaian errekurritu, haien aurka egitea posible zela ondorioztatu daiteke. 2001eko autoari dagokionez, Auzitegi Gorenak orduan indarrean zegoen Legearen inguruan egiten zuen interpretazioa kontuan hartuta okerra zen arren, aldatu egin zen geroago interpretazio hori esplizituki jasotzeko; hori dela eta, haren berrikuspena eska zitekeen, lege onuragarriena atzeraeraginez aplikatzeagatik. 2003ko autoari dagokionez, interesdunak jasan zituen espetxe aldaketen ondorioz, ebazpen judizial berri hori ezin izan zitzaion pertsonalki jakinarazi 2005eko otsailera arte; orduan, abokatu eta prokuradorea izendatu zitzaizkion haren aurka egin ahal izateko. Baina zorigaitzoko gai honetan gertatutako akatsei batu daitekeen beste akats batean, dokumentuak izendatutako abokatuarengana ez zirela iritsi egiaztatu ahal izan genuen, eta horregatik ondorioztatu genuen errekurtsua jartzeko aukera oraindik irekita zegoela.

- Emaizta

Zirkunstantzia horien guztien berri eman genion abokatuari, eta berak berehala eskatu zuen auzia artxibotik ateratzea eta zegokion errekurtsua jarri zuen; errekurtsua une honetan Gipuzkoako Probintzia Auzitegian dago ebazpenaren zain.

## B) Justizi Administrazioaren funtzionamendua

⇒ *Erregistro Zibilean dauden seme-alaba propioaren datuen ziurtagiria internet bidez eskatu eta postaz jasotzeko orduan izatezko bikoteak jasaten duten bereizkeria ezkonduetako bikoteen aldean (1016/2006)*

- Erreklamazioa

Erreklamatuzaileak, Justizia Sailaren web orriaren bidez, bere semearen jaiotza-ziurtagiria postaz bidaltzeko eskatu zuen. Hori ikusita, Donostiako Erregistro Zibiletik jakinarazi zioten, semea ezkontzaz kanpokoa zenez, ezin ziotela bere eskaerari erantzun eta epaitegira joan behar zuela eskaera formalizatzeko. Kexan zioenez, “*barregarriena da nik edozein pertsonaren jaiotza-ziurtagiria eska dezakedala eta etxera helaraziko didatela, betiere, haren gurasoak ezkondueta badaude*”.

- Azterketa

Donostiako Erregistro Zibilaz arduratzen den epaitegiarekin harremanetan jarri ondoren, ohartu ginen arazoa Erregistro Zibilak Erregistro Zibilari buruzko 1958ko azaroaren 14ko Araudiaren 21.1 artikuluan jasotako eragozpenarekin topo egin zuelako sortu dela; horren arabera, gurasoak ezkondueta ez dituen pertsonaren jaiotzari buruzko datuez ari garenean, informazio horren izaera publikoa mugatu egiten da: beharrezkoa da epailearen baimen berezia kasuan kasuko ziurtagiria lortzeko, non eta eskatzaileak ez diren aita edo ama, edo horien aurrekoak edo ondorengoak; halakoetan, nahikoa da egiaztatzea erregistroko informazio hori eskatzen duena pertsona horietako bat dela. Internet bidez egindako eskaera, bere izenean joan arren, edozeinek egin dezakeenez, eta, gainera, ezin denez inolaz ere bermatu postaz bidalitako ziurtagiria nork jasoko duen, Erregistroak eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko duen bide bakarra hura fisikoki

Erregistroko bulegoetara joatea da, epailearen baimena lortu beharrik ez duten pertsonetako bat dela ziurtatzen duen dokumentazioarekin.

Bistakoa da jada desagertu dela bere garaian xedapen horri zentzia ematen zion egoerazko eta arauzko testuingurua. Xedapen horren helburua ez zen diskriminatzea, baizik eta nola izatez hala eskubidez diskriminazioa jasaten zuen oro babestea: 1958an, ezkondu gabeko bikoteek legez jasaten zuten tratu desberdintasunaz gain, norbait ezkontzaz kanpoko seme-alaba zelako datuak desohorea ekar zezakeen gizarteko zenbait arauen ikuspegitik; zorionez, horiek jada gainditu dira. Hori horrela, informazio horren izaera publikoa mugatzearen helburua seme-alaba horren edo bere aurrekoen edo ondorengoen kaltetan erabil zedin ekiditea zen, baina zegozkien informazio hori libreki eskuratzeko aukera kendu gabe; hori horrela, eskatzailea modu frogagarrian identifikatzeko beharra sortu zen, seme edo alabaren gurasoak ezkondata daudenean gertatzen ez dena.

Gaur egun, noski, ez legez ez sozialki –nahikoa txikiak diren zirkulu batzuk kenduta–, ez dago arrazoirik ezkontzaz kanpoko seme-alaba izatea edo seme-alaba ezkontzatik kanpo edukitzea desohoragarria dela pentsatzeko eta, beraz, jada ez da beharrezkoa datu horren izaera publikoa mugatzea. Era berean, indartu egin dira araua ezarri zenean botere publikoen jardunerako hain garrantzitsuak ez ziren bi irizpide. Erreklamazio egileari gertatu zaionak erakusten duen moduan, bi irizpide horiek behar horrekin kontraesanegon daitezke. Batetik, arin, alferrikako izapiderik egin gabe eta informazioaren teknologien bidez jarri behar dira hiritarren eskura erregistro publikoetan beraiei buruz dauden datuak, bereziki, administrazioak berak eskatzen dituen (haurri pasaportea egiteko eskatu ziren). Irizpide horren ildotik, Justizia Sailak ziurtagiriak eskatzeko sistema jarri zuen abian bere web orriaren bidez. Erreklamazio egileak salatzen duen diskriminaziorik gabe erabiltzen dela bermatzeko, bigarren irizpideari heldu behar diogu: izatezko bikoteak eta bikote ezkonduak parekatzearena, batez ere, harreman horretatik jaiotako seme-alabei dagokienez dituzten eskubideak erabili eta betebeharrak betetzearekin erlazionatutako zerbitzu publikoek baliatzerakoan.

Horren guztiaren ondorioz, Ararteko erakundeak bai Administrazioari bai gobernu organo jurisdikzionalei adierazi zien komenigarria litzatekeela legeak aldatzea, bereizketa ezabatze edo mugatzeko, gurasoek edo seme-alabek hala eskatzen badute. Nolanahi ere, aldaketa hori gertatu bitartean, beharrezkoa litzateke sistemaren bat ezartzea, isilpeko beste datu batzuekin gertatzen den bezala, era horretako ziurtagiritan legezko interesa duten pertsonen horiek eskatu eta jaso ahal izateko, kasuan kasuko bulegoetan agertu behar izan gabe.

#### • Emaiza

EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakariak horri lotuta hartuko zituen erabakien berri emango zigula esan zigun bere garaian, baina, oraindik ere, horren berri izateko zain gaude. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak gure azterketarekin bat zetorrela adierazi zuen; bere ustez ere ez du zentzurik Erregistro Zibilaren Araudiak datuen informazioa erreserba ezartzen jarraitzea, gure gizartearen barruan, ordenamenduak ezkondu gabeko bikoteei ematen dien babesetik berezitatutako inolako babesik behar ez baitute datu horiek. Horrez gain, gaur egungo egoeraren ondorioz, Erregistro Zibilaren zerbitzua ezkondu gabeko bikoteei eskaintzea ezkonduakoei eskaintzea baino premiazkoagoa dela pentsatzen dute.

Egoera horiei irtenbidea bilatzeko dituen aukerak, halere, mugatuak dira, Justizia Administrazioaren funtzionamendurako bitarteko materialak eta giza baliabideak hornitzeko eskumena baitu soilik, baina ez du aukerarik Araudia aldatzeko ez interpretatzeko, hori Justizia Ministerioari eta Erregistro Zibil bakoitzeko epaile titularri baitagokio, hurrenez hurren. Nortasunaren egiaztapen telematikoaren irtenbideari dagokionez, zeina teknikoki posible den eta administrazio guztietan ezartzea aurreikusten den, Sailak, arrazoiarekin, bi oztopo posible adierazten ditu: alde batetik, bitarteko informatiko mota hauetarako sarbidea izateko karga izango luke pertsona interesdunak, eta hori ez dago gaur egun herritar guztien esku; bestetik, horrekin ere bereizketa bat egiten egongo ginateke, halaber, ezkonduetako bikoteak baldintza hori ez bailukete bete beharko.

Ondorioz, benetako irtenbideak Erregistro Zibilaren Araudian beharrezko aldaketa egitea eragin beharko lukeela argi dauka, berdintasunezko eta bereizkeriarik gabeko gizarte baten errekerimenduetara egokitzeko. Ildo horri jarraiki, jakinarazi zigunez, Eusko Jauriaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak Justizia ministroarengana joko zuen lege aldaketa hori eskatzeko, eta ekimen hori, gainera, Legebiltzarrak lerro berean proposatuko duen beste batekin osatuko ahalko litzateke; hori gertatu da azkenean, hain justu, orain gutxi Legebiltzarrean aurkeztu den legez besteko proposamen baten bidez. Positibotzat jotzen dugu erreklamazio honen aurrean Justizia Sailak erakutsi sentsibilitatea nahiz ekimena.

## 9. INGURUMENA

### 9.1. SARRERA

2006ko ekitaldian, arlo honi dagokionez hartutako keak 62 izan dira; hau da, jasotako guztien %3,69.

Eragindako administrazioen arabera, honela multzokatu ditzakegu:

- Toki administrazioa .....	55
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	3
- Foru administrazioa .....	3

Beren edukiari dagokionez, honela taldekatu ditzakegu:

- Sailkatutako jarduerak bizitegitarako lurzoruan .....	27
- Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk .....	17
- Sailkatutako jarduerak lurzoru urbanizaezinean .....	8
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	5
- Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan .....	2
- Hondakinak eta isurketak .....	2
- Natur gune babestuak. Floraren eta faunaren babesa .....	1

Lehenik eta behin, aurten beharrezkotzat jotzen dugu, ingurumenaren arloan izan duen garrantziagatik, berriki onartu den **uztailaren 18ko 27/2006 Legea** aipatzea (horren bidez, **ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dira**).

Esanenezake arau horren aurrekaririk aipagarrienen artean Rio de Janeiroko Adierazpenaren 10. printzipioa dagoela. Honela dio:

*“Ingurumenaren arloko kontuak aztertzeke modurik egokiena interesatuta dauden biztanle guztien parte-hartzea lortzea da, bakoitzari dagokion mailan. Estatuan, pertsona orok izan behar du agintari publikoek ingurumenaren arloan duten informazioa eskuratzeko aukera, beren erkidegoetan arriskutsuak izan daitezkeen material eta jardueren buruzko informazioa barne, baita erabakiak hartzeko prozesuetan parte izateko aukera ere. Estatuak biztanleen sentsibilizazioa eta parte-hartzea ahalbidetu eta sustatu behar dute eta, horretarako, informazioa guztien eskura jarriko dute. Prozedura judizialetera eta administratiboetara iristea ahalbidetuko da, horien artean, kalteen ordaina jasotzekora eta errekurtso egokiak aurkezteko.”*

Printzipio honen irakurketatik ondoriozta daiteke, herriaren parte-hartzea lortzeko, beharrezkoa dela informazioa eskuratzeko, erabakiak hartzeko prozesuetan parte izateko eta justiziara jotzeko aukera bermatzea; izan ere, elementu horiek demokrazia esku-hartzailea eraikitzeke oinarritzko eredu osatzen dute.

Elementu horiek 1998ko ekainaren 25eko Aarhuseko Hitzarmenak euskarritzat dituen oinarriko hiru zutabeak dira. Hitzarmen hori 2005eko martxoaren 31n berretsi zuen Espainiak eta Europar Batasunak bere legerian txertatu du, besteak beste, honakoetan: Europako Parlamentuaren eta 2003ko urtarrilaren 28ko Kontseiluaren 2003/4/EE Zuzentarauan (herritarrek ingurumenaren gaineko informazioa eskuratzeari buruzkoan), eta Europako Parlamentuaren eta 2003ko maiatzaren 26ko Kontseiluaren 2003/35/EE Zuzentarauan (horren bidez, ingurumenarekin zerikusia duten hainbat plan eta programa egitean herritarrek parte hartzeko neurriak ezartzen dira eta Kontseiluaren 85/337/EEE eta 96/61/EE Zuzentaruak aldatzen dira).

Hortaz, uztailaren 18ko 27/2006 Legea Aarhuseko Hitzarmena berrestearekin batera onartutako akordioak aitortuko dituen eta, orobat, zuzentaru horiek barne ordenamenduan aplikatuta gauzatzea ekarriko duen esparru juridikoa definitzen saiatzen da.

Arauaren edukiari dagokionez, esan dezakegu, zioen azalpenak jasotzen duen bezala, 27/2006 Legearen lehen titulua xedapen orokorrez arduratzen dela eta arauaren xedea zehazten duela, alegia, informazioa eskuratzeko, parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak aitortzearena. Orobat, titulu horrek jendearen eta interesdunaren arteko lege bereizketa garrantzitsua egiten du (jendea edozein pertsona fisiko edo juridiko da, baita aplikagarri den arautegiari jarraiki horiek eratzen dituzten elkarteak eta taldeak ere; aldiz, interesdunak ingurumena zaintzen eta babesten diharduten eta arlo horretan jarduera zehatza orrazteko gutxieneko eskakizunak betetzen direla ziurtatzen duten irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak dira).

II. titulua ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeko eskubidearen inguruko arau espezifikoak biltzen ditu, informazioa modu aktiboan eta pasiboan emateko ikuspegi bikoitzari dagokionez. Ildo horretatik, legeak dio herritarrek ingurumenaren arloko informazioa eskatzeko eta administrazio publikoen arreta jasotzeko eskubidea dutela; orobat, hauek behartuta daude beharrezko informazioa emateko giza osasunerako edo ingurumerako berehalako mehatxua dagoen kaltea arintzen edo horri aurrea hartzen lagunduko duten neurriak hartzeko.

Erantzuna emateko epea hilabetera murrizten da; hala, gaia korapilatsua baldin bada, bi hilabetera luzatu ahal izango da. Ingurumenaren arloko informazioa emateko betebeharrari egindako salbuespenen inguruko arauak ere aurrerapen nabarmena dira, ukapena ez baita automatikoa; aitzitik, agintari publikoek kasuan kasu aztertu behar dituzte tartean diren interes publikoak eta eskatutako informazioa ez emateko erabakia justifikatu behar dute. Edonola ere, salbuespenerako arrazoiak ikuspegi murriztailetik begiratuta interpretatu behar dira.

Legearen III. tituluan, herritarrek ingurumenaren arloko gaitan parte hartzeko duten eskubideaz hitz egiten da, plan, programa eta xedapen orokor jakin batzuk prestatu, berrikusi edo aldatzeari dagokionez. Hitzarmenean eta Erkidegoko legerian aurrekutsita dauden parte hartzeko gainerako modalitateen inguruko arauak (hots, ingurumenaren arloko baimen integratuak emateko, zenbait proiektu ingurumenaren gainean duten eragina baloratzeko, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko edo uren legerian aurreikusitako planak eta programak prestatu eta onartzeko izapidetu behar diren prozedura administratiboek dagozkienek) sektoreko kasuan kasuko legerietara jotzen dute. Titulu honen amaieran, Ingurumeneko Aholku Batzordearen eginkizunak eta osaera arautzen dituen artikulua jasotzen da.

Aipatu behar da arauak, herritarrei aukera gehiago ematen dizkien arren erabaki publikoetan parte hartzeko, ez duela inolako prozedurarik erregulatzeko; alderantziz, herritarren parte-hartze eraginkorra eta benetakoa sustatzeko betebeharrak orokorra baino ez du ezartzen. Hala, administrazio publikoek arduratu behar dute, kasuan kasuko prozedurak izapidetzerakoan, bai Erkidegoko legeriak bai Aarhuseko Hitzarmenak aintzatesten dituen zenbait berme betetzen direla zaintzeaz. Legearen arabera, berme horiek arlo honetan jardueraren publikoaren berri ematen duten printzipioak dira: plan, programa edo arauzko xedapenari buruzko informazio garrantzitsua herritarrentzat eskuragarri jartzea; parte hartzeko eskubidearen berri ematea eta hori nola egin dezaketen jakinaraztea; hartu beharreko erabakiari dagozkion aukera guztiak eskaintzen dituzten prozeduraren hasierako faseetan oharrak egin eta azalpenak emateko eskubidea aitortzea; azkenean hartutako erabakia eta parte hartzeko izapidea garatu den modua justifikatzea. Bi kasuetan, administrazio bakoitzak arduratuko beharko du herritarren artean zein izango den interesduna eta, ondorioz, zeinek parte har dezakeen prozedura horietan.

GKEek garrantzi handiko eginkizuna dute arlo honetan, ingurumenarekin erlazionatuta izapidetu beharreko prozedura administratibo desberdinetan interes kolektiboen titular gisa parte hartu eta jardun baitezakete.

IV. tituluak, legearen azkenak, justizia eta tutoretza administratiboa lortzeaz dihardu eta, tutoretza judizial eta administratiboak eskaintzen duen bermearen bidez, informaziorako eta parte hartzeko eskubideen eraginkortasuna ziurtatzea eta indartzea du helburu.

Era berean, legeak Aarhuseko Hitzarmenaren 9.3 artikuluko aurreikuspena barne hartzen du eta herri ekintzaren modukoa jasotzen du. Ekintza hori gauzatzea ere ingurumena babesten diharduten GKEei dagokie, betiere, lege ekintza gauzatu aurreko bi urteetan eratu badira eta beren jardueraren inpugnatutako egintzak edo ez-egiteak eragindako lurralde eremuan garatzen badute.

Ondorio gisa, esan behar dugu, nahiz eta lege berrian oraindik ez diren ezarri herritarrek ingurumenarekin erlazionatutako gaitan parte hartu ahal izateko benetako bidea ematen duten eta pertsonen osasunean eta bizi kalitatean ere eragin zuzena duten mekanismoak, gure barne ordenamendu juridikoan erabakiak hartzeko prozesu politikoa indartzeko funtsezko elementu gisa aitortzen dira parte hartzeko eskubidea eta informazioa eskuratzeko eskubidea, hori guztia etorkizun iraunkorraren ereduaren menpe baitago.

Bestalde, eta erakunde honetan salaketaren baten xede izan diren gaiei dagokienez, lehenik eta behin esan behar dugu, aurreko ekitaldietan bezala, berriz ere ingurumenaren arloan eragina duen kexa-kopururik handiena bizitegitarako **hiri lurzoruan** dauden **jardueraren sailkatu** delakoek (alegia, udal baimenen erregimenaren pean daudenek) sortutako zarata, usain eta keengatik herritarrek jasan behar dituzten eragozpenei buruzkoak izan direla.

Horri dagokionez, aipatu behar dugu, ostalaritza-establezimenduek eragindako eragozpenen ondorioz erakunde honetan jasotako salaketak garrantzitsuak izan badira ere, ikusi ahal izan dugun bezala, ekitaldi honetan gehitu egin dira nabarmen merkataritzako lonjak biltzeko lokal gisa erabiltzailearen ondorioz sortutako arazoek eragin dituzten kexak.

Ondorio horietarako, beharrezkoa da gogoraraztea instalazio hauek Ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan

ezarritako legeztatze prozedurari lotuta dauden jarduera gogaikarritzat hartzen direla. Hori dela-eta, udal agintariak behartuta daude lokal horiek ostalaritza-establezimenduei eta sozietate gastronomikoei dagozkien baldintzetara egokitu daitezen eskatzera.

Azken jarduera hauek ere aipatu beharrekoak dira, azken ekitaldian nabarmen gehitu baitira EAEn hainbesteko tradizioa duten era honetako instalazioek eragindako zarategatik aurkeztu diren kexak. Ohikoak dira airea egokitzeko, airea berritzeko eta keak eta usainak kanporatzeko aparatuek sortutako arazoak, nagusiki, lokala behar bezala ez insonorizatzeko edo batere ez insonorizatzeko eragindako zarata-eragozpenak.

Erakunde honek behin eta berriz ohartarazi duenez, udal askok ez dituztela aintzakotzat hartzen establezimendu publikoak ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizunak. Maiz, ez diete behar adinako arreta ematen, eta jartzen dituzten baliabide materialak eta langileak ez dira nahikoak haiek egokiro kudeatzeko.

Oraindik ere herritar askok jotzen dute erakunde honetara; izan ere, udaltzainek ez diete beren deiei erantzuten eta, ondorioz, Ertzaintzarekin harremanetan jartzen dira, baina hauek ezer egiterik ez dutela adierazten diete, era horretako ikuskapenak udal eskumenekoak direlako.

Kontu honen inguruan berriz ere adierazi behar dugu beharrezkoa dela toki administrazioak premiaz jarrera erabakigarria hartzea kaltetutako auzotarren bizi kalitatean zuzeneko eragina duten arazo horiek konpontzeko; horretarako, beharrezko bitartekoak eskainiko ditu indarreko legeen arabera dagozkion ikuskapen eta kontrol eginkizunak gauzatzeko.

Ez ditugu ahaztu behar justizi auzitegien azken erabakiak; horien arabera, etxebizitzetan eragozpenak sortzen dituzten soinu inmisioek Espainiako Konstituzioaren 15, 18.1 eta 18.2 artikulua urratzen dituzte (15. artikulua bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea bermatzen du, 18.1 artikulua norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea eta 18.2 artikulua egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidea); beraz, horren ildotik, administrazioak esku hartzera behartuta daude jarduerak dirauen bitartean era honetako instalazioen funtzionamendu egokia kontrolatzeko eta, hala, eskubide horiek urratzen ez direla bermatzeko.

Bestalde, aipatu behar dugu adierazgarriak izan direla **gauzez bide publikoan obrak** egitearen ondorioz sortutako zarategatik aurkeztu diren kexak. Ekitaldi honetan, jasotako salaketa gehienak A-8 autobidearen mugakide diren herrietan bizi diren eta hirugarren erreia egiteko obren eragina jasan duten pertsonak aurkeztutakoak izan dira.

Egin nahi diren obren garrantzia ikusita, saihestezina da horiek gauzez egitea, orduan ibilgailu gutxiago igarotzen baitira. Hala ere, egia da baita ere botere publikoak behartuta daudela herritarren atsedena bermatzera.

Ildo horretatik, kasuan kasuko kexa-espedienteak izapidetzerakoan, administrazio eskudunari adierazi diogu beharrezkoa dela neurri zuzentzaile egokiak hartzea erabiltzen diren makinek sortzen duten soinuaren eragina ahalik eta gehien murrizte aldera, baita gauzez soinu gutxien egiten duten lanak bakarrik egitea ere. Zaratari buruzko 37/2003 Legearen 19. artikuluaekin bat etorritik, administrazio publikoak behartuta daude “*kutsadura akustikoari aurrea hartzeko neurri egokiak hartzera, bereziki, eskuragarri dauden tekniken artean eragin akustiko txikiena duten teknologiak aplikatuta, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren baldintzetan gutxien kutsatzen*

*duten teknologiak, betiere, kasuan kasuko soinu iturriaren ezaugarri propioak kontuan hartuta.”*

Bestalde, kexa ugari aurkeztu dira **industri jardueren** ondoriozko atmosferako kutsadurak eta kutsadura akustikoak eragiten dituzten eragozpenei buruz. Kapitulu honetan aurkeztuko ditugun kexa-laburpenen artean, izapidetutako kasu batzuei dagozkienak barneratu ditugu.

Nolanahi ere, argigarria denez EAEko industri instalazioetako askok duten legezko-tasun egoeraren inguruan, atal honetan labur-labur aipatu nahi dugu SOS MUXIKA plataformak hala eskatuta erakunde honetan izapidetu zen kexa-espeditentea. Horren bidez, Muxikan kokatutako Inama, S.A. enpresaren instalazioen funtzionamenduan antzemandako irregulartasunak salatu zituzten. Espediente horren baitan, erakunde honek gomendio bana egin zien Muxikako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari (horiek osorik irakurri nahi izanez gero, ikusi I. eranskina).

Kexan aipatu zen Muxikako Astelerra, Zabale eta Txakele auzoetan bizi zirenek eragozpenak jasan behar izaten zituztela jarduera horrek sortzen zituen zaraten ondorioz (batez ere gauez), baita atmosferara botatzen zuen isurien ondorioz ere. Gainera, beren haserrea adierazi zuten, udalak jarrera permisiboa eta pasiboa agertu zuelako; izan ere, azken hamabost urteotan plataformak salaketa ugari aurkeztu zituen arren, udalak, arazoei irtenbideak aurkitzen saiatu ordez, instalazioak eta garatutako jarduera handitzen utzi zion enpresari, kasuan kasuko baimenak eman gabe eta, ondorioz, haien funtzionamendu egokia bermatzeko bidezko kontrolak egin gabe. SOS MUXIKA plataformak eta tartean ziren administrazioek helarazi ziguten dokumentazioa aztertu ondoren, ondoko gertakari hauek behar bezala frogatuta geratu zirela ikusi ahal izan genuen:

1. Enpresak ez zuen taula aglomeratuak eta kogenerazio planta ireki eta martxan jartzeko udal lizentziarik.
2. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak hainbat errekerimendu egin arren, enpresak ez zuen proiekturik izapidetu atmosfera kutsatu zezakeen jarduera gisa. Hori zela-eta, ezin izan ziren atmosferarako isurketen 22 guneak martxan jarri izana ikuskatu.
3. Udaleko agintaritzak INAMA, S.A. enpresak inguruko etxebizitzetan duen eragin akustikoaren gainean eginiko baieztapen bakarretik ondoriozta zitekeen bezala, araudiak ezartzen zituen parametroak gainditu egin ziren. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak airearen kalitatearen gaineko ebaluazioan atmosferan antzemandako PM 10-eko mailak aplikatu zitekeen araudiak ezarritako gehieneko muga gainditzen zuela baieztatu zen.
4. Udaleko espeditentearen izapidetzean bi gertakari antzeman ahal izan ziren: batetik, enpresa iheskor zebilela jarduera indarrean dagoen araudira egokitzeko; eta, bestetik, eskumenak zituzten administrazioek jarrera pasiboa eta permisiboa agertu zutela kalteturikoek aurkezturiko salaketan eta industria jardueraren funtzionamendutik baieztaturiko klandestinitate egoeraren aurrean.

Administrazioaren jarduera eza frogaturik geratu zen eta horregatik adierazi behar izan genuen EKren 45. artikulua, ingurumena berreskuratzeaz gain, administrazio publikoei babes lana ere ezartzen diela ingurumenarekiko. Hau da, mantentze lanak eta



babestekoak gauzatu behar dituzte. Horrek mota honetako instalazioetan esku hartzeko beharrezkoak diren baliabideak izatea dakar, behar izan daitezkeen prebentzio, prestazio eta zerbitzu lanen bidez. Horretarako, ezinbestekoa da EKren 53.3 artikulua jasotako ezarpena betetzea. Ezarpen horren arabera, botere publikoek gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak babesteko betebeharrak juridikoa dute, eta kasu honetan osasunaren babeserako eskubidearekin eta jardueraren kokapenetik gertu bizi diren pertsonen ingurumen egokiaz gozatzeko duten eskubidearekin bat dator.

Horrela, eskumenak dituzten administrazioek, ingurumenarentzat kaltegarriak diren jarduerak antzematean, ezin gera daitezke pertsona edo ondasunen gaineko kalteetan bihurtu zain. Beharrezkoa da administrazioaren esku-hartzea gauzatzea arrisku egoerarekin amaitzeko, eta horretarako neurri zuzentzaile egokiak hartu beharko dira edo zuzenean erantzukizuna duten horiei adierazitako neurriak gauzatzeko eskatuko zaie. Ez dugu ahaztu behar ingurumenaren babesaren xedea ez dela amaitzen eragindako kalteen konponketarekin, elementu eratzaileen mantentze lanak ere egin behar direlako.

Gainera, azpimarratu nahi dugu Auzitegi Konstituzionalak gai honen inguruan eman duen doktrinarik berrienak ezartzen duela, administrazioak esku artean dugun jarduera bezalako kasuetan eragindako ingurumen kalteen aurrean tolerantzia eta adostasuna agertzen badu, nahiz eta pertsonen osasunerako arriskurik ez ekarri, osotasun fisiko eta moralerako oinarritzko eskubideak (EKren 15. art.), pertsonen eta familien intimitaterako eskubidea (EKren 18.1 art.) eta etxebizitzaren mugiezintasuna (EKren 18.2) urratzea dakarrela ondorio gisa.

Horren aurrean, Auzitegi Konstituzionalak esku-hartze administratiboaren jarduna exijitzen du ingurumen lizentziaren teknikaren bidez. Jarduera horrek ingurumen politika guztiak izan behar duen prebentzio printzipioaren oinarrian egon behar du. Ondorenean, jardueraren bizitza osoan zehar, beharrezkoak diren kontrol neurriak hartu beharko dira une oro bermatu ahal izateko aipaturiko eskubideak ez direla urratzen.

Arartekoak pentsatu zuen ezin zela gehiago onartzen eta jasaten jarraitu jarduera horien inguruan bizi diren familiek beren etxebizitzak utzi behar izatea, edo justifikatu ezin diren bestelako neurriak hartu behar izatea gutxieneko bizi kalitatea lortu ahal izateko. Kontuan hartu behar da, gainera, indarrean dagoen araudiaren arabera Muxikako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari zegokiela egoera hori galarazteko erantzukizun zuzena.

Horregatik guztiagatik, gomendatu zitzaizkien beharrezko neurriak har zitzatela instalazioak legezatzeko, eta beharrezko egiaztapenak egin zitzatela, instalazioaren funtzionamenduak inguruan bizi diren auzotarren oinarritzko eskubideak urra zitzaketen ondorio negatiboak zehazteko. Lortzen ziren emaitzak kontuan hartuta, arrisku egoera hori luzatzen jarraitzea ekiditeko beharrezkoak ziren kautelazko neurriak hartzeko eskatu zitzaizkien, jarduera behar bezala garatzen zela bermatzen zuen legalizazio espedientea behin betiko ebatzi bitartean.

Txosten hau prestatzen amaituta dugula, Muxikako Udalak aurkeztutako informazioari jarraiki, adierazi nahi dugu erakunde honek instalazioa legezatzeko kasuan kasuko proiektu teknikoa aurkeztu duela, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

Azkenik, azpiegitura jakin batzuek ingurumenean duten eraginari dagokionez, azpimarragarria da Txingudiko eremuan (Gipuzkoa) **hiri hondakinen erraustegia**

**jartzeko proiektuari** buruz erakunde honetan izapidetu den espedientea. 2005ean erakunde honek behin-behineko erabakia eman zuen horren inguruan eta hori urte horretako txostenean jasota geratu zen; espedientearen izapidetze prozesuari 2006an eman zaio amaiera, Arartekoaren behin betiko ebazpenaren bidez.

Jada 2004an mediku talde batek gure esku-hartzea eskatu zuen proiektu horren inguruan eta adierazi zuten horrek hainbat herritarren osasunean kalte larriak eragin zitzaakeela eta administrazio autonomikoa, osasunaren arloko organo eskuduna, ez zela gaiaren inguruko egiazko informazioa ematen ari. Baina 2005ean beste bi taldek ere kexa bana aurkeztu zuten proiektu honi onartzeko prozeduran sartuta zeuden beste botere publiko batzuek garatutako jardueren aurka –kexa horietako batean adierazi zen proiektuak eragindako herritarrentzat ez zegoela modu eraginkorrean parte hartzeko biderik eta, orobat, proiektuak mugaz haraindi ere bazituela ondorioak; beste kexan, berriz, beste kontu batzuk azpimarratu ziren, esaterako, ingurumenaren arloko arauak betetzeari dagozkionak, bereziki, hiri hondakin solidoak kudeatzeari buruzko Europako Erkidegoko arauak, eta ingurumenean eta osasunean ondorio larriak dituzten kutsatzaile organo iraunkorrak sor ditzaketen jarduera-proiektuek jaso beharreko tratamenduari dagozkionak–.

Hala ere, talde erreklamatzailerik desberdinek emandako arrazoiak administrazio desberdinei zegozkien arren (toki eta foru administrazioei eta administrazio autonomikoko sail desberdinei), arrazoi horiek guztiak pertsonen osasunerako eskubideari, ingurumen egokiaz gozatzeko eskubideari eta ingurumenaren arloan herritarrek duten parte-hartzeari buruzkoak ziren eta, hala, espediente bakarrean biltzea erabaki genuen.

Proiektu hau aurrera eramaten, baimentzen eta gauzatzen parte hartu duten administrazioei (hots, Txingudiko Mankomunitateari eta hori osatzen duten udalei, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzaren sail desberdinei) zuzenduta, ebazpena eman genuen eta, ondoren, hiru talde erreklamatzailerik helarazi genien. Bertan, zehatz-mehatz aztertu genuen aplikagarri zen arautegia eta azpimarratu genuen oso garrantzitsua zela hori sorburu duen Europako Erkidegoko arautegiaren testuinguruan kokatzea eta interpretatzea. Orobat, bidean zen baimentze prozeduaren inguruko gure proposamenak eta gogoetak islatu genituen eta hausnarketa egin genuen hiri hondakin kudeaketa eraginkorra pertsonen ingurumen egokia izateko eta osasunerako dituzten eskubideekin bateragarri egitearen garrantziari buruz.

Illo horretatik, tartean ziren administrazioei gogorarazi genien beharrezkoa zela ingurumenaren aldetik jasagarria den eta Europako erakundeek finkatutako printzipioen hierarkia errespetatzen duen hondakin kudeatzeko sistema sortzea, honako printzipio hauek kontuan hartuta, ordena honetan bertan: aurrea hartzea, jatorrian gutxitzea, berriz erabiltzea, balorizatzea eta, azkenik, ingurumenean ahalik eta eraginik txikienarekin deuseztatzea.

Halaber azpimarratu genuen beharrezkoa zela kutsatzaile organiko iraunkorren emisiorik sortzen ez duten hautabideei lehentasuna ematea, arlo hau erregulatzen duen Europako Erkidegoko arautegian zehazten den moduan. Bestalde, uste dugu ingurumenean honenaren moduko eragina duen etorkizuneko beste edozein proiektu berri asmo handiagoko demokrazia-nozioan kokatu behar dela, bukaerako erabakian herritarrei, hartzaile nagusi diren heinean, hitza eta benetako eragina izateko ahalmena eman diezaien; hori guztia, 2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentarauetan oinarrituta (arestian aipatu bezala, horiek ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte

hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen bidez barneratu dira berriki gure ordenamendu juridikoan).

Arrazoi hori dela medio, komenigarritzat jotzen dugu kontu honen inguruko eztabaida sakonari hasiera ematea; bertan, ingurumena babesteaz arduratzen diren gobernuz kanpoko erakundeek ere esku hartuko lukete eta bideak ezarriko lirateke herritarrek modu eraginkorrean parte har dezaten sortu nahi dugun eta, zentzu horretan, geroko belaunaldiak estutasunean jar ditzakeen etorkizuneko gizarte eredia artikulatzerakoan eragina izango duten erabakietan.

Orobat, proposatu da hondakinak tratatu eta ezabatzeko azkenean aukeratzen den proiektuaren gauzatze prozesuaren eta funtzionamenduaren jarraipena egiteko organoak sortzea eta horietan herritarrek ere parte hartzea, herritarrek une oro guztiaren berri izan dezaten, horrela, proiektuak osasunean eta ingurumenean izan dezakeen eraginaren kontrol soziala benetan eta modu eraginkorrean gauzatu ahal izango baita.

Ebazpen horren bidez, eta arlo honen inguruko azken legeei jarraiki, botere publikoak ere ohartarazi nahi izan ditugu ordezkartzan oinarritutako demokraziak eskaintzen dituen mekanismo erabakitzailerak ez direla nahikoak, gure gizarteek etorkizunean izango duten ingurumenaren jasangarritasuna defini dezaketen proiektu estrategikoen aurrean gaudenean. Administrazio erantzuleei ere adierazi diegu beharrezkoa dela herritarrek parte hartzeko bideak aurkitzea, haiek ere benetako eragina izan dezaten era honetako proiektuen inguruko azken erabakietan eta arlo honetan eskumenak dituzten agintariak gizartearen babesa izan dezaten, azken batean, halako ezaugarriak dituen aukera estrategikoak etorkizunean dakarren erantzukizuna partekatuzko.

## 9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) **Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan**

⇒ *Galdategi jarduera batek eragindako kutsadura akustikoa eta atmosferakoa (887/2005)*

- Erreklamazioa

Hainbat kexa-idazki jaso ziren Aretxabaletan, industrialdearen ondoan, egindako urbanizazio berrian bizi ziren pertsonen aldetik. Horietan adierazi zuten zarata-eragozpenak jasaten zituztela beren etxebizitzan ondoan kokatutako galdategi jardueraren araz kontrako funtzionamenduagatik.

Horren inguruan aipatu zuten premiazkoa zela instalazioari agintzea leihoak eta ateak itxi behar zituela lanean ari zirenean, bereziki, gauez, zarata izugarria baitzen eta horrek auzotarren gaueko atsedena asaldatzen baitzuen, baita asteburuetan ere. Orobat azaldu zuten industriak emisioak egiten zituela atmosferara eta, horiek eragindako korrosioaren ondorioz, kalte larriak eragiten zituztela beren etxeetako fatxadetan eta balkoietan.

- Azterketa

Erreklamatzailerak helarazitako informazioan oinarrituta ikusi ahal izan genuen, jarduerak hainbat urte zeramatzan arren lanean, udaletxean jasotako salaketan ondo-

rioz, enpresari jarduera legeztatzeko beharrezko izapideei hasiera eman ziezaion eskatu zitzaiola. Une honetan, prozedura hori jendaurreko informazio aldiaren fasean dago.

Erakunde honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi du jarduera horiek baimentze erregimen espezifikoaren menpe daudela, horien funtzionamenduak ondorio kaltegarriak edo eragozpenak eta trabak eragin ditzakeelako. Hala, jardueraren gauzate normala neurri zorrotzagoetara atxikitzeak interes orokorra babestu nahi du, kasu honetan kutsa dezaketen instalazio horien inguruan bizi diren pertsonen kalitatezko ingurumenaz eta osasunaz gozatzeko duten eskubidearekin identifikatzen dena.

Jakina denez, era honetako instalazioak legeztatzeko prozedura administratiboak luze jo ohi du. Horregatik, erakunde honek beti jo du egokitzen tartean diren administrazioei zuzentzea, hauek bai baitakite jarduera horiek zeinen kalte larriak eragiten dizkieten inguruan bizi diren pertsonen, eta haiei eskatzea azter dezatela zein aukera dauden instalazioaren titularrari jarduera eragiten ari den kaltea ez zabaltzeko beharrezko kautelazko neurri zuzentzaileak har ditzala agintzeko.

Ildo horretatik bideratu genuen Aretxabaletako Udalari egindako eskaera; era berean, informazioa eskatu genion bidean ziren legeztatze prozedurak instruitzeko uneari buruz.

Udalbatzak jakinarazi zigun jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko araudiaren proiektu osoa aurkezteko eskatu zitzaiola berriz ere enpresari, eta, orobat, hilabeteko epe luzaezinean, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailean, atmosferarako emisio iturrien legeztapena eskatzeko agindu zitzaiola.

Halaber, jakinarazi ziguten, berehalako neurri gisa, udalak enpresa bat kontratatu zuela, inguruko puntu jakin batzuetan bidezko neurketak eginda, eragindako zarataren mailak ebalua zitzan, ezarritako zarata-mailak betetzen ote ziren egiaztatzeko. Ildo horretatik, adierazi zuten zaratei buruzko ebaluazio txosteneko emaitzen arabera jardungo zutela eta, nolana ere, instalazioetatik gertu bizi diren herritarrek eta, oro har, udalerriko biztanleek dituzten eskubideak bermatuko zituztela.

- Emaidza

Azkenik, egindako soinu neurketetatik ondorioztatu ahal izan zen aukeratutako etxebizitzetan lortutako mailek EAEn gaueko orduetarako erregelamenduz ezarritako baldintzak urratzen zituztela.

Hori dela-eta, Udalbatzak jakinarazi zigun alkatetzaren dekretuaren bidez, jarduera etetea eta soinu iturriak (konpresoreak, haizagailuak, erauzgailuak...) ezabatzea exijitu zela, zuhurtziazko eta berehala bete beharreko neurri gisa.

Aretxabaletako Udalari igorri genion ondorioen idazkian azpimarratu genuen beharrezkoa zela udal agintarietako bidezko kontrol neurriak hartzea, jarduera legeztatutako bitartean, egindako errekerimendua zorrotz betetzen zela bermatzeko.

⇒ *Zereal siloak husterakoan eragindako hauts emisioak (1188/2005)*

- Erreklamazioa

Enpresa bateko langileek erakunde honetan salatu zuten eragozpen larriak jasaten ari zirela enpresa mugakide batean garatzen zen jardueraren ondorioz. Horri buruz,

adierazi zuten solteko zerealen bagoiak heltzen zirela ondoko instalaziora eta, bertan, siloetara husten zituztela inolako babesik erabili gabe; horren ondorioz, hauts hodei nabarmena sortzen zuten eta horrek osasun arazo garrantzitsuak eragiten zizkien. Era berean, adierazi zuten zerealen hauts kontzentrazio horrek langileen ibilgailuetan ere eragina zuela, matxura larriak eragiten baitzizkien.

- Azterketa

Erakunde honek egindako lehen eskaerari erantzunez, Irungo Udalak jakinarazi zigun, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 55. artikuluetan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritz, jarduera sailkatuko espedientea izapidetzen ari zirela eta zain zeudela Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak neurri zuzentzaileak finkatzeko eta ezartzeko txostena noiz bidaliko zuen.

Hala ere, beste idazki baten bidez, udalari eskatu genion egiazta zezala ea instalazio horrek egoki betetzen zituen eragiten ari zen kaltea gehiago ez zabaltzeko beharrezko neurri zuzentzaileak.

Udalak jakinarazi zigun Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak neurri zuzentzaileak finkatzeko eta ezartzeko txostena igorri zuela eta Udaleko Hirigintza Diziplinako Ordezkaritza zain zegoela espedientean zeuden gainerako txosten tekniko eta osasun arlokoak noiz jasoko, jarduera-lizentzia egokia eman ahal izateko.

Honakoa ere adierazi ziguten: *“ezarritako neurri zuzentzaile guztien berri izanda, baita jarduera behar bezala garatu izanaren berri ere Arartekoak azaldu duen problematikarekin, udaleko zerbitzu teknikoek bidezko ikuskapen bisitak egin behar dituzte jarduera behar bezala garatzen dela eta emandako jarduera-lizentziara egokitzen dela egiaztatzeko. Baldintza horiek bete ezean, horrek eragin ditzakeen kalteak baloratu beharko dira, baita horiek saihesteko beharrezko neurriak hartu ere”*.

Jasotako informazioa ikusita, erakunde honek beste idazki bat helarazi behar izan zion Irungo Udalari eta bertan azpimarratu zuen beharrezkoa zela albait arinen kasuan kasuko ikuskapen bisita egitea.

- Emaizta

Behin bidezko egiaztapen teknikoak eginda, Udalbatzak ondorioen honako txosten hau aurkeztu zigun:

*‘Arartekoaren jakinarazpena jaso zen eta horren bidez eskatu zen (...) enpresak aleak tokiz aldatzeko dituen instalazioetara egindako ikuskapenari buruzko txostena bidal genezala, jarduera horrek (...) Enpresari eragiten dizkion eragozpenak aztertzeko.*

*Horren inguruan, jakinarazi behar dugu (...) enpresarekin harremanetan jarri ginela eta, adierazi zigunez, 2006ko abuztuaren 1ean instalatuko zirela tokiz aldatzeagatik hautsak biltzeko muntaiaren azken zatiak eta, hori dela-eta, ikuskapena 2006ko abuztuaren 2an egin zela.*

*Behin establezimenduan, plano gaineko azalpenak eman zizkiguten egindako instalazioaren ezaugarriei buruz; esandakoaren arabera, instalazio hori bat dator nabarmen jarduera-proiektuan aurkeztu eta onartu zenarekin. Enpresaren arabera, jarduera-bolumena ez da konstantea eta, funtsean, lehorteak izateak*

*ala ez izateak baldintzatuta dago; hori dela-eta, Europatik aleak inportatzen dira, nagusiki trenez. Iruna heltzean, beharrezkoa da aleak ontziz aldatzea, trenbide zabaleran dagoen aldeagatik. Bertan, aleak bagoietatik beste bagoi batzuetara edo bagoietatik kamioietara aldatzen dira. Bagoi bakoitzak 50 bat tona har ditzake eta 20 bagoiko unitateak elkartzen dira; hortaz, guztira, 1.000 tona garraiatzen dira trenez.*

*Jarduera honela gauzatzen da: Bagoien bi trenak paraleloan jartzen dira. Beteta dagoen trenetik aleak barne toberara erortzen uzten dira eta, bertatik, putzupaden bitartez edo xurgatze bidez biltzen dira. Horrela, zinta batera heltzen dira eta honek bigarren bagoira erortzen uzten ditu. Bagoi bakoitzak hainbat konpartimentu ditu eta horiek txandaka kargatzen joaten dira, orekatuta gera dadin.*

*Hautsa, nagusiki, bi lekutan sortzen da: toberaren ahoan, husten duen bagoiaren azpian; eta bagoien arteko kargako ahoetan, irteerako mahukaren eta kargako tranpolaren artean. Deskargatzerakoan sortutako hauts hau biltzeko, aire korronea eratzen da eta honek hautsa dagoen ingurua garbitu eta sakonune baten modura jarritako bilketa-holtz batzuetara arrastatzen du. Kargatzerakoan, kargako mahukaren alboetan kokatuta dauden sakonune baten modura jarritako kanpaien bidez jasotzen da. Kanpai eta holtz horiek guztiak sakonune baten modura jarrita daude; hautsa jasotzen dute eta mahuken iragazkira garraiatzen dute. Bertan, airea bereizi egiten da eta, garbituta, turbina baten bidez kanporatzen da. Iragazkian geratzen den hautsa tobera batean biltzen da eta kargako toberara itzultzen da, berriz kargatzeko.*

*Geldi zegoen instalazioa ikuskatu zen eta dokumentazioarekin bat datorrela ikusi ahal izan zen.*

*Ondoren, aleak tokiz aldatzeko proba egin zen, nola egin ohi den ikusteko, eta, bertan egiaztatu ahal izan zen bezala, instalazioak eraginkorrak dira, ia ez baita hautsik zabaltzen.*

Ondorioz, uste da aleak tokiz aldatzeko jarduerak, proiektuan bertan eta proban adierazitako baldintzetan, aurrera jarrai dezakeela, instalazioek egoki betetzen baitituzte ezarritako neurri zuzentzaileak eta beharrezko neurriak hartu baitira auzotarrei eragozpenik ez sortzeko.”

Egindako egiaztapenen berri eman zitzaizen interesdunei eta, hala, gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen.

## **B) Sailkatutako jarduerak bizitegitarako lurzoruan**

⇒ Ostalaritza-establezimenduen ondorioz eragozpenak: musika-ekipoa kentzea (339/2005)

- Erreklamazioa

Iurretako biztanle batek berriz ere erakunde honetara jo zuen eta adierazi zuen oraindik ere zarata-eragozpenak eragiten zituela bera bizi zen higiezinaren etxabea kokatutako taberna-jardueraren legez kontrako funtzionamenduak.

Kontu honek bi kexa-espediente irekiarazi zituen erakunde honetan 1998an eta, ondoren, 2001ean eta bi kasuetan gure esku-hartzea amaitutzat jo genuen, lokal horren funtzionamendua indarrean zegoen lege arautegian ezarritako parametroetara egokitu zela egiaztatu ondoren.

Kexa aurkeztu zuenak bere etxebizitzan oraindik ere kalte larriak jasaten zituela adierazi zuenez, erakunde honek zegokion eskaera egin zion Iurretako Udalari, jarduera honen inguruan egindako jarraipen eta kontrol neurriak egiaztatze aldera.

- Azterketa

Udalbatza horrek bidalitako administrazio espedientea erakunde honetako aholkulari juridikoek aztertu ondoren, ikusi ahal izan genuen, establezimendura egin zen ikuskapen bisita guztietan, baimenik ez zuen musika-ekipoa zegoela piztuta.

Era berean, egiaztatu genuen Iurretako Udalak, alkatetzaren dekretuen bidez, hainbatetan eskatu zuela musika-ekipoa kentzeko eta isun hertsatzaile ugari ezarri zizkiola jardueraren arduradunari, aipatu ekipoa emandako epean ez kentzeagatik.

Hala ere, ekarritako datuetatik ondorioztatu genuen jardueraren arduradunak ez zuela inolaz ere ekipoa kendu. Are gehiago, behin eta berriro hala jokatzan zuela ikusita, esan zitezkeen udalaren esku-hartzeak ez zuela lortzen jardueraren arduradunari ulertaraztea araua urratzen ari zela; izan ere, jardueraren arduradunarentzat onuragarriagoa zen araua urratzea eta, ondorioz, isuna ordaintzea, jarduera horren ondoko higiezinetan bizi diren pertsonen eskubideak errespetatzen ez dituzten jokabideak eta jarduerak aldatzea baino.

Nolanahi ere, udaleko zerbitzu teknikoek ere ez zuten musika-ekipoa kendu. Hori dela-eta, beharrezkotzat jo genuen beste informazio eskabide bat bidaltzea eta, horren bidez, udal horri kontu honetan zituen betebeharrak eta erantzukizunak gogoraraztea.

Lehenik eta behin, adierazi genion, musika-ekipoa emandako epean ez kentzeagatik jardueraren arduradunari ezarri zitzaizkion isun hertsatzaileen kaltetan izan gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 104. artikulua honela dioela: arau-hausleak ez baditu betetzen ingurumena lehenera ekartzeko dituen betebeharrak, zehapen organoak hala eskatu izan dion arren, honek betearazpen subsidiarioa aginduko du. Gainera, 105. artikuluen arabera, salbuespen gisa eta zehapen espedienteari hasiera eman baino lehen, administrazioak zehapen izaerarik izango ez duten zuhurtiazko neurriak hartu ahal izango ditu edo horiek hartzeko agindu ahal izango dio ustezko arduradunari. Horien artea, honako hauek aipa daitezke: musika-ekipoak zigilatzea, edo ingurumeneko kaltea zabaltzea ekiditen duen beste edozein neurri hartzea, nola zuzentzaileak, segurtasunekoak hala kontrolekoak”

Hala ere, ekarritako informazioaren arabera, Iurretako Udalak ez zuen, antza, horren inguruan ezer egin.

Bestalde, musika-ekipoaren legez kontrako funtzionamenduari dagokionez, azpimarratu genuen argi geratu behar zuela jardueran funtzionamendu egokia bermatzeko modu bakarra Bizkaiko Foru Aldundiaren kalifikazio txostenean ezarritako baldintzak edo neurriak betetzea zela edo, bestela, establezimenduari jarduera handitzeko lizentzia ematea eta, bertan, musika-ekipoaren erabilera berariaz onartzea, lokalari ezarritako neurri zuzentzaile berriak eraginkorrak direla egiaztatu ondoren.

Hortaz, izandako inguruabarrak ikusita, Arartekoak beharrezkotzat jo zuen udalak lokalean jarritako musika-ekipoa berehala kentzea eta kasuan kasuko proiektu teknikoak aurkez zedila eskatzea.

- Emaidza

Gure azken eskaerari erantzunez, jakinarazi ziguten, alkatetzaren ebazpen egoikiaren bidez, tabernan jarritako musika-ekipoa berehala ken zezatela eskatu zietela jardueraren arduradunei, halakorik jartzea debekatzen zuen neurri zuzentzailea urratzen zuelako, eta, ohartarazi zituztela, hala egin ezean, udalak subsidiarioki jokatuko zuela. Era berean, jardueraren arduradunei adierazi zieten zein agiri tekniko aurkeztu behar zituzten musika-ekipoa legezatzeko.

⇒ *Gazteak eta lonjak* (55/2006)

- Erreklamazioa

Jabekideen komunitate batek erakunde honetan salatu zuen kalte larriak eragiten zizkiela beren etxearen azpian zegoen lonja txiki bat biltzeko leku gisa erabiltzeak; gainera, lokal horrek ez zituen aipatu erabilerarako baldintza egokiak betetzen eta, ziotenez, ez zuen beharrezko udal lizentziarik.

Zehazki, adierazi zuten badirela 10 bat urte zenbait gazte talde lokal horretan bildu eta festak egiten dituztela goizeko ordu txikietara arte; horrek, ondorioz, eragozpen jasanezinak eragiten dizkie inguruko bizilagunei, hainbat arrazoiengatik: musika altu egotea, materiala aurrera eta atzera ibiltzea, euren arteko elkarriketak, etab.

Era berean, aipatu zuten behin eta berriro salaketak aurkeztu zituztela Portugaleteko Udalean, sortutako arazoari irtenbide eraginkorra aurkitze aldera. Beren hitzetan, salaketa horien ondorioz, lokala zigilatu egin zen, baina, ondoren, bortxatu egin zen eta, hala, lokala baldintza berdinetan erabiltzen jarraitzen zen, toki erakundeak besterik egin gabe egoerari konponbidea aurkitzeko.

- Azterketa

Egindako gogoetei jaramon eginez, erabaki genuen Portugaleteko Udalari informazio eskaera egingo geniola aurkeztutako salaketen ondotik udal agintaritzek garatutako jarduerak zehazte aldera, lokalaren administrazio eta hirigintzako egoera zuzena zela egiaztatzeaz gain.

Eskaera horri erantzunez, eskatu zen udaleko administrazio espediente sartzu zen erakunde honetan. Horrekin batera, txostena igorri zen eta horrek bi alderditan jartzen zuen arreta:

1) Lehenik eta behin, aipatu zen, kontu honi buruz garatutako jarduerak ezagutze aldera, beharrezkoa zela alde aurretik Portugaleteko Udala gauzatzen ari den proiektua azaltzea, hots, "*Gazteak eta lonjak: leku komunak*"; horren bidez, gida egin nahi da eta, bertan, lokal horiek erabiltzen dituzten sektore guztiek bete beharreko gomendioak bildu. Hori guztia lokalak gazteen aisiarako erabiltzen direnean arriskuak txikiagotzeko eta bizikidetzak hobetzeko.



Zehazki, honela zioen: "...2004ko azaroan ikusi zen Portugaleten gazteek beren denbora librean gero eta gehiago erabiltzen zituztela lonjak bildu eta sozializatzeko espazio gisa. Horien erabilerak hiru sektore hartzen ditu, hots, gazteak eurak, lokala dagoen higiezinako auzotarren komunitatea eta jabea; eta, kasu batzuetan, horrek bizikidetzara-razoak sortzen ditu, eragozpen, gaitzespen, beldur eta ikaren ondorioz.

Egoera horren aurrean, Portugaleteko Udaleko Droga-mendetasunei Aurrea Hartzeko Sailak "Gazteak eta lonjak" izeneko proiektua jarri zuen abian. Horren helburu nagusia da, tartean diren sektoreetako bakoitzaren alde eginez, horien interesak ez lermatzen lagunduko duten ildoak, gomendioak eta konpromisoak eskaintzea eta biltzea. Gazteek dute protagonismoa, komenigarria baita horiek mugak ezagutzera, lonjak modu arduratsuan erabili ahal izateko. Era berean, lonjako kideentzat derrigorrezkotzat jotzen den informazioa ere helarazi nahi da, nagusiki, drogen kontsumoak edo bestelako jarduera arriskutsuek eragin ditzaketen arriskuak txikiagotzearen inguruan.

Portugaleteko Udala gazteek beren aisiarako erabiltzen dituzten udalerriko lokal edo lonjen zerrenda prestatzen ari da, gutxieneko erabilera-baldintzak bermatuko dituzten konpromisoak hartuko direla ziurtatze aldera, horien artean, gutxieneko segurtasun eta osasungarritasun baldintzak (erantzukizun zibileko aseguruak, su itzalgailua, behe tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria, etab.) Horretarako, egutegia ezarriko da interesatuta dauden gazte taldeekin, jabeekin eta eragindako auzotarrekin bitartekotza-bilerak egiteko, hartzen doazen konpromisoak zehazte aldera.

Ezarritako konpromisoak bete ezean, adostutakotik aldentzea ekarriko luke eta, beraz, lokalari eman dakioken erabileraren erantzukizuna onartuko litzateke. Proiektu honen helburua ez da, inolaz ere, lokal hauei irekiera-lizentzia ematea, halako jarduerak ez baitaude sailkatuta eta horien ondoriozko erantzukizuna jardueraren arduraduneri egotziko baitzaie. Proiektu honen bidez, halako espazio pribatuek eskaintzen duten opakutasunari lotutako arriskuak murriztu nahi dira eta tartean diren gazteak hartutako konpromisoen erantzule egin. Portugaleteko Udalak aukera izango du fitxategi horretan ez sartzeko edo horretatik kanpo uzteko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten edo hartutako konpromisoak urratzen dituzten lokalak; halako kasuetan, kanpo uzteko arrazoiari dagokion arloan indarrean dagoen arautegia aplikatuko da. Ildo beretik, eskubidea izango du fitxategian eta negoziazio prozesuan sartzeko edo horietatik kanpo uzteko, beren ibilbidea ikusita (zehapen espedienteak, etab.), hartutako konpromisoak beteko ote dituzten zalantza sortzen duten gazte taldeak edo jabeak.

Proiektu honetatik kanpo geratuko dira gazteei zuzendutako jardueretarako, kultur jardueretarako edo aisialdirako diren lokalak, egoitzak edo elkarteak, horiek komunitatearen onurarako jarduerak garatu ohi baitituzte."

- 2) Ondoren, eta kasu hauetan aplikatu beharreko irizpideak zehaztu ondoren, udal teknikariek kontu honetan eragindako alderdiekin (hau da, lokal hori erabiltzen zuen

gazte taldearekin eta tartean ziren auzotarrekin) burutu zituzten jardueren berri eman zen. Ondoren, Portugaleteko Udalak kexa eragin zuen arazoari buruz ateratako ondorioa helarazi zitzaigun.

- *Lokalaren erabiltzaileekin burututako jardueri zegokienez*, jakinarazi zen, inguruko auzotarrek aurkeztutako salaketen ondotik, ikuskapen bisita egin zutela, udalerrian garatzen ari ziren proiektuaren berri emateko eta, egoki iritzi gero, lokala erabiltzen jarraitu ahal izateko hartu beharko ziren neurriak zehazteko. Gazteek parte hartzea onartu zuten eta ezarritako baldintzak betetzea. Era berean, adierazi zen ondoren ere bilerak egin zirela gazteekin eta une oro eman zitzaizela egoeraren berri. Orobat, eskatu zitzaaien ekidin zitzatela auzotarren komunitatean eragozpenak sor zitzaizketen egoerak eta lonjan gauzatu behar ziren neurriak zehaztu ziren, besteak beste, komuna jartzearena. Azkenik, eta lokalean hartu beharreko neurriak finkatu ondoren, bi alderdiek bilerak atzeratzea erabaki zuten, egokitzapen lanari buruzko informazio guztia izan arte.
- *Eragindako auzotarrekin egindako kudeaketa-lanei zegokienez*, azpimarratu zen salaketa ugari aurkeztu zirela udaletxean 1995az geroztik eta guztiek lokala ixtea eskatu zutela. Hala ere, ohartarazi zen 2005 arte gertatutako gorabeherak ez zutela zerikusirik egungo taldearekin, baizik eta beste batekin, eta, beraz, azaldukoaren arabera, gazte talde hau lokala erabiltzen hasi zenetik, eragindako auzotarrek gorabeheren berri eman eta lonjara joan ziren guztietan, hori beti itxita eta hutsik zegoela. Gainera, aipatu zuten, salaketa aurkeztu zuen auzotarrarekin harremanetan jartzen saiatu ziren arren bilera egiteko, tartean ziren gainerako bizilagunekin bezalaxe, “ez zutela bilerarik egin, ezin izan baitzuten auzotarrarekin komunikatu.”
- Horregatik guztiagatik, eta bi alderdiekin burutu ziren jarduerak ikusita, udaleko zerbitzu teknikoek onartu zuten atzeratu egin zela gazte taldeak aurkeztu behar zituen agiriak ematea. Alabaina, ziotenaren arabera, atzerapen hori hainbat arrazoiengatik gertatu zen, besteak beste, lokala behin betiko itxi zitekeelako eta komuna instalatzeko lanetarako beharrezko baimenak ez zeuzkatelako. Nolanahi ere, azaldu zuten ez zutela egokitzat jotzen lonja ixtea, ez behintzat inguruko auzotarren kexak egiazkoak zirela behin betiko ziurtatu artean.

Aurkeztutako agiriak oinarritzat hartuta, ikusi ahal izan genuen Portugaleteko Udala bidezko kontrol eta ikuskapen eginkizunak garatzen ari zela legez kanpokotzat jotako egoerak zuzentzeko, aipatu proiektuan deskribatutako inguruabarrekin bat etorriz. Horrenbestez, ondorioztatu ahal izan genuen ez geundela legez kanpoko jarduera baten aurrean, udalak ez baitzuen zegozkion betebeharrak eta erantzukizunak bete besterik egin.

Hala ere, Portugaleteko Udalarari bidali genion amaitze idazkian, adierazi behar izan genion, erakunde honek bazekien arren udal hori ahalegin handiak egiten ari zela proiektu hori prestatzeko, egokia iruditzen zitzaigula argitzea ez geundela ados era honetako jardueren kalifikazioari buruz eskainitako arazoiekin. Azken urteotan adierazi izan dugu argi gelditu behar duela sailkatutako jardueren araubidera atxikita daudela instalazio

horiek eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 55. artikuluan eta hurrengoetan jasotako administrazio lizentziaren araubidera atxikita daudela.

Bestalde, Portugaleteko Udala ohartarazi behar izan genuen lokalaren arduradunei eska ziezaiezen al bait arinen gauza zitzatela eskatutako obrak edo, bestela, zuhurtziazko neurri egokiak har zitzatela obra horiek behin betiko burutu artean. Horren guztiaren helburua da inguruko bizilagunei eragiten ariko litzaizkiekeen zarata-eragozpenak arintzea.

- Emaizta

Kexa aurkeztu zutenei garatutako jardueren berri eman ondoren, espedientea itxi eta artxibatu egin genuen.

⇒ Supermerkatu bateko zamalanek eragindako zaratak (1006/2006)

- Erreklamazioa

Erakunde honetan kexa-idazkia jaso zen Zarauzko auzotar baten aldetik. Horren bidez, adierazi zuen zarata-eragozpenak jasan behar zituela bizi zen higiezinaren etxabeaz kokatutako supermerkatuan egiten zituzten zamalanen ondorioz.

Horren inguruan, interesdunak azaldu zuen produktuak egunean hainbatetan eramaten zituztela batetik bestera instalazioan eta, horretarako, zarata handia ateratzen zuten paletak erabiltzen zirela. Era berean, aipatu zuen zamalanak ez zirela leku egokian garatzen.

- Azterketa

Kontu horren inguruko beharrezko informazioa biltze aldera, Zarauzko Udalarri eskatu genion bere iritzi arrazoitua eman ziezagula kexa honen xede zen uziari zegokionez.

Gure eskaerari erantzunez, txostena jaso genuen eta, bertan, egoera konpontzeko hartutako neurrien berri eman zitzaigun. Zehazki, honakoa zioen:

- *“Errekerimendua egin zen... eta, horren bidez, neurri zuzentzaileak ezarri ziren. Salatuak jakinarazi du paletak aldatzeko neurri zuzentzailea jada hartu dela; entrega-albaranak aurkeztu zituen eta, horien arabera, gurdiek zaratarik ateratzen ez duten gurpilak eta estalitako barne urkilak dituzte.*
- *Interesgarritzat jo da txosten hau eta albaranen kopiak salatuari eta salatzaileari aurkeztea, ezarritako neurri zuzentzailea bete dela jakin dezaten.*
- *Arazoa konpontzeko ... duen interesa ikusita, txosten honen bidez interesdunari jakinarazi nahi zaio, zamalanek sortzen dituzten zaratek beste eragozpenik badakarkioten, interesgarria litzatekeela bilera egitea eta bertan aztertzea zeintzuk diren eragozpenak sortzen dituzten alderdiak, horiei irtenbidea aurkitze aldera.*
- *Udal zerbitzu tekniko hauek ere jakin nahiko lukete ea hartutako neurriarekin eragozpenak izaten jarraitzen duten. Salatzaileak hilabeteko epea izango du horren berri emateko.”*

Aipatutako txostenari jarraiki, egiaztatu ahal izan genuen Zarauzko Udalak zenbait neurri hartu zituela jarduera horretako zama-lanek eragin zitzaizketen zarata-eragozpenak aintze aldera. Halaber, egiaztatu ahal izan genuen toki erakunde horrek konpromiso formal hartu zuela neurri gehiago hartzeko, ordura arte egindako hobekuntzak nahikoak ez zirela ikusiz gero.

Hala ere, hilabete batzuk beranduago, interesdunak berriro jo zuen erakunde honetara eta ke-xaren xedean jarri zuen arreta; horren inguruan adierazi zuen salatutako egoera ez zela inolaz ere konpondu, baizik eta okerrera egin zuela. Zioenez, zama-lanetarako paleta berrie-z gain, lehengoak ere erabiltzen ziren eta, batzuetan, zamaren bolumenaren arabera, baita guztiak batera ere; horrek zarata-eragozpenak handitzea eragin zuen. Era berean, aipatu zuen, salaketa gehiago jarri zituen arren Zarauzko Udalean, ez zuela emaitza egokirik lortu.

Kexa aurkeztu zuen pertsonaren gogoetak egiaztatze aldera, Zarauzko Udalarekin harremanetan jarri ginen, kontu honen inguruan garatutako azken jardueren berri eman ziezagun.

Kasu honetan, azaldu ziguten ikuskapen gehiago egin zituztela aipatu establezimen-  
duan eta, lortutako emaitzen arabera, paletak oker erabiltzen zirelako aztarnaren bat egon zitekeela. Hala ere, zain zeuden kaltetutako etxebizitzan neurketa egiteko eta, behin emaitzak izanda, udal teknikariek hartu beharreko neurri zuzentzaileak zehaztuko zituzten.

- Emaita

Txosten hau ixteko unean, kasua oraindik behin betiko ebazpenaren zain dago.

### C) Ingurumenaren gaineko afekzioak

⇒ *Anbulantzien zarata (107/2006)*

- Erreklamazioa

Bilbotar batek erakunde honetara jo zuen eta adierazi zuen gehiegizkoa eta zentzurik gabekoa zela hirian ibili ohi ziren anbulantzia ugari-  
ek eragiten zuten zarata.

Erreklamatzailerak adierazi zuen Basurtuko Ospitaletik gertu bizi zela eta ohikoa izaten zela hiritik ibiltzen ziren anbulantziek, larrialdia ez zenean ere, sirenak piztea inolako kontrolik gabe, soil-soilik zentzu aldaketarik egin behar ez izateko edo semaforoak errespetatu behar ez izateko; horren aurrean, udaltzainek jarrera guztiz permisiboa eta pasiboa omen zuten.

- Azterketa

Erakunde honek egindako eskaerari erantzunez, Bilboko Udalak honakoa jakinarazi zigun: “*badakigu Basurtuko Ospitaletik gertu dagoen zona honetan anbulantzia asko dagoela eta, noski, sirenak erabiltzen dituztela trafikoko ugari-  
ko zona honetan pertsonak premia-z garrantzerakoan igartzeko zailtasunak dituztenean edo bira bereziak egin behar dituztenean ospitalera premia-z iritsi behar dutenean.*

Hala ere, ingurumena babesten duen Ordenantzaren 127. eta 128. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, sirenak erabili ahal izateko, anbulantziak kaltetutako

*pertsonak jaso eta ospitalera eramateko eskaintzen duen zerbitzuak premiazkoa izan behar du. Hori kontuan izanda, txosten hau Udaltzaingoaari helarazi beharko zaio, egoera kontrola dezan eta anbulantzien enpresa desberdinei adieraz diezaien derrigorrezkoa dela bere ibilbideetan agindu horiek zorrotz betetzea behar ez diren eragozpen funsgabeak saihesteko.”*

Gainera, aurkeztutako dokumentazioan adierazi zen, larrialdietako zerbitzu ugari biltzearen ondorioz (suhiltzaileak, Udaltzaingoa) zona horretan sortzen diren inguruabar bereziak direla medio, zerbitzu horiek beste toki batera eramatea pentsatu zela; horrela, zonarako aurreikusitako ekintza-planekin batera (Bilboko Zarataren Mapa berriaren ondoriozkoak), salatutako zaratak ahal den neurrian arintzea lortuko litzateke.

- Emaizta

Aurkeztutako informazioa aztertu ondoren, ikusi ahal izan genuen Bilboko Udala bere betebeharrak eta erantzukizunekin bat etorri ari zela lanean eta, ondorioz, zerbitzu horiek eragin zitzaketen zaratak arintzeko neurri egokiak hartzen ari zela.

⇒ *Udaletxearen fatxadako erlojuaren kanpai hotsek eragindako eragozpenak (254/2006)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan bizi diren zenbait pertsonen erreklamazioa aurkeztu zuten erakunde honetan, udaletxearen fatxadako erlojuaren kanpaiek eragiten zituen zarata-eragozpenengatik. Horren inguruan, adierazi zuten kanpaiek orduro puntuan, laurdenetan eta erditan jotzen zutela, egunean 24 orduz, eta bereziki gogaikarria zela horien hotsa gaez entzutea.

- Azterketa

Lehenik eta behin, Gasteizko Udalera jo genuen, udaleko zerbitzu teknikoek kasuan kasuko neurketa egin zezaten erlojuak egiten zuen soinuaren zarata-maila ikusteko eta hori Zaraten eta Bibrazioen 2000ko maiatzaren 19ko Udal Ordenantzaren ezarritako mugen barruan ote zegoen egiaztatzeko.

Eskabide horretan aipatu genuen kontu horri buruz hainbat espediente izapidetu zirela erakunde honetan. Horietan egiaztatu ahal izan genuenez, herri horietako udal teknikariek ez zuten zalantzarik izan neurriak hartu behar zirela esateko, batetik, instalazio elektrikoaren kanpaiek eragindako soinu maila jaistea eta, bestetik, gaez sistema deskonektatzea, eragindako pertsonen atsedena eta lasaitasuna bermatzeko.

Eskaera horri erantzunez, Gasteizko Udalak honakoa adierazi zuen:

*“Zaraten eta Bibrazioen Udal Ordenantzaren helburua da pertsonak energia akustikoaren agerpen adierazgarriek —alegia, zaratak eta bibrazioek— eragiten dituzten erasoetatik babesteko garatzen den udal jarduna arautzea.*

*Ordenantza horren 14. artikularekin bat etorri, zarata-maila batzuk daude eta zarata-maila horietatik kanpo geratzen dira biztanleen ustez ere ofizialki, kultur eta kirol arloan, sozialki eta politikoki, aisian nahiz beste arlo batzuetan proiektzio berezia izan dezaketen ekitaldiek sortutako zenbait zarata.*

*Udalerrri guztiek tradizioz onartu izan dituzten elementuen artean, udaletxeetako erlojuak edo elizetako kanpaiak aipa daitezke. Biztanle guztiak bat datoz horien hotsa ez dela zaratatzen hartzen eta udal teknikariek ulertzen dute hots horiek ez daudela Zaraten Udal Ordenantzako mugen barruan.*

*Hori dela-eta, Ingurumen Saileko Udal Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute Espainia plazara ematen duen fatxadako erlojuak eragindako zarata Zaraten Udal Ordenantzak onar dezakeen artean dagoela eta horri ezin zaizkiola ordenantza horretan ezarritako mugak aplikatu.”*

Udal txosten horren edukia ikusita, ondorioztatu ahal izan genuen, udal agintarien ustez, udal erlojuaren kanpaiak eragindako hotsei ez zitzaizkiela Zaraten eta Bibrazioen Udal Ordenantzaren ezarritako zarata-mugak aplikatzen, zarata hori *tradizionaltzat* hartzen zelako eta hots mota hori “oro har” onartu izan zutelako biztanleek.

Berriz ere udalbatzari zuzendu gintzaizkion eta adierazi genion beharrezkoa zela gauez kaltetuen atsedena eta lasaitasuna bermatuko duten neurriak hartzea.

Era berean, auzotarren sindiko defentsariak gai honen inguruan 2004ko martxoaren 22an egin zuen gomendioan hain egoki egiten dituen oharrak jaso genituen idazki horretan. Ildo horretatik, honakoa aipatzen du:

*“... Bistakoa da gaur egun gizartean erloju publikoak eta ordu-seinaleak ez direla garai batean erabiltzen ziren moduan erabiltzen. Garai batean erlojuak izatea luxua zen eta gutxi batzuen eskura baino ez zegoen teknologia ziren; murriztagoa zen eta bere baitan itxita zegoen gizarte hartan, erloju publikoen eta kanpandorreen ordu-seinaleek hiriaren erritmoa ezartzen zuten.*

*Gaur egun, erloju publikoen ordu-seinaleek, azken batean, zentzu tradizionala dute eta ohiturazko erreferentzia gisa mantentzen dira, “igarotzen den denboraren” sinbolo gisa, kanpai-hotsak entzuten ditugun guztiok “garaikide” egiten gaituena.*

*Gure ustez, ohituraren arrazoia ezin daiteke auzotarren atsedinari lotuta dagoen gaueko isiltasunerako eskubidearen gaintik egon eta, hori dela-eta, gero eta arruntagoa da gauez, 00:00etatik 08:00etara erloju publikoen hots-mekanismoak desaktibatzea.”*

Bestalde, gogoeta horiekin batera, gure txostenean adierazi genuen, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriro aipatzen duen bezala, gaur egun eztabai-daezina zela etxebizitzetan eragozpenak sortzen dituzten soinu inmisioek Espainiako Konstituzioaren 15, 18.1 eta 18.2 artikulua urratzen dituztela (15. artikulua bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea bermatzen du, 18.1 artikulua norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea eta 18.2 artikulua egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidea); beraz, horren ildotik, botere publikoak esku hartzera behartuta daude horiek irmotasunez babesteko.

Adibide gisa, Auzitegi Gorenak 2003ko apirilaren 29an emandako epaia aipatu behar da. Horren arabera, “*etxe barrua eta horren ingurua eremu inmunea dira kanpotik datozen eragozpenek sortzen dituzten erasoen aurrean, eraso horiek jasateko*

*betebehar juridikorik ez dagoenean; eraso horien artean daude neurrigabeko eta etengabeko zaratak, legezko jarduerak sortutakoak badaira ere. Izan ere, jarduerak legez kanpokoak bihurtzen dira muga jakin batzuk gainditzen direnean.”*

Orobat, Auzitegi Konstituzionalaren 2001eko maiatzaren 24ko epaiaren arabera, gehiegizko zaraten eta saihestasunaren zaraten eraginpean luzaroan egoteak norberaren eta familiaren etxeko intimitaterako oinarritzko eskubideari eskaini behar zaion babesa behar du, nortasunaren garapen askea larriki oztopatzen edo zailtzen badu, betiere, lesioa edo kaltea eragin duten erakunde publikoen egite edo ez-egiteen ondorioz gertatzen bada.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatu ahal izan genuen Vitoria-Gasteizko Udalak beharrezko neurriak premiaz hartu behar zituela, gaueko egoera hau gehiago luza ez zedin, eta hori, noski, Espainiako Konstituzioaren 53.3 artikuluan agintzen denari jarraiki. Horren arabera, botere publikoen betebeharra da gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak babestea, kasu honetan, beraz, instalazio horren kokalekutik gertu dauden pertsonen osasuna zaintzeko eta horiei ingurumen egokia eskaintzeko eskubidea. Horretarako, ikusi genuen ezinbestekoa zela gauetz, 22:00etatik 8:00etara, udaletxeko erlojuaren kanpaiak deskonektatzea.

- Emaiza

Egindako iradokizunari erantzunez, Gasteizko alkateak jakinarazi zigun bidezko argibideak eman zituela udaletxeko erlojuko kanpaiak gauetz jo ez zezaten.

Horren ildotik, adierazi zuen, horretarako, sistema elektromekanikoa diseinatu eta gauzatu behar zela, gauetz erlojuaren soinua kentzeko. Eskatu zuten proiektua helarazi ziguten eta, horrekin batera, hori burutzeko gehienez hirurogeita bost egun beharko zituztela adierazi ziguten.

## 10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

### 10.1. SARRERA

2006an 193 kexa jaso ditugu herri lanen eta zerbitzuen arloan; hau da, erakundeetan aurkeztu diren erreklamazio guztien % 11,5.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Toki administrazioa .....	158
- Foru administrazioa .....	37
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	14

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauetan sailkatzen dira:

- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	48
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	47
- Tokiko zerbitzu publikoak .....	36
- Azpiegiturak .....	21
- Irigarritasuna .....	16
- Garraioak .....	15
- Beste batzuk .....	7
- Eskubideak eta askatasunak .....	3

### Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Atal hau aztertzen hasteko, artxibo publikoetan dagoen informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko eskubidearen inguruan aurkeztutako kexak aipatu behar ditugu. Oraindik ere kexak jasotzen ditugu herritarrek administrazio informazioa eta dokumentazioa lortzeko dituzten zailtasunengatik.

2005eko gomendio orokorrean adierazi genuen moduan (“Herritarrentzako informazioa eta parte-hartzea toki eremuan”), hemen ere azpimarratu behar dugu administrazio publikoek aurrera egin behar dutela informazio integraleko zerbitzua diseinatzen eta ezartzen, politika koherentean oinarrituta, gardentasuna opakutasunaren gainetik bultzatuz dezan eta informazioa eskuratzeko eskubidea eraginkorra izatea eta herritarren arrazoizko eskaerari erantzutea ahalbidetu dezan.

Horri dagokionez, azpimarratu beharrekoak dira espediente batean zuzeneko interesdun ez direnek eskatutako dokumentazioa lortzeko dituzten zailtasun bereziak. Askotan ez dute inolako erantzunik jasotzen egindako eskaeraren inguruan edo, bestela, ezezko erantzuna jasotzen dute, nahikoak eta egokiak ez diren arrazoiekin (ikus 826/2006 kexa-laburpena).



Ekitaldi honetan, kexaren bat ere jaso dugu zenbait udal organotan **herritarrek** duten **parte-hartzearen** inguruan. Horrela, elkarre batek aurkeztutako kexa ebatzi dugu. Horren bidez, elkarre adierazi zuen Donostiako Udalak ez ziela baimenik eman osokoaren batzorde iraunkorretan parte hartzeko. Udalak adierazi zigun informazioaren arabera, zeuden batzorde iraunkorretako buruek hainbat idazki jaso zituztela 2005. urtearen hasieratik, elkarre horretako ordezkariari osokoaren batzordeetan parte hartzen utz diezaieten eskatzeko. Idazkari nagusiak egindako txosten juridikoan oinarrituta, udalak adierazi zuen batzordeetako buruek uko egiten zietela era horretako eskaerei. Elkarre, ordea, ez zegoen ados txosten horrekin. Ekarrirako dokumentazioa aztertu ondoren, gure iritziz, udalak elkarreari osokoaren batzordeetan parte hartzen ez uzteko erabakia bat zetorren Osokoaren Araudi Organikoaren (OAO) 126.1.a) artikuluekin.

**Erroldatzearen** arloan, oraindik ere hainbat kexa izapidetzen ditugu bizilekua udalerrri jakin batean finkatu nahi dutenei biztanleen udal erroldan inskribatzea ukatu izanaren ondorioz. Biztanleen udal errolda udalerrriko biztanleak inskribatuta dauden administrazio erregistroa da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikulua); hala, erroldan inskribatzea ukatzeko legezko arrazoiek eskatzaileak bere datuak ematearekin eta bizilekua udalerrrian izatearekin erlazionatutakoak izan behar dute eta, beraz, ezin da beste arrazoirik eman, esaterako, bizitzeko lekurik ez izatea, titulurik ez izatea (okupazioa) edo bizilekua dagoen urbanizazioari dagozkion betebeharrak ez betetzea. Horrela, Trapagako jabekideen komunitate batek aurkeztutako kexa jaso dugu. Horren arabera, udalak uko egin dio eraikuntza berriko eraikinean bizi ziren hainbat familia erroldan inskribatzeari, urbanizazioaren sustatzaileak Administrazioarekin zuen auziagatik. Azkenean, udalak onartu egin zuen familia horiek biztanleen erroldan barneratzea (1226/2006).

Atal honekin amaitzeko, azpimarratu beharrekoak dira administrazio ebazpenak behar bezala ez jakinarazteak eragiten dituen arazoak eta horrek kaltetuei sortzen dien babesgabetasuna. Aurten, horrelako arazoak xede zituen espediente bati eman diogu amaiera.

Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailaren zehapena jaso zuen pertsona batek erakunde honetara jo zuen eta adierazi zigun ez zuela jakin zehapen prozedura izapidetzen ari zitzaionik, zehapena nahitaez betearazteko premiamenduzko prozedurari hasiera eman zitzaiola jakinarazi zioten arte. Administrazio espedientea aztertu ondoren, ikusi genuen prozedurari hasiera emateko erabakia ediktuen bidez jakinarazi zela, jakinarazpen pertsonalaren bi saiakerek huts egin baitzuten. Gure iritziz, bigarren saiakerak ez zituen legezko baldintzak bete, lehena egin zenetik 45 minutura egin baitzen eta ez baitzen ziurtatu posta-zerbitzuko langileak nahitaezko iriste abisua utzi zuenik –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua–. Horregatik, pentsatu genuen ediktu bidezko jakinarazpena ez zegoela behar bezala justifikatuta, hasiera-erabakiak ez zuela ondoriorik izan, egoki jakinarazi ez zelako, eta, hori baliogabea izaki, prozedurako gainerako izapideak ere halaxe zirela, ebazpena barne. Aipatu saila ez zen helarazi genion balorazioarekin bat etorritik eta ez zituen gure aholkuak onartu, zehapena indarrrik gabe utz zezan eta, beharrezkoa izanez gero, hura gauzatzeko ordaindu izan zezakeen kopurua interesdunari itzuli diezaiola (634/2003).

## Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna

Aurreko ekitaldietan bezala, administrazio publikoen **ondare erantzukizunak** kexak eragiten jarraitzen du. Aurten, arlo honi buruz hiru gomendio helarazi dizkiegu Autonomia Erkidegoko udal desberdinei (ebazpen horien testu osoa I. eranskinean jaso da). Zehazki, Arartekoak honakoak eman ditu:

- 2/2006 Gomendioa, otsailaren 10ekoa, Orioko Udalari egina, kalteengatik ordaina jasotzeko eskabide bat bidera dezan, legez ezarritako prozeduraren arabera eta berme guztiak betez.
- 20/2006 Gomendioa, uztailaren 3koa, Portugaleteko Udalari egina, berraztertze errekurtso bat berariaz ebatz dezan, herri bidean gertatutako erorketa batek eragindako lesioei dagokienez bere ondare erantzukizuna onar dezan eta behar den kalte-ordaina ordain dezan.
- 21/2006 Gomendioa, uztailaren 19koa, Donostiako Udalari egina, Alde Zaharrerako sarbidean dagoen gontza batek kaltetuaren ibilgailuan sortu zituen kalteengatik hark egin duen ondare erantzukizuneko erreklamazioa onar dezan eta sortutako kaltearen zenbatekoa ordain diezaion.

Aztertutako kasuetan hainbat kontu azpimarratu behar dira. Lehenik eta behin, adierazi behar da ordenamendu juridikoak berariazko jarraibideak ezartzen dituela administrazioaren ondare erantzukizunari dagozkion eskabideak bideratzeko.

Esate baterako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 142. artikulua eta, bereziki, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak prozedura orokorra diseinatzen dute erantzukizunaren alorrean. Prozedura hori erabiliz, elkarren segidan alegazio, ikerketa, frogak, entzunaldi eta baloraziozko jarduerak burutuz zehazten da ea erantzukizunik badagoen –eta, orduan, kaltea nola ordaindu behar den– edo, aitzitik, erantzukizunak administrazioaren jarduerarekin zerikusirik ez duen.

Erreklamazioaren eduki materiala gorabehera, behin eta berriro azpimarratu nahi dugu, legearen arabera, ondare erantzukizuneko prozedurek kontra egin ahal izatea ahalbidetzen dutela. Horregatik, erreklamazioak, eskabidea egiteaz gain, izapidetze prozesuan esku hartzeko aukera du, azken erabakia hartzeko erabakigarriak diren alderdiak eta agiriak ezagut ditzan, kasuan kasuko alegazioak egiteko.

Ildo horretatik, frogak aurkezteak garrantzi handia du dagozkion espedienteak izapidetzerakoan. Gertakari eztabaidagarriak xehetasunez zehazteko edo ukatzeko, tartean den administrazioak kasuan kasuko txostenak eskatu behar ditu, gutxienez, kalte-ordaina jasotzeko moduko ustezko lesioa eragin duen zerbitzuarena, eta erreklamazioak proposatutako era guztietako frogak onartu behar ditu, esaterako, lekukoaren deklarazioa, espedienteak behar bezala ebazteko bidezko zat jotzen bada.

Atal honetan azpimarratu beharreko beste alderdi bat zerbitzuen funtzionamendua-rekiko eta kontratatutako enpresek dagozkien zereginak burutzerakoan eragin ditzaketen lesioekiko administrazio publikoaren duten erantzukizuna da. Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia iraunkor eta oparotik ondoriozta daitekeen bezala, Administrazioak ezin

ditu alde batera utzi zerbitzu edo obra baten emakidadun edo kontratistak eragindako kalteak eta horien erantzule zuzena da. Administrazioak enpresa pribatuekin egiten dituen kontratuak interpretatu eta erantzukizunik ba ote dagoen zehazteko ahalmena du; erantzukizunik egonez gero, bidezko aginduak emango ditu kalteak ordaintzeko, besteak beste, ondorio horretarako eratu izan daiteken fidantzatik kalte-ordainaren zenbatekoa kentzearena.

Proposamen hori aurten izapidetutako espedienteetako batzuetan onartu da. Halaxe gertatu da Donostiako Udalaren aurka izapidetutako kexetan eta goian aipatutako uztailearen 19ko 21/2006 Gomendioan.

Kexa-laburpen gisa, Portugaleteko Udalaren aurkako kasu bat aipatu dugu, kalteak ordaintzeko erabakiarekin amaitu zena (304/2005 esp.).

Administrazio publikoen **ondareari** dagokionez, askotariko kexak jaso ditugu. Aipatu beharrekoak dira zenbait jardun publiko garatzeko Administrazioak titulu nahikorik ez izatearen ondorioz sortutako arazoen berri eman diguten kexak; jardun horien artean zeuden etxe baten fatxadan farola jartzeko berariazko baimenik ez egotea, edo okupatutako finka bat desjabetze espediente bati zegokion ondasun eta eskubideen zerrendan barneratu ez izatea. Administrazio publikoek arreta berezia jarri behar dute bidezko espedienteak izapidetzerakoan, horietan behar bezala egiaztatuta geratu behar baitute kasuan kasuko jarduna burutzeko ahalmena ematen dioten titulu juridikoek; hori guztia dagokion zerbitzua edo obra ezarri aurretik egin behar da.

Azkenik, abenduaren 20ko 27/2006 Gomendioa ekarri behar dugu ahotara, Derioko Udalari egina, herri bidean mahaiak eta aulkiak jartzea arautzen duen ordenantza bete dezan. Auzotar batek kexa aurkeztu zuen, titulartasun pribatukoa zen eta erabilera publikoko zortasuna zuen barne plazan terraza jartzen zelako. Kexaren arabera, udalak ez zion plazako jabariaren titularrari –hots, jabekideen komunitateari– eskaera izapidetu ahal izateko aurretik lortu beharreko baimena eskatzen, ordenantza arautzaileak zioenari jarraiki; gainera, baimendutako instalazioak etengabe urratzen zituen baldintzak, erreklamatzailerak aurkeztutako salaketa ugariak erakusten zuten bezala, baina udalak ez zuen kasuan kasuko zehapen espedientea izapidetu (gomendio honen testu osoa I. eranskinean jaso da).

## **Tokiko zerbitzu publikoak**

Aurten herritarrek aurkeztu dizkiguten arazo nagusiak talde edo zona jakin batzuetara heltzen ez diren zerbitzu publikoen eskaerari lotuta egon dira oraindik ere.

Halako zerbitzu eskaera dago, esate baterako, landa-nukleoetan, bertan bizi direnak diskriminatuta sentitzen baitira Administrazioak hirian eskatzen dituen zerbitzuak ikusita (999/2006). Errealitate hori areagotu egin da era horretako nukleoetan baimentzen joan diren eraikuntza berrien ondorioz, lurraren araubide eta hiri antolaketa-aren arloko presako neurriak zehazteari buruzko martxoaren 6ko 5/1998 Legea indarrean sartu zenetik, unean-unean dauden etxebizitzien kopurua bikoiztea baimendu baitzuen. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Lege berriarekin, gehikuntza hori unean-unean dauden etxebizitzien % 50ekoa baino ez da izango. Eragindako administrazioek sakon aztertu beharko lukete kontu hori eta honako alderdi hauek zehaztu, nukleo bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta: zerbitzu prestazioko zein maila ezar daitekeen, zeintzuk

diren lehentasunak, hauek nola finantzatu diren eta horiek gauzatzeko plangintza zein izango den.

Aurkeztu diren beste kexa batzuk lurpeko zaborrontzien kokapenari eta horietatik gertu bizi edo lan egiten dutenek jasan ditzaketen eragozpenei buruzkoak izan dira. Edozeinentzat gogaikarriak diren eragozpen horien aurrean, udalek hartzen dituzten erabakiak arrazoitu behar dituzte, kaltetutako talde guztiak jakinaren gainean izan behar dituzte eta, behin instalatuta, muturreraino eraman behar dituzte beharrezko zaintza eta higiene neurriak, lurpeko zaborrontziek eragiten dituzten kalteak ahal den heinean arintzeko (ikusi 727/2006 kexa-laburpena).

Kezka sortzen du, baita ere, hiri zeharbideetako bide segurtasunak, ibilgailu asko baitago eta zenbait gidari gehiegizko abiadura ibiltzen baitira. Kaltetutako pertsonak neurriak hartzeko eskatu dute eragozpenak eta arriskugarritasuna arintzeko; neurri horien artean, semaforoak eta oinezkoen pasabideak jartzea eta abiadura nahitaez murriztea ditugu. Kontu horren inguruko kexa bat aukeratu dugu (ikusi 1241/2005 laburpena).

### **Azpiegiturak**

Atal honetan bildutako kexa askok diote erreklamatazaileak ez datozela bat errepide berriak egin edo daudenak zabaltzarekin, ezta horiek sortzen dituzten eraginekin ere. Horrela, batetik, Atauriko Administrazio Batzarrak adierazi zigun ez zetorrela bat A-132 errepidea (Maeztu-Antoñana tartea) egokitzeko proiektuarekin, herriko lau eraikin botatzea baitzekarren (1302/2006); eta, bestetik, Orozkoko biztanle batek aipatu zuen ez zegoela ados foru errepide bat egokitzeko lanekin, bere jabetzako eraikin bat botatzea zekartelako (1208/2006).

Horietatik guztietatik, aurtien amaitu den espediente bat aukeratu dugu kexa-laburpen gisa; zehazki, Gasteiz-Eibar autobideak (Arlaban-Eskoriatza tartea) Eskoriatzako exxebizitza batean izango duen eraginari buruzkoa (1374/2005).

### **Irisgarritasuna**

Atal honetan barnera daitezke irisgarritasunari buruzko araudia ez betetzearen ondorioz zerbitzu publiko desberdinen erabilera (bereziki, hiri altzariena) zaildu edo eragotzi izanari buruzko kexak.

Horren inguruan, Asociación Sin Barreras/Hesirik Gabe Elkartek adierazi zigun alde kromatikorik ez egoteak zailtasunak zekarzkiela ikusmen urrituei Gasteizko Udalak ateratzen zuen aldizkaria irakurtzeko (329/2006). Arazoa konpondu egin zen aldizkariaren ondorengo aleetan. Bestalde, Irun eta Santurtziko udalei dagokienez ere esku hartu dugu, udalerrri horietan ikusmen urrituek beren kabuz moldatu ahal izateko beharrezko soinu semaforoak jar daitezten (53/2006 eta 433/2006). Bi udalek hitzeman dute, hurrenez hurren, soinu dispositiboak eta urrutiko agintedun errepikagailu akustiko gehiago jarriko dituztela.

Halaber aipatu beharrezkoa da Eginaren Eginez elkartek aurkeztutako kexa, ezgaitu fisikoentzat hiri altzariak duten irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeari buruzkoa. Zehazki, kexak zioen beharrezkoa zela Gasteizko Udalaren planetan

jasota geratzea gai organikoak birziklatzeko edukiontzi berriak hiri ingurunearen eta espazio publikoen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorretara egokitzen direla, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak eta hori garatzeko ezarritako baldintza teknikoek zehazten dutenaren arabera (460/2006).

## **Garraioak**

Aurten, **garraio publikoak**, nola hirikoak hala hiri artekoak, kexak eragin ditu herritarren aldetik. Erreklamazio horien tipologia, askotarikoa izan arren, bi eskaera nagusitara bidera daiteke. Batetik, garraio publikoko eskaintza handiagoa defendatzen dutenak daude, herritarrek, beren eguneroko joan-etorrietan ibilgailu partikularra erabili gabe egin ahal dezaten; eta, bestetik, pertsona guztiek, mugikortasun arazoak izan ala ez, egun dagoen garraio publikoa berdintasunezko baldintzetan erabiltzeko aukera izan behar dutela diotenak.

Herritarren lehenengo eskaera horrek une honetan nekez izango du harrera ona administrazio publikoen artean, egungo joera kontrako noranzkoan baitoa; hau da, garraio lineetan zerbitzuak kendu edo murriztearena, gutxi erabiltzearen ondorioz, errentagarritasun ekonomikoko irizpideei erantzuten ez badiete.

Horren inguruan, herritarrek iritzi berekoak dira eta adierazten dute, administrazio publikoek eurek ez badute erabilera kolektiboko garraioaren aldeko erronka irmoa egiten, garraio publikoari dagokionez egun dagoen eskaintzarekin ezinezkoa dela herritarrek ibilgailu pribatuaren ordezkari bide publiko erabiltzea.

Bigarren kexa-multzoak garraioetako irisgarritasunaren arazoa aipatzen du. Tamalez oraindik ere adierazi behar dugu gure garraio bideek ezgaitasunen bat duten pertsonen beren kabuz moldatu ahal izateko oztopoak ezabatu gabe jarraitzen dutela.

Arazo hau zehatz-mehatz aztertzen da ezgaitasunen bat duten pertsonen eskaintzako arreta bereziari dagokion atalean (txostenaren IV. kapitulua)

Hala ere, atal honetan aipatu nahi dugu Metro Bilbaok baliozko erantzuna eman diola Santutxu eta Abandoko geltokietan zegoen irisgarritasun arazoari. Geltoki horietan, igogailuak 23:00etatik aurrera ixten ziren eta, ondorioz, ezgaitasunen bat duten pertsonen ezin zuten geltoki horietara iritsi. Irtenbidea bi geltoki horien kanpoaldean bideo-atezainak eta interfonoak jartzea izan zen. Horien bidez, mugikortasun urriko pertsonen aginte postuarekin harremanetan jar daitezke, igogailuari dei egiteko sakagailua erabilia. Aginte postuak igogailua abian jartzen du eta, hala, metroa erabiltzen duten pertsona guztiek izango dute bi geltokietan horietara sartzeko eta horietatik irteteko aukera. Kasua aipagarria iruditzen zaigunez, kexa-laburpenen atalean horren berri eman dugu (ikusi 729/2004 esp.).

## **Eskubideak eta askatasunak**

Arlo honetan laburpen gisa aukeratu dugun kexa-espeditentean pertsona batek adierazi zigun Getxoko Udalaren sustapen kanpaina batean bere irudia erabili zela, emazte eta semearenarekin batera (ikusi 1312/2005 kexa-laburpena).

## 10.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Leku publiko batean hartutako familia baten irudia udal liburuxka batean erabiltzea (1312/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek adierazi zigun bere irudia, emazte eta semearenarekin batera, Getxoko Udalaren erakunde sustapenerako kanpaina batean erabili zela. Bere onarpenik gabe bere irudia erabiltzearekin bat ez datorrelako sortu da kexa hori, norberaren irudirako eskubideari kalte egiten dion legez kontrako egintzatzat har baitaiteke bere irudiaren erabilera hori.

- Azterketa

Ararteko erakundeak informazioa eskatu zuen kontu horri zegokionez udalak jarraitutako jardueren inguruan. Erantzun gisa udalak txostena bidali zigun eta, bertan adierazi zenez, erreklamatazaileak aurkeztutako idazkia Udaleko lege zerbitzuek aztertu zuten eta eskaerak oinarririk ez zuela erabaki zen. Geroago, udalak kartelak kentzeko eskariari uko egitearen erabakia plazaratu zuen udal idazkariaren txosten baten bidez. Laburbilduz, txostenean baieztatzen denez, norberaren eskubideetan kalterik ez zen egon, erreklamatazaileak agertzen ziren argazkiaren hedatzea era duinean egiten baitzen, bizitza pribatuaren eremuan eragin gabe (bide publikoan baitzeuden). Gainera, edonola ere, argazkian bere irudiak duen presentzia osagarri bat besterik ez dela adierazten zen, irudiaren tamainagatik nahiz argazkiaren behealdean dagoen pertsona-kopuruagatik.

Udalak helarazitako informazioa ikusita eta behin hori aztertuta, egoki iritzi diogu honako gogoeta hauek helarazteari.

Horretarako lege esparrua norberaren irudirako eskubidea da, oinarrizko eskubide gisa eskubide konstituzionalen artean dagoena –Konstituzioaren 18.1 artikulua–. Gainera, 20.4 artikulua dio eskubide horiek errespetatzea adierazpen askatasunei ezarritako muga dela.

Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak norberaren irudirako eskubidearen edukia garatzen du. Jurisprudentiako doktrinari jarriki, norberaren irudirako eskubidea da besteek, baimenik gabe, norberaren irudiaren oinarrizko ezaugarriak ez ditzaten erreproduzitu pertsona orok duen eskubidea. Hala, argazki bidez edo bestelako prozeduren bidez pertsona baten irudia hartu, erreproduzitu edo argitaratzeko ekintza orok –bizitza pribatuko mementoetan zein horiez kanpo– irudirako oinarrizko eskubidea urratu edo kaltetzen du. Era berean, eskubide hori urratu egiten da pertsona baten irudiaren erreprodukzioa publikitate eta merkataritzako helbururik gabe edo antzeko helbururik gabe egin arren, hori egiteko baimenik ez dagoenean. Bestalde, 8.2 artikulua eskubide horri muga bat jartzen dio; hori oso garrantzitsua da jorratzen ari garen kasuan. Izan ere, legegileak ez du legez kanpoko urratze gisa hartzen irudiaren hartzea eta erabilera bizitza pribatuko mementoetan eta tokietan denean, edo bizitza pribatutik

kanpo denean, informazio grafiko hori gertaera publikoaren ingurukoa bada eta irudia osagarri gisa azaltzen bada.

Getxoko Udalak onartu egiten du kexa eragin duenaren irudia beharrezko onespenik gabe erabili duela. Baina urratze hori arauak biltzen duen salbuespenaren barruan sartzen du, irudiaren hedapenak ez baitzion bizitza pribatuari eragiten, bide publikoan zeuden heinean. Gainera, edonola ere, bere irudia argazkian osagarria zen, irudiaren tamainagatik eta argazkian azaltzen den pertsona kopuruagatik. Horrez gain, azaldutako irudiak erreklamatzailen duintasunean inolako kalterik eragin ez duela pentsatzen dute.

1/1982 Lege Organikoan jurisprudentziak “osagarritasun” kontzeptua erreportaje grafikoaren edo berriaren objektu nagusiaren elementu lagungarri gisa interpretatu du. Hori dela-eta, ezin da alegaziorik jarri irudiak idatzizko informazioaren edukiarekin zerikusirik ez duenean. Aldiz, beste kasu batzuetan, Auzitegi Gorenak dio osagarritzat joko dela leku publiko batean bi pertsona ospetsuri egindako argazkiak erakusten duen irudia.

Horregatik guztiagatik, interpreta daiteke erreklamazioa egin duen familiaren irudia erabiltzearen kasua ezin dela legez kanpoko urratze gisa hartu, Legean eta aurreko jurisprudentzian ezarritakoaren arabera. Udalak aurkeztutako elementuen arabera, argazkia toki publiko batean atera zen, herrian gertatutako ekitaldi bat zabaldu eta sustatzeko, eta erreklamatzailen irudia osagarri gisa erakusten du.

Hala ere, erakunde honek herritarren oinarrizko eskubideen defentsa aktiboa egiteko eginkizuna duen heinean, kasu honen inguruan gogoeta batzuk helaraziko dizkizugu. Hala, administrazioaren jarduera kasu honetan urratze gisa hartu ezin badugu ere, aipatu nahi dugu beste inguruabar garrantzitsu batzuk ere badaudela, hala nola: argazkian ateratzen diren pertsonen argazkia ateratzeko unean irudia erabiltzeko baimenik ez eskatzea; kaltetuek kartela kentzeko eta kartela erabiltzen uzteko berariazko eskaera egin izana; edo irudian adingaberen bat ateratzea –kontuan izanik adingabeen kasuan eskubide horiek duten garrantzia–. Horrek guztiak nahikoa izan behar zuen udalak erreklamatzailen eskaera onartu eta, hala, argazkia aldatu edo, dibulgazio eduki berbera izanik, beste bat ateratzeko, goragoko eskubideekin errespetu handiagoa izango zuena. Interpretazio hori norberaren irudirako eskubideari hobe atxikitzen zaio eta, 2002ko maiatzaren 28ko Auzitegi Gorenak adierazten duen moduan, argazkian atera nahi ez duen pertsona orori bere nahia ahalbidetzeko balio behar zuen, izan ere: *“auzi jartzailea zegoen tokia baino urrutia egiten ere berdin-berdin atera zitekeen argazkia, edo, gutxienez, bere nortasuna estal zitekeen, horretarako erabili ohi diren bitartekoen laguntzarekin”*.

- Emaiza

Hala, norberaren irudirako eskubidearen erabateko babesa bermatzeko, Arartekoaren iritziz, administrazio horrek, erreklamatzailen desadostasun adierazia kontuan hartuta, ez zukeen bere irudia erabili behar, edo, behinik behin, lausotu egin zezakeen, batez ere, adingabeak azaltzen diren heinean.

Iradokizun hori gorabehera, bere erantzunean udalak dio zuzen jardun duela publizitate kanpaina horri dagokionez. Horregatik, eta kanpainaren kudeaketak eta eragin izan lezakeen baliabide kostuak ekarritako arazoengatik, azpimarratu du bidezkoa dela liburuxkak mantentzea.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ Osoko bilkura bateko aktaren kopia emateari uko egitea (826/2006)

### • Erreklamazioa

Karrantzako Haraneko biztanle batek kexa-idazkia aurkeztu zuen, udalak ez ziolako eman nahi izan ezohiko bilkurako aktaren kopia. Erreklamatzailerak jasotako komunikazioak honako arrazoi hauek jaso zituen:

- *Informazio eskaerek banakakoak izan behar dute; ezin dira gai multzo bati buruzko eskaera generikoak egin.*
- *Interesduna den gaiei buruzko informazioa eskatu behar du, betiere, amaitutako espedienteak baldin badira.*
- *Osoko bilkuretako aktak iragarki oholean kontsulta daitezke.*
- *Erabakiak, legez hala ezarrita dagoen kasuetan, jendaurrean jarri dira Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki oholean, interesdunek aztertu eta alegazioak aurkez zituzten.*

### • Azterketa

Udalari informazioa eskatu genion eta adierazi genion, ikuspegi formaletik begirata, interesdunak jasotako komunikazioak, gure ustez, ez zituela betetzen ebazpen orok bete beharreko eskakizun formalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89.3 artikulua aurreikusitakoarekin bat etorritik. Udal ebazpenak arrazoitua izan behar du eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 54. artikulua jasotakoaren arabera, gertakariak eta zuzenbideko oinarriak labur aipatu behar ditu; hau da, udalak interesdunaren eskaerari uko egiteko hartutako erabakiaren oinarri izan ziren aplikazio arauak eta ebazpenaren aurka bidezkoak liratekeen errekurtsoak bildu behar ditu.

Bestalde, eskaeraren eduki materiala eta osoko bilkurako akta ez emateko erabakia baloratzerakoan, adierazi genion interesdunak osoko bilkura bateko akta zehatza eskatu zuela eta, beraz, gure iritziz, nekez esan zitekeela haren eskaera gai multzo baten inguruko eskaera generikoa zenik. Gure ustez, horrek ez zuen ezta ere zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasuna kaltetzen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 37.7 artikulua diotenaren arabera, bereziki, bilkuretako aktak egiteko egun zein tresna erabiltzen diren kontuan hartuta.

Herritar orok du tokiko korporazioen erabakiei dagozkien kopiak eta ziurtagiriak lortzeko eskubidea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.3 artikulua diotenari jarraiki. Pertsona honek ez zuen espediente zehatz bat ikusteko eskatu, baizik eta osoko bilkurako akta bat, eta, beraz, horretarako ez du interesduna dela egiaztatu behar.

Nolanahi ere, udalari adierazi genion, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren –AJA– 81. artikuluaekin bat etorritik (azaroaren 28ko 2568/1986 ED), bilkura bakoitzaren deialdia egiten denean kasuan kasuko espedientea hasiko dela eta, bertan, besteak beste, erabakiak iragarki oholean argitaratuko direla adieraziko dela eta aktaren zirriborroa jasoko dela.



- Emaizta

Udalak gure gogoetei jaramon egin zien eta onartu zuen interesdunari zuzendutako idazkiak, ikuspegi formal eta materialetik begiratuta, beharbada ez zituela betetzen legez ezarritako eskakizunak eta, beraz, erakunde honek esandakoarekin bat etorriz, egindako eskaerari erantzuteko prest zegoela adierazi zuen.

### C) Azpiegiturak

⇒ *Gasteiz-Eibar autobidearen proiektuan harri lubeta egiteak etxebizitza batean izandako eragina (1374/2005)*

- Erreklamazioa

Kexa-espedituentzako Gasteiz-Eibar autobidearen proiektuan harri lubeta bat egitearen ondorioz Eskoriatzan lurzoru urbanizaezinean dagoen etxebizitza baten titularrek bizi zuten egoera aipatzen zuen.

Erreklamatzaileek adierazi zuten beren etxetik oso gertu hasi zirela egiten, aurkeztutako arazoei irtenbide orokorra emango zien proiekturik gabe; arazo horietako bat segurtasun baldintzak ziren, lanak gauzatu aurretik, bitartean eta ondoren. Beren iritziz, hori bermatzea lanen titular den Administrazioaren erantzukizuna da.

- Azterketa

Kexa izapidetzea onartu ondoren, informazioa eskatu genion Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzari, baita Gipuzkoako Foru Aldundiari ere, hau ari baitzen, Bidegi sozietatearen bidez, lanak betetzen.

Lurralde Antolamendu eta Uren Sailburuordetzak adierazitakoaren arabera, Uren Zuzendaritzaren eskumenak *“bide publikoei eta 100 m-ko zabalerako polizi zonari eragiten dieten jardueretara mugatzen dira; hortaz, distantzia horretan, ez dagokio Uren Zuzendaritzari aipatu euri urak bideratzeko irtenbidea baimentzea”*.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Bide Azpiegituraren Departamentuaren txostena bidali zigun, Bidegik izenpetua, eta, horren bidez, kexan aurkeztutako alderdiei erantzun zitzaizkien. Lehen txosten horretan, Bidegik abiapuntu gisa adierazi zuen, garai batean, leku horretan eraikin bat zegoela eta, hori eraitsi zenean, egun dagoen etxea eraiki ahal izan zela. Beren hitzetan, lehengo etxebizitza ibilgu batetik kanpo zegoen; bigarrena, aldiz, ibilgu horretan egindako betelanaren gainean eraiki zen eta, beraz, horrek garbi uzten du jabari publiko hidraulikoaren zortasun zona arautzen duten legeak eta erregelamendua urratu zirela eta, bereziki, etxebizitzaren osotasuna arriskuan jarri zela.

Gainera, aipatu zuten erreklamazioak aurreikusi eta burututako drainatze lanak ez zirela nahikoak 500 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen ur ibilgurako, erantsitako txosten teknikoko kalkuluetan adierazitakoaren arabera.

Era berean, erreklamazioak adierazi zuten beren etxea autobideari dagozkion lanak egin aurretik eraiki zela eta, beraz, edonola ere, Aldundiari zegokiola azpiegitura hori egitearen ondorioz sortutako arazoak konpontzea; bestalde azpimarratu zuten sartutako hodiak eta egindako drainatze lanak nahikoak zirela euri urek har zitzaizkien bide naturalei aurre egiteko.

Aurkeztutako arazoa konpontzeko, Aldundiari konparazio azterlana egiteko eskatu genion, autobideari dagozkion lanak egin aurretik eta ondoren baserriaren arroaren egoera hidraulikoa zein zen ikusteko.

Txosten horren arabera, autobideari zegozkion lanak egin aurretik, 500 urtean behin uholdeak izateko arriskua duen ibilguaren gehieneko emaria segundoko 8,49 m<sup>3</sup>-koa zen eta, euri urak husteko, gutxienez 2 metroko diametroa duen hodia izan behar zuen, kaltetuek jarritakoak duena baino gutxienez 30 aldiz ahalmen handiagokoa.

Alderantziz, autobidea egin ondoren, aurkeztutako datuek zioten ibilguaren emaria segundoko 8,66 m<sup>3</sup>-koa izango litzatekeela, hau da, ondorio hauetarako oso alde txikia, eta, beraz, azken erabakia berdina izango zatekeen; alegia, 2 metroko diametroa duen hodi bat jartzea, eta ez egun instalatuta dagoen 0,35 metroko diametroa duena.

- Emaizta

Laburtuz, erabaki genuen kontu honetan Administrazioaren jarrera arrazoitua zela eta, beraz, kaltetuek aipatu ondorioak hutsalduko zituzten bestelako daturik aurkeztu ezean teknikari kualifikatuak bermatuta, Administrazioaren jarduera ezin zela irregulartzat jo.

#### D) **Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna**

⇒ *Kalte-ordaina emateko erabakia itundutako amaierako formula gisa erabiltzea prozedura bat bukatzeko (304/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen, aurretik egin zuen ondare erantzukizunagatiko erreklamazioari erantzuteko udalak garatu zuen jardunaren inguruan.

Erreklamazioa udalerrri horretako kale batean erorita jasandako lesioen ondorioz aurkeztu zuen; bere iritziz, gertakaria administrazioari lepora zekiokkeen, burdin irten batzuen ondoriozkoa izan baitzen.

- Azterketa

Bere hitzetan, erreklamazioa aurkeztu zuenetik denbora asko igaro zen arren, oraindik ez zuen inolako komunikaziorik jaso eskaerari buruz. Hori, laburtu ditugun aurrekarietatik abiatuta, funtsezko faktorea izan zen kexa izapidetzea onartzeko.

Ondoren, udalaren laguntza eskatu genuen, kontu horren inguruko informazioa eman ziezagun. Gure eskaera betetzerakoan, toki erakundeak ordura arte izapidetutako espediente osatzen zuen askotariko dokumentazioa bidali zigun.

Azpiparratu beharrekoa da, agiri horietako baten arabera, garatutako jardun guztien berri erakunde pribatu bati eman ziola udalak, harekin baitzuen eginda erreklamazioan aipatutako arriskuen aseguruua.

Horren ondorioz, beste idazki bat bidali genion udalari eta, horren bidez, adierazi genion, gertaera horiek gorabehera, erreklamazioaren ondorioz hasi genuen espedienteak aurrera egin behar zuela, zuzenbidearen arabera dagozkion udal ebazpenarekin amaitu arte.

Azkenik, udal erakundeak Gobernu Batzordearen erabakia bidali zigun; horren bidez, erreklamatzaileri kalte-ordaina ematea onartu zen espedienteari itundutako amaiera emateko.

Elementu horri jarraiki, gure ustez, kexa eragin zuten arrazoiak konpontzeko bidean jarri ziren eta hori, itxura guztien arabera, interesdunaren uzien alde.

- Emaizta

Azaldutakoan oinarrituta, eta horren berri kexa aurkeztu zuenari eman ondoren, gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen kontu honi zegokionez.

## E) Tokiko zerbitzu publikoak

⇒ *Bide segurtasuneko arazoak hiri zeharbideetan (1241/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek BI-3636 foru errepideak Zalla parean duen egoeraren berri eman zigun, baita beste zenbait konturen berri ere, errepide horretako segurtasunari, eragozpeni eta eraginei zegokienez.

Kaltetuek tartean ziren administrazioei jakinarazi zizkieten bertatik ibilgailu asko igarotzeak eta zenbait gidari abiadura bizian ibiltzeak sortzen zituzten arazoak, horrek ingurunean ondorio nabarmenak zituelako, baita istripu larriak eragin ere; halaber, horiek saihesteko irtenbide posibleak ere proposatu zituzten.

- Azterketa

Zallako Udalak jakinarazi zigun, bere eskumenen eremuan, eskueran zituen neurri guztiak hartu zituela inguruko arriskua murrizteko, besteak beste, eskola-umeen sarrerako eta irteerako orduetan udaltzain gehiago jartzea zaintza-lanetan; oinezkoek errepidea gurutzatu ahal izateko semaforoak instalatzea, gune jakin batean ibilgailua uzteko debekua ezartzea oinezkoek errepidea zanpatu beharrik ez izateko, etab.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko zuzendariak jakinarazi zuen zaintza eta kontrol lanak egiten jarraitzeko agindua eman zitzaiola Ertzaintzari; hala ere, soilik neurri horien bidez ez denez bermatzen leku horietan abiadura murriztea, errepidearen azpiegituraren titularrak trafikoa geldotzeko neurriak har zitzala iradoki zen.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak, errepidearen titular gisa, adierazi zigun, arazoa detektatu ondoren, egoeraren analisia eta diagnostikoa egiteko berariazko ikerlana egingo zuela, baita kostu txikiko jardute aukeren eta proposamenen aurkezpena ere. Aipatu arazoa errepidearen erabilera aldatzearen ondorioz sortu zen, hiri arteko errepide izatetik, hiri zeharbidea izatera igaro baitzen. Ildo horretatik, Aldundiak jakinarazi zigun errepidea udalari besterentzeko asmoa zuela eta beharrezko lanak egin errepidearen kontserbazioa eta funtzionaltasuna hobetzeko, besteak beste, espaloia egitea oinezkoak ibili ahal izateko.

- Emaizta

Administrazio eskudunek hartutako neurriak ikusita eta hiri tartean ibilgailuen zirkulazioa oinezkoen erabilerarekin noiz bateratuko zain, gure esku-hartzea eten genuen kontu honi zegokionez.

⇒ *Ikastetxe baten inguruetan zaborrontziak jartzearekin ados ez egotea (727/2006)*

- Erreklamazioa

Durangoko ikastetxe batek kexa aurkeztu zuen eta horren bidez adierazi zuen, ados ez egoteaz gain, udalak ez ziela jakinarazi lurpeko zaborrontziak jarri behar zizutenik eraikinari itsatsita eta horiek gauzatzeko lanak eragozpenak sortzen ari zirela ikastetxearen ohiko jardueran.

- Azterketa

Kexa behar bezala izapidetze aldera, informazioa eskatu genion Durangoko Udalarari, informazio eskaerei zegokienez burutu zituen jardunak eta lurpeko zaborrontziak ikastetxetik hain gertu jartzeko arrazoiak azal diezazkigun.

Bere erantzunean, Durangoko Udalak dokumentazioa bidali zigun alkateak ikastetxeko zuzendaritzara bidalitako bi erantzun idazkien inguruan; horien bidez, informaziorik eman ez izanaren inguruko kontuei erantzun zitzairen, baita lanen ondorioz sortutako eragozpenak arintzeko agindu ziren neurrien ingurukoei ere.

Bestalde, lurpeko zaborrontzien kokapenari dagokion funtsezko gaiari buruz, udal arkitektoaren txostenak zioen alde zaharra oinezkoentzat jarri zela, baina beharrezkoa zela ordu eta inguruabar jakin batzuetan ibilgailuak bertatik igaro ahal izatea. Erabilera bikoitzaren ondorioz eta alde zaharrek kaleak estuak direnez, arazo larriak sortzen ziren hiri hondakinak biltzerakoan. Hori dela-eta, udalak lurpeko zaborrontziak erabiltzea erabaki zuen biltzeko formula gisa, udalerriko inguru zabalagoetan dauden lur gaineko zaborrontzien ordez.

Txosten horrekin bat etorritik, zoladuratik irteten diren zaborra hartzeko ahoek ez dute uzten ibilgailuak igarotzea eta, ondorioz, haiek kalearen eremurik zabalenetan egin behar dira, Erdi Aroko kalearen trazadura halako eremuak aurkitzea batere ohikoa ez den arren. Horregatik aukeratu zen ikastetxearen ondoko eremua; hau da, zabala delako eta inguruan ikastetxerako sarbidea baino ez dagoelako.

- Emaiza

Horregatik guztiagatik, ikusi ahal izan genuen zaborrontziak ikastetxearen ondoko espazio publikoan jartzeko udal erabakia arrazoituta zegoela. Nolanahi ere, ikastetxearen kezka logikoa ikusita, udalari adierazi genion behar besteko arretaz jardun behar zuela etorkizunean espazioa eta zaborrontziak higiene baldintza ezin hobeetan egon zitezen, ikastetxeari eta beren erabiltzaileei inolako eragozpenik ez sortzeko.

## F) **Garraioak**

⇒ *Irigarritasun unibertsala metroan (729/2004)*

- Erreklamazioa

Ezinduen elkarte batek Arartekoari azaldu zion ez zettorrela bat Metro Bilbaok hartutako neurriarekin; alegia, zenbait geltokitako igogailuak 23:00etatik aurrera itxita

egongo zirela. Beren iritziz, erabaki horrek garraioa erabiltzeko eta gauez ateratzeko beren aukerak murrizten zituen.

- Azterketa

Bere erantzunean, Metro Bilbaok aipatu zuen Santutxu eta Abando geltokietako igogailuak bakarrik geratzen zirela itxita 23:00etatik aurrera.

Sozietate horren arabera, neurri hori hartzeko arrazoia izan zen metroko ikuskatzaileen jarduera ez zela bi igogailu horietaraino heltzen, igogailu horiek ikuskatzailea dagoen kontrako aldetik iristen zirelako plataforma esekira eta, beraz, ezin zitekeelako kontrolatu erabiltzaileek behar bezala erabiltzen zituztenik.

Bere hitzetan, martxan zegoen igogailua ezin zitekeen gauez zaintzarik gabe egon; eta ulertzen genuen Metro Bilbaoren beldurra Hala ere, gogorarazi behar izan genion erakunde horri zegokiola beharrezko bitarteko material, tekniko eta pertsonalak jartzea erabiltzaile guztiei garraio zerbitzu egokia emateko, eta, horretarako, erabateko aurrekontu autonomia zuela.

Bistakoa zen mugikortasun arazoak dituzten pertsonen inolako mugapenik ez duten pertsonen zerbitzuak erabiltzeko dituzten baldintza berdinetan ahalbidetu behar zaiela garraiobideak erabiltzea. Horrela, zerbitzuak lineetako geltoki guztietan ordu berdinean hasi eta bukatu behar dira pertsona guztientzat. Hori dela-eta, beharrezkoa da, zerbitzu horiek bukatu artean, geltokietako instalazio osagarriek, horien artean igogailuek, guztiz funtzionamenduan egotea, inolako murrizketarik gabe horien beharra duten pertsonen erabili ahal izan ditzaten.

Horregatik, erakunde honek Metro Bilbaori eskatu zion irtenbidea aurki ziezaiola gauez Abando eta Santutxuko geltokietara sartzeko zegoen arazoari. Izan ere, geltoki horiek Bilboko erdigunean daude eta, beraz, asko erabiltzen dira.

- Eraitza

2006. urtearen erdialdera, Metro Bilbaok erakunde honi jakinarazi zion bideo-atezainak eta interfonoak jarri zituztela geltokietako igogailuen kanpoaldean. Horien bidez, mugikortasun urriko pertsonak aginte postuarekin harremanetan jar daitezke, igogailuari dei egiteko sakagailua erabilia. Dei hori aginte postuan jasotzen da eta igogailua teleagintaren bidez jartzen da martxan.

## 11. ANIMALIEN BABESA

### 11.1. SARRERA

Animalien bizi baldintzak eta pertsonen ematen dieten tratua gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den etengabeko kezka dira gure gizartean. Gaur egun, horren inguruko gizarte kontzientzia ez dagokie soilik animalien babesarekiko sentikorragoak diren taldeei, baizik eta biztanle ugari. Eusko Legebiltzarra izan zen animaliak errespetatu, babestu eta zaintzeko printzipioak aitortzearen aldeko esparru juridikoa egin zuen aitzindarietako bat (6/1993 Legea, urriaren 29koa, Animaliak Babestekoa). Bestalde, udal askok udal ordenantzen bidez arautu dute herri horietan animaliak edukitzea.

Ildo horretatik, animaliak babesteko eta zaintzeko eraturako hainbat elkartere egoera ugari berri eman diote erakunde honi; horietan, botere publikoei eskatu zitzaizen balia zitzala aipatu lege esparruaren ondorio diren administrazio eskumenak.

Arlo honen garrantziaz jabetuta eta elkarte horietakoren batek egindako eskaerari erantzunez, Arartekoak arlo honi izaera propioa ematea erabaki du eta, hala, arlo zehatza sortzea, euskal administrazio publikoek animalien defentsan eta zaintzan garatzen dituzten jarduerak kontrolatzeko.

Arlo honen barruan, gure egingizun nagusia pertsonen edo elkarteek euskal administrazio publikoen jardueren aurka aurkeztu dituzten eta euskal legegileak, Estatuak edo udal administrazio desberdinetakoek animalien babesa dela-eta aurreikusitako legerian jasotako edukiarekin bat ez datozen erreklamazioak eta kexak berariaz aztertzea izango da. Orobat, talde horiek edo biztanleek indarrean dagoen legerian antzeman dituzten akatsak ere aztertuko ditugu, betiere, horrela hobetu egingo badira Eusko Legebiltzarrak proposatutako testuinguruan animalien bizi baldintzak eta horiei eman beharreko tratua

Eragindako administrazioen arabera, kexak honela banatzen dira:

- Toki administrazioa .....	19
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	3
- Foru administrazioa .....	1

Azpiarloei dagokienez:

- Gune zoologikoak .....	14
- Animaliak edukitzea .....	4
- Ikuskizunak eta jarduerak .....	3
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	1

Abiapuntu gisa –gune zoologikoei buruzko atalean–, PACMAk (Zezenketen Aurkako eta Animalien Aldeko Alderdiak) aurkeztutako zenbait erreklamazio izapidetu ditugu; horien arabera, udal batzuek ez zieten erantzunik eman herri horietan abandonatutako

animaliak hartzeko zentroen funtzionamenduari eta gune zoologikoetarako ezarritako eskakizunak betetzeko beharri buruzko informazio eskaerei. Horren oinarria zen udalek herrian abandonatutako animaliak jasotzeko eta zaintzeko zerbitzua izan behar dutela, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearekin bat etorrira. Lege xedapen horren 15. artikulua arabera, horretan aritzen diren langileak eta instalazio egokiak ere izan behar dira, edo, bestela, zerbitzu horiek hitzartu, animaliak babesteko eta zaintzeko Administrazioaren elkarte laguntzaileekin, udalaz gaineko erakundeekin edo foru aldundien eskumenekoak diren organoekin. Ildo horretatik, zezenketen aurkako alderdi horrek honako alderdi hauei buruzko informazioa eskatu zuen: lege aurreikuspen hori betearazteko zein formula erabili zen, abandonatutako animaliak jasotzeko eta zaintzeko zerbitzua zein erakundek zeraman, zerbitzua zein zentrotan ematen den eta gune zoologikoen araudiarekin bat ote datorren. Gure eskaerari erantzunez, udalek inguruabar horien berri eman digute eta bidali diguten informazioan ez da antzeman aipatu arautegia betetzen ez denik.

Arlo berri honek jasotzen dituen alderdietako bat administrazioen esku-hartzea da, animaliak ikuskizun eta jardueretarako erabiltzen direnean. Zehazki, elkarte horrek salaketa baten berri eman zigun, Bilboko zezen plazan zirku ikuskizunak eskaini zirelako (310/2006). Zehazki, adierazi zuten, Animaliak Babesteko Legearen 4.6 b) artikulua-rekin bat etorriz, animaliak ikuskizunetan erabili ahal izateko, Jokoen eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren administrazio baimena behar dela. Baimen hori emateko, kontuan izan behar da animaliak zenbait ikuskizunetan erabiltzeak, besteak beste, zirkuari, animaliei sufrimendua edo larritasuna eragin diezaikeela arrazoirik gabe edo euren mailari ez dagozkion portaera eta jokabide laidogarriak izatera behartu ditzakeela. Horren ildotik, Jokoen eta Ikuskizunen Zuzendaritzari eskatu zioten baimena uka zezala eta animaliak ikuskizun horietan erabiltzea debeka zezala. Horren inguruan, Herrizaingo Sailak adierazi zigun, azkenean, zirku ikuskizuna eskaintzeko baimena eman zela, baina, kasu honetan, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko 4/1995 Legeak ezarritako eskakizunak betetzen zirela egiaztatu ondoren. Nahiz eta animaliekin egiten diren ikuskizun publiko horiek oraingoz ez dauden berariaz araututa, Jokoen eta Ikuskizunen Zuzendaritzak, Animaliak Babesteko 6/1993 Legeko aurreikuspenak betez, albaitari txostena eskatzen dio ikuskizunaren sustatzaileari, bertan ziurtatuta gera dadin animaliak babesteko arautegia betetzen dela.

Animaliak edukitzearen inguruko betebeharrei dagokienez, azaldutako arazoen animalien baldintza fisiko eta etologikoei dagozkie (312/2006). Bestalde, espazio publiko jakin batzuetan (besteak beste, parkeetan, hondartzan edo herriko berdeguneetan) pertsonen eta animalien artean sor daitezkeen bizikidetzaz arazoak ere aipatu dira (894/2006). Erreklamazio multzo horretan, herritar batek aurkeztutako salaketa aipatu dugu, Gorbeiaiko parke naturalaren erabiltzaileentzat zona eta espazio komunetan artzakurrak aske ibiltzeak dakarren arriskua dela medio (1428/2006).

## 11.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Bizirik dauden animaliak kalean saltzea (309/2006)*

- Erreklamazioa

PACMA elkarteak (Zezenketen Aurkako eta Animalien Aldeko Alderdiak) Arartekora jo du eta adierazi digu Bilboko Udalak ez duela ezer egin jaiegunetan Plaza Berrian egiten den merkatuan bizirik dauden animaliak saltzen direlako aurkeztu den salaketaren aurrean.

- Azterketa

Erreklamazio hori behar bezala izapidetze aldera, Bilboko Udalari zuzendu gintzaizkion eta zenbait kontu azaldu genizkion.

Horrela, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 5 b) artikulua dioenarekin bat etorriz, debekatuta dago animaliak kalean saltzea, merkatu eta azoka tradizionaletan izan ezik. Arau horren arabera, kaleko salmenta arau-hauste arina da eta, kasu honetan, udalari dagokio kasuan kasuko zehapen ahalez baliatzea.

Gure idazkiari erantzunez, administrazio horrek jakinarazi digu udaleko Osasun eta Kontsumo Sailak administrazio espedienteari hasiera eman diola, elkarte horrek aurkeztutako salaketa bideratze aldera. Ildo horretatik, adierazi digute zaintza eta ikuskapen arloko udaltzainek ahaleginak egingo dituztela barruti horretan kaleko salmenta kontrolatzeko.

- Emaiza

Udalak adierazi digu Herritarren Segurtasunerako Saila gogor ari dela lanean; horren adierazgarri da ondoren ez dela izan salatutakoaren moduko gertakaririk, udaltzain gehiago jarri baitira iganderoko merkatuan.

Inguruabar horietan oinarritua, gure esku-hartzea eten egin dugu kontu honi dagokionez, etorkizunean esku-hartze gehiago egin behar diren kaltetan izan gabe.



## 12. OSASUNA

### 12.1. SARRERA

Arlo honetan guztira 78 kexa jaso dira eta honela banatuta egon dira eragindako administrazioen arabera:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	72
- Toki administrazioa .....	2

Azpiarloen araberako banaketarekin bat etorritz, honela sailkatzen dira:

- Erabiltzaileen eskubideak .....	49
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	9
- Osasun laguntza .....	8
- Buruko osasuna .....	4
- Osasun publikoa .....	4
- Beste batzuk .....	3
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	1

Beharbada, gaur egun garapen eskaera handiena duen arreta-eremu batean pentsatu beharko bagenu, bat izango ginatke eremu hori **gizarte eta osasun laguntza** behar duten pertsonena dela esatean.

Kontuan izanik Euskal Herriko Arreta Soziosanitarioa Garatzeko Plan Estrategikoa oso garrantzitsua dela xede dituen biztanleentzat, 2006ko irailean Ararteko erakundeak Arreta Soziosanitarioa Garatzeko Euskal Kontseiluko presidentearengana jo zuen, Plana onartu zenetik, hots, 2005ean, hori betetzeko gauzatu diren ekimenen inguruko informazioa eman ziezagun.

Arlo honetan eskumen aniztasuna dagoen arren, hori ez da eragozpena izan, egungo egoeran, pixkanaka aurrerapausoak egiteko Plan Estrategikoan bildutako ekimenetan (adibidez, erabiltzaileen mendekotasuna baloratzea, horiei orientazioa eskaini ahal izateko; psikiatriako gaixoak berriro kokatzea; eta Planean jasotako ekimenen inguruko beste batzuk).

Aurrerapauso horiek, ordea, ez dute ezkututzen beharrezkoa dela horiei bultzada handia ematea; horrela, eta, funtsean, baliabide nahikoak sortuta, arreta soziosanitarioa behar duten pertsonen jarduteko protokoloetan aurreikusitako irizpideekin bat etorritz eskaini ahal izango zaie laguntza.

Eremu honetan ari garela, ezinbestekoa da Eusko Legebiltzarrak 2006ko azaroaren 24ko bilkuran emandako ebazpenak hartzea erreferentzi gisa, Plan Estrategikoa garatzeko funtsezko alderdiak lantzen baitituzte. Inori ez dio ihes egingo Plan honen helburuak duen zailtasuna eta horregatik aztertu behar izan da Legebiltzarrean.

Ebazpen horren hamargarren atalak premiaz eskatzen dio Ararteko erakundeari gizarte eta osasun laguntzaren arloko egoerari eta premiei buruzko azterketa eta txostena

egiteko. Horri dagokionez, ekin diegu beharrezko jardunei txosten hori prestatzeko agindua betetzeko, baina, lehendik ere hasita zegoenez, Legebiltzarrak eskatutakoaren xedera egokitu beharko da.

Eusko Legebiltzarrarentzako 2004ko txostenean, **etorkinen osasunari** buruzko eskaerei erantzuteko gomendio orokorra barneratu genuen, Inmigrazioko Euskal Planaren esparruan.

Gomendioren baten xede izan diren kontuen inguruko jarraipen jardunen barruan, informazioa eskatu zaio Osasun Sailari Plan horretan aurreikusitako ildo zehatzak garatzeko egingo diren edo jada egin diren jardunei buruz.

Helarazi zaizkigun datuekin bat etorritz, ikus dezakegu Inmigrazioko Plana, osasun eremuari dagokionean, nahikoa aurreratuta dagoela ezarritako helburuak betetzeko.

Hautemate orokor hori gorabehera, txostenak aipatzen dituen ildoen artean, bada bat behar adina bultzatzen ez zena; alegia, hizkuntz irisgarritasunari buruzkoa.

Azken ildo horri dagokionez, Osasun Sailak jakinarazi zigun Eusko Jaurlaritzaren sail guztientzat komuna izango zen egitura sortzea erabaki zela. Dirudienez, egitura komun horren plangintza egiteko ardura Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu zuen. Ildo honen inguruko beste daturik ez genuenez zuzenean osasun laguntzari lotuta, atal honetan gelditu behar izan genuen.

Zenbait egoerek, esate baterako, osasun laguntza jaso aurretik, oinarritzko gizarte zerbitzura jo duten eta, beraz, ziurrenik, interprete batek lagunduta joan diren gaixo etorkinenez, zuzenean osasun zentroa jotzen duten eta, beraz, interpreterik gabe doazen beste gaixo batzuen zailtasuna gutxiets dezakete; gabezia horrek, gainera, garrantzi handiagoa du premiazko laguntza behar denean eta halako egoerak oso ohikoak dira.

Egoera horiei erantzuteko, osasun zentroek bide bat izan behar dute. Horregatik, gainerako ildoekin gertatzen ez den bezala, iruditu zitzaigun premiazkoa zela hizkuntz irisgarritasunari buruzko neurriren bat garatzea.

Osasun Saila osasun zerbitzu publikoaren titularra dela kontuan hartuta, Ararteko erakundeak komenigarritzat jo zuen sail horri iradokitzea neurriren bat bultzatu behar zela, behin-behinekoa izanda ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egitura komuna diseinatu bitartean. Bere erantzunean, Osasun Sailak jakinarazi zigun Donostia Ospitalea dokumentu bat prestatzen ari zela ("Lehen kontsulta zazpi hizkuntzatan") eta, bertan, nagusiki larrialdietan gaixo bati egiten zaizkion galderarik ohikoenak bildu zirela, zazpi hizkuntzatan. Aurreikuspenen arabera, dokumentu hori 2007ko lehen hiruhilekoan ezarriko da eta, esperientzia positiboa bada, Osakidetza osora zabalduko da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera ere jo genuen, hizkuntz irisgarritasuna ahalbidetuko duen egituraren plangintza egiteko hartutako erantzukizuna aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren sail guztientzat komuna izango den egitura ezartzeko urratsak bizkor zitzan. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigrazio Zuzendaritzak eman digun informazioaren arabera, helburu hori lortzeko beharrezko urratsak egin dira, azterketa bat enkargatu baita. 2008. urtetik aurrera abiaraziko dela uste dute.

**Gaixotasun kronikoei** dagokionez, gaixo kronikoen zenbait elkartek Ararteko erakundera jo dute dituzten arazoak azaltzeko.

Epidermiolisis Bullosa Gaitzaren Aurkako Elkartek jasotzen duten laguntza-estaldura aipatu zuen. Horrela, jakin ahal izan genuen, batetik, Osakidetzak, hain zuzen ere elkarte horrek berak hala eskatuta, hainbat jarduni hasiera eman ziela euskal osasun sistemak doan eman dezan sendaketak egiteko beharrezko materiala; eta, bestetik,

aztertzen ari zirela ea, formula magistralen bidez, behar dituzten produktu kosmetikoen (krema, xaboi eta xanpuen) osagai aktiboak eman ahal dakizkien (gaixotasun hori azaleko gaitza da eta, gaur egun tratamendurik ez duen arren, lehen terapia izan daitekeenaren proba batzuk egiten ari dira horren inguruan).

Gaixotasun kronikoen eremu honetan bertan, Bizkarrezur Bifidoaren eta Hidrozefaliaren BIZKAIA Elkarteak (ASEBI) Ararteko erakundera jo zuen dituzten arazoak azaltzeko. Gaixotasun hau dutenek bizitza osoan zaintzapean egon behar dutela kontuan hartuta, kexaren bidez adierazi zuten, gaixotasuna kronikotzat hartuz gero, errazagoa izango litzatekeela gaixoentzat prestazio desberdinak eta tratamendu eta errehabilitazio egokia lortzea.

Puntu horri lotuta, adierazi zuten, beren ustez, ez zitzaiola erantzun 2005eko ekainaren 13ko ez-legezko proposamenari; alegia, honakoari: “Diputatuen Kontseiluak Gobernuari eskatu dio, gehienez ere hiru hilabeteko epean, premiaz onar dezala bizkarrezur bifidoa gaixotasun kroniko gisa” (2005eko ekainaren 24ko GKAO). Proposamen horren jarraipena egin genuen eta, hasiera batean, badirudi, proposamen horretatik abiatuta, azkenean, 2005eko azaroaren 7an onartu eta 2005eko abenduaren 1eko Aldizkarian argitaratu zen ez-legezko proposamena eman zela. Honen bidez, Gobernuari eskatu zitzaion gaixo horien egoera berezia eta beren patologia kronikoak eragiten dituen premiak azter zitzala, beharrezko neurriak proposa zitzala prestazio desberdinak eta tratamendu eta errehabilitazio egokia eskuratzen laguntzeko, eta bizkarrezur bifidoaren prebentziorako programa zehatza diseina zezala.

Ondoren, 2006ko urriaren 26ko Aldizkarian argitaratu zen Diputatuen Kongresuari zuzendutako erantzunean, Osasun eta Kontsumo Ministerioak honakoa azaldu zuen:

*“Berriki onartu den irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuan, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunak zorrotz eta horiek eguneratzeko prozedura ezartzekoan, oro har gaixotasunen bat dutenei diagnostikoa egitea eta tratamendua ematea barneratzen da, besteak beste, gaixotasun neurologikoak edo traktu genitourinarioko gaixotasunak dituztenei eta, beraz, baita bizkarrezur bifidoa duten eta horren ondoriozko gorabeherak jasaten dituzten pertsonen ere. Bestalde, nerbio sistemako gaitzen errehabilitazioa eta nahaste neurologikoen ondoriozko tratamendu fisioterapeutikoak ere sartzen dira. Une honetan, hasi berriak dira Osasun Sistema Nazionaleko erreferentziako zentroak, zerbitzuak eta unitateak izendatzeko beharrezko lanak, autonomia-erkidegoekin eta sozietate zientifikoek aukeratutako adituekin elkarlanean. Horregatik, laster, arreta hobea jasotzeko Estatuko erreferentziako zentro, zerbitzu edo unitateen beharra izan dezaketen patologiak berriro aztertuko dira.*

*Azkenik, aipatu behar da Osasun eta Kontsumo Ministerioa hainbat sozietate zientifikotako adituek prestatu duten eta aurki argitaratuko den “Guía para la prevención de defectos congénitos” izeneko berrikusten ari dela. Gida horren helburua haurdunaldian izaten diren sortzetiko akatsei aurrea hartzeko neurriak hobeto ezagutzea da, baita, bizkarrezur bifidoaren kasu zehatzari dagokionez, osasun arloko profesionalak eta gaitza jasateko arriskuan dauden biztanleak sentikortzea ere haurdunaldiaren lehen hilabeteetan azido folikoa hartu behar diren inguruan arantza bifidoko kasu gehiago ager ez daitezela.”*

Interesdunei ere halaxe jakinarazi genien. Erantzun horren kaltetan izan gabe, horiek aipatu zituzten alderdietako batek botikak erosteko diru-ekarpenarekin zuen zerikusia, adierazitakoaren arabera, bizi osoan hartu beharko baitituzte neurri terapeutiko eraginkorragorik ezean.

Hasieran aurkeztutako ez-legezko proposamenaren zentzu berean, ASEBI elkarteak ere gaixotasunaren izaera kronikoa eta finantzaketa lotu zituen. Gaixotasunaren izaera kronikoa aipatzen da autonomia-erkidegoren bateko arauaren zioen azalpenean; horren arabera, eta funts propioen kontura, doan eskainiko dira gaixotasun horrek jotako pertsonak behar dituzten botikak. Izan ere, gaixotasunaren larritasuna eta iraupena legean aurreikusitako irizpideak dira, biztanleek botiken ordainketan duten partaidetza modulatzeko.

Beharrezkoa da aipatzea, beste patologia batzuekin gertatzen den bezala, tratamenduen finantzaketa partziala edo osoa ez dagoela gaixotasunaren izaera kronikoaren arabera. Horregatik, behin alderdi hori argituta, bidezkoa zen Osasun Administrazioari galdetzea ea modurik bazegoen gaixo horiek botiken eta osasun produktuen ordainketan egun dutena baino partaidetza txikiagoa izateko.

Arreta kontu horretan jarrita, Osasun Sailari kexaren berri eman genion, bizkarrezur bifidoak eta hidrozefaliak jotako gaixoen diru-ekarpena murrizterik ba ote zegoen azter zean, Osasun Sistema Nazionaleko prestazioen finantzaketa orokorra alde batera utzita.

Bestalde, fibromialgiak eta neke kronikoaren sindromeak jotako gaixoeak, Hiru-Eskuak federazioaren bitartez, beren kezka azaldu zioten Ararteko erakundeari berriki definitu den gaixotasun honi aurre egiteko neurrien inguruan. Zehazki, hori tratatzeko protokoloaren eta osasun arloko profesionalen zuzendutako prestakuntza-planaren inguruko jardun espezifikoak aipatu zituzten.

Fibromialgiak eta neke kronikoaren sindromeak jotako gaixoen tratamendurako protokoloa eta lehen mailako arretako profesionalen zuzendutako kasuan kasuko prestakuntza-plana onartzea gaixo horiei laguntza hobea eskaintzen lagunduko duten jardunak izango direla espero dugu.

Aho-hortzetako ebakuntza behar zuten gaixoen kexa batzuk aztertzerakoan, prestazioen katalogora nekez egokitzen diren egoerekin egin dugu topo. Hala ere, egoera horietako batzuei aparteko arreta zor diegu; izan ere, horien ezaugarriak nahikoa bereziak dira biztanleen artean nolabait orokorrak diren eta, beharbada, aho-hortzetako ia tratamendu guztiak sistema publikotik kanpo uztea azaltzen duten egoerei dagozkienekin alderatuta.

Kexa eragin zuen kasu zehatza 45/2006 laburpenean jaso da. Erantzunean bertan Osasun Sailak gaineratu zuen, Osasun Sistema Nazionaleko prestazioen katalogoa berrikustearen ondorioa edozein izanda ere, komenigarritzat jotzen zuela azterketa egitea aparteko garrantzia izan zezaketen kasuen inguruan, euskal osasun sistema publikoan barneratu behar ziren ala ez ikusteko. Hortaz, horrek esan nahi du gure autonomia-erkidegoko Osasun Administrazioa ere konturatu dela espediente honetan aipatutakoen moduko egoerei arreta emateko beharraz.

2006an ere kexak jaso dira antzutasunaren aurkako tratamenduan jarri nahi zuten bikoteen aldetik. Gutxi gorabehera 2005. urtearen bukaeratik, Donostia Ospitaleak intseminazio artifizialeko tratamendua du eta, beraz, horrek adierazten du gehitu egin direla prestazio honen eskura jarritako bitartekoak.

Hala ere, oraindik hobetzeko aukerarik egon litekeen heinean, egokia iruditzen zaigu arrazoi hori dela medio Ararteko erakundean jasotzen ditugun kexen berri ematea Osakidetzari.

Antzutasunaren aurkako tratamenduen eremuari gagozkiola, kexa hauek aztertzeko, sistema publikoak onartuta duen eta, beraz, hala izanda, maila egokia izan behar duen prestazio baten berezko ezaugarrien ikuspegitik hartu behar dira.

Nolanahi ere, komeni da gogoan izatea antzutasunaren oinarritzko jatorria ziurrenik ez direla arazo fisiologikoak, baizik eta emakumeek seme-alabak izan ditzaketen adin aurreratua, eta, arrazoi ekonomiko eta sozialak direla bide, bikoteek eta emakumeek, seme-alabak izatea erabaki ondoren, bikotekideetakoren baten adinak edo arazo fisiologikoez eragindako antzutasun arazoei egin behar izaten dietela aurre.

Lagunduriko giza ugalketaren eremu honetan bertan, aurrekoa ez beste arrazoi batekin, leuzemia linfoblastikoak jotako neskato baten gurasoek kexa aurkeztu zuten ezarpen aurreko diagnostiko genetikoa egin ziezaietela eskatzeko.

Lagunduriko giza ugalketari buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legea onartu ondoren, ordenamendu juridikoak ezarpen aurreko diagnostikoa egiteko aukera jasotzen du, gaixo dagoen senide baten bizia salbatzen laguntze aldera.

Osasun Sailari dagokionez, kexak adierazi zuen beharrezkoa zela jarduteko protokoloa egokitzea diagnostikoa egin ahal izateko. Aipatu protokoloa egokitzeko beharraz gain –horrek egin zuen sailari espedientea izapidetzea–, ikusi dugu, maiatzaren 26ko 14/2006 Legearen arabera, beharrezkoa dela Lagunduriko Giza Ugalketaren Batzorde Nazionalak txostena egitea diagnostiko horrek hirugarrenei zuzendutako xede terapeutikoak dituen.

Kexak batez ere azken eremu horretan jarri zuen arreta. Zehazki, kontuan izanda premiazkoa zela esku hartzea Batzordeari txostena eskatzera eramane zituen behararen inguruan, gurasoek adierazi zuten, legea argitaratu zenetik (maiatzaren 27an), hainbatean interesa agertu zutela beren kasuan, baina, kexa aurkeztu zutenean (urriaren 10ean), Batzordea oraindik ez zen bildu. Osasun Sailaren erabaki eremua gaitzen duen gai baten aurrean geundenez, Estatuko Herri Defendatzaileari eman genion kexaren berri.

Itxaron zerrendek, oro har, ikuspegi desberdinetatik egindako hainbat galdera eta azterketa eragin dituzte Legebiltzarrean.

Zehatzagoak izateko, kexa eragin duten egoeretako bakoitza aintzat hartuta, beharrezkoa da unean uneko bitartekoak eta inguruabarrak kontuan hartzea, zuzentasun irizpideez baliatuta. Horretarako, gaixoen kexak zilegi diren ala ez diren zehaztu behar dugu; zilegitasuna ez dugu, soil-soilik, beren ezinegon pertsonalean edo arreta al bait arinen jasotzeko gogoan oinarrituko.

Utz ditzagun alde batera, patologiaren larritasunaz gain, funtsezko beste arrazoi batzuek ere eragina duten kasuak (hauetan aipatu arazoiek ezartzen dute ebakuntza lehentasunezkoa, luzaezina edo premiazkoa dela eta, ustez behintzat, gaixo bat bera ere ez da geratzen behar duen laguntza une egokian jaso gabe); hortaz, analisirako parametro bakarra gaixo bakoitzari dagokion zentro zehatzean dauden bitartekoena da. Baina, kasu horretan, ulertu behar da txandaren edo ebakuntzaren data aurreratzeako asmoak ez lukeela aurrera egingo, itxaron zerrendak berdintasun irizpideetan oinarrituta kudeatzen baitira; hortaz, honako kasu hauetan bakarrik zuzendu ahal izango lirateke txandak: akats batengatik, gaixoari berez zegokiona baino beranduagorako eman zaionean, edo txanda goizago lortu duten beste gaixo batzuek aurrerago zutena bertan behera utzi eta sortutako hutsuneak betetzeko aurreratu daitezkeenean.

Hori esanda, gure helburua ez da, logikoki, zentro bakoitzaren egoera alde batera uztea, ezta unean-unean berdintasuna lortzea ere euskal osasun sistemari dauden egoeretatik onenari dagokionez –hori gauzaezina bailitzateke–; bai, ordea, atzerapen egoera jakinetan, gaixoak erreferentziako bere zentroarekin duen harremanaren gainetik jartzea, osasunerako bere eskubidea osasun sistema osoari dagokionez baita eskubide. Horregatik, beharrezkoa da erreferentzi gisa gaixoari dagokion zentroko bitartekoena ez den beste parametro bat hartzea; horretarako, gure ustez, euskal osasun sistemako gaixoek oro har duten egoerara jo behar genuke.

Ez dagoenez egoera orokor hori zein den adierazten duen daturik, Osakidetza 2003-2007rako Plan Estrategikoak aipatu dugun ikuspegi orokor horretan kokatzea ahalbidetzen du. Atzerapenei dagokienez, ikus dezakegu planak kalitate estandar batzuk finkatzen dituela eta kontuan hartzeko moduko zenbait adierazle ezartzen dituela espezialisten kontsultetarako eta kirurgia programaturako.

Inoiz, gaixo batzuek arazo bera aipatu dute itxaroteari buruzko beren kexetan, hasiera batean, hertsiki osasun eremutik haratago dagoena, antza; arazo hori bizi duten aldi baterako ezintasun egoera da.

Itxaron zerrendak kudeatzerakoan kontuan hartu beharreko inguruabarra dela eztabaidagarria izan daitekeen arren, ez dugu uste komenigarria denik hori alde batera uztea. Banakako ikuspegitik aztertuta, pertsona baten aldi baterako ezintasun egoera kexa eragin duen atzerapenari berari erantsi beharreko inguruabarra da; eta, ikuspegi zabalagoetik aztertuta, aldi baterako ezintasuna luzatuz gero, horrek eragina izan dezake bai Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoei dagozkien gastuetan bai osasun sistemaren gastuetan.

**Buru osasunaren** eremuari dagokionez, burutik gaixo (kasu hauetan, eskizofreniak jota) daudenen senideek tratamenduak uzteak ekarri duen arazoa azaldu dute.

Beti horren arabera egongo ez den arren, badirudi derrigorrezko tratamendu ambulatorioa kasu askotan baliozkotzat hartutako proposamena dela. Azkenean legegileak aukera horren alde egingo balu, horrek eragingo lukeen arazuko babesak gaixoari, botikak hartzeaz gain, tratamenduarekin jarraitzea ahalbidetuko lioketen beste elementu batzuk ekarri beharko lituzke berekin; hots, errehabilitazio bitartekoak, gizarte zerbitzuak, etab.

Hasieran, Arreta Soziosanitarioa Garatzeko Plan Estrategikoaren egoera dela eta, garatzen doazen jardunak aipatzerakoan, ohartarazi nahi izan dugu gaixoen jarraipen terapeutikoa ahalbidetzen duten baliabide horiek behar-beharrezkoak direla, bereziki, buru desoreka kronikoak dituzten kasuan.

Esan dezakegu eskaera hori nabarmendu egiten dela Arreta Psikiatrikoari eta Buru Osasunari buruzko 2004-2008rako Plan Estrategikoan jasotako analisisan, egituraz hitz egiterakoan, baliabide publiko jakin batzuetan eskasia dagoela baitio (ospitaleak eta eguneko unitateak, etxeko ospitaleratzea, krisialdian esku hartzeko programak, etab.)

Burutik gaixo daudenen eta beren senideen elkarrekin komunitatean egoitza-baliabideak, errehabilitazio psikosozialeko zentroak, lan orientazio eta jarduerako zentroak eta bestelako arreta-programak eskatzen jarraitzen dute. Hainbatetan adierazi diote Ararteko erakundeari sistema publikoko eskasia horrek kezkatuta dituela, gogor lan eginez hori arintzen saiatzen diren arren.

Arlo honetan, **osasun publikoaren** atalean, tabako kontsumoari ezarritako mugak ez betetzearen inguruko kexak sailkatu ditugu.

Tabakismoaren kontrako osasun neurriak eman eta tabakoaren salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legea onartu ondoren, bertan jasotako aurreikuspenen inguruko zalantzak eta desadostasunak adierazi dira; horien artean, administrazio publikoari dagozkionak azpimarratu nahi genituzke, horien arabera, herritarrek salaketak aurkez baitiezazkiokete Legeak tabako kontsumoari ezartzen dizkion mugapenak betetzen ez direla ikusiz gero.

Ararteko erakundean jaso diren kexak salaketak egin dituzten pertsonak aurkeztu dituzte eta, beraz, tabernetan eta jatetxeetan izandako kontsumo debekuen ez betetze gisa har daitezke.

Jakinaenez, Eusko Jaurlaritzak uste du udalak direla kasuan kasuko zehapenak bideratzeko, ikuskatzeko eta, hala badagokio, ezartzeko administrazio eskudunak. Alderantziz, udalek uste dute 28/2005 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren beraren eremuan kokatzen duela eskumen hori.

Testuinguru horretan, herritar batek erreklamazioa aurkezten badu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean, ziurrenik jakinaraziko diote bere salaketa dagokion udalari helarazi diotela. Ondoren, udal horrek herritarrari berari helaraziko dizkio jarduteko eskumenik ez duela pentsatzeko arrazoiak.

Hortaz, ez da harrizkoa halako kasuetan herritarrak zalantzak izatea legean ezarritako mugapenen indarraldiari buruz.

Azkenik, atal honetan, aipatu beharrekoa da Ararteko erakundean jasotako zenbait kexa direla-eta piztu den gaia; alegia, eskaintako osasun laguntzarekin bat ez etortzearen ondorioz aurkeztu diren **ondare erantzukizuneko** erreklamazioei erantzunik ez ematearen ingurukoa.

Kontuan izanda egoera horrek kasuan kasuko administrazio espedienteak izapidetzen ari ez zirela adieraz zezakeela, Osakidetzari zuzendu zitzaion eta adierazi genion guk ere ezin genituela espediente horiek konpondutzat eman administrazioaren isiltasunak dakarren fikzio juridikoan oinarrituta. Gaixoen aurkezten dituzten erreklamazioak berariaz ebatzi behar direla onartuta, espediente horiek ez izapidetzearren arrazoiak izan zen espediente ugari zegoela; espediente horietan, gaiaren konplexutasuna aintzat hartuta, beharrezkoa zen bitarteko nahikoak esleitzea espedienteak zerbitzu publikoei eskatzen zaien eraginkortasun printzipioari jarraiki izapidetu ahal izateko.

Bere erantzunean, eta gure balorazioarekin bat etorriz, Osakidetzako zuzendari nagusiak jakinarazi zigun zenbait jarduerari hasiera eman zitzaiela ondare erantzukizuneko espedienteak ordenamenduan aurreikusitako baldintzetan izapidetu daitezten.

## 12.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Erabiltzaileen eskubideak

⇒ *Gastuak itzultzea eta itxaron zerrendak. Gaixoen eta osasun sistemaren arteko berdintasuna (947/2005)*

- Erreklamazioa

Erreklamatzailerak bihotzekoa izan zuen eta, behin alta jaso zuenean, etxera itzuli zen bertan osatzen jarraitzeko. Kontsulta izan zuen eta kateterismo proba egiteko txanda

hortik 3 hilabetera eman zioten. Idazkia aurkeztu zuen proba aurreratzeko, baina, erantzunik jaso ez zuenez, zentro pribatu batera jo zuen. Bertan, proba egin zioten eta aurrealdeko beheranzko arteriako buxada larria (%90ekoa) zuela esan zioten.

Kateterismo probaren ondorioz, zentro pribatuan adierazi zioten ezin zuela sistema publikoan aurreikusitako denbora itxaron eta ebakuntza egiteko eguna eman zioten. Egoera hori txanda aurreratzeko eskaera aurkeztu zuen gaixoarentzako arreta-zerbitzuari jakinarazi zion eta adierazi zion sistema publikotik kanpo egingo ziotela ebakuntza.

- Azterketa

Zentro pribatuak egindako txostenaren arabera, gastuak itzultzea justifika zezakeen egoeran egon gintezkeen. Horregatik, informazioa eskatu genion Osasun Sailari.

Bere erantzunean, sailak jakinarazi zigun aurreikusitako epea itxaroterik ez zegoela iradokitzen zuen txostena gaixoak berak aurkeztu ziola Osakidetzari, baina honek ez zuela denborarik izan erreakzionatzeko, eta, txostena egin zen data ikusita, lehenago aurkezteko denbora ere izan zuela, hala egin nahi izanez gero. Erantsi zuen larrialdietako zerbitzura ere jo izan zezakeela, bertan ere hartuko baitzuten.

Ikus daitekeenez, sailaren erantzunak prozedurari buruzko alderdiak zituen hizpide, baina ez zuen gaiaren mamiaz ezer aipatu, hau da, ez zuen ezer esan gaixoaren egoera, zentro pribatuan egindako probaren arabera aztertua, sistema publikoan aurreikusitako denboran tratatuko ote zen.

Osasun administrazioaren txostenak adierazi zuen, behin medikuntza pribatuaren diagnostikoa lortuta, gaixoak ez zuela berehala jo ambulatorioko bere kardiologoarengana eta, hori nahita egin zuela pentsatuz, aipatu zuen maiatzaren 25etik ekainaren 3ra itxaron zutela ospitale publikoari jada hartuta zegoen erabakiaren berri emateko. Horrela, azaldu zuen, jakinarazpena hainbeste atzeratzearen ondorioz, ez zitzaizela denborarik eman laguntza-dispositiboari behar besteko denborekin erreakzionatzeko.

Kexaren bigarren alderdi hau, alde aurretik jakinaraztearen ingurukoa, sistema publikoak dagokion betebeharra betetzeko izan behar duen abagunearekin zegoen lotuta eta aztertutako lehena (gaixoak ospitalean itxaron behar izan zuen denbora gehiegizkotzat jotzearena) bezain funtsezkoa izan daiteke.

Aldez aurretiko jakinarazpena egiteko gaixoak behar izan zuen denbora ezin zitezkeen modu isolatuan aztertu, ez baitzekien sistema publikoan ere arreta jasotzen zuela. Horregatik, saihestezina zen gogoan izatea Osakidetzari aurretik egindakoa zuzentzen zuen diagnostiko pribatuaren berri eman zitzaizola.

Erabiltzailearen eta osasun sistema publikoaren arteko harremanetan nagusi izan behar duen elkarrenganako konfiantzaren printzipioaren ikuspegitik, ez zen handinahikeria argudiatzea, kasu honetan, osasun arreta publikoa ez zela nahita bertan behera utzi.

Bestalde, administrazioak gaixoari leporatu zion, behin zentro pribatuan egindako probaren emaitza jakinda, ez zuela eguneko edozein ordutan artatzen duten larrialdietako zerbitzu kardiobaskularretara jo. Hori ikusita, bidegabea litzateke kontuan ez hartzea, era berean, sistema publikoak ekainaren 3an jakin zuela gaixoari 7an egingo ziotela ebakuntza (lehen idazkiari emandako erantzunaren aurrekariarekin) eta, hortaz, ospitaleak halaxe jokatzetik ere izan zezakeen; alegia, bide hura erabil zezakeela esan ziezaiokeen.

Noski, kronika ziurrenik ezberdina izango zen gaixoak, ospitaleari zentro pribatuaren diagnostikoa jakinarazi ondoren, itxarotea aukeratu izan balu, zentro pribatuan



ebakuntza egin ziezaiotela aukeratu ordez. Hori hala izan zitekeen arren, horrek ez zuen hutsaltzen gastuak berreskuratzeko bere uzia, bere jokabidean ez baitzen antzematen urtarilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan jasotako salbuespena oker edo neurrigabe erabili zuenik.

Beraz, horretarako inguruabarrak zeudela ikusita, Osasun Sailari iradoki genion berriz azter zezala hartutako erabakia.

- Emaizta

Azterketan jasota geratu den bezala, gure ustez, gaixoari sistema publikoak berarekin izan ez zuen ardura eskatu zitzaion.

Kexa honen azken balorazioa gaixoak Osakidetzarekin izan zuen harremanaren inguruko alderdi hau bakarrik kontuan hartuta egingo bagenu, kexa eragin zuen erabakia berriro azter zedin gomendatzeko arrazoiak egon zirela ondorioztatuko genukeen.

Hala ere, Osasun Finantziario eta Kontratazioko Zuzendaritzak hartutako erabakia berriro aztertzearen inguruan egin genion iradokizunari erantzunez bidali zigun idazkiak beste datu bat jasotzen zuen eta espediente honetan funtsezkoa zen alderdi bat (hots, % 90eko buxadura larria –zentro pribatuan egindako kateterismo probaren emaitza– hil ala biziko kontua ote zen) argitzen zuen. Erantzun horretan, honakoa zioen: “...*sintomatologia egonkorrean, % 90eko buxadura ez da arrazoi nahikoa bere kasua “premiazkoagotzat” jotzeko*”; eta aurrerago, berriz, honakoa: “...*ospitaleak laguntza-sistema pribatuan egindako kateterismo probaren emaitza jakin izan arren, ez zukeen gaixoaren laguntza-programazioa aldatuko, horren sintomatologia egonkorra baita.*”

Aurreko paragrafoan aipatutako azken txostenean egiten den baieztapenetik ondorioztatu genuen bezala, ez baldin bazen arrazoi medikorik egon gaixoaren programazioa aldatzeko, orduan esan genezakeen Osasun Sailak gastuak itzultzeko eskaerari uko egin izanak bazuela oinarririk.

Azken txosten hori funtsezkoa zen gaiaren mamia argitzeko, arreta hain premiazkoa ez bazen eta, beraz, aurreikusitako denbora itxaron bazezakeen, orduan gastuak itzultzeko eskaerari uko egin izana ez zen arbitrarioa izan.

Azken ondorio horren kaltetan izan gabe, esan dezakegu, kexaren beste alderdi batzuetan, espediente honetan jasota geratu ziren gogoetak ez zirela antzuak izan; izan ere, gaixoen eta osasun sistemaren arteko berdintasunean eragina dute eta, horri dagokionez, eguneroko tratuan hainbat egoeratan ikus daiteke erabiltzaileei sistemak berak bere buruari ezartzen diona baino ardura handiagoa eskatzen zaiela.

Gaixoari garatu genituen jardueren berri eman ondoren, kexa-espedientea artxibatatu genuen.

⇒ *Sistema publikoak eskaintzen dituen tratamenduak: informazioa (1091/2005)*

- Erreklamazioa

Gaixo batek tratamendu fisioterapikoa egin zuen zentro pribatu batean. Desbideratze agirian adierazi zen prestazio hori ez zegoela osasun sistema publikoan.

- Azterketa

Aurrekariak ikusita, errehabilitaziora horretarako baimenik eskatu gabe joan zela ondorioztatu genuen.

Hala ere, informazioa eskatu genuen errehabilitazio teknika hori osasun sistema publikoak eskainitakoen artean zegoen ala ez zegoen argitzeko edo bere patologia tratatzeko beste aukerarik ba ote zegoen jakiteko. Eskatera alderdi tekniko eta medikoarekin lotu genuen; izan ere, interesdunaren ustez, bazegoen loturarik zoru pelbikoa errehabilitatu eta zenbait alderdi sendatu izanaren artean, besteak beste, orduz geroztik ez zuelako gernu inkontinentziarik izan.

- Emaita

Helarazi ziguten informazioarekin bat etorritz, errehabilitazio hori sistema publikoan ere bazegoen, nahiz eta ez modu orokortuan, antza, fakultatibo guztiak ez zirelako horren aldekoak.

Hori hala bazen, desbideratze agirian jasotako oharra okerra zen, horren arabera, prestazio hori ez baitzegoen sistema publikoan. Horregatik, iradoki genuen datu hori ere kontuan har zedila kexa eragin zuen erabakia berriro aztertzeko. Halaxe egin zen eta, horren ondorioz, errehabilitazioa zentro pribatuan egin izanak sortutako gastua ordaindu zitzaion.

Bere erantzunean, Osasun Sailak jakinarazi zigun kasua berriro aztertuko zutela eta beste ebazpen bat emango zutela; horren bidez, bertan behera geratuko ziren gastuak itzultzeko bere eskaerei uko egin zieten aurreko ebazpen guztiak.

⇒ *Zenbait gaixo bakarrik ez uzteko diru-laguntzak emateko irizpideak*  
(8/2006 OF)

- Erreklamazioa

Mantenu, ostatu eta joan-etorrietarako diru-laguntzak ukatu izanaren ondorioz jaso genituen kexak nagusiki honako arrazoi hauetan oinarritu ziren:

1. Ebakuntza beren osasun eremuan egin ezina, eta
2. adingabeari lagundu beharra, etxetik urrun zegoen ospitalean ebakuntza egingo ziotelako.

- Azterketa

Lehen arrazoiari dagokionez, bistakoa da hainbat abantaila dituztela zerbitzu gehiago dituzten eremuetan bizi diren herritarrek. Hala ere, ikuspegi juridikotik, egoera horrek berez ez du diru-laguntza hauek erregulatzen dituen arauan jasotako berdintasun printzipioa urratzen. Ikuspegi juridiko horretatik bertatik, bizilekutik gertu zerbitzuak egotea ere ez da eskubidea.

Bigarren arrazoa beste modu batera baloratu behar izan genuen. Laguntzailerik gabe ezin mugitzeaz gain (gizarte arazoa izan liteke), hura gabe ospitalean nekez egon daitezkeen pertsonekin du zerikusia –oro har, adingabeak izan ohi dira–; horiek horrela,

gerta daiteke funtsezkoa izatea norbaitekin egotea arreta-prozesuaren garapenerako (hori osasun arazoa izango litzateke).

Arauk kontuan hartzen ditu laguntzailea behar-beharrezkoa den egoera horiek, baina baldintza orokorra ezartzen zaie; alegia, arreta-zentroa gure autonomia-erkidegotik kanpo egotea.

Testuinguru honetan, Ararteko erakundeak pentsatu zuen, laguntza behar-beharrezkoa dela zehaztu baldin badaiteke –gaixoaren arreta-prozesuan ezinbestekoa delako–, orduan justifikatuta egon daitekeela diru-laguntzak soil-soilik distantzia aintzat hartuta ematea eta, beraz, ez kontuan izatea zentroa gure autonomia-erkidegotik kanpo dagoen ala ez, betiere, tratu desberdina eman gabe baldintza hori nahitaez bete behar duten egoerei.

- Emaizta

Osasun Sailak jakinarazi zigun bat zetorrela gure balorazioarekin, nahiz eta, bere iritziz, horren ardura hartzeko eta indarreko araua egokitzeko, ezinbestekoa izan aurrekontua onartzea. Esan zigunez, horretarako kasuan kasuko aurreikuspena jasoko zuten 2007rako aurrekontuaren proposamenean.

⇒ *Ortodontziako tratamenduak: mugak (45/2006)*

- Erreklamazioa

Kexa honek ectrodactilia sindromea zuen adingabe baten kasua aurkeztu zuen. Malformazio genetikoa da eta arazo ugari sortzen ditu. Kasu honetan, arazo horietako bat hipodontzia zen eta gaitzaren osagarri funtzionalak larriagotu zituen. Hortaz, ezinbestekoa zen adingabeari ebakuntza egitea hartz inplanteak jartzeko, horri esker, neurri batean behintzat, haren elikadura eta digestio arazoak konpondu ahal izango bailirateke.

- Azterketa

Kontuan izanik, hartz protesiei dagokienez, indarreko katalogoak eman daitezkeen laguntza ekonomikoek ezarritakora eramaten duela, kexa eragin zuenari jakinarazi zioten adingabe horrek zituen premien estaldura laguntzen aplikazio eremutik kanpo geratzen zela.

Ectrodactilia sindromearen ezaugarriak hain dira bitxiak, non kasu hau Osasun Sailari aurkezteko bidea eman baitziguten. Hori azaltzerakoan, kexa eragin zuten ez beste egoera batzuk aipatu genituen; erakunde honen iritziz, egoera horietan, ahoko zenbait ebakuntza egiteak ez zion prestazioen katalogoari aurka egiten. Izan ere, prozesu zabal batean kokatutako ebakuntzak ziren eta, bertan, ortodontziako tratamendua zati bat baino ez zen; are gehiago, tratamendu hori gabe, prozesu orokorra mugatuta geratuko litzateke.

Beste egoera horiek aipatzea erabaki genuen, gure ustez, beharrezkoa zelako arazoa arazo orokor gisa aztertzea; izan ere, gure eskaeran adierazi genuen moduan, aho-hortzetako ebakuntzak eskatzen zituzten gaixoei buruzko zenbait kexa aztertzerakoan, badira zenbait egoera prestazioen egungo katalogoarekin erraz bat ez datozenak. Hala ere, horiei aparteko arreta zor diegu; izan ere, horien ezaugarriak nahikoa bereziak

dira biztanleen artean nolabait orokorrak diren eta, beharbada, aho-hortzetako ia tratamendu guztiak sistema publikotik kanpo uztea azaltzen duten egoerei dagozkienekin alderatuta.

- Emaidza

Beren erantzunean jakinarazi ziguten, ectrodactilia sindromea duen adingabe honen kasua berriro aztertu ondoren, sistema publikoak gaitz horri zegokion modu espezifikoan eskainiko zitzaiola arreta.

Kasua bideratu ondoren, Osasun Finantziario eta Kontratazio zuzendariaren txostenean adierazi zitzaigun, prestazioen katalogoa berrikustearen emaitza edozein izanda ere –oraingoraindik amaitu gabe baitzegoen–, arreta berezia jaso zezaketen kasuen inguruko azterlana egingo zela, horiek euskal osasun sistema publikoko prestazioen artean barnera ote zitezkeen ikusteko.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Gaixo batek mediku bati buruz egindako kexak eta honek hari buruz egindakoak (1145/2005)*

- Erreklamazioa

Aita bat etengabeko arreta-gune bateko larrialdietara joan zen semearekin, baina, haren ustez, bertan ez zioten arreta egokia eskaini eta, hala, ospitaleko larrialdietara joan zen. Bere desadostasunaren arrazoiak ospitaleko erabiltzaileen arretarako zerbitzuan aurkeztu zuen erreklamazioan jasota geratu ziren.

Handik egun gutxira, kasuan kasuko osasun eskualdearen idazkia jaso zuen eta, bertan, etengabeko arreta-gunean izandako jokabidea aurpegiratu zioten. Idazkian, gai horri buruz berak esan zezakeenarekin alderatu gabe aurpegiratu zioten jokabide hori eta ez zen ezer aipatzen ospitalean aurkeztutako erreklamazioaren inguruan.

- Azterketa

Portaerei edo jokabideei buruzko zenbait kexetan, haien inguruan balorazio subjektiboak egiten direnez, zaila da modu objektiboan hartzea zein izan den portaera okerra eta zein ez, osasun eskualdearen idazkian aita honi leporatu zitzaion bezalaxe. Hala ere, gertakariak egiaztatzea ezinbestekoa da kexak jasotzen direnean, bereziki, eta hemen gertatu zen moduan, elkarrenganakoak zirenean, aitzak artatu zituen medikuari leporatzen ziona, hain zuzen ere, oker jokatu izana baitzen.

Aztertutako aurrekariak ez zuten inolako daturik eskaintzen gaiaren funtsa baloratzeko, hau da, ea jokabidea interesdunari leporatu behar izateko modukoa izan zen. Alabaina, hain bistakoa izanik bi alderdiek aurkako iritzia zutela egoera beraren inguruan, are indar handiagoa hartzen du gure ideiak; alegia, hura ohartarazteko idazkia bidali aurretik, beharrezkoa zela idazkian jasotakoa eta salaketaren xede izan zen aitaren bertsioa alderatzea, bereziki, kontuan izanda, ondoren egiaztatu ahal izan zen bezala, ospitalean erreklamazioa aurkeztu zuela (ezin izan zuen etengabeko arreta-gunean erreklamaziorik egin, horretarako inprimakirik ez zegoelako).

Izan ere, kontua 175/1989 Dekretuko aurreikuspena gauzatzea baino ez zen. Horren arabera, erreklamazioak ikertzerakoan, eragindako alderdi guztien iritzia jaso behar da eta, ondoren, ikerketaren xedeari buruzko ebazpen arrazoitua eman behar da. Hortaz, beharrezkoa zen azpimarratzea zein eginkizun duen kontraesanaren printzipioak pertsonengan eragina duten administrazio prozeduretan; printzipio hori inoiz ezin da kasu honetan egin zen neurrian arindu, erabiltzailearen eskubide bat murrizten ez duen prozesua izan arren.

- Emaizta

Aurreko azterketa hori Osakidetzari bidali genion informazio eskaeran jaso genuen.

Bere erantzunean, zuzendari nagusiak jakinarazi zigun, bi alderdien jokabidea egokia izan zen ala ez jakitea zaila izan arren, jarduera ez zela egokia izan, ez baitzitzaion aitari gutun hura bidali behar zer gertatu zen aurretik egiaztatu gabe. Ondorioz, adierazi zigun interesdunari barkamena eskatzeko idazkia bidaliko ziotela gertakarien inguruko bere bertsioa alde batera uzteagatik eta beharrezko neurriak hartuko zituztela salaketak izapidetzeko prozesuan kexa eragin zuen akatsa berriro gerta ez zedin.

⇒ *Medikuak gaixolari errespeturik ez izatea (1222/2005)*

- Erreklamazioa

Emakume batek erreklamazioa aurkeztu zuen gaixoen arretarako zerbitzuan, mediku baten errespetu faltagatik, mesprexuz hitz egin baitzuen haren janzteko moduaren inguruan. Bere erreklamazioak ez zuen erantzunik jaso eta, ondorioz, Ararteko erakundean kexa aurkeztu zuen.

- Azterketa

Kexan azaldutako egoera oso modu desberdinetara ikus daiteke, guztiak ere 175/1989 Dekretuaren aurreikusitakoarekin erlazionatuta; izan ere, horren 1.a) artikulak dio erabiltzaileak errespetu eta zuzentasun osoz artatu behar direla.

Aipatu zituen inguruabarrek salaketa egiaztatzeke espedienteari hasiera ematea ahalbidetzen zuten, kontsultan zegoen hirugarren pertsonari lekukotza eskatzeko aukera baitzegoen.

Medikuak guztia beste modu batera ikusteak ez zuen justifikatzen esandakoa esatea. Balorazio desberdinak daude jantzietan itxurazkoa denaren edo ez denaren inguruan, baina kasu batzuetan bakarrik izan daiteke zilegi ikuspegi jakin bat duenak beste ikuspegi bat duenaren eremu pertsonala gainditu eta urratzea. Medikuak erabilitako hitzek eta erizainak esan zionak, alegia, ez zuela horrelako gauzetan sartu behar (Ararteko erakundeak egindako ikerketan jasotakoa), beste zenbait daturen artean, garbi uzten dute, kasu honetan, beste pertsona horren eremu pertsonalean sartzea ez zela zilegi izan.

Ez zegoen daturik interesdunaren janzkera sozialki onartezina zenik esateko eta, beraz, ezta inolako aztarnarik ere medikuak esandakoa modu objektiboan hartu ahal izateko inguruabarrak edo arrazoiak zeudela pentsatzeko.

Hala ere, ondorio dialektikoetarako baino ez bada ere, inguruabar edo arrazoiren batek halako zerbait esatea eragin izan zezakeela onartu arren, nekez justifikatu ahal izango ziratekeen erabilitako hitzak.

Bi alderdiek gertakarien ikuspegi desberdinak izan arren, horrek ezin zezakeen kexa eragin zuten medikuaren hitzetan ondoriorik izan (horrek medikua errugabetuko luke), hala izanez gero, gure informazio eskaeran aipatu genuen 175/1989 Dekretuko aurreikuspenaren edukia hutsaltzeko arriskuan egongo baikinategi; izan ere, horren 1.a) artikulua dio erabiltzaileak errespetu eta zuzentasun osoz artatu behar direla.

Jokabide hori baloratzekoan, ez genuen aztertu gaixo baten janzkeran itxurazkoa izan daitekeena urratu zen ala ez zen –gure ustez, ez zen halakorik egon–. Guk aztertutakoa honakoa izan zen: medikuak esandakoa gaixoarekiko errespetuzkoa izan ote zen, kontuan hartuta, medikuaren iritziz, gaixoak bere pentsamoldearekin bateragarriagoa zen moduan jantzi behar zuela.

Ikuspegi horretatik, hots, medikuaren eta gaixoaren arteko harremanetan ustez errespetua eta zuzentasuna nagusi izango direlako ikuspegitik, ezin esan daiteke medikuak erabilitako hitzen zentzua kaltegarria ez denik. Horregatik, medikuak esan zuena salaketan jaso bezala izan zela egiaztatu zenez eta horrek eragina izan zuela gaixoak errespetu eta zuzentasun osoz arreta jasotzeko duen eskubidean, Ararteko erakunde honen iritziz, gauzatutako jardueretan ere kontuan hartu beharko litzateke hori eta, egiaztatutako datuetan oinarrituta, aipatu medikuari agiraka egin beharko litzaioke.

- Emaita

Bere lehen erantzunean, Osakidetzak jakinarazi zigun medikuarekin elkartu zirela eta haren jokabidea gaitzesten zutela adierazi ziotela. Ondorengo erantzunarekin batera, idazki baten kopia helarazi ziguten; horren bidez, zentroko giza baliabideen zuzendaritzak medikuari helarazi zion Ararteko erakundeak egindako balorazioa.

## 13. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

### 13.1. SARRERA

2006an, guztira 18 kexa aurkeztu dira Lan eta Gizarte Segurantzaren arlo honetan. Gizarte Segurantzaren inguruko arazoak aipatzen dituztenak herri defendatzaileari bidaltzen zaizkio, Parlamentuaren ordezkari honi baitagokio Estatuko Administrazio Orokorreko organoen jarduera ikuskatzea.

Lanaren arloan, ezgaitasun intelektual jakin bat zuen pertsona baten kexa aipatu behar dugu. Bertan adierazi zuenez, laneratzeko zenbait jarduera ezgaitasun jakin batzuk dituzten pertsonen elkarteekin bakarrik garatu ziren eta, beraz, bere iritziz, bereizkeria zegoen Ezgaitasunen bat duten Pertsonak Lan Merkatuan Sartzeko Planean.

Laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren esparruan jasotako jarduerak ziren eta, beraz, horrek argitzen zuen zergatik garatu ziren bakarrik dekretuari heldu zioten elkarteekin. Elkarte horiek kexa aurkeztu zuten gurasoen umeak zuen ez beste ezgaitasunen batek jotako pertsonenak ziren eta, beraz, era horretako ezgaitasun intelektualak zituzten pertsonen elkarteak diskriminatu egiten ziren

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eman zigun informazioarekin bat etorritz, helburua saileko bertako lanpostuetan banakako prestakuntzako praktikak sustatzea zen. Jarduerak elkarte horien bitartez egin ziren arren (327/2003 Dekretuaren esparruan baimendutako bakarrak zirelako), horrek ez zuen esan nahi elkarteren bateko kide ez ziren pertsonak edo Down sindromea ez den beste ezgaitasunen bat zuten pertsonak kanpo geratu ezin zitezkeenik, eta halaxe jakinarazi zitzaion Ararteko erakundeari. Datu hori garrantzitsua iruditu zitzaigun eta interesdunei helarazi genien, egiazta zezaten.

Gerta daiteke, laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen abenduaren 23ko 327/2003 Dekretua aplikatzearen inguruko egiaztapen horretan oinarrituta, arauak bereizkeriarik egiten ez duela ondorioztatzea. Hala ere, litekeena da ezarritako baldintzek zailago bihurtzea beste ezgaitasun intelektual batzuk dituzten pertsonen elkarteek ere parte hartzea, beharbada, dekretu horri heltzeko egokiak ez diren egiturak dituztelako. Hori horrela, komenigarria izan liteke egun dauden bideak zabaltzea, beste ezgaitasun batzuk dituzten pertsonen parte-hartzea ere ahalbidetzeko.

Jarduera espezifiko horren inguruko azterketa zehatza alde batera utzita, kexa ezgaitasunen bat duten pertsonen laneratzeari dagokion eremuan kokatu behar dugu eta talde horrek dituen zailtasunen adierazgarri gisa hartu. Kontuan izanik Ararteko erakundeak arazo hori ezgaitasunen bat duten pertsonen EAEan dituzten lanerako aukeren inguruan egin zuen ezohizko txostenean aztertu zuela, ezinbestekoa da beren lan aukerak handitze aldera bertan egin genituen gomendioetara jotzea.

2005eko txostenean, sindikatu batek prozedura jakin batzuetan jaso zezakeen aintzatespenaren inguruko kexa aipatu genuen. 2006an amaitu zen jarduera horren ondorioa 256/2005 zenbakiarekin arlo honetan jaso dugun laburpenean dago (ikusi kexa-laburpena).

Arlo honetan zenbatu ditugun kexen artean –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari baitagokio gutxieneko zerbitzuak ezartzea–, zerbitzu publikoen erabiltzaile diren

pertsonen senideek aurkeztutako kexak daude. Zerbitzu horiek greba egin dute eta horrek zenbait ikastetxetako garbiketari eta udal titulartasuneko egoitza jakin batzuen funtzionamenduan izan du eragina; zenbait kasutan, greba sei hilabetetik gorakoa izan da.

Hala ere, hirugarren adinekoren egoitzetako greben inguruko kexak arlo honetan barneratzea erabaki den arren, gizarte ekintzako arloan ere barnera zitezkeen.

Kasu horiek oso ezaugarri bereziak dituzte, adinekoei eskaintzen zaien arretako inguruabarrak aintzat hartuta, oso zaila baita oreka aurkitzea kaltetutako eskubideen artean –hots, langileen grebarako eskubidearen eta erabiltzaileen arretarako eskubidearen artean–. Hori dela-eta, kexa hauek ez ditugu soilik lan ikuspegitik aztertuko, baizik eta baita gizarte ekintzaren ikuspegitik ere.

Esan dezakegu zailtasun handiak daudela kaltetutako eskubideen artean oreka aurkitzeko eta ondoriozko gutxieneko zerbitzuak finkatzeko.

Kontu horren inguruan pentsatu behar da, zentro baten ohiko funtzionamendua egoitza-zerbitzuei buruzko arauetan aurreikusitako gutxienekoak eskaini ahal izateko diseinatutako plantillarekin gauzatzen baldin bada, zerbitzu horiei kalte egiten zaiela gutxieneko zerbitzuak ezartzen direnean, horiek hala izanik, ezinbestekotzat jotzen den ohiko estandarraren azpitik egon behar baitute. Gutxieneko zerbitzuetan oinarritutako funtzionamenduak eskaintzen digun errealitate juridikora nekez egokitu arren, inguruabar horrek azal diezaguke zergatik onartzen den –beste greba-eremu batzuetan beharbada onartuko ez litzatekeen bezala– senideek erabiltzaileei laguntza ematea, grebaren ondorioak arintze aldera.

Eskubide bat baino gehiago barne hartzen dituzten egoeretan horien arteko oreka aurkitzea zaila dela jakinda, txosten honetan gatazka horiei buruzko aipamena egitera garamatzaten berezitasunek kaltetutako pertsonen inguruabarrekin dute zerikusia, langileek greba bezalako muturreko formula batera jotzea eragin dezaketen arrazoiak ahaztu gabe. Zerbitzu hauetako langileen egoerari dagokionez, 2004an Ararteko erakundeak EAEn adinekoei eskaintzen zaien arretari buruz (etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak) egin zuen ezohizko txostenean jasotako baloraziora jo behar dugu. Txosten horren VI. kapituluaren (Balorazioa eta gomendioak), erakunde pribatuekin geroz eta itun gehiago sinatzeko dauden baldintzak jasotzen dira. Bertan esan genuen moduan, funtsezkoa da kontu horiek sakon aztertzea, sistemak erantzukizun publikokoa izan behar duela ahaztu gabe.

## 13.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ Ordezkaritza bateratua eta sindikala: aldeak (980/2006)

- Erreklamazioa

Sindikatu bateko ordezkariek ez ziren zenbait langilek kexa aurkeztu zuten, administrazioak uko egin ziolako ordezkariek sindikalak aukeratzeko beren eskaerari. Horrela, parekoak zirela adierazi zuten, Sindikatu Askatasunaren 11/1985 Lege Organikoaren (SALO) 10. artikulua onduz.



- Azterketa

Kexak langileen interesak ordezkatzeko dauden bi bideekin zuen zerikusia –hots, bide sindikalarekin eta bide bateratu edo hautazkoarekin–. Bi bide horiek nolabaiteko erlazioa dute. Izan ere, jarduera sindikalaren zati handi bat ordezkaritza bateratuko edo hautazko ordezkaritzako organoen bidez egiten da.

Testuinguru horrek azaltzen du zergatik hitz egin ohi den hauteskunde sindikalez, nahiz eta, berez, horien bidez langileen ordezkaritza bateratuko edo hautazko ordezkaritzako organoa osatuko duten kideak aukeratzaren diren. Ildo horri jarraiki aipatzen du Auzitegi Konstituzionalak ordezkaritza-modu bikoitz hau. Hala, horren inguruan dio, sindikatuak egiten duten moduan, langileen ordezkariek eta enpresa-batzorde edo langile batzarrek langileen interes ekonomiko eta sozialak babestu eta sustatzen dituztela eta, beraz, zeregin hori, hitzez hitz hartu gabe, sindikaltzat jo daitekeela. Ondorioz, gaur egun, bi ordezkaritza-motak (sindikala eta bateratua) eta langileen interesak babesteko eginkizunak kasu askotan ez daude garbi.

Hala ere, egoera horrek ez dakar batzuen (sindikatuak) eta besteen (enpresa-batzorde edo langile batzarren eta langileen ordezkariek) artean dauden aldeak ezabatzea, haiek eta hauek zehaztuta baitaude eta Konstituzioan ez baita jasotzen berdinak direnik.

Bereizketa hori eginda, askatasun sindikalerako eskubidearen alderdi indibidualak babesten dituen jarduerak (batzordeko edo batzarreko kide izateko hauteskundeak sustatzea, orduak aintzatestea) eskubide horren osagarri dira eta, beraz, lege arruntak eta, hala badagokio, negoziazio kolektiboak askatasunez onar ditzakete.

Eskubidearen osagarriez ari garela –legeria arruntaren esparruan, beraz–, ordezkaritza sindikala ez baldin bada Konstituzioak ezarritako irudia, hau da, osagarria baldin bada eta ez askatasun sindikalerako eskubidearen funtsezko elementua, orduan esan daiteke ordezkaritari legez edo hitzarmenez egoki dakiokkeen ordu kreditu ordaindua ere osagarria izango dela.

- Eraitza

Ordezkaritza sindikala eta bateratua bide desberdintzat hartzen ziren egoera bati buruz, Ararteko erakundeak adierazi zuen, SAOLaren 10. artikulua onorioetarako ordezkaritza sindikalak eta langileen ordezkaritza parekatzen dituen legezko aitortzen ezean, Administrazioaren erabakia ez zela arbitrarioa izan; hori guztia gaia negoziazio kolektiboaren esparruan aztertzei aukeraren kaltetan izan gabe.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Sindikatuak zehapen prozeduretako interesdun gisa (256/2005)*

- Erreklamazioa

Kexa honetan sindikatuak adierazi zuen beti ukatu egiten zitzaizkion interesdun izaera euren aurkeztutako salaketa baten ondorioz hasitako prozeduretan. Horien arabera, kasu honetan, oro har gertatu ohi zen bezala, arau-haustearen aktaren edukia jakinarazi zieten, baina ondoren ez zuten beste jakinarazpenik jaso eta horrek eragotzi egiten zien bidean ziren administrazio jardueren jarraipena egitea.

- Azterketa

Kontu eztabaidagarri hau aztertzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari helarazi genion kexa eta galdetu genion ea aukerarik bazegoen kasuan kasu ikusteko sindikatuak interes kolektiboen ordezkari gisa jarduteko duten gaitasun abstraktua prozedura batean interesdun izateko beste zehaztu ote daitekeen.

Horretarako, Auzitegi Konstituzionalak sindikatu batzuek prozesu batean izan duten parte-hartzea nola aztertu duen hartu genuen kontuan, zehazki, 210/1994 epaia. Bertan hauxe dio: sindikatuak edozein prozesu akzionatzeko duen gaitasun abstraktua kasu bakoitzean zehaztu behar da, lotura baten bitartez, eta akzionatzen duen erakundearen eta egikaritutako uziaren arteko lotura bere ezarpenaren arabera neurtu behar da.

Beraz, balorazio horrek eskaintzen digun ikuspuntuak pentsarazi zigun (izaera orokorreko interesdun direnik onartu gabe) zehaztu beharra dagoela kasu bakoitzean sindikatua prozesuko alderdi bat izatea onartzeko egoera batean gauden ala ez.

Langileen interes kolektiboak defendatzerakoan, kasu batean, gaitasun abstraktua interes legitimo batean zehaztu daiteke zehapen prozedura batean, eta hori da aparteko orduen muga haustea, zehazpen horri lotuta dauden inguruabarrek sindikatuaren eta salaketa jartzerakoan egikaritu nahi den ekintza lotu ahal direlako (lanpostu berriak sortzeko aukera aparteko orduen antzeko proportzio batean, eta enplegu baldintzekin duen lotura), eta, beraz, interesdun gisa azal daiteke dagokion prozeduran.

- Eraitza

Bere erantzunean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak ondorioztatutakoaren arabera, oro har, esan zitekeen, zehapenen arloko administrazio prozeduran eragindako interesak zuzeneko partaide diren alderdienak direnez (hots, enpresarenak eta administrazioarenak), sindikatua ez dela prozedurako interesduna. Hala ere, enpresako langileen interes kolektiboek ere eragingo balitzaie eta, ondorioz, legez sindikatuak babestu behar dituen interes ekonomiko eta profesionalei, orduan, sindikatua prozedurako interesduna izango litzateke, kasu horretan, interes kolektiboa babesten ariko bailitzateke; hori guztia, salatzaile den heinean espedientearen egoeraren inguruko informazioa jasotzeko eskubidearen kaltetan izan gabe.

Irizpide horrek kexaren xedea bidera zezakeela ikusi ahal izan genuen. Hortaz, interesdunari gure jardueren berri eman ondoren, gure esku-hartzea eten genuen.

## 14. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

### 14.1. SARRERA

Hirigintzaren eta lurralde antolamenduaren arloan, Arartekoak hirigintzan jarduteko hiru eremuetan –hiri eta lurralde antolamendua, horren kudeaketa eta hirigintzako diziplinari dagozkion eginkizunak– burutu dituen jardueren berri ematen da.

Arlo honi buruz erakunde honetan jaso diren kexak 140 izan dira –guztira jasotako % 8,34–; horrek adierazten du gehitu egin direla aurreko urteetako kopuruekin alderatuta. Esku-hartzeen gehikuntza, bereziki, hirigintzako diziplinako eskumenez baliatzearen inguruko arazo gehikuntzari zor zaio, baina baita irisgarritasunaren azpiarloan aurkeztutako erreklamazioei ere. Horiek, nagusiki, mugitzeko arazoak dituzten pertsonen elkarteek aurkeztu dituzte eta, horien bidez, hiri eta herrietan hirigintza-oztopoak daudela salatu dute.

Eragindako administrazioen arabera, kexak honela banatzen dira:

- Toki administrazioa .....	126
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	10
- Foru administrazioa .....	9

Azpiarloei dagokienez, berriz, honela:

- Hirigintzako diziplina eta aurria .....	63
- Irisgarritasuna .....	27
- Hirigintzako antolamendua .....	18
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	17
- Hirigintzako kudeaketa .....	9
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	4
- Eskubideak eta askatasunak .....	1
- Beste batzuk .....	1

### Hirigintza

Euskal Autonomia Erkidegoan hirigintzaren arloko berritasun nagusia hainbeste denboran espero izan den eta hainbestetan iragarri den 2/2006 Legea izan da, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (uztailaren 20ko EHAAn, 138 zk.koan, argitaratua). Lege hori 2006ko irailaren 20an sartu zen indarrean.

Lege testu honek, behin ganbera legegileak aztertu ondoren, amaiera eman dio hirigintzako prozesuetan esku hartzen duten eragile publiko eta pribatuen itxaronaldi eta eztabaida-prozesu luzeari. Oztopo guztiak gaindituta, legeak Euskal Autonomia Erkidegoan hirigintzari eta lurzoruaren politikei eskainiko zaien esparrua onartzen du.

Arau honen helburu nagusia beste politika publiko batzuekin bateragarria den hirigintzako sistema ezartzea da, bereziki, etxebizitza-sustapenarekin eta ingurumenaren

babesarekin bateragarria izango dena. Etxebizitza eskuratzeko zailtasuna, zalantzarik gabe, EAEn bizi diren pertsonen arazo nagusia da. Horregatik, legeak behar horri erantzun nahi dio, 17/1994 Legean finkatutako ildoari jarraiki; hau da, lurzorua babes publikoko etxebizitzak egiteko erreserbatzea eta etxebizitza babestuen tipologia berriak bereiztea. Bestalde, indarrean dagoen hiri garapenerako ereduak ingurumenean edo paisaian eragin handia du eta horrek kezka sortu du biztanleen artean. Horren ondorioz, legegileak hiri konpaktuaren garapen ereduak aukeratu du, betiere, lurzoru urbanizaezina modu arrazionalen zaindu eta erabilita.

Lege honen berritasun nagusia, zalantzarik gabe, lege bat egotearena da, lege gorputz bakarrean biltzen baitira euskal hirigintza ikuspegi orokor eta sistematikotik ulertzea zailtzen zuten xedapen barreiatu eta partzial desberdinak. Horrek arlo honetan esku hartzen duten administrazioei eta hirigintzako beste eragile batzuei dakarkie onura eta behar bezala definituta ez zeuden kontzeptu juridikoak hobeto mugatzea ahalbidetzen du. Horrela, azpimarratu beharrekoa da zehaztu egin direla zalantza eta eztabaida juridiko ugari sortzen zituzten hainbat kontzeptu (besteak beste, orubearen definizioa eta finkatu gabeko hiri lurzoruaren kategoriarena).

Legeak eskumen berriak ematen dizkie udalei, 7.000 biztanletik gorako kasuan, plangintza orokorra eta, 3.000 biztanletik gorakoetan, garapen plangintza behin betiko onartzeko. Aipatu beharreko beste alderdi bat da hirigintzako antolamenduaren kudeaketa nabarmen bizkortu dezakeela antolamendu xehatua eta egiturazkoa bereizteak (egiturazkoa egokitzeko, ez da beharrezkoa plangintza orokorra aldatzea).

Kudeaketa-sistemen berritasun nagusia eragile urbanizatzailearen figura da, hirigintzako jarduerari dagokion programa gauzatzeaz arduratuko dena. Azpimarratu beharrekoa da legeak, izapidetze prozesuan, aurreko urteko txostenean jasotako zenbait kontu bildu dituela, besteak beste, ezinezkoa dela jabeek jasanaraztea urbanizazio kargen hobekuntzak (150.b artikulua). Nolanahi ere, legegileak ekimen pribatuko edo kontzertazioko sistemari eutsi dio hirigintzako jarduerak garatzeko. Hirigintzako hitzarmenak egitea ere baimentzen du hirigintzako jardura hobeki eta modu eraginkorragoan garatzeko.

Herritarren parte-hartzeak izaera propioa du onartutako lege esparru berrian. Legeak udal plangintzako aholku batzordea ezartzen du hirigintzako planak egin, izapidetu eta onartzeko eta aipatzen du beharrezkoa dela herritarrek ere parte hartuko duten udal programa sortzea, egiturazko antolamendua planifikatzeko edozein tresna prestatu, aldatu edo berriz aztertzeke.

Arauan aurreikusitako berritasunak eta tresnak abian jartzeko beharrezko denbora-tartea noiz amaitu zain, hirigintzaren arloko sarrera honetan legearen edukiaren inguruko zenbait gogoeta bildu ditugu.

Lehenik eta behin, legeak udal ereduaren aldeko apustua egiten du, 7.000 biztanletik gorako udalei plan orokorrak onartzeko erabateko eskumena ematen baitie eta 3.000 biztanletik gorakoei, berriz, plan partzialak eta bereziak onartzeko. Udalak horretarako legez gaitzeak garbi uzten du udal autonomia finkatzearen eta plangintza-tresna horiek izapidetzeko prozesuak bizkortzearen alde egin nahi dela.

Garrantzitsua da plangintza onartzeko eskumenak dituzten toki eta foru administrazioek esku artean duten espedientea eta dokumentazioa –bilkuretako aktak barne– oro har pertsona guztientzat ikusgai eta jendaurrean jartzea, bai plangintza-tresnak prestatzen direnean bai egintzak gauzatu edo erabakiak hartzen direnean. Ildo horretatik, gogora ekarri behar dugu Eusko Legebiltzarrentzako 2005eko gure txostenean aurkeztu

genuen gomendio orokorrean jasotako proposamena (474-481. orr.: “*Herritarrentzako informazioa eta parte-hartzea toki eremuan*”)

Neurri horiez gain, ahalegin handiagoa egin behar da eginkizun hori duintasunez eta eraginkortasunez betetzea ahalbidetuko duten giza baliabideak eta baliabide teknikoak emateko. Era berean, laguntza tekniko eta juridikorako lankidetzeta-mekanismoak ezarri beharko lirateke foru aldundietako organo eskudunen eta arlo horretan eskumenak dituzten udalen artean.

Azpitarratu beharreko beste alderdi bat herritarren parte-hartzeari dagokion printzipioa da. Printzipio demokratiko laudagarri horrekin batera, lege berriak erregimen argiagoa eta hurbilagoa eskaintzen du hirigintzako hitzarmenatarako –zazpigarren xedapen gehigarria–. Hirigintzako antolamendurako hitzarmenen kasuan, beharrezkoa da sistema bat ezartzea hitzarmenaren sustatzaileek antolamendurako irtenbide jakin batzuen inguruan duten ekimena eta antolamendu aukera desberdinen arteko partaidetza-programa bateragarri egiteko. Aipatu beharrezkoa da herritarrek ingurumenaren arloko gaitan parte hartzeko duten eskubidea berariaz jasotzen dela uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 16. artikuluan (lege horren bidez, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dira; 2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Eskubide hori dela medio, herritarrei oharrak egitea eta iritziak ematea ahalbidetu behar zaie oraindik aukera guztiak zabalik daudenean eta plan edo xedapen orokorrari buruzko edozein erabaki hartu baino lehen. Xedapen horietan biltzen dira landa eta hiri lurraldearen eta lurzoruaren erabileraren antolamendurako planak.

Aipatu beharreko beste kontu bat plan eta programa guztiak ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatu beharri dagokiona da. 2/2006 Legeak ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 22ko 183/2003 Dekretutik ondoriozta zitekeen ereduau aukeratu du; dekretu horretan jasotzen zenez, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanetik salbuetsita zeuden lurzoru urbanizaezinari eragiten ez zioten garapen planak. Horrela, berariaz, legearen 97.1 artikulua dio hiri antolamendurako plan berezietarako ez dela txosten hori behar.

Hala ere, aipatu beharrezkoa da BEPBak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziotik salbuesteak zalantzak sortzen dituela bai Erkidegoko bai Estatuko arauekin alderatuta, hauen arabera, beharrezkoa baita hiri eta landa lurzoruaren antolamendurako plan guztietan ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea. 2001eko ekainaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/42/EE Zuzentarauak, zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzkoak, eta hori aplikatzearen ziozko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzkoak, zehatz-mehatz ezartzen dute beharrezkoa dela hiri eta landa lurzoruaren edo lurzoruaren erabileraren antolamendua egitea helburu duten eta ingurumenean eragin nabarmena duten plan eta programa guztietan ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea; izapide horretatik ingurumen administrazioari galdetuta bakarrik salbuetsi ahal izango dira.

Irisgarritasuna sustatzeari buruzko atalean, legeak uko egin dio udal plangintza batzuetan barneratutako hirigintzako irtenbide jakin batzuei estaldura emateari; irtenbide horien bidez, jabeekideen komunitateei baimena eman zitzaizen espazio publikoak modu pribatiboan okupatzeko, horietan arkitektura-oztopoak ezabatzea ahalbidetzen duten instalazioak edo osagarriak jartze aldera. Espazio publikoetan oztopoak kentzeko aukera

horren aurrean, legeak eraikinen barruan ere oztopoak kentzera bideratutako neurriak ezartzen ditu. Horrela, legeko xedapen baten arabera, udalek, ordenantza onartu ondoren, jabetza horizontal bateko elementu pribatiboak desjabetu ahal izango dituzte.

Herritarrek Arartekoari aurkeztu dizkioten kexa eta erreklamazioei helduz, aurkeztutako arazo nagusiak hirigintzako diziplinaren ingurukoak izan dira.

### **Hirigintzako diziplina**

Arazo nagusiak esku-hartzerik ezari edo hirigintzako diziplinako ahalmen publikoiez baliatzeko behar izandako denbora luzeari buruzkoak izan dira. Kasu horietan, Arartekoak administrazio eskudunei eskatu die kasuan kasuko diziplinako espedientea izapidetu dezatela eta beharrezko bitartekoak jar ditzatela hirigintzako legeen aurka dauden obrak eta erabilerak modu eraginkorrean eragozteko. Herri Administrazioen Araubide Jurdikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 96. artikuluan, administrazioek administrazio egintzak betearazteko dituzten bitartekoak jasotzen dira, horien artean, betearazte subsidiarioa eta isun hertsatzailea.

Horren ildotik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Lege berriak 204. artikuluan dio udalei dagokiela hirigintzako legezketasuna betetzen dela zaintzea. Zehazki, legeak dio ahal hori utziezina dela eta, ondorio horretarako, agintariak eta funtzionarioak ahal horiez baliatzeko ezarritako prozedurak hasi eta izapidetzera behartuta daude, kasuan kasu emandako epeen barruan. Betebehar hori ez betetzeak diziplinazko erantzukizuna sortuko duela ere jasotzen du.

Kontu honi buruz, otsailaren 20ko 3/2006 Gomendioa egin genion Atxondoko Udalari (Bizkaia) –383/2003 kexa-espedientea–, lurzati bat ixteari buruz hirigintzako legezketasuna berreskura zezan. Horretarako, hirigintzako ordena lehengoratzeko, nahitaez bete beharreko neurriak har zitzala eskatu genion. Antzeko planteamendua egin genion 236/2005 espedientean Oiartzungo Udalari, etxe mugikor bat baimen egokirik gabe instalatzeko lurzati batean egindako obrei eta ezarritako erabilerei zegokienez.

Beste erreklamazio mota batek aipatzen du beharrezkoa dela udalek emandako gauzatze aginduak betearaztea etxebizitzetan edo lurretan segurtasuna, higiena eta osasungarritasuna bermatzeko.

Azkenik, obrak sustatu dituztenen erreklamazioak daude; horietan, zalantzak jarri dituzte administrazioek hirigintzako legeak betearazteko garatu dituzten jarduerak. Horrela, kasu batzuetan, zenbait pertsonak zalantzan jarri dute udalak lizentzia-eskaerari uko egiteko emandako arrazoiak; alegia, egin nahi diren obrak edo erabilera-aldaketak udal plangintzaren aurkakoak direla. Azpimarratu behar da, kasu horietan, administrazio jarduera horiek, batetik, ezin direla irregularizat jo eta, bestetik, legez emandako hirigintzako diziplinako eskumenez baliatuta garatzen direla.

### **Hirigintzako kudeaketa**

Erakunde honek 2006an hasi dituen jardueretako bat Sestaon andeatutako auzo batzuetan abiarazi den biziberritze prozesuaren jarraipena egitea izan da. Herri horrek hirigintzako biziberritze prozesuari eman dio hasiera; horren helburua ijito ugari bildu ziren zonetan zeuden infraetxeak ezabatzea da. Horretarako, plan zuzentzailea jarri

da abian, Sestaoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak aurreikusi dituzten ekintza desberdinak integratzeko asmoz.

Plana aplikatzerakoan antzemandako arazoetako bat aurreikusitako hirigintzako biziberritzearen ondorioz eraitsiko diren eraikinetan legez bizi direnek bizilekua berriro hartzeko duten eskubidea taxutzeari dagokio.

Plan Zuzentzailean adierazitako helburuaren arabera, ijitoei eta oinarrizko errentaren hartzaile direnei leku desberdinetan emango zaie bizilekua. Neurri horiek, positiboak izan daitezkeen arren gure komunitatean ghettoak sor daitezzen saihesteko edo auzo jakin batzuen laidoztatzea ekiditeko, arazoak ekar ditzakete bertako ijitoentzat duen ondorio kaltegarriagatik; kasuren batean, hirigintzako legeriak edo plangintzak legez bertan bizi direnei ematen dizkien beste eskubide batzuk baldintza ditzakete. Ararteko erakundeak txostena egin du eta, bertan, zenbait gomendio bildu ditu hiri eta gizarte biziberritzerako prozesu hori bultzatzeko, baina, betiere, eraitsi beharreko eraikinetan legez bizi direnen eskubideak behar bezala zainduta eta ekintza positiboko neurriak ezarrita zona horretan bizi diren ijito familien gizarteratzea ahalbidetzeko.

Bizilekua berriro hartzeko eskubideak ez du legezko taxutze zehatz eta berezkorik izan Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea berriki onetsi den arte. Bigarren xedapen gehigarriak dio beharrezkoa dela birpartzelatze proiektuan bizilekua berriro emateko hitzarmena egitea eta, bertan, etxebizitza bat eskuragarri jartzea aldi baterako nahiz behin betiko bizilekua edo lekualdatzea izan dadin, eta proposatutako konpromisoak beteko direlako bermeak ematea. Era berean, diru-konpentsazioak ezarri behar dira lekualdaketa egiterakoan sor daitezkeen kostuengatik. Ikus daitezkeen bezala, bizilekua berriro hartzeko eskubidearen bidez etxebizitza galdu izana konpentsatu nahi da; horretarako, beste etxebizitza bat jartzen du eskura, lehengoa eraisten den unetik bertatik, eta erabat konpentsatzen ditu hirigintzako esku-hartze horrek sortzen dituen gastu ekonomikoak. Lege hori onartu zen arte, Lurzoruaren 1992ko Legearen testu bategineko laugarren xedapen gehigarriaren eduki partziala zegoen indarrean –Auzitegi Konstituzionalaren 61/1997 Epaiaren ondotik–. Nolanahi ere, erakunde honek adierazi izan du hirigintzako jardunak gobernatzan dituen funtzio publikoak hirigintzako planen kudeaketa eta biztanleek etxebizitza duin eta egokia izateko duten eskubidea bateragarri egiten saiatu behar duela.

Bizilekua berriro hartzeko eskubidea eta horretaz baliatzeko baldintzak zenbait kexa-espediteren xede izan dira, hain zuzen ere, Astigarragan (1399/2006), Barakaldon (859/2005) eta Eibarren (622/2006) garatutako jardueri dagozkienetan. Azken hori aukeratutako kexen atalean jaso dugu.

## **Hirigintzako antolamendua**

Lurzoruaren hirigintzako antolamenduari buruzko kexei dagokienez, erreklamazioek hainbat pertsona udal plangintzako lur jakin baterako aurreikusitako sailkapenarekin edo erabilerarekin bat ez datozela adierazten dute oraindik ere. Administrazioek duten zuhurtziarakotasun teknikoak erakunde honen esku-hartzea mugatzen du, honako kasu hauetan izan ezik: boterea desbideratu egiten bada, arbitrariotasunez jokatu bada edo hartutako irizpidea justifikatu ezin badaiteke.

Komeni da azpimarratzea botere publikoek garrantzia eman behar diotela pertsonen eta elkarteek modu aktiboan parte hartu ahal izateari lurralde eta hirigintzako

antolamenduari buruzko erabaki publikoak hartzen. Ildo horretatik, jada aipatu ditugu Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legean herritarren parte-hartzeari buruz egiten diren aurreikuspen berriak.

Herritarren parte-hartzea bermatzeko oinarrizko beste elementu bat hirigintzari buruzko informazioa eskuratzeko aukera ematea da. Gogorarazi nahi dugu administrazioek lehentasuna eman behar diotela Informazioaren Gizarteak eskaintzen dizkigun teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzeari eta aplikatzeari herritarrek hirigintzari buruzko informazioa eskuratzeko aukera izan dezaten. Joan den urtean adierazi genuen bezala, baliabide horien artean, hiri plangintza orokorra eta garapen plangintza Internet bidez eskuratu ahal izatea funtsezkoa da herritarrek parte hartzeko eta, beraz, hori udalek nahiz foru aldundiek eskaini behar dute.

Atal honetan, Arartekoari aurkeztu zaizkion erreklamazioetako bat elkarte bati dagokio. Dioenez, kezkatuta dago Arabako Lurralde Historikoan dagoen 1.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrri bateko Plangintzaren Arau Subsidiarioak berriz aztertzeo espedientearen aurrelaburpenean jasotzen diren aurreikuspenekin. Erakunde honetan izapidetze fasearen hasieran dagoen kexa honen edukiak zalantzan jartzen du udalerrri horretarako proposatutako garapen eredia. Horren arabera, ingurumen balio garrantzitsuak (botanikoak, ekologikoak, paisaiari lotutakoak, etab.) dituen inguru batean, 18 zuloko golf zelaia egingo da eta, horrekin batera, dagokion etxebizitza-eskaintza, etorkizuneko hirigintza-jarduera finantzatu ahal izateko. Hala, ereduak milioi bat metro karratu baino gehiago kaltetuko ditu eta 850 etxebizitza eraikiko dira. Laburbilduz, duda egiten dute ea hirigintzako eredu honek eskura dauden baliabideak modu arrazionalen eta iraunkorrean erabiltzea ziurtatuko duen.

Kexa-laburpenean atalean, batetik, auzotar batzuek plangintza berriz aztertzeo izapidetutako prozesuan bide bat ixteko hartutako erabakiarekin bat ez datozela adierazteko aurkeztu duten kexa aipatu dugu (878/2006); eta, bestetik, plangintza orokor berria prestatzeko prozesuan parte hartzeko aukerarik eman ez delako aurkeztutakoa (984/2006).

Bestalde, erakunde honek **irisgarritasuna** sustatzeko abiarazi dituen jardueri dagokionez, azpimarratu behar dugu gehitu egin dela merkataritzako lokaletan jarduera berriak ezartzerakoan edo horiek aldatzerakoan arkitektura-oztopoak ezabatzearen inguruko arautegia betetzeari dagokionez udalak burutu beharreko kontrol lanen inguruan diharduten kexen kopurua. Beste erreklamazio batzuk irisgarritasun egokia ahalbidetzen duten igogailuak ezartzeko jabe-kideen komunitate batzuetan dauden arazoei buruzkoak izan dira. Ezaugarri teknikoek igogailua eraikinaren barruan instalatzea eragozten dutenean, fatxadari atxiki dakiokela proposatu da eta, horretarako, beharrezkoa izan ohi dela erabilera publikoko lurzorua zati bat hartzea. Kasu horietan, zenbait udal plangintzek igogailua modu horretan instalatzeko eta lurzoru okupatzeko aukera aurreikusi dute. Hori gorabehera, arazoak sortu dira Barakaldo edo Durango bezalako udalerrietan, arkitektura-oztopoak ezabatzen dituen obra hori bide publikoak oinezkoentzat jartzearekin edo jabari publikoko ondasunen araubide juridikoarekin bateragarri egiteko. Irisgarritasunaren arloaren jarraipena egiteko, ezgaitasunen bat duten pertsonen arazoei eskainitako arreta bereziari buruzko atalean zehaztutako jardueri lotzen gaitzaizkie.

Administrazioen funtzionamenduari dagokion atalean, martxoaren 16ko 7/2006 Gomendia egin zaio Aramaioko Udalari, lurzoru urbanizaezinerako lizentzia lortu



ahal izateko udalerrian erroldatuta egon behar zela zioen baldintza plangintzatik ken zezan.

## 14.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Hirigintzako diziplina eta aurria

⇒ *Negozio lokala prest uzteko obra-lizentzia berandu eman izana (589/2005)*

#### • Erreklamazioa

Pertsona batek Lasarte-Orian lokal bat egokitzeko beharrezko obra-lizentziaren inguruan bertako udalak garatu dituen administrazio izapideen berri eman digu. Kexa horren bidez aipatu zuen gehiegi atzeratzen ari zirela negozio lokal bat bulego gisa prestatzeko obra-lizentzia emateko.

Hasiera batean, udalak erreklamatzailari obra-lizentzia ematea erabaki zuen. Ondoren, ikuskapen bisita egin ondoren, obrak lortutako lizentziarekin bat ez zetozela egiaztatu zuen eta, hala, obrak geldiarazteko agindu zuen eta egoera legeztatzeke epea zabaldu.

Errekerimenduari erantzunez, erreklamatzaileak hilabete beranduago aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa. Hala ere, udalak bost hilabete beranduago arte ez zion obrekin jarraitzen utzi.

Hori dela eta, erreklamatzaileak Arartekora jo zuen, bere ustez, obrak geldiarazteko emandako arrazoiak –obra-proiektuan aldaketa txikiak egin izanak– ez baitzuen justifikatzen obrak hainbeste denbora geldi egotea, ez zegoelako udal plangintzarekin bat ez zetorren jarduerarik. Nolanahi ere, adierazi zuen, bere iritziz, aldaketa aurkeztu zuenetik legeztatu zen arte denbora gehiegi igaro zela eta horrek kalte larria eragin ziola lokalean aurreikusitako jarduera garatzeko.

#### • Azterketa

Erreklamazio hau behar bezala izapidetze aldera, udalari txostena eskatu genion lokala bulego gisa prestatzeko hasitako obrak geldiarazi izanaren arrazoiengatik inguruan eta obrak legeztatzeke bidali zitzaion eskaerari erantzuteko izan zuen atzerapenaren inguruan.

Udalak txostena bidali zigun eta, bertan, hirigintzako diziplinaren arloan zegozkion eskumenez baliatuta, adierazi zuen egindako lanak aurkeztutako proiektuarekin bat ez zetozelako geldiarazi zituela. Ildo horretatik, legeriak kautelazko neurri horretara jotzeko aukera ematen du, kasuan kasuko administrazio baimenik gabe egiten diren obrak finka daitezkeen saihesteko. Horrela, udalaren ikuspegitik, aldaketa horiek, proiektuan jasota ez egoteaz gain, lokalerako aurreikusi gabeko erabilerak ezartzea eragin zezaketen eta, hori dela eta, hirigintzako legeak bermatzeko esku hartzea erabaki zen. Obrekin jarraitu ahal izateko, beharrezkoa zen beste obra-proiektu bat aurkezte, beste lizentzia bat emateko aurreikusitako eskakizun eta betekizunetara egokituta.

Jarraitutako prozedurari dagokionez, udal zerbitzuek obra ikuskatu eta legeztatu gabeko obrak egiten ari zirela egiaztatu ondoren, udaleko teknikariak egun berean egin

zuen txostena eta alkateak obrak geldiarazteko eta legeztatze espedienteari hasiera emateko agindu zuen, eta halaxe jakinarazi zitzaion interesdunari.

Administrazio izapide horiek guztiak egun berean egin izanaren bizkortasuna harriarria izan badaiteke ere, ezin ahatz dezakegu hirigintzako legeen defentsan jartzen den interes publikoaren ondorioa dela, bereziki, helburua plangintzan aurreikusi gabeko erabilerak saihestea denean.

Hala ere, bizkortasun hori ez dator bat udalak obren sustatzaileari proiektua behar bezala aurkez zezala eskatzeko behar izan zuen denborarekin. Horrela, erreklamatzailerak hainbatetan hala eskatu zuen arren, udalak hiru hilabete beranduagora arte ez zion jakinarazi eskatutako dokumentazioa zuzendu behar zenik.

- Emaidza

Horregatik guztiagatik, udalari adierazi genion kasu honetan atzerapena egon dela obren sustatzaileari hirigintzako lizentziaren eskaera ongitu behar zuela jakinarazteko.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, ez zitzaigun iruditu kautelazko neurria okerreko jardueratzat har zitekeenik eta, hala, gure esku-hartzea eten genuen kontu honi zego-kionez.

## B) Hirigintzako kudeaketa

⇒ *Eibarko Udaleko hiri antolamendurako plangintzak Txonta auzoa biziberritze zeko aurreikusi duen jarduera garatzeko baldintzak (622/2006)*

- Erreklamazioa

Eibarko Txonta auzoko herritarren elkarteak adierazi du kezkatuta dagoela auzoa biziberritzeko Eibarko hiri antolamendurako plangintzak –une hartan izapidetze prozesuan zegoenak– aurreikusitako hirigintzako jardunaren inguruan, bizileku dituzten eraikinak desagertzea eta etxebizitza berriak egitea ekarriko baitu.

Horren asmoa da gure iritzia eskatzea berrantolatze proiektuari eta horren garapen materialari ezarritako baldintzen inguruan. Horren ildotik, auzo horri eragiten dioten aurreikuspenen aurkako alegazioak aurkeztu dituzte. Beren ustez, udalak bermatu behar du hirigintzako jardun horrek kalterik eragingo ez duela auzoaren interes orokorretan eta auzotar guztien interes partikularretan. Diotenez, udalak arduratu behar du, biziberritze programari dagokionez, kaltetutako etxebizitzaren eta negozio lokalen jabeen interesak, jabe bakoitzari ekar diezazkiokeen kostuak eta onurak eta burutzapen epeak babesteaz. Horrela, azpimarratu dute beharrezkoa dela jardun horrek haiei ondarezko galerarik ez eragitea. Adierazi dutenez, beste bizileku bat arrazoizko denbora-tartean eman behar zaie (bost urte) eta alde zurretik finkatu behar da Txontan eta Matxarian zein etxebizitzatan emango zaien bizilekuak.

- Azterketa

Kontu hori aztertu ondoren, bere garaian bai udalari bai erreklamatzailerari jakinarazi genien kexa une hartan izapidetze fasean zegoen hirigintzako jardun baten ingurukoa

zela eta, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak oraindik ez zuela hori behin betiko onartu. Halaber, elkarteak adierazi zituen kontu gehienak plangintza plan bereziaren bidez edo kasuan kasuko hirigintzako kudeaketaren bidez garatzearen ondoriozko alderdiei buruzkoak ziren.

Nolanahi ere, erreklamazio hori behar bezala izapidetze aldera, Eibarko Udalari iritzia eskatu genion auzotarren elkarteak aipatutako kontuei buruz eta aurkeztutako alegazioei ustez emango zitzaien erantzunaren inguruan.

Beste idazki bati erantzunez, udalak txostena helarazi zigun eta, bertan, gure eskaerari erantzun zion. Alde batetik, aurkeztutako alegazioei dagokienez, udalak proposamenak baztertu ditu, txosten teknikoan oinarrituta. Honen arabera, egindako alegazioak plangintza garatzen den bitartean formalizatu behar dira –aurreragoko plan berezia izapidetzerakoan edo ondasunak eta eskubideak berdinbanatzeko prozesuan–, baina ez plan orokorra izapidetzerakoan, kontu hori ez baitago antolamenduarekin erlazionatuta.

- Emaizta

Udal erantzunaren edukia aztertuta, eta inolako administrazio jardun eztabaida-garririk antzeman ez zenez, amaitutzat eman dugu gure esku-hartzea espediente honi dagokionez eta, hala, honako ondorio hauek helarazi ditugu.

Lehenik eta behin, udalek zuhurtziarakotasun marjina zabala dute hirigintzako antolamenduari buruz kasuan kasuko erabakiak hartzeko, betiere, ordezkatzan duten interes publikoarekin bat etorriz. Une hartan, plan orokorra izapidetzeko prozesua oraindik ez zen amaitu eta kasuan kasuko txostenen eta behin betiko onarpenaren zain zegoen. Foru Aldundiak duela gutxi onartu du behin betiko.

Bestalde, elkarteak aurkeztutako alegazio idazkian bildu ziren kontu nagusiek plangintza plan bereziaren bidez edo kasuan kasuko hirigintzako kudeaketaren bidez garatzearen ondoriozko alderdiei buruzkoak ziren.

Nolanahi ere, udal txostenean ikusi genuen, plangintzaren arabera, etxebizitza eta lokaletako biztanle guztiak lekualdatu eta horiei bizilekua emateko kostua jabeen kontura izango dela, urbanizazio karga gisa. Plangintzak aukeratzen duen kudeaketa-sistema konpentsazioarena da eta, bertan, ekimena gehiengoa duten jabeen esku geratzen da.

Aipamen horrek ildotik, erreklamatzailerei jakinarazi diegu Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 30eko 2/2006 Legeak, xedapen gehigarrietako bigarrenean, bizilekua berriro hartzeko eskubidearen edukia arautzen duela, lurzoruari buruzko aurreko arautegiak ordura arte egiten zuena baino modu argiagoan. Arauak oro har dio bizilekua berriro hartzeko eskubidea etxebizitza bat ohiko bizileku gisa legez okupatzen dutenak bertatik ateratzera behartzen duten hirigintzako jardunak gauzatzen direnean erabili ahal izango dela. Horren ziozko gastuak –besteak beste, lekualdatze-koak eta etxebizitza legez okupatzen dutenei egotz dakizkiekeen bestelakoak– jarduna sustatzen duenaren kargura izango dira beti eta horiek hirigintzako jardunaren karga gisa zenbatuko dira.

Behin azalpen horiek alderdiei helarazita, amaitutzat eman genuen gure esku-hartzea gai honi zegokionez, une hartan ez baitzen antzematen ordenamendu juridikoaren aurka zegoen inolako udal jardunik.

### C) Hirigintzako antolamendua

⇒ *Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioen Aurrelaburpenean aurreikusitako bidearekin ados ez egotea (878/2006)*

#### • Erreklamazioa

Auzotar talde batek kexa aurkeztu zuen eta bertan adierazi zuten ez zeudela ados Bergarako Udalak beste bide bat egiteko zuen asmoarekin. Zehazki, aipatu zuten bizi ziren eraikina beste bi eraikinen arteko pasabide gisa eraikita zegoela. Gaur egun, eraikinaren azpitik igarotzen den kalea auzotarren erabilerarako da eta, beraz, eremua lasaia da eta dagoen zirkulazioak ez die kalte handirik eragiten. Hala ere, Zumarragako ingurutik datorren trafikoa erakarriko du bide berriak eta, beraz, auzoko trafikoa –astuna zein arina– izugarri gehituko litzateke. Ondorioz, ingurumen arriskuak (zarata eta gasak, batez ere) eta segurtasun arriskuak (merkantzia arriskuak) eragingo lirarteke.

#### • Azterketa

Bergarako Udalak, egin genion informazio eskaerari erantzunez, kontu horri buruz Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioak (AASS) berriz aztertzeko espedienteari zegokion dokumentazioa bidali zigun. Zehazki, batetik, jendaurrean jarritako aurrelaburpenarekin bat etorritz Osokoak irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak bildu zituen akordioa jaso genuen eta, bestetik, aurkeztutako alegazio eta iradokizunei erantzuten zieten txosten teknikoak.

Txosten teknikoek bide berria eraikitzearekin aurkako alegazioak eta iradokizunak gaitzesteko udalak izan zituen arrazoiak azaldu zituzten. Laburbilduz, honako arrazoi hauek eman ziren:

- Kale berria eraikitzearen helburu nagusia monumentu multzotzat hartutako hirigune historikoko kale jakin batzuetatik kalifikazio horrekin inolaz ere bat ez zetorren ibilgailuen zirkulazioa kentzea zen. Horrek hirigune historikoa pixkanaka oinezkoentzat jartzea ahalbidetuko du.
- 800 etxebizitza baino gehiagoko hiru auzok erabiltzen dute hirigune historikoaren ardatza lehentasunezko bide gisa ibilgailuz mugitzen direnean.
- Gaur egun, auzoak “zaku hondo” gisa tratatzea, garai bateko hirigintzako plangintzetan erabilia, ez da egokiena. Nahiago da hiri bilbeak sortzea eta, horietan, dauden gune desberdinak eta epe motzera nahiz luzera gara daitezkeen berriak barneratzea.
- Auzoek elkarren artean eta erdigunearekin duten komunikazioaren eta mugikortasunaren alde egin nahi da eta, era berean, garraio publikoa eskaini; hori ezinezkoa litzateke (edo oso mugatuta geratuko litzateke) zaku hondo moduko garapen irtenbideez baliatuta.

Azaldutako hausnarketetatik ondorioztatu genuen egindako proposamenak arrazoibide logikoetan oinarritu zirela, Bergarako Udalak aipatu antolamendua garatzeko zuen asmoari erantzute aldera. Horrek ez zuen esan nahi beste proiektu edo aukerarik ez zegoenik arazo horiek konpontzeko edota beste eredu bat hautatu ezin zitekeenik,

baina udalak aukeratutako ereduak, hau da, proposatutako antolamenduak, antzemandako disfuntzioei erantzutea zuen helburu.

Auzitegi Gorenak hainbatetan esan izan duen moduan, kasu horiek aztertzerakoan, ezin dira egokiera-arrazoiak zalantzan jarri, gogoeta horiek udalaren organo eskudunek berez dituzten ahalmenen esparruan sartzen baitira; hala, zera aipatzen du: “*ez dago aukeramen administratiboa berrikustatzerik jurisdikzio egoitzan komenigarritasun edo egokiera handiagoko edo txikiagoko iritzi edo zioetan oinarrituta*”.

Administrazioaren zuhurtziarakotasun horrek aukeratutako irizpidea beste bategatik ordezkatzea galarazten du, botere desbiderapena edo arbitrariotasuna dagoenean, edo hartutako irizpideak inolako justifikaziorik ez duenean salbu.

Laburbilduz, ulertzen genuen arren auzotarrak proposatutako bidearekin ados ez egotea, adierazi genien proposamena udalaren zuhurtziarako ahalmenarekin bat zetorrela, ahalmen horretaz baliatuta, ordezkatzeko zituen interes publikoetarako komenigarrienak izan zitezkeen erabakiak har baitzitezkeen.

- Emaizta

Gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen, udalaren jardueran ez baikenuen inolako irregulartasunik antzeman.

⇒ *Ibarrako Plangintzaren Arau Subsidiarioak berriz aztertzeko espedientean parte hartzeko aukerarik ez ematea (984/2006)*

- Erreklamazioa

Herritarren plataforma batek aurkeztutako kexak adierazi zigun ez zeudela ados Ibarrako Plangintzaren Arau Subsidiarioak –AASS– berriz aztertzeko espedientearen izapidetze prozesuarekin. Zehazki, azaldu zuten udalak ez zuela ezer egin herritarren parte-hartzea bermatzeko eta, beraz, prozesua eteteko eta partaidetza-prozesu berriari hasiera emateko eskatu zuten.

- Azterketa

Ibarrako Udalak eskatu genion informazioa bidali zigun kexan aurkeztu zizkiguten kontuak baloratu ahal izateko. Erantzunaren bidez, 2004ko urtarrilaren 14az geroztik (hau da, Arau Subsidiarioak berriz aztertzeko espedientea izapidetzen hasia erabaki zenetik) gauzatu zituzten izapide desberdinen berri eman ziguten.

Udalaren ustez, gauzatutako izapideak ikusita, prozesua irekia izan zen eta parte hartzeko aukera egon zen, interesdunek ideiak aurkeztu eta iradokizunak egin ahal izan baitzituzten agirian jasotakoaren inguruan, eta, beraz, beren ikuspegitik, sobera bete zuten legezko izapidetze prozedura; hala ere, adierazi zuten kexa kontuan hartuko zutela, oraindik amaitu gabe zegoen prozesuan parte-hartzea handiagoa izan zedin ziurtatzeko.

Ikuspegi formaletik, ikusi genuen Ibarrako Udalak zorrotz jarraitu zituela era honetako prozeduretarako indarrean dagoen legerian aurreikusitako izapideak, izan ere, jendaurrean jarri zuen aurrelaburpena, interesdun guztiak egoki irizten zituzten alegazioak eta iradokizunak egin ahal izan zituzten. Erantzunak dioenaren arabera, fase hartan, 24 iradokizun jaso ziren eta, udal korporazioak eta erredaktore taldeak behar bezala aztertu

eta kaltetuekin eta gizarte ordezkariekin hainbat bilera egin ondoren, horien inguruko bidezko txostena egin zen.

Ondoren, erredaktore taldeak behin-behinean onartu beharreko agiria prestatu zuen, udal korporazioak eta gizarte eragileek aurrelaburpenari buruz zuzenean nahiz zeharka adierazi zituzten irizpideak kontuan hartuta.

Une hartan indarrean zegoen legeriak ez zuen beste mekanismorik aurreikusten herritarrek prozeduran parte hartu ahal izateko, udalak berak bere borondatez ezar zitzakeenak kanpo utzita, besteak beste, kaltetuek kexan aipatu zituzten eztabaida-foro edo mahaiak.

Horri dagokionez, kontuan izan behar zen prozesua oraindik izapidetze fasean zela eta, beraz, gutxienez beste behin jarri behar zela jendaurrean, interesdun guztiek espedientea aztertu eta alegazioak aurkezteko aukera izan zezaten.

Nolanahi ere, udalak adierazitako asmoaren ildotik, Ibarako Udalarri jakinarazi genion kontuan har zitzala joan den irailaren 20an indarrean jarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko aurreikuspen berriak, arauak berriz aztertzeke espedientea izapidetzeko prozesuan gauzatzeke dauden faseetan herritarren parte-hartzea handiagoa izan zedin.

Lege horren 108. artikuluan zehazten denez, herritarrek parte hartzeko programa egongo da plangintza orokorraren berrikuspena egitean eta, bertan, udalerrriaren ezau-garrien arabera, helburu, estrategia eta mekanismo egokiak ezarriko dira herritarrei eta elkarteei plangintza gauzatzeko prozeduran parte hartzeko eskubidea bermatzeko.

Ildo horretatik, udalari adierazi genion programa zehatza gara zezakeela, arauak berak aurreikusten dituen mekanismoak kontuan hartuta, besteak beste, plangintza orokorreko agiriko alderdi garrantzitsu edo eztabaidagarriari buruzko herri galdeketa egitearena (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikulua).

Bestalde, aipatutako Legearen 109. eta 110. artikuluek Udal Plangintzako Batzorde Aholkularia eratzea ezartzen dute, kontsultarako eta erabakiak eztabaidatzeko organo gisa, zeina aukerakoa izango den plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena ez duten udalerrientzat (hots, 7.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrientzat). Organo hori herritarren partaidetzarako tresna gisa interesekoa izan daiteke izapideak egiteke dauden faseetarako.

Halaber, egoki iritzi diogu legearen 9. artikulua eman duen informazio publiko-rako printzipioa aipatzeari. Artikulu horrek, beste zenbait betebeharrekin batera, hau ezartzen du: planen edukia eguneratu eta sarbide librea duen sare telematikoko tokiren batean erabat integratzeko betebeharra.

Hala, artikulua indarrean dagoen plangintzaz ari den arren, ezerk ez du eragozten udalaren web orriak denon eskura jartzea onartutako akordio eta ebazpenak, txosten teknikoak nahiz Arau Subsidiarioak berriz aztertzeke dokumentuak, horien izapideak egiteko fase bakoitzean, interesdun guztiek informazio hori eskuratzea errazagoa izan dadin.

- Emaita

Aurreko gogoetak aintzat hartuta, gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen, Ibarako Udalak egoki bete zituelako indarrean dagoen arauetan herritarren parte-hartzea ziurtatzeko aurreikusten diren izapideak, egindako iradokizunak espedienteari buruz gauzatzeke zeuden izapideetarako kontuan hartzearen kaltetan izan gabe.

## 15. ETXEBIZITZA

### 15. 1. SARRERA

Eztabidaezina da gaur egun, Euskadin, biztanle askok zailtasun objektiboa dutela etxebizitza eskuratzeko. Botere publikoek ere onartu dute hori eta, hala, gero eta gehiago ari dira sustatzen kasuan kasuko esku-hartze publikoa, bai etxebizitza babestuak eginez bai merkatu librean sar ezin daitezkeenei etxebizitza eskuratzeko aukera ematera zuzendutako beste neurri batzuen bidez. Esku-hartze publikoan egindako ahalegin horrek arlo honetan administrazio kudeaketa etengabe haztea dakar; horren adierazgarri da azken ekitaldian erakunde honetan eremu honi buruz eta administrazio jardunekin erlazionatuta jaso diren kexen kopuru altua.

Etxebizitzaren arloan jasotako kexak, guztira, 89 izan dira; alegia, aldi berean erakunde honetan hartu diren kexa guztien %5,3. Kexak honela banakatzen dira, eragindako administrazioak aintzat hartuta:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	65
- Toki administrazioa .....	25

Ikus daitekeen bezala, administrazio autonomikoaren jardunen aurka aurkeztutako kexek dute proportziorik handiena, beste administrazioen jardunen aurka egindakoe-kin alderatuta. Zalantzarik gabe, alde hori arlo honetako kudeaketa-jarduera batez ere gobernu bulego hauetatik egiten delako sortzen da.

Bestalde, kexak honela banatu dira, hizpide izan dituzten gaiei jaramon eginez:

- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	31
- Etxebizitzaren beharra egiaztatzea.....	17
- Etxebizitza babestuak esleitzeko prozedura.....	15
- Etxebizitza babestuetan eraikuntza-akatsak eragindako kalteak .....	7
- Irisgarritasuna .....	6
- Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak .....	4
- Eskubideak eta askatasunak .....	3
- Beste batzuk .....	3
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	3

Etxebizitzaren egoera Euskadin, zalantzarik gabe, kezka nagusietako bat da Ararteko erakundearentzat. Horregatik, eremu honetan jasotako kexak izapidetzeaz gain, erakundeak hainbat jardun sustatu nahi izan ditu gai honetan arreta jartzeko eta etxebizitzarekin erlazionatutako arazo nagusiek sortzen dituzten jarrerak finkatu eta zabaltzeko. Azpimarratu nahi dugu, batetik, etengabe harremanetan gaudela Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin; honi une oro, eta, bereziki, ekitaldi bakoitzaren amaieran zenbait

arduradunekin egin ohi dugun bileran, gure iritzia helarazten diogu kexen bidez etxebizitzaren arloan aurkeztu ohi zaizkigun kontu garrantzitsuenen inguruan.

Ildo horretatik, aipatu behar dugu, orobat, etxebizitzaren arazoa aztertzen zuten hainbat **foro publikotan parte hartu** genuela, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Lege berria aldarrikatzearen ondorioz Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak 2006ko urrian Donostian antolatu zituen jardunaldietan. Jardunaldi horietan Ararteko erakundearen jarrera azaltzeko aukera izan genuen; hala, erakunde hau 'etxebizitza babestuaren' nozioak oinarri dituen kategoria kontzeptualak berrikustearen aldekoa da. Gure iritziz, etxebizitza publikoaren benetako nozioan oinarrituta egongo den esku hartzeko sistema artikulatuzera jo beharko litzateke, alderatutako beste ereduetan nagusi den nozioari jarraiki eta gure ereduko etxebizitza pribatuaren kontzeptua alde batera utzita, hori baita etxebizitza babestuari dagokion *tertium genus* horretatik gertuen dagoena. Egungo etxebizitza babestuak juridikoki etxebizitza publiko izango direla argitzea –administrazio zuzenbideak horretarako ematen dituen tresnen bidez–, gure iritziz, ezinbestekoa da etxebizitzaren arloko administrazio jarduerak sortzen doazen premiei dinamikoki eta garaira egokituta erantzutera zuzenduta egongo den benetako etxebizitza-parke publikoa sor dezan. Horretarako, uste dugu, oraingoz, behar-beharrezkoa dela alokairuaren alde egitea etxebizitza babestua eskuratzeko formula nagusi gisa; horrek, batetik, etxebizitza babestuen erabilgarritasuna bermatuko luke unean-unean publikoki definitutako xedeetarako, aldatzen doazen premiei jaramon eginez, eta, bestetik, horien erabileraren kontrola ziurtatuko luke sozialki justifikatutako xedeetarako eta interes publikoaren mesedetan. Hori lortzeko modu bakarra –edo, behintzat, modurik egokiena– etxebizitzak ezbairik gabe ondare publikoaren zati izatea da. Horrek, gainera, etxebizitza babestuaren parkea zurrun bihurtzea ekidingo luke, halaxe gerta baitaiteke egun dauden tipologiaen eta lurzoruaen lege berrian aurreikusita daudenen izaera juridikoa berrikusten ez bada, administrazio zuzenbideak horretarako eskaintzen dituen baliabide juridikoak erabilia.

Bestalde, **etxebizitzari eta gazteei buruzko ezohizko txostena** prestatu da; urteko txosten hau amaituta dugula, ezohizko txosten hori argitalpen fasean da. Bertan, Euskadiko gazteek etxebizitza eskuratzeari dagokionez bizi duten egoeraren analisia egin da. Horretarako, konparaziozko azterlana egin da etxebizitzari dagokionez gure inguruko beste herrialde batzuetan gazteen egoera zein den ikusteko. Era berean, Euskadiko etxebizitza-eskaintza eta, zehazki, etxebizitza babestuaren egoera aztertu dira. Azterlan horren emaitza gisa, Ararteko erakundeak zenbait gomendio egin ditu, honako alderdi hauetan arreta jarriz: alokairuko etxebizitzaren parkea handitu behar dela; eremu honetan antzeman ditugun zenbait disfunczio zuzendu behar direla; eta oso garrantzitsua dela lurzoruaen euskal lege berriak ezarritako sistema osoari koherentzia emango dioten eta arlo horretako euskal administrazio eskudun desberdinen jardunetarako oinarri komunak finkatuko dituzten etxebizitzari buruzko legeria eta arautegia ematea. Txosten honen edukiari buruzko aipamen zehatzagoa urteko txosten honetan ezohizko txostenei buruz dagoen kapituluan jaso da (nolanahi ere, ezohizko txosten hori 2007ko lehen hiruhilekoan argitaratuko da osorik).

**2006an Euskadin etxebizitzaren egoeraren inguruko analisiari** dagokionez, erakunde honek ikusi du, aurreko ekitaldietan bezalaxe, Euskadin etxebizitza eskuratzeko arazo orokor larria dagoela eta hori, nagusiki, prezioak neurrigabe garestitzearen ondorioz etorri dela. Horrek etxebizitza-eskari izugarria eragin du, baina merkatu libreak



ezin die premia horiei erantzun, neurri handi batean, gero eta handiagoak diren biztanle taldeek diru aldetik ezin dutelako merkatu horretan sartu. Erakunde honen iritziz, ez dago zalantzarik etxebizitza-politika publikoak premia horri erantzutera bideratu behar direla, halakorik antzematen denetan, eta lehentasuna eman behar zaiela premia larriena duten biztanle taldeei. Hori etxebizitza-politikak artikulatzeko ahalmena duten botere publiko guztiei eskatu behar zaie, lurzoruaren euskal lege berriak etxebizitzaren arloko subjektu publiko jarduleei dagokienez egiten duen gehikuntza kontuan hartuta.

Nolanahi ere, hona hemen Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak **2006ko zuzeneko etxebizitza-politiken** inguruan helarazi dizgion datuak:

## Hasitako etxebizitzak

### *1991-2006 aldian hasitako babes ofizialeko etxebizitzak*

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
<b>1991</b>	247	419	979	1.645
<b>1992</b>	365	680	972	2.017
<b>1993</b>	473	1.053	1.243	2.769
<b>1994</b>	227	1.262	603	2.092
<b>1995</b>	828	789	861	2.478
<b>1996</b>	222	947	1.464	2.633
<b>1997</b>	880	897	683	2.460
<b>1998</b>	863	1.137	916	2.916
<b>1999</b>	942	2.031	653	3.626
<b>2000</b>	812	819	1.142	2.773
<b>2001</b>	646	2.703	935	4.284
<b>2002</b>	1.770	2.535	749	5.054
<b>2003</b>	2.555	2.092	1.978	6.625
<b>2004</b>	1.438	1.862	1.127	4.427
<b>2005</b>	2.266	1.476	883	4.625
<b>2006</b>	2.946	1.494	833	5.273

	Guztira (2001-2006)	Sust. (2001-2006)	Guztira (1991-2000)	Sust. (1991-2000)
Araba	11.621	1.937	5.859	586
Bizkaia	12.162	2.027	10.034	1.003
Gipuzkoa	6.505	1.084	9.516	952
<b>GUZTIRA</b>	<b>30.288</b>	<b>5.048</b>	<b>25.409</b>	<b>2.541</b>

## Etxebideren esleipenak

Ekitaldi honetan guztira 1.765 etxebizitza babestu esleitu dira; horietatik, 45 Etxebizitza Sailak gauzatutako sustapenen ondorioa izan dira, 803 VISESAk garatutakoena, 724 Eusko Jaurlaritzaren eta ekimen pribatuaren arteko itunpeko sustapenena eta 193 udal sustapenena.

## Alokairua

Alokairu politiketara dagokienez, erregimen horretan eskainitako etxebizitza-parkeari buruz Eusko Jaurlaritzak 2006. urtearen bukaeran jakinarazitako guztizko datuak honako hauek dira:

- Bizigune ..... 2.425
- Alokabideren parkea ..... 1.363
- Eusko Jaurlaritzaren parkea ..... 1.520
- Udalaren parkea edo pribatuena (kutxen bidez), Eusko Jaurlaritzarekin itundutakoa ..... 1.438
- (eraikitze bidean diren alokairurako sustapen gehiago ere badaude, baina oraindik ez dute maizterrik; sustapen horiekin, Eusko Jaurlaritzak une honetan dituen alokairu baliabideen kopurua 8.000 etxebizitzatik gorakoa da).

## Bizigune

Hutsik dagoen etxebizitza mobilizatzeko BIZIGUNE programaren esparruan izenpetutako alokairu kontratuei dagokienez, datuak honako hauek dira:

	2006ko urt-aza	indarrean dauden kontratuak, guztira (2006-12-26)
Jabeekin sinatutako kontratuak	628	2.592
Maizterrekin sinatutako kontratuak	904	2.425

Erdiko zutabeak 2006ko emaitzak jasotzen ditu (azarora artekoak) eta eskuinekoak, berriz, 2006ko abenduaren 26an indarrean zeuden kontratuak (baja hartu izan dezaketen kontratuak zenbatu gabe). Ikus daitekeen bezala, indarreko kontratuak (Bizigune programaren esparruan alokairuan bizi diren familiak) guztira 2.500 inguru dira.

## Laguntzak

Ondorengo datuek etxebizitza birgaitzeko edo etxebizitza erabilia erosteko 2006an eman diren laguntzak erakusten dituzte (zenbatekoak eurotan eta laguntza-kopurua), 2005. urteari dagozkion datuekin alderatuta.

	2006	2005
Birgaitzea (LAGUNTZAK)	15.163.186,43	16.541.872,80
Etxebizitza erabiliak erostea (LAGUNTZAK)	198.142,76	732.044,06
Birgaitzeko laguntza-kop.	21.384	18.164
Etxebizitza erabiliak erosteko laguntza-kop.	36	135

### Ikuskapena, zehapena eta desjabetzea

Jarraian, BOEei buruzko arautegia ez betetzeagatik azken bi urteotan egindako ikuskapenei, hasitako eginbideei eta ezarritako zehapenei buruzko datuak bildu dira:

	2006	2005
Egindako ikuskapenak	10.163	8.160
Aurretiazko eginbideen fasean dauden kasuak	619 <sup>1</sup>	1.396
Ezarritako zehapenak	37 <sup>2</sup>	137
Berreskuratutako etxebizitzak (inter alia desjabetzeak)	9 <sup>3</sup>	

### Lehentasunezko erosketak, atzera-eskuratzeak eta salmenta-eskaintzak

Bigarrenez eskualdatzen diren eta, ondoren, Etxebiden inskribatutako pertsoneri esleitzen zaizkien etxebizitzetan Eusko Jaurlaritzak egindako lehentasunezko erosketei dagokienez, datuak honako hauek dira 2006ko azaroaren 30era arte:

Hasitako espedienteak	114
Amaitutako espedienteak	146

Kontuan izan behar da, lehentasunez erosi, atzera eskuratu, saldu eta Jaurlaritzaren esku jarri diren etxebizitza babestuak zenbatuta, azken urteotan 680 etxebizitza berreskuratu direla eta horiek Etxebiden inskribatutako pertsoneri esleitu zaizkiela.

Aurten ere adierazi behar dugu, alokairuaren arloan egindako ahalegin publikoak gorabehera, etxebizitza babestuei dagokienez azken urteotan –baita 2006an ere– EAEn garatu den jarduera, funtsean, etxebizitza babestu berriak sortzera bideratuta egon dela eta, praktikan, lehentasuna eman zaiola horiek salmentarako erabiltzeari, nola jabetza-erregimenean hala, 2003az geroztik, azalera-eskubideko erregimenean. Ezin dugu

<sup>1</sup> Ikuskatutako zenbait etxebizitzetan, iruzurra egin izanaren susmoa dago eta, beraz, horiei aurretiazko eginbideak egingo zaizkie, nahiz eta oraindik ezinezkoa izan den.

<sup>2</sup> Idem.

<sup>3</sup> Idem.

alde batera utzi babes publikoko etxebizitzak erosketa bidez eskuratzearen ondorioz sortzen den erregimen juridikoak disfuntzio larriak dituela, besteak beste, jabetza (edo azalera-eskubide) horretaz gozatzen den urteetan etxebizitza-premia dagoela egiaztatzen jarraitzeko zailtasuna; izan ere, urte horietan asko alda daitezke etxebizitza horietan bizi direnen baldintza pertsonal eta ekonomikoak, nahiz eta horrek ez duen zertan eraginik izan behar premiak bakarrik justifikatutako gizarte onura eta inbertsio publikoa dakartzan etxebizitzaz baliatu eta gozatzeko eskubideetan. Horregatik, ezinbestekoa da gogoraraztea oso garrantzitsua dela **alokairu erregimenera zuzendutako etxebizitzak** gehituko dituzten neurriak hartzen jarraitzea, erregimen hori baita ongien bateratzen dituen etxebizitza-premiari erantzuteko interes publikoak eta hauen defentsa eraginkorra; gizarte alokairuaren kasuan, gainera, hori premia handiena duten pertsonak etxebizitza eskuratzeko dituzten benetako aukeretara moldatzen da berariaz. Hala ere, ikus dezakegu alokairu erregimeneko etxebizitza-eskaintzak EAEn eskaintzen diren etxebizitzaren guztizkoan duen proportzioa oso txikia izaten jarraitzen duela eta beharrezkoa dela etxebizitzaren arloan esku hartzeko neurri publikoek, bai Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak bai, kasuan kasu, toki edo foru erakundeek abiarazitakoek, ausarki eta lehentasunez alokairu etxebizitzaren eskaintza zabala sortzearen alde egitea. Erakunde honetan hainbat kexa jaso dugu babes ofizialeko etxebizitzari (BOE) alokairu prezio baxuagoak jar diezaieten eskatzeko, horiek askotan merkatu prezioetatik hurre egoten baitira. Nahiz eta egia izan BOEen alokairuak –eta, are gehiago, gizarte etxebizitzarenak– eskatzaileen diru-sarreraren arabera zehazten direla, egia da baita ere, hori guztia gorabehera, zenbait pertsonen kasuan BOE batzuen alokairu prezioek beren diru-sarreretatik gehiegizko proportzioa hartzen jarraitzen dutela; eta hori, oro har, gure lurralde inguruko etxebizitza guztiei eragiten dien arazoa da. Horregatik, higiezinen merkaturan gizarte alokairuen eragina handitzera zuzendutako ahalegin publikoak erabat beharrezkoak dira eta lehentasuna eman behar diete etxebizitza eskuratzeko zailtasun gehien dituzten gizarte taldeei. Ideia hau lurzoruaren euskal lege berriak alokairuaren alde egiten duen apustuari esker indartu da, helburu hori etxebizitza-politikarako funtsezko tresnatzat hartzea egiten baitu, jarraian aipatuko dugun moduan.

**Hirigintza-politikari** dagokionez, erakunde honek uste du garrantzitsua dela lurzoruaren arloan esku hartzeko tresnak, funtsean, etxebizitza eskuratzeko errazteko xede nagusia kontuan hartuta sustatzea. **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea**, Eusko Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 30ean onartu zuena, hainbat taldek hala eskatu ondoren, aurtengo berritasunik handiena da. Euskadin hirigintzaren arloko oinarritzko araua den heinean, bere helburua etxebizitzaren arazoari buruz buru aurre egitea da, etxebizitza babestuetarako lurzoruaren erreserba-sistema finkatuta, etxebizitza babestuaren tipologiak gehituta eta horiek guztien kalifikazio iraunkorra eginda, horiek sustatzen dituen administrazioa edozein dela ere. Etxebizitza babestuaren tipologiak gehituta, era honetako esku-hartze publikoak biztanle talde gehiago erakarri nahi ditu, toki administrazioei (administrazio autonomikoari bezalaxe) protagonismo partekatua ematen die etxebizitza-politiketan eta etxebizitza publikoa sortzera zuzendutako ekimen publiko guztiak (nola ekimen autonomikoak hala udal edo foru ekimenak) funtzionamendu eskema berera bideratzen ditu.

2006an jasotako kexak aztertzen hasi aurretik, bidezkotzat jo dugu lurzoruaren lege berrian etxebizitzari buruz biltzen diren xedapenen aplikazioak eta aipatu arauak

eskaintzen duen hirigintza-eredu berriak Euskadiko etxebizitzaren etorkizunerako dakartzaten erronka berriak aipatzea.

Lege horren zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren etxebizitza-tipologia berriak sortuta, euskal botere publikoek ikusi dute beharrezkoa dela **izendatzaile komunetako txikiena** adostea, etxebizitzaren arloko erantzukizunak dituzten administrazio desberdinen jardunek etxebizitza eskuratzekoan lurralde desberdintasunak sortuko ez dituztela ziurtatzeko. Ikuspegi horretatik, 2006an Plentziako Udalari zuzendutako ebazpena eman dugu (**2006ko azaroaren 8ko Ebazpena**) ; horren arabera, beharrezkoa da udalek akordio prozesuan parte hartzea etxebizitza esleitzeko irizpideen inguruko oinarri komunak finkatu ahal izateko, bereziki, erroldatzeari edo errotzeari dagokionez, nahiz eta beste zenbait kontu ere aipatu. Ebazpen horretan azpimarratu genuen oso garrantzitsua dela babes publikoko etxebizitzak arautzen dituen esparru komun hau osatzen duten alderdiak –Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak sortzen dituen tipologia berriak kontuan hartuta– eragindako administrazio guztiak bat etorri zehaztea, udal autonomiaren printzipioa errespetatuz. Gure iritziz, esparru komun hori osatu behar duten baldintzetako batzuk 2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren edukiak berak bermatzen ditu, besteak beste, etxebizitzak esleitzeko prozedurak publikitate, lehia eta bereizkeriarik ezaren printzipioak errespetatuko dituela eta etxebizitza horien kalifikazio iraunkorra egingo dela (horrela, besterentze erregimen mugatura lotuta geratzen dira *sine die*). Hala ere, gure ustez, komenigarria da administrazio eskudunek ere gutxieneko eduki batzuk adostea euskal hiritar guztien etxebizitza-eskubidea gauzatzeko funtsezko beste alderdien erregulazio –berdina ez bada ere– homogeneoa edo, behintzat, parekidea ziurtatze aldera. Alderdi horien artean ditugu, besteak beste, etxebizitza babestuen eskuratu ahal izateko betekizunak (eskatzen diren diru-sarrerak eta erroldatze urteak). Etxebizitza babestua eskuratzeko gutxieneko denbora-tarte bat erroldatuta egon behar diren kontu horrek berez ere gure esku-hartzea sustatu du eta, hala, gomendioa egin diogu Vitoria-Gasteizko Udalari (**15/2006 Gomendioa**). Horren bidez, udalari eskatu genion berrazter zezala gutxienez bost urtez errolaturik egon izana ziurtatu behar diren betekizuna, gure ustez, neurri horrek bereizkeria eragin baitezake udalerrian bizi diren eta administrazio egoitzaren aldi hori betetzen ez duten pertsonentzat. Gomendio horretan azpimarratu genuen beharrezkoa zela udalerrian bizi izateko nahia justifikatzeko etxebizitza babestuen sustapenetan eska daitekeen erroldatze tartearen proportzionaltasun printzipiora egokitzea; izan ere, hori modu objektibo eta arrazoituan justifikatu ezean, berdintasun printzipioa urra zitekeela ulertu genuen. Bi ebazpen horien testu osoa urteko txosten honen I. eranskinean jaso da.

Bestalde, **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen azken xedapenetako laugarrenak** publikoki sustatu eta bultzatu behar den formula gisa **alokairuaren alde egiten duen printzipiozko apustua**, gure ustez, programa espezifikoen bidez eta administrazio desberdinek eremu honetan hartuko dituzten betebeharrak eskatzen dituzten beste neurri batzuen bidez gauzatu behar da. Horri buruz dihardugu, xehetasun handiagoz, lehen aipatutako Etxebizitzari eta Gazteei buruzko ezohizko txostenean.

Nolanahi ere, premiazkoa da etxebizitzaren arloan egun indarrean dagoen **arau-dia lege berriko aurreikuspenetara egokitzea**; Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saileko arduradunek adierazi digutenaren arabera, egokitzapen hori jada bidean da. Uste dugu hau parada ona izango dela etxebizitzari buruzko euskal arautegia antolatu,

sistematizatu, koherente egin eta bateratzeko; izan ere, azken urteotan izan dituen etengabeko aldaketek eragile juridiko eta administratiboentzat erabiltzeko zaila izatea eta interpretazio zalantzez josia egotea egin dute.

Azkenik, aurtan ere nabarmendu behar dugu beharrezkoa dela arlo honetan legez bakarrik araupetu daitezkeen eduki nagusiak bilduko dituen **etxebizitzari buruzko legea behin betiko ateratzea**. Lege horrek, lurzoruaren legeak bezalaxe, etxebizitza-politika koherenteak eta eraginkorrak ahalbideratuko dituen adostasun politikoa bermatu behar du eta egun oinarri nagusia Konstituzio aurreko Estatuko arauetan duten jardunetarako –bereziki, arlo honetako jarduera zigortzaile guztietarako– beharrezko lege estaldura sortu behar du.

Hirigintzari buruzko Estatuko legeria aldatzeari dagokionez, Legebiltzarrak jada ekin dio lanari eta –dakigunez– helburua lurzoruaren balorazioen gaineko arazo larriari irtenbideak aurkitzea da, Estatu osoan etxebizitzaren prezioek duten goranzko joera geldiarazteko.

Herritarrek aurkeztu dituzten administrazio jardunen aurkako kexak izapidetze-rakoan, gure arreta behar izan dutenak batez ere zuzeneko etxebizitza-politikak izan dira; hau da, etxebizitza eskuratzeko problematikari zuzenean etxebizitza babestuak sortuta edo etxebizitza eskuratzeko zuzeneko laguntzako beste neurri batzuk hartuta aurre egiten dieten esku-hartze publikoek. Hala ere, uste dugu **zerga-neurriek** ere, zuzeneko etxebizitza-politiken ezinbesteko osagarri gisa, etxebizitzaren arloko esku-hartze publikoei dagozkien estrategien zati izan behar dutela; horretarako, komenigarria litzateke arlo honetan erantzukizunak dituzten botere publiko desberdinek ahaleginak bateratzea helburu berdinak gauzatzen joateko. Joan den urteko txostenean adierazi genuen 2005ean alokairuaren aldeko neurriak sustatu zirela. Araban 33/2005 Foru Arauak, Bizkaian 7/2005 Foru Arauak eta Gipuzkoan 9/2005 Foru Arauak etxebizitzak alokairuan hartzea sustatzeko zenbait zerga-neurri biltzen dituzte, “Etxebizitza Hutsaren Programa” sustatu eta bultzatzen duen Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren esparruan. Neurri horiek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan du eragina eta etxebizitzaren errentatzaileentzat zein maizterrentzat dira onuragarriak. Hala ere, badirudi, oro har, alokairuak etxebizitza izateko hondar formula izaten jarraitzen duela eta Euskadin oraindik ere etxebizitza huts ugari dagoela. Horren guztiaren ondorioz, hainbat ahotsek (horien artean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2006ko azaroan etxebizitzari buruz argitaratutako txostenean) adierazi dute egun dauden neurriak ez direla nahikoak eta beharrezkoa dela aipatu xedera zuzendutako zerga-neurri irmoagoak ezartzea eta etxebizitza erosteari babes fiskala eskaintzen ez jarraitzea. Erakunde honen ustez, komenigarria da zerga-politikak alokairuaren alde egitea eta diskriminazio positiboa egitea etxebizitzaren edukitze erregimen honen alde, jabetza-erregimenaren alde baino.

Aurtan erakunde honen esku-hartzea eskatu duten **kexak direla-eta sortutako arazo nagusiak** labur-labur azaltzen hasita, ikus dezakegu horiek etxebizitzarekin –eta, bereziki, etxebizitza babestuekin– erlacionatutako kontu askori buruzkoak izan direla. Euskadin etxebizitzaren arloko administrazio jardunei dagokienez gure ustez herritarrek dituzten arazo nagusietako batzuk agerian jartzen dituztenak bakarrik aipatuko ditugu.

- **Etxebizitza-beharra: behar espezifikoak dituzten taldeak.**

Aurreko urtean bezala, ekitaldi honetan ere hainbat kexa aurkeztu dira, etxebizitzaren arloko indarreko arautegian, burutik gaixo daudenei edo ezgaitasun intelektualak dituztenei etxebizitza eskuratzen laguntzeko ekintza positiboko neurririk ez dagoela adieraziz; izan ere, pertsona horiek, beren familien babesik gabe geratuz gero, kasu askotan, gizarte bazterkeriako egoeran geratu ohi dira. Horregatik, hainbatetan jo dugu Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailera erakunde honek jasotako kexetan aurkeztu ziren kasu desberdinetan pertsona horiek etxebizitza babestua eskuratzeko zituzten arazoak azaltzeko (etxebizitza anai-arrebekin partekatzea, gutxieneko diru-sarreren betekizuna ez betetzea, kuporik ez egotea pertsona hauen etxebizitza-beharrak etxebizitza babestua eskatzen duten beste pertsona batzuenen aurrean lehenesteko). Era berean, adierazi genizuen komenigarria zela, Konstituzioaren 14. eta 9.2 artikuluen babesean, oro har ezgaitasun psikikoak dituztenen edo burutik gaixo daudenen alde egingo zuten ekintza positiboko neurriak bultzatzea, bi kontu desberdin azpimarratuta: batetik, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan sartzeko irizpideak malgutu edo banan-banan aztertu behar zirela; eta, bestetik, komenigarria zela etxebizitzak esleitzeko modalitatearen bat artikulatzea pertsona horiek lehenesteko egoera normalizatuan daudenen aurrean. Bidalitako erantzun idazkietan, Etxebizitza Sailak 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriaren 9. ardatzeko aurreikuspenak helarazi zizkigun; horien arabera, alokairu erregimenean esleitzen diren sustapenetan kupo edo erre-serba espezifikoak sortuko da pertsona horientzat. Gainerakoan, ez zigun erantzun aurkeztutako bigarren arazoari, alegia, zein bide egingo duten planteatutako kexek. Gure ustez, isiltasun hori kexa horietako bakoitza adierazi duten pertsonen asmoei erantzutea ahalbidetzen duen indarreko arautegirik ez egotearen ondorio izan da. Espediente zehatz horiek aztertuta, ondorioztatu ahal izan genuen, kexa adierazi zuten pertsonak zalantzan jarritako jardunean irregulartasunik egon ez arren, beren uziak babesten dituen arautegirik ez zegoenez, beharrezkoa zela albait arinen kontu honen inguruko erregulazio zehatza finkatzea, 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plan horretako konpromisoak gauzatzeko. Ondoren Etxebizitza Saileko arduradunekin izandako bileran, horiek adierazi digute sailak lehentasunez jasoko dituela aurreikuspen horiek etorkizuneko etxebizitza-araudian. Halaxe jakinarazi diegu interesdunei eta talde horien babeserako elkarteei, eta Eusko Jaurlaritzari errepikatu diogu, gure iritziz, pertsona horiei etxebizitza eskuratzen laguntzera zuzendutako ekintza positiboko mekanismoek kupo edo erre-serba ezartzeaz eta pertsona horien etxebizitza-beharreko banakako egoerei erantzutea ahalbidetzen duen esleitze sistema artikulatzeaz haratago egin behar dutela. Bestalde, aldi baterako eta titulartasun publikokoak diren zuzkidura-alojamenduen formula, Lurzoruari buruzko 2/2006 Legean aurreikusitakoa, etorkizunean bereziki egokia izan daiteke pertsona hauek etxebizitzaren arloan dituzten beharrei erantzuteko.

- **Etxebizitzaren arloan erantzukizunak dituzten administrazioen erakunde instrumentalen funtzionamenduan administrazio prozedura berme sistemara egokitzea.**

Hainbat kexa eragin dituen beste kontu bat sozietate publikoen funtzionamendua da; horiek, Administrazioaren erakunde instrumental gisa jardunez, batzuetan, nahikoa edo argia ez den, ulertzeko arazoak sortzen dituen edo, labur esanda, erabiltzaileen-

gan desadostasuna eragiten duen komunikazioa izaten dute zerbitzua jasotzen duten herritarrekiko harremanetan. Horrela, kontu horri buruz hitz egin zaigu hutsik dauden etxebizitzak alokairuan hartzeko Bizigune programaren bidez edo VISESA sozietate publikoak erosi eta, ondoren, BOEren eskatzaileei besterendu dizkien BOEak bigarrenez eskualdatzerakoan etxebizitzaren esleipendun suertatu diren pertsonen kexetan, baita etxebizitzaren arloan bitartekotza egiteko udal agentzien jardunei buruzko kexetan ere. Kasu guztietan –beren artean desberdinak izatea dakarten inguruabar bereziak egon arren–, agerian jarri dena, azken batean, zera da: beharrezkoa dela erabiltzaileei administrazio zuzenbidearen bermeak ziurtatzea erakunde instrumentalen bidez emandako zerbitzu publikoetan. Halaxe adierazi zaigu hainbat kexetan, adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak sortu zuen VISESA sozietate publikoari buruz aurkeztutakoetan. Sozietate hori lehentasunez eskuratzeko eskubidearen kudeaketaz eta bigarrenez eskualdatutako etxebizitza babestuen erosketetz eta salmentez arduratzen da; halaber, hutsik dauden etxebizitzak alokairuan hartzeko Bizigune programa gauzatzeko beharrezko kontratuak ere kudeatzen ditu, beste zenbait konturekin batera. Erreklamazio horiek jakinarazi digute ez dagoela formalidaderik VISESAk bere zerbitzuen hartzaileekin dituen harremanetan. Ulertzen dugu Etxebizitza Sailak adierazi digun eragozpena; alegia, eraginkorra izateko kudeaketak bizkorra izan behar duela eta hori ezin dutela administrazio zuzenbideak ezartzen dituen prozedurazko trabek oztopatu; horretarako sortzen dira, hain zuzen ere, zuzenbide pribatuaren mendeko erregimen juridikoa duten mota honetako erakunde instrumentalak. Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaigu kudeaketa eraginkorra izatea, baina, horrekin batera, baita eginkizun publikoak betetzekoan gutxieneko berme jakin batzuei eustea ere. Horren abiapuntua da, Administrazio Publikoa zuzenbide pribatuaz baliatzen den kasu guztietan, izaera publikoko nukleoa dagoela eta hau, hobeto aztertu ahal izateko, dagokion negozio pribatuaren egintzaren bloketik bereizi behar dela.

**- Eskatzaileen Erregistroa, alden eta baje kudeaketa: administrazio zuzenbidera egokitzea**

Jasotako kexetan behin baino gehiagotan aipatu da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saileko Etxebide zerbitzuak Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa kudeatzeko jarraitutako prozedura, joan den urteko txostenean ere aztertu genuena. Zehazki, erregistro horretako bajak dira etxebizitza babestuen eskatzaileen aldetik kexa gehien eragiten dituztenak. Kexa horiek direla medio, hainbat alderdiren berri eman diogu Eusko Jaurlaritzari:

1. Lehenik eta behin, ikusi dugu ebazpenak Ordezkaritzetako iragarki oholetan argitaratu eta horiek ediktu bidez jakinarazteak arazoak sortzen dituela; edo, beste era batera esanda, jakinarazteko modu hori ez dela nahikoa Etxebideren erregistroko eskatzaileei eragiten dieten ebazpenak modu eraginkorrean ezagutarazteko, horien aurka epe barruan babesteko aukera izan dezaten. Beste batzuetan ere aurkeztu diogu kontu bera sail horri, aurreko ekitaldian izapidetutako espediente desberdinen esparruan. Saileko arduradunekin zuzenean egindako bileretan ere adierazi diogu komenigarria dela, oro har, Etxebideko eskatzaileei jakinarazteko moduei buruzko irizpideak aldatzea, gure ustez, ez baikaude Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59.6 b)



artikuluan aurreikusitako kasu espezifikoan, hots, lehia edo hautapen prozeduran; horrek esan nahi du, ikuspegi horretatik, ezin justifika daitekeela ebazpena iragarki oholean argitaratzea jakinarazpen pertsonala egin ordez, ADLaren 59.2 artikuluan interesdunek hala eskatuta hasitako prozeduretarako oro har aurreikusten den bezala.

2. Bestalde, ohartu ginen babesgabetasun egoera are gehiago larriagotzen dela, izapidetu ditugun zenbait espedientetan gertatzen den bezala, baja-ebazpena arauak aldatzearen ondorio bada eta horrek, orobat, aldatu egiten badu interesdunak Erregistroan inskribatzeko aukeratutako unean nagusi zen eta Etxebideko langileek aholku emateko oinarritzat hartu zuten aurreko statu quo juridikoa. Halaxe gertatu zitzairen pertsona askori inskripzioa berritu beharrarekin, betebeharrak hori soil-soilik hasieran izena ematerakoan indarrean ez dagoen arau aldaketan gertatzen denean sortzen baita. Kasu horietan, erreklamatzailerak pentsatu zuten sailak berak eguneratuko zituela ofizioz eta automatikoki beren datuak. Puntu honetan nahikoa eztabaidagarria da –eta halaxe adierazi diogu sailari ere– atzeraeraginari buruzko arau orokorrean eskubideen arau mugatzaileei dagokienez egiten den salbuespena, arau horren seigarren artikuluko klausula berriak atzeraeragina izango duela dioen Etxebizitza sailburuaren 2004ko azaroaren 26ko Aginduak xedapen iragankorrean jasotakoa. Ildo horretatik, honakoa adierazi genion Eusko Jaurlaritzari: “eskubideen arau mugatzaileek atzeraeraginik izango ez dutela dioen araua ezustean ukatu da eskubide galera dagoen kasurik latzenerako, hots, Erregistroan baja emateari dagokionerako (...), eta hori (...) entzunaldiaren izapidea eskaini ere egin gabe, kontuan izanda interesdunak ez zuela irizpide edo arau hori ezagutzen eta, gainera, horrek funtsean aldatzen duela ebazpena eman zen datara arte zuen estatua”.
3. Honi guztiari beste arazo bat gehitu behar zaio, alegia, sailak Erregistroan inskribatutako pertsonekin *mailing* formularen bidez dituen harremanek sortzen duten eragina, kasu askotan, pertsonaren egoera zehatza argitu ordez, nahaste handiagoa dakarren elementua barneratzen baitu. Horrela, aztertutako kexa-espedienteetako batean ikusi genuen sailak gutun orokor edo *mailing* bidez jakinarazi ziola interesdunari baja emateko hiru arrazoi egon zitezkeela: etxebizitza jaso izatea, ondoko ondoko bi alditan etxebizitzari uko egin izatea, edo interesdunak berak hala eskatu izatea; erreklamatzaileraren ustez, horrek kanpo uzten zuen erosteko aukeran baja emateko erabakigarria izan zen arrazoa, alegia, erosi ahal izateko diru-sarreraren gutxienezko maila betetzen zuela egiaztatzen zuen errentaren aitorpena ekarri ez izatea. Kasu horretan bertan, interesdunak beste mezu bat jaso zuen sailaren aldetik eta bertan gogorarazi zitzaion bere espedientean bi aukerak mantenduko zirela etxebizitza babestua eskuratzeko formula gisa; alegia, etxebizitza berria erostekoa eta gizarte alokairuan hartzekoa, besterik adierazten ez bazuen mezuarekin batera zihoakion inprimakia behar bezala bete ondoren aurkeztuta (bi aukera horiek berak hautatu zituen Erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuenean eta onartu egin ziren, garai hartan interesdunaren diru-sarrerak etxebizitza erosteko beharrezko gutxienezko heldun ez baziren ere). Erreklamatzailerak pentsatu zuen bi aukeratarako eskatzaile izaten jarraitzen zuela, berak nahi bezala, inork ez baitzion adierazi

- bi aukera horiek onartu ez zirenik. Hori horrela, ez zuen beste eskabiderik egin eta ez zuen uste izan beste inolako neurririk hartu behar zuenik bi aukeretarako eskatzaile izaten jarraitzeko. Hain mezu nahasiek erakarri zuten nagikeriak (hots, diru-sarreren gutxienerako mailara heldu zela egiaztatzen zuen aitortpena berariaz ez ekartzeak) eragin zuen, aurrerago, aukeretako batean baja ematea.
4. Azkenik, ohartu gara, sailak kasuan kasuko foru ogasunaren bidez hala egiaztatu ondoren, diru-sarrera nahikoak ez izateagatik (alegia, diru-sarreren gutxienerako mailara ez heltzeagatik) automatikoki baja ematea kontraesanean dagoela abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 20.2 artikuluko aurreikuspenarekin; honen arabera, etxebizitza eskuratu nahi dutenek zergak ordaintzearen menpe ez dauden eta, ondorioz, Ogasunarentzat ezezagunak diren errentetatik datozen diru-sarrerak izan ditzakete. Horregatik, arrazoi hori dela medio inori baja eman aurretik, aurretik entzunaldiaren izapidea eman beharko litzateke derrigorrez, bestelako diru-sarrera posibleak daudela edo kasuan kasuko ogasunetik lortutako informazioari dagokionez zuzen daitekeen beste konturen bat dagoela ziurtatu ahal izateko. Bestalde, bitxia iruditzen zaigu (eta kontraesankorra diru-sarrerei dagokionez Etxebidek duen jarduteko modu orokor horrekin, alegia, interesduneri entzunaldiaren izapidea egin gabe horien diru-sarrerak ogasunen bidez ofizioz egiaztatzearekin) aurreko puntuan azaldutako kexa-espeditentean sailak ahoz jakinarazi izatea interesdunari (2002ko ekainaren 14ko Aginduaren lehengo 12.8 artikulua indarrean zegoenean) sailak behar bezala egiaztatuko zituela ekitaldi horretan lortutako diru-sarrerak eta, horiek ezarritako gutxienerakora heltzen baziren, erosteko aukerari automatikoki eutsiko zitzaiola. Hala ere, ondoren baja eman zitzaion aukera horretan, interesdunak aitortpena ekarri ez zuelako aukera horretarako ezarritako diru-sarreren mailara heldu zela ziurtatzeko, Erregistroan inskribatu zenean ez baitzen hala. Hau da, ikusi ahal izan dugu sailak ofizioz egiaztatu zituela diru-sarrerak, Foru Ogasunekin duen zuzeneko harremanaz baliatuta, Ogasunetatik lortutako datuen arabera diru-sarreren betekizunak betetzen ez dituztenei entzunaldiaren izapidea eskaini gabe. Aldiz, interesdunari eskatzen dio berariaz egiazta ditzala inskribatu zeneko egoera ekonomikoa alda dezaketen diru-sarrerak, nahiz eta Ogasunaren datuetatik argi asko ondoriozta zitekeen interesdunak, inskribatu ondorengo une batean, behar bezala betetzen zuela hasieran onartu eta berariaz baztertu ez zen eskabidearen baldintzei eusteko beharrezko diru-sarreren betekizuna.
5. Ondorioz, uste dugu, interesdunak babesten dituzten bermeak behar bezala errespetatuko dituen prozedura antolatze aldera, bereziki garrantzitsua dela, interesdunaren egoera aldatuko den kasu guztietan, horren berri behar bezala formalizatutako banakako jakinarazpenen bidez ematea. Gutxienerako prozedura-bermeen ikuspegitik ezinbestekotzat jotzen dugu horiei entzutea kargak ezartzen dituen egintza eman aurretik, bereziki, horrek Erregistrotik baja ematea edo kanpo uztea badakar; alegazioak aurkezteko aukera aurretik eskaini behar zaie –beharrezkoa izanez gero, ebazpena ematerakoan bizi duen benetako egoera egiaztatzen duten datuak ekarrita– eta ez errekurtsioa aurkeztu ondorengo prozesuko unean, gure ustez hori ez baita zuzena. Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zaigu, oro har, argitasun handiagoz jokatzeko interesduneri zuzendutako informazioetan eta horiekiko

harremanetan eta sailak arreta handiagoa eskaintzea funtsezko betekizunak betetzeari, egintzak mantentzeko printzipioa aplikatuta, ondoren inskripzio eskaera berriak eta pertsona berdinei buruzko espediente berriak eragingo dituzten bajak ez ebazteko; izan ere, horrek kalteak dakarzkie interesdunei eta Administrazioa hedapen burokratiko handiagoa egitera behartzen du.

Eusko Jaurlaritzarekin berriki izandako harremanetan, ikusi dugu saila prest dagoela kudeaketa-sisteman beharrezko aldaketak egiteko, aipatutako gabeziak arintze aldera. Kudeaketa-sisteman aldaketa-konpromisoak nola gauzatuko diren zain gaude, jarritako eragozpenak benetan konpontzen ote diren ikusteko.

- **Lurzoru publikoan itundutako sustapenetako etxebizitzaren prezioak.**

Bi kexa-espediente zabalarazi dituen beste gai bat udalek baldintza jakin batzuen pean laga edo besterendu duten lurzoru publikoan eraikuntza-enpresa pribatuek sustatutako BOEen edo prezio tasatuko etxebizitzaren azken salmenta-prezioa zehaztearen ingurukoa da. Hurrenez hurren, Vitoria-Gasteizko Udala eta Donostiako Udala tartean ziren bi kasutan administrazio baldintzen agiria zegoen eta bertan jaso zen, aurretik, eraikuntza-enpresa pribatuek sustatutako zituzten etxebizitzaren bukarako prezioa. Hala ere, arrazoi desberdinak direla medio, prezio hori aldatu egin da salerosketa-kontratuak kasuan kasuko eskritura publikoen bidez hobetzerakoan eta, ondorioz, etxebizitzak garestitu egin dira. Bi kasuak, ordea, oso desberdinak dira; Donostiako Udalarik dagokionez, honek administrazio baldintzetan finkatutako prezioa modu batera interpretatu zuen, sustatzaileak interpretatu zuenarekin zerikusirik ez zuena. Hori dela-eta, gaur egun eztabaida hau auzitegietan da eta ezin dugu horren inguruan ezer egin, hasierako interpretazioa –neurri batean– berrikusteko udalak ondoren egin dituen jardunei dagokienez izan ezik. Vitoria-Gasteizko Udalaren kasuan, ordea, udaleko bertako arduradunak ziren erreklamatazaileek (hots, etxebizitzaren esleipendunek) esandakoa bermatzen zutena; alegia, hasieran hitzartutako prezioa legez kontra aldatu zela. Azken kasu honi dagokionez –2006ko ekitaldian sortua–, gomendio batean jaso dugu gure iritzia (**1/2007 Gomendioa**); hori 2007. urtearen hasieran argitaratuko da eta horregatik ez dugu horren testua 2006. urteko txosten honetan bildu. Hala ere, esan dezakegu, etxebizitzaren prezioa aldatzea eragin duten inguruabarrak zehatz-mehatz aztertu ondoren, ohartu garelako aldaketek ez dutela estaldura juridiko nahikorik; hortaz, leheneratu egin behar da hasieran hitzartutako prezioa eta etxebizitza horien esleipendunei ordaindu duten gainprezioa itzuli behar zaie. Donostiako kasuari dagokionez, ebazpena prestatzen ari gara; bertan, aztertu dugu zein inguruabar konplexuk eraman duten sustatzaile pribatua eraikuntza-enpresak finkatutakoa baino prezio altuagoa dakarren salerosketa-kontratuak sina dadin proposatzera, udalaren bermearekin, nahiz eta udalak berak interpretazio egintza batean adierazi zuen prezioa beste bat zela eta hori baino baxuagoa zela. Bi kasuetan, eta aipatutako aldeak gorabehera, arazoa da eraikuntza-enpresek ezin dietela aurre egin udalarekin hitzarmena edo kontratua sinatuta hasieran beren gain hartu zituzten konpromiso ekonomikoei eta, funtsean, Administrazioari dagokiola etxebizitzak sustatzeko erabiliko den udal partzela besterendu edo lagatzerakoan ezartzen diren kontratuko baldintzetan edo administrazio baldintzen agiritan finkatutako irizpideez baliatu ahal izatea. Bi kasuetan, gainera, harreman konplexua dago udalaren eta

sustatzailearen artean, esleipendunen eta sustatzailearen artean eta esleipendunen eta udalaren artean; hori dela medio, gerta daiteke kaltetuek ondare erantzukizuna eskatzea udal administrazioei.

- **Jabetza hiritarreko ganberak: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak horien ondorengotza eta eginkizunak hartzea.**

Hainbat kexa jaso ditugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Jabetza Hiritarreko Ganbera Ofizialek eskaintzen zituzten eta, Jabetza Hiritarreko Ganbera Ofizialen langileen eta ondarearen araubideari eta destinoari buruzko 15/2006 Dekretuaren arauzko aurreikuspenei jarraiki, 2006ko otsailaren 22an Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere gain hartu zituen eginkizun eta zerbitzuen inguruan. Erreklamatazileek salatu dute zerbitzu horiek ez direla nahikoak edo ez direla behar bezala ematen. Zehazki, *“higiezin jabeen artean eta horien eta maizterren artean sor daitezkeen arazoetan bitartekari eta bateratze lanak egiteko”* zerbitzua jarri da zalantzan, horiek ere Etxebizitza Sailak bere gain hartutakoak 15/2006 Dekretuari jarraiki. Hala ere, zeregin horiek betetzeko, dekretu horretako hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da erregelamendua garatzea, txosten hau amaituta oraindik gauzatu ez dena. Horrek esan nahi du, beraz, orain funsezko zerbitzua baino ez dagoela jabeen eta maizterren artean hain maiz sortzen diren arazoak konpontzeko eta ez dagoela estaldura nahikorik zerbitzu hori zein parametro eta baldintzari jarraiki eskaini behar den eta erabiltzaileei zein eskubide dakartzkion ezagutu ahal izateko. Kontu honen inguruko kezka Etxebizitza Saileko arduradunei helarazi diegu eta hauek jakinarazi digute albait arinen garatuko dutela erregelamendua.

- **Alokairuan eskaintzen diren babes ofizialeko etxebizitzaren errentak garestitzea.**

Arazo hau izan dute hizpide 2006an jasotako kexetako batzuek. Horiek 2006an esleitu diren etxebizitzari buruzkoak izan dira, nahiz eta etxebizitza horiek berez BOE sustatzeko lehenagoko itunen esparruan kokatzen diren, zehazki, Eusko Jaurlaritzak eta enpresa sustatzaileek 306/2000 Dekretuaren babesean –hau da, gaur egun etxebizitza horien alokairu errentak zehazteko modua ezartzen duen arautegia indarrean sartu baino lehen– egindako hitzarmenen esparruan. Hain zuzen ere, egun, 290/2003 Dekretuak aldatu zuen 315/2002 Dekretuaren 4.2 artikulua eta babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzko 2003ko abuztuaren 25eko Aginduaren 3. artikulua dira alokairu errenta finkatzeko etxebizitzaren prezioari dagokionez zenbait aplikazio ehuneko ezartzen dituztenak (%2 eta %3 artean sustapen publikoko gizarte etxebizitzetarako, %2 eta %5 artean sustapen pribatuko gizarte etxebizitzetarako eta %4 eta %6 artean erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako). Horrela, BOEen alokairu errentak, erregimena edozein dela ere, zenbait faktoreren menpe jartzen dira, besteak beste, etxebizitzaren eta erantsien azalera erabilgarria, ikus-onetsia ematerakoan (kontratu pribatuen kasuan) edo kontratua formalizatzerakoan (sailak berak sinatutako kontratuen kasuan) m<sup>2</sup> erabilgarriak duen gehieneko salmenta-preziora eta errentan hartzen duen bizikidetzako unitatea; horiek guztiak gehikuntzak eta gutxitzeak kontuan hartuta, arau bidez ezarritako eguneratze baldintzari jarraiki. Erregulazio honi esker, maizterrek alokairua ordaintzeko

duten benetako ahalmena baldintzatzen duten faktoreak neur daitezke, esaterako, esleipendun suertatzen diren bizikidetzako unitateen diru-sarrerak. Hala ere, hori ez zen gertatzen lehengo arautegiarekin; horri heltzen diote indarrean zela sailak sinatu zituen eta, 2006an, haren babesean eraikitako etxebizitzak esleitzea eragiten duten hitzarmenetako batzuek. Arrazoi hori dela medio Etxebizitza Sailari zuzendutako gure idazkietan eskatu genion neurriak ezar zitzala hitzarmen horiei dagokienez nahi ez diren ondorioak arintzeko eta, horretarako, irtenbideak ematea etxebizitza horien esleipendun suertatu diren baina, objektiboki, horien gainean ezarritako alokairu errentak ordaintzerik ez duten pertsoneri. Besteak beste, iradoki genion etxebizitza ez onartzea ez zedila ukotzat hartu Etxebideren sistema informatikoan edo, beharrezkoa iritziz gero, ordezeko esleipenak egin zitezela izaera sozialeko beste alokairu programa batzuetan, esate baterako, Bizigunen. Orobat, eta ahal zen neurrian, hitzarmenak berrikusteko bideari ekin ziezaiola eskatu genion, arautegi berrira egokitzeko. Bere erantzun formalizatuan Eusko Jaurlaritzak soil-soilik dio aztertuko duela etxebizitzaren esleipendun suertatzen direnek haiek eskuratzean eman dezaketan ezezko arrazoitua Etxebideren sistema informatikoan uko gisa ez azaltzea. Hala ere, ondoren, saileko arduradunek, hauekin egindako bileraren esparruan, adierazi digute hitzarmen horiek berrikusteko asmoa dutela. Horrek egun etxebizitza horien alokairurako kobratzen diren errentak merkatzea ahalbidetuko luke.

- **Bizigune programaren bidez eskainitako etxebizitzak egokitzea eta alokairu errentak zenbatzea.**

Kontu honi dagokionez, kexa-espedita izapidetzen ari gara; horren arabera, erreklamatazileari etxebizitza esleitu zaio programa horren esparruan, baina horren tamainak haren beharrak gainditzen ditu (kide bakarreko unitatea) eta, beraz, bere benetako ahalmen ekonomikoaren gainetik dagoen kostua ere badaukarkio (erreklamatazileak langabezi egoera gelditu zen etxebizitza esleitu zitzaiotanean). Ikusi ahal izan dugunez, programa horien esparruan finkatzen diren errentek ezin dute esleipendunen urteko diru-sarrera gordinen %30 gainditu. Jabeak kobratzen duenaren eta finkatutako alokairu errentaren arteko aldea Eusko Jaurlaritzaren kontu dago. Hala ere, antzeman dugu errentak, finantzaketa publiko partziala egon arren, altuegiak direla. %30aren klausula gehiegizkoa da, kontuan izanik beste herrialde batzuetan (adibidez, Frantzia) muga hori hipoteka-kredituak finantzatzeko ahalmenaren berme gisa erabiltzen dela etxebizitza erosteko halako kredituak ematen dituzten banku erakundeetarako; alegia, salerosketaren merkatu pribatuko bermea da eta, beraz, ez da proportzionala hori alokairu kasuei aplikatzea. Era berean, uste dugu interesgarria dela azpimarratzea alokairuko etxebizitza sustatzen eta kudeatzen duten gure inguruko beste erakunde publiko batzuek, esaterako, Viviendas Municipales de Bilbao/Bilboko Udal Etxebizitzak sozietateak, errenta bakoitzaren zorpetze muga urteko diru-sarreraren %25ean kokatzen dutela. Nolanahi ere, gure ustez, kasu hauetan beharrezkoa da Bizigune programaren arduradunei eskatzea ahalegin handiagoa egin behar dela tamainari eta egoerari dagokienez eskatzaileen beharretara moldatzen diren etxebizitzak eskaintzeko. Ildo horretatik, proportzioz kanpo dago pertsona bakarrari behar duena baino askoz ere tamaina handiagoko etxebizitza eskaintzea eta, hala, horrek duen prezio altuagoa ordainaraztea, aipatutako kexaren kasuan gertatzen den bezala. Bestalde, komenigarria iruditzen zaigu, esleipendunek modu objektibo eta arrazoizkoan justifika

dezaketenean egokitu zaien etxebizitzaren errenta ordaintzeko gai ez direla, aipatu dugun espedientean gertatzen den bezala, eskainitako etxebizitza ez onartu izana uko gisa jasota ez geratzea, kontuan izanda bitan uko egiteak Etxebidieren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistrotik kanpo geratzea dakarrela.

Jarraian, sarreran aztertu ez ditugun beste kontu batzuren berri emango dugu, ondorengo kexa-laburpen hauen bidez.

## 15.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak

⇒ *Administrazioaren isiltasuna etxebizitza librea erosteko laguntzen arloan (362/2006/30)*

- Erreklamazioa

Kexak dio Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak ez ziola erantzun administrazio jarduna berraztertzeko bere eskaera-idazkiari; jardun horren bidez, etxebizitza erosteko bere garaian jasotako laguntzak itzultzeko agindu zitzaion erreklamatzailari.

1993an erreklamatzailak etxebizitza libre erabilia eskuratu zuen; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso zituen eta, hala, etxebizitza babes ofizialeko gisa kalifikatuta geratu zen. Ondoren, 2005ean, etxebizitza deskalifikatzeko eskatu zuen eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzak diru-kopuru jakin bat itzultzeko eskatu zion, zehazki, jasotako zuzeneko diru-laguntza, hipoteka-kredituari aurre egin ahal izateko diru-laguntza eta horien interesak; erreklamatzailak halaxe egin zuen. Baina, 2005eko azaroaren 23an, gora jotzeko errekurtsu gisa, idazkia helarazi zion Etxebizitza eta Gizarte Gaie-tako sailburuari eta horren bidez adierazi zion ez zetorrela bat jasotako diru-laguntzari zegokion zenbatekoaren zatia itzuli beharrarekin, etxebizitza erosi eta bi urtera kreditu librea merkeagoa zelako Eusko Jaurlaritzarena baino.

- Azterketa

Kexa aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailera jo genuen eta ohar-tarazi genion beharrezkoa zela berariaz eta modu arrazoituan erantzutea kredituari aurre egin ahal izateko jasotako zenbait laguntza itzul ziezazkioten egindako eskaera gaitzetsi izanaren aurka erreklamatzailak aurkeztu zuen gora jotzeko errekurtsuari. Kexa aztertuta ondorioztatu ahal izan genuen Jaurlaritzaren jarduna kexaren adierazleak aurkeztutako errekurtsuaren aurrean denbora luze isilik egon zelako hartu behar zela legez kanpoko-tzat. Eusko Jaurlaritzari adierazi genion, errekurtsu hori behin-behinean gaitzestea ekar zezaketen arrazoen inguruko iritzia aurretik eman nahi izan gabe, gogorarazi egin behar geniola administrazio horrek berariazko eta behar bezala funtsatutako erantzuna eman behar duela. Ildo horretatik, behin eta berriro aipatu genuen kexa hau aurkeztu duenak egoki formalizatu eta arrazoitutako erantzuna jasotzeko eskubidea duela, eskaerari uko eginez gero, horretarako sailak zein arrazoi zituen ikus zezan.

Gai nagusiari dagokionez, kexa aztertzerakoan ere egiaztatu genuen Eusko Jaurlaritzaren jarduna zuzenbidera egokitzen zela. Hipotekari aurre egin ahal izateko laguntzek ez dakarte, erreklamatazaileak nahi zuen bezala, Eusko Jaurlaritzak arduratu behar izatea hipoteka-interesen gorabeheraz; izan ere, kreditua ez da Administrazioarekin izenpetzen, baizik eta banku erakunde jakin batekin eta, beraz, honek ezartzen ditu hipoteka-kreditu horren baldintzak. Administrazio Publikoak biztanleak banku erakundearekin sinatutako kreditu zehatz horren zati bat finantzatu baino ez du egiten. Hortxe dago Eusko Jaurlaritzak dituen konpromisoaren eta erantzukizunaren muga diruaren interesak behera egiten duenean, kasu honetan gertatu zen bezala. Horregatik, pentsatu genuen ez zegoela zuzenbidean oinarritutako arrazoirik esateko, etxebizitza bat BOE gisa deskalifika zedin eskatuta, Eusko Jaurlaritzak ezin zezakeela eskatu etxebizitza horretarako emandako laguntza guztiak itzultzeko, hipotekari aurre egin ahal izateko ekarritakoak barne.

- Emaizta

Ondoren, jakin genuen erreklamatazaileari behar bezala eman zitzaioela gora jotzeko bere errekurtsua gaitzetsi zuen ebazpenaren berri. Gure ustez, Eusko Jaurlaritzaren berriazko erantzunak administrazio jardunean antzemandako irregulartasuna konpontzen du, erreklamatazaileak aurkeztutako errekurtsuari berriaz erantzun ziezaiola erakunde honek Etxebizitza Sailari egindako eskaerari jaramon eginez. Hortaz, ez zegoenez ez legezko oinarririk ez arrazoirik Eusko Jaurlaritzari horietatik haratagoko beste eskaerarik egiteko, gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen kontu honi zegokionez.

## B) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Udal etxebizitzak erosi ahal izateko oinarrizko errentatik lortutako diru-sarrereri uko egin behar izatea (811/2006)*

- Erreklamazioa

Erreklamatazaileak gure esku-hartzea eskatu zuen, Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak ezarritako baldintza zela bide; alegia, aurretik errentamenduan izan zuen etxebizitza erosi ahal izateko gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko arautegiaren esparruan jasotako diru-sarrereri uko egin behar ziela.

Interesdunak zioenaren arabera, erakunde horrek etxebizitzaren salerosketa-kontratu formalizatzeko baldintza gisa ezarri zion oinarrizko errentatik jasotako diru-sarrereri uko egin beharko ziela hiru urtez. Hala, sinatu ziren salerosketa-kontratu baten eredia helarazi zitzaigun eta bertako klausula batean halaxe jasota zegoela ikusi ahal izan genuen; honela zioen hitzez hitz:

*“Erosleari ohartarazi eta behar bezala jakinarazi zaio oinarrizko errenta gisa laguntza publikoak jasotzeak salerosketa-kontratu hau etetea eragin dezakeela, horiek kontratua sinatu ondorengo hiru urteetan jasotzen baditu. Saltzaileak berak egiaztatu ahal izango du eteteko arrazoi hori ez dagoela edo erosleari eskatu ahal izango dio hori egiazta dezala.”*

- Azterketa

Kexa aztertu ondoren, Bilboko Udal Etxebizitzak sozietatera jo genuen informazioa eskatzeko udal etxebizitza erosten dutenak ondoz ondoko hiru urtez oinarrizko errentari uko egitera behartzen dituen kontratuko klausulari buruz. Gure idazkian erakunde horretako arduradunei adierazi genien uko egitera behartzen zuen klausula horrek zalantzak sortzen zizkigula zenbait konturen legezkotasunari buruz, esaterako, zuzenbideko zein oinarrik babesten duen Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak duen ahalmena etxebizitza baten esleipena oinarrizko gizarte eskubide bati uko egitearen baldintzapean jartzeko; zenbat jasotzen den gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreragatik; ea udal erakundeak ez duen bere eginkizunen muga gainditu. Izan ere, klausula honen bidez kasuan kasuko Foru Aldundien eskumenetan sartzan ariko litzateke, horiek baitute, dagozkien gizarte zerbitzuek txostena egin ondoren, herritar batek prestazio horren onuradun izateko eskubidea ba ote duen zehazteko ahalmena. Prestazio hori, oro har, euskal herritar guztiek dute onartuta, betiere, legez baloratutako betekizun objektibo batzuk betetzen badituzte; betekizun horien artean ez dago Bilboko udal etxebizitza baten jabea ez izatearena. Erakunde horri gogorarazi genion eskubide hori legez finkatuta dagoela Eusko Legebiltzarraren ekainaren 25eko 4/2003 Legeak aldatu zuen gizarte bazterkeriaren aurkako Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 22ko 12/1998 Legean eta honen garapen arautegian eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legean. Legeria horretan, oinarrizko errenta izeneko laguntza publiko jakinak jasotzea dakarten egoera objektiboen inguruko arauak biltzen da. Arau horiek Eusko Legebiltzarrak bakarrik alda ditzake eta, beraz, legeria horretan eta bere garapen arautegian objektiboki deskribatutako egoerak modu berezian berritzea.

Aurretik ere, 994/2005/30 espediente zela bide, udal erakundeari antzeko kontua aurkeztu genion.

Etxebizitzak erosteko baldintza gisa oinarrizko errentari uko egin behar izatearen erabateko legezkotasuna zalantzan jarritz helarazi genizkion arrazoien inguruan Bilboko Udal Etxebizitzak sozietateak adierazitako desadostasunetik haratago, erakunde horrek berak beste espediente batean (994/2005/30) jakinarazi zigun udalbatzak, azkenean, salmenta-egoera berezietan buruzko erregelamendua onartu zuela; horren bidez, erosteko baldintza zehaztu eta interpretatu zen eta azaldu zen nahikoa zela gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerari uko egin izana eskabidea egiterakoan egiaztatzea erosteko-erakundearen onartzeko. Bere azken idazkian, espediente honen esparruan egin diogun informazio eskaerari erantzunez, Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak berriz ere alderdi hori aipatzen du, baina modu argiagoan; honela dio, hitzez hitz: “(...) *egungo udalbatzak adierazi zuen erosteko-erakundearen egiterakoan bakarrik egin behar zitzaiola uko oinarrizko errentari, horren ondorioak hiru urtez luzatu beharrik izan gabe (...)*”. Baieztapen horretatik ondoriozta zitekeen gauza bakarra zen, beraz, erakunde horrek onartzen zuela berriz ere oinarrizko errenta eskatu ahal izatea eta horrek ez zuela kalterik eragingo jada sinatutako salerosketa-kontratuan (erreklamatzailari gertatu zitzaion bezala).

- Emaita

Halaxe jakinarazi genion erreklamatzailari. Hala, aurkeztutako arazoa behar bezala konponduta geratu zenez, gure esku-hartzeari amaiera eman genion kontu horri zegokionez.



### C) **Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna**

⇒ *Errentan utzi diren udal titulartasuneko etxebizitzak mantendu eta kontserbatzeko lanen kudeaketa (438/2005)*

#### • Erreklamazioa

Auzotar batek kexa aurkeztu zuen Donostiako Udalak erantzunik eman ez zielako udal titulartasuneko babes ofizialeko etxebizitza bat errentan hartuta zuten eraikina ez mantentzeagatik zeuden narriatze arazoei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hala aginduta egindako eraikina zen; 1993an obra berriaren adierazpena eskuratu zuen eta, beraz, eraikin berria zen. Urte horretan bertan, eraikin hori Donostiako Udaleko Patronato Municipal de la Vivienda-Donostiako Etxegintza patronatuari besterendu zitzaion.

#### • Azterketa

Erakunde publiko horri informazioa eskatu ondoren, honek erantzun zigun eraikinak kontserbatu eta mantentzeko lanak etxebizitzak errentan hartuta zituaztegi zegozkiela.

Hala ere, maizterrek ez zuten hori zalantzan jarri; aitzitik, beren kexak zioen ezinezkoa zela kontserbazio lanak gauzatzea, zenbait bizilagunek nahi ez zutelako eta higiezina behar bezala kontserba zedin lortu nahi zutenek mekanismorik ez zutelako gainerakoei beren betebeharrak betearazteko.

Problematika horren ildotik, beste idazki bat bidali genion erakunde publikoari eta bertan kontu horren inguruko gure gogoetak bildu genituen. Zehazki, adierazi genion, ekarri zuten errentamendu kontratua aztertu ondoren, bereziki, 9. klausulak honakoa zioela; alegia, bai etxebizitzaren kanpoaldean bai sarbideetan egin beharreko kontserbazio lanak, garbiketa eta higieena uztailaren 24ko 2114/198 Dekretuak onartu zuen Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Erregelamenduak aipatzen duen moduan eta neurrian egingo zela.

Erregelamendu horrek 120. artikuluan eta hurrengoetan arautzen du errentamenduaren gaia. Zehazki, 4. idatz-zatiak dio maizterrek goza ditzakeen zerbitzuen prestaziorako jabeak ordaintzen dituen kopuruak aurreko arauak aplikatzearen ondorioz lortutakoei gehituko zaizkiela eta alokairutzat hartuko direla.

Bestalde, 121. artikulua dio, aurreko artikuluko 4., 5. eta 6. arauetan xedatutakoa gorabehera, maizterrek, kopuruaren bi herenak ados baldin badaude, jabearekin hitzartu ahal izango dutela arauetan aipatzen diren zerbitzu guztiak edo horietako batzuk beren aldetik ematea. Era berean, bi alderdien arteko hitzarmena ere aipatu du.

Zentzu horretan, uste dugu maizterrek dutela, hain zuzen ere, errentan hartutako etxebizitza eta eraikinaren espazio komunak kontserbatzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko betebeharra; desberdina litzateke, ordea, zeini dagokion xede horretarako beharrezkoak diren jardunak zaindu eta kudeatzeko betebeharra.

Aipatutako arauekin bat etorritik, berezko administrazio lana eskubidearen jabeari edo titularrari dagokio, kasu honetan, erakunde publikoari, horrek guztiak sortzen dituen gastuak maizterren kontura izan daitezkeen arren.

Ulertu genuen erakundeak zuen interesa maizterrek eurak izan zitezkeen, zuzeneko erabiltzaile ziren heinean, elementu komunak mantendu eta kontserbatzearen inguruko arazoak konpondu ahal izango zituztenak. Alabaina, gure ikuspegitik, horrek nahitaez

bete beharreko erregimen juridikoa edo arauak ezartzea eskatuko zukeen, horien bidez honakoak arautu ahal izateko: erabiltzaileen komunitateko harremanak, erabakiak hartzeko modua, eskubideak eta betebeharrak, maizterren komunitateari erakundeak hala eskuordetuta jardutea ahalbidetuko zioten gaikuntza-tituluak, ezarritako betebeharrak ez betetzeak maizter bakoitzari ekarriko lizkiokeen ondorioak eta nahitaez titular publikoari dagozkion berme eta kontrolerako eginkizunak. Laburbilduz, beharrezko egokitzapenak eginda, jabeekideen edozein komunitatetan araututako kontuen inguruan arituko litzateke.

Pentsatu genuen, hala egin ezean, kasu honetan gertatzen den bezala, ezinezkoa zela, erreklamatzaillearen gogoari bakarrik eutsiz, beste batzuen parte-hartzea eskatzen zuten betebeharrari aurre egitea, beste horiek utzi egin baitzioten euren betebeharrak betetzeari. Horrek ez zuen inolako eraginik banakako jabeengan, erakunde publikoak esku hartu ez zuelako; aldiz, eraikinaren eta bertan bizi zirenen arteko harremanen narriatze orokorra areagotzen joan zen titular jabeak bere eginkizunak alde batera utzi izanaren ondorioz.

Laburbilduz, erreklamatzailleak aipatu zituen eraikina mantendu eta kontserbatu ez izanaren ondoriozko arazoan aurrean, uste dugu erakundeak beharrezko ekintzak gauzatu beharko lituzkeela, kasuan kasuko gastuak maizterrei ordainarazita, eta, egoki iritziz gero, maizterren komunitateetako bizikidetzak eta betebeharrak erregulatuko lituzketen arauak sustatu beharko lituzkeela.

Azkenik, jakinarazi ziguten beren gain hartu zutela, erreklamatzailleak eskatu zituen kasuan kasuko konponketak egiteko ekimena.

- Emaita

Gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen, arazo zehatza konpontzeko bidean zegoela iruditu baitzitzaigun, nahiz eta behin eta berriro adierazi izan diogun erakunde publikoari komenigarria litzatekeela bere etxebizitzetako maizterren estatutua behar bezala arautzea.

## 16. ZENBAIT GESTIO

### 16.1. SARRERA

Izenburu honen pean erakundearen jarduera jakin batzuk jaso ditugu, heltzen dituzten gaien berezitasuna dela medio, erakunde honen lana banatu ohi den gainerako arloetan erraz eta behar bezala moldatzen ez direnak. Ildo horretatik, arlo honetako edukiak heterogeneoagoak izan daitezke, ondoren aipatuko ditugunak bezalaxe.

Horrela, aurten, herritarren elkarte batek aurkeztutako kexa izapidetu da. Horren bidez, adierazi zuten luze jotzen ari zela Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen zenbait xedapen indarrean jartzea.

Hainbat elkartek helarazi ziguten beste kontu bat 2006ko abuztuan, Bilboko jaieran, Etxebarria parkean egon zen “La Mansión del Terror” izeneko barrakari buruzkoa zen. Kexa hau aurkeztu duten taldeek barrakaren izaera sexista salatu dute. Barraka apaintzen duten paneletan, txanodun gizonak irudikatzen dira, objektu sexualtzat hartzen diren izaki babesgabe eta ahulen torturatzailer boteretsu gisa, eta krudelki biktimizatutako emakumeen aurka era guztietako indarkeria erabiltzen dute.

Beste erreklamazio batean pertsona-talde batek adierazi zigun zailtasun handiak izaten ari direla Madrilgo merkataritza-arloko epaitegi batean garatzen ari den lehia-prozedurarako aurkeztu beharreko agiriak konpultsatzeko. Erakunde honek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari iradoki zion pertsona horien eskura jar zitezkeela hartzekodunen lehiaketara aurkeztu behar dituzten agiriak doan konpultsatuko dizkieten giza baliabideak eta baliabide teknikoak. Eusko Jaurlaritzaren sail horrek adierazi zigunez, hasiera batean sailaren asmoa eskaerari behar bezala erantzutea zen; alabaina, agirien administrazio konpultsak dituen ondorio juridikoak aztertuta, eta pertsona horiei, lagundu ordez, kaltea eragin lekekeela ikusita, ezin izan zion eskaera onartu, beste alderdiek, prozedura judizialaren esparruan, zalantzan jar baitzezaketen konpultsaren baliozkotasuna, gure legeriarekin bat etorritik, administrazio publikoek egindako konpultsen ondorioak administrazioaren esparrura bertara mugatzen baitira eta ez baitute jatorrizko agiria egiazkotasuna.

### 16.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Erlijio zentro bat hauteskunde lokal gisa erabiltzea (496/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek adierazi du ez dagoela ados erlijio eraikin bat hauteskunde lokal gisa erabili izanarekin 2005ean izan ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Kexan dioenez, administrazio eskudunek ez zuten zaindu hark zegokion sufragiorako eskubidea askatasunez erabiltzea eta, kasu honetan, ez zen behar bezala bete Estatuaren eta erlijio sineskera desberdinen artean egon behar duen bereizketa.

- Azterketa

Erakunde honek euskal administrazio publikoen jarduera gainbegiratzeko aukera baino ez du. Horregatik, kasu honetan, gure jardute eremutik kanpo geratzen ziren bai

Hauteskunde Zentsuaren Bulegoa, Estatuko Administrazioari dagokiona, bai Estatuko beste erakunde batzuk ere, horien artean, hauteskunde administrazioa, hauteskundeen gardentasuna eta objektibotasuna eta berdintasun printzipioa bermatzeko eskudunak direnak. (Hauteskunde batzorde zentralak edo eskualdekoak eta hauteskunde mahaiak osatzen dute hauteskunde administrazioa).

Batzordearen ebazpenean aipatutako arauetan jasotzen denaren arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeak honakoa ezartzen du 38.1 artikuluan –Hauteskundeen Erregimen Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 25. artikuluekin bat etorriz–: hauteslekuak aukeratzea Hauteskunde Zentsuaren Bulegoaren ordezkarietzi dagokie, udalek eurek txostena egin ondoren.

Leku egokiak proposatzeko zeregin horretarako, udalek esparru juridiko zehatza dute –hauteskundeen arau osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretua–; bertan, hauteskundeei erabil daitezkeen lokalek bete beharreko baldintzak jasotzen dira. Araudi horren arabera, lehentasuna izango dute kulturara edo irakaskuntzara bideratuta dauden eta arkitektura-oztopoak ez dituzten eraikin publikoek. Hori ez da eragozpena, inguruabar jakin batzuetan, udalek titulartasun pribatuko beste eraikin batzuk proposa diezazkieten Hauteskunde Zentsuaren Bulegoaren kasuan kasuko ordezkarietzi.

Horren ildotik, hauteskundeei buruzko arauekin bat etorriz, onartzen da eraikin pribatuak erabiltzea, kasu honetan bezala, erlijioso ordena bati dagokion ikastetxea, baldin eta ezin bada lokal publikoen sarea ezarri hauteskundeak egiteko.

Ondoren zehaztu beharko genuke ea hauteskunde administrazioak sineskera jakin baten zentro pribatu bat aukeratzeak edo udalak hori proposatzeak ideologi edo erlijio askatasunerako eskubidea kalte dezakeen. Horretarako, Konstituzioaren 16.3 artikulua izan beharko genuke kontuan, Estatua ez-konfesional edo laikotzat jotzen baitu: *“Estatuari ez zaio inolako sineskerarik egotziko”*. Erlijio eta kultu askatasunerako oinarriko eskubidea Konstituzioan jasota dago eta erlijio askatasunerako uztailaren XX(e)ko 7/1980 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorriz erabiltzen da. Erlijio askatasunaren ondoriozko eskubideen erabilera gainerakoek beren askatasun publikoek baliatzeko duten eskubidearen babesak mugatzen du. Hori gorabehera, alderdi batzuk, besteak beste, ikastetxeetan, nola publiko hala pribatuetan, erlijio sinboloak erabiltzearena, oraindik arautu gabe dituzte Gorte Nagusiek, azken batean, hauei dagokielarik oinarriko eskubideen edukia garatzeko eskumena. Egungo ordenamendu juridikoan ere ez dago araurik erlijio sineskerako ikastetxe pribatuetan erlijio sinboloen erabilera zehaztu edo erregulatzen duenik administrazioek eginkizun publikoetarako hartzen dituztenean, hauteskundeei hauteskunde administrazioak egiten duen bezala.

Auzitegi Konstituzionalak bi konturen inguruan aztertu du Estatuaren erlijio neutraltasunaren printzipioaren edukia. Batetik, beharrezkoa dela Estatuaren eginkizunak eta erlijio eginkizunak bereiztea; eta, bestetik, Estatuaren eginkizunak erlijioarekiko neutraltasunez gauzatu behar direla. Ikuspegi horretatik, Estatuaren ez-konfesionaltasunak laikotasun positiboaren ideia barneratzen du, *“xede erlijiosoak eta Estatuaren xedeak nahastea galarazten duena”* (Auzitegi Konstituzionalaren 177/1996 Epaia). Hala ere, Auzitegi Konstituzionalaren iritziz, printzipio horrek ez du eragozten botere publikoek zeremonia erlijiosoetan parte hartzea, aipatu epaian irakur daitekeenez, baldin eta herritarrentzat horietara joatea edo horietan parte hartzea borondatezkoa dela bermatzen bada.

Horregatik guztiagatik, ezin ondoriozta dezakegu Estatuaren erlijio neutraltasunaren egungo edukiak zehatz-mehatz ezartzen duenik botere publikoak erlijio ekintzetan egon behar dutela, eta Auzitegi Konstituzionalak ere halaxe adierazi du. Nolanahi ere, jarduera publiko horiek erlijioan duten eraginak herritar bakoitzak bere erlijio askatasuna benetan eta modu eraginkorrean erabiltzen duela bermatu behar du, baina ezin du erlijioaren eremu horretatik kanpoko beste jarduera batzuekin lotuta egon. Hori dela eta, arrazoizkotzat jo daiteke printzipio horretatik zera ondorioztatzea: eremu pribatua alde batera utzita, zerbitzu eta eginkizun publikoak neutralki eta modu laikoan eskaini behar zaizkiela herritarrei.

Nolanahi ere, azpimarratu nahi dugu garrantzitsua dela, sufragiorako eskubidea erabiltzen den une horretan, ideologi eta erlijio askatasunerako eskubidea behar bezala mugatzea, Hauteskundearen Erregimen Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 5. artikulua dioen bezala, inor ezin baita inolako aitzakiarekin behartu edo hertsatu hauteskundeetan botoa ematera.

Hauteskunde administrazioa –Estatuko Administrazio Orokorriaren baitan dagoen organoa– arduratzen da hauteskundearen gardentasuna eta objektibotasuna eta berdintasun printzipioa zaintzeaz. Horren ildotik, Hauteskunde Batzorde Zentralak antzeko kontu bat ebatzi zuen; horren inguruan, honakoa adierazi zuen 2004ko ekainaren 9ko erabakiaren bidez: *“hautesleku gisa erabilitako ikastetxeek ez dute zertan desagerrarazi edo ezkutatu behar bertan egon ohi diren eta, hauteskunde kanpaina egiteko asmoz, hauteskunde egunean bertan nahita jarritakoak ez diren elementuak”*. Ondorioz, Hauteskunde Batzorde Zentralaren erabakiari jarraiki, sinbolo horiek ezin dira hauteskunde propagandatzat jo, beren konnotazio erlijiosoen kaltetan izan gabe.

- Emaizta

Ebazpen horren arabera, erlijio sinbolo bat egoteak ez du erlijio askatasunerako eskubidea kaltetzen (orobat, ikusi, hain zuzen ere, Frantziako Estatu Kontseiluaren ondorioa, belo islamikoaren ingurukoa; horren bidez, onartzen da espazio publikoetan erlijio sinbolo txikiak egotea).

Hauteskunde Batzordearen iritzia gorabehera, gure ustez, laiktasun positiboaren ideia –Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziatik eratorria– bestela erabili beharko litzateke; hala, kontu honetan eskumenak dituzten administrazioek –hots, Hauteskunde Zentsuaren Bulegoak eta, ordezkari gisa, tokiko administrazioek– ahalegina egin beharko lukete hauteslekuak gizalegezko tokiak izan daitezen eta horietan erlijio edo ideologia jakin batekin erlaziona daitekeen inolako elementu edo sinbororik egon ez dadin bermatzeko beharrezko bitarteko materialei dagokienez.

⇒ *Apostasia gauzatzeko zailtasunak (1115/2006)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu du eta bertan adierazi du zailtasunak egon direla Eliza Katolikoari zuzendutako eskaera izapidetzeko.

Laburbilduz, idazki horren bidez eskatu zuen beharrezkoa zen guztia egin zedila aurkeztu duen apostasia-egintza behar bezala gauza dadin.

- Azterketa

Kexarekin batera aurkeztutako agirien edukia aztertuta, ikusi ahal izan genuen erakunde honek ezin esku har zezakeela kontu horren inguruan.

Funtsean, gure eginkizuna euskal administrazio publikoen jarduera gainbegiratzeari da, ematen dituzten egintzak legeriari lotzen zaizkiola ziurtatzeko, baina ezin dugu erakunde pribatuen jarduera kontrolatu.

Ondorioz, helarazi zizkigun elementuak ikusita, esan beharra zegoen aurkeztutako kasua ezin egokitu zitekeela ordenamendu juridikoak onartzen digun eskumen eremura; hortaz, egindako gogoetetan oinarrituta, ezinezkoa zen jarduera zehatzari hasiera ematea.

Hala ere, kexa aurkeztu zuenari erantzuterakoan, adierazi genion kasuak kezka sortu zigula eta, hori dela eta, bere uziak aurrera eramateko egokitzat jotzen zituen erabakien kaltetan izan gabe, informazio gisa adierazi genion Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo zezakeela.

Kexa eragin zuen gaia, hasiera batean, erakunde horren arreta-aukeren barruan kokatu ahal izango litzateke eta horrek orientazioa eskaini ahal izango lioke bere interesak gauzatzeko moduari buruz. Hortaz, ondoren erakunde horrekin harremanetan jartzeko datuak eman genizkion.

- Eraitza

Egindako balorazioaren arabera, eta horiek kexa aurkeztu duenari helarazi ondoren, gure esku-hartzea eten genuen kontu honi zegokionez.

## **II. ATALA**

### GOMENDIO OROKORRAK





## 1. ADIN TARTEAREN GARRANTZIA ADOPTATZEKO EGOKITASUNA ERABAKITZERAKOAN

### 1. Belaunaldi arteko aldea adopzioan: joerak eta mugak

Adoptatzeko aukeran pentsatzen dutenean, pertsona gehienek, beren adina gorabehera, urte gutxi dituzten haurrengan jartzen dute gogoia, adopziozko familiarekiko lotura afektiboak albait lasterren era ditzaten. Orobat, familiaren hazteko ordena naturala errespetatzen ere nahi dute eta, horregatik, adoptatuak lehendik familiak izan ditzakeen seme-alabak baino gazteagoa izan behar du. Beste zenbait faktoreren artean, lehentasun horrek egin du, azken urteotan, nazioarteko adopzioak nabarmen gora egitea. Ondorioz, kasu hauetan dagoen belaunaldi arteko tartea guraso eta seme-alaben artean egon ohi zena baino handiagoa da eta zalantzak sortu dira horrek etorkizunean adingabearen garapen egokian izan dezakeen eraginaren inguruan.

Hortaz, logikoa da eztabaida sortzea ezaugarri jakin batzuk dituen adingabea adoptatzeko eskaera egin duen pertsona hain eginkizun garrantzitsua betetzeko egokia ote den baloratzerakoan adinaren faktoreak izan dezakeen garrantziaren inguruan. Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 25.2b) artikuluari jarraiki, foru aldundiei dagokie, ahal den neurrian, egokitasun hori bermatzeko eginkizuna. Horren helburua adingabearen interesa babestea da, horrek lehentasuna baitu beste edozein alderdiren aurrean. Hala ere, eztabaida sortzen da administrazioak, horren inguruan irizpide objektiboak izateko, mugak jartzen dizkionean adopzio-hartzaileak izan dezakeen gehieneko adinari edo honen eta adopziogaiaren adinen arteko aldeari, horiek gaindituz gero ezinezkoa baita egokitasuna lortzea.

Hainbatetan, Arartekoak foru aldundiengana jo du eta adierazi die familiako kideen adinek oso modu desberdinetan eragin dezakeela euren artean sortzen diren harremanetan, tartean diren gainerako inguruabar psikosozialen arabera. Horregatik, kome-nigarritzat jo genuen, horrek adingabearen garapenean duen eraginaren pronostikoa egiterakoan, adinaren faktorea adopzio eskatzaileen ezaugarri pertsonal guztiei buruzko iritzi banakatuaren esparruan baloratzea; horrela, gehieneko adin tartea ez gainditzea aldeko elementu gisa hartu beharko litzateke, eta ez ezinbesteko baldintza gisa.

2005eko maiatzaren 12an, hiru aldundiek hitzarmena egin zuten adopzioetarako egokitasun irizpideei buruz. Hitzarmen horrek zenbait aldaketa egin zituen, bere garaian oso onuragarritzat hartu genituenak. Hala ere, belaunaldi arteko aldeari dagokionez, foru administrazioen aukera elkarrekin muga jartzearena izan zen. Horrela, adin txikikoa adop-

tatu nahi duten pertsonak adopziogaiak baino 42 urte gehiago izango dituzte gehienez (bikotekide gazteenaren adina aintzat hartuta); adopziogaiak, gainera, seme edo alaba biologikoak edo aurretik adoptatutakoak baino gazteagoa izan behar du, familian seme-alaben ordena naturala alda ez dadin.

Batzuetan, betekizun horrek zuzenean eragozten du egokitasun ziurtagiriaren eskabidea tramitzeko onartzea. Beste batzuetan, eskabidea izapidetu arren, emaitza bera da, kasuan kasuko txosten psikosozialak, 42 urteko muga beren beregi aipatu gabe ere, adin tartea handiagoa izatea adingabearen garapenerako arriskutsua izan daitekeela iragartzen baitu. Horixe da, gainerako irizpide psikosozialak alde izan arren, arrazoi horrengatik adoptatzeko egokitasuna lortu ez duten hainbat pertsonak Arartekoari aurkeztu dizkioten kexen jatorria.

## 2. Adopzio-hartzaileen adinak adoptatuen garapenean duen eragina

Pronostiko negatibo horren oinarri gisa, Administrazioak, kasuan kasu egon daitezkeen gainerako inguruabarrak alde batera utzita, muga hori gainditzen duen belaunaldi arteko tarte orok dakartzan ondorio jakin batzuk hartu ditu: urteen poderioz pertsonen ahalmen fisikoak eta psikikoak lermatu egiten dira; desordena emozionalak pairatzeko arriskua du, belaunaldi arteko etenaren eta ulertezintasunaren ondorioz; eta haurra oraindik heldugabea izanik adopziozko gurasoak galtzeak bere guraso biologikoek bakarrik utzi zutenaren trauma ekar diezaioke berriz ere gogora.

Horretatik guztitik ondoriozta daiteke adina, noski, kontuan izan behar dela, baina inolaz ere ezin esan daitekeela denboraren joan-etorriak halabeharrez pertsona guztiengan eta familiako harreman guztietan eragin bera duenik. Hala ere, Administrazioak, arrazoibide hori bere eginda, *iuris et de iure* presuntzio bihurtzen du ezarritakoa baino adin tartea handiagoa izatea, beti eta inolako salbuespenik gabe, adopziogaia behar bezala garatzeko muga dela. Gure ustez, automatismo horren bitartez, segurtasun juridikoa lortu nahi da, eta hori zentzuzkoa iruditzen zaigu, baina uste dugu hori ez dela bateraezina adin tartea adopzioa eskatu duen familia bakoitzaren gainerako inguruabar zehatzekin batera aztertzearekin.

3/2005 Legearen zirriborroari buruzko eztabaidan agerian jarri ahal izan genuen bezala, onartu beharra dago, ikuspegi abstraktu eta orokorrean, adopziogaiaren eta adopzio-hartzaileen arteko adin tartea hiru aldundiek elkar hartuta ezarri duten gehieneko muga onargarria baino handiagoa ez izateak abantailak izan ditzakeela adopziogaiaren hezkuntza eta zaintzarako. Baina egia da baita ere, kasu askotan, lortutako heldutasunak, eta gurasotasuna hartzeko erabakia sakon hausnartu izanak esparru seguruagoa eta ego-kiagoa eskaintzen dutela adoptatuaren nortasuna erabat garatzen laguntzeko. Nolanahi ere, agerikoa da adin biologikoaren ondorioak guztiz desberdinak direla kasu batzuen eta besteen artean.

Bestalde, bistakoa da, gure gizartean, amatasun biologikoa nabarmen atzeratzen ari dela eta, beraz, sarri, gurasoen eta ondorengoen arteko adin tartea 42 urtetik gorakoa da, batez ere, bigarren edo hirugarren seme-alabarekiko. Hori guztia dela-eta, esan behar da zenbait egoeratan adopzio jakin bat egitearen abantailak tarte biologikoaren desabantailak gainditzen dituztela eta horrek zalantza egitea dakar aldundiek praktikan irizpide honi eskaintzen dioten erabateko lehentasunaren inguruan.

### 3. **Pil-pilean dagoen eztabaida**

Duela hiru urte, Senatuak hausnarketa sakona egin zuen horren inguruan, nazio-arteko adopzioaren problematikari buruz sakon eztabaidatzeko eraturako batzordearen esparruan. Gai horren inguruko hainbat adituk kontu zehatz horri dagokionez egindako ekarpenen artean, gehienek adierazi zuten komeni zela kasu bakoitzaren inguruabarrak banan-banan eta automatismorik gabe aztertzea, nahiz eta kontrako iritziak ere egon ziren. Madrilgo Erkidegoko Adingabearen Defendatzailearen ustez, adibidez, gehieneko adin tartea ezartzea justifikatuta dago haur abandonatuaren beharrak eta horiei ongien erantzuten dien famili ingurua izateko eskubidea beste edozeren gainetik jartzearen ikuspegitik begiraturaz gero, eta horrek beharrezkoa egiten du adopzio-hartzaileen egokitasuna ezartzen duten irizpideak teknikoki definitzea. Nolanahi ere, batzordearen bukaerako ondorioek eta gomendioek, Osokoak 2003ko abenduaren 10ean onartuek, defendatzen dugun malgutzearen ildotik jo zuten:

*“CONCLUSION 2ª: .....Se observa también la existencia de un gran debate social en el mundo de la adopción relacionado con la edad máxima de los adoptantes, puesto que las Comunidades Autónomas tienden a establecer límites de edad para la adopción de menores por personas de 40 años como máximo, cuando biológicamente se puede superar esa edad para ser padre o madre.*

*RECOMENDACIÓN 2.4: Revisión de los criterios por los que se establece el límite de edad de los solicitantes de adopción internacional en 40 años, en los casos en que éste sea de aplicación.”*

(GKAO, SENATUA, I. SERIEA, 2003KO ABENDUAREN 9KOA, 775 ZK.)

Honi dagokionez, argitu behar da, batzordearen aktetatik ondorioztatzen den bezala, bere lanetan aipaturako eztabaida sozialaren xede den 40 urteko mugak ez diola soilik adopzio-hartzailearen adinari eragiten, baizik eta baita horren eta adopziogaiaren arteko aldeari ere, eta, beraz, gomendio hori bi alderdiei buruzkoa dela ulertu behar da. Halaxe interpretatu du Balearretako Gobernuak famili harreraren, adopzioaren eta egokitasuna zehaztearen inguruko prozedurei buruzko apirilaren 21eko 40/2006 Dekretuan: zioen azalpenean berariaz adierazten du, gomendio horren ondorioz, egokitasunerako baldintza gisa ezabatu egin dela behin betiko testutik adopzioa eskatzen duenaren eta adopziogaiaren arteko belaunaldi tartearen gehieneko muga.

### 4. **Adingabearen eskubidea pertsona egokiak adoptatu dezan**

Zuzenbide zibilaren eremuan, eztabaida horri irtenbidea emateko, beharrezkoa da kontuan hartzea, adopzioaren arloko ikuspegi tradizionalarekin alderatuta, aldaketa gertatu dela, adingabea orain ez baita soilik babes behar duen objektu gisa ikusten, baizik eta eskubideak dituen subjektu gisa. Ikuspuntu horretatik abiatuta, Kode Zibilarren 175.1 artikulua ez du ez dagoen “adoptatzeko eskubidea” arautzen, baizik eta horretarako beharrezko gaitasuna. Beraz, horien aurreikuspenak hasiera batean ez dira oztopo Administrazioak adopzioa eskatzen dutenei egokitasun baldintza jakinak ezarri ahal izan diezazkien. Baldintza horiek jartzeak eskubidea badagoela adierazten du eta lehentasunezko arreta eskaini behar zaio, baita adingabeak duen eskubideari

ere, adopzioak bere garapenean eragin negatiborik ez izateko ardua botere publikoek beren gain har dezaten. Hala ere, Kode Zibilaren 176.1 artikulua zehazki ikuspegi horri egiten dio aipamena eta, bertan jasotzen denez, baldintza bakarra adopzio-hartzailea guraso ahalaz baliatzeko egokia izatea baino ez du ezartzen. Hortaz, kasuan kasuko egokitasun ziurtagiriak emateaz Administrazioak arduratu behar duen arren, egia da baita ere, eginkizun horiek betez, foru aldundiei ere ezin onar dakiekeela legeak baimentzen duena oztopatzea.

Estatu osoan gai hau, kudeaketaren alderdiei dagokienez, Erkidegoko arauak kudeatzen dutenez, arau horien eta Kode Zibilaren artean dagoen bateraezintasunari buruzko eztabaida arau hierarkiaren nahiz eskumenen ikuspuntutik aztertu da azken urteotan. Lehen horren adibide Gaztela eta Leongo prokuradore nagusiaren 2005eko txostena dugu:

*“La única limitación por razón de edad que establece dicho texto legal (se refiere al Código Civil) es que el adoptante sea mayor de veinticinco años y, en todo caso, que tenga al menos catorce años más que el adoptando, sin hacer mención a límite alguno más allá del cual se excluya la posibilidad de acceder a la adopción. Lo que excluiría la posibilidad de imponer tal limitación a través de una norma reglamentaria. Parecía, entonces, conveniente (aun cuando pudieran existir suficientes razones que justificaran la oportunidad de establecer una diferencia de edad máxima que imposibilite para la adopción) que tal circunstancia se efectuara a través de una modificación del Código Civil. Si mediante las importantes reformas legislativas producidas en materia de adopción (especialmente la llevada a cabo con la Ley 21/1987) se habían ido ampliando las personas que pueden acceder a este tipo de medida de protección a la infancia, no parecía posible que dicho acceso pudiera ser limitado a través de la normativa autonómica, vulnerando el principio de jerarquía normativa recogido en el art. 9.3 CE.”*

Ondorio bera atera du Gaztela-Mantxako Ekonomi eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, baina beste ikuspegi batetik, eskumen kontuetan jartzen baitu arreta. Adingabeen adopzioa arautzen duen dekretu proiektuari buruzko 8/2004 irizpenak, 2004ko irailaren 15ekoak, honakoa dio horren inguruan:

*“El hecho de que el artículo 176 (del Código Civil) no impida adoptar a los que tengan más de 45 años de diferencia de edad con el adoptado, ha de entenderse como opción legislativa que permite esta eventualidad, por lo que la Comunidad Autónoma no puede prohibirla con carácter general. No se trataría, sin embargo, de un problema de “jerarquía normativa” sino de una cuestión atinente al “principio de competencia”. Es cierto que el requisito de edad ha sido establecido en prácticamente todas las Comunidades Autónomas, pero si se examinan a fondo cada una de sus normas, en esas Comunidades no se ha configurado nunca como criterio que permita rechazar “a priori” las solicitudes de idoneidad. Es expresamente considerado “criterio de puntuación o baremación” de la solicitud de adopción en Andalucía, Baleares, Canarias, Cantabria, Castilla y León, Extremadura y*

*La Rioja. En Madrid, superar la edad máxima sólo significa que la solicitud de adopción no se priorice sobre otras. Y, en fin, aquellas Comunidades que parecen exigirlo como requisito de la solicitud, oponen, sin embargo, una excepción para el caso de menores con características especiales lo que significa, en la práctica, que dichas limitaciones no afectan a la solicitud de idoneidad sino a las de adopción que estarán condicionadas a que exista un menor de estas características para surtir sus efectos”.*

Eztabaidak jurisprudentzian ere izan du oihartzuna; bertako pronuntziamenduak arrazoi beragatik egokitasuna ukatuta zuten pertsonak auzitegieta egindako inpugnazioen ondorioz etorri dira. Hori dela-eta, eta bestela ezin izan zitekeen bezala, emandako epaie-tan, belausaldi arteko aldeaz gain, tartean diren gainerako faktoreek kasuan kasu hartzen duten garrantziak izan du eragina eta horrek, batzuetan, epaitzaren zentzua Administra-zioaren aldekoa izatea dakar eta beste batzuetan, berriz, errekurtsio-jartzaileen aldekoa izatea. Nolanahi ere, aniztasunaz haratago, ebazpen judizialek adingabearen interesaren edukian sakontzen dute; interes horrek, lehentasuna duenez, kasuan kasu bermatu egin behar den dimentsio bikoitza du: alde batetik, adopzio-hartzailearen egokitasuna azter-terakoan zorrotz jokatu beharri dagokiona; eta, bestetik, familia jakinik ez duen edota bakarrik nahiz instituzionalizazio egoeran dagoen adingabeari adopzioak berez dakarkion onura agerian jartzen duena. Baldintza horietan planteatzen du gaia Valentziako Probintzi Auzitegiak 2004-11-22an emandako bere epaian. Honek Lleidako Probintzi Auzite-giak 1999-03-19ko auto bidez emandakoetan eta Balearretako Probintzi Auzitegiaren 4. sekzioak 2002-06-06an emandakoetan ezartzen den ildoari jarraitzen dio:

*“A partir de la anterior situación de hecho, entiende la Sala que no cabe hacer de la idoneidad un concepto en tal forma estricto y excluyente que conduzca a condicionar y limitar la posibilidad de adopción de modo que, frustrando las respetables expectativas de los aspirantes a adoptar, vengan a la vez a producir un perjuicio en los menores susceptibles de ser adoptados, cuya situación de desamparo exige la adopción de un remedio”.*

Are gehiago, azpimarratu behar dugu pertsona baten gaitasunak soilik bere adin biologikoa aintzat hartuta mugatzea diskriminatzailea izan daitekeela. Egia da legeek, batzuetan, adinean oinarritutako baldintza zehatzak ezartzen dituztela, baina horren hel-burua zenbait eskubidez baliatzeko edo betebeharrak onartzeko beharrezko gaitasunak bermatzea da. Berdintasun printzipioarekin bat ez datorrena –eta, beraz, debekatuta dagoena– gehieneko adina ezartzea da eta horren gaineratik gaitasun hori desagertu egiten dela pentsatzea. Erakunde honek adinekoen eskubideei buruz egindako argitalpenaren izenburuak dioen bezala, *“eskubideak ez dira adinarekin iraungitzen”*. Horrela, adibidez, legeak 65 urtetan jartzen du erretiro adina, baina ez dugu ahaztu behar, adin horretan erretiro pentsio osoa jasotzea ahalbidetzen duen arren, ez dela muga lanerako gaitasunerako. Hori dela-eta, komeni da gogoraraztea Langileen Estatutuko 5. xedapen gehigarria, hasieran eman zen moduan, Konstituzioaren aurkakotzat hartu zela Auzitegi Konstituzionalaren osokoak uztailaren 2an eman zuen 22/1981 epaiaren bidez, 69 urtetik aurrera lan egiteko gaitasunik ez dagoela eta, ondorioz, lan kontratua zuzenean eta baldintzarik gabe iraungitzen dela ezartzen zuelako.

## 5. EAEko esparru legegilea

Gure autonomia-erkidegoan, adoptatzeko egokitasuna haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legearen bidez arautzen da. Adinari dago-kionez, honako baldintza hau ezartzen du:

*83. artikulua. 1.k) "Adopziogaiaren garapen egokirako mugapena izan daite-keen adinik ez edukitzea adoptatzaileak edo adoptatzaileek."*

Zehazki, hizpide dugun azterketa egin ahal izateko, legelariak erabaki zuen 3/2005 Legearen behin betiko testutik kentzea Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bidaliko zirriborroan jasotako baldintza; alegia, adopzio-hartzailearen eta adopziogaiaren arteko adin tartea muga jakin bat ez gaintzea, zirriborroaren arabera 40 urteen muga. Horrekin batera, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak egindako gomendioa erantsi zuen; kontseilu horrek 2003ko irailaren 10ean egindako txostenean, aipatutako legearen aurreproiektuaren inguruan, honakoa adierazi zuen muga horri buruz hitz egiterakoan:

*"Este Consejo sigue teniendo dudas acerca de la corrección técnica de tal previsión. La realidad nos demuestra que hoy la edad en que se llega a la paternidad o maternidad es cada vez más elevada, siendo normal encontrar a personas que son padres o madres por primera vez con 40 o más años, sin que razonablemente se entienda la razón por la que una persona cuya diferencia de edad con el adoptado/a sea superior a 40 años no puede desempeñar correctamente su función, siempre obviamente que reúna los demás requisitos de idoneidad"*

Egia da oraindik ez dela arauz garatu 3/2005 Euskal Legea. Baina bistakoa da, gehiegizko adin tartea adopziorako elementu kaltegarritzat hartzen duen arren, baldintza absolutu gisa gehieneko aldea jartzea saihestu nahi izan duela eta, beraz, kexa honen xede den egokitasuna ukatzeko horretan oinarritzea, gure iritziz, legean legelariak esan nahi izan ez duena jasotzen dela esatea bezala da.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek uste du beharrezkoa dela hiru foru aldundiei honako gomendio hau egitea:

## GOMENDIOA

Indarrak gabe utz dezatela adopzio-hartzaileak, gehienez, adopziogaiak baino 42 urte gehiago izan behar dituela dioen eskakizuna, adoptatzeko egokitasuna lortzeko baldintza gisa. Adin tartea adingabearen garapenean izan dezakeen eragina baloratze aldera, gomendatzen dugu belaunaldi arteko tartea ez dadila izan muga kronologiko absolu-tua, baizik eta kasuan kasu azter dadila, kasu bakoitzean aintzat hartu beharreko ezaugarri pertsonal eta familiakoen inguruko iritzi oso eta banakatuaren esparruan.

## 2. OINARRIZKO ERRENTAREN PRESTAZIOA ARAUTZEN DUEN APIRILAREN 20KO 198/1999 DEKRETUAN AIPATZEN DEN BIZIKIDETZAKO UNITATE EKONOMIKO INDEPENDENTEA BERRIKUSTEKO BEHARRA

### 1. Sarrera

Maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, gizarte bazterkeriaren aurkakoak, premia-egoerak aztertzea eta baliabide gutxien dituzten pertsonen laguntzea du helburu, bazterkeria-egoerak saihestu edo gizarteratzen laguntze aldera, kasuaren arabera. Horrela, pertsona horien egoera ez da eragozpena izango herritar gisa dagozkien eskubideak erabiltzeko. Ildo horretatik, legeak bazterkeriaren aurkako tresnak ezartzen ditu: batetik, lankidetzak-hitzarmenak eta, bestetik, prestazio ekonomikoak. Azken hauek bi motatakoak dira: bata, oinarrizko errenta (lehen, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera), oinarrizko biziraupen gastuak estaltzera bideratua; eta bestetik, gizarte behar larrietarako laguntzak, gastu zehatzak estaltzera zuzenduak, nahiz eta gehienak etxebizitzaren alokairu gastuak ordaintzeko erabiltzen hasi diren.

Laguntza horiek eskuratzeko, elkarren artean erlazionatuta dauden funtsezko bi kontzeptu daude: bizikidetzako unitate ekonomiko independentearena eta etxebizitza edo ostatu independentearena.

**Bizikidetzako unitate ekonomiko independentea** lege horren 3. artikuluan jasotzen da eta oinarrizko errenta erregulatzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 4. artikuluan garatzen da. Dekretu horren arabera, bizikidetzako unitate ekonomiko independentetzat hartuko dira etxebizitza edo bizilekua baduten eta honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak edo pertsona-taldeak:

- a) Bakarrik bizi badira
- b) Famili loturak direla medio elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago (famili loturatzat hartzen dira ezkondata egotea edo ezkondata egotearen antzeko beste harremanen bat izatea, adoptatua izatea, 4. mailara arteko odol ahaidetasuna izatea edo 2. mailara arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea).
- c) famili loturarik izan gabe, ezinbesteko beharragatik elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago.

Hala ere, arauak salbuespenezko egoera batzuk ere jasotzen ditu (4.2 art.), besteak beste, honakoak:

- a) Tratu txarrak jasatearen ondorioz ohiko bizilekua abandonatu eta beren senideekin bizitzera joan behar izan duten pertsonak.
- b) Ardurapean adingabeak dituzten pertsonak, senideekin bizi direnean.
- c) Muturreko premia-egoera dela medio, famili loturarik ez dutenek hartu dituzten pertsonak, baldin eta kontraprestazio ekonomikorik jasotzen ez badute.

Bizikidetzako unitate ekonomiko independente hauek esparru fisiko batean bizi behar dute, hots, **etxebizitzan edo bizilekuan**, 198/1999 Dekretuaren 5. artikuluari jarraiki. Etxebizitza edo bizilekua independentea edo kolektiboa izan daiteke:

- independentea denean, etxebizitza edo bizileku hori honela hartuta egon daiteke: a) jabetzan, b) errentan edo lagapenean, edo c) errentan edo azpierrean (etxebizitzako zati bati dagokionez, adibidez, logela, ostatze edo apopilotza kontratuaren bidez).
- kolektiboa denean, etxebizitza baten zati batean hartzen da bizilekua, esate baterako, gela batean (ohikoena). Gela hori honakoetakoren batean har daiteke: a) ostalaritzan (pentsioa, kanpina...), edo b) aldi baterako harrera-zentroetan (aterpetxeak, egoitzak...). Baina bizileku mota hau (logela) etxe partikularretan ere har daiteke, alokairuan, azpierrean edo ostatatze edo apopilotza kontratuen bidez. Arauak multzo honetan barneratzen du baita ere errentan batera hartzea; hau da, beharrak bultzatuta eta euren artean famili loturarik egon gabe zenbait pertsonak alokairua elkarbanatzea.

Hasieran aipatu dugun moduan, gizarte bazterkeriaren legea premia-egoera guztiei erantzuteko asmoz sortu zen. Hala ere, azken urteotan bizirauteko bitartekorik ez duten pertsonen kasuak ezagutu ditugu, lege horretan ezarritako prestazio ekonomikoak ukatu zitzaizkielako. Horren arrazoia bizikidetzako unitate ekonomiko independentea kontuan hartzea izan da, arestian aipatu bezala, etxebizitza edo bizileku independenteari lotuta baitago. Gainera, ikusi ahal izan dugu lurralde historiko bakoitzean desberdin aplikatzen dela eta, beraz, inguruabar berdinetan dagoen pertsona batek lurralde historiko batean laguntza lortzea eta beste batean, berriz, ez.

Lurralde disfuntzio horren berri eman nahi izan da; hori administrazioen arteko kasuan kasuko foroetan aztertu beharko litzateke, bizitokiak prestazioa lortzea edo ez lortzea baldintza ez dezan.

## 2. Azterketa

Etxebizitza-eskasia eta horien prezio altua benetako arazoa dira baliabide ekonomikorik ez duten pertsonentzat. Hori dela eta, bizileku merkea bilatzera eraman ditu, etxebizitza partekatuta edo gela alokatuta, besteak beste.

Etxebizitza partekatzen denean, hainbat pertsonak egin dezakete, baita familiek ere, euren artean famili loturarik egon ala ez. Beren egoerak ez du zertan berdina izan behar, batzuek lanetik datozen diru-sarrerak izan baititzakete eta beste batzuk, berriz, inolako baliabiderik gabe egon baitaitezke. Etxebizitza partekatzea bizilekua izateko modu bat baino ez da, merkeagoa delako, gastuak –nagusiki, alokairua, ura eta argia– banatu egiten baitira, diru-sarrerak guztiontzat izan ez arren. Beste batzuetan, logelaren prezioa ordaintzen da eta eremu komunak partekatzen dira, adibidez, sukaldea. Hainbat modu daude, baita egoerak ere.

Beste batzuetan, jada independizatuta zeuden pertsonak, aldi baterako arazoa dela medio (banantzea, etxea utzaraztea...) eta etxebizitza-beharrak bultzatuta, berriz ere beren senideekin bizi behar dute, bizileku independenteak eragindako gastuei aurre egin ezin dietelako.

Gerta daiteke, halaber, famili nukleoek ere etxebizitza partekatzea, unitate ekonomiko desberdinak izan arren.



Kasuistika oso desberdina den arren, bi egoera zehatzetan jarri nahi dugu arreta. Biek bizikidetzako unitate ekonomiko independentearekin eta etxebizitzaren arazoarekin dute zerikusia. Honako hauek dira:

- A) Zenbait egoeratan, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea aldatzea, seme-alabak adinez nagusi egiten direnean.
- B) Bizikidetzako unitate ekonomiko independentearen taxutzea, etxebizitza batean logela alokatzen denean, bertan jabea bizitzen egon gabe.
- C) Ondoren, labur-labur, bizilekua eskuratzeko zailtasunarekin erlazionatuta dauden beste egoera batzuk aipatuko ditugu.

**A) *Zenbait egoeratan, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea aldatzea, seme-alabak adinez nagusi egiten direnean: ondorioak***

Lehen egoerari dagokionez, bizikidetzako unitate ekonomiko independentearen salbuespenezko kasuetako bat aipatu nahi dugu, oinarritzko errenta erregulatzan duen 198/1999 Dekretuaren 4.2.b) artikuluan jasotakoa. Agindu horren arabera, salbuespen gisa, bizikidetzako unitate ekonomiko independentetzat hartuko dira bakarrik dauden pertsonak edota ezkondata dauden edo ezkondata egotearen antzeko lotura egonkorra duten pertsonak, baldin eta adingabeak ardurapean badituzte eta ahaideren batekin bizi badira (arestian aipatutakoarekin bat etorritz).

Horixe gertatzen da, adibidez, adin txikiko seme-alabak dituzten bikote gazteekin edo guraso bakarreko familiekin, adingabe horiek gurasoen etxean edo bietako baten senideren batekin bizi badira. Familia horiek bizikidetzako unitate ekonomiko independentea osatzen dute eta, hala, oinarritzko errenta jasotzea ahalbidetzen diote, premia-egoeran baldin badaude. Hala ere, seme-alabak adinez nagusi egiten direnean, bizikidetzako unitate ekonomiko independente horretatik kanpo geratzen dira eta, beraz, gazteenak 18 urte betetzen dituenean, familia horrek bizikidetzako unitate ekonomiko independente bakarra izateari uzten dio eta etxebizitzan bizi diren kide guztiekin famili unitatea osatzen du.

Familia oinarritzko errenta jasotzen ari bazen, une horretatik aurrera, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea aldatzen denean, kide guztien diru-sarrerak zenbatu beharko dira. Normalki, gainerako kideek (gurasoek edo anaiek) badutenez diru-sarreraren bat (soldata, pentsioa, etab.), egoera berriaren ondorioz, askotan, familiak ordura arte jasotzen zituen laguntzak galtzen ditu, eta hori seme-alabek diru-sarrerak dituzten edo oraindik heziketa-garaian dauden aintzat hartu gabe.

Halaxe gertatu zaio pentsioduna den amarekin bizi eta adin txikiko semea zuen emakumeari. Emakume horrek oinarritzko errenta jasotzen zuen, berak eta bere semeak bizikidetzako unitate ekonomiko independentea osatzen zutelako eta diru-sarrerak urriak zirelako. Hala ere, semeak 18 urte bete zituenean, arauaren salbuespen egoera desagertu egin zen eta etxe berean bizi diren hiru pertsonak barneratu ziren bizikidetzako unitate ekonomiko independentean. Horren ondorioz, amonaren pentsioa ere kontuan hartu zen eta, diru-sarreraren muga gaindituta, oinarritzko errenta jasotzeari utzi zioten. Familiaren beraren diru-sarrerak ez ziren gehitu, semea oraindik ikasten ari baitzen. Hala ere, balibideak murriztu egin ziren, laguntza desagertu baitzen.

Arauk ez du kontuan hartzen legearen arabera adin nagusitasunera heldu den gaztearen egoera, bereziki, ikasketak amaitu dituen ala ez eta, horren ildotik, lana lortzeko arrazoizko egoeran dagoen ala ez.

Gaur egun, oso ohikoa da, 18 urte betetzean, oraindik ikasketak amaitu ez izatea eta oraindik familiaren menpe egotea ekonomikoki. Kasu horietan, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea aldatzeak ondorio negatiboak ditu familiarekin, eta larriagotu egiten dira familia guraso bakarrekoa denean.

Ardurapean adingabeak dituzten pertsonak bizikidetzako unitate ekonomiko independente propioa era zezaketela barneratu zenean, helburua adingabe horiek babestea zen, etxebizitzan famili unitate bat baino gehiago egoteak kalte ez zitzaizkien. Neurri horrek bereziki baliabide ekonomiko gutxiago zituztenen artean ohikoa zen gizarte errealitateari erantzuten zion, etxebizitzaren garestitasunak eragindakoa; gaur egun, ordea, arazo hori are larriagoa da.

Bestalde, egun gazteek 18 urtetik aurrera ere ikasten jarraitzen dute maiz. Are gehiago, heziketa sendoa bultzatzen da, lan merkatuaren eskakizunei aurre egin ahal izateko.

Inguruabar horietan –alegia, 18 urteko gaztea oraindik ikasten ari denetan–, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea aldatzeak eragin negatiboa du gazteen etorkizuneko prestakuntza-aukeretan. Horrela, gazte horientzat etorkizuneko aukerak nabarmen murrizten dira, gizarte laguntzen menpe ez dauden familietako seme-alabekin alderatuta. Kasu askotan, gerta daiteke gazteak ikasten jarraitu ezin izatea eta horrek bere gizarte aurrerapena gelditzea.

Hori guztia ikusita, zalantza egiten dugu ea bidezkoa den beti eta nahitaez 18 urteko adina izatea bizikidetzako unitate ekonomiko independentean egon ahal izateko muga-adina, 198/1999 Dekretuaren 4.2.b) artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Beste arau batzuetako adin muga aztertuta, ikus dezakegu, batzuetan, gurasoekiko menpekotasun ekonomikoa dagoen adina 21 edo 22 urtera arte luzatzen dela. Adibide gisa, honakoak aipa ditzakegu:

- familia ugarien kasuan, 21 urte baino gutxiagoko seme-alabak barneratzen dira (edo 25 urte baino gutxiagokoak, ikasten ari badira), baita lanerako ezintasunen bat duten seme-alabak ere, beren adina edozein izanda (azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 3. artikulua).
- Gizarte Segurantzaren zurtasun pentsioak 22 urtera arte jaso daitezke, edo 24 urtera arte zurtasuna erabatekoa bada (urriaren 31ko 1647/1997 Errege Dekretuaren 9.2 art.).
- Europar Batasuneko estatu kideetatik edo Europako Ereku Ekonomikoari buruzko Akordioan parte diren beste estatu batzuetatik datozen pertsonak eta beren senideak Espainian sartzea eta geratzea erregulatzen duen arautegiak (otsailaren 14ko 178/2003 Errege Dekretuak) 21 urtetan jartzen du muga hori, edo gehiagotan seme edo alabak beren ardurapean jarraitzen badu.
- elikadura-pentsioak epe bidezko banantzeetan.

Aurreko guztiak pentsarazten digu komenigarria litzatekeela oinarritzko errenta erregulatzen duen dekretuaren 4.2.b) artikuluan ezartzen den bizikidetzako unitate ekonomiko independentea seme-alabek 18 urte betetzen dituztenetik 21 edo 22 betetzen

dituzten arte luza daitekeela, beren adinarekin bat datozen ikasketak egiten ari badira eta aprobetxamendu maila onargarria erakusten badute.

Ezin ahatz dezakegu era horretako familia asko emakume baten ardurapean daudela eta emakumeek gizonen baino egoera kaskarragoa dutela lan merkatuan eta soldata baxuagoak dituztela. Horregatik, eta bereziki kasu horietan, laguntza horiek kendu edo ezabatzen direnean, gerta daiteke gazteak heziketa-prozesua eten behar izatea eta aukera gutxiago izatea enplegu duina eskuratzeko. Alderantziz, diru-sarrerarik ez duten guraso bakarreko familietan esku hartzeak etorkizunean lan ezegonkortasuneko egoerak sortzea edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan egotea ekidin dezake.

Berriki egindako azterlanetan –adibidez, Gizarte Azterlanak bilduman, “Monoparentalidad e infancia” izenburupean argitaratutakoan (La Caixa Fundazioa, Bartzelona, 2005)–, guraso bakarreko familietan pobrezian geratzeko arriskua handiagoa dela ikus daiteke. Lluís Flaquer, Elisabet Almeda eta Lara Navarro-Varas ikerlariek egindako azterlan honetan, egoera horrek adingabeentzat dituen ondorioak diagnostikatu dira. Horrela, hiru ikerlari horientzat, guraso bakarrek eta honen seme-alabek osatzen dituzten famili nukleoak larraldi egoerak pobrezian geratzeko arriskua adingabe horiengana igarotzea eragin du; izan ere, familien aldeko prestazio eta zerbitzuetan egiten den gizarte gastua oso txikia da eta horrek bereziki egoera ahulenean daudenei eragiten die.

Azterlan hau gizarte garaikide aurreratuetan haurrek bizi duten pobrezia-egoeraren inguruko eztabaidan kokatzen da; ikerketen arabera, arazoa larriagotu egin da azken urteotan. Europako adierazleek erakusten dutenez, pobrezia-maila altuagoa da guraso bakarreko familietan, seme-alabak ardurapean dituzten beste unitate batzuetan baino.

Haurren pobrezia haztearen arrazoietako bat ongizate sistemetan berrikuntza gutxi egin izana da, famili antolakuntzan gertatutako aldaketei erantzuteko. Diotenez, garai bateko klase sozialari lotutako arriskuez gain, haurrengan ere eragina dutenak, kontuan hartu behar dira, orobat, familiak eratzeari lotutako arrisku berriak:

*“Batetik, gure gizarteko belaunaldi gazteen artean diru-sarrera bikoitzak dituen familiaren eredia ezartzen doanez, emakumeen hezkuntza-maila eta autorrealizaziorako gogo handitu egin direlako, eta, bestetik, kontsumitzeko eta ongizate materiala izateko nahiz horiek inoiz erakundeen oniritzia izango dutelako aukerak gehitu egin direnez, sostengatzaile bakarreko familietan, bereziki, hori emakumezkoa bada eta diru-sarrera baxuak baldin baditu, arrisku handiagoa dago diruz estu ibiltzeko.*

*Hori dela eta, seme-alabak ardurapean zituzten familia ugariak izaten ziren arren tradizioz pobrezia-maila handiekin erlazionatuta zeudenak, horiek, herrialde askotan, guraso bakarreko familiei uzten ari zataizkie lekua; izan ere, hauek, sostengatzaile bakarra dutenez, beste familia batzuek dutena baino pobrezia-arrisku handiagoa duye. Horrez gain, guraso bakarreko familia gehienetan burua emakumea da eta, bai Espainian bai beste herrialde askotan, horien langabezia-tasak, behin-behinekotasun tasak eta lan ezegonkortasunarenak gizonekoei dagozkienak baino handiagoak dira eta soldatak, berriz, txikiagoak –Espainian gizon eta emakumeen arteko soldata-arraila ELGAko altuenetakoa da–; hori guztia dela eta, pobrezian jausteko dituzten aukerak, bai eurek bai beren semeek, handiagoak dira”.*

Azterlana oso interesgarria da, ELGAko herrialdeak barneratzen baititu eta garbi uzten baitu familien aldekoak diren Europako hegoaldeko herrialdeetan (Portugal, Espainia, Italia eta Grezia), familien ekarpena funtsezkoa den arren ongizatea sortzeko, Estatuak ere oso gutxitan esku hartzen dutela haurren pobrezia aurre egiteko, bereziki, helduen pobrezian jartzen baitute arreta. Bestalde, esku-hartze publikoak haurren pobrezia handiagoa edo txikiagoa izatea zehaztuko du.

Gure inguruan ere antzematen da errealitate hori. EAEko pobrezia eta gizarte desberdintasunei buruzko 2004ko inkestak guraso bakarreko familiak aipatzen ditu pobrezia gehien kaltetutako taldeen artean.

Are berriagoa da Trinidad L. Vicente Torradok eta Raquel Royo Prietok egindako ikerketa: “Mujeres al frente de familias monoparentales” (Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideak, 2006). Bertan, EAEn bizi diren emakumeei egin zaie elkarrizketa eta, beste hainbat ikerketak bezala, ondorioztatzen du guraso bakarreko familiak gizarte sektore ahulenetako bat direla pobrezia eta gizarte bazterkeriaren aurrean: *“guraso bakarria izateak familiaren diru-sarrerak txikiagoak izatea dakar, bi bizikide dituzten familiei dagozkienekin alderatuta”*. Zera aipatzen dute: *“hori laboratzen duten faktoreen artean, honako hauek daude: izan ohi dituzten lanpostuetan soldata baxua da; bikote ohiak ez du ordaintzen seme-alaben alde nahitaez eman behar duen elikadura-pentsioa –oraingoz, ez dago inolako sistema publikorik pensioak bermatzeko–, diru-sareren zati handi bat etxebizitzarako bideratzen da eta kasu askotan gizarte estaldura txikia dago”*.

Azken batean, uste dugu 198/1999 Dekretuaren 4.2.b) artikulua egun idatzita dagoen modua are kalte handiagoa egiten duela emakume bat buru duten guraso bakarreko familien kasuan beste kasu batzuetan baino, haiek egoera ahulagoan baitaude, eta adin muga berriro aztertu beharko litzatekeela aipatu inguruabarrak daudenean.

## **B) Bizikidetzako unitate ekonomiko independentearen taxutzea, etxebizitza batean logela alokatzen denean, bertan jabea bizitzen egon gabe**

Egoera honek ere bizileku merkea behar izateari erantzuten dio. Egoera honetan, pertsona batek logela alokatzen du etxebizitza batean eta espazio komunak partekatzen ditu, besteak beste, sukaldea. Egoera honetan, banakako kontratua dago, logela desberdinak alokatuta dituzten pertsonak ez baitute inolako zerikusirik elkarren artean. Une desberdinetan iritsi dira eta beren lan egoera eta egoera ekonomikoa ere oso desberdina izan daiteke; zenbait kasutan, guztiak daude baliabiderik gabe eta besteetan, berriz, batzuk bakarrik. Alokairu hori eurentzat aurkitu duten egokiena delako onartu dute. Pertsona horietako batek edo batek baino gehiagok gizarte laguntzak eskatzen badituzte, erantzuna ez da homogeneoa autonomi erkidego guztian. Batzuetan, administrazioak bizikidetzako unitate ekonomiko independentetzat hartzen du logela alokatzeko kontratuaren titularrak, baina beste batzuetan, berriz, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea etxebizitzan dauden guztiek osatzen dutela esaten da. Azken kasu horretan, horietako batek laguntza jasotzeko aukera gainerako guztien diru-sareren arabera dago. Hortaz, horietako batek laguntza eskatu nahi badu, gainerakoek diru-sarrerak justifikatu beharko ditu, baina ez ditu pertsona horiek ezagutzen eta, beraz, hori egitea oso zaila edo ezinezkoa izango da. Ondorioz, guztiak bizikidetzako unitate ekonomiko

independentetzat hartzea oztopo handia da laguntzak behar dituenak horiek eskuratu ahal izateko.

Halako egoera baten aurrean araua modu desberdinetara aplikatzen zela ikusita eta, beraz, noski, ondorio desberdinak zituela, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari horren berri ematea erabaki genuen, berari baitagokio oinarritzko errentaren arloko arauen eskumena. 2005ean, autonomi erkidego osorako 198/1999 Dekretua aplikatzeko irizpideak argi zitzala eta horren interpretazio homogeneoa eman zezala eskatu zitzaion, segurtasun juridikoa eskaintze aldera. Sailak bere iritzia eman zigun bizikidetzako unitate ekonomiko independenteari eta etxebizitzari buruzko txostenaren bidez; txosten hori oinarritzko errenta erregulatzen duen dekretuan jasotakoari lotzen zitzaion. Aurkeztutako gai zehatzari zegokionez, sailaren ustez, etxebizitzan bizi ziren pertsona guztiek bizikidetzako unitate ekonomiko independente bakarra osatzen zuten. Hala ere, interpretazio irizpidea bateratzeko beharra ikusita, Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordearen bilerak aipatu zituen. Azaldu zigunez, gai honi lehenasuna emango zitzaion: *“Horrela, arau bat aplikatzerakoan interpretazio desberdinak egon diren beste kasu batzuetan egin izan den bezala, hartzen den erabakia prozedurak bateratzeko erabiltzen den eskuliburuan jasoko da”*. Erantzun hori 2006ko urtarrilaren 13koa da.

Sail horren aldetik beste berririk jaso ez genuenez, apirilaren 5ean beste idazki bat bidali genion eta horren bidez galdetu genuen ea, adierazi zitzaigun moduan, gaia jada aztertu zen erakunde arteko batzordean, irizpideak bateratze aldera. Berriz ere gure kezka adierazi genion, erabaki horrek zenbait pertsona kaltetzen zituelako eta horiek erakunde honetara jo zutelako. Pertsona horiek etxebizitza batean logela alokairuan zuten, hori zelako bizilekua izateko zuten aukera bakarra. Kontratua egiteko orduan, ezin jakin zezaketen jabea etxebizitzan bizi zen ala ez eta, beraz, ez zekiten zein ondorio izan zezakeen horrek eurentzat. Noski, jabea etxebizitzan bizi ez bazen, pertsona hori laguntzarik gabe gera zitekeen (lurralde historikoaren arabera), bizikidetzako unitate ekonomiko independentea osatzen ez zuelako. Hortaz, gure ustez, administrazioak pertsona horiei jasanarazten dizkie inolaz ere alda ezin dezaketen edo kontrolatu ezin dezaketen egoera batek (hau da, jabea etxebizitzan bizitzeak ala ez bizitzeak edo eman zaion kalifikazioak) dituen ondorio negatiboak; alderdi horiek, gainera, funtsezkoak dira gai honetan.

Gaineratu genuen, bizilekuaren inguruko arazoez eta horien prezio altuek bultzatuta, zenbait pertsonak inondik ezagutzen ez dituzten pertsonekin partekatu behar izaten dutela etxebizitza –horixe gertatzen da logelak alokairuan hartzen direnean, baina ez orduan bakarrik–. Era berean, bizilekua hartzeko modu berri horiek beste bide batzuetatik ase-bete ezin daitekeen eskaera estaltzen dute eta oso ekonomia xumeetarako eskuragarria den bizileku baten beharrari erantzuten diote. Formula horretara jotzen dutenak beste bizilekurik aurkitu ezin izan duten pertsonak izaten dira eta, kasu askotan, logela hartu ezean, kalera jo beharko lukete. Horregatik guztiagatik, adierazi genuen komenigarria litzatekeela, laguntzen ondorioetarako, moduren bat jartzea bizileku mota horien beharrei erantzuteko; izan ere, bizileku mota hori errealitatearen parte da, tradizionalki ezagunak diren ereduak ez dagokien arren.

Ondorio gisa, iruditu zitzaigun, batetik, araua aplikatzeko irizpideak bateratu egin behar zirela autonomi erkidego osoan eta, bestetik, aipatu egoeretan dauden pertsonen beharrei erantzuteko modua aztertu behar zela. Horren guztiaren ondorioz, berriz ere horren inguruko informazioa jaso zain geratu ginen.

Denborak aurrera egin arren, ez genuen jakin Erakunde Arteko Batzordea bildu ote zen, gaia aztertu ote zen eta, hala izanez gero, zein emaitza izan zuen. Horregatik, abuztuaren 8an beste idazki bat bidali genion sailari, horren inguruko informazioa eman ziezagun. Urriaren 5ean erantzun zigun eta adierazi zigun gai hori batzordeak irailaren 28an egin zuen bilerako aztergaien zerrendan jaso zela. Honakoa erantsi zen: *“gai horren inguruko hausnarketa egiten ari gara eta, behin ondorio egokiak izatean, atsegin handiz jarriko ditugu zuen eskura”*. Ez dugu horren inguruko beste berririk izan.

\* \* \*

Gure ustez, beharrezkoa da logela alokairuan hartuta eta jabea bertan izan gabe biziuzaren gai hori aztertzea, neurriak izan behar dituen zerga-ondorioen nahiz beste administrazio maila batekoen kaltetan izan gabe.

Ohartzen gara zenbaitzuek dituzten premia-egoerek oso jokabide etikoak ez izatera edo iruzur egitera bultzatzen dituztela beste batzuk, halako egoeretan aparteko diru-sarrerak lortzeko aukera ikusten baitute. Halaxe gertatzen da azaldu berri dugun kasuan, baina baita beste batzuetan ere, esaterako: etxebizitzaren jabeak baimenik eman gabe edo ezer jakin gabe logela azpierreantean ematea; hitzez eta kontratu edo beste inolako agiririk gabe logela azpierreantean ematea; etxebizitzan benetan bizi den pertsonak udal helbide horretan erroldatzeko oztopoak aurkitzea; pertsonak eta familiak bizileku bakarrean pilatzea; etab. Egoera horiei erantzuna eman behar diete administrazioek.

Azken batean, gomendio honen bidez agerian utzi nahi duguna da pertsona horiek egoera ahulean daudela, etxebizitza behar dutela eta babesik ez dutela eta horregatik onartzen dituztela baldintza horiek. Hortaz, uste dugu pertsona horiek jasaten dituzten iruzurraren eta abusuaren aurka borroka egiteko edozein neurrik kontuan hartu behar duela errealitate hori.

### C) **Beste egoera batzuk**

Azkenik, badira beste egoera batzuk ere, hala nola, famili banantzeagatik edo etxebizitza ezin ordaintzeagatik bizi ziren etxebizitza abandonatu behar duten pertsonena. Lanik ez badute, aldi baterako egoera kritikoan daude, etxebizitzarik eta diru-sarrerarik ez dutelako, eta, beraz, beren gurasoen edo gertuko beste ahaide batzuen etxera joan ohi dira bizitzera. Ardurapean adingaberik ez badute, ez dira bizikidetzako unitate ekonomiko independentetzat hartzen eta, beraz, ziurrenik, ezingo dituzte laguntzak eskuratu. Arautegiak ez du inolako laguntzarik aurreikusten pertsona horientzat, ezta aldi baterako ere beren egoera berriari aurre egin ahal izateko, eta, horrenbestez, beren familiaren borondate eta ahalmen ekonomikoaren menpe egongo dira.

## 3. **Deskribatutako egoeren ondorio negatiboak**

Deskribatutako egoera guztiek ondorio negatiboak izan ditzakete kasuan kasuko pertsonengan. Honakoak aipa ditzakegu:

- a) Heziketa-prozesua etetea eta baztertuta geratzeko arriskua: 18 urtetik gorako seme-alabak ardurapean dituzten guraso bakarreko familiek, laguntzak jasotzeari utziz gero, zailtasun handiak dituzte beren seme-alaben heziketa-prozesuaren jarraipena ahalbidetzeko.
- b) Babesik ez izatea. Batzuetan, egoera ahulenean dauden pertsonak ez dute administrazioaren laguntzarik jasotzen errentamendu, bizileku edo azpierrentamendu kontraturik formalizatu ezin dutelako edo erroldatu ezin dutelako, beste alderdiak ezartzen dituen baldintzengatik. Logela alokairuan hartzeko kontratua izaten da aukera bakarra eta baldintza guztiak onartu behar izaten dituzte, baita ez erroldatzearena ere. Pertsona horientzat garrantzitsuena bizitokia izatea da eta hori laguntzak jasotzearen gainetik jartzen dute.
- c) Gizareratze prozesuan zailtasunak izatea: Baliabide ekonomikorik ez duten eta bizilekua eskuratu ezin duten pertsonak elkarteek kudeatzen dituzten harreara-zentroetara jo behar izaten dute eta, hala, besteak beste, alkoholaren edo substantzia estupefazianteen kontsumoarekin arazoak dituzten edo patologia duala duten pertsonak ezagutzen dituzte. Horren ondorioz, gizarte bazterkeriako egoera larriagoekin identifika dezakete euren egoera eta horrek ez du faboratzen beren gizareratzea.
- d) Baztertuta geratzeko arriskua dakarren beste arrazoi bat: alokairua ezin ordaintzeagatik edo banantzeagatik beren etxea utzi behar izan duten eta berriz ere familiaren babesa bilatzen duten pertsonak babesa behar dute, aldi batez bada ere, beren egoera gaintzeko. Halako kasuetan, laguntzak bazterkeria larriko egoerei aurrea har diezaieke, familiarekiko mendekotasun egoera berriak sortzen dituen zailtasunengatik.

Laburbilduz, esan dezakegu gizarte egoera ahulagoan dauden pertsonak babesik gabe geratzeko arriskua dagoela, eskakizun horiek bete ezin dituztelako, eta, ondorioz, bere egoera larriagotu egiten da. Paradoxikoki, zailtasun handienak dituzten pertsonak dira laguntza horiek eskuratu ezin ditzaketenak. Bete ezin ditzaketen eskakizunek alokairu, azpierrentamendu edo apopilotza kontratuaren titulartasunarekin eta etxebizitza edo bizileku motarekin dute zerikusia. Baina, une honetan, etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunak direla medio, pertsona askorentzat, modu bakarra etxebizitza alokairuan partekatzea edo etxebizitza batean logela bat alokatzea izaten da eta, batzuetan, jabea edo errentatzailea bertan bizitzen egon gabe (alderdi hau pertsona horien eragin eremutik kanpo dago), edo, bestela, berriz ere familiaren bizilekura itzultzea. Horregatik, gure ustez, beharrezkoa da arauak berriro aztertzea eta biztanle talde batek bizilekua eskuratzeko duen zailtasuna kontuan hartzea. Horrela, bazterkeria-egoera larriagoak ekidin daitezke.

Garrantzitsua da aipatzea bizikidetzako unitate eta etxebizitza edo bizileku unitate ekonomiko independenteari eskaintzen zaion arretak gizarte behar larrietarako laguntzei ere eragiten diela eta, beraz, adierazitakoa bi laguntzetarako onargarria da. Irizpideak argitzea, beraz, bi prestazioetarako baliagarria izango litzateke. Azkenik, badakigu saila aldarazpen bat prestatzen ari dela etxebizitzaren alokairuari dagokion prezioa ordaintzeko laguntzen inguruan. Espero dugu hemen aztertutako kontuak hausnarketarako beste elementu bat izango direla.

#### 4. Ondorioak: aldatu eta hobetzeko proposamena

Gure ustez, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren bidez garatzen den bizikidetzako unitate ekonomiko independentea berrikustea, etxebizitza edo ostatu independentearenari dagokionez. Era berean, gainerako administrazioekin batera aplikazio irizpide homogeneoak adostu behar dira, interpretazio desberdinak egon ez daitezen eta, bizi den lekuaren arabera, prestazio horiek eskuratzeko erraztasunak handiagoak edo txikiagoak izan ez daitezen. Horretarako, Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordea foro egokia da.

Estaldua behar luketen egoerak honako hauek dira:

- oraindik heziketa-garaian dauden 18 urtetik gorako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak.
- logela bana alokatuta etxebizitza partekatzen duten pertsonak, guztiak edo batzuk muturreko premia-egoeran daudenean.
- alokairuko etxebizitza partekatzen duten pertsonak, guztiak edo batzuk muturreko premia-egoeran daudenean.
- famili banantzeagatik edo lan ezegonkortasunarekin edo osasunarekin zerikusia duen beste arazoren batengatik denboraldi batez laneko diru-sarrerak lortu ezinik beren senideekin bizitzera joan behar duten pertsonak. Babes hori aldi baterako izango da eta bazterkeria-egoera larriagoak saiheste aldera.

Azken batean, uste dugu beharrezkoa dela neurri zuzentzaileak hartzea oinarritzko errentaren eta gizarte behar larrietarako laguntzen eskakizunak egungo testuingurura egokitzeko. Funtsezkoa da azaldutako arazoei erantzuna ematea, hala, premia-egoeran dauden pertsona guztiak jaso ahal izan ditzaten bazterkeriari aurre egiteko dispositiboetan aurreikusitako laguntzak.

Etxebizitzaren arazo hori arintzeko, funtsezkoa iruditzen zaigu orobat alokairuko etxebizitza-parke publikoa gehitzen joatea, azalera desberdinetako etxebizitzak izango dituen, famili behar eta tamaina desberdinetara egokitu daitezen. Horren ildotik, sustapen publikoko etxebizitza ugari parke publiko horretara bideratu beharko lirateke.

Garrantzitsua iruditzen zaigu, halaber, diagnostiko zehatzak prestatzea pobrezia guraso bakarreko familietan duen eraginaren inguruan, horiek eztabaida piztu dezaten gomendio orokorrean proposatutakoen moduko neurriak ezartzeko beharrari buruz, familiaren eruedetan izandako aldaketekin erlazioatutako pobrezia-modu hori arintze aldera.

Azkenik, beharrezkoa da ezagutzea zein eragin izaten ari den etxebizitzaren prezioa bazterkeriari aurre egiteko dispositiboetan hura ordaintzeko bideratzen den ehunekoari dagokionez, bizirauteko eta gizarteratzeko beharrezko beste gastu batzuen kalterako.

Horrenbestez, beharrezkoa da gizarte zerbitzuen eta etxebizitzaren arloan eskumenak dituzten administrazio desberdinek baterako hausnarketa egitea etxebizitzaren eta bazterkeriaren arazoari aurre egingo dioten neurriak ezartze aldera.



### 3. ERREKLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK EUSKAL HERRIKO UDAL ZERGEN EREMUAN

#### 1. Sarrera

Administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo aurretik administrazio egintzen aurka egiteko dagoen administrazio bide espezifikoak tradizio historiko luzea du zergen alorreko gure ordenamendu juridikoan.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboa ez da prozesu judiziala, baizik eta administrazio errekurtsu berezia, kasu zehatz batzuetarako ezarri dena: gai ekonomiko-administratiboak biltzen dituzten kasuetarako, alegia.

Administrazio organoek, hau da, zerga-administrazioaren egituraren sartuta dauden organoek jakinarazi eta ebazten dituzte erreklamazio horiek. Hala ere, administrazio organo hauek espezializatuak dira, eta kudeaketakoen desberdinak.

Berezitasun hori 230/1963 Zerga Lege Orokorreko 90. artikulua egin zuen eginkizunen zatiketarik dator. Hau xedatzen zen bertan: *“Zergen alorrean administrazioak dituen eginkizunak betetzean, bere bi ordenak banatu egingo dira, hau da, kudeaketarako ordena (likidazioa eta diru-bilketa) eta kudeaketaren kontra sortzen diren erreklamazioen ebazpenerako ordena, eta eginkizun horiek organo ezberdinen ardura izango dira.* Gaur egun, zatiketa horrek bere horretan jarraitzen du, baldintza berdinetan, 58/2003 Zerga Lege Orokorreko 83.2 artikuluan.

Espezializazioak eta horrek antolakuntzan dituen ondorioek irizpide askatasuna eta jarduteko askatasuna ahalbidetzen dute, bere izaera administratiboko muga guztiekin. Honako hau aipatzen du Calvo Ortega irakasleak: *“Kudeaketa administrazioaren zatiketa hau eraginkorra den heinean, zerga-justiziaren justifikazioa eta horri egiten dion zerbitzua zabalagoak izango dira”.*

Aurkaratze bide honen alderdi onuragarrien artean, honako hauek aipa daitezke:

- **Doakotasuna:** instantzia doakoa da, eta inolako kostu gehigarririk gabe zergak aplikatzen dituzten organoen jarduera ikuskatzea ahalbidetzen du, bai eta partikularrak beren kabuz aurkez daitezkeen organoena ere, hau da, abokaturik edo prokuradorerik gabe.
- **Espezializazioa:** nabarmendu beharra dago organo hauek osatzen dituzten pertsonen espezializazioa eta esperientzia praktikoa. Beren egiteko nagusia da zergen eta bestelako zuzenbide publikoko diru-sarreraren kudeaketa, ikuskapen edo bilketa egintzen aurka jarritako erreklamazioak ebatzea, bai eta partikularren artean sortutako desadostasunak ere, jasanarazpen egintzei edo atxikipenei eta konturako diru-sarrerei dagokienez. Zergen eta diru-bilketaren arloan duten espezializazioa dela-eta, ezagutza espezifiko handiagoa dute etengabeko aldaketa sakonak jasaten dituen zergen arloa bezalako gai batean. Arautegiari dagokionez dagoen konplexutasunaren aurrean, zergen arloan espezializatuta dagoen organo berezitua izateak konfiantza handiagoa ematen du haren ebazpenetan, eta segurtasun handiagoa arauak aplikatzerakoan. Horrek,

aldi berean, produktibitatean ere badu bere isla, izan ere, lana zergen arloan esperientziaren bermea duten profesionalen esku dagoenez, arazoak ebazteko ahalmena handiagoa da, jorratzen dituzten gaiak menperatzen baitituzte.

- **Independentzia:** ezaugarri hau finkatu egin da Zergei buruzko Foru Arau Orokor berrietan (Zergei buruzko Lege Orokorrean gertatu zen moduan), lehenik eta behin, hau jasotzen duelako: *“bere eskumenak jorratzean independentzia funtzionala izango du; eskumenak gainera utziezinak eta luzaezinak izango dira, eta ezin izango dira interesdunen nahiaren arabera aldatu”* (Bizkaiko Foru Arauko 235. artikulua eta, antzeko idazkerarekin, Arabako eta Gipuzkoako arauetako 234. artikulua). Baina, batez ere, bakoitzaren 244. artikuluan jasotako aginduaren bitartez; horien arabera, auzitegi ekonomiko-administratiboek behin eta berriro ezarritako doktrinak *“gainerako zerga administrazioa lotetsiko du”*. Independentzia hori ez dago maila teorikoan soilik, eraketan ere badago, izan ere, auzitegi ekonomiko-administratiboetako kideek ez dute parte hartzen zergak aplikatzen dituzten organoetan, beren eginkizunak beren kabuz gauzatzen baitituzte, kanpoko inolako jarraibideri atxiki gabe, auzitegiko lehendakariaren zuzendaritza organiko eta funtzionalaren menpean.
- **Izaera kuasi jurisdikzionala:** doako organoa izan arren, non errekurtsio-egileak beren kabuz aritu daitezkeen, abokatuaren edo prokuradorearen bitartekotzarik gabe, orain arte martxoaren 1eko 391/1996 Errege Dekretuak (erreklamazio ekonomiko-administratiboetako Prozedura Araudia onartu zuenak) arautu duen prozedura administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren nahiko antzekoa da: tarteratze idazki batekin hasten da, eta bertan auzitegiari aurka egindako egintza etetea eska dakiok, betearazpenak konponbide zaila edo ezinezkoa duten kalteak eragiten baditu; ondoren, aurka egindako egintzaren ebazpena eman zuen organoaren espedientea eskatzen da, eta espediente hori gero interesdunaren esku jartzen da bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Proba-aldia edo entzunaldia eska daiteke. Azkenik, ebazpena ematen da, eta ebazpen horren betearazpena arau zehatz batzuei atxiki behar zaie. Aurka egindako egintza atxikipen egintza edo zerga bat jasanaraztea baldin bada, izaera jurisdikzionala are nabarmenagoa bihurtzen da, bi alderdiak prozedura kontraesankor batean aurrez aurre baitaude, demanda aurkeztearen eta demandari erantzutearen oso antzeko sistema batekin.  
Prozesu judizialarekin duen antzekotasuna prozeduraren egituraketan ez ezik arautzearen beste alderdi batzuetan ere nabari daiteke: auzitegi ekonomiko-administratiboek sortu diren arazo guztiak berrikusteko ahalmena, arazoa interesdunek proposatutakoa izan ala ez; beren ebazpenen derrigortasuna (betetzen direla zaindu eta ebazpena betearaztea eragozten duten oztopoak kentzeko beharrezko neurriak hartu behar dituzte); ebazpenak arrazoituta egon beharko dira, egitatezko oinarriak eta zuzenbidekoak bereizita...
- **Zergak ordaintzeko egintzaren izaera masiboa:** zalantzarik gabe, zergak ordaintzearen egintza egintza administratiborik ohikoena da. Kopuru zehatzak erabili beharrik izan gabe, nahikoa da imajinatzea urtero igortzen diren Pertsona

Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazioak konturatzeko partikularren esparruan gehien eragiten duen jarduera administratiboa dela; horregatik, logikoa da administrazioaren eta zergadunen artean hain ohikoak diren arazoak konpontzen espezializatuta dauden organoak egotea.

## 2. Aurrekariak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko Legetik datorren egoera

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko Legeak, 108 eta 113.1 artikuluetan, eta Toki Araubidearen 1986ko apirilaren 18ko Testu Bateginak, 190 eta 192.1 artikuluetan, toki korporazioen zergak ordaintzeko egintzen aurkaratze araubidea aldatu zuten. Ordura arte toki korporazioek zergak ezarri eta agintzeko gauzatzen zituzten egintzak auzitegi ekonomiko-administratiboek ikuskatu behar zituzten, administrazioarekiko auzietako inpugnazioa egin baino lehen, dagokion erreklamazio ekonomiko-administratiboaren bidez. Eta zergak aplikatzearen eta haien eraginkortasunaren egintzei dagokienez, berraztertze errekurtsua onartzen zen (aukerakoa eta borondatezkoa), auzibide jurisdikzioa abiatzeko beharrezkoa zen erreklamazio ekonomiko-administratiboa baino lehen. Tokiko zergak ordaintzeko egintzen aurka egiteko bide ekonomiko-administratiboaren ezabaketa behin betiko baieztatu zen Toki Ogasunak arautu zituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 14. artikuluan (4. eta 5. idatz-zatiak).

Iritzi ugari azaldu ziren aldaketa horren alde eta kontra, legeriaren aldaketak interes ugari ukitzen baitzituen: lehenik eta behin, udalerrienak, haiek nahi zuten autonomia izan baitzen legeriaren berregituraketa horren kausa nagusia; beste alde batetik, zergadunen interesak, tokiko zerga-administrazioaren aurrean berme sistema murrizten baitzitzaien; eta, azkenik, justizi administrazioaren beraren interesa, haren funtzionamendua eta eraginkortasunak gainezka egin baitzezakeen gerta litekeen administrazioarekiko auzi errekurtsoen pilaketa dela medio.

Euskal Autonomia Erkidegoan eta, zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoan, arau baten agerpenak zaildu egin zuen jadanik aipatutako TAOLren 108. eta 113. artikuluek eta TATBren 190.4 eta 192.1 artikuluek txertatutako eskema berria. 1986ko martxoaren 26an Batzar Nagusiek onartu zuten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauren 161. artikuluan ari gara, bertan hau xedatzen baitzen: *“bide ekonomiko-administratiboan inpugnatu ahalko dira: a) Zergak aplikatzearen inguruan eta haien eraginkortasunaren inguruan Toki Korporazioek hartzen dituzten erabakiak, eta b) aurrekontuen, zergak ezartzearen eta Zerga Ordenantzak aplikatzearen eta aldatzearen inguruan toki korporazio horiek hartzen dituzten erabakiei lotuta egin diren erreklamazioen berariazko eta isileko ukapenak”*.

Xedapen horrekin Bizkaiko Batzar Nagusiek baieztatu egin zuten lurralde historiko horretako toki korporazioen zerga-egintzen aurkako erreklamazio ekonomiko-administratiboek iraungo zutela.

Hala ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta Toki Araubidearen Testu Bateginak ezabatu egin zuten toki erakundeen zerga-egintzak ikuskatzeko bide ekonomiko-administratiboa, eta neurri hori Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetan ere aplikatu beharrezkoa zen. Izan ere, Auzitegi Gorenak adierazi zuenez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 2. xedapen gehigarriak aipatzen

dituen “berezitasun” batek ere ez du ahalbidetzen lurralde historikoak ezabatze horretatik salbuestea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 161. artikulua eztabaidagarria Sestaoko Udalak inpugnatu zuen Bilboko Lurralde Auzitegiako Administrazioarekiko Auzien Salan; hark gaitzetsi egin zuen 1987ko azaroaren 5eko Epaiaren bidez. Baina udalak gora jotzeko helegitea aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean, eta hark helegitea onartu eta artikulua baliogabetu zuen (1990eko apirilaren 3ko Epaiak).

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 161. artikulua arabera Euskal Autonomia Erkidegoko toki korporazioentzako erreklamazio ekonomiko-administratiboak egotearen alde Lurralde Auzitegiak duen arrazoi baten oinarri nagusia eta funtsezkoa Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko (108. eta 113. artikulua) eta Toki Araubidearen Testu Bategineko (190.4 eta 192. artikulua) manuen aplikazio gehigarria izan zen; bertan, zerga ezartzeko udal egintzen kontra bide ekonomiko-administratiboa ezabatzen zen Espainia guztian.

Alabaina, Auzitegi Gorenak gaitzetsi egin zituen Bilboko Lurralde Auzitegiaren arrazoiak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 161. artikuluar dagokionez, TAOL eta TATBren manuen aplikazio gehigarriaren inguruak.

Auzitegi Gorenaren doktrina hiru puntutan zehaztu zen:

- a) Konstituzioaren 137. eta 140. artikuluetan ezarritako udal autonomiaren printzipioa.
- b) Udal autonomia horren bateraezintasuna auzitegi ekonomiko-administratiboak egotearekin, administrazioa bera baita horiek ezartzen dituen, horien eraketa arautzen duena, prozedura arauak ematen dituen eta beren eskumenak zehazten dituen.
- c) Erreklamazio ekonomiko-administratiboak mantentzeak eta ez kentzeak desberdintasun araubide bat ezartzea ekarriko luke, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak Espainiako gainerako udalerrietan desagertutako araubide baten menpean jarriko bailirateke.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 161.2 artikulua baliogabetzearen berehalako ondorioa izan zen Bizkaiko toki korporazioen zergak ordaintzearen egintza administratiboen ikuskapen araubideak aurrerantzean araubide arruntekoentzat ezarritako bide bera jarraituko zuela: erreklamazio ekonomiko-administratiboak ezabatzea.

Egoera horren aurrean, udalek eta toki erakundeek emandako zerga-arloko egintzen aurkako erreklamazio ekonomiko-administratiboen araubideari buruzko azaroaren 20ko 8/1990 Foru Araua onartu zuten Bizkaiko Batzar Nagusiek. Bertan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 161.2 artikulua idatzera aldatu zen, hitzaurrean ezarritakoaren arabera, honako helburu honekin: *“lurralde esparruan berrezartzea udalek emandako egintzen aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboen doako prozedura, udal autonomia errespetatzearen printzipio konstituzionala zehatz-mehatz bermatuko duena, korporazio bakoitzak aurrez eta libreki onartu beharko duen erabileraren hautazkotasunaren bidez”*.

Funtsean, toki erakundeek egintzak ikuskatzeko bide ekonomiko-administratiboa ez ezabatzea bilatzen zen, baina baita ikuskapen hori udalek boluntarioki onartu eta udalen autonomia babestea ere.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboen araubide bereziak zergen aplikazioari eta haien eraginkortasunari eragiten zion soilik, inola ere ez aurrekontuen, zergak ezartzearen eta Zerga Ordenantzak onartu eta aldatzearen eremuko udal erabakiei. Araubide berezia 1996ko martxoaren 27ra arte egon zen indarrean Bizkaian, egun horretan eman baitzuen Auzitegi Gorenak Epaia, 1992ko azaroaren 4ko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenaren Epaiaren aurka jarritako kasazio errekurtsua gaitzestekoa; 1992ko Epai horretan 8/1990 Foru Araua baliogabetzen zen, kasu honetan ere errekurritu egin zena, Sestaoko Udalak, hain zuzen ere.

Desberdinak dira azken epai hori emateko kontuan hartutako oinarri juridikoak eta epaimahaiari gorago aipatu dugun 1990eko apirilaren 3ko Epaiaren bitartez Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 161.2 artikulua baliogabetzeko balio izan zion oinarriak. 1990eko ebazpenean Auzitegi Gorenak bere arrazoi juridikoak garatzen zituen udal autonomiarentzat udal esparruan erreklamazio ekonomiko-administratiboak mantentzeak eragiten zuen arau-hausteari dagokionez; 1996ko martxoaren 26ko Epaiari, berriz, 8/1990 Foru Arauaren edukiarekin xedapen bat onartzeko Bizkaiko Batzar Nagusiek eskumena zuten ala ez eztabaidatzen zen; gai hori ezezko batekin ebatzi zen: Auzitegi Gorenak aitortu zuenez, ez 3/1981 Legeak onartutako EAEko Kontzertu Ekonomikoaren hirugarren xedapen gehigarriak, ez 3/1979 Lege Organikoak onartutako Autonomia Estatutuaren 10.6 artikulua, ez bestelako xedapenek ez zioten toki korporazioen erabakien aurkako bide ekonomiko-administratiboa arautzeko eskumena esleitzen lurralde historikoetako batzar nagusiei.

Hala, Bizkaiko toki korporazioek emandako zergen aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko egintzen aurkako aipatutako 1996ko martxoaren 27ko Epaiaren ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsua baino lehenagoko berraztertze errekurtsua jartzea soilik izan da posible.

Bizkaian gertatu ez den bezala, Gipuzkoako lurralde historikoan gai honek ez du liskarrik sortu auzitegietan, eta zergak aplikatzearen eta haien eraginkortasunaren egintzen aurkako erreklamazio ekonomiko-administratiboen indarrean jarraitu dute Toki Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauko 14. artikulua babesean: *“Hala ere, eta indarreko araudiaren arabera, berraztertze errekurtsuaren berariazko edo isileko ebazpenaren aurka, borondatez eta administrazioarekiko auzien bidea erabili baino lehen, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango du interesdunak Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan, hilabeteko epean”*.

Arabian, 27/1996 Foru Arauak bere egin zuen Auzitegi Gorenaren 1996ko martxoaren 27ko Epaiak ezarritako irizpidea, eta, horretarako, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautu dituen 41/1989 Foru Araua aldatu zuen: zergen aplikazioa eta zergen eraginkortasuna zela-eta toki erakundeen aurka, bai eta haien Zerga Ordenantzen aurka ere, erreklamazio ekonomiko-administratiboak jartzeko aukera ezabatu zuen.

### **3. Toki ogasunen arloan erreklamazio ekonomiko-administratiboak ezabatzearen aldeko eta aurkako argudioak**

Gorago aipatu dugun moduan, ezabatzearen alde argudio bat erabili zen funtsean: toki autonomiaren defentsa. Ideia hori, hasiera batean, erakargarria da, eta, zalantzarik gabe, TAOLn gailendu zen testuaren alde egiten dutenei arrazoia ematera bultzatzen dezake.

Aitzitik, azterketa sakonago bat eginez, esan behar dugu gaia ez dagoela hain argi, izan ere, bai doktrinari dagokionez bai jurisprudentziari dagokionez, kontrako irtenbidea bultzatzea ahalbidetzen duten argudio sendoak daude, hau da, bide ekonomiko-administratiboak toki korporazioen autonomiaren aurka egiten ez duela pentsatzera garamatzatenak.

Ildo horri jarraiki, Muñoz Machado irakasleak nabarmendu egin du toki erakundeen gaineko deszentralizazioaren eta babesaren (edo kontrolaren, edo zaintzaren) artean dagoen lotura estua, eta aipatu du zaintza bidezkoa dela “betearazpen eginkizuna legeak egiten dituen erakundearen ardura ez denean, baizik eta beste batena”. Udal eskumenak oinarrian betearazpenekoak direnez (goragoko beste ordena batzuek emandako legeak aplikatzen dituzte), argi dago aipatutako legeak egiten dituzten instantziek beraientzat gorde ditzaketela kontrolerako eskubideak.

Idea hori Toki Ogasunen esparrura ere eraman daiteke, korporazio horien diru-sarrerak Estatuko araudiak arautzen baititu (foru araudiak, EAERen kasuan), eta, ondorioz, guttiz bidezkoa eta onargarria da estatuko organoek (foru aldundiek, gure kasuan), Auzitegi Ekonomiko Administratiboek, ardura hartzea zergen aplikazio prozedura zuzentasunez eta zuzenbideari egokিতa egin dela zaintzeko.

Tolivar Alas irakaslea ildo horri jarraiki adierazi da gure administrazio doktrinaren barruan. Roversi-Mónaco irakaslearen tesia jarraituta, “kontrol oro ez dela autonomiaren etsai argia” adierazi du; autonomia horren aurka meritu kontrolak edo aukera-kontrolak izenekoak soilik egongo lirarteke, baina ez legezko kontrolak, betiere, kontrola jasaten duen egintzaren legezotasunari lotuta organo kontrolatzaileak kontrako erabakia ematen bada, administrazioarekiko auzien bidea irekita gelditzen bada.

Idea horretan sakonduz, Barquero Estevanek ondorengo hau idatzi du: “Bide ekonomiko-administratiboa ezabatzeak kudeaketa organoen eta erreklamazioak ebazteko organoen arteko banaketaren zerga-printzipio tradizionalaren porrota ekarri du; izan ere, organo teknikoek eta gutxienez apur bat independenteen sorrerarekin lotuta doanez, izugarrizko lorpena da legezotasunaren defentsaren eta partikularren bermeen ikuspuntutik; azken egiteko horrek ezin du inolaz ere berraztertze errekurtsoa bete. Begien bistakoa da, bestalde, auzibidea irekita gelditzeak ez duela inolaz ere galera konpentsatzen”.

Goragoko paragrafoetan aipatutako bidean, TAOLk jaso dituen kritikak ondo oinarritu direla pentsatzen dugu, bide ekonomiko-administratiboa ezabatzen baitute toki zergak aplikatzeko egintzen ikuskapenerako, bai eta TOALk jasotako kritikak ere, araubide hori mantentzen baitute. Bat gatoz erabaki horren oinarria toki autonomia neurritz kanpo ulertzea dela eta gaian inplikaturako interesen neurketa txarra egitea dela uste dutenekin, neurri horrek ondasun juridiko jakin batzuetan kalte nabariak eragiten baititu (legezotasunaren eta partikularren oinarritzko eskubideen babesa), bide ekonomiko-administratiboa indarrean mantentzearen kasuan toki autonomiaren ondasun juridikoak jasango lukeen kalte baina askoz ere larriagoa.

#### **4. Berrezarpen saiakerak. 57/2003 Legea, toki gobernua modernizatzeari buruzkoa**

Zergadunen eskubideei eta bermeei buruzko 1/1998 Legea onartu baino lehenagoko Parlamentuko eztabaidetan ez zen gai hau atera, baina, aitzitik, behin baino gehiagotan aipatu zen 1985eko Toki Ogasunei buruzko Legeak ezarri zuen baliabi-

deen erregimena aldatzea komeni zela eta, hala, toki zergen esparruan erreklamazio ekonomiko-administratiboa berreskuratzea.

Egoera hori bera errepikatu egin zen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legea aldatu zuen 4/1999 Legearen Parlamentuko izapideak egitean, izan ere, Estatu Kontseiluaren Azterlan Batzordearen txostena, ondorioen atalean, toki korporazioen zerga-egintzen aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezteko aukera berreskuratzearen alde agertu zen.

Zergei buruzko Lege Orokorra aldatzeko txostenean, 2001eko uztailen egin zena, adierazten zenez, toki zergen likidazioak gutxi direnez “oso zaila da administrazioarekiko auzien biderako sarrera izatea, errekurtsuaren kostua bidearena baino handiagoa izan ohi baita”; hortaz, zerga horiei dagokionez administrazioarekiko auzien doako bidea berriro ere martxan jarrita soilik konpon daiteke egoera hori. Hau gaineratzen zen ondoren: *“hala ere, jakinarazi beharra dago bide hori ezin dela Estatuko organoen aurrean erabili, hori egitea, batzuen ustetan, toki autonomiaren aurka joatea izango bailitzateke”*.

Ekite horrek etekinen bat eman behar zuen. Hala, Toki Ogasuna Modernizatzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legea onartu zen 2003an, eta lege horretan jaso zen erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organo espezializatuak sortu behar zirela Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen X. titulua aplikatzekoa zen biztanle askoko udalerrietan.

Organo berria derrigorrezkoa izango da ondorengo udalerrri hauentzat:

- 250.000 biztanle baino gehiago dituztenentzat.
- Probintziako hiriburu diren eta 75.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrientzat.
- Probintziako hiriburuentzat, autonomi erkidegoko hiriburuentzat edo autonomi erkidegoko erakundeen egoitza diren udalerrientzat.
- 75.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrientzat, baldin eta baldintza ekonomiko, sozial, historiko edo kultural bereziak badituzte.

Legeko zioen azalpenean adierazitakoaren arabera, organo espezializatu horrekin lortu nahi dena da herritarrek hain argi eskatutako eskumen teknikoa, azkartasuna eta independentzia bermatzea. Herritarren eskubideen defentsa merkatu eta azkartzeko tresna garrantzitsua izan liteke, halaber, zergen arloa bezalako arlo sentikor eta garrantzitsuan, bai eta administrazioarekiko auzien bidean gatazkak murrizteko tresna ere, eta, hala, jurisdikzio honetako organoek duten lan karga arinduko litzateke.

Horrela, eta lurralde komunari dagokionez, errekurtsu hau gainerako korporazioentzako berreskuratzea eta udalerrri txikiago batean zerga-subjektu izateagatik zergadunen arteko bereizkeria bidegabe honekin bukatzea bakarrik falta da. Baina, aurrerago ikusiko dugun moduan, ezin dugu berdina esan euskal foru eremuari dagokionez.

## 5. EAeko gaur egungo egoera

Gaur egun dugun egoerak ez dio erantzuten Toki Ogasunak Modernizatzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legetik eratorritako eskemari, eta gainera, foru lurralde bakoitzean egoera desberdina da:

**Bizkaia:** Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua aldatu egin da 9/2005 Foru Arauaren bidez; 9/2005 Foru Arauak, alde batetik, Bilboko udalerrriak bere Auzitegi Ekonomiko Administratiboa izateko ahalmena ezarri du, eta, bestetik, beste udalerriek antzeko organo propioa izateko aukera ezarri du, 75.000 biztanle baino gehiago badi-tuzte eta Batzar Nagusiek hala onartzen badute.

Horrela bada, Bilboko udalerrriak bere auzitegia sortu du. Baina Barakaldok eta Getxok, nahiz eta 75.000 biztanle baino gehiago izan, ez dute horrelakorik egin.

**Gipuzkoa:** Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorreko azken xedapenetako hamaikagarrenak 11/1989 Foru Arauaren 14. artikuluari idazketa berri bat eman dio, eta ezarri duenez, udalerrriak erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organo propioa sortzen duenean, udalerrriak izango du erreklamazio horiek jakinarazteko eskumena. Ildo horri jarraiki, Donostiako Udalak bere auzitegia sortu du. Beste alde batetik, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak bere horretan jarraitzen du, horrelako organorik ez duten lurralde historikoko udalerrien erreklamazio ekonomiko-administrazioak ebazten dituen organo gisa.

**Araba:** 2005eko uztailaren 1az geroztik indarrean dagoen Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorreko azken xedapenetako hamaikagarrenak ezartzen du toki erakundeak Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen jurisdikziori atxiki ahalko zaizkiela, horretarako hartutako erabakiaren bidez; erabakia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Kasu horietan, berraztertze errekursoaren berriazko edo isileko ebazpenaren aurka, borondatez eta administrazioarekiko auzien bidea erabili baino lehen, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango du interesdunak Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen hilabeteko epean, aurka egindako egintza jakinarazten den egunaren biharamunetik edo administrazio isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Edonola ere, udalerrriak erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko bere organoa sortzen duenean, udalerrriak izango du eskumena erreklamazio horiek jakinarazteko, organo horren sorrera arautu duen araudiaren arabera.

Arabako Lurralde Historiko batek ere ez du sortu bere auzitegi ekonomiko-administratiboa eta inor ere ez zaio atxiki Lege Erakundearen jurisdikzioari.

## 6. Ondorioak

1. EAEko eremuan ez da bete, oro har, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 137. artikulua biltzen duen agindua; Lege hori Toki Gobernuak modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak osatu zuen, erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organoari dagokionez.
2. Gaur egungo araudiarekin eta araudiaren irismen material zehatzarekin zerikusia duten iritzietatik haratago, benetan zaila dirudi euskal herritarren aurrean justifikatzea toki zerga-antolamendua berdina ez izatea administrazioaren arloko ikuskapen prozeduraren moduko oinarrizko gai batean. Udal autonomiaren babes hipotetikoaren izenean, tokiko zerga-egintzen legezkotasuna kontrolatzeko



aukerak zergadun guztientzat berdinak ez izatera iritsi gara, izan ere, aukerak desberdinak dira bizilekua dagoen lurralde historikoaren arabera eta, era berean, udalerriko biztanle kopuruaren arabera. Horrek guztiak ez du udal autonomia inolaz ere islatzen, baizik eta herritar batzuentzat berme juridikoen murrizketa bidegabea.

## 7. Gomendioak

1. Indarreko legeria bete dezatela gomendatzen zaie Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak “biztanle askoko udalerrri” gisa kalifikatutako EAeko udalerriei, oraindik auzitegi ekonomiko administratibo propioa sortu ez duten eta kasuan kasuko foru auzitegi ekonomiko-administratiboaren jurisdikzioari heldu ez dioten udalerrri horiei.
2. Inpugnazio bidea berrezar dezatela gomendatzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, legeak derrigortzen ez dituelako zerga-egintzek ikuskapen ekonomiko-administratiborik pasatzen ez duten udalei, alegia, babes judizial eraginkorra jasotzeko herritarrek duten eskubidea behar bezala betetzeko.



### **III. ATALA**

## **TXOSTEN BEREZIAK**



## 1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EGIN ZIREN GOMENDIOAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK

Ararteko erakundeak azken urteetan prestatu dituen txosten berezien jarraipena egiteko jarduerak burutzen ditu. Arartekoa erakundearen txosten guztiek, bukatzeko, zenbait gomendio ematen dizkiete kasuan kasuko administrazio eskudunei eta beraz, jarraipenaren helburua ez da besterik gomendioak zenbateraino betetzen ari diren jakitea baino. Horretarako, bide desberdinak erabiltzen dira, gaia zein den, txostena egin denetik zenbat urte igaro diren, gomendioa abian jartzeko zerbitzuak zeintzuk eta zenbat diren, beste urte batzuetatik daturik ezagutzen dugun...

Hain zuzen ere, hauek dira biderik erabilienak:

- Bisitaldiak egitea aztertutako zentroetara edo zerbitzuetara (esate baterako, komisariak, harrera-zentroak edo barruan egoteko zentroak).
- Arlo bakoitzean diharduten elkarteekin edo profesional-taldeekin harremanetan jartzea.
- Kasuan kasu eskudun den administrazioari datuak, informazioa eta balorazioak eskatzea.

Aipatutakoez gain, beste bide batzuk ere erabiltzen ditugu, erkatzeko: kexen bidez jasotako informazioa; aztertzen ari garen aldian argitaratu diren planak, programak, deialdiak edo memoriak; bilerak sailetako ardura duten politikoeekin...

Administrazioei datuak eskatzen dizkiegunean informazio gaurkotua, ahalik eta gaurkotuena, eskura eduki gura dugulako da. Horregatik, sarritan, eskakizuna urtearen azken bi hiletan egiten dugu eta urtea bukatu bitarteko epea eman –azken ekitaldiko datuak txostenean sartu ahal izateko–, baina erantzunak hurrengo urtearen aurreneko bi hiletan jaso eta aztertzen ditugu. Horrela, bada, hurrengo ataletan agertuko diren datu asko eta asko 2005. urteari dagozkio baina 2006ko urtarrilean edo otsailean jaso ditugu, txosten hau amaitu baino lehentxeago. Kontuan hartzekoa da hori.

Aurreko txostenetan, ezohizko txostenen kontrol jarduera horiek atal honetako zati batean erakusten ziren, bertan kontrolpean jarritako ezohizko txosten bakoitzaren inguruan burututako jarduerak xehatzen zirela.

Kasu askotan, aukera metodologiko horrek atal honetan agertutako informazioa txosteneko beste zati batzuetan agertzea ere bazekarren, hala nola arlo materialei edo taldeen problematikaren berariazko arretaren arloei buruzko zatietan edo Ondorio, Eskubide eta Askatasunei buruzko amaierako zatian.

Txostenaren edukia errazteko asmoz, iazko txostenetik aurrera jarraipen jarduerak arlo materialetan sartuko dira, edo hala dagokionean, lehentasunezko arretako taldeei buruzko arloetan. Honela:

- Adingabeen lehentasunezko arretako taldeari buruzko **IV. atalaren 3. zatian** hurrengo eremuei buruzko jarduerak sartuko dira:
  - Arabako sasoikako langileen jarraipena –**sasoikako familien ikasleak** eskolatzeari dagokionean–;
  - **Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak;**
  - **Adin txikiko lege-hausleekin esku hartzea;**
  - **EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna;**
  - **Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo –haur eta nerabeei dagokienean–;**
  - **Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak.**
- **Adinekoentzako egoitzei, eguneko zentroei eta etxeko laguntzari** buruzko jarduerak adinekoentzako berariazko arretaren arloan agertuko dira. Ikusi **IV. atalaren 2. zatia**.
- **Ertzaintzaren ziegen eta udal atxiloguneen egoerari buruz egindako** jarraipenak Herrizaingoaren arloan daude. Ikusi **I. atalaren 7.3. zatia**.
- **Pertsona ezgaituen lanerako aukerei eta erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasunari** buruzko jarduerak ezgaitasunen bat duten pertsonentzako lehentasunezko arretaren arloan agertuko dira. Ikusi **IV. atalaren 4. zatia**.
- **Emakumeen kontrako indarkeriari** erakundeek eman dioten erantzunari buruzko jarraipena emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan islatu da. Ikusi **IV. atalaren 1. zatia**.

## 2. 2006. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIAK

### 2.1. ETXERIK GABE ETA LARRIKI BAZTERTUTA DAUDEN PERTSONEN OINARRIZKO PREMIEI EMANDAKO ERANTZUNARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

- Ekainaren 14an txosten berezi bat eman zitzaion Legebiltzarreko lehendakariari. Bertan aztertzen dira etxerik gabe eta larriki baztertuta dauden pertsonen oinarrizko beharrei gure erkidegoan ematen ari zaizkien erantzunak. Geroago, irailaren 27an, txosten horren laburpen bat eztabaidatu zen Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaearen Batzordean.

Arartekoaren eginkizunei dagokien moduan, txosten honetan, pertsona horiek zenbat diren jakitea baino gehiago (EUSTATEk argitaratu berri duen azterlan batean, 1.800 pertsona inguru zenbatu ziren), ematen zaien arreta balioztatu nahi izan dugu: hau da, sortuz joan diren **baliabideen sarea** nolakoa den aztertu, batez ere hiru lurralde historikoetako hiriburuetan, horren akatsak, **estalita eta estali gabe dauden beharrak** antzeman eta, analisi horren arabera, hobetzeko neurriak proposatu.

**“Larriki baztertuta dauden pertsonak” kontzeptuaren** bidez, bazterkeriaren periferian dauden pertsonen egiten diegu aipamena, hau da, baztertutako pertsonen taldearen barruan baztertuta dauden pertsonen; horiek arreta sozialeko sare normalizatuetatik kanpo daude. Batzuetan, loturarik eza ezintasun edo zailtasun pertsonalaren emaitza da eta besteetan, berriz, sistema egoera mota honetara moldatu ezinaren ondorio, baztertu egiten duen edo ahulenak artatzeko gauza ez den gizartearen ondorio.

Azken urteotan aldaketa nabarmena izan da **pertsona horien profileen**. Prototipoa edo eredia dagoeneko ez da gizon bakartia, adin ertainekoa, bere poltsak hartu eta batetik bestera ibiltzen zena, nahasmendu psikologikoaren ageriko seinaleak zituena. Gaur egun, oso ezaugarri desberdinak dituzte gaueko harrera-zentroetara, jantokietara edo eguneko zentroetara joaten diren pertsonak:

- horietatik asko etorkinak dira (EAEko baliabide horietan artatutako pertsonen artean, %50 gutxi gorabehera etorkinak dira);
- gero eta gazteagoak dira (gaueko zentro batzuetan % 60 inguru dira 30 urtetik beherakoak);
- %20ren bat emakumeak dira;
- zenbaitetan, familia osoa geratu da etxerik gabe;
- pertsona horietatik asko droga-kontsumitzaile aktiboak dira;
- beste asko, berriz, buru-gaixoak...

Bazterkeriak orain duen ezaugarrietako bat, beste garaietatik bereizten duena, zera da: anitz kasutan ez direla egoera ahulean dauden pertsonak, baizik eta bizimodu egituratua duten pertsonak, une jakin batean eta arrazoi ezberdinengatik bazterkeria larrian jausi direnak. Orduan, aniztasuna hazi egin da eta, hortaz, beharrak ere aldatu egin dira.

Pertsona talde homogenea ez den arren, badira zenbait alderdi gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsona gisa bereizten dituztenak:

- Etxerik gabeko pertsonak dira, hau da, bizileku egonkorrik edo bizitzeko etxerik ez dutenak.
  - Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak dira, edo horiek behar bezala eta iraupeneko ekonomiako estrategiez baliatuta kudeatzeko zailtasunak dituztenak.
  - Baina, batez ere, etxerik gabeko pertsonak dira, ez baitute familiarekin inolako harremanik eta gizartetik eta familiarengandik erabat deserrotuta baitaude, inolako laguntza pertsonal eta sozialik gabe; gizartetik eta bere dinamiketarik kanpo bizi dira eta horien aurrean gainerako biztanleak baino ahulagoak dira.
- Baina txostenaren helburua ez da, zehazki, pertsonen profila edo egoera horretara eramán dituzten arrazoiak aztertzea, baizik eta horiei eskaintzen zaizkien erantzunak baloratzea. **Lanaren xedea**, izenburuak berak aipatzen duen moduan, pertsona horiei hiru lurralde historikoetako erakundeen eta gizarte-eragile ezberdinen aldetik ematen ari zaizkien erantzunak sakon ezagutzea izan da. Gure Autonomia Erkidegoaren esparru geografikoan etxerik gabe eta gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen eskaintzen zaien arretak garrantzi handia hartu du, bai lurralde historiko bakoitzean dauden zerbitzu eta baliabideei dagokienez, bai artatutako pertsonen egoeren ugaritasun eta aniztasunari dagokionez. Baliabide horiek pixkanaka sortzen joan dira, entitate eta erakundeek egindako moldatze ahalgin iraunkorrari esker, egoera eta premia aldakorrei behar bezala erantzun ahal izateko. Etxerik gabeko pertsonen profilean eta premietan izandako aldaketen ondorioz, behintzat zati batean, pertsona horiei arreta emateko sarea zabaldu eta espezializatu egin da; hala ere, baliabideak eta sektorearen arauketa ez dira beti behar bestekoak izan, edo egitura ez da egokia izan. Tradizioz, etxerik gabeko pertsonen eskaintzako arreta oinarri-oinarrizkotzat jo izan diren premiak betertzerantz zuzendu izan da: ostatu ematea, janaria eta jantzia. Hala ere, azken urteotan nabarmen gehitu dira gizarteratzearekin zerikusia duten gaiak ere lantzen dituzten baliabideak, programak eta zerbitzuak. Egoera horrek beharrezkoa egiten zuen diagnostiko bat egin beharra, fenomeno horren alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, ezaugarriak deskribatuz. Horrela, batetik, ahulguneak antzeman nahi dira (hobetzeko behar diren proposamenak egiteko) eta, bestetik, indarguneak (horiek sendotzen jarraitzeko). Gure Erkidegoan eskura dauden baliabide guztietatik jaso genuen **informazioa**: gaueko harrera-zentroak, eguneko zentroak, jantoki sozialak; egonaldi laburreko eta luzeko ostatu-zerbitzuak; exijentzia gutxiko gizarteratze zentroak eta sartzeko baldintza zorrotzagoak eskatzen dituztenak..., gehientsuenak hiru hiriburuetan kokatuak. Araubidea eta eskumenak ere aztertu ziren. Oso arazo, esperientzia eta bizitza-ibilbide ezberdinak zituzten etxerik gabeko 9 pertsonari elkarrizketatu ziren (7 gizon eta 2 emakume); txostenean beren 9 bizitza-historiak eskaintzen dira. Galdera-sorten bidez, adituen iritzia bildu ziren. Eztabaida-taldeak egin ziren hiru lurralde historikoetan; talde horietan parte hartu zuten administrazioko zenbait pertsonak eta, bereziki, baliabideen kudeaketarekin konprometituta edo horretaz arduratuta dauden hirugarren sektoreko hainbat pertsonak.



- Bildutako informazioa txosteneko kapitulu eta atal ezberdinetan adierazi da. Txostenak honako egitura hau du:
  - Sarrera eta erabilitako metodologia azaltzen duen atalaren ostean, kapituluaren gizarte-bazterkeriari buruzko lege eta eskumen esparrua aztertu da: Europar Batasuna, erakunde erkideak, aldundiak, udalak... Kapitulu honetan Ongizate Estatuaren eta gizarte eskubideek Ongizate Estatuan duten garrantziaren azterketa izan da abiapuntua. Amaitzeko, kontsultatutako pertsonen arabera, lege esparruak dituen ahulguneak eta indarguneak aztertu dira.
  - Aurrerago, 4. kapituluaren, gai teorikoagoak landu dira: gure ustez, zer den bazterkeria larria eta etxerik gabeko pertsona, horren bilakaera, profil berriak eta etorkizuneko joerak, inguru sozialak eskaintzen dituen aukeren eta mehatxuen ikuspuntutik.
  - 5. kapituluaren, luzeenean, arretaren diagnostikoa egin dugu, hau da, gertaera horri ematen zaion erantzunaren "argazkia". Berezi egin ditugu instituzioen erantzuna, erakunde pribatuena eta herritarrena. Arreta ereduak ere aztertu ditugu, eguneko eta gaueko zerbitzua, arreta sistemaren nondik norakoak eta mugak, bai eta gizarteratze prozesuak ere, dituen ahulgune eta indarguneekin.
  - Txostenak kapitulu bat eskaintzen dio (6.a) EAEtik kanpo hainbat arlotan izandako jardunbide egokiei eta koordinazioari buruzko esperientziei, beste toki batzuetan zer egiten ari diren jakin dezagun. Eta beste kapitulu bat (7.a), etxerik gabeko pertsonen ahotsa eta bizipenak jasotzeko.
  - Egindako diagnostikoa oinarri hartuta, txostenaren 8. kapituluaren, Arartekoak erakundeetara egindako 30 gomendio jaso dira.
  - Bukatzeko, eta txostena osatzeko, azken zatian, erabilitako bibliografia eta informazio iturriak jaso dira, bai eta eranskin osagarri batzuk ere (erakundearen direktorioa edo erabilitako gidoiak, esate baterako).

Laburpen honetan, funtsezko alderdi batzuk baino ez ditugu azpimarratuko, bereziki, sektoreko ezaugarri eta mugapenekin eta hobetzeko asmoz egin ditugun gomendioekin zerikusia dutenak.

- Burutu dugun ikerketan **antzeaman diren arazo nagusiak** zortzi gai nagusitan labur daitezke:
  - Hutsune izugarriak antzeaman dira araudiari dagokionez eta pertsona horiek artatzeko eskumena nork duen argitzeko orduan.
  - Baliabideak ez daude koordinatuta, ez dago jarduteko irizpide komunik, ez baliabide batetik bestera aldatzeko protokolorik, ez sareko lanik...
  - Behar batzuei erantzutea zaila izaten da, honako aldagai hauen arabera: tokia (ia baliabide guztiak hiriburuetan pilatzen dira), denbora (askotan ordutegietan ez dira aintzat hartzen asteburuak eta jaiegunak), baliabide horietan sartzeko baldintzak (sartzeko aukerak), edo artatu behar diren profil berriak (familiak, etorkinak, patologia duala duten pertsonak...).
  - Erkidegoak, administrazioek, zerbitzuek edo programa arruntek oso gutxi hartzen dute parte pertsona horiei erantzuna ematen, batik bat etxebizitzaren

eta osasunaren arloetan: etxebizitza eta enplegua lortzeko politikak, osasun zerbitzuak, prebentzio programak...

- Ez da behar bezala aprobetxatzen lehendik lortutako eskarmentua, programak eta baliabideak ez dira aldizka ebaluatzen, ez dago parte hartzeko plangintzarik.
  - Gizartea sentiberago bihurtzeko arazoak daude, baita pertsona horien gizarte-irudiari buruzkoak ere; horien ondorioz, batzuetan, zenbait baliabide ez dira onartzen, ez behintzat gertu eta normalizatuta dagoen inguru batean kokatu nahi direnean.
  - Arazoak daude programen jarraitutasuna bermatzeko, diru-laguntza nahikoak edo zerbitzu horietan lan egiten duten profesionalentzat lan-baldintza egokiak lortzeko.
  - Baliabide batzuk gainezka daude...
- Txosten honetan, funtsezkotzat jotzen diren zortzi arazo horiek nabarmentzen dira, eta etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuteko orduan dituzten ondorioak (negatiboak) ikus daitezke. Arazo horietako asko konfigurazioaren beraren (hots, sektorearen ezaugarrien) ondorio dira edo horiei lotuta daude. Jarraian, horietako batzuen bereizgarriak aipatuko ditugu:
    - Lehenik eta behin, EAEko esku-hartze sozialak gizarte-bazterkeriako egoeretan laguntzen diharduten erakundeak eta administrazioak ugariak eta anitzak direla du ezaugarri.
    - Bestalde, etxerik gabeko pertsonen zuzendutako ia baliabide eta dispositibo guztiak hiru euskal hiriburuetan biltzen dira. Oro har, 1.135 plaza daude guztira EAE osorako. Horietatik, % 81,2 egonaldi ertainetarako dira eta gainera %12,8a zuzeneko sarbidekoak, esijentzia gutxiak.

Hamar dispositibotatik bederatzi 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan kokatuta daude.

Txostenak baliabide mota guztien azterketa xehatua egiten du, kontuan hartuta egunez edo gauez lan egiten duten, horien esijentzia-maila zein den, bertako egonaldia zenbaterainokoa den edo asetzen dituzten beharrak zeintzuk diren (ostatu ematea, janaria, jantzia, garbitasuna, etab.). Izan ere, baliabide mota bakoitzak problematika propioa du. Horrela, esate baterako,

- **Gaueko arretari** dagokionez:
  - Gaueko zentroak gaua igartzeko leku gisa hartzen dira; hala ere, bizilekua emateko dispositiboetan plaza gutxi daudenez, haiek ere zerbitzu hau ematen hasi dira oro har, azpiegitura edo baliabide egokiak izan gabe (adibidez, oheak izan gabe).
  - Okupazio indizea %100ekoa da eta, hala ere, pertsona asko arretarik jaso gabe geratzen dira. Horren ildotik, ohikoa da ostatu emateko zerbitzuetan dauden plazen kopuruari dagokiona baino pertsona gehiagori eskaintzea arreta.

- **Hiriburuetan egonaldi laburreko baliabideak beteta** daude. Betetze hori, nagusiki, bi fenomenoren ondorio da:
  - Eskaria euskal hiriburuetan kokatuta dauden baliabideek xurgatu dute, ez baitago halako baliabiderik 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.
  - Baliabide horietan migrazio-prozesuan dauden pertsonak sartu dira. Horien beharrezko premiazkoenak beren administrazio egoera arautzea da eta behar oinarritzkoenak asetzea (besteak beste, ostatuarena).
  
- **Eskari guztiari ez erantzun izana**, besteak beste, honako alderdi hauei zor zaie:
  - Dispositibo batzuetan plaza gutxi daude.
  - Pertsona askok ez dituzte betetzen dispositiboetan sartzeko baldintzak, baina ez daude ordezko beste baliabide batzuk.
  - Zenbait pertsonak ez du sartu nahi izaten ordutegia mugatua delako eta dispositibo horietako batzuetan bete nahi ez dituzten arauak daudelako.
  - Dispositibo batzuetan sartzeko formula, zozketarena edo txartel bilketarena, ez da egokiena pertsona horiek gizarte-bazterkeriako egoeretan laguntzeko sarean barnera daitezten...
  
- **Eguneko arretari** dagokionez, nagusiki, janari, jantzi, higiene eta gizarte loturen berrezarpenaren arloetan dauden premia oinarritzkoenak asetzera bideratutako programetan eta zerbitzuetan jartzen da gogoia eta asistentziazkoa eta banakakoa izateagatik bereizten da. Horrela:
  - Etxerik gabeko pertsonak gehien erabiltzen dituzten zerbitzuak jantokiak dira. Horietara zuzenean sartzen dira edo udalek nahiz jantokia kudeatzen duten erakundeek ematen dituzten txartelez baliatuta. Gaur egun, beteta daude.
  - Gizarteratze zentroen garapena oso ezberdina da lurralde historiko batetik bestera. Horrela, Bizkaian plaza guztien %80 biltzen da gutxi gorabehera.
    - Zentro horietako plaza asko exigentzia gutxikoak dira eta oso gabezia zehatzak eta egoera fisiko eta psikiko larria duten pertsonen zuzenduta daude.
    - Oro har, eskainitako plaza kopuru egokiena litzatekeena baino okupazio maila handiagoa dute.
  - Baliabide gutxi jasotzen dituen ingurune irekiko esku-hartzea arreta dispositiboetan sartzeko ez diren pertsonekin harremanetan jartzeko eta gizarte-bazterkeriako egoeran geratzeko arriskuan dauden gazteei zuzendutako prebentzio programak ezartzeko oinarritzko zerbitzua da.
  - Gaur egun, hiru lurralde historikoen gizarte-larrialdietarako zerbitzua dute. Gasteizen eta Bilbon, zerbitzu hori udalarena da eta Gipuzkoan, aldia, foru titulartasuneko.

- Ikusi ahal izan denez, dispositibo horiek erabiltzen dituztenen artean **buru-gaixotasuna nahikoa ohikoa** da. Hau oso kezagarria da. Gune egokiak ez egoteak zaildu egiten du pertsona horiek dituzten beharrei arreta ematea.
- Bestalde, egun dauden dispositiboak aztertzen baditugu, oro har, ikus dezakegu **ez dela benetan sare bat**, baizik eta baliabide, entitate eta erakunde asko, jarduteko eta errealitatea interpretatzeko oso modu ezberdinak dituztenak.
- Errealitate horren aurrean, erakunde honen txostenak **gomendio** batzuk egiten ditu (30 guztira) eta horiekin antzemandako arazoei aurre egin nahi zaie. Gomendio zehatzak dira eta zerbitzuen arauketa, plangintza edo koordinazioa hobetu nahi dituzte. Horrez gain, erakunde buruzagitza, erantzuteko gaitasuna handitu, eta premia eta profil berriak egokitu nahi dira, eta lan egiteko eretan hobekuntzak bultzatu...

Azaletik bada ere, gomendio horietako batzuk aipatu edo azpimarratuko ditugu.

- Horrela, adibidez, sektoreko erregulazioari, erakunde buruzagitzari eta koordinazioari dagokienez, honakoak egin behar direla adierazten dugu:
  - Administrazio ezberdinek gauzatu behar dituzten eskumenen eta egitekoen banaketa argitzea. (1. gomendia)
  - Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-azpiegituren arloan arautegi bateratua garatzea. (3. gomendia)

Bi alderdi horiek eragin zuzena dute Legebiltzarraren ahalmen legegilean eta lotura estua dute txostenaren hirugarren kapituluan egungo arau-esparruari eta eskumenen banaketari buruz egin dugun analisiarekin.

Orobat, beste gomendio asko ere egiten ditugu arreta ereduari, plangintzari, jarraipenari, administrazio eta sektore ezberdinen arteko koordinazioari, biztanle talde horren aldeko etxebizitza edo laneratze politikei eta abarri lotuta. Horien artean, bi nabarmendu nahi ditugu:

- Erantzun soziala duten baliabideak sortu eta babesteko plangintza eta buruzagitza politikoa eskatzen duena.
- Eremu soziosanitarioaren garapenari buruzkoa.

Gero eta pertsona gehiago daude baztertuta eta hori gure **gizartea bazter-tzailea** delako da. Bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen gizarteratzea erronka handia da oraindik gure gizarte garatuan. Erronka horrek guztion konpromisoa behar du: administrazio ezberdinena, hirugarren sektorearena –gaur egun dauden baliabide gehienak kudeatzen ditu– eta biztanleena oro har. Ikuspegi horretatik, benetan kezagarriak dira batzuetan izan diren (eta oraindik ere ikusten diren) erreakzioak pertsona horien oinarrizko beharrei erantzutera bideratutako baliabideak sortzearen aurka.

Garrantzi sozial handiko kontua da eta, horri dagokionez, hainbatetan esku hartu behar izan dugu; ildo horretatik, 2001ean Ararteko erakundeak ere

horren inguruko gomendio orokorra egin zuen Eusko Legebiltzarrarentzako ohiko txostenean.

Zerbitzu soziosanitarioak abian jartzeko beharra dela-eta, hilabete batzuk barru eremu soziosanitarioari buruzko txosten berezi bat eskaini ahal izatea espero dugu.

- **Gomendioen bigarren blokean, baliabide berriak** sortzeko beharra adierazi da, edo daudenen egungo ezaugarriak berrikustekoa, pertsona horien behar guztiei erantzuteko ahalmena handitze aldera.

Izan ere, etxerik gabeko pertsona horiek oso behar ezberdinak dituzte. Oinarrikoetz gain (ostatua, jantzia eta etxea), osasunari, arreta sozial eta psikologikoari, prestakuntzari, okupazioari, lanaren sustapenari... lotutakoak daude. Gaur egungo baliabideek, oro har, ez diete behar horiei guztiei erantzuten. Batzuetan, ordutegia oso zorrotza izaten da eta, ondorioz, horien erabilera zailtzen du. Baliabide batzuk itxita egoten dira asteburuetan edo oporretan eta, beraz, eten egiten dute prozesua. Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat ere ez dira eskuragarriak eta, maiz, etxerik gabeko pertsonak egun dituzten ez beste profil batzuetarako pentsatuta daude. Horregatik, zerbitzu zehatzak sortzea gomendatzen da, profil guztiez arduratu eta gizarteratze prozesuko fase ezberdinak kontuan har ditzaten. Txosteneko analisiarekin bat etorritik, premia edo joera orokor hori are nabarmenagoa da behar beste arreta jasotzen ez duten talde, sektore edo premia jakinei dagokienez:

- buru-gaixotasuna eta patologia duala. (13. gomendia)
  - droga-mendetasunen arloan arriskuak murriztea edo desintoxikazioa bultzatzea. (14. gomendia)
  - eriondo diren eta, ospitaleko alta jaso arren, erabat sendatzeko lekurik ez duten pertsonak. (15. gomendia)
  - gero eta gehiago ikusten diren taldeak, besteak beste, etxerik gabeko hainbat kide dituzten familiak, bakarrik dauden gazte atzeritarrak edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden etorkinak. (16. gomendia)
  - gizarte-zerbitzuekin harremanik ez duten pertsonak. (17. gomendia)
  - garaiaz eten ezean, baztertuta geratzea eragin dezaketen krisi prozesuak. (18. gomendia)
  - ezgaitasuna duten pertsonen premia zehatzak. (19. gomendia)
  - gizarteratze prozesuari eta exijentzia-mailari dagokienez dauden egoera oso ezberdinak. (20. gomendia)
- Gomendioen azken blokean, **hobekuntza kualitatibo** batzuk proposatzen dira; horiek aplikatuz gero, sektorea bera eta eskaintako zerbitzua izugarri hobetuko liriteke. Adibidez, pertsona horien erroldatzeari trabak ez jartzea (funtsezkoa baita zenbait baliabide eskuratu ahal izateko –25. gomendia–), finantzaketa hobetzeko beharra (28. gomendia), etxerik gabe edo gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen laguntzen diharduten langileen lan-baldintzak hobetzea (26. gomendia).

- 30 gomendio horietako asko, ikus daitekeenez, oso zehatzak dira. Baina, proposamen zehatz horien azpian, proposamenei eusten, funtsezko erronka bat dago, proposamen horien guztien oinarri dena: onartezina da pobrezia eta bazterkeria larriko egoerarik egotea; hazkunde ekonomiko iraunkorreko testuinguru batean, **gizarte-eredu solidarioa** bultzatu behar da, gizarte-kohesioaren elementu garrantzitsua baita; eredu horrek gure ekonomietan eta gizarteetan etengabe gertatzen diren egiturazko aldaketei aurre egiten lagunduko digu, bestelako zatiketarik eta marjinaziorik gabe.

Txostenak arrisku bat antzeman du, hain zuzen ere, bazterkeriaren ondoriozko muturreko pobrezia egoerak ez ote diren areagotuko. Horrek, pentsarazi egin behar digu, batetik, zein gizarte-eredurantz goazen, eta, bestetik, ahalik eta pertsona gehien integratu behar dela normalizatutako gizarte eta lan sareetan. Arrisku hori gertatu ez dadin alderdi askoren ahalegina behar da, ez bakarrik gizarte-zerbitzuena eta erabilitzaileena eurena, baizik eta baita eragile ekonomikoena eta sozialena eta erakundeena ere, horiek baitira gizartearen motoreak. Txosten honetan jasotako ahulezia egoerek gizarte-kohesioari lagunduko dioten elkartasun jarrerak eta jardunbideak sortu behar dituzte, horixe baita gai publikoen kudeaketaren helburu garrantzitsuenetakoa.

Datozen urteetan biztanle talde horren kopurua hazten edo gutxitzen den, agerian jarriko da gure gizartearen benetako konpromisoa eta elkartasuna. Gai horren bilakaera aztertzen jarraitu beharko da datozen urteetan.

## 2.2. IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI ETA GATAZKEI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

Joan den abenduaren 19an, bi urtez lanean aritu ondoren, Arartekoak gure Erkidegoari buruzko *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan* txosten berezia eman zion Legebiltzarreko lehendakariari. Berrikiago, 2007ko otsailaren 7an, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean agertu zen, txosten hori aurkeztu eta eztabaidatzeko.

Hemen txostenaren laburpena eskaintzen dugu –batik bat antzemandako arazo nagusiak eta egindako hobekuntza proposamenak jorratuz–, bere testuinguruan kokatzen saiatuko gara eta bere ezaugarrietako batzuk azpimarratuko ditugu.

- **Zergatik txosten hau? (testuingurua)**

Orain arte ez dugu azterlan edo txosten askorik egin hezkuntza-sistemari buruz bakarrik: hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunari buruzko bat, sasoikako langileen multzoari buruzko beste bat eskolatzeko baldintzen gaineko kapitulu zabala erantsiz, etorkinak Araban eskolatzeari buruzko beste bat... Egia esan, arreta handiagoa eskaini izan diegu beste sistema batzuei (adibidez, gizarte zerbitzuei), eta baita adin txikikoen eskubideei zuzenean eragiten dieten beste egoera batzuei ere: adin txikikoen babeserako sistema; gazteen justiziako sistema; bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera; osasun mentaleko arazoak dituzten gazte eta nerabeen taldea...

Zer dela-eta gai honi buruzko txostena? Oinarrizko eskubideei eragiten dien kontua delako: hots, adin txikikoen eskubideei, irakasleen eskubideei eta familien eskubideei; hezkuntzarako eskubideari, desberdintasun, errespetu eta duintasunerako eskubideei... Gizartean gai horrek kezka edo eztabaida sortu duelako. Eztabaida hori ez delako beti errealitatearen azterketa serioetan oinarritzen. Kontu horiek direla-eta jasotzen ditugun kezak eta kontsultak gero eta ugariagoak eta kezkarriagoak direlako...

Horren haritik, Ararteko erakundeari garrantzitsua iruditzen zitzaion bizikidetza eskubide kontu bat bezala bideratzea, ez bakarrik edukazio oneko edo txarreko kontu bezala. Garrantzitsua iruditzen zitzaion agerian jartzea mutil, neska edo nerabe guztiek segurtasuna eskainiko dien eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ahalbidetuko dien giroan heziak izateko eskubidea dutela, adina, maila, jatorria, ahalmena edo beste edozein ezaugarri pertsonal alde batera utzita; familia guztiek dutela beren haurrak ikastetxe batera bidaltzeko eskubidea, behar bezala babestu eta heziko dituzten bermearekin; irakasle orok babesa eta garatzen duen lanarenganako errespetua jasotzeko eskubidea duela, bere eginkizunak eskatzen duen agintea izanez... Eta, horregatik, azpimarratu nahi zuen ikastetxeak –ikastetxe orok– ezberdinen arteko bizikidetza praktikan jarri eta ikastea ahalbidetzen duen tokia izan behar duela, edozein indarkeria-mota, bereizkeria edo irain alde batera utziz. Hortaz, mezu argi hau egia bihurtu behar dugula gure gizartean eta eskolan: **tolerantzia izpirik ez harremanetan indarkeria erabiltzearekin**. Hemen aurkeztutako txostenak hori gauzatzen lagundu nahi du.

Hau ez da defendatzaile bat gaiaz arduratzen den lehenengo aldia. 2001ean, adibidez, Espainiako Herriaren Defendatzaileak azterlan bat argitaratu zuen ikasleen

arteko indarkeriari buruz eta, oraintsu, gai beraren gainean duela hilabete batzuk eginiko bigarren txosten baten emaitza jakinarazi du. Gainera, badira “*bullying*”ari buruzko hainbat ikerketa; arazoaren eragin maila zehazteko ahalegina egin da ikerketa horietan, eta emaitza oso ezberdinak lortu dira. Ikastetxeetako bizikidetzara oro har hartuta egindako azterlanak, ordea, urriagoak dira.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ere hainbat azterlan egin edo sustatu ditu. Txostenaren 1. kapituluari ikerketa horien guztien ikuspegi panoramikoa eskaintzen da. Ez dirudi, ordea, bildutako datuak edo administrazioek aplikaturiko erantzunak nahikoa direnik, edo behintzat ez dute hori uste kalteturiko sektore batzuetako pertsonak. Gainera, taldeen kezken ondorioz, batzuetan hartzen den jarrerak gaia larritu dezake, gatazkatsua goa bihurtu, alegia, konponbideak eman baino.

Hondarribiko Jokinen kasua ere onartu beharrekoa da, gelakideen arteko jazarpeneko kasu larriek lorturiko gizarte entzuteak erabakian izan duen eragina bezalaxe. Egia esan, azken bi ikasturteetan –urteko txosten honetan bertan adierazi dugunez, lehenetsunezko arreta behar duen “Adingabeen” taldeari dagokion atalean (ikus IV. kapitulu, 3. puntua)–, inoiz baino kontsulta eta salaketa gehiago jaso ditugu ikasleen arteko jazarpen, tratatu txar edo botere nagusikeriagatik. Ia beti estuturiko gurasoen alde-tikoak. Batzuetan irakasleek eurek jarritakoak. Eta askotan beren ustez ikastetxeek edo dagokion hezkuntza-administrazioak hartutako arduragabetasun edo jarrera defentsiboa kritikatu. Ez dugu uste keaxa ugaritzea jazarpenaren areagotzearen ondorioa denik. Kasu honetan, uste dugu gizarte eztabaidak berak –beti ondo bideratzen ez denak– bereziki sentsibilizaturik edo adi egotea eragiten duela mota honetako egoeretik. Izan ere, eredu ezberdinen bidez izan bada ere, beti gertatu izan den zerbait da (horrek ez du esan nahi justifikazioa duenik edo aitzakia denik).

Herri defendatzaileen erakunde guztiak gaude kezkatuta txosten honetan jorratutako gaiengatik, izan ere, adingabeen eskubideen defendatzaile garenez, gure lanaren zati handi bat bereziki ahula den biztanleen arteko sektore horren eskubideak zaintzera bideratzen dugu. Horrela, elkarrekin egin genuen tailer baten emaitza gisa, zera adostu genuen Kataluniako Síndic de Greuges-ekin: eskola alorreko bizikidetasunari buruzko txosten bana egitea, oinarri metodologiko berberekin. Horrela, geroago, Euskadin eta Katalunian egindako azterlanen emaitzak kontrastatu ahal izango ditugu.

Iristen zaizkigun arazoak ziurrenik icebergaren punta txiki bat besterik ez dira eta, orokorrean, egoera larriak islatzen dituzte, oinarritzko eskubideei eragiten dieten egoerak hain zuzen: bereziki ikasle guztiek esetsi, iraindu edo baztertzeko beldurrik gabe ikastetxera joateko duten eskubidea; ezberdina izateko eta modu horretan taldean onartua izateko eskubidea; entzuna eta babestua izateko eskubidea, babesteko betebeharra dutenen aldetik... Baina modu berean beste eskubide batzuk ere agertzen dira arazoan, eta ez bakarrik adin txikiko pertsonenak (kasu honetan ikasleak), baita irakasleak eta gurasoak bezalako taldeenak ere.

Gizarte kezakako edota alarmismoko testuinguru horretan, garrantzitsua zirudien ezagutza handiagoa edo hobe ematea gure ikastetxeetako benetako egoeraren inguruan eta, horretan oinarrituz, zenbait gomendio egitea ikastetxeetako giroa eta bizikidetzara hobetzeko. Hori da hemen aurkezten dugun txostenaren oinarritzko helburua.



- **Zer eta nola aztertu den**

Ikastetxeko testuinguruan indarkeria erabiltzearen inguruko berri, eztabaida eta kezka asko “**bullying**” izenekoarekin uztartzen dira. Adierazi behar da txosten hau ez dela *bullying*-ari buruzkoa. Edo, zehazkiago esanda, eginiko azterlana ez dela soilik gai horri buruzkoa. **Ikastetxeko giroa** osotasunean aztertzeko asmoa du: ikasleen arteko harremanak, bai; baina, modu berean, baita irakasle eta ikasleen arteko harremanak, ikasle eta familien artekoak, etab. Hau da, hezkuntza komunitatearen esparruan garatzen den harreman multzo osoa, gelako martxa etetea bezalako jokabideak ere barne hartuta. Izan ere, horrelako portaerek ikastetxeetako funtzionamendu ona asaldatzen dute.

Bizikidetzagatazkei dagokienez –txostenean aztertzen diren gaitako bat izanik, bakarra izan ez arren–, funtsean, sei mota ikertu ditugu: disrupzioa; ikasleen erasoak irakasleei; irakasleen erasoak ikasleei; ikasleen arteko tratu txarrak; bandalismoa; eta absentismoa. Horietako bakoitzean, dituzten adierazpen eta maila desberdinak ikertu ditugu. Ikasleen arteko tratu txarretan, adibidez, jokabide mota oro aztertu dugu (iseka egitea, jotzea, baztertzea, mehatxu egitea, gauzak lapurtzea edo apurtzea, sexu-erasoa egitea...), baita horien maiztasuna ere.

Baina ez dira soilik gatazkak aztertu; giro orokorra, bizikidetzara-erabakia, ikastetxe batzuetako bizikidetzaren hobetzeko jardunak, hezkuntza-sektoreetako bakoitzean nagusi diren balioak, etab. ere ikertu dira.

Bestalde, ikastetxeei arreta eman badiegu ere, nerabeek ikastetxetik kanpo duten bizitzan eragina duten elementu batzuk ere bilatu dira horiek ikastetxeko bizitzarekin lotura estua bazuten, esate baterako, taldeko harremanak, edota gizarte eta familiaren inguruko elementu batzuk. Bereziki balioekin eta helduek gaiaren inguruan duten kezkarekin uztarturiko puntuak aztertu dira.

Landutako ikuspegia, azterlana jazarpena mugatzeko erabakia bera, azken emaitza edota erabilgarritasun handiagoa ala txikiagoa izatea baldintzatzen duten beste batzuekin batera hartu da. Adibidez, metodologia kuantitatiboa (galdera sorta ezberdinetatik abiatuz) eta kualitatiboa (sakontasunez garaturiko elkarrizketen bidez eta ikastetxe batzuetan eginiko eztabaida-taldeei esker) erabili dira, jarduna Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara mugatu dugu, horien kopurua gutxitu egin dugu alde kualitatiboan, ikastetxe bakoitzari dagokion informazioa “itzultzeko” konpromisoa hartu genuen bakoitzak bere barne azterketa propioa egiteko aukera izan zezan (horretarako, lagina osatu zuten 80 ikastetxeetako bakoitzari banakako txostena bidali zitzaizen; konpromiso hori joan den ikasturteko azken hiruhilekoan bete zen), ikastetxe bakoitzak askatasunez erabaki du azterlanean parte hartu ala ez, etab.

- **Informazio iturriak**

Txostenaren elementu nagusia joan den ikasturtean (2005-2006) gure erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 ikastetxetan garaturiko ikerketak eratzen du. Horretarako, galdera-sortak, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egin ziren. 80 ikastetxe horiek publikoak nahiz pribatuak dira, hiru lurraldeei dagozkien eta gure erkidegoko ikastetxe zerrendatik ausaz hartu dira.

Azterlan honen alde kuantitatiboa eratzeko (3. kap.), galdera-sorta ezberdinei emaniko erantzunen azterketa egin da (II. eranskina). Galdera-sortak DBHko 2. mailako

1.707 ikaslek, DBHko 4. mailako 1.616 ikaslek, 2.782 familiak, 1.257 irakaslek eta 80 zuzendarik erantzun dituzte.

Azterlanaren alde kualitatiboa (ikusi 4. kap.) 80 ikastetxetatik hamarrera mugatu da, hainbat faktoreren arabera aukeraturikoak. Horietan elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egin ziren sektore bakoitzarekin (ziklo bakoitzeko ikasleak, gurasoak, irakasleak).

Hala eta guztiz ere, lehen azaldu dugun moduan eta, batez ere, gure gomendioak adierazterakoan, beste informazio iturri osagarri batzuk ere kontuan hartu dira, adibidez, azken bi urteetan jaso ahal izan diren kontsulta eta kexak jazarpen edo tratu txarreko balizko egoerak salatuz, eta egoerak argitzeko garatu ahal izan diren ikerketak. Horren ondorioz, zenbait muga topatu ahal izan dira prozeduretan.

- **Txostenaren egitura**

Txostena zenbait kapitulutan egituratzen da. Kapitulu bakoitzak bere garrantzia du eta errealitatea aztertzean argi berezia eman nahi du. Horrela:

- **1. kapituluak** interes handieneko **aurrekari teorikoen** laburpena eskaintzen du, ikastetxeetako bizikidetzaz aztertzeko: ikastetxeko giroan eragina duten ezinbesteko faktoreak zeintzuk diren; gatazken tipologia, prebentzioa eta konpontzea; nagusikeriagatik ikasleen arteko tratu txarrak. Modu berean, ikuspegi panoramikoa eskaintzen du gaur arte bizikidetzaren eta ikastetxeko gatazken inguruan eginiko azterlan nagusien gainean. Horiek esparru ezberdinetan eginikoak izan dira (nazioartean, estatu mailan, erkidego ezberdinetan). Arreta berezia eman zaie Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako azterlanei.
- **2. kapituluak** txosten honen oinarrian dagoen ikerketan erabilitako **metodologia** azaldu eta justifikatzen du, bai 80 ikastetxez eraturiko laginarekin eginiko azterketa kuantitatiboa, bai horietatik hamarretan eginiko azterlan kualitatiboa.
- **3. kapituluak** aurreko paragrafoan aipaturiko **azterlan kuantitatiboan** lorturiko emaitzak biltzen ditu. Horretarako lau kontu handi ezberdintzen ditu: 1) ikastetxeetako bizikidetzaz; 2) ikastetxeetako gatazkak; 3) balioak eta bizikidetzaz; eta 4) hezkuntza testuinguru ezberdinak. Horietako bakoitzaren baitan sektore bakoitzak emaniko erantzunak aztertu eta alderatzen dira, galdera-sorta zehatzen bidez: ikasleei, irakasleei eta familiei eginikoak, hain zuzen. Ikastetxeetako gatazkei dagokienez, ikuspegi osoa ematea da lortu nahi dena, nahiz eta arreta berezia eskaintzen zaien ikasleen artean nagusikeriagatik gertatzen diren tratu txarrei, eta irakasle eta ikasleen arteko harremanetan agertzen diren gatazkei. Modu berean, gatazken arrazoiak, horien konponbidea eta horiek prebenitzeko edo horietatik babesteko faktoreak ere aztertzen dira.
- **4. kapituluak** kontu horiek eta baten bat gehiago aztertzen ditu, ikastetxearen jarduerak edo administrazioaren papera kasu, baina **ikuspegi kualitatibotik** begiratuta. Bertan bildutako iritzi, balorazio, jarduera eta proposamenak ez datoz galdera-sortei emaniko erantzunetatik, baizik eta aukeraturiko hamar

ikastetxeetan pertsonalki eginiko elkarrizketetatik eta antolaturiko eztabaida taldeetatik. Kasu askotan, adibide adierazgarri gisa, pertsona batek edo ikasle talde batek, gurasoek edo irakasleek hitzez hitz adierazitakoaren transkripzioa erantsi da.

- **5. eta 6. kapituluak** ondorioak biltzen dituzte, argi eta garbi. Horietako lehenengoan, eginiko azterlanaren bidez lorturiko **ondorio nagusien erre-pasoa** egiten da eta, aldi berean, emaitza horiek orain dela gutxi eginiko beste azterlan eta ikerketa batzuen emaitzekin alderatzen dira, bat datozen elementuak nabarmentzeko eta aldeak egotearen arrazioak argitzeko.

6. kapituluak **Arartekoaren 28 gomendioak** biltzen ditu. Horiek aurrerago aipatuko ditugu.

- Gainerako **elementuak osagarritzat** har daitezke: 7. kapitulua, erreferentzia bibliografikoei buruzkoa; I. eranskinak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustaturiko jarduera nagusiak biltzen ditu; II. eranskinak erabilitako galdera-sortak jasotzen ditu: ikasleentzako galdera-sorta; familientzako galdera-sorta; irakasleentzako galdera-sorta; zuzendarientzako galdera-sorta.

Hortaz, hurbilketa edo irakurketa desberdinak egin daitezke. Hala ere, hemen horietako bat bakarrik egingo dugu, ikuspegi laburra emango dugu, batez ere arazo orokorretan eta hobekuntza-proposamenetan oinarrituta.

- **Zer da deigarriena eta zeintzuk dira aztertutako errealitatearen alderdirik kezkagarrienak?**

Ikastetxeetako indarkeriaren gainean gizarteak agertzen duen alarma, hedabideetan titular handiekin zenbaitetan agertzen diren albisteak, edota ikerketa zehatz batzuk eskaintzen dituzten emaitzak kontuan hartzen baditugu, ziurrenik deigarriena eta eginiko azterlanean azpimarratzeko moduko aldea izango da **gure hezkuntza-komunitateko osagarri guztiak (ikasleak, irakasleak eta familiak...) nahiko pozik daudela beren ikastetxeetan sumatzen duten giroarekin.**

Erantzunak kritikoagoak dira hezkuntza-sistemaren giro orokorrari buruz galde-tzen zaienean edo giroaren balizko hondamenari buruz hitz eginaraztean. Bakoitzaren ikastetxeari buruz galdetzean, ordea –hori da hobekien ezagutzen dutena–, bildutako balorazioak oso positiboak dira. Adibide gisa aipa daiteke familien %82k ez lukeela semea edo alaba ikastetxetz aldatuko, edo familien %93,4 oso pozik dagoela semea edo alaba dagoen ikastetxean egotearekin.

Txostenak beste hainbat alde positibo antzemateko aukera ematen du.

Ararteko erakundeak eskubideak bermatzeko duen betebeharetik aztertuz gero, ordea, alde negatiboak azpimarratu behar ditugu eta, bereziki, ondorio larriak izan ditzaketenak edo pertsonen oinarrizko eskubideetan eragina izan dezaketenak. Ikuspegi hori kontuan hartuta, egia esan, nahikoa litzateke ikastetxeko komunitateko kide bakar bat baztertua, mehatxatua, erasota edo lotsarazia izatea, gure kezka edo esku-hartzeak zentzua izateko. Eta egindako azterlanean bildutako datuen arabera, gainerakoetan

bezala, mota horretako jarduerak, gehienetan nagusikeriaren ondorio, ohikoak dira zoritxarrez.

Azterlanak nahiz garatutako jarduerak agertzen dizkiguten **kezka-elementu** ezberdinen artean, honakoak azpimarra ditzakegu:

### 1) **Irakasleen eta familien artean antzeman daitekeen banaketa**

Txostenak, bereziki galdera-sortei emaniko erantzun sailak, aukera ematen du alde nabarmenak ikusteko, familien eta irakasleen artean oso jarrera ezberdinak antzemateko hainbat konturen inguruan iritzia ematerakoan eta balorazioak egiterakoan. Horrela, esate baterako, familiek oso ikuspegi idilikoa dute irakasle eta ikasleen arteko harremanen inguruan; haien ustez beren seme-alabek ez dute ia arazorik ematen; aldiz, askoz ere kritikoagoak dira irakasleen jardunbidearekin, etab.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena ez da beharbada alde horiek egotea izango. Kezkagarriena, ziurrenik, sektore batek besteari errua botatzea izango litzateke, edo arazoan erantzukizun nagusia egozte, edo batek besteak gatazkak konpontzeko duen modua zalantzan jartzea... Horrela, irakasle gehienek (% 54k) uste dute ikastetxeetako diziplina-arazoan edo indarkeriaren arrazoiak familiak permisiboegiak izatea dela, eta seme-alabei inolako jokabide mugarik ez ezartzea. Familia askok, aldiz, uste du, gatazkak ez direla justiziaz konpontzen ikastetxeetan, edo bide judizialari heldzea aukera egokia dela...

Ararteko erakundeetan jasotzen ditugun kexek ere, alde horiek nabarmentzen dituzte: guregana jotzen duten familiek uste dute irakasleek edo ikastetxeetako zuzendariak arduragabekeriak jardun dutela edo beren irudia mantentzen saiatu direla edo ez dutela nahikoa lan egin beren seme edo alabaren arazoa konpontzeko. Aitzitik, ikastetxeak behar bezala jardun duela uste du eta, zenbaitetan, familiaren esku-hartzea kaltegarria ere izan dela, gauzak zailtzea besterik lortu gabe.

Kontuan hartzen badugu azterlan guztiek eta praktikak familia eta irakasleen arteko lankidetzak azpimarratzen dutela ikastetxeetako bizikidetzak eta giroa hobetzeko ezinbesteko faktore gisa, alde horiek izugarri kezkagarriak dira eta lehentasunezko arreta eman behar zaie.

### 2) **Sektore batzuen parte-hartze eskasa ikastetxeetako bizikidetzak erregulatzen duten arauak egin, berrikusi eta aplikatzean**

Eginiko azterlanaren emaitzek agertzen dute bizikidetzak-arauak egin eta berrikustean dagoen parte-hartzea oso eskasa dela, bai behinik behin familia eta ikasleen aldetik. Sektore horien poztasun eza galdera-sorten erantzunean nahiz eztabaida-taldeen antzeman agertzen da.

Badirudi ikastetxe batzuetan ohikoa izaten dela aurreko urteetan ezarritako arauak egokitzat jotzea, ikastetxeko komunitateko kide guztien arteko eztabaida sustatu gabe. Horietako asko kide berriak izan daitezke ikastetxean eta, beraz, gerta daitezke horien gauzatzean inoiz parte hartu ez izana.

Modu berean, ez dirudi formalizazio gehien izandako parte-hartze azpiegiturek (Eskolako Kontseiluentzat bizikidetzak-batzordeak diren moduan) kontua behar bezala

konpontzen dutenik. Ikasle eta familien balorazioaren arabera (organo horietan parte-hartze zuzena dutenak barne), arauen berrikuspenean edo aplikaziorako irizpideetan esku hartzeko dituzten aukerak oso mugatuak dira, irakasleek erabakitzeke duten ahalmenaren ondoan.

### 3) **Zenbait jokabide “normaltzat” hartzea; horrek zalantzan jartzen ditu errespetuzko bizikidetzarako ezinbestekoak diren hainbat balio**

Azterlanean ikusitako beste elementu kezkaigarrienetako bat da ikasleen talde handi batek “normaltzat” jotzea zenbait jokabide, horiek ikastetxeko giro ona suntsi badezakete ere. Jokabide horiek sufrimendu handia eragin diezaiekete zenbait ikasle eta irakasleri, edota arazoei erantzun egokia emateko aukera zaildu.

Nagusiki, hiru jokabide motaz ari gara. Horiek, aztertutakoaren arabera, nahiko ohikoak dira eta ikasleen talde esanguratsuak justifikatzen ditu –arrazoi harrigarriak emanez batzuetan–:

- Gelako martxa etetea edo diziplina eza, txostenean antzeman daitekeen moduan, irakaslearen egonezinerako arrazoi nagusienetako bat da eta, modu berean, ikasleen aldetiko frustrazioa eta poztasun eza dakartza.
- Gelakideei eginiko erasoak, haiengan izan ditzaketen ondorio negatiboak baloratu gabe.
- Ezer egiten ez duen lekukoaren paperaren onarpena. Normalean, ondorio negatiboak etorriko zaizkienaren beldur, beste alde batera begiratzen dute, sufritzen ari denari babesik eman gabe edota heldu arduradunekin elkarlanean aritu gabe.

Txostenak dioten moduan oso zabaldurik dauden jokabide horien konbinazioak kostu pertsonal handia ari dira izaten, bai ikasleen baita irakasleen kasuan ere, eta horrek ondorio negatiboak dakartza ikastetxeetako eta geletako bizikidetzagiroan.

### 4) **Ikastetxeetatik kanpoko agente batzuen jarduera jakin batzuk izaten duten eragina, ez beti positiboa**

Ikastetxeko komunitatea eta bereziki irakasleen taldeak, txosten honetan islatzen den moduan, kezka handiz ikusten du neurri batean beste agente sozial batzuen esku-hartzea, beraien dela uste duten esparru batean. Adibide gisa, ikastetxeko jazarpen kasuen judizializazioaren inguruan adierazitako iritziak aipa daitezke, edo zenbait kasuri hedabideek ematen dioten tratamenduari buruz adierazitakoak.

Litekeena da ikastetxetik “kanpoko” agente batzuen esku-hartzearen aurkako iritzi batzuk jarrera defentsiboaren ondorioz etortzea, baina aldi berean arazoizko kezka antzematen da zenbait esku-hartzek egoera ez hobetzeaz gain, ondorio negatibo gehiago sor ditzakeelako positiboan aldean.

Gauzak horrela, badirudi kasuen, hartutako neurrien eta ondorioen jarraipena egitea beharrezkoa dela.

### 5) **Irakasle askorengan ezinegon maila altua antzeman daiteke, gainezka egiten dutela sentitzen dutelako**

Galdera-sortei emaniko zenbait erantzunek nahiz elkarrizketa eta eztabaida talde jakin batzuen edukiak pentsarazten dute irakasle askok gainezka egiten duela sentitzen duela, alde batera utzita daudela, lubakian sartuta bezala, lan itzelaren aurrean beharrezkoak dituen baliabideak izan gabe: onarturiko agintea, prestakuntza egokia, tutore lanak behar bezala gauzatzeko denbora eta esparruak, administrazioaren babesak, esparru legal argiak, baliabideak, eskolari gerora egingo duenaren aurkakoa izango dena exijitzen ez dion gizartea...

Bildutako erantzunen arabera, badirudi oraindik funtzio "hezitzailea" onartu nahi ez duten irakasleak badaudela, nahiz eta oso gutxi diren. Gehienek lan hezitzailean sinesten dute, baina behar bezala gauzatzeko baliabideak falta zaizkiela diote.

Irakasleen etsipenak ikastetxeetako bizikidetzako giroan hobekuntza esanguratsuak sumatzea galaraziko luke; beraz, horregatik da garrantzitsua haien parte-hartzea zaindu eta babestea.

Egia da ikastetxeek, haiek bakarrik, ezin dutela gizarteko indarkeria deuseztatu, baina prebentzioa lan dezakete, agerpena gutxitu eta harremanetarako eredu alternatiboak eskaini.

### 6) **Zenbait jokabideren aurrean agerturiko erreakzioa ez da nahikoa, edo motelegia da, eta horrek zigorgabetasun sentsazioa sortzen laguntzen du**

Egia da ikastetxeen oinarrizko lana prebentzioa izan behar dela, baina zenbait egoeraren aurrean, prebentzioa ez da nahikoa.

Zenbait gertakariren aurrean, jazarpen egoerak kasu, ezinbestekoa da esku hartzea eta, gainera, azkartasunez eta eraginkortasunez.

Mantsotasunak edo eraginkortasun ezak ondorio negatiboak bakarrik dakartzate: jazarpena jasan behar duen pertsonarentzat noski, babesgabetasun egoeran jarraitzen duelako, baina baita jazarpena eragiten duen pertsonarentzat edo taldearentzat, zigorrik gabe ikusten dutelako beren burua, eta lekukoentzat ere, gelakide bat –irakasle bat– lotsarazten jarraitzen dutela ikusten dutelako apartekorik gertatu gabe.

Ararteko erakundean jasotako kontsulta eta kexa gehienak ikastetxeek urtetan pairatutako desgastearen eta frustrazioaren ondotik etorritakoak izan dira. Oro har, familiek adierazitakoak izan dira, ikastetxearen aldetiko esku-hartzea moteltzat edo eskastzat jotzeagatik.

### 7) **Tratu txarren biktima direnen bakardadea eta mina**

Badirudi orain arte ezagututako edo salatutako kasuak errealitatearen zati txiki bat besterik ez direla.

Baina, hezkuntza-sisteman edo eskolako aro jakin batean agertzen diren jazarpen kasuen proportzio fidagarrienaren datua zein den alde batera utzita, kontua da jazarpena pairatzen duen ikasle asko dagoela. Horietatik asko isiltasunean bizi dira, edo lagunen baten babesarekin bakarrik. Egoera horren arrazoia hura defendatu beharko luketen

helduei gertatzen dena azaltzeko biderik ez izatea edo salaketak babesgabetasun handiago eta are ondorio kaltegarriagoak ekarriko dizkiela uste izatea izan daiteke.

Egoera hori erabat onartezina da zuzenbidezko estatu batean, eta are gehiago, heztea helburutzat duen erakunde batean. Haien erantzukizun nagusia ikasleak babestea da, kasu gehienetan adin txikikoak baitira.

Horregatik, txosten honetan zenbait gomendio zehatz egitea erabaki dugu, tratu txarren biktima direnei beharrezkoa duten laguntza bermatzeko asmoz.

## • **Gomendioak**

Txostenean **28 gomendio** egiten dira ikastetxeetako eta geletako bizikidetzak hobetzeko. Gomendio horiek hezkuntza-sistema osoari zuzendurikoak dira, arduradun gorenari edota, ikastetxeko komunitatearen parte izan ez arren, garatzen dituzten jarduerak direla-eta, haren gainean eragina duten agente sozialei, besteak beste, sistema judiziala edo hedabideak.

- Horietako batzuek egungo **esparru arautzailea** aldaraztea edo osatzea proposatzen dute (adibidez, Ikasleen eskubideen eta betebeharren Dekretua), edo jardueraprotokoloak berrikustea (1.etik 5.era arteko gomendioak).
- Beste batzuek **ikastetxeen antolakuntzari**, beren lehenetasunei, parte-hartzeko sistemei, jardunbideei, eskolako denboraren eta espazioen antolakuntzari eta abarri eragiten diete (6.etik 16.era arteko gomendioak)
- **Jazarpen** edo indarkeriazko **egoeratan esku hartzeko** moduaren inguruko sei gomendio zehatz ere agertzen dira, detekzioa hobetzera eta tratu txarren biktima direnei babesa eta beharrezko laguntza bermatzera bideratuak (17.etik 22.era arteko gomendioak). Azken urteotako esperientziak erakutsi digu prebentzio lana (zalantzarik gabe, alderdirik garrantzitsuena izaten jarraitu behar duena ikastetxeetan) beti ez dela nahikoa izaten. Horrexegatik egin behar izan ditugu gomendioak.
- Hiru gomendio **beste agente sozial batzuen esku-hartzeari** buruzkoak dira: sistema judiziala; hedabideak; bestelako agenteak, adibidez, gizarte zerbitzuak edo polizia (23.etik 25.era arteko gomendioak)
- Eta azken hirurak jarraipen eta ikerketa egiteko beharrari buruzkoak dira (26.etik 28.era arteko gomendioak).

Hortaz, jardun-eremu ugari hartzen dituzte.

Litekeena da gomendio horietakoren bat berriagoa izatea, baina gehienek jada aplikatzen ari diren jardunbideak, programak edo ekimenak indartzen dituzte. Hala ere, hezkuntza-sistema oso zabala eta konplexua da. Eta ikastetxe guztietako bizikidetzak modu esanguratsuan hobetzea lortzeko zailtasun nagusietako bat sistemaren beraren konplexutasuna da, hamaika gela, hamaika irakasle... Gomendio horietako asko aplikatzeak esku hartzea eta arduratsu ibiltzea eskatzen die, neurri handiago ala txikiagoan, hainbat mailari: Hezkuntza Sailari eta haren zerbitzuei dudarik gabe, baina baita ikastetxeko

organoei (eskola kontseiluak, bizikidetza-batzordeak, zuzendaritza-taldeak, mintegiak, zikloko taldeak...) eta beste agente sozial batzuei ere. Horrela, Ararteko erakundeak, ahal duen heinean, datozen ikasturteetan egiten diren lorpen, aurrerapauso edo atzerapenen bilakaera aztertuko du.



### 3. 2006AN BIDEAN DIREN TXOSTENAK BEREZIAK

#### 3.1. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA: GAZTEEI ZUZENDUTAKO ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOAK EAEn

Joan den urteko txostenean adierazi genuen bezala, erakunde hau **Gazteei zuzendutako etxebizitza-politika publikoei buruzko ezohizko txostena** hasi zen prestatzen; horren amaiera 2006ko ekitaldiko lehen seihilekorako aurreikusitua zen. Alabaina, Euskadiko etxebizitzaren esparru juridikoa eratzeko zenbait gertaera erabakigarriak aurreikuspen horiek aldatzera behartu gaituzte. Hain zuzen ere, txosten hau prestatzen ari ginela EAEn etxebizitza-politikak protagonismo handia izan du eta esparru horretan bereziki garrantzitsuak izan dira araudian egindako aurrerapen nabarmenak. Horixe izan da hainbeste denboran espero izan den eta, azkenean, Eusko Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 30ean onartu zuen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen kasua. Arau hau onartu zenean txostena jada amaituta zegoen arren, lege testu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza-politika publikoetan izango zuen eragina ikusita, txostena lege horren ekarpen nagusiekin osatzea erabaki zen. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriko ekarpen nagusiak ere barneratu ziren (plan hori datuak eguneratzeko fase horretan argitaratu zen) eta, ahal zen neurrian, 2006. urtearen amaieran kaleratu ziren bigarren mailako informazioko zenbait datu ere eguneratu ziren. Horrek ezohizko txostena Eusko Legebiltzarrari emateko aurreikusitako data atzeratzea eragin zuen. Hala ere, urteko txosten hau idazterakoan, ezohizko txosten hori amaituta dago eta argitalpen fasean dago, Eusko Legebiltzarreko presidenteari noiz aurkeztu zain; aurkezpena, azkenean, 2007ko lehen hiruhilekoan egingo da.

##### 1) Txostenaren helburua

Txosten honek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek beren eskumenen eremuan gazteei zuzentzen dizkieten etxebizitza-politikak aztertzen ditu.

Xede horrekin, lehenik eta behin, gaur egun EAEn gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoak deskribatzen ditu eta, horrela, txostenaren gai nagusia kokatzen du. Ondoren, problematika hori eta sektore publikoak emandako erantzunak testuinguruan kokatze aldera, etxebizitza-politikaren eta gazteentzako etxebizitza-politikaren alderdi nagusiak aurkezten dira, alderaketak eginez bai Estatuarekin bai Europarekin. Txostena azken urteotan EAEn gazteentzako etxebizitza-politika publikoen esparruan garatu diren ekintza eta ekimen nagusiei buruzko azterketa sakonak osatzen du.

Txostena aldi berean deskribatzailea, analitikoa eta baloratzailea da eta bere interesetako bat administrazioek eta gehien inplikaturako gizarte eragileek arlo honetan dituzten iritzi ugariak eta, batzuetan, kontrajarriak aurkeztea eta hausnarketarako ahalik eta elementu gehienak jasotzea da.

EAEn gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzera bideratutako politika publikoen alde positiboak azpimarratzearen kaltetan izan gabe, bere azken xedea horien gabeziak edo disfuntzioak antzematea eta, ahal den neurrian, etorkizunean jarduteko jarraibideak proposatzea da.

## 2) Eremua

Txostenak gazteei zuzendutako etxebizitza-politika publikoen analisisan jartzen du arreta, gazteak direlako lehenengoz erosten diren etxebizitzaren eskatzaile nagusiak, eta, ondorioz, gazteak direlako politika horien eraginpean dagoen kolektibo nagusia. Talde horri etxebizitza eskuratzen laguntzeko garatutako ekimen eta jardun espezifikoak gizartean oro har eragina duten zailtasunei erantzuten saiatzen den etxebizitza-politika orokorrean kokatzen direnez, ezinbestekotzat jo da esku hartzeko esparru orokorra aztertzea, testuingurua ulertze aldera.

Bestalde, etxebizitza eskuratzeko dauden arazoak era askotakoak eta konplexuak direnez, eta arlo horretan eragina duten eta erlazionatuta dauden faktoreak ere ugariak direnez, egoki iritzi zaio txostena kontu honekin erlazio zuzenagoa dutenak aztertzeri mugatzeari. Horrela, askoz ere xehetasun gutxiagoz aipatu dira berez gazteentzako etxebizitza-politikari ez dagozkion elementuak, hauek ere funtsezkoak diren arren; izan ere, horiek hainbat arlotan agertzen duten konplexutasun eta eraginagatik, ezohizko txostenen bidez jorratu ahal izango lirarteke, lurzorua politikarekin gertatzen den bezala.

Azkenik, komeni da azpimarratzea ez direla berariaz jorratzen, etxebizitza-politikaren arloan, zailtasun bereziko egoeran dauden gazte talde zehatzengan eragin nabarmena izan dezaketen kontuak. Talde horietako batzuk gazte etorkinak, drogazaletasunarekin erlazionatutako zailtasunak dituztenak edo baztertuta dauden edo hala geratzeko arriskuan dauden gazteak dira. Azken hauei dagokienez, ordea, labur-labur aipatzen dira gizarte behar larrietarako laguntzak (GLL), kontuan hartuta zeregin garrantzitsua dutela euskal hiritar askok, eta gero eta gehiagok, etxebizitza eskuratzeko duten aukeran.

## 3) Txostenaren egitura

Sarrerako lehen kapituluak alde batera utzita, txostena sei kapitulutan egituratuta dago:

- II. kapituluak, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoetarako hurbilketa eskaintzen da.
- Hirugarrenak etxebizitza-politikaren oinarriak aurkezten ditu; horiek ezagutzea beharrezkoa da EAEko gazteei dagokienez aurrerago egiten den analisia ondo ulertzeko. Orobat, arlo honetan duten tradizioagatik eta/edo aurrerapenengatik azken urteotan Europar Batasuneko zenbait herrialdetan aplikatu diren etxebizitza-politikak ere deskribatzen dira, modu sintetikoan.
- IV. kapituluak Estatuan eta EAEn aplikatutako etxebizitza-politika publikoak aurkezten ditu, ikuspegi historikotik begiratuta eta modu sintetikoan.
- V. kapituluak Europar Batasuneko zenbait herrialdetan, Estatuan eta EAEn berariaz gazteei zuzendutako etxebizitza-politiken analisisan jartzen du arreta.

- Hurrengo kapituluak, txostenaren mamia denak, azken urteotan EAEn gazteei zuzendutako etxebizitza-politikaren arloan artikulatu diren tresna eta ekimen desberdinak zehatz-mehatz aztertzen ditu.
- Azkenik, gazteentzako etxebizitza-politikaren arloan, eta, hein handi batean, baita etxebizitza-politika orokorrean ere, administrazio publikoen esku-hartzea hobetzen lagun dezaketen zenbait gomendio proposatzen dira, kontuan izanik, gazteei zuzendutako etxebizitza-politika jardute esparru global batean sartzen dela, eta hori gizarte osoak etxebizitzaren gain dituen premiei erantzuten ahalgintzen dela.

### 3.2. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA: ADINGABEEK BALIOAK BEREGANATZEA

Jada 2005eko ohizko txostenean (ikusi IV. kap., 3.4 atala), ikastetxeetako bizikidetzari buruzko txostenaren jarraipen modura, zehazki balioak helarazteari buruzko txostena egiteko borondatearen berri eman zen. Gaia bereziki garrantzitsua da euskal gizarte demokratikoagoa, pluralagoa eta pertsona guztien eskubideekin eta aldeekin errespetu handiagokoa dena eratze aldera.

Horren bidez, jarraipena ematen zaio Ararteko erakundeak ezarritako lehenasunetako bati. Adingabeekin eta haien egoera berezi ahularekin zerikusia duten ezohizko txostenetan ere islatu izan da lehenetasun hori: arrisku eta babesgabetasun egoeren aurrean babesa ematea, adingabe arau-hausleekin esku-hartze judiziala izatea, hezkuntza-premia berezietan erantzuna ematea, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak... Horietatik azkenekoa 2006ko abenduan argitaratu zen, eta ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei eman die arreta, zehazkiago Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei.

Azken txosten horretan (txosten eta kapitulu honetan horren gaineko laburpena eskaintzen da) aztertu ziren jada zuzenean balioekin zerikusia zuten zenbait kontu. Horrela, ikasleen laginari pasatako galdeketetan (DBHko 2. mailako 1.707 ikasle, eta DBHko 4. mailako 1.616 ikasle) galdera zehatzak jarri ziren, haien iritziak eta jarrerak ezagutu ahal izateko gai jakinen gainean. Adibidez:

- Zein da haientzat erabaki egokiena edo haiek hartuko luketena, eskolaren eremuan jazotzen diren arazo edo egoeretan (gelakideren batek jasaten duen jazarpenaren aurrean, gelako martxa eteten duten portaeren aurrean, norbaiten marjinazioaren aurrean, ekintza bandalikoaren aurrean...).
- Aurreko portaerak argitzeko, zer arrazoi edo zergati egon daitezkeen, haien ustetan.
- Gizartearen garapenerako edo beren etorkizun pertsonalerako, zer balio jotzen duten garrantzitsuentzat (irakatsi beharko liratekeen bertuteak; bizitzarako garrantzitsuentzat jotzen dutena; okerrera iruditzen zaiena, etab.).
- Gizarteratze prozesuan zerikusia duten eragile ezberdinei ematen dieten garrantzi maila, balioak helarazteari dagokionez: ikastetxeari, irakasleei, gurasoei, lagunei, hedabideei.
- Eragile horietako batzueganako konfiantza-maila, familiarenganakoa edo ikastetxearenganakoa, adibidez. Garapen pertsonal eta sozialerako horiei ematen dieten garrantzia...

Haiek emaniko erantzunen azterketak, bestalde, alderaketak egitea ahalbidetu du, ikasleek emaniko erantzunen eta haien guraso eta irakasleen emanikoen artean (azken horiei antzeko galderak egin zitzaizkien, bakoitzari bere galdeketaren bitartez). Gai honetan, beraz, orain dela gutxiko hurbilketa dugu, nahiz eta kontu jakin batzuei, adin zehatz batzuei, mugaturikoa den, eta hezkuntza formalaren alorrarekin zerikusi handia duen.

Orain proposatzen dugun ikerketa berrian haratago iritsi nahi da, arreta jarritz bereziki balioak helarazteko sistema edo eragileetan: zeintzuk diren; zer eragin duten

gure adingabekoengan; zer balio ari diren helarazten; zer norainoko eraginak jasotzen dituzten horietatik...

Gizarteratze prozesuan laguntzen duten eragile tradizionalen paperaz gain –esate baterako, familia, ikastetxea edo berdinkide taldeak–, teknologia berriekin uztarturiko beste berritzaileago batzuk ere aztertu nahi dira: gehien kontsumitzen diren telebistako programak, bideojokoak, Internet... Horretarako, dimentsio bikoitza aztertu nahi da gutxienez: alde kuantitatiboagoa litzatekeena (horietako bakoitzaren eraginpean edo hura erabiltzen igarotako denbora aztertuz, adibidez) eta alde kualitatiboagoa litzatekeena (helarazten dituzten balioak eta horiek adingabeengan izandako eragina azter dezaten).

Arartekoaren ikuspegitik, lehen ere adierazi den moduan, ezinbesteko gaia da, berebiziko garrantzia duena gure gizartearen etorkizunerako. Horren gainean, maila oso ezberdinei eragin ahal izango dien gomendioak egingo dira: hezkuntza-sistemari, haur ordutegiko telebistako programazioari, merkatuan dauden jokoaren kontrolari, udal jarduerako planei edo aisialdi programei, etab.

Halaber, gizarte sentsibilizazio handiko gaia da, askotan indarkeriarekin edo haren adierazpen forma berriekin oso estuki loturikoa. Horiek, hedabideek ezagutu eta jakinarazten dituztenean, ulermen eza, kezka eta alarma sorrarazten dute (“Balioak galdu egin dira”).

Horrela, bada, hasitakoa bezalako balioak hartzeari buruzko azterlan batek ekarpen positiboak egin ahal izango dizkio gizartean dagoen eztabaidari, eta baita erakundeen ekimenei ere.

Balioen gaia eratzen duen alorra oso zabala denez, Arartekoak arreta emango die balio moral edo etikoak izena duten horiei. Zehazkiago, balio unibertsalagoko adostasun maila handiagoa agertzen duten hiru alorrak aztertuko ditu:

- Deklarazioan bildutako giza eskubideak;
- Gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea;
- Harmonia naturarekiko.

Bereziki azpimarratu nahi da genero, jatorri, sexu joera edo kultura gutxituetako taldeetakoa izateagatik (ijito herria, adibidez) aldean errespetua eta onarpena. Hau da, balioen kontrakoak hedatzea edo jarrera matxistak, arrazistak, homofoboak edo xenofoboak izateari.

Zaila izan daitekeen arren, azterlanak informazio fidagarria lortu nahi du hainbat konturen gainean, horiek, hasiera batean, interesgarriak diruditelako. Adibidez:

- Denbora zertarako erabiltzen den (batez ere “antolatutako gabeko” denbora, aisialdi denbora), eta horrek balioak hartzean duen eragina.
- Teknologia berrien eta egungo baliabide teknologikoen gainean gazteek egiten duten erabilera nolakoa den (bereziki hedaturik dauden horiek, edo balioak hartzerakoan bereziki garrantzitsuak direnak: telebista-kontsumoa, ordenagailuko jokoak, Internet edo telefono mugikorra).
- Gizartearen bizikidetzarako ezinbestekotzat jotzen diren balio jakin batzuk nork bere egiten dituen maila.

- Giza eskubideen aurkako jarrera batzuk justifikatzea edo horiek errefusatzea...
- Gizarteratzean zerikusia duten eragile ezberdinei ematen zaien balorazio maila, balio eskualdaketaren aldean.
- Adingabeek beren ahotsa entzunarazteko dituzten parte hartzeko bideak, eta eremu ezberdinetan belaunaldien arteko harremanak dituen aukerak (eskolan, familian, udalerrian...).

Txosten hau idatzi den unean, behin ikerketa talde ezberdinei lanaren oinarriak ezarri eta bidalita, proposamen ezberdinak jaso zain gaude. Ikerketa 2007an zehar garatu ahal izatea espero dugu, eta txostena 2008an argitaratzea.

### 3.3. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA: TERRORISMOAREN BIKTIMEN EGOERA ETA BEHARRAK EAEn

Orain dela hilabete batzuetatik hona, Arartekoak terrorismoaren biktimen egoera eta beharren gaineko txostenaren gaia azpimarratu du. Horixe adierazi izan du baita Legebiltzarrean ere.

Txosten hori Ararteko erakundeak terrorismoaren biktimekiko beti azaldu izan duen sentikortasun bereziaren ondorio da. Hori dela eta, talde hori lehentasunezko arreta jasotzen duenetako bat da eta, horretarako, sail zehatza sortu zitzaion.

Gainera, txosten hori Legebiltzarreko talderen batek ere eskatu izan du eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere jazarpeneko indarkeria deiturikoaren gainean egin zuten eskari bat.

Txostenaren izaera kontuan hartuta, erakundearen beraren baliabideekin egitea erabaki da.

Txosten horretan euskal erakundeek terrorismoaren biktimen egoera eta beharrei eman dieten erantzuna aztertuko da. Horretarako, bi bide erabiliko dira: batetik, Legebiltzarreko akordioetan adosturiko neurri eta jardunbideen betetze maila aztertuko da; bestetik, administrazio ezberdinek terrorismoaren gainean indarrean dauden arauak betetzen dituztela baieztatuko da.

Gauzak horrela, hurrengo gaien gaineko jarraipena egiten ari da:

1. Terrorismoaren biktimen egoera arintzeko neurriei buruzko ez-legezko proposamena, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak 2003ko ekainaren 25ean onarturikoa.
2. Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak emaniko ebazpena, terrorismoaren biktimen egoera eta beharren azterketaren inguruan. Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak onarturikoa da, 2005eko otsailaren 17 eta 18an.
3. Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen baitan eraturiko ponentziaren txostena. Batzordeak terrorismoaren biktimen egoera eta beharrak aztertzeko ardura zuen. Txostena 2004-12-15ekoa da (2005eko otsailaren 10eko Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala).

Gainera, besteak beste, terrorismoaren biktimei buruzko hurrengo arauak betetzen diren edo ez ziurtatuko da:

- Eusko Jaurlaritzaren irailaren 24ko 214/2002 Dekretua, Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duena.
- Urriaren 8ko 32/1999 Legea, Terrorismoaren Biktimekin Solidaritatea agertzen duena.
- Abenduaren 17ko 1912/1999 Errege Dekretua. Horren bidez, Terrorismoaren Biktimekin Solidaritatea agertzen duen urriaren 8ko 32/1999 Legea gauzatzeko erregelamendua onartzen da.
- Martxoaren 7ko 288/2003 Errege Dekretua. Horren bidez, terrorismo delituen biktimentzako laguntzen eta ordainen erregelamendua onartzen da.

Bestalde, ezinbestekoa da biktimen ahotsak berak islatzea.

Une honetan biktimen elkarte eta fundazio batzuekin harremanetan jartzen gabiltza, eta horiekin guztiekin harremanetan jartzeko asmoa dago, biktimen behar eta eskakizunen katalizatzaile moduan jardun dezaten.

Zaila da ezaugarri hauetako txosten batean terrorismoaren biktimek, haien familiek eta gertukoek bizi izan duten zorigaitz izugarria islatzea. Hori dela eta, bizitako istorioak sartzeko teknika erabiliko da, Legebiltzarrari aurkezturiko beste ezohizko txosten batzuen kasuan ere egin izan den moduan. Bizitako istorio horien bidez jarduera terroristen ondorioak jaso dituzten pertsonen eta taldeen gaineko ikuspegi anitzena eskaini nahi da.



### 3.4. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA: GIZARTE ESKU-HARTZEAREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUTENEN LAN BALDINTZAK

2006an zehar lehenengo urratsak egin dira, gizarte esku-hartzearen sektorearen azterketari ekiteko. Nolabait orain arte erakunde honek eginiko ezohizko txostenen ikerketa osagarria da.

Kontuan hartu behar da gure Erkidegoan egun baztertuta geratzeko arriskuan daudenena, edota babesik gabeko adingabeena, pertsona ezgaituena edo mendekotasun maila handiagoa edo txikiagoa duten adinekoena bezalako talde adierazkorren arretaren sektorean eskaintzen diren gizarte arretako zerbitzuetako asko elkarteek edo gizarte ekimeneko erakundeek kudeatzen dituztela. Horretarako, administrazio ezberdinen laguntza jaso ohi dute (Eusko Jaurlaritzaren sailak, foru aldundietako sailak, udalak eta mankomunitateak...). Esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bada, baina nahiko litzatekeen argitasun edo araudirik gabe.

Errealitate hori hainbatetan jorratu du Arartekoak, neurri batean behinik behin, edo zeharkako modu batean. Horrela, esate baterako,

- Ezohizko txosten ezberdinetan adierazi izan du hori (adingabe arau-hausleak, babesik gabeko adingabeak, bakarrik dauden adingabeak, pertsona ezinduen laneko integrazioa...).
- Ofiziozko jardueretan azpimarratu izan du (zuzenena, barnetegietako langileen lan baldintzei buruzkoa, Justizia Sailarekin bideratutakoa; azkenekoa, 2005ean sortutako gatazka Gipuzkoako adingabe atzerritarren zentroekin).
- Gomendio orokorretan jaso izan du (Gizarte Ongizate eta elkartearen artean sinaturiko hitzarmenak; eremu sozialean lan egiten duten elkarteetako laguntzak emateko deialdia –2005eko ohizko txostena–...).
- Zerbitzu eta baliabide ezberdinetara eginiko bisitaldi askotan adierazi izan du, eta baita horiek ohizko txostenetan islatzerakoan ere...

Txosten berri honen xedea sektorea sakontasun handiagoz aztertzea da, osotasunaren ikuspegiari helduz. Une honek bereziki interesgarria dirudi:

- Sektorearen arlo edo zati batzuei aplikatu dakizkien hitzarmen batzuk badira jada, lurralde batzuetan behinik behin.
- Gizarte zerbitzuen etorkizunaren gaineko eztabaida sortu da, eta legea beharbada aldatu egingo da.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko Legea eta horren garapena...

Bestalde, etengabe hazten ari den sektorea da, eta azken urte hauetan hazkuntza garrantzitsua jasan du. Horrela, CIDECaren 2002ko datuen arabera, gizarte ekintzaren irabazi asmorik gabeko sektoreak 520 milioi euroko urteko aurrekontua mugitu zuen EAEn, gutxi gorabehera Euskadin eratutako BPGaren % 1,4. Lanaldi osoko lanpostuei dagokienez, ordaindutako lanen bolumen osoa 15.450 lanpostukoa zen, Erkidegoko lan guztiaren % 1,9 hain zuzen.

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak erabilitako duela gutxiagoko datuek diote EAEko gizarte ekintzaren irabazi asmorik gabeko sektorea 1.569 erakundek eratzen dutela eta bertan, 181.185 pertsona sartzen direla guztira. 18.612 pertsonak sektorean egiten dute lan soldatapean eta 57.846 pertsonak, berriz, boluntario moduan, ordainsaririk jaso gabe, alegia.

Hori horrela izanda ere, eta inpaktu sozioekonomikoa garrantzitsua izan arren, gizarte ekintzaren hirugarren sektorea ia arautzeke dago egun oraindik. Egoera horretan eragina duten faktoreak honakoak izango lirateke:

- Gizarte zerbitzuek ez izatea eskubide subjektiboen definizioa.
- Eskubide horiek bermatuko dituen gizarte zerbitzu multzorik ez egotea.
- Gizarte zerbitzuak ematerakoan esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren inguruko araudia desgokia edo eskasa izatea...

Egoera horrek hainbat ondorio negatibo dakartzkio zerbitzuari. Horrela, esate baterako,

- Zerbitzuen eta prestazioen jarraitasuna ez dago bermaturik, finantzaketa eze-gonkorra delako.
- Zerbitzuen kalitatea, multzoa definiturik ez dagoenez, oso ezberdina da nork ematen dituen gorabehera, eta zerbitzu horri atxikitako baldintza ekonomikoak gorabehera.
- Milaka profesionalen lan baldintzetan eragin negatiboak ditu (hiru lurralde historikoetan, sektore mailan, laneko harremanak babestuko dituen esparru arautzailerik ez dago; alde handiak daude lan baldintzetan, eremu geografikoa eta sektorea gorabehera; lan ezegonkortasuneko egoerak eta sektore jakin batzuen behin-behinekotasun altua...).

Arartekoaren ikerketa berri hau, beraz, ez da laneko kontu soilengatik ulertzen (aldean arteko negoziazio xede), baizik eta, batez ere, arretaren kalitatean duen eragin negatiboagatik. Kasu batzuetan, gainera, lagundutako pertsonen eskubideetan eragina du egoerak, eta baita zerbitzu honetan edo bestean lan egiten duten pertsonen lan baldintza ezberdinetan ere: profesional/erabiltzaile ratioak, langileen kualifikazioa, zerbitzuen baldintza fisikoak, prestakuntza jasotzeko aukerak, ekipamendu eta programen jarraitasuna...

Gure ustez, Arartekoa bezalako erakunde batetik emaniko ikuspegi osoa emateak lagun dezake, datozen urteetan sektore honetako baldintzak hobetzen.

Azterlanak hiru lurralde historikoak eta euskal administrazioaren hiru mailak hartuko ditu: Eusko Jaurlaritzak, aldundiak eta udalak.

Gizarte esku-hartzeko sektoreei dagokienez, anitzak dira eta horiek ezberdintzea ez da beti lan erraza izaten: gizarte ekintza, gizarte eta lanekoa, soziosanitarioa, gizarte eta hezkuntzakoa, gizarte eta kulturakoa... Zerbitzu asko, gainera, biztanle sektore jakin bati zuzendurikoak dira, adinaren, sexuaren, jatorriaren edo bestelako ezaugarri batzuen arabera: adingabeei, emakumeei, adinekoei, bizitokirik ez dutenei, toxikomanoei eta toxikomano ohiei, etorkinei, espetxeratuei eta espetxean egon zirenei.

Alde batetik, gizarte esku-hartzearen alorraren ikuspegi osoa izatea da xedea. Aitzitik, baldintza kaskarrenetan dauden sektoreen ezaugarriak aztertu nahi dira, eta horiek agerian utzi. Azterlanaren eremua oso zabala da eta, beraz, eremu hori mugatu egin behar da.

Txosten hau idazterakoan, ikerketa-talde ezberdinei helarazi zaie jada azterlanerako oinarrien dokumentua, eta metodologia proposamenak aztertu zain, eta benetan ikerketa izango dena hasi zain gaude. Lana 2007an amaitzea espero da eta 2008an argitaratzea.

### **3.5. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN EGOERA**

Laguntza soziosanitario egokia eskaini ahal izateko, beharrezkoa da nahikoa baliabide izatea eta daudenen artean koordinazioa egotea, eta horixe islatu da, hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarrari erakunde honek aurkezturiko txosten ezberdinetan. Adibide modura, ospitaletik kanpo buruko gaitzei ematen zaien trataerari buruzko ezohizko txostenean adierazitakoa aipa daiteke, buruko nahasmendu kronikoa dutenek behar dituzten laguntza sozial eta/edo osasunekoak babestearen inguruan.

2005eko apirilean onartu eta aurkeztu ondoren, Ararteko erakundeak beharrezkotzat jotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Soziosanitariorako Plan Estrategikoa (2005-2008) delakoarekin batera, garapenerako neurriak ere izatea, planak ezarritako moduan.

Ikuspegi horretatik abiatuz, alegia, beharra duten pertsonen arreta egokia emateko bultzada handia beharrezkoa dela dioena, txosten bati ekin zaio, eta baliabide erabilgarria eskaini nahi du, Euskal Herriko arreta soziosanitarioa hobetze aldera. Txosten hori 2007an zehar amaituko dela aurreikusi dugu.

Nahi horrek esan nahi zuen ezohizko txosten bat hasi behar zela eduki proposamen jakin baten gainean, eta bat etorri zen Legebiltzarrak adierazitakoarekin 2006ko azaroaren 24ko osoko bilkuran. Hamargarren atalean, Ararteko erakundeari eskatu zion arreta soziosanitarioaren egoeraren eta beharren gaineko azterketa eta txostena egin zitzala.

Besteak beste, txostena eginiko jarduerak eta topaturiko zailtasunak aztertzen saiatuko da, bai aukeratutako ereduan, bai kalitatezko arreta soziosanitarioak izan behar dituen ezaugarri eta beharretan. Eskumenen banaketatik eratorritako zailtasunak, zerbitzuen antolamendua, garapenean agertzen diren aldeak eta zerbitzuen finantzaketa aztertzen saiatuko da.

### **3.6. 2006an ZEHAR HASITAKO BESTE TXOSTEN BEREZI BATZUK**

Gizartean kezka handia sortzen ari den gaietako bat nerabeek alkohola kontsumitzearena da. Arrazoi hori dela eta, Eusko Legebiltzarrean gazteen alkohol mendekotasunaren arazoan gainean izapideturiko ez-legezko proposamenean adierazitako interesarekin bat etorriz, arazoak dakartzan kontsumo horri buruzko ezohizko txosten bat egiteko metodologiaren helburua eta izaera zehazten gabiltza. Behin atariko urrats hori emanda, txostena 2007an zehar egingo da.



## **IV. ATALA**

### **LEHENTASUNEZKO TALDEAK**





Alorren egituraketa beti gaikako banaketaren arabera egin izan da. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoen berariazko tratamendua egiten da.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, urteko txostenean haien arazoen berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharriaz beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi izan dituzte.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzean kalteren bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Talde horiekiko lehentasunezko esku-hartze horiei eman nahi zaien garrantziak justifikatzen du Urteko txostenean atal propio batean islatuta agertzea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori bistara dadin.

Atal honetan bost zatitan biltzen dira lehentasunezko arretako hurrengo taldeen inguruan burutu diren jarduerak:

- emakumeak
- adinekoak
- adingabeak
- atzerritarrak eta gutxiengo etnikoak
- ezgaitasunen bat duten pertsonak

Gainera, 2006tik aurrera lehentasunezko arretako taldeei buruzko beste bost arlo sortzea erabaki da. Aspalditik hasi ginen arlo horiek jorratzen, baina egokitzat jo da ondo planifikatutako etengabeko jarduera-ildoak ezartzea.

Lehentasunezko arretako taldeei buruzko arlo berri horiek ondokoak dira:

- Terrorismoaren eta jazarpen-indarkeriaren biktimak
- Gayak, lesbianak eta transexualak
- Osasunaren gaixotasun kronikoa duten pertsonak
- Espetxeratuak
- Gizarte-bazterkeriako edo pobreziako egoeran dauden pertsonak

Lehentasunezko arreta behar duten taldeei buruzko ohiko alorrak direla-eta, adierazi beharra dago “Berariazko arreta emakumeen arazoei” taldeari hemendik aurrera “Berariazko arreta emakumeen eta gizonen berdintasunari” deituko zaiola. Orobat, “Berariazko arreta atzerritarren eta gutxiengo etnikoetako pertsonen arazoei” taldearen barruan, beste talde bat bereiziko dugu, hain zuzen, “Berariazko arreta ijito herriari” deritzana.

Lehentasunezko arreta behar duten taldeen artean aurten sortu diren alor berriek oraindik ez dute garapen luzerik, baina, hala ere, laburki adieraziko da 2006. urtean zein jarduera burutu diren talde horien inguruan.

# 1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI

## 1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna: lan esparru bat Ararteko erakunde

Beste urte batez, Ararteko erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten duen lanaren berri emango dio Eusko Legebiltzarrari. Ikuspuntu hau da lan honen oinarria: emakumeek osatzen duten biztanleriaren erdia eskubideak dituen subjektu gisa eta erabakiak hartzeko funtsezko subjektu gisa historikoki protagonismoa ukatu zaion biztanleriaren zati bezala kontuan hartzea. Hala ere, horretarako, gaur egun beharrezkoa da babes jarrera soilak gainditzea, bidezkoa ez den sistema baten biktima gisa emakumeak babestean bakarrik oinarritzen baitira jarrera horiek. Beharrezkoa da erakundeen jarduteko ikuspuntua emakumeen protagonismoa baieztatzean oinarritzea, emakumeen berdintasunerako eskubideen defentsa argitik eta gure gizartea osatzerakoan emakumeek duten erantzukizuna aldarrikatzetik abiatuta. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar gizonaren nagusitasunaren eta horren ondoriozko emakumeenganako tratatu desberdintasunaren premisa teorikoa oinarritzat duen gizarte sistema dela abiapuntu historikoa eta emakumeen testuingurua. Filosofia horretan oinarritzen dira –oraindik ere– gizarteko isileko arauak, emakumeen gainean gizoni egoera menderatzailea ematen dietenak, eta beharrezkoa da filosofia hori aintzatestea eta hari aurre egitea.

Gure lanaren xedeak, eta emakumeek munduan duten egoera hobetzea nahi duten edozein lanenak, arrazoi hori dela medio, oinarri gisa hartu behar du emakumeen erabateko gizarte protagonismoa berreskuratzea, eskubideak eta betebeharrak dituen subjektu gisa ikustea berreskuratzea eta, azkenik, erabateko herritartasunaren aintzatespen formula ez ezik materiala ere berreskuratzea. Hori gizakien arteko berdintasuna aldarrikatuz soilik erdietsi daiteke. Emakumeen erabateko herritartasun aktiboaren defentsa eta berrezarpen hori da, hain zuzen ere, Ararteko erakundeak nabarmendu nahi izan duen ideia nagusia, jarduteko esparru honi ematen diogun izenarekin: emakumeen eta gizonen berdintasunerako esparrua. Lan esparru honek gizonak ere barne hartzen ditu, eurei ere eragiten baitie gizartearen aldaketa sakon honek; aldaketa paradigma berri gisa berdintasunaren defentsarekin ezinbestean lotuta dago, eta haren ondorio da.

**Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Esparrua**, azaldu-tako ildoari jarraiki, lan eremu bat da, eta bertatik, Ararteko erakundeak generoaren ikuspuntua bere jarduera guztietara zabaltzen du, emakumeek berdintasunerako duten eskubidearen defentsa egiten du –legeak eskaintzen dituen bitartekoak erabiliz–, eskubide horren edozein urratzeri dagokionez administrazio publikoak kontrolatzen ditu eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu eta bultzatzen du arlo guztietan. Esparru honen izenak nahita egiten dio muzin kolektibo zehatz bat babestuko duen esparruaren isla izateari, helburuak –azaldu dugun moduan– handiagoak baitira eta, emakumeen kasuan, kolektibo hori ezin baita kolektibo zehatz gisa izendatu biztanleriaren erdiak osatzen duenean. Zeharkako esparrua (sexuarengatiko berdintasunaren inguruko literaturan *mainstreaming* termino ingelesarekin ezagutzen dena), azken finean, nagusitu egiten da sexuarengatiko berdintasunaren alde lan egiterakoan, eta emakumeen babesa bilatzen duen edozein ikuspegi baino haratago doa.

Baina, noski, hori ez da oztopo bat indarkeri sexistarekin gertatzen den giza eskubideen urratze larria modu berezian eta oinarrizko gai moduan jorrazteko, oraindik ere, tamalez, indarkeri sexistak emakumeen duintasunari, askatasunari eta osotasun fisiko eta moralari erasotzen baitio. Gizarteko gaitz honekin bukatzera bideratutako edozein lanen ikuspuntuan, hala ere, berdintasunaren helburua nagusitu behar da, helburu hori gabe ezinezkoa baita arazoaren kausa den munduaren ikuspuntu sexistari estuki lotuta dauden gizarteko arazoei aurre egitea; berdintasunaren helburuak, gainera, paradigmatikoki, gizonen eta emakumeen arteko harreman desberdinen nozioa islatzen du.

Urteko txosten honetan, erakunde honek 2006. urtean berdintasunaren arloan gauzatu dituen jardueren berri emango dugu, aipatutako ikuspuntutik eta arlo honetan egindako lanaren hurbilketa sistema finkatu nahi duten ondorengo gai hauei arreta jarrita: indarkeri sexista emakumeen aurkako bereizkeriaren paradigma gisa, sexuaren-gatiko bereizkeriaren aurrean administrazio publikoek duten jarrera, erakunde honek atzeman dituen bestelako gaiak (emakumeei bereziki eragiten dietenak) eta, azkenik, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen garapenaren egoera.

## 2. Emakumeen aurkako indarkeria bereizkeriaren paradigma gisa

2003. urtean ezohizko txosten bat egin zen erakunde honetan emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek ematen zioten erantzunaren inguruan; txostenean, gomendio batzuk biltzen ziren, eta gomendio horien oinarri teorikoa gaur egun arazorik gabe barneratu dute euskal erakundeek, baina gomendio horiek ez dira oraindik oro har eta erabat praktikan jarri. Bestalde, Genero Indarkeriaren Kontrako Erabateko Babes Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa atera izanak arlo honetako betebeharrak berrirentzako oinarriak ezarri ditu. Emakumeen kontra gertatzen diren eraso sexistek oraindik ere dirautela ikusirik, eta erasoek gizarte demokratiko garatu batekin bateraezinak diren heriotza kopuruak eragiten dituztenez, interesgarria litzateke legeak indarrean daraman bi urteetako emaitzen ebaluazioa egitea.

2006ko ekainean, **genero indarkeriari buruzko Eusko Legebiltzarraren txostenak**, Emakume eta Gazteria Batzordearen barruan sortu zenak, Arartekoaren laguntza eskatu zuen, indarkeri sexistaren biktima diren emakumeei euskal erakundeek ematen dieten erantzunaren egungo egoerari buruz bere iritzia eman zezan. Aukera hau baliatuz, erakunde honek atera dituen ondorioak helarazten dizkiogu aipatutako Legebiltzarreko Batzordeari. EAEn emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzunari buruz 2003an egin zen ezohizko txostenaren esparruan egindako gomendioen jarraipena (2004. urtetik aurrera) egin ondoren atera dira ondorioak. Jarraian, aurkezpen horren edukiaren lerro nagusiak azalduko ditugu laburbilduta:

Lehenik eta behin, **erakundeen erantzun planifikaturik ez zegoela** aipatzen genuen, hau da, **genero indarkeriaren arazoaren beharrei eta larritasunari egokitutako erantzunik ez zegoela**. Bat-batean jardutea eta ikuspegi zabalagorik ez egotea dira indarkeria jasan duten emakumeei eskainitako zerbitzu eta prestazio askoren osaketaren ezaugarriak, nahiz eta horrek ez du eragozten kasu askotan erakundeek borondate handiko lan ukaezina egiten dutela onartzea. Ezaugarri horiek mapa desorekatua izatea eta elkarren artean koordinaziorik ez duten zerbitzuak egotea eragin

dute. Mapa egin ahala aldatzen da –behar puntualei edo berehalakoei erantzuten die–, edo hedabideen presio zehatzei erantzun ahala.

**Jarduteko irizpide bateraturik ez izateak**, jarduteko modu horretatik eratorzen denak, ondorio gisa du, halaber, emaitzen eraginkortasun falta. Hala, zerbitzuak emateko irizpideak desberdinak dira emakumeei eskaintzen zaien egoitzaren esparruan, hiru lurraldeek zerbitzu horren maila eta mota desberdinak dituzte, 2005eko urteko gure txostenean xehetasun handiagoz azaltzen genuen moduan. Txosten hau bukatu zen egunean oraindik atera gabe zegoen indarkeri sexistaren biktima izandako emakumeentzako harrera-baliabideei buruzko arautegi berria, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 57.4 artikuluan aurreikusten dena. Araudiak ekarriko duen arautze bateratua funtsezkoa da jarduteko gutxieneko irizpideak bermatzeko eta herritarren aurrean nekez justifika daitezkeen lurraldeen arteko desberdintasunak saihesteko. Era berean, arretan intentsitate-maila desberdinak daudela ikusi dugu (adibidez, laguntza psikologikoari dagokionez), baita itzaroteko denbora-tarte desberdinak, desadostasunak zerbitzuen hurbiltasunaren inguruan, laguntzen zenbatekoen inguruan, administrazio ezberdinetan jasotzen den informazioaren inguruan edo zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea izateko betebeharren inguruan. Beharrezkotzat jotzen dugu emaitzetako eraginkortasun irizpideari kasu egitea planifikatzeko orduan, eta, horretarako, genero indarkeria pairatu duten emakumeei arreta eskaintzeko zerbitzuek bete behar dituzten helburuak argi eta garbi definitu behar dira. Onartuta dago, halaber, administrazio publikoek babeska eskaini eta aldaketa bultzatu behar dutela beren zerbitzuen bidez emakumeak indarkeri egoeratik atera behar duen hasierako larritasun memento horretan. Geroago, ordea, emakume horiek erabateko autonomia lortzea bilatu behar dute zerbitzuek, hori baita indarkeri sexista osatzen duen indarraren eta boterearen erabileraren aurkako defentsarik onena. Bereizketa hori egitea funtsezkoa da emakume horiei laguntzera bideraturiko zerbitzuak nola gauzatu behar diren jorratzeko. Bereizketak barne hartzen du hasierako une horietarako premiazko harrera-baliabideen eskaintza EAEn zabaltzeko beharra, laguntza sozial egokia izango dutenak, izan ere, laguntza soziala behar-beharrezkoa izaten da orduan, lege arloko laguntza eta laguntza psikologikoa bermatzen baitu. Era berean, aurrerago, lehenagoko bizimoduarekin haustearen hasierako fasea gainditutakoan, laguntza soziala bukatu egin behar da, eta harrera-baliabideetarako sarbide izateko aukera eskaini behar zaie emakumeei, non gizaki autonomo izateko askatasuna izango duten, laneratzeko eta etxebizitza bat eskuratzeko laguntza zerbitzuekin. Hori guztia autonomia erkidegoaren lurralde osoarako bermatu beharko litzateke. Giltzari horiek Euskadin eskaintzen diren zerbitzu askotan daude, baina ez zerbitzu publiko guzti-guztietan, ez eta lurralde osoan ere. Hori gertatzen da, esaterako, etxebizitzaren alorrean. Aipatu beharra dago alor zehatz horretan, 2006. urtean, urriaren 4ko Agindua eman zela, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeentzat etxebizitzaren arloan ekintza positiboko neurriei buruzkoa. Arau horretan jasotzen dira 2005. urtean onartu ziren jarduteko protokoloetan ezarritako ekintza positiboak; ekintza positibo horien edukien berri 2005eko gure txostenean eman genuen xehetasunez. Arau hori onartzeak ordenamendu juridikoan ekintza positiboko politika finkatu dela esan nahi du, indarkeri sexista jasan duten emakumeei etxebizitzarako sarbidea erraztera bideratutakoa. Neurri hori kasu hauetako banantze prozesuak laguntzeko beharrezko neurria da, bai eta, mendekotasun

afektibo eta ekonomikoarekin hautsi ondoren, autonomia pertsonala berreskuratzeko ere. Horrela, bada, oro har lortu behar diren zerbitzuen gutxieneko maila zehaztuta, pentsatzen dugu –eta horrela helarazten diogu gaiaren inguruan gure iritzia eskatu zuen Legebiltzarreko Batzordeari– zerbitzu hauen galdagarritasuna oinarritzko gizar-te eskubide gisa antolatu behar dela, eskolan plaza bat izateko eskubidearekin edo premiazko osasun laguntzarako eskubidearekin gertatzen den moduan, esaterako. Gaur egun ditugun zerbitzuen maila eta ezaugarri aniztasuna ez dator bat erakundeen erantzun horrekin aurre egin nahi den arazoaren larritasunarekin.

Beste alde batetik, **erakundeen erantzun koordinaturik ez dagoela** aipatzen genuen. 2001. urteaz geroztik indarrean dagoen erakundeen arteko Erabaki batek, hain justu, koordinazio hori bilatzen du; baina, hala ere, administrazioekin izandako harremanetan esperientzia negatiboak izaten jarraitzen dutela esaten dute oraindik ere emakumeek, izan ere, zerbitzu publikoen laguntza eskatzera daramatzaten gertakariak behin eta berriro errepikatu behar dizkiete administrazioei, iraingarri suerta daitekeen mailaraino. Aipatutako disfuntzioak saihesteko, ohartarazi behar dugu koordinazio ekimenak (hala nola, aipatu dugu erakundeen arteko Erabakia) herrietan ere zabaltzeko premia larria dagoela. Ildo horri jarraiki, baikortasunez adierazi behar dugu 2006an berdintasunerako euskal udalen sarea (Berdinsarea) sortu dela, EUDELeK sustaturikoa; Berdinsarearen helburuetako bat da, hain zuzen, euskal udalerrien artean koordinazio handiagoa lortzea. Gai hori aurrerago jorratuko dugu xehetasun handiagoz.

Erakunde hau kezkatzen duen beste gai bat Euskadin emakumeen kontrako **indarkeriaren fenomenoaren ikuspegi orokor osoa lortzeko zailtasuna** da. Abiarazitako politiken eta ekintzen arrakasta edo porrotaren ebaluazio zuhurra egitea eragozten du horrek. Emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek ematen dioten erantzunari buruzko diagnostiko doitua eta osoa egitea ahalbidetzen duten datuen urritasuna edo partzialtasuna arazo bat da, eta arazo horren jatorria emakumeek beren kontrako indarkeria normalean bizitzen duten baldintzen izaera isila eta ezkutua da. Hala eta guztiz ere, ezin dugu aipatu gabe utzi urtero-urtero egiten den ahalegina Emakunde bezalako erakundeetatik, Euskadin emakumeen kontrako indarkeriaren egoerari buruzko azterlanak eta txostenak eginez edo helburu horrekin jadanik sortu diren Behatokiek egiten dituzten jardueren bitartez (Genero Indarkeriaren Behatokia, adibidez, Bizkaian). Baina nahitaezkoa da, oro har, indarkeri sexistaren fenomenoaren inguruko datu frogagarriak eta osoak eskuratzeko ahaleginak areagotzea. Horrez gain, abian dagoen zerbitzu bakoitzaren inguruko datuak ere lortu behar dira, bai eta zerbitzuek, oro har, duten eraginaren ingurukoak eta zerbitzu horien erabiltzaile izan diren emakumeek gerora bizi izan duten egoeraren ingurukoak ere (zerbitzu hauek erabili dituzten emakumeen ehuneko handi bat aurrerago tratu txarrak eman dituen gizonezkoarekin itzultzen dela susmatzen da); hala, errealitatearen zentzuzko diagnostikoa eta erakundeen erantzunaren ebaluazio egokia egin ahal izango da.

Legebiltzarrean egin genuen aurkezpenean, halaber, **indarkeria jasan duten emakumeek erabiltzen dituzten egoitza asko ez direla egokiak eta baldintzak ez dituztela betetzen** aipatu genuen. 2005eko gure txostenean egoera horren berri eman genuen xehetasun handiagoz. Nabarmendu behar dugu Euskadin dauden harrera-baliabideen aniztasunak agerian uzten duela zerbitzuetan maila homogenezorik ez dagoela eta arlo honetan lurraldeen artean dagoen desberdintasuna arazo bat dela; desberdintasun horren ondorioz, ezin justifikatzeko arreta desberdina ematen zaie

emakumei beren bizilekua den lurraldearen edo udalerraren arabera. Egoera horrekin amaitzeko behar diren neurriak, gorago aipatzen genuen moduan, Euskadi guztirako harrera-baliabideen baldintzak arautzeko Eusko Jaurlaritzak emango duen araudian jasoko dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 57. artikuluan xedaturikoaren babesean. Esan dugu lehenago ere araudia oraindik ez dela eman, nahiz eta araudiaren zirriborroa nahiko aurreratuta zegoela iragartzen zen 2006. urtean Emakundek egin zuen “Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin” izeneko txostenean. Aipatu behar dugu garrantzitsua dela araudia ahal bezain azkar argitara ematea, harrera-baliabide guztiek emakumeentzako arretaren kalitateari dagokionez gutxieneko betebeharrak batzuk bete ditzaten.

Beraz, indarkeriaren aurrean erakundeek ematen duten erantzunaren eraginkortasuna hainbat faktoreren arabera dela pentsatzen dugu, hala nola: fenomenoaren ezagutza egokia izatea, zerbitzuak etengabe ebaluatzea eta zerbitzuak diagnostiko berrietara egokitzea, erantzunaren arintasuna, azkartasuna edo berehalakotasuna, zerbitzuen alde aurretiko planifikazioa autonomia erkidegoko lurralde osorako edo zerbitzu guztien arteko koordinazioa (herrietatik sustatzen direnak barne). Azken gai horren inguruan aipamen txiki bat sartuko dugu aurrerago, Eudelek sustatu duen euskal udalen sarearen (Berdinsarea) sorrerari lotuta; Berdinsareak euskal udalerrira guztien arteko harremana sortu nahi du, berdintasunaren eta genero indarkeriari emandako erantzunaren alorrean, koordinazioa bermatzeko eta arlo horretan zerbitzuen maila homologagarria bermatzeko.

Azkenik, Legebiltzarreko Batzordeari adierazten genion garrantzitsua dela **prebentzio printzipioa** kontzeptu huts bat bezala ez gelditzea; **berdintasunaren helburua, orientazio-ardatz gisa ekintza publikoaren eremu guztietan**, bete egin behar da tresna zehatz batzuk erabilita. Nahiz eta tresna horietako batzuk laster egituratu behar diren 4/2005 Legeak aginduta (esate baterako, generoaren arabera eraginaren ebaluazioa) prebentzio politikak oraindik ere ez dira nahikoak, edo ez dago politikarik, arlo honetan esku hartzeko ahalmena duten administrazio gehienetan. 2006ko azaroan emakumeen kontrako indarkeriari buruz Emakundek egindako txostenean islatzen diren datuek adierazten dutenez, horrelako jokaera motengatik salaketak edo emakumeen biktimizazioak urte urte gehitzen ari dira 2002. urtetik hasita. Gainera, txostenak aipatzen duenez, *heriotza eragin zuten erasoei dagokienez, kopurua handitu egin zen 2004an eta 2005ean*. Erantzuteko neurriek, gehiago eta hobeak izan arren, indarkeriaren arazoa etengo ez dutela pentsatzera eramane behar gaitu horrek guztiak; agian indarkeriaren ondorioak arinduko dituzte, baina emakumeen kontrako indarkeriak hor egoten jarraituko du, berdintasunezkoak ez diren giza harremanen adierazpen gisa. Prebentzioari buruzko zeharkako politika sakon, indartsu eta orokor batek soilik –politika sektorial guztien helburu nagusia izan beharko luke horrek– alda dezake Emakunderen txostenak aipatzen duen arazo larri iraunkorra.

\* \* \*

Gainerakoan, aipatu behar dugu urte honetan harremana izan dugula, halaber, **indarkeri sexista pairatu duten emakumeen hainbat elkarterekin**. Elkarte horiek zenbait kexa helarazi dizkigute, batez ere justizia administrazioaren funtzionamenduarekin eta emakumeen inguruko prozesu judizialek sortzen dizkieten arazoekin

lotuta. Era berean, behin eta berriz egin den kexa gisa helazi digute emakumeek bizi duten segurtasunik gabeko egoera –batzuetan, egoerak beldurgarriak dira– erasotzailearen aurka salaketa jarri ondoren. Emakume horien ustez, segurtasun gabezia hori ez dute neurri polizialek edo urruntzeko aginduek konpontzen, eta sarritan, egoera hori beren ardurapean dauden adingabeetara ere zabaltzen da. Ildo horri jarraiki, salaketa jartzeko urrats zaila egiten duten emakumeentzat polizi babesza zabalagoa izatea aldarrikatzen dute.

Genero indarkeria pairatu duten emakumeek egindako beste zenbait kexa, bestalde, seme-alaba adingabeen interesarekin lotura daude; etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen Gipuzkoako elkartearen (ACOVIDEM) bidez jo dute erakunde honengana emakume horiek. Gipuzkoako famili elkarguneekin ados ez dagoela aipatzen digu, besteak beste, ACOVIDEMek. Gai horren inguruan sakonago arituko gara adingabeei buruzko txosten honetako atalean.

Gai honen inguruan izan diren **prozedura judizialei lotuta jaso ditugun kexei** dagokienez, gehien-gehienak genero indarkeriaren kontra 1/2004 Lege Organikoak diseinatu zituen erabateko babes neurriekin lotuta zeuden. Pasa den urtean agertu ziren lege horren eraginkortasunaren inguruko lehenengo balantzeak; legeari jarraituz, Gobernuak egin beharko du haren ebaluazioa indarrean jarri zenetik hiru urte igarotakoan, autonomia erkidegoen laguntzarekin.

2006ko abenduan, Ministroen Kontseiluak emaitzen balantzearen aurrerapen bat aurkeztu zuen, zeina 2007an Kongresura bidali beharko den. Hala ere, ez du jasotzen genero indarkeriaren kontrako borrokan legean ezarritako neurriek izan duten eraginkortasunari buruzko ebaluaziorik, estatuko eta autonomia erkidegoetako administrazioek zenbateraino ezarri duten aipatzen baita funtsean. Arlo berekoa da, nahiz eta gure autonomia erkidegoko egoerari lotuta egon, Emakundek garai berean argitaratu zuen Emakumeenganako Indarkeriari buruzko Txostena; bertan, nabarmentzekoak dira gure artean gertatzen den indarkeri sexistaren etiologiaren inguruan eskaintzen diren analisi elementu interesgarriak. Gai horren inguruan, halaber, argigarriak dira delitu hauen aurrean Jarduteko Gidan gizarte zerbitzuetako profesionalentzako jaso diren ekarpenak; Emakundek, EUDELeK, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta hiru foru aldundiek osatzen duten Erakundearen arteko Talde Teknikoak atera zuen gida hori, pasa den urtean baita ere, 2001az geroztik arlo honetan indarrean dagoen erakunde erabakiaren esparruan.

Hala eta guztiz ere, Lege Integralak dituen helburuak lortzeko hartu diren neurrien eraginkortasun-maila zein den jakin nahi bada, ez da nahikoa administrazioak gauzatu dituen jarduerak laburbiltzea. Behar-beharrezkoa da neurriak ebaluatzea eta merezi duten balorazioa era koherentean ematea bai neurrien hartzaileei bai neurriak ezartzerakoan esku hartzen duten eragile juridiko eta sozialei.

Ildo horri jarraiki atera dira urte honetan udal eremuko hainbat azterlan, bai eta autonomia erkidego osoari dagokion txosten bat ere; txostena urte bukaeran aurkeztu zuen Justizia Administrazioako Euskal Behatokiko lan-talde batek, genero indarkeriaren ingurukoak, hain zuzen. Behatokia Justizia Administrazioarekin lotutako gaien inguruko ikerketa, eztabaida, analisi eta jarduteko proposamenen foro bat da, eta bertan Arartekoak ere parte hartzen du, Euskadin zerbitzu publiko hori emateko esku hartzen duten erakundeekin, profesionalekin eta eragileekin batera.



Bertan ateratzen diren ondorioek, gure erakundeak ontzat hartzen dituenak, biztanleen itxaropenen eta Justizia Administrazioak, batez ere bide penalean, eskain dezakeenaren arteko desoreka erakusten dute. Hori argiago antzeman daiteke, paradoxikoki, gizarte sentsibilizazio handiagorantz eta indarkeri mota honen zero tolerantziarantz goazen heinean. Izan ere, aipatutako aurrerapausoak, zalantzarik gabe bide egokian egin den arren, sisteman, gaur egun sistema gisa hartzen dugunean, zuzendu beharreko zenbait disfuntzio eragiten ditu.

Alde batetik, aurreikusitako neurri polizial, sozial eta judizialek ekarri duten lan-kopuruaren igoera ez dator bat horiei aurre egiteko behar diren bitarteko materialekin eta giza baliabideekin, eta ondorioz, biktimak jasotzen duen arretaren kalitateari kalte egiten dioten automatismoak eta presak sortzen dira.

Beste alde batetik, indarkeri mota honen aurrean sistemak duen erreakzioak genero ikuspegi berezia dauka, eta, kasu askotan, erreakzio horretan parte hartzen dutenak ez daude ikuspegi horretan trebatuta. Horren eraginez, alde batetik, familiaren arteko harremanak epaitegietara eramateko joera sortzen da, batzuetan ikusten den moduan, eta sozialki edo moralki gaitzesgarri izan daitezkeen arren delitua izatera iristen ez diren jokaerak kriminalizatzen dira. Eta, beste alde batetik, nolabaiteko erresistentzia dago Justizia Administrazioko sektore batzuetan genero indarkeria gizonaren mesedetan emakumeari boterea ukatzen dioten kultur arauen eta gizarte egituraren ondorioa dela onartzeko. Gainera, orain gutxi arte “bikote arazoak” ikusten ziren tokian indarkeri sexista ikusteko, beharrezkoa da hori onartzea.

Eragile juridikoen artean horrek sortzen dituen tentsioak agerikoak dira indarkeri kasu batek, legean ezarritako neurriak aplikatu ahal izateko, 1/2004 Legeak eskatzen dituen betebeharrak betetzen dituen zehazteko orduan, kasu batzuetan, behinik behin. Hauek dira betebeharrak horiek: bereizkeriaren, desberdintasun egoeraren eta gizonak emakumearen gainetik jartzen dituen botere-harremanen agerpena izatea. Hori saihesteko, legean ezarritako neurriak martxan jartzen parte hartzen duten pertsona guztien trebakuntzan sakontzea beharrezkoa da, bai eta ahalegin handiagoa egitea ere kaltetutako emakumeak neurrien esanahia, ondorioak eta neurrien izapideak egitetik eratoritzen diren gertakariak eta epeak ezagut ditzaten. Hortaz, ezin da ahaztu emakumeak “ahal-duntzeko” balio beharko lukeela prozesuak, izan ere, indarkeriak beldurra, segurtasun eza eta mendekotasuna sortzen die eta, horregatik, prozesua abiaraztean beren burua protagonistatzat hartzea lortu behar da, eta ez babesa behar duen objektu soil gisa. Horrekin ez dugu esan nahi biktimek prozesu penala kontrolatu behar dutenik, baizik eta prozesuak beren bizitzan gaineko kontrola berreskuratzen lagunduko dien tresna eraginkorra izan behar duela. Hori dena beren arazoari erabateko laguntza ematearen esparruan kokatzen da, non esku-hartze penalak ez du zertan ardatza ez elementu eraginkorragoa izan –maiz hala gertatzen da–.

Jasotako zenbait kexek **betearazpen faseko gabeziak** aipatzen dituzte. Gi-puzkoan egoera bereziki kezagarria da; izan ere, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak erabakitzen dituen babes neurriak bizkortasunez izapidetu eta betearazten dira, baina zenbait erreklamazio iritsi zaizkigu atzerapenei lotuta eta gainerako jurisdikzio penalean tratatu txarrak ematen dituztenen kontra ematen diren neurriak ez aplikatzeari lotuta; horien betearazpena Donostian dagoen Zigor Betearazpenaren Bulegoaz arduratzen den epaile-taldeari dagokio.

Senar ohiaren aurka tratu txarreatatik zenbait salaketa jarri zituen emakume batek aurkeztu zuen kexa horietako bat; bere salaketak falta-judizio gisa izapidetu ziren eta gutxieneko zigorrakin ebatzi ziren, genero indarkeriaren arloan egin zen erreforma penala baino lehenagokoak baitziren salaketak. Hala ere, tratu txarrak eman zizkionak erasotzen segitu zuen, toki guztietara jarraitzen zuen eta emakumearen defentsan atera zen ertzain bat erasotzera ere iritsi zen. Gertakari horren ondorioz, 2006ko martxoan, atentatu delitu batengatik kondenatu zuten epai irmo bidez, eta urte bateko kartzela zigorra ezarri zitzaion, babes neurri batekin, jasaten zuen nortasun nahastea kontuan hartuta; neurri hori zigorraren denbora-tartean establezimendu edo zentro psikiatriko batean kanpoko tratamendua jasotzean zetzan. Hainbat gestio egin genituen gure erreklamatzailerak babestuta egon zedin eta neurria ahal bezain azkar eraginkorra izan zedin, baina betearazpena geldirik zegoen epaitegietan; irailean, epai betearazleaz arduratzen ziren langileen lizentziak, bajak eta oporrak aipatu zituzten Probintzia Auzitegiaren aurrean atzerapena justifikatzeko. Bien bitartean, emakume honen aurkako erasoak saihesteko Ertzaintzak une oro agertu zuen jarrera arduratsu eta kolaboratzaileagatik ere, emakumeak jasaten zuen jazarpen egoera ez zen eten, eta, aitzitik, egunetik egunera okerrera joan zen. Berak behin eta berriro aipatzen zuen, arrazoiarekin, erabakitako neurriak bere segurtasunarentzat zuen garrantzia, eta, hortaz, erabakiaren betearazpena eskatzen jarraitu genuen Epaitegiaren nahiz Probintzia Auzitegiaren aurrean. Probintzia Auzitegiko lehendakariak azaroan egiaztatu zuenean ildo berean egin zituen gestioek ez zutela emaitzarik izan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzura eraman zuen kasua.

Nahiz eta aurrerapena gertatu den auzi penalak bizkortzean, **atzerapenak prozeduraren substantziazioari ere eragiten diote**, eta hori, sexu askatasunaren kontrako delituen kasuan, biktimarentzat oso kaltegarria izaten da. Horixe adierazi ziguten bi erreklamatzailerak. Ia bi urte lehenago aurkeztutako sexu abusuengatik salaketak direla medio hasi zen prozesuak zuen bultzada txikiak kexatzen ziren. Instrukzioaren konplexutasuna alde batera utzita, ikusi ahal izan genuenez, epaitegiaren eta kasuari atxikitako fiskaltzaren titulartasunean egondako aldaketengatik luzatu zen prozesua arrazoizko mugetatik haratago; fiskaltzak, guk agertu genuen interesari erantzunez, prozedura lehenbailehen ebazteko eskatu zuen –bai eta lortu ere–.

Kasu horri berari lotuta, beste bi gai mahaigaineratu ziren delitu mota hauen biktimantzako laguntzaren inguruan.

Bateko, abokatuaren laguntza. Laguntza hori autonomia erkidego osorako dago bermatuta, lehenengo aholkularitza eta orientazioari dagokionez; Justizia Administrazioak epaitegien zerbitzura jartzen dituen abokatuaren elkargoek eta biktimak laguntzeko bulegoek eskaintzen dute laguntza hori. Horien lan ona guk ere egiaztatzeak aukera izan dugu, emakumeen kontrako erasoak zenbait kasutan esku hartu baitugu. Hala eta guztiz ere, lurraldeen arteko aldeak daude akusazio partikularren kostuei dagokienez. Izan ere, Bizkaian eta Araban, kasuan kasuko foru aldundiak sinatutako hitzarmenaren arabera estaltzen dira gastuak, biktimaren diru-sarrerak aintzat hartu gabe. Gipuzkoan, ordea, akusazio gisa aurkeztu nahi duen biktimak ez duenean abokatu jakin bat izendatu, abokatu eginkizun hori Abokatuaren Elkargoko ofiziozko txandan dagokionari esleituko zaio, eta abokatu zerbitzua doan izatea, beste edozein delitu moten kasuan bezala, zerbitzua eskatzen duenaren diru-sarreraren arabera izaten da.

Kexa Gipuzkoako Foru Aldundiari azaldu genion, bera izan baitzen, hain zuzen, 1985az geroztik, delitu mota hauen biktima direnen defentsan eta aholkularitza juridikoan aitzindaria. Bere erantzunean jakinarazi zigunez, zerbitzu hori eskaintzeari utzi egin zioten, 2003. urtean Justizia Sailaren eta Legekarien Euskal Kontseiluaren artean sinatutako Erabaki baten ondorioz. Izan ere, erabaki horren bidez, etxeko indarkeriaren eta/edo sexu erasoen biktimentzat berariazko ofiziozko txanda sortu zen. Horrekin ordura arte Foru Aldundiak eskaintzen zuen zerbitzua berme osoz gauzatuko zela ulertuta, zerbitzua bere horretan uzteak bikoiztasuna sor zezakeela pentsatu zuen Aldundiak, eta horrek azaltzen du gaur egungo egoera.

Poztekoa izan zen, hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun hori eman zuen egun berean Aldundiari Batzar Nagusiek aho batez eskaera hau egin izana: Legekarien Euskal Kontseiluarekin sinatutako hitzarmena hobetzea susta zezala Eusko Jaurlaritzak, etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak pairatu dituzten biktimentzat doaneko aholkularitza juridikoa bermatzeko. Aldundiak emandako erantzunean aipatzen zen arlo horretan bazegoela proiektu bat, eta erantzunean bertan bere irizpidea adierazi zuen –gu bat gatoz irizpidearekin–: proiektu horren esparruan jorratu behar da hobekuntza, *“gaur egun eskaintzen den proiektua hobetzeari begira nahiz, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen den kasuan, Foru Aldundiek zerbitzua osatzeko edo zabaltzeko aukera izanda; hori gertatuz gero, guztiek batera egin beharreko gauza dela pentsatzen dugu, irismen eta eduki berdinarekin hiru lurraldeetan”*.

Laguntza psikologikoa, halaber, funtsezko beste laguntza mota bat izaten da kasu hauetan. Gure erreklamatazaileen kasuan, laguntza hori beren udalek ematen zuten; Gipuzkoako Foru Aldundiak kasu hauetarako ematen duen laguntza kudeatzen du udalek. Laguntzak bi fase ditu: lehenengoan, azterketa eta balorazioa egiten da eta, bigarrenean, tratamendua, non gehienez ere 18 saio gehi udaleko gizarte zerbitzuekin beste bi koordinazio saio sartzen diren. Biktimek, mota honetako gertakariak eragindako kaltea gainditzeko, tratamendua salaketa egin baino lehen hasten dutenean sortzen da arazoa, gorago azaldu dugun kasuan gertatu zen moduan. Hala, erakundeek kasuaren berri dutenerako eta beren baliabideak eskaintzen dituztenerako, terapeuta partikular batek jadanik abiatuta izaten du esku-hartze programa bat. Horrek arazoak ekar diezazkieke gizarte ongizateko zerbitzuei helburuak jadanik ezarrita dituen programa bat ebaluatzerakoan eta harekin koordinatzerakoan, eta ondorioz, administrazioarekin koordinatuta jorratu daitezkeen jarraibideak eta garapenak dituzten programentzat soilik balio dezatela laguntza publikoek eskatzen dute, eta ez lehendik hasitako tratamendu pribatu baten kostuei aurre egiteko.

Gure kasuan, planteamendu horrek praktikan izan zuen ondorioa hauxe izan zen: eskaintzen zitzaien laguntza psikologikoko programan parte hartu nahi bazuten biktimek, beste terapeuta batek tratatuko zituen, ez ordura arte tratatu zituenak. Baldintza horren azpian dagoen interesa ulergarria da, eta hain justu, gure esku-hartzearen prozesu guztian, biktimak babesik gabe ez uzteko udaleko gizarte ongizateko zerbitzuen jarrera aktiboa eta malgua zela egiaztatu ahal izan genuen. Baina, kontua da, terapiaren finantziazioa terapia beste profesional baten kontura izatera baldintzatuta egote horrek eragiten zuela babesgabetasuna, kontuan hartuta biktimentzat izugarri zaila dela beste pertsona batenganako irekitasuna lortzea horrelako delitu motetan sortzen den prozesu mingarria berriro abiatzeko. Udalari egoera horren berri eman genion, eta berak, erantzun gisa, terapeuta aldatu arte jarraitutako terapiaren zati bat ordaintzen

lagunduko zuela onartu zuen, betiere erreklamatazaileek programa publikoan parte hartzea onartzen bazuten; irtenbide hori, bai gure erakundearen iritziz bai biktimen iritziz, arrazoizkoa izan zen.

Azkenik, genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima izandako emakumeei ematen zaien laguntzaren hobekuntzak **administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzuen arteko koordinazio eraginkorra** behar du. Horrek laguntza sinplifikatzea eskatzen du, emakume horiei beren eskura dituzten baliabideei buruzko informazio guztia eskainiko zaien toki batetik abiatuta, bai eta eragileen artean informazio eta koordinazio kanalak sortzea ere. Hori beharrezkoa da benetan erabatekoa izan nahi duen laguntzarentzat, baina baita egunetik egunera indar handiagoarekin agertzen den behar batentzat ere: esku hartzen duten eragileak gai izan daitezela beste eragileekin partekatzeko bakoitzak bere ikuspuntutik egiten dituen diagnostikoak, sistemaren ahultasun posiblei buruzkoak, nahiz eragileek praktikan jartzen dituzten baliabide berriek dituzten aukerak.

Hori guztia, gainera, ondorengo arlo hauek koherenteki barne hartuko dituen funtzionamendu metodo baten esparruan: polizi arloa, arlo judiziala, hezkuntza arloa, gizarte ongizatearen arloa eta elkartearen arloa; horrela, arlo horietako bakoitza bidean sortzen diren erronka berrietara egokitzen den moduak, neurri berrien bitartez nahiz antolatzeko modu berrien bitartez, beti kontuan hartuko ditu gainerako elementuak, zeinak sistema beraren barruan dauden eta elkarrekintzan diharduten. Bizitza jakin baten (biktima den emakume baten) bizitza kalitatea hobetzeko ahalmenak zehaztu beharko du kasu bakoitzean sistemaren eraginkortasuna, eta bizitza hori bat da bere konplexutasunaren barruan, hainbat mailatako laguntza behar duen arren.

Hala, jaso ditugun kexetan oraindik ere horrelako kasuak ikusten dira: biktimak behin eta berriz bere arazoa hainbat instantzien aurrean errepikatu beharra, urruntzeko aginduen eta seme-alabak bisitatzeko araubideen arteko inkoherentzia, babes maila desberdinak bizilekuaren arabera, emakumeari informaziorik ez ematea bere erasotzailea aske jarriko dutela esanez, harik eta askatzen duten arte, eta hainbat erakundeetan atzera eta aurrera ibili beharra, nahiz eta erakundeek beren eskumenen berri ematen dieten soilik. Horrek guztiak agerian jartzen du erakundeek ez dutela kontuan hartzen, kasu batzuetan, esku hartzen duten bizitza errealitatearen izaera unitario hori, eta hala, horrek ondorioa izango du haien erantzunak beren inertzien eta lehentasunen arabera justifikatzean, arreta behar duen pertsonaren interes praktiko eta estrategikoen arabera izan ordez.

Prozesuan esku hartzen duten instantzia guztiak adi egon behar dira arrisku horren aurrean; orain arte biktimarentzako orientazio zerbitzuak egiten ari dira arrisku horren kontrako lana, eta haien lan ona gorago ere aipatu dugu. Esan beharra dugu, halere, zerbitzu horiek hiriburuetako epaitegietan eta Barakaldon bakarrik egoteak eraginkortasuna kentzen diela eta lanez gehiegi kargatzen dituela, eta beraz, beharrezkoa da haien lana bultzatzea eta lan hori egiteko erabiltzen dituzten bitartekoak zabaltzea. Ildo horri jarraiki, EUDELeK, Emakunderekin lankidetzan, egiten duen lan garrantzitsua aipatu behar dugu, Berdinsarearen bitartez, hain zuzen. Bertan koordinatzen diren udalerriek materialak eta hausnarketak partekatzen dituzte, biktimentzako laguntza eta emakumeen kontrako indarkeri egoeren prebentzioa hobetzeko; horrez gain, foroak sustatzen dituzte sistemak behar duen homogeneotasuna ahalbidetuko duten toki protokoloak onartzeko. Bide onetik doazen ekimenak dira, zalantzarik gabe, eta haien emaitzak arreta handiz jarraituko ditugu.

### 3. Sexuagatiko bereizkeriaren aurrean Administrazioak duen jarrera

#### 3.1. *Irungo eta Hondarribiko alardeetan emakumeak baztertzea*

Sexuagatiko bereizkeria barne hartzen duten administrazio jardueren artean, beste urte batez ere emakumeek Irungo eta Hondarribiko Alardeetan berdintasunez parte hartzeko eskaera nabarmentzen da; 1996. urteaz geroztik gure esku-hartzea eskatzen du arazoak, baina, tamalez, oraindik ezin dugu hemen islatu erreklamazio hori asebeteko duen emaitzarik.

Aurreko txostenetan luze eta zabal azaldu izan dugu bi Alardeetan emakumearen berdintasunezko parte-hartzea dela-eta sortu den arazoaren egoerak azken urteetan izan duen bilakaera. Aurretik ere aipatu izan dugu Irungo eta Hondarribiko Udalek mekanismoak abiarazi behar dituztela beren jaietan emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzera bideratuta; horretarako, Alardearen antolakuntza publikoa bideratu behar dute, eta ez emakumeak baztertzen dituen –kantineren paperean izan ezik– jaien aurrean beste alde batera begiratzera mugatu Alardearen antolakuntza esku pribatueta dagoela arrazoituz. Gure azken txostenetan ohartarazten genuen antolakuntza pribatu hori ez zela arrazoia izan behar berdintasun eskubidearen urratze horri aurre egiteko orduan erakundeek ez esku hartzeko; izan ere, urratze hori jai eta kultur arloko ondarearen (herritar guztien ondarea) esparruan islatzen denez eta kaleetan zehar erakusten denez (jabari publikoko ondasunak), hedadura publiko nahikoa du, edonola ere, herritarren interes orokorraren gainean eragiteko, eta, zalantzarik gabe, interes hori zaindu behar dute arduradun publikoek.

Hori guztia bereziki larria da kontuan hartzen badugu bi Udalek nahita utzi dutela Alardearen antolakuntza, bi Alardeetan udalaren antolakuntzak tradizio luzea duen arren, eta hori dena helburu bakar batekin: desfileetan emakumeek berdintasunez parte hartzeko betebeharra saihesteko (betebeharra EAEko Auzitegi Nagusiak eta Auzitegi Gorenak bi udalerrietzat egindako erabakietatik eratortzen da).

2005eko gure txostenean adierazten genuen emakumeen eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Lege berriak (BL) aurrerapauso handia izan beharko zukeela gai honi dagokionez, udal korporazioek berdintasunerako eskubidea urratzeko jokaera azaltzen duten lege oinarri berriak barne hartzen baititu. Hori islatu zen, hain zuzen, legea Alardeen kasura aplikatzeari buruz urte berean, 2005ean, egin zen txosten batean; txostena erakunde honek egin zuen, emakumeek Alardeetan berdintasunez parte hartzea defendatzen duten kolektiboek eskatuta. Bi Udalen jarrera Berdintasunerako Euskal Legearen xedapenekin bat ez datorrela nabarmentzen genuen jadanik 2005eko txosten horretan; izan ere, alde batetik, emakumeek berdintasun baldintzetan parte hartzea uzten ez duen Alardea antolatzea baimentzen dute urtero Udalek, eta, bestetik, ez dute inolako formularik gauzatu nahi beren udalerrietako emakumeak udalari horietako jai nagusietan barne hartzea ahalbidetzeko.

2006an berriro esku hartu behar izan dugu arazo honetan, bi Alardeetan emakumeak erabat barne hartzea defendatzen duten kolektiboek urte honetan ere egin zituzten kekek direla-eta; Irungo eta Hondarribiko Udalei gomendio bana egin diegu emakumeentzat eta gizonentzat berdintasunean oinarritutako jaiak ahalbidetu ditzaten.

Kolektibo horiek jarritako kexetan azaldu zitzaigunez, beharrezkoa da Udalak (bai Irunen kasuan, bai Hondarribiaren kasuan), bere ekintza gisa, berdintasunezko Alarde

publikoa bere gain hartzea, berdintasunezko jai-giroa lortzeko bidea bermatze aldera. Horrez gain, erreklamatazileek honakoa mahaigaineratzen zuten: antolaketa lan hori udal administrazioaren ardura izateko beharraz haratago, jokoan legoke gizon eta emakumeentzako berdintasunezko Alardea sustatu, babestu eta bermatzeko beharrezko diren baliabide politiko eta materialak dituen erakunde publiko baten borondatea.

Aurreko urteetako gure idatzietan azaldutako argudioak errepikatuz, gure esku-hartzea honetara bideratu genuen hasiera batean: alkateei galdetu genien ea zer arrazoi zituzten beren udalerrietako jai nagusietan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko inolako bitartekorik ez jartzeko. Bi espedientei bukaera eman zieten gomendioetan, aurrerago baliatutako arrazoiak azpimarratzen genituen: bi udalerrietan egiten diren ekitaldiak ez datoz bat xedapen konstituzional eta legalekin, sexu berdintasunari dagokionez.

Zehazki, **Irunen kasuan**, alkateari eskatzen genion argitu zitzala zeintzuk ziren arrazoiak bere udalerriko biztanleen interes orokorarentzat jai esparruaren banaketa –jai esparru bakarra bultzatu eta ahalbidetuko duten jarduerak ez egitearen ondorioz sortutakoa– hobe zela iritzeko, kontuan hartuta urtero Irunen egiten diren bi Alardeetako batera ezin direla joan udalerriko emakumeak, nahiz eta beraiek hala nahi izan. Bere erantzunetan Irungo alkateak gai hori saihestu egiten du, eta azpimarratzen du bi Alardeak antolakuntza pribatuko esparruak direla eta Udalak horiekiko neutraltasun jarrera zorrotza duela. Hala ere, gai horri dagokionez, honako hau adierazi behar diogu gure gomendioan:

“...adierazi behar dugu ez zaigula onargarria iruditzen Udalak duen balizko neutraltasun jarrera eta, gainera, azpimarratu nahi dugu jada adierazi dugunarengatik, ez dela adierazi bezain neutrala. Berdintasunaren sustapeneko betebeharrak konstituzionalaren parte da emakumeen kanporatze eta diskriminazio egoeraren aurrean, hurrengo ekainaren 30ean Irunen berdintasunezko jai esparrua lortu nahi duten ekimenak esplizituki babestea, eta Udalak –botere publiko den heinean– horixe bete behar du. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu Udalak tradizionala deritzon Alardearen babes material edo sinbolikoa ekiditea eta berdintasunezko Alardearen jakinarazpena eta antolaketaren alde egitea. Irunen bizi den egoera Udaleko botere publikoaren borondate esplizituari esker aldatuko da bakarrik, herritar guztiak berdintasun egoeran hartzen dituen jaiak antolatuz, sexu bazterkeriak alde batera utziz. Udal erakundearen zeregina, helburu hori lortzeko dagokionez, aldaketa prozesuaren buruan egotea litzateke, berdintasunezko kultura demokratikoa txertatzen lagunduz, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunezko Alardea babesten duela adierazi eta gauzatu eta, azken batean, ideia hori sustatu eta barreiatzen lagunduko duten ekimen guztien alde eginez.”

Irungo Udalari egin genion gomendioan, azkenik, berdintasunezko jai esparrua bere gain hartzea eskatu genion, udal Alarde publikoa zuzenean deituz edo berdintasunean oinarritutako Alardea bultzatuz eta bideratuz; horretarako, behar adina ekinga positiboko neurri abiarazi beharko lirateke, honako hauek barne: jai programa banatzea, baina Udalak bertatik kendu zuen berdintasunezko Alardeari buruzko publizitatea berriro ere erantsita. Era berean, emakumeek berdintasun baldintzetan parte hartzea eragozten zuen Alarde tradizionala izeneko jarduera pribatuari laguntza materiala edo sinbolikoa emateari utz ziezaiola eskatu genion Udalari.

**Hondarribiko Alardeari** dagokionez, honako hau nabarmentzen genuen:

“Behin baino gehiagotan adierazi dugu dagoeneko erakunde honen iritiz Alardea antolatzekeo ekimena Hondarribiko Udalak hartu beharko lukeela berriro, udala baita jarduera hori herritarren interesaren mende jarriko dela hoberen bermatzen duena. Eta, hain zuzen ere, herritarren interesen arabera, alde batetik, jai ekitaldi horrek hondarribitarren ondarea izan behar du –ondare hori babestu egin behar da, horren jabetza ez dezaten partikular batzuek eskuratu– eta, bestetik, berdintasun printzipioa bete behar da eta, horrekin batera, Hondarribiko biztanle guzti-guztientzat berdintasunezko jai giroa sortu behar da, non ez den sexuaren araberako bazterketarik onartzen. Gure aburuz, berdintasunean oinarritutako jaiak ahalbidetzeko lege betebeharra, hasiera batean, Konstituzioaren 9.2 artikulutik eratorritzen da. Betebehar hori, gero, Berdintasunerako Euskal Legeak xehetasun handiagoz garatzen du, kulturaren eremuan emakumeen diskriminazioarekin amaitzeko ekintza positiboak abian jartzea botere publikoentzat baitezpadakoa dela jasotzen baita, eta, horrela, euskal administrazio publikoen lege parametroak zehazten dira.”

Udalari gogorarazten genion, halaber, bere eskumeneko boterea gainditzen duela, baldin eta Hondarribiko biztanle diren emakumeak gizonezko herritarren aurrean diskriminatuta egotea eragiten duen jai politikarekin jarraitzen badu administrazioak egiten dituen jarduera edo ekintzen bitartez, eta, bestalde, Konstituzioaren 9.2 artikulua eta Berdintasunerako Euskal Legeko 7 1) eta 25.1 (lehen paragrafoa) artikulua zuzenean urratzen dituela.

Horren inguruan adierazi genion Berdintasunerako Legearen manu horietan jasotzen dela, azken batean, Hondarribiko Udalak berdintasunezko jai politika garatzeko beharrezko neurriak zehazteko duen betebeharra, eta ezinezkotzat jotzen dela Udalek berdintasunezko jai giroa ezartzea bilatzen duten gizarte ekimenak bultzatzen dituzten jarduerak egiteko inolako neurririk ez hartzeko politika garatzea. Hondarribin bizi den diskriminazio egoeraren gisakoak luzatzea edo betikotzea eragingo lukeen jai politika egiteak eskumeneko boterearen mugak gainditzea ekarriko luke. Eskumeneko botere horiek, oro har, kultur arloko politikaren inguruko udal jarduerak babesten dituzte.

Halaber, gogorazi behar izan genion Jaizkibel Konpainia mistoa pertsona pribatu batzuen ekimenari esker sortu dela Hondarribin, eta konpainia hori da, hain zuzen, emakumeen eta gizonen berdintasuna zati batean eta zailtasun handiekin bermatu dezakeen jai elementu bakarra. Pertsona horiek, gainera, berdintasuna bermatzea zailtzen duten oztopoak kentzeko orduan udalaren babes faltaz gain, beren lan aipagarri eta demokratikoa bultzatzeari udal horrek egiten dien berariazko bazterketarekin egiten dute topo.

Azkenik, Hondarribiko Udalari gomendatu genion berdintasunezko eremua ahalbidetzea ekarriko duen jai politika egin zezala. Horretarako bi bide aurreikusten ziren: Alarde publiko ez diskriminatzailea deitzea edo, hala badagokio, Udalak baimendutako Alardean Jaizkibel Konpainiaren parte-hartzea bermatuko zuen bitarteko material eta formalak jartzea.

Horiek dira, laburbilduz, bi Udalei helarazi genizkien ondorioak, ordena konstituzional eta legalen arazoak gora jotz, eragotzi egiten baitzaie Udalei udalerriri horietan urtero ospatzen den jai ekitaldi nagusitik emakumeak baztertzearen aurrean pasibotasun jarrera hori izaten jarraitzea. Horretarako, Arartekoa berriro saiatu da udal arduradunei buruan sartzen jarrera aldatu behar dutela, baina, zoritxarrez, onartu beharra daukagu, beste urte batez ere, bilatzen genuen emaitza ez dugula lortu.

Geroago jakin dugu bi alkateak 2006ko azaroaren 6an Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Batzordearen aurrera joan direla, Batzordeak hala eskatu eskatuta, ondorengo gai hauek argitzeko: Alardeak pribatizatzeko arrazoiak, Udalaren jarrera Berdintasunerako Legearen aurrean eta bi udal erakundeek emango zituzten urratsak arazoa konpontzeko. Bi azalpenetan, jaiak direla-eta beren udalerrietan sortzen den bereizkeria egoeraren aurrean ezer ez egiteko jarrerarekin jarraitzeko erakunde honi helarazitako argudio berdinak eman zituzten, hau da, antolakuntza pribatuak direla eta Udalek, ikuskizun publikotarako baimen baten bidez, baimendu besterik ez dituztela egiten. Ez dute ezer esaten beren herrietako jaietako ekintza nagusian parte hartu nahi duten emakumeak positiboki bultzatuko dituen neurriak hartzeari ematen dioten ezezkoari buruz, eta ez dituzte argitzen Alardeak pribatizatu izanaren arrazoiak.

Edonola ere, erakunde honek nahiz bestelako erakundeek hamar urtetan erabaki asko eman dituzte Irungo eta Hondarribiko Udalek bitartekoak aktiba ditzaten gurea bezalako gizarte demokratiko batean inolako euskarririk aurkitu beharko ez lukeen anakronismo ulergaitz honekin bukatzeko; gainera, anakronismo hori onartezina da euskal herritarren gehiengoaren aburuz. Koherentzia politikoak, erantzukizun zentzuak eta, azkenik, estatu demokratikoaren arrazoiak erantzukizun politikoren bat duten pertsona guztiei bultzatu beharko lieke adostasuna gehiago ez luzatzera, adostasun hori beharrezkoa baita emakumeak diskriminatzen dituen ikuskizun hau –zeina oso urruti baitagoen gurea bezalako gizarte aurreratu batean sexu berdintasunaren alorrean erdietsitako lorpenak islatzetik– urtero errepikatzea ahalbidetzen duten baldintzak behin betiko ezabatzeko.

### 3.2. ***Berdintasuna eta jaiak: Donostiako danborrada***

Aurkeztu zitzaigun beste kexa bat Donostiako danborradarekin lotuta zegoen, eta kexa horren azpian, Alardeen kasuan bezalaxe, jaietan emakumeek duten parte-hartzeari berdintasun printzipioa aplikatzea zegoen. Kexan, San Sebastian egunaren bezperan Donostiako kaleetan gertatutako ahozko indarkeriaren inguruko zenbait gertakari salatu zituen Donostiako herritar talde batek, emakumeek Donostiako danborradan parte hartzearen inguruko eztabaida batekin lotuta.

Gertakariak partikularren arteko harremanen esparrura bideratu behar zirenez, erreklamatzaileri jakinarazi genien guk ezin genuela esku hartu haien eskaera betetzeko. Hala ere, kexa idatzi horren azpian beste erreklamazio bat zegoen Donostiako danborradan emakumeen erabateko parte-hartzearen inguruan. 2006. urtean, Donostiako Udalak honako ekimen hau abiarazi zuen: bandera igotzearen eta jaistearen (jaiaren hasiera eta bukaera adierazten duten bi ekitaldi enblematiko; tokiko agintariak ere joaten dira ekitaldi horietara, eta ekitaldietan danborrada ospatzen duen herritarren multzo handia biltzen da) ardura zuten elkarteei ezarri zien ekitaldi horietan emakumeek ere parte hartu behar zutela, kontuan hartuta bi elkarte horietan gizonak bakarrik daudela. Bi ekitaldiak emakumeen parte-hartzearekin egin ziren lehenengoz, nahiz eta bandera igotzearen kasuan, emakumeen ordezkariak sinbolikoa izan zen. Izan ere, beste elkarteetako 12 emakume agertu ziren soilik, eta guztiak urketari gisa jantzita, hau da, ekitaldiaren ardura zuen elkarteko gizonetzko partaideekiko desberdin, gizon guztiak sukaldariz jantzita baitzeuden. Kexan adierazten zenez, emakumeen partaidetza oso urrun zegoen erabateko berdintasun baldintzetako partaidetzatik.



Horregatik, Donostiako Udalera jo genuen, eta gure iritzia helarazi genien urte horretako bandera igoeraren eta jaitsieraren inguruan. Gure idatzian Udala zoriondu genuen 2006 urte horretan izan zuen ekimenagatik, hau da, danborradan emakumeen partaidetza sustatzeagatik. Hala ere, Donostiako danborradan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko Udalak hasitako bidean sakontzen jarraitu beharko lukeela ere helarazi genion. Gure iritziz, sexuagatiko bereizkeriaren kontra borroka egiten hasteko modu egokia da abiarazitakoa, etorkizunean areago garatu beharrekoa. Halaber, Ararteko erakundearen konpromisoa adierazi genuen jai horretan emakumeen erabateko partaidetza bultzatzen jarraitzeko.

Aurreko urtean aipatu genuen, eta berriro ere azpimarratu behar dugu, zenbait jai ekitaldiren antolaketa pribatu izatearekin estaltzeko saiakera antzeman dugula EAEko hainbat herritan, sexuagatiko bereizkeria ezaren agindua saihesteko helburu bakarrarekin. Nahitaezkotzat jotzen dugu estalki hori kentzea eta administrazio arduradunek aktiboki eta argiro abiaraztea jaietan emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna birgaitzeko neurriak.

Donostiaren kasuan, kexa bat iritsi zaigun lehenengo aldia, nahiz eta aipatu behar dugun udal agintariak justu aurten eskatu dituztela lehenengoz emakumeek elkarte pribatuetan parte har dezaten bermatzeko neurriak; izan ere, elkarte horiek arduratzen dira jaiaren bi ekitaldi nagusiez, hots, bandera igoeraz eta jaitsieraz, eta Donostiako herritarrek seriotasun eta garrantzi handia ematen diete ekitaldi horiei, herritarrek beraiek diren heinean ekitaldi horien titular bakar. Donostiako Udalak egindako urratsa Udaleko jai politikak bide egokia hartu izanaren adierazle dela pentsatzen dugu; elkarte pribatuek udal jaien antolaketan duten jarduteko tartea mugatu nahi da, batez ere proiektzio publiko handia duten bi ekitaldietan, izan ere, ekitaldi horiek ezin dute jabetza pribatua izan, Donostiako herritar guztien ondare baitira. Hala ere, kexa sustatu zuten pertsonekin ados gaude iritzi honekin: beste danborradetako 12 emakume sartzea ezin da hartu erabateko berdintasunaren formulatzat, bandera igoerako ekitaldian emakumeak dauden bezala, elkartearen gainerako lerrotan ere egon beharko liratekeelako, funtzio guzti-guztiak bereganatuta eta ez sinbolikoki edo zati batean, aurten gertatu den moduan. Horregatik guztiagatik, lehenengo urrats horri sostengua ematen diogu, emakumeek danborradan bizi duten bereizkeriarekin amaitzeko abiapuntua izan beharko lukeelako, eta horrela hartu baitu herritarren gehiengoak.

2006 urte honetan Donostiako Udalak sustatu duen irtenbidea, ziurtasun osoz, erantzun ona da emakumeek jaietan duten partaidetzari nola aurre egin jakiteko, helburu hori konpondu ezin daitekeen arazo bihurtu gabe –tamalez Irungo eta Hondarribiko jaiekin gertatzen ari den moduan–. Horrek ez du esan nahi erabateko berdintasunaren helburua ahaztu dezakegunik, eta horrexegatik hartu dugu konpromisoa, erakunde gisa, Donostiako Udalari aurrerantzean gogorarazteko egungo irtenbidea berdintasun parametro zorrotzagoetara egokitu beharra dagoela. Horretarako, Udalari jakinarazi diogu zaintzaile jarrera hartuko dugula, eta hurrengo edizioetan Donostiako danborradari ematen dioten antolaketa begiratuko dugula.

### **3.3. *Berdintasuna eta emakumezkoen kirol taldeak***

Gai horiez gain, beste kexa batzuk ere aurkeztu dira gure esku-hartzea eskatzeko, sexuagatiko bereizkeriaren kategoria zabalagoaren barruan koka genitzakeen egoerak

dirrela-eta. Hala, pasa den 2005. urtean, kultura arloaren barruan, kexa bat aurkeztu zitzaigun euskal telebista publikoetako kirol albistegietan emakumeek tokirik ez dutela edo gizonekin erkatuta dagoen desoreka salatzeke. Euskal erakunde autonomo horri erreklamazio hori helarazi genion orduan, eta aipatu genion artikulua hauetatik eratortzen den agindua kontuan hartu behar zuela: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeko 25.3 artikulutik –kirol modalitate guztiak praktikatzean emakumeek eta gizonen tratua eta aukera berdinak izatea bermatzeko administrazio publikoek neurriak hartzeko beharri buruzkoa– eratortzen dena eta, bereziki, Lege bereko 26.3 artikulutik eratortzen dena; horren arabera, bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala bermatu beharko dute gizarte hedabideek beren programazioak egiterakoan.

Aurrerago, 2006. urtean, emakumezkoen saskibaloitako talde batek egindako kexa jaso genuen, berriro ere gai hori aipatzen zuena. Gainera, Euskadin eliteko emakumezkoen kirol taldeek jasaten duten bazterketa salatzen zuen, eta administrazioek bereziki talde horiek lagundu behar dituztela aipatzen zen. Kexa horretan, saskibaloitako talde horretako ordezkariak lehendik ere erakunde honetan antzeman genuen kontu bat aipatu ziguten: kirolean aritzen diren emakumeek, batez ere elite edo lehiaketako kirolak izenekotan aritzen direnek, ez dute jarduera paraleloak egiten dituzten gizonen harrera sozial eta ekonomiko berdina izaten. Horren eraginez, beren jarduera gutxiago ikusten da gizartean, eta, era berean, horrek babesleak bilatzeko arazoak areagotzen ditu, bai eta interes publizitarioa txikiagoa izatea eta, azkenik, berez zaila den munduan aurrera egiteko ahalmen ekonomikoa eta aukerak gutxiago izatea ere. Gainera, beren kexan erreklamatzailerik adierazi dute hedabideek oso leku gutxi uzten dietela eta erakunde honetan salatu dute, oro har, arreta gutxi eta informazio esparru txikia eskaintzen dietela, nahiz eta beren taldea ohorezko mailan dagoen emakumeen euskal talde bakarra izan, eta nahiz eta bere garaipenei esker joan den urtean Europako lehiaketan sartzeko aukera izan zuten. Ordezkaritza horiek adierazi dutenez, hedabideetan oso gutxi agertzen dira, eta aldea benetan nabarmena da gizonen taldeekin alderatuz gero. Hor bereizkeria dagoela iruditzen zaie.

Kexa honen aurrean, egokitzat jotzen dugu informazioa eskatzea eta gai honen inguruko zenbait gogoeta helaraztea ondoko hauei: EITBko zuzendaritzari, hedabide publikoen –horien gainean erakunde honek kontrolerako eskumena du– ordezkari den erakunde publikoari, hiru foru aldundiei eta Euskadin kirola sustatzeko eskumena duten administrazioei. Gure gogoeten helburua da argitzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearekin zein egoera juridikotan kokatzen garen arlo honi dagokionez. Ildo horri jarraiki, eta foru aldundiei dagokienez, honako hau nabarmentzen genuen:

“Kirola biztanleria osoaren osasunari komeni zaion jarduera da, bizi itxaropena luzatzen laguntzen du, eta gizarteak zenbat eta kirol gehiago egin, orduan eta ongizate eta bizi kalitate handiagoa du. Jakina da kirola egitea zabalduagoa dagoela gizonen artean emakumezkoen artean baino. Hala eta guztiz ere, azkenaldian joera hori modu adierazgarrian ari da aldatzen. Eliteko kirolak egiten dituzten emakume taldeek erreferentzia edo eredu gisa funtzionatzen dute zentzu bikoitzean: batetik, gizarte guztiaren aurrean agertzen da emakumeek gizon/emakume rolen estereotipoetatik kanpo kokaturiko jarduerak egiteko ahalmena dutela; bestetik, emakumeek, eta bereziki gazteenek, erreferentzerik gabeko jarduera egiteko gaitasuna dutela frogatzen da, lehen baztertu egiten bazituzten ere. Egun, ordea, eredu berri horien bitartez sustatu egiten da, eta horrek bizi kalitatearen hobekuntzan,

norberaren estimuan eta emakumeen balorazio sozialean laguntzen du. Horren guztiaren ondorioz, erabat berdintasunezkoa den gizartearen helburura hurbiltzen gara. Ararteko erakundea estereotipoak apurtzen dituzten emakumeak agertzen dituzten jarduerak ikusi eta publikoki sustatzearen aldekoa da, sexu arrazoiengatik berdintasun printzipioarekin eta puntu hori garatzen duen araudiarekin bat etortzeagatik –zehazki, euskal esparruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea-. Modu berean, emakumeen *ahalduntzea* delakoaren aldekoa da. Jarduera horien artean, dudarik gabe, kirolak agertzen dira. Esparru hori gizonezkoena izan da luzaroan, eta botere fisikoaren eta emakumei etengabe ukatu zaizkien esparru publikoen lorpenaren adierazpen sinboliko gisa erabili izan da.”

Hala, foru aldundiengana jo genuen, lehenik eta behin arlo honetan zer politika mota egiten ari den aztertzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak arlo honi dagokionez egiten dituen aldarrikapen berriak kontuan hartuta; eta, bigarrenik, emakumeentzako ekintza positiboko neurriak zehazteko beharra azaltzeko; kirol munduan emakumeen eta gizonen arteko oreka eta, kirolaren bitartez, emakumeen *ahalduntzea* bilatu beharko lukete neurri horiek.

Testuinguru honetan, bidezkoa da aipatzea Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, gure ustez, gai hau bere osotasunean hartzeko ezinbestekoa den esparrua ezartzen duela. Alde horretatik, Legebiltzarraren arau honen 25. artikulura jo genuen; bertan jasotzen da, kultur jarduera guztietan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzera bideratutako betebeharrak publikoen esparruan, kirol modalitate guztiak praktikatzeari dagokionez emakumeek eta gizonezkoek tratatu eta aukera berdinak izatea bermatzeko euskal administrazio publikoek neurriak hartzeko beharra, bai eta laguntza eta ahalegin publikoak batez ere emakumeek praktikatzeko dituzten kirolak eta gizonen eta emakumeen parte-hartze oso txikia duten kirol modalitateak laguntzera bideratzeko beharra ere.

Era berean, foru erakundeei gogorarazten genien Konstituzioaren 9.2 artikulutik, berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeari buruzkotik, eratoritzen diren ekintza positiboko betebeharrak zuzenean lotuta dauden botere publikoak direla; betebeharrak horiek xehetasun osoz garatu dira Berdintasunerako Euskal Legean, bereziki, gai honi dagokionez, gorago aipatutako arauan, bai eta zehazki arlo honetan foru aldundiek duten paperari lotutako xedapenetan ere (6. artikulua: b), d), e), f), g) eta l)).

Hiru foru aldundiek berehala erantzun digute, luze eta zabal, eta gai honi aurre egiteko aplikatzen ari diren mekanismoak zeintzuk diren azaltzen digute erantzunetan. Oro har esan dezakegu hiru foru aldundiek Arartekoari adierazi diotela bat datozela helarazi genizkien argudioekin, eta datu ugari erabilita, emakumeak kirolean sustatzeko helburua betetzeko egiten ari diren ahalegin zehatzak zeintzuk diren azaldu digute, ekintza positiboko neurriak barne. Erakunde honek zoriondu egin zuen foru erakundeek gai honen aurrean izan zuten jarrera, eta administrazio horiek abiarazitako neurriak zehaztasun handiagoz aztertzea proposatu genuen, EAEn emakumezkoen kirol munduan izandako eragina kasuz kasu ebaluatzeko beharra zehazteko.

EITBri dagokionez, zuzendaritzari eskatu genion ETBn talde erreklamatzailak jasotzen duen tratuari buruzko informazioa bidal diezagula (Radio Euskadiren eta Euskadi Irratiaren tratamendua oso ona zela aipatu zuten berriaz kexa aurkeztu zutenek) bai eta, oro har, emakumeek praktikatzeko dituzten kirolek jasotzen duten

tratamenduari buruzkoa eta arlo horretan dauden ekintza positiboko neurriei buruzkoa ere (baldin badaude).

EITBko zuzendariak 2005eko espediente batean gai honen inguruan emandako erantzuna aipatzen genuen gaiaren ardatza jarraipenaren intentsitatea zela adierazteko; ETBk esaten duenez, kexa aurkeztu zuen taldearen jarraipena egiten du. Izan ere, beste hainbat gauzaren artean, hedabideek duten egitekoarekin ados ez geundela adierazi genuen; gure iritziz, hedabideen egitekoa ez da gizartean gertatzen dena leialki islatzera mugatzen –erakunde publiko horrek defendatzen zuen moduan–, baizik eta, xede horretatik haratago, hedabideek errealitatea eraikitzen dute, eta garrantzi handia dute estereotipoak indartzeko edo erauzteko orduan. Bestela esanda, erakunde honen ustez, hedabideek funtsezko egitekoa dute harremanei dagokienez gizarte eredu jakin bat osatzeko, eta beste gizarte aginte batzuek ez dituzten tresnak dituzte beraiek aldaketa eragiteko, emakume eta gizonentzako berdintasun handiagoko gizarte bat lortze aldera.

Gure idatziari EITBko zuzendaritzak berriki eman dion erantzunean adierazten digutenez, eskatu genien informazioa, ETBko programazioan kirolaren informazio kuotei eta emankizun kuotei buruzkoa, testuinguru batean kokatu behar da, *“gaur egun abiapuntua ez baita berdina gizonen kirolean eta emakumezkoen kirolean”*. Ideia horretatik abiatuta adierazi digute Euskadin dauden emakumezkoen lehen mailako lau klubei astero beren lehiaketaren jarraipena egiten zaiela albistegien bitartez eta kirol arloko programazioaren bitartez. Aitzitik, lehenengo mailako taldeak edo klubak askoz gehiago dira eta gizonezkoetan, eta, beraz, erakunde publikoak adierazten duenez, proportzioan gizonetzkoen taldeei edo klubei arreta gutxiago bideratzen zaie emakumezkoen klubei baino. Gainera, lehen mailako emakumezkoen klubak dauden hiru kirolen zuzeneko emanaldiek 2006an gora egin dutela adierazi digute. Kexa sustatu duen taldeak jokatzeko dituen partidei dagokienez, honako hau adierazi digute: *“aurten ezin ditugu beren norgehiagokak produzitu eta eman, alde batetik, kanpoan jokatzeko diren partidak emateko ez dagoelako telebistarik interesatuta eta, bestetik, etxeko partidak lehenagotik hitzartutako produkzio propioaren ordu berean direlako”*. Edonola ere, ETBk informazioari dagokionez ahalegina egiteko konpromisoa hartu duela jakinarazi digute, hala, albistegietan beren norgehiagoken jarraipena eskaini ahal izateko. Bukatzeko aipatzen dute EITBk arlo honetan ekintza positiboko neurriak ezartzeko beharrari aurre egiteaz gain –guk adierazten genuen moduan–, EITB ekintza horiek eraginkortasunez gauzatzen ari dela.

Positiboa iritzi diogu EITBk arlo horri dagokionez bere erantzunean azaldu duen ahaleginari, baina, hala ere, ekintza positiboko neurriak EITBk adierazitakoa baino haratago joan behar direla pentsatzen dugu. Alde horretatik, honako datuen kopuruen berri emateko eskatu genion EITBri: 2006ko urtarrilaz geroztik (4/2005 Legea 2005eko martxoan sartu zen indarrean) ETBko albistegietan emakumeak protagonista dituzten kirolei zenbat denbora eskaini zaien, gizonetzkoak protagonista dituzten kirolei eskainitako denborarekiko konparaketa ere eginaz, eta emakumeen partida eta txapelketen emanaldiei eskaini zaien denbora (gizonetzkoen partidei eskainitako denborarekin ere alderaketa eginaz).

Emakumeek egiten dituzten kirolek hedabideetan duten tokia kuantifikatzea garrantzitsua dela pentsatzen jarraitzen dugu Erakunde honetan, kopuru hori handitzeko helburuak ezartzeko hortik abiatuta eta berdintasuna helburu izanik. Emakumezkoen kirolari eskaintzen zaion kirol informazioaren kuotak zeintzuk diren jakitea eta emaku-

mezkoen partidak edo lehiaketak zuzenean ematean aipatutako politika zenbateraino islatzen den jakitea da modu bakarra estereotipoak errotik ateratzen laguntzen duten emisioak kuantifikatzeko eta horien igoera proposatzeko. Izan ere, estereotipo horiek, bereziki kirol arloan, geroz eta indar handiagoz ezkututzen dute errealitatea, errealitateak gizartearen zati handienaren begietatik baztertuta jarraitzen du, eta jarduera horretako protagonista gisa soilik gizonetzkoak ikusten ditu gehiengoak.

Hedabideak ezin dira mugatu emakumeentzat kaltegarria den errealitatea islatzera, baizik eta gizarte aldaketa bultzatu behar dute, eta emakumeak *ahalduntzen* dituzten jarduerak areagotu behar dituzte; hain zuzen, kirola horietako bat da. Erakunde honetan bene-benetan pentsatzen dugu garrantzitsua dela euskal botere publikoek Berdintasunerako Euskal Legean jasotako xedapenak zehatz-mehatz betetzen dituztela zaintzea. Lege berria da, eta hori aplikatzeak nabarmen aldatzen du eragile publiko eta sozialen nagikeria. Uste osoa dugu, lege horren bidez, emakumeentzako funtsezko eskubidea den berdintasun eskubidea bermatzeaz gain, euskal gizarte osoari onura izugarriak ekarriko zaizkiola. Testuinguru horretan kokatzen ditugu gure jarduerak, esparru guztietan ekingintza positiboak ezartzea lortzera bideratutakoak, kirolatan barne; izan ere, kirolaren esparruan, emakumezkoen tokia nahiko txikia da, kirola, estereotipoei jarraituz, gizonezkoentzako baita.

Deskribatutako espedientea oraindik irekita zegoen txosten hau bukatu genuen egunean. Gure asmoa honako hau da: rol eta estereotipoek gizartean indarraldi luzeen eta indar handien izan duten esparruetan bereziki emakumeek egiten dituzten jarduerak aktiboki eta positiboki sustatzearen beharra nabarmentzen jarraitzea. Esparru horietako bat kirolena izan daiteke, non gizarte nagikeria erreferente bakar gisa gizonak izateak zehazten duen. Ez dago zalantzarik horrelako jarduera batek hedabideetan duen tokiak balio bikoitza duela: errealitatea islatzea eta, aldi berean, errealitate hori bultzatzea edo sustatzea. Horregatik pentsatzen dugu oso garrantzitsua dela, oro har egiturako berdintasun ezari aurre egiteko, baina bereziki esparru honetan dagoenari aurre egiteko.

### 3.4. **Publizitatea eta irudi sextak**

Urte honetan hainbat gai desberdin jorratu ditugu enpresa pribatuen publizitatean edo administrazioaren baimena behar duten jardueretan dauden irudi edo mezu sexistekin lotuta.

Zehazki, enpresa jakin batek 2005. urte bukaeran hasitako publizitate kanpaina sexistarekin lotutako kexaren bat izan dugu. Kexaren sustatzaileek adierazi ziguten administrazio eskudunak ez zuela ezer egin publizitate hori berehala bertan behera uzteko eta publizitate hori sortu zuen enpresari zegokion zigorra ezartzeko. Emakunderengana jo genuen gai honen inguruko informazio eske, bera baita kasu hauetan zehapen prozedura bultzatzeko eskumena duen erakunde autonomoa. Jaso genuen informaziotik ondorioztatu ahal izan genuen gai honen inguruan Emakundek gauzatutako jarduerak behar bezalakoak eta egokiak izan zirela bai moduan nahiz oinarrian, zehapen prozedura bultzatzeari dagokionez (prozesua hasi zen eta Eusko Jaurlaritzak kasuan kasuko zigor ekonomikoak ezarri zituen) bai kexa hori egin zuen kolektibo salatzailearekin izandako harremanari dagokionez. Horregatik, ondorio hori erreklamatzailerei helarazi genien, eta gai honetan gure esku-hartzea bukatutzat eman genuen. Hala ere, espediente horretaz baliatu ginen Emakunderi berriro informazioa eskatzeko 2006ko udaberrian enpresa

berak abiarazitako kanpaina berriaren inguruan. Izan ere, kanpaina hori 4/2005 Legearen 26.2 artikuluan deskribatutako kasuaren pean eror zitekeen (zehazki, “*emakumeen bularrak*” aipatzen ziren kanpaina horretan, eta emakumeen gorputza objektu bihurtzen zuten irudiak azaltzen ziren).

Emakundek bidalitako informazioaren bitartez berriro ere egiaztatu ahal izan genuen erakunde autonomo horrek nahiz Eusko Jaurlaritzako erakunde arduradunek modu egokian jokatu zutela, kasuan kasuko zigorrak ezarri, eta, beraz, gai hau bukatutzat jo genuen.

\* \* \*

Bestelako kontua izan zen, nahiz eta hau ere irudi sexistekin lotuta egon, barraka bat ezartzearen inguruan sortu zen arazoa. Barrakak “*beldurraren etxea*” zuen izena, eta Bilboko Etxeberria parkeko azoka eremuan jarri zen 2006ko abuztuan, Bilboko jaiekin bat eginez. Kexa sustatu zuten kolektiboek barrakaren izaera sexista salatu zuten; izan ere, burua estalita zuten gizonen irudiak zituzten panelekin apainduta zegoen barraka, eta gizon horiek krudelki biktima bihurtuta azaltzen ziren emakumeen gainean indarkeri mota desberdinak gauzatzen zituzten. Gizonek izaki babesgabe eta ahulak torturatzen zituztenen papera zuten, eta, gainera izaki horien gorputzak sexu objektu huts gisa erabiltzen ziren. Talde erreklamatzailen ustetan, irudi horiek torturaren apologia egiten zuten. Talde erreklamatzailiek bidalitako dokumentuak aztertu ondoren, barrakaren irudiak azaltzen zituzten argazkiak barne, erakunde honek pentsatu zuen jaietan espazio publiko batean barraka hori egoteak gizartean emakumeen kontrako indarkeriaren zilegitasun etikoa eta estetikoa sustatu zezakeela.

Denbora gutxi zegoenez, Bilboko Udaleko Emakume Sailarekin harremanetan jarri ginen telefono bidez; bertan jakinarazi zigutenez, salaketaren berri izan zuten eta Udaleko Kultura zuzendariarekin harremanetan jarriak ziren ordurako. Feria instalazioak beharrezko baimena zuela esan zien Kultura zuzendariak. Horrez gain, Udalaren iritziz esku hartzeko eta barraka ixteko aukerarik ez zegoela adierazi zitzaigun, denbora kontua zela eta. Hala ere, horren guztiaren ondoren ondorioztatu genuen Bilboko jaietan funtzionatzeko baimena eskuratu zuten jardueren eta instalazioen edukien aldez aurretiko kontrolik ez zela egin.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu berriz ere Udal horrengana jotzea antzeko edukiak edo eduki berdinak dituzten barrakek edo establezimenduek jaso ditzaketen baimenen aurrean Udalak dituen erantzukizunak zeintzuk diren ezartzeko. Horretarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearekin (Berdintasunerako Euskal Legea) EAEn ezarri den esparru berriari heltzen diogu; izan ere, 7.1 1) artikuluan udalei esleitzen zaie, oro har, beren lurralde eremuaren barruan gertatzen diren sexuagatiko bereizkeri egoerak antzemateko eta ezabatzeko eginkizuna. Era berean, modu zehatzagoan, kultur politikaren eremuan zehazki gerta daitezkeen sexuagatiko bereizkeri guztiak saihesteko beharrezko neurriak hartzera derrigortzen ditu arau horrek administrazio publikoak (25.1 artikulua lehengo atala).

Bilboko Udalari adierazten genionez, erakunde honen iritziz, Bilboko jaietan “*Beldurraren etxea*” izeneko barrakan jendaurrean zeuden irudiek emakumeenganako bereizkeria mota bat osatzen dute, baina, horrez gain, bereizkeriaren modurik larrienetako baten isla dira; izan ere, emakumeentzako irainak diren eszenak publikoki erakusten

dituzte eta zuzenean eraso egiten diote emakumeek gizaki gisa duten duintasunari, eta, gainera, genero indarkeria bidezko egiten dute etikoki eta estetikoki. Bestalde, instalazio horrek gizartean duen ondorioari dagokionez, zirkunstantzia larriak da barraka erabiltzen duten pertsonen zati handi bat adingabeak izatea, hain zuzen ere, adingabeak direlako, xurgatze handiena gertatzen den bizitzako unean daude, bai eta helduen mundutik datozen mezu zuzen edo subliminalenganako ahalmen kritiko gutxien duten unean ere. Gainera, kontuan hartu behar da erakunde publiko batek babestutako instalazio gisa agertzen dela barraka, Udalaren oniritziarekin, Bilboko jaiak direla-eta, herritarrei eskaintzen zaien jardueren parte baita.

Horrez gain aipatzen genuen instalazioak urtero jaso behar duen baimen formula, Bilboko Udalak emandakoa, berrikusi egin beharko litzatekeela gure iritziz, gorago aipatutako aginduetan bildutako legezketasun parametroari jarraiki; parametro horrek, gainera, oinarrizko eskubide batekin lotura dauka, berdintasun printzipioarekin, hain justu (Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua), bai eta pertsonen duintasunarenganako errespetuaren printzipio konstituzionalarekin ere; printzipio hori Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikuluan ezartzen da, ordena politikoaren eta gizarteko bakearen oinarri gisa. Udalari esaten genion, gogoeta hauek ikusita, bere iritzia zein jakin nahi genuela udalerrir horretan biztanleei eskaintzen zitzaien jaietako eskaintza osatuko duten instalazioak baimentzeko orduan Udalean jarraitzen diren protokoloak berrikusteari zegokionez, bai eta Udal horrek antolatzen dituen jaien edukiak berrikusteari zegokionez ere, hori guztia Berdintasunerako Euskal Legean zehaztutako legezketasun parametroen arabera.

Bilboko Udalak erantzunean azaltzen duenez, Kultura eta Euskara Sailak, zenbait talderen salaketa jaso ondoren eta aipatutako barrakan agerian jartzen ziren irudien berri izan zuenean, barrakari emandako baimena baliogabetu egin zuen abuztuaren 30ean, beren iritziz, irudien edukiak Genero Indarkeriaren Kontrako Erabateko Babes Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean ezarritakoa urratzen baitzuen. Horiez gain, Bilboko Udaleko Jai Ordenantzako xedapen jakin bat ere aplikatu zuen, emandako baimenen prekarioko lagapenari buruzkoa. Baina, barrakaren jabearen eta Ferietako Salerosleen Elkartearen eskaerari kasu eginez, zeinak baimena kentzeak galera ekonomiko handia eragingo liekeela aipatu zuten, baimena kendu ordez, irudiak estali egin ziren, jendeak ikus ez zitzaiz, hori kautelazko neurri gisa proportzionalagoa zela iritzita. Horiek izan ziren barraka ez ixteko arrazoiak eta inguruabarrak. Udalak behin eta berriro nabarmentzen du irudien edukia zein zen jakinez gero, ez litzatekeela barraka hori baimenduko. Beste alde batetik, generoaren ikuspegia jai arloko jardueretara nola txertatzen ari zen zehatz-mehatz adierazten duen azalpena bidali digu. Ildo horri jarraiki, ferien jabeek berriro ere araudia urratu ez dezaten, 2007ko jaien ediziotik aurrera baimen bakoitzean, betebeharrak orokorren artean, berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeko betebeharrak sartzeari erabaki da. Era berean, *Aste Nagusia* dela-eta jaiak antolatzeaz eta jaiak garapen ona izateaz arduratzen diren Udaleko sailek onartzen dituzten irizpideetan sartuko da berdintasunaren arloan indarrean dagoen arauditik eratorritzen diren betebeharrak zorrotz betetzen direla zaintzea.

Bilboko Udalak hartutako neurriak guztiz egokiak direla pentsatzen dugu etorkizunean 2006an gertatu zen erakusketaren modukoak prebenitzeko. Horrexegatik, gai honen inguruan izan dugun esku-hartzea bukatutzat eman behar dela uste dugu. Hala ere, Bilboko Udalaren ekimenaren berri emateko eta, oro har, aurten Bilbon sortu den

arazoaren berri emateko, EAEko gainerako udalengana jotzearen aukera aztertzen ari gara, herriko jaiak direla-eta udal administrazioek baimentzen dituzten establezimendu edo jarduerak etorkizunean berdintasunaren arloko eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren arloko legeria edo genero indarkeriari buruzko legeria haustea saihesteko eredu edo erreferentzia gisa balio dezan.

#### 4. **Emakumeei modu berezian eragiten dieten beste gai batzuk**

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko atal honen hasieran aipatzen genuen genero ikuspegia aplikatzeak berekin dakarrela erakunde honen jarduera osoaren zeharkako irakurketa egiteko beharra; gainera, emakumeek egindako erreklamazioetan gehien ateratzen diren gaiak nabarmentzen dira, azken finean, gai horiek generoaren kutsua hartzen dute, emakumeak baitira hartzaile nagusiak. Emakumeengan eragin handiago izate hori azaltzen duten arrazoiak, oro har, egiturari dagokionez mendekotasun egoeran egotean aurki daitezke; mendekotasun hori eremu jakin batzuetan, hala nola, familiaren eremuan, etxeko eremuan edo mendeko pertsonen zaintzaren eremuan eragin handiago duten rolen banaketa estereotipatuan oinarrituta dago.

Hori dela eta, goiburu honen azpian jorratzen ditugun gaiak, oro har, gai hauen ingurukoak direla ikus daiteke: bizitza pertsonala, lanbidea eta familiako bizitza uztartzea; familiako harremanetan emakumeek duten toki berezia –gizarteko sistema osoaren barruan duen tokiak zehazten duena–; mendeko pertsonen zaintza eta zaintza horretatik datozen behar bereziak eta zailtasunak; eta gizarte bazterkeria pobreziaaren feminizazioaren adierazpen gisa.

##### 4.1. **Bizitza pertsonala, lanbidea eta familiako bizitza uztartzea**

Laneko betebeharrak eta bizitza pertsonala bateragarri egitera bideratutako neuriei dagokionez, 2005ean Eusko Legebiltzarrari igorritako gure txostenean azpimarratzen genuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legeak erabat asmatu zuela gai hori jorratzeko moduan. Hala, Lege horretako 47. artikulua aipatzen genuen bereziki; artikulua hori da III. tituluko VI. kapituluaren lehenengo artikulua, eta lehenengoz hitz egiten du bizitza *pertsonala*, familiako bizitza eta lanbidea uztartzeari buruz. Hala, familiarekin nahitaez loturarik ez duten bizitza pribatuko gaietara zabalitzen du lanbidea uztartzearen ideia. Esan dugu horrek aurrerapausoa ekarri duela, gure iritziz, beharizan pertsonalak barne hartu behar direla ulertzean eta, oro har, lanak gure bizitzan duen funtzioa ulertzean. Hala eta guztiz ere, logikoa den moduan, beste pertsona batzuk zaintzea, batez ere mendeko diren pertsonak, guztiz kontuan hartzeko kontua da lanari eskainitako denbora eta gure bizitza pertsonalari eskainitako denbora uztartzeko neurriak prestatzerakoan.

Era berean, gure aburuz oso garrantzitsua da Lege honek, 48. artikuluan, uztarketa-  
ren printzipioa gauzatzeko orduan aintzat hartu behar diren alderdiak ezarri izana, hala, botere publikoentzat betebeharrak horiei legezko maila eman baitzaie. Zehazki, lanbidea eta bizitza pribatua uztartzearen errealitatea eraginkorra izan dadin botere publikoek jorratu beharreko gaiak garatzen ditu Legearen 48. artikulua. Horrela, lanaren baldintzak ikuspegi berrira egokitzeke –giza harremanen eta laneko harremanen antolaketa hartu



behar duen ikuspegira– kontuan hartu behar diren hiru alderdi aipatzen ditu. Hauek dira alderdiak: administrazio publikoetako langileen lan baldintzak erregulatzen dituzten arauak barne hartu beharreko neurriak, laneko orduak malgutu eta berrantolatzeoak; euskal administrazio publikoek enpresei eman beharreko laguntzak, laneko orduak malgutu eta berrantolatu ditzaten; eta, azkenik, etxeko lanez arduratzeko eta mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziak, baimenak edo lanaldi murrizketak hartu behar dituzten langileei Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eman beharreko laguntzak.

Baina, ikusi ahal izan dugunez, lege esparru gorena ezartzen duten aurreikuspen horiek, non bizitza pribatua eta lanbidea uztartzea ahalbidetzeko ekimen horiek egituratu behar diren, urte bete geroago ez dute lortu araudiaren esparrua edo administrazioen funtzionamenduaren esparrua argitu edo bateratzea gai honi dagokionez –bereziki, euskal administrazio publikoetan laneko orduak malgutu eta berrantolatzeo neurriei dagokienez–. Ikus dezagun, zehazki, zeintzuk izan diren pasa den ekitaldian gai honen inguruan antzeman ahal izan ditugun arazoak.

**Funtzio publikoaren** atalean ere aipatu genuen kontu hau; bertan adierazitako moduan, baimenei eta lizentziei buruz jasotako kexa gehienak erantzukizun pertsonalak eta lanbide erantzukizunak adiskidetu nahi dituzten langileek aurkeztutakoak izan dira. Desberdintasun nabarmenak egiaztatu ahal izan ditugu adiskidetze neurri hauek kudeatzeko moduan, funtzio publikoko sektore bat edo beste izan.

Horrela, osasunaren arloan, ikusi ahal izan dugu Osakidetza ez duela lanaldi murrizketako erregimena aldatu nahi, behin murrizketa epe jakin baterako baimenduta, eta horren inguruan argudiatu duela horrek kudeaketa eragozpenak sortuko lituzkeela egin beharreko ordezkapenei dagokienez. Zalantzarik gabe, guztiok ohartzen gara kudeaketa eragozpen horiez. Nolanahi ere, horien ondorioak ahalik eta gehien minimizatzeo ahaleginak egiten dira, murrizketa neurri horiei heldu nahi dieten interesdunek horiez baliatu ahal izateko denboraldia eta baldintzak adierazi eta, nolabait, “adostu” ditzaten eginda. Gure ustez, ordea, beharrezkoa da kontuan hartzea eragozpen horiek inolaz ere ezin har edo erabil daitezkeela famili eta lan premiak benetan adiskidetzen laguntzeko langileei onartu zaizkien eskubideak murrizteko oinarri gisa.

Irakaskuntzaren sektorean, aldiz, ordezkoak dira lanaldi murrizketako baimenak onartzeko gutxieneko baldintzak eskatzen dituztenak, neurrigabekotzat hartzen dituzten egoerei amaiera emate aldera (esate baterako, ordeztu diren langileak berriz ere lanaldi osoan hasten direnean Gabonetan eta Aste Santuan, ordezkoak baztertu egiten dira). Horri dagokionez, erabaki dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari beste hezkuntza administrazio batzuen kudeaketa eremuan (adibidez, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Valentziako Generalitatearen eremuan) dauden bestelako esperientzi alderatuen inguruan ohartaraztea. Ikus dezakegunez, esperientzia horietan, ahaleginak egin dira irakasle funtzionarioen lanaldi murrizketarako eskubidea eta ikasleen hezkuntzarako eskubidearen ondoriozko antolaketa eskakizunak bateragarri egiteko. Ildo horri jarraiki, aipatutako bidetik ekimen propioak egiteko aukera iradoki zaie, hori guztia, noski, lan baldintzak arautzeko akordioaren nahitazeko esparrua aintzat hartuta.

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokionez, Funtzio Publikoko sailburuordeak urtarrilaren 4an emandako 1/2006 Ebazpena aztertzeo aukera izan dugu (horren bidez, legezko zaintzan aritzeko, ikasketa ofizialak egiteko edo kargu politikoari dagozkion eginkizunak betetzeko borondatezko lanaldi murrizketen inguruko instrukzioa onartzen da). Horren eraginpeko batzuek ulertu dute ebazpena gehiegikerietan jausten

zela; beren ustez, murrizketa baimenak dagokion ordainsari egokitzapena baino ezin ekar zezakeen eta ezin zezakeen eraginik izan zerbitzuak lanaldi osoan eskaintzen zituzten langileei bezalaxe eurei ere onartu behar zaizkien beste eskubide batzuetan, esate baterako, oporretan. Erantzuna izan du baita ere egiteke dagoen ordainsari egokitzapena ekitaldi bakarrean gauzatzeko hartu den erabakiak, azken bost urteotan murrizketa baimenak kudeatu diren moduagatik.

Azkenik, puntu honetan Ertzaintzako funtzionario batek aurkeztutako kexa aipatu behar dugu. Kexan esan zigunaren arabera, lanaldia murrizteko erregimenari heldu zionetik atxiki zaizkion eginkizunak ez datoz bat amatasuna baino lehenago zituen maila eta espezialitatearekin. Bere iritziz, honela jarduteak Ertzaintzaren lan baldintzak arautzen dituen akordioak seme-alaba zaintzeko murrizketa erregimenari heldu ahal izatea zein baldintzatan onartzen duen kontuan ez hartzea dakar. Une honetan, Herrizaingo Saila ukitzen duen jarduna dugu hasita, interesdunari eginkizunak berriro esleitu izana justifika dezaketen antolakuntzako arrazoiak ezagutze aldera; hori guztia sexuagatik bereizkeria izan dela esan dezakeen balizko salaketa argitzen saiatzeko.

Oro har ikus dezakegu, beraz, aipatutako Legearen 47. eta 48. artikuluetan ezarritako bizitza pertsonala, familiako bizitza eta lanbidea **uztartzearen printzipioa zenbait zailtasun izaten ari dela erabat aplikatzeko** administrazio publikoen praktikan, eta administrazioek aurreikusten dituzten neurriez gozatzeak, lanbidea eta bizitza pribatua uztartzea ahalbidetzen dutenak, maizegi laneko beste eskubide batzuk murriztea eragiten du, eta hori ez litzateke inolaz ere gertatu beharko. Uztartze neurri horiei heltzeak ezin du ondoriorik ekarri neurri horiez baliatzen direnengan, eta hori, gainera, administrazio publiko guztiek izan beharko luketen gutxieneko araudi batek bermatu beharko luke. Arrazoi hori dela medio pentsatzen dugu komenigarria litzatekeela Legeak arlo horretan ezartzen dituen parametroak sakontzea, eta horretarako egokia izango litzateke Legea berak administrazioei ezartzen dien berdintasun planen tresna. Uztartzea arautzeko neurrien onarpena, hortaz, plan horien barruan kokatuta egon liteke, eta, era berean, plan horiek uztartzeko programak edo planak egitea proposatu beharko lukete, gizartean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko funtsezko tresna den neurrian. Hori da, hain zuzen, uztartze neurriak abiarazten dituzten enpresei ematen zaizkien laguntza ekonomiko publikoei buruzko araudiak ezarri nahi duena. Agian horregatik, eta kontuan hartuta lan harremanen arloan eta berdintasunaren arloan administrazio publikoak eredu izan behar direla sektore pribatuarentzat, tresna horiek dira, halaber, gorago aipatutako legezko xedapenak administrazio publikoetan benetan ezar daitezten lortzeko tresnak; hala, neurri horiei heltzen dieten langileengan ondorio negatiboak izatea saihestuko da, ondorio horiek lege esparru berri honen xede urratzen baitute, zalantzarik gabe.

**Uztartzea bultzatzeko laguntza pertsonalei** dagokienez, 2006an iritsi den espediente baten berri eman behar dugu; espedientea 3 urteko haurrak eskolaratzeko laguntzen ingurukoa da, eta laguntza horiek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2005eko urtarrilaren 26ko Aginduan -3 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiei laguntzekoa- arautzen dira. Espedientea emakume baten inguruko da. Emakumea 2004ko irailean banandu egin zen, eta 2004-2005 ikasturterako laguntza eskatu zuen arren, laguntza ukatu egin zitzaion diru-sarreraren muga gainditzeagatik; izan ere, diru-sarrera gisa 2003. urtekoak hartu ziren kontuan eta, beraz, bere senar ohiaren diru-sarrerak sartzen dira garai horren barruan. Hurrengo urtean ere ez zitzaion laguntza eman

emakumeari, orduan ere diru-sarreraren muga gainditu baitzuen; 2004ko diru-sarrerak zenbatu ziren, eta berriz ere banandu ziren egunera arte senar ohiak izandako sarrerak sartu ziren zenbaketan (urtarriletik banandu ziren arte, hots, irailera arte). Horri, gainera, banandu zenetik urte bukaera arte jaso zuen elikadura pentsioa gehitu zitzaion. Kasu honetan atzematen dugun arazoa hauxe da: araudiak ez die tratamendu berezia ematen laguntza eskatzen denetik diru-sarrerak zenbatzeko erabiltzen den mementoaren artean familiaren egituran aldaketak gertatu diren kasuei. Kasu horietan gertatzen dena da laguntza eskatzen duen famili unitatea ez dela diru-sarreraren kopurua zehazteko kontuan hartzen den berdina.

Gai hori ez zegoen erabat bukatuta 2006. urtearen amaieran. 2007. urtearen hasieran argitaratuko den iradokizun bat egin dugu. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu diogu hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten familien aldeko diru-laguntzak erregulatzeko dituen arautegian familiko diru-sarrerak zenbatzeko berariazko sistema barnera dezala, diru-sarrerak zenbatu zirenetik diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu den arte, heriotza, banantzea, dibortzioa, etab. bezala salbuespenezko inguruabarrak dauden kasuetan aplikatu ahal izateko.

#### 4.2. *Emakumeak eta mendeko pertsonen zaintza*

Goiko gaiarekin lotuta dago, ezbairik gabe, mendeko pertsonen zaintzari emakumeek eskaintzen dieten arretaren kontua. Gure inguruan lan hori egiteaz arduratzen diren emakumeen ehuneko handiak erakusten duenez, izugarri feminizatutako sektore baten aurrean gaude; sektore horretan gure gizartearentzat oso garrantzitsuak diren eginkizunak gauzatzen dituzte zaintzaileek, baina babesik gabe eta egonkortasunik gabe. Botere publikoak gizartearen garapenean aurrera egiteko gai honek duen garrantziaz jabetzen ari dira eta, ondorioz, mendeko pertsonen zaintza gauzatzen den baldintzetan aldaketa nabarmenak sustatzeko ekimen aipagarriak gauzatzen ari dira. Gai horren inguruan sakonago eta zehatzago arituko gara gizarte ekintzaren arloari buruzko txosten honetako atalean. Hala ere, egoki irizten diogu hemen **Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Horiei Zuzendutako Arreta Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen** onarpena aipatzeari (2006ko abenduaren 15eko EAO). Lege hori 2007ko urtarrilaren 2an jarri zen indarrean, eta, horrekin batera piztu zen gizarte zerbitzuen arloan EAEn dagoen eztabaida. Izan ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak arlo honetan lege erreforma egingo dela iragarri du, eta zalantzarik gabe, aukera paregabea izango da Euskadin gizarte zerbitzuen egungo sistemak dituen hutsuneak berrikusteko.

Edonola ere, eta garapena eta ezarpena autonomia erkidegoen esku gelditzen den arren, Espainiako legeak babes sistema berri bat ezartzea ekarriko duela pentsatzen dugu, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomiarako eta horiei zuzendutako arratarako sistema, hain zuzen, gizarte zerbitzuei eragingo diena eta mendekotasun egoerei laguntzeko beharrari eta autonomia pertsonalaren sustapenari erantzuten diena, bizitza kalitatearen elementu gisa eta aukera berdintasuna sustatzeko elementu gisa. Pasa den urteko gure txostenean iragarri genuen moduan, hainbeste emakumeri dagokien errealitatean izango duen eragina, hein handi batean, sistema eraginkortasunez aplikatzea lortzeko autonomia erkidegoek prestatzen dituzten mekanismoen arabera izango da. Hala eta guztiz ere, ez dago dudarik Legeak emakume askori aurrerapenak

ekarriko dizkiela. Izan ere, Legeak zenbait printzipio ematen ditu –hala nola, mendekotasun egoeran dauden pertsona guztiek sistemaz baliatzeko duten unibertsaltasuna; edo familien papera, etxean mendeko pertsonak bizitzea ahalbidetu dezaten laguntzen direnak–, eta printzipio horiek nabarmen hobetu dezakete mendeko pertsonak beren kargura dituzten pertsonen baldintzen egungo egoera.

#### 4.3. **Emakumeak eta gizarte bazterkeria**

Beste batzuetan ere deigarri gertatu izan zaigu gizarte bazterkeriako egoerek emakumei era berezian eragitea, izan ere, emakumeak dira, kasu gehienetan, adingabeak edo mendeko pertsonak beren ardurapean dituztenak. Hala, ezegonkortasun ekonomikoko egoerek, arrazoi hori dela medio, ondorio larriagoak izaten dituzte, aintzat hartuta are zailagoa suertatzen dela lan egoera egonkorra edo nahikotasun ekonomikoko egoera erdiestea, halabeharrez beste pertsona batzuk zaintzeko erantzukizuna zure gain hartu behar baduzu. Pobreziaren feminizazioa eskuarki onartuta dagoen ideia da, eta ideia horrek, hain zuzen, ezegonkortasun ekonomikoa pairatzen dutenak emakumeak izan daitezen dagoen joera unibertsal indartsu hori azaldu nahi du.

Gure erakundeetan jaso ditugun kexen artean, zeinak arazo hori nahiko argi islatzen duten, garbitzaile gisa zuen ordainsari txikia oinarrizko errentatik datozen diru-sarrerekin osatzen zuen emakume batek egindako kexa aipatu behar dugu. Emakumeak beste alaba bat izan zuenean eta eszedentzia egoerari heldu nahi izan zionean alaba zaintzeko asmoz, bere ordainsariaren osagarri gisa jasotzen zuen oinarrizko errentaren zati hori jasotzea ukatu egin zitzaioela jakin zuen. Tartean zegoen administrazioak, kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundia, eman zituen arrazoiak hauek dira, laburbilduz: gizarte bazterkeriako legeak, azken batean, pertsonen laneratzea lortzea bilatzen duela, baina ez dituela zertan babestu lana borondatez uzten diren egoerak. Foru Aldundiak ez du kontuan hartzen, alde batetik, ez dagoela oinarrizko errentatik datozen diru-sarrerak ukatzea babestuko duen lege aurreikuspenik horrelako kasuetan, eta gainera, ez du aintzat hartzen pertsona orok duen eskubidea familiako bizitza eta lanbidea uztartzera bideratutako formulei heltzeko; alaba adingabea zaintzeko eszedentzia, hain justu, formula horietako bat da. Espedienteak irekita jarraitzen du oraindik, baina argudio hauek foru erakundeari helarazteko asmoa dugu, foru erakundeak onartu dezan eszedentzia hartu baino lehen jasotzen zituen kopuruak jasotzen jarraitu dezakeela emakumeak.

Gai honen funtsa izugarri garrantzitsua da erakunde honentzat, familiako bizitza eta lanbidea uztatzeko beharraren aintzatespena baitago jokoan, bai eta bizirauteko gizarte laguntzak behar dituzten pertsonen eta beren ardurapean dauden pertsonen aintzatespena ere; kontu honek, zalantzarik gabe, gehienbat emakumei eragiten die. Gainera, nabarmendu beharra dago familia baten mantenuari aurre egiteko diru-sarrera urriegiak ematen dituzten (garbiketa lana, kasu) eta gizarte laguntzak konpentsatu behar izaten dituen lanak batez ere emakumeek egiten dituztela, eta, hain justu, emakumeek beren mende dauden pertsonak pertsonalki zaintzeko behar berezia dute, zaintza hori beste pertsona edo erakunde baten eskutan uztea ahalbidetzen dieten bitarteko ekonomikorik ez baitute. Horrek ondorio zitala ekartzen du, administrazio publiko arduradunek saihestu ezin dituzten zailtasun handiko egoeretan jausten baitira emakume asko.

Antzeko zerbait salatu behar dugu emakume baten zailtasunak aurkezten dizkigun beste kexa baten harira. Emakumea, lanerako ezintasuna dela-eta, kotizazio gabeko

pentsioaren aintzatespenaren zain dago, eta oinarrizko errenta kobratzea ukatu egin diote pentsio horri dagokion kontua ebatzen den arte. Emakumea bananduta dago, noizean behin ez du bikote ohiaren pentsioa jasotzen eta bi adingabe ditu bere ardurapean. Emakumeak bere amak uzten dion diruarekin egin behar du aurrera, eta ez Getxoko Udalak ez Bizkaiko Foru Aldundiak ez dute nahi inolako laguntzarik aktibatu, aipatutako pentsioen aintzatespenaren zain baitago. Getxoko Udalarengana jo dugu, eta adierazi diegu erreklamatzaila une hauetan ez dela jasotzen ari Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu dion kotizazio gabeko pentsioa, eta, beraz, ez dagoela inolako arrazoirik oinarrizko errentaren eskabidearen izapideak ez egiteko. Oraindik Udal horren erantzuna jasotzeko zain gaude.

Hala ere, azpimarratu egin nahi dugu kasu bakoitzaren inguruabar pertsonalak benetan kontuan hartzeak duen garrantzia mota honetako prestazioak aintzatesteko prozesuak azkartzeko, azaldutako kasuan ikusi ahal izan den moduan, atzerapenek, oro har, berez ezegonkortasun handieneko egoeran daudenei eragiten baitiete, hala nola, guraso bakarreko familiei –kasu gehienetan, emakumeak izaten dira familia horien titular–. Esan dezakegu prestazioen aintzatespenetan gertatzen diren atzerapenak oso larriak izaten direla, oro har, seme-alaben ardura duten emakumeen kasuan. Batez ere kontuan hartzen bada, jarraian aipatzen dugun gomendio orokorrean adierazten genuen moduan, familia horietan pobrezia arriskua handiagoa dela eta haur pobrezia familia eredu hauetan gehiagotan gertatzen dela gaur egun.

\* \* \*

Azkenik, **Arartekoaren gomendio orokorra** aipatu behar dugu puntu honetan, **2006. urte honetan emandakoa, oinarrizko errentaren prestazioa arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuan aipatzen den bizikidetzako unitate ekonomiko independentea berrikusteko beharraren ingurukoa**. Bertsio osoa urteko txosten honetan biltzen da, gomendio orokorreari buruzko kapituluan.

Gomendio horretan, hemen interesgarri zaigunari dagokionez, guraso bakarreko familiei buruz hitz egiten genuen –aipatu dugun bezala, normalean emakumeen ardurapean daude familia horiek–, bai eta familia horiek jasaten duten pobrezia handiagoaz eta bazterketa arrisku handiagoaz ere. Araudia aldatzeko beharra zegoela aipatzen genuen, ardurapeko adingabeak daudenean bizikidetzako unitate ekonomiko bat aintzatesteko semeen edo alaben adina luzatu dadin (gaur egun 18 urte da muga), kontuan hartuta, hori ez bada egiten, ardurapeko seme-alabek adin nagusitasuna lortzen dutenean diru-sarrerek izugarri egiten dutela behera. Ondorioz, praktikoki ezinezkoa izaten da seme-alaba horiek heziketa prozesu bat jarraitzea ondoren lan merkatura baldintza hobeto sartu ahal izateko, eta, berriro ere, bizikidetzako unitate horretako kideen gizarte bazterkeriako egoera betikotzeko arriskua sortzen da.

## 5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen egoera

Eusko Legebiltzarrari igorri genion gure 2005eko txostenean, lege berri hau onartzeak izango lukeen eraginaren berri eman genuen; legeak izugarrizko garrantzia dauka gu hemen jorratzen ari garen gaian. Arau horren eduki nagusiak aztertu genituen,

bai eta eduki horiek izan beharko luketen eragina euskal botere publikoen jardunean, lehenik, eta ondorio gisa, gizarte berdintasunari dagozkion helburu handiagoen lorpenean. Halaber, berdintasun arloan euskal administrazio publikoentzako eskakizun eta kontrol parametro gisa Ararteko erakundearentzat lege hori behar-beharrezko erreferentzia zela aipatzen genuen. Baina arau horretan bildutako aurreikuspenen zati handi baten aplikazio eraginkorra atzeratuta zegoela ere esaten genuen, kasu askotan geroago arauzko garapena egitea beharrezkoa baitzen. Premisa horri jarraiki, kontu hori izan da gure jarraipenean funtsezko suertatu dena –aipatutako legearen xedapen batzuen lege esparruan kokatzen diren kasu zehatzen ondorioz sortutako esku-hartzeaz haratago–.

Horretarako, kanpoko laguntza izan dugu, kolektibo feminista batek egin duen kexa, hain zuzen. Kolektiboak gure esku-hartzea eskatu zuen Legearen arauzko garapenaren egoera zehatza zein zen jakiteko. Zehazki, legearen alderdi batzuk zein garapen egoeratan zeuden jakin nahi zuten erreklamatazileek, Eusko Jaurlaritza lege arauan aurreikusitako arauzko ezarpen epea ez zela betetzen ari pentsatzen baitzuten. Gainera, beste alderdi batzuetan ere, legean jasotako garapen aurreikuspenei dagokionez, atzerapena gertatzen ari zela antzeman genuen erakunde honetan.

Hori dela eta, Emakunderengana jo genuen, 4/2005 Legean aurreikusitako arauzko garapena bultzatzen duen erakunde baita, eta kontu horiek guztiak helarazi genizkion. Erakunde horren erantzuna jaso dugu, eta bertan proposatutako alderdien eguno egoeraren berri ematen zaigu. Hala, ondorengo hau adierazi digute:

**1) Legeko hirugarren xedapen gehigarriaren –Eusko Jaurlaritzak egitura organikoak eta lanpostuak egokitzeari buruzkoa–** betetzeari dagokionez, Emakunderi jakinarazi genion lege xedapen horren aurreikuspen guztietan urte beteko epea aipatzen zela, Legea indarrean jartzen zenetik hasita, Jaurlaritzak beharrezko arau aldaketan prozedurak *abia* ditzan; arrazoi hori dela bide, alderdi honi dagokionez ez litzateke Legea hautsiko, baldin eta prozedura horiek hasita baleude. Bada, Emakunderi bere erantzunean jakinarazten digunez, lege xedapen horri lotuta jarduera hauek gauzatu dira Eusko Jaurlaritzaren esparruan:

Jaurlaritzako Saileko egitura organikoko dekretu guztietan, 4/2005 Legea indarrean jarri ondoren onartu direnetan, saila osatzen duten zuzendaritzak eta arloak bultzatzeko eta horien arteko koordinaziorako eta lankidetzarako, bai eta sailari atxikitako erakunde autonomo, erakunde publiko eta organoekin ere lankidetzan aritzeko, Sail bakoitzaren barruan organo eskudunak zehaztu dira Legean eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasunerako planean ezarritako betetzeko. Hauek dira, zehazki, aurreikuspen hori beren egitura dekretuetan sartu dituzten sailak:

- a. Ogasun eta Herri Administrazio Saila (otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuaren 10.3.c artikulua).
- b. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (urriaren 28ko 315/2006 Dekretuaren 10.q artikulua).
- c. Herrizaingo Saila (azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuaren 5.m artikulua).
- d. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (urriaren 11ko 284/2005 Dekretuaren 12.1.n artikulua).

- e. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (urriaren 15eko 373/2005 Dekretuaren 8.s artikulua).
- f. Kultura Saila (otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 5.2.i artikulua).
- g. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila (urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 8.s artikulua).
- h. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila (urriaren 11ko 290/2005 Dekretuaren 4.o artikulua).

Erakunde honek ikusi ahal izan duenez, Hezkuntza eta Osasun Saila aurreikuspen berrietara egokitzea falta da oraindik, eta horrexegatik joko dugu sail horiengana, arauzko aldaketa hauek gauzatzeko beharrezko izapideak abiatu dituzten jakinaraz diezaguten.

Era berean, Emakundek jakinarazi digunez, aipatutako hirugarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoak aurreikusten duen lanpostuen zerrendak aldatu baino lehen, beharrezko lehenagoko urrats gisa, erakunde horrek **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Unitateak arautzeko Dekretuaren proposamena** egin du; bertan zehazten dira, besteak beste, Jaurlaritzako sailekin batera unitate horiek izan beharko dituzten erakunde autonomoak eta gainerako erakunde publikoak, bai eta beren eginkizunak eta bertako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izan beharrezko gaikuntza betebeharrak ere. Dirudienez, dekretuaren proposamena Jaurlaritzako Lehendakariordetzarekin egiaztatu da, eta, behin beharrezkoak diren kasuan kasuko aldaketa egin ondoren, Jaurlaritzako kontsulta organo eskudunei igorriko zaiela esan digute, beren nahitaezko txostenak eta irizpenak bidal ditzaten.

Emakunderen lanpostuen zerrenden aldaketari dagokionez, zeina hirugarren xedapen gehigarriaren hirugarren paragrafoan aurreikusten den eta beharrezkoa aurretiazko izapide gisa, gainera, Emakundek egitura dekretu berriaren proposamen bat landu zuen; proposamen hori, nahitaezko gainerako txostenak bideratu eta gero, Aholkularitza Batzorde Juridikoak bere irizpena emateko zain dago, behin betiko onartu eta argitaratu ahal izan dadin.

Halaber, adierazi digute ez dakitela zein izapide egin dituen orain arte Hezkuntza Sailak, **ebaluazioaz, ikerketaz eta hezkuntza berritzeaz arduratzen diren organoetako lanpostuen zerrenden aldaketari** dagokionez, zeina 4/2005 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren laugarren paragrafoan aurreikusten den. Arrazoi hori dela medio, gure asmoa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzea arlo horretan egindako izapideen berri eman diezagutela, eta, edonola ere, Legearen aurreikuspen hau ezartzeko prozesua bizkortu dezala, kontuan hartuta alderdi zehatz honek duen garrantzia berdintasunaren helburua lortzeari begira.

Beste alde batetik, Berdintasunerako Legeak euskal administrazioei ezartzen dizkien egitura erreformei lotuta, aipatu behar dugu 2006. urtea bukatu baino zertxobait lehenago Gobernu Kontseiluak abenduaren 26ko 261/2006 Dekretua onartu duela, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen Arteko Batzordea** arautzen duena. Batzorde hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago, Eusko Jaurlaritzako jarduerak koordinatzeko organo gisa. Era berean, Sailen Arteko Talde Teknikoa sortu eta arautu da bere barruan, azterlan, txosten eta proposamenen bitartez laguntza eta aholkularitza teknikoak eskaintzeko.

2) Emakunderi mahaigaineratzen genion bigarren kontua Legearen **bederatzigarren azken xedapenaren** ingurukoa zen. Zehazki, informazioa eskatu genuen jakiteko ea jadanik **zehaztu diren emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan edo programa izan behar duten enpresa pribatuak zein diren, bai eta horien gutxienezko edukiak eta jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak zeintzuk izan behar duten ere**. Erantzunean, oraindik xedapen hori ez dela bete onartzen du Emakundek. Atzerapena arrazoitzeko, enpresetan berdintasunerako planak eta programak eraginkortasunez eta benetan ezartzeko, arautzeaz gain, enpresa eremuan parte hartzen duten gizarte eragile guztien arteko adostasuna beharrezkoa dela pentsatzen dutela dio Emakundek. Hori dela eta, eragile horiekin elkarrizketan eta negoziatzen ari direla aipatzen dute, berdintasunerako planak edo programak ezarri beharko dituzten enpresa motak zehazteko eta plan eta programa horiek izan beharko dituzten gutxienezko edukiak finkatzeko, bai eta plan eta programa horien ezarpenarekin lortutako emaitzak kontrolatzeko eta ebaluatzeko beharrezko mekanismoak ezartzeko ere.

Aipatutako lege xedapenak urtebeteko epea ezartzen zuen kontu hori konpontzeko, eta epe hori, egiazki, bete egin da. Enpresetan berdintasunerako planak eta programak modu eraginkorrean abiarazteko aipatutako adostasuna beharrezkoa dela pentsatzen dugun arren, Jaurlaritzak berak lege proiektua Legebiltzarrerara bidali zuen unean hori guztia aurreikusita egon beharko litzatekeela uste dugu, izan ere, horrela, adostasuna lortzea ahalbidetuko lukeen epe zabalagoa ezarri ahalko litzateke. Lege honen garapen epeak formalki betetzea oso gai garrantzitsua eta agerikoa da herritarrentzat, Lege hau zorrotasun osoz aplikatzeko borondate politikoa ere islatzen duena.

Hala ere, pentsatzen dugu ez lukeela zentzurik izango arauz garatzeko arau bat ematea gizarte eragileen artean adostasun falta dagoelako Legea betetzen ez den kasuetarako, batez ere eremu honetan, enpresa-lan eremuan, adostasuna eta akordioak erabakigarriak direlako aplikatuko diren betekizun berrien arrakastan.

Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu orain Gorte Nagusietan **emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako etorkizuneko lege organikoaren (121/000092 proiektua)** izapideak egiten ari direla. Lege horrek, ziur asko –proiektuaren garapena ikusita; orain eztabaida parlamentarioan–, bere edukien artean gai hori hartuko du. Laneko legeriaren arloan estatuak duen eskumen titularitasuna kontuan hartuta, bidezkoa diruri enpresei lege organiko horrek ezarriko dien erregulazioa zein izango den jakin arte itxarotea autonomia erkidegoko eskakizunak ezarri baino lehen, estatuko etorkizuneko erregulazioak horiek alda baititzaite.

3) Hirugarrenik, 4/2005 Legearen zortzigarren azken xedapenean jasotako aurreikuspenaren egoera zein den jakin nahi izan dugu. Xedapen horren arabera, Eusko Jaurlaritzak urtebeteko epean arauak edo ildoak onartuko ditu, eta horietan, **generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa** egiteko jarraitu beharreko jarraibideak adieraziko dira, bai eta 19. artikuluko 2. paragrafoak aipatzen dituen baztertutako xedapenen zerrenda ere, eta, era berean, 20. artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitako diru-laguntzarako irizpidearen edo kontratu klausularen ebaluazio adierazleak ezarriko dira. Gai horri lotuta, Legearen alderdi horren ezarpenari dagokionez erakunde honek duen kezka berezia adierazi dugu, ezarpenak generoarengatiko eraginaren ebaluazioa arautuko duen araudia eskatzen



baitu, 4/2005 Legearen 19. artikulua eta hurrengoak garatuz, eta hori kontuan hartuta administrazio publikoen jardura guztietan berdintasunaren benetako zeharkako ezarpenarentzat duen garrantzi berezia; kontu hori behar-beharrezkoa da berdintasun materialaren edo errealairen helburua lortzeko.

Emakundek, bere erantzunean, dokumentu bat egin duela adierazi digu; bertan, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa eta Legearen 19-22 artikuluetan aurreikusitako gainerako izapideak egiteko jarraibideak ezartzen dira, bai eta izapide horiek egin beharretik at gelditzen diren arauak edo administrazio ekintzak ere. Dirudenez, proposamen hori Jaurlaritzako Lehendakariordetzaren Araubide Juridikoaren Idazkaritzan egiaztatzen ari dira, eta, behin kasuan kasuko beharrezko egokitzapenak egin ondoren, 2006ko irailean Gobernu Kontseiluak onar zezakeela aurreikusten zen. Baina 2006 urtea bukatu da, eta arau edo ildo horiek ez dira oraindik onartu, nahiz eta badirudien 2007ko lehen hiruhilekoan atera daitezkeela azkenean.

Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa bezalako tresna hain berritzailea arautzeak dituen zailtasunak ulertzen ditugun arren, ikusten dugunez arlo honetan ere Berdintasunerako Legearen ezarpen epeak gainditu egin dira, eta horren eragina erabakigarria izango da sexuarengatiko berdintasun printzipioa euskal administrazio publikoen politika eta jardura guztietan txertatzea lortzeko. Hortaz, erakunde honetan adi egongo gara gai hau arautuko duen etorkizuneko arau edo ildo noiz ateratzen den, bere edukia ezagutzeko eta Legearen xedapen garrantzitsu hauen garapenak izango duen benetako eragina zein den aztertzeko; garapen hori gabe ezinezkoa da emakumeen eta gizonen berdintasunaren zeharkako aplikazioa eskatzea euskal administrazio publikoei.

- 4) Azkenik, **4/2005 Legearen 27. artikuluko** aurreikuspenaren garapen egoeraren berri emateko eskatu diogu Emakunderi. **Aurreikuspen horren arabera**, hedabideen bitartez eta erabilerako euskarri publizitarioen bitartez transmititzen den **publizitatea aztertzeko eta aholkuak emateko ardura izango duen organo bat sortu beharko da**, sexuagatiko bazterkeri mota guztiak erazteko. Organo horren ardura izango da, halaber, **hedabide publikoek emandako edukiei dagozkien kode etikoak egotea** zaintzea. Bada, Emakundek bere erantzunean adierazi digunez, *“4/2005 Legean aurreikusitako dekretu erregulatzaileen proiektuen garapenean dihardute, eta, beraz, gauzatze, aztertze eta izapidetze fasean daude euskal autonomiako administrazioaren organo eskudunen aurrean. Hortaz, horiek onartzen diren arte, publizitatearen alorrean egon daitezkeen salaketa guztiak, non emakumearen irudia era iraingarrian edo diskriminatzailean erabiltzen dela pentsatzen den, Emakunderengana zuzendu beharko dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean bertan erakunde horri esleitutako eskumenean arabera”*.

Erantzun horretatik ondorioztatzen dugunez, Legean aurreikusitako organoa sortzeko eperik ez da jarri. Organoaren eginkizunak, hala ere, *Begira* organoari esleitu zaion publizitate sexista kontrolatzeko egitekoa baino zabalagoak izango lirатеke, hedabide publikoetan emandako edukietan kode etikoak egon daitezela ere zaindu behar duen organoa baita. Atal honetako beste epigrafe batean aipatu dugu jadanik, emakumeei kiroletan ematen zaien tratamendua dela-eta, hedabideek emakumeei ematen dieten irudiaren garrantzia eta hedabideek errealitatea sortzeko eta, alde horretatik,

berdintasunerantz aldaketarako motorea izateko duten indarra. Hori guztia dela eta, Berdintasunerako Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoaren garapena lehenbailehen bultza dadila guztiz garrantzitsutzat jotzen dugu, eta, horretarako, 4/2005 Legeak aurreikusitako organo berria sortzeko edo *Begiraren* egungo egitura eta eginkizunak Legearen aurreikuspenetara al bait azkarren egokitzeko beharra azpimarratuko dugu, nahiz eta Legeak ez duen horretarako epe zehatzik ematen.

\* \* \*

Azkenik, Berdintasunerako Legearen aurreikuspenen jarraipenarekin lotuta garrantzitsuak direla pentsatzen dugun beste gai batzuk nabarmenduko ditugu.

**Laneko jazarpen moralari eta sexualari buruzko 4/2005 Legeko 43. artikulua**ren garapenari dagokionez, aipatu behar dugu 2006ko abenduaren 27an Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Agindua argitaratu zela EHAA-n; horren bitartez, laneko jazarpen moralen eta sexualen kasuetarako prebentzio neurriak eta jarduteko prozedura arautu da Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen esparruan.

Azkenik, lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen duen betetzearen, garapenaren, aplikazioaren eta, hala badagokio, berrikusteko aukeraren **ebaluazioari eta jarraipenari** dagokionez, Emakundek eta UPV/EHUK sinatutako hitzarmena nabarmendu behar dugu; horren bitartez, aipatutako ebaluazioa unibertsitate horri esleitu zaio. Horretarako, Legearen abiapuntuaren alde aurretiko diagnostiko bat egitea aurreikusten da, *ex ante* deituriko ebaluazioa, 2006. urtean lege arauaren aplikazioan gertatuko diren aurrerapen edo zailtasun errealak baloratzea ahalbidetuko duena. Era berean, 2008an aplikazio egoeraren ebaluazioa egitea ere aurreikusten da, azkenik, lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen duen 2010eko ebaluazioa egiteko.

Berdintasunerako Legearen garapena alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren 2006ko irailaren 26ko Erabakia oso garrantzitsua da; horren bidez, **EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana** onartu da, Euskadin berdintasun politikek izan beharko duten orientazio estrategikoaren oinarriak ezarri dituen datozen urteetarako. Botere publikoen jardueretan berdintasunaren helburua sustatzeko orduan Erakunde honentzat erreferentzia parametro gisa plan horrek izango duen eragina aipatu behar dugu.

Atal honekin amaitzeko, 2006. urte honetan ekainaren 13ko 119/2006 Dekretua argitara eman dela aipatu nahi dugu. Dekretu horren bitartez, Berdintasunerako Euskal Legearen IV: tituluaren aurreikusitako **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen** antolaketa eta funtzionamendu araudia onartu da. Horrez gain, Defentsa Erakunde horren lehenengo pertsona titularraren izendapena ere nabarmendu nahi dugu. Titulu horretan bildutako xedapenek organo horri esleitzen diote sexuagatiko bereizkeri egoeren aurrean herritarrak babesteko eginkizuna eta emakumeen eta gizonen tratu berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko eginkizuna, batez ere partikularren arteko harremanen eremuan. Hala ere, 64.2 h) artikulua, Legearen titulu beraren barruan dagoenak, zenbait erakundeekin, besteak beste, Arartekoarekin, koordinatzeko mekanismoak ezartzea aurreikusten du. 2006ko ekitaldian hainbat bilera egin dira Arartekoaren eta Berdintasunerako Defentsa Erakundearen artean, eta bilera

horien xedea izan da, hain zuzen ere, oinarriak ezartzea eremu publiko eta pribatuak bat egiten duten kontuetan bi erakundeen arteko koordinaziorako edo jasotako keak erakunde batetik bestera bidaltzea komenigarritzat jotzen den kasuetarako.

## 2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEI

Gure Erkidegoan, adinekoak gero eta gehiago dira. Arartekoak arreta berezia eskaini dio pertsona horien egoerari, biztanle kopuruan duten garrantziagatik (% 20 inguru) zein beren ezaugarri eta premia espezifikoenatik. Horren erakusgarri izan daitezke hirugarren adinekoen egoitzei buruz (1994an aurkeztua) eta egoitzaz kanpoko laguntzari buruz (1996an aurkeztua) eginiko ezohiko txostenak.

2005ean, beste txosten bat egin zen, *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak* izenburua daramana, hain zuzen. Uztailaren 28an argitaratu zen eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion eta, geroago, azaroaren 3an, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Baztordean eztabaidatu zen.

Txosten horren helburua, izenburuak adierazten duen bezalaxe, adinekoei arreta zuzena eskaintzeko EAeko sistemaren zerbitzu nagusiak aztertzea zen –etxez etxeko zerbitzua, egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroak–, sistemaren alderdi positiboak nabarmentzeko, hutsuneak hautemateko eta etorkizunerako jardunbideak proposatzeko xedez.

Joan den urteko txostenean, atal honetan bertan, azterlanaren laburpena aurkeztu genuen, eta arreta handiagoa eskaini genion ondorioen eta gomendioen kapitulari; bertan zehatz-mehatz azaldu zen egoeraren balorazioa eta gure erkidegoan adinekoei arreta emateko sistema hobetzeko gomendio batzuk egin ziren. Aztertutako datuen balioari, adinekoei arreta emateko testuinguruari eta etorkizunean jarraipena egiteko aukerei buruzko zenbait ohar ere egin genituen bertan.

Azken gai horri dagokionez, Ararteko erakundeak beti, ahal den heinean, gomendioak betetzen diren ala ez ikusteko jarraipen bat egiten du. Horretarako, kexen bidez bildutako informazioa erabiltzen du, antolatutako elkarte edo kolektiboekin bilerak egiten ditu, zerbitzu batzuk bisitatzen ditu, arloko langileekin elkarrizketak izaten ditu, administrazio arduradunei datuak eskatzen dizkie, etab.

Kasu honetan, zehazki, oso txosten zabala da, datu asko biltzen dira bertan, eta etengabe eta oso erritmo bizian aldatzen ari diren egoerak, premiak eta baliabideak aztertzen dira. Txostenean oso izaera desberdineko hainbat gomendio daude (50): esparru arautzaileari, adinekoen eskubideei, zerbitzu horiek erabili ahal izateko irizpideei, zerbitzu horien finantziaioari, informazio sistemei, zerbitzu guztiei eta zerbitzu bakoitzaren ezaugarriei dagozkienak, etab.

Jarraipena egiteko eta 2006ko ohiko txostenean jasotzeko datu eta informazio eguneratuak izateko xedez, Arartekoak ofiziozko espediente bana bidali zuen foru aldundietara.

Ezohiko edozein txostenen ondorengo jarraipen jarduketa gehienetan gomendio guztiei buruzko informazio zehatza eskatu eta jaso ohi dugu. Kasu honetan, hala ere, jarduketa horiek luzeak eta zailak direnez, egokiagoa iruditu zitzaigun horietako batzuk bakarrik nabarmentzea eta –lehenengo urte honetan behintzat– esanguratsuenak diren eta modu objektiboan har daitezkeen datu batzuetara mugatzea; horietako batzuek bilakaeraren adierazle gisa ere balio dezakete.

Irizpide horren arabera, daturik esanguratsuenak gai hauen ingurukoak izan litezkeela iruditzen zaigu:

- Plaza, estaldura edo zerbitzuen hazkundea.
- Baliabideen lurralde banaketa.
- Arautegiaren aldaketak eskubideei, erabiltzeko baldintzei eta finantziario irizpideei dagokienez.
- Gure txostenetan aztertutako zerbitzu edo programa bakoitzaren kalitatearekin zerikusia duten alderdi zehatz batzuk.

Hortaz, lau gai hauei buruzko datuak eskatu ziren:

1) **Plaza, estaldura edo zerbitzuen hazkundeari dagokienez.** Funtsean:

- Egoitza-zentro publiko zein pribatuen kopurua.
- Egoitza publiko zein pribatuetako plaza-kopurua.
- Betetako plazen kopurua eta itxaron zerrendaren datuak.
- Eguneko zentro publiko zein pribatuen kopurua.
- Eguneko zentro publiko zein pribatuetako plaza-kopurua.
- Eguneko zentroen erabiltzaile kopurua.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaile kopurua.
- Eskaintako arreta-ordu kopurua (erabiltze bakoitzari batez beste urtean eskaintzen zaizkion arreta-orduak, datua edukiz gero).

2) **Baliabideen lurralde banaketari dagokienez:** aurreko puntuan adierazitako datuen banaketa, eskualdeka.

3) Azken urteotan **arautegian egin diren aldaketei dagokienez,** batez ere honakoen erregulazioan aldaketak eragin dituztenei dagokienez:

- Erabiltzaileen edo haien familiartekoen eskubideak (erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutunaren garapena).
- Zerbitzuak erabiltzeko bete beharreko baldintzak.
- Finantziario irizpideak.

4) Eta **zerbitzu bakoitzaren kalitatearen inguruko gai zehatz batzuei** dagokienez, honako alderdi hauen datuak eskatu genituen:

- **Egoitza-zerbitzuei** dagokienez: ikuskaritza jarduketa nagusien eta haien emaitzen laburpena edo balorazioa.
- **Eguneko zentroei** dagokienez: txikitzeko, lurralde banaketa hobetzeko eta lekuz aldatzeko denbora murrizteko (garraioa) egin diren aldaketak.
- **Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari** dagokienez: Dagokion lurralde historikoko udalekin elkarlanean eta haiekin bat etorrita zerbitzuan sartu diren arau eta irizpide komunak.

Lau gai zerrenda horiek alde batera utzita, gure txosteneko gomendioen jarraipen hobe egiteko egoki iriztitako beste edozein informazio helarazteko aukera ere ematen zitzaion sail bakoitzari.

Eskatutako **datuen eguneratze datari** dagokionez, horiek aztertu eta txosten honetan sartzeko denbora tarte mugatua kontuan hartuta, bi aukera ematen genituen. Onera, zalantzarik gabe, 2006ko abenduaren 31n eguneratutako datuak edukitzea litzateke, baina hori ez da erraza, datu batzuei dagokienez behintzat. Beste aukera 2005eko abenduaren 31n eguneratutako datuak helaraztea zen, hau da, urtebete lehenagokoak. Kasu horretan, daturik berrienak izango ez liratekeen arren, balio izango zuten gure txostenean erabilitako datuekiko aldaketak eta joerak hautemateko (gehienak 2001ekoak).

Urteko txosten hau idazterakoan (2007ko urtarrila), eskatutako datu gehienak jaso dira; hurrengo ataletan aztertu eta baloratuko dira lehenengo aldiz, eskualdez eskualde:

## I. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Sailaren erantzunak, urtarrilaren amaieran jasotakoak, 2006ko datu eguneratuak eskaintzen ditu, eta 2001eko datuekiko alderaketa ere egiten du; azken bost urteetan izan den bilakaera ikusteko aukera ematen du horrek. Horrela, **plaza, estaldura eta zerbitzu kopuruari** dagokionez, lurraldeko datu globalak biltzen dituen taula hauxe dakar, dagozkion oharrekin batera:

BALIABIDE MOTA	2001	2006
<b>Egoitza-zentroen kopurua:</b>	<b>63</b>	<b>75</b>
- Publikoak	26	27
- Pribatuak	37	48
Egoitzetako plazen kopurua guztira:	<b>2.114</b>	<b>2.957</b>
- Publikoak	1.352	1.578 <sup>(1)</sup>
- Pribatuak	762	1.379
Egoitzetako plazen kopurua guztira:	<b>2.114</b>	<b>2.957</b>
- Egoitzetan	1.646	2.069
- Etxebizitza eta apartamentuetan	468	888
Foru egoitzan sartzeko itxaron zerrendan dagoen pertsona-kopuruaren bilakaera:	<b>276</b>	<b>486</b>
<b>Eguneko zentroen kopurua:</b>	<b>18</b>	<b>25</b>
- Publikoak	17	24
- Pribatuak	1	1 <sup>(2)</sup>
Eguneko zentroetako plaza-kopurua guztira:	<b>424</b>	<b>555</b>
- Publikoak	409	553
- Pribatuak	15	2
<b>Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren</b> erabiltzaile diren adinekoen kopurua (urtean, guztira)	<b>2.702</b>	<b>3.100</b>
Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren estaldura	<b>5,90</b>	<b>6,36</b>
Urteko guztizko orduak gutxi gorabehera (adinekoak)	<b>722.844</b>	<b>950.000<sup>(3)</sup></b>
Hilean erabiltzaile bakoitzari eskainitako arreta-ordu kopurua	<b>35,8</b>	<b>38,4<sup>(4)</sup></b>

<sup>1</sup> Barne hartzen dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egoitza pribatuetan hitzartutako plazak eta AIRE programaren bidez egoitza pribatuen erabiltzaileei diruz lagundutako plazak.

<sup>2</sup> Zentro pribatu hau Arrasaten dago, baina Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bertan hitzartuta ditu Aramaio inguruko adinekoei arreta emateko plazak.

<sup>3</sup> Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eginiko orduak 850.000 inguru dira. Gasteizko Udalaren informazioz ez dugun arren, beste 100.000 ordu gehigarri egiten dituela uste dugu.

<sup>4</sup> Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari hilean dagokion batez besteko ordu kopurua. Udala erabiltzaile bakoitzeko hilean 12 ordu inguruan dabil.

**Datuen banaketa eskualdez eskualde** ageri da, laburtuta, ondorengo taulan:

Eskualdeak	65 urtetik gorakoak (INE, 2005)	Egoitza arreta		Eguneko zentroak		Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	
		Plazak	Estaldura (100 adinekori dagokienez)	Plazak	Estaldura (1.000 adinekori dagokienez)	Pertsona kopurua	Estaldura (100 adinekori dagokienez)
Arabako ibarrak	1.201	105	8,7	35	29,1	118	9,82
Arabako Lautada	37.369	2.336	8,7	435	11,6	2.181	5,84
Arabako Mendialdea	874	52	5,9	8	9,2	59	6,75
Arabako Errioxa	2.278	132	5,8	0	0	192	8,43
Gorbeia Inguruak	1.207	115	9,5	20	16,6	92	7,62
Kantauri Arabarra	5.844	215	3,7	55	9,4	458	7,84
Beste batzuk <sup>(1)</sup>	---	2	---	2	---	---	---
<b>Guztira</b>	<b>48.773</b>	<b>2.957</b>	<b>6,06</b>	<b>555</b>	<b>11,38</b>	<b>3.100</b>	<b>6,36</b>

<sup>(1)</sup> Arrasaten hitzartutako plazak, Aramaio inguruko adinekoei arreta emateko.

Laburbilduz, nabarmentzekoa da bost urtean 843 egoitza plaza gehiago sortu direla (hau da, 2001ean baino % 40 gehiago daude orain erabilgarri). Hazkunderik handiena egoitza pribatuetan izan da (420 plaza gehiago). Hala ere, plaza-kopururik handiena zentro publikoetan dago (% 53).

Egoitzen ostatu alternatiboetako egoitza plazen kopurua ere nabarmen hazi da (888 plaza etxebizitza eta apartamentuetan).

Eguneko zentroetako plazei dagokienez, 131 plaza sortu dira (2001ean baino % 31 gehiago).

Halaber, etxez etxeko zerbitzuaren bidez laguntza jasotzen duten pertsona kopuruak ere gora egin du (2.702tik 3.100era) eta, datuen arabera, arretaren intentsitatea ere pixka bat handitu da (matematikoki, pertsona bakoitzak urtean jasotzen duen batez besteko arreta-ordu kopurua 306 ordukoa da; 2001ean 268 ordu ziren).

Estaldura-tasei buruzko datuak kasu honetan behin-behinekoak diren arren eta balio erlatiboa duten arren (2006ko biztanleria daturik ezean, 2005koak erabili dira), merezi du gogoratzea:

- Egoitza-zentroetako plaza beteak: 6,06.
- Eguneko zentroetako plaza beteak: 1,14.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren bidez arreta jaso duten pertsonak: 6,36.

Hau da, 2006an zerbitzu hauek jasotzen dituzten edo bertan plazak dituzten adinekoen proportzioa, gutxi gorabehera, 13,5ekoa izango litzateke 65 urtetik gorako 100 adinekori dagokienez.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuei dagokienez oso orekatua da eskualdeetako baliabide eta zerbitzuen banaketa, egoitzei eta, are gutxiago, eguneko zentroei dagokienez izan ezik; azken kasu horretan, Arabako Errioxako eskualdeak ez du inolako baliabiderik.

2006an **arautegian eginiko aldaketei** dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuaren prezio publikoei, egoitza pribatuetan sartzeko banakako diru-laguntzen emakidari edota udarako hilabeteetako egonaldi laburren programari



eragin die, besteak beste. Ez zaigu erraza egiten aldaketa hauek zerbitzuen prestazioan zein ondorio izan dituen jakitea.

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Sailaren erantzunean, azken atalean, **eskainitako arretaren kalitatea hobetze**arekin zerikusia duten ekimen eta azterlan batzuk azaltzen dira. Horrela, besteak beste, honako hauek nabarmenduko ditugu:

1) Egoitza-zerbitzuei dagokienez:

- SIIS-Kalitatearen Barne Bermearen programa aplikatzea eta kalitate prozesuak foru sareko egoitza guztietara hedatzeko aurreikuspena.
- Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskaritza Unitatearen jarduketak; horietatik ondoriozta daiteke lurraldeko egoitza pribatuetakoz gizarte zerbitzuen laguntzaren kalitatea ona dela (zentro guztiek betetzen dituzte gutxieneko baldintzak).
- Arabako eskaintza pribatuaren egoera aztertzeko 2005. urtean sustatutako azterlana, honako alderdi hauek baloratuta: zentroen ezaugarri fisikoak, bertako pertsonen ezintasun maila eta zentroetan eskaintzen diren zerbitzuen kalitate maila.

2) Eguneko zentroei dagokienez:

- 2003. urtetik aurrera, foru dependentziako eguneko zentroetan Kalitatearen Barne Bermearen programa bat abiaraztea, egoitzetan erabiltzen denaren antzeko metodologian oinarrituta eta baliabide mota honetara egokituta.
- Txosten bat egitea 2006an, erabiltzaileek eta haien familiartekoez eguneko zentroek eskaintzen dituen zerbitzuekiko duten asebetetasun mailari buruzkoa.
- Ibilgailu egokituaren flotaren hazkundera, autonomia zailtasunak dituzten pertsonen landaguneetatik zentroetarako lekualdaketak errazteko xedez (9 furgoneta eta garraio egokituaren “atez ateko” sistema bat, garraioaren arazoa arintzeko).
- Zentroen kalitatea hobetzeko egokitzapen lanak.

3) Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez:

- Eskaera guztiei arreta eskaintzea, itxaron zerrendarik gabe.
- Zerbitzua eskaintzen duten enpresekiko bilerak, jarraipena egiteko.
- Programa honen gaineko bi azterlan zehatz egitea: Landaguneetan etxeko laguntza-zerbitzua erabiltzen dutenen ongizatearen eta egoera sozialaren balorazioa (2002) eta Etxez etxeko laguntzarako foru zerbitzuaren egoera (2005); premiak hautematera eta premia horiek asetzeko beharrezko diren baliabideak planifikatzera bideratutako azterlanak dira.
- 2001eko hitzarmena berrikustea eta Araban etxeko laguntzarako probintzia mailako hitzarmen kolektibo berria sinatzea, 2007ko abenduaren 31 arte indarrean egongo dena.

## II. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak gure informazio eskaerari erantzun zion, lehenik eta behin, abenduaren amaieran, Sailaren 2005ko memorian jasotako datuak emanaz. Gero, urtarrilean, eskatutako datuak osatu zituen, 2006. urteari dagokion informazio eguneratua gehituta.

Sailaren 2005eko memoriari dagokionez, datu asko jasotzen ditu, bai jarraipenaren xede diren gaien inguruan (egoitzak, eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, etab.), bai bestelako prestazio edo zerbitzuen inguruan (diru-laguntzak, telelaguntzako zerbitzuak, etab.). Datu eta informazio pila horretatik jarraipenaren xede diren gaiekin loturarik handiena dutenak nabarmenduko ditugu hemen. Honakoak, esate baterako:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren banakako diru-laguntzekin 2005eko abenduaren 31n egoitzetan zegoen pertsona kopurua: 3.211.
- Laguntza horrekin urtean zehar artatutako pertsona kopurua: 4.027.
- GUFEEK kudeatutako egoitza-zentroetako plaza-kopurua: 545.
- Aldi baterako egonaldietan artatutako pertsona kopurua: 222 (eskaerak: 315).
- Banakako diru-laguntzarekin abenduaren 31n eguneko zentroetan artatutako pertsona kopurua: 590.
- Urtean zehar zentro horietan eta irizpide berberarekin artatutako pertsona kopurua: 857.
- Urte horretan eguneko zentroetara eginiko eskaerak (564) eta eginiko balorazio kopurua (sarrera berriak eta azterketak: 578).
- Eguneko zentroetako plazen banaketa, titulartasunaren arabera:
  - 20 plaza GUFEEK kudeatutako eguneko zentro batean.
  - Aspaldiko Etxearekin hitzartutako 210 plaza.
  - Eguneko zentroak sortu eta mantentzeko kongregazio, fundazio eta elkarte desberdinekiko lankidetzak hitzarmenak; guztira 738 plaza aurreikusten dira 2008rako.
  - 7 udal edo mankomunitaterekiko hitzarmenak, udalerrietako eguneko zentroetarako.

Etxez etxeko laguntzari buruz bildutako datuak urteko diru-laguntzei (pertsona bakoitzeko hilean 25 ordu gehienez eta 15,47 euro orduko) eta 14 toki erakundetako 111 pertsonari dagozkie. Hala ere, datu gehienak telelaguntzako zerbitzuari (6.089 erabiltzaile abenduaren 31n; haien % 87 emakumeak), zerbitzu horren udalerriz udalerriko banaketari eta diru kontuei buruzkoak dira (tasak, kuotak, diru-laguntzak, partidak, etab.).

Arautegiari dagokionez, indarrean dauden lege eta arauen zerrenda bat edo Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean kontsultatzeko aukeraren aipamen generikoa bakarrik egiten da, eskatutako baloraziorik egin gabe.

Bizkaiko Foru Aldundiaren bigarren erantzun osagarriak, 2007ko urtarrilekoak, 2006ko abenduaren 31ko datuak ematen ditu funtsean. Oso eguneratutako datuak dira, beraz. Honako hauek izango lirarteke oinarritzkoenak edo gure jarraipena egiteko adierazleekin lotura handiena dutenak:

- **Egoitza-zentro** publiko zein pribatuen kopurua 2006ko abenduaren 31n: 215.
- Egoitza publiko zein pribatuetako plaza-kopurua 2006ko abenduaren 31n: 9.496.
- Eguneko zentro publiko zein pribatuen kopurua 2006ko abenduaren 31n: 48.
- Eguneko zentro publiko zein pribatuetako plaza-kopurua 2006ko abenduaren 31n: 1.491.
- Betetako egoitza plazen kopurua (erreferentzia-data: 2005/12/31):
  - Egoitzak: 6.670. Okupazio ehunekoa: % 89,60.
  - Etxebizitza komunitarioak: 832. Okupazio ehunekoa: % 88,98.
  - Babestutako apartamentuak: ez daukagu datu hau.
- **Eguneko zentroen** erabiltzaile kopurua:
  - 2005eko abenduaren 31n: 851. Okupazio ehunekoa: % 74,13.
  - 2006ko abenduaren 31n: 903. Porcentaje de ocupación: % 67,84.
- 2005ean **etxex etxeko laguntza-zerbitzua** erabili dutenen kopurua: 11.512 pertsona (barne hartzen ditu artatutako kolektibo guztiak).
- Emaniko arreta-ordu kopurua: 24.322 arreta-ordu astean.

Eskualdekako zentro eta plazen banaketari dagokionez, hauek dira 2006ko abenduaren 31ko datuak:

EGOITZA ZENTROAK. PLAZA KOPURUA (2006ko abenduaren 31n)					
	ESKUALDEAK				
TITULARTASUNA	BILBAO	EZKERRALDEA - ENKARTERRI	IBAIZABAL - NERBIOI	BUSTURIA - URIBE	GUZTIRA
PUBLIKOA, FORU MAILAKOA	347	320	177	330	<b>1.174</b>
PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA	--	265	291	376	<b>932</b>
PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK	645	828	--	537	<b>2.010</b>
GABEKO ERAKUNDEENA	2.210	1.179	555	1.436	<b>5.380</b>
PRIBATUA, MERKATARITZAKOA					
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.202</b>	<b>2.592</b>	<b>1.023</b>	<b>2.679</b>	<b>9.496</b>

EGOITZA ZENTROAK. ZENTRO KOPURUA (2006ko abenduaren 31n)					
	ESKUALDEAK				
TITULARTASUNA	BILBAO	EZKERRALDEA - ENKARTERRI	IBAIZABAL - NERBIOI	BUSTURIA - URIBE	GUZTIRA
PUBLIKOA, FORU MAILAKOA	2	3	2	2	<b>9</b>
PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA	--	4	8	7	<b>19</b>
PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK	7	7	--	10	<b>24</b>
GABEKO ERAKUNDEENA	88	24	19	32	<b>163</b>
PRIBATUA, MERKATARITZAKOA					
<b>GUZTIRA</b>	<b>97</b>	<b>38</b>	<b>29</b>	<b>51</b>	<b>215</b>

EGUNEKO ZENTROAK. PLAZA KOPURUA (2006ko abenduaren 31n)					
TITULARTASUNA	ESKUALDEAK				
	BILBAO	EZKERRALDEA - ENKARTERRI	IBAIZABAL - NERBIOI	BUSTURIA - URIBE	GUZTIRA
PUBLIKOA, FORU MAILAKOA	245	105	109	64	<b>523</b>
PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA	---	231	151	56	<b>438</b>
PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK	70	70	---	77	<b>217</b>
GABEKO ERAKUNDEENA	142	65	53	53	<b>313</b>
PRIBATUA, MERKATARITZAKOA					
<b>GUZTIRA</b>	<b>457</b>	<b>471</b>	<b>313</b>	<b>250</b>	<b>1.491</b>

EGUNEKO ZENTROAK. ZENTRO KOPURUA (2006ko abenduaren 31n)					
TITULARTASUNA	ESKUALDEAK				
	BILBAO	EZKERRALDEA - ENKARTERRI	IBAIZABAL - NERBIOI	BUSTURIA - URIBE	GUZTIRA
PUBLIKOA, FORU MAILAKOA	5	2	3	1	<b>11</b>
PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA	---	7	6	3	<b>16</b>
PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK	2	1	---	3	<b>6</b>
GABEKO ERAKUNDEENA	6	3	3	3	<b>15</b>
PRIBATUA, MERKATARITZAKOA					
<b>GUZTIRA</b>	<b>13</b>	<b>13</b>	<b>12</b>	<b>10</b>	<b>48</b>

Informazio osagarriak, 2007ko urtarrilekoak, zerbitzu bakoitzaren “kalitatearekin” lotuta planteatutako zenbait gairen inguruko datu batzuk ere ematen ditu, bereziki 2006. urtean burututako ikuskapen jarduketan inguruan. Alde horretatik, urteko planaren arabera eginiko ikuskapenak eta salaketan ondorioz eginikoak bereizten dira. Eskainitako datuak, funtsean, honako hauek dira:

- Ikuskaritzako Urteko Planaren barruan eginiko ikuskapenak:
  - Ikuskatutako egoitzak: 127. Urraketak hauteman dira 12 zentrotan.
  - Ikuskatutako etxebizitza komunitarioak: 81. Urraketak hauteman dira 31 etxebizitzatan.
  - Babestutako apartamentuak: egoitza eraikin bat ikuskatu da eta ez da inolako urraketarik hauteman.

Azaltzen denaren arabera, arauak urratzeko kausa nagusiak hondatutako txirrinak eta erabiltzaileekiko kontraturik eza izan dira.

- Ikuskatutako eguneko zentroak: 44. Urraketak hauteman dira 4 zentrotan. Kasu honetan ere urraketan kausetariko bat erabiltzaileekiko kontraturik eza izan da.

Nabarmentzekoa da lau zentro motetan hautemandako irregulartasunek ez zutela eragin nabaririk erabiltzaileen ongizatean eta 2006ko ikuskaritza planean arreta berezia eskaini zitzaiela “pertsoneko ratioei”, “erabiltzaileekiko kontratuei”, “gaita-

sunari” eta “elikadurari”. Etxebizitza komunitarioen kasuan txirrinen mantentze egoera egokia ere ikuskatu da.

- Salaketengatik eginiko ikuskapenak:
  - erabiltzaileek edo haien familiartekoek eginiko salaketa edota kexen ondorioz hasi dira 26 ikuskapen espediente, dela Erabiltzailearen Arretarako Unitatearen bidez, dela 900 zenbakira eginiko deien bidez: horietako 20 egoitzei dagozkie eta beste 6ak etxebizitza komunitarioei. Horiek guztietatik 5 egoitzatan eta 2 etxebizitza komunitariotan hauteman dira urraketak. Kausa nagusiak “elikadura arazoak” eta “higiene eza” izan dira.

Babestutako apartamentuei dagokienez, egoitza eraikin bat ikuskatzen hasi direla adierazten da, baina ez dutela amaitu erreferentzia-datan.

Eskertzekoa da benetan hain denbora gutxian datuak eguneratzeko egin den ahalegina. Datu horietako askok gero azterketa sakonagoa egiteko aukera emango digute. Hala ere, jada ikusitako aldaketa edo joera nagusi batzuk nabarmen genitzake. Hala, estaldura-tasak (2006ko plazen datuekin kalkulaturik, baina 2005eko biztanleria datuekin; horiek baitira dauzkagun berrienak) hauek lirateke:

- Egoitza-zentroetako estaldura-tasa: 4,42.
- Eguneko zentroetako estaldura-tasa: 0,69.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuetako estaldura-tasa: 5,36.

Hau da, 2006. urtearen amaieran Bizkaiko Lurralde Historikoan 65 urtetik gorako 100 adinekotatik 10ek gutxi gorabehera (10,47, 2005eko biztanleria datuekin kalkulaturik) bazuten plaza edo aztertutako prestazioren bat jasotzen zuten. Gogora dezagun bost urte lehenago (2001eko abenduan) Bizkaiko estaldura % 6,22koa zela: 2,99 egoitzetan, 0,24 eguneko zentroetan eta 2,99 etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan. Guztizko estaldura-tasa, beraz, nabarmen handitu da; lau ehuneko inguru.

Hala ere, ez da informaziorik jaso gai batzuen inguruan. Adibidez, itxaron zerrenden inguruan eta, bereziki, **arautegiaren aldaketen** inguruan. Atal honen hasieran adierazi bezala, aurtengo jarraipenean hirugarren bloke bat sartu dugu, arautegian eginiko aldaketei buruzkoa, eta bereziki honako hauen erregulazioan aldaketak eragin dituztenei buruzkoa:

- Erabiltzaileen edo haien familiartekoen eskubideak (erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutunaren garapena).
- Zerbitzuak erabiltzeko bete beharreko baldintzak.
- Finantziario irizpideak.

Bizkaiaren kasuan, zehazki, lurralde horretako arautegian sartu diren berritasun handiak eta pertsona eta elkarte batzuek erakunde honi adierazi dizkieten kexak edota kezkatzeko arrazoiak kontuan hartuta, foru aldundiari azaldu genion komeni zela jakitea zergatik egin ziren aldaketa horiek, zein arazo konpondu diren eta zeintzuk bere horretan

jarraitzen duten, sailak berak arautegiaren orain arteko aplikazioaz zer balorazio egiten duen eta ea aldaketa gehiago egiteko asmorik zuen.

Sailak ez die gai horiei erantzun. Erantzun izan balie, behintzat, iritzi desberdinak alderatzeko edo beste jarduketan bidez –Ararteko erakundeetan jasotako banakako kexak; zenbait elkarte profesionalak eskatu dizkiguten bilerak eta helarazi dizkiguten agiriak; hainbat udaletako gizarte zerbitzuetara eginiko bisitak eta hango arduradun eta profesionalekin eginiko bilerak; hainbat udalerritako datuen eskaera eta laginketa, etab.– jasotako datuen informazio osagarria izateko aukera emango zigun. Horren guztiaren berri eman dugu hurrengo orrialdeetan, kezkarriak diruditen alderdi batzuk nabarmenduz.

2005. urteko ohiko txostenean bertan aipatzen genuen, bere garrantzia dela-eta, Bizkaian laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautzen duen arautegi berria: zekartzan berritasunak nabarmendu genituen, hala nola, familiari laguntzea edo hizkuntza eskubideak onartzearen edo aitortzearen balioari dagokionez berme handiagoak izatea. Berritasun nagusien artean hauexek ditugu: eskatzailearen gaitasun ekonomikoa baloratzeko, ondare higiezinak kalkulatzeko, ohiko etxebizitza barne, eta finantziario berme gisa erabiltzaileari dagokion eta ordaindu ezin duen zorra onartzea. Urtebete bakarrik igaro da 2006ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zenetik, eta, beraz, ezin da behin betiko baloraziorik egin baliabidea erabiltzeko modu berriari dagokionez. Gainera, urte honetan zehar aldaketak egin dira arautegian eta beste aldaketa batzuk ere iragarri dira, eta horrek berraztertu eta hobetzeko nahia dagoela erakusten du.

2005eko txostenean porrot gisa hartu genuen arautegiak berriz ere foru sareko egoitza-zentroetarako sarbidea gehieneko diru-sarrera muga bat edukitzearekin baldintzatzea. Arartekoak *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn* izeneko ezohiko txostenean jasotako gomendioetako bat (8. gomendia) muga horrekin amaitzea izan zen, hain zuzen. Laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa jasotzeko araubidea eta egonaldi iraunkorreko zerbitzua emateko baldintzak arautzen dituen abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretua aldatzen duen urriaren 11ko 152/2006 Foru Dekretu berriak kendu egiten du “*plazaren kostu osoa ordaintzeko diru baliabiderik ez izatearen*” baldintza. Sarbidea, beraz, unibertsal izango da. Nolanahi ere, erabiltzailearen ondare mailaren arabera izango da zerbitzuaren finantziarioan izango duen parte-hartze ekonomikoa, eta hori positibotzat jotzen dugu.

Urte honetan zehar, lehen esan bezala, arautegia zalantzan jartzen duten kexak helarazi dizkigute zenbait pertsonak eta profesionalak. Bestalde, zenbait gizarte zerbitzu bisitatu ditugu, Bilbokoak eta Barakaldokoak, zehazki, eta arautegiaren aplikazioari buruzko eta horren gainean egiten duten balorazioari buruzko informazioa bildu dugu. Udal batzuei datuak ere eskatu dizkiegu, ahal den heinean, kexa nagusi bat objektiboki agertzeko xedez: eskaera kopuruaren beherakada. Jarraian helduko diogu horri guztiari.

Bizkaiko Gizarte Laneko eta Gizarte Laguntzako Diplomadunen Elkargo Ofizialak bere kezka adierazi zigun errekerimendu berriek, praktikan, egoitzen foru sareko zerbitzuak erabiltzeko eskubidea gauzatzea zailtzen zutela iritzita.

Planteatzen zituzten gaiak, alde batetik, arautegia onesteko prozesuari buruzkoak ziren. Haien esanetan, arautegi hau gizarte eztabaidarik gabe onetsi zen, erabiltzaileen, eraginpeko elkarten eta arloko profesionalen parte-hartzerik gabe, eta tartean diren beste administrazioekiko koordinaziorik gabe: udalak, Osakidetza eta Justizia Administrazioa.

Bestalde, adinekoen kolektiboak izango dituen ondorioei dagokienez, zenbait arazo planteatzen zituzten; batzuk urte honetan zehar arautegiak izan dituen hainbat aldaketetan jorratu dira: ekainaren 27ko 123/2006 Foru Dekretua eta urriaren 11ko 152/2006 Foru Dekretua.

Horrela, adibidez, artatuko ziren pertsonen ezaugarriei buruz: laguntza behar dutenak soilik. Aldundiak Txurdinagako foru egoitzan foru titulartasuneko pertsona autonomoen sarrera-onarpenak egiteari utzi zion, eta, beraz, egoerak okerrera egiten zuela iruditzen zitzaion. Zentzu horretan gehi dezakegu kexa espediente bat izapidetu dugula (161/2006/31) egoitza honen itxiera dela-eta; inolako irregulartasunik ez zegoela ondorioztatu genuen. Egoitzak ez ditu hirugarren adinekoentzako egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan ezarritako baldintza guztiak betetzen eta, aldundiak eginiko azterlan baten arabera, ezinezkoa zen instalazioak laguntza behar duten pertsonen arreta emateko birmoldatzea. Gizarte zerbitzuen arloko eginkizunak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak badu eskumena laguntza behar duten pertsonen arreta eman eta haiek zaintzeko, eta, beraz, foru aldundiaren erabakia indarreko lege esparruari egokitzen zaio. Hala ere, gero ikusiko dugun eran, zalantza asko sortzen ditu eginkizunak udalen eta foru aldundien artean banatzeak.

Aldundiak egoitza horren inguruan hartu zituzten erabakien berri eman zigun bere erantzunean:

- Orubearen erabilera egoitza gizarte ekipamendu gisa dagoen lekuan mantentzea.
- Erkidegoarentzat beharrezkoak diren zerbitzuak sortzea.
- Adineko inor egoitzaz aldatu behar ez izatea berak nahi hori berariaz adierazi ezean.
- Proiektu berriaren ondorioz lanposturik ez galtzea.

Proiektu berria azterketa fasean dago eta, aurreikusten dutenaren arabera, eriondoentzako baliabide soziosanitario berria izango da.

Gizarte Langileen Elkargokoek planteatutako gaiekin jarraituz, ikuspegi zehatzago batetik, erabiltzaileek bete beharreko baldintzen inguruko gaiak nabarmentzen zituzten; haien iritziz, onuradun kopurua murriztea eragingo du horrek. Onartzeko gutxieneko adinari dagozkio murrizketa horiek; 60 urtera pasa zen, eta, beraz, 50 urtetik 60 urtera bitarteko pentsiodunek ezin zuten baliabide hori erabili.

Egoitza berean autonomoak diren bizikidetzak unitate bereko kideak ezin onartu izatea ere planteatzen zuten. Aurrez adierazitako arautegiaren aldaketak (152/2006) aldatu egin du hori; hartara, ezkontide edo izatezko bikotekideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, 50 urte beteta baditu, pentsioduna bada edo ingesatze-data bitartean egoitzan sartzeko eskubidea duen pertsonarekin bizi izan bada, hark ere eskubidea izango du egoitza horretan sartzeko. Gauza bera sartzeko eskaeraren dataren aurreko azken 10 urteetan gutxienez elkarrekin bizi izan diren seme-alaba edo anai-arreba ezinduen (% 75) kasuan ere.

Planteatzen zuten beste gai bat egoitza plazaren esleipena da; foru sareko zentroetan egiten denez, haren gizarte edo famili inguruetik urruneko leku batean suerta daiteke, horrek bisitak egiteko lekualdaketei dagokienez dakartzan eragozpen guztiak.

Egoitzaz aldatu beharra ere ekar dezake, egoitza horrek foru sarearen barruan egoteari uzten badio.

Parte-hartzeari dagokionez, murriztu egiten zela iruditzen zitzaien, erabiltzaileen arretarako unitatean iradokizunak eta kexak bakarrik aurkeztu ahal izango baitituzte.

Aldi baterako egonaldia arautzen duen arautegiari dagokionez, haien ustez, murriztaileagoa zen, banakako diru-laguntzen sistema desagertu egiten baita, eta, beraz, foru sistema publikoko egoitzetan bakarrik sartu ahal izango baita. Gainera, mendekotasuna baloratzeko, mendekoentzako sistema berari jarraitu behar zaio (Adinekoen Balorazio Batzorde Teknikoa berregituratzen eta arautzen duen abenduaren 20ko 211/2005 Foru Dekretua). Lehen, aldiz, nahikoa izaten zen familiako medikuaren txostenarekin.

Izapideei eta finantziazioari dagokienez, adierazi zutenaren arabera, prozedura oso zehatza eta betetzen zaila da, eta horrek luzarazi egin dezake, zorraren onarpena izenpetzeko lege ezgaitasuna beharrezkoa denean, adibidez. Alderdi horri dagokionez, aipatzekoa da foru arautegiaren beste aldaketa bat ere (ekainaren 27ko 123/2006 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretua aldatzen duena). Arautegi honek, arretan atzerapenak izatea saiheste aldera, eskatzailearen nahiarekin zerikusirik ez duten kausengatik (herentzia banatzeko prozedurak, ustezko ezintasunen ondoriozko prozesuak eta antzerakoak, instantzia publiko eta pribatuetan egiten direnak) atzerapena gertatzen denean, egoitzen foru zerbitzuan sartzeko aukera emango duen ebazpen administratiboa eman ahal izatea aurreikusten du. Kasu hauetan, sartzeko aukera ematen da, nahiz eta ez den egoitzako plazaren onuradun baldintzarako eskubidea lortzen zorraren onarpena formalizatu arte. Gizarte Langileen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargoaren ordezkarien arabera, arautegi aldaketak ez du oraingoz eragin handirik izan.

Erabakigarritzat jotzen zuten beste alderdi bat baliabide ekonomikoaren balorazioa da. Balorazio hori aldatu egin da, errenta eta ondarea sartu baitira, ohiko etxebizitza barne hartuta, eta azken urtean izandako ondare murrizketa justifikatu behar baita, eta, zenbait kasutan, oso zaila izan ohi da, esaterako, ez baita ohikoa izaten adinekoei laguntzen lan egiten duten pertsonen nominak ordaintzea.

Azkenik, zorraren onarpenari dagokionez, oso larritzat jotzen zuten ondarearen balorazioak ohiko etxebizitza kontuan hartzea, gerta baitaiteke ezkontidea edota seme-alabak bertan bizitzea. Horrez gain, ondasunen banaketa egin behar izateak erabiltzaileak harritu egiten dituela adierazten zuen, ez baitzuten horretarako asmorik, eta haien zat ohiko etxebizitza oso garrantzitsua zela; harekin duten loturarengatik ez ezik, baita beste familiarterako batzuk izan dezaketen edo izatera irits daitezkeen etxebizitza premiarengatik ere.

Horrek izan litzakeen ondorioen artean honakoak daude: eskaerak eta ohiko etxebizitza duten pertsonen kopurua murriztea (hau da, ziur aski, eskaera egiten dutenak ez dira etxebizitza baten jabe), laguntza behar duen adinekoa bere bizilekuan egotea, gehienetan emakumezkoa izan ohi den zaintzailearentzako karga handiagoa, eta udalek edo ospitaleek ordainduta kudeatzen dituzten mendeko pertsonentzako (halakorik baldin badago) etxez etxeko laguntza-zerbitzuen hazkundea. Bestalde, ohartarazi dute, agian, legez kanpoko zentroak edo bestelako bizikidetzak modu alternatiboak abian jarriko direla; lokalizatzen, ikuskatzen eta kontrolatzen zailak direnak.



Horren guztiaren inguruan, honako proposamen hauek egin ziren:

- Bizikidetzaren unitatearen familia berriz elkartzea, 50 urtetik gora izatean, nahiz eta dependentzia baldintza ez bete (ezkontidea, izatezko bikotekidea edota seme edo alaba ezindua). Lehen aurreratu bezala, arautegi aldaketarekin zuzendu egin da gai hau.
- 10 urte baino gehiagoz elkarrekin bizi izan diren eta, bizikidetzaren unitatearen parte izan ez arren, ahaidetasun edota laguntasun harremana (anai-arrebak, lagunak, lehengusu-lehengusinak, etab.) duten beste pertsona batzuk elkartzea, 50 urtetik gora izatean eta dependentzia baldintza bete ez arren.
- 50 urtetik 60 urtera bitartean dituzten mendeko pentsiodunen kolektiboari erantzun instituzionala ematea eta haien premietara egokitutako egoitza-zentroak sortzea.
- Egoitza-zentroa aukeratzea. Itxaron zerrendan egon ahal izatea, nahi duen egoitzan plaza hutsen bat izan arte, horrek plazaren esleipenean eskubide galerarik eragin gabe.
- Erabiltzaileak edota haien familiartekoak Zentroen Batzorde Iraunkorrean eskubide osoko kide gisa barne hartzea, erabakiak hartzerakoan modu aktiboan parte har dezaten.
- Ordainketa jasagarria, errenta eta ondarea baloratuta, ohiko etxebizitza izan ezik.
- Azken urteko kapitalaren aldakuntzari justifikatu gabeko ehunekoak aplikatzea aurreko urteetan bezala, higigarrien kapitala ondasun edota herentziaren salmentatik eratorria deneko kasuak bakarrik justifikatzea behintzat.
- Izapideak malgutzea, agiriak kudeatzetik eratorritako gastuak finantzatzeko bideak ezarriz.
- Aldi baterako sartzeko banakako diru-laguntza, foru zerbitzu publikoan plazarik ez badago. Dependentzia baldintza baloratuko da, eskabideari atxikitako txosten medikoarekin batera, etab.

Horiek dira Gizarte Laneko eta Gizarte Laguntzako Diplomadunen Elkargoko egoitzen inguruko lantaldeak azaldutako arazoak eta eginiko proposamenak. Horietako batzuk, adierazi bezala, jada bideratu dira arautegiaren aldaketen bidez.

Egoitzetan onartzeari buruzko arautegi berriaren aplikazioak zekartzan ondorioak hurbilagotik ezagutzeko xedez, udal batzuetako (Bilbo eta Barakaldo) gizarte zerbitzuetako langileekin elkarrizketak egin genituen eta informazioa eskatu genion honako udal hauei: Bilbo, Barakaldo, Mungia, Portugalete, Muskiz eta Lekeitioko udalei. Hona hemen jaso dugun informazioa, laburbilduta:

- Eskaerak gutxitu egin dira. 2005eko urtarriletik ekainera bitartean 566 eskaera izapidetu ziren. 2006. urtean, aldi horretan bertan, 360 eskaera izapidetu dira (aipaturiko udalen datuak).
- Askoz ere gehiago dira informazioa biltzen dutenak, formalizatzen den eskaera kopuruarekin alderatuta. Beren ustez, eskaera formalizatu ordez, beste baliabide batzuetara jotzen dute; zaintzaileak kontratatzen dituzte edo egoitza pribatuetara jotzen dute.

- Erabiltzaileei zaila egiten zaie zorraren onarpenak eta ondasunen banaketak zer esan nahi duen eta pertsonarentzat nahiz agiri aldetik zein ondorio dakartzan ulertzea.
- Izapideak oso korapilatsuak dira, eta horrek zaildu egiten du gizarte langileek ematen duten informazioa.
- Ez zen udalen aurretiazko kontsulta edo parte-hartzerik izan arautegia BAOean argitaratu aurretik.
- Foru Aldundiak ez die balorazio batzordearen edo egoitzetan sartzeko espedientearen emaitzen berri ematen udalei. Erabiltzaileek esanez gero bakarrik jakiten dute. Udalak ez du balorazio batzordean parte hartzen, nahiz eta beste zerbitzu batzuetarako eragiten dion, izan ere, gero administrazio batek ala besteak ordaindu beharko du etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kostua, mendekoa ala bere kabuz baliatzen den. Gainera, prozedura ebatzi bitartean, beste zerbitzu batzuk eskaini litezke (etxez etxeko laguntza-zerbitzua edo eguneko zentroa), baina ez da halakorik aurreikusi, nahiz eta bi hilabete igaro daitezkeen ebazpena emateko.
- Prezioak behar den arretarekin eta duen gaixotasunarekin zerikusia izateak konparatiboki, osasun sistemari dagokionez, oso desberdinak diren egoerak planteatzen ditu, erabiltzaileentzat ulertzen zailak direnak.
- Adierazitako gaiak errepikatzen dira bizikidetzaren unitateko pertsona autonomoei arretarik ez emateak dakartzan arazoei dagokienez. Arazo hau, esan bezala, konpondu egin da gaur egun.
- Baita haren inguruetik hurbileko egoitza aukeratzeko zailtasunak ere: eskainitako plaza onartu ezean, galdu egiten da eskubidea, eta, onartuz gero, berriz, bere gizarte- eta familia-inguruetik urrun egon beharko du, agian. Horrek loturak galtzea eragin dezake. Gainera, erabakia oso denbora gutxian hartu behar da.
- Izapideak egiterakoan izaten diren arazoak; gastuak eragiten dituztenak, gainera. Zorraren onarpenari dagokionez akordio batera iritsi diren arren, ondasunen banaketa, adibidez, ez dohainikakoa, eta, beraz, gastuak hazi egin dira.
- Galdera asko jaso dira legeak ezartzen dituen betebeharrak "saihesteko" moduari buruz.
- Azken urtean gastuak % 100 arte justifikatzea, askotan, oso zaila izaten da.
- Laguntza behar duten 60 urtetik beherakoek ez dute behar besteko arretarik.
- Badira familiaren desegituratze kasuak edo banatu eta etxebizitza bat izateko aukerarik gabe geratzen diren seme-alaben kasuak. Kasu horietan arazoa da ohiko etxebizitza kontuan hartzen duen zorraren onarpena egitea.
- Onartzeari uko egiten dioten ebazpenetan ez da zehazten beste baliabiderik dagoenik, hala nola, etxez etxeko laguntza-zerbitzua. Gainera, ebazpenak ulertzen zailak dira adinekoentzat, hizkera ez baita batere garbia eta arautegiaren aipamenak egiten baitira, adinekoen inguruabarretara eta ulermen mailara egokitu gabe.
- Udalek eta aldundiek euskarri informatiko desberdinak dituzte, eta horrek zaildu egiten du espedienteak kontsultatu ahal izatea (gai hau konpondu da oinarriko errentaren prestazioaren izapideak egitean).
- Aurreikusten dituzten ondorioen artean, arautegiaren ondorioak –eta bereziki etxebizitzari eragiten dion zorraren onarpenaren ingurukoak– saihesteko

arretarik gabeko egoerak gertatu ahal izatea dago. Gainbegiratu publikorik gabe zerbitzuak eskaintzen dituzten egoitza pribatuen kopurua handitu egin daiteke, edo beste erakunde batzuek, bankuek edo aurrezki kutxek, esaterako, erabiltzaileentzako alternatiba errazagoak eta erakargarriagoak eskaintzea ere aurreikusten da. Gainera, beste zerbitzu batzuk gehituko dira, agian; hala nola, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak edo eguneko zentroak. Itxaron zerrenda oso luzeak dituzte jada.

Erakunde honek eginiko beste esku-hartze bat egoitza publiko batean onartzeko zailtasunek eragingandako kexa bat (688/2006) izan zen. Laguntza behar duen adineko pertsona batek ezin izan zuen egoitza publiko batean sartu. Lehenengo, aurreko arautegiarekin ez zuelako horretarako onespenerik azaldu, gero, lege ezgaitasuna eman ondoren, familiartekoei agiri guztiak aurkeztu ez zituztelako, funtsean, zorraren onarpenari dagokiona, eta, horrenbestez, beste zerbitzu batzuk (ospitalekoak, ambulatorkoak eta, ahal zen neurrian, familiartekoen laguntza) jaso zituen. Espediente bat baino ez den arren, eta, beraz, ondorio orokorrak ateratzeko balio ez duen arren, gizarte zerbitzuen ikuspegiaren alde egiten du errekerimendu berriak direla-eta (bereziki ohiko etxebizitza zorraren onarpenean ondare gisa sartzea) eskaera formalizatzen ez duten erabiltzaileak dauden neurrian.

Hasieran esan bezala, oraindik ez da behar adina denbora igaro arautegi honek ekarri dituen aurrerapausoen gaineko behin betiko ebaluazioa egin ahal izateko, eta ez dugu behar adinako informaziorik behin betiko ondorioak ateratzeko ere. Baina horrek ez du eragozten nahi diren ondorioen aurkakoak eragiteko aukeraren aurrean dugun kezka adieraztea edo estali gabeko ahultasun egoerak izaten jarraitzea, eta, beraz, hobetzen eta berraztertzen jarraitzea, 2006. urtean zehar egin den bezala. Alde horretatik, garrantzitsuak iruditzen zaizkigun gai batzuk nabarmendu nahi genituzke:

Alde batetik, *“Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn”* ezohiko txostenaren gomendioak gogoraraztea, eta bereziki hau adierazten duena: *“155/2001 Dekretuak ezarritako eginkizunak mugatzearekin batera ez zen aurretiazko hausnarketarik egin horrek ekarriko lituzkeen ondorioen gainean, batez ere finantzaketa arloan; ondorioz, alde handia dago zerbitzuen estaldurari dagokionez, lekuaren eta, zehazki, laguntza behar duten pertsonen eskaintzen zaizkien zerbitzuen arabera. Arazo honi heldu behar zaio eta konpondu egin behar da; horretarako, zerbitzuen katalogo bat ezarri beharko da, horien arduraduna nor den eta nork finantzatzen dituen adierazita”*.

Tartean administrazioetan ez da ezarri dependentzia baloratzeko tresna bakarrik, nahiz eta azkenaldian teoria mailako adostasunean aurreratu den. Horrek herritarrei ulertzen zailak egiten zaizkien desberdintasunak sortzen ditu. Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Horiei Zuzendutako Arreta Sustatzeko Lege berriaren aplikazioak ondorioak izango ditu alor honetan.

Funtsezkoa da zerbitzuen erabiltzaileei, biztanleriaren gehiengoaren premiei eta gizarteko eta familiako laguntza sareari buruzko informazioa hobetzea, ez galtzeko. Egin dugun esku-hartzean objektibizatu behar izan dugu murriztu egin dela formalizatutako eskaera kopurua, eta, gizarte zerbitzuetan eginiko elkarrizketen bidez jakin dugu jende asko etortzen dela zerbitzura informatzera, baina ez dituztela agiriak aurkezten edo ez dutela eskaera formalizatzen; beraz, egoitza publikoetan sartzeko itxaron zerrendek ez

dute balio zerbitzu honen eskari erreala zenbatekoa den jakiteko. Hortaz, beharrezkoa da eskari errealak eta dauden benetako premiak zein diren hobeto jakitea. Beste informazio garrantzitsua sistema publikotik kanpoko beste sistema batzuen erabilera zenbatekoa den jakitea da, horietara jotzen duten pertsonak zein ezaugarri dituzten eta egoitza publikoetara jotzen dutenek zein ezaugarri dituzten, eta zergatik aukeratzen diren sistema horiek, alternatiboak zein publikoak.

Urtebete egin da foru sarearen barruan adinekoentzako egoitza plazaren ordainketa atzeratzen den kasuetarako ordainketa berme gisa **zorraren onarpena** exijituz. Zorra onartzea, baliabide eraginkorrik ez dagoenean baina ondarea badagoenean (normalean, familiaren etxebizitza) ordainketa bermatzeko modu bat da. Hizpide dugun kasuan –adinekoentzako egoitzak–, administrazioak horren beharra duen pertsonari ematen dio zerbitzua, eta erabiltzaile horrek, bere diru-sarreraren arabera, ahal duen zenbatekoa ordaintzen du. Hala ere, ordainketa hori bere ondarearekin konprometitzen du; hil ondoren eta betiere bere ezkontidea edo bikotekidea zein berariaz zehaztutako beste familiartekorik etxebizitza horretan bizi ez bada. Beraz, onarpen hori arreta behar duen pertsonak arreta hori jasotzeko modu bat da (bere etxebizitza mantenduz), eta, bere garaian, Administrazioak arreta horren ordaina jaso ahal izango du.

Gure autonomi erkidegoan, Arabako Foru Aldundiak 1994az geroztik aplikatzen du egoitzaren ordainketarako berme sistema hau, eta ez dugu jakin arazo aipagarririk izan denik. Bizkaiko Foru Aldundiak 2006. urteaz geroztik ezarri zuen eta Gipuzkoakoak, aldiz, ez du zorraren onarpena jasotzen bere arautegian. Lurralde historiko honetan, prezioa kalkulaterakoan kontuan hartzen da higiezinaren kapitala, baina ez ohiko etxebizitza, baldin eta familia unitateko kideak (ezkontidea, legezko ezgaitasuna duten adingabeak eta adindunak) bertan bizi badira edo aparteko baliorik ez badu (oinarrizko errenta lortzeko baremoen arabera) (apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua, urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretuak aldatu duena; 8. eta 10. artikulua).

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundia da EAEko hiru aldundietan ordainketa bermatzeko formula hau erabiltzen ez duen bakarra. Aurrez adierazi bezala, autonomi erkidegoan egoitzetako arretaren ordainketa bermatzeko irizpideak bateratzea komeni litzateke.

Horri dagokionez, planteatu ziguten kasu bat aipatu nahi genuke. Gipuzkoar bat bere jabetzako etxebizitza batean bizi zen. Etxebizitza horrek ez zuen igogailurik. Hori arazoa zenez beretzat, etxebizitza hori saldu eta igogailua zuen beste etxebizitza bat alokatu zuen bertan bizitzeko. Denboraldi bat igaro ondoren, pertsona horrek egoitzako arreta behar zuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak plaza bat eman zion. Ordaindu beharreko prezio publikoa aplikatzean, ia maximoa ordaintzea egokitu zitzaion, dirua baitzeukan (etxebizitzaren salmentarekin ateratakoa). Aldiz, pertsona hori bera bere etxebizitza saldu gabe egoitzan sartu izan balitz (hutsik geratuko zatekeen etxebizitza, eta ez zuen aparteko baliorik), prezio publiko aplikagarria askoz ere txikiagoa izango zen eta, gainera, bere garaian, etxebizitza haren oinordekoengana pasako litzateke osoki.

Beste kasu bat etxebizitza bat jabetzan eskuratzera iritsi ez den pertsonarena izan daiteke; etxebizitzarik izan ez arren, bere bizitzan zehar lortutako aurrezkiak dituen. Kasu horretan, prezio publikoa ezartzerakoan hori guztia zenbatuko zaio, eta, zenbatekoak 24.000 euro gainditzen baditu, ez zaio inolako hobaririk ordainduko.

Bestalde, Bizkaian ohiko etxebizitza ordainketarako berme gisa jartzea eztabaidatu dute gizarte zerbitzuen bidez adinekoak artatzen dituzten, familiaren etxebizitza duten pertsonen eskaerak gutxi izaten direla eta zailtasunak egiaztatzen dituzten zenbait

sektorek. Araban indarrean dagoen arautegiarekin alderatuta, Bizkaian konpromiso hori izenpetzeko moduan aldea badagoela ikus daiteke; Araban baino askoz ere modu formalistagoan eta zorrotzagoan egiten da.

Bizkaiko aldundiak konpromiso hori eskritura publiko bidez adierazteko beharra ezartzen du (11/2005 Foru Arauaren 28. artikulua). Izapide horren aurretik senar-emazteen irabaziko ondasunen banaketa egin behar izaten da. Hori, jakina, ezkontideetako bat egoitzan sartzen denean eta besteak familiaren etxebizitzan (normalean, urte askotako lan bateratuari esker jabetzan eskuratutakoan) jarraitzen duenean egiten da. Izapide horiek gastuak dakartzate, baina, funtsean, oso ulergarria den erresistentzia eragiten dute berrogei edo berrogeita hamar urtez beren bizitza eta ondasunak partekatu dituzten pertsonengan. Pertsona horiei zaila egiten zaie ondare banaketa egitea.

Arabako Lurralde Historikoan ez da notarioaren agiririk behar, ez eta irabaziko ondasunen banaketarik ere, jakina. Konpromisoa adierazteko agiri bat sinatzen da, aldean arteko akordioaren adierazgarri, eta beharrezko diren gainerako agiriekin batera jartzen da. Agiri hori azaroaren 6ko 16/2003 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Arau horren arabera, zorraren konpromisoa egiteko hiru modu daude: bankuko abalaren bidez, erabiltzailearen familiarteko batek sortzen diren zorrak bere gain hartzeko konpromisoaren bidez, eta hirugarrena, zehazten den ondasunaren (etxebizitza, normalean) gaineko hipotekaren eskrituraren bidez. Zorrari diruaren lege interesa aplikatzen zaio. Sailak metatutako zorraren zenbatekoa jakinarazten dio urtero erabiltzaileari edo haren ordezkariari, jakin dezan.

Ohiko etxebizitza sartzeara ala ez oso kontu garrantzitsua da. Eztabaida horrekin batera, Dependentsia Legea onartu da eta orain ere eztabaidagai izaten jarraitzen du EAEn, hedabideek erakusten duten eran. Horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu gure esperientzia hona ekartzea (nahiz eta laburra den Bizkaiaren kasuan) eta alde zuzeneko gogoeta egitea. Oinarrizkotzat jotzen dugu autonomi erkidego osoan irizpide homogeenak izatea, lurraldeen artean desberdintasunik egon ez dadin. Ez da posible bizilekuaren arabera egoitza publiko bateko plazarengatik prezio desberdina ordaintzea, edo lurralde berean (Gipuzkoa) ondorioak hain desberdinak izatea etxebizitza salduz gero edo hura mantenduz gero, izan ere, lehenengo kasuan ordaindu beharreko prezioa handiagoa izango da, aurrez ikusi dugun bezala. Oraindik ere desberdintasunak daude hiru lurralde historikoetako erabiltzaileen diru ekarpen sistemen eta ordainketa bermatzeko sistemen artean. Baita ondarea zehazteko ikertutako denbora epeetan ere.

Bestalde, ezinbestekoa da eztabaida honetan kontuan hartzea etxebizitzak gaur egun gure inguruan duen izaera. Etxebizitza pertsonen bizitzarako beharrezko ondasunetako bat da, jantziarekin eta elikagaiekin batera. Babesteko leku bat behar da, bertan garatu eta bertatik gizaratean eta lanean integratzeko. Etxebizitza, gainera, oso sinbologia berezia duen ondasuna da, bai pertsonaren, bai familiaren bizitzan. Baina badu ondarezko ondasun izaera ere, eta, gure gizaratean erdietsi duen prezioa dela-eta, ohiko etxebizitzaz gain beste etxebizitza bat jabetzan dutenentzat ondare handia da. Hau da, oinordeko batzuentzat etxebizitza bizirik irauteko beharrezko duten ondasuna izango da, baina beste oinordeko batzuentzat ondare hazkunde handia izango da. Horregatik, gaiari trataera bat ala bestea emateak dakartzan ondorioak alde zuzeneko aztertu behar dira.

Azkenik, ohiko etxebizitza zorraren onarpenean barne hartzen den kasuetan funtsezkoa iruditzen zaigu onarpen hori egiteko modua, hau da, horri dagokionez es-

kaintzen diren bermeak eta administrazioak zorraren ordaina nola hartuko duen. Zentzu horretan, formula hori aplikatzen duten EAEko bi aldundien artean Bizkaiko arautegiak Arabakoak baino malgutasun handiagoa eskaintzen du. Horrela, Arabaren kasuan, abenduaren 28ko 85/2006 Foru Aginduaren 16.8 artikulua (2006. urtera mugatuta) hau adierazten du: *“Zorra kobratzeko ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren ondasunen ondare burutzapenera jotzea beharrezkoa baldin bada, etxebizitza ez da horretarako erabiliko norberaren erabilerarako beharrezkoa bada, zerbitzuan baja emanda badago edo ezkontidearen edo lehen graduako zuzeneko ondorengoaren ohiko etxebizitza bakarra bada, beste familia unitate bat osatzen ez badute, eta, osatzen badute, % 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna aitortu bazaie, hala badagokio, horren trabaren edo bahituraren kaltetan izan gabe”*.

Bestalde, Bizkaiaren kasuan, abenduaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 30. artikulua adierazten du ez dela ohiko etxebizitzaren gaineko burutzapen horretara joko, aurreko kasuan bezala, norberaren erabilerarako edo ezkontidearen ohiko etxebizitza bakar gisa beharrezkoa baldin bada. Legez eraturako izateko bikotearengana zabaltzen du. Familiartekoei dagokienez, alde batetik, edozein familiarteko edo lagunengana ere zabaltzen du, baldin eta 50 urte edo gehiago baditu eta azken hamar urteetan erabilitzailearekin batera bizi izan bada. Bestalde, seme-alabak direnean, honako hau gehitzen du: a) denak barne, 18 urte arte; b) 26 urte arte, etxebizitza horretan bizi izan badira eta langabezian badaude edo ikasten ari badira; eta c) denak, % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna badute eta etxebizitza horretan bizi izan badira. Halaber, aipaturiko manuak salbuespen egoera posibleak ere jasotzen ditu; kasu horietan ere ez da burutzapen horretara joko, betiere... *“Foru Aldundiak halakotzat hartzen baditu, Adinekoen Balorazio Batzorde Teknikoak horretarako irizpena eman ondoren”*.

Ikus daitekeenez, Bizkaiko arautegiak jasotzen dituen kasu batzuetan zorra ondarearen gain egin daiteke, eta beste kasu batzuetan, berriz, Gizarte Ekintzako diputatuaren balorazioari heltzen zaio. Gomendagarria litzateke, kasu hauetarako ere, alde aurretik irizpide ezagunak ezartzea, gizarte zerbitzuek erabiltzaileei helarazten dieten informazioa errazteko. Irizpide horiek prestatzerakoan, elementu garrantzitsua izan daiteke familiarteko batzuek gizarte bazterketa pairatzeko arriskurik baduten baloratzeko gizarte txostena. *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzunari* buruzko gure txostenean adierazten genuen bezala, prebentzio jarduketak beharrezkoak dira gizarte bazterkeria larrian dagoen pertsona kopuruak gora egin ez dezan. Horretarako, ezinbestekoa da tartean diren administrazio desberdinen inplikazioa, bazterkeria arriskua hautematen denean pertsona hori egoera larriago batera pasa ez dadin mekanismoak abian jarri ahal izan daitezen, bizilekurik ez izateko arriskua hautematen denean, kasu. Bestela, alde batetik, administrazioak zorrak kobratzea bermatzen du, baina pertsonak etxebizitzarik gabe utz daitezke, horrek dakartzan era guztietako gizarte ondorioekin, bazterkeria larria jasaten duten pertsonen arreta emateak osasun eta baliabide aldetik dakartzan ondorioez gain. Beraz, ohiko etxebizitza kasu guztietan barne hartzeak babesik gabeko egoerak eragin ditzake; lehen familiaren esparruan konpontzen ziren horrelakoak.

Arautegiaren aplikazioarekin zerikusia duten beste gai batzuekin jarraituz, malgutasun pixka bat ematen du beste alderdi batzuetan ere, hala nola, justifikatutako kausarik gabe, aurreikusitako datan ez sartzeari dagokionez, edo, lekualdaketetarako irizpide gisa, bere familia- eta gizarte-ingurunera hurbiltzeko erabiltzailearen nahia. Hau

da, arautegiak jarduketarako tarte bat uzten du, eta, dagokionaren arabera, azal dutako eragozpen batzuek zentzu handiagoa ala txikiagoa izango dute.

Bestalde, deigarria da udaletako gizarte zerbitzuetako langileek arautegi berriaren berririk ez izatea aurretiaz, nahiz eta egungo gizarte zerbitzuen sistemak, eraginkorra izango dela bermatzeko, eskumenak dituzten administrazio guztien koordinazioa, informazioa eta parte-hartzea behar dituen. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen arteko informazioa hobetzea eta haien koordinazioa ezinbestekoak dira sistemaren eraginkortasuna bermatzeko eta, zehazki, erabiltzaileei benetako informazioa helarazteko, egoitzan sartzea errazteko. Horrez gain, oso esanguratsua da gizarte zerbitzuek balorazio batzordearen ebazpenaren berri ez izatea, horrek erabiltzaileen arretan dituen ondorioengatik. Arautegi berria indarrean jarri ondoren, gizarte langileak trebatu zituzten –jakin zezaten– (hori oso onuragarritzat hartu zen) arren, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta foru aldundiaren adinekoen artean emateko zerbitzuen arteko informazioa hobe daitekeela uste da, bai arautegiaren aldaketei eta aplikazio irizpideei buruzko informazioari eta horien gaineko partaidetzari dagokienez, bai izapidetze faseetan, hala nola, eskaeraren ebazpenean. Gomendagarria litzateke bi aldean artean informazioaren eta proposamenen trukea ahalbidetuko duen elkarrizketa egotea. Behar hori arautegian aurreikusita dago, baina komeni litzateke egungo koordinazio sistemen ebaluazioa egitea, helburuak betetzen ari diren ikusteko eta, bestela, eguneroko lanerako eraginkorragoak diren tresna berriak ezartzeko.

Izapideak egiteko edo oraindik bidean diren izapide batzuen kostuak (ondasunen banaketa, kasu) ordaintzeko zailtasunei dagokienez, gomendagarria litzateke izapideak egitea erraztuko luketen eta, hala badagokio, horien kostua ordaintzen lagunduko luketen formulak aurreikustea, hala nola, Notarioen Elkargoarekin hitzarmena sinatzea edo laguntzak ezartzea.

Parte-hartzearen alorrean, garrantzitsua da gogoraraztea indarrean dagoela Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutuna. Hauxe dio 11. artikuluan: *“Gizarte zerbitzuen erabiltzaileek parte hartzeko eskubidea dute, hau da, aktiboki, zuzenean eta ordezkarien bidez, zuzenean edo zeharka, bakarka zein kolektibo gisa eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko eskubidea, erabiltzen dituzten gizarte zerbitzuen antolaketan eta funtzionamenduan”*. 2. atalean zehazten du zertan datzan. Laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautzen duen arautegian Gutuneko eskubideak aitortzen dira, baina ez da arautzen zertan datzan parte hartzeko eskubidea; beraz, eskubideen eta betebeharren arauketa zehatzagoa beharko litzateke, egoitzen funtzionamendura egokituta, erabiltzaileek bertan parte hartu ahal izan dezaten, arautegiak exijitzen duen bezala.

Azkenik, egoitza publikoan sartzeko eskubidetik kanpo geratzen diren pertsonen dagokienez, laguntza behar duten 50 eta 60 urte bitarteko adinekoak, kasu, garrantzitsua litzateke pertsona horien kopurua eta egoera zein den jakitea, haien ahultasun egoera ezagutzeko eta erantzun egokiak sustatzeko, artatu gabeko edo baliabide desegokiek artatutako egoerak saiheste aldera. Adierazi dugun bezala, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Horiei Zuzendutako Arreta Sustatzeko Lege berriak egokitzapenak eta aldaketak eragingo ditu esparru honetan.

Aurrez esan bezala, gogoeta hauek alde aurretikoak dira. Foru aldundiak ez digu oraindik arautegiaren aldaketa honen berri eman, ez eta dituen aurreikuspenen berri ere. Gainera, Gizarte Ekintza alorreko sarreran adierazi genuen bezala, arautegian aldaketak

egitea aurreikusten da, bai Dependentzia Lege berriaren ondorioz, bai Gizarte Zerbitzuen hurrengo Legearen ondorioz (prestatze prozesuan dago). Horregatik guztiagatik, espediente irekita mantentzen dugu behin betiko ondorioz azaldu gabe.

Aurrez adierazi bezala, Gizarte Ekintza Sailak berak gai hauen inguruan egiten duen balorazioa jakitea komeni litzateke; ziur aski, txosten hau idatzi ondorengo jarduketan bidez posible izango da. Oraingoz, hemen adierazitakoa ez da balorazio gisa hartu behar, baina bai aurrerantzean jarduketa batzuk ekarri behar litzuzkeen kezka-arrazoi gisa.

### III. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak gure informazio eskaerari emaniko erantzuna 2007ko urtarrilaren erdialdean jaso da. Eskualdeetako datuak biltzen ditu banakatuta eta, eguneratzeari dagokionez, ia datu guztiak 2006ko ekainaren 30ean zerbitzuek zuten egoerari buruzkoak dira. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuen bidez artatutako pertsona kopuruari eta haiek artatzen eginiko orduei buruzko datuak soilik dira irailaren 30ekoak.

Jarraian, hona hemen jasotako datu globalak, laburtuta eta eskualdeka banakatuta:

- **Egoitza-zentro** kopuruari dagokionez: 24 publiko eta 41 pribatu.
- Plaza-kopuruari dagokionez: 2.020 zentro publikoetan eta 2.692 zentro pribatuetan.  
Horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutakoak: 1.920 plaza zentro publikoetan eta 1.835 zentro pribatuetan.
- Betetako plaza-kopuruari eta itxaron zerrenden datuei dagokienez:
  - Hitzartutako plazetan artatutako pertsona kopurua (2006ko ekainaren 30ean): 1.794 zentro publikoetan eta 1.823 zentro pribatuetan.
  - Baliabidea eskatu dutenen zerrendan: 891 pertsona; modu eraginkorrean zain daudenen zerrendan: 580 pertsona.
- **Eguneko zentro** kopuruari dagokionez: 34 publiko eta 22 pribatu.
- Eguneko zentroetako plaza-kopuruari dagokionez: 676 zentro publikoetan eta 644 zentro pribatuetan.  
Horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutakoak: 628 zentro publikoetan eta 439 zentro pribatuetan.
- Eguneko zentroen erabiltzaile kopurua: 546 zentro publikoetan eta 402 zentro pribatuetan.
- Eta **etxez etxeko laguntza-zerbitzuari** dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunak bi taula dakartza datu banakatuekin, eta bertan, alde batetik, pertsona autonomoei eta laguntza behar dutenei eskainitako zerbitzuak bereizten dira eta, bestalde, 2005eko eta 2006ko datuak alderatzen dira (kasu honetan, lehenengo hiru hiru hilekoei dagokienez). Hauek dira datuak:



	2005. URTEAN					
	ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK			ARTATUTAKO PERTSONA DEPENDENTEAK		
	ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK	PERTSONA AUTONOMOAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK	PERTSONA AUTONOMO BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE	ARTATUTAKO PERTSONA DEPENDEN- TEAK	PERTSONA DE- PENDENTEAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK	PERTSONA DEPENDENTE BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE
BIDASOA	236	31.518	134	267	48.040	180
DEBABARRENA	103	12.956	126	208	34.672	167
DEBAGOIENA	251	37.600	150	374	109.480	293
DONOSTIALDEA	1.295	186.004	144	1.443	378.773	262
GOIERRI	238	49.754	209	392	96.076	245
TOLOSALDEA	149	27.096	182	258	79.228	307
UROLA KOSTA	195	27.101	139	328	67.540	206
	<b>2.467</b>	<b>372.029</b>	<b>151</b>	<b>3.270</b>	<b>813.809</b>	<b>1.660</b>

	2006KO LEHEN HIRU HIRUHILEKOETAN					
	ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK			ARTATUTAKO PERTSONA DEPENDENTEAK		
	ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK	PERTSONA AUTONOMOAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK	PERTSONA AUTONOMO BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE	ARTATUTAKO PERTSONA DEPENDEN- TEAK	PERTSONA DE- PENDENTEAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK	PERTSONA DEPENDENTE BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE
BIDASOA	229	31.132	101	243	36.980	152
DEBABARRENA	103	9.790	95	200	28.340	142
DEBAGOIENA	242	28.316	117	304	70.508	232
DONOSTIALDEA	1.258	169.350	135	1.364	297.615	218
GOIERRI	334	41.383	124	346	73.092	211
TOLOSALDEA	201	22.787	113	266	59.291	223
UROLA KOSTA	175	21.041	120	297	52.722	178
	<b>2.542</b>	<b>315.798</b>	<b>124</b>	<b>3.020</b>	<b>618.548</b>	<b>1.356</b>

2006ko datu horiek guztiak 2001ekoekin aldera daitezke, aipaturiko gure txostean bildu eta aztertu zirenekin. Azken bost urteetan izan den bilakaera nolakoa izan den ikusteko aukera ematen du horrek. Horrela, adibidez, konparazio elementu gisa egoitza-zentroetako plaza-kopuruari buruzko datuak hartzen baditugu, ondorengo taula honetan laburbil dezakegu:

ESKUALDEAK	EGOITZA ZENTROETAKO PLAZA KOPURUA		Δ	%Δ	ESTALDURA TASAK	
	2001	2006			2001	2006
BIDASOA	260	391	131	% 50	2,22	--
DEBABARRENA	424	422	-2	--	3,74	--
DEBAGOIENA	401	387	-14	% -3	3,61	--
DONOSTIALDEA	2.078	2.607	529	% 25	3,75	--
GOIERRI	296	267	-29	% -10	2,52	--
TOLOSALDEA	409	318	-91	% -22	5,38	--
UROLA KOSTA	255	320	65	% 25	2,40	--
<b>GIPUZKOA, GUZTIRA</b>	<b>4.123</b>	<b>4.712</b>	<b>589</b>	<b>% 14,2</b>	<b>3,64</b>	<b>3,80</b>

Ikus daitekeen eran, Gipuzkoako Lurralde Historikoko egoitza-zentroetan baimendutako 589 plaza gehiago daude; urteko hazkundera, beraz, % 3 ingurukoa izan da. Hala ere, eskualderen batean (Bidasoa) hazkunde hori % 50era iritsi da eta beste batzuetan (Debagoiena, Goierri eta Tolosa), aldiz, eskaintza ez hazteaz gain, murriztu egin da.

Baina ziur aski gehien interesatzen zaigun adierazlea estaldura-tasei dagokiena da. Hau da, kasu honetan, zehazki, plazen hazkundera zenbateraino datorren bat 65 urtetik gorako biztanleriaren hazkunderarekin. 2001ean Gipuzkoako estaldura-tasa 3,64 plazakoa zen egoitza-zentroetan -65 urtetik gorako 100 adinekori dagokienez-; 2006 erdi aldera (2005eko biztanleria datuekin kalkulaturik, horiek baitira erabilgarri dauden azkenak) 3,80koa izango litzateke, eta, beraz, ia ez dakar aldaketarik.

Eguneko zentroetan, berriz, ohiz kanpokoa izan da bilakaera: 2001ean 256 plaza eta 2006an 1.320; beraz, datuak zuzenak badira, bost urte baino gutxiagoan bost aldiz biderkatu da plaza-kopurua. Izan ere, 27tik 34ra pasa da eguneko zentro publikoen kopurua, eta 11tik 22ra eguneko zentro pribatuen kopurua.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez, 2001ean 4.482 adineko pertsona artatu ziren, eta 2006ko irailean zifra hori 5.562koa zen (2.542 autonomoak eta 3.020 mendekoak); beraz, mila pertsona gehiago artatu dira, eta bost urtean % 24ko hazkundera izan da.

Pertsona horiek artatzen eginiko ordu kopuruak, ordea, oso bestelako bilakaera izan du. 2001ean 1.107.000 ordu ziren eta 2005ean, aldiz, zifra 687.827 ordura jaitsi zen. Artatutako pertsonen kopuruak gora egin ahala, prestazio orduen kopuruak behera egiten du, eta, beraz, pertsona bakoitzari ematen zaion arreta geroz eta urriagoa da. Gure ezohiko txostenean ere joera hori hauteman genuen. Hala, gure erkidego osorako, 1994an zerbitzu honen erabiltzaile bakoitzak batez beste urtean 295 arreta-ordu jasotzen zituen; 2001ean 233 arreta-ordu izaten zituen; eta urte osoko (2005) Gipuzkoako azken datuen arabera, 151 arreta-ordu izan zituen bakoitzak. 2006rako kalkulua (lehen hiru hiruhilekoetako datuak estrapolaturik) zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzeko 165 ordu ingurukoa izango litzateke.

Oraingoz zenbakizko datuen aurreko azterketara mugatuko gara, gero izaera kualitatiboagoa duten baina, era berean, garrantzitsuak diren beste informazio batzuekin osatzeko.

Alde horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunari dagokionez, funtsean lau elementu nabarmendu nahi genituzke, eta bereziki lehenengoa, etxez etxeko laguntza-zerbitzuari buruzkoa.

1) 2005. urtearen amaieran, diputatuen kontseiluak esparru-akordio bat onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskal Udalerrien Elkartearen (Eudel) arteko lankidetzarako, **etxez etxeko laguntza-zerbitzua** emateko baldintzak zehazteko. Esparru-akordioaren eraginkortasuna 2006. eta 2007. urteetara hedatzen zen.

Esparru-akordio hori Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako adinekoen dependentsiaren gaiari heltzeko eraturako txostenean oinarrituta onartu zituzten gomendioetako bat aplikatu nahian Eudelekin eginiko negoziazio luzearen ondorioa izan zen; udalen eta Gizarte Politikarako Departamentuaren arteko orekatzeko formula bat bilatzeko eskatzen zen, etxez etxeko laguntza-zerbitzua modu arautuan kudeatuko dela bermatzeko, ezarritako eskumen esparrua eta zerbitzuaren kudeaketari eragiten dioten ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Gainera, txosten horrek etxez etxeko laguntza-zerbitzuarekin lotutako beste ekimen batzuk gomendatu zituen, Ararteko erakundeak eginiko gomendioen ildotik. Hala, hau eskatzen zen:

- Estaldura handitzea, bai erabiltzaile autonomoei dagokienez, bai laguntza behar dutenei dagokienez.
- Jai-egunetan ere, oro har, zerbitzua ematea.
- Zerbitzuaren batez besteko intentsitatea handitzea (aste bakoitzeko arreta-ordu kopurua) mendeko erabiltzaileentzat, etab.

Gogoan izan behar da, 155/2001 Dekretuaren ondoren, etxez etxeko laguntza-zerbitzua udalaren eskumeneko gizarte zerbitzua dela, eta laguntza behar duten adinekoen zaintza eta arreta –zerbitzu honetan sar daitezke horiek ere–, aldiz, foru aldundien ardura da. Esparru-akordioaren beste helburu bat Gipuzkoako Lurralde Historikoko etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren irismena, edukia eta ezaugarri nagusiak zehaztea zen, eta, foru aldundiak eta Eudelek ere onartu zuten hitzarmen ereduaren bidez, lurraldeak bateratzea bermatzea, Gipuzkoako udal guztiarekin hitzarmen bat formalizatuta; hitzarmen horrek erabiltzaileen ezaugarriak, udalerrri bakoitzeko zerbitzuaren estaldura eta ordu bakoitzaren prezioa zehaztuko ditu, bai kostuari dagokionez, bai erabiltzaileen ekarpenari dagokionez.

Akordio honen ekarpen nagusia, udalek beren zerbitzuak antolatzeke duten autonomia kaltetu gabe, etxez etxeko laguntza-zerbitzua bateratzeko ahalegina da, lurraldeen arteko orekari eutsiz, nahi ez diren alderaketak eta bereizkeriak saihesteko. Zentzu horretan, aurrerapauso nabarmena da gure txostenean aztertutako egoerari eta beste bi lurralde historikoetan duten egoerari dagokienez.

2) Arautegiaren garapenean pauso garrantzitsua izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunean nabarmendutako psikogeriatria unitateen baldintzak zehazten dituen ekainaren 2ko 394/2006 Foru Araua onartzea ere (BAO, 112 zk.a, 2006ko ekainaren 14koa). Agindu honek zehatz-mehatz arautzen ditu demenziazko prozesuak dituzten mendeko adinekoak artatzeko unitateek egiaztatu behar dituzten baldintza material eta funtzionalak, bai eta pertsonal hornidurari dagokionak ere.

3) Bestalde, laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako plazak finantzatzeko, hitzartutako plazei edo plaza publikoei

aplikagarri zaien tarifa onartzen du urtero aldundiak. Eta tarifa horren gainean kalkulatu da plaza publiko baten erabiltzailearen ekarpena (plaza hitzartua edo kontratatua izan daiteke), erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren arabera. Gizarte Politikarako Departamentuak adierazten duen bezala, tarifaren kuantifikazioan eragin ekonomiko handienetakoa izan duen elementua Gipuzkoako adinekoen egoitzen 2005-2008 hitzarmen kolektiboa izan da (GAO, 23 zk.a, 2006ko otsailaren 3koa). Hala, 2004ko tarifaren gainetik, 2005ekoa % 13,32 hazi zen, 2006koa % 6 eta 2007koa % 7 haztea aurreikusten da.

Gizarte Politikarako Departamentuak adierazi du hazkunde hori beharrezko zela lurralde osoan lan- eta soldata-baldintza komunak lortzeko, baina, aldi berean, gehiegizkoa zen aldundiaren gain zegoen ehuneko bera erabiltzaileen gain jartzeko. Hortaz, hitzarmen kolektiboaren aplikaziotik eratorritako tarifaren igoerak bere aurrekontuen kargura finantzatzea erabaki zuen, erabiltzailearen ekarpena lan-akordioaren aurreko zenbateko berberetan mantenduz, KPItik eratorritako berrikuspenak izan ezik.

Horrenbestez, Gipuzkoan laguntza behar duten adinekoentzako plazak lortzeko eta esleitzeko araubidea arautzen duen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua (GAO, 84 zk.a, 2002ko maiatzaren 8koa) aldatu da urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretuaren bidez (GAO, 201 zk.a, 2006ko urriaren 23koa).

- 4) Zerbitzu bakoitzaren kalitatearen inguruan egin ditugun informazio eskaerei dagokienez, jasotako erantzunean zerbitzuen katalogoari buruz esaten zaiguna nabarmendu nahi dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, egoitza-zerbitzuen katalogoa da Gizarte Politikarako Departamentuaren eta "Zahartzaroa" Geriatria eta Gerontologia Euskal Elkartearen lanaren bidez gauzatu den proiektuaren gailurra; Gipuzkoako Lurralde Historikoan laguntza behar duten adinekoentzako egoitzek eskaini behar dituzten zerbitzuak zeintzuk diren azaltzen da bertan zehatz-mehatz. Prestatutako agiriak zentroen funtzionamendurako baimena lortzeko indarrean dauden gutxieneko lege-baldintzak gainditzen dituen arreta-eredu bat ezartzen du, eta, era horretan, Gipuzkoako zentro guztietako kalitate maila ona orokortu nahi da. Adierazten denaren arabera, zerbitzuen katalogoa 2007ko lehenengo hiruhilekoan foru dekretu baten bidez onartzea aurreikusten da, egungo zentroak horretara egokitzeke opea has dadin.

\* \* \*

Jasotako datuak eta informazioak eskualdez eskualde hemen laburbildu eta jaso ondoren, gutxienez, zenbait ohar eta gogoeta labur egitea komeni da.

Lehenengo eta behin, erabilitako datuei buruz, errealitatearen bilakaeraren adierazle diren heinean. Egiaztatu ahal izan den bezala, tartean diren sail desberdinek ahalegin handia egin dute ahalik eta daturik eguneratuenak eskaintzeko, eta hori ez da erraza zein datatan gabiltzan kontuan hartuta. Datu guztiak ez dira eguneratze data berekoak, eta horrek zaildu egiten du konparaketa egitea edo konparaziozko tasak lortzea, baina denek aipaturiko gure txostenean jaso eta aztertutakoa baino irudi eguneratuagoa eskaintzen dute (2005 edota 2006). Horrek joera eta aldaketa nabarmenenak hautemateko bidea

ematen du; horietako batzuk jada azaldu ditugu txosten honetan. Baina, denborarekin, ustiaketa osatuagoa eta fidagarriagoa egin ahal izango da (biztanleria datu eguneratuak izatean, adibidez).

Abenduaren 31n eguneratutako datuak lortzeko zailtasuna gorabehera, egun batzuk geroago (Arartekoaren urteko txostena urtarrilean idazten baita), aldizka ahalegin hori egitea merezi duela uste dugu. Nolanahi ere, eskerrak eman nahi dizkiegu ahalegina egin duten pertsona eta zerbitzuei.

Bigarrenik, hemen landutako alderdiak testuinguru zabalagoan kokatzeko: adinekoen premiak eta eskubideak. Zentzu horretan, gogoan izatea komeni da eginiko jarraipena hiru zerbitzutan zentratu dela: etxez etxeko arreta, eguneko zentroak eta egoitza-zerbitzuak. Arrazoi pisutsuengatik aukeratu dira zerbitzu zehatz horiek azterketaren xede gisa: alde batetik, gure erkidegoan gehien hedatutako eta eskaririk handiena duten zerbitzuak direlako; beste alde batetik, adinekoak, nolabaiteko autonomiarekin, bere ingurunean bizitzen jarraitzeko aukera ematen duten funtsezko baliabideak direlako, edo, adinekoak izateaz gain laguntza behar duten pertsonen kasuan batez ere, haien oinarrizko ostatu- eta arreta-premiak asetzeko egoitzaren alternatiba eskaintzen duelako. Zerbitzu nagusiak dira, alegia.

Hala ere, badira beste zerbitzu edo politika batzuk –hirugarren adinerako bereziak batzuetan, eta beste batzuetan biztanle guztientzako direnak–, adinekoen ongizatean eragin bera edo handiagoa dutenak. Honako hauek, adibidez:

- Pentsio sistema, pertsonen autonomia ekonomikoa bermatzeko nahikoa izan daitekeena ala ez.
- Irisgarritasunerako edo eragozpenak kentzeko politikak, norberaren etxebizitza kartzela bihur ez dadin, edo mugikortasun arazoak dituzten edo ezgaitasunen bat duten pertsonen zerbitzu publikoak erabili ahal izateko.
- Osasun sistema eta bere zerbitzuak.
- Familiak edo zaintzaileak bateratu eta laguntzeko politikak, etab.

Txostenak ez ditu aztertzen esparru hauek, baina ez dira ahaztu behar, garrantzitsuak dira eta.

Bestalde, gogoan izatea komeni da askotan oharkabean pasatzen den errealtatea. Datuek adierazten duten bezala, 65 urtetik gorako hamar adinetakotatik batek bakarrik baldin badu gaur egun erakundeen nolabaiteko arreta, horrek esan nahi du hamarretik bederatzita beren kasa edo beren familiartekoen laguntzaz mantentzen direla, eta askotan horiek ere adinekoak izaten dira. Zorionez, oraindik familia asko daude nolabaiteko babesa eskaintzen dutenak. Haientzako eta, bereziki, zaintzaileentzako (gehienez emakumezkoak) kostu handia dakar horrek. Errealitate hau ia ez zen jaso gure txostenean, ez baitzen hori helburua, baina ez da ahaztu behar. Gizarte politikek kontuan hartu behar dute, bai eta ongi zaindu ere, neurri handi batean horixe baita gizartearen beraren euskarri.

Gainera, badira alderdi kualitatiboagoak ere, lantzen zailak direnak, baina etorkizunean lehenetsunez aintzat hartu beharko liratekeenak. Adinekoen tratu txarrak edo tratu desegokia aipa genezake, adibidez. Azken urteetan izan dira ekimen batzuk gai honen inguruan; Gipuzkoako Matia eta Hurkoa fundazioek sustatutako lan mintegia, kasu. Hor ere parte hartzen dute erakunde honetako langileek.

Orain arte azaldutakoarekin bat etorritik, hurrengo urteetako jarraipen lana horrelako gaietan zentratu beharko litzatekeela uste dugu; Arartekoaren funtzioetatik hurbileko gaietan, eta joan den abenduan onartutako Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Horiei Zuzendutako Arreta Sustatzeko 39/2006 Legearen zehaztapenean eta garapenean.

(I. kapituluaren, gizarte ekintzaren alorrean, hemen laburbildutakoaren informazio osagarria dago, azken urteetan jasotako kexen ikuspegitik).

### 3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEI

Adingabeak eskubidedun subjektuak dira baina, gainera, beren ezaugarriengatik, biztanle multzo bereziki ahula edo zaugarria ere badira, eta bermatu behar zaizkien berariazko eskubideak dauzkate. Horregatik, multzo horrek, Arartekoarentzat, berariazko eta lehentasunezko arreta merezi du.

Arartekoak biztanleriaren sektore horren eskubideen defentsari emandako lehentasunezko arreta, aurten, jarduera ildo desberdinetatik joan da. Nagusiki:

- I. Bereziki behartsuak diren, edo zaugarritasun handiko egoeretan dauden adingabe multzo batzuen arazo zehatzak analizatu eta jarraipena egitearen bidetik.
- II. Kexak ebaztetik eta berariazko gomendioak egitetik.
- III. Ofiziozko jardueretatik, egoera bereziki larri edo gizarte oihartzun handikoen aurrean.
- IV. Biztanleria sektore honekin lan egiten duten gizarte eragileekin, elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean aritzetik.
- V. Beren eskubideen kultura hedatzetik.

Atal honetan 2006an, haien eskubideen defentsan burutu diren jarduera nagusiak laburbildu nahi izan dira, goian esandako jarduera ildoetako bakoitza bereiztuta. Gainera, azkeneko puntu batean aurreko urteetan egindako hainbat gomendio, lege edo araudien bidez garatu behar zirenak, ekarri dira gogora.

#### I. **SEKTORE BEREZIKI ZAURGARRIEN ARAZOEN AZTERKETA ETA JARRAIPENA**

Adingabeen multzoaren barruan, aldi berean, beren eskubideei dagokienez arrisku bereziak dituzten azpi-multzo edo sektoreak daude. Ararteko erakundeak lehenetsi ditu eskaini die behartsuagoak diren edo premia bereziak dituzten haur eta nerabeen sektore horiei. Batez ere lan monografikoak eta ezohiko txostenak eta horien inguruko jarraipena eginez bideratu du arreta hori. Horrela, aurten, jarraipena, batez ere, ondoko zazpi sektore hauetara xedatu da:

- 1) Haur eta nerabe babesgabeak (arrisku eta babesgabezia egoerak).
- 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak.
- 3) Adingabe lege-hausleak (neurri judizialen mende daudenak).
- 4) Sasoikako langileen seme-alabak (eskolatu gabe daudenak).
- 5) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.
- 6) Haurrak eta nerabeak, buruko gaixotasun arazoak dituztenak.
- 7) Atxilotutako adingabeak: atxiloketaren baldintzak.

Lehen esandako zazpi sektore horiez gain, azkeneko urtean zenbait jarduera burutu dira, horiek bezain zaugarriak diren beste egoera edo sektore batzuekin lotuta: eskolatutako adingabe atzerritarrak, ijitoak, eskola jazarpena, sexu gehiegikeriak... Berariazko atal batean jaso ditugu, hemen (8).

Agerian jarriko den moduan, esandako sektore horietan guztietan ezin izan da jarraipen berdinek egin. Zenbait kasutan (adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan), aurtentxosten monografiko xehatua egin da; beste batzuetan, berriz, jarraipena administrazio eskudunei informazioa eskatzera, edo ofiziozko bisita edo jarduera batzuk egitera mugatu behar izan da.

Azkenik, lehenengo bloke honi bukaera emateko, sektore bakoitzean zeharreko ibilbidearen amaieran, hemen (9. atalean) gogoeta orokorrago batzuk aipatu ditugu, denei ukitzen baitiete, gehiago ala gutxiago.

## 1) **Familiaren babesik ez duten haur eta nerabeak**

### A) **Aurrekariak**

Ararteko erakundeak ezohiko txostena atera zuen, babesik gabeko haurren eta nerabeen arretari buruz, 1997ko irailean. Lana egiteko 150 espediente aztertu ziren (lurralde historiko bakoitzetik 50), eta gure Erkidegoan sasoi hartan zeuden 63 arreta zentroak ikustera joan ginen. Txostenak, ondorio modura, aztertutako alderdi asko hizpide zituzten 42 gomendio zehatz proposatu zituen:

- adingabeen babesari buruzko lege esparruari eta eskumenen banaketari buruz;
- zerbitzuen sarean lan egiten duten profesional desberdinei buruz;
- norbanakoen beharrei erantzuteko egitarauari buruz;
- igarpen, erabaki, parte hartze, ikuskapen eta abarretako prozedurei buruz;
- egoitza zerbitzuen antolakuntza eta funtzionamenduari buruz;
- zerbitzu horien kontrolari eta ebaluazioari buruz...

Bai txostenean bertan, bai ondorengo jarduketetan ere, nabarmen hobegarriak diren alderdiak edo lehenesten diren beharrak aipatzeko orduan, gure erakundeak honako hauek azpimarratu ditu, bereziki:

- araudi erkide bat behar da, arretarik gabeko adingabeen arretaren funtsezkoa alderdiak arautzeko, gure Erkidegoaren multzoan;
- litezkeen erantzun desberdin guztiak baliatu behar dira (familietakoa harrera, premialdietako zentroak, eguneko zentroak...);
- lurralde historiko desberdinen artean erakundeek ematen dituzten erantzunetan alde handiak igarri dira;
- babesgabezia egoerak igartzeko mekanismoak hobetu behar dira;
- oinarriko gizarte zerbitzuak, hezitzaile espezializatuak eta komunitateko beste zerbitzu batzuek harremanetan eta koordinatuta egon behar dute;
- irteerako, beren jatorrizko edo gizarte autonomiako esparruetan gizarteratzeko egitarauak;
- haur eta nerabeek eta beren familiek parte hartzeko mekanismoak erraztu behar dira;
- beren zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldioroko kontrola bideratu behar dira.



Txostena aurkeztu zenetik, urtero-urtero, gure erakundeak egoeraren jarraipena egin du, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail edo erakunde esku-dunen aurrean, aldioroko bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera etxe edo zentroetara... Eusko Legebiltzarrarentzako ohiko txostenetan, urtero-urtero, jarduera horien emaitza laburtu da.

Gainera, duela bost urte, txostena egin zenetik nahikoa denbora joan zela iritzita, eta haurrak babesteko behar eta politiketan izandako aldaketak kontuan hartuta, ahalegin berezia egin zen informazioa eguneratzeko eta, horrela, gauzak zelan joan diren eta zer lortu den baloratu ahal izateko. Horretarako, egindako bisitez gain (batez ere bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako eta jokabide arazo larriak dituzten nerabeentzako zentroetara), administrazio eskudunetako bakoitzarengana jo genuen, eta informazio xehatua eskatu genien, ondoko atalei buruz:

1. Urtebetetik gorako indarraldia duten plan eta egitarauak, familietan esku hartzeari, bitarteko zerbitzuei, familien banaketei eta babes sistematik irteteari buruz.
2. Arreta zuzeneko lantalde teknikoetan, profesioaletan eta lantaldeen arteko koordinazioan sartutako aldaketa esanguratsuak.
3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketa esanguratsuak (batzorde teknikoak, erabakitzeko organoak...).
4. Arrisku eta babesgabezia egoerak igartzeko sartutako hobekuntzak.
5. Hartutako adingabeen bizikidetza arauak eta parte hartzeko eta kexatzeko mekanismoak finkatzea.
6. 2000 eta 2001 urteetako espedienteen eta artatutako biztanleen datuak.
7. 2000 eta 2001 urteetako familien bereizketen babes neurrien gaineko datuak (egoitzetako harrerak, familietako harrerak, adopzioak...).
8. Nazio eta nazioarteko adopzioen gaineko berariazko datuak.
9. Egoitza zerbitzuen sarearen datuak, tamainaren, titularitatearen, edo zentro bakoitzaren zereginaren arabera.
10. Zerbitzuen eta egitarauen funtzionamendua ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzera begira sartutako hobekuntzak.
11. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboari buruzko berariazko datuak.

Zenbait ataletan, eskatutako informazioa datu kuantitatiboetan edo adierazgarrietan zehazten da, hasierako txosteneko datuekin konparazioak egiteko moduan, gauzak zelan bilakatu diren ikusteko. Jasotako informazio piloa 2001eko txostenean islatu zen, laburtuta, lurraldez lurralde. Gainera, gogoetako amaierako atal batean, ondorio, joera eta alderdirik aipagarrienak jaso ziren (ikus. 2001eko txostena, 1.1.5 atala). Aipatutako txosten horretan xeheki jaso eta aztertutako datu orokor horiek alboratuta, azkeneko urteotan, gure erakundearen arreta eta jarraipena, bereziki, bakarrik dauden adingabe atzerritarrengana bideratu dira.

Gainera, iaz, Arartekoak lehentasunezko arreta eta jarraipena eskaini zizkien zenbait egoera bereziki larriri, hala nola, J.C. nerabeak Hondarribian bere buruaz beste egin izanari, eta babes zentro batetik ihes egindako bi nerabereren hilketari. Horren guztiaren berri aurreko txostenean eman genuen (ikus. 2004ko txostena, I. kap., 1.1.5. atala).

Azkeneko urte honetan, hurrengo atalean landuko dugun bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko txostena eta jarraipen zereginak albo batera utzita, Arartekoaren esku hartzeak oso arazo zehatz bat izan du jomugan; ez da oso gai ezaguna eta, ziurrenik, gehituz joango da edo gehituz joan daiteke: beren amek jasandako tratu txarrek zuzenean eragiten dieten adingabeen berariazko arreta.

## B) **Azkeneko urte honetako jarraipen jarduketa nagusiak**

Aurtengo jarraipen jarduketei dagokienez, bi gai baino ez ditugu aipatuko hemen: topaketa guneak eta adopzioak.

### **Topaketa guneak**

Azkeneko urte honetan kexa desberdinak jaso ditugu, eta bilera bat baino gehiago egin dugu elkarte desberdinekin, topaketa guneen arazoaren inguruan. Gipuzkoakoak ziren denak.

Agertu diren arazoak, funtsean, ondokoekin dute zerikusia:

- Topaketa guneak kudeatzeko moduarekin.
- Zerbitzuaren jarraitasunaren bermeekin.
- Administrazio eta sail desberdinen konpromisoa ere desberdina dela, zerbitzuari eusteko orduan.
- Ez dagoela topaketa gunerik berariazko harrera egoera batzuetarako (hartutako adingabearen eta bere familia biologikoaren arteko harremana)...

Arazo horietako asko zerbitzu horiek arautuko dituen oinarritzko araudirik ez dagoelako sortzen dira, edo zerikusia izaten dute horrekin, zein urtetan zerbitzu horiek arautzea, antolatzea edo betetzea zein administrazioari zegokion garbi ez izatearekin.

Arartekoak gai honetan esku hartu duenean, Kidetza elkarteak, Gipuzkoako Harrera Familien Elkarteak eta norbanako batzuek, eskainitako zerbitzuak gogobetetzen ez zituelako, edo irizpide batzuekin kritikoak zirelako, mahai gainean jarri dizkioten arazoei erantzuten saiatu da. Nabarmentzen dira, halaber, genero indarkeria jasan duten eta famili barruko indarkeria jasan duten emakumeentzako ACOVIDEM Gipuzkoako elkartearen bidez gure erakundearengana jo duten emakumeek jarritako kexak. Emakume horiek ere Gipuzkoako famili topaketarako guneen funtzionamenduarekin ados eta pozik ez daudela jakinarazi digute, ez dituztelako, beren esanetan, bisitak zelan doazen ondo kontrolatuko denik ziurtatzeko behar beste neurri hartzen eta, horrek, senar ohiekin, indarkeria sexista tarteko, banaketa prozesuan sartuta dauden eta seme-alabekin bisitetara joaten diren emakumeak kezkatzen ditu.

Erreklamazioa egin digun elkarteak Gipuzkoako topaketa guneak kudeatzen dituen erakundeak luzatzen dituen txostenak ez direla bat ere objektiboak ere salatu du, bereziki. Txosten horietan bisitak zelan joaten diren kontatzen dute eta, salaketagileen esanetan, bisiten garapena deskribatzera mugatu beharrean, sarritan balorazio elementuak ere sartzen dituzte, profesionalen abal egokirik gabe eta, adingabe horien arretaz arduratzen

diren oinarrizko gizarte zerbitzuen irizpidearen kontra eginez ere. Salaketagileen kezka nagusia da txosten horiek agintari judizialei ematen zaizkiela, eta erabakigarriak izan daitezkeela banaketa edo dibortzio kasu arazotsuetan seme-alaben zaintza zein bisita erregimena finkatzeko orduan.

Kexa desberdin horiek ikusita, gure erakundeak Gipuzkoan famili topaketetarako gune horiek zelan antolatzen diren ikertzea erabaki du, zein erakundek kudeatzen dituen, zer irizpideren arabera adjudikatu zaien zerbitzu horren kudeaketa, eta ea kudeaketarako jarritako irizpide edo ildo bereziak betetzen ari diren ala ez argitu nahirik. Topaketa gune horiek, egun, Kidetza elkarte pribatuak kudeatzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saisetik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen dituen laguntza publikoen bidez finantzatzen du zerbitzua. Elkarte horrek baiesten du zerbitzu hori profesionaltasunez eta objektiboki kudeatzen dutela, adingabeen segurtasuna bermatuz, Ertzaintzarekin horren gainean sinatutako protokoloa kontuan hartuta. Esan dute, halaber, salaketa horien jatorria zaintza duten gurasoak topaketa gune horietara, epaileak ebazitako bisitak egitera, borondate handirik barik joaten direla da.

Gure erakundeak, Eusko Jaurlaritzako Eregimen Juridikoko Idazkaritza Nagusiak egindako txosten juridiko baten bitartez, jakina zuen gai honetako eskuduntza Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarena dela, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala zehazten dituen azaroaren 15eko 315/2005 Dekretuaren 14.a) eta 14.s) artikuluen, eta Haurrak eta Nerabeak Artatu eta Babesteko otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 3/2005 Legearen 47 eta 104.1 artikuluen arabera. Horrela, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saisetik esan ziguten, eskuduntza hori berena izanik, 2006an familien topaketarako guneak araupetzeko araudia egingo zutela. 2006 urtea joan da baina ez dute araudirik prestatu. Informazio eske joan gatzazkienean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak topaketa gune horien funtzionamendua arautzen dituen Dekretuaren zirriborroaren printzipioak aipatu dizkigu eta,aldi berean, argitu du Sailak 2006aren amaieran Foru Aldundiekin egin zuen bilera batean, erabaki zutela bereiztuko zituztela, batetik, haurrentzako babesak, harrera eta egoitzetako egitarauen erabiltzaileentzat izatekoak diren eta Aldundien mende dauden baliabideak eta, bestetik, sistema judicialari lotutako familientzako topaketa gune izateko baliabideak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren esanetan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin zerikusi zuzena baitute. Alabaina, geroago ziotenez, gai hori ez dago Sail horren eskuduntzen artean eta, hartara, badirudi Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartuko duela horren ardura oso- osoa. Horregatik, gure erakundeak famili topaketako gune horiek, gure iritziz, etorkizunean zein irizpiderekin kudeatu beharko liratekeen jakinarazi gura dio Sailari.

Egun alor honetan aurkitzen dugun panorama nahasia da, eta prekariotasun eta segurtasun juridikorik gabeko egoeraren adierazgarria da, gure iritziz. Egoera hori Gipuzkoako topaketa guneetan (salaketa desberdinak jaso ditugu hemen gune horiek direla-eta) bereziki nabari da, baina beste lurraldeetan gune horiek homogeneoki ez kudeatzean ere igartzen da. Horregatik, gure asmoa esparru horretan ardura edo erantzukizunik duten administrazio desberdinekin harremanetan segitzea da, bereziki Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin, oraingo egoera berrikus dezaten, eta Euskadiko topaketa guneen sistema osora funtzionatzeko irizpide gutxieneko eta erkideak jar daitezzen eskatzeko, adingabeen interesa lehenetsiz, eta gurasoei berdintasunezko tratamendu objektiboa eskainiko dien prestazio egoki, profesionalizatu, eraginkor

eta lurraldez lurraldekoa ziurtatuz eta, ondorioz, adingabeentzako erabat neutrala den eremua bermatuz. Nolanahi ere, Gipuzkoan jaso ditugun salaketak ikusita, eta aurki datorren arauketatik etorriko den kudeaketa sistema berria finkatzen ez den bitartean, komeniko litzakete, gure ustez, topaketa gune horien funtzionamendua kontrolatzeko mekanismoren bat artikulatzea.

Txosten hau interako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saileko Gizarte Ongizateko zuzendaritzako hainbat arduradunekin egin genuen bilera batean, irizpide hauekin bat datozela eta gai horri buruz, topaketa guneak baliabide publiko modura kudeatu behar direlakoan, prestazio sistema artikulatzeko asmoa daukatela jakinarazi ziguten. Horregatik, pentsatzekoa da 2007an esparru hori araututa geratuko dela eta, esandakoaren haritik, topaketa guneen oraingo panorama arauen bidez finkatuko duten parametro berrietara egokitzeari ekingo zaiola.

### **Adopzioak**

2006an hainbat erreklamazio jaso genituen Errusia eta Txinako haurren nazioarteko adopzio espedienteen gainean.. Lehen kasuan, tramitazio luze eta garestiaren ostean, sorterrietan prozedura judizialak motibo argirik barik geldituta zeudelako kezkatuta zeuden hainbat bikote etorri zitzaizkigun. Bigarreanean, erreklamaziogileak kezu ziren, foru aldundiek, ados, adopziogilearen egokitasuna egiaztatzeko eskatzen duten baldintza batengatik, hau da, adopziogileen eta adoptatuaren artean gehienez 42 urteko adin diferentzia egongo dela.

Garrantzitsua da, honen gainean, gure erakundera etortzen diren pertsonak adopzioa eskatzen dutenak izan arren, guk esparru honetan esku hartzen dugunean ez dugula “adoptatzeko eskubidea” berez babes gai hartzen. Gure ikuspegitik, adingabea da eskubide subjektua eta, ondorioz, horren gainean egin dezakeguna haurrak adopzioak bere garapenari kalterik egin ez diezaion duen eskubideak zehaztuko du. Ohartzen gara, orobat, adoptatzeko epe eta baldintzen zentzuzkotasunari buruzko gure irizpenek kontuan hartu behar dutela erakundeen nahia haurren eskubide hori ahal den neurrian bermatzea dela.

Ikuspegi horretatik, gestioak egin ditugu prozedurak arintzen saiatzeko eta, aldundiek adin tarteari buruz jartzen duten mugari dagokionez, foru agintariak irizpide horiek malgutu behar dituztela iruditu zaigu. Horri buruz prestatu dugun eta txosten honetan oso-osorik jaso dugun gomendioan xeheki argudiatzen den modura, onena litzateke adin tarte horrek muga finkorik ez izatea, ezpada belaunaldi tarteak adingabearen garapenean zelan eragingo duen kasu bakoitzean adin tarte eta gainerako inguramenduak aztertuz aurreikusi eta aztertzea.

## **2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak**

### **A) Aurrekariak**

Babesik gabe dauden nerabeen sektorearen barruan, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak ezaugarri eta behar bereziko multzoa dira. Horregatik, azkeneko bederlatzi urteotan Arartekoak lehenetsunez behatu die, ofiziozko jarduera ugarirekin, zerbitzueta

profesional eta arduradunekin bilerak eginez, harrera zentro guztietara aldioro joanez... Horren guztiaren berri aurreko urteetako txostenetan eman dizuegu.

Azkeneko urtean jarraipen lanak biziagotu ziren, eta ezohiko txostena ere egin zen, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari irailaren 7an eman zitzaiona, eta Giza Eskubideen eta herritarren eskarien Batzordean azaroaren 16an eztabaidatu zutena. Lan horren lehenengo laburpentxo bat urteko txosten honetxen IV. kapituluak daukaze.

- Gipuzkoako zentroetan sortutako auzietan.
- Entrega polizialen gaian.
- Iruña Okan zentro berria irekitzeko proposamenak piztu zuen gatazkan.

## B) Azken urte honetako jarraipen jarduketak nagusiak

Azkeneko urtean, zoritxarrez, bakarrik dauden adingabeen alorra bereziki arazotsua izan da, eta Arartekoari sarritan esku harrarazi dio, oso esparru desberdinetan:

- bisita berriak lurralde historiko desberdinetako harrera zentroetara;
- ofiziozko jarduketak, egoera arazotsuen ondorioz;
- bilerak harrera zerbitzuetako arduradun instituzionalekin;
- bilerak famili bateratzeen prozesuetan eta araugintzan eskudun diren Gobernuko lurralde ordezkariekin;
- bilerak eta informazio trukea etorkinak babesteko elkarte desberdinekin;
- hobekuntza edo koordinazio proposamenak, Estatuko arartekoari zein beste autonomi erkidego batzuetako arartekoei zuzenduta;
- prestakuntza edo gizarte sentsibilizazioko jardunaldietan parte hartzea;
- ofiziozko jarduketak inplikaturako beste sail edo zerbitzu batzuetar zuzenduta...

Horrekin guztiarekin jarraipena egiteko informazio baliagarri ugari geneukan. Alabaina, gaia gizartean garrantzi eta oihartzun handia hartzen ari zela kontuan hartuta, baita, barbarako, harrera zerbitzuetan etengabe aldatu diren gauzak ere ikusita, kome-nigarri begitandu zitzaigun foru aldundi bakoitzarengana ofizioz jotzea, babes sistemen arduradun gorenak direlako, hainbat datu eta informazio eguneratzeko.

Kasu honetan, jarraipen ondoretarako, gaia konplexua eta txostena eta gomendio-ak luzeak direnez, gomendio bakoitzari buruzko informazio zehatz eta xehatua eskatu beharrean, kome-nigarriago begitandu zitzaigun bilakaeraren adierazle, edo lehendik genituen beste informazio batzuen osagarri edo kokagarri izango zitezkeen kopuruzko zenbait datutan zentratzea.

Datuak eskatu genizkien Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, Giza Eskubide, Lan eta Gizarteratze Sailari eta Gizarte Politikarako Sailari, biek dituztelako eskuduntzak eta erantzukizunak alor honetan.

Azkeneko bi urteetako zenbakizko datuei dagozkienez (2005 eta 2006; gogoan izan ezohiko txostenean aztertutako azkeneko datuak 2004koak direla), ondoko hauek eskatu genituen:

- 1) Sail bakoitzaren mendeko baliabideen sarean egindako aldaketak, eta baliabideen egoera 2006ko abenduaren 31n:

- Adingabeen sektorearen eskueran jarritako baliabideen zerrenda, eta edukiera, kokapen, ezaugarri, instalazioen egoera, egokitasun, edo adingabeen beharrei erantzuteko gaitasun, eta beraiantzat beren beregi ez diren beste baliabide batzuen erabilpenari buruzko oinarrizko datuak.

#### 2) Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan egindako aldaketak:

- Kudeaketaz arduratzen diren elkarte edo erakundeak, indarreko itunen ezaugarriak, ikuskapen mekanismoak, figura profesional berriak sartzea, arreta ratioak, kontratatutako segurtasun zerbitzuak...

#### 3) Artatutako herritarrei buruzko datuei dagokienez:

- Urtean zehar zenbat adingabe "berri" hartu diren (harrera berriak, 2005ean, 2006an).
- Urtean zehar zenbat adingabe hartu diren guztira (2005, 2006).
- 2005-12-31 eta 2006-12-31n hartutako adingabeen kopurua.
- Emantzipatzeko baliabideetan artatutako gazteen kopurua, 2005-12-31n eta 2006-12-31n.
- Sailaren balorazioa, artatutako biztanleen bolumena erabilgarri dauden baliabideen erantzun ahalmenaren aldean.
- Artatutako adingabeen ezaugarri batzuei buruz ikusitako aldaketa esanguratsuak (adina, jatorria, esperantzak, beharrak...) eta zentro eta baliabideetan izandako ondorioak.

#### 4) Adingabeen egoerari eta administrazioeko erregularizazioari dagokienez:

- Dokumentuen tramitazioaren ardura duten zerbitzuak.
- Urtean zehar (2005, 2006) gain hartutako tutoretza kopurua.
- Urtean eskatutako bizileku baimenen kopurua (2005, 2006).
- Urtean lortutako bizileku baimenen kopurua (2005, 2006).
- Bizileku baimena lortzeko denbora, batez beste (2005, 2006).
- Urtean eskatutako lan baimenen kopurua (2005, 2006).
- Urtean lortutako lan baimenen kopurua (2005, 2006).
- Lan baimena lortzeko denbora, batez beste (2005, 2006).
- Sailak familiak berriro biltzeko egindako eskariak, eta urtean zehar zenbat famili biltzetan lagundu behar izan duten (2005, 2006).

Datu eta kontu horiek alboratuta, gure txostenean beste administrazio eta sail batzuek ere lagundu behar zutela azpimarratzen genuen. Izan ere, gure gomendio batzuk, zehazki, hezkuntza administrazio, osasun sistema, gazteentzako justizia sistema, polizi zerbitzu edo udal zerbitzuetara (errolda, gizarte zerbitzuak...) bezalako instantzietara zuzentzen ziren. Arartekoa ofiziozko jarduketak bideratzen ari zen halako alor batzuetan, erakunde eskudunen aurrean. Horregatik, informazio gehigarri modura, sail bakoitzari esandako instantzia horietatik jasotzen duten laguntzari eta instantzia horien inplikazio handiagoa, edo laguntza

edo koordinazio handiagoa behar edo eskatuko luketen alor, arazo edo beharrei buruzko balorazioa eskatzen ari gintzaizkien.

Gainera, Gipuzkoaren kasu zehatzean, “bakarrik dauden adingabe atzerritarren arretarako baliabideen egoerari buruzko txostenean” planteatzen zituzten puntuetakoren bat berrartuz, 2005eko maiatzaren 30ean, besteak beste, honako informazio zehatz hauek eskatu genizkien:

- Beste sail eta zerbitzu batzuekin bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin jarduteko protokoloa betetzearen inguruan koordinatzeko izandako bileretan (fiskaltza barne) lortutako emaitzak.
- Protokolo horren oraingo testua, edo egin zaizkion aldaketak.
- Premiazko harrera baliabideetan gehienez sei hilabete egoteko muga mantentzen den, eta ea, Gizarte Politikarako sailarekin ados, “zentzuzko erantzun eperik finkatu den bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin egiten diren egoitzetako harreretarako proposamenentzat”.

## 1. **Lurralde historiko bakoitzaren datuak, aldaketak eta balorazioak**

### 1.a. ***Arabako Lurralde Historikoa***

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailaren gure informazio eskaeraren erantzuna urtarrilaren amaieran jaso genuen, eta mahairatutako gai bakoitzaren gaineko informazioa ematen zaigu. Jarraian, bertan azaldu dizkiguten datu nagusiak laburbilduko ditugu.

#### 1) Baliabideen sarean sartu diren aldaketei buruz eta 2006ko abenduaren 31ko egoerari buruz.

Sailaren erantzunean bereizten dira berariazko baliabideak eta berariazkoak ez direnak eta, bakoitzaren gainean, ezaugarriak, mugak... aipatzen dituzte. Horrela:

- Baliabide espezifikokoak:
  - Zabaltzen zentroa-Gurutze Gorria: lehen harrerarako, 12 plaza.
  - Zabaltzen zentroa-Carlos Abaitua: autonomiarako prestakuntzako bigarren faserako, 6 plaza.

Lehen kasuan, sailaren balorazioa – Arartekoaren erakundearena bezala – da Gurutze Gorriaren eraikineko instalazioetan ez dagoela adingabeen behar material eta hezkuntzako beharrei behar bezala erantzuterik. Carlos Abaitua aterpetzeko instalazioetan, berriz, arreta egokia emateko aukera dago (aterpetxearen beraren barruan horretarako gaitutako pisua).

- Baliabide ez-espezifikokoak:
  - Bosco Etxea zentroa (neska adingabe atzerritarrentzat, babesgabe dauden beste nerabe batzuekin batera).
  - Sareko egoitza baliabide orokorren sarea, lehen harreraren ostean erabiltzen dena (adibidez, egun, Pablo Uranga etxea, edo Castillo de Portilla zentroa).

- Egoitza osteko jarraipen egitaraua, diru, hezkuntza eta kultur babesaren ematen diena.

Sailak erantzunean aipatu ez arren, komeni zaigu gogoratzea, hemen, Arabako Foru Aldundiak hainbat ahalegin egin dituela Zabaltzen-Gurutze Gorria zentroaren mugak gaintzeko, lehen harrera baldintza hobekien dituzten beste zentro batzuetara eramanez, baina ez dute oraindik ezer lortu, kritikak edo ukoak ez bada.

2) Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan egin diren aldaketei dagokienez, ondoko elementu hauek nabarmenduko ditugu:

- Zabaltzen programa kudeatzen segitzen du, lankidetzaren itun baten bidez, 2003tik, San Francisco de Sales elkartearekin.
- Gizarte Ongizateko Foru erakundeak behar duen babes teknikoaren ematen dio elkarteari. Egitarauaren gainbegiratzeko teknikoaren ere berari dagokio eta, zeregin hori, batez ere, itunaren eta zentroen eta kasuen jarraipena egiteko aldioroko bileren bitartez burutzen du.
- Zabaltzen-Gurutze Gorria zentrorako segurtasun iraunkorren zerbitzu bat kontratatu da, eta 2007rako figura profesional berria (psikologoa) sartzea aurreikusten da.
- Gurutze Gorriarekin alfabetatzeko eta eguneroko bizimodurako tailerren jarduerak garatzeko dagoen lankidetzaren ituna mantentzen da, eta 2006an itun berria sinatu dute Gasteizko Konpentsazio Hezkuntza eta Okupazio Prestakuntzarako Partzergoarekin.

3) Artatutako herritarrei dagokienez, honako hauek dira daturik oinarritzkoenak:

	<b>2005</b>	<b>2006</b>
– urtean zehar hartutako adingabe “berriak .....	42	38
– urtean zehar guztira hartutako adingabeak.....	54	54
– abenduaren 31n hartutako adingabeak .....	16	16
– emantzipatze baliabideetan hartutako adingabeak 12/31n.....	10	16

Sailak berak dauden baliabideen erantzun ahalmena eta artatutako den biztanleriaren bolumena baloratzean, ikusten duena da zentroak erantzuteko duen ahalmena ez dela beti lehen harrerarako nahikoa izaten eta, Zabaltzen-Gurutze Gorria zentroaren esparruan hezkuntza jarduketak antolatzeko zailtasunak daudela, espazioaren ezaugarrien eta ordutegi erabilgarrien aldetik. Gabezia hori nabarmenagoa da adingabeen karakterizazioa ondoren esango dugun modura aldatu denean.

Artatutako adingabeen ezaugarrietan igarritako aldeketei dagokienez, hauxe azpimarratuko genduzte: zentroetan denbora gehiago ematen dutela, kalean bizitzearen eskarmentu handiko adingabeak gehitu direla (2005), jatorrizko familien oso mende dauden adingabeak, landu bako migrazio proiektua dutenak (2006), eta bizileku baimenaren bila ari den eta behin baimena duela famili ingurunera itzultzen den multzoa gehitu direla.

4) Adingabe horien administrazio egoera eta erregularizazioari dagokienez, hona hemen, funtsean, emandako datuak:



	<b>2005</b>	<b>2006</b>
– Urtean zehar gain hartutako tutoretzak .....	16	12
– Eskatutako bizileku baimenak .....	13	12
– Lortutako bizileku baimenak.....	7	11
– Bizileku baimena lortzeko denbora, batez beste.....	7 hilabete	Urtebete
– Eskatutako lan baimenak		
egoitza harrerako gazteek .....	1	1
jarraipeneko gazteek .....	6	1
– Lortutako lan baimenak		
egoitza harretako gazteek .....	1	1
jarraipeneko gazteek .....	6	1
– Lan baimena lortzeko denbora, batez beste .....	20 hilabete	28 hilabete
– Sailak eskatutako famili biltzeak.....	--	--
– Sailaren laguntza behar izan duten famili biltzeak		
familiak berak eskatuta .....	--	3*
poliziak eskatuta .....	1	1**

Lehen kasuan estatuan bizi diren senideekin bildu dira. Bigarreanean, Gobernuaren lurralde ordezkariari Kataluniako auzitegiaren ebazpena jakinarazi zaio, Kataluniatik Arabara bere kabuz joan zen adingabe bat familiarengana itzultzeko agindu baitzuen. Epailaren erabaki hau betetzea izapidetzen ari da oraindik.

5) Sailak beste instantzia batzuekin elkarlanean aritzeari buruz, eta inplikazio handiagoa edo koordinazio hobea eskatuko luketen behar edo arazoei buruz egiten duen balorazioari dagokionez, hauxe da sailak bakoitzari buruz esplizituki esan diguna:

- Hezkuntza Administrazioa: lankidetzaren positiboa (eskolatzea). Zailtasunak HPZetara sartzeko abendutik aurrera, eta INEMeko ikastaroak egiteko.
- Osasun sistema: lankidetzaren positiboa (TIS, analitikak). Adingabeen diagnosian eta adina finkatzean berehalakotasuna hobetu behar da.
- Auzitegi sistema: hiru une edo egoeratan beharrezkoak diren hobekuntzak planteatzen ditu: sarrerak (fiskaltzak harrera zentro batean sartzeko ebaztea, babes erakundearekin aurretiaz inolako diligenziarik bete barik), ahozko saioak (azkarragoak, ustezko delitu jokabideen aurrean), eta neurri judizialak betetzea (babes-erreforma koordinazio iraunkorreko neurrien sistema).
- Polizi zerbitzuak: koordinazio balekoa. Zenbait agentek fiskalak adingabe bat inon sartzeko agindua ematen duenean zein zerbitzutara jo behar duten argiago jakin beharoko lukete, baita kasua nora bideratu behar duten hobeto koordinatzen ere, inoiz adingabea Adingabearen Sailera eraman eta han utzi baitute, zegokion teknikariak kasua hartu arte egon barik. Nolanahi ere, kasu puntualak baino ez dira.
- Udal zerbitzuak: oso lankidetzaren ona udal sail desberdinekin: gizarte alorreko larrialdiak, errolda, herri eta auzo etxeetako arduradunak, garraioetarako txartelak lortzea, eta abar.
- Gobernuaren lurralde ordezkariak: Sailarentzat kezkarria da gobernuaren lurralde ordezkariak tutoretzapeko adingabeen dokumentazioari buruz eman-

dako erantzuna, hasierako bizileku baimena emateko babes zentroan gutxienez bederatzi hilabete emanaraztea oso interpretazio murriztailea egitea baita, bere ustez. Arartekoaren erakundearekin bat dator esandako bederatzi hilabete horiek baimena emateko epe goren beharko luketela, eta ez eskari prozesua abiatzeko gutxienerako epea.

Bizileku baimenak berriztatzeari buruz, kezkatzeko beste elementu bat ere planteatzen du. Gizarte eta hezkuntza ikuspegitik sailaren esku hartzea ez da adinez heldu bihurtu eta, ondorioz, tutoretza agortzen denean amaitu behar: babes programa adingabea heltzean hasi eta gaztea, heldu, bere kabuz bizitzeko gai dela erakusten duenean amaitzen da. Kasu horietan, ordea, ez dira sailak gazteen harrera osteko jarraipeneko programako parte hartzeari buruzko egiaztagiririk onartu, haien beharrak asetzeko diru laguntzekin, lehenago onartu baziren ere. Hori kaltegarria da lan aurreko gaikuntza prozesuetan ondo parte hartu duten gazteentzat, bizileku baimena berritzea ukatzen dietenean kolpe handia jasaten baitute, kalte egiten die gazte horiek ikasteko duten motibazioari, etorkizunik ez dutelako, eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak inbertituz gizarteratu eta laneratzera xedatzen den tutoretza eta gizarte zereginari ere, adingabe direnengan ez eze, beren kabuz bizitzeko modu normalizatua lortzeko zorioan daudenean ere.

Gai hautako batzuk jorratu zituzten Arartekoak eta Arabako Gobernuaren lurralde ordezkariak bilera batean.

### 1.b. **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak urtarrilaren erdialdera erantzun zigun, eta informazio horrek, funtsean, ondoko elementu hauek biltzen ditu:

- Haurren Zerbitzuak egindako txostena, gure informazio eskarian planteatutako bost gai multzoei xeheki erantzuten diena.
- Bazterketaren kontrako Borroka Zerbitzuak egindako txostena, emantzipatze programak hizpide nagusia.
- Hainbat dokumentu erantsi, aipatutako bi txosten horietako lehenari:
  - Lankidetzeta ituna Bizkaiko Foru Aldundiaren (Gizarte Ekintza Saila) eta Tercios Capuchinos erakundearen artean (Zabaloetxe-Loiu zentroa eta Santurtziko Casa del Mar kudeatzeko).
  - Berdin Bilboko Landalan Elkartea lan eta gizarteratzeko elkartearekin (lehen harrerako zentroa kudeatzeko: hasieran Berrizen eta, ondoren, Zornotzan) (2006-12-15).
  - Berdin Berritu Hezkuntza Elkartarekin (Barakaldon egoitza zentro bat kudeatzeko) (2006-5-8).
  - Aurreko ituna aldatzea (bi plaza gehitzeko) (2006-11-13).
  - 56 orrialdeko dokumentua “Bizkaian MENAS pertsonak hartu eta gizarteratzeko ibilbidea” (2005eko abendukoa).

Jasotako informazio guztitik jarraipena egiten ari gatzazkien gaiekin loturarik zuzenena duten datuak atera eta laburbilduko ditugu hemen.

1) Baliabideen sarean egindako aldaketei, eta 2006ko abenduaren 31ko egoerari buruz.

Ondo dakigunez, bereziki 2001etik aurrera, bakarrik dauden adingabeen arretara xedatutako baliabideak haziz joan eta behar berrietara egokitzen saiatu dira. Azkeneko urtean egin diren aldaketa nagusiak hauek izan dira:

- Lehen harrerako zentroa Berrizetik Zornotzara eraman dute, 50 plazaraino gehituz.
- 2006an bizikidetza atal berria ireki zuten Barakaldon (hasieran 12 plaza zituen, eta gerora 14).
- San Adrianeko bizikidetza atala handitu, 12 plazaraino, eta Santurtzira eramanda.
- Irailean ikuskatutako bi atal berri ireki zituzten Bilbon (Mina del Morro) eta Santurtzin (Casa del Mar), 6 eta 10 plazarekin, hurrenez hurren.
- Urriari larrialdietarako baliabide berria ireki zuten, bakarrik dauden atzerritarrak hartzeko, Artxandan, 50 plazarekin.

Zentroak, etxe funtzionalak ezik, adingabe atzerritarrentzat dira, 12-18 urtetakoentzat beren beregi. Ikuskatutako etxeak 16 eta 18 urte arteko adingabe atzerritarrentzat dira. Era berean, Artxandako larrialdietarako dispositiboan 16 eta 18 urte bitarteko atzerritarrak hartzen dira, gainerako baliabideak beteta daudenean.

Horrela, bada, 2006an zehar adingabe hauentzako harrera baliabideak, Bizkaian, nabarmen gehitu dira, ondoko koadroan laburbiltzen dena izateraino:

ZENTROA	Plaza hutsak	Plaza okupatuak	KUDEAKETA
<b>Zabaloetxe</b>	72	75	GUFE-TT Capuchinos
<b>Amorebieta</b>	50	48	Landalan
<b>El Vivero</b>	50+	63	Urgatzi
<b>Aukera</b>	14	14	Berriztu
<b>Mina del Morro 1</b>	12	12	GUFE
<b>Mina del Morro 2</b>	6	6	GUFE
<b>Basauri</b>	7	7	GUFE
<b>Zurbaran</b>	13	13	GUFE
<b>Larrako-Torre</b>	8	8	Landalan
<b>Casa del Mar</b>	10	10	GUFE-TT Capuchinos
<b>Etxeen sarea</b>	Zehaztu gabe	14	GUFE
<b>GUZTIRA</b>	<b>242+</b>	<b>270</b>	---

Kolektibo honentzat beren beregi xedatutako baliabideez gain, zenbait kasutan, batez ere adingaberik txikienekin, gainerako laguntza sarea ere erabiltzen da, baita, orokorrago, erabilgarri dauden komunitateko baliabideak ere.

Instalazioen baldintzei dagokienez, sailaren erantzunean horietako batzuetan zelako konponketa edo egokitze lanak egin direla aipatzen da.

2) Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan egindako aldaketei dagokienez.

Sailaren erantzunean gogoratzen da, batetik, harrera zentro guztiek funtsean bete beharko lituzketen baldintzak arautu beharko lituzkeen dekretua oraindik onartu bariarik dagoela, eta Arartekoak dekretu hori onar dezaten eskatu berri diela. Beste alde batetik, zentroen kudeaketa arautzeko gakoak diren itun ereduak erantsi dituzte.

Izan ere, eranskin modura bidaltzen zaizkigun itunen testuan xehetasun handiz jasozten dira adingabeen arreta zuzena bermatzeko giltzarri diren alderdi asko eta asko. Horrela, esate baterako,

- Zer den, zehazki, baliabidea kudeatzen duten elkarteek eskaini behar duten asistentzia eta hezkuntza arreta osozkoa.
- Bete behar diren adingabe/hezitzaile gutxienerako ratioak.
- Erabiltzaileen eskubideen araudia, edo erreferentzia izan behar duen kexa sistema.
- Datu pertsonalen babesari buruzko irizpideak.
- Erakunde kudeatzaileak Gizarte Ekintza Sailari zer dokumentazio aurkeztu behar dion, jarraipen eta kontrol elementu gisa, eta abar.

Sailaren erantzunean zentrorik handienetan ezarritako zaintza zerbitzuen kontratazio sistema edo gazte hauen emantzipatze egitaraua ere aipatzen dira, baina kontu horiek atal honen amaieran jorratuko ditugu.

3) Artatutako biztanleei buruzko datuei dagokienez:

	<b>2005</b>	<b>2006</b>
- Urtean zehar hartu diren adingabe "berriak" .....	365	471
- Urtean zehar guztira hartu diren adingabeak .....	461	610
- Abenduaren 31rako hartutako adingabeak .....	141	270
- Emantzipatze baliabideetan dauden adingabeak 12/31n .....	112	42

Sailari eskatu zitzaion zenbat jende artatu den erabilgarri dauden baliabideen erantzun ahalmenarekin alderatuz baloratzeko, baita zertan aldatu diren artatutako adingabeen ezaugarriak eta horrek zentroetan zer ondorio izan dituen.

Sailaren erantzunean datu ugari eta hainbat gogoeta azaltzen dira, lehen gaiari buruz. Horrela, honela dio lehenik eta behin:

*"Bizkaiko lurralde historikoan sortu diren sarreraren kopurua etengabe eta arian-arian haziz joan da eta, horrela, haurren babes sistema egoera larrian dago, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoitzetako harrerarako baliabideen aldetik. Adingabe hauek artatzen dituzten zentroak gainezka daude, erabat, eta batzuk aurreikuspenetatik gora bete dira."*

Gauzak horrela, txostenean dio sailak neurriak hartu dituela, etengabe, harrera plazak gehitzearen baina, hala ere, bakarrik dauden adingabeek ere etengabe heltzen segitu dutela, uholdeka. Horrela, datu esanguratsuak emateko, 2005ean bakarrik zeuden 365 adingabe atzerritar heldu ziren Bizkaira, eta 2006an, 471.

Datu horiek, lurralde historikoko biztanleriaren aldean, eta beste autonomi erkidego batzuetakoekin alderatzen ditu (2006ko otsailean, adibidez, 1,58 adingabe atzerritar

familiarik bakoak zeuden 10.000 biztanleko Bizkaian, eta Andaluzian, berriz, 0,89), edo zentroak 2005eko abenduaren 31n zelan zeuden alderatzen du (129 adingabe atzerritar familiarik bakoak ziren, eta 2006an, berriz, 270)...

Adingabe horiek gure ingurura etortzera bultzatzen dituzten hainbat faktore ere aipatzen dituzte, jatorri faktoreak (Marokon bereziki), lege faktoreak (zailtasunak sorterrira itzularazteko, adina zehazteko...) edo irizpide zein esperantza bateraturik ez dagoela erkidego edo lurralde desberdinen artean...

Fenomenoaren arrazoi horiek eta beste batzuk aztertu ondoren, hauxe ondorioztatzen dute:

*“Horrek guztiak adierazten du ez dagoela igartzerik bakarrik dagoen zenbat adingabe atzerritar helduko den, baina egun gero eta gehiago iristen ari direnez, pentsatzekoa da halako adingabeak beraientzat bereziki hornitutako zentroetan hartu eta artatzeko dauden plazak gutxiegi izatea. Baliabide materialak ez eze, hau da, erabilgarri dauden plazak ez eze, giza baliabideei ere zuzenean eragiten dio horrek. Babes zentroetako teknikariek eta profesionalek, baita Haurren ZerbitzuAN eta IFASen halako jendea artatzeko bereziki dituztenek ez dute ekintza ahalmen handirik hainbeste adingaberen sarrera, egonaldi eta halakoetako esku hartzeen aurrean.*

*Azpitarratu behar da baliabide eta plaza berriak ireki eta eskaintzeko ahaleginak egin arren, etorrera etengabe eta ugari horrek gainezka eginarazi diola Bizkaiko Lurralde Historikoak immigraziotik datozen adingabe horiek behar bezala artatzeko duen ahalmenari.*

*Bestalde, hainbeste dira heldu diren adingabe atzerritarrak, batzuek hain jokatibide oker edo hauslea izan dute, non herritarren sektore batzuegan ez espesentipena piztu baitute, eta horrek zailago egiten du Aldundi honen babes eta hezkuntza ekintza, eta izugarri zail gertatzen zaigu harrera zentro berriak irekitzea (Gatikan, Urdulizen, Madariasen dispotibo bat irekitzeko egitasmoekin zer gertatu zen gogoratu besterik ez dago).”*

#### 4) Adingabe hauen administrazio egoera eta erregularizazioari dagokienez.

Gogorarazten da adingabeen lekualdaketa eta administrazioko izapideetarako Bizgari elkartearen zerbitzua kontratatu dela.

Tutoretzei dagokienez, zenbait zailtasun aipatu ondoren, administrazio ebazpenez gauzatu diren tutoretzak eta benetan gain hartu diren tutoretzak (zentroetan hartutako adingabeenak) bereizten ditu.

Emandako datuetatik ondoko hauek atera ditzakegu:

- Gauzatutako tutoretza kopurua: 112 (2005), 203 (2006)
- Bizileku baimenen kopurua 2005ean: eskatutakoak: 109, lortutakoak: 73
- Bizileku baimenen kopurua 2006an: eskatutakoak: 89, lortutakoak: 68
- Bizileku baimena lortzeko denbora, batez beste: 10,7 hilabete
- Eskatu eta lortutako lan baimenak: 4 (2005), 4 (2006)
- Lan baimena lortzeko denbora, batez beste: hiru eta sei hilabete artean (2005), bi hilabete inguru 2006an.

Famili biltzei dagokienez, hauxe diote:

*“Tutoretza formalki onartzen den kasu guztietan familia biltzeko izapideak has daitezten eskatzen da. Bi kasutan soilik eman du adingabea bere herrira itzultzeko baimena Bizkaiko Gobernuaren lurralde ordezkariak; horietako bat burutu zen, Adingabeen Auzitegiaren baimenaz. Beren herrietara itzultitako beste hiru Bizkaitik joan dira, Bartzelonako Gobernuaren lurralde ordezkariaren ebazpenekin.”*

Gai hau kapitulu honetako beste atal batean jorratuko dugu, xehekiago.

5) Sailak beste instantzia batzuen laguntzari eta inplikazio handiagoa edo koordinazio hobea beharko litzatekeen arazo edo beharrei buruz egiten duen balorazioari dagokionez.

Sailaren erantzunean hainbat instantzia edo zerbitzuren errepassoa egiten da:

- Gazteen justizia sistemarekin koordinazio handiagoa behar dutela ikusten du, ezarritako neurri judizialak azkar betearaziko badira...
- Adingabeen fiskaltza (oso egokia; arazoak adina zehazteko orduan).
- Osasun sistema publikoa: *“Osasun sistema publikoak gehiago inplikatu beharko luke, adina zehazteko probak egitea lehenetsiz, eta eguneko 24 orduetan egiteko aukera eskainiz, adingabeak ez direnak harrera egoitzetara sar daitezten eragozteko, edo behin sartuta zentroetako hezitzaileek ospitalera eraman behar izan ez ditzaten, proga horiek Basurtuko ospitalean eta 8etatik 15etara soilik egiten baitituzte”*.
- Hezkuntza sistema (derrigorrezko adinean daudenak eskolatzeko arazoak daude, eta bilerak eginez konpontzen saiatzen dira).
- Oinarritzko gizarte zerbitzuak (koordinazio egokia harrera zentroak dauden udaletako zerbitzuekin).

Oso garrantzi handikoak diren eta beste bi erkidego eta Estatuko Administrazio Orokorra bera ere inplikatuta dauden bi gai luze jorratzen dira:

1. Adingabeak sorterrietara itzultzea edo familiak biltzea.
2. Autonomi erkidego desberdinen arteko koordinazio beharra.

Sorterrietara itzultzearen gaiari, Arartekoaren ekimen desberdinen jomuga izan denez, aparte helduko diogu.

Eta autonomi erkidegoen artean beharrezkoa den koordinazioari dagokionez –gure txostenean gomendioa egin da horren gainean, eta arartekoen koordinaziorako azkeneko jardunaldietan ere jorratu da-, hemen Gizarte Ekintza Sailak planteatu duenaren hiru aipamen baino ez ditugu egingo: erakundeetako ordezkarien arteko lantaldearen eraketa, adingabeen autonomi erkidego desberdinetan zeharreko joan-etorrietan zelan jardun zehazteko protokoloak ezartzea, beste erkidego batzuek abiarazitako ekimenak zuzenean ezagutu beharra, dituzten ondorengatik, besteengan eragin lezakeenean, Gobernuaren EAEko ordezkartzak eta lurralde ordezkartzek koordina-

tuta aritu behar dutela, eta Adingabe Atzerritarren Erregistroaren funtzionamendua hobetu behar dela.

#### 6) Emantzipatze egitarauak

Hasieran esan bezala, Gizarte Ekintza Sailak, bere erantzunean, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusitik bultzatutako emantzipatze egitarauetarako buruzko berariazko txostena sartu du.

Mundutik-Mundura egitasmoa da, gazte etorkinak emantzipatzeko, ekintza desberdinak konbinatuz: babes pertsonaleko ekintzak, egoitza sostenguko ekintzak, eta laneratzeko ekintzak. Batetik, sostengu eta laguntzako sare alternatiboa eskaini nahi du eta, bestetik, ekonomikoki burujabeak izan daitezen, gizarteratu eta laneratzeko banan-banako planen bitartez.

Egitasmoa, horrela, 2004an ezarri zen eta ondoko datuekin laburbiltzen den garapen maila iritsi du dagoeneko:

- Bost lankidetzako itun erakunde desberdinekin, egitasmoa garatzeko.
- Berariazko baliabideen sarea, orokorragoek aparte, honelaxe osatuta:
  - Babes maila handiko zaintzapeko 2 etxebizitza (13 plaza).
  - Babes maila ertaineko zaintzapeko 5 etxebizitza (20 plaza gehi 28 ingurumarien arabera gaituta, horietan egoten diren pertsonen autonomi prozesua amaitzean amortizatzen direnak).
  - Babes maila txikiko 2 etxebizitza sare (42 plaza).
- Artatutako gazteak guztira: 138 (2005), 167 (2006).
- Abenduaren 31rako guztira artatutako gazteak: 112 (2005), 42 (2006).
- Helburuak betetzea: 89 (2005), 75 (2006).

Komeni da gogoratzea Arartekoaren erakundeak behin eta berriz azpimarratu duela gazte horiek sartzea lortzeko halako egitarauen garrantzia eta, alde horretatik, Bizkaian bideratutako ekimenak nabarmendu ditu, jardun on modura.

### 1.c. **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Ondo dator gogoratzea lurralde historiko honetan bakarrik dauden adingabe atzerritarren arreta Giza Eskubide, Lan eta Gizarteratze Sailaren (premiazko harrera gaietako eskuduntzak) eta Gizarte Politikarako Sailaren (egoiztetako harrera) artean bainatuta dagoela.

Giza Eskubideen Sailarengandik erantzun luzea jaso genuen, urtarrilaren erdialdera:

- Haur, Gazte eta Garapenerako Lankidetzako Zerbitzuak egindako txostena, gure informazio eskariari erantzuteko.
- Zazpi eranskin:
  - Tolosa eta Urnietako zentroak mantentzeko gastuak.
  - Harrera zentroak kudeatzea kontratatze baldintza teknikoaren plegua.
  - “Segurtasun zaindariak adingabeen zentroetan lan egiteko prozedurei” buruzko jarraibide eta argibideak.

- Premiazko harrera sarean dauden familiarik gabeko adingabe atzerritarren programako asistentzia teknikoa kontratatzeko jarraibide teknikoen plegua.
- Gipuzkoako Batzar Nagusietako taldeek “Bakarrik dauden adingabe atzerritarren ezaugarriak eta premiazo arreta” gaiari buruz egindako txostena.
- Gipuzkoako Gobernuaren lurralde ordezkariari uztailaren 27an bidalitako kontsulta, ea bakarrik dauden atzerritar adingabe horiek lan egin dezaketen, lan baimena lortu aurretik.
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren protokoloa (2005eko dokumentua), Gipuzkoako lurralde historikoko instantzia desberdinen artean adostua, baita protokolo horren eranskin bat ere, Donostiako udaltzainen jarduketean gainean.

Gizarte Politikarako Saila gure informazio eskariaren erantzunean galderetara mugatu da, eta urtarrilaren azkeneko egunetan jaso dugu.

Hemen behean dagoen urteko txosten honetarako egindako laburpenean jasotako informazioetako batzuk baino ez ditugu aipatuko –jarraipena egin nahi diegun sei gai edo atalekin zerikusirik handiena dutenak–, beste kontu batzuk gerorako analisi eta jarduketetarako utzita. Horrela:

Premiazko harrerari dagokionez, Giza Eskubideen Sailaren eskuduntza:

1) Harrera baliabideen sarean sartutako aldaketan, eta abenduaren 31ko egoeraren gainean, honako datu hauek nabarmenduko ditugu:

- Plaza kopurua: 25 (10 Urnietan, 15 Tolosan).
- Zentroen kudeaketa: Nuevo Futuro Gipuzkoa elkartearekin itundua, lehiaketa publikoaren bitartez.
- Abenduaren 31rako bakarrik dauden zenbat adingabe atzerritar hartu diren: 38 (15 Gizarte Politikarako Sailak kudeatzen dituen egoitza baliabideetara igarotzeko zain).
- Gainera, idatziak dioenez, sailak *“beste baliabide batzuk erabiltzen ditu adinez heldu izatetik gertu dauden, funtzionamendu autonomoagoa erakutsi duten, eta gizarteratzeko jokabide arazo aipagarriak ez dutenentzat”*. Horrekin ostatuak adierazi nahi dira, ziurrenik; ostatuez bisiten atalean jardungo dugu.
- Sailak aitortzen du arazo handia dagoela zentroen mantentzearekin, eraikina eta bere ekipamendua etengabe hondatzen direlako. Adibidez, iraileko mantentze gastuen datuak ematen ditu, eta egoera horri aurre egiteko 2006an enpresa bat kontratatu dutela esan du (teknikari bat, lanaldi osoan).
- Adingabeek erkidegoko beste baliabide batzuk erabiltzeko aukera izan dezaten egin dituzten gestioak ere aipatu ditu.

2) Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan egindako aldaketei dagokienez, hauxe azpimarratuko dugu:

- Zentroen kudeaketa Nuevo Futuro elkartearekin itundu dela.
- Lehen aipatutako mantentze zerbitzua.



- Segurtasun zerbitzu bat, zinpeko zaindarekin, enpresa batekin itunduta eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mikelete-Ertzaintza atalak gainbegiratuta.
- Jarraipen, kontrol eta sostengurako aholkularitza teknikoko zerbitzua.
- Premiazko harrera zentroetako erabiltzaileen gogobetetasunaren azterlan eta balorazioa, enpresa batek azkeneko hilabeteetan egiten aritu den baina oraindik amaitu barik dagoena.

Aldaketa hauetako batzuei dagokienez, eranskinean informazio xehatua ematen da, baldintza teknikoen pleguak edo zaintza zerbitzuaren funtzionamendu protokoloa, berbarako. Beste kasu batzuetan, erabiltzaileen gogobetetasunaren azterlanean, esaterako, dagokion txostena prest dagoenean emango dute.

3) Artatutako biztanleei buruzko datuei dagokienez, orokorrak hauek lirateke:

	2005	2006
– Urtean zehar hartu diren adingabe “berriak” .....	136	162
– Urtean zehar hartu diren adingabeak guztira.....	146	175
– Abenduaren 31n hartutako adigabeak.....	27	38

Kontuan hartu larrialdietarako harrera baliabideetan, eta ez sail honen mende ez dauden bestelako zentro edo baliabideetan, artatutako adingabe atzerritar bakarrik daudenak direla beti.

Sailak, erantzunean, batzar nagusietan ordezkaritza politikoen arteko adostasuna lortzen saiatu direla, lantaldea eratu dutela batzarretako taldeekin, eta eranskin modura taldeei gaiari berri emateko prestatutako txostena sartu digute.

Artatutako adingabeen ezaugarrietan igarri dituzten hainbat aldaketa ere luze jorratu dituzte:

- Jatorriari buruz (Marokokoak %84, Saharatik beherako Afrikako %9, Europako ekialdeko edo Hegoamerikako %7) eta migrazio proiektuari buruz (arazo bereziak proiektu zehatzik gabeko nerabeengan).
- Ikaskuntza eta jokabidezko ezaugarriari buruz (analfabetismo eta eskolatu bakoien mailak, jokabide arazoak dituzten taldeak, hartutako guztien %10 izango direla diote).
- Adinari eta eskaintako baliabideei emandako erantzunari dagokienez (gero eta gazteagoak izateko joera –azkeneko urteko batez besteko adina 15 urtekoa izan da, eta gure artean geratzeko joera handiagoa– beren borondatez %20 soilik joan dira)–.

Sailaren esanetan, *“Gure Lurralde Historikora inolako helduren arduraren erreferentziarik gabe heltzen diren adingabe atzerritarren errealitatea, gaur, oso konplexua da, bai bolumenaren aldetik, bai ezaugarri indibidual eta kolektiboen-gatik eta, sarritan, gauzak okerrago edo larriago bihurtzen dira, balizko getoak sor litzaketelako nolabaiteko alarma sozialarekin, joera arazotsuak agertzearekin eta abarrekin lotzen dituztelako, nahiz eta gehien-gehienetan egokitze eta gizarteratze prozesu positiboak izaten dituzten.”*

Izandako aldaketa horietara egokitzeko, eta arreta hobetzeko, sailak dio taldeak indartu direla (bost adingabe, hezitzaile profesional iraunkor bat, gutxi gora behera),

edo baliabideetan aldaketa batzuk egin direla: Tolosako eta Urnietako larrialdietako harrera zentroak, ostatuak.

4) Adingabeon administrazio egoera eta erregularizatzeari dagokienez, hauxe azpimarratuko dugu:

- Pentsatzekoa denez, alor honetako jarduketarik gehienek jarraipena daukate harrerak, larrialdietakoak ez, egoitzakoak baizik, dirauen bitartean. Alabaina, irizpide aldaketa egon dela argitu digute: 15 egunen buruan harrera baliabideetan dirauten guztien behin behineko tutoretzaren ardura hartu behar dela; tutoretza neurriak berretsi behar direla, denbora tarte bat igaro eta hainbat inguruabar aztertu ondoren. Beraien esanetan, *“une horretan (adingabea harrera baliabidera sartu eta 2 hilabetera edo), Gizarte Politikarako Atalak bere baliabideren batean haren zaintzaren ardura har dezan proposatzen da, eta larrialdiko harrera amaitutzat jotzen da atal horren esandako baliabidera eramaten dutenean.”*
- Tutoretzei buruz emandako datuak:
  - 2005 urtea: 53 tutoretza behin behineko, eta 27 tutoretza berretsi.
  - 2006 urtea: 112 tutoretza behin behineko eta 81 tutoretza berretsi.
- Gobernuaren lurralde ordezkartzara bideratzen diren idatzietan, normalean adingabeak baliabidean ematen duen lehen hilean, famili bilketarako gestio egokiak egin daitezten eskatzen zaie beti. Ez dute, ordea, azkeneko bi urteotan Gipuzkoan inolako biltze agindurik eman denik eta, aldi berean, *“Gobernuaren lurralde ordezkartzatik eskariak heltzen ari zaizkigu bakarrik dagoen adingabeari entzunaldi izapidea egiten laguntzeko, Fiskaltzak familiarekin biltzeko eskatutako prozeduretan.”*
- Bizileku baimenei dagokienez, Gobernuaren lurralde ordezkartzaren esanak betez, *“adingabea Babes erakundearen esku utzi zenetik bederatzigarren hilabetea betetzera doanean egiten direla diote, horixe baita legeak baimen hori lortzeko jarrita daukan epe gorena.”*
- Eta lan baimenei dagokienez, 2006ko uztaillean Gobernuaren lurralde ordezkartzara, gauza berezi edo ezohiko modura, baimena lortu aurretik, adingabe horientzako lan eskaintzak onartzeari buruz egindako kontsulta aipatzen dute.

5) Beste administrazio eta atal edo sail batzuekiko lankidetzari dagokionez, Giza Eskubide, Lan eta Gizarteratze atalak, erantzunean, informazioa eman eta zazpi interbentzio lerro bereizten ditu:

- Hezkuntza Sailaren ordezkartzarekin (eskolatzeko)
- Tolosako udalerrarekin (gizarteratzea errazteko lan mahaia).
- Harrera baliabidean dauden herrietako arduradun politikoeekin.
- Fiskaltzarekin (jokabide arazo larriak dituzten adingabeek eragindako egoerei aurre egiteko).
- Osasun zerbitzuekin (jokabide arazo larriei eta toxikoen kontsumoei aurre egiteko).
- RENFErekin (bidaietako arazo batzuk saihesteko).
- Ertzaintzarekin (lankidetzeta hobetzeko).

Giza Eskubide, Lan eta Gizarteratze Sail honek, zenbait kasutan, lortutako emaitzei buruzko bere balorazioa argi eta garbi adierazten du. Horrela, esaterako, oso ondo irizten die Hezkuntza Sailarekin, RENFErekin zein Ertzaintzarekin lortutakoei, baina gutxiegi sare publikoko osasun zerbitzuen kasuan izandakoei (zerbitzu horiek jokabide nahasmenduak edo toxikoen kontsumoa diagnostikatzerara mugatzen dira, baina haien arretaren ardurarik hartu gabe).

6) Azkenik, 2005eko maiatzean bidali zitzaigun txostenean jasotako puntu batzuez gehiago esatearren, hauxe azpimarratuko dugu:

- Bi bilera egin ziren, inplikaturako instantzia guztiekin (Fiskaltza, Gobernuaren lurralde ordezkaritza, Donostiako Udaltzaingoa, Lege Medikuntzako Institutua, Osasun saila eta Gipuzkoako Foru Aldundia) jarduteko protokoloa berrikusteko.
- Larrialdietako harrera baliabideetako egonaldiaren irizpidean dioenez, bi bat hilabete dira egokiena; epe hori beste hilabete luza liteke, Gizarte Politikako atalak dagokion baliabidean plaza esleitu arte.

\* \* \*

Honaino Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako atalak emandako dokumentuetatik ateratako informazioa; beraiek izan ziren erantzuten lehenak. Ondoren, Gizarte Politikarako atalak gerora emandako datu berriei osatuko dugu informazio hori.

1) Gizarte Politikarako atalaren mendeko baliabideen sarean sartutako aldaketei eta abenduaren 31ko egoerari dagokienez, honako datu hauek azpimarratuko ditugu:

- Esperientziaren ebaluazioa eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrak babes zentroen sare normalizatuan integratzeko ereduaren aldeko apustua, errazago gizartera daitezten, eta kulturen arteko harremanak hobeto joan daitezten. Zeregin hori urtean zehar garatu da, eta 2007rako erabat ezartzea aurreikusita dago.
- Bakarrik dauden eta sarrera unean 16 urtetik behera dituzten adingabe atzerritarrentzako baliabideak:
  - Zentroak: 9, 5 erakunde kudeatuta.
  - Plazak: 27 (3 adingabe zentroko).
  - Kokapena: Donostia-San Sebastián, Irun eta Hondarribia.
  - Ezaugarriak: babes pisu normalizatuak, baldintza egokietan.
- Bakarrik dauden 16 eta 18 urte arteko adingabe atzerritarrentzako baliabideak: Atal honek dio, proposaturako egoitza harreratarako baliabidearen ereduaren arabera, gizarteratu eta laneratzera eta autonomia pertsonalera argi bideratuta dauden adin tarte horretako adingabeek emantzipatzeko pisuetan integratuta egon behar dutela. Alabaina, 2006an, eta Gipuzkoara bakarrik heldu ziren adingabe atzerritarren kopurua nabarmen igo zenez, bakarrik zeuden 16 urtetik gorako adingabe atzerritarrak egoitzetan hartzeko behin behineko aterpe sarera jo behar izan zutela, haurren babes zentroak kudeatzen dituen erakunde batek ikuskatu eta jarraipena eginez, horretarako 6 adingabeko multzo bakoitzeko 1 koordinatzaile eta 3 hezitzaile jarrita, eta sare hori oraindik mantentzen dela, behin behinekoan.

- Gizarteratu edo harremanetarako arazo larriak dituzten eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako baliabideak:
  - Zentroak: 2, erakunde batek kudeatuta.
  - Plazak: 6.
  - Kokapena: Irun eta Zandueta.

2) Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan egindako aldaketei dagokienez:

- Atalak itunak ditu sei erakunderekin, baliabideak kudeatzeko, eta urtero berriztatzen dituzte: Larratxo fundazioa, Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkarte, Nuevo Futuro etxeak, Bide Berri, Karitatearen Alabak eta Dianova.
- Ikuskapen teknikorako, finantza kontrolerako eta ikuskapenerako mekanismoak jasota daude itun horietan, eta ikuskapena saileko atal desberdinek egiten dute.
- Teknikari ertain bat kontratatu da, elkarte eta erakundeen koordinatzaile eta aholkulari izateko, eta beste erakunde batzuek ere esku hartuko duten adingabe hauei buruzko jarduketa desberdinak koordinatzeko (udaletako gizarte zerbitzuak, Gobernuaren lurralde ordezkari Gipuzkoan, Espainiako Polizia, Ertzaintza, Hezkuntza, Osasuna...).
- Arreta ratioak:
  - Zentroak: 9 plaza, 1 zuzendari lanaldi osoan, eta 6 hezitzaile.
  - Behin behineko aterpeak: 6 plaza, 1 koordinatzaile lanaldi osoan, eta 3 hezitzaile.
- Zentroei ez zaie segurtasun zerbitzurik ipini.

3) Artatutako biztanleei dagokienez, datu orokorrak hauek lirateke:

	<b>2005</b>	<b>2006</b>
- Sarrera berriak .....	23	58
- Urtean zehar hartutako adingabeak, guztira .....	31	74
- Abenduaren 31n hartutako adingabeak.....	16	57
- Emantzipatze baliabideetan dauden adingabeak (artatutako guztietan sartuta daude).....	0	24

- Sailak dio bakarrik dauden adingabe atzerritarren igoera nabarmen horrek, 2005ean 31 artatzetik 2006an 74 artaratzerara igaro baitzen, arreta ereduak birplanteatzea eta ezartzeko dagoen egoitzetako harrera sarea handitzea eskatu diela, egoitza baliabide batean sartzeko zain dauden tutoretzapeko adingabeen beharrak aseko badira.
- Artatutako adingabeen ezaugarriak, adin, jatorri edo esperantzen aldetik, desberdinak ere badirela eta horrek zentroetan eragina daukala diote (zailtasuna zentroetako hezitzaileen artean, kultura desberdinekin jokatze orduan).

4) Adingabeon administrazio egoera eta erregularizatzeari dagokienez.

Tutoretzei buruzko datuak lehenago eman dira, beste sail bati baitagozkie. Datu horiei ondoko hauek gehitu beharko genizkieke:

- Bizileku baimenak 2005ean: eskatutakoak: 15, lortutakoak: 9.

- Bizileku baimenak 2006an: eskatutakoak: 32, lortutakoak: 21.
  - 2005-2006an bizileku baimena lortzeko batez beste behar izan den denbora: 90 eta 120 egun bitartean.
  - 2005ean lortutako lan baimenak: 2.
  - 2006an eskatu eta lortutako lan baimenak: 3.
  - 2005ean lan baimena lortzeko batez beste behar izan den denbora: 30 egun.
  - 2006an lan baimena lortzeko batez beste behar izan den denbora: 90 egun.
  - Lagundu behar izan duen famili biltzeen kopurua: aldeko txostena sorterrira itzulazteko 4 administrazio espedientetan, tutoretzapeko adingabeak bere familiarekin elkartzeko (espediente horietako 2 adingabeen alegazioen fasean zeuden).
- 5) Beste instantzia batzuetatik jasotako laguntzari dagokionez, sailak dio, oro har, ona dela hezkuntza, osasun administrazioetatik, gazte justiziako zerbitzutik, poliziengandik, udal zerbitzuetatik eta sistema judizialek ematen zaiona, bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin egiten dituen jarduketetan.
- Bestalde, osasun administrazioak buruko gaixotasun eta toxikomaniak dituzten adingabeei erantzuteko baliabiderik ez izatea kaltegarria da pertsona horiei babes sistematik eskain dakiekeen arretan.
- Tutoretzapean eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrek, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 41.1. artikuluko k) atalean aurreikusitako salbuespenari helduz, egoitza eta lan baimenak izapidetu eta lortzen dituzten bitartean gizarteratzen lagunduko dien eta emantzipatzeko beren asmoak aseko dituen lanik egiteko zailtasunak dituztela ere aipatzen dute, Gobernuaren Lurralde Ordezkaritzak araudia murriztasun handiz interpretatzen duelako.
- Azkenik, Gipuzkoako Probintzi Entzutegiko Fiskaltzak zelan lagundu dien azpimarratzen dute, sailak hari kontsultatu eta iritzia eskatzen baitio bakarrik dauden adingabe atzerritarren inguruan garrantzi berezia duten erabakiak hartu behar dituztenean.
- 6) Amaitzeko, aurreko informazioen osagarri, Gizarte Politikarako atalak instantzia desberdinen artean koordinatzeko egin dituzten bilerak eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin jarduteko lehenago aipatutako 2005eko azaroko protokoloa aipatu ditu

## ***2. Urnieta, Tolosa eta Eubako adingabeen zentroetarako bisitak***

Arartekoaren erakundeak egiten dituen jarraipen jardueren barruan, kasu honetan *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* izeneko ezohiko txostenarekin lotuta, urtean zehar hainbat bisita egin ditugu bakarrik dauden adingabe atzerritarren zentroetara. Hemen 2006ko uztailaren 13an Urnieta, Tolosa eta Eubako (Zornotza) zentroetara egindakoak baino ez ditugu laburtuko.

Hiru toki horietara aurretiaz abisatu barik joan ginen, bai 2005ean bai 2006an, oso helburu mugatuekin gainera:

- Zentroetako talde berriekin harreman zuzena izatea (Gipuzkoan, maiatzaren 1etik, zentroen kudeaketa Gurutze Gorriaren eskuetatik Nuevo Futuroren eskuetara igaro zen; Euban hainbat aldaketa eginak zituzten, eta jende berria

ere hasia zen lanean); aldaketa horiek aurreko egoera hobetu zuten jakin nahi genuen.

- Ikasturtearen une jakin batean (2006ko maiatzean) hartutako adingabeen eskolatzea zelan zihoan jakiteko datu zehatz eta banakakoak jaso gura genituen, gai horri buruz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailarekin egiten ari garen ofiziozko espedientera begira.

Ondoko laburpen honetan orduan ikusi genuena islatzen saiatuko gara, objektibagarriak eta kezkarrienak diruditen datu edo egoerak nabarmenduz, azkenean, gogoeta batzuk egin eta balizko jarduketara iradokitzeke (zentro hauek aurreko urtean zelan zeuden eta zelako arazoak zituzten gogoratzeke, iazko txosteneko V. kapituluko atal berera jo).

### 1) **Urnietako harrera zentrorako bisita**

Zentro honetan ikusitakoa nahikoa aldatu da aurreko bisiten aldean. Gipuzkoako lehen harrerako zentro bakarra izan zen luzaroan; esandako datan, hezitzaileen arabera, adingaberik zailenak hara sartzen zituzten.

Zentroan hauteman genituen arazoez hitz egiten hasi baino lehen, komeni da hainbat datu orokor gogoratu edo argitzea, Gipuzkoan, aldaketa etengabea, bizitako errealtatearen inguramenduan lekutuko badugu:

- Maiatzaren 1ean, Gurutze Gorriak bakarrik dauden adingabe atzerritarren zentroak kudeatzeari utzi zion.
- Egun hartatik aurrera, Urnieta eta Tolosako zentroak Nuevo Futurok kudeatzen ditu.
- Ostaturen formula hedatu da. Data horren ingurua, gauzak horrela zeuden:
  - Bidasoa ostatua (Irun): 12 bat plaza, hasieran, larrialdietarako, ondoren, egoitzetara joateko. Bideberri elkarteak kudeatuko zituen aurrerantzean.
  - Nuevo Futurok hiru hoteletan kudeatzen zituen plazak:
    - ✓ Lintzirin hotela (Oiartzun): 4 plaza.
    - ✓ Ori hotela (Tolosa): 4 plaza.
    - ✓ Mendigoia hotela (Eskoriatza): 4 plaza.
  - Beasain hoteleko plazak ere Bideberri elkarteak kudeatzen zituen.
- Bisitaren aurreko astera arte, larrialdietan hartutako bakarrik zeuden adingabe atzerritarrak 56 ziren (Urnietara eta Tolosako zentroetan 25 plaza zeuden).

Urnietako zentroan ikusitako egoerari dagokionez, hauxe esan dezakegu orduko edo ordura artekoaz:

- 10 adingabe artatzen ditu (plaza guztiak beteta daude).
- Taldean 9 hezitzaile, 2 zaindari finko (3 12,30 - 0,30 bitartean), eta etxeko zereginetarako laguntzaile bat ari dira.
- Maiatzaren 1aren aurretik zeuden langileetatik zentroko koordinatzaileak, segurtasuneko langileak eta etxeko zereginetarako laguntzailea geratu dira.

- Auzitan egon dira, etengabe: mehatxuak, bandalismoa, erasoak hezitzaileei, ihesak...
- Ondorioak elementu askotan igartzen dira:
  - Instalazioen egoeran (sarrerako atea kateaz itxita, geletako ateak hautsita, kristalak apurtuta, manparak apurtuta, oheak lurrera lotuta torlojuekin, kableak agerian, su-itzalgailuak kenduta, leihoen itxiturak ezertarako balio ez dutela, arropa gordetzeko armairurik gehienak kendu dira, apurtuta zeudelako...).
  - Langileen animua, aldaketak taldean, baja boluntarioak (7-8 baja azkeneko hiletan).
  - Hezitzaileek Hernaniko ertzain etxean jarritako salaketak (normalean eraso dietelako).
  - Auzokoekin izandako arazo batzuk...
- Taldeak asteroko bilerekin segitzen du. Bisita honetan txanda hartakoekin baino ez ginen egon.

Beste gai kezagarri batzuen, edo jarraipen handiagoa beharko luketenen informazioa ere jaso zen:

- Maiatzaren 1era arte zentroan artatutako adingabeen espediente pertsonalen egoera.
- Aldundiaren eta Nuevo Futuroren arteko itun berriaren edukia, baldintzak eta berme klausulak.
- Zergatik segitzen duten zentroan jada Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden adingabe batzuek, Gizarte Politikarako Sailaren mendeko baliabideetan egon beharko luketen arren.
- Dokumentazioaren tramitazioa, taldeak berak bere gain hartua.
- Hezur frogen fidagarritasuna eta gestioetarako ondorioak (adibidez, eskolatzeko...).

Azkeneko puntu honi, eskolatzeari, dagokionez, maiatzean han zituzten hamar adingabeen datuak banaka jaso genituen, Hezkuntza Sailarekin daukagun espedienteetan erabiltzeko. Laburbilduz:

- Maiatzaren 1era arte, denak joaten ziren Gurutze Gorriak antolatutako gaztelania eskoletara.
- Maiatzaren 1etik aurrera (Gurutze Gorriak guztira bakarrik dauden 10 adingabe atzerritarrentzako 10 plazetara gutxitu zituen, lurralde osoan) zentroko 2k baino ez dute hara joaten segitzeko aukera.
- Gainerakoekin, hezitzaileen taldeak alternatiba desberdinak bilatu zituen, lanean hasi aurreko prestakuntza baliabideetan, mesedeak eskatuz, eta zegoenaren artean aukeratuz (Renteria fundazioko Prestakuntza Zentroan entzule, Sartun, Askagintzan, Peñascal fundazioan...).
- Kasu batean soilik (14 urteko adingabea) saiatu ziren inguruko ikastola batean eskolatzeko, Hezkuntza sailaren bitartez, baina ez zuten lortu.

## 2) **Tolosako Larrialdietako harrera zentroa (CAU)**

Kasu zehatz honetan, ezer baino lehen argitu behar dugu gerta daitekeela jasotako datu batzuk zehatzak ez izatea, egun hartan egitasmoaren koordinatzailea (gurekin telefonoz hitz egin zuen) eta zentroko koordinatzailea (Donostian gestioak egiten ari zen), eta bestea arduradun batzuk ere ez zeudenez, han ikusi genituen langileek ez zuten guk nahi genuen informazio guztia.

Ez genuen, adibidez, eskolatzeari buruzko banan-banako daturik biltzerik izan eta, beraz, prestatuta geneukan datuen txantiloia utzi genien, bete eta bidal ziezaguten.

- Bisita egunean 20 adingabe hartuta zituzten han. Bi joan berri ziren. 26 ere izatera helduak ziren. Aurreikusitako plazak 15 ziren.
- Taldeari dagokionez, aurreko taldeko hiruzpalau hezitzaile mantentzen dira. Orain arte lau bat baja boluntario egon dira. Ez dago arabieraz zekien lehengo taldeko hezitzailea.
- Txanda bakoitzean 2 hezitzaile ari ziren (20 adingabe baino gutxiago daudenean), edo hiru (2+1 laguntzaile), 20tik gora adingabe izatekotan.
- Txanda batean denak berriak izatea ere gertatzen da.
- Behin eta berriz esaten dute “langileak falta direla”. Sarritan (bisita egunean ere bai), txandako pertsona batek zentrotik kanpo egon behar izaten du, gestioak egiten...

Eskolatzeko zailtasunei dagokienez, horixe zen gure bisitaren arrazoia, datu pertsonalizatuz gain beste arazo batzuk ere aipatu zizkiguten, hala nola:

- Ez daukatela adingabea zentrorra sartu orduko matrikulatzea errazten dien protokolorik.
- Hezur frogan datua (zehaztasun falta) zailtasun bat da adingabeak matrikulatzeko orduan.
- Zentroetako zuzendariak ez dituzte adingabe hauek matrikulatu nahi.
- Inguruko ohiko eredia (D eredia).
- Absentismo arazoak.
- Akordiorik ez INEMekin...

Bisitaren helburuak alboratuta, beste elementu kezkarri batzuk ere aipatu dizkigute:

- Zentroaren azkeneko garaiaz egindako balorazioa: “*penagarria, erabat*”.
- Zentroan sortutako bizikidetzarazoak:
  - Ertzaintzari deitu behar izan diote, behin baino gehiagotan, zentroan interbenitzeko.
  - Hezitzaileek salaketa ugari jartzen dituzten adingabeen kontra, erasoengatik (Ertzain etxean) eta zigorgabetasun sentsazioa daukate.
  - Arazoak auzokideekin eta herriarekin: kexak, mehatxuak, herriko jendea zentrorra etorri izan da lapurretengatik edo bestelako jokabideengatik kexuka, prentsan agertutako albisteak...



- Zentro honetan ere badira Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabeak, larrialdietarako harrera zentro honetatik beste baliabide batzuetara (egoitzak) oraindik joan ez direnak, arazotsuak direlako eta haientzako moduko baliabiderik ez dagoelako, antza.
- Adingabe horien eskubideak babestu eta bermatzearen ikuspegitik, bereziki larriak dira adingabe baten suizidio edo nork bere buruari min emateko ahaleginak, baita adingabeen beraien artean izan daitezkeen mehatxu, eraso eta jazarpenak ere, beldurrarengatik salatzen ez direnak.
- Zentroa mantentzeko arazoak, eta potentzia nahikorik ez sare elektrikoan; generadorea erabili behar izaten dute (eta auzokoak zaratarengatik kexu dira).
- Udala ukatu da izatez hartutako adingabe guztiak erroldatzera: 15eko kupoa baino ez du onartzen...

### 3) ***Eubako zentroa (Zornotza-Bizkaia)***

Zentro honetara ere abisatu barik joan ginen, arratsaldeko hiruetatik aurrera. Han zeuden adingabeak (egun hartan 64) bazkalduta zeuden, ezer egin barik. Une hartan behintzat ez zeukaten antolatutako jarduketarik, eta inongo hezitzailerik gabe zeuden.

Adingabeek beraiek esan ziguten non aurkituko genuen hezitzaile bat, giltzapeko areto batean.

Zentroan zeuden hiru hezitzaileak berriak ziren. Denboratxo bat zeraman txandako bakarra ez zegoen orduan, adingaberen bat zerbitzu medikoetara laguntzera joana baitzen.

Telefonoz deitu genion, zentrotik bertatik, kudeaketaz arduratzen den Landalan elkarteko zuzendariari, eta eskolatzeari buruzko datuak eskatu genizkion. Bide batez, zentroan bertan HPZ bat sortzeko egitasmoa prestatu zutela esan zigun.

Hilabete batzuk lehenago erretako lokalean birgaitzeko egiten ari ziren obrak ikustera joan ginen, orduantxe hasi berri.

Zentroko su itzalgailu guztiak kenduta zeuden eta, denak batera, hezitzaileetako batekin hitz egiten aritu ginen giltzapeko aretoan pilatuta zituzten.

Saso hartan 3 edo 4 hezitzaile egoten ziren txanda bakoitzean (64 adingabe zeuden bisita egunean), segurtasuneko langilerik gabe.

Gogoratu, zentro honen egoerari dagokionez, gure aurreko bisitaren ondoren (2006ko martxoaren 6an) antzemandako arazo nagusien zerrenda egin genuela, agintedun arduradunei zuzenean azaldu geniena, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru diputatuarekin eta haren saileko langileekin martxoaren 13an egindako bileran, geroago esango dugun modura.

### 3. ***Beste jarduketa batzuk***

Zentroetara egindao bisitei eta orduan igarritako arazoei dagokienez, hainbat jarduketa burutu dira urtean zehar, Arartekoaren ekimenez. Hemen garrantzitsuen begitantzen zaizkigunak laburbilduko ditugu:

- a) Gobernuko hiru lurralde ordezkarietako bakoitzarekin eta lurralde ordezkarietako langileekin izandako bilerak.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuarekin eta langile arduradunekin.
- c) Sorterrira itzularazi eta familiarekin biltzeko prozesu jakin batzuetaz bideratutako espedienteak, eta adingabe horien eskolatze baldintzetaz egindakoak.

a) Bilerak Gobernuko lurralde ordezkariekin.

Zabaloetxe zentroan (Bizkaia) maiatzaren 28tik 29rako goizaldean poliziak esku hartu ondoren, adingabe batzuk sorterrira itzularazteko agindu batzuk betearazteko, Arartekoa, ekainaren 1ean, idatziz zuzendu zitzaion Gobernu ordezkariari, lurralde historiko bakoitzeko ordezkariarekin bilera egin nahi zuela esanez.

Azpimarragarria da berehala erantzun zuela, eta bileran hurrengo asteetan egiteko erraztasunak aurkitu genituela.

Bilera horiek, funtsean, adingabeen sorterriratzearen gainaren inguruan informazioa eman eta irizpideek jarduteko balio izan zuten, baina beste gai batzuez ere hitz egin genuen, besteak beste, administrazio espedienteen tramitazioen epeez, edo adingabe atzerritar bat aurkitu eta poliziek zer egin behar duten argitzeko protokoloez.

Elkarlanerako eta adingabeei ukitzen dieten egoera jakin batzuetan erabil litezkeen solaskidetza bideak finkatzeko prest gaudela ere adierazi genion elkarri.

b) Bilera Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko arduradun gorenekin.

Zabaloetxeko eta Eubako zentroetara (otsailaren 27an eta martxoaren 6an, hurrenez hurren) bisitak egin eta gero, eta ikusitako arazoak hain larriak zirenez, Arartekoak, martxoaren 9ko idatziaren bitartez, premiazko bilera egiteko eskatu zion Bizkaiko Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari.

Bilera martxoaren 13an egin zen, Bizkaiko Foru Aldundian, eta ondoren ia telegrafikoki zerrendatzen diren arazoei heldu zieten:

Zabaloetxen hautemandako arazoak edo jasotako gaiak:

- 1) Bizileku baimenen tramitazioa: irizpide berria, murriztaileagoa aplikatzen da: ez da 9 hilabete baino lehen aurkeztutako eskaririk onartzen.
- 2) Polizi miaketak San Frantzisko aldean, eta agintaritzari aurre egitearen salaketak gerora lan baimena ez berritzeko motibo izan dira (epairik izan zein ez).
- 3) Baimenak ukatzea, tutoretza erantsi ezin delako (aldundiaren irizpidea da harreran dauden 17 urte eta erditiko gorakoen tutoretza ardurarik ez hartzea).
- 4) Zentroaren saturazioa (bisita eguna: 86 adingabe/ duela gutxi: 94raino).  
Saturazioa – itxarote zerrendak emantzipatzeko pisuetan.  
Horiei lotuta, itunen baldintzak (ratioak/plazak/baldintza ekonomikoak).
- 5) Osasuna:  
Protokoloa Osasun Sailarekin analitikak eta plakak bere gain hartzeko, baina ziurtagiri medikoak ez ...  
TIS pasaportetik dutenean adjudikatuko zaie (ordura arte, behin behinekoa).
- 6) Hezkuntza:  
Hezkuntza Sailak izendatutako irakasleak bi talde baino ez ditu asetzen, ordu eta erdiz aritzen da bakoitzarekin. Gainerakoa bi hezitzailearekin osatu behar dute, goizeko txandan.

Matrikulazioak HPZetan, abenduaren 31ra arte.

- 7) Hasierako harrerak (behin behineko aterpetxea) egiten segitzeak zentroaren antolamenduari sortzen dion nahasmendua, eta Berrizetik hara bideratzeko irizpideei buruzko errezeloak.
- 8) Bi sorterriratzeko kasu:  
Abokaturik gabeko prozedura (Adingabeen 1. Epaitegia), eta prozedura “eredugarriak” direlako susmoa.
- 9) Praktikak enpresetan:  
Irizpide berri murriztailea: informazioa Hezkuntza Sailaren eta Lan Sailaren aurrean ditugun ofiziozko espedienteen gainean.

Eubako zentroan aztertutako arazo edo gaiak dagokienez:

- 1) Zentroa gainezka dagoela:  
Bisita egunean, 64 adingabe (aurreikuspena, 50/hasieran, Berrizen 30).  
Lantaldea ez da handitu (1 koordinatzaile + 3 hezitzaile txanda bakoitzeko / 4 arratsaldekoan), hasieran pentsatu bezala segitzen dute.
- 2) Zentroaren baldintza fisikoak, espazio itxiak edo ahal baino gutxiago erabiliak:
  - Zerbitzuen moduluak baliogabetuta (“segurtasun arazoengatik”) eta, beraz, modulu bakarra (baterako 6 dutxa, 1 egokitua, 4 komun eta 3 konketa) denentzat.
  - Ikasgela berogailurik gabe, eta ez da erabiltzen.
  - Ohatze nahikorik ez “Aitzgorri” eraikinean: koltxoak lurrean.
  - Su itzalgailuak kendu dira leku askotatik
  - Egongela bat ere ez.
- 3) Hezkuntza-prestakuntza jarduerak:
  - 12 adingabek Berrizen eskolatuta segitzen dute, eskola garraio barik (eskatuta dago).
  - Beste talde bat HPZen, inguru guztian.
  - Gaztelan ez dakitenak: ez dago hezkuntzako inolako baliabiderik.
  - Zentroko jarduera bakarrak: garbiketa eta sukaldaritza.
- 4) Erroldatzeak:  
Arazorik gabe, betiere pasaportetik izatekotan (bisita egunean 4k baino ez zeukaten pasaporte). Dokumentu hori barik, erroldatzerik ez dago.
- 5) Osasuna:
  - Anbulatorioetako arreta, arazorik gabe.
  - Ez daukate berariazko protokolorik, Zabalotxen bezala.
  - TIS: Berrizeko behin behinekoekin funtzionatzen dute.
- 6) Paperen tramitazioa:
  - Oraindik bizileku baimena eskatu aurreko faseetan.
  - Datua, bisita egunera arte: 4 pasaporte.
- 7) Polizi entregak:
  - Ertzaintza / Espainiako Polizia / Zornotzako Udaltzaingoenak.
  - Beraien harreraren fitxak eta polizien entregean fitxak berrikusi behar dira.
- 8) Adina zehaztea, eta 18 urterekin irtetea:
  - Hezur frogan emaitzak azkar samar, asteburua tartean egon ezean.
  - Harremanik ez tokiko gizarte zerbitzuekin, irteerarako.
  - Espainiako Poliziari deitzen diote, irten nahi ez badute.

- Orain arte, ez da inor irten emantzipatzeko pisuetara (denbora gutxi / lehen harrera).

Gure aldetik, arestian esandako arazo eta egoerak azaldu ziren, eta puntu batzuetan balizko aldaketa edo hobekuntzan planteatu genituen, baina ez ginen inolako konpromiso edo erabaki zehatzik hartzera heldu.

Handik egun gutxira instalazioen zati batean ondorio larriak (sutea) eragin zituen ezbeharra gertatu zen.

#### c) Adingabe hauen sorterriratzei eta eskolatzeari buruzko jarduketak

Aurten izapidetuko ditugun hainbat kexatan foru aldundiek tutoretzapean dauzkaten adingabe atzerritarren bizileku baimenak izapidetzen lagundu behar dutela zioten. Bizkaian gertatu diren hainbat sorterriratze direla-eta ofiziozko espediente bat ere izapidetu dugu.

Kexa batean ziotenez, gazte batek, Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapean hainbat urte eman zituen arren, adinez nagusi izatera iritsi zenean ez zeukan bizileku baimenik. Espedientea amaitu genuen irregulartasunik egon ez zela ondorioztatuz, halako gazte batzuen egoera zelakoa den erakusten duen arren. Gazteak hainbat urte eman zituen, adingabe zela, tutoretzapean; hala ere, adinez nagusi zela, zehapen espedientea ireki zion Gobernuaren Arabako Ordezkaritzak, bizileku baimenik ez zuelako. Legeak bizileku baimena emango dela ezartzen du, adingabea izanik, aberriratu ezin izan bada. Kasu honetan foru aldundiak ez zuen bizileku baimenik eskatzerik izan, tramitazioa hasteko beharrezkoa den adingabea identifikatzeko dokumentazioa ez zutelako garaiz eskuratu. Bizileku baimena ematea ez dago adingabearen inolako jokabideren mende, babesik gabe egon edo bermepEAN sorterriratzea ezinekkoa izatearen mende baizik; bera, eskaria ez aurkezteko arrazoi bakarra adingabeak tramitaziorako beharrezkoa den dokumentazio pertsonalik ez zeukala izan zen (pasaporte, jaiotza agiria). Legek dio, orobat, adin nagusitasuna izatean, bizilekua baimendu ahal izango dela, betiere, egoki egiaztatzen baldin bada adingabeen babes erakunde eskudunak bere tutoretzapean hartuak izan direla eta behar bezala parte hartu dutela, beren gizarteratzea ahalbidetzeko, erakunde horrek programatuta dituen prestakuntza ekintzetan eta jardueretan. Egoera honetan, babes erakundeak aldi baterako bizileku baimena ematea gomenda dezake, salbuespenezko inguruabarrengatik (urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 35.4 eta 40, j artikulua eta 2393/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudiaren 92. artikulua). Azken ezarpen hau administrazioaren tutoretzapean zeuden eta adin-nagusitasunera heltzen ziren adingabeen dokumentazio eskaeren izapidetzea atzeratzen zihoala ikusi zenean erantsi zen araudian. Arartekoak aurretik ere halaxe gomendatu zuen askotan. Foru aldundiak ez zuen prozedura hori abiatzerik eskatu adingabeak ez zuelako, aldundiaren arabera, bere babespean izan zenean programatutako prestakuntza ekintza eta jardueretan egokitasunez parte hartu. Gaztearen ibilbide pertsonalak babes erakundeari onerako txosten xehatua egitea eragotzi zion. Gobernuaren lurralde ordezkaritzak, bizitze irregularraren gaineko zehapen espedientea ebaztean, isunik txikiena jarri zion. Alabaina, ezin izan zuen bizileku baimenik eskatu eta, horrela, Espainian denbora luzea zeraman arren, ez zuen artean baimen hori lortu.

Garrantzitsua da, horregatik, *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* gure ezohiko txostenean ageri diren (20) *Beharrezkoa den babes juridikoa eskaintzea*, eta (28) *Gizarteratzeko aukera ematen duten baimenak lortu arte erakundeen babesa mantentzea* hizpide dituzten administrazioentzako gomendioak errepikatzea. Gomendio horiek ondoren laburbilduko dugun beste espediente batean ere aplikagarriak dira. Kasu honetan, gomendio bat egin genion Bizkaiko Foru Aldundiari (18/2006 Gomendioa, ekainaren 26koa), txosten honetan ikusgai duzuen. Kexa atzerritarrei laguntzeko elkarte batek jarri zuen, foru aldundiak, adingabearen lege arduradun izan arren, ofizioko txandara bideratu zuelako, Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzak bizileku baimena ukatu zionean administrazioarekiko auzi bideko errekurtsua egin ziezaioten. Jarduketa hori ez zen nahikoa, gure iritziz, adingabearen tutore izanik, eta babesik gabe dauden adingabe atzerritarrei aplikagarria zaien araudiak ezartzen dizkien betebeharetan dienez, hura babestea dagokielako. Foru aldundiak eginkorrago jokatu behar zuen adingabearen interesen defentsan, eta administrazioarekiko auzi bideko errekurtsua egin behar zion, legeak horretan babesten duela iriztekotan. Aldundiak adingabea babestu eta haren eskubideak bermatu behar ditu. Besteak beste, entzun diezaioten, eta defentsarako eskubideak ditu (Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako EAeko Legearen 17. artikulua). Adingabea bertan geratu ala sorterrira bidali behar den Madrileko administrazioak erabakitzen duen arren, adingabearen identifikaziorako lehenengo datuak bilatzea, eta adingabeak bere familiarekin elkartzeko dituen aukeren gaineko aurretiazko txostena egitea aldundiaren eskuduntza dira. Guk genion, orobat, txostena egitean ez dela adingabearen interes gorenaz bestelako gairik kontuan hartu behar, hala nola, zentroen saturazioa, erakartze edo dei ondorea saihesteko guraria, zein adingabearen jokabidea. Babes erakundeak tutoretzapean daukan adingabearen analisi xehatu eta banakakoa egin behar du, eta berriro familiarekin elkartzea ona litzatekeen ala ez erabaki behar du, familiaren egoera, gizarte egoera zein den edo arreta egokia eskain liezaiotkeen babes baliabiderik dagoen kontuan hartuta. Gehitzen genuen, identifikazioan eta babes beharra erabakitzeko orduan adingabeari entzun behar zaiola, haren adina, ingurumari pertsonal eta kulturalak baloratuz; izan ere, adingabe batek bere beldurrak edo famili inguruabarrak desberdin adierazten ditu, edo ez du gauza handirik jakiten bere sorterriko baldintza edo egoerari buruz.

Bizkaiko Foru Aldundiak erantzun digu ados daudela dagozkien eginbehar guztiekin, eta beren babes zereginak betetzen dituztela, bakarrik dauden adingabe atzerritarren eskubideen defentsan aktiboki aritzen direla, baina ofizioko txandara bideratzea ez da, beren ustez, adingabearen defentsa aktiboarekin bateraezina. Haurren Babes Sistemaren osotasun printzipioa eta sare lana aplikagarriak direla diote eta, horrela, *“gizarte eta komunitateko baliabide guztiak sistema bakarraren atal modura ulertu behar dira, eta sistemaren helburua babesik gabeko haurrek behar dituzten zerbitzu guztiak hornituko direla bermatzea da”*.

Gure iritziz, adingabeek beren interesak babes erakundeen interesen kontrakoak direnean asistentzia juridiko independentea jaso dezaten guztiz beharrezkoa izateaz gain, normalean izendapen horietara jotzeak nolabaiteko arriskua ere badakar. Abokatu edo defendatzaile judizialak izendatu behar hori oso kezkarria iruditzen zitzaigun, babes zentroetan hartutako adingabeengan mesfidantza pizten duelako, eta hori kaltegarria da, gure ustez, beren garapen pertsonalerako eta hezkuntza prozesurako. Horregatik,

tematuta geunden adingabearen egoeraren gaineko txostenaren edukiaren garrantzia eta foru aldundiak dokumentazio prozesuan parte hartu behar duela azpimarratzen, dokumentazioaren gaineko ebazpena, gerora, bere eskumena denez, Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzak ebartziko badu ere. Erakunde honek, gomendioan esan dugun modura, azpimarratzen du babes erakundeek izan behar dutela, batez ere, adingabea babestu eta, gainera, defendatuko dutenak. Gai hau funtsezkoa da, gure ustez, adingabeek babestu eta defendatuta sentitu beharko baitute, hartuta dauden zentroetan. Adingabeek babes zentroetatik ihes egitea, zentroei mesfidantzaz begiratzea, auzitegi-tara sorterriratzeko ebazpenak eteteko eskatzeko abokatuei deitu behar izatea, beste erkidego batzuetan gertatu den bezala, oso kezagarria da.

Bizkaian ez da halakorik gertatu, hemen oso ondo doazen gizarteratze prozesuak baitaude. Aurten, ordea, kezka eragin diguten hainbat sorterriratze izan dira. Horregatik, bilerak egin ditugu Gobernuaren ordezkari-ekin, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, lehenago esan dugunez. Gainera, ofiziozko espedienteak ere abiarazi dugu. Hizpide ditugun gertakariak 2006ko maiatzaren 29an, goizaldean, gertatu ziren Zabaloetxeko egoitzan. Espainiako Polizia Gobernuaren Bartzelonako Ordezkaritzak agindutako hainbat sorterriratze ebazpen betearaztera joan zen zentrorra. Adingabe batek ihes egin zuen, baina bestea sorterrira bidali zuten. Gerora, beste adingabe batzuek ere ihes egin zuten, alarma zabaldua. Adingabe horiek guztiak lehenago Kataluniako babes erakundearen tutoretzapean egonak ziren. Zenbait kasutan, Gobernuaren Bartzelonako Ordezkaritzak adingabeok berriro beren familiarekin elkartzea erabaki zuten. Ebazpena gauzatzearen beldur, Kataluniako Autonomi Erkidegotik alde egin eta Bizkaira etorri ziren. Bizkaiko Foru Aldundiak babesik gabe zeudela eta tutoretzapean hartzea agindu zuen eta, sorterriratzeak araudian finkatutako bermeekin egiterik ez zuen kasuetan, bizileku baimena eskatu zuen, ohi duen bezala.

Egitateon berri izan genuenean, ofiziozko espediente bat hasi genuen, eta informazioa eskatu genion Bizkaiko Foru Aldundiari. Zehazki, adingabeen gainean zituzten informe pertsonal eta familiarren berri jaso, ea entzunaldia eta entzun diezaieten duten eskubidea legez bermatzen zitzaizen, tutoretza beren gain noiz hartzea noiz izapidetu zuten, eta bizileku baimena eskatuta zeukatzen, ea zergatik proposatu zitzaion Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzari sorterriratzea betearazteko eta, azkenik, horretan esku hartu zuten administrazio desberdinen koordinazioa zelakoa zen argitzea nahi genuen. Kataluniako Síndic de Greuges delakoari ere laguntzeko eskatu genion, eta gertakariaren berri eman genion. Berak, bere aldetik, informazioa eskatu zion babes erakundeari, tutoretzapean izandako adingabeen egoeraren gainean. Kataluniako Generalitateko Gizarte Ekintza eta Herritarren Sailak duela gutxi erantzun dio, adingabeen buruzko gizarte txostenetako datu guztiak azalduz. Síndic-ak esan digunez, informazio gehiago eskatu die, zehazki adin txikio horiek entzun diezaieten aukerarik izan duten ala ez, eta ea adingabe horiei abokatu baten interbentzioa eskatzeko duten eskubidea jakinarazi eta errespetatu zaien argitzeko, zehazki. Gobernuaren Kataluniako Ordezkaritzari ere adingabe horiek sorterrira bidaltzeko ebazpenen bermeei buruzko berri ere eskatu zaio.

Ikusten denez, kasu honetan garbi ikusten da autonomi erkidego desberdinek koordinatuta egon eta jardun behar dutela. Adingabeak beste erkidego batzuetan tutoretzapean egonak ziren. Han sorterrira bidaltzea erabaki zuten, eta erabaki hori geroago betearaziko da, beste autonomi erkidego batean, adingabeak gizarteratzeko

prozesuetan sartuta zeudela. Estatuko Administrazio Orokorrak sorterrira itzultzeko emandako ebazpena betearaztea legezkoa den jakiteko eskuduntza Espainiako Arartekoarena denez, hari eman genion honen guztiaren berri. Adierazi genion kezkatuta geundela sorterriratzeko horiek, antolamendu juridikoaren arabera, zer bermepean egin behar diren gaiarekin eta, zehazki, ebazpenok betetzeko zegoen epearekin. Gainera, ebazpenak berak ere legezkoak ziren zalantzak genituela ere esan genion (ea adingabeari jakinarazi zitzaion, ea entzunaldirik izan zuen, ea izatez biltzeko baldintzarik egon zen ...) eta sorterriratzeko ebazpenak gauzatzeko epeaz ere zalantzak genituela, hizpide ditugun kasu hauetan eman eta urtebetera gauzatu baitziren, legez eperik aurreikusten duen araurik ez dagoen arren. Horretarako, adingabeen alorrean dagoen araudia helduen atzerritartasunaren araubidez bestelakoa dela azaldu genion eta, beraz, helduentzat dauden kanporatu eta berriro hemen sartzea debekatzen dieten zehapenen preskripzio epeak ez zaizkie adingabeei aplikatu behar. Horretarako, ondoko alderdiak argitu beharko litzateke:

- Zer epe dagoen sorterriratzeko ebazpena betearazteko.
- Sorterriratzeko ebazpen bat betearazi ondoren, adingabea berriro hemen sartzen bada, ea indarrean egongo den artean aurreko sorterriratzeko ebazpena, eta ea zer prozedurari segitu behar zaion berriro sorterrira bidali gura bada.

Araudiak ez du inolako preskripzio eperik aurreikusten eta, hortaz, gerta daiteke atzerritarren lege araubidearen antzekotasunez, sorterriratzeko ebazpena denboratxoan joan ondoren betearaztea. Azaldu genuen, gure iritziz, adingabeen gaian adin txikia babestu eta bere interes gorena lehenetsi beharra aplikatu behar zirela eta, ondorioz, berriro kanporatzeko adingabea familiarekin benetan bilduko delako baldintzak egon behar direla edo, adingabeen sorterriko babes zerbitzuek ondo zainduko dutela ziurtatu behar dela eta, ez dela inor kanporatu, adingabearen osotasunerako, zein berak edo familiak jazarpena jasateko arriskurik badago. Horregatik, garrantzitsua da ebazpenaren indarraldia argitzea, bai ebazpenak gauzatu ez direnerako, bai gauzatu arren adingabea berriro itzuli denerako, eta zer egin behar den indarraldia agortu ondoren, gai horren arauen arabera behar diren bermeak ezarri. Gainera, autonomi erkidego desberdinen artean jarduketa irizpide edo protokolo desberdinak ezarri behar zirela genioen, beste erkidego batean tutoretzapean izandako adingabeen kasuetarako. Txosten hau amaitzean, oraindik ez dugu Espainiako Arartekoaren erantzunik jaso. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aldetik, berak adingabe batzuk sorterriratzeko ekarri zuten egitateetan zertan parte hartu zuen argitu zigun eta, esan zuten, Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzarekin koordinatuta aritzen dira, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta betebeharren eta gizarteratzearen gaineko Lege Organikoaren arabera dituen eskuduntzak aplikatuz. Adingabea lehenago beste erkidego bateko harrera zentron batean egon dela jakiten dutenean, beste administrazioarengana jotzen dutela ere esan digute, koordinatzeko. Gainera, Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzaren bitartez, adingabearen dokumentazioari buruzko informazioa eskatzen dute, eta ea sorterrira bidaltzeko ebazpenik daukan ere galdetzen diete. Horrela, adingabe hauei dagokienez, egiaztatu zuten beste autonomi erkidego batean sorterriratzeko ebazpenak emanak zituztela, legez ezarritako prozedurarekin bat zetozenak. Bestalde, kasu batean adingabeentzako epaile batek ere esku hartu zuen, adingabeak hainbat

kausa judizial zituelako zain. Horregatik guztiarengatik, legezko prozedura bete zela irizten zioten.

Foru aldundiaren erantzuna ikustean, gure gogoetak helarazi genizkion, baita Espainiako Arartekoari bidali genion eskariari buruzko argibideak ere. Gure gogoetei buruz, Estatuko Fiskaltza Nagusiak 6/2004 instrukzioan esandakoarekin bat gentozela esan genion aldundiari: *“sorterriratzea ez da kosta ahala kosta bilatu behar den helburu absolutua, beste interes batzuk ere hartu behar dira kontuan, hala nola, bizitza, osotasun fisiko edo psikikoa, edo oinarrizko eskubideen errespetua, eta horiek adingabearen interes gorenaren balantzak azkenean gure herrian geratzearen aldera jo dezan ekar lezakete.”* Gogoeta hau ere erantsi genion: bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, babesik gabe egoten dira, batez ere familiarengandik urrun daudelako eta familiarik ez dutelako edo, bere ardura hartu nahi ez duen familiarik ez dutelako. “Familiaren migrazio proiektua” dela irizten zaionean ere, ezin da ondorioztatu adingabearen garapenerako familia egokirik edo haren ardura gutxieneko prestakuntza eta zaintza bermeeekin hartuko duen familiarik dagoenik. Beste alde batetik, egia da urruntasunak ez digula hemengo gizarte zerbitzuetatik familiekin esku hartzeko aukerarik ematen, eta sorterrian adingabearen egoera zein den albiste fidagarririk lortzea ere zaila zaigula; ez da erraza, beraz, adingabearen eta familiaren egoera bermeeekin jasoko duten txostenik egitea. Babes sistemak oso desberdinak izaten direla ere bagenioen. Horregatik, komeniko litzateke sorterriratzearen alde edo kontrako txostenak egiteko irizpideak finkatzea, gure sistemaren bermeak jasota, hau da, adingabeei aitortzen zaizkien eskubideak, baina Marokoko errealitatera egokituta, adingaberik gehienak handik datozkigulako, eta hara bideratzen direlako sorterriratzerik gehienak.

Bestalde, 2006an sorterriratzeko ebazpenei buruz emandako ebazpen judizialak ere aipatu genituen, eztabaidagai honen antzekoak direlakoan, eta hitzez hitz jaso dugu Madrileko Administrazioarekiko Auzietarako 15. aretoaren adierazpena, 3/2006 etetik bereizitako pieza, 5. lege arrazobidea: *“Azkenean, esan bezala, adingabea sorterriratzea familiarekin biltzeko gurasoek edo seniderik hurkoenek eskatu edo bultzatu duela agerikoa ez bada, edo gutxieneko ziurtasunik ez badago, zein sorterriratzea aholkatu edo iradokitzen duen haren herriko gizarte zerbitzuen edo pareko organismoen behar bezala balioetsitako txostenik ez badago, hemen eztabaidatzen ari garen ebazpena ez litzateke zuzenbidezkoa, zeren, adingabeei ukitzen dieten jarduketetan beti adingabeen interes gorena lehenetsi behar bada, helburu hori ez litzateke beteko, beren herrira itzularaziz, guri baloratzea ez dagokigun arrazoiak tarteko, hemen beste edo gehiago babestuko duten inolako ziurtasunik ez daukagulako; are gehiago, ukitutakoari inolako iritzi edo baimenik eskatu ez zaionean, horrek prozedurazko arauen nolabaiteko gradua erakutsiko lukeen arren. Adingabeari entzutea ez da, prozesuaren une jakin batean galdera batzuk erantzuteko aukera izatea bezala ulertu behar, aukera izan behar du, eskatuz gero legezko aholkularitzarekin, independentziaz eta irizpide askatasunez, bere interesa defendatzeko komenigarri iruditzen zaizkion alegazioak eta arrazoiak argudiatzea. Bestela esanda, hartuko diren ebazpenen berri eman behar zaio uneoro, bereziki administrazio prozedurari amaiera emango dionarena, zelako errekursoak jar ditzakeen argituz (administratiboak zein judizialak), zeren, lehenago esan dugun bezala, Administrazioaren tutoretzapean egoteak ez*



*baitu oztopo izan behar bera, zuzenean eta pertsonalki, hartuko diren eta berari hainbeste eragingo dioten erabakien jakitun egon dadin.”*

Azken finean, batetik beste autonomi erkidego batek tutoretza berria hartzen zuen kasuetan sorterriratzeko ebazpenen indarraldia legez oso argi ez zegoela baiesten genuen eta, beste batetik, aurreko gogoeta horien gaineko iritzia eskatzen genion. Gainera, gure interbentzioa eten genuela ere jakinarazten genion, batetik erakundeen erantzunaren zain geundelako eta, bestetik, administrazioarekiko auzi bideko errekursoa jarrita zegoelako eta, horrek, gure erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legea aplikatuz, ebazpen judizialaren zain dauden kekak aztertzeari uztera behartzen gaituelako.

Bizkaiko Foru Aldundiak erantzun digu ados dagoela gure gogoetekin, legeak sorterriratzeko prozeduraren gainean argi ez daudela, sorterriratzearen aldeko edo kontrako txostenak egiteko irizpideak finkatu behar direla, eta autonomi elkarteekin eta foru aldundiekin jarduteko protokoloak bultzatu behar direla, autonomi erkidego batek baino gehiagok hartu edo tutoretzapean izan dituen adingabeen kasuetan. Gainera, adingabearen eta bere familiarren errealitatea ezagutzeko nora jo behar den ere zehaztu behar dela erantsi du, lehen esandako zailtasunak kontuan hartuta.

Azken batean, oraindik argitzeke dagoen arren, espediente honen xehetasunak jaso nahi izan ditugu, bakarrik dauden adingabe atzerritarren alorrean zer lege araubide aplikatu behar den legez oso argi ez dagoenez, adingabeak babesteko lege araubidearekin bateragarria den zalantza sortzen dira. Horregatik, gure planteamendua bidetik, oso arduratsuak izan behar dugu gai hau gidatzen duten lege bermeak betetzean eta lehentasuna eman behar diogu horri, gainera.

Bisiten ondorioz, ase gabe zeuden eta beste administrazio batzuen eskuduntza diren beharrak hauteman ditugu. Horren harira, garrantzitsua da beste administrazio batzuen inplikazioa, gure ustez, adingabe hauek gizarteratzea erraztuko bada. Horregatik, hainbat ofiziozko espediente ireki ditugu, inplikatu behar hori tarteko. Zehazki, ondoko administrazio hauengana jo dugu: Hezkuntza Sailarengana, adingabe hauek eskolatu eta alfabetatzearen garrantziarengatik, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarengana, haur eta nerabeak artatu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 78 eta 91 artikuluek hizpide dituzten egoitza zentroen eta barnetegien araudia prestatu behar delako.

Hezkuntza sailari dagokionez, batetik Bizkaia eta Gipuzkoako babes zentroetara egin genituen bisitak aipatu genizkien. Egiaztatu ahal izan genuenez, adingabe batzuk gaztelania edo euskara irakatsiko zieten irakaslerik gabe zeuden, eskolatu barik, hezkuntza babes edo errefortzu barik, edo laneratu aurreko prestakuntza ikastarorik egiteko aukerarik gabe. Era berean, hezitzaileek ziotenez, zentro horiek kudeatzen dituzten erakundeek zailtasun handiak izaten dituzte Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko, sailaren barruan adingabe hauek beren beharretarako egokiak diren ikastegietan eskolatu edo ikastaroetan matrikulatzea erraztuko dien inor ez daukabela (lurralde historiko desberdinetako). Zehazki, gure bisitetan ondoko zailtasunak igarri genituen:

- Adingabeekin dauden hezitzaileek eskolatzeko gestio guztiak egin behar dituzte, nora edo norengana jo behar duten oso ondo ez dakiten arren, eta adingabe horiek behar bezala eskolatzeko ahalegin izugarriak egiten dituzte.

- Alfabetatzeko arazoak dituzte. Loiun (Bizkaia) soilik daukate Hezkuntzaren Sailaren mende zeregin horretan aritzen den irakasle bat, bi talde txikirekin eta oso ordu gutxitan. Gipuzkoan Gurutze Gorriak egiten zuen hori, baina orain egiteari utzi dio. Gasteizen Sartu edo Norabide bezalako elkarteengana jo behar da.
- Zailtasunak dituzte 16 urtetik beherakoak eskolatzeko, eta batzuetan ez dute ikasurte barruan lortzen (Urnieta, Zornotza...), batez ere ikasurtea hasita badago. Horrela, 16 urtetik beherako adin txikiak daude, derrigor eskolatu beharreko adinean, alegia, zereginik ez dutenak, baliabide alternatiborik ez dutelako.
- Zailtasunak dituzte laneratu aurreko prestakuntzarik jasotzeko, ikasurtea Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban hasita dagoenean. Sei hilabete baino gehiago igaro daitezke Askagintzak, Peñascal fundazioak, Renteria fundazioak, Sartuk ... antolatutako ikastaroetara sartzeari lotu arte, eta batzuetan eskatu eta eskatu aritu ondoren, mesede modura, eta entzule joatea lortzen dute.
- Ditutzen arazoen artean, dokumentaziorik ez izatearen ondoriozkoak daude, hezkuntza eta prestakuntza baliabideetara berehala sartzeari oztopatzen dielako, eskola absentismoko arazoak eta, azkenik, bizi diren udalerritik gertuko ikastegietan eskolatzeko zailtasunak, joan-etorrietan ibiltzera behartuz.

Hezkuntza Sailerako gure idatzian, *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* gure ezohiko txostenean proposatutako gomendio batzuk gogorarazi genizkien: *“hezkuntza administrazioaren esku hartzea hizkuntza ikasteko programetan (22), ahalik eta eskolatzeari normalizatuena erraztea eta bermatzea (23) eta profil profesional berrien beharra (24)”*. Amaitzeko, ondoko proposamenak egin genizkien:

1. Hezkuntza Sailarekiko elkarrizketa erraztea. Garrantzitsua da babes zentro bakoitzeko koordinatzaileak inor berririk sartzekotan norengana jo behar duten jakitea, 16 urtetik beherakoa zein gorakoa izan.
2. Jarduketa protokolo bat prestatzea, babes zentroak eta foru aldundi eskudunak zer urrats egin behar dituzten eta zer dokumentazio aurkeztu behar duten, 16 urtetik beherako adingabeak eskolatzeko zein laneratu aurreko zentroetan sartzeko.
3. Informazioa ikastegiei. Ikastegiei ez dute adingabe hauen errealitatea zein edo zelakoa den ezagutzen, ez eta zer betebeharrak duten ere, hezkuntza alorreko esku-duntzengatik zein administrazio desberdinek haurren eskubideak babesteko beren gain hartutako eginbeharrengatik; gizartearen beraren eginbeharrek zeintzuk diren ere ez dakite, batez ere babesik gabeko adingabeak badira. Garrantzitsua da, beraz, adingabe hauen zaurgarritasunaren berri eman eta sentsibilizatzea.
4. Babes zentroei aldi-aldi inguruan dauden ikastegiak eta berritzeguneak zertarako diren edo zertan lagun liezaieketen berri eguneratua ematea.

Hezkuntza Sailak erantzun digu bakarrik dauden adingabe atzerritar guztiak beraien berri duten unean bertan eskolatzeko dituztela, hau da, foru aldundiak edo harrera zentroko arduradunak haien berri ematen dienean. Beraien esanetan, aholkularien eskolatzeko proposamenak eta Eskolatzeko Batzordeak finkatutako irizpideak kontuan hartuta (hizkuntza normalizazioaren prozesuan integratzea, ikastegia etetik gertu egotea, zentroen arteko oreka, baliabideak ondo erabiltzea, zentroan ama hizkuntza bereko

ikasleak izatea ...). Lehen idatzian zioten Bizkaian 44 ikasle zeudela ikastegi arruntetan edo Zabaloetxeko ikasgeletan. Gerora, berriro informazioa eskatu genienean, esan digute 16 adingabe daudela IES Berriz BHIIn eskolatuta. Gainera, beste 12 adingabe ere badaude ikastegi desberdinetan banatuta, harrera pisua non dagoen arabera (Barakaldo, Basauri, Bilbao, Mungia, Portugalete eta Santurtzi). Hezkuntza Sailaren bigarren erantzun honetan 28 adingabe aipatu dira, foru aldundiaren tutoretzapean daudenak askoz ere gehiago diren arren eta, ondorioz, berriro eskatu diogu informazioa foru aldundiari, beste adingabe batzuen, berbarako, laneratu aurreko prestakuntza zentroetan daudenen egoera zein den jakiteko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, ez digute eskolatutako adingabeen kopuruaren daturik bidali, baina esan digute hartutako adingabe guztiak eskolatu dituztela. Gainera, ikasleen hezkuntza beharrei egokiro erantzuteko egokitzapenak egin dituztela diote. Horrela, batzuek hezkuntzako errefortzuetan, berariazko hezkuntza interbentzioko egitasmoetan, eta egitarau osagarrietan parte hartzen dute. Informazio gehiago izateko, zein ikastegitan eskolatu dituzten galdetu diegu. Esan digute foru aldundiak solaskide bat izendatu duela Hezkuntzako lurralde ordezkartzarekiko harremanetarako, eta matrikulazioko epe arruntetik kanpoko eskolatze kasuetan ohi den bidetik jotzen dutela.

Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, hauek ere ez digute eskolatutako adingabeen kopuruaren berri eman, baina lurralde horretan Zabaltzen zentroko arduradunekin ondo koordinatuta daudela argitu digute, eta zentroan hartutako adingabe atzerritar guztiak eskolatzea erraztu eta bermatu dela. Gipuzkoan bezala, ikasleen hezkuntza beharrei egokiro erantzuteko egokitzapenak egin direla esan digute. Horrela, batzuek hezkuntzako errefortzuetan, berariazko hezkuntza interbentzioko egitasmoetan, eta egitarau osagarrietan parte hartzen dute.

Era berean, esan digute irakasleentzat, oro har, eta halako ikasleekin inplikaturik dauden irakasleentzat beren beregi diren prestakuntza eskaintzak izaten direla. Horren guztiaren berri Sailaren web orrian eta Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzan ematen dute. Gainera, urtero-urtero jarraibideak bidaltzen dizkiete zentroetako zuzendariei, epe kanpoko ikasleen eskolatzearen gainean.

Perfil profesional berrien beharri dagokionez, beraiek diotenez “*zentroetako aparteko baliabide pertsonalek ez dute, berez, hezkuntza erantzun hobea bermatzen. Halakoak antolamendu, curriculum, tutoretza eta abarreko neurriak bilduko dituzten zentroaren proiektuetan justifikatu behar dira. Gainera, hizkuntza ikasteko komunikazioaren testuingurua ere kontuan hartu behar da.*”

Azkenik, Immigrazioari buruzko lehen Euskal Planean aurreikusitako diren neurrien aplikazioa eta esperientzia horrek Plan berria egitera begira duen balioa aipatzen dituzte.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagokionez, haur eta nerabeak artatu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 legean aurreikusitako egin beharra betetzeko epeaz, adingabeentzako egoitzetako harrera zentro desberdinak arautu behar dituen araudiaz, hau da, zentro desberdinei zer baldintza material, funtzional eta zer baliabide pertsonal eskatu behar zaien zehazteaz galdetu genien. Erantzun digutenez, araudia prestatzen hasita daude, eta 2006an amaituta edukitzea espero zuten. Hala ere, 2006an zehar ez dugu bukatu dutelako berririk izan.

### C) Amaierako gogoeta batzuk

Azkeneko urte honetan hainbeste informazio jaso, arazo sortu, eta hainbeste aldiz esku hartu du Arartekoak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruz, non ez baita erraza egoeraren ikuspegi orokor, sintetikoa eskaintzea. Egoera ikaragarri aldakorra da, gainera.

Bestalde, gure txostenean jorratutako arazoetako askok hortxe dira: harrera baliabideak saturatuta daude, eskolatzeko oztopoak izaten dira, dokumentazio izapideak poliki doaz, zaila da haien beharretara egokitutako hezkuntza interbentzioa bideratzea. Eta, gainera, arazo berriak sortu, edo areagotzen dira: gizarteko eztabaida adingabe hauek hartzeko dugun ahalmenaren gainean, arazo iturri direlako irudia, eta baliabideak sortzearen kontrako giroa, sorterriratzeko prozesuak beharrezko bermerik gabe ...

Erakunde honi dagokion ikuspegitik, pertsona guztien eskubideen defentsaren ikuspegitik, zenbait elementu kezkarri daude baina, aurtengo jarduketan haritik, ez daukagu horietan tematuta segitu beste biderik. Horrela, honako hauek nabarmenduko genituzke:

- Harrera zentro batzuetan ez daukate adingabe hauei arreta nahikoa eta duina eskaintzeko gutxieneko baldintzarik. Horrek, sarritan, zerikusia izaten du zentroen egiturazko baldintzekin eta ahalmenarekin, lantalde profesionalen ratio eta baldintzekin, prestakuntza jarduketa egokiak antolatzeko edo komunitateko beste programa, zerbitzu edo baliabideak aprobetxatzeko gaitasunarekin ...
- Hezitzaile talde batzuek, zer baldintzatan lan egin behar duten kontuan hartuta, etengabe "erretzen" dira eta, horrek, besteak beste, koste pertsonalaz gain, arretaren jarraitasuna zailtzen du.
- Gizartean zabaltzen ari den irudia, auzi baten berri hedatzen den bakoitzean bereziki, ikaragarri kaltegarria da adingabeentzat beraientzat, etorkinen multzoarentzat, eta gure gizartean jarrera xenofoboak berotzeko baino ez du balio.
- Estatuko administrazio desberdinen arteko gutxieneko adostasunak lortzeko beharra gero eta premiazkoagoa da ...

Horrek guztiak benetan panorama kezkarria marrazten du adingabe hauen eskubideen eta eskubide horien izatez gauzatzearen inguruan.

Kezka hau gure ezohiko txostenaren oinarrian eta Arartekoak bertan egindako gomendioetan ageri da, eta beste Ararteko batzuk ere bat datoz gurekin horretan. Horren erakusgarri, hona hemen azkeneko urtean Leonen, Herriaren defentsarako Estatuko erakundeak koordinatzeko XXI. Jardunaldietan hartutako erabakia.

**“Herriaren defentsarako Estatuko erakundeak adierazpena administrazio publikoek bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruz dituzten erantzukizunen gainean**

**2006ko urria**

**Sarrera**

Azkeneko hilabeteotan bakarrik datozen adingabe atzerritarrak heldzen ari dira, berritro, Kanarietako Erkidegora. Adingabe horiek azkeneko urteotan gure herrira helduz joan diren Afrikako iparraldeko beste gazte batzuekin batzen dira. Denak batera, ikaragarri erronka handia dira gure erakundeentzat, eta gure gizartearentzat eret, gazte horien harrera, babes, prestakuntza eta gizarteratze ikuspegietatik.

Egoera horrek berehalako harrerarako ahalmeneko arazo handia sortu dio Kanarietako Erkidegoari, heldu zein adingabeentzako arreta baliabideek gainezka egin diotelako.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak, eta autonomi erkidegoek akordio bat lortu dute, duela gutxi, Kanarietara heldutako 800 bat adingabe horietatik 500 edo Estatuko lurralde desberdinen artean banatzeko.

Gizarte politikak diseinatu eta garatzerakoan immigrazioaren fenomenoak eragin ditzakeen erronkak alde batera utzita, herriaren defentsarako Estatuko erakundeak bat gatoz honetan: beharrezkoa da Estatuko administrazio publikoen artean akordioak lortzea adingabeen eskubideen ikuspuntutik hain garrantzitsua den gai batean. Era berean, ohararazi nahi dugu, horien garrantzia gorabehera, lehen urratsa baino ez dela administrazio publikoek adingabearen interesen alde egiteko duten derrigorrezko betebeharrak horretan, horixe ezartzen baitu Haurren Eskubideen Konbentzioaren 3. artikulua. Horren arabera, Espainian dagoen beste edozein adingabek dituen eskubide berdinak aplikatuko zaizkie adingabe horiei ere (adingabearen babes juridikorako 1/1996 Legea). Gogoratu behar dugu, halaber, Haurren Eskubideen Konbentzioaren 2.1. artikulua esplizituki debekatzen duela adingabea bere jatorriarengatik baztertzea. Halaber, Espainiako legeriak argiro ezartzen du adingabeak, beste ezer baino lehen, adingabeak direla, eta printzipio horrek nagusitu behar duela atzerritar izatearen aurrean.

Adingabeen Defendatzaileen Europako Sareak (ENOC, European Network of Ombudspersons for Children), azkeneko urteko bileran adierazpen bat onartu zuen, Europako Kontseiluko kide diren herrialdeei bakarrik dauden adingabeen eskubideak bermatzeko beharrezko neurriak har zitzaten eskatzeko. Horrek garbi erakusten du zelako garrantzia daukan fenomeno honek Europa mailan, eta justifikatzen du, Espainiaren kasurako garrantzi berezia duenez, herriaren defentsarako erakundeok adierazpen bat aurkez dezagun, Espainiako gizarteari adingabe hauen eskubideak berma daitezen zaintzeko ardura daukagula jakinarazteko. Azpimarratu gura ditugu Administrazio publiko desberdinek adin txikiei buruz dituzten eginbeharrak, eta adingabeen eskubideak bete daitezen indartzeko ekintza batzuk gomendatuko ditugu.

## Jarduketa printzipioak

- 1) **Autonomi erkidego desberdinetan eskudun diren administrazio publikoek adingabearen tutoretzaren ardura beren gain hartu behar dute, berehala**, adingabearen eta jatorrizko famili nukleoaren errealitatea aztertzen den bitartean. Saihestu behar da adingabearen egoera aztertzen den bitartean, adingabeak, praktikan, gizarte eta hezkuntza baliabideetara eta lan prestakuntzara sartzetik ez izatea.
- 2) Administrazio eskudunek **adingabea dokumentatzen eta bizilekua izapidetzen** familiarengana itzul dadin zailtasuna frogatzen denean hasi behar dute, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideen eta askatasunen eta gizarteratzearen gaineko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 35.4 artikulua dioenez, Arautegiak (2393/2004 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa) finkatzen dituen bederatzi hilabeteak igaro daitezzen itxaron barik, epe hori, legearekin bat datorren interpretazio baten arabera, gehienezko epe modura hartu behar baita.
- 3) **Ez dira adingabeak beren sorterrietara bidali behar, jatorrizko famili nukleora itzultzea (edo babes baliabide alternatiboa) adingabearentzat onena dela bermatzen ez bada**. Erabakiak kontuan hartu behar du adingabearen beraren ikuspegia –entzun diezaioten eskubidea baitu–, eta bere sorterrian dauden baliabideak arretaz aztertu ondoren soilik egin ahalko da.
- 4) **Adina zehazteko aurretiazko froga medikoak zalantza kasuetan egingo dira**, eta aditu independenteen aholkuarekin eta teknologia modernoarekin egingo dira, froga fisiko, sozial eta psikologikoak konbinatuz.
- 5) Egindako azterketa medikoetatik ateratzen den adinik txikiena hartuko da erreferentzia modura, beti.
- 6) **Adingabeek Administrazioaren mende ez dagoen laguntza juridikoa jasoko dute**, adibidez, bazkuneko ofizioko txandakoa, prozesu administratiboak edo judizialak adingabearen interes gorena kontuan hartuz burutuko direla ziurtatzeko.
- 7) **Autonomi erkidegoek bakarrik dauden adingabe etorkinen arretarako ereduak koordinatu behar dituzte**, adingabeek tutoretza eta bizileku prozesuak ondoen bermatzen dituzten eta gizarte eta hezkuntza baliabide onenak eskaintzen dituzten erkidegoetara ihes egin dezaten saihesteko.
- 8) Orobat, **autonomi erkidegoek eta Gobernuaren Ordezkaritzek beren jarduerak koordinatuko dituzte**, bakoitzaren bere eskumenen esparruan, disfuntzioak ekiditeko eta proposamena adingabe bakoitzaren interesarentzat onena dela ziurtatzeko. Erakundeen arteko koordinazioa errazteko, bakarrik dauden adingabe etorkinen erregistro bateratua eduki behar da, gai horretan eskuduntzarik duten administrazio publikoek partekatuta.

- 9) **Bakarrik dauden adingabe atzerritarren arretan, osotasunean gara daitezen eta hartzen dituen gizartean ondo txerta daitezen errazteko behar diren baliabideak diseinatu eta planifikatu behar dira.**
- 10) **Administrazio publiko guztiek bakarrik dauden adingabe atzerritarren arretan dituzten ardurak beren gain hartu behar dituzte.**
- 11) *Garrantzitsua da autonomi erkideetako gobernuek beren lurraldeetako tokiko administrazioekin akordioak hitzartzea, bakarrik dauden adingabeen arreta eta integrazioa ondoen bermatuko duten baliabideak eta estrategia egokiak batera diseinatzeko. Bereziki garrantzitsua da batzuetan adingabe hauen harrera eta babes neurriekin batera gizartean sortzen diren gaitzespen jarrerak gainditzea.*
- 12) **Bakarrik dauden adingabe etorkinak hartzeko zentroek espazio, osasun eta hezkuntza bermeak izan behar dituzte.** *Autonomi erkidegoek bermatu behar dute adingabeek arreta jaso dezaten zirkuitu normalizatutik, jarduketak adingabe heldu berriei hezkuntza eta maitasun erreferente egonkorrak emango dizkieten 24 orduko zentroetan bilduz.”*

### 3) Adingabe lege-hausleak

#### A) Aurrekariak

1998an adingabe lege-hausleekin esku hartzeari buruzko Arartekoaren ezohiko txostena jendaurrera atera zen, eta Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion. Bai txosten orokorrak, bai biltzen dituen gomendioek, oro har, erakunde desberdinei ukitzen diete, bereziki biri: botere judizialari –fiskaltzak eta adingabeen epaitegiak–, prozedurei, neurriak hartzeari, neurrien jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, eta Eusko Jaurlaritzari –bereziki Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari–, neurriak betetzeari dagokionez eta, beraz, eskueran jarritako bitarteko eta baliabideen multzoari dagokionez. Gure jarduerak, Legearen aginduz, Eusko Jaurlaritzak bete beharreko gai eta proposamenei heldu die.

Horrela, 1999an, Arartekoaren jarraipena gure Erkidegoan dauden adingabe lege-hausleen hiru barnetegiak ikustera joanez eta, ofizioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari informazioa eskatuz egin zen. Bisiten emaitzen, eta sailarengandik jasotako erantzunen berri urte hartako ohiko txostenean xeheki eman zen (ikus. I. kap., 1.1.6, 1999ko txostena). Han hainbat alderdi nabarmentzen ziren, onak eta txarrak, gomendioak betetzeari buruzkoak; neurri batzuen eta besteen bilakaeraren gaineko datuak ematen ziren, konparaketak eginez, eta berariaz jorratu ziren askatasunaren murrizketa handiagoa dakarten zerbitzuen eraginkortasunerako lau alderdi garrantzitsu:

- Barnetegi zentroen sarearen eraketa.
- Profesionalen lan egoera.
- Zerbitzu horien eta beste asistentzia sare batzuen arteko harremana.
- Adingabeek irteteko eta beren kabuz moldatzeko dituzten aukerak.

Gai hauei guztiei lehentasunez aditu zitzairen 2000n egindako jarraipenean. Arartekoareneko langileok berriro joan ginen Andoio, Urtuella eta Aramaioko hezkuntza zentroak ikustera, eta gerora, Ararteko erakundea, ofiziozko bi espedienteren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarengana eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarengana zuzendu zen (ikus. I. kap., 1.1.6 atala, 2000ko txostenekoa).

2001 urtearen jarraipenari dagokionez, berriro joan ginen hiru zentroetara, eta ofiziozko espediente baten bidez Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailari informazioa eskatu genion, hamar puntutan zehaztuta:

1. Barnetegi zentroen sareetan egindako aldaketak, aurreikuspenak eta beharrei erantzuteko duten gaitasunari buruzko balorazioa.
2. Lan egoerari eta profesionalen lan baldintzei buruz hobetutakoa.
3. Beste zerbitzu batzuekiko akordioak, koordinaketa eta lankidetzak sistemak (berezik barnetegietan sartutako adingabeen hezkuntza eta osasun arretarako).
4. 2001eko azaroaren 7ko Agindua aplikatzeko egin diren edo egitea pentsatzen den urratsak; Agindu horren bidez hartutako eta barnetegietan sartutako adingabeen hezkuntza eskubidea bermatzeko neurriak arautzen dira.
5. Adingabe horiei, barnetegi garaia amaitzen zaienean, irteera erraztera begira abiarazitako berariazko egitarau edo zerbitzuak.
6. Gure erakundeak hainbeste bider eskatu duen zerbitzu horien arauketa zertan zegoen.
7. Azkeneko urteetan bideratutako neurrien bilakaera.
8. Adingabearen Erantzukizun Penalaren Lege berria aurtengo urtarrilean indarrean jartzearen ondoriozko aldaketak, demanda, errekurso eta erantzuteko ahalmenei dagokienez.
9. Gure Erkidegotik bidalita, azkeneko urteotan beste lurralde batzuetako zentroetan barruratu diren adingabeen datuak eta zergatiak.
10. Adingabeen urraketan biktima izan diren pertsonen emandako arreta.

Horrela, bada, eskatutako informazioak jada jarraipena egindako gaiei heltzen ziren berriro baina, gainera, gai berriak ere sartzen zituen, eta denboran gertu zeuden eta zerbitzuan zuzenean eragiten zuten faktore edo gertakariak hartzen zituen kontuan. Adibidez: 2001eko urtarrilean adingabeen erantzukizun penal arautzeko 5/2000 Lege Organikoa jarri zen indarrean, non, besteak beste, adin nagusitasun penal eta zibila parekatzen diren eta, horrekin, neurrien mendeko adingabeen kopurua gehitzen den eta, gainera, barruratutako adingabeen perfila eta ezaugarriak aldatzen diren; edo ETAk Zumarragan barnetegi izateko eraikitako instalazioak leherrarazi zituen, barnetegi sarean ahalmena baldintzatuz...

Une horretatik aurrera, eta hurrengo urteetan, Arartekoaren esku hartzeak aipatutako hamar gai horiek hartu ditu erreferentzia esparru modura, batzuk bereziki azpimarratuz, ikusitako bilakaeraren eta jasotako kexaren baten arabera. Eta jarraipenaren txostenak egiteko orduan (ikus azkeneko ekitaldietako urteko txostenetako 1.1.6 atalak), funtsean ondoko elementu edo informazio iturriak hartu ditugu kontuan:

- Bertatik bertara jasotako informazioa, behaketaren eta elkarrizketen bidez, barnetegietan edo autonomiarako pisuetan.



- Justiziako Sailburuordetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren arduradunekin izandako bilerak, horien mende baitaude neurri horiek aplikatzen dituzten zerbitzuak.
- Beste profesional batzuekin izandako bilerak, adibidez, Justiziako lantalde psiko-sozialekoekin.
- Justizia Sailarengandik jasotako informazioak, kexak edo informazio eskariak tarteko.
- Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren memoriak.

Azkeneko hiru txostenetan oinarritzko datuak laburbildu, zentroetarako ikustaldien emaitzen berri eman, edo profesionalek mahairatu dizkiguten arazoak jaso ez eze, azkeneko atal batean gure iritziz bereziki kezkarriak ziren edo hobetu behar ziren hainbat gai azpimarratzen genituen. Besteak beste:

- Neurrien kopuruan izandako hazkunde garrantzitsuen ondorioz erantzuna emateko orduan zeuden arazoak (ondorioekin kate osoan): epaitegietan, Gazteen Justizia Zerbitzuaren kudeaketan, zentroetako harrera ahalmenean, bizimodu erdi irekiaren neurrien kudeaketan eta jarraipenean...).
- Babes sistemetatik datozen adingabe lege-hausle barruratuen proportzio altua (bereziki bakarrik dauden adingabe atzerritarrak); horrek bi sistemen arteko lotura sakon aztertzea eskatzen du.
- Neurriak, terrorismo ekintzetan inplikaturako adingabeen kasuan, Audientzia Nazionalak esku hartzen duenekoetan, familiarengandik gertuago betetzea ahalbidetuko duten formulak garatu beharra.
- Zerbitzuak ez daudela arategiz finkatuta, alderdi guztientzako berme gisa.

## **B) Azkeneko urteko jarraipen jarduera nagusiak**

Azkeneko urte honetan berriro joan gara, behin baino gehiagotan, Zumarragako barnetegiaren funtzionamendua zelan doan ikustera, hainbat bilera egin ditugu sailaren arduradunarekin eta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari bideratu diogun ofiziozko espedientearen bidez, funtsezkoen begitantzen zitzaizkigun sei gaiei buruzko informazio eguneratua eskatu diogu. Hemen jarduera horien emaitza laburbilduko dugu.

### **1. Azkeneko urteotan burututako neurrien bilakaera**

Arartekoaren adingabe lege-hausleen gaineko txostenak legeak aurreikusitako neurrien multzoari buruz eta, bereziki, askatasuna gutxien murrizten duten, hezteko ahalbide gehiago eskaintzen dituzten eta barruratzetik eskatzen ez duten neurrien multzoari buruz eskaintzen dituen ahalbideak garatu nahi zituen. Baliabide gehiago ala gutxiago edukitzea neurri horien benetako aplikaziorako erabakigarriak diren faktoreen artean dago, eta gure erakundeak arreta berezia jarri du horretan, neurriak gauzaraztea euskal Administrazioaren eskumena baita.

Aurreko txostenetan gai honi buruzko datuak eskaini ditugu, balorazioak egin ditugu eta alderdi on eta txarrak nabarmendu ditugu. 2000 urtean bereziki, orduan izan

baikenuen Gazteen Justizia Zerbitzuak prestatutako memoria xehatua eskuartean hartu eta aztertzeo aukera (“Adingabeen epaitegiek EAEn 1999an ezarritako neurrien betearazpenaren azterketa”).

Memoria horrekin neurriak oro har eta kopurutan zelan bilakatu ziren ezagutzeko ez eze, gure erakundearen iritziz oso interesgarriak diren irizpideen arabera, informazioa xehekiago aztertzeo aukera ere izan genuen. Horrela, adibidez, neurri desberdinak betearaztea zenbat berandutzen den, zenbat denbora igarotzen den gertakari edo urraketatik neurria gauzaten den arte, edo zer alde dagoen neurririk gogor edo murriztaileenen (barruraztea) eta kolektibo jakin batzuen ahultasunaren edo ezaugarrien artean (gutxiengo etnikoak, eskolatu gabeko adingabeak, babespeko adingabeak, berrerorleak...).

Bestalde, bilakaeraren datu orokorrek neurri bakoitza zenbateraino aplikatzen den jakinarazten digute, baita joera orokorrak zein diren ere. Datu orokor horiek ondoko taula honetan daukazue.

### 2000-2006 tartean ezarritako neurrien bilakaera

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Bitartekaritza/Erreparazioa	234	309	372	279	..(1)	..(1)	..(1)
Ohartarazpena	72	33	-	85	..(1)	..(1)	..(1)
Zaintzapeko askatasuna	65	135	176	191	259	201	207
Zerbitzuak egitea erkidegoaren onerako	83	123	185	321	430	506	469
Tratamendu ambulatorioa	7	26	31	18	25	33	16
Gizarteratu eta hezteko zereginak	-	20	27	47	66	95	73
Harrera	-	2	3	3	5	4	3
Eguneko zentro batera joatea	-	-	-	-	2	12	6
Astebururako barruraztea	16	42	62	71	88	66	147
Zentro batean barruraztea	64	63	98	110	142	137	186
<b>GUZTIRA</b>	<b>541</b>	<b>753</b>	<b>954</b>	<b>1.125</b>	-	-	-
Bitartekaritza edo ohartarazpenik gabekoak guztira	235	411	582	761	1.017	1.054	1.107
Neurrien gehitzea, aurreko urtearen aldean	27	176	171	179	257	37	53

(Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Geuk prestatuta)

(1) Ez daukagu bitartekaritza eta ohartarazpeni buruzko datu horiek.

Datu horiek argi eta garbi erakusten dituzte zenbait joera. Agian garrantzitsuena guztirako neurrien kopurua izugarri hazi dela da, baita bakoitzean eta guztietan, 5/2000 Legearen aplikazioaren ondorioz, eta batez ere 2001 urtetik aurrera igo dela ere.

Izan ere, betearazteko baliabiderik eskatzen ez duten bitartekaritza eta ohartarazpenen gaineko datuak kontuan hartzen ez baditugu, urteko igoerak nabarmenak izan dira: %75 (2001 urtean); %42 (2002 urtean); %31 (2003 urtean); %34 (2004 urtean). Zorionez, azkeneko urtean hazkunde joera hori moteldu egin da (%4 igo da).

Alabaina, azkeneko datu hori baloratzeko orduan, beste elementu berri bat ere hartu behar da kontuan: justizia administrazioa langileen huelgak urteko azkeneko bi hilabeteetan agindutako neurrien kopuruan izan duen eragina. Izan ere, sailaren kalkuluen arabera, eta lehen hamar hilabeteetako datuak extrapolatuz, 1159 neurri inguru hartuko ziratekeen, eta %10 gehitzea ekarriko zukeen.

Urte batzuen eta besteen arteko gorabeherekin, esan daiteke, oro har, neurri mota guztiak gehitu direla eta, igoera bereziki esanguratsua izan dela bizimodu erdi irekiko neurrietan. Horrela, 2000 urtea erreferentzia modura hartzen badugu (5/2000 Legea indarrean hasi aurreko azkeneko urtea), eta datuak azkeneko urtekoarekin alderatzen baditugu, ondoko aldaketa eta joera hauek igarri ditugu:

- Erkidegoarentzat egin beharreko zerbitzuak bost bider baino gehiago hazi dira (83tik 469ra igaro dira).
- Zaintzapeko askatasunak hiru bider gehiago izan dira (65etik 207ra).
- Tratamendu ambulatorioak 7tik 16ra igaro dira.
- Gizarteratu eta hezteko zereginak, lehenago ez zeudenak, 73 izan dira azkeneko urtean.
- Apalki ekin zaie hezteko taldeetako harrerei (3 kasu), baita eguneko zentroetara joateari ere (6 kasu).
- Asteburuetako barruratzek 16tik 147ra igaro dira.
- Zentroetako barruratzek, badaezpadakoak zein neurri bat aplikatzearen ondoriozkoak, 64tik 186ra igaro dira (bikoitza baino gehixeago).

Azkeneko urteko datuei adiago erreparatzen badiegu, ikusiko dugu bizimodu erdi irekiko neurriak dira, oraindik orain, erabilienak. Horrela, esaterako, erkidegoaren onerako prestazioak izan dira neurriak hedatuena, ezarritako guztien %42, alegia. Alabaina, azkeneko urtean deigarri eta kezkarriena neska edo mutila bere inguruetatik atera eta hezkuntza zentro batera joanarazten zaioneko neurriak izugarri gehitu direla da. Horrela:

- Barruratzek %34 gehitu dira (urte betean 137tik 186ra igaro dira);
- Asteburuko egonaldiak edo barruratzek %100etik gora gehitu dira (urte betean 66tik 147ra igo dira; %80a zentro barruan betetzen da).

Hau da, azkeneko urtean bi neurri mota hauen multzoa ezarritako neurri guztien %30 izan da, aurreko urtean %20ra ere ez ziren iritsi (%19,2 zehazki), eta hemen aztertutako denboraldiaren hasieran (2000n), %12,5 baino ez ziren.

Sailak berak gure informazio eskariari erantzutean esan digun modura, datuek adingabeen epaitegien jarreraren aldaketa argia erakusten dute, eta aldaketa hori aztertu eta jarraipena egin beharko zaio.

Kopuruen datuak, ordea, ez dira zenbait errealitate kezkarri igartzeko nahikoak. Horrela, esaterako:

- Neurrien kopurua gehitu ez eze, askoren iraupena ere luzatu da.
- Gehitzen segitzen dute gurasoen kontrako indarkeria delituak egiten dituzten neska-mutilen kasuak, baita patologia psikiko larriak dituzten nerabe edo gazteenak ere.

- Babes sistematik datozen barruratutako gazteen portzentajea handia da oraindik ere.
- Barruratutako %38 inguru adingabe atzerritarrak dira.

Gure datu eskariaren aurreko erantzunean, Justizia Sailak Gazte Justizia Zerbitzuaren 2003ko Lan Memoria erantsi zigun. Horrekin neurri bakoitzaren aplikazioari buruzko oso datu xehatuak ezagutu ahal izan genituen (gehien aplikatzen diren neurriei buruzkoak, behinik behin). Adibidez, zenbat denbora igarotzen den gertakarietatik dena delako neurria hartzen den arte, edo erabakitako neurria jakinarazten denetik betearazten den arte, zenbat irauten duten neurriek, aplikazioa handiagoa ala txikiagoa den epaitegi batetik bestera, ezaugarri desberdinen arabera, hots, jatorriz bertokoak ala atzerritarrak diren, generoaren, babes sistemetakoak diren eta abarren arabera aplikazioa desberdina den, eta abar.

Datu horiei adituz, iazko gure txostenean (ikus 2004ko txostena, I. kap. 1.1.6 atala) zenbait alderdi bereziki kezkarari azpimarratu genituen. Horrela, esaterako:

- Sistema judizialak motelki erantzuten diela delituei; eta bereziki, egitateetatik dela delako neurria hartu arte denbora luzea joaten dela (urtebete luze, kasuen ia erdietan).
- Neurri judizialik ezartzen zaien adingabeen kasuen artean, babes sistemetatik datozenen proportzioa oso altua dela.
- Neurrien iraupena gehitu dela, edo lurralde bakoitzeko erabaki judizialen artean gorabehera handiak igartzen direla.
- Arazo berriak agertu edo gehitu direla (familia barruko eraso delituetan inplikaturako adingabeak, buruko gaixotasun arazoak edo droga mendetasun arazoak dituztenak...)

Gure Erkidegoan azkeneko urteotan ezarri diren neurrien inguruan dauzkagun datu guztiak xeheki aztertuz, ondorioztatzen genuen adingabeen erantzukizun penalarren Legearen aplikazioan ere hutsune handiak zeudela; hutsuneak ez ziren hainbeste baliabideak mugatuta zeudelako, edo erakunde publiko eskudunari lepora liezazkiokkeen antolakuntza arazoengatik –horretan izugarri hobetu baitzen–, baizik eta sistema judizialaren mugengatik edo jarduketarengatik.

Datuek argi eta garbi erakusten dute, gure iritzi, ez dela egia sistema ez denik sartzan, edo ez duenik esku hartzen adingabeen delituzko jokabideetan –iritzi hori oso zabalduta dago gizartean–, baizik eta kasuetan esku hartu edo ebazpenik ematen duenerako luze jotzen duela, eta hori Legearen izpirituaren eta hezteko helburuaren guztiz kontra doa, eta oso ondorio larriak dauzka adingabeengan beraiengan, beren biktimgan eta gizartearen multzoan.

Azkeneko urte honetan ezin izan dugu errealitatea hain xeheki aztertu, Justizia Sailak bere idatzian esan zigunez, 2004ko txostena amaitu barik baitzeukaten.

## **2. 2005ean barruratzeko zentro eta baliabideetan egindako aldaketak**

Gure Erkidegoan adingabe lege-hausleak barruratzera berariaz xedatutako heziketa zentroen sarean, urtetan, hiru zentro egon dira, Andoiukoa (hasieran neskentzat pentsatuta), Aramaiokoa eta Urtuellakoa (mutilentzat).

Horixe zen egoera Arartekoaren ezohiko txostena egin zenean; txosten hartan zentro horiek, kokapenarengatik, titularitatearengatik, egiturarengatik zein harrerarako ahalmenarengatik zituzten mugen ondorioz zeukaten hainbat muga agerrarazi genituen. Baliabideak gehitu behar zirela ere bagenioen, eta pentsatzen genuen Zumarragako zentro berria sarera sartzea (hasieran 2001erako pentsatuta) parada ona zela zentroen eraketa berrikusi eta etorkizuna planifikatzeko.

Egoera nabarmen aldatu da azkeneko urteotan. Horrela, hasierako hiru zentroei –Aramaioko Mendixola (12 plazarekin), Urtuellako Miguel Ángel Remírez (8 plazarekin) eta Gasteizko Andoiu (7 plazarekin)–, baliabide berriak gehitu zaizkie eta, halatan, plaza gehiago eskaintzeko eta sarea berrantolatzeko aukera ere badago.

Egun, Justizia Sailak zentroak mailaka berrantolatu ditu, eta ondoko baliabideak dauzka:

### 1) Hezkuntza zentroak

- Ibaiondo hezkuntza zentroa – Zumarraga (I. maila):
  - 2005ean zehar, lan kontratupeko jendea zentroan hasteko prozesua burutu da eta, maiatzetik aurrera, aurreikusita zegoen azkena, bosgarren hezkuntza taldea ireki zen. Bosgarren talde honek talde modura funtzionatzen du barruratzte terapeutikoko neurriak betetzeko, denbora partzalean kontratutako kanpoko psikologo kliniko batek lagunduta.
  - Abenduaren 31n, langilerian 3 arduradun, administratiboa, psikologoa, 2 gizarte langile, 5 koordinatzaile eta 50 hezitzaile zeuden. Horiek ikasgeletako 5 irakasle eta tailerretako 6 irakasle gehitu behar zaizkie (Hezkuntza Sailaren mendekoak), sukalde eta ikuztegi langileak, eta segurtasuneko langileak.
  - Data berean, 34 plaza zeukaten eskueran (4 hezkuntza talde funtzionatzen).
- Miguel Ángel Remírez hezkuntza zentroa– Urtuella (II. maila):
  - Plazak 8tik 7ra jaitsi dira.
  - Profesionalen kopurua mantendu da (15 pertsona).
  - Birmoldaketa lan garrantzitsuak egin dira (berogailua ipini da, tailerra birmoldatu da, gelak hobetu dira...).
- Mendixola hezkuntza zentroa – Aramaio (II. maila):
  - Plazak (12) profesionalak (18) lehengo kopuruetan daude.
  - Mantentze lan txikiak egin dira, eta 2007rako birmoldatzea aurreikusita dago.
- Andoiu hezkuntza zentroa (II. maila):
  - Plazak (7 neska) eta profesionalak (16) lehengo kopuruetan daude.
- III. mailako zentroak:
  - Bilbon, autonomiako egoitza (lehen bezala dago, mutilentzako lau plaza, arduradun bat eta bost hezitzaile).
  - Gasteizen, autonomiako egoitza (berdin, mutil zein neskentzako lau plazarekin).

- Donostiako autonomiako egoitza: azkeneko urte honetan irekia, mutilentzako lau plazarekin eta arduradun bat eta bost hezitzaile taldearekin.

Horrela, bada, abenduaren 31n 65 plaza zeuden eskueran:

- 27 plaza I. mailan (zentro bat).
- 26 plaza II. mailan (hiru zentro).
- 12 plaza III. mailan (hiru egoitza unitate).

Sailaren datuen arabera, azkeneko urtean ez da inolako barruratze neurririk bideratu gure Erkidegoaz kanpoko inongo zentrotara, plazarik ez zegoelako barik, izatekotan, adingabeen epaitegiek komenigarri iritzi diotelako baizik. eta zentroen batez besteko okupazioa dauden plazen %85etik gorakoa izan da. 2007ko udaberrirako Landa hezkuntza zentro berriaren obrak amaitu eta zentroa martxan jartzea aurreikusten da eta, horrela, 14 plaza gehiago edukiko dira.

2) Zerbitzuak erdi irekitako erregimenean:

- Lau hezitzaile talde mantendu dira: bi Bizkaian (11 profesional); bat Gipuzkoan (4 profesional); bat Araban (3 profesional).
- Bizkaiko eguneko zentroa finkatu da, 15 neska-mutilentzat (bost profesionalen arretarekin).
- Profesional bakoitzeko gehienez 15 gazteko ratioa mantendu da.

3) Kontratuak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin:

Sailaren informazioaren arabera, kontratuen iraupena luzatu da, gutxienez bost urtera, eta soldatak hobetu dira.

### 3. **Zerbitzuen arauketa**

Arartekoarentzat funtsezkoa da gai hau. Horren harira, iaz azpimarratu genuen, jada, duela gutxi onartu eta 2005ean indarrean jarritako bi arau garatu eta aplikatzearen garrantzia: 5/2000 Lege Organikoaren Arautegia, eta Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako Legea, Eusko Legebiltzarrak otsailean onetsi zuena.

Justizia Sailari datuak eskatzean, gai hori azpimarratu genien, eta arau horien aplikazioan eta garapenean zer urrats egin ziren galdetu genien, bereziki barruratze zentroen funtzionamendurako arauak jartzeari eta zehapenen erregimenari buruz.

Sailaren erantzunetik hauxe ondoriozta genezake:

- Arautegia eta legearen aurreikuspenak protokolo, barruko dokumentu, jarduketa eskuliburu edo formulario desberdinen bidez aplikatu dira. Ez dago, beraz, berezko arautegi garapenik.
- Diziplina araubidearen kasuan, zer egin behar den finkatzen duen barruko dokumentuari aditzen zaio (formularioak, erantzuteko epeak, zehapenen komunikazioa eta erregistroa ...).
- Ekimen desberdinak burutu dira, besteak beste, lan jardunaldiak edo prestakuntza ekintzak, arau horien edukia hobeto ezagutzeko.
- Eginkizun daude, halaber, erakundeen erregistroa sortzea eta Haur eta Nerabeen Arreta eta Babesari buruzko legeak garatzeko eskatzen dituen beste gai batzuk.

Gai hauek, gure aldetik, jarraipen handiagoa behar dutela uste dugu.

#### 4. **Harremanak babes sistemekin**

Lehenagoko jarraipenetatik ateratako datuak eta kezkek kontuan hartuta, berriro jo genuen Sailarengana ondoko gaietarako buruzko informazio eske:

- Babesetik zetozen adingabeen proportzioaz (jokabide arazo larriko nerabeak eta, bereziki, aparteko txosten batean hizpide genituen bakarrik dauden adingabe atzerritarrek).
- Koordinatzeko mekanismoez, jarduera irizpide erkideez, informazio trukerako eta jarraipena egiteko sistemez, esku hartzearen jarraitasunaz...

Erantzunean, Justizia Sailak berriro egiaztatu zigun ikusitako bilakaera eta, gazteen justizia sisteman, foru aldundietako babes sistemetatik zetozen adingabeen proportzioa handia zela, batez ere jokabide edo neurri larriaren kasuetan (badaezpadako neurriak eta barruratzekak). Alde horretatik, ondoko datu hauek eman zizkiguten, 2004 urteari buruz:

- Barruratzetan: %47.
- Gizarteratu eta hezteko zereginetan: %15.
- Tratamendu anbulatorioetan: %31,2.

Diotenez, aurreko urtean bezala, bi sistemetan sarrien parte hartzen duten kolektiboak ondoko hauek dira:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek.
- Familiaren esparruan erasogile diren adingabeak.
- Beren kabuz bizitzeko edo familiarengana itzultzeko aukerarik ez daukaten 18 urtetik gorakoak.
- Babes zentroetan bizi diren adingabeak, irekian neurri bete behar dutenak.

Famili barruko erasogile diren eta gurasoengandik bereizteko neurria ezartzen zaien adingabeen kasuan, sailak nabarmendu du batzuk neskak izan direla (neskei aplikatutako barruratzek neurrien erdia horregatik izan dira).

Koordinatzeko ekimenaren gainean, Sailak erantzun zigun arazo horiek aztertu dituztela, eta emaitzak pobreak izan direla, edo 2005ean Bizkaian Haurren eta Nerabeen Kontseilua sortu zela, non Justizia Saileko Zigorrek Betearazteko Zuzendaritzak parte hartzen duen. Nolanahi ere, bere iritziz, "Gazte atzerritarrek eta jokabide arazoak dituzten zaintzapekoek ez dute sisteman beren beharretarako erantzun egokirik aurkitzen."

#### 5. **Zentroetan bertan eskaintzen den hezkuntza eta osasun arreta, eta lankidetzaren hezkuntza eta osasun sistemekin**

Aurreko txostenetan ikus daitekeen modura, gai errepikakorrek dira, une jakin batzuetan gure erakundearen ofiziozko jarduerak ekarri dituztenak.

Oraingoan zentroan bertan, eta zehazki Ibaiondoko Zentroan, eskaintzen den osasun arretari heldu diogu, zentro horretan arazo batzuk zeudela jakin baikenuen

(adibidez, sartzean arauzkoak diren bisita medikoetan, edo gainerakoengandik bereiztea dakarten zehapen epeetan). Eta buruko gaixotasunen eta droga mendetasunen arazodunei osasun sistemak emandako erantzunean.

Esandako hasierako arretaren arazoei dagokienez, Justizia Sailaren eta Osasun Sailaren artean sinatutako lankidetza itunaren esparruan konpondu behar dira, gure ustez.

Buruko gaixotasunen eta droga mendetasunen arretari dagokionez, itun horrek, larrialdietan, barruratzeko beharretarako erantzunen bat aurreikusi eta eskaintzen du, baina ez egonaldi luzeagoetarako. Hutsune horrek ondorio txar handiak dakartza, eta oraingo mugak gainditzeko premiazko neurriak hartzea beharrezko bihurtzen du; muga horiek testuaren ondoko lerroaldeetan agerian geratzen dira, nolabait:

Aurten berriro ekin diogu osasun asistentziaren eta, bereziki, zentro bakoitzeko arreta psikiatrikoaren, eta egonaldi erdiko baliabide edo egitarauen gaiari, sailaren aurreko idatzian aipatzen zen hutsunea baita.

Sailaren azkeneko erantzunean hitzarmenaren eta atal desberdinetako aplikazioaren argibideren bat ematen da: premiazko arreta, hasierako arreta, eguneroko arreta zentroetan bertan eta buruko osasuna. Lehen hiru prestazioetan ez dago, itxuraz, arazo handirik, CE Ibaiondoko gauza puntual edo berariazkorik ez bada. Buruko osasunaren alorrean, ordea, ez da egoera hobetu, antza.

Hitzarmenak ospitale orokorretako laguntza unitateetan hiruzpalau astetik beherako larrialdietako egonaldietako barruratzeko beharrak asetzen ditu. Alabaina, sailak berak berriro gogorazi duenez: *“Barruratzeko behar luzeagoek, oso kasu berezietan, bat 2005ean, ez dute erantzunik aurkitzen Osakidetzan; sare publikoan ez dago egonaldi erdiko baliabiderik nerabeentzat; ez eta sare pribatuan ere, eta EAETik kanpo ere.”*

CE Ibaiondon barruratzeko terapeutikoen arretarako berariazko taldea sortuz bideratu duten konponbideari partziala irizten zaio: eguneroko hezkuntza eta psikologi arreta Gazte Justiziako Zerbitzuak betetzen du; ezinezkoa izan da, diotenez, Osakidetza psikiatriako arreta zentroan bertan ematea; eta horrek kanpoko psikologo kliniko bat denbora partzialean kontratarazi die.

Ez zaie nahikoa iruditzen osasun zentroetan emandako arreta ere, eta interbentzioa kontratatzen zaien terapeuta pribatuengana jotzen da. Halaber, ez dago famili sistemaren multzoa hartuko duen interbentzioa behar den kasuetan dauden beharrentzako erantzun publikorik, beraien esanetan.

Antzeko arazoak daude toxikomanien arretan, eta etxean tratatu txarrak ematen dituzten nerabeen arretan eta, gainera, egoera larriagotzeko, alor horietan guztietan, gero eta behar handiagoak dauden arren (artatutako kasu gehiago), ez da erantzun egokirik ematen.

## 6. **Sisteman hobetutakoa, eskaria ondo asetzeko**

Justizia Sailari eskatutako datuetan, puntu honetan, sisteman, esku hartzeko edozein fase edo mailatan, eskaria ondo ase ahal izateko zer hobetu zen galdetu genien:

- Zerbitzu judizialean bertan.
- Gazteen Justizia Zerbitzuaren kudeaketa ahalmenean.



- Edozein neurri mota aplikatzeko behar diren baliabideetan.
- Jarraipenean, koordinaketan, ebaluazioan...
- Irtenbideetan eta emantzipatzeko garaian.
- Audientzia Nazionalak hartutako neurriak betetzen ari diren adingabeak artatzeko aukeran.

Gobernu Kontseiluan onartu eta Legebiltzarrean aurkeztutako “*Gazteen Justiziako 2004-2007 tarteko neurriak gauzatzeko plana Euskal Ekonomia Erkidegoan*” zenbateraino garatuta edo ebaluatuta zegoen argitzeko ere eskatu genien.

Zentro eta baliabideen sarean hobetu denari buruz nahikoa mintzatu gara aurreko atal batean. Besteak beste, ondoko hobekuntza edo aldaketa esanguratsu hauek nabarmen genitzaie:

- Gazteen Justizia Zerbitzuari buruz, plaza guztiak beteta egon daitezten eta indartzeko pertsona bat edukitzen segi dadin. Hala ere, sistema erantzun gaitasunaren muga dagoela uste da, eta edozein egoera bereziki (neurriak, iraupena gehitzea, arazo bereziak, langileen bajak... batzuk urteko sasoi desberdinetan) erantzunaren kalitatea eta eraginkortasuna murriztea ekar lezakeela.
- Erakunde laguntzaileekin dauden kontratu guztiak luzatuta egon daitezten, eta lehiaketa publiko berriak deitu izan daitezten, Bizkaiko eguneko zentrorako eta Donostiako autonomiako egoitzarako.
- Ebaluazioari dagokionez, Sailak dio ingurune irekiko egitarauak ebaluatzen ari direla, Kriminologiako Euskal Erakundearen laguntzarekin, eta inplikaturako eragile guztien parte hartzearekin. Audientzia Nazionalak ezarritako neurriak betetzeko balizko lankidetzat itunari dagokionez, sailak dio ez duela Justizi Ministerioaren bere proposamenerako inolako erantzunik jaso, nahiz eta azkeneko urtean, osasun arazoak tarteko, kasu bat artatu zen.
- Amaitzeko, Sailak dio emendakin eta eragozpen ugari aurkeztu dituela Justizi Ministerioaren aurrean, 5/2000 Lege Organikoa aldarazteko Aurreproiektuari buruz. Balorazio negatiboa egiten du egindako aldaketa eta ondorioen gainean, eta otsailerako, legea aplikatzen hasten denerako, baliabideak gehitu beharko direla aurrekusten du, baina aurretiaz zer beharko den aurrekustea zaila dela.

Aztertutako informazioaren arabera, hemen jorratu ditugun gai askori ondoren ere jarraipena egin eta berariaz aditu beharko zaie, gure ustez, bereziki arazotsuen izaten ari diren edo izan litezkeen gaiak, hala nola, lehen aipaturako lege aldaketa berrien aplikazioari edo gero eta handiagoak diren arazoen arretari.

#### 4) **Sasoikako langileen seme-alabak**

##### A) **Aurrekariak**

Arartekoak, 1995etik, Arabako sasoikako langileen egoeraren jarraipena egin izan du eta, besteak beste, familiekin etortzen diren sasoikako langileen seme-alabak zelan eskolatzen diren behatu da.

2002an gai hau ezohiko txosten batean jorratu genuen (*Sasoikako langileen egoera Araban*); txostena Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta eztabaidatu zen, eta ekimen desberdinak eragin zituen: sasoikako langileei buruzko ez legezko proposamena, Eusko Legebiltzarrak 2002ko abenduaren 12an onetsitakoa; sasoikako langileei buruzko mozioa, Arabako Batzar Nagusietan 2003ko urtarrilaren 20an onetsia.

Harrezkero, segimenduan bereizi egin dira, alde batetik, azken kanpainan egindako jarduketa zehatzak, eta bestetik, epe ertainerako plan edo jarduketak. Hala, iazko txostenean berezita jaso ziren 2003ko kanpainari buruzko datuak (gomendio-multzoetariko bakoitzean: eskolatzearen hobekuntza...) eta egindako urratsak, bereziki Osoko Planari, Instituzioen arteko Mahaiari eta arauak garatzeko zenbait proposameni zegokienez (ikus 2004ko txostena, I. kap., 1.1.2. atala).

Erakunde honen segimendu lanak, normalean, honako jarduketa hauek izaten ditu ardatz:

- Bilerak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuarekin
- Sasoikakoei buruzko Mahaiaren azken bileran parte hartzea. Arabako Foru Aldundia da Mahaiaren sustatzailea.
- EAEko Instituzioen arteko Sasoikakoen Mahaian parte hartzea. Mahai hori 97/2003 Dekretuaren bidez sortu zen.
- Ofiziozko espediente batzuk, Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari, Hezkuntza Sailari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zuzendu zitzaizkienak.

Jarduketa guztietan, gure txosteneko 17 gomendioak eta gorago aipatutako bi proposamen instituzionalak izan dira beti erreferenteak; batez ere, erakunde edo sailen aurrean ofizioz egin diren jarduketei edo informazio-eskaerei dagokienez. Hala, bada, iaz

- Nekazaritza sailburuari informazio eguneratua eskatu zitzaion gai hauen inguruan: Osoko Planaren garapena, Instituzioen arteko Mahaiaren jarduna, Sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten gutxienerako baldintzak arautzeko dekretua, Sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntza-lerroak.
- Hezkuntza sailburuari ere informazioa eskatu zitzaion azken mahats bilketan eta patata bilketan txosteneko 13. eta 14. gomendioak betetzeko hartutako neurriez eta egindako jarduketez (13. gomendia: “Ahaleginak egitea adingabeen eskolatzeko maila igotzeko”; 14. gomendia: “Ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzea”).
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, berriz, honako honen berri eskatu zitzaion, Sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten gutxienerako baldintzak arautzeko dekretuarena.
- Arabako ahalduen nagusiari ondoko gaiei buruz galdetu zitzaion, sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntzei buruzko Dekretuari edo laguntzak emateko deialdiari buruz (Arabako Batzar Nagusiek 2003ko urtarrilaren 20an onetsitako mozioaren 2. atala)...

Eta gainera, denei mahats eta patata bilketen kanpainan txostenaren gomendioak betetzeko zer jarduera zehatz bideratu zuten eta zer neurri zehatz hartu zuten ere galdetu genien (ikus jarduketan laburpena 2004ko txostenean, I. kap., 1.1.2. atala).

## B) Azken urteko jarraipena

Azkeneko urtean egindako ofiziozko jarraipenak nagusiki adingabeen eskolatzeari aditu dio, Hezkuntza Sailera zuzendutako espedientearen bitartez. Eta horretara mugatuko gara hemen.

Alabaina, beste gai orokorrago batzuei dagokienez, informazio ugari ematen duten beste jarraipen bitarteko batzuk ere izan ditugu eskueran: bereziki, Nekazaritza Sailaren txostena, Sasoikako Lanaren Arretarako 2004-2007ko Osoko Planaren garapenaren gainean, eta Arabako Foru Aldundiari 2004ko kanpainari buruz luzatu genion datu eskariaren erantzuna, 2005eko otsailean jaso genuena.

Gainera, bizitokien berriazko gaiari buruz, gure erakundearentzat izugarri garrantzitsua baita, azkeneko urtean izapidetutako kexa batzuk tarteko, zuzenean egiaztatu ahal izan dugu oraindik baldintza onartezinek badirautea –izapidetutako kasuetan bezala, adingabeei ere ukitzen dietenak–, udalaren esku hartzea mugatuta dagoela, eta araudi garbirik ez dagoela; araudia beharrezkoa eta premiazkoa dela aldarrikatzen segitzen dugu guk.

Arabako Foru Aldundiak 2004ko kanpainari buruz emandako datuek agerian jartzen dute, berriro ere, gai honen garrantzia: Agurain inguruan bisitatu genituen 20 bizilekutatik lauk baino ez zituzten gutxieneko baldintzei buruzko gure gomendioak betetzen; Arabako Errioxan, 121 bizileku ikusi bagenituen, 78tan betetzen ziren baldintzok, eta Kanpezun, 21 ikusi eta 11k baldintza guztiak urratzen zituzten eta, gainerakoek Arartekoak egindako lau gomendiotatik hiru ez zituzten betetzen.

Azkenik, eskatutako araudia jada onetsita dago, eta 2006ko abenduaren 18ko EHAAan argitaratu zen: 248/2006 Dekretua, azaroaren 28koa, sasoikako langileen-tzako bizitokien gutxieneko baldintza materialak eta funtzionalak, eta haien baimena, erregistroa eta kreditatzea arautzen dituena

Erakunde hau pozik dago dekretu hori onartu delako, urrats garrantzitsua deritza edukia finkatu izanari, eta aurreikusitako denboretan aplikatuko dela espero du, horrek, ezbairik gabe, nabarmen hobetuko bailituzke orain arte aztertutako bizitokien baldintzak.

Dekretua zelan aplikatzen den jakiteak datozen urteotan nolabaiteko jarraipena egitea eskatuko du. Oraingoan, lehenago esan dugun bezala, adingabeen eskolatzeari gaira mugatu gara.

Horren harira, Hezkuntza Sailarengandik jasotakoa erantzunetik ondoko datu eta informazio hauek atera genitzake:

- Ikasle hauek azkeneko kanpainan ondoko zentro hauetan eskolatu dira:  
Arabako Errioxan:
  - Laguardiako Víctor Tapia lehen hezkuntzako ikastegian, irailaren 19tik azaroaren 3ra, gehienez 34 ikaslerekin; hainbat astetan sasoikako langileen familietatik 20 eta 30 ikasle inguru joan ziren eskolara.
  - Eltziegoko lehen hezkuntzako ikastegia: irailaren 21etik urriaren 28ra, gehienez 28rekin, eta hainbat astetan 20 ikasle ingururekin.
  - Ramiro de Maeztu lehen hezkuntzako ikastegia (Oion): irailaren 19tik urriaren 17ra; gehienez bildutako ikasleak 7 ikasle bost egunez.

- Lantziego Ikastola lehen hezkuntzako ikastegia: irailaren 23tik urriaren 28ra, guztira 14 ikaslek eman zuten izena, 4tik 12 urtera bitartekoak.
- Labastida lehen hezkuntzako zentroa: urriaren 4tik 21era: 4 eta 15 ikasle inguru joan ziren.

Arabako mendialdean Kanpezuko Ibernalo ikastolan eskolatu ziren, irailaren 13tik aurrera, eta gehienez 8 ikasle bildu ziren, 3tik 11 urtera bitartekoak.

- Egitarau honetara xedatutako sostenguko irakasleei dagokienez, 11 pertsona izan dira (aurreko kanpainan baino hiru gehiago); irakasle bat zentro bakoitzean, eta hiru Laguardia eta Eltziegon, halako ikaslerik gehien han bildu baitzen.
- Azkeneko bi kasuotan, ikasleak adin edo etapaka bildu dira (haur hezkuntzakoak batetik eta lehen hezkuntzakoak bestetik), ikasgela desberdinetan. Beste kasu batzuetan, oro har, eremu edo azpi-multzo desberdinetako berariazko ikasgela eratu dute.
- Oso jatorri desberdinetako haurrak bildu dira, baina nagusiki portugesak, berriro ere. Komunikazioaren hutsunearen gaia –portugesa– eta adinaren eta beraiei legozkiekeen curriculumeko edukien arteko desfasea bi arazo garrantzitsu dira arreta egokiaren ikuspegitik. Horien ondoan, zer demanda egongo den ez jakiterik ez dagoela, eta asistentzia irregularra izaten dela nabarmenduko genuke.
- Garrantzi handia ematen zaio oraindik ere zentroetan bizikidetzeta, higiene eta ikasteko intereseko ohiturak sustatzera.
- Kasurik gehienetan eskoletako garraioa eta jantokia ere erabiltzen dira.
- Ikasle hauen arretan zuzenen esku hartzen duten irakasleei aurretiaz berariazko prestakuntza eman behar zaiela aldarrikatzen da oraindik...

Atal hau amaitzeko, pare bat gogoeta, eskolatzearen datuen inguruan:

- Zentroek emandako datu guztiak 2, 3, 4 urteko eta 11, 12 edo 13 urteko ikasleenak dira. Oraindik ez da lortu hortik gorako gazteak eskolatzeta.
- Jasotako datuei esker jakin daiteke kanpainaren uneren batean inguruko eskolatan hartu dituzten sasoikako familietako seme-alabak zenbat izan diren, gehienez (106 adingabe). Datu hori bere neurrian baloratzeko, komeni da, beti, horra joaten diren eskolatzeko adinean guztira dauden herritarren kopuruarekin alderatzea. Atal hau idazten ari garenean oraindik ez daukagu datu hori, baina aurreko estimazio eta “zentsuek” hiru eta hamasei urte bitarteko 400 bat adingabetan jartzen dute.

Bestalde, komeni da gogoratzea adingabe hauetako askorekin, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak bultzatutako gizarteratu eta hezteko egitarauari esker, zorrozki eskolakoak ez diren baina halakoak bezain hezitzaileak diren beste jarduerak batzuk ere burutzen direla (astialdiko jarduerak, higiene pertsonaleko edo elikadurako ohiturak garatzea, osasun beharrei buruzko orientazioa...). Kulturen arteko jarduerak eta komunitatea sentsibilizatzekeo jarduerak ere burutzen dira.

## 5) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak

### A) Aurrekariak

Gure erakundeak EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna goiburuean egindako ezohiko txostena argitara atera zen, Eusko Legebiltzarreko Buruari eman eta Legebiltzarrean eztabaidatu zen, 2001ean.

Urte hartako ohiko txostenean laburpen bat jaso zen, 10 gai bereziki kezkarriak eta egindako 21 gomendioak azpimarratuz. Gerora, 2002ko ekainean, bilera bat egin genuen Hezkuntza Sailburuarekin eta Saileko arduradun gorenekin, non, besteak beste, txostenarekin zerikusia zuten gaiei, eta han jasotako gomendioen jarraipena egin beharri heldu zitzaion. Horretarako, gure erakundeak, ofizioz, Hezkuntza Sailburuarengana jo zuen, hasierako informazioa, orokorra, eskuratu nahirik. Informazio hori, azkenean, 2003ko martxoan jaso genuen, dokumentu luze batean. Bai dokumentu hori bai eskatutako informazio gehigarria, eta Sailaren erantzuna, urte hartako laburpenean jaso ziren (ikus 2003ko txostena, 1.1.10 atala).

Handik urtebetera, eta ikasturte berria (2004-2005) hasita zegoela, berriro jo genuen Hezkuntza Sailera datu batzuk eguneratu nahirik. Jarraipenerako gure lehenengo jarduketan txosteneko 21 gomendioen eta bakoitzaren informazio xehatua eskatu bagenuen ere, oraingoan horietako batzuk genituen hizpide nagusi, eta aurreko erantzunen arabera, esanguratsuen eta objektibagarrien irizten genien proposamen eta datuetara bideratu ginen, haietako batzuk bilakaeraren adierazle ere izan litezkeelakoan (ikus 2004ko txostena, 1.1.10 atala).

Azkeneko urte honetan ere prozedura horixe segitu dugu: informazioa gomendio eta adierazle jakin batzuetara mugatuta eskatu dugu.

### B) Azken urteko datuen jarraipena eta eguneratzea

Aurten ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honen datuak eskatu dizkiogu. Datu partzial batzuk lortu ditugun arren, txosten hau amaitzen ari garenean ez dugu oraindik hezkuntza administrazioaren erantzun formalik jaso. Beraz, ondorengo jarraipen lanean eman zaizkigun datu partzialei aditu diegu.

\* \* \*

## 1. HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAKETA OROKORRARI ETA HORREN LEHENTASUNEI BURUZKO GOMENDIOAK

### 1. Gomendioa: Bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna eman

Sailaren lehenagoko erantzunean, 2005eko otsailan, gai honi buruzko hainbat eranskin bidali zizkiguten:

- Haurreskolak partzuergoan ez dauden udalerrien zerrenda, eta udalerrri horietan eskolatutako haurren kopurua.

- Partzuergoan sartuta dauden udalerrien zerrenda, lehenetasun gradu desberdinen arabera sailkatuta.
- Datu taulak, non, udalerriz udalerriz, hainbat datu kuantitatibo jasotzen diren (biztanleak, azkeneko urteotan jaiotakoak, langabezia tasak...), eta horietatik puntuazio batzuk ateratzen dira (eskolatzeko estalduren arabera (0-2, 0-3 urte), barruko produktu gordinaren arabera, langabezia tasaren arabera) eta, azkenean, lehenetasun jakin bat ematen zaio bakoitzari, 1etik 6rako eskalan.

Lehenetasuneko gaia da, gure erakundeari azkeneko urteotan esku hartze ugari eragin dizkiona. Alabaina, egun legebiltzarrean ekimen batzuen xede dela kontuan hartuta, eta balizko bikoizterik saihestearren, komenigarri iritzi diogu aurten ofiziozko espedienteetan inolako berariazko argibiderik ez eskatzeari. Hala ere, zabalik utzi diogu sailari, egoki iruditzen bazaio, interesgarri deritzon informazioa guri helarazteko aukera, baina ez da halakorik gertatu.

## **2. Gomendioa: Baliabideak esleitzeari dagokionez, diskriminazio positiboa egitea bereziki bazterturik dauden ikasleei neurri handiagoan laguntzen dieten ikastetxeen alde.**

Gure hezkuntza sistemaren ezaugarrietako bat bereziki bazterturiko ikasleen banaketa ezberdina da. Kontuan hartzen diren faktoreak ikastetxe baten kokapena, titulartatea, hizkuntza eredua edo gizartean duen irudia dira. Gure txostenak hainbat datu eskaini zituen errealitate horren gainean eta 83 ikastetxeko lagineko eskola emaitzak ere aztertu zituen. Horietan ezaugarri hauetako ikasleak aurki zitezkeen. Emaitzak, beti, batezbestekoen oso azpitik zeuden.

Zentzu horretan, bigarren gomendioak baliabideak modu ezberdinduan esleitzea proposatu zuen, konpentsazio moduan, ahal zen neurrian aniztasunari erantzuteko ikastetxe proiektuei atxikita.

Erakunde honek badaki ez dela erraza praktika administratiboan sendoturiko irizpide tradizionalak aldatzea, ezta helburuak aldatzea ere –formalki, behinik behin– objektiboak izateko zailtasun handiagoak dituzten beste batzuegatik. Hala ere, erabat beharrezkotzat jotzen da berdintasun handiagoa lortu nahi bada.

Gizartean bereziki bazterturiko ikasleak positiboki diskriminatzeko jardueri dago-kienez, sail horren aurreko erantzunak modu honetan zehaztu ziren batez ere:

- a) Hezkuntza errefortzuak.
- b) Hezkuntzako esku-hartze zehatzeko proiektuak.
- c) Esku hartzeko proiektu orokorrak.

Eta hiru alorretako bakoitzean datu batzuk ematen ziren (irakasle kopurua, egitasmoak, ikaskuntza komunitateak ...) aurreko ikasturteetan izandako bilakaeraz (2000-2001etik 2005-2006ra). Jarraipena egiteko, 2006-2007 ikasturte honetako datu eguneratuak eskatu ziren. Eta datuen osagarria, eta hobeto baloratzeko, ondokoa ere jakin nahi genuen:

- Ikastetxei baliabideak esleitzeko erabiltzen ari diren irizpide berdintzaileak zeintzuk diren.
- Jarraipena edo ebaluazioa egiten ari ote den horren eragin maila ezagutzeko honakoen moduko ezinbesteko alderdietan: eskolako emaitzak, irakasle taldeen poztasuna, ikastetxearen beharrei erantzun eraginkorra ematen dieten hezkuntza proiektuen finkapena, ikastetxeak bere inguruan izan dezakeen gizarte irudia hobetzea...

### **3. Gomendioa: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea**

Sailak gomendio honen inguruan emandako erantzunetan hiru kolektibo bereiztu eta berezko izaera ematen zieten:

- a) Ezgaitasunen bati lotutako hezkuntza premia bereziak zituzten ikasleak.
- b) Ikasle etorkinak.
- c) Ikasle ijitoak.

Eta bakoitzari buruz hainbat datu ematen ziren (ikus, adibidez, aurreko urteko datuak, 2004ko txostenean, I. kap., 1.1.10 atala).

Zelan bilakatu diren ikusteko eta alderatu ahal izateko, 2005-2006 ikasturte berriari buruzko datuak eskatu ziren, bereiztutako hiru kolektibo horietako bakoitzaren gainean.

Bestalde, berriro gogoraraziko dugu gure 3. gomendio hori premia bereziak dituzten ikasleei buruz dela, ez dela hiru kolektibo horiekin zehazki agortzen, edo asetzen, eta gure txostenak ikastegi asko –halako ikasle asko zeuzkatelako “kritikotzat” jotakoak– zelan zeuden eta zelako kalifikazioak ateratzen ziren aztertzen zuela. Izan ere, gomendioak halako egoerak saihestu nahi ditu eta, horretarako, zenbait neurri iradokitzen ditu: ratioak ezartzea, matrikulazio araudia berrikustea, estalitako biderapen edo kanporatzeen jarraipena egitea... Gai horiek hain dira garrantzitsuak, non berriro galdetu diegun ea guk proposatutako neurriren bat hartu duten edo hartzeko asmorik daukaten, eta ea Sailak ikasle horien banaketari buruz gure txostenean nabarmendu genituen egoera eta arriskuei begira aldaketa esanguratsurik egin dela erakusten duen daturik daukan.

- Ea proposatutako neurrietakoren bat hartu den edo hartzeko asmoa dagoen.
- Ea baduzuen ikasleria horren banaketari buruzko daturik, txostenean azpimarratutako egoera eta arriskuak dezente aldatu direla erakusten duenik (gogoratu han baliatutako datu gehienak 1999-2000 ikasturtekoak zirela).
- Gure 4. gomendioan proposaturikoaren ildo beretik jarraituz (“Gizartean baztertuak dauden ikasleei eman beharreko erantzunak garatzea”), 118/1998 Dekretuak eskainitako gaitasunen bat garatu den ala ez.

Ondoren puntu hauetako bakoitzaren gainean funtsean jaso dugun informazioa laburbilduko dugu.

a) ***Ezgaitasun baten ondorioz hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak***

Sailaren lehenengo erantzunean ikasle horien eskolatzearen datu orokorra ematen zen: %60 sare publikoan, eta %40 itunpeko sarean. 2003-2004 ikasturteko datu zehatzak honako hauek ziren, hezkuntza premia bereziko 5.263 ikasle ikastegi publikoetan, eta 3.744 ikastegi pribatuetan (hau da, %58 eta %42, hurrenez hurren).

Hona hemen sailak 2006-2007 ikasturte honi buruz emandako azkeneko datuak:

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		SAREAK GUZTIRA		GUZTIRA
	Pub.	Prib.	Pub.	Prib.	Pub.	Prib.	Pub.	Prib.	
Haur eta lehen hezkuntzak	695	487	1.866	1.087	1.309	857	3.870	2.431	6.301
DBH	312	220	805	642	589	557	1.706	1.419	3.125
Derrigorrezkoaren osteko hezkuntza	57	20	134	77	30	24	221	121	342
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.064</b>	<b>727</b>	<b>2.805</b>	<b>1.806</b>	<b>1.928</b>	<b>1.438</b>	<b>5.797</b>	<b>3.971</b>	<b>9.768</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.791</b>		<b>4.611</b>		<b>3.366</b>		<b>9.768</b>		

Datuek erakusten dugu banaketa orokorrak, sareetan, gorabehera txikiak dituela (hauxe litzateke, azkeneko datuen arabera: %56,8-%43,2), baina alde handiekin lurraldeen artean (Arabian ikasle hauen %62 daude sare publikoan, eta Gipuzkoan %54). Azkeneko urteko joera, datuei adituz, oreka handiagokoa dela dirudi.

b) ***Ikasle etorkinak***

Lehenengo erantzunean, Hezkuntza Sailak hainbat gogoeta egin zituen ikasle etorkinak arian-arian gehituz zihoazela-eta, horrek hezkuntza sistemarentzat zekartzan erronkak zirela-eta, eta beharrei hobeto erantzuteko antolakuntza aldetik hartutako hainbat neurri zirela-eta: lurralde bakoitzean arduradunak izendatu ziren, baita koordinatzaile orokorra ere; Eskolatzeari buruzko Lurralde Batzordeak antolatu ziren, eta "Ikasle Etorkinak Artatzeko Plana" prestatzeko asmoa zeukaten.

Beraz, guk informazio gehigarria ondokoei buruz eskatu genien:

- Zer irizpide, arau edo neurri erabiltzen edo hartzen ari ziren eskolatzeari buruzko lurralde batzordeak gure gomendioaren helburua iristeko (ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko).
- Ikasle horien banaketaren datuak, eguneratuta (lurraldeka, sareka...).
- Zein fasetan zegoen Ikasle Etorkinak Artatzeko plana...

Horren guztiaren berri iazko gure txostenean eman genuen (ikus I. kap., 1.1.10 atala).



Eskolatzetarako datuei dagokienez, 2004ko azaroaren 19an eguneratutakoak jaso genituen.

Ondoko datu hauek 2005-2006 urtekoak dira, 2005eko azaroaren 1ean eguneratuta:

Lehenago ere, txostenaren helburuaren haritik, “hezkuntza premia berezietan” edo zailtasun bereziko egoeretan zentratuta, esana genion sailari datu orokorrak xehatuta eduki gura genituzkeela, ikasle atzerritarrek Europako batasunekoak ala kanpokoak ziren, gure sisteman irakaskuntzan erabiltzen diren hizkuntzaren bat lehendik ezagutzen zuten ala ez bezalako faktoreen arabera bereiztu ahal izateko. Hau da, gure iritziz, gure sisteman sartzea zailago ala errazago egin lezaketen edo, nahiago bada, gure sistemak haien berariazko beharrei erantzutea zailago bihurtu lezaketen faktoreen arabera.

Horren haritik, eskolatutako biztanle sektore hori hainbeste hazten ari denez, eta eskolatzetarako egokia ala desegokia izateak ekar litezkeen gizarte ondorioak kontutan hartuta, beharrezkoa da, gure iritziz, eskolatutako datuak hobeto baloratzen lagunduko diguten informazio gehigarriak edukitzea. Horrela, gure azkeneko informazio eskaria-rekin, hauxe jakin gura genuen:

- Sailak ikasle bat “etorkintzat” jotzeko edo ez jotzeko erabiltzen dituen irizpideak ondorio estatistikoetarako (adibidez, eskaintzen diren datuetan honako modukoak sartzen ote diren: Europar Batasunaren esparruko atzerriko ikasleak, sasoikako langileen seme-alaba ikasleak, bertako familiek adoptaturiko atzerriko ikasleak...).
- Goian adierazitako ildo beretik jarraituz, ikasle talde horretan hezkuntza premia bereziak dituztenen gaineko datu eguneratu eta fidagarriak ba ote dauden, zer motatakoak diren, ikasleen eskolatzetarako baldintzak zeintzuk diren, horiek zehazteko erabiltzen ari diren irizpideak zeintzuk diren...
- Joan den 2005-2006 ikasturtean, eskolatzetarako lurralde batzordeek eginiko eskolatzetarako berriei buruzko datuak. Hau da, lurraldekako, sarekako, ereduakako banaketak eta, posible balitz, goian adierazitakoak bezalako faktore objektiboak buruzko informazioa.
- Aipaturiko lurralde batzordeek araudi edo orientabide zehatzik ba ote duten pertsona horiek eskolatzetarako jarraitzeko eta, orobat, ikastetxe batera edo bestera bidaltzeko zein irizpide jarraitzen duten.
- Zer nolako ekimenak jarri diren martxan familia etorkinei informazio nahikoa emateko seme-alabak eskolatzetarako aukera onena erabakitze aldera.

Dauzkagun azkeneko datuak ondoko tauletan laburbildu ditugu:

### Ikasleak lurraldeetan eta eskola sareetan zelan banatuta dauden

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
Publikoan	2.302	74,14	6.501	70,19	2.135	54,41	10.938	67,14
Itunpekoan	803	25,86	2.761	29,81	1.789	45,59	5.353	32,86
<b>Guztira</b>	<b>3.105</b>	<b>100</b>	<b>9.262</b>	<b>100</b>	<b>3.924</b>	<b>100</b>	<b>16.291</b>	<b>100</b>
<b>%</b>	<b>19,05</b>		<b>56,85</b>		<b>24,10</b>		<b>100</b>	

### Ikasleak lurraldeetan eta hizkuntz ereduetan zelan banatuta dauden

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
A eredia	2.120	68,28	4.877	52,65	688	17,53	7.685	47,17
B eredia	770	24,80	2.165	23,38	1.644	41,90	4.579	28,11
D eredia	215	6,92	2.220	23,97	1.592	40,57	4.027	24,72
<b>Guztira</b>	<b>3.105</b>	<b>100</b>	<b>9.262</b>	<b>100</b>	<b>3.924</b>	<b>100</b>	<b>16.291</b>	<b>100</b>
<b>%</b>	<b>19,05</b>		<b>56,85</b>		<b>24,10</b>		<b>100</b>	

Datu eguneratuen bi taula hauei begiratu, eta urte bete lehenagoko datuekin alderatzen baditugu (ikus 2004. txostena, 101-102 orr.) joera batzuk igar ditzakegu:

- Eskolatutako ikasle hauen kopurua gehitu da, aurreko urteetan hazi den bezala: 12.762, iazko 10.125en aldean.
- Itunpeko ikastegietan eskolatutako ikasle atzerritarren proportzioa pixka bat jaitsi dela (%30,9tik %30,5era).
- D eredian eskolatutakoak gehitu dira, eta A eredian eskolatutakoak gutxitu, gehiengoak A eredian segitu arren.

Ikasleen jatorriari buruz, Sailak datu hauek eman ditu: %60 latinoamerikarrak dira, %16 afrikarrak, %20 Europako Batasunekoak eta Europako gainerako herrialdeetakoak; %4 Asia eta Ozeaniakoak.

Duela gutxi eskolatutako ikasle etorkinentzako hizkuntza indartzeko egitarauen gaineko datu berrien artetik, honako hauek aterako ditugu: zerbitzugintzako deialdia ikastegi publikoetako irakasleentzat (148 plaza: 94 Lehen Hezkuntzan eta 54 Bigarren Hezkuntzan; iaz 115 izan ziren); dirulaguntzen deialdia itunpeko ikastegientzat: laguntzak 87 ikastegiri. (1.298.613 euro, aurreko ikasturtean baino %75 gehiago).

Eskatutako informazio gehigarriari dagokienez, sailak dio ikasle etorkinen informazio xehatua daukala, baina ez gure eskari guztiak asetzeko bezain xehatua. Hala ere, jatorrizko herrialdeen arabera eskola sareka bereizitutako kopuru xehapena aurreratu digu.

Gure hezkuntza sistemako hizkuntzak lehendik ezagutze dituzten galderari dagokionez, diotenez, printzipioz, ikasle etorkin batek ere ez dakiela euskaraz eta, latinoamerikarrak kenduta, ezta gaztelaniaz ere; hala ere, hori ez da nahikoa gizareratzea zailagoa ala errazagoa izango den zehazteko nahikoa, sailaren iritziz. Alde horretatik,

gogoratu du hizkuntza indartzeko programa duela gutxi etorritako ikasle guztientzat irekita dagoela.

Ikasleak, estatistikaren ondoretarako, etorkin modura hartzeko erabiltzen diren irizpideei dagokienez, ikasle etorkin guztiak, adoptatuak ezik, hor sartzen dituzte, esan digutenez.

Eta eskolatzeko lurralde batzordeek jarraitzen dituzten irizpideei dagokienez, Hezkuntzako sailburuordearen ikasle etorkinak ohiko epetik kanpo eskolatzeara arautzeko jarraibideetara jotzen du, hor batzorde horien zereginak zehaztu eta hainbat irizpide finkatzen baitira:

- Hizkuntz normalizazioko prozesuan integratzea.
- Zentroa familiaren bizilekutik hurbil egotea.
- Diru publikoekin finantzaturako zentro guztien arteko oreka (publikoak eta itunduak).
- Zentroetan dauden baliabideen aprobetxamendua.
- Zentroan familia-hizkuntza bera duten ikasleak egotea.

Alabaina, sailak dio ikasle etorkinen arretarako oraingo programa ebaluatzen ari dela, berrikusi eta eguneratzeko. Horretarako, ebaluazio batzordea ere eratu du, eta laster ondorioak edukiko dituela espero du, zirriborro berria atontzeko.

### c) **Ikasle ijitoak**

Sailaren lehenengo erantzunak ekimen desberdinak zituen hizpide, hala nola, absentismoaren kontrako protokoloa, Bizkaian gizarte zerbitzuekin koordinatuta ezarritakoa, lankidetzat itunak *Iniciativa Gitana* eta *Kalē dor Kayikō* bezalako erakundeekin, edo lantalde bat sortzea ikasle ijitoak eskolatzeko plan berria atontzeko.

Informazio gehigarria eskatu genienean, ekimen horiei buruzko zehaztasun bat edo beste, eta ikasle horiek zelan banatuta zeuden zituzten datuak baino ez genituen eskatu (lurraldeka, sareetan...).

Horren guztiaren berri (datuak eta informazioak) urte horretako txostenean eman genuen. Bestalde, iazkoan azkeneko datuak jaso genituen, 2003-2004 ikasturtekoak:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
Lehen hezkuntzako ikasleak. Ikastegiak	314	1.200	273	1.787	70
Bigarren hezkuntzako ikasleak. Ikastegiak	73	300	113	486	19
Itunpeko ikastegietako ikasleak	40	130	117	287	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>427</b>	<b>1.630</b>	<b>503</b>	<b>2.560</b>	<b>100</b>

Ikasturte horretan ikasle ijitoak zituzten ikastegiei dagokienez, emandako datuek 199 ikastegi zituzten hizpide, baina halako ikasleen oso proportzio desberdinekin bazuen eta besteen artean .

Datuek argi eta garbi erakusten zuten ikasle ijitoak:

- Batez ere ikastegi publikoetan eskolatzen direla (ikasle guztien %89).

- Izugarri jaisten dela Bigarren Hezkuntzan (lehen hezkuntzan baino 3 edo 4 bider gutxiago).
- Ikastegi gutxi batzuetan pilatzen dela, bereziki: Bizkaian 15etan, Gipuzkoan 4tan eta Araban 3tan.

Iazko erantzunean bezala, Sailak azpimarratu digu kezkarriena ez dela ikasle horiek non kokatzen diren, eskola arrakastan oso indize baxuak dituztela baizik, eta beraiek eskolan arrakasta lortzeko dituzten oztopoak hautematen, eta oztopo horiek gainditzeko bideak irekitzen saiatu direla.

Ikasle ijitoen eskolatzea 2005ean hobea izateko hartutako neurriei dagokienez, Sailak honako hauek aipatu ditu:

- Oinarrizko dokumentu bat prestatu da, ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana atontzera begira.
- Irakasleei ijitoei eta hezkuntzari buruzko ikastaroak eman zaizkie hiru lurraldeetan, lan mintegiak egin dira Bizkaian ikasle ijitoekin ari diren irakasleekin, lan saioak egin dira irakasleekin ijitoen kulturari buruzko material interaktiboak biltzen dituen CD bat aurkezteko.

Horrela, bada, sailari ikasleen banaketaren datuei buruzko azkeneko informazio eskaria bidali genionean, hauxe planteatzen genion, zehazki:

- Ikasle horiei buruzko emaitzen datu eguneratuak ba ote dauden: Lehen Hezkuntzako tartea gainditu zutenen tasak, errepikatu zutenen tasak, eskola graduatuaren lorpen tasa, 16 urte bete aurretik edo DBH bukatu aurretik eskola utzi dutenen tasa...
- Zer nolako programa edo laguntzak bideratzen ari diren biztanleen sektore horren behar zehatzei erantzuteko eta horien eragina nolakoa izaten ari den eskolako emaitzen hobekuntzan.

Hala ere, ezin dugu horri buruzko inolako baloraziorik sartu hemen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak ez digulako oraindik eskatutako informaziorik eman.

## 2. IRUDI PROFESIONAL BATZUK INDARTZEA, KOORDINAZIOA ETA BERRANTOLAKETA

Gure txostenean 5 gomendio hartzen zituen atal honetan (9tik 13ra), aurtan bi gai bakarri buruzko datuak eskatzera mugatu gara:

- 1.) Irakasleen aniztasuna bultzatzeari dagokionez, kultur gutxiengoetako pertsonak edo ezgaituak sartzeko aukera (10. gomendioa, 1. atala).  
Gai honen inguruan, *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* ezohiko txostena egiten ari ginela, aurreko urtean zenbait datu eskatu genituen, berariazko ofiziozko espediente baten bidez. Sailaren erantzunean deigarria zen ez zegoela zeregin eta

kategoria profesional desberdinetan enplegatuta zeuden ezgaituen benetakoko kopuruaren daturik. Horregatik, administrazio horretatik eta beste batzuetatik jasotako erantzunen ildotik, gure erakundeak hainbat gomendio luzatu zituen:

- Gehitu behar zela oraingo plaza erreserbaren kupoak %10era heltzeraino.
- Edozein kontratazio motatan aplikatzera zabaldu behar zela, bereziki aldi baterako enplegura, eta espresuki sartu behar zela betebeharrak hori ordezkotzeko egiteko zerrenda edo burtsak kudeatzeko jarraibideetan.
- Ordenan banatzea lortu behar zela, talde eta kategoria desberdinen arabera, sustapen neurri horrek ahalik eta ezgaiturik gehienengana iritsi ahal izan daitezkeen.
- Ezgaituek enplegu publikoa eskurago izan dezaten neurri positiboak agortu behar dira, balizko egokitzapenei benetakoko edukia emanaz, plazak erreserbatze hutsetik harantzago.

Funtsean, 2002ko urteko gure txostenean erantsi genuen gomendio orokorrean jada mahairatu genituen iradokizun berberak ziren (Gordetako kuota: pertsona ezgaituak EAEko enplegu publikora heltzeko sustapen neurria” –ikus 2002ko txostena, VI. kapitulua), baina oraingoan egoki iritzi genion edukia ezgaituak EAEko lan merkatu arruntera sartzeko planean jada onartutako proposamenen arabera zehaztea.

Horrekin batera, administrazio desberdinei langile ezgaituen gaineko datuen jarraipen eta tratamendurako sistema ezartzea komeniko litzatekeela esaten genien, proposatutako ekimenak benetan zenbateraino bete edo gauzatzen ziren jakin ahal izateko.

Horrela, bada, aurten ondokoan gaineko informazioa eskatu dugu:

- 1) Zer neurri hartu diren goian esandako proposamen horiek izatez aplikatzeko.
- 2) Ea daturik dagoen sailak kontratatutako langile ezgaituei buruz eta, baldin bada, zer datu diren.
- 3) Eta hasierako gomendioaren beste zatiari dagokionez, zer urrats egin den kultur gutxiengoetako pertsonak sistemara sar daitezkeen.

Idatzian dioenez Langileen Kudeaketako Zuzendaritzatik etorri zaigun erantzunetik, ez dirudi ezer aurreratu edo aldatu denik gomendatutakoa betetzearen ildoan. Ez esandako lau proposamenei dagokienez, ez eta langile ezgaituei buruzko datuei, eta kultur gutxiengoetako pertsonak sisteman sartzeari dagokienez ere (erantzunaren idatzian kultur gutxiengoaren kontzeptu hori ideologia, erlijio edo etnia bezalakoekin nahasten dela iruditu zaigu).

Horrela, bada, gure azkeneko datu eskarian gai berberak planteatu ditugu, berriro. Eta 3) puntuari, nahasterik ez izateko, hainbat ohar egin genituen, gomendioak hezkuntza sistemak hizkuntza eta kulturen aldetik gero eta anitzagoak diren ikasleen hizkuntza eta kulturak ezagutzen dituzten profesionalak edukitzea komeni dela dioela eta hori giza baliabide berriak sartuz, edo sistemako profesionalak prestatuz egin daitekeela argituz. Langileen ezaugarriak behar berrietara egokituz joatea litzateke kontua, besterik ez, beste hizkuntza behar batzuekin edo beste mota batzuetako beharrek egin den bezala, alegia. Eta horretarako, sailak zer ekimen zeukan jakin gura genuen.

2.) Hezkuntza eta terapia unitateak abiarazteko, beste instantzia batzuekin koordinatzeari buruz.

Arartekoak, hezkuntza premia bereziei buruzko txostenaren ondoren, berariazko arreta jarri du gai honetan, behin baino gehiagotan. Azkenekoa, joan den urtean La Olako hezkuntza eta terapiarako eguneko zentroak ez jarraitzearen gainean jasotako kexen ostean.

Horren harira, informazio eguneratua eskatu dugu berriro, hauxe jakin guran:

- a) Zein den unitate horren oraingo egoera edo alternatiba (sailak bidali zigun azkeneko erantzunean oraindik zerbitzua lekutzeko alternatibarik ez zegoela zioten).
- b) Zer fasetan dauden Araba eta Gipuzkoan baliabide berriak sortzeko proiektuak.

Horren guztiaren berri hemen emango dizuegu, hurrengo orrialde batzuetan (adingabeak eta buruko gaixotasunak hizpide dituen atalean).

Bestalde, Ospitalean eta Etxean Artatzeko Zentroak sortzeko Dekretu Proiektuari dagokionez, esan digute izapidetzen ari direla, eta ikasturte honetan argitaratu ahal izatea espero dela.

- Denboraldi baterako plazen deialdia zentro horietan, 3 eta 6 urterako.
- Funtzionamenduko aginduaren argitalpena.
- Hiru lurralde historikoetan zentroen, hezkuntza-terapiarako ikasgelen kokapen fisikoak zehaztea, 2007ko urtarrilerako aurreikusia.

Bestalde, esan digute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, eta Osasun sailburuak sinatu duten lankidetzaren itunaren barruan, eta bi sailetako teknikariek eta Osakidetzak duten batzordearen lanaren ondorioz, "Eskolan dauden behar medikoen arretari buruzko zirkularra" prestatu zutela. Gainera, 2006ko azkeneko hiruhilekoan, Osakidetzako langileek "Eskolako behar medikoen arretarako eta larrialdietarako ikastaroa" eman zuten (bederatzi ikastaro, 30 profesionalentzat, irakasle eta beste-lako) eta batzordeak lanean segitzen duela ikastaro berriak ematen eta protokolo bateratuak prestatzen.

### 3. PROZEDURAK ETA BALIABIDEAK HOBETZEA

Gomendio hauei buruz (txostenean 14tik 19rakoak ziren), aurreko informazioak kontuan hartuta, aurreko bi gaitara mugatu gara:

- 1.) Hezkuntza premia berezien erregistroari dagokionez (15. gomendia), eta jardura protokolei eta isilekotasun bermeei dagokienez (16. gomendia), ea aplikazio informatikoaren esperimendatze fasea amaitu den, eta zer berme elementu ezarri diren isilekotasuneko lege baldintzak betetzeko.
- 2.) Ikastegietan arkitektura oztopoak ezabatzeari dagokionez (18. eta 19. gomendioak). Puntu honi buruzko gure esku hartzerik gehienak barrerak ezabatzeke zenbateko eta

proiektuen bilakaera zein den, zein den zentroen multzoaren “egoeraren mapa” eta zer denbora horizonte planteatzen duen sailak zentro guztiak erabat irisgarriak izan arte (helburu hori sailak berak jarri du) jakitera bideratu dira.

Horrela, bada, azkeneko urtean honako argibide hauek eskatu genituen:

- 1) Ea arkitektura oztopoak ezabatzeke zer diru kopuru jaso ziren azkeneko ekitaldie-tako aurrekontuetan, eta zenbat gauzatu ziren, eta ea zenbat ikastegitan kendu diren oztopo horiek, egindako obren ondorioz.
- 2) Ea gure erkidegoko ikastegien irisgarritasunari buruzko benetako egoera maparik dagoen eta, baldin badago, ea oinarritzko zer datu jasotzen duen: oztopodun eta oztopo bako ikastegien kopurua eta proportzioa, etapaka, lurraldeka, eta abar.
- 3) Ea zein denbora epe jarrita daukan sailak ikastegi guztiak erabat irisgarri izan daitezzen eta zer aurreikuspen egin den hori lortzeko.

Sailaren erantzun idatzian 2006ko obren plana jasotzen zen, non 24 ikastegitan oztopoak ezabatzea aurreikusten den, dagokien aurrekontu partidekin (5.622.000 euro 2006ko aurrekontuaren pentzutan, eta zenbait kasutan, konpromiso gehigarriak hurrengo aurrekontu ekitaldirako).

Baina datuekin batera, gauzak argitzeko bilera bat egitea komeni zela ere bazioten. Saileko eta Arartekoaren erakundeko langileen arteko bilera 2006ko otsailaren 1ean egin da, eta iritziak elkarri jakinarazi eta hainbat gauza argitzeko balio izan du. Bereziki:

Oraindik eskatutako informazioa noiz helduko zain gaude.

## 6) **Buruko gaixotasunak dituzten haur edo nerabeak**

### A) **Aurrekariak**

Haur eta nerabeen buruko gaixotasunen arazoari berariaz heldu genion buruko gaixotasunak dituzten pertsonen gure erkidegoan ematen zaien arretari buruzko gure ezohiko txostenean (4.6, 4.7 edo 3.4 atalak). Txosten hori 2000n eman zen argitara, eta Legebiltzarrean eztabaidatu zen; ondoren, jarraipena ere egin zitzaion, elkarrekin bilerak eginez, ofiziozko espedienteen bitartez, eta bisita eta informazio eskarien bidez (ikus azkeneko urteotako ohiko txostenak). Haurrei eta nerabeei dagokienez, igarri eta nabarmendutako beharren artean honako hauek aipatzen ziren:

- Haur psikiatriako lantaldeak deszentralizatzea.
- Giza baliabide espezializatuak gehitzea (adibidez, haur psikiatrak edo psikologoak).
- Lurralde eta eskualde desberdinetan bitarteko egiturak sortu beharra.
- Gizarte-hezkuntza-osasun arretako batzordeak bultzatzea.
- Elikadura trastornoerik erantzuteko egitarauak berrikustea...

Txosteneko 18 gomendioetakoren batek ere biztanleria sektore hau zuen hizpide, beren beregi. Horrela, 6. gomendioak, hauxe proposatzen zuen, hitzez hitz: “*Adingabeei zuzendutako zerbitzuak handiagotzea.*” Eta honelaxe argudiatzen zen:

*“Txosten honetako datuetan nabarmen ageri da adingabeentzako artapen maila murriztegia dela. Horren erakusgarri:*

*– Haur eta nerabeentzako psikiatria baliabideak oso gutxi dira, eta bitarteko egituretan egon ere ez dago horrelakorik;”*

Gai eta proposamen horiek –bere garaian Osasun Sailburuak ere eztabaidatu zituenak– behin eta berriro planteatzen zaizkio erakunde honi, bai elkarte jakin batzuek, bai babes sistemetako arduradunek, edo babes edo erreforma zentroetara aldioro egiten ditugun bisitetan.

Burututako ekimenei dagokienez, txostena argitaratu eta hilabete gutxira, Bizkaiko Lurralde Historikoan baliabide berri bat jarri zen martxan: hezkuntza eta terapiarako eguneko zentro berria La Olan (Sondika). 2004ko otsailean, Arartekoa eta erakunde honetako langileak zentrorra joan ziren, zelan funtzionatzen zuen bertatik bertara ikustera. Zegokion txostenean eman genuen horren berri, eta datu esanguratsu batzuk ere eskaini genituen (ikus 2003ko txostena, 1.1.9 atala).

Interes handia genuen orduko plaza kopurua (10) dauden beharretarako adina ziren jakiteko; izan ere, kontuan eduki behar ziren ondoko datuak:

- Mota horretako zentro bakarra da Bizkaian.
- Zerbitzua sorrarazi zuen lankidetzaren itunak, printzipioz, 20 erabiltzaileentzako ahalmena aurreikusten zuen.
- Zentroak itzarote-zerrenda izaten zuen (bisita egin zenean, 6 adingabe zeuden sartzeko zain, eta denek betetzen zituzten baldintza guztiak).
- Artean baliabide hori ez zen oso ezaguna jende artean, eta beraz, litekeena zen adierazi gabeko beharrak eta kasuak egotea.
- Zentroak ez du neraberik hartzen.

Zentroko langileen iritziak jasota, eta bildutako datu eta balorazioetan oinarriturik, erakunde honen ustez beharrezkoak ziren horrelako baliabide gehiago, eta aukera desberdinak planteatu zituen (plaza gehiago, baliabide berriak...). Esan genuen komenigarria litzatekeela, bestalde, zentroak araudi argiagoa eta bermatzaileagoa izatea, behintzat eskubideekin lotura zuzenena zuten ezaugarriei dagokienez: sartzeko irizpideak, itzarote-zerrenden kudeaketa, barne araubidea, txostenen konfidentzialtasunerako bermeak...

Bestalde, Arartekoak zenbait erakundek osatutako egitasmoaren berri ere baizeukan (“*Nerabeen eguneko hezkuntza eta terapia zentrorako proiektua*”) osasun eta hezkuntza arloetarako haur eta gazte azpibatzaileak Osakidetza, Hezkuntza Sail eta Gizarte Ekintzarekin elkarlanean taxutua).

Egitasmo hark La Olan ikusi genuenarekin zituen desberdintasunak eta antzekotasunak gorabehera, inork zalantzan jartzen ez dituen hainbat beharri erantzuten saiatu nahi du, baina oraindik ez da gauzatzerara heldu.

Azken urte honetan, hezkuntza premia bereziei buruzko txostenaren jarraipenaren ildoan, Arartekoak informazio eguneratua eskatu dio berriro ere Hezkuntza Sailari. Zehazki, galdera hauek egin dizkio:



- Ea La Olako baliabidean aldaketa nabarmenik egin den edo egiteko asmorik dagoen.
- Zein fasetan dauden Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetan baliabide berriak sortzeko proiektuak, eta zeintzuk izan daitezkeen proiektuok abian jartzeko atzerapenaren arrazoiak.

Hezkuntza Sailak 2005eko otsailaren 2an emandako erantzunean jakinarazi zigun La Olako jarraipen batzordeak unitatearen plaza kopurua gehitzea proposatu zuela; *aukera hori "aztertzen" ari zela, "esperientzian parte hartzen duten hiru erakundeen konpromisoa behar delako, eta ez bakarrik Hezkuntza Sailarena"*; eta kontuan hartu behar dela *"honetako unitate batek neurri kritiko jakinak" dituela eta ez dela komeni "unitatea neurri horien gainetik handitzea."*

Antzeko unitate gehiago sortzeko aukerari buruz, irizpide hau gogorarazi zigun: "sare arruntetik kanpo ez dira gehiegi sustatu behar berariazko ekipamenduak, hala hezkuntzaren arlokoak nola haur eta nerabeen buru-osasunaren arlokoak". Adierazi zuen, gainera, ospitaleetan nerabeentzako unitateak sortu nahi zirela eta dekretu baten zirriborroa prestatzen ari zela, unitate guztiei egonkortasun administratiboa eta jarduteko esparru egokia emateko asmoarekin.

## B) Azken urteko jarraipena

Azkeneko urtean, Ararteko erakundeak eskari berriak jasotzen segitu du gure Erkidegoan buruko gaixotasun larriak dituzten haur eta nerabeen artapen behar jakin batzuei erantzun egokia emango dieten berariazko zerbitzuak edukitzea premiazkoa dela diotenak. Zenbait kasutan halako baliabiderik ez dagoela uste dutelako luzatzen dituzten eskariok. Beste batzuetan, berriz, ematen zaien erantzunari nahikoa irizten ez diotelako, argi eta garbi.

Eskari hori harrera eta barruratze zentroetara egiten ditugun bisita guztietan errepikatzen digute, baita gazteen babes eta justizia sistemetako arduradun eta profesionalekin izandako bileretan ere. Hain sistematikoki ez bada ere, ikastegi arruntekin edo adingabeekin zuzenean lan egiten duten beste profesional batzuekin harremanetan gaudenean ere (irakasle, orientatzaile, adingabeen epaile, osasun sistemako langileekin) gaia ateratzen da.

Datu objektiboak izatea oso zaila den arren, balorazio orokorra bat etorri ohi da; biztanleria sektore honen buruko gaixotasunen arazoek bere horretan iraun ez eze, gehitzen ere ari dira eta, arrazoi desberdinak tarteko, erantzun egokirik gabe segitzen dute.

Denen eskaria izateaz gain, aurten, ukitutako guraso talde batek, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen senideen elkarteek lagunduta, kexa zehatz bat jarri zuten Arartekoarenean, sektore horrentzat dagoen baliabide gutxietako batek jarraituko ez zuela-eta: **La Olako hezkuntza-terapia unitatea** itxieraren mehatxupean zegoen.

Jarraipena, beraz, horretara bideratu da, bai kexa espedientea izapidetuz, bai Hezkuntza Sailari hezkuntza premia berezien gaineko txostenaren esparruan informazioa eskatuz.

Informazio eskariak bidali ditugunean zentroaren oraingo egoera zein den (erabiltzaile kopurua, itxarote zerrenda...), zer etorkizun aurreikusten zaion eta, orokorrage,

inplikatuena dauden bi sailek (Hezkuntza eta Osasuna) sektore horren arretara xedatutako baliabide berriak sortzeari buruz zer iritzia daukaten eta zer asmo daukaten jakin nahi genuen.

Bi sailetatik heldu zaizkigun erantzunetatik haxe ondorioztatzeko moduan gaudete:

- Zerbitzuak jarraitzea kolokan dago BBK-k instalazioen titular eta itunaren sinatzaile- La Olako lokalak gizarteko beste zeregin eta beste sektore batzuetara xedatzea erabaki duelako, eta horrek zentrorako testuingurua aldarazi du. Erabaki hau aurreko ikasturtearen amaieran jakinarazi zitzaizen ukitutakoei.
  - 2005/06 ikasturtean, eguneko zentroa La Olako instalazioen barruan dago oraindik, beste erakin batean, aurreko ikasturteetako egitasmoen antzekoaz, baina -Hezkuntza Sailak dioenez- "10/15 ikaslerengana zabaltzea aztertzen ari dira."
- Zenbat adingabe artatzen diren galderaren gainean, Osakidetzak dio eguneko zentroan 10 direla, eta "talde bera tratamendu anbulatorioko egitarau trinkoa ere garatzen ari dela, zentrorra sartzeko zain dauden edo senda-agiria hartu osteko jarraipenaren zain dauden haurrentzat (10)".
- Alabaina, Hezkuntza Sailaren erantzunean dioenez, "hori, epe luzera, ez dugu irtenbide modura ikusten, ez Hezkuntzakook ez eta Osakidetzakook ere, batez ere ingurunea erabat aldatzen delako haurrentzako hezkuntza toki bat izateari utzi eta ezgaituentzako lan ingurune bihurtzen den unean."
  - Ez dago oraindik toki alternatiborik zerbitzuaren etorkizuna ziurtatzeko. Antza, aukera desberdinak baloratzen ari dira.
  - Eta Gipuzkoa eta Arabako lurraldeetako hezkuntza-terapia unitateei dagokienez, Hezkuntza Sailak dio " ez dela aurrerapen handirik egin."

Daukagun azkeneko informazioaren arabera, egun, La Olaren alternatiba modura, Urtuellako eskolak atontzen ari dira, eta hori bi ikasle hartzeko asmoa dago, bi adin multzotan banatuta (8-12 eta 12-16 urte).

Bestalde, aurreratu digute, Ospitaleko, Etxez Etxeko Arretako eta hezkuntza-terapia Arretako Lurralde Zentroak sortzeko duela gutxi atera den Dekretua garatzeko, 2007ko urtarrilaren amaiera aldera, zentroak eta hezkuntza-terapia ikasgela horiek hiru lurraldeetan fisikoki non lekutuko diren zehaztuta edukiko dutela.

Ai, urrats horiek igarritako beharretarako erantzuna gehitu eta hobetuko balute!

Hara, bada, informazio hauek guztiak kezagarriak dira, eta horien aurrean ez daukagu behin eta berriro esandakoa berrestea beste aukerarik: gure arreta sistemak ez dauka egoera jakin batzuei (buruko gaixotasunak, edo droga mendetasunak adingabeengan) berariaz erantzuteko baliabiderik; eta beste kasu batzuetan -profesionalen eta sektorearekin harreman zuzena daukaten arduradunek oro har duten iritziaren arabera behintzat- erantzun hori ez da nahikoa, inola ere. Horregatik, egoerarik larriengan, zerbitzu partikularrengana jo, edo gure Erkidegotik kanpoko baliabideetara bideratu behar izaten da jendea (Nafarroara edo Kataluniara), baina horiek ezin dira etorkizuneko alternatibak izan. Gure erakundearen ustez oso arazo larria da hau, berariazko arreta beharko luke eta berehalako erantzuna eskatzen du.

## 7) Adingabe atxilotuak. Polizien jarduerak adingabeei buruz

Aurreko urteetan bezala, aurten ere, atxilotze tokiak ikustera joan garenean, arreta berezia jarri dugu adingabeak zer baldintzatan egoten diren jakiteko, bai Ertzaintzarenean bai udaltzaingoen egoitzetan.

Alde horretatik, egin ditugun azkeneko bisitetan, kasu honetan udaltzaingoen ziegetara, ikusi ahal izan dugu polizi etxeetan, oraindik ere, ez daukatela beren beregi adingabeentzat den tokirik eta, horrek adingabea atxilotuta dagoen bitartean benetan zelan egoten den jarraipena egitea zailago bihurtzen du.

Baina, horrez gain, lehendik ere jorratu baitugu gai berbera, azkeneko urtean ekimen ugari burutu ditugu poliziak adingabeak zelan tratatzen dituen edo haiengana bideratzen dituen jarduerak zelakoak diren aztertu nahirik. Zenbait kasutan, bidegabe iritzitako tratu polizialarengatik jasotako kexei erantzunez; beste batzuetan, ofizioz, adingabeen harrera zentroetara egiten ditugun bisitetan jasotako informazio batzuen aurrean.

Horrela, bada, hemen zer gai ikertu ditugun gogoratu eta horien inguruko ohar edo iruzkinen bat egitera mugatuko gara.

- Sarritan, poliziak adingabeekin esku hartzen duenean polizien egoitzetatik harrera zentroetara eramaten ditu (adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan), edo zerbitzu batzuetatik besteetara garraiatzen ditu (adibidez, barruratzeko zentro batetik epaitegira edo osasun zerbitzuetara).

Lehenengo egoerari dagokionez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko txostena egiten ari ginenean eta, batez ere, Gipuzkoako lurraldean jasotako informazio batzuk tarteko, eta Urnietako premialdietako harrera zentrori beren beregi egindako bisita baten ostean, gure erakundeak Ertzaintzaren aurrean eta hiru probintzietako udaltzaingoen aurrean ofiziozko jarduerak abiarazi zituen. Jarduketa hauen emaitzaren berri kapitulu honetan daukazue, dagokion atalean, eta jarduera irizpide argiagoak ezarri behar direla ondorioztatzen da.

Adingabeak barruratzeko zentroetatik beste zerbitzu batzuetara, hala nola, epaitegietara edo osasun zentroetara, eramatearen gainean, jarraipena egin dugu zentro horietara aldioro egiten ditugun bisitetan, eta hezitzaileekin izandako bileretan eta adingabe batzuekin izandako elkarrizketetan ere hizpide izan ditugu lekualdaketok edo bidaiok.

- Deigarria da, aurten, beste urte batzuen aldean, kexa asko jaso ditugula tratu polizial bidegabeari, edo indarra neurririk gabe erabiltzeari buruz, poliziek polizi etxeetatik kanpo garatu dituzten jardueretan. Horietako askoren berri Herrizaingo arloan eman da, txosten honetan (ikus. I. kap).

Ikus daitekeenez, salatutako jardueretan jokabide desberdinak sartzen dira: adingabea denbora luzez atxikitzea, gurasoei atxilotetaren berri ez ematea, ez uztea poliziaren argiketa txostenaren edukia ikusten, indarra gehiegikeriaz erabiltzea, lehenengo ikusian, justifikatuko luketen garrantzi penalik gabeko jokabideengatik atxilotzea; bermeak adingabe atxilotuaz dituzten datu pertsonalen ezereztapenari buruz... Beste kasu batzuetan, izapidetu diren kexek ez dute poliziaren esku hartzea hizpide hartu, alderantziz baizik, botilatzarra izeneko fenomenoak eragiten dituen traben aurrean ezer egin ez dutela baizik.

- Aurreko urteetan izan ez den kexa gai berririk ere bada, eskola jazarpeneko kasuetako poliziaren ikerketarena, alegia, edo zehaztuz, berdinaren arteko jazarpen edo tratu txarren salaketan ondorioz poliziak ikastegietan esku hartu duela. Eskolaumeen arteko jokabide jakin batzuek epaitegietara eramatearen kontuari heldu diogu *Bizikidetzeta eta gatazkak ikastetxeetan* ezohiko gure txostenean eta, txosten horretako gomendioetan planteatzen dugunez, jarraipena egin beharko zaio, ondoreak baloratzeko.
- Polizi iturriek adingabe atxilotuen gainean eman lezaketen informazioari buruzko jarduera batzuk ere burutu dira; gai honek gure erakundeari berariazko gomendioak eginarazi dizkio. Horren harira, bereziki larria deritzogu Ertzaintzak atxilotu dituen bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko polizi informazioa zabaldu izanari –aurten ikertu dugu hau–, Iruña Okan aurreikusitako harrera zentroa irekitzea errefusatzeko presio elementu modura erabili baita. 2006an amaitutako ikerketa honen laburpen zabala sartu dugu txosten honetan (ikus. Herrizaingo alorraren I. kap). Gure erakundearen iritiz, Herrizaingoak ez zituen datuak zabaldu behar, baina alka-teak ere ez zituen eskatu behar. Bestalde, egindako ikerketak ez ditu erabili ziren eta, azkenean, poliziaren datu haiek herrian publikoki erakustea ekarri zuten bide batzuei buruzko zalantza guztiak ondo argitu. Arartekoari esku harrarazi zioten gertakari zehatz haiek atzera bueltarik ez zuten arren, Herrizaingo sailari eta udalari berriro halakorik gerta ez dadin neurriak har ditzaten eskatu zaie.

## 8) **Beste zaugarritasun egoera batzuk**

Aurreko ataletan orain arte berariazko arreta eskaini izan zaien, eta ia kasu guztietan aztergai izan ditugun eta ezohiko txostenetan hainbat gomendio eginarazi dizkiguten zazpi adingabe multzo edo egoerari buruz burututako jarraipen jarduerak laburbildu ditugu.

Zazpi sektore horiei ez eze, azkeneko urtean, oso ekimen desberdinen bitartez, Arartekoak arreta berezia jarri du zaugarritasun bereziko beste egoera edo multzo batzuegan ere. Horrela, adibidez:

- **Ikasle atzerritarrak** eskolatzeko baldintzei dagokienez, beka bat tarteko, jada amaituta dagoen ikerketa lan bat egin da; txosten honetan lan horren berri eman da (*“Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban”*). Azkeneko urtean, kapitulu honetan bertan, hezkuntza premia berezien gaineko txostenaren jarraipenaren esparruan, jaso den bezala, berriro aztertu dira etorkinen eskolatzearen datu eguneratuak, zer joera dagoen eta zertan hobetu behar den igarri nahirik.
- **Etnia ijitoko adingabeen** eskolatzeari eta eskolako emaitzei buruz, harremanetan egon gara herritar ijitoen elkarteekin, eta sektore horri zuzendutako egitarauak dituzten beste batzuekin, parte hartu dugu eskolarako motibatze laguntza edo sos-

tengu ekitaldietan, datu eguneratuak eskatu dizkiogu Hezkuntza Sailari, eta dagokien jarraipena egin diegu sasoikako langileei.

- **Sexu gehiegikeriako egoerei** dagokienez, gure erakundeko langileak duela gutxi Save the Children erakundeak antolatuta esku hartzeko baterako protokoloa atontzeko egin zen lan mintegian izan dira.
- **Adingabeek telebista programa, internet eta joko interaktiboek dagokienez dituzten eskubideei** buruz, Arartekoak bere proposamen eta ekarpenak beste ararteko erakunde batzuekin batera, Arartekoak Koordinatzeko XX. Jardunaldiak prestatzera begira, egindako mintegira eraman zituen (ikus Jardunaldien laburpena, txosten honetan, VI. kapituluan).
- **Nerabe lege-hausleei**, edo jokabide arazo larriak dituztenei dagokienez ere, Arartekoko langileak eginkor aritu ziren, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez, arazo horren inguruan duela gutxi egindako kongresuan.

## 9. **Eskolako tratu txar edo jazarpeneko jarduketak**

Arartekoak, beste urte batzuen aldean, sarri esku hartu behar izan duen adingabeei buruzko gairik azpimarratu beharko bagenu, eskolako jazarpenarena izango litzateke, inolako zalantzarik gabe.

Alde batetik, urte osoan zehar Bigarren Hezkuntzako zentroetan bizikidetzari buruzko azterlana egin da, 2006ko abenduaren 19an aurkeztu eta ezagutarazi genuen *Bizikidetzaren eta gatazka ikastetxeetan* ezohiko txostenaren funtsa izan dena. Urteko txosten honetan lan horren laburpena sartu dugu. Horrela burutzen da, nolabait, duela bi urte baino gehiago herritarren partaidetzako II Foroa egin zenean eta gure erkidegoko 80 ikastetxetako ikerketarekin hasitako prozesua. Txosten honetan arreta handia jarri zaion gatazka bat –bakarra ez bada ere– eskolako jazarpena edo berdin arteko tratu txarrena izan da.

Baina azterlana bera alboratuta, aurreko urtean bezala, edo aurreko urtean biziago, agian, gure erakundean jazarpenaren edo bestelako tratu txar modu batzuen inguruan dei, kontsulta, bisita eta kexa formal eta informal pilo bat jaso ditugu.

Gehienak beren seme-alabei zegozkien gertakariengatik larrituta zeuden gurasoengandik etorri dira, gertakari horien aurrean ezer egiten ari ez zelako, edo egitekotan, oker edo gutxiegi egiten ari zelako, beren ustez. Beste batzuetan, guraso berberok, arazoak konpontzen ez zirela ikusita, seme-alaba beste eskola batera eramatea erabakitzen zuten eta, hala ere, arazoak aurkitzen zituztela zioten ...

Baina jazarpena jasaten ari zen ikasleak berak bere egoera azaldu digun deiak eta kexak ere jaso ditugu, eta jende helduak ere jo du gugana –lasaigarri modura ia, beste inork berriro halakorik jasan behar izan ez dezan eskatuz–, ikasle zireneko sufrimendu edo gehiegikeriak kontatzen, urte askoan isilean gorde ondoren orain azaltzera ausartuta.

Oso arazo multzo konplexua da, eta ez da bat ere erraza izaten ari jarrera orekatu eta, aldi berean, eraginkorrak mantentzea.

Deigarria da, ordea, seme-alabek jazarpena jasaten dutelako gurasoek transmititzen dizkiguten estuasuna eta kezka, instantzia horiek beren kexei merezi duten garrantzia ematen ez dietelako, edo behar bezala heltzen ez dietelako, edo arazoaren aurrean beste albo batera begiratzen dutelako.

Kasu hauetan arazoari erantzun pertsonalizatu eta neurrizkoa ematen saiatu gara beti, kasuak egokien irizten genien erakundeetara bideratzen ahaleginduz: kasua oso larria izan denean, baita sistema judizialera ere; baina gehien-gehienetan, hezkuntza sistemara eta bere baliabideetara bideratzen saiatu gara (ikastegiak, ikuskaritza, sosten-gu zerbitzuak, Hezikidetza berariazko egitaraua...), beraiek direlakoan halako arazoei erantzunik egokienak eman ahal dizkietenak eta eman behar dietenak.

Kasu bakoitzak esku hartze zehatzak eskatzen dituen arren, guk uste dugu pixka bat gorago aipatu dugun txostenean egiten ditugun gomendioak aplikatzeak igarritako arazoetako asko konpontzeko eta esku hartze eraginkorragoa izateko balioko dutela. Nolanahi ere, gai honi bere jarraipena egin beharko zaio datozen urteotan.

## 10) **Zenbait gogoeta orokor**

Komeni da jabetzea edo esplizituki adieraztea, aurreko eskema erabiltzeak, informazioa sektorez sektore eskainiz, edo sektore jakin batzuk “bereziki zaugarri” gisa kalifikatuz dakartzan arazo batzuez. Horrela:

- Adingabe sektore bat bereziki zaugarritzat katalogatze hutsak (edo nahi bada, zehaztuz, zaugarritasun bereziko egoeran dagoen sektoretzat), sektore horrek estigmatizazio handiagoa jasan dezan arriskua dakar, beren arazoak arazo handiago bihurtzekoa, arreta beraiengana zuzentzean.  
Gainera, pentsa liteke, sektore batzuk bai eta beste batzuk ez aipatzean, aipatzen direnak direla bereziki zaugarriak diren bakarrak. Gure kasuan, ulertu beharko litzateke, arrazoi desberdinak tarteko, horiexek direla arretan lehenetsi ahal izan ditugunak, baina horrek ez du eragozten beste batzuk ere egotea, lehenengoak bezain zaugarriak (adibidez, igarri bako familia barruko tratatu txarren pean bizi diren adingabeak, terrorismoaren biktima diren adingabeak, gurasoak espetxeak dituzten adingabeak, ospitalean dauden adingabeak, eta abar.).
- Bestalde, aurreko txostenetan ere ohartarazi dugun bezala, kolektibo hauetako bakoitzaren egoera independenteki aztertzeak pentsaraz lezake adingabe multzo edo arazo independenteen edo elkarrekin zerikusirik ez dutenen aurrean gaudela, baina ez da horrela. Sarritan –agian, gero eta maizago–, gaur talde horietako batean ageri zaigun adingabea, edo gaur zerbitzu jakin batean aurkitzen duguna, bihar beste batera igarotzen da. Adibiderik argiena da adingabe lege-hausle asko daudela babes zerbitzuetatik datozenak, psikiatria arretako arazo larriak dituztenak, edo eskolatu barik egon direnak... Kapitulu honetan bertan horri buruzko datu adierazgarriak eskaintzen dira. Errealitate kezkarri horrek agerian uzten du gure gizartean oraindik badirela benetako “bazterketa zirkuituak”, desoreka guneak, gizarte eta erakundeen lehenetsuzko eta konpentsaziozko arretaren premian dauden adingabe kopuru jakin bati ukitzen diotenak, eta horrek zerbitzu eta sistema desberdinak lankidetzaren estuan ari daitezen eskatzen du.

- Egia da aztertutako sektoreetako bakoitzak berariazko arazoak dituen. Baina egia ere bada denetan, edo askotan, arazo berdinak hautematen direla, edo arazo batzuk beraien arteko loturatik sortzen direla, edo horrekin zerikusia dutela. Horrela, adibidez:
  - Gizarte eta osasun arretako baliabiderik ez izatea, beharrezkoak eta egokiak direlako adostasuna dagoen arren, edo zerbitzuen artean koordinatzeko zailtasunak daudela (harrera zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, oinarrizko gizarte zerbitzuak...) eta horrek txarrerako eragiten diola arretaren kalitateri eta esku hartzeen jarraipenari eta koherentziari.
  - Erakundeen arretak, sarritan, denbora tarte jakin bat hartzen du, eta une jakin batean, batzutan hezkuntza ibilbidea izan litekeenaz bestelako arrazoi batzuegatik, etenda gera daiteke. Horren harira, lehenago esan den bezala, bereziki kezkarria da erreformako zenbat adingabe datorren babes zerbitzuetatik, eta zelako zailtasunak ikusten diren batzutan zerbitzu batzuen eta besteen artean esku hartzeak jarraitasunik izan dezan bermatzeko. Hori bezain kezkarria da babespean edo barruratuta tarte bat eman eta gero, 18 urte betetzean, dena utzi behar izatea edo oso aukera gutxi dagoela, hezkuntza prozesua bat-batean eteten baita, eta baztertuta geratzeko edo delituak egiteko arriskua sortzen baita.
- Aipatutako lehenengo arriskua beste ikuspegi batetik hartuta, komeni da esatea, erakundeen esku hartzeak alboratuta, hedabideetan, tarteka, esandako kolektibo horietako eta horiek bezain zaugarriak diren beste batzuetako adingabeen gaineko albisteak ematen direla. Bereziki informazioa polizien gaitasun omen datorrenean, eta gizarte alarma edo estereotipoak eta bazterkeria sendotzea eragin dezakeenean. Adingabearen interes gorenak –erakundeen erabaki eta esku hartze guztien gidari– bideratu behar du jendaurrera zabaltzen den hari buruzko edozein informazio, eta beste edozein interes mediatikori gailendu behar zaio. Guk uste dugu txosten honetan adibide esanguratsurik jaso dugula, informazio batzuek sektore horren inguruko iritzi publikoa eratzeko orduan zelako eragina daukaten igartzeko.

## II. **KEXA ETA GOMENDIO BERARIAZKOAK**

Behin baino gehiagotan esan dugunez, gure erakundeetan ez ditugu beren beregi edo zuzenean adingabeei buruz diren kexa asko jaso; eta are gutxiago beraiengandik. Hori faktore desberdinengatik izan daiteke: ez daukatelako beren eskubideen kontzientziarik, adingabeek ez dakitelako gure erakundea dagoenik, beraientzat ere zabalik, defentsa mekanismo gisa, ez direlako trebeak, ez daudelako ohituta edo ez daukatelako konfiantzarik erakundeetara jotzeko, familiaren edo beste pertsona edo erakunderen mende egoten direlako... Kexarik gehien hurbileko senideren batek egiten ditu, inoiz egoeraren berri duen profesionalen batek, eta beste batzuetan sektore zaugarriekin lan egiten duten edo zerbitzu jakin batzuk kudeatzen dituzten elkarteek. Baina adingabeei buruz edo adingabeek berek berariaz jarritako kexak ez dira oso ugariak izaten.

Alabaina, kexak ikuspegi zabalago batetik hartzen baditugu, asko dira, zuzenean zein zeharka, adingabeei buruz direnak. Horrela, esaterako, hezkuntza arloa ia osorik, unibertsitateko hezkuntzaren maila gorena kenduta, zuzenean lotuta dago gure Erki-degoan adingabeek jasotzen duten tratamenduarekin (ikus Hezkuntza arloa, txosten honetako I. kapitulua). Eta gauza bera esan genezake adingabeentzat beren beregi diren beste zerbitzu batzuetaz (babes zerbitzuak, zerbitzu judizialak, osasun zerbitzuak...). Pentsatzekoa den moduan, adingabeei buruzko kexa eta esku hartzerik gehienek sektore horiekin zerikusia izaten dute. Betikoak edo diren alor horien ondoan, aurtengo aurreko ataletan ere aipatu den beste bat azpimarratu behar dugu: eskola jazarpena edo berdinen arteko tratu txarrak.

Horrela, aurtengo kexa eta jardueretan ondokoak bezalako gaiak jorratu dira:

- berdinen arteko jazarpena, tratu txarrak eta biktimizazioa, ikastegietan zein ikastegietatik kanpo;
- beste tratu txar mota batzuk eskola esparruan;
- tratu txar eta sexu gehiegikeri kasuak familia barruan;
- telebistako programazioa edo propaganda haurrentzako ordutegiko programe-tan, adingabeentzat desegokia;
- telefonia mugikorreko antenak jartzea ikastetxeetatik gertu;
- “piloteoak” sailen artean, ea nori dagokion diagnosi frogak jakin batzuk egitea;
- eskoletako ordutegiak;
- haurrak kontsumitzera bultzatzen dituzten publizitate kanpainak;
- endredoak “kale edana” tarteko
- nazioarteko adopzioak: luzamenduak, egokitasuna zehazteko irizpideak ...;
- desadostasunak profesional jakin batzuen jokabidearekin, baita babes zerbitzu batzuenarekin ere;
- baldintza desegokiak ikastetxe batzuetan;
- hezkuntza premia bereziko kasuetan laguntzailea jarriz sostengua adjudikatu edo mantentzeko erabiltzen diren irizpideak;
- protestak erakundeetako arduradunek bakarrik dauden adingabe atzerritarren gainean egindako adierazpenengatik;
- ikasturtea errepikatu edo azterketak egin ahal izateko irizpideak;
- etxeak eraistea, edo familiak kanporatzea, haur txikiak dituztela;
- Estivill metodoa
- irizpideak laguntzak aplikatzeko ahalmen urriko umearengatik edo bestelako ingurumari batzuegatik;
- ikastetxeetan erlijio sinboloak erabiltzea;
- tratu txarrak adingabeei eskolaz kanpoko jardueretan;
- nahikoa ez den erantzuna haur psikosi kasuetan;
- sexu bereizketa ikastetxe jakin batzuetan;
- banaketa kasuetan gurasoei adingabeari buruzko zer informazio emango zaien zehaztea;
- ikuskizunak animaliekin ikastegietan;
- huelgen eragina eskolaren antolamenduan;
- adingabeen astialdirako eremuak (ad.: beraiantzako diskotekak) eta baldintzak, erabilpena eta kontrola;



- desadostasunak eskola esparruan ezarritako edo ezarri barik utzitako zehapenekin;
- haur eta gazteen buruko gaixotasunen arreta;
- bakarrik dauden adingabe atzerritarrak beren sorterrietara bidaltzea;
- haurren eskubideak urratzen dituzten erakusketak.
- bitak zer baldintzatan egiten diren, edo adingabeen eta gurasoen arteko harremanak zelakoak izaten diren banaketa kasuetan;
- adingabeen zentroetan lan egiten duten profesionalen lan baldintzak, zerbitzuaren jarraitasunean eta kalitatean eragin txarra dutenak;
- tratu polizial bidegabea, indarra neurririk gabe erabiltzea edo, alderantziz, polizia ezertarako ez sartzea;
- adingabeei buruzko informazio polizialak, eta informazio horiek zabaltzeko irizpideak;
- egoera zehatz batzuetan (karabana batean bizi direnean, harrerapean egon arren dokumentaziorik ez dutenean) adingabe atzerritarrak erroldatzeko ukoa;
- bananduta dauden gurasoek adingabe baten gaineko informazio poliziala eskuratzea ;
- eskola plangintzako irizpideak eskola ghettoak sor daitezen arriskua daukaten eremu jakin batzuetan;
- eredu jakin batzuetako eskola eskaintza kendu, itxi edo ez jarraitzea, unitate batzuetan;
- bi urteko hezkuntza eskaintza nahikorik ez toki jakin batzuetan;
- ikastegien mantentze eta lekualdaketa arazoak;
- irisgarritasun arazoak ikastegietan;
- irizpideak eta lehentasunak ikasleak onartzean (udal langileen seme-alabak lehenestea, eskariak onartzea izapidetzen ari diren adopzio kasuetan...);
- eskola garraioaren eta jantokien gaineko arazoak;
- adopzio bat eskatzen duten bikoteen egokitasuna onartu ala ezesteko irizpideak;
- bizikidetzara arauak eta zehapen prozedurak barruratze zentroetan;
- eskolatzeko aukerak eta baldintzak 0-3 urteko tartean;
- eskolatzeko aukerak eta baldintzak gurasoek eskatutako hizkuntz ereduaren arabera;
- eskolatzeko eta osasun arreta jasotzeko baldintzak ikastegietan gaixorik dauden edo botikak hartu zein kontrola behar duten haurrentzat;
- adingabeen atxiloteta polizialak eta harrera zerbitzuen esku uztea zelaz gertatzen diren;
- jarduera irizpidean foru aldundiek egonaldi baimena emateko edo berriztatzeko espedienteak izapidetzean, zentroetan hartutako bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuetan;
- hezkuntza premia bereziak dituzten adingabeak eskolatzeko baldintzak;
- zaurgarritasun egoeretan dauden adingabeen kolektibo jakin batzuk eskolatzeko baldintzak, adibidez, sasoikako langileen familietako seme-alabak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak...
- esku hartzearen jarraitasuna eta irizpide berdina babes zerbitzuetan eta gazteen justizia zerbitzuetan;
- osasun gastuetarako dirulaguntzak emateko irizpideak.

Aurreko adibideetan esaten den moduan, eta aurreko urteetan bezala, azkeneko urteko kexa eta jarduketa askok bi arlotara jo dute:

- Hezkuntza: eskolatzeko baldintzak eta irizpideak, bereziki gizartean behartsuen diren kolektiboentzat, hezkuntza premia bereziak dituztenentzat, edo adin jakin batzuetakoentzat (0-3 urte); plangintza irizpideak, zerbitzu jakin batzuetara heltzea...
- Esku hartze judizialak edo adingabeen babesaren alorrekoak: desadostasunak erakundeek harrera, adopzio, banaketa, bisita erregimen, informazioa eskuratze eta halakoetan esku hartzeari buruz...

### **III. OFIZIOZKO JARDUERAK GERTAKARI EDO EGOERA BEREZIKI LARRIEN AURREAN**

Baina aurten oso aipagarriak dira, halaber, polizien jarduerekin eta adingabeen jazarpen, eraso, tratu txar edo gehiegikeriekin zerikusia duten kexak edo esku hartzeak. Kasurik larrienen edo delitu kasuetan, lehenago salatzen direlako, edo agintari judizialek ikertzen dituztelako. Hain larriak ez direnetan, zentroetan bertan ebazten direlako, hezkuntza neurriak aplikatuz.

Azkeneko bi urteetan, ordea, kexak tarteko zein ofizioz, Arartekoak balizko tratu txarren zenbait kasu larritan, heriotzarik ere gertatzeraino, esku hartu du. Hurrengo atalean horietako bat edo beste aipatuko dugu.

2004an Arartekoak esku hartu zuen bereziki larriak izan ziren eta hiru adingabe bortizki hiltzea eragin zuten gertakarietan: J.C. mutil gaztearena, Hondarribian bere buruaz beste egitea berdinen arteko jazarpen edo tratu txarrekin lotu baitzen; A.M.D.S eta S.F. neska gazteak, mutil gazte batek, Santurtziko udal mugartean, gaua ematen ari ziren txabolari su eman zionean hil zirenak.

Gertakariak argitzeko ikerketa judizialak alboratuta, bi kasuetan erakundeak edo administrazioaren zerbitzuak inplikaturik zeuden, eta horiengana jo genuen guk: ikastegiarengana eta hezkuntzako agintariarengana, lehenengo kasuan; harrera zentroarengana, babes agintariarengana eta poliziarengana bigarrenetan. Iazko txosteneko I. kapituluaren kasu bakoitzean ordura arte egindakoa laburtu genuen (ikus 2004ko txostena, I. kap., 1.1.5. atala).

Beste gai batzuetara aldatuta, eta ondorioen larritasuna inola ere konparatzerik ez dagoen arren, Arartekoak zentro batean barruratzeko neurri judizialaren pean zegoen gazte baten tratu txarren ustezko kasu bat argitzen lagundu zuen (ikus 2004ko txostena, I. kap. 1.1.6. atala).

Aipatutako kasuek agerian utzi zituzten, edo gehiago argitu zituzten erdi ezkutuko errealitateak, gutxi ezagutzen zirenak, edo erakundeen erantzunean muga handiak zituztenak:

- berdinen arteko jazarpen edo biktimizazio egoerak;
- babes sistemak nerabe jakin batzuek ondo artatzeko dituen mugak;
- barruratzeko zentroek jokabide jakin batzuei bermez aurre egitean dituzten mugak...

Gertakariak eta azpiko arazoak ere larriak zirenez, Arartekoak adi jarraitu die, eta horiei buruzko jarduketak ere burutu ditu. Horrela:

- Jazarpen edo borroka egoerei dagokienez, lehen esan dugun moduan, bigarren hezkuntzako ikastegi lagin adierazgarri batean ikerketa bat bideratzen ari da (ikus IV. kap. ezohiko txostenak).  
Bestalde, Hondarribian J.C.ri tratu txarrak emateagatik epaileek zigortutako adingabeen egoera zehatzari dagokionez, Arartekoa adi egon da, beti, idatzien bidez, eta bilerak eginez adingabe horien gurasoekin, hezkuntza sistemako eta ikastegietako arduradunekin, gazteen justizia zerbitzuaren eta barruratzeko zentroko arduradunekin, instantzia judizialekin... Gainera, Arartekoak Ibaiondo ikastegira aldioro egiten dituen bisitetan, hor ari baitira barruratzeko neurriak betetzen, haien egoera zehatzen jarraipena egin du.
- Babes sistemak jokabide jakin batzuei, bereziki arazo larriak dituzten nerabeei, behar bezala erantzuteko dituen zailtasunei dagokienez, gure erakundeak interesez edo kezka aditu die ekimen eta erreakzio zehatz batzuei, bai alternatibean eztabaida teorikoari dagokionez (adibidez, Bilbon azaroan nerabe lege-hausleen gainean egin zen kongresuan), bai balizko aplikazioei dagokienez (Erandion jokabide arazo larriak dituzten nerabeengan espezializatutako zentroa sortzeko ahalegina).
- Eta barruratzeko zentroek jokabide jakin batzuei mota guztietako bermeekin aurre egiteko dituzten mugei edo zailtasunei dagokienez, bereziki indarra erabili behar denean, edo taldetik bereiztea dakarten zehapenak ezarri behar direnean, zer urrats egin diren lehenago ere aipatu dugu kapitulu honetan, (adingabe lege-hausleen atalean).

Sarritan, arazo hauek gizartean oihartzun handia izan dute, eta hedabideetan hizpide izan dituzte. Horrek, ez bairik gabe, gizarteak arazo jakin batzuek kontzientzia har dezan ekar lezake, baina aldi berean alarma edo iritzi egoera bat ere pizten lagun lezake, arazoaren konponbidearentzat lagungarri barik oztopo bihurtu litekeena. Azkeneko urtean herriren bateko biztanleek arazoak dituzten nerabeentzako baliabide berriak sortzearen kontra zelan erantzun duten duzue esaten ari garenaren adibide kezka garria. Horren harira, Arartekoak gogorarazi eta azpimarratu nahi ditu bere garaian “*Erakundeen buruzagitzak, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean*” gomendio orokorrean mahairatu zituen proposamen eta gaiak, halako egoeren aurrean zeharo aplikagarriak eta baliagarriak direla uste baitu (ikus 2001eko txostena, 461. orr. eta hurrengoak).

#### IV. **LANKIDETZA GIZARTE ERAGILEEKIN ETA GIZARTEA SENTIBERATzea**

Lehenago elkarteen munduarekiko harremani buruzko atalean esan den moduan, Arartekoak, bere jardun ildoan artean, orain eskuartearen dugun gaian, haurren edo nerabeen alorrean lanean ari diren gizarte eragile desberdinekin elkarlanean aritzeko

aukera garbiari eusten dio, bai haien eskubideen berri zabaltzeari, bai defenditzeari, bai sarritan egoera bereziki arazotsuetan dauden adingabeen sektoreengana xedatutako baliabide jakin batzuk kudeatzeari.

Lankidetzaren harreman hori aurten jarduera desberdinen bitartez burutu da, besteak beste, esanguratsuenak direlako, arrisku egoeretan dauden edo berriazko premiak dituzten adingabeen arretan lanean ari diren elkarte edo erakunde desberdinekin izandako harremanen bitartez. Kalé dor Kayikó, Gao Lacho Drom, Kidetza, Landalan, Berriztu, Gaztaroan Ekin, Salesianos, Terciarios capuchinos, Terciarias capuchinas, Enseñantes con gitanos, AGIPASE, Gurutze Gorria, Hezilan... halako elkarte eta erakundeekin. Baita haurren eskubideen defentsan aritzen diren erakundeekin, hala nola, Unicef, Haurrentzako Erakundearen Plataforma edo Save the Children-ekin. Eta plano zabalagoan, edo hezkuntzari lotuta, ikastegiekin, ikastegi desberdinetako gurasoen elkarteekin, edo sektore edo etapa jakin batzuetako hezitzaile taldeekin. Zenbait kasutan, ikastegietara bertara joanez, beste batzuetan, Ararteko erakundera etorri diren eskola taldeei kasu eginez.

Elkarte eta erakundeekiko lankidetzaren honen esparruan, Arartekoak edo bere erakundeko langileek elkarte horiek adingabeen arazoei buruz gure Erkidegoan zein hemendik kanpo antolatutako foro edo topaketetan ere parte hartu duela azpimarratu nahi dugu.

## V. HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEN KULTURAREN HEDAPENA

Jarduera ildo honetan Arartekoak haurren berriazko eskubideak zabaltzera, hezkuntzako eragileei giza eskubideen gaineko material didaktikoak eskueran jartzera, erakundea adingabeei ezagutaraztera, adingabeen eskubideei ukitzen dieten arazo jakin batzuk eztabaidatzera eta halakoetara begira burutu dituen ekimen desberdinak sartuko genituzke.

Horrela, 2005ean, besteak beste, ondoko ekimen hauek aipatuko ditugu:

- EAEko ikastegietan kartelak eta egutegiak banatu dira, haurren eskubideen Konbentzioaren berri eta ezberdinaren errespetua hedatzeko.
- Arartekoak adingabeen gaietarako duen web orrialdeko atalera elementu berriak sartu dira.
- Gasteizko ikastegietako taldeei kasu egin eta Ararteko erakundea aurkeztu zaie, Udalarekin elkarlanean egindako egitarauaren barruan, bere egoitza ikustera etorri direnean.
- Erakundea eskolako taldeei edo etorkizunean hezitzaile izango diren taldeei aurkezteko bertara gaitzen eskatu diguten ikastegi batzuetan zuzenean parte hartzea, normalean giza eskubideen lan sistematiko baten esparruan.
- Haurren eskubideekin zerikusia duten eskola lanen II Deialdia, eta Arartekoak, haurren eskubideen nazioarteko eguna den azaroaren 20aren bezperan banatutako sariak ...

Giza eskubideen alorrean sistematikoki lan egiteko lau beka deialdi bereziren ondorioz dauzkagun material didaktikoei dagokienez, azkeneko ikasturteetan ikastegi

guztietara Bigarren Hezkuntzarako materialen karpeta bat, Lehen Hezkuntzako ikastegietara haurren eskubideen gaineko beste bat, Bigarren Hezkuntzako eta beste hezkuntza zerbitzu batzuetako ikastegietara giza eskubideak jolastuz jorratzeko karta sorta, gida eta beste baliabide batzuk bidali dira, eta azkenik, emakumearen eskubideen gaineko CD interaktibo bat ere banatu zaie (ikus. 2004ko txosteneko I. kap., 2.3. atala).

Jarduera hauek, beti esan dugun bezala, askoz ere ikuspegi zabalago batean sartu behar dira: Ararteko erakundeak adingabeak giza eskubideen errespetuan eta tolerantziaren eta errespetuaren balioetan oinarritutako kultura batean gizartera daitezten dituen kezka eta konpromisoa. Beharrezkoa baita edozein gizarte demokratikotan, eta are gehiago gurean, urte askotan indarkeria eta hilketak sistematikoki erabiltzearekin bizi izan baita. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, pertsonen bizitzaren balio gorena defendatu nahi izan du, eta proposamenak mahairatu ditu bizikidetzaren balioak hezkuntza sisteman sistematikoki jorra daitezten. Eskoletan ikasleekin giza baliabideei buruz erabiltzeko materialak prestatu eta zabaltzea horren lagungarri egiten da.

Gai hauei dagokienez, Arartekoak bi ekimen hartu ditu, 2007an urte osoko lana eskatuko diguna eta, amaitutakoan, dokumentu desberdinetan jasoko duguna:

- Ezohiko txostena, adingabeei transmititzen dizkiegun baloreen gainean.
- Berariazko material didaktikoak, berdintasunean heztearen eta sexu orientazio modu desberdinen errespetuaren gainean.

## **BETEKIZUN DAUDEN ARAUGINTZAKO GOMENDIOAK**

Azkeneko urteotan, gure erakundeak araugintzari buruzko hainbat gomendio egin ditu adingabeen egoerari buruz. Zenbaitek zerikusi zuzena daukate hemen laburbildutako sektore, arazo edo egoerekin. Honakoez ari gara, bereziki:

- Haurren eta nerabeen arretari buruzko lege baten beharraz, irizpide erkideak eta hiru lurraldeetan eskagarriak liratekeen oinarritzko baldintzak ezartzeko, non babes sistemak eta barruratze zentroak sartuko liratekeen.
- Hezkuntza premia bereziei buruzko ezohiko txostenean egin ziren gomendio orokorretako batzuez, arauak aldaraztea eskatzen baitute.
- Zeretik hiru urtera arteko haur hezkuntzaren arreta ondo garatzearen komenigarritasunaz.
- Ikastegietako ikasleen eskubideen eta betebeharren araudia berrikusi beharraz...

Batzuk, esaterako, hezkuntza premia berezien gaineko txostenean proposatutako arau aldaketak, eta ikasleen eskubide eta betebeharren araudia berrikustea, oraindik eginkizun daude.

Azkeneko horiei dagokienez, txosten honetan behin eta berriro esan dugu berri samarrak diren bi arau, oso maila desberdinetakoak izanagatik ere gure erakundearen jarraipenaren pean dauden sektore edo zerbitzuetan oso aplikagarriak direnak aplikatu edota garatu behar direla:

- 2005eko martxoan indarrean jarri zen 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Arautegia.
- Haurrak eta Nerabeak Artatu eta Babesteko Legea, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailan onetsia, eta araudizko garapen handia eskatzen duena.
- Arau hauen aplikazioak eta garapenak baliabide egokiak eskatzen ditu, baita Haurrak eta Nerabeak Artatu eta Babesteko Legeak berak aurreikusten duen aurrekontuzko lehen tasunaren printzipioa bete dadin ere.

## **AZKENEKO URTEKO EGOERARIK ARAZOTSUENAK**

Adingabeen arazoei buruzko atal luze honi amaiera nolabait emateko, Arartekoaren erakundetik bideratutako lanaren arabera, arazo edo egoerarik zailenak zeintzuk izan diren laburbildu eta azpimarratuko ditugu.

Aurtengo jarduketak (bisitak, kexak, kontsultak, interbentzioak...) aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, bi gai "izarrak" edo egoerarik kezkarrienak ondoko hauek izan dira, inolako ezberdikerik gabe:

- Eskola jazarpeneko egoerak.
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren problematika.

Biak luze jorratu ditugu txostenean eta, beraz, ez ditugu gure gogoeta edo iritziak berriro hemen jasoko.

Bi gaiok hirugarren bat ere gehi geniezaieke, sarritan planteatzen digutelako, edozein haur sektore lantzen ari garela ere:

- Haur eta gazteen buruko gaixotasunen arreta, sistema sanitarioak ez duela behar besteko erantzunik ematen hondatze metal, droga mendetasun, edo bereziki nerabeen jokabide arazo larriko kasuetarako.

Gai horri ere heldu diogu hemen, partzialki hurbilduz, bakarrik dauden adingabe atzerritarren arretarako erakundeen arteko lankidetzaz jardun dugunean, adibidez, lege urratzaileen problematikaz aritu garenean, La Ola eguneko hezkuntza-terapia zentroaren jarraitasuna planteatu denean, edo beste lurralde batzuetarako antzeko zentroen beharra planteatu denean... Eta legebiltzarreko ekimenen gai ere izan da.

Garrantzi handiko hiru gai dira, adingabe, familia eta profesional askori eragiten dietenak. Hemen gogoratu, azpimarratu eta konponbideak gizarte osoaren eta bere erakundeen konpromisoa, zehazkiago, zuzenean ukitzen dien osasun, hezkuntza eta babes sistemen konpromisoa eskatzen duela jasotzera mugatuko gara.

Gai hauek datorren urtean ere ziurrenik lehen tasunaz jorratu beharko ditugu.

#### 4. BERARIAZKO ARRETA EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEI

Aurreko urteetan bezala, atal honetan, ezgaitasunen bat duten pertsonen esku-bideak babesteko 2006an aurkeztu zaizkigun kontu guztiak aztertzen saiatuko gara, erakunde honen jarduketa-eremu desberdinak ere zeharka aintzat hartuta.

Ararteko erakundeak, pertsona guztien eskubideak babesteko funtsezko bere eginkizuna betez, arreta berezia jarri izan du beti, berdintasunaren ikuspegitik, beren eskubideez baliatzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonen defentsan, besteak beste, ezgaitasunen bat duten pertsonen defentsan.

2005eko txostenean, Laguntza Txakurren Espainiako Elkarteak (aurrerantzean, AEPA) adierazi zigun kontu baten berri eman genuen, gomendio orokor batean bilduta, “*Gure Autonomia Erkidegoan txakur gidarien edo laguntza-txakurren kontzeptua berreskuratu beharra*” izenburupean, Eusko Legebiltzarrak txakur gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legea alda zezan. Izan ere, lege horrek laguntza-txakur batekin ibili beharra daukaten ahalmen urritu guztiei erabilera publikoko edozein toki, establezimendu eta garraiotan, hala titulartasun publiko nola pribatukoetan, txakurra-ekin sartzeko, ibiltzeko edo egoteko eskubidea aitortu eta bermatu behar zaiela. Txakur gidarien edo laguntza-txakurren kontzeptua berreskuratu genuen eta beste ezgaitasun batzuk dituzten pertsonak ere erabil zitzaketela proposatu genuen.

Bada, kontu horri buruz, esan dezakegu, Eusko Legebiltzarrak, 2006ko abenduren 29an egindako osoko bilkuran, txakur gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legea aldatzeko lege proposamena kontuan hartzea erabaki zuela, ezgaitasunen bat dela medio laguntza-txakur batekin ibili behar duen pertsona orori titulartasun publiko nahiz pribatuko edozein leku, establezimendu edo garraiotan sartu, ibili eta egoteko eskubidea aitortu eta bermatzeko (2007ko urtarrilaren 19ko Eusko Jaurlaritzaren Aldizkari Ofiziala, 86. zk.).

Ondoren, gure ustez ekitaldi honetan interesgarriak izan diren kontuak aztertzen saiatuko gara; horiek banakako kexen bidez nahiz ofizioz hasitako en bidez erakunde honetan bideratu diren jarduerari buruzkoak dira.

Lehenik eta behin, **funtzio publikoaren** arloari dagokionez, esan behar dugu 2005ean ere aipatu genuela hainbat kexa jaso genituela mugitzeko urritasuna duten irakasleen aldetik, mugikortasuna errazteko neurri positiboak hartu behar zirela ohar-taraziz, hain zuzen ere, destinoko beren ikastetxeetan irisgarritasunik ez zegoelako.

Ekitaldi honetan, kexa hauen ondorioz garatutako jarduerak martxoaren 2ko 6/2006 Ebazpena eragin du; horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu zaio ezgaitasunen bat duten pertsonen erabateko integrazioa berma dezala EAEko funtzio publikoan, hiru jardun ildo hauen bitartez:

- 1 Ikastetxeen irisgarritasun unibertsaleko baldintzak sustatuta.
- 2 EAEko hezkuntza-administrazioaren zerbitzura dauden irakasleen sarbidean eta eredu-zko baldintzetan benetako aukera-berdintasuna lortzera bideratutako ekintza positiboak aplikatuta.
- 3 Ekintza positibo horien eraginkortasuna bermatuta; bereziki, ezgaitasunagatik emandako zerbitzu eginkizunak irakasleen erabateko lan integrazioa ahalbidetzen

duten destino irisgarrietan ematen direla bermatzen duten neurri osagarriak abian jarrita.

Zergen arloan, aipatu behar dugu **Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergak** (TMIZ) hainbat kexa eragin dituela 2006an, zergen ezgaitasunagatiko salbuespena aplikatzearen ondorioz, aurreko urteetako ildo beretik. Aurreko txostenetan ere adierazi genuen moduan, salbuespen horren aplikazio eremua zabaltzeko hartutako erabakiak, legezko ondorioak 2004tik aurrera izan zituenak, ez zuen harrera ona izan tokiko erakundeen artean eta, hala, zenbait udalerrik hori gauza ez zedin ahaleginak egin dituzte oinarrizko legerian aurreikusitako aplikazio eskakizunak zurrunago eginda. Horretarako, beren ordenantzetan zenbait eskakizun barneratu dituzte, erakunde bakoitzak egoki iritzi dituenak.

Problematika honi dagokionez orain arte izapidetu ditugun kexa-espediteteetan jasota utzi dugun bezala, gure ustez, jarduera horien bidez toki erakundeek indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratzen dute, maila konstituzionaleko printzipioak hausten baitituzte (lege erreserba, ezgaitasunen bat duten pertsonen babesa, arauzko jardueraren mugak).

Gainera, uste dugu salbuespen horren inguruan udalak garatutako jarduera mugatzailea, adierazi dugun bezala, administrazio batek ezgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzeko helburu teorikoari dagokionez duen benetako konpromiso maila praktikoki neurtu ahal izateko baliagarria izan daitekeela, zeharka bada ere.

Erakunde honek uste du salbuespen horren egungo baldintzekin bat ez datozen udalek orain arte garatu dituztenekin zerikusirik ez duten beste jarduera batzuk garatzea pentsatu beharko luketela. Gure iritziz, era guztietako aldaketak eta/edo hobekuntzak egin daitezke salbuespen hau aplikatzeko eskakizunetan, baina bide posible bakarra zerga erregulatzen duen Foru Arauaren egungo artikulua aldatzearena da. Horren ildotik, TMIZri dagokion ezgaitasunagatiko salbuespena araututa dagoen moduarekin bat ez datozen udalei premia eskatzen diegu kontu hori foru organo eskudunei aurkez diezaiotela eta arauetan egoki irizten dituzten aldaketak proposa ditzatela salbuespen hori modu baketsuan eta legalki aplikatu dadin lortzeko.

**Garraioaren** arloan, tamalez oraindik ere adierazi behar dugu gure garraio publikoek ezgaitasunen bat duten pertsonen beren kabuz moldatu ahal izateko oztopoak ezabatu gabe jarraitzen dutela.

Egia da **hiri garraioan** duela urte asko hasi zirela neurriak hartzen eta, hala, pixkanaka, behe plataformadun autobus egokituak jarri direla linea guztietan; horrela, flota horietan egokitzapen maila handiak lortu ahal izan dira. Hala ere, oraindik ez da lortu horiek erabat egokitzea.

Errealitate horrek batzuetan eragozpen eta haserrealdi nabarmenak eragiten dizkie ezgaitasunen bat duten eta hiri garraio publikoa erabiltzen duten pertsonen, geltokira iritsi eta une horretan zerbitzuan den ibilgailuak plataforma ezkutagarririk ez duela ohartzen baitira; hori dela-eta, ezin dute autobusera igo eta geltokian geratu behar dute hurrengo unitate egokitua heldu arte. Ezusteko horiek saiheste aldera, administrazioek ibilgailu egokituen ordutegiaren berri eman ohi dute. Hala ere, ohartu gara ibilgailuak ekipamendu egokia izateak ez duela berez bermatzen ezgaitasunen bat duen pertsona horretara igo daitekeenik; izan ere, nahi baino gehiagotan, gidariek ez dakite nola aktibatzen diren plataformak edo, besterik gabe, oso uzkur dira horiek erabiltzeko, ezarritako geldialdi



denborak asko luzatzen baitira eta denbora horiek oso ondo neurtuta baitaude ibilbideetan. Beste batzuetan, aldiz, arazoaren jatorria oso bestelakoa da; alegia, egokituta dagoen autobusa ez da behar beste hurbiltzen espalora eta mugikortasun urriko pertsona, espaloian geratu ordez, errepidean geratzen da autobusetik jaitsita eta, ondorioz, beste irisgarritasun arazo bat sortzen da; hots, zintarria gainditzea. Beste batzuetan, plataformak huts egiten du, hondatuta dagoelako.

Administrazioek, zerbitzu horien titular diren heinean, diote autobusen eguneroko mantentze lanak egiten direnean igotzeko arrapalak ere berrikusten direla; izan ere, elementu horiek, autobusaren egituraren azpiko aldean daudenez, kolpeak jasotzeko, erortzeko... joera handiagoa dute eta, horregatik, askoz ere errazago hondatu ohi dira. Azalpen horiek ikusita, mugikortasun urriko pertsonak duda egiten dute ea benetan hori den arazoaren jatorria eta, hala izanez gero, zergatik ez den hain zaurgarria ez den beste kokapen bat bilatu plataformak jartzeko.

Gurpil aulkian mugitzen diren pertsonak aurkeztutako beste arazo bat **hiriko autobusen erreserbaren** konfigurazioa bera da. Garraioaren irisgarritasunari buruzko dekretuak aipatzen duenarekin bat etorritik, garraibide publiko kolektiboek bi leku izango dituzte gurpil aulkian doazen erabiltzaileentzat. Hiriko autobusetan eremu hori ezgaitasunen bat duten pertsonentzat eta haur kotxeekin doazen pertsonentzat da. Hiriko autobusetako lineen arabera, erreserba hori ez da nahikoa, auzo horietan gazteak eta mugitzeko arazo larriak dituzten pertsonak baitaude. Linea horiei dagozkien autobusen maiztasuna handitzen denean, batzuetan arazoa konpontzea lortzen da. Baina, zerbitzuko arduradunek autobus artikulatuak jartzea erabakitzen dutenean zona horretan garraio publikoko eskaera handiagoari erantzuteko, arazoa, konpondu ordez, larriagotu egiten da, autobus horien ahalmena handiagoa bada ere, gurpil aulkian doazen pertsonentzako leku erreserbak bikoa izaten jarraitzen baitu.

Hiriko autobus egokituen eskaintzak ez dienean ezgaitasunen bat duten pertsonak mugitzeko dituzten beharrei erantzuten, zerbitzu publikoan erabil dezaketen aukera bakarra **taxia** da. Hala ere, zerbitzu horrek ere ez du ahalbidetzen mugikortasun arazo larriak dituzten pertsonak mugitzeko dituzten beharrei erantzun egokia ematea.

Aurten zenbait erreklamazio jaso ditugu eta horien bidez adierazi zaigu udal zerbitzu horrek arazoak dituela ezgaitasunen bat duten pertsonentzat. Txosten hau prest dugula, espediente horiek izapidetzeko prozesua oraindik amaitu ez den arren, honako ondorio hauek aurrera ditzakegu:

Lehenik eta behin, esan behar da gure hirietan dauden taxi egokituen eskaintza ez dela nahikoa; hori beti ez da izaten uztailearen 10eko 126/2001 Dekretuak, garraioaren irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzekoak, ezartzen duen ibilgailu egokituen gutxienerako kupo formalki betetzen ez delako, baizik eta oso udal gutxik berma dezaketelako ibilgailu egokitu horiek egunean 24 ordutan erabilgarri egotea. Berme hori betetzearen inguruan dihardu, baita ere, irisgarritasunaren arloko legeriak.

Bestalde, lizentzia horien bidez asebate behar diren garraio egokituko beharrak oso desberdinak dira eta kontuan izan behar da eurotaxi horiek, gaur egun, hezkuntza-premia bereziak eta mugikortasun arazoak dituzten haurren eskola-garraiorako erabiltzen direla astegunetan. Zerbitzu horiek, bereziki hiriburuetan, finkoak dira eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin itunduta daude. Hala ere, horrek mugatu egiten du mugikortasun arazoak dituzten pertsonen hiri garraiorako benetan erabilgarri dauden ibilgailu egokituen kopurua. Era berean, taxi egokituen kopuru horretan

eragina dute baita ere ospitalera joateko, etab. profesionalekin zuzenean adosten diren joan-etorrietarako zerbitzuek. Taxi gidariek, beste edozein profesionalek bezala, behin beren lanaldia amaituta, atsedean hartu behar dute; hori dela-eta, gauzez oso zaila izaten da lanean dabilen taxi egokitu bat aurkitzea, zerbitzu hori ez bada alde zurretik taxi gidariarekin zuzenean kontratatu.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen ezin dutenean inora joan, zentzuzko denboratarte batean ibilgailu egokiturik aurkitzen ez dutelako, esleitutako kupoa berriro aztertu behar izan gabe, onartu behar dugu, nahigabe ere, gizartean, lanean, aisian... integratzeko aukerak mugatzen ari gaitzaizkiela, eta, ondorioz, baita herritar gisa dagozkien eskubideak ere.

Bigarrenik, adierazi behar dugu irisgarritasun unibertsala dela berdintasun printzipioarekin bateragarriena dena. Irisgarritasun mota honek beharrezko egiten du administrazio publikoek esku hartzea, neurriak ezar ditzaten; neurri horiek, baliozkoak izan daitezten, unibertsalak izan behar dute, hau da, irtenbideek, irtenbide izateko, ezgaitasunen bat duten pertsonen premiak nahiz mugikortasun arazorik ez duten pertsonenak asebeste behar dituzte. Bestela esanda, mugikortasun urria duten pertsonen taldeei zuzendutako irtenbide espezifikoek, ezinduentzako eremuak mantentzea bultzatzen duten heinean, arazoa iraunarazten dute eta, ondorioz, behar-beharrezkotzat jotzen diren eremuetara baino ez dira mugatu behar.

Pertsonen egoera fisikoa edozein dela ere, guztien garraio beharrei erantzutea ahalbidetzen duen taxi bakarra eurotaxia da. Horregatik, gure ustez, egokia litzateke proposatzea gure udalerrietan taxi lizentziei dagokienez etorkizunean egiten diren luzapenak ibilgailu egokitu atxikitako lizentziak oinarri hartuta egin daitezten.

Azkenik, gure iritziz, Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen arabera, administrazio publikoek garraioa egokitzeko prozesua bideratu eta zehaztu behar dute. Prozesu hori agintzeko administrazioek dituzten oinarriko tresnak lau urtean behingo programak dira. Programa horien bidez, administrazio horiek egoeraren diagnostikoa egin behar dute, lehenetsunak ordena ezarri eraginkortasun maila handiagoa eta jende kopuru handiagoa kontuan hartuta...; hau da, programa ekonomiko finantzarioa eta hori betetzeko egutegia onartu behar dituzte.

Irisgarritasuna Sustatzeko Legeak egokitzapen prozesuaren giltzarri bihurtzen ditu tresna horiek, prozesu honek izango duen erritmoa markatzen laguntzen duten heinean. Hori dela-eta, Ararteko erakundeak beti eskatu izan du halako programak eta dagozkien aurreikuspenak onartu edo ez onartu izanaren berri emateko. Onartu behar da administrazioek epe laburrean sustatuko diren jardueren berri eman ohi digutela. Hala ere, gehienetan ez dute erantzunik ematen programarik ba ote dagoen galdetzen zaienean eta ez dute horren kopia ekartzen ere; hortaz, ondoriozta dezakegu oso berraztertuta onetz ari direla lanean garraio publikoa berdintasunezko baldintzetan erabiliko dela ahalbidetzeko, alde zurretik arazoa ikuspegi orokorretik aztertu gabe.

Hori guztia gorabehera, arlo honetan irisgarritasunaren arazo garrantzitsuena **hiri arteko garraioan** dago, bereziki, errepidez egiten denean. Hala ere, ezin esan dezakegu ezta ere **trenbide garraioa** irisgarria denik, inbertsio handiak egin diren arren ezgaitasunen bat duten pertsonen trena erabiltzeko erraztasun handiagoak izan ditzaten. Tren geltokietan (EuskoTren) hainbat oztopo dagoela ikus daiteke. Adibidez, txartelak saltzen dituzten makinak ez dira irisgarriak, geltoki barruko barne mugikortasuna ez dago guztiz bermatuta, zenbait geltokitako barne sarbidean hainbat oztopo

dago eta ezgaitasun fisikoa duen pertsonak ezin du bere kabuz moldatu; nasetatik bagoietara sartzera, batzuetan, arriskuan jartzen da mugitzeko gurpil aulkia behar duten pertsonen segurtasuna...

Hala ere, aipatu bezala, gaur egun, garraio publikoa egokituta ez egotearen arazoa batez ere administrazio emakidaren pean dagoen errepidez egindako hiri arteko garraioan antzematen da, bereziki, Autonomia Erkidegoaren lurralde eremua hartzen duten linea luzei dagokienez. Linea hauek hiru lurralde historikoetako hiriburuak lotzen dituzte. Horietan, kasurik onenean, ezgaitasunen bat duten pertsonak bidaiari egingo dutela aldeztuz jakinarazten badute edo ordu jakin batzuetan autobus egokituak baldin badaude erabili ahal izango dute zerbitzua. Hala ere, bistakoa da eskaintza mugatu hau ez dela irtenbidea.

Ez da halako egoerarik antzematen lurralde historikoetako bakoitzaren mugak gainditzen ez dituen hiri arteko garraioan, linea horiek hainbat urte baitaramatzate euren flota berritzen eta ibilgailu egokiak sartzen joan baitira pixkanaka. Kasu batzuetan, Arabako Lurralde Historikoan gertatu den bezala, prozesu hori jada amaitu da.

**Gizarte ekintzaren** arloari dagokionez, ekitaldi honetan komenigarria da balorazioa egitea **Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Horiei Zuzendutako Arreta Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Lege** berriaren edukia buruz (2006ko abenduaren 15eko EAO). Lege hori 2007ko urtarrilaren 2an sartu zen indarrean eta bertan jasotako arauak gizarte zerbitzuetan dute eragina eta autonomi erkidego guztietarako gutxienezko edukia ezartzen dute.

Azpitarratu behar da, orain arte, gizarte zerbitzuek garapen autonomikoa eta lokala izan dutela. Lege honek eguneroko funtsezko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrei arreta ematea sustatzen du. Pertsona horien artean, honako hauek daude: zahartzearen ondorioz bizitzako azken faseetan arreta behar duten adinekoak; eta gaixotasun kroniko, sortzetiko asaldura edo errepidean zein lanean izandako istripu baten ondorioz ezinduta geratu diren pertsonak.

Arreta-eskaeraren gehikuntza “zahartzearen zahartzeak”, oro har biziraupen tasa handiagoek, famili eredu berrien ondorioz gertatutako gizarte aldaketek eta emakumea lan merkatuan sartzeak eragin dute.

Legeko zioen azalpenean jasotzen denaren arabera, arau honen helburua mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta horiei zuzendutako arreta sustatzeko oinarrizko baldintzak ezartzea da; horretarako, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomiarako eta Horiei Zuzendutako Arretarako babes sistema berria sortu behar da, administrazio publiko guztien laguntza eta partaidetzarekin. Legeak unibertsaltasun, ekitate eta irisgarritasun printzipioetan oinarrituta dagoen eskubide subjektiboa taxutzen du eta, horretarako, herritarrari arreta osoa emateko ereduak garatzen du; herritarrak sisteman parte hartzea onuragarritzat jotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoa oso kritikoa izan da arau horrekin, eskumen autonomikoei eraso egiten ziela pentsatu baitzuen. Kontuan izan behar da, orain arte, gizarte zerbitzuak administrazio autonomikoei bakarrik garatu dituztela; hau da, gure jardute eremuan, foru aldundiek. Era berean, Estatuko arauak prestazioez dihardu eta babeserako gutxienezko batzuk ezartzen ditu, gure autonomi erkidegoan jada gaindituta daudenak. Horren ildotik, ezartzen dituen prestazioetako asko (telelaguntzako zerbitzuak, etxeko etxeko laguntza, egoitza-zerbitzuak, eguneko zentroak, laguntza teknikoak edo eguneroko bizitzan beren kabuz moldatzeko beharrezko tresnak...) dagoeneko garatu dituzte

hemengo udal eta aldundiek, gizarte zerbitzuen legea garatzeko 155/2001 Dekretuak ezarri zuen eginkizun banaketarekin bat etorritz.

Hala ere, aurrekoaren kaltetan izan gabe, uste dugu beharrezkoa dela lege horren ezaugarrietako batzuk azpimarratzea. Horrela, horien artean esan dezakegu, arauaren arabera, arretaren erantzukizun publikoa zuzeneko edo zeharkako kudeaketaren bidez garatu behar dela. Era berean, honakoak ere jasotzen ditu: unibertsaltasuna, mendekotasun egoeran dauden pertsona guztiek izan behar baitute prestazioak eskuratzeko aukera; arreta jasotzen duten familien eginkizuna mendekotasun egoeran dauden pertsonak eurekin bizi daitezen; eta administrazioen arteko nahitaezko lankidetzaren mendeko pertsona guztiek beren beharretara ongien egokitzen diren gizarte eta osasun prestazioez gozatzeko aukera izan dezaten.

Horren ildotik, autonomi erkidegoak arduratuko dira mendekotasun maila ebaluatuko duten organoak izendatzeaz, edozein prestazio eskuratzeko alde aurretik egin beharreko urrats gisa. Horiek horrela, Arabako Biltzar Nagusiek, azaroaren 20ko 12/2006 Foru Arauaren bidez, kasuan kasuko foru organoari plantilla handitzeko baimena eman diote; era horretan, profesional osagarri horiez baliatuta, hobeto egin ahal izango die aurre zeregin horiei. Autonomi erkidegoek adieraziko dute baita ere zein prestaziotarako eskubidea duten eta, horretarako, banakako arreta-programa ezarriko dute.

Legeak gutxieneko babes maila ezartzen du, Estatuko Administrazio Orokorrek Estatuko lur eremuko edozein lekutan bizi diren herritar guztientzat eskubideen gutxieneko eduki komuna berma dezan.

Bestalde aurreikusten du Estatuko Administrazio Orokorrek eta autonomi erkidegoek lankidetzaren eta finantzaketa-erregimena ezarriko dutela beste prestazio eta zerbitzu batzuk garatzeko, eta autonomi erkidegoek beste babes mailaren bat ere eskaini ahal izango dutela, hori egoki iritziz gero.

Autonomi erkidegoekin koordinatzeko, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomiarako eta Horiei Zuzendutako Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseilua sortzea erabaki da. Kontseilu horretan honakoak aztertuko dira: prestazio ekonomikoen baldintzei eta zenbatekoari buruzko kontuak; onuradunek zerbitzuen kostuan izango duten parte-hartzea zehazteko irizpideak; eta mendekotasun egoera aitortzeko baremoa.

Hasiera batean, Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoari 2,6 milioi euroko diru-laguntza ematea erabaki du, abenduaren 29ko 1633/2006 Errege Dekretuaren bidez. Ordainketa bi administrazioen artean kasuan kasuko lankidetzaren hitzarmena sinatu ondoren egingo da, legean aurreikusitakoari jarraiki.

Bestalde aipatzen da onuradunek pixkanaka lagunduko dutela zerbitzuak ordaintzen, dituzten errentaren eta ondarearen arabera eta eskaintako zerbitzu mota eta horren kostua kontuan hartuta.

Partaidetza-sistema ezarriko da, mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta hauen senideen ordezkari gisa diharduten erakundeek eta onuradunek esku har dezaten, hurrenez hurren, kontsulta-organoen eta kontseiluen bidez.

Aurreikusitako zerbitzuen prestazioa honela egingo da:

- Zentro eta programen bidez, nola publikoak hala itunduak izan (besteak beste, telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko eta gaueko zentroak, egoitzetako arretarako zerbitzua...).
- Zerbitzua kontratatzeari lotutako prestazio ekonomikoen bidez (zerbitzuen eskaintza publikorik ez dagoenean).

- Zaintza famili ingurunean eskaintzeagatiko diru konpentsazioaren bidez edo laguntza pertsonalizatuko prestazioaren bidez (etxebizitzan bizikidetzako egoera eta bizigarritasun baldintzak egokiak direnean).

Prestazioen katalogoari dagokionez, aurten hainbat kontsulta jaso ditugu foru aldundiek ordura arte ardurapean hartu ez zituzten zenbait laguntzaren inguruan, besteak beste, zaintza famili ingurunean eskaintzeagatiko diru konpentsazioa edo ezinduei zuzendutako laguntza pertsonalizatuko prestazioa. Horregatik, azken kasu honetan administrazio eskudunari zuzendu gataizkio (Arabako Foru Aldundiari), araudi hau aplikatzeko aurreikuspenen berri eman diezagun.

Lege hau pixkanaka aplikatu behar da, mendekotasunagatiko prestazioak jasotzeko eskubidea datozen urteetan joan dadin eraginkor bihurtzen, mendekotasun mailaren arabera. Horrela, 2007an III. mailako mendekotasuna (hots, mendekotasun handia) aitoritzen zaienei aplikatuko zaie.

Era berean, prestazioen katalogoa (eguneko zentroak, etxez etxeko arreta-zerbitzuak, telelaguntza...) 2007 eta 2015 artean ezarriko da.

Amaitzeko, esan dezakegu lege honi egin dakizkiokeen kritika nagusienetako bat zehaztugabea dela da, onartzen diren eskubidearen eta prestazioen benetako edukia eta garrantzia araz garatu behar direla eta autonomi erkidegoekin sinatu beharreko akordioen menpe geratzen direla aipatzen baitu.

Bestalde, gizarte ekintzako arlo honi dagokionez, bada kontu bat eztabaida ugari sortu duena ezinduen aukera-berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1.2 artikuluan aitortutako elbarritasun mailaren ziurtagiriak emateko eskumena duten administrazio organo desberdinen artean.

Ezintasun iraunkor osoagatik Gizarte Segurantzako pentsioduna den pertsona batek erakunde honetara jo zuen eta adierazi zuen Gasteizko Udalak ez ziola ezgaitasunagatiko salbuespena onartu TMIZn, ez zuelako bere ezgaitasuna egiaztatu Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako Sailak ematen duen ziurtagiriaren bidez.

Udalak emandako ebazpen ezlesleak, lehenik eta behin, ezinduen aukera-berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko 51/2003 Legearen 1.2 artikulua aipatzen zuen.

Xedapen horrek honela dio:

*“Lege honen ondorioetarako, ezinduak izango dira % 33ko elbarritasuna edo handiagoa aitortuta dutenak. Nolanahi ere, % 33ko elbarritasuna edo handiagoa duten pertsonak izango dira bai ezintasun oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak, baita zerbitzurako ezintasun iraunkorra izateagatik erretiro pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunak ere. Elbarritasun maila araz ezarritako moduan ziurtatuko da eta Estatu osoan izango da baliozkoa.”*

Bestalde, aipatu ebazpenak toki erakundeek Kontzertu Ekonomikoarekin bat etorri zergak ezarri eta eskatzeko duten autonomiaren oinarri diren arauen berri eman zuen eta, amaitzeko, zerga-ordenantzak aipatu zituen udalerriek zergen alorrean duten

erregelamendu ahalmenez baliatzeko bitarteko gisa; horien artean, bereziki, Gasteizko TMIZ arautzen duen ordenantzari egin zion aipamena, horren arabera, “organo esku-dunak luzatutako elbarritasun ziurtagiria” aurkeztu behar baita.

Erakunde honi dagokionez, zalantzan jarri genituen udalak emandako arrazoiak eta interesdunaren jarrera babestu genuen; alegia, ezintasun iragankor osoagatiko pentsioaren onuradun izateak dakarren eta aukera-berdintasunari buruzko legeak onartzen duen balorazio inplizitua gauzatu behar dela.

Udalak gure proposamena onartu ez zuen arren, interesdunak egun batzuk atzera Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako zuzendariak eman zuen ebazpena helarazi zigun; horren bidez, %33ko elbarritasun maila aitortu zitzaion, EAEko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak 2005eko ekainaren 14ko Epaian adierazitako irizpideari jaramon eginez. Aipatu ebazpenak honela zioen:

*“(..) andreaki %33ko elbarritasun maila aitortzea, ezinduen aukera-berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorri; horretarako, ez dira aplikatu abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritako baremoak”.*

Antza, Arabako Foru Aldundiak ez zuen era horretako agiririk luzatu nahi izan, 2005eko ekainaren 14ko Epaiak eman zen arte EAEko Auzitegi Nagusiak erabili zuen irizpidea ezintasun iragankor oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa jasotzen zuen Gizarte Segurantzako pentsiodun guztiei automatikoki % 33ko elbarritasun maila ez onartzearena izan baitzen.

Hala ere, 2005eko ekainaren 14ko Epaiak irizpide aldaketa eragin zuen eta, horri esker, 51/2003 Legeak behar besteko garrantzia bereganatu zuen administrazio publikoekiko harremanetan, horien manuek erabat lotesten baitituzte.

Une honetan, esan dezakegu, hasiera batean behintzat, kontu hori jada konpondu dela, ezgaitasunen bat duen pertsonatzat abenduaren 2ko 51/2003 Legean aipatutakoak joko direla ezartzen duen abenduaren 1eko 1414/2006 Errege Dekretua onartu ondoren. Arau horrek kasuan kasu zehazten ditu zein agiri aurkeztu behar zaizkion Administrazioari elbarritasun maila egiaztatzeko, bai kaltetua ezintasun iraunkorragatiko pentsioduna denean bai gainerako kasuetan. Era berean, % 33koa baino elbarritasun maila handiagoa aitortzea nahi denean egin beharreko urratsak zehazten dira.

**Etxebizitza**-beharrari dagokionez, esan behar dugu, aurreko ekitaldian bezala, honetan ere hainbat kexa aurkeztu direla, etxebizitzaren arloko indarreko arautegian, burutik gaixo daudenei edo ezgaitasun intelektualak dituztenei etxebizitza eskuratzen laguntzeko ekintza positiboko neurririk ez dagoela adieraziz; izan ere, pertsona horiek, beren familien babesik gabe geratuz gero, kasu askotan, gizarte bazterkeriako egoeran geratu ohi dira.

Horregatik, hainbatetan jo dugu Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailera erakunde honek jasotako kexetan aurkeztu ziren kasu desberdinetan pertsona horiek etxebizitza babestua eskuratzeko zituzten arazoak azaltzeko (etxebizitza anai-arrebekin partekatzea, gutxieneko diru-sarreraren betekizuna ez betetzea, kuporik ez egotea pertsona hauen etxebizitza-beharrak etxebizitza babestua eskatzen duten beste pertsona batzuenen aurrean lehenesteko).

Era berean, adierazi genien komenigarria zela, Konstituzioaren 14. eta 9.2 artikuluen babesean, oro har ezgaitasun intelektualak dituztenen eta burutik gaixo daudenen alde egingo zuten ekintza positiboko neurriak bultzatzea, bi kontu desberdin azpimarratuta: batetik, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan sartzeko irizpideak malgutu edo banan-banan aztertu behar zirela; eta, bestetik, komenigarria zela etxebizitzak esleitzeko modalitateren bat artikulatzea pertsona horiek lehenesteko egoera normalizatuan daudenen aurrean.

Bidalitako erantzun idazkietan, Etxebizitza Sailak 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriaren 9. ardatzeko aurreikuspenak helarazi zizkigun; horien arabera, alokairu erregimenean esleitzen diren sustapenetan kupo edo erreserba espezifikoak sortuko da pertsona horientzat.

Gainerakoan, ez zigun erantzun aurkeztutako bigarren arazoari, alegia, zein bide egingo duten planteatutako kekek. Gure ustez, isiltasun hori kexa horietako bakoitza adierazi duten pertsonen asmoei erantzutea ahalbidetzen duen indarreko arautegirik ez egotearen ondorio izan da. Espediente zehatz horiek aztertuta, ondorioztatu ahal izan genuen, kexa adierazi zuten pertsonak zalantzan jarritako jardunean irregulartasunik egon ez arren, beren uziak babesten dituen arautegirik ez zegoenez, beharrezkoa zela albait arinen kontu honen inguruko erregulazio zehatza finkatzea, 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plan horretako konpromisoak gauzatzeko.

Ondoren Etxebizitza Saileko arduradunekin izandako bileran, horiek adierazi digute sailak lehentasunez jasoko dituela aurreikuspen horiek etorkizuneko etxebizitza-araudian. Halaxe jakinarazi diegu interesdunei eta talde horien babeserako elkarteei, eta Eusko Jaurlaritzari errepikatu diegu, gure iritziz, pertsona horiei etxebizitza eskuratzen laguntzera zuzendutako ekintza positiboko mekanismoek kupo edo erreserba ezartzeaz eta pertsona horien etxebizitza-beharreko banakako egoerei erantzutea ahalbidetzen duen esleitze sistema artikulatzeaz haratago egin behar dutela.

Bestalde, aldi baterako eta titulartasun publikoko zuzkidura-alojamenduen formula, Lurzoruari buruzko 2/2006 Legean aurreikusitakoa, etorkizunean bereziki egokia izan daiteke pertsona hauek etxebizitzaren arloan dituzten beharrei erantzuteko.

Arau hori aipatuta, **hirigintzaren arloan** aurkeztu diren arazoak aztertzen hasiko gara.

Horren ildotik, ekitaldi honetan aipatu beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan arlo honetan izan den berritasun nagusia, hots, 2006ko irailaren 20an indarrean sartu den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen onarpena (uztailaren 20ko EHAAn, 138 zk.koan, argitaratua), hainbeste espero eta hainbestetan iragarri zena.

Arau honen inguruan luze eta zabal dihardugu hirigintzaren arloari dagokion sarreran eta, beraz, horri lotzen gatzaizkio.

Nolanahi ere, aipatu nahi dugu **irigarritasuna** sustatzeari buruzko atalean, legeak uko egin diola udal plangintza batzuetan barneratutako hirigintzako irtenbide jakin batzuei estaldura emateari; irtenbide horien bidez, jabekideen komunitateei baimena eman zitzaien espazio publikoak modu pribatiboan okupatzeko, horietan arkitektura-oztopoak ezabatzea ahalbidetzen duten instalazioak edo osagarriak jartze aldera. Espazio publikoetan oztopoak kentzeko aukera horren aurrean, legeak eraikinen barruan ere oztopoak kentzera bideratutako neurriak ezartzen ditu. Horrela, legeko xedapen baten arabera,

udalek, ordenantza onartu ondoren, jabetza horizontal bateko elementu pribatiboak desjabetu ahal izango dituzte.

Erakunde honek irisgarritasuna sustatzeko abiarazi dituen jardueri dagokienez, azpimarratu behar dugu gehitu egin dela merkataritzako lokaletan jarduera berriak ezar-terakoan edo horiek berrituzterakoan arkitektura-oztopoak ezabatzearen inguruko arau-tegia betetzeari dagokionez udalak burutu beharreko kontrol lanen inguruan diharduten kexen kopurua. Erakunde honi egokia iruditu zaio udalei gogoraraztea beharrezkoa dela lokal edo establezimendu publikoak berritzen direnean irisgarritasunari buruzko araudia betetzetik salbuesteko espedienteak izapidetzea, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskinen ondorio horretarako ezartzen den bezala. Horrela, era horretako jardueretan nahitaezkoa den legezotasun kontrola modu eraginkorrean gauzatzen dela bermatzen da.

Beste erreklamazio batzuk irisgarritasun egokia ahalbidetzen duten **igogailuak** ezartzeko jabe-kideen komunitate batzuetan dauden arazoei buruzkoak izan dira. Ezau-garri teknikoek igogailua eraikinaren barruan instalatzea eragozten dutenean, fatxadari atxiki dakiokela proposatu da eta, horretarako, beharrezkoa izan ohi dela erabilera publikoko lurzorua zati bat hartzea.

Horren inguruan, esan dezakegu zenbait udal plangintzek igogailua modu horretan instalatzeko eta lurzoria okupatzeko aukera aurreikusitako dutela. Hori gorabehera, arazoak sortu dira Barakaldo edo Durango bezalako udalerrietan, arkitektura-oztopoak ezaba-tzen dituen obra hori bide publikoak oinezkoentzat jartzearekin edo jabari publikoko ondasunen araubide juridikoarekin bateragarri egiteko.

Bestalde, atal honetan barnera daitezke irisgarritasunari buruzko araudia ez bete-tzearen ondorioz zerbitzu publiko desberdinen erabilera (bereziki, hiri altzariena) zaildu edo eragozti izanari buruzko kexak.

Ildo horretatik, aipatu beharrezkoa da Eginaren Eginez elkarteak aurkeztutako erre-klamazioa, ezgaitu fisikoentzat **hiri altzariak** duten irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeari buruzkoa. Zehazki, kexak zioen beharrezkoa zela Gasteizko Udalaren planetan jasota geratzea gai organikoak birziklatzeko edukiontzi berriak hiri ingu-runearen eta espazio publikoen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorretara egokitzen direla, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak eta hori garatzeko ezarritako baldintza teknikoek zehazten dutenaren arabera.

Kexa horren ondorioz, bi kexa-espedienteri eman diegu hasiera 2007an, beste udal-erri batzuetan (bereziki, Donostian eta Bilbon) kokatutako edukiontzien egoera zehazte aldera.

Bestalde, Asociación Sin Barreras/Hesirik Gabe Elkarteak adierazi zigun alde kromatikorik ez egoteak zailtasunak zekarzkiela ikusmen urrituei Gasteizko Udalak ateratzen zuen aldizkaria irakurtzeko. Erakunde honek egindako eskaerari erantzunez, arazoa konpondu egin zen aldizkariaren ondorengo aleetan.

Irun eta Santurtziko udalei dagokienez ere esku hartu dugu, udal-erri horietan ikusmen urrituek beren kabuz moldatu ahal izateko semaforoetan beharrezko soinu elementuak jar zitezten.

Erakunde honek garatutako gestioen ondoren, bi udalek hitzeman zuten, hurre-nez hurren, soinu dispositiboak eta urrutiko agintedun errepikagailu akustiko gehiago jarriko zituztela.



## 5. BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREI

Atal honetan, erkidegoz kanpoko atzerritarrei dagokienez 2006an egin diren jarduera nagusiak jaso dira. Aurreko urteetan bezala, adingabeei dagokienez, hainbat esku-hartze izan ditugu, nola bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko ezohizko txostenaren jarraipenerako jarduerak hala babes zentroetara egindako bisiten ondorioz edo, aurreko lehen aldiz, gure administrazioen tutoretzapean zeuden adingabeak aberri-ratzeko ebazpenen ondorioz garatutakoak. Horren guztiaren berri adingabeei buruzko berariazko atalean eman dugu.

Bururutako jarduerak honako atal hauetan banatu ditugu:

- a. Udal erroldarekin zerikusia duten jarduerak. 2005eko txostenean argitaratutako gomendio orokorraren jarraipena (*“Udalek Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren erroldako izen-ematea eta iraungipena erabakitzeko eta datuak beste administrazio publiko batzuei uzteko erabiltzen duten prozedurari buruzko zenbait gogoeta”*).
- b. 2004ko txostenean argitaratu zen *“Polizi kidegoek inmigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamenduari buruzko”* gomendio orokorraren jarraipena.
- c. Gizarte zerbitzuek errotze prozedurari buruzko txostenak egitearekin zerikusia duten jarduerak.
- d. Atzerritar etorkinei eragiten dieten beste jarduera batzuk.
- e. Gizarte eragileekiko lankidetzeta eta gizarte sentsibilizazioa.

### a. Udal erroldarekin zerikusia duten jarduerak

Atzerritarrentzat funtsezkoa da bizi diren herriko erroldan inskribatzea, horrek bizitza duina izateko beharrezko eskubideak eta zerbitzuak eskuratzea baitakar eta horien gizarteratzea errazten baitu. Horregatik, lehengo urtean gomendio orokor bat egin genuen; hots, *“Udalek Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren erroldako izen-ematea eta iraungipena erabakitzeko eta datuak beste administrazio publiko batzuei uzteko erabiltzen duten prozedurari buruzko zenbait gogoeta”*. Gomendio horretan erroldatzeari buruzko arautegia aztertu zen eta hori betetzeko proposamenak egin zitzaizkien udalei.

2006an gomendio horren jarraipena egin da. Horrela, ikusi ahal izan dugu udalek modu desberdinetara planteatu dutela. Oso interesgarriak iruditzen zaizkigu jaso ditugun erantzunak eta, beraz, atal honetan udalen jarduera desberdinak bilduko ditugu. Gure balorazioaren arabera, oro har, proposatutako gomendioak bete dira, nahiz eta zenbait salbuespen dauden eta betetze maila ez den bera kasu guztietan. Horretarako, helarazi dizkiguten erantzunak aztertuko ditugu, gomendio bakoitza bereiz hartuta.

Gomendioaren jarraipena egiteko, honako udal hauei eskatu diegu informazioa: Eibar, Gernika, Santurtzi, Barakaldo, Mungia, Durango, Leioa, Gasteiz, Errenteria, Ermua, Pasaia, Gernika, Ondarroa, Sestao, Getxo, Bilbo, Donostia, Markina, Basauri eta Portugalete. Udal guztiek erantzun digute, Markinako eta Portugaleteko Udalek izan ezik. Azpimarratu beharrekia da zenbait udalek ez dietela galdera guztiei erantzun. Kasu horietan, logikoa den bezala, ez dugu aipatu zein udalek eman duen kasu zehatzaren inguruko erantzuna.

Gure lehen gomendioari dagokionez (honela zioen, hitzez hitz: “*Errolda oinarritzko baliabidea da atzerritarrek gure udalerrietan integratzeko eta eskubideez baliatzeko; beraz, erroldaren izaera eta helburuaren arabera, udalei gomendatzen zaie **atzerritarren nortasuna eta udalerrian duten bizilekua egiaztatzeko behar den guztia egiteko, atzerritarrek duten betebeharra bete dezaten, hau da, benetan bizi diren udalerriko erroldan izena ematea**”), erantzunak oso desberdinak izan dira.*

Pertsonaren nortasuna egiaztatzeari dagokionez udalek emandako erantzunak aztertzerakoan, ikus dezakegu, atzerritar txartela eta indarrean dagoen pasaporte edo, Erkidegoko pertsonen kasuan, nortasun txartela aurkezteaz gain, zenbait udaletan (Sestao, Santurtzi eta Ermukoetan) edozein identifikazio dokumentu onartzen dela, esaterako, jatorritzko herrialdeari dagokion nortasun agiria, eta beste batzuetan, berriz, pasaporte berritzeko eskabidea eta iraungitako pasaporte edo horren kopia, zehazki, honakoetan: Gernika, Getxo, Sestao, Ondarroa, Ermua, Leioa, Mungia, Barakaldo, Donostia, Irun eta Eibar. Zenbait udaletan asilo eskatzailearen txartela ere onartzen da (Bilbo, Getxo, Leioa, Irun eta Donostia), nahiz eta udalerririk askotan ez duten aurreikusita, horietan ez delako egon asiloa eskatu duenik. Udal guztietan ere ez daude bakarrik dauden adingabe atzerritarrek, hori babes zentroaren kokapenaren arabera baitago. Bilbok eta Basaurik adierazi dute Leioako zentroan sartzeko foru agindua eskatzen dutela eta zentroetako arduradunak edo hauek eskuordetzen dituzten pertsonak direla inskripzioak kudeatzen dituztenak, errolda-orria sinatuta. Irunen adingabe horiek, erroldatu ahal izateko, zentro batean sartzeko foru agindua aurkeztu behar dute, beren datuak jasotzen dituen agiriren batekin batera; pasaporte aurkeztu ondoren bakarrik bidaltzen da erroldako inskripzioa Estatistikako Institutu Nazionalera, hemen ez baitira onartzen pasaporte zenbakia jasotzen ez duten atzerritarren altak.

Erroldatzea ezinezkoa denean, momentuz ezinezkoa delako pasaporte aurkeztea, zenbait udalek (Barakaldo eta Getxoko Udalek) eskaera idatziz egitea gomendatzen dute, atzeraeraginezko erroldatzea egin ahal izateko, ondorioak eskaera egin zen datatik aurrera izango dituen, behin pasaporte eskuratuta.

Benetako bizilekua ziurtatzeari dagokionez, nola errentamendu kontratuaren bidez hala gaitzen duen beste titulu baten bidez, udalek erantzun desberdinak eman dituzte. Zenbait udal murriztaileagoak dira eta errentamendu kontratuaren edo gaitzen duen beste tituluren baten titularraren baimena baino ez dute onartzen (Eibar, Basauri, Donostia eta Mungia), nahiz eta, oro har, nahikoa den etxebizitzan erroldatuta dagoen pertsonaren baimena aurkeztea (Irun, Barakaldo, Gernika, Bilbo, Sestao, Ondarroa, Pasaia, Ermua, Gasteiz, Santurtzi, Durango, Leioa eta Getxo). Azkenik, udal guztiek onartzen dute alta udalari txostena eskatu eta, horren bidez, etxebizitza horretan bizi direla egiaztatzen bada (Barakaldoko Udalak adierazi digu alta espedienteari hasiera eman zaion datatik aurrerakoa izango dela).

Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandako 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenak, errolda eguneratzeko udalei jarraibide teknikoak ematen dizkienak, jasotako aurreikuspenak aplikatzeari dagokionez, oro har, adierazi digute aplikatu ohi dutela, gizarte zerbitzuek ohiko bizilekua dela adierazi eta eraso behar den helbidea aipatu ondoren, askotan gizarte zerbitzuena dena (Barakaldo, Irun, Eibar, Basauri, Santurtzi, Durango, Gasteiz, Erreterria, Ermua, Pasaia, Ondarroa, Sestao eta Mungia).

Getxoko Udalari dagokionez, itxurazko erroldatzea edo erroldatze soziala lortzeko aukera duten pertsonen zenbait kasu ezarri dira: haurdunak; adingabeak ardurapean dituzten pertsonak; arreta eta tratamendua behar duten eta, beraz, banakako osasun txartela izatera behartzen duten osasun arazoak dituzten pertsonak; udalerrian ohikoak diren etxerik gabeko iragaitzak (horiek aintzat hartuta, oinarriko baliabideak lantzeko ahaleginak egiten ari dira, besteak beste, aterpetxeak; izan ere, horiei erroldatzeko aukera kenduko balitzaie, kotizazio gabeko pentsioa galduko lukete); eta gizarte langileak baloratu behar dituen gizarte egoerak.

Getxon, kasu zehatza kudeatzen duen gizarte langileak Karitateko Alaben bulegoetan (Karitate kalea, 10) hura erroldatzea gomendatuko du, hala egoki iritiz gero, eta egoera horretan gehienez eman ahal izango den denboraldia (zortzi hilabete) eta gizarte zerbitzuetan lan plana onartu beharra adieraziko du. Salbuespen gisa, etxerik gabeko iragaitzak pertsonen kasuetan eta, gizarte langileak hala baloratuta, berariazko beharra dagoenetan, erroldatzea zortzi hilabetetik gorakoa izango da.

Karitateko Alaben Kongregazioak erroldatzen diren pertsonetako bakoitzarekin harremanetan egoteko aukera ematen du eta hori arduratzen da erroldatuta dauden pertsonen bidaltzen zaizkien jakinarazpenak helarazteaz (atzerritartasuna, osasuna, hezkuntza...).

Adostutako denbora-tartea igarota, eta ez badago arrazoi nahikorik itxurazko erroldatzea luzatzeko, gizarte zerbitzuek estatistika-txostena egingo dute ofiziozko baxapideari hasiera emateko.

Bilboko Udalaren kasuan, beharrezkoa da udaleko gizarte zerbitzuek edo hori kontrolatzen duen elkarteak baimena ematea eta jarraipena egitea; horiek eskatuko dute dagokion establezimendu kolektiboan erroldatzeko (udal aterpetxean edo elkar- teak adierazitako etxebizitzan), gizarteratzea ahalbidetu arte eta bizitzeko etxebizitza egokia aurkitu arte. Une horretan bizileku aldaketaren berri emango da, erroldaren ondorioetarako.

Laburbilduz, udaletik udalera jardunbideak desberdinak izan arren, horietako askotan erroldatzeko aukera ematen da, eta hori oso positiboa dela iruditzen zaigu.

Egindako bigarren gomendioari dagokionez (*“Erroldako izen-ematea irau- gi dela adierazteak, interesdunari alde aurretik jakinarazi gabe, atzerritarren eskubideak mugatzen ditu; beraz, udalei gomendatzen zaie **atzerritarrei toki eta une egokian jakinaraztea errolda berritu behar dutela, eta, horrez gain, erroldan baja eman baino lehen, jakinarazi diezaietela errolda ez berritzeak dituen ondorioak; eta hori guztia hizkera ulerterrazean, alarmerik sortu gabe, eta udalerrian atzerritarrek hitz egiten duten hizkuntzetara itzulita**”*), udalek jakinarazi digute udal errolda berritu beharraz alde aurretik informatzeko sistema dutela. Informazio hori, kasu askotan, errolda- tzeko unean bertan (Getxo, Basauri, Eibar, Gasteiz, Ondarroa), udalaren web orrian (Getxo) edo baliabideen gidetan (Eibar, Ermua) ematen da edo, bestela, herritarren arretarako bulegoan bertan abisua jartzen da modu iraunkorrean (Durango eta Gas- teiz). Oro har, EAEn ofizialak diren hizkuntzetan ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere ematen da, besteak beste, arabieraz, txineraz, errumanieraz... (Getxo, Barakaldo, Gasteiz, Gernika, Ondarroa eta Sestao), nahiz eta, beste batzuetan, soilik euskaraz eta gaztelaniaz egoten den (Donostia, Basauri, Leioa, Irun eta Eibar). Berritzeko betebe- harra duten data hurbiltzen denean, gutuna bidaltzen zaie eta, horren bidez, hala egin

behar dutela jakinarazten zaie, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta ez berritzeak dakartzan ondorioak aipatuta (Getxo, Durango, Mungia, Eibar, Barakaldo, Gasteiz, Donostia, Ermua, Ondarroa, Sestao). Pertsonak ez badu errolda berritu, hartu-agiriarekin jakinarazten zaie Alkatezaren ebazpena; honen bidez, ofiziozko espedienteari hasiera emango zaio, bizileku iraunkorreko baimenik ez duten erkidegoz kanpoko atzeritarren inskripzio pertsonala iraungitzeagatik baja emateko. Jakinarazpen pertsonala egiterik izan ez denean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako prozedura bideratzen da (hots, lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta iragarki oholean argitaratzea). Hori eginda ere oraindik agertu ez bada erroldatzea berritzeko, baja ematea aginduko da (Getxo, Mungia, Eibar, Barakaldo, Ondarroa). Eibarren gestio informalak egiten dira pertsonak aurkitzeko, askotan, gizarte zerbitzuen euren aldetik; gauza bera gertatzen da Mungian eta Gasteizen. Arabako hiriburuan, lehenengo aurreabisuaren ondoren, beste abisu batzuk ere bidaltzen dituzte erroldan aldaketak egin behar izaten dituzten kasuetan. Azkenik, Sestaon, bi informazio gutun bidaltzeaz gain, horietako bat hartu-agiriarekin, erabilitako prozedura baja emateko erabiltzen den berdina da; beraz, Udaltzaingoari txostena egiteko eskatzen zaio pertsona hori bertan bizi ez dela eta horren egungo bizilekuaren berririk ez dagoela adierazteko eta bajaren jakinarazpena legezko prozedurari jarraiki egiten da.

Beste udal batzuetan hartu-agiridun informazio ohar edo aurreabisu bakarra bidaltzen da, bi hizkuntza ofizialetan (Leioa, Basauri, Donostia) edo, horietan ez ezik, baita beste batzuetan ere (Santurtzi, Gernika, Bilbo). Bi urte betetzen diren data baino lehen agertu ezean, iraungipena agintzen da (Leioa, Santurtzi, Gernika, Basauri, Donostia eta Bilbo) eta legezko prozedurari jarraiki jakinarazten da. Basauriko Udalak adierazi du, informazio oharrari dagokionez, jaso dela agertzen ez bada, legezko prozedurari jarraiki jakinaraztearen araubidea ere aplikatzen dutela (lurralde historikoko aldizkari ofizialetan eta iragarki oholean argitaratzea). Durangoko Udalak azaldu du, lehen informazio gutuna bidaltzeaz gain, jaso duten pertsonen berririk ere ohartarazten zaiela baja agindu aurretik eta legezko prozeduraren bidez jakinarazten zaiela.

Beste modalitate bat Errenteriako Udalak duena da; honek beste enpresa bat kontratatu du errolda mantentzeko zerbitzua eskain diezaion eta enpresa hori arduratzen da erroldako inskripzioa iraungitzeaz duten pertsonekin harremanetan jartzeaz. Adierazgarria da erroldan ez dutela baja bat bera ere agindu.

Azkenik, Pasaiaiko Udalak honakoa erantzun digu: *“...udalak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea oinarritzat hartuta, berriztatzeak ez duela zertan adierazia eta idatzia izan, baizik eta izan litekeela adierazi gabekoa eta ondoriozta litekeela erroldatu diren pertsonen jarreatik beragatik; hortaz, inskripzioa bere horretan mantenduko da, beste kasu batzuetan bezala, harik eta udalerrian ez dela bizi jasotzen ez den arte; izan ere udalak ez du pertsonekin inolako bereizketarik egin nahi; jatorria, arraza edo erlijioa zein ere den, eta uste du, beraz, Legearen artikuluen interpretazio estua oinarritzko eskubideen aurkakoa izan litekeela. Aitzitik, bestela jardunda, Legearen mamira lotzen da eta batez ere, pertsona guztien oinarritzko eskubideak defendatzen dira, inolako hausturarik egin gabe; jatorriagatik udalerriko biztanleen artean inolako bereizketarik egin gabe.”*

Informazioa bidali ziguten datan, iraungitzeagatik baja eman ziren pertsonak guztira 4.245 ziren.

Gure iritziz, baja eman zaien pertsonen kopurua handia da eta, beraz, gomendioan proposatu genuen moduan, informazioak eta aurreabisuak –hizkera ulerterrazean eta hartzaileen hizkuntza nagusietara itzulita– eskubideak betetzen direla eta, haiengan eragina duten erabakiak hartzerakoan, Administrazioak jarraitu beharreko prozedura errespetatzen dela bermatzen dute. Hasieran aipatu dugun moduan, udal guztiek betetzen dute gomendia, gutxienez aurreabisu sistema ezarri baitute, nahiz eta, kasu batzuetan, neurri bermatzaile zabalagoak aurreikusten diren (adibidez, Getxo, Mungia, Eibar, Barakaldo, Sestao eta Ondarroan) edo horien interpretazio estentsiboa egiten da (esaterako, Pasaian).

Hirugarren gomendioari dagokionez egin genuen informazio eskaeran (gomendio horren arabera, “*Erroldako datuak interesdunaren baimenik gabe Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari uzteak, eman zirenerako barik beste helburu batzuetarako erabiltzeko, datuen babeserako eskubidearen funtsezko edukia kaltetu dezake. Eskubide hori beteko dela bermatzeko, **Poliziak datu horiek zertarako erabiliko dituen jakitea** gomendatzen diegu udalei. **Datuak emateko bizilekuari buruzko datuek duten garrantzia justifikatuko da, eta segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurrea hartzeko edo arau-hauste penala saihesteko direla ere justifikatuko da. Kasu horietan izan ezik, udalak interesdunari jakinarazi behar dio bere datuak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi dizkiola eta bere baimena eskatu behar du, hasierako helbururako barik beste helburu polizial batzuetarako erabiltzen badira***”), udalak jarduteko protokolorik onartu ote zuen galde egin genuen.

Jaso ditugun erantzunetatik ezin jakin daiteke zein den jarduteko protokoloaren edukia, baizik eta soilik kasu horietarako protokolo bat badagoela edo prestatzen ari direla. Jarduteko protokoloa adostuta duten udalak honako hauek dira: Basauri, Gasteiz eta Sestao. Beste udal batzuk hori prestatzen ari dira; zehazki, honakoak: Ermua, Barakaldo, Getxo, Mungia eta Donostia. Beste kasu batzuetan ez dago protokolorik, ezta aurreikusita ere (Ondarroa), nahiz eta batzuek adierazi duten eskaerak arrazoitua izan behar duela eta horren edukiaren arabera erabakiko dela (Leioa, Durango, Pasaia). Azkenik, kasu batzuetan, aplikatu beharreko arautegira jo da zuzenean (Bilbo, Erreterria, Santurtzi, Gernika).

Irungo Udalaren erantzunak bakarrik aztertzen du zuzenean aipatutako kontua. Horrela, adierazi digu udalak zera eskatzen duela polizi kidegoei erroldako datuak emateko: “*idatzizko eskaera zehatza egitea eta horren bidez adieraztea datu horiek beharrezkoak direla segurtasun publikorako benetako arrisku larria saihesteko edo delitu bati eusteko*”.

b. **“Polizi kidegoek inmigratioari buruz ematen duten informazioaren tratamenduari buruzko” gomendio orokorraren jarraipena. 2004ko txostena**

Aurreko urteetan bezala, kexak jasotzen jarraitu dugu inmigratioari buruzko informazioaren tratamenduaren inguruan; hori dela medio, horiek betetzea oso garrantzitsua dela azpimarratu behar izan dugu. Kexak, funtsean, Herrizaingo Sailak hedabideei ematen dien informazioaren ingurukoak dira.

Bestalde, aurten Eusko Legebiltzarrak ez-legezko proposamena onartu du; horren arabera, *“erakunde publikoei eta hedabideei eskatzen zaie, informazioa sortu eta hedatzen duten iturri diren heinean, arretaz eta zehaztasunez aplikatu ditzatela beren jarduera guztietan, inmigrazioaren eta gizarteratzearen eremuan hizkera erabiltzeari dagokionez, Inmigrazioko 2003-2005eko Euskal Planean jasotako printzipioak, Arartekoak 2004ko txostenean argitaratutako gomendioak eta Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak 2000ko apirilean onartutako Kazetaritzako Estilo Liburua (espediente zk.: 08/11/02/01/0186)”*.

Zenbait informazio errekerimendu egin ondoren, Herrizaingo Sailak jakinarazi digu gomendioa onartu duela: *“Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzak jada eman ditu jarraibide horiek eta, beraz, hemendik aurrera, hemen onartu den gomendioaren xede diren datuak ez dira barneratuko Herrizaingo Sailak hedatzen dituen prentsa-oharretan”*.

Orobat, honakoa aipatu du: *“ez dira ertzainak hedabideei atxilotuen herritartasunari nahiz jatorriari edo hura gehiengoaren kulturakoa ez izateari buruzko datua ematen diena, baizik eta Herrizaingo Saileko Prentsa Zerbitzua; hortaz, ez da beharrezkoa erakunde horrek eskatzen duenaren moduko estilo liburua prestatzea, nahikoa baita zerbitzu horretako langileei zentzu horretan aginduak ematea”*.

Ondoren ere kexa gehiago jaso ditugu informazioaren tratamenduari buruz eta, ikusi ahal izan dugunez, hedabideek oraindik atxilotuen herritartasunaren berri ematen du delituzko jardueri buruz eskaintzen duten informazioan. Gainera, adierazi dute beren informazio iturria Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila dela. Berri askotan ikusi dugu herritartasuna aipatzen dela. Beraz, esan dezakegu Herrizaingo Sailak abiarazitako neurriak ez direla nahikoak izan eta, Legebiltzarraren ez-legezko proposamenaren eta aipatu gomendioaren aurka, oraindik ere jatorri herrialdeari, azalaren koloreari, talde etnikoari, erlijioari edo kulturari buruzko datuak ematen direla gizarte alarma sortzen duten delituzko jardueri edo jokabideei buruzko informazioa ematen denean. Horregatik, funtsezkoa da aipatzea jardunbide horrek gizarte talde oso baten inguruan iritzi negatiboa sortzea eragiten duela. Horrek, gizarteratzea eta kohesio soziala kaltetzeaz gain, oro har atzerritarren aurkako iritzi xenofoboak eragin ditzake. Horrenbestez, beharrezkoa da gogoraraztea bereizkeriaren aurkako borroka funtsezkoa dela gizarte eragozpenak gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuei aurrea hartzeko eta administrazio publikoek oso eginkizun garrantzitsua dutela horretan guztian.

**c. Errotzeagatik aldi baterako egoitza-baimena izapidetzeko prozedurari dagokionez, udaletako gizarte zerbitzuek gizarteratze txostenak egitea-rekin zerikusia duten jarduerak.**

Prozedura hau 2393/2004 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren 45.2b) eta 46.2.c) artikuluetan dago araututa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen dituen urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa betez. Horri helduz, Espainian dauden atzerritarrek bisa aurkeztu beharrik izan gabe eska dezakete aldi baterako egoitza-baimena. Horretarako, gutxienez hiru urtez jarraian Espainian bizitzen egon direla egiaztatu behar dute, betiere, Espainian eta beren jatorri herrialdean ez badute zigor aurrekaririk, langileak eta enpresaburuak

sinatutako kontratua baldin badute edo bertan bizi diren beste atzerritar batzuekiko famili loturak egiaztatzen badituzte edo, gizarteratzea ziurtatzeko, ohiko bizilekua duten udalak egindako txostena aurkezten badute. Azken kasu honetan, udalak atzerritarra lan kontratua izateko beharretik salbuetsita gera dadila gomenda dezake, betiere, bizitzeko baliabide nahikoak dituela egiaztatzen badu.

Arartekoak ez du eskumenik Estatuko Administrazio Orokorraren jarduerak kontrolatzeko. Horregatik, atzerritarren dokumentazioaren arloan jasotzen ditugun kexak Herri Defendatzaileari bidaltzen zaizkio. Arestian aipatutako erregelamendu berriari jarraiki, errotze prozedura izapidetzerakoan atzerritarrek aurkeztu beharreko gizarteratze txostenak prestatzen udalek parte hartzeak jarduera horien gaineko kexa jasotzen hastea eragin du. Jarduera horiek udalen eskumenekoak direnez, badugu horiek aztertzerik.

Gizarte taldeekin izandako bileretan ere adierazi ziguten udalen gizarte txostenetan, batzuetan, ez dela eransten lan kontratua aurkezteko beharretik salbuesten delako gomendioa. Hori dela eta, izapidetu dugun kexa baten arabera, Gasteizko Udalak egindako txosten batean ez zela gomendatu, Inmigratio Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideak betez, pertsona lan kontratua aurkeztu beharretik salbuetsita gera zedila, betiere, bizi baliabide nahikoak zituela egiaztatzen bazuen. Ondoren Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztzak egoitza-baimena ukatu zion, lan kontraturik ez zuelako eta Gasteizko Udalaren txostenean halako gomendiorik ez zegoelako.

Hasiera batean, informazioa eskatu genion Gasteizko Udalarri eta zenbait aurrego-goeta egin genizkion, honako kontu hauen inguruan: erantzuteko betebeharra; Inmigratio Zuzendaritza Nagusiak emandako jarraibide batzuk, Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen uztailaren 2ko 1600/2004 Errege Dekretuaren 6. artikuluekin bat etorritz; eta aldeko txostena edo kontrakoa den ebazteko eta, kontrakoa izanez gero, arrazoiak adierazteko aurreikuspena jasotzen duen txosten eredia. Era berean, babeserako eskubidea bermatzeko aurreikuspen horiek duten garrantziaren inguruko gure gogoetak ere helarazi genizkion.

Udalak erantzun digu “*eredu normalizatua eta informatizatua jarraitzen dutela, Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailean erabiltzen dena zerbitzuak eta prestazioak izapidetzeko eta beste erakunde edo instituzio batzuetara bideratzeko; bestalde, gizarte langileak ez du egokitzen jo XXX jauna lan kontratua izateko beharretik salbuetsi beharko litzatekeela gomendatzea eta, beraz, alderdi hori ez du bi txostenetako baten bertan ere islatu*”.

Gure aldetik, eredia berritzea eta aipatu jarraibideetara egokitzea iradoki diogu, egungo ereduak ez baitu ezartzen txostena aldekoa den (eta, beraz, lan kontratua izan beharretik salbuetsi beharko litzatekeela gomendatzen duen) edo kontrakoa den (eta horretarako zein arrazoi dauden).

Gure iritziz, garrantzitsua da txostenak albat lasterren ezarritako arautegira egokitzea errotze prozeduraren izapidetzea errazteko eta, egoki iritziz gero,aldi baterako baimena lortzeko. Baimen horrek garrantzi handia du gure erkidegoan bizi diren atzerritarren eskubideen titulartasunean eta erabileran.

#### **d. Atzerritarrei eragiten dieten beste jarduera batzuk**

Aurten ere Herrizaingoaren atalean adierazi dugu jaso ditugun kexa gehienek poliziaren tratu bidegabea eta indarraren neurritz kanpoko erabilera salatu dutela agenteek

polizi instalazioetatik kanpo garatu dituzten eta, nagusiki, atzerritarrei eragiten dieten jardueretan. Herrizaingoaren atalean arrazoi horiek direla medio izapidetu ditugun kekak jasotzen dira eta, beraz, atal horri lotzen gaitzaizkio.

Bestalde, osasunaren arloan, etorkinei eskainitako osasun arretari dagokionez gauzatu ditugun jarduerak aipatu ditugu, zehazki, Inmigratiozko Euskal Planean ezarritako aurreikuspenak bete behar diren inguruan.

#### e. **Gizarte eragileekiko lankidetzaren eta gizarte sentsibilizazioa**

Aurten, atzerritarren eskubideak babesteaz arduratzen diren gizarte erakundeekin harremanetan egon gara. Esparru horretan, atzerritarrek dituzten zailtasunak eta administrazio publikoei egiten dizkieten eskaerak gizartean ezagutaraztea helburu duten jardunaldietan eta topaketetan parte hartu da. Gure aldetik, erakundearen beraren, arlo horretan garatzen dituen esku-hartzeen eta bere eginkizunen berri eman nahi dugu. Ildo horretatik, garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea edozein pertsonak, bere herritartasuna edozein izanda ere, jo dezakeela guregana euskal administrazio publikoren baten aldetik okerreko jarduera egon dela edo edozein motatako bereizkeria jasan duela antzematen baldin badu.

Aurten, gizarte ekintzaren arloan kekak jaso ditugu atzerritarrek gizarte baliabideak eskuratzeko dituzten aukerei dagokienez. Bertako biztanleentzat hori mehatxua da, baina, erakunde honek bere esku-hartzeetan azaldu duen bezala, ezinbestekoa da berdintasun printzipioa betetzeko. Gizarte politikek inguruabar berdinetan dauden pertsona guztiei arreta bera eskaini behar diete. Irtenbidea ez da pertsona batzuk kanpo uztea, baizik eta baliabideak gehitzea. Inmigratioaren ondorioz behar gehiago baldin badago, baliabideak egokitu, gehitu eta hobetu egin beharko dira. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu administrazioek sentsibilizazio lana egitea. Gero eta atzerritar gehiago dago espazio publikoetan, lan merkatuan eta famili bizitzan. Gizarte kohesioak eta gizarteratzeak bertan bizi diren pertsona guztiak garatzea ahalbidetuko dute. Gizarte bazterkeria, aldiz, zailtasunen eta desberdintasunen iturria da.

Hiru lurralde historikoetan atzerritarrak babesten eta horiei laguntzen diharduten erakundeekin izan ditugun bileretan honako kezka hauen berri eman digute:

Lehenik eta behin, kezka nagusia atzerritarren dokumentazioarekin zerikusia duen oro da. Prozedura ebazteko ematen den denborari dagokionez, Araban eta Gipuzkoan ez dago atzerapen esanguratsurik baimenak izapidetzeko prozesuetan, ez, behintzat, azken hilabeteotan, aldaketak egin baitituzte halakoak ekiditeko. Ez da gauza bera gertatzen Bizkaiarekin, bertan atzerapen handiak baitaude. Errotzeagatik egoitza-baimena izapidetzeko gizarte txostenak prestatzeari dagokionez, arestian aipatutakoa azpimarratu behar dugu; hots, zenbait udalek ez dutela lan kontratua izan beharretik salbuetsita egon beharko litzatekeela gomendatzen.

Erroldari dagokionez, elkarteek aipatu dute oso garrantzitsua dela atzerritarren gizarteratzea ahalbidetzeko. Azaldu dizkiguten kasuan gomendioaren jarraipenean ikusi eta atal honen hasieran aipatu ditugunak dira. Erakundeek ere aldeak antzeman dituzte udaletik udalera: zenbait udaletan nahikoa da identifikazio agiriren bat aurkeztea, besteak beste, espetxeetako txartela edo jatorri herrialdeko identifikazio txartela; beste batzuetan, ordea, zailtasun handiagoak jartzen dituzte.



Arazotzat jo dute Marokon, Kotsulatuan pasaportea izapidetzeko, erroldatzea eskatzen dutela eta, alderantziz, udalerrian erroldatzeko, herrialde honetako pasapor-tea eskatzen dutela. Agerian jarri dira baita ere iraungitako pasapor-tea ez onartzeak dakartzan zailtasunak, bereziki, herrialdeko kotsulatuak ez badu pasapor-tea berritzen eta jatorri herrialderaino joan behar bada hori egitera.

Osasun txartelari buruz adierazi dute, bulego zentrolean arazorik ez dagoen arren txartela izapidetzeko, anbulatorioetan ez dutela zuzeneko eta ulertzeko moduko infor-maziorik ematen. Esparru honetan arazo larria da, orobat, buru osasunarekin zerikusia duena. Burutik gaixo dauden pertsonen koordinazioa eta jarraipena egiteko eta laguntza emateko dauden zailtasunak azpimarratu dituzte. Oztopoak dituzte osasun arreta jasotzeko, beren hitzetan, mesfidantza dagoelako fakultatiboen eta desbideratzeak egiten dituzten gizarte erakundeen artean. Behin eta berriro aipatu dute atzerritarrek buru osasunaren arloan dituzten arazoak oso larriak direla, gizarte egoera ahulean daudelako eta baliabiderik ez dutelako. Ez dagoenez horientzako eguneko zentrorik, Căritaseko eta Gurutze Gorriko itxaron geletara jotzen dute. Oro har, adierazi dute baliabideak eskasak direla, itxaron zerrenda luzea dagoela eta, ondorioz, arreta ez dela egokia. Ez dago, ezta ere, gizarte baliabide nahikorik. Etxerik gabe eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen beharrei emandako erantzunei buruzko ezohizko txostenean ikusi ahal izan genuen bezala, Gipuzkoan ez dago exigentzia txikiko gizarte baliabide askorik. Hortaz, pertsona horiek exigentzia handiko baliabideetatik kaleratzen direnean, arretarik gabe uzten dira –kaleratzea nahikoa ohikoa da, portaera-nahasteengatik eta baliabide egokiak ez daudenean horiek eragiten dituzten bizikidetzako zailtasunengatik–. Orobat adierazi dute ospitalean ere ezin egon daitezkeela, esaterako, agerraldi psikotiko baten ondorioz bertara eramaten dituztenean, berehala ematen baitiete alta, “gizarte arazoak direla medio”. Hau da, gizarte baliabideek ez dute ahalmenik burutik gaixo dauden eta, batzuetan, alkohola eta beste gai batzuk kontsumitzen dituzten pertsona horiei arreta emateko. Halaber, aipatu dute zailtasunak dituztela ospitaleko arreta jasotzeko. Azkenik, jakinarazi ziguten, komunitate terapeutikoetan desintoxikatzeo tratamendua hartzeko baldintza gisa, sei urtez erroldatuta egon izatea eskatzen dutela eta, beraz, arazo hori duten atzerritar asko arretarik jaso gabe geratu dira.

Adierazi zuten beste arazo bat oinarrizko errentaren izapidetzea dela, tartean adingabeak daudenean eta ama edo aita beste herrialde batean bizi denean. Kasu horie-tan, Justizia Ministerioaren bidez, eta New Yorkeko Hitzarmenari jarraiki, aitari/amari pentsioen erreklamazioa egin izana eskatzen dute eta horrek izapidetzea zailtzen du.

Azkenik, atzerritarrek kalez kaleko salmentan aritzeko dituzten arazoen berri eman digute, batzuentzat jarduera hori oso beharrezkoa baita, bizirauteko bide bat baita. Horien jazarpenak zehapen prozedura dakar eta, honen amaieran, isuna jarri eta sal-gaiak kentzen zaizkie. Halaber, aipatu dute kasuan kasuko udalaren eta une zehatzaren arabera dagoela zailtasunak egotea edo ez egotea. Hau da, gerta daiteke kalez kaleko salmentarako eragozpenik izan ez den udal batean, une jakin batean horretarako zail-tasunak sortzea.

Gasteizen ere gizarte erakundeek antzeman zituzten arazo nagusien berri eman ziguten. Beren kezarik adierazgarrienak gizarte zerbitzuak dituzte hizpide eta laguntzak zerbitzu horiek ezartzen dituzten baldintzetan eskuratzeko atzerritarrek dituzten zailta-sunen berri ematen dute. Horrela, ez da laguntzarik ematen etxebizitzak ez dituenen bizigarritasun baldintzak betetzen bertan bizi den pertsona-kopuruaren ondorioz.

Dirudienez, gizarte zerbitzuek badute bizigarritasun baldintza horiek betetzen ez dituzten etxebizitzaren berri. Talde horrentzat oso arazo larria da, etxebizitzaren prezioa dela eta, ezin baitezakete alokairua ordaindu, pertsona askorekin partekatuta ez bada.

Oso arazo larritzat jo dituzte baita ere prostituten bizi baldintzak, horiek batzuetan ez baitute bizileku duina eta, hala, kalean bizitzera behartuta baitaude.

Eskolatzeari dagokionez, adierazi dute aurrerapausoak egin direla ikasleak ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen artean banatzeko, baina, adingabeen arloan aipatu genuen moduan, oraindik hobetzeke dago bekei eta eskola-liburu eta materialetarako beste laguntza batzuei buruzko informazioa, baita eskolaz kanpoko zenbait kuota derri-gorrezkoak diren ala ez dioen informazioa ere, itunpeko ikastetxe horietara egindako desbideratzea familientzat onuragarria izan dadin. Gaztelania-ikastaroari dagokienez, adierazi dute eskaera handia dagoela eta, beraz, bai Norabidek edo HHE zentroak bai Prestaturik elkarteak antolatzen dituzten ikastaroak beteta daudela zerbitzu horren beharra duen pertsona-kopuru handiagatik.

Bestalde, Norabidera egin genuen bisita. Udal zentro hau etorkinak hartzeko Gartzategintzako Udal Sailak duen udal zentroa da. Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: gizarte laguntza, arreta psikologikoa, bitartekotza eta aholkularitza juridikoko zerbitzua. Gaztelania-ikastaroak (haurtzaindegiaekin), itzulpen eta interpretazio zerbitzua eta kultur anitzeko jardueretarako topagunea ere baditu. Hirira etorri berriak diren atzerritarrei zuzenduta dago, hasiera batean lehen urtean izan ditzaketen beharrei aurre egin ahal izateko. Horrela, gizarte laguntzaren arloan, udaleko beste baliabide batzuekin koordinatzen da bizilekua bilatzen edo beste behar batzuei erantzuten laguntzeko; orobat, bitartekotza-zerbitzuarekin batera gizarteratzearen eta lan trebakuntzaren alde egiten da eta lagun egiteko zerbitzua eskaintzen da. Abian jarri dituzten programa berritzaileen artean "Ibiltaria" programa dago; horri esker, ijitoak (nagusiki jatorria errumaniarrekoak) finkatu dira eta gizartean esku hartu da. Sentsibilizazio programa ugari ere bultzatu dituzte; horien baitan, kultur desberdinen inguruko informazioa eman da eta gure gizartearentzat horiek dakarten aberastasuna azpimarratu da.

Gipuzkoako gizarte erakundeek bereziki arazo bat aipatu zuten, erakunde honek ohiko txostenetan eta, zehazkiago, aurtengoan, behin eta berriro aipatu duena, baina baita ezohizko txostenetan ere jasotzen dena, besteak beste, duela gutxi argitaratutakoan: *Etixerik gabe eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen beharrei emandako erantzunak*. Gizarte baliabiderik ez duten pertsonen buru osasunaz ari gara. Hala ere, aipatu du beharrezkoa dela, orobat, koordinazio handiagoa egotea gizarte eta osasun esparruen artean, horrek guztiak esku-hartzeak eraginkorrak ez izatea eragiten baitu.

Bizkaian, bilera egin genuen Harresiak Apurtuz GKEko koordinatzailearekin. Bilera horren bidez, eurek hala eskatuta, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko ezohizko txostenaren ondorio nagusiak jakinaraz geniezazkien nahi zuten. Bestalde, 2005ean izan zen normalizazio prozesuan (hots, atzerritarren egoera juridikoa erregularizatzeko prozesuan) zenbait atzerritarrek jasandako iruzur kasuei zegokienez garatzen ari ziren jardueren berri eman ziguten. Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzarekin harremanetan jarri ziren, salbuespenezko inguruabarrak zirela medio pertsona horiei egoitza-baimena eman zekien ahalbidetzeko. Dirudienez, denbora asko igaro den arren, arazoa oraindik ez da konpondu.

Aurretik aipatutako alderdiak izan dira atzerritarrak babesten eta horiei laguntzen diharduten gizarte erakundeek aurrean helarazi dizkiguten kezka nagusiak. Bilera horien

balorazioa positiboa izan da, Arartekoaren esku-hartzeak zabaltzeko balio izateaz gain, talde honen arazoak zuzenean ezagutzea ahalbidetzen baitiote. Horietako askok egoitzabaimenik ez izatearekin zerikusia duten arren (gai horren inguruko eskumena ez dagokie euskal administrazio publikoei), badira beste arazo batzuk ere gizarteratze prozesuan bereizkeriako egoerek edo babesik nahiz aukerarik ez izateak sortutakoak. Ildo horretatik, beharrezkoa da erakundeen partaidetza handiagoa izatea gizarte desberdintasuna saihesteko, hori baita jasaten dituzten gizarte bazterkeriako prozesuen arrazoia. Une honetan bidean da inmigrazioko bigarren euskal plana eta bertan erakundeek hartu beharreko konpromiso berriak jasotzen dira. Ea horiek talde hau gizarteratzen eta, ondorioz, gure gizartearen kohesio soziala lortzen laguntzen duten.

## 6. BERARIAZKO ARRETA IJITO HERRIARI

Aurten, lehen aldiz, talde honi dagokionez garatu ditugun jarduerak bilduko ditugu txostenaren atal batean. Ijitoen idiosinkrasia, gure herrian duten historia luzea eta gure erkidegoan plan zehatza edo laguntzako gizarte elkarte propioak izatearen errealitatea arrazoi nahikoak dira erakunde honetan atal propioa izan dezaten.

Arazoetako asko bat datoz bereizkeria eta gizarte bazterkeria jasaten duten beste talde batzuenekin, baina nabardurak dituzte; hori dela eta, “ijitoen arazoari” ematen zaion tratamenduak hain errealitate konplexua eta desberdina izatea egiten duten elementu historiko, sozial eta kultural guztiak izan behar ditu kontuan.

Administrazioek konpromiso handiagoa hartu behar dute talde honekiko bazterkeriaren eta bereizkeriaren aurka egiteko. Plana prestatzeak (Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Plana) adostasun eta partaidetza ahalegin handia egitea ekarri zuen berekin. Horren eraginkortasuna tartean diren administrazioek abian jarritako neurrien arabera egongo da; gizarte erakundeek adierazi dituztenez, neurri horiek, ordea, bakanak dira.

Aurten, hainbat kexa jaso ditugu etxebizitza-beharrarekin, erroldatze ukapenarekin, prestazioen etetearekin... zerikusia dutenak; beste batzuek, ordea, administrazioaren eta ijitoen arteko harremanetan oraindik nagusi den mesfidantza izan dute hizpide, eta beste batzuek, bizikidetzako arazoak direla medio, auzotarrek administrazioari esku har dezan eskatzeko egin dizkioten errekerimenduak. Horregatik, jasotzen diren kexetako askok, oinarrian, ijitoen eta tokiko administrazioen eta/edo herriko auzotarren arteko harreman eta ulertezintasun arazoak aurkezten dituzte.

Ijitoek dituzten arazo nagusietako bat etxebizitzaren arazoa da. Arazo honek ez die, soilik, gizarte egoera ahuleko taldeei eragiten, baizik eta baita soldata ertain eta baxuak dituzten pertsonen ere; beste batzuentzat, alabaina, arazoa larriagoa da. Hau da, adingabeak daudenean, ijitoak izateagatik jabe batek berak ere bere etxebizitza alokairuan utzi nahi ez dienean edo beren familiako beste pertsona batzuekin bizitzera joan ezin daitezkeenean hauek egoera berean edo okerragoan daudelako. Etxebizitzaren “ondarezko” ondasun izaera bizimodu duina izateko “beharrezko” ondasun izaeraren gainetik jartzen denez, gero eta beharrezkoagoa da errealitate “gordin” horren aurrean esku hartuko duen etxebizitza-politika prestatzea: ijito askorentzat, osasungarritasun baldintzak betetzen dituen etxebizitza izatea ezinezkoa da. Prezioak hain altu egoteak dakartzan zailtasunei beste batzuk erantsi behar zaizkie, besteak beste, jabeek haiei etxebizitza errentan emateko edo errentamendu kontratua luzatzeko prest ez egotea; horren ondorioz, etxe berean pilatu egiten dira edo bat-bateko bizilekuak moldatzen dituzte, askotan ura edo argia bezalako gutxieneko zerbitzurik gabe. Garrantzitsua iruditu zaigu arazo honen berri ematea, bizileku egokia ez izatea oinarrizko arazoa bihurtzen baita edozein esku-hartze garatu ahal izateko, bai adinekoekin bai adingabeekin.

Beste arazo larri bat bizi diren udalerriko erroldan inskribatzeari dagokiona da. Udalek zailtasunak jarri ohi dituzte talde hori udalerrian erroldatu ahal izateko. Kexa ugari jaso ditugu kontu honen inguruan; bertan adierazi zaigunez, kasu batzuetan familiako kide batzuei ukatzen zaie erroldatzea eta beste batzuetan familia osoari, etxebizitzak ez dituelako bizigarritasun baldintzak betetzen, beste inolako erantzunik eman gabe. Alderdi honi dagokionez, Arartekoaren beste txosten batzuk kontsulta daitezke. 2005eko txostenean zenbait gomendio jasotzen dira, horietako bat orokorra. 2006ko txostenean

ere bada gomendio bat, Gipuzkoako udalerrri batean ijito familia bati erroldatzea ukatu izanari buruzkoa.

Aurten ijitoen elkarteek ere bereizkeriako jokabideetan oinarritutako salaketak aurrera eramateko dituzten zailtasunen berri eman digute. Ijitoei sartzen uzten ez dieten jendearentzako establezimenduei buruz ari dira. Diotenez, jokabide horiek oro har zigorgabe geratzen dira, ez baita ziurtatuta geratzen inolako bereizkeriarik egon denik.

Aurten, txostenean ebazpen bat jaso da; hots, 2006ko azaroaren 6ko Ebazpena. Horren bidez, Sestaoko Udalari, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Sailari Sestao birgaitzeko prozesuari buruzko ondorioak eta gomendioak jakinarazi zaizkie. Ebazpen honek Sestaoko gizarte eta hiri birsorkuntzako prozesuan aurreko administrazioek abian jarri dituzten neurriak aztertzen ditu (2006ko txostena).

Gure esku-hartzea eragin zuen kexa herriko auzotarren zenbait elkartek eta Iniciativa Gitana elkarteak aurkeztu zuten. Lehenengoen adierazi zuten administrazioek plan zuzentzailean bereganatu zituzten konpromisoak ez zirela betetzen ari. Bigarrenak jakinarazi zigun beldur zirela ijito familiek Sestao utzi beharko ez ote zuten, non bizi izan gabe eta adingabeek ikasturtea bertan behera uztera behartuta. Ebazpenak egun dagoen egoera eta administrazioek proposatutako erantzunak aztertzen ditu eta gure ustez pertsona guztien eskubideak bermatzen ez zituzten neurrien analisi kritikoa egiten du. Era berean, 9 gomendio egiten zaizkie administrazioei. Gomendio horiek, batetik, administrazioen esku-hartzearekin dute zerikusia, besteak beste, erakundeen artean adostasun politikoa eta lankidetzaren behar direla. Bestetik, berriz, prozesuarekin berarekin dute zerikusia: plan zuzentzailea berriro aztertu beharra, eraitsitako edo eraitsi beharreko eraikinetan bizi diren pertsona guztiei bizilekua berriro hartzeko duten eskubidea bermatzea, udal etxebizitzaren erabilera egokia eta herritarren segurtasuna bermatzea, gizarte sentsibilizazioa sustatzea, gizarte eragileekiko lankidetzaren hobetzea eta, azkenik, Sestao Berri, S.A. sozietateak egiten duen lanaren alde egitea.

Txostenak Europako erakundeek egindako beste azterlan eta gomendio batzuk jasotzen ditu; horietan, ijitoek jasaten dituzten bazterkeriako eta bereizkeriako arazoei aurre egiteko proposamenak aipatzen dira. Azterlan eta gomendio horiek garbi uzten dute ijitoek sustapenerako dituzten zailtasunak eta oztopoak Europako beste herri eta leku batzuetako antzekoak direla.

## 7. BERARIAZKO ARRETA GIZARTEAN BAZTERTUTA EDO MISERIAN BIZI DIREN PERTSONEI

2005eko txostenean adierazi zen bezala, 2006tik aurrera kapitulu honi lehen-tasunezko arreta behar duten beste talde batzuk erantsiko zitzaizkion, horien artean, bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonena. Etxerik gabe dauden pertsoneri buruzko ezohizko txostena egiteko arrazoietakoa bat bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen kopurua hazten ari zela ikustea izan zen. Gizarteratzeko dituzten zailtasunak direla medio, eta, ondorioz, jasaten dituzten parte-hartzerik eza, marjinazioa eta isolamendua direla bide, beharrezkoa da fenomeno honen inguruan ohartaraztea, gure gizartean hazten baitoa.

Zorionez, atzean geratu dira bizi historiaren arrazoiak eta ondorioak pertsonari zegozkiola eta, beraz, ongintzara jotzea beste aukerarik ez zutela zioten teoriak. Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen baztertuta geratzeko arriskuak saihesteko eta horien aurka aritzeko erantzukizuna, batetik, gizarteari dagokiola eta, besterik, Administrazioari, interes orokorren kudeatzaile gisa.

Etxerik gabe edo bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonak aurrea hartzeko mekanismoetako batek berak ere ez duelako funtzionatu eta arazo gehiegi pilatu zai-zkielako heldu dira egoera horretara. Arazo horiek ondorengoekin zerikusia izan ohi dute: alkohol, estupefaziente eta beste substantzia batzuen kontsumoa; lan ezegonkortasuna; ostatuaren prezio altua eta hori aurkitzeko zailtasuna; kulturagatiko bereizkeria; ezgaitasuna; administrazioak bertan bizitzeko eta lan egiteko baimena eman ez izatea; adina; etab.

Ezohizko txostenak bazterkeriaren fenomeno eta babesaren erantzukizuna, dituzten arazoak eta ezaugarriak eta egun dagoen gizarte eta arau esparrua aztertzen ditu. Gainera, EAEn bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonentzat abian jarri diren neurriak eta dauden baliabideak aipatzen ditu.

Erakunde honek egindako beste txosten batzuek bezala, honek ere administrazioei zuzendutako gomendioak biltzen ditu eta, beraz, datorren urtean horiek betetzearen inguruko jarraipena egingo dugu. Txosten honetatik abiatuta, administrazioak ohartarazi nahi dira egun dauden baliabideak beteta daudela, baliabide horietako asko ez daudela talde horren beharretara egokituta eta esku hartu beharko luketen beste administrazio batzuek ez dutela parte hartzen. Administrazio horiek ez dira udalak edo aldundiak soilik, baizik eta baita Eusko Jaurlaritzaren sail batzuk ere, besteak beste, Osasun Saila eta Hezkuntza Saila; horiek oso prebentzio lan garrantzitsua egin dezakete eta pertsona horiek dituzten beharrei erabateko erantzuna ematen lagun dezakete.

Egoera horretan dauden pertsonen profila aldatu egin da. Gero eta gazte, etorkin eta emakume gehiago dago. Kasu batzuetan, familia osoak geratzen dira etxerik gabe. Egoerak ere zailagoak dira, osasunari lotutako arazoak direla medio (bereizki, burukoak), baita kontsumoari lotutako arazoengatik ere (kasu batzuetan, ez dago aurre ezagutarik kontsumitzen diren substantzien aurrean nola esku hartu).

Ezohizko txostenak behin beta berriro aipatzen duen bezala, talde horri zuzendutako esku-hartzearen ezaugarri nagusia jardule asko daudela da, nola instituzionalak hala sozialak, eta eskumenak eta eginkizunak ez daudela zehaztuta. Beharrezkoa da sektorea antolatzea eta horren buru Administrazioak izan behar du, zehazki, Eusko Jaurlaritzak, indarrean dagoen Gizarte Zerbitzuen Legeak dioenaren arabera. Bestalde, Etxebizitza

eta Gizarte Gaietako Sailak oraindik ez du prestatu pertsona horiei zuzendutako baliabideen baldintzak erregulatuko dituen arautegia eta, beraz, horrek ez du sektorean esku hartzea laboratzen.

Laburbilduz, talde horri eragiten dioten kexen laburpena gizarte ekintzaren alorrean jaso da. Batzuk etxebizitzaren alorrean ere bildu dira, ostatu egokia ez izatea erantzun behar duten oinarrizko beharretako bat delako, eta beste batzuk, berriz, osasunaren alorrean, beharrezkoa delako koordinazio soziosanitarioa lortzea. Azken honek izugarritzko garrantzia du, pertsona horiek alkoholaren eta/edo beste substantzia batzuen kontsumoari eta buruko gaixotasunei lotutako arazoak baitituzte eta arazo horiek gizarte baliabideen prestakuntzaren eta aukeren gainetik baitaude. Horregatik, koordinazio soziosanitarioko Plan Estrategikoa aplikatzea ezinbestekoa izaten ari da, txosten honetan, zehazki, osasunaren eta gizarte ekintzaren alorretan, azpimarratu dugun moduan. Gainera, atal honetan, aurrerago, berriro aipatuko dugu, baztertuta daudenekin lan egiten duten pertsonak behin eta berriro eskatzen baitute. Ezohizko txostenean, gainera, gomendioen artean lehentasuna ematen zaio espazio soziosanitarioa abian jartzeari eta hori finantzatu eta baliabideez hornitzeari, ezarri ahal izateko; izan ere, zenbait talderekin aurrera egin den arren, besteak beste, adinekoenarekin, bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen taldearekin oraindik ez da aurrerapauso esanguratsurik egin.

Egunerrealitateak erakusten duen bezala, oraindik ez da espazio soziosanitarioa garatu gizarte zerbitzuen eta osasun baliabideen artean; hori gabezia da, gizarte langileek larritzat jotzen dutena, gizarte zerbitzuen erabiltzaileekin diseinatzen dituzten gizarteratzeko ibilbideetan sortzen dituen konpromisoengatik. Horrela, gerta daiteke pertsona batek agerraldi psikotiko baten ondorioz ospitalean egon behar izatea eta handik denbora gutxira alta jasotzea, ospitalearen ustez, “gizarte arazoa” delako. Bestalde, burutik gaixo daudelako sintoma garbiak (kasu askotan, aipatu kontsumoen ondorioz larriagotuak) dituzten pertsonen eskaini beharreko arretak gizarte baliabideak gainditzen ditu, hauek ez baitira gai horiek artatzeko eta, hala, kanpo utzi behar izaten dituzte, arduradunekin edo beste erabiltzaile batzuekin gatazkak sor daitezen saihesteko. Txostenean jasotakoaz gain, aurtan gomendioa egin diogu Gasteizko Udalari; gomendio hori txosten honetan kontsulta daiteke (12/2006 Gomendioa, maiatzaren 30ekoa). Gomendio horrek gizarte zerbitzuen erabiltzaile bat lonja batean hilda aurkitu zelako ofizioz hasitako espedientea ebatzi du. Egoera eta inguruabarrak aztertu ondoren, zenbait gomendio egin ziren. Gasteizko Udalak zehatz-mehatz erantzun die guztiei; erantzun horiek, beren interesa dela eta, aurrerago jaso dira. Bestalde, iradoki digute gomendioa Osakidetza bidal diezaioyola, gaiak duen garrantzia ikusita eta Gasteizko egoera etxerik gabeko pertsonen dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoko beste udal batzuetan ere antzematen delako. Oso egokia irudi zaitu iradokizun hori eta, beraz, gomendioa bidaliko diegu bai Osakidetza bai Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari.

Jarraian, udalak igorritako erantzunaren laburpena jaso dugu. Aipatu bezala, osatua da benetan, gure iritziz, oso positiboa dena.

Gomendio honetan, Gasteizko Udalari honakoa eskatu zitzaion:

“1. Beharrezko jarduerak burutu ditzala udalerrri horretan larriki baztertuta, burua nahastuta eta alkohola edo drogak modu eraginkorrean hartuz bizi diren pertsonak beren arazoari dagokion arreta jaso dezaten. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin koordinatuta, baliabide soziosanitarioak abiaraztea sustatu behar du.”

Gomendio honi dagokionez, udalak honakoa erantzun du: *“funtsean gizarte zerbitzuak dira patologia dualeko arazoak dituzten pertsonak hartzen dituztenak, osasun baliabideek arreta anbulatorioa ezartzen baitute eta, eremuan adituak direnek dioten bezala, horrek ez die erantzuten halako arazoek dituzten behar zehatz eta espezializatupei. Horren ildotik, esan dezakegu Gasteizko Udala, bere eskumenetatik haratago, eta bere programak eta baliabideak erabilia eta diziplina jakintza-alor anitzeko profesional taldeen bitartez, sortzen diren arazoak osorik aztertzen saiatzen dela. Ondorioz, egoerari buruzko diagnosis egiten da, erabiltzaileekin eurekin hala adostu ondoren, horiek zerbitzu espezializatueta desbideratzeko (Toxikomanoak Tratatzeako Zentroa, alkoholismoaren anbulatorioak, toxikomaniak gainditu eta tratatzeko zentroak...); baina, errealitateari jarraiki, ondoren gizarte zerbitzuak dira, dagozkien zentroak eta baliabideak erabilia, patologia dualeko arazoak dituzten pertsonen lagun egin eta babesa eskaini behar dietenak (hartu beharreko botikak gainbegiratzea, laguntza psikologikoa eta hezkuntzako ematea, laguntza emozionala eskaintzea...), osasun zerbitzuen eginkizuna ezin baita uztartu halako arazoak dituzten pertsonen hartu behar duten eta, batzuetan, eskasztat ere har daitekeen konpromiso pertsonalarekin”.*

Era berean, udalak adierazi du Osasun Plana prestatzen ari dela eta, bertan, arreta berezia jarri dela lan eremu guztietan osasun arloa bultzatu eta horrekin koordinatu beharraren inguruko neurrietan. Erantsi du planak udalaren konpromisoa islatzen duela Europa mailan, OMEk sustatu duen Herri Osasuntsuen Foroaren esparruan.

Orobat, honakoa ere gomendatu zen: *“2. Udalak gizarte baliabideetan erabiltzen duen zehatzeko ahalmena bat etor dadila administrazio publikoen zehapen prozedurari buruzko araudiarekin eta printzipioekin”.* Gomendio horri dagokionez, erantzunean zehatz-mehatz jakinarazi digute Gizartegintza Saila zer ahalegin egiten ari den eta gizarteratze egokirako zein baliabide dauden. Halaber, adierazi digu, 2000n, txosten politiko-teknikoa egin zela eta horrek Aterpe gaueko zentroa abian jartzea ahalbidetu zuela. Era berean, etxerik gabeko pertsonen beharren errealitatea aldakorra denez, azterlana ere egin da. Azterlan horren ondorio gisa, zentroaren kudeaketa berriro bideratu da eta sailaren jardura hobetu nahi da. Orobat, adierazi du, irizpiderik, erregelamendurik, dekreturik edo erakunde eskudunek emandako beste inolako agiririk ez dagoenez, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundia baliabideen eta programen diseinu orokorra izaten ahalegindu direla eta horiei esparru teorikoak, arautegiak eta funtzionamendu eta koordinazio protokoloak erantsi dizkietela, baliabideen eta programen funtzionamendua hobea izatea ahalbidetu baitezakete.

Horretarako, funtzionamendu arautegiak prestatu dira zentro desberdinetarako. Arautegi horietan ez betetzeen motak eta horien larritasuna jasotzen dira, ez betetzea izan dela dioten ekintzak, ezar litezkeen zehapenak, iragankortasuna, etab. Gainera, protokolizatu ere egin dituzte arautegia aplikatzeko proposamenen tratamendua, haiek baloratze eginkizunak, hori jakinarazteko modua, etab. Ateak zabaltzeko jardunaldietarako protokoloa ere prestatu da. Bertan, neguko egunetarako irizpide teknikoak eta funtzionamenduzkoak jasotzen dira, gerta baitaiteke gutxieneko estaldura eman ahal izateko beharrezkoa izatea zenbait eskakizun aldatzea. Halaber, gizarte larrialdiko egoeretarako jarduteko protokoloa ere prestatu da, egokiago eta arinago jarduten lagundu ahal izateko. Kasu honetan, profesionalen taldeak sortzea aurreikusitako oso egoera biziei arreta emateko. Aipatzen duen beste jardura bat banakako lan planak



koordinatu eta abian jartzea da; horien bidez, pertsona batzuen egoerei erraz aurre egin ahal izango diegu, laguntza handiagoa behar duten beharrei eta arazoei arreta eskainita eta zerbitzu eta erakunde desberdinen arteko jarraipen koordinatua eginda. Azkenik, honakoa dio: *“Bistakoa da, udalak gai honetan egindako lana handia eta aitzindaria den arren, hobetzeko aukerak egon daitezkeela zehapen prozeduretan eta, beraz, gogoan hartuko ditugu gai honi dagokionez gomendioak egiten dituen hausnarketak, sail hau egun dauden protokolo eta prozeduren inguruan (nahiz etorkizunean abian jarriko direnen inguruan) egingo dituen kalitatea hobetzeko prozesuetan aplikatu ahal izateko”*.

Azkenik, gomendio honetan beharrezkotzat jo zen ondorengoa: *“3. Aurrera egin dadila Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, baita iradokizun eta kexen araubidea ere betetzen, erabiltzaileen parte-hartzea eta beraiei dagozkien prozeduren berri izateko eskubidea betetzea sendotuz”*.

Gomendio honi dagokionez, jakinarazi digite informazioa jaso eta parte hartze-ko bide desberdinak daudela eta, zehazki, iradokizunen postontziak daudela zentro guztietan. Kanporatzeen jakinarazpen prozesua dela eta, adierazi dute bertan diren profesionalak zuzenean eta unean bertan ematen dutela kanporatzearen berri, hori berretsi egin behar den ala ez gertatutakoa ikusi ez duten teknikariek osatutako balorazio batzordean erabakitzen da eta, hala izanez gero, kanporatzea idatziz jakinarazten da. Gainera, erabiltzaileari zentroko profesionalekin eta jarraipen teknikariek egin beharreko bilerara dei egiten zaio, arreta ematen dioten zerbitzu desberdinen bidez. Bitarteko horiez baliatuta zuzenean jakinarazi ezin daitekeen kasuetan bakarrik argitaratzen da ALHAOean. Azkenik, honakoa diote: *“gure ustez, erabiltzaileek ziur jasoko dute informazioa, egun bide ugari baitago eta langileek profesionaltasun handiz baitihardute. Nolanahi ere, gomendio hau sailaren eta udalaren funtsezko helburuetako bat da”*.

Gasteizko Udalaren erantzunak garbi uzten du oso positibotzat har daitekeen hobekuntza-lana eta gogoia dagoela etxerik gabe dauden pertsonen zuzendutako baliabideei eta prozedurei dagokienez.

Aurten, beste esku-hartze bat zenbait zerbitzu bisitatzearena izan da. Bisita horien bidez, dauden instalazioak eta baliabideak, arretaren xede den taldea eta gainditu behar dituzten arazoak zuzenean ezagutu ahal izan dira. Jarraian, gure ustez interesgarriak diren zenbait datu bildu ditugu.

Aurten, etxerik gabe edo bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen arreta eskaintzera bideratutako zenbait baliabide bisitatu ditugu lurralde historiko bakoitzean. Gasteizen, Gizartegintza Sailaren zerbitzu bat bisitatu genuen. Bilbon, gizarte erakunde batek kudeatzen duen Lagun Artean gaueko zentroan izan ginen. Bi horiek eskakizun maila baxukoak dira. Donostiako baliabidea Emaúsek kudeatzen du eta eskakizun maila altukoa da. Jarraian, horien guztien ezaugarrietako batzuk aipatuko ditugu. Aterpe Gasteizen bizi diren baina etxerik ez duten pertsonen zuzendutako baliabidea da. Hasiera batean, zerbitzu honetan egonaldiaren gehieneko iraupena astebetekoa izatea pentsatu zen, baina denbora gehiago eman ohi dute bertan. Gizartegintza Sailak bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonentzat kudeatzen dituen baliabide desberdinek arautegi eta eskakizun maila desberdinak dituzte, erabiltzaileen inplikazio mailaren arabera. Aterpen hogeita hamabi plaza daude. Zenbait gela daude oheekin (horietako bat emakumeentzat),

baita aulki batzuk ere, horietan gaua igaro ahal izateko. Sexuaren arabera bereizitako komunak daude. Baliabideak ez ditu betetzen irisgarritasun irizpideak.

Alkohola eta/edo beste substantziaren bat hartu dutelako zantzuak agertzen dituzten pertsonak eta 24:00etatik aurrera iristen direnak ezin dira geletara joan eta, beraz, aulkietan jartzen dira. Kanporatzeek nagusiki jokabide arazoekin dute zerikusia. Kanporatze kasuetan, ebazpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen da eta pertsonari horren berri eman zaiola ere aipatzen da, nahiz eta honek erreferentziazko bere gizarte langilearen bidez jakiten duen kanporatze denbora. Kanporatzea zentroan pertsonari arreta eskaintzen dioten profesionalak egiten dute. Gertakarietan egon ez diren teknikariek osatutako organoa (Balorazio Batzordea) da kanporatze denbora erabakitzen duena. Garbitegi zerbitzua dute eta erabiltzaileek zentroko garbiketa-lanetan parte hartzen dute. Aipatu dizkiguten kontuetako bat da burutik gaixo dauden pertsonen, ezgaitasun larriren bat dutenei edo adinekoei ere arreta eskaini behar dietela, berez hori beste administrazio batzuei legokiekeen arren (Eusko Jaurlaritzari eta aldundiei). Azkenik, jakinarazi digute beste leku batera eramatea aurreikusi dela, nahiz eta oraindik ez dakiten zein izango den horren behin betiko kokapena.

Lagun Artean gaueko zentroari dagokionez, lehen aldia da erakunde horri bisita egiten dioguna eta egiten duten lanaren berri zuzenean duguna. 1983an ekin zion bideari eta hasiera-hasieratik kalean bizi ziren pertsonekin, etxerik gabe zeuden iragaitzako pertsonekin egin du lan. Beren baliabideak eta jarduerak antzematen joan diren profil eta behar aldaketetara egokitzen joan dira: toxikomaniak, laguntza-sarerik gabe edota lan egiteko nahiz etxea izateko aukerarik gabe zeuden etorkinak, buruko gaixotasunek eragindako arazoak, etab. Adierazi zuten pertsona horiek ez dituztela soilik etxebizitza-arazoak, baizik eta baita beste arazo batzuk ere, besteak beste, laguntza-falta, alkohola, estupefazientek eta bestelako substantziak kontsumitzearekin erlazionatutako arazoak eta/edo buruko gaixotasunekin zerikusia dutenak. Eskaintzen dituzten baliabideak eguneko zentroa, gaueko zentroa eta egoitza-baliabideak dira. Gaueko zentroan izan ginen gu. Bertan, honako zerbitzu hauek daude: gizarte arreta, garbitasuna, garbitegia eta jantzitegia (24 orduz), animazio soziokulturala, osasun arreta eta arreta juridikoa, eta jantokia. Eskakizun maila baxuko gaueko aterpea da, 30 plazakoa. Eskaria plaza-kopurua baino handiagoa denean, hamabostean behin 20 pertsonari zozketa bidez ematen zaie plaza; gainerako hamar plazak bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen zuzendutako arreta espezifikorako edo gizarteratze prozesuei ekin dieten pertsonentzat dira. Gaueko zentroa gainerako baliabideetara sartzeko atea da. Zentroan ezin da drogarik, alkoholik edo armarik izan, ezta lagun egiteko animaliarik ere, eta, oro har, ezin da jokabide erasotzailerik edo gogaikarririk izan. Lokala Cáritasek lagatarkoa da. Zentroak irisgarritasun baldintzak betetzen ditu. Aipatu beharrekoa da ez dagoela inolako arazorik auzotarrekin, Deustu auzoko Julio Urquijo kalean, etxebizitza-eremu batean, kokatuta egon arren. Lortzen duten finantzaketa publikoa eta pribatua da, bazkideek, fundazioek eta BBKk egindako dohaintzen bidez. Soil-soilik gaueko zentroari dagokionez, Administrazioak (Aldundiak eta udalak) % 57 eman zuen (2005). Aipatu dituzten zailtasunen artean, udalaren eta Aldundiaren arteko koordinazioarena dago, gizarte larrialdien eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen arloko eskumenei dagokienez. Halaber aipatu dute ez dagoela erantzun egokirik baztertutako pertsonen profil berriaren aurrean; hots, etxerik gabeko emakumeak. Koordinazio arazoez gain, baliabideak beteta daudela ere azpimarratu dute: jantokiak, udal aterpea... eta HHEko zentroek gabeziak omen

dituzte, urrun daudenez (gutxi dute hasierako maila), ez baitiete behar guztiei erantzun. Bestalde, berriro aipatu da beharrezkoa dela espazio soziosanitarioa sortzea eta arreta eskaintzea patologia duala duten pertsonen edo, gaixo nahiz ospitalean egon ondoren, osatzen ari diren pertsonen, arreta berezia behar izan arren, ez baitago horientzat egokia den baliabiderik. Orobat aipatu dute beharrezkoa dela eskakizun maila baxuko gaueko zentroa zabaltzea eta, bertan, etxerik gabeko pertsona guztiei gau osoan sartu eta ateratzeko aukera ematea. Adierazi dute Lagun Artean zentroak hamalau langileko plantilla duela, nahiz eta boluntario askok ere oso lan garrantzitsua egiten duten beren aldizkako lanarekin. Zenbait orduz segurtasun zerbitzua du, baliabidera sartzeko ordukin bat datorrena. Zerbitzu hori gutxi gorabehera duela hiru urte kontratatu zen, zenbait erabiltzailek alkoholaren eraginpean izan zituzten jokabide okerren ondorioz sortutako arazoengatik. Halako kasuak daudenean, zentrotik kanporatzen dira. Azkenik, adierazi nahi dugu zentro honek oso gizarte lan garrantzitsua egiten duela.

Aurten, Emaús Gizarte Fundazioak Gipuzkoan (Uba Bidea, 37 - Loiola) etxerik gabe eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonentzat duen baliabidea ere bisitatu dugu. Bi programa dituzte, bata, baloraziokoa, egonaldi ertainekoa; eta, bestea, gizarteratzekoa, egonaldi luzekoa (ISLA programa). Baloraziokoa hamabi plaza daude. Egonaldia hilaibetekoa da, baina luza daiteke, kasuaren balorazioaren arabera. Programa horren bidez, ostalua, mantenua eta oinarrizko beharren estaldura, banakako arreta, gizarte laguntza eta babes psikoafektiboa ematen dira. Halaber, kasuaren analisia eta egoeraren diagnostikoa eta orientazioa egiten da eta, egoki iritzi gero, beste zerbitzu batzuetara desbideratzen da, tartean diren erakunde desberdinekin koordinatuta. Erabiltzaileak kontratua sinatzen du eta bertan jasotako klausulak betetzeko konpromisoa hartzen du. Bertan, programan sartzeko eta geratzeko arautegi orokorra ematen zaio. Gizarteratzeko programan hogeita lau plaza daude. Egonaldia hiru urtekoa da. Programa horren bidez, ostalua, mantenua, jantziak eta mediku eta osasun arreta, laguntza eta garapen pertsonaleko zerbitzua, jarrerekin nahiz gizarte eta lan arloarekin zerikusia duten eskumenetan eta gaitasunetan beharrezkoa den trebakuntza, eta lan orientazio eta laneratzeko zerbitzua eskaintzen dira. Programa honetan ere, erabiltzaileak kontratua sinatzen du eta bertan jasotako klausulak betetzeko konpromisoa hartzen du. Orobat, erabiltzaileen oinarrizko eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituen arautegia ematen zaio. Bi programak oso desberdinak dira. Gizarteratzekoan (ISLA), eskakizun batzuk bete behar dira, esaterako, errolatua egotea. Baloraziokoa, baldintza gutxiago daude. Oinarrizko gizarte zerbitzuekin koordinatzen dira, baita Aldundiarekin ere, honek erabakitzen baitu desbideratzerik egin behar ote den. Beste baliabide batzuk ere badituzte: Pasaiaiko itsas etxea eta, orobat, norbere kabuz moldatzen diren pertsonentzako bi etxebizitza (emantzipazio programa). Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako beste baliabide batzuetan gertatzen den bezala, hemen ere buruko gaixotasunak eta gizarte baliabideak eta osasun baliabideak koordinatzeko zailtasunak aipatu dituzte arazoaren artean. Erakundeek finantzatutakoa da, nagusiki, Aldundiak, baina baita Eusko Jaurlaritzak ere. Arazoei dagokienez, aipatu dute, batzuetan, zailtasunak dituztela laguntzak izapidetzeko, eskatzaileak ez duelako errolatuta egoteko baldintza betetzen edo espetxean egon delako (izan ere, prestazioa izapidetzerakoan, espetxean emandako denbora ez denez bizitza independentetzat hartzen, ez dira laguntza emateko baldintza guztiak betetzen). Oro har, bada guztiek aipatu duten arazo bat, azkenaldian erakunde honetan kexak eragin dituena. Arazo larri hori da laguntzak kendu egiten direla horiek etxebizitza ordaintzeko erabili nahi direnean,

kontuan hartu gabe bizilekua funtsezko ondasuna dela pertsona gizarteratzeko eta talde batzuek ezin dutela alokairura jo, kontratua formalizatzeko dituzten zailtasunengatik. Halaber aipatu dute oraindik zain daudela Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak noiz prestatuko duen bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen zuzendutako azpiegituren baldintzak erregulatzeko arautegia. Azkenik, azpimarratu dute, etxerik gabe eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen buruzko ezohizko txostenean ikusi ahal izan genuen bezala, Gipuzkoan ez dagoela eskakizun maila baxuko zentrorik. Neguan bakarrik jartzen dituzte hotzaren aurkako dispositiboak Donostiako Udalak eta Cáritasek. Cáritasekoan gizarteratze lana handiagoa da eta, beraz, zenbait plaza erreserbatuta daude. Udal dispositiboak hirian denboraldi batez daudenentzat da. Beren hitzetan, plaza horiek ez dira nahikoak eta espazio horiek soilik azarotik martxora zabaltzen dira; hortaz, balorazio programak beste baliabiderik ez dagoelako horretara jotzen duten pertsonen eskaini behar die arreta, horren xedea hori ez izan arren.

Funtzionamenduari dagokionez, erabiltzaileek zati bat ordaintzen dute, zehazki, kontratuan adierazten dena, betiere, beren diru-sarrerak oinarritzko errentari edo lanari dagozkion kontuan hartuta. Instalazioei erreparatuta, Aldundiak berriak egin ditu eta, horiei esker, nabarmen hobetu dira lehendik zituzten baldintzak. Kontua da, hori gorabehera, instalazio horiek ez direla egokiak programetako jardura edo beharretako batzuk gauzatzeko. Hortaz, beharrezkoa da zenbait obra egitea, esaterako, garbategian erauzgailu irteera jartzea, etab. Horregatik, beren ustez, funtsezkoa da proiektuetako arduradunak eta instalazioen hartzailak koordinatuta egotea, instalazioak programetarako egokiak direla bermatzeko. Instalazioek prestakuntza-gela, liburutegia, informatika-gela, zaharberitze eta zurgintzako tailerra eta arreta psikologirako bulegoa dituzte. Gelak banakakoak dira, bainugelarekin. Etxebizitza bakoitzean monitorearentzako areto eta bulego bat dago. Solairu bakoitzean iradokizunen postontzi bat eta jantzitegi bat dago. Sukaldeak ez duenez beharrezko guztia, catering zerbitzuak erabiltzen dira. Biltegia, hozkailuak eta janaria berotzeko labea dute. Baliabidea berria da eta, beraz, aipatu eragozpenak izan arren, egoera onean dago.

Azkenik, Hontzari dagokionez (Bilbon dagoen eskakizun maila baxuko gaueko zentroa, gure azken txostenetan aipatu duguna), aurten ere zenbait datu interesgarri aipatu behar ditugu. Hontza zentroa droga-kontsumitzaile aktiboak diren eta gizarte bazterkeriako egoeran dauden 18 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago. 2006an ere lanean jarraitu du (ditugun datuak 2006ko lehen hiruhilekoari buruzkoak dira). Gaua igartzeko zerbitzuaren erabiltzaile gehiago izan dituzte, nahiz eta mantendu egin diren gaua igartzeko programa eta areto programa. Pertsona gehienak Estatukoak dira (% 74), ondoren Erkidegoz kanpokoak (% 18) eta, azkenik, Erkidegokoak (% 8). Eskaintzen dituen zerbitzuak material trukea (xiringa, preserbatiboak, aluminio papera), itxurazko erroldatzea eta hezkuntzako esku-hartzea dira. Berritasun gisa, azpimarratu behar da azken hilabeteotan osasun agenteen irudia sortu dela, honakoez arduradai- tezen: droga-kontsumorako erabili eta kalean utzi den materiala biltzea, zerbitzu hori erabiltzen ez duten truke-materiala ematea, droga-kontsumitzaileei gai soziosanitarioen inguruko informazioa ematea eta horiei laguntzea, gizarte drogazaleen arazoekiko sensibiltzatzea, etab. Aurten izan diren berritasunen artean, gaua igartzeko proiektuan hamaka-kopurua gehitu egin dela esan behar da. Orain hamabost hamaka dituzte eta bi erreserbarako, bat behar soziosanitarioei erantzuteko (emakumeen aldeko bereizkeria positiboa aplikatuta) eta, bestea, hezkuntzako esku-hartzerako; hau da, gizarteratze

prozesuari ekin dion pertsonarentzat gordeta. Liburutegi zerbitzua ere sortu dute. Beste berritasun bat da zentroko dokumentazioa (esate baterako, funtzionamendu arauak) beste hizkuntza batzuetara itzuli direla, zehazki, ingelesera, frantsesera eta arabierara. Bestalde, udalak hondakinen edukiontzia kudeatzeaz arduratuko dela hitzeman du, baita jantzi beharrei aurre egingo diela ere, nahiz eta oraindik ezin izan den konpromiso hori gauzatu. Laburbilduz, Hontza zentroak lanean eta taldearen beharretara egokitzen jarraitzen du. Eskakizun maila baxuko baliabide mota honek oso eginkizun garrantzitsua du bazterkeria-egoera larrian dauden taldeetan, bizitza duintzen baitie eta, batzuetan, gizarteratze prozesuetan sartzeko aukera ere ematen baitie. Horregatik, erakunde hau, urtero, Erkidegoan dauden baliabideetako batzuetara hurbiltzen da, zerbitzuen beharrak eta artatzen dituzten pertsonen egoera zeintzuk diren jakiteko. Honako ondorio hauek atera ditugu, baliabide horietan lan egiten duten pertsonak horretarako gai direla egiaztatzeaz gain: oro har, profesionalen ahalegin eta dedikazioari esker egiten dute aurrera; baliabide gehiago behar dira; beste baliabide batzuekiko eta administrazioekiko koordinazioa hobetu behar da; eta pertsonak egoera horretan egotearen arrazoiak ezagutu behar dira. Beharrezkoa da azpimarratzea, egoera horretara ez heltzeko, eraginkorra aurreko faseetan prebentzio lana egitea dela. Horregatik, garrantzitsua da administrazioei eta gizarteari ohartaraztea ezin dela halako egoerarik izan, gure zibilizazioaren giza, gizarte eta ekonomi garapena kontuan hartuta. Hori guztia *“Etxerik gabe eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna”* izeneko ezohizko txostenean aztertu dugu eta, beraz, datorren urtean, gomendioen jarraipena egingo dugu, administrazioek betetzen ote dituzten ikusteko.

## **8. BERARIAZKO ARRETA TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN INDARKERIAREN BIKTIMEI**

Ararteko erakundeak sentsibilitate berezia agertu izan du beti terrorismoaren biktimenganako, eta, ondorioz, erakunde honentzat lehentasunezko arreta merezi duen taldeetako bat da. Sentsibilizazio hori ekintza solidario ezberdinetan eta biktimenganako gertutasunean ere antzeman daiteke. Horrela, erakundeak komunikatuak egin izan ditu indarkeriako ekintza bat egin den bakoitzean, hedabideetan ere azalduz. Halaber, terrorismoaren biktimen babeserako elkarte eta fundazioek antolatutako ekintzetan ere parte hartu izan du.

2006ko ekitaldi honetan, terrorismoaren biktimen inguruan bideratutako jarduerak txosten honetako III. kapituluari aipaturiko ezohizko txostena egiteari zuzendu zaizkio.

Biktimen alorreko araudia eta dokumentu ezberdinak aztertu dira. Topaketak izan dira banakako biktimekin, eta baita elkarte eta fundazio batzuekin ere. Helburua 2007an zehar horiekin guztiekin harremanetan jartzea izango da, haien behar eta arazo berri lehen eskutik izateko.

Halaber, bilerak izan dira erakunde ezberdinekin hainbatetan urte osoan zehar, adibidez, Indarkeriak Kaltetutakoentzako Laguntza Bulegoaren zuzendariarekin eta haren lantaldearekin, edota Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren buruarekin.

Terrorismoaren biktimei eragiten dieten alorretako erakundeetako arduradun eskudunekin ere topaketak izan nahi dira, txostena egin ahal izateko.

## 9. BERARIAZKO ARRETA GAY, LESBIANA ETA TRANSEXUALEI

**Gay, lesbiana eta transexualen taldeari** dagokionez, hainbat **ekitaldi publiko, hitzaldi, jardunaldi edo ikastarotan** parte hartu ahal izan dugu. Arartekoak hitzaldi bat eman zuen martxoaren 15ean Gasteizko UPV-EHUko Farmazia Fakultatean, homosexualitateari buruzko jardunaldi batzuen esparruan. Halaber, maiatzaren 22an beste hitzaldi bat eskaini zuen Iruñean, Ateneoak “homosexualen familiak” gaiaren inguruan antolaturikoen barruan. Urriaren 26an, Arartekoak Bartzelonan antolaturiko mahai inguru batean parte hartu zuen eta baita tailer batean ere. CGL erakundeak antolaturikoak izan ziren, herrialde demokratikoetako homosexual eta transexualen egoeraren gainean. Sexu joerarengatiko bereizkeria deuseztatzeko Suediako ombudsmanak ere parte hartu zuen kasu hartan. Azkenik, Ararteko erakundeko lesbiana, gay eta transexualen esparruko koordinatzaileak parte hartu zuen landa-esparruko homosexualitateari buruzko jardunaldi batzuetan. Azken horiek Agurainen antolatu ziren 2006ko azaroan, eta EHNE nekazal sindikatuak antolatu zituen, Arabako gay eta lesbiana talde ezberdinekin batera. Jardunaldi haietan landa-esparruetako pertsona homosexualak, beren nortasun afektibo eta sexuala bizitzeko, eragiten dieten aparteko zailtasunak azpimarratzen saiatu ginen.

Halaber, esparru horretan sustatu diren jardueren artean, honakoa azpimarratu behar da: **lesbianek Euskadin duten ikusezintasunaren** gaineko azterlana egiteko **ikerketa-beka aplikatua** eman dugu. Erakunde honek finantzaturiko proiektua egite fasean dago une honetan, eta, banan-banako elkarrizketetan oinarrituriko metodologia kualitatiboaren bidez, EAEn emakume lesbianek duten gizarte onarpena eta ikusgaitasun maila zein den aztertu nahi du. Horretarako, lesbianen bizitza sozialean aldeak berak duen integrazio maila islatuko duten parametro ezberdinak aztertuko dira.

Bestalde, zenbait kexa jaso ditugu **transexualek aurre egin beharreko zailtasun eta oztipoen** berri emanez. Kasu guztietan Herri Defendatzaileari helarazi dizkiogu kexak, genero identitatea onartzen duen legerik ez egoteari eragiten diotelako, alde batera utzita sexua aldatzeko ebakuntza kirurgikoa egin izan den edo ez. Herri Defendatzaileari nahiz interesdunei helarazitako idazkietan, gure laguntza eta babesa ematearen aldeko jarrera adierazi genuen, transexualen genero identitatea legalki onartzeko eskaeran. Sexu aldaketak dakartzan aldaketa fisikoak gauzatu edo amaitu diren alde batera utzita –horixe exijitzen da egun onarpen zibila izateko–, beharrezkoa dela uste dugu guk ere generoa onartua izatea, eta haiek adierazitako planteamenduekin bat gatoz erabat.

Zentzu horretan, ados gaude erreklamatzailer batzuek adierazitako iritziekin. Horien arabera, legea aldatzea presazkoa da, besteak beste, neurri batean eta osatu gabe eta sektoreka, pixkanaka transexualen benetako genero identitatea onartzen doan sistema juridikoari trinkotasuna eta kohesioa emateko. Hain zuzen ere, horixe gertatzen da preso ezberdinak sexuaren arabera moduluetan banatzerakoan; transexualen genero identitatea kontuan hartzen da, genital aldaketa gauzatu den edo ez alde batera utzita. Halaber, gauza bera gertatzen da sexu aldaketaren prozesua burutu duten transexualen jaiotza-datueta egiten diren zuzenketekin erregistro zibilean.

Horrela, genero identitatearen onarpen zibila posible izateko, beharrezkotzat jotzen une honetan pertsonen eskubideei buruzko gaiak eta izena eta ezaugarriak Erregistro Zibilean jasotzea arautzen dituen araudia aldatzea. Halaber, kontu horren gainean

genero identitatearen lege aurreproiektu bat badela adierazi genuen, hain zuzen ere erreforma hori burutzeko xedez. Gorte Nagusiak izan behar dira, beraz, gobernuaren ekimen horretatik irteten den legea izapidetu eta onartzeko eskumena duen organoa. Zentzu horretan, Estatu mailako eskumena denez, eta Arartekoak interes handia izan arren erreforma hori ahalik eta lasterren gauza dadin, ezinezkoa zitzaigun erakunde honetatik espediente horiek beste era batera izapidetzea, lehen ere adierazitako moduan, Estatuko Herri Defendatzailea jakinaren gainean jartzetik haratago.

Bestalde, gure babes eta interesa agertu genuen aldarrikapen horrek espero den erantzuna ahalik eta lasterren topa dezan, dagokion erreforma legalaren bidez. Genero identitatea legalki onartzea ezinbesteko baldintza dela onartu behar da, gizakiaren nortasuna modu askean gara dadin, eta transexualen duintasuna erabat onar dadin.

Duintasunari buruzko oinarrizko eskubideei, nortasunaren garapenari, osotasun moralari eta transexualen irudiari berari onarpena eman behar zaie, eta haiek osasunerako duten eskubidea zaindu. Ondorioz, beharrezkoa da osasuneko baliabide publikoek sexu aldaketako prozesuak beren gain hartzea, bai alde psikologikotik, bai fisikotik. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak esfortzua egin beharko lukeela uste dugu, eskari horri aurre egitearren, adierazitako eskubideen babesean oinarri tinkoak baititu.

Azkenik, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak egitea ahalbidetu zuen 2005ean onarturiko Kode Zibilaren erreformatik aurrera izandako **ezkontza homosexualen gainerako daturik** ez egoteari buruz galde egin ziguten. Hori dela eta, EUSTATERa jo genuen, datu horiek Euskadin erregistratutako izatezko ezkontzei eta bikoteei buruzko datuak gaiari buruzko estatistikan berariaz isla zitezela eskatuz. Erakunde horren aldetik jasotako erantzuna baiezkoa izan zen erabat, eta bat etorri zen gure nahiarekin. Dakigunaren arabera, egun EUSTATEk Euskadiko izatezko ezkontza eta bikoteen gainean egiten eta argitaratzen dituen estatistiketan biltzen du jada parametro berri hori.



## 10. BERARIAZKO ARRETA ESPETXERATUEI

Espetxeratuek ahultasun handieneko taldeetako bat eratzen dute, preso izateak dakarren eskubide mugaketaren ondorioz. Gainera, askotan, askatasuna mugaturik izateaz gain, arazo konplexuak dituzten pertsonak izaten dira, atzerritarrak izateagatik, gizartean bazterturikoak izateagatik, droga menpekotasuna izateagatik...

Arartekoak alor horretan esku hartzeko izan ditzakeen aukerak mugatuak dira, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia Estatuko Administrazioaren parte delako, eta, beraz, horiek ikuskatu eta kontrolatzea Herri Defendatzailearen ardura da.

Hala eta guttiz ere, espetxeratuen kexekin egiten diren esku-hartzeak ugariak dira. Kasu batzuetan borondate oneko kudeaketak izaten dira; beste batzuetan, aldiz, erkidegoaren eskumeneko gaiei uztarturiko suposamenduetan bideratutakoak izaten dira: lekualdatzeak, hezkuntza, osasuna, lana.

Gure jardunean antzeman dugu urtero aurkezten dizkiguten arazo asko behin eta berriro errepikatzen direla, eta ez dela aldeko aldaketarik sumatzen, edota egonda ere, ia antzemanekin izaten direla. Gainera, beste kasu batzuetan egoera batzuk are larriagoak bihurtzen dira, adibidez, espetxe batzuetako pilatze baldintzak, espetxeetako biztanle kopuruak gora egiteagatik.

Gure espetxe sistema delinkuentzia areagotzeko modurik garestiena dela ere esan izan da. 144 preso daude 100.000 biztanleko; badirudi proportzio hori Europako garestiena dela. Norbaitek pentsa dezake horrelako baieztapen bat muturreko planteamenduek berezkoa duten putzearen ondorio izan daitekeela. Guk, ordea, argitu egin behar dugu horren atzean ez dagoela espetxeak deuseztatzea defendatzen duen diskurtso erradikalik: Kataluniako Generalitateko Justizia consellerrak eginikoa izan zen, joan den irailean Espetxeetako Erregelamendu Kataluniar berriaren aurkezpenean, hain zuzen ere. Sistemaren gabeziak, beraz, oso argiak eta larriak izango dira, haren kudeatzaileetako batek hain baieztapen zorrotza egin izateko.

Egia esan, gure espetxeetako errealitatearekin harremanetan gaudenok aspalditik entzuten ditugu antzeko balorazioak. Errealitate horren eta legeak ezarritako printzipioen artean dagoen tarte zabala salatzen da. Bestelako hautabideak proposatzen dira, zigoren erabilgarritasunaren zein espetxeratuen eskubideen inguruan. Aitzitik, azterlan eta salaketa horiek guztiak esanguratsuak direla esan daiteke: denbora igaro arren, horiek berean jarraitzen dute. Hau da, sistemaren maila ezberdinetan agertzen diren pertsonen beren borondate onenarekin egiten duten lanetik haratago, kontua da urtetik urtera arazo eta gabezia berdinak ikustera behartuta gaudela.

Gure erakundearen esperientziak beste inork baino hobeto islatzen du adierazi berri duguna, iaz hamar urte bete baitziren Arartekoak gure espetxeetako egoeraren gaineko Eusko Jaurlaritzarako ezohizko txostena aurkeztu zuenetik. Gauzak horrela, garai hartan antzeman ziren arazoak egungo kezka nagusiak direnekin alderatzea besterik ez dago. Badirudi oso gauza gutxi aldatu direla urte hauetan guztietan, eta ez da espetxeetako biztanleen neurri gaineko hazkuntza baino aldaketa esanguratsuagorik egon. Horri aurre egiteko aurrekontuak izandako hazkuntza, izugarri eskasa izateaz gain, erregimen eta segurtasun lehentasunetan oinarritu da. Ondorioz, zaila da "orain artekoa berriro" ez den beste ezeren itxaropena izatea.

Ezinbestekoa da arriskueta bat azpimarratzea: behin eta berriro gauza berak entzun ondoren, zorritarreko egoera honek erremediorik ez duela pentsatzea, eta siste-

ma burokraziaren kudeaketapean izanda eroso sentitzen bukatzea, edo hautabiderik ez duen kritika antzua besterik ez egitera iritea. Bitartean, kartzelak espetxeratuak murru horien aldera eramanean zituzten faktoreak kroniko bihurtzen joango lirarteke, eta hamar urte barru inor ezin harritik litzateke, gauzak ez direla ia aldatu ikustean.

Aitzitik, asko dago egitear eta, konponbidea erraza ez den arren, tinkotasunez egin behar da lan arlo bikoitzean: batetik, existitzen dena ikertzea eta salatzea. Bestetik, irtenbidea topatzeko arrazoizko bideak proposatzea, bai hautabide berriak sortuz, bai legeak egun eskura jartzen dizkigun neurriak martxan jartzea ahalbidetuz. Azken horien aukerak badirudi garatu gabe daudela egun oraindik.

Erakunde honek behin eta berriro adierazi izan du komenigarria dela espetxeen alorreko eskumenak Autonomia Erkidegoak bere gain hartzea, jarraikako gobernuak ere eskatu izan duten moduan. Aitzitik, horiek Estatuko Administrazioaren arduraren izatean jarraitzen badute ere, espetxeratutakoen gizarteratze aukerak beren gizarte inguru naturalek isolaturik ez bizitzearen menpekoak dira neurri handi batean, eta askatasunik ez izanda ere. Ondorioz, Arartekoaren ikuskaritza eta sustapen lanetik kanpo gera ezin daitezkeen bi arlo landu behar dira: batetik, gizarte zibila, boluntario solidarioen bitartez. Bestetik, erkidegoko administrazioa, aldundi eta toki mailakoa. Horiek beren esku dagoen guztia egin behar dute –bakoitzak dagokion eremuan–, gure espetxeetako biztanleek osasun, hezkuntza eta gizarte ongizateko zerbitzuen sare normalizatu erabiltzeko aukera izan dezaten. Bi aldeak aztertuko ditugu, egun gure espetxeen errealitateak jarduteko ematen dituen aukerak aurkezteko ardatz moduan.

Euskal gizartea bereziki harro senti daiteke, elkarte sare trinkoaren bidez agertutako solidaritateagatik. Sare horrek zigortutako eta espetxeratutako pertsonekin egiten duen lana adierazgarritasun osoz deskribatzen du Justizia Sailaren Zigor Beteazpenari eta Gizarteratzeari Laguntzeko Zerbitzuak. Haiek adierazitakoa berretsi beharrean gaude:

*“Elkarte sareari buruz hitz egitea motibazioari buruz hitz egitea da, eta motibazioa aldaketa da, “interes orokorreko” eta helburu pertsonal eta zehatzeko aldaketa. Elkarte sareari buruz hitz egitea konpromisoa esatea da, hainbeste boluntarioen izateko funts eta arrazoi moduan, ez eskulan merkea, baizik eta prestatuak eta konpromisoa hartzen dutenak, eta soberan dutena emateko moduan ulertzen ez duten profesionalak, ongi sentitzeko zerbitzu moduan, baizik eta beren denboraren, esfortzuaren, sormenaren eta dedikazioaren ardatz moduan, borondatezko boluntarioek kontzientziak isiltzen eta salaketak estaltzen dituztela dioen ideia zahar eta okerretik urrun... Alderantziz, alde batera uzten diren eta hain ezagunak ez diren kontuen gaineko kontzientzia kolektiboa agerrarazteko nahia ere bada”.*

Gure aldetik esan dezakegu Euskadin elkarte sareari buruz hitz egitea espetxeen alorrean boluntario ugari dituen alorra aipatzea dela –300ek agiria dute Langraizen bakarrik–. Horiei esker egiten diren zigor eta segurtasun neurrien balio gabetzearen erdiak posible dira. Ehunekoak are altuagoak da komunitatearen onurarako lanak bezalako hautabideei buruz hitz egiten badugu, edota Espetxeetako Erregelamenduaren 182., 100.2., 82. eta 117. artikuluen bidez zigorrak espetxetik kanpo erabat edo neurri batean betetzeko eredu ezberdinei heltzen badiegu. Hori guztia tratamenduaren, plan pertsonalak egitearen, gizarteratzearen eta lana topatzearen zerbitzura dago.

Nahikoa baliabide eta esfortzu izanda, gizarte zibilaren erakundeek eraginkortasuna agertu dute eremu horietan guztietan. Hori dela eta, gure errespetua irabazi dute

urte hauetan guztietan zehar, eta, ondorioz, uste dugu entzun egin behar zaiela beren lanari jarritako oztopoetako bat salatzen dutenean: espetxeen alorrean erregimenak eta diziplina nagusi izaten jarraitzea, edozein motatako sailkapenak ilunduz. Zigorra norberak bizi duen une pertsonalaren, babesen eta bigarren mailako bazterkeriaren prebentzioaren gainetik izango da kontuan. Ondorioz, berriro gizarteratzeko ikuspegitik proposaturiko ibilbideak kautelari eta erregimenean oinarrituriko irizpideei helduta joan beharrean daude beti. Ez du egoera hori hobetzen laguntzen funtzionario askoren ordutegi pilaketak, izan ere, 16 orduko lanaldiak egitea erabakitzen dute, gerora atsedean tarteak pilatu ahal izateko. Arazo hori aztertzeko edozein saiakera egiterakoan, argi dago kontu handia izan behar dela beren lanari atxikitako tentsioa arintzeko. Gauzak horrela, ezin uka daiteke horrelako ordutegiek gizarteratze lanetan parte hartzearen aurka egiten dutela, eta burokrazia besterik gabe betetzearen aldeko jarrerak bultzatzen dituela, formak gordetzearen aldeko jarrerak hain zuzen. Jarrera horiek ez dute inolako antzik trataera-lanetan konprometitzen diren gure espetxeetako beste langile batzuen dedikazio eta profesionaltasunarekin.

Elkarteek salatu ohi duten beste zailtasunetako bat askatasunik gabeko pertsonak prozesua garatzen ari den ingurutik urrun kokatzen den beste espetxe batzuetara lekualdatzea da. Horietako batzuek, gainera, erregimen irekia lortzeko benetako aukerak dituzte, gizarteratze prozesua sendotzeko. Beste kasu batzuetan, loturak eratzeko motibazio bakarra egoten da, espetxea gizatiarragoa bihurtuz, eta espetxeetako errealitateak gizarteratzearen ideiarekin dituen lotura ahulak sendotuz. Arazoa are larriagoa da, noski, atzerriko pertsonen kasuan. Haien babesgabetasun egoera handiagoa da adierazitako eragozpenaren alorrean. Prozesu asko eten egiten dira, ezinezkoa delako horiek posta bidez mantentzea.

Diziplinako zehapenak, halaber, oztopoa dira ere haien lanerako, pertsonen ibilbideetan sei hilabeteko etenaldiak ekartzen dituztelako (lekualdatzea ekartzen ez duten kasuan). Gizarteratzeari buruz seriozki hitz egin nahi bada, tratamenduko programek batzuetan tentsio eta beldurrezko inguruan bizirauteak sorrarazi dezakeen indarkeria izan behar dute kontuan, pertsonaren prozesu osoaren testuinguruan erregimena behin urratzen den kasua kontuan izatea posible izan dadin, eta, horren ondotik jardunez.

Gure epaitegietan baliogabetzen den zehapen kopurua altua da, egia esan. Aitzitik, beste batzuk ez dira aplikatzen, abokatuek ez dutelako horren berri, kontzientziarik ez dagoelako prebentzioko neurrien eta delituaren benetako arrazoien alorrean lan egitearen gainean, edo bereziki zurrinak diren irizpideak aplikatzeagatik. Azken horiek, askotan, beharrezkoa ez den sufrimendua besterik ez dute eragiten, eginiko lana eta esfortzua oztopatuz. Horren ondorioz, espetxean berriro sartu beharra etor daiteke eta, beraz, sendotutako prozesu batzuk apurtzea. Horixe uzten dute agerian orain dela gutxi ezagutu ahal izan ditugun kasu batzuek.

Labur adieraztearren, legeak ezarritako bestelako hautabideak badira, eta egun oraindik % 100ean erabiltzen ez diren baliabideak ere badaude. Ez erabiltzearen arrazoiak joera, borondate falta eta gaizki ulertutako ardura-printzipioa izango lirarteke. Izan ere, neurri horietan urratze arriskua ikusten da, baina ez da, ordea, espetxetik igarotakoen arteko berrerortze maila askoz ere handiagoa dela ikusi nahi. Gure ustez, erronka hiru faktoreren konbinaketa egokienak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzean dago: espetxeen alorreko eskumenak ahalik eta lasterren Autonomia Erkidegoari ematea, eta

hark –horrelakorik gertatzen ez den bitartean– ahalik eta kudeaketa-erantzukizunen kopuru handiena hartzea; elkarte sarearen lan garrantzitsua sustatzea, bai lan profesionala, bai boluntarioena, espetxeratutakoak gizarteratzea lor dezaten; azkenik, eragile juridiko ezberdinei egun zigorra betetzeko hautabideek eragiten dizkieten beldur eta joerak gainditzea. Izan ere, zigorra betetzeko bestelako modu horiek delitu askorentzako betetzeko modu ohikoa izatera iris daitezke, zigorraren prebentzio eraginkortasuna mantenduz, pertsonaren zehapen eta espetxe egoeraren ikuspegi osoa izatea ahalbidetzen dutelako eta espetxeetako erregimen itxiek eragindako gizarte bazterkeria ekiditen dutelako.

## 11. BERARIAZKO ARRETA GAITZ KRONIKOA DUTEN PERTSONEI

**Gaixo kronikoen** taldeak, hasiera batean, tratamendu edo zainketa sendagarri moduan ezagunak zaizkigunak ez diren beste batzuk eskatzen ditu.

Puntu horretatik abiatuz, behar zehatzak dituzten pertsonak topatuko ditugu. Horrela, bizi itxaropenak gorantz egiteak gaixotasun kroniko gehiago ekartzen ditu. Ondorioz, batez ere tratamendu aringarrietan oinarritutako eskariaren beharrea kokatzen gaitu, berez tratamendu sendagarriak izango liratekeen beharrea baino.

Burutik gaixo dauden pertsonen kasuan, adinekoen kasuarekin batera –horiek ere paper garrantzitsua dutelako gaixotasun kronikoetan–, helburu nagusia ere ez da haiek sendatzea, baizik eta zaintzea, autonomia sustatzea, hondatzea ekiditea... Euskal Autonomia Erkidegoan buruko gaixotasunari ospitaletatik kanpo ematen zaion tratamenduari buruzko ezohizko txostenean ere jaso zen behar hori.

Osasunaren alorrari dagokionez, zainketa aringarriak sustatzeko beharra azpimarratu da, pixkanakako gaixotasun itzulezinak dituzten gaixoei zuzenduak, haiek tratamendu sendagarri erantzuten ez dietenean. Behar hori Zainketa Aringarrietako Planean islatu da, Eusko Legebiltzarraren ez-legezko proposamen baten xede.

Bestalde, gaixotasun horiek kronikoak izatearen ondorioz hainbat behar agertzen dira, eta horiek Arreta Soziosanitariorako Plan Estrategikoan jaso dira, arreta hori beharko duten pertsonen taldea zehazterakoan.

Gaixotasun kronikoren bat duten pertsonak bizi dituzten egoera zehatzei dagokienez, Epidermiolisis Bullosaren Elkartek, ASEBI Arantza Bifidoaren eta Hidrozefaliaren BIZKAIA Elkartek eta fibromialgia eta neke kronikoko sindromea dutenenak aurkezturiko keak aipatu ditugu osasun arloari dagokion sarreran –horri heltzen diogu–.

Aurreko txosten batzuetan, HIESa duten gaixoen eskariak bildu izan ditugu, eta GIB eramaileek ebakuntza estetikoak lortzeko aukera proposatu izan zuten –tratamenduen bigarren mailako ondorioek eragindako deformazioen arazoa konpontzeko–, hazi garbiketako teknikarekin batera, ugalkortasun tratamenduei dagokienez. 2005eko txostenean adierazi genuen, azkenean, Osasun Sailaren aldeko erantzuna lortu zela, bi eskaerak sartzean. Aurten ez dugu gai horren inguruko kezarik jaso, beraz, prestazio horiek behar bezala bideratzen ari direla pentsatu behar dugu.



## **V. ATALA**

GIZA ESKUBIDEAK  
ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE  
ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK  
BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN  
HARREMANAK IZATEKO KULTURA  
SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN  
BESTE JARDUERA BATZUK





## **1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK**

### **1.1. TALDEEKIN, ELKARTEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO HARREMANAK**

2006. urtean ere, Ararteko erakundeak gizarte-eragileekiko harremanak lantzen jarraitu du. Bereziki, baztertuta dauden pertsonen laguntzen edo gizarte arazo askotarikoak konpontzen jarduten duten talde, elkarte eta erakundeekikoak. Honako taldeok dira: giza eskubideak babesteko taldeak, atzerritarrei, askatasunik gabe edo baztertuta daudenei laguntzekoak, gaixotasun jakin batzuk dituzten pertsonen senideak, etxebizitzarik gabeko pertsonak...

Aurreko txostenetan ere adierazi bezala, Arartekoarentzat eta beste erakunde bermatzaile batzuentzat, elkarreek eta talde antolatuek benetako gizarte antena gisa jardun dezakete: bestela oharkabean pasa daitezkeen arazoak eta egoerak detektatu eta ezagutarazi ahal izateko sentsoreak.

Urte hauetako esperientziak erakutsi duenez, elkarte eta talde asko gure gizartean baztertuta dauden edo bereziki zaurtu ahal diren sektoreen eta Arartekoaren eta antzeko erakundeen arteko funtsezko bitartekariak izan daitezke. Beraiek direla bitarteko, haiek hobeto ezagutu ahal dituzte beren eskubideak eta gatazkak konpontzeko bideak. Haiek beren aldarrikapenak adierazten lagundu ahal diete. Izan ere, haiek administrazioei hiritarrei zerbitzua arretaz egiteko eskatu ahal diete. Horrela, erakundeenganako konfiantza eta gizarte kohesio handiagoa ahalbide daiteke.

Gure erkidegoan talde, elkarte eta erakunde asko daude eta hori gizarte bizitasunaren seinalea da, baina, aldi berean, haiekin guztiekin lankidetzarako harreman egonkorrak edo izan nahi dituenarentzako erronka ere bada. Horregatik, gure kasuan eta mugak kontuan harturik, lankidetzarako gogo hori zenbait bide osagarriren bidez gauzatu da:

- aurretik harremanak genituen talde askorekin harremanetan jarraitzea, hori posible izan denean;
- beren arazoak eta proposamenak guri azaltzeko gogoaz azaldu duten edo Arartekoarekin bildu nahi dutela adierazi duten talde eta elkarteei baiezkoko ematea;
- harreman berriak finkatzen hastea, sektore bereziki ahulekin lan egiten duten talde jakin batzuekin edo une horretan aztertzen gabiltzan sektoreen arazoekin zerikusia dutenekin;

- antzeko interesak edo jarduera-eremuak (espetxeak, buru-gaixotasuna, inmigrazioa...) dituzten elkarten arteko koordinaziorako plataformak edo federazioak daudela aprobetxatzea.

Horrela, 2006an Ararteko erakundeak lankidetzeta-harreman biziak edo izan ditu hurrengo elkarte, erakunde edo gizarte-taldeekin:

- ACABE
- Ados, gizarte bitartekotza
- ADSIS-Bestalde
- AFADES (Alzheimer gaitza dutenen senideen elkarte)
- Agiantza
- AGIPASE (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte)
- Alarde Fundazioa
- Alargunak (alargunen elkarte)
- Aldarriketa
- Amarena
- Nazioarteko Amnistia
- APDEMA (Adimen-ezintasuna duten pertsonen aldeko Arabako elkarte)
- Arkupe Elkarte –Orio–
- Arazoak (Haur autisten gurasoen Arabako elkarte)
- Arrats
- Askabide
- Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarte
- Bizkarrezur Bifido eta Hidrozefaliaren Bizkaia Elkarte (ASEBI)
- Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarte – ACABE
- Presoei Laguntzako Elkarte (ADAP)
- Asociación de Epidermiolisis Bullosa de España (AEBE).
- Hegaldi emakumeen elkarte
- Aiarako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte
- Etxeko langileen Bizkaiko Elkarte – Etxe Barrukoak
- Martxoaren 3ko biktimen elkarte
- Sendoa Getxoko garraio elkarte
- Laguntzako txakurren Espainiako Elkarte - AEPA
- Droga Gehiegi Hartzea ikertzeko eta prebenitzeko Gipuzkoako Elkarte (AGI-PAD)
- Tratu txarrak jasandako emakumeen Gipuzkoako elkarte
- Irigoyen elkarte
- Juana Mugarrieta elkarte
- Loiolaetxea elkarte
- Lurberritua elkarte
- Kultur Ekimenak Sustatzeko Elkarte - TANGRAM
- Oztoporik gabeko Herritarrak Defendatzeko Elkarte
- Industri Ondarea elkarte
- AIZAN elkarte psikosoziala
- Biztanle Afroamerikarren Elkarte

- Torrolate elkarteak – Labastida –
- Hemofiliaren Euskal Elkarteak ASVAHE
- Buruko osasuneko euskal elkarteak
- Kontsumitzaileen elkarteak
- Giza eskubideen aldeko beste herri batzuetako elkarteak
- Torturaren aurkako elkarteak eta taldeak
- Hirigintza-planek, ingurumen-arazoen eta zerbitzu-sareko hutsek kaltetutako herritarren elkarteak eta erkidegoak: Arkupe elkarteak (Orio), Alde Berri eta Txabarri Garbi (Sestao), Berrasoeta (Urnietan), Andra-Mari (Getxo), Ibarako herri plataforma, Boga boga Donostia aldeko herri ekimena, Mairuko esplotazio turistikoaren kontrako herri kolektiboa, Haritzalde elkarte naturzalea eta Parkea bizirik Plataforma (Donostia), Torrolate (Labastida), Sendoa Getxoko garraio elkarteak...
- Hainbat ikastetxe publikotako ikasleen gurasoen elkarteak eta federakundeak
- ASPACE
- ATEA (Animaliak etikoki tratatzeko elkarteak)
- AVAIM (Tratu txarrak jasandako haurrei laguntzeko euskal elkarteak)
- AZRAF
- Beroa (Gipuzkoako harrera-familien elkarteak)
- Berriztu
- Besarka (Arabako harrera- eta adopzio-elkarteak)
- Beta
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bidegurutzea
- Bidesari – Kartzelako Pastoralta
- Bilbo-Etxezabal
- Bizitegi
- Lurralde guztietako Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuari laguntzeko Batzordea)
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Alonsotegiko Sasiburu jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak
- Hizkuntza-eskakizunik ez duten eta egonkortasun-erabakien eraginpean dauden irakasleak
- Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (COVITE)
- Gizarte Langileen Elkargo Ofiziala
- Lurraldeetako abokatuen elkargoak
- Inmigratzailearen Foroaren Hezkuntza Batzordea
- Hiru lurraldeetako HIESaren aurkako herritar batzordeak
- Bahá'í. Xami elkarteak
- Hainbat ikastetxetako eskola kontseiluak
- HIESaren aurkako elkartearen koordinakundeak
- Gipuzkoako Gurutze Gorria
- DEE
- Hainbat sindikatu, kolektibo eta lanbide-elkarteak
- Drari
- Eginaren eginez

- Ekimen
- Ekologistak martxan
- Elkarbanatuz
- Elkartu
- Emaús
- Ijitoekin harremana duten irakasleak
- Ijitoen Kontseiluko erakunde ijitoak
- Atxilotuta edo preso dauden pertsonen senideak, hainbat lekutakoak
- FEDEFES (Buruko Gaixoen Senideen Elkartearen Euskadiko Federakundea) eta federakunde horren barruko elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Ametzagaña Fundazioa
- Buruntza Fundazioa
- Etorkintza Fundazioa
- Fernando Buesa Fundazioa
- Hurkoa Fundazioa
- Izan Fundazioa – Gizakia Helburu
- Jiménez Becerril Fundazioa
- Leizaola Fundazioa
- Ojos del Mundo Fundazioa
- Arabako buruko gaixoen Babes Fundazioa
- Gorabide Babes Fundazioa
- Gao Lacho Drom
- Gaztaroan Ekin
- Gernika Gogoratuz
- Bakearen aldeko Koordinakundea
- Gizabidea
- Gizardatz (Bizkaiko Ekimenerako eta Gizartean Esku Hartzeko Erakundearen Elkartearen)
- Gizarterako
- Goiztiri
- Terrorismoaren indarkeriak osasunean duen eragina aztertzearen eraketaren taldea
- Hainbat ikastegi, fakultate eta eskolatarako ikasleen taldeak
- Gune ezberdinetako merkatarien taldeak
- Hainbat arazo dituzten ikastetxeetako guraso taldeak
- Beren herrietako arazoak ezagutzera emateko edo lankidetzaren egitarauaren barruan gure herria bisitatzen duten beste herri batzuetako pertsona taldeak
- Hondarribiko Alardeko talde parte-hartzaileak
- Gurewasi
- Haritzalde elkarte naturzalea
- Harresiak Apurtuz (Etorkinei laguntzeko GKEaren koordinakundea, honako hauek osatua: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, Munduko Medikua, Sutalur, Senegaldarren elkarte, Etorkinekin Bat, e.a.)
- Hartu-emanak (Etengabeko ikaskuntzarako eta gizarte partaidetzarako adineko pertsonen elkartearen)

- Hezilan
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Hontza (drogaren mendeko pertsoneri laguntzeko zentroa)
- Ibarako herri plataforma
- INGEMA (Matia Erakunde Gerontologikoa)
- Ekimen Ijitoa
- Lurraldeetako Birgizarteratze Institutuak (IRSE)
- Izangai
- Jaizkibel Konpainia
- Kalé dor Kayikó
- Kidetza
- Lagun Artean
- Landalan
- Lur gizen
- Munduko medikuak
- Mugarik gabeko Medikuak
- Mugarik gabe
- Nuevo Futuro
- Gazte Justiziaren Nazioarteko Behatokia
- ONCE
- Ostatu
- Parkea Bizirik plataforma
- Kartzelako Pastoralta
- Bizitza plataforma
- Pertsona atxilotuei laguntzeko taldeen plataforma
- Haurren elkarten plataforma (POI)
- Geugaz plataforma
- Martutene plataforma
- Txingudiko erraustegiaren aurkako medikuen plataforma
- Mutriku Gazte Asanblada plataforma
- Txingudi Bizirik plataforma
- Posada de los abrazos. Besarkaden ostata.
- Prestaturik: profesional atzerritarren elkarte
- Hainbat lekutako oinarritzko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Gizakia Helburu
- Komunitate indigenen ordezkariak
- Lurraldetako Salhaketa
- Save the Children
- Hezkuntza Zerbitzuak (berritzeguneak, hezkuntza bereziko zerbitzuak, udal zerbitzuak, Hezikidetza programa...)
- Sindikatuak eta sindikatu-atalak
- SOS - Muxika
- Lurraldeetako SOS-Arrazakeria
- T-4
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak

- Torturaren kontrako taldea (Santurtzi)
- Abokatuen elkargoen kartzeletako laguntzarako txandak (TAP)
- UNICEF-Euskadi
- Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna
- Zubietxe
- Zubiko

Kasu askotan (elkarteen eskabideetarako erantzuna, talde batekiko harremanak hastea edo koordinaguneak egotea) harremanak zuzenekoak izan dira eta topaketa edo bileraren bat ekarri dute, edo beraiek kudeaturiko zentro edo zerbitzu batera egindako bisita. Beste batzuetan, esate baterako, aurreko urteetan hasitako harremanek irautean edo kasu zehatza kudeatzean, haien iraupenak ez du beti bilera berririk ekarri; batzuetan nahiko izan dira ahozko edo idatzizko informazio-trukeak, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materialak edo agiriak bidaltzea...

Hortaz, modu batera edo beste batera, bide batzuk edo beste batzuk erabilirik, aipatutako mugak gorabehera, azken urtean taldeekin, elkarrekin edo erakundeekin lankidetzarako formula, material eta informazioen trukeak edo bilerak izan dira, hurrengo jarduera-eremuetan:

- gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsonen defentsa eta beraiantzako arretarako programak garatzea;
- ezgaitasunen bat duten pertsonen gizarteak ematen dion erantzuna;
- atzerritar jatorriko pertsona etorkinak gizarteratzea;
- ijito taldearen beharizan zehatzekiko planteamendua eta erantzuna;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonen eta beraien familiei laguntza eta arreta ematea;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea;
- pertsona atxilotuak kartzeletatik atera edo hurbiltzea lortzea;
- HIESa duten pertsonen laguntzea;
- terrorismoaren biktimentzako arreta edo haien eskubideen defentsa;
- hezkuntza-beharizan bereziei erantzutea;
- babesturik ez dauden eta legea urratzen duten adinez txikiak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea;
- giza eskubideak defendatzea eta beraien beste herri batzuetako bortxaketak salatzea;
- hezkuntzarako eskubidea defendatzea;
- hizkuntz eskubideak defendatzea eta euskara erabiltzea;
- droga-mendekotasunari buruzko arazoak dituzten pertsonen arreta ematea;
- hirugarren munduko herriak garatzen laguntzea eta haiekiko elkartasuna;
- etnia gutxiengoak eta bazterreko taldeak gizarteratzea;
- zona bereziki deprimietako gizarte kohesioa eta haiek suspertzea;
- bakezaletasuna eta gatazkak elkarriketa bidez konpontzea;
- emakumeen eskubideak babestea;
- tratatu txarrak prebenitzea eta tortura-egoerak salatzea;
- baztertutako eta famili laguntzarik gabeko pertsonenganako gizarte-osasuneko arreta;

- hainbat talde profesionalen defentsa;
- animaliak etikoki tratatzea;
- gune publikoetara sartzeko erraztasuna;
- gaixotasun ezberdinak dituzten pertsonen arreta edo defentsa;
- gizarte-bazterkeria larriko egoeren prebentzioa eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta;
- ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzeko baliabide berrien erabilera;
- testamentu legediaren aldaketa;
- problematika zehatz batzuen jarraipen sistematikoa;
- eskubideen urratzeak salatzea nazioarteko eremuan;
- ingurumena defendatzea;
- familiaren laguntzarik ez duten pertsonak babestea;
- memoria eta biktimen oroitzapena;
- arrazakeria eta diskriminazioa eragotzi eta salatzea;
- hirugarren adinekoek gizarte-bizitzan parte hartzea;
- haurren eskubideak;
- frankismoak errepresaliatutako pertsonen eskubideak babestea;
- proiektu edo jarduerak eragindako auzokide elkarten eskubideak;
- babesik gabeko nerabeak hartzea;
- justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta;

Zenbait kasutan, elkarrekin lankidetzako Ararteko erakundeak berak egindako lan monografiko batzuetan finkatu da eta haietan hasi zen, bere garaian.

Esate baterako, etxerik gabe edo larriki baztertuta dauden pertsonentzako arretari buruzko txostena egiteko, lankidetzan aritu behar izan dugu zerbitzuak (hala nola ostatuak, jantokiak edo gizarteratzeko tailerrak) kudeatzen dituzten elkarte edo erakunde gehienekin (Agiantza, Askabide, Elkarbanatuz, Bidesari, Bizitegi, Beta, Ostatu, Goiztiri, Zubietxe, Izangai, Cáritas, Lagun Artean, Emaús, RAIS, erlijio-kongregazio ezberdinak, etab.). Halaber, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari buruzko txostena egiteko, etengabe harremanak izan ditugu harrera-baliabideak kudeatzen dituzten edo adingabeok gizarteratzen laguntzen duten erakundeekin (Gurutze Gorria, Nuevo Mundo, Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak, Landalan, Salestarrak, Harresiak Apurtuz koordinakundea...).

Aurreko txostenei dagokienez, lankidetzako mota horrek, informazioa lortzeko eta guk zehazki aztertutako gaiari jarraitzeko askotan izan denak, eremu askotan iraun du urtean. Eremu horien artean honakook ditugu: buruko gaixotasunen arreta komunitarioa (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEFES...); kartzelan dauden pertsonentzako laguntza (ADSIS-Bestalde, Etorkintza, Izangai, Gizakia Helburu, Bilbo-Etxezabal, Kartzelako Pastoralta, Hegaldi...).

Beste batzuetan, elkarrekin harremanak elkarrekin antolatutako ekitaldietan edo foro zehatzetan batera parte hartzeari esker izan dira, edo kexa jakin batzuk tramitatzearen edo arazoren bat konpontzeko jardueraren kariaz, edo agiriak eta materialak elkarri trukatu.

Adibide gisa, laburki aipatu ahal ditugu Ararteko erakundeak lankidetzako marko honetan 2006an burututako zenbait jardueraren esanguratsua. Honela:

- Hainbat zerbitzu ikustera joan gara, edo elkarrizketak eta bilerak izan ditugu zerbitzu horietan lanean dabiltzan profesionalekin. Horiei esker aztertu ahal izan ditugu elkarteak eta administrazioen arteko zenbait hitzarmenen ezaugarriak, horiek lan-baldintzetan edo emandako zerbitzuaren jarraitasunean duten eragina, diru-laguntzak jasotzean izandako atzerapenen ondorioak edo laguntzok jasotzeko bermerik ez izatea... Horrek ofiziozko jarduera ezberdinak eta gomendio orokorrak eragin ditu, eta abiapuntutzat hartuko da gizartean parte hartzeko sektorearen lan-baldintzak aztertuko dituen hurrengo txostena egiteko.
- Hirigintzako plan eta jardueri eta berauen ingurumeneko eraginei eta ondorioei buruz jasotako kexa asko plataformetan antolatutako pertsonen taldeek, auzotarren elkarteek, jabeen erkidegoek, talde ekologistek eta abarrek eragin dituzte. Haietako batzuen berri emana dugu txosten honen hirigintza- eta ingurumen-arloei buruzko azpialetan.
- Inoren kargura ez dauden adingabeko atzerritarren harrera-zentroetara aldizka bisitak egin dira eta zentro horiek kudeatzen dituzten elkarteekin harremanetan egon gara, eta, horri esker, euren egoeraren jarraipena egin ahal izan dugu.
- Urtean egindako bisitetako askori esker (adibidez, baztertuta daudenentzako gaueko harrera-zentro edo zerbitzuetara, erreforma zentroetara, harrera zentroetara...) baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin harreman zuzena izaten da, egoeraren berri egunez egun izaten da, gure gomendioak betetzen dira, jarduera berriak bultzatzen dira...
- Erakunde honek lehenetsi egin ditu terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazioekin nahiz biktimekin beraiekin edo haien senideekin izandako harremanak. Elkartasuna erakusten eta babesa ematen saiatu da erakundea, deitutako ekitaldietan parte hartu du eta haiengandik hurbil dagoela erakutsi du. Era berean, etorkizunean txosten bat egiteko ere balio izango du.
- Presoei laguntzeko elkarte askorekin harremanak izan ditugu aldizka. Horrek aldez ordeztu du espetxeetara zuzenean sartu ezina. Horrela, datuak elkarri trukatu ahal izan dizkiogu, eta ofiziozko jarduera edo borondate oneko kudeaketa batzuk abiarazi ahal izan ditugu.
- Harremanak izan ditugu hainbat talde bakezalerekin, gatazketan bitartekari gisa ari diren elkarteekin eta ikastetxeekin. Haiek bultzatuta, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bakerako hezkuntzari buruzko proposamen orokorra aurkeztu zion, eta proposamena garatzeko ekarpen eta bultzada bezala, giza eskubideetan hezteko eskolan erabiltzeko ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetzak-bekatarako deialdia egin zuen. Era berean, "Haurren Legea"ri buruzko herriz herriko erakusketa antolatu du, edo giza eskubideei buruzko eskola-lanen II. Lehiaketa.
- Laguntza-elkarte batzuek salaketak egin dituzte gai hauen gainean: atzerritar jatorriko pertsonak atxilotzea edo kanporatzeko agindua, jasotako polizi tratua, erroldatzeko arazoak, atzerritarren herri enplegurako deialdi edo enplegu horren eskaintza batzuetatik baztertzeko baldintzak edo hedabideetan zenbait berri tratatzeko modua. Salaketa horiek mota ezberdineko jarduerak ahalbidetu dituzte: eskudun agintaritzaren aurreko bitartekotzak eta kudeaketak, kexak tramitatzea, ofiziozko jarduerak, berriazko gomendioak...



Batzuetan, elkarteekin izandako harremanak haien funtzionamendu-arazoak jasotzeko ere balio izan du: oztopoak aurkitzen dituzte beren lana burutzeko, beraien arteko koordinaziorako mekanismoak eta lankidetzaren egonkorrerako bideak finkatzeko, beren programekin jarraitzeko, erakundeekiko topaguneak izateko, erakunde-planetan, egitarauetan edo arauetan parte hartu edo ekarpenak helarazteko... Aurreko txostenetan gai horiei buruz ari izan gara, proposamenak egin edo zenbait ekimen nabarmendu ditugularik: diru-laguntzak urtero gainditzea, elkarte-erakundeen baterako foroak ezartzea, hala nola, etorkinak gizarteratzeko Foroa, Sasoikakotasunari buruzko erakundearteko Mahaia eta ijito-herriaren partaidetzarako Kontseilua, Boluntarioei buruzko Legea; alde bakoitzaren lankidetzaren hitzarmenetako erantzukizunak argitzea, ...

Erakunde honen iritziz, antolatutako gizarte zibilaren eta herri zerbitzuen eta administrazioen arteko lankidetzaren sustatu eta horretarako laguntza eman behar da, dauden baliabideak hobeto erabiltzeko. Gizarte-eragileek aktiboki hartu behar dute parte. Hala ere, erakundeek herritarrei zerbitzuak egiteko erantzukizunak hartu behar dituzte eta askotan egokitzen zaien buruzagitzaren berenganatu. Ildo horretatik, 2001eko txostenean gomendio orokor bat egin zen, askotan elkarteek kudeatzen dituzten talde ahulentzako zerbitzuak sortzeko erakunde-buruzagitzari buruz. Urteotako esperientziak (herrietan zentro edo zerbitzu berriak zabaltzeko dauden zailtasunak) berriro ere agerian jarri du oso garrantzitsua eta beharrezkoa dela aipatutako gomendioan egin ziren proposamenak kontuan hartzea.

Bestalde, hainbat zerbitzutan egindako ikustaldietan, edo bileretan edo jasotako kexetan, oraindik konpondu gabe dauden arazoak egiaztatu ditugu berriz, esate baterako, diru-laguntzen deialdi batzuk ebatzian atzerapenak egon direla. Horrek egoera larri eta zailtan jarri dituzte elkarteak nahiz abian zeuden egitarauak, eta oso eragin kaltegarria izan du, ez elkarteetan bakarrik, baizik eta, batez ere, elkarteok laguntzen dituzten herritar eta taldeengan.

Kontuan hartu behar da gizarte arloan lanean dabiltzan elkarteak izaten direla askotan. Elkarte horiek bereziki bazterturik bizi diren pertsonen arreta eskaintzeko egitarauak burutzen dituzte, sarritan bestela egongo ez lirakekeen edo nahikoak ez diren baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, erakundeek erantzukizun nabarmena duten arreta-eremuetan jarduten dute, eta administrazioen beren gabeziak betetzen dituzte. Hortaz, arrazoizkoa omen da beharrezko laguntza guztia eta beren programetarako berme handiagoa lortzea.

Ildo horretan, Arartekoak, ofiziozko espedienteen bidez elkarte askotan eragin handia izan zuten 2003 eta 2004. urteetako deialdiei buruzko datu objektiboak bildu eta gero, txosten bat prestatu zuen iaz, eta bertan izenburu hau zuen gomendia egin zuen: "Eremu sozialean lan egiten duten elkarteetarako erakunde laguntzako bideak eta prozedurak hobetu beharra".

Hori eta hemen bildutako beste gai batzuk sakonago aztertu nahi ditugu gure hurrengo txosten berezian. Txosten horretan, batik bat gizarte ekintzako hirugarren sektorearen lana zein baldintzatan egiten den aztertuko da (ikus txosten honetako III. kapitulua).

## 1.2. ARARTEKOAK EMATEN DITUEN IKERKETA BEKAK ETA ARARTEKOAREN ARGITALPENAK

2006an, lehendik eman ziren **ikerketa aplikatuko** zenbait **bekaren** inguruko lanekin jarraitu da eta 2006an onartutako bekari dagozkionei hasiera eman zaie:

- IRSEri emandakoa ia-ia amaituta dago. Horren bidez, EAEn finkatutako magrebarren artean dauden gutxiengoek bizitza kultural propioa eta erlijio propioa izateko eta beren hizkuntza propioa erabiltzeko dituzten eskubideez baliatzeko egun dituzten aukerak aztertzen ari dira.
- Ikasle etorkinak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman integratzeari buruzko azterlana egiteko Jesús Manuel Septiáni emandakoa aurreikusitako epean amaitu zen eta, berrikusi eta itzuli ostean, argitaratu eta banatu egin da. Lan horrekin Juan San Martín izeneko bildumari eman zaio hasiera, lehen Arartekoaren ohorez.
- Faktore sozioekonomiko jakin batzuek osasunean duten eragina aztertzeko eta, zehatzago, lan egiten duten eta, era berean, beste pertsona batzuk zaintzen dituzten emakumeen osasun egoera ikertzeko Amaia Bacigaluperi emandakoa aurreikusitako lan faseak behar bezala betetzen ari da eta laster amaituko da.

2005-2006 aldian beka eman zitzaion Inmaculada Mújicari, “Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi” izenburupean; une honetan, bidean da.

Bestalde, abian jarritako ikerketa-bekei dagokienez, aipatu behar da Beatriz Sicilia bekadunak amaitu zuela oinarrizko eskubideek EBeko konstituzio itunaren proiektuan duten isla ikertzeko lana eta jada argitaratu dela.

2003-2004ko ikerketa-beka lortu zuen Alaia Olartek ere bukatu du bere proiektua, komunitatearen onurarako lanak egiteko zigorraren ingurukoa; hori ere argitaratu da dagoeneko.

Iker Gorriño bekadunaren lana, une honetan bidean dena, EAEn Erkidegoz kanpoko inmigrazioari erakundeek ematen dioten erantzunari buruzkoa da.

Bestalde, José Zarauz 2005-2006 aldian emandako beka prestatzen ari da, “La naturaleza y régimen legal del padrón y los efectos que tiene el empadronamiento en la situación y derechos de las personas extranjeras” izenburupean. Lan hori laster amaituko da.

2006-2007 ekitaldirako, ikerketa-beken ildoari amaiera ematea erabaki da eta ikerketa aplikatuko bi beka iragarri dira; txosten hau amaitzeaz gaudela, bi beka horiek esleitze fasean daude.

Halaber, beharrezkoa da aipatzea 2006an hainbat argitalpen egin direla.

Horrela, Padre Francisco de Vitoria giza eskubideen bilduman bi lan argitaratu dira, aipatu bezala, amaitutako bi ikerketa-bekarekin erlazionatutakoak.

- Aiala Olartek bilduma horretako 9. liburukia argitaratu du, honako izenburu honekin: “Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad”.

- Bestalde, Beatriz Siciliak bilduma horretako 10. liburukia argitaratu du, honako izenburu honekin: “Derechos fundamentales y Constitución europea”.

Bestalde, aipatu dugun bezala, bilduma berria zabaldu da, “Juan San Martín” izanekoa; bilduma honen lehen liburukia Jesús Manuel Septiénen lana da: “Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban”.

Amaitzeko, “Giza eskubideei buruzko jardunaldiak” izeneko bildumako 8. argitalpena aipatu behar dugu, “Lana XXI. mendean: etorkizuneko aukerak” izenburupean; bertan, EHUko udako ikastaroetan izenburu berarekin egin zen udako ikastaroko ponentziak eta komunikazioak biltzen dira.

### 1.3. **DERECHOS CIUDADANOS DERITZAN ARARTEKO AUTONOMIKOEN ALDIZKARI BERRIA**

Arartekoak eta oinarrizko eskubideak babesteko gainontzeko ordezkari autonomikoez (Andaluziako Herriaren Defendatzailea, Kataluniako Síndic de Greuges, Galiziako Valedor do Pobo, Kanarietako Diputado del Común, Aragoiko Justicia, Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges, Gaztela eta Leongo Procurador del Común, Nafarroako Arartekoa, Gaztela-Mantxako Herriaren Defendatzailea eta Asturiaseko Procuradora del Común) iaz aldizkari berri bat aurkeztu genuen lehenbizikoz, *Derechos Ciudadanos* hain zuzen, gure erakundeen barruan azterketa eta ikerketa bultzatu eta gure arteko koordinazioa sustatzeko asmoz sortua.

*Derechos ciudadanos* aldizkariarekin, ararteko autonomikook adierazpen plataforma bat izan nahi dugu, datuak, iritziak, adituen eta espezialisten gogoetak zabaltzeko bide emango diguna, gure gizartean eragina duten gai eta arazoetan eztabaida eta parte-hartzea sustatzeko, baita gure gogoetak eta jarduerak modu eraginkorragoan ezagutarazteko ere. Gainera, gure ustez, argitalpen honek erraztu egingo du gure arteko eta gure lankideen arteko elkarriketa herritarrak gehien kezkatzen dituzten arazo nagusien gainean.

*Derechos ciudadanos* urtean behin ateratzen da eta zenbaki bakoitzean monografia moduan eta sakonki aztertzen da defendatzea dagokigun eskubideei neurri handi batean eragiten dien arazo bat.

Aldizkariaren lehen ale honen izenburua “El impacto social y medioambiental de la actividad urbanística” da.

Hirigintza-garapeneko egungo ereduak sortzen dituen arazo sozialek eta ingurumenekoek kezka eragin dute lurralde eremu guztietako herri defendatzaileen artean.

Hori dela eta, *Derechos ciudadanos* aldizkariaren bigarren alearen edukian islatu da herritarren bizi kalitatea eta beren eskubide konstituzionala kaltetzen duen egoeraren inguruan erakunde horiek duten iritzia.

Argitalpenak egungo hirigintzaren errealitatearen inguruan Bernardo del Rosalek, Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges ohiak, duen iritzia jasotzen du artikulu luze batean, baita Ramón Folchen artikulu bat ere, “El urbanismo, agente ambiental” izenburupean. Orobat, beste artikulu, txosten eta ebazpen batzuk biltzen ditu; horiek garbi uzten dute zein den gure erakundeen jardun ildo hirigintzaren eta ingurumenaren arloan.

Hirigintzako jarduerak duen eragin soziala eta ingurumenekoa 2006ko urriaren 16tik 18ra Leonen egin ziren Herri Defendatzaileak Koordinatzeko azken Jardunaldietan ere aztertu eta hausnartu zen. Eztabaida horietan hartu zuten parte Espainiako Herri Defendatzaileak eta erakunde autonomikoetako titularrek, horien artean, Asturiasko Prokuradore Nagusia den María Antonia Fernández Felguerosok eta Errioxako Herri Defendatzailea den María Bueyo Díez Jalónnek, autonomi erkidego hauetan erakunde orain dela gutxi sortu baita.

Koordinazioko XXI. Jardunaldietako tailerretako gomendioak ere argitalpen horretan bildu dira.

Azkenik, hirugarren atalean, aldizkariaren xede ez diren beste arlo batzuetan gure erakundeek gauzatutako txosten, ebazpen eta ekimenak jasotzen dira; horiek defendatzaileen jarduerak hurbilgotik ezagutzea ahalbidetuko dute.

Era berean, erakunde guztiek batera garatu dituzten eta interesgarriak izan daitezkeen jarduerak aipatzen dira.

Ale honekin, beraz, hirigintzako jarduerak eta horrek gizartean eta ingurumenean duen eraginak piztu dutenaren moduko eztabaida interesgarrian parte hartu nahi da, herritarren eskubideak bermatzearen ikuspegitik.

#### **1.4. UPV/EHUko UDAKO IKASTAROETAKO JARDUNALDIAK: “ARARTEKOA, XXI. MENDEKO OMBUDSMANA”**

1997tik aurrera, Ararteko erakundeak jardunaldiak antolatzen ditu UPV/EHUko Udako Ikastaroen baitan. Bertan, giza eskubideak aztertzen eta eztabaidatzen dira. Beste urte batzuetan bezala, aurten ere giza eskubideen eremu zabala jorratu nahi izan da, neurri bateko gaurkotasuna duen ikuspegitik.

Hamargarren jardunaldi hauek erakundearen idazkari nagusiak, Faustino López de Forondak, eta UPV/EHUko katedraduna den Gurutz Jauregik zuzendu zituzten. Aukeratutako gaia honakoa izan zen: “Arartekoa: XXI. mendeko ombudsmána”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak orain dela hogeita bost urte baino gehiago sartu zuen Ombudsmanaren irudia euskal erakundearen sarean, Konstituzioak sortutako Herri Defendatzailearen irudiari jarraiki. Halaber, 20 urte baino gehiago igaro dira otsailaren 27ko 3/1985 Legeak sortu eta arautu zuenetik adierazitako irudi hori, eta 15 urte baino gehiago, berriz, martxan jarri eta funtzionatzen hasi zenetik. Hori dela eta, XXI. mende hasiera hau egokia da euskal gizartearen eskubideak bermatzearen ardura duen erakunde honen paperaren gainean hausnarketa egiteko.

Oinarrizko ideia honakoa izan zen: kalitatezko demokrazian beharrezkoa da administrazioen jarduna kontrolatuko duten erakundeak izatea, biztanleen eskubideak bermatuko dituzten erakundeak izatea, alegia.

Ararteko erakundeak Administrazioarekin berarekin, herritarrekin, eta justizi administrazioarekin duen harremana aztertu zen, interesgarritzat jotako beste gai batzuk jorratzearekin batera.

Legeak mota horretako erakundeei onartzen dizkien baliabide eta ahalmenak alderatu ziren, Ararteko erakundea baliabide eraginkorra bihurtuko duten aldarazpen posibleak baloratzeko. Horrela, erakundeak aurre egin beharreko erronka berriei erantzun ahal izango die.

Jardunaldiak hiru egunetan zehar burutu ziren eta beste hainbat alde aztertzea ahalbidetzen zuten hiru ardatz nagusiren inguruan aritu ziren: herri defendatzaileen erakundeetako ordezkariak eginiko azterketa, GKE ezberdinen ordezkarien bidez antolatutako gizarte zibilaren ikuspegia, giza eskubideen defentsan konpromisoak hartzen dituzten elkarte eta pertsonak, eta, azkenik, ikuspegi akademikoa, unibertsitateko hiru irakasle adituren hitzaldiei esker.

Horrela, herri defendatzaileen ikuspegitik bertatik, egungo arartekoak eta bi ararteko ohiek, Xabier Markiegik eta Mertxe Agundezek, gai honen inguruko gogoeta egin zuten: “Arartekoaren iragana, oraina eta etorkizuna”.

Bestalde, herri defendatzaile den Enrique Múgicak hurrengo gai honi buruz hitz egin zuen: “Herri defendatzaileen bilakaera etorkizunari begira”.

Halaber, Iñigo Lamarca arartekoak eta Faustino Lopez de Foronda idazkari nagusiak honako izenburu hau zuen hitzaldia eman zuten: “Arartekoa, Euskadiko Ombudsmána, XXI. mendearen hastapenetan”.

Gainera, hiru mahai-ingurutik abiatuz, beste hainbat gai interesgarri jorratu zen.

Cataluniako *síndic de greugesak*, Rafael Ribók, Valentziako Erkidegoko *síndic de greuges* ohiak, Emilia Caballerok, eta Galiziako *valedor do poboaren* izenean aritu zen Fernando de Andrések hurrengo gai honi buruz hitz egin zuten: “Erkidegoetako ombudsmanak autonomien Estatuaren garapenean”.

Bestalde, herri andaluziarraren defendatzaileak, José Chamizok, Aragoiko justiziak, Fernando García, eta Kanarietako diputatu komunak, Manuel Alcaidek, hurrengo gai hau izan zuten hizpide: “Erkidegoetako Ombudsmanak babes gabeko gizataldeen defendatzaile”.

Azkenik, erakundeen ikuspegi horretatik abiatuz, “Ombudsmana gizarte estatuaren aldaketaren aurrean. Erronka berriak” izenburuko mahai-ingurua egin zen. Bertan, herri defendatzailea den Enrique Múgicak, Nafarroako herri defendatzaileak, M<sup>a</sup> Jesús Arandak, eta Gaztela-Mantxako herri defendatzaileak, Henar Merinok, hartu zuten parte.

Bigarren ikuspegi batetik aztertuta, gizarte zibilarenetik hain zuzen, bi mahai-inguru egin ziren; bata, gaztelaniaz eta, bestea, euskaraz. Izenburua berdina zen: “Ararteko erakundea: gizartearen ikuspuntua. Nola ikusten da arartekoa? Zer eskatzen zaio arartekoari”.

Lehenengo mahai-inguruan Burutik Gaixo Daudenen eta Haien Senideen Elkarteko (AVIFES) Begoñe Ariñok, Ingurumen aditua den Antxon Olabek, Munduko Medikuek erakundeko Celina Peredak eta Arabako Hiesaren Kontrako Batzordeko Miguel Ángel Ruizek hartu zuten parte.

Bigarren mahai-inguruan, euskarazkoa eta izenburu berdinekoan, Hizkuntz Eskubi-deen Behatokiko Paul Bilbao, Salhaketako kide den Jaime Elías, mugimendu feministaren ordezkari den Bego Muruaga eta Arantza Urretabizkaia idazlea aritu ziren.

Azkenik, ikuspegi akademikoago batetik, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko irakaslea den Marc Carrillo aritu zen. Hark hitzaldi zehatza eman zuen honako izenburuarekin: “Ombudsmana pertsonen eskubideak bermatzen dituen erakunde bezala. Eskualdeetako defendatzaileen papera”.

Madrilgo Rey Juan Carlos Unibertsitateko irakasle den María Pérez-Ugenak hitzaldi interesgarria eman zuen izenburu honekin: “Ombudsman erakundearen konparazio oharrak”.

Azkenik, Sevillako Pablo de Olabide Unibertsitateko irakasle den Antonio Porrasek mintzaldi interesgarria eskaini zuen “Ombudsmanaren erakundea burokraziak eta administrazio publikoek neurritz gaineko boterea duten demokrazian” gaiaren inguruan.

Hitzaldi eta adierazpen guztiak “Giza eskubideei buruzko jardunaldiak” bilduman argitaratuko dira laster.

## 2. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDERATUTAKO JARDUERAK

### 2.1. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XXI. JARDUNALDIAK

Erkidegoetako defendatzaileen eta ordezkarien harremanen oinarrian koordinazio eta lankidetzaren printzipioak daude. Hori dela eta, harreman estua mantentzen da urte osoan zehar ohiko jardueren ganean. Horrez gain, ordea, koordinazioko jardunaldiak interes komuneko gaietara buruzko eztabaida-foroa dira.

2006an, Koordinaziorako XXI. Jardunaldiak egin ziren Leonen, urriaren 15, 16, 17 eta 18an. Jardunaldiak Gaztela eta Leongo herri defendatzaileak antolatu zituen.

Jardunaldi hauetako gai nagusia honakoa izan zen: *“Hirigintza-jardueraren gizarte eta ingurumen inpaktua”*.

Aurretik azterketarako tailerrak egin ziren gai horrekin uztarturiko gaien ganean, eta horien ondorioak jardunaldi hauen baitan eztabaidatu ziren. Tailerretako bat Aragoiko Justiziari koordinaturikoa izan zen. Albarracinen egin zen izenburu honekin: *“Hirigintza eta Ingurumena”*. Bigarren tailer baten gaia *“Hirigintza eta etxebizitza”* izan zen, eta La Palmako Santa Cruzen egin zen, Diputatu Komunaren koordinaziopean. Hirugarren tailerra Tuteran egin zen, Nafarroako Herri Defendatzailearen koordinaziopean. Bertan, *“Hirigintzaren gizarte inpaktua”* aztertu zen.

Tailer horien esparruan garatutako lanak ondorenean adieraziko diren gomendio zehatzak onartzea ahalbidetu zuen:

#### **ETXEBIZITZA**

##### ***Etxebizitzaren gizarte inpaktua***

- Etxebizitza babesteko politikak ez oinarritzea bakarrik etxebizitza berria eta jabetzazkoa eskuratzean. Alokairuko etxebizitza sozialerako politika gehiago sustatzea, eta etxebizitza hutsak erabiltzearen, egungo etxebizitza parkea hondatzea ekiditearen eta birgaitzea ahalbidetzearen alde eginez esku hartzeko aukerak aztertzea. Batez ere birgaitze behar dira babesgabetu taldeek okupatzen dituztenak.
- Esku-hartze publikoko plan integralak garatu eta sustatzea, hondatutako auzoak, bat-batean hazitako kanpoaldeko auzoak eta biztanle baztertuak bakarrik utzitako etxebizitza sozialeko gune ezagunak birstortzeko. Horretarako, finantzaketa zehatza eta nahikoa eman beharko zaie, eta jarduteko nahiz prebenitzeko neurriak hartuko beharko dira.
- Esku-hartze publikoko plan integralak garatu eta sustatzea, alde zaharrak eta gune historikoak birgaitzeko, ahal den neurrian zonalde horietako biztanleak beren inguruetan jarraitzea ahalbidetuz.
- Ghetto berriak eta babes bereziko taldeei bakarrik zuzenduriko etxebizitza babestuko auzoak eraiki daitezkeen ekiditea.
- Neurri bateko bolumena duten udalerriek etxebizitzako udal plana egin dezatela gomendatzea, Erkidegoko planarekin edo Estatuko planarekin koordinatuz. Horren bidez, biztanleen bizitoki beharrei aurre egiteko modua zehaztuko da epe ertainera eta epe luzera.



- Etxebizitza-motak ahalik eta ugarienak izatea, eta BOE programa zabalagoak eta unibertsalagoak garatzea, babes bereziko taldeei zuzendurikoak lehentasunez, baina, aldi berean, etxebizitzako merkatu librean sartzeko benetako aukerarik ez duten herritar guztiei zuzendurikoak, gazteei bereziki. Horrela, gizarte kohesioa eta integrazioa erraztuko lirateke.

### ***Lurzoru erreserbak***

- Babes publikora atxikitako etxebizitzak egiteko lurzoru erreserbak ezar daitezela.
- Planifikatzaileak lurzoru erreserbak eratzeko, zabaltzeko eta mantentzeko aurrekontuak aurreikus ditzala, legeak ezarritako ehunekoak gutxienez ezarritakoa direla kontuan hartuta.
- Lurralde aniztasunerako irizpideak ezar daitezela, aurreikusitako jarduerak hasi eta amaitzeko epeak zehatz daitezela, eta, horiek betetzen ez diren kasurako, neurri hertsatzaileak ezar daitezela. Horrela, etxebizitza babestuen eraikitzekeo lurzoru erreserbetarako eginiko arau ezarpenak eraginkorrak izango dira eta beren azken xedea lortuko dute.
- Kontrol neurriak ahalik eta zorrotzenak izan daitezela, ondare publikoko lurzorua beste xede batzuetarako izatea ekiditeko.

### ***Toki sakabanaketa***

- Erabilera nagusiak ez diren beste batzuetarako lurzoru erreserbak bermatzeko, hiri aniztasuneko indizea plangintzako baliabideetan sartzeta ezartzea legean.
- Babes publikoko etxebizitzak eraikitzekeo erreserbak tokian pilatzea ekidinez ezarriko direla bermatzea, hirigintzako araudian ezarpen hori sartuz eta horixe errespetatuz hirigintza-planak egiterakoan.
- Hirigintza-planek haztaperen koefizienteak ezartzeko aukera araudian jasotzea, horien bidez babes publikoko sustaperen bakoitzeko gehieneko salmenta prezioaren eta etxebizitza hutsen gutxi gorabeherako salmenta prezioaren arteko aldea behar bezala jasotzeko.
- Administrazio publikoek ez-etxeen aurka borrokatzekeo bideratutako proiektuetatik ordezeko bitokia ematekeo prozesuak eratorri dira. Horietan sakabanaketa geografikoaren printzipioari errespetua izango zaiola bermatu behar da, prozedura bakoitzean helburu hori behar bezala beteko dela baloratuz.

### ***Ohiko etxebizitza desjabetzea***

- Desjabetzearen balioa desjabetutako etxebizitzaren antzeko ezaugarriak izango dituen etxebizitza batek merkatuan duen balioarekin bat etortzea. Horrela, prezioa zehaztu arte edo ordezeko etxebizitza esleitu arte etxebizitzarik gabe geratzea ekiditeko, beharrezkoak diren mekanismo legal egokiak ezarri behar dira.
- Interesdunek etxebizitza berriak erosteko erabakia hartzen badute –horien gaineko lehentasunetzko eskubidea izan beharko lukete–, eta haiei Planaren burutze prozesu osoan aurretik existitzen ziren beren etxebizitzak kentzen bazaizkie, antzeko ezaugarriak dituen etxebizitza batean sartzeko aukera izango dute. Horretarako, behar izango balira, banakako jarduerak garatuko lirateke. Une oro atxikitako etxebizitzaren jabeek etxebizitza duinaz gozatzeko eskubidea izango dutela bermatuko da.

### ***Etxebizitza babestuak esleitzeko prozedura***

- Araudiak, orain arte eta autonomi erkidego batzuetan, agertutako joerarekin jarraitzea: etxebizitza babestuko eskatzaileen erregistro bakarra sortzea, sustapen pribatuko esparrua barne, esleipen prozesuen kontrolerako baliabide moduan.
- Prozedura horien tutoretzarako edo aurretiko administrazio kontrolerako eredu zehatzak arautzea. Besteak beste, zozketa-sistema sartu beharko litzateke, sustatzaile pribatuek etxebizitzak erregistro publikoetan izena emanda dauden pertsoneri esleitzen dizkietela bermatzeko, aukera-berdintasuna errespetatuz.

### ***Etxebizitzako parke publikoaren ondarea mantentzea***

- Gogoratu behar da alokairu erregimenean lagatako etxebizitzaren gaineko jabetza-eskubidearen titularrak diren administrazio edo enpresa publiko ezberdinek horiei dagozkien eskubide guztiak, edota sinatu ahal izan diren lagapen kontratuetatik eratorritakoak, erabili behar dituztela. Horren bidez, etxebizitzak behar bezala erabili, kontserbatu eta mantenduko direla bermatuko da.
- Alokairu erregimenean esleitutako administrazioaren jabetzako etxebizitzaren ghettoak eratzea ekiditen saiatzea, higiezin berdin batean edo higiezin multzoetan babes publikoko eredu ezberdinak sartzeko esleipen formula berriak aplikatuz.
- Birgaitze integraleko proiektuak sustatzea, beste administrazio publiko batzuekin hitzarmenak sinatuz. Horien xedea hondatutako zonaldeak erabat birgaitzea izango da, esku-hartzearen lehentasuna titulartasun publikoko etxebizitza-ehuneko altuko sektoreei emanez.

### ***Ezarrita dagoena baino lehen kalifikazio kentzea***

- Babes publikoko erregimen ezberdinetara atxikitako etxebizitzari ezarrita dagoena baino lehen kalifikazioa kentzea galarazteko, epeak zabaltzeko joera islatzen jarraitzea araudian.
- Babes publikoari atxikitako etxebizitzari ezarrita dagoena baino lehen kalifikazioa kentzeko kasuak, baldintzak, exijentziak eta epeak araudi bidez zehazteko aukera azter dadila, horri dagokion lege prozedura ere garatuz. Modu horretan egun antzeman daitekeen arbitrariotasun arriskua ekidingo da, eta administrazioaren eta hiritarren arteko harremanen oinarrian agertu behar den segurtasun juridikoko eta berdintasuneko printzipioak bermatuko dira.

### ***Inmigrazioa eta etxebizitza***

- Etorkinak etxebizitzaren alorreko sistema publikoan sartzeko aukera modu eraginkorrean eta benetakoan arau dadila, jarduteko eremu guztietan.

## **ANTOLAMENDUA**

### ***Toki mailaren gainetiko antolamendua***

- Izaera integraleko lurralde antolamenduko plan zuzentzaileak luzapen gehiagorik gabe onar daitezela erreklamatzeko. Horiek autonomi erkidegoek onartu behar dituzte. Xedea garapen iraunkorra eta lurraldearen okupazio egokia bermatzea da.
- Organo legegile eta administratiboek estandar kuantitatiboak zehazten saia daitezela. Horien bidez lurralde eta hirigintza antolamendutik sortzen den bizi kalitatearen

maila baloratu ahal izango da, bai antolamendu bakoitza onartzen denean, bai ondorenean gauzatzen denean.

- Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduaren alorreko organo eskudunak zorroztasun handienarekin jardun dezala, biztanle multzoen arrazoizko hazkuntzarekin bat ez datozen hirigintzako garapenak ekiditeko. Halaber, proposatzen den horietako bakoitza erabat beharrezkoa izan dadila eta ezarpenaren ondorio ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak xehetasun osoz azter daitezela.
- Lurralde inpaktu integraleko derrigorrezko txostenak orokorrean eska daitezela sustatzea, hiri antolamenduko plan orokorrak onartu aurretik, eta planeamenduan aldarazpenak jazotzen diren bakoitzean.

### ***Toki mailako antolamendua***

- Hiri antolamenduko plan orokorretan iraunkortasunaren filosofia sar dadila, lurralde antolamenduko planekin koherentzia gordeko dutela bermatuz.
- Hiri antolamenduko plan guztiak plan estrategiko batean oinarri daitezela gomendatzea.
- Zaratak ingurumena kaltetzen duela dioen nozioa zabaltzea, hiri antolamenduan erabileren eta jardueren kokapen irizpideak zehazterakoan.
- Hirigintzako garapen berrien plangintzak auzo berriak izango dituen zerbitzu publikoen azpiegitura eta zuzkidura guztien aurreikuspena jasotzea, dagokion denbora-plangintza eta aurreikuspen ekonomikoa barne. Horretarako, kokapenak arrazoitu beharko dira, eta horietara iristeko berdintasuna bermatu.
- Irisgarritasun unibertsaleko eta guztientzako diseinuko estrategiak sustatzea.
- Hiriak espazioan izango duen hazkuntza demografikoaren benetako beharretara eta iraunkortasun irizpideetara egokitzea: ingurumen, gizarte, ekonomi iraunkortasuna eta abar. Horrela, hirigunea beharrik gabe hazi eta zabaltzea galaraziko da, ohiko auzoak hustu eta hondatzea ekiditearekin batera.
- Barreiatu hiri eredua orokor bihurtzearen joeraren aurrean, administrazio eskudunek hiri trinko mediterranearraren eredua berreskuratzea susta dezatela, dentsitate gehieneko eta gutxieneko mugekin. Horiek jarraitasun formala, funtzio anitzekoa, heterogeneoa eta anitza izango dute, hiriaren gizarte, ekonomi eta ingurumen iraunkortasunerako eredu egokien moduan.

### **GARDENTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**

- Herritarrek legezko interesik egiaztatu beharrik izan gabe, administrazioaren esku dagoen hirigintzako informazio guztia eskatzeko duten eskubidea bermatzea eta hirigintzako datuak libreki eskuratzeko salbuespenak mugatzea.
- Hiri antolamenduko planaren idazketa teknikoari ekin aurretik, parte-hartze zuzeneko prozesua martxan jartzea gomendatzea, modu horretan hiritar multzo ezberdinen beharrak eta itxaropenak ezagutu, eta hiri eratzeko prozesuan parte-hartze aktiboaren alde egiteko. Prozesu horren bidez, bereziki beharrezkotzat jotzen da helburu zehatzak aztertu eta ezartzea, generoaren eta adinaren ikuspegietatik abiatuz.
- Hiri antolamenduko planak behar bezala zabaltzen direla bermatzea, informazio neurri aktiboak eta pasiboak hartuta (sarea, liburuxkak, DVDak, jendaurreko aurkezpena, etab.), eta berariazko informazio bulegoa abian jarrita.

- Legez kanpoko eraikuntzek dakartzaten gizarte eta ingurumen kalteen gaineko informazio kanpainak susta daitezela, hiritarren artean araei eta inguruneari izan beharreko errespetua areagotzeko.

### **UDALERRIEN ESKUMENAK ETA BALIABIDEAK**

- Udalen finantzaketa-sistema berrikustea, udalen diru-sarrera nagusien iturria hirigintzaren hain menpe egotea galarazteko.
- Udal guztiek beharrezkoak dituzten baliabide teknikoak –gaituak eta askeak– izango dituztela bermatzea, beren eskumenak modu egokian kudea ahal izan ditzaten. Horretarako, administrazio publikoen arteko lankidetzeta-formulak erabili beharko dira.

### **LEGEAREN ETA HIRIGINTZAKO DIZIPLINAREN GAINEKO KONTROLA**

- Autonomi erkidegoei gogoraraztea beren eskumenak erabiltzera derrigortuta daudela, udalen balizko hirigintza arau-hausteetan esku hartzeko, eta alor horretan administrazio publiko batzuen aldetik gaur arte agerian geratu den pasibotasuna eta eskumenak alde batera uzteko joera salatzeko.
- Hirigintzako legaltasuna kontrolatzeko erantzukizuna duten administrazio publikoek ikuskapeneko, tutoretzako eta hirigintzako legaltasunaren defentsarako erantzukizunei aurre egin diezaietela, autonomi erkidegoen aldetiko subrogazioa areagotuz, toki erakundeen pasibotasunaren edo baliabidegabeziaren aurrean.
- Administrazio publikoei gogoraraztea beren betebeharra dela agintari judizialei eskatzea zuhurtziaz eten ditzatela interes orokorrari erasotzen dioten hirigintzako jardunak, legez kanpoko jarduerak itzulezinak izan daitezzen saihesteko.
- Hirigintzako delituen jazarpena hain arlo komplexuan espezializatuta dauden fiskalen esku gera dadin gomendatzea.
- Hirigintza- eta eraikuntza-prozesuetan esku hartzen duten beste agente batzuen aldetiko lankidetzeta lor dadila. Laguntza hori oso garrantzitsua izan daiteke, salaturiko egoerak ekidin ahal izateko: notarioak; erregistratzaileak; ur, elektrizitate eta telefono enpresari dagozkion hornitzaileak, etab.
- Jabetzaren Erregistroak ematen dituen aukerak aprobetxatzea, erregistroko finken ingurumen mugen alorrean (Erregistroaren kokapen fisikoa). Aukera posibletzat hartu behar da 9/2005 Errege Dekretuak irekitako bidea, ez bakarrik kutsatutako lurzoruren batek kalifikazio hori duela jakinarazteko, baizik eta ingurumenaren gaineko beste kontu batzuen berri emateko, esate baterako, zarata-maila edo kearen toxikotasun maila, eta industrialdeek inguruko lursailetan eginiko isurketak, instalazio arriskutsuak –zentral nuklearrak–, baso suteek hondatutako zonaldeak, uholdeak.

### **INGURUMENA**

#### ***Ur baliabideak eta hirigintzaren garapena***

- Plangintza hidrologikoan eta hirigintzaren garapenean koordinazio hobea lortze aldera, hirigintzako antolamenduko baliabideak onartu aurretik, xehetasun osoz azter daitezela toki horietarako aurreikusitako ur erabilera osagarriak ingurumenari

ekarriko dizkion ondorioak zeintzuk izango diren. Horretarako, egungo erabilere gain, onartutako antolamendua duten garapenetatik eratorriko direnak ere aztertu beharko dira.

### ***Ibaien eremuaren babesa jarduera inbaditzaileen aurrean***

- Onarpenera atxikitako hirigintzako antolamenduko baliabideek uholdeak jasan ditzaketen zonaldeei izan beharreko errespetua izaten ari zaiela ikuska dezatela, nekazaritzarako edo uholdeak izan ditzakeen zonalde bakoitzaren arrisku mailaren arabera beste erabilera bateragarri batzuetarako ez den beste edozertarako okupatzea galaraziz. Horrela, ez dira babes eskaera berriak eratuko, horiek arazo bat konpondu arren, egoera orokorra larritzen dutelako.
- Ibaien eremuan jarduera erasotzaileen gainean egin beharreko ingurumen txostenetan, horiek udalerrien babes eremua gainditzen badute, irizpide hertsatzailea har dezatela, eta beren erabakia balora dezatela uraren eta hari atxikitako ekosistemen maila ekologiko egokia gordetzeko parametroak erabiliz.
- Kasu bakoitzean sistema egokienak ezar daitezela, eraikitako saneamendu eta araztegi instalazioak martxan jartzeko eta horiei jarritako ingurumen funtzioa behar bezala betetzeko.

### ***Hiriko mugikortasuna eta kutsadura***

- Mugikortasun planak egin daitezzen sustatzea.
- Herritarren mugikortasuna hobetzeko eta kutsadura indizeak txikitzeko, udalerrietan sistema egokiena ezartzeko aukerak azter daitezela, bizikleta bidezko garraioa modu seguruan egingo dela bermatzeko.

### ***Zarata***

- Botere publikoek hirigintzako araudiak eremu zehatz batean baimendutako erabilera ezberdinak onarturiko zarata-mailetara egokituko direla berma dezatela, zorroztasun berezia aplikatuz bizitegitarako zonaldeetan, eta hezkuntza eta osasun zerbitzuetakoetan. Zorroztasun horretan bereziki izan behar da kontuan jardueren irekitze ordutegia zein den.
- Lokal zaratatsuak pilatuko diren zonaldeak sortzea galarazi behar da, eta jada sendoturiko zonalde zaratatsuegien ondorio kaltegarriak zuzendu behar dira. Horretarako, neurri legalak edo erregelamendu bidez ezarritakoak erabili beharko dira, inguruabarren arabera zehaztasuna (proportzionaltasuna) izanez.
- Toki administrazioek gehiago erabil dezatela legeak ematen dien aukera, probintzia edo erkidego mailako organoen lankidetzak eskatzeko, eta haiek, halaber, laguntza areagotu dezatela, jardueren gaineko kontrola behar bezala izateko. Kontrol hori administrazioek antolaturiko jardueretara ere zabaldu behar da.
- Herri Defendatzaileak Estatuko Gobernuari eska diezaiola gehieneko emisio eta inmisio mailak ezar ditzala, ingurumenaren alorreko oinarritzko araudia ezartzeko eskumena erabiliz (Konstituzioaren 149.1.23 artikulua), eta, zehazki, 37/2003 Legearen adierazitako 12.1 artikulua erabiliz. Hori guztia autonomi erkidego ezberdinek beren araudi propioetan adosturiko babes arau osagarrien kaltetan izan gabe garatuko da.
- Zarataren Legearen garapen arautzailea arindu dezatela, bertan ezarritako baliabideak eginez, bereziki: zarata-mapak eta jarduteko planak. Horrela, onarpenetik

eratorritako ondorioak ahalik eta lasterren antzemango dituzte arazoa jasan behar duten herritarrek.

- Autonomia Erkidegoak arau egokiak egin ditzala, legeak aztertzen ez dituen zarata arazoak konpontzen saiatzeko; eta administrazio guztiek zorrotasun handiagoz erabil ditzatela egun dituzten eskumenak. Horrek, dudarik gabe, herritarrek jasaten duten zarata-maila gutxituko du.
- Establezimendu publikoek eragindako zarataren arazoa konpontzen laguntzeko, jarraikako zarata eta ordutegi kontrolak izateko sistemak derrigorrean izateko baldintza jartzea, eremu osorako ezarpenen bidez, toki ordenantzen bidez, edo jarduera edo irekitze lizentzien bidez.
- Bilera lokalak beharrezkoa den maila arautzailearekin arau daitezela, udalaren esku-hartzea eraginkorra izan dadin, bertaratzen direnen segurtasuna eta tokiaren osasungarritasuna ziurtatzerakoan, eta inguruko auzotarrentzako eragozpenik ez dagoela baieztatzerakoan.
- Administrazioaren arduradunei gomendatzea, Zarataren Legeak eskura jarritako baliabideekin batera, beren eskumeneko arlo ezberdinak azter ditzatela, kutsadura akustikoa gutxitzen laguntzeko. Horrekin batera, beren ardurapean dauden zerbituetan sar ditzaketen hobekuntzak azter ditzatela gomendatzea.

### **Telefonia mugikorreko antenak**

- Horrelako instalazioek eragiten duten gizarte alarma ekidite aldera, komenigarria da horrelakoak bereziki sentikorra den biztanle multzoa bizi den zonaldeetatik urruntzea, adibidez, ikastetxe edo ospitaleetatik urruntzea.
- Garai batean baimendu ziren instalazioak mugen eta eska daitezkeen baldintzen barruan kokatzen direla ziurtatzea beharrezkoa da, eta, horretarako, ikuskapenak maiz egin behar direla azpimarratu behar da.

### **LANDA ESPARRUA**

- Landa-esparruetako bizitza tradizionaleko ereduak gordetzea, herritar horiek gainerakoen eskubide berdinak dituztela bermatuz, eta hiriguneetako herritarrek jasotzen dituzten oinarrizko zerbitzu berdinak eskuratuko dituztela ziurtatuz antzeko kostuarekin.
- Toki mailako erakunde atxikien eta autonomi erkidegoen arteko koordinazioa bultzatuz, eta azken horien menpeko diren erakundeen artean, abeltzaintzako ustia-tegiak arautzera zuzenduriko neurriak areagotu daitezela. Horretarako, eragindako pertsoneri beharrezkoak dituzten diru-laguntzak emango zaizkie. Horrela, animaliak hiriguneetatik ateratzea azkartu behar da, arrazoi horren ondorioz antzematen diren arazo higienikoak eta osasungarritasunekoak ekiditeko.

Halaber, eta XXI. Jardunaldi horien emaitza moduan, honako **deklarazio bate-ratua** onartu zen:

*“Gaur egungo hirigintzaren eta etxebizitzaren egoerak gizarte arazo larriak ekarri ditu. Arazoek herritarren bizitza-kalitateari eta eskubide konstituzionalei eragiten diete, batik bat. Etxebizitzaren garestitzea, familien zorpetze neurrigabea*

*eta gizarteko kolektibo askok etxebizitza duina izateko dituzten arazoak dira horietako arazo batzuk.*

*Horrekin batera, gure lurraldearen ingurumen balioak nabarmenki kaltetzen ari direla ikus daiteke, eta, lurzorua eta etxebizitzaren esparruan, hori ez litzateke gertatuko egungo hirigintza-ereduengatik izango ez balitz.*

*Horren guztiaren aurrean, herri defendatzaileek ulertzen dute botere publikoek arreta handiagoa jarri behar diotela zenbait balio konstituzional bultzatzeari eta bermatzeari, hala nola, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubideari, ingurumena babesteari edo ondare historikoa babesteari.*

*Administrazio publikoen egitekoek ondorengo jarduera-ardatz hauei jarraitu behar diete:*

1. HIRIGINTZAREN LEGITIMITATE DEMOKRATIKOA BULTZATU; “sustatzaileen hirigintzatik herritarren hirigintzara igaro behar da”.
2. HERRITARREN GARDENTASUNA ETA PARTE-HARTZEA AREAGOTU HIRIEN PLANGINTZA ETA ETORKIZUNA SORTZEKO ETA GARATZEKO LANEAN.
3. HERRITARREN INTERES OROKORREN AURKAKO JARDUEREN AURREAN BEREHALA ESKU HARTU ETA KONTROL NEURRIAK ETA HIRIGINTZAKO DIZIPLINA NEURRIAK SENDOTU; BATEZ ERE, KAUTELAZKO ETENDURA NEURRIAK ERABILIKO DIRA.
4. BEHAR DIREN NEURRIAK HARTU UDALEK DITUZTEN ESKUMEN UGARIEN ETA BITARTEKO TEKNIKO ESKASEN ARTEKO DESOREKA ZUZENTZEKO.
5. LURZORUAREN ETA ETXEBIZITZAREN POLITIKAN EGUNGO ARAU ESPARRUAK BAIMENTZEN DITUEN BITARTEKOAK ERABILI, esaterako, babestutako etxebizitzak sustatzea, etxeko parke publikoko ondarea zaintzea eta egoki artatzea, gure udalerrietako hirigune historikoak eta periferiak osoki birgaitzea eta alokairuan etxebizitza bat izateko aukeran lagunduko duten politikak bultzatzea.

*Proposamen horiei dagokienez, herri defendatzaileek konpromisoa agertu dute lehentasunezko arreta emateko administrazio publikoek proposamenak era eraginkorrean aplikatzen dituztela bultzatzeko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko.*

*Leon, 2006ko urriaren 18a”*

Halaber, ohikoa den moduan, jardunaldi horien esparruan Hiritarren Eskubideen V. Foroa egin zen. Kasu hartan *autonomia pertsonalaren sustapena eta norbaiten laguntza behar duten pertsonen arretaren* gaiari buruzkoa izan zen. Hitzaldia Estatuko Herri Defendatzailea den Enrique Mújica Herzog jaunak eman zuen.

## 2.2. EUOPAR BATASUNeko ESTATU KIDEETAKO ESKUALDEETAKO HERRI DEFENDATZAILEEN V. MINTEGIA

Azaroaren 20 eta 21ean Europar Batasuneko Estatu Kideetako Eskualdeetako Herri Defendatzaileen V. Mintegia egin zen Londresen. V. mintegi hori Ingalaterrako Toki Administrazioarako Batzordeak eta Europako Herri Defendatzaileak antolatu zuten batera, eta Europar Batasuneko herrialde ezberdinetako eskualdeetako herri defendatzaileak bertaratu ziren: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Italia eta Erresuma Batua.

“Administrazio egokiaren alde eta Europar Batasuneko herritarren eskubideen babeserako batera lan eginez” izenburupean, mintegian parte hartu zutenek gaurkotasunekoak eta Ombudsmanen erakundeentzat interes handienekoak diren hainbat gai jorratu zituzten bi egunetan.

Lehenengo egunean, Zuzenbide Europarrak Estatu kideetan duen aplikazioaren gaia jorratu zen lehen saio batean. Horrela, pertsonen mugimendu askearekin uztarturiko gai ezberdinak aztertu ondoren, Europako araudiaren gaineko informazioa modu jorian helarazteko garrantzia azpimarratu zen. Horretarako, Herri Defendatzaileen Sare Europarra erabiliko litzateke.

Lehen egun hartako bigarren saioan Herri Defendatzailearen lan aktiboaren gaia aztertu zen, administrazio egokiaren sustapenean. Europako eskualdeetako herri defendatzaile batzuk alor horretan izandako esperientzia praktikoak azaldu zituzten. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Nafarroako Herri Defendatzaileak, María Jesús Arandak, eginiko ponentzia: “Administrazio jardunbide egokiaren kodeak”.

Bigarren egunean Herriaren defendatzaileak erreklamazioak kudeatzean duen erreakzioa aztertu zen. Horrela, gizarte talde ahulek aurkezturiko erreklamazio horiek izapidetzetik eratorritako arazoa azpimarratu zen.

Mintegia P. Nikiforos Diamandouros Europako Herri Defendatzailearen ponentziarekin amaitu zen. Hark Ombudsmanen erakunde guztien arteko lankidetzeta hobetzeko beharra azpimarratu zuen. Horretarako, hainbat ekimen proposatu zituen, Herri Defendatzaileen Sare Europarraren esparruan sustapen moduan erabil daitezten.



## 2.3. OMBUDSMANAREN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN (OIF) XI. BILTZARRA ETA BATZAR OROKORRA

2006ko azaroaren 28, 29 eta 30ean eta abenduaren 1ean, Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XI. Biltzarra eta V. Batzar Orokorra egin ziren Buenos Aires hirian (Argentina).

Biltzar horrek esparrua eratu zuen “Giza eskubideen defendatzaileen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak” gaiari eskainitako nazioarteko mintegiarentzat. Horren inguruan, taula ezberdinak egin ziren, honako izenburu hauekin:

- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen (EESK) Printzipio orokorrak. Estatuak horien sustapenean, babesean eta betetzean duen erantzukizuna.
- EESKarekin lotura duten nazioarteko baliabide nagusiak eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen Hautazko Protokoloa.
- EESKaren paperaren gaineko printzipio orokorrak, eta esku hartzen duten erakundeen erantzukizuna.
- EESKak nola ezarri. Moduak eta Ereduak. Defentsa eta bestelako bide juridikoak.
- EESKen erronka eta helmen berriak.
- EESKak epaitzeko aukera eta Lege Babesa.

2006an eginiko urteroko Batzarrean, OIFaren Giza Eskubideen gaineko urteko txostena aurkeztu zen. Kasu hartan osasunari eskainitakoa izan zen.

Bestalde, saioaren gai zerrendarako aurretik adosturiko puntuak eztabaidatu ziren. Horien artean, kide berriak sartzeko eskaerak aztertzea zegoen. Kasu hartan, aho batez onartu zen orain dela gutxi sortutako Asturiaseko Printzerriaren Prokuradoretza Nagusiari sartzeko uztea. Ordezkaritza titularra Maria Antonia Fernández Felgueroso andrea da.

Halaber, aurkezpenari dagokion puntua azpimarratu behar dugu. Ondorenean laburtuko duguna, hain zuzen.

### **Emakumeen Defendatzaile Sarea**

Sarearen Deklarazioa azaldu zen. Bertan, OIFak jaso beharreko gomendio eta iradokizunak biltzen dira. Bereziki garrantzitsua da emakumeen salerosketa-egoerak ager ditzaketen foro guztiak salatzea zuzendurikoa. Egoera izugarri hori eskualdeko herrialde ezberdinetan ikus daiteke eta, orokorrean, giza eskubideen aurkako eta, zehazki, emakumeen aurkako indarkeria kriminalenetako eredia da.

### **EUROsozial-Justizia Programa**

Europar Batasunaren lankidetzeta-programa honen helburu eta xedeen berri eman zen, Federazioko defendatzaile ezberdinek une horretara arte onartutako esperientziatrukerako proiektuekin batera.

## **Garapen Lankidetzarako Ekimen Zentroa (CICODE)**

Alcalako Unibertsitatearen menpeko zentro bat da. Lankidetzaren esparruan eta OIFa eratzen duten defentsa-erakunde ezberdinekin garatutako jarduera ezberdinen berri eman zen.

## **Fondo Berezia Latinoamerikako eta Karibeko Ombudsmanentzat eta Giza Eskubideen Erakunde Nazionalentzat**

Garatzen ari ziren lankidetzaren proiektuen eta etorkizunean garatzea aurreikusi zirenen berri eman zen.

## **Gazteen Erakunde Iberoamerikarra**

Gobernu anitzeko izaera duen nazioarteko gazte erakunde honen helburu eta xedeak berri eman zen. Iberoamerikako Estatu eta Gobernu Buruen Gailurraren esparruan sortu zen, elkarriketa, adostasuna eta lankidetzaren sustatzeko, Iberoamerikako herrialdeetako gazteen alorrean. Erakunde horrek interesa agertu zuen OIFaren Lankidetzaren Hitzarmena sinatzeko.

## **Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa**

Erakundearen, OIFaren eta CICODEren artean sinaturiko Adostasun Gutunaren berri eman zuen, giza eskubideak sustatu eta hedatzeko, eskualdeko herriaren defendatzaileekin lan egiten duten funtzionarioak prestatu eta gaitzeko programen bidez. Xedea Nazio Batuetako giza eskubideen babeserako mekanismoek adierazitako nazioarteko gomendioak betetzen direla bermatzea da.

## **Espainiako Herri Defendatzailea**

*Giza Eskubideen Espainiako Erregea Sariaren Bigarren Edizioaren* garapenaren berri eman zuen. Guatemalako Myrna Mack Fundazioari eman zaio, eskubideen zapalketa eta bere herrialdeko jardunbide kriminalek erakundearen aldetik jasotzen duten zigor eza salatze lan ezin hobea garatu duelako. Halaber, aipamen bereziak eman zaizkie Kolonbiako “lekuz aldarazitako emakumeen liga” kandidatek eta baita Mexikoko “Miguel Agustín Pro Juárez Giza Eskubideen Zentroari” ere, merezimenduak egin dituelako, eta konpromiso sozial tinkoa eta parte-hartze aktiboa erakutsi duelako, giza eskubideak defendatu eta sustatzerakoan.

2007an Espainiako Herri Defendatzailearen Erakundea martxan jarri zenetik hogeita bost urte beteko dira. Urteurren hori ospatzeko, hainbat ekintza antolatzen ari zirela jakinarazi zuen.

## **2.4. ARARTEKOAREN ETA GASTEIZKO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN EDO SINDIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Gasteizko Udala aitzindaria izan da Euskal Autonomia Erkidegoan, toki mailako defendatzailearen irudia sortzean. Hari Gasteizko Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa deitu zaio.

Sindikoa “*herritarrek Gasteizko udal administrazioarekin jardutean dituzten eskubideen defendatzailea*” da, 2001eko irailaren 25ean onartutako Herritarren Sindikoaren araudiak dioen moduan. Hori dela eta, Ararteko erakundea eta Sindikoarena bat datoz Gasteizko hiritarren defentsan, udalak duen jardunbidearen aurrean.

Erakundeen artean harreman ona dagoenez, eta Gasteizko Udalaren jardun administratiboa ikuskatu eta kontrolatzeko funtzioetan bat gatozenez, beharrezkoa zen bi erakundeen arteko lankidetzaz-ildoak antolatzea ahalbidetuko duen baliabideren bat ezartzea, herritarren eskubideen onurarako. Horretarako, 2006ko irailaren 18an, honako hitzarmen hau sinatu zen:

### **“ARARTEKOAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN EDO SINDIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Vitoria-Gasteizen, 2006ko irailaren 18an.

#### **BILDU DIRA:**

*Batetik, Iñigo Lamarca Iturbe jauna, Arartekoa, eta, bestetik, Javier Otaola Bajeneta, Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa.*

*Bi alderdiek ordezkatzan dituzten erakundeetako arauak ematen dizkieten eskumenei jarraiki jarduten dute.*

#### **ATARIKOA:**

*Bizikidetzako gure eredu demokratikoaren funtsezko oinarrietako bat pertsonen eskubideak eta askatasunak errespetatzea eta bermatzea da. Hori dela-eta, ez da nahikoa eskubide horiek aintzatestea; aitzitik, beharrezkoa da horiek babestu eta erabiltzeko bide eta tresna instituzionalak artikulatzea.*

*Berme horiek ezinbestekoak dira hiritarren eta administrazio publikoen arteko harremanen esparruan, administrazio jardunak berak etengabeko eragina baitu arau bidez aintzatetsitako eskubideen eremuan eta haiek erregulatzen dituzten arauak berak ere konplexuak baitira.*

*Hori dela-eta, beharrezkoa da bideak sortzea hiritarren eskubideak modu eraginkorrean babestu ahal izateko, administrazio jarduna gainbegiratu eta kontrolatzeko lanen bidez.*

*Honen ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 15. artikulua hiritarren eskubideak babesteko erakunde barneratzen du, Espainiako Konstituzioan herriaren defentsariaren irudia sortzen duen 54. artikulua jarritako ereduari jarraiki. Estatutuan egiten den aurreikuspen hori Ararteko erakunde sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean gauzatzen da.*

*Bestalde, 2001eko irailaren 28an, Vitoria-Gasteizko Udaleko Osokoak, autoantolaketarako bere eskumena aplikatuta, behin betiko onetsi zuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren araudia.*

*Zioen azalpenean adierazten denaren arabera, "Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa erantsita, gehitu egiten dira Vitoria-Gasteizko Udaleko hiritarren partaidetzarako tresnak eta hiritarrei aintzatetsitako eskubideak eta askatasunak babesteko sistema osatzen duen organoa sortzen da".*

*Hitzarmen honen bidez, bi erakundeen artean lankidetzaz hitzarmenak artikulatu nahi dira, Vitoria-Gasteizko hiritarren eskubideen mesederako izan daitezten. Horri jarraiki, bi alderdiek lankidetzarako honako oinarri hauek ezartzea erabaki dute.*

### **LEHENENGOA:**

*Arartekoak eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak elkarrekin lankidetzan aritzeko eta elkarri laguntzeko nahia azaldu dute, beren zereginak modurik eraginkorrean betetzeko. Horretarako, agintzen dute, hitzarmen honen esparruan, hiritarren eskubideen babesa hobetzeko egokienak diren eta eskura dituzten teknikak eta bitartekoak sustatuko dituztela.*

### **BIGARRENA:**

*Arartekoak eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak harreman estua izango dute, dagozkien eskumenez baliatuta, hiritarren eskubideak modu eraginkorrean babesten direla ziurtatzeko. Harreman horietan honako printzipio orokor hauek izango dira nagusi: lankidetzaz, laguntza, koordinazioa, baliabide publikoen erabilera eraginkorra eta leialtasun instituzionala.*

### **HIRUGARRENA:**

*Arartekoaren eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren arteko harremanek horietako bakoitzaren independentziarekiko errespetua eta eman zaizkien eginkizunen betearazpena dituzte oinarri.*

*Ez dago ez hierarkiazko ez menpekotasun organiko edo funtzionaleko harremanik elkarren artean.*

### **LAUGARRENA:**

*Bi erakundeek hitzematzen dute hiritarren nahia errespetatuko dutela Arartekoari edo Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileari edo Sindikoari Vitoria-Gasteizko Udalaren jardunetako baten aurkako kexa edo erreklamazioa aurkezteko beren erabakian.*

*Pertsonaren batek kexa bera bi erakundeei aurkezteko badie, koordinazio formula egokiak hitzartuko dira jardunen bikoiztasuna ekiditeko.*

### **BOSGARRENA:**

*Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak hitzematzen du Arartekoari bidaliko dizkiola jasotzen dituen kexak edo erreklamazioak, baldin eta horiek administrazio publikoekin zerikusia badute eta ez badira bere eskumenekoak, Arartekoaren jarduera esparrukoak baizik.*

*Arartekoak bere esku-hartzearen bukaerako emaitza bidaliko dio Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileari edo Sindikoari.*

### **SEIGARRENA:**

*Arartekoak eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak honakoak egiteko konpromisoa hartzen dute:*

- 1. Hainbat arlotan lankidetzan aritzeko, besteak beste, prestakuntzan, aholkularitzan, dokumentuzko euskarri eredu eta beren aplikazio informatikoen erabileran, beren jardunen datu-base publikoetarako sarbidean eta txosten eta argitalpenen trukaketan.*
- 2. Vitoria-Gasteizko Udalari buruzko kexekin zerikusia duten kontuen berri emateko eta horiei dagokienez hartutako ebazpenak jakinarazteko, dagozkion lege bermeak errespetatuta.*
- 3. Aldian behin bi erakundeen arteko bilerak egiteko, dagozkien eginkizunen gauzatzea harmonizatze aldera.*
- 4. Vitoria-Gasteizko Udalaren aurka jasotako kexen hileko zerrenda bidaltzeko, bere jardunetan bikoiztasun posibleak ongitze aldera.*

*Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta halaxe jarraituko du, alderdietakoren batek honen amaiera berariaz iragarri ezean, gutxienez hogeita hamar egun lehenago.”*

### 3. ARARTEKO ERAKUNDEAREN BESTELAKO JARDUERAK

Berezkoenak dituen jarduerak egiteaz edo legeak ezarritako funtzioak betetzeaz gain, Ararteko erakundeak oso izaera ezberdineko jarduera-kopuru garrantzitsua garatzen du urte osoan zehar. Gizarte talde ezberdinek antolaturiko jarduera edo ekimenetan eta erakundeek antolaturikoetan egoten da, hedabideetan parte hartzen du eta ponentziak ere eskaintzen ditu. Azken horiek giza eskubideen gainekoak izan ohi dira eta foro ezberdinetan ematen dira. Halaber, beren eskubideetan zapalketak izan ditzaketen hiritarrak ordezkatzeko dituzten taldeek antolaturiko ekintzetan parte-hartze solidarioa izaten du.

Xehetasunetan galdu nahi gabe, arrazoi batengatik edo bestearengatik urteroko txosten honetan agertzea egokitzat jotzen ditugun jarduera batzuk azpimarratuko dira:

- Martxoaren 9a: Save the Children erakundeak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen seme-alaben egoera aztertu zuen txostenaren aurkezpena egin zuen, Vitoria-Gasteizko Montehermoso jauregian.
- Arartekoak Arabako ikasle etorkinen eskolatzearen gainean ikerketa egiteko emaniko bekaren ondotik etorritako liburuaren aurkezpena egin zen. Liburua Jesús Manuel Septiñek eginikoa da, eta izenburu hau du: “*Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*”.
- Maiatzaren 3a: Arartekoak espetxeetako buru osasunaren gaineko jardunaldi batzuetan parte hartu zuen. Madril.
- Iraila: Arartekoak Bizkaia eta Gipuzkoako abokatu elkargoek antolaturiko jardunaldi batzuetan parte hartu zuen. Gaia EAEko espetxeetako egoera eta bertan espetxeratutakoena zen. Bilbo eta Donostia
- Urriaren 1a: Arartekoa Gutxitasun Fisikoa Duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak antolaturiko maratoi erdian egon zen. Bilbo.
- Urriaren 3a: Arartekoak hitzaldia eman zuen Durangon, Erdi Aroko gizarte europarrean zegoen heriotza-zigorraren gainean.
- Azaroaren 9a: Javier Elzoren liburuaren aurkezpena: *Los jóvenes y la felicidad*. Bilbo.
- Herri Administrazioen Ministerioak zerbitzu publikoen kalitateari ematen dizkion Herritartasun Sarian epaimahaikide moduan parte hartu zuen.
- Abenduaren 13a: Arartekoak ONCEk Santa Luzia ospatzeko urtero antolatzen duen senidetasan bazkarian parte hartu zuen. Bilbo.

## **VI. ATALA**

### ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN





## 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Kapitulu honetan, Ararteko erakundearen jarduera aztertuko dugu zenbakitan. Beraz, hurrengo orrialde hauetan honako gaiak bildu ditugu xehetasun osoz: eragin-dako administrazioetako bakoitzari dagozkion kexen gaineko zifrak, aipatutako kexak lurraldeka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan aurkitzen diren. Analisi soziologikoak, besteak beste, erreklamatzeko modua, erabilitako hizkuntza eta erreklamatazailen adina eta jatorria adieraziko dizkigu. Halaber, arreta zuzena eskaintzen duten hiru bulegoen jarduera ere zehatz-mehatz xehatuko dugu. Kopuru horien inguruko xehetasunak estatistikako kapitulu honetan jaso dira, baina, ondoren, hiru alderdi aipatzen ditugu, laburpen gisa: erakundeak eskaintzen dituen arreta eta informazioari esker, haren eta herritarren artean sortzen den harremana; erakundearen eraginkortasun maila; eta erreklamatazailiek Arartekoaren esku-hartzeaz egiten duten balorazioa.

2006. urtean zehar 4.092 kontsulta izan ziren, erakundearengana telefonoz zuzendu diren zein gure bulegoetara bertaratu diren pertsonenak. Arartekoaren arreta zuzeneko hiru bulegoetan 2.585 bisita egin dira. Jasotako bisita guztietatik 645 kexa burutu dira, hau da, % 24,95. Datu honek garbi uzten du zeinen garrantzitsua den zuzeneko arretarako bulegoetan aurretik egiten den lana, horiek ez baitituzte onartzen Arartekoak, hainbat arrazoi direla medio, ikertu ezingo dituen erreklamazioak. Gainera, Internet ere finkatu egin da herritarrek erreklamazioa aurkezteko dituzten bitartekoen artean. 2006. urtean, kexen % 31,58 erakundearen web orriaren bitartez heldu zaizkigu.

2006an, herritarrek guztira 1.678 erreklamazio aurkeztu dizkiote Arartekoari. Horietatik % 11,32 talderen batek aurkeztu du. Gainera, ofiziozko 64 espedienteri eman zaie hasiera.

2006. urtean bertan erabat izapidetu diren kexei dagokionez, 396 kasutan okerreko jarduerak atzeman dira, hau da, aztertu diren kexen % 36,84n. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak zuzendu ahal izan zituen, okerreko jardueraren bat agertu zuten erreklamazioen % 95,15en. Gainera, kasu gehienetan (% 98,1) ez zen beharrezkoa izan gomendiorik egitea. Hortaz, erakundearen eraginkortasun-maila oso ona dela ikus daiteke.

Erakunde honen jarduera baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkestak emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso edo nahiko positibotzat jotzen da (galdera-sorta erantzuten dutenen % 85,02ren ustez). Euren arazoa konponduta ikusterik ezin izan duten edo aurkako emaitza jaso dutenen pertsonen ere balorazio oso positiboa egin dute (% 76,38). Erakunde honetara jo duten pertsona gehienek, % 85,07k, adierazi dutenez, beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko liekete administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

Arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia azpimarratu dugu, bulegoetan ez direlako onartzen hainbat arrazoiengatik Arartekoak ikertu ezin dituen kasuak. Horregatik, 2004ko urtarriletik gure bulegoetara bertaratzen diren pertsonen eskatzen diegu erakundera egindako bisitan jaso dituzten arreta eta informazioari buruzko balorazioa eta iradokizunak helarazteko, beren borondatez eta izena agertu gabe. Betetako galdetegietako datuak laburbilduz, herritarren % 98,04k bisitan eskuratutako informazioa ona edo oso ona izan dela uste dutela ikusi dugu.

### **Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila**

	%	%
<b>Konpondutako jarduera okerra</b> .....		95,15
Gomendiorik gabe .....	98,1	
Gomendioa onartuta .....	1,9	
Konpondu gabeko jarduera okerra		
Ez da gomendioa onartu .....		4,85

(Ikusi 2. diagrama eranskinean)

### **- Jasotako kexak**

2006. urtean guztira 1.678 erreklamazio jaso dira. Horietatik, 1.239ren izapidez onartu da, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko. Taldeek (ekologistek, auzo elkarteek eta abarrek) % 11,32 aurkeztu dituzte.

**Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 -2006)**

<b>Urtea</b>	<b>Kop.</b>
1989 .....	585
1990 .....	1.159 <sup>1</sup>
1991 .....	766
1992 .....	1.781
1993 .....	827
1994 .....	747
1995 .....	1.164
1996 .....	1.674
1997 .....	1.991
1998 .....	2.660 <sup>2</sup>
1999 .....	1.283 <sup>3</sup>
2000 .....	1.231
2001 .....	1.513 <sup>4</sup>
2002 .....	1.253
2003 .....	1.377
2004 .....	1.531
2005 .....	1.459
2006 .....	1.678

<sup>1</sup> 545ek kexa berdinen multzoa osatzen dute.

<sup>2</sup> 1.143k kexa berdinen 2 multzo osatzen dute.

<sup>3</sup> 62k kexa berdinen multzo bat osatzen dute.

<sup>4</sup> 264k kexa berdinen 2 multzo osatzen dute.

(Ikusi 3. diagrama eranskinean)

**- Onartu gabeko kexak**

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legearen 21. artikulua aditzera ematen ditu herritarren kexak ez onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2006. urtean guztira zenbatutakoen artean, lehenengo eta behin, hainbat arrazoiengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka izateagatik, auzitegian planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo geratzeagatik.

Nolanahi ere, erreklamazioei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko irizpidea mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako arauetara herritarrek aurkeztutako kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du herritarrei gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

**Onartu gabeko kexak eta egoerak**

Eskumen eremutik kanpo .....	73
Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik.....	64
Norbanakoen arteko auzia .....	57
Irregulartasun eza nabaria .....	53
Epai bidean .....	44
Legezko epeen zain egon beharra .....	11
Izenik gabe aurkeztu da.....	10
Forma akatsa.....	4
Urtebetetik gora igaro da .....	4
Estatuko Herri Defendatzailearekiko bikoiztasuna .....	2
Interes legitimorik eza.....	2
<b>Guztira.....</b>	<b>324</b>

(Ikusi 4. diagrama eranskinean)

**- Estatuko Herri Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak**

Badira Estatuko Administrazioaren jardueraren aurkako kexak, Ararteko erakundeak zuzenean izapidetzen ez dituenak, administrazio hori ez dagoelako erakunde honen kontrolpean. Erreklamazio horiek Estatuko Herri Defendatzailearengana bideratzen dira. Gainera, kexa batzuk beste autonomi erkidego batzuetako parlamentuetako ordezkariengana bideratzen dira, horien eskumenpean dauden administrazio publikoei buruzkoak direlako.

2006an 86 erreklamazio Estatuko Herri Defendatzaileari bidali dizkiogu eta beste 12 beste defendatzaile batzuei.

Estatuko Herri Defendatzaileari bidalitako kexak .....	86
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak.....	12

**- Zenbait gestio eragin dituzten kexak**

Badira erreklamazio batzuk, onartu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazio baten jarduera jakin baten aurka zehazki zuzendu ez direnak. Horiek, estatistiken aldetik bereizita zenbatzen dira. Planteatutako arazoa konpontzeko hainbat gestio egin behar izan dituguneko kexak dira, era askotako gaiak jorratzen dituztenak. 2006. urtean 16 jaso ditugu.

Zenbait gestio eragin dituzten kexak.....	16
---	----

### **- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa kopurua ondo interpretatzeko era**

Lehenengo hurbiltze batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduketek eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa kopurua handia izatea estu lotuta dagoela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaren gainean duten iritzi txarrarekin, akatsak, gehiegikeriak, edo legea betetzen ez duten jarduketak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da kexa kopuruaren interpretazioari buruz azaldukoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela aurretiaz administrazio jakin baten jarduketak eragindako kexa kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egiteko betebeharrari eta bai erreklamacioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

## 2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak eurei lotutako gaikako arloen arabera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu, aurreko ekitaldiaren aldean, 2006. urtean aldaketa batzuk egon direla arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez. Adibidez, % 11,30era murriztu egin da hirigintzaren arloan aurkeztutako kexa-kopurua (2005ean % 17,10 izan zen) eta gehitu egin da, berriz, herrizaingoa arlokoak, % 7,41 izatetik, % 10,90 izatera igaro baita.

### *Zuzenean bideraturiko kexen banaketa, jarduera eremuka*

	Jasotako kexak	%
Herri lanak eta zerbitzuak .....	193	15,58
Hirigintza eta lurralde antolamendua .....	140	11,30
Herrizaingoa.....	135	10,90
Gizarte ekintza.....	116	9,36
Hezkuntza .....	113	9,12
Funtzio publikoa .....	101	8,15
Etxebizitza .....	89	7,18
Osasuna .....	78	6,30
Ogasuna .....	75	6,05
Ingurumena .....	62	5
Justizia.....	51	4,12
Kultura eta elebitasuna .....	32	2,58
Animalien babesa.....	22	1,78
Lana eta gizarte segurantzaz.....	18	1,45
Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa.....	14	1,13
Guztira.....	1.239	100

(Ikusi 5. diagrama eranskinean)

### **- Kexen sailkapena azpiarloka**

2006an jasotako kexak gaika aztertuz gero, gaikako arlo bakoitzean egon diren aldaketetan azpiarlo bakoitzak duen eragina ikusten da (Ararteko erakundeak gaikako arlo horietan sistematizatzen du bere lana).

### *Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpiarloen arabera*

<b>Herri lanak eta zerbitzuak .....</b>	<b>193</b>
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	48
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	47
Tokiko zerbitzu publikoak.....	36
Azpiegiturak .....	21
Irisgarritasuna .....	16
Garraioak .....	15
Beste batzuk .....	7
Eskubideak eta askatasunak.....	3

<b>Hirigintza eta lurralde antolamendua.....</b>	<b>140</b>
Hirigintzako diziplina eta aurria.....	63
Irisgarritasuna .....	27
Hirigintzako antolamendua.....	18
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	17
Hirigintzako kudeaketa .....	9
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	4
Eskubideak eta askatasunak.....	1
Beste batzuk .....	1
<b>Herrizaingoa .....</b>	<b>135</b>
Trafikoa.....	85
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	19
Eskubideak eta askatasunak.....	18
Herritarren segurtasuna .....	8
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	3
Beste batzuk .....	1
Babes zibila.....	1
<b>Gizarte ekintza .....</b>	<b>116</b>
Diruzko gizarte prestazioak.....	41
Nagusiei eskainitako laguntza .....	19
Familiari eskainitako laguntza .....	16
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	13
Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza.....	9
Ezgaitasunen bat duten pertsonen eskainitako laguntza ..	7
Eskubideak eta askatasunak.....	3
Beste batzuk .....	3
Haur eta gazteei eskainitako laguntza .....	2
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	2
Emakumei eskainitako laguntza.....	1
<b>Hezkuntza .....</b>	<b>113</b>
Eskubideak eta betebeharrak .....	22
Ikasleentzako onarpena.....	16
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	12
Bekak eta beste laguntza batzuk.....	10
Haur hezkuntza .....	9
Hezkuntza-premia bereziak .....	9
Eskola-garraioa .....	7
Unibertsitateko irakaskuntza .....	6
Arte irakaskuntzak.....	4
Jantokia .....	3
Lanbide heziketa .....	3
Beste batzuk .....	3

Hezkuntza-plangintza/programazioa .....	3	
Ikastetxeak – instalazioak .....	2	
Hizkuntz irakaskuntza .....	2	
Batzilergoa .....	1	
Ikastetxeak – itunak .....	1	
<b>Funtzio publikoa .....</b>		<b>101</b>
Hautaketa .....	47	
Ordezkapenak .....	10	
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura .....	8	
Beste batzuk .....	8	
Eskubideak eta askatasunak .....	6	
Hizkuntz normalizazioa .....	5	
Lanpostu hornikuntza .....	5	
Beste eskubide eta betebeharrak .....	4	
Barne sustapena .....	3	
Irisgarritasuna .....	1	
Prestakuntza .....	1	
Ordainsariak .....	1	
Administrazio egoerak .....	1	
Lanpostuen balorazioa .....	1	
<b>Etxebizitza .....</b>		<b>89</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura .....	31	
Etxebizitzaren beharra egiaztatzea .....	17	
Etxebizitza babestuek esleitzeko prozedura .....	15	
Etxebizitza babestuetan eraikuntza-akatek eragindako kalteak .....	7	
Irisgarritasuna .....	6	
Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak .....	4	
Eskubideak eta askatasunak .....	3	
Beste batzuk .....	3	
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	3	
<b>Osasuna .....</b>		<b>78</b>
Erabiltzaileen eskubideak .....	49	
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura .....	9	
Osasun laguntza .....	8	
Buruko osasuna .....	4	
Osasun publikoa .....	4	
Beste batzuk .....	3	
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1	



<b>Ogasuna .....</b>	<b>75</b>
Udal zergak .....	23
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	20
Udal tasak .....	13
Foru zergak, PFEZ .....	9
Udal prezio publikoak.....	3
Foru zergak, OEZ.....	2
Beste batzuk .....	2
Foru prezio publikoak.....	2
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1
<b>Ingurumena.....</b>	<b>62</b>
Saillkatutako jarduerak bizitegitarako lurzoruan .....	27
Ingurumenaren gaineko afekzioak.....	17
Saillkatutako jarduerak lurzoru urbanizaezinean.....	8
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	5
Saillkatutako jarduerak industri lurzoruan.....	2
Hondakinak eta isurketak.....	2
Natur gune babestuak. Floraren eta faunaren babesa ....	1
<b>Justizia .....</b>	<b>51</b>
Espetxe gaietako jarduerak.....	16
Justizia adm. funtzionamendua .....	15
Abokatu eta prokuradore elkargoak .....	8
Doako laguntza juridikoa.....	7
Eskubideak eta askatasunak.....	3
Beste batzuk .....	2
<b>Kultura eta Elebitasuna.....</b>	<b>32</b>
Elebitasuna .....	17
Eskubideak eta askatasunak.....	4
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	4
Ondare kulturala .....	3
Kirola.....	2
Beste batzuk .....	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1
<b>Animalien babesa .....</b>	<b>22</b>
Zoologikoak.....	14
Animaliak edukitzea.....	4
Ikuskizunak eta jarduerak .....	3
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	1

<b>Lana eta gizarte segurantz</b> .....	<b>18</b>
Lana .....	15
Eskubideak eta askatasunak.....	1
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	1
Gizarte segurantz.....	1
<b>Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa</b> .....	<b>14</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	6
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza .....	3
Kontsumoa .....	3
Merkataritza.....	1
Industria .....	1

### 3. ESTADISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Administrazio bakoitzari adituz, 2006. urtean kexa-kopururik handiena jaso duena udalak izan dira, guztira bideratutako kexen ia erdia (% 49,25), administrazio bakoitzari eragiten dioten kexen proportzioaren arabera. Horrek esan nahi du zertxobait gehitu dela 2005eko datuarekin alderatuta (% 47,29).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexak % 33,89 izan dira 2006. urtean, 2005. urtean, aldiz, % 35,05.

Foru administrazioak, bere aldetik, guztira aurkeztutako kexetatik % 12,73 eragin ditu.

Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez duela esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, haren jardueraren bat kexa gai izan dela baizik.

#### **Zuzenean bideratutako kexen banaketa ukitutako administrazioen arabera**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Toki administrazioa .....	619	49,25
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Administrazio autonomikoa (Eusko Jaurlaritza ) .....	426	33,89
Foru administrazioa .....	160	12,73
Erakunde publikoak.....	36	2,86
Estatuko administrazioa .....	12	0,95
Justizia.....	4	0,32
<b>Guztira.....</b>	<b>1.257</b>	<b>100</b>

(Ikusi 6. diagrama eranskinean)

## A) **Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexak**

### - **Banaketa arloka**

Uste izatekoa denez, Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan (Hezkuntza, Osasuna, Etxebizitza eta Funtzio Publikoa) egon da kexa kopururik handiena.

### **Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexen banaketa arloka**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Hezkuntza .....	85	19,95
Osasuna .....	72	16,90
Etxebizitza .....	65	15,26
Funtzio publikoa .....	50	11,74
Herrizaingoa.....	49	11,50
Gizarte ekintza.....	25	5,87
Kultura eta elebitasuna .....	19	4,46
Herri lanak eta zerbitzuak .....	14	3,29
Lana eta gizarte segurantzaz.....	11	2,58
Justizia.....	11	2,58
Hirigintza eta lurralde antolamendua.....	10	2,35
Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa .....	8	1,88
Ingurumena .....	3	0,70
Animalien babesa.....	3	0,70
Ogasuna .....	1	0,24
<b>Guztira.....</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

(Ikusi 7. diagrama eranskinan)

### - **Sailen arabera banaketa**

Sailen arabera, Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila dira erreklamaziorik gehien jasotzen dutenak, eta atzetik Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak datoz.

**Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Eusko Jaurlaritza)  
aurka aurkeztutako kexen banaketa sailaren arabera**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa .....	100	23,47
Osasuna .....	94	22,07
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak .....	81	19,01
Herrizaingoa .....	62	14,55
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaz .....	33	7,75
Ogasun eta Herri Administrazioa .....	16	3,76
Lurralde Antolamendu eta Ingurumena ...	9	2,11
Kultura .....	8	1,88
Garraio eta Herri Lanak .....	8	1,88
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	7	1,64
Lehendakaritza .....	5	1,17
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura .....	2	0,47
Lehendakariordetza .....	1	0,24
<b>Guztira .....</b>	<b>426</b>	<b>100</b>

(Ikusi 8. diagrama eranskinean)

**B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa lurraldeka**

Foru aldundien aurkako erreklamazioak honela banatzen dira: Bizkaiko Foru Aldundiaren aurkakoak % 39,37, Gipuzkoakoaren aurkakoak % 33,75 eta Arabakoaren aurkakoak % 26,98 (2005ean % 19,26 erregistratu ziren).

**Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa  
lurraldearen arabera**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bizkaiko Foru Aldundia .....	63	39,37
Gipuzkoako Foru Aldundia .....	54	33,75
Arabako Foru Aldundia .....	43	26,98
<b>Guztira .....</b>	<b>160</b>	<b>100</b>

(Ikusi 6. diagrama eranskinean)

### - Banaketa arloka

Gizarte Ekintza, Herri Lanak eta Ogasuna dira foru administrazioen aurka jasotzen diren kexa gehien eragiten duten arloak, orain arte bezala.

#### *Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa arloaren arabera*

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Gizarte ekintza .....	13	26	19	58	36,25
Herri lanak eta zerbitzuak .....	8	15	14	37	23,13
Ogasuna .....	8	10	7	25	15,63
Funtzio publikoa .....	5	6	2	13	8,13
Hirigintza eta lurralde antolamendua.....	5	3	1	9	5,63
Kultura eta elebitasuna .....	1	1	4	6	3,75
Lana eta gizarte segurantz.....	1	-	2	3	1,88
Ingurumena.....	-	2	1	3	1,88
Nekazaritza, industria merkataritza eta turismoa .....	1	-	2	3	1,88
Animalien babesa .....	1	-	-	1	0,63
Justizia .....	-	-	1	1	0,63
Herrizaingoa .....	-	-	1	1	0,63
Guztira .....	43	63	54	160	100

(Ikusi 9. diagrama eranskinean)

### C) Toki Administrazioen aurka aurkeztutako kexak

#### - Banaketa lurraldeka

Kexa gehienak Bizkaiko udalen aurkakoak izan dira; hots, toki administrazioaren aurka jasotako kexa guztien % 51,05 (joan den urtean % 41,21 izan ziren). Gipuzkoako udalen aurkakoak % 25,20 izan dira (2005ean, aldiz, % 29,45), eta Arabako udalen aurkakoak, berriz, % 20,52.

Kexa gehien jaso duten udalerrriak Bilbo (87), Gasteiz (74) eta Donostia (52) izan dira. Aipatu beharrekoak dira, orobat, honako herri hauek: Bizkaian Barakaldo (23) eta Getxo (21); Gipuzkoan Errenteria eta Irun (10); eta Araban Laudio (20).

**Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bizkaiko udalak.....	316	51,05
Gipuzkoako udalak.....	156	25,20
Arabako udalak.....	127	20,52
Bizkaiko mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak .....	10	1,62
Arabako administrazio batzarrak.....	7	1,13
Gipuzkoako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak .....	2	0,32
Arabako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak .....	1	0,16
Guztira.....	619	100

**Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzarren  
aurka aurkeztutako kexak**

<b>Arabako udalak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Arabako administrazio batzarrak</b>	<b>Kop.</b>
Vitoria-Gasteiz.....	74	San Román de San Millán ....	2
Llodio.....	20	Legutiano .....	1
Zigoitia .....	7	Ocio.....	1
Artziniega .....	3	Salinillas de Buradón.....	1
Alegría-Dulantzi .....	2	Ullibarri-Jauregui .....	1
Aramaio .....	2	Zubillaga .....	1
Arrazua-Ubarrundia .....	2	Guztira .....	7
Laguardia.....	2		
Legutiano .....	2		
San Millán / Donemiliaga.....	2		
Amurrio.....	1		
Arraia-Maeztu.....	1		
Ayala / Aiara .....	1		
Baños de Ebro / Mañueta ....	1		
Iruña Oka / Iruña de Oca ....	1		
Labastida .....	1		
Lagrán.....	1		
Lantarón.....	1		
Lapuebla de Labarca.....	1		
Ribera Alta.....	1		
Urkabustaiz .....	1		
Guztira .....	127		

<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Kop.</b>
Bilbao.....	87	Zeanuri.....	2
Barakaldo.....	23	Abadiño.....	1
Getxo.....	21	Alonsotegi.....	1
Durango.....	16	Anteiglesia de San Esteban de Etxebarri/ Etxebarriko Doneztebeko Elizatea.....	1
Santurtzi.....	13	Arcentales.....	1
Sestao.....	11	Arrankudiaga.....	1
Portugalete.....	9	Atxondo.....	1
Basauri.....	7	Bedia.....	1
Sopelana.....	7	Berango.....	1
Erandio.....	6	Berriz.....	1
Galdakao.....	6	Karrantza Harana/ Valle de Carranza.....	1
Lekeitio.....	6	Dima.....	1
Arrigorriaga.....	5	Elorrio.....	1
Igorre.....	5	Etxebarria.....	1
Orduña.....	5	Gamiz-Fika.....	1
Plentzia.....	5	Gautegiz Arteaga.....	1
Amorebieta-Etxano.....	4	Gernika-Lumo.....	1
Bermeo.....	4	Ibarrangelu.....	1
Gordexola.....	4	Iurreta.....	1
Leioa.....	4	Larrabetzu.....	1
Mungia.....	4	Laukiz.....	1
Valle de Trápaga-Trapagaran	4	Lezama.....	1
Balmaseda.....	3	Loiu.....	1
Busturia.....	3	Meñaka.....	1
Ermua.....	3	Mundaka.....	1
Muskiz.....	3	Orozko.....	1
Abanto y Ciérvana-		Ortuella.....	1
Abanto-Zierbena.....	2	Sukarrieta.....	1
Bakio.....	2	Zalla.....	1
Galdames.....	2	Zeberio.....	1
Gorliz.....	2	Zierbena.....	1
Güeñes.....	2		
Sondika.....	2		
Ugao-Miraballes.....	2		
Urduliz.....	2	Guztira.....	316



<b>Gipuzkoako udalak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Gipuzkoako udalak</b>	<b>Kop.</b>
Donostia-San Sebastián.....	52	Oiartzun .....	2
Errenteria.....	10	Orio .....	2
Irun .....	10	Usurbil.....	2
Pasaia.....	9	Villabona .....	2
Hondarribia.....	6	Zumarraga .....	2
Arrasate/Mondragón .....	5	Aia .....	1
Irura .....	5	Andoain.....	1
Eibar .....	4	Anoeta .....	1
Astigarraga .....	3	Antzuola .....	1
Elgoibar .....	3	Aretxabaleta.....	1
Lasarte-Oria .....	3	Belauntza.....	1
Lezo .....	3	Bergara .....	1
Soraluze-		Deba .....	1
Placencia de las Armas.....	3	Elgeta .....	1
Tolosa .....	3	Eskoriatza .....	1
Zumaia .....	3	Larraul.....	1
Aduna .....	2	Mendaro.....	1
Ataun .....	2	Mutriku.....	1
Getaria .....	2	Zarautz .....	1
Hernani.....	2		
Ibarra .....	2	Guztira .....	156

**- Banaketa arloka**

Ohi bezala, toki administrazioen jarduketek eragindako kexak berdin antzera banatzen dira arlo guztien artean, udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean, alegia.

**Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa arloaren arabera**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Herri lanak eta zerbitzuak .....	38	68	52	158	26,07
Hirigintza eta lurralde antolamendua.....	39	61	26	126	20,79
Herrizaingoa .....	10	61	13	84	13,86
Ingurumena.....	5	30	20	55	9,08
Ogasuna .....	6	31	8	45	7,43
Gizarte ekintza .....	19	16	4	39	6,44
Etxebizitza.....	4	17	4	25	4,13
Funtzio publikoa .....	3	6	13	22	3,63
Animalien babesa .....	1	17	1	19	3,14
Hezkuntza.....	5	6	2	13	2,15
Kultura eta elebitasuna .....	3	2	5	10	1,65
Justizia .....	-	-	3	3	0,50
Nekazaritza, industria merkataritza eta turismoa .....	1	-	2	3	0,50
Lana eta gizarte segurantzaz.....	-	-	2	2	0,33
Osasuna.....	-	1	1	2	0,33
<b>Guztira .....</b>	<b>134</b>	<b>316</b>	<b>156</b>	<b>606</b>	<b>100</b>

(Ikusi 10. diagrama eranskinean)

**Toki administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak**

	Guztira
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa .....	6
Mebisa - Metro de Bilbao .....	3
Zigoitiko Uren Partzuergoa .....	1
Arratiako Mankomunitatea .....	1
San Markoseko Mankomunitatea.....	1
Servicios de Txingudi .....	1
<b>Guztira.....</b>	<b>13</b>

#### D) **Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak**

Udal, aldundi zein Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexa horiez gain, Ararteko erakundearen ikerkuntza esparruaren barruan dauden beste administrazio batzuen aurkako zenbait erreklamazio ere jaso dira. Herri erakunde zein organismoen, elkargoen eta abarren aurkako kexak dira. Atal honetan, era berean, Estatuko administrazioaren aurkako kexak ere jasotzen dira, Arartekoak modu informalean ikertu dituenak, nahiz eta jakin badakigun Estatuko administrazioaren jarduera gure erakundearen kontrol eremutik kanpo dagoela.

<b><i>Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka aurkeztutako kexak</i></b>	
	<b>Guztira</b>
Hezkuntza .....	10
Funtzio publikoa .....	6
Kultura eta elebitasuna .....	3
Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa .....	1
Osasuna .....	1
Hirigintza eta lurralde antolamendua .....	1
<b>Guztira .....</b>	<b>22</b>

#### E) **Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioaren zerbitzu administratiboaren aurka aurkeztutako kexak**

Ararteko erakundearen arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikulua dioenez, Justizia administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Lehenago aurkeztu diren Eusko Legebiltzarrarentzako txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak Fiskaltzari, EAeko Auzitegi Nagusiko lehendakariari edo, bestela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidali ohi dizkio kexak, beraiek iker ditzaten kontu horiek eta gure erakundeari egindako gestioen berri eman diezaioten.

2006. urtean erreklamazio 1 bideratu da, Justizia administrazioak EAEn dituen administrazio zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez; iaz, aldiz, 6 izan ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko justizia Administrazioaren zerbitzu administratiboaren aurkako kexak.....	1
---	---

#### 4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Kexa kopururik handiena, guztira 834, aurkeztu dutenak Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak izan dira. Gipuzkoakoek 398 aurkeztu dituzte eta Arabakoek 367.

##### *Kexen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera*

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
1989 .....	288	188	97
1990 .....	828 (284) <sup>1</sup>	195	125
1991 .....	293	244	158
1992 .....	332	241	201
1993 .....	376	250	182
1994 .....	349	234	160
1995 .....	528	281	328
1996 .....	746	448	446
1997 .....	915	663	371
1998 .....	1.471 (764) <sup>2</sup>	905 (471) <sup>3</sup>	244
1999 .....	649	372 (311) <sup>4</sup>	237
2000 .....	645	295	256
2001 <sup>5</sup> .....	651	375	444
2002 .....	643	294	268
2003 .....	646	318	322
2004 .....	730	457	271
2005 .....	712	412	275
2006 .....	834	398	367

<sup>1</sup> Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>2</sup> Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>3</sup> Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>4</sup> Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>5</sup> Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 11. diagrama eranskinean)

#### - Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko

Lurralde historikoen banaketaren arabera, kexen jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopurua absolutua lurralde horretako biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik 10.000 biztanle multzo bakoitzeko jaso diren kexei buruzko datuak bildu ditugu.

**Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko**

	<b>Araba</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>
1989 .....	4,3	3,3	3
1990 .....	4,5	7,87 (2,7) <sup>1</sup>	2,9
1991 .....	5,8	3,6	2,5
1992 .....	7,4	3,5	2,8
1993 .....	6,7	3,7	3,3
1994 .....	5,9	3,5	3
1995 .....	11,59	4,54	4,11
1996 .....	15,92	6,55	6,66
1997 .....	13,24	8,03	9,77
1998 .....	8,37	12,95 (6,73) <sup>2</sup>	13,30 (6,93) <sup>3</sup>
1999 .....	8,37	5,74	5,56 (4,64) <sup>4</sup>
2000 .....	8,97	5,77	4,42
2001 <sup>5</sup> .....	15,56	5,7	5,53
2002 .....	9,37	5,73	4,37
2003 .....	11,24	5,75	4,71
2004 .....	9,46	6,50	6,77
2005 .....	9,6	6,34	6,11
2006 .....	12,81	7,42	5,9

<sup>1</sup> Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>2</sup> Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>3</sup> Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>4</sup> Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>5</sup> Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 12. diagrama eranskinean)

### - Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Herritarren jokabidea ez da berdina kexen egileak non bizi diren begiratzan badugu, hau da, hiriburuan ala lurraldeko gainerako udalerrietan. Araban erreklamazioen % 73,84 Gasteizen bizi direnek aurkeztu dituzte. Bizkaian % 36,69 Bilbon bizi direnek eta Gipuzkoan % 36,43 Donostian bizi direnek aurkeztu dituzte.

#### ***Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta***

<b>Araba</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Vitoria-Gasteiz .....	271	73,84
Beste udalerrri batzuk .....	96	26,16
Guztira.....	367	100
<b>Bizkaia</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	306	36,69
Beste udalerrri batzuk .....	528	63,31
Guztira.....	834	100
<b>Gipuzkoa</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Donostia-San Sebastián .....	145	36,43
Beste udalerrri batzuk .....	253	63,57
Guztira.....	398	100

### - Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo datozen kexak

2006an ere Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik etorritako zenbait kexa jaso dira. 48 beste autonomia erkidego batzuetatik etorri dira, 17 beste estatu batzuetatik (gehienak, 13, Frantziatik) eta 14 izengabekoak izan dira.

<b>Beste autonomi erkidego batzuetatik etorritako keak</b>	<b>Kop.</b>
Nafarroako FK.....	13
Madrilgo AE.....	10
Andaluziako AE.....	6
Gaztela eta Leongo AE.....	3
Galiziako AE.....	3
Errioxako AE.....	3
Aragoiko AE.....	2
Kataluniako AE.....	2
Murtziako AE.....	2
Kanarietako AE.....	1
Kantabriako AE.....	1
Balearretako AE.....	1
Asturias.....	1
<b>Guztira.....</b>	<b>48</b>

<b>Beste Estatu batzuetatik etorritakoak</b>	<b>Kop.</b>
Frantzia.....	13
Alemania.....	1
Argentina.....	1
Israel.....	1
Perú.....	1
<b>Guztira.....</b>	<b>17</b>

<b>Izenik gabe aurkeztu dira.....</b>	<b>14</b>
---------------------------------------	-----------

## 5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

Jarraian aztertuko dugu zein egoeratan dagoen Arartekoari aurkeztutako erreklamazioen izapidetzea. 2006. urtean 1.075 espedienteren izapideak amaitu dira. Horietatik 586 urtean zehar aurkeztutako kexei buruzkoak izan dira, eta gainerakoak, 489, aurreko urteetan aurkeztutakoak ziren, jarri ziren urtean bertan osorik ezin izapidetu izan zirenak.

Arartekoak eman dituen ebazpenek agerian utzi dutenez, 2006an amaitutako 396 erreklamaziotan okerreko jardueraren bat zegoen, ukituriko administrazioaren jarduketan, hau da, kasuetatik % 36,84an (2004an % 37,39). Hala ere, ez da inolako jarduera okerrik antzeman aztertutako espedienteen % 45,42n (ehuneko hori ia-ia ez da aldatu 2005etik).

	Guztira	Okerreko jarduera	%	Okerreko jarduerarik ez	%	Beste batzuk	%
2006an amaitutako kexak	1.075	396	36,84	499	45,42	180	16,74

(Ikusi 1. diagrama eranskinean)

### - 2005ean burututako espedienteak, hasierako urtearen arabera banatuta

Beheko taulan 2006an burututako espedienteak ageri dira (1.075 espediente), hasierako urtearen arabera sailkatuta.

Hasierako urtea	Kop.
1998 .....	1
1999 .....	1
2000 .....	1
2001 .....	5
2002 .....	9
2003 .....	52
2004 .....	75
2005 .....	345
2006 .....	586
2006an burututako espedienteak guztira .....	1.075



### - 2006an aurkeztutako kekek: ebatzita daudenak eta izapidetzen ari direnak

2006. urtean aurkeztutako kekei dagokienez, Ararteko erakundeak 502 ebazpen eman ditu (2005. urtean baino 97 gehiago), eta 318 kasutan ez du okerreko jarduerarik antzeman. Ostera, 640 espediente izapidetzen ari dira.

Izapidetzen ari diren zenbait espedientetan, kexa aztertzen hasi ondoren hainbat inguruabar agertu dira (beste defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, epai bideari ekin diotenak, eta abar). Espediente horiek *eratorritako ez-onarpena* izenpean jaso dira ondoko koadroetan.

#### ***Kexa-espedienteen egoera, jarduera eremuen arabera***

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Gizarte ekintza .....	74	40	16	21	3	8
Nekazaritza, industria merkataritza eta turismoa ..	5	8	1	7	-	1
Kultura eta elebitasuna .....	19	16	6	10	-	-
Hezkuntza.....	39	54	15	38	1	5
Funtzio publikoa .....	39	43	1	40	2	6
Ogasuna .....	34	34	7	23	4	5
Herrizaingoa .....	77	52	10	40	2	5
Justizia .....	11	3	-	1	2	1
Ingurumena.....	46	13	4	9	-	3
Herri lanak eta zerbitzuak ..	115	94	35	49	10	7
Animalien babesa .....	1	22	12	6	4	-
Osasuna .....	32	39	16	22	1	3
Lana eta gizarte segurantz	3	7	4	3	-	6
Hirigintza eta lurralde antolamendua .....	82	57	12	37	8	6
Etxebizitza.....	63	20	5	12	3	7
<b>Guztira .....</b>	<b>640</b>	<b>502</b>	<b>144</b>	<b>318</b>	<b>40</b>	<b>63</b>

### - Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzaren) aurkako kexen egoera

2006. urtean 181 ebazpen eman dira, Eusko Jaurlaritzaren aurka urte berean jarritako kexei dagokienez, eta 218 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Burututako kasurik gehienetan, 125 kasutan hain zuzen ere, ez da inolako jarduerarik ikusi.

#### *Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa jarduera eremuen arabera*

	Izapidetzen	Amaítuta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Hezkuntza.....	34	47	12	34	1	4
Osasuna .....	31	39	16	22	1	2
Etxebizitza.....	47	12	4	6	2	6
Funtzio publikoa .....	25	23	-	22	1	2
Herrizaingoa .....	29	15	2	12	1	5
Gizarte ekintza .....	15	8	3	4	1	2
Kultura eta elebitasuna .....	7	12	3	9	-	-
Herri lanak eta zerbitzuak ..	8	6	3	3	-	-
Lana eta gizarte segurantzza	2	5	3	2	-	4
Justizia .....	7	3	-	1	2	1
Hirigintza eta lurralde antolamendua .....	8	2	1	1	-	-
Nekazaritza, industria merkataritza eta turismoa ..	3	5	-	5	-	-
Ingurumena.....	1	1	-	1	-	1
Animalien babesak .....	-	3	-	3	-	-
Ogasuna .....	1	-	-	-	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>218</b>	<b>181</b>	<b>47</b>	<b>125</b>	<b>9</b>	<b>27</b>

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera Jaurlaritza osatzen duten sailen arabera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza eta Arrantza ...	1	1	-	1	-	-
Kultura .....	4	4	-	4	-	-
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa .....	41	55	14	40	1	4
Ogasun eta Herri Administrazioa .....	3	12	1	10	1	1
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	3	4	-	4	-	-
Herrizaingoa .....	35	21	3	16	2	6
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza.....	18	9	3	5	1	6
Lurralde Antolamendu eta Ingurumena .....	5	3	2	1	-	1
Lehendakaritza.....	2	3	-	3	-	-
Osasuna .....	41	51	18	32	1	2
Garraio eta Herri Lanak....	4	4	1	3	-	-
Lehendakariordetza .....	1	-	-	-	-	-
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	60	14	5	6	3	7
<b>Guztira .....</b>	<b>218</b>	<b>181</b>	<b>47</b>	<b>125</b>	<b>9</b>	<b>27</b>

**- Foru administrazioen aurkako kexen egoera**

Foru administrazioen aurka 2006. urtean amaitu diren erreklamazioetatik 19 kasutan okerreko jardueren bat antzeman da. Beste 88 espediente izapidetzen ari dira.

**Foru aldundien aurkako kexen egoera lurralde historikoen arabera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Arabako Foru Aldundia .....	23	17	3	12	2	3
Bizkaiko Foru Aldundia .....	31	28	11	16	1	4
Gipuzkoako Foru Aldundia	34	18	5	10	3	2
<b>Guztira .....</b>	<b>88</b>	<b>63</b>	<b>19</b>	<b>38</b>	<b>6</b>	<b>9</b>

**Foru aldundien aurkako kexen egoera jarduera-eremuen arabera**

	Izapidetzen	Amaítuta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Gizarte ekintza .....	34	21	7	13	1	3
Nekazaritza, industria merkataritza eta turismoa ..	2	1	1	-	-	-
Kultura eta elebitasuna .....	6	-	-	-	-	-
Funtzio publikoa .....	6	6	1	5	-	1
Ogasuna .....	7	14	3	9	2	4
Herrizaingoa .....	1	-	-	-	-	-
Justizia .....	1	-	-	-	-	-
Ingurumena.....	1	2	1	1	-	-
Herri lanak eta zerbitzuak ..	23	14	5	7	2	-
Animalien babesa .....	-	1	-	-	1	-
Lana eta gizarte segurantzak	1	1	-	1	-	1
Hirigintza eta lurralde antolamendua .....	3	3	1	2	-	-
Guztira .....	88	63	19	38	6	9

**- Toki administrazioen aurkako kexen egoera**

2006an toki administrazioaren aurka jasotako erreklamazioetatik, Arartekoak 250 ebazpen eman ditu, eta okerreko jardueraren bat antzeman da 76 kasutan. Urte amaieran, 330 espediente ari ziren izapidetzen.

**Arabako udalen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Alegría-Dulantzi.....	-	2	1	1	-	-
Amurrio.....	1	-	-	-	-	-
Aramaio .....	-	2	-	1	1	-
Arraia-Maeztu .....	-	1	-	1	-	-
Arrazua-Ubarrundia.....	2	-	-	-	-	-
Artziniega .....	3	-	-	-	-	-
Ayala / Aiara .....	1	-	-	-	-	-
Baños de Ebro / Mañueta .	1	-	-	-	-	-
Iruña Oka / Iruña de Oca..	-	1	1	-	-	-
Labastida .....	1	-	-	-	-	-
Lagrán.....	1	-	-	-	-	-
Laguardia .....	2	-	-	-	-	-
Lantarón.....	-	1	-	1	-	-
Lapuebla de Labarca.....	-	1	1	-	-	-
Legutiano .....	1	1	-	-	1	-
Llodio.....	15	5	1	4	-	-
Ribera Alta.....	-	1	1	-	-	-
San Millán / Donemiliaga..	2	-	-	-	-	-
Urkabustaiz .....	-	1	-	1	-	-
Vitoria-Gasteiz.....	50	17	6	11	-	7
Zigoitia .....	2	4	3	-	1	1
<b>Guztira .....</b>	<b>82</b>	<b>37</b>	<b>14</b>	<b>20</b>	<b>3</b>	<b>8</b>

**Arabako administrazio batzarren aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
San Román de San Millán .	2	-	-	-	-	-
Legutiano .....	1	-	-	-	-	-
Ocio.....	-	1	-	1	-	-
Salinillas de Buradón.....	-	1	1	-	-	-
Ullibarri-Jauregui .....	1	-	-	-	-	-
Zubillaga .....	-	-	-	-	-	1
<b>Guztira .....</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>-</b>	<b>1</b>

**Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Eratorritako ez-onarpena
Aduna .....	-	1	-	1	-	1
Aia .....	-	1	-	1	-	-
Andoain .....	-	1	-	1	-	-
Anoeta .....	-	1	1	-	-	-
Antzuola .....	-	1	-	-	1	-
Aretxabaleta.....	1	-	-	-	-	-
Arrasate/Mondragón .....	3	2	-	2	-	-
Astigarraga .....	2	1	1	-	-	-
Ataun .....	2	-	-	-	-	-
Belauntza.....	1	-	-	-	-	-
Bergara .....	-	1	-	1	-	-
Deba .....	1	-	-	-	-	-
Donostia-San Sebastián.....	29	20	6	12	2	3
Eibar .....	2	2	-	2	-	-
Elgeta .....	1	-	-	-	-	-
Elgoibar .....	2	1	-	1	-	-
Errenteria .....	4	6	1	5	-	-
Eskoriatza .....	1	-	-	-	-	-
Getaria .....	-	2	-	2	-	-
Hernani.....	2	-	-	-	-	-
Hondarribia .....	4	2	1	-	1	-
Ibarra .....	1	1	-	1	-	-
Irun .....	6	3	3	-	-	1
Irura .....	3	2	2	-	-	-
Larraul .....	-	1	-	1	-	-
Lasarte-Oria.....	2	1	-	1	-	-
Lezo.....	2	1	1	-	-	-
Mendaro.....	-	1	-	1	-	-
Mutriku.....	-	1	-	1	-	-
Oiartzun .....	1	1	-	1	-	-
Orio .....	1	1	-	1	-	-
Pasaia .....	6	3	-	3	-	-
Soraluze-Placencia de las Armas .	1	2	-	1	1	-
Tolosa .....	3	-	-	-	-	-
Urbil.....	2	-	-	-	-	-
Villabona .....	1	1	-	-	1	-
Zarautz .....	1	-	-	-	-	-
Zumaia .....	2	1	1	-	-	-
Zumarraga .....	1	1	-	1	-	-
Guztira .....	88	63	17	40	6	5

**Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Abadiño.....	1	-	-	-	-	-
Abanto-Zierbena.....	1	-	-	-	-	1
Alonsotegi .....	1	-	-	-	-	-
Amorebieta-Etxano.....	2	1	-	1	-	1
Anteiglesia de San Esteban de Etxebarri/ Etxebarriko						
Doneztebeko Elizatea.....	1	-	-	-	-	-
Arcentales.....	1	-	-	-	-	-
Arrankudiaga .....	1	-	-	-	-	-
Arrigorriaga .....	2	3	-	3	-	-
Atxondo.....	1	-	-	-	-	-
Bakio .....	-	1	-	-	1	1
Balmaseda .....	-	2	-	1	1	1
Barakaldo .....	8	14	-	13	1	1
Basauri.....	4	3	1	2	-	-
Bedia.....	-	1	-	1	-	-
Berango .....	-	1	-	1	-	-
Bermeo .....	3	1	-	-	1	-
Berriz .....	-	1	-	1	-	-
Bilbao.....	43	44	14	26	4	-
Busturia .....	3	-	-	-	-	-
Dima .....	1	-	-	-	-	-
Durango .....	10	6	1	5	-	-
Elorrio .....	1	-	-	-	-	-
Erandio.....	2	4	-	4	-	-
Ermua .....	1	2	-	2	-	-
Etxebarria .....	-	-	-	-	-	1
Galdakao .....	4	2	1	1	-	-
Galdames.....	-	2	-	1	1	-
Gamiz-Fika .....	1	-	-	-	-	-
Gautegiz Arteaga.....	1	-	-	-	-	-
Gernika-Lumo.....	-	1	-	1	-	-
Getxo .....	11	8	1	6	1	2
Gordexola.....	4	-	-	-	-	-
Gorliz .....	-	2	-	1	1	-
Güeñes.....	2	-	-	-	-	-
Ibarrangelu.....	-	1	1	-	-	-
Igorre .....	4	1	1	-	-	-
Iurreta .....	-	1	1	-	-	-
Karrantza Harana/ Valle de Carranza .....	-	1	1	-	-	-
Larrabetzu .....	-	1	-	1	-	-

Laukiz .....	-	1	1	-	-	-
Leioa.....	2	2	2	-	-	-
Lekeitio .....	4	-	-	-	-	2
Lezama .....	1	-	-	-	-	-
Loiu .....	1	-	-	-	-	-
Meñaka .....	-	1	-	1	-	-
Mundaka .....	-	1	1	-	-	-
Mungia .....	2	2	2	-	-	-
Muskiz.....	2	1	-	-	1	-
Orduña.....	3	2	1	1	-	-
Orozko .....	1	-	-	-	-	-
Ortuella .....	1	-	-	-	-	-
Plentzia .....	2	3	-	3	-	-
Portugalete .....	2	7	1	6	-	-
Santurtzi .....	5	6	5	-	1	2
Sondika .....	2	-	-	-	-	-
Sestao .....	7	4	2	1	1	-
Sopelana .....	3	4	2	2	-	-
Sukarrieta .....	-	1	1	-	-	-
Ugao-Miraballes .....	-	2	1	1	-	-
Urduliz.....	1	1	-	1	-	-
Valle de Trápaga-Trapagaran .....	2	2	1	1	-	-
Zalla .....	-	1	-	1	-	-
Zeanuri.....	1	1	-	-	1	-
Zeberio.....	-	1	1	-	-	-
Zierbena .....	-	1	1	-	-	-
Guztira .....	156	148	44	89	15	12



**Udalen aurkako kexen egoera, jarduera eremuen arabera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Nekazaritza, industria merkataritza eta turismoa ..	-	2	-	2	-	1
Gizarte ekintza .....	25	11	6	4	1	3
Kultura eta elebitasuna .....	6	4	3	1	-	-
Hezkuntza.....	5	7	3	4	-	1
Funtzio publikoa .....	8	12	-	12	-	2
Ogasuna .....	25	19	4	13	2	1
Herrizaingoa .....	47	37	8	28	1	-
Justizia .....	3	-	-	-	-	-
Ingurumena.....	44	9	3	6	-	2
Herri lanak eta zerbitzuak..	81	70	25	37	8	7
Animalien babesa .....	1	18	12	3	3	-
Osasuna .....	1	-	-	-	-	1
Lana eta gizarte segurantza	-	1	1	-	-	1
Hirigintza eta lurralde antolamendua .....	68	52	10	34	8	6
Etxebizitza.....	16	8	1	6	1	1
<b>Guztira .....</b>	<b>330</b>	<b>250</b>	<b>76</b>	<b>150</b>	<b>24</b>	<b>26</b>

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, ukitutako erakunde publikoaren arabera**

	Izapidetzen	Amaituta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Bilbao-Bizkaia Uren						
Partzuergoa .....	-	5	1	3	1	1
Mebisa - Metro de Bilbao...	3	-	-	-	-	-
Zigoitiko Uren Partzuergoa	-	1	1	-	-	-
Arratiako Mankomunitatea	1	-	-	-	-	-
San Markoseko						
Mankomunitatea.....	-	1	-	1	-	-
Servicios de Txingudi .....	-	1	-	1	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>4</b>	<b>8</b>	<b>2</b>	<b>5</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, jarduera arloen arabera**

	Izapidetzen	Amaítuta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Herri lanak eta zerbitzuak ..	3	4	2	2	-	-
Ogasuna .....	1	1	-	1	-	-
Funtzio publikoa .....	-	2	-	1	1	1
Ingurumena.....	-	1	-	1	-	-
Guztira .....	4	8	2	5	1	1

- Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexen egoera

**Euskal Herriko Unibertsitatearen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Amaítuta	Okerreko jarduera	Okerreko jarduerarik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Hezkuntza.....	6	4	-	3	1	-
Funtzio publikoa .....	4	2	-	2	-	-
Kultura eta elebitasuna .....	2	1	1	-	-	-
Nekazaritza, industria merkataritza eta turismoa ..	1	-	-	-	-	-
Osasuna .....	1	-	-	-	-	-
Hirigintza eta lurralde antolamendua .....	-	1	1	-	-	-
Guztira .....	14	8	2	5	1	-

## 6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA)

### - Kexagileen ezaugarriak

2006an aurkeztutako kexen analisi soziologikoaren arabera, kexa aurkeztu duten pertsonen % 50 gizonezkoak dira.

<i>Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera</i>		
<b>Erreklamatazaileen ezaugarriak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gizonezkoak.....	839	50
Emakumezkoak .....	640	38,14
Taldeak .....	190	11,32
Identifikatu gabeko pertsonak.....	9	0,54
Guztira.....	1.678	100

(Ikusi 13. diagrama eranskinean)

### - Kexa idazteko erabilitako hizkuntza

Gaztelania da, oraindik ere, kexak idazteko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza, nahiz eta euskaraz edo elebidun idatzitakoak gero eta gehiago diren. Herritarretatik % 90,7k gaztelaniara jotzen du, euskaraz zein elebidun aurkezten direnak % 9,12 diren bitartean (2005ean % 8,77).

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrek aukeratutako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoa kexa eragindako administrazioekin harremanetan jartzean, eta ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

<i>Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera</i>		
<b>Hizkuntza</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gaztelania .....	1.522	90,7
Euskara.....	122	7,27
Elebidun.....	31	1,85
Frantsesa .....	3	0,18
Guztira.....	1.678	100

(Ikusi 14. diagrama eranskinean)

### - Kexak aurkezteko era

Kexak aurkezteko erari dagokionez, datuek erakusten digute azkeneko urteetan izandako aldaketa finkatu egin dela, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan arreta zuzeneko bulegoak jarri ondoren. Erreklamatzaileretatik % 45,83 bulegoetara bertaratu dira kexa jartzeko. Gainera, kexa jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua hazten doa (aurkeztutako kexen % 31,58 bide horretatik aurkezten da).

#### *Kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera*

<b>Jasotzeko era</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Bulegoetara bertaratauta .....	769	45,83
Internetez.....	530	31,58
Postaz.....	326	19,43
Faxeaz.....	53	3,16
Guztira.....	1.678	100

(Ikusi 15. diagrama eranskinean)

## 7 ARRETA ZUZENeko BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioen batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu. Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen diren bisitez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, erakundeko langileek erantzuten dituztenak.

Horregatik, bisitez gain telefono bidezko kontsultak ere zenbatzen ditugu, pertsonen administrazio desberdinekin dituzten harremanetan dauzkaten eskubideen gaineko informazio-lan interesgarria direla ziur baikaude. Hartara, 2006. urtean guztira 4.092 kontsultari erantzun diogu. Horietatik 1.507 telefono bidezko kontsultak izan dira eta 2.585 hiru bulegoetakoren batera bertaratu den pertsonen kopurua. Zehatz esateko, Bilbon 1.671 kontsultari erantzun diogu, hiru bulegoetan erantzundakoen % 40,84, hain zuzen ere Donostian 1.236 kontsultari erantzun diogu eta Gasteizen, berriz, 1.185.

### *Telefono bidezko kontsulta eta bisiten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan*

<b>Herria</b>	<b>Telefono bidezko kontsultak</b>	<b>Bisitak</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	756	915	1.671	40,84
Donostia-San Sebastián .....	458	778	1.236	30,20
Vitoria-Gasteiz .....	293	892	1.185	28,96
Guztira.....	1.507	2.585	4.092	100

(Ikusi 16. diagrama eranskinean)

### **- Arreta zuzeneko bulegoetara etorri eta kexa aurkeztu dutenenak**

Arreta zuzeneko hiru bulegoetan jasotako bisitetatik 645 kexa jarri da, hau da, bisita guztien % 24,95. Horietatik, 306 Bizkaiko hiriburuan, 188 Gasteizen eta 151, berriz, Donostian.

### *Kexa aurkeztu deneko bisitak*

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	306	47,44
Donostia-San Sebastián .....	151	23,41
Vitoria-Gasteiz .....	188	29,15
Guztira.....	645	100

(Ikusi 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduketa eremutik kanpoko gaietara loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat bideratu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekarri behar zituzten, edo aurretiazko gestioak egin behar ziren, administrazio organo eskudunetan; eta azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak, edo kexa egiteko funtsik gabekoak ziren edo bisita kexa espediente baten izapidetzeari lotuta egon da, edo herritarrek bere arazo zehatzetan jarraitu beharreko tramiteei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

### - Arreta zuzeneko bulegoetara bertaratutako pertsonen ezaugarriak

Jada aipatu dugu erreklamatzailer gehienak gizonezkoak direla. Bikoteak eta taldeak bisita guztien % 13,12 dira.

#### *Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien ezaugarriak*

	Bilbao	Donostia-San Sebastián	Vitoria-Gasteiz	Guztira	%
Gizonezkoak .....	452	332	446	1.230	47,58
Emakumezkoak .....	302	351	363	1.016	39,30
Bikoteak .....	138	49	51	238	9,21
Taldeak.....	23	46	32	101	3,91
Guztira .....	915	778	892	2.585	100

(Ikusi 17. diagrama eranskinean)

### - Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen adina

Adin multzoen araberako datuak aztertuz, ez da aurreko urteetako aldean gorabehera handirik ikusten. Bisitetatik % 55,86 dira 36tik 55 urtera bitarteko bisitariak egindakoak.

#### *Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien banaketa, adin multzokan*

Adina	Bilbao	Donostia-San Sebastián	Vitoria-Gasteiz	Guztira	%
25 arte .....	16	6	19	41	1,59
26-35.....	119	61	136	316	12,22
36-45.....	261	218	225	704	27,23
46-55.....	243	257	240	740	28,63
56-65.....	107	119	136	362	14,01
66 edo gehiago .....	169	117	136	422	16,32
Guztira .....	915	778	892	2.585	100

(Ikusi 18. diagrama eranskinean)

## 8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere ekime-  
nez, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, euskal herri administrazioaren batean  
jarduketa irregularrik egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak  
emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Ararteko erakundea sortzen eta arau-  
tzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17.1 artikulua ofizioz jarduteko aukera  
aurreikusten du. Horren bidez, Arartekoak esku hartzeko aukera du, administrazioaren  
irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren erreklamazioen  
zain egon barik.

2006. urtean 64 espediente izapidetu ditugu ofizioz, 2006. urtean baino 22  
gehiago.

### **Ofiziozko jardueren banaketa, arloen arabera**

	<b>Ofizioz egindako espedienteak</b>	<b>%</b>
Gizarte ekintza.....	41	64,06
Hezkuntza .....	6	9,38
Herrizaingoa.....	4	6,25
Osasuna.....	4	6,25
Etxebizitza .....	3	4,69
Hirigintza eta lurralde antolamendua.....	2	3,13
Funtzio publikoa .....	1	1,56
Zenbait gestio .....	1	1,56
Justizia.....	1	1,56
Gizarte arazoak.....	1	1,56
Guztira.....	64	100

(Ikusi 20. diagrama eranskinean)

Toki administrazioek eragin dute ofiziozko jarduketa gehien, hau zuzen ere, guz-  
tien erdia. Bestalde, % 32,43 Eusko Jaurlaritzaren gainera izan dira eta % 14,87 foru  
administrazioen gainera (2005ean, berriz, % 24,44).

### **Ofiziozko jardueren banaketa, eragindako administrazioen arabera**

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Toki administrazioa .....	37	50
Eusko Jaurlaritza .....	24	32,43
Foru administrazioa.....	11	14,87
Herri Defendatzailea.....	2	2,7
Guztira.....	74	100

(Ikusi 21. diagrama eranskinean)

## 9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

Ararteko erakundeak duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi zuen, bitartekaritza eskatu dioten pertsonen iritzia jakiteko. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahulenak ezagutu nahi dira, eskaintzen den zerbitzua hobetzen saiatzeko.

Horretarako, kexa espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Azken urteotan, bai kexagileek bete dituzten galdera sorten kopuruak eta bai gure bitartekaritza azaldu duten iritzia ere berretsi egiten dute esperientzia honen emaitza ona. 2006. urtean galdera sorta bidali zaien pertsonetatik % 50,92k erantzun digute, eta horrek ondorio fidagarriak eta aintzat hartzeko modukoak ateratzeko aukera ematen digu.

Emaitzak baloratzeko orduan zera izan behar dugu kontuan, 2005ean guztiz izapidetu diren kexetatik, soilik % 36,84 kasutan ikusi dela ukitutako administrazioaren okerreko jardueraren bat.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, erreklamazioen bat aurkeztu duten eta izapidetzen amaitu zaizkien herritarretatik % 85,06k hauxe esan dute: “*Arartekoak emandako informazioa ona edo oso ona izan da*”, eta “*erabat edo nahiko ados gaude Arartekoak kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin*” (% 66,51k).

Arartekoaren esku-hartzea oro har, hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak, eta abar, nola baloratuko luketen galderari, kexagileetatik % 85,07k “oso balorazio ona edo nahikoa ona” egiten dutela diote eta % 85,07k “beti edo batzuetan administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko lioketela” baiesten dute.

Inkestetatik lortzen diren datuez gain (jarraian jasotzen dira), erreklamatzailerik galdera-sortako ataletako baten bidez ere helaraz diezazkigukete beren iritzia eta iradokizunak. Aurreko urteetan bezala, biztanle askok adierazi dute Arartekoak ahalmen gehiago eduki beharko lukeela bere ebazpenak lotesleak izan daitezen. Iradokizunetan ikus daitekeenez, batzuek uste dute ofizios eskatu beharko lituzkeela egon litezkeen administrazio erantzukizunak eta sakonago aztertu beharko lukeela administrazioek bidaltzen dioten informazioa. Beste batzuek aipatu dute publizitate kanpainen bidez eman dadila erakundearen eta garatzen duen lanaren berri. Kritikenean, biztanle batzuek uste dute Arartekoak informazio igoera baino ez dela eta beste batzuek pentsatzen dute gehiegizkoa dela erreklamazioa aurkeztu zutenetik erantzunen bat jaso zutenera arte igaro den denbora.



**- Inkestaren emaitzak** (ikusi 22 eta 27 bitarteko diagramak eranskinean)**. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?**

. Oso ona .....	44,34
. Ona .....	40,72
. Txarra .....	4,98
. Oso txarra .....	5,88
. Erantzunik ez .....	4,07

**. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?**

. Oso luzea .....	16,74
. Luzea .....	29,86
. Laburra .....	38,91
. Oso laburra.....	9,95
. Erantzunik ez .....	4,52

**. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?**

. Erabat ados.....	34,84
. Nahiko ados .....	31,67
. Ez nago ados .....	12,67
. Erabateko desadostasuna .....	15,84
. Erantzunik ez .....	4,98

**. Zure ustez, kexa eragin zuen arazoa:**

. Oso ondo konpondu da .....	21,27
. Nahiko ondo konpondu da.....	18,10
. Nahiko txarto konpondu da.....	7,24
. Ez da konpondu.....	50,23
. Erantzunik ez .....	3,17

**. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak...)**

. Oso ona .....	54,75
. Nahiko ona.....	30,32
. Nahiko txarra.....	5,43
. Oso txarra .....	6,33
. Erantzunik ez .....	3,17

**. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

. Bai, beti .....	61,54
. Bai, batzuetan .....	23,53
. Ez, inoiz ere ez .....	11,31
. Erantzunik ez .....	3,62

Galdetutakoen erantzunak beren keza eragin zuen arazoa konpontzearen ala ez konpontzearen arabera desberdinak izan zitezkeen. Ez da, baina, horrelakorik gertatu, kexagileek beren arazoa ez dela konpondu edo txarto konpondu dela dioten galdera sortetako datuek erakusten dutenagatik.

**- Euren arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko txarto konpondu” da erantzun duten erreklamatzailerak Ararteko erakundeak izandako esku-hartzeari buruz egin duten balorazioa** (ikus 28. eta 29. diagramak eranskinetan)

**. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak...)**

. Oso ona .....	37,01
. Nahiko ona .....	39,37
. Nahiko txarra .....	8,66
. Oso txarra .....	11,02
. Erantzunik ez .....	3,94

**. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

. Bai, beti .....	49,61
. Bai, batzuetan .....	27,56
. Ez, inoiz ere ez .....	18,90
. Erantzunik ez .....	3,94

Gainera, 2004ko urtariletik aurrera, ahalik eta laguntzarik hoberena eskaintzeko asmoz, gure bulegoetara etortzen diren pertsona guztiei, nahi izanez gero eta izena ipini barik, Ararteko erakundearen egon direnean jaso duten laguntza eta informazioaren gainean egiten duen balorazioa jakinarazteko eta horri buruzko iradokizunak proposatzeko eskatzen diegu. Bisitariak eskatzen dizkiegun datuek eta erantzunek helburu bikoitza dute: erakundera etorri diren pertsonen ezaugarri orokorrak jakitea eta emandako zerbitzuaren gainean egiten duten balorazioa jakitea.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, herritarren % 96,07k Administrazioarekin arazoak dituzten pertsonen Arartekoarengana jotzeko aholkatuko liekete “beti” edo “batzuetan” eta Arartekoarengana etortzean jaso duten informazioari buruzko balorazioari dagokionez, “oso ona” edo “ona” izan dela erantzun dute % 98,04k.

## **VII. ATALA**

ADMINISTRAZIOAREN SAIL  
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE  
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA



## 1. SARRERA ETA OHARRAK

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen ari diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontroleko lanek gutxieneko eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, 23. artikuluan, bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebeharrak hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebeharrak hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailea erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Izan ere, kapitulu hau urteko txosten honetan sartu badugu, Legebiltzarrak eta, hedapenez, iritzi publikoak oro har Arartekoari zintzoki lagundu ez dioten, Arartekoaren esku hartzea eragotzi edo atzeratu duten eta herritarrek jarritako keak behar den epearen barruan ebatzi ahal izatea eragin duten kargudunak edo funtzionarioak nortzuk izan diren jakin dezaten izan da.

Gertatzen da, gainera, kontroleko erakunde hauei lagundu behar horrek lege antolamenduan hain garrantzi handia hartzen duela non ez betetzeak zigor bideko tratamendua ere baduen. Izan ere, lankidetzarik edo laguntzarik ez ematea Estatuko Erakundeen eta Botere Banaketaren aurkako delitu gisa aurreikusita dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta *“Autonomia Erkidegoko Ararteko, Kontu Epaitegi edo antzeko erakundeen ikerketa oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei eskatzen zaizkien txostenak bidaltzera ukatzen direlako edo bidaltzea besterik gabe atzeratzen dutelako, edo ikerketarako beharrezkoak diren administrazioeko espediente edo dokumentazioak eskuratzea eragozten dietelako”* enplegu edo ardura publikotik sei hilabetetik bi urterako etenaren zigorra ezar lekieke. Ikusten denez, mota diseinatzeko orduan lehenago aipatu ditugun bi aldagaiak hartzen dira kontuan, multzoan, lankidetzak betebeharrak hori betetzen dutenak, alegia, zorrozki betetzea eta epe jakin batean egin beharra.

Aurreratu dugun bezala, kapitulu honen helburua administrazioek eta erakundeek nola jardun duten islatzea da ordenamendu juridikoak ezartzen dien laguntza-betebeharrari dagokionez.

2006an, beharrezkotzat jo da zenbait alderdi zehaztea kexak izapidetzerakoan tartean izan diren administrazio desberdinei zuzendutako laguntza-eskaerak kudeatzeko moduari dagokionez.

Lehen, informazio eskaera bati ez bazitzaion ezarritako epean erantzuten, errekerimendua bidaltzen zen eta, beharrezkoa izanez gero, horren ondotik beste bi. Horrela, guztira hiru errekerimendu bidal zitezkeen. Azkenik, hiru errekerimendu horiei jaramonik egiten ez bazitzairen, ohartarazpena bidaltzen zen Arartekoari ez laguntzea legea urratzea dela adieraziz.

Kudeaketa-modu honen bidez metatutako esperientziak ulertarazi zigun horrela jarduteak prozedura gehiegi eta beharrik gabe luzatzen zela. Horregatik, 2006ko urtariletik aurrera, errekerimendu bakarra bidaliko zela erabaki zen.

Berritasun hau egitean, Arartekoak berak jakinarazpena bidali zien administrazio guztiei eta adierazi zien arreta berezia jarri zela ondokoa argi gera zedin:

“Ararteko karguaren erantzukizuna nire gain hartu nuenetik, euskal administrazio publikoetako politika-arduradunei ulertarazi nahi izan diet zein garrantzitsua den Ararteko erakundeari laguntzea, demokrazia aurreratuko herrialdeetako “ombudsman”aren parekoa baita, eta ombudsmanak lan bikaina egiten baitu herritarren eskubideak babesten, haiek administrazio publikoekin dituzten harremanetan. Jakina, laguntzeak ez du esan nahi, ezinbestean, administrazio laguntzailea erakunde honek emandako ebazpenekin ados dagoenik, baina bai, ordea, informazio, agiri edo inpugnatutako jarduera oinarritzeko eskaerei bizkor erantzun zaiela. Horregatik, jakizu erakunde honetan erantzukizun handienak ditugunok zure esanetara gaudela Arartekoaren eta gure esku-hartzearen eremu subjektiboa osatzen duten erakundeen arteko harremanak hobetzeko, eta helburu hori –azken batean, kexa-prozedura zehaztasunez eta bikain bideratzea– lortzen lagun dezaketen proposamenak onartzeko. Erakundeen arteko harremanak sakonduz eta elkarriz lagunduz, errekerimendu eta ohartarazpen idazkirik erabili behar ez izatea espero dugu.”

Jardunbide berri honi jarraiki, ondoren aipatzen diren datuetan Arartekoak tartean diren instituzioei dagokienez garatu dituen kudeaketa-lanak jasotzen dira; horrela, helarazi zaien informazio eskaeraren inguruko erantzunik eman ez denean edo hori berandu heldu denean nahiz gomendioak betetzeari eta legezketasuna gogorarazteari dagokienez isilik geratu direnean, erakunde eskubide-bermatzaile honi laguntzeko betebeharra egoki bete behar dutela ohartarazi eta gogorarazi die.

Aipatu beharrezkoa da, errekerimendu horiek egitean, Arartekoak ez duela automatikoki jarduten. Laguntzeko betebeharra gogorarazteko eginkizuna zuhurtziaz egiten da, administrazio kudeaketan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta eta kexa aurkeztu duten pertsonen erantzun eraginkorra eta azkarra emateko helburuarekin. Nahitaezko arreta eskatzen duten inguruabarren artean, honakoak azpimarra daitezke: informazio eskaeraren xede den arazoaren izaera materiala; eskaeraren hartzaile den organoak duen burokrazia eta administrazio egituraren konplexutasuna; bideratu beharreko prozeduren behin-behineko metaketa; kontrolpean dauden erakundeen eraketari aplikatzen zaizkion denbora-aldagaiak, hauteskunde onduz edota arduradun eta funtzionarioak txandatu eta/edo ordeztearen ondorioz; etab.

Baina, guztia gorabehera, kasu batzuetan ardura-falta antzematen da eta horrek erakunde honen kontrol lanarekiko eta, beraz, erreklamatzailen eskubideekiko errespetu falta adierazten du.

Horrela, erantsitako zerrendetan egiazta daitekeen bezala, urteko txosten hau amaitu berri dugun honetan, azpimarratu beharrekoa da, hiru hilabete baino gehiago igarota, ondoren aipatzen diren administrazio publikoek oraindik ez dietela erantzun erakunde honen laguntza-eskaerei, kasuan kasuko errekerimendua egin dugun arren:

Arabako Foru Aldundia	
Gizarte Gaietarako Saila	454/2006/17 797/2006/31
Gasteizko Udala	1385/2005/22 325/2006/17
Alonsotegiko Udala	654/2006/18
Zornotzako Udala	184/2005/23 186/2005/23
Getxoko Udala	121/2006/19
Lekeitioko Udala	983/2005/29
Trapagarango Udala	397/2006/23
Zamudioko Udala	856/2005/22
Zaratamoko Udala	231/2005/22
Donostiako Udala	479/2005/30 957/2005/22 56/2006/23
Ibarrako Udala	1026/2005/23

Are gehiago, oraindik izapidetzen ari garen zenbait espedientetan errekerimendua aurreko ekitaldiren batean egin zen (horregatik ez dira zerrenda honetan barneratu) eta, 2006ko ekitaldian gestioak egin diren arren, oraindik ez da lortu beharrezko laguntza. Horien artean, honako hauek daude:

Zornotzako Udala	523/2005/23
Bilboko Udala	860/2004/24
Sestaoko Udala	92/2005/28
Zaratamoko Udala	473/2004/22

Zeanuriko Udala	1083/2004/23
Donostiako Udala	83/2004/24
	574/2005/23
Irurako Udala	837/2005/23

Beste kasu batzuetan, eragindako administrazioek azkenean gure eskaerei erantzun dieten arren, horretarako behar izan duten denbora luzeak erakunde honen jarduteko aukera oso baldintzatu du. Horri dagokionez, eta kasu horien zerrenda zehatza eskaintzeko asmorik gabe, aipatu beharrekoa da, adibide gisa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izandako jarrera, zentzua izan zezaten, 2006-2007 ikasturtea hasi aurretik ebatzi behar ziren kexak izapidetzera bideratutako informazio eskaeren aurrean. Tamalez, erakunde honek behin eta berriro egindako errekerimenduei erantzuteko behar izan den denbora luzeak, kasu batzuetan, guregana jo duten herritarren eskaerei behar bezala ezin erantzun ahal izatea eragin du.

\* \* \*

Arestiko iruzkinak egin ondoren, uste dugu hainbat kontu ere argitu behar ditugula, jarraian sartuko diren zerrendetan bildutako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- \* Lehenengo zerrendan, gure kontrolaren mende jarri diren eta izapideetan gutxienez informazio eskari bat eta, izatekotan, agindei bat egin behar izan zaien erakunde edo organismo desberdinetan izapidetutako espedienteak guztira jaso dira. Zerrenda honetan gomendioak betetzeaz eskatutako informazioak eta luzatutako agindeiak ere sartuta daude. Hona hemen zutabe bakoitzean zer informazio islatzen den:
  - (1)zenbat espedientetan egin den 2006. urtean informazio eskariren bat.
  - (2)2006an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den agindeia.
  - (3)agindeia egin zaien espedienteen portzentajea, 2006ean informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.
  - (4)2006an agindeirik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egindako informazio eskariei buruzkoak izanik.
- \* Bigarren zerrendan xehetasunez islatzen dira, banan-banan, bideratzeko azaldu dizkiguten jarduerak burutu dituzten organo edo erakundeei agindeia helarazi behar izan zaieneko espedienteak, bai ohiko informazioei dagokionez bai gomendioak betetzeari dagokionez.
- \* Erreferentziei izartxo gehitu zaieneko espedienteak aurreko urteetan izapidetzen hasitako eta 2006an, izapidetzen jarraitzen zuten, agindeiak egin behar izan zaizkienak dira.
- \* Azkeneko zutabearen islatzen den datua, informazioa oraindik jaso gabe dagoen ala jasota dagoen dioena, muga data 2006ko abenduaren 31 zelarik sartu da.



- \* Azkenik, komeni da nabarmentzea behin baino gehiagotan aipatzen diren espedienteak informazio bat baino gehiago behar izan dutenak direla. Horrela agerrarazten dira planteatutako eskari bakoitzeko zenbat agindei egin behar izan diren jasotzeko.

## 2. ARARTEKOA 2006. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA

### A) Eusko Jaurlaritza

Saila	(1) 2006ko eskaera duten espedienteak	(2) Agindeia duten espedienteak	(3) %	(4) Aurreko urteetako agindeiak
Nekazaritza eta Arrantza.....	2	-	-	-
Kultura .....	4	-	-	1
EITB.....	3	-	-	-
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa .....	92	33	35,86	-
Ogasuna eta Herri Administrazioa.....	5	-	-	-
IVAP - Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.....	3	3	100	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	6	1	16,66	-
Herrizaingoa .....	49	5	10,20	5
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza.....	18	6	33,33	-
Doako Laguntza Juridikoko Batzordea.....	1	-	-	-
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua .....	7	-	-	-
Jabetza Nahitaez Kentzeko Arabako Lurralde Epaimahaia .....	2	-	-	-
Lehendakaritza .....	-	-	-	-
Emakunde.....	2	-	-	-
Osasuna.....	18	2	11,11	-
SVS/Osakidetza .....	46	15	32,60	3
Garraioak eta Herri Lanak .....	6	-	-	-
Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos.....	7	2	28,57	1
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak.....	57	4	7,01	4
Pasaiaiko Badia .....	1	-	-	-
VISESA .....	2	-	-	-

**B) Foru aldundiak**

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2006ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak
<b>Arabako Foru Aldundia</b>				
Nekazaritza .....	2	-	-	-
Gizarte Gaiak .....	13	4	46,15	-
Kultura, Gazteria eta Kirolak .....	3	-	-	-
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak .....	4	-	-	-
Herrilanak eta Garraioak .....	5	-	-	-
Hirigintza eta Ingurumena .....	5	1	20	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2006ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak
<b>Bizkaiko Foru Aldundia</b>				
Gizarte Ekintza .....	22	1	4,54	-
Herri Administrazioa .....	1	1	100	-
Nekazaritza .....	3	-	-	-
Kultura .....	1	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak .....	8	2	25	1
Ingurumena .....	1	-	-	-
Herri Lanak eta Garraioak .....	12	4	33,33	1
Hirigintza eta Udal Harremanak .....	3	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2006ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak
<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>				
Foru Administrazioaren Kalitatea .....	1	-	-	-
Giza Eskubideak, Enplegua eta Gizarteratzea .....	8	-	-	-
Landa Ingurunearen Garapena .....	5	-	-	-
Ahaldun Nagusia .....	3	-	-	-
Fiskalitatea eta Finantzak .....	6	-	-	-
Bide Azpiegiturak .....	5	-	-	-
Lurralde Antolaketa eta Sustapena .....	2	-	-	1
Gizarte Politika .....	9	-	-	-
Gizarte eta Erakunde Harremanak .....	1	-	-	-

## C) Udalak

## - Arabako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
Udala	2006ko eskaera duten espedienteak	Agindea duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindereiak
Alegria-Dulantzi .....	1	1	100	-
Amurrio .....	2	-	-	-
Aramaio .....	3	-	-	-
Arraia-Maeztu.....	1	-	-	-
Artziniega .....	3	1	33,33	-
Ayala / Aiara .....	1	-	-	-
Baños de Ebro / Mañueta .....	1	-	-	-
Iruña Oka / Iruña de Oca .....	1	-	-	-
Iruñaiz-Gauna.....	1	-	-	-
Labastida .....	1	-	-	-
Lagran .....	1	-	-	-
Laguardia.....	2	1	50	-
Lapuebla de Labarca.....	1	1	100	-
Legutiano.....	2	1	50	-
Leza .....	1	-	-	-
Llodio .....	22	15	68,18	-
Ribera Alta.....	1	-	-	-
Ribera Baja / Erribera Beitia.....	1	1	100	-
San Millán / Donemiliaga.....	1	-	-	-
Urkabustaiz .....	1	1	100	-
Vitoria-Gasteiz.....	71	23	32,29	2
Zigoitia .....	3	-	-	1

	(1)	(2)	(3)	(4)
Arabako administrazio batzarrak	2006ko eskaera duten espedienteak	Agindea duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindereiak
Beotegi .....	1	-	-	-
Hereña .....	1	-	-	-
Legutiano .....	1	-	-	-
Ocio.....	2	-	-	1
Respaldiza .....	1	-	-	-
Salinillas de Buradón .....	1	-	-	-
San Román de San Millán.....	2	1	50	-
Ullibari-Jauregui .....	1	-	-	-

**- Bizkaiko Lurralde Historiakoa**

	(1)	(2)	(3)	(4)
<b>Udala</b>	2006ko eskaera duten espeditenteak	Agindéia duten espeditenteak	%	Aurreko urteetako agindéiaak
Abadiño.....	1	-	-	-
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena.....	1	-	-	-
Alonsotegi.....	1	1	100	-
Amorebieta-Etxano.....	6	2	33,33	-
Anteiglesia de San Esteban de Etxebarri / Etxebarriko Doneztebeko Elizatea.....	2	-	-	-
Arcentales.....	2	-	-	-
Arrankudiaga.....	1	-	-	-
Arrigorriaga.....	4	-	-	-
Atxondo.....	2	-	-	-
Balmaseda.....	2	-	-	1
Barakaldo.....	18	7	38,88	2
Basauri.....	4	1	25	-
Bedia.....	1	1	100	-
Berango.....	1	-	-	-
Bermeo.....	3	-	-	-
Berriz.....	1	1	100	-
Bilbao.....	77	14	18,18	6
Busturia.....	2	-	-	-
Derio.....	1	-	-	-
Durango.....	14	2	14,29	-
Elorrio.....	3	-	-	-
Erandio.....	9	4	44,44	-
Ermua.....	3	-	-	1
Etxebarria.....	1	-	-	-
Galdakao.....	5	1	20	-
Galdames.....	2	-	-	-
Gamiz-Fika.....	1	-	-	-
Gautegiz Arteaga.....	1	-	-	-
Gemika-Lumo.....	1	1	100	-
Getxo.....	17	2	11,76	-
Gordexola.....	4	2	50	-
Gorliz.....	1	-	-	-
Güeñes.....	3	-	-	-
Ibarrangelu.....	1	-	-	-
Igorre.....	3	1	33,33	-
Iurreta.....	2	-	-	-
Karrantza Harana/Valle de Carranza.....	1	1	100	-
Larrabetzu.....	1	-	-	-
Laukiz.....	1	1	100	-
Leioa.....	3	-	-	-
Lekeitio.....	6	2	33,33	-
Maruri-Jatabe.....	1	-	-	-
Meñaka.....	2	-	-	-
Mundaka.....	1	-	-	-
Mungia.....	3	-	-	-
Muskiz.....	4	3	75	-
Ondarroa.....	-	-	-	1
Orduña.....	4	-	-	-
Orozko.....	1	-	-	-
Ortuella.....	2	1	50	-
Plentzia.....	6	2	33,33	-
Portugalete.....	15	4	26,66	1

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2006ko eskaera duten espedienteak	Agindia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindiek
<b>Udala</b>				
Santurtzi .....	11	1	9,09	-
Sestao .....	10	6	60	-
Sondika .....	2	2	100	-
Sopelana .....	8	2	25	-
Sukarrieta .....	1	-	-	-
Trucios-Turtzioz.....	1	1	100	-
Ugao-Miraballes.....	2	-	-	-
Urduliz.....	2	1	50	-
Valle de Trápaga-Trapagaran.....	4	1	25	-
Zalla .....	2	-	-	-
Zamudio .....	1	1	100	-
Zaratamo .....	-	-	-	1
Zeanuri .....	1	1	100	-
Zeberio .....	1	-	-	-
Zierbena .....	1	1	100	-

**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

	(1)	(2)	(3)	(4)
<b>Udala</b>	2006ko eskaera duten espedientek	Agindeia duten espedientek	%	Aurreko urteetako agindeiak
Aduna .....	2	-	-	-
Aia .....	1	-	-	-
Andoain .....	1	-	-	-
Anoeta .....	1	1	100	-
Antzuola .....	1	1	100	-
Aretxabaleta .....	1	-	-	-
Arrasate / Mondragón .....	6	2	33,33	1
Astigarraga .....	3	-	-	-
Ataun .....	2	1	50	-
Azkoitia .....	3	1	33,33	2
Belauntza .....	1	-	-	-
Bergara .....	2	1	50	-
Deba .....	2	-	-	-
Donostia-San Sebastián .....	52	11	21,15	7
Eibar .....	3	1	33,33	-
Elgoibar .....	3	-	-	-
Errenteria .....	7	1	14,29	-
Eskoriatza .....	1	1	100	-
Getaria .....	2	-	-	-
Hemari .....	4	1	25	-
Hondarribia .....	6	3	50	-
Ibarra .....	2	-	-	2
Irun .....	13	4	30,76	1
Irura .....	5	3	60	-
Larraul .....	1	-	-	-
Lasarte-Oria .....	1	-	-	-
Lazkao .....	1	-	-	-
Lezo .....	4	-	-	-
Mendaro .....	1	-	-	-
Mutriku .....	2	-	-	-
Oiartzun .....	4	-	-	-
Ordizia .....	1	-	-	-
Orio .....	3	-	-	-
Pasaia .....	9	5	55,56	-
Soraluze-Placencia de las Armas .....	2	-	-	-
Tolosa .....	2	1	50	-
Urretxu .....	1	-	-	-
Usurbil .....	2	1	50	-
Zarautz .....	1	-	-	-
Zestoa .....	1	-	-	-
Zumaia .....	2	-	-	-
Zumarraga .....	2	-	-	-

## D) Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2006ko eskaera duten espedienteak	Agindia duten espedienteak	%	Aurreko urteerako agindiak
Datuak Babesteko Bulegoa .....	1	-	-	-
Datuak Babesteko Euskal Bulegoa .....	1	-	-	-
Gasteizko Probintzia Auzitegia .....	1	-	-	-
Arabako Abokatuen Elkargoa .....	1	1	100	1
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa .....	1	-	-	-
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa .....	1	1	100	-
Legelarien Euskal Kontseilua .....	3	-	-	1
Busturialdeako Ur Partzuergoa .....	1	-	-	-
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa .....	6	1	16,67	-
Zigoitia Ur Partzuergoa .....	1	-	-	-
Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola Fundazioa .....	1	1	100	-
Haurreskolak .....	2	-	50	-
Arratiako Udalen Mankomunitatea .....	1	-	-	-
San Marcoseko Mankomunitatea .....	1	-	-	-
Mebisa-Bilboko Metroa .....	3	1	33,33	-
Estatuaren erakunde eta administrazioak .....	2	-	-	-
Eusko Legebiltzarra .....	1	-	-	-
Txingudiko Zerbitzuak .....	1	-	-	-
Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusia .....	1	-	-	-
Euskal Herriko Unibertsitatea .....	14	10	71,43	-



### 3. ARARTEKOAK 2006. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA

#### A) Eusko Jaurlaritza

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (hexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Kultura	1013/2005/18*	Auzolandegiak eta ordainketen itzulketa	2006/01/16	J
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	858/2005/20	Eskola garraioa	2006/03/15	J
	1193/2005/20	Musika-irakaskuntzen eskaintza	2006/03/15	J
	1438/2005/20	Irakaskuntzako ordezkapenak	2006/02/23	J
	1438/2005/20	Irakaskuntzako ordezkapenak	2006/06/02	J
	59/2006/20	Irakaskuntzako ordezkapenak	2006/06/02	J
	59/2006/20	Lekualdatze lehiaketa. Derrigorrezko esleipenak	2006/10/09	J
	166/2006/25	Adingabearen zaintza eta babesa ez duten gurasoentzako beka eta laguntzei buruzko informazioa	2006/11/14	J
	368/2006/20	Ikasleen onarpena	2006/05/03	J
	369/2006/20	Ikasleen onarpena	2006/08/31	J
	411/2006/20	Ikasle izatetik baja hartzea	2006/06/08	J
	502/2006/20	Eskola-garraioa	2006/05/31	J
	517/2006/20	Irakaskuntzako ordezkapenak	2006/09/21	J
	652/2006/09	Eskolako jazarpena	2006/06/13	J
	691/2006/20	Goi mailako dantza-irakaskuntzak ezartzea	2006/08/21	J
	691/2006/20	Goi mailako dantza-irakaskuntzak ezartzea	2006/11/09	J
	723/2006/20	HEO: ikastaro eskaintzaren ordutegia	2006/10/02	J
	739/2006/33	Mugikortasun horizontaleko txandatik kanpo geratzea	2006/09/18	J
	749/2006/20	Angiozarreko (Bergara) hezkuntza-programazioa	2006/06/29	J
	867/2006/33	Irakasleen lan poltsetarako kontserbatorioko esperientzia	2006/09/18	J
	919/2006/29	Prekarioan hartutako etxebizitzak utzaraztea	2006/10/06	J
	990/2006/20	Irakasle funtzionarioen erretiroa	2006/09/21	J
	1003/2006/20	Lanbide gaitasuna aitortzea	2006/09/21	J
	1135/2006/25	Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan euskarako irakasgaitik salbuestea	2006/11/14	J
	1138/2006/25	Administrazioaren isiltasuna lanbide heziketako irakaskuntzaren arloko eskaeraren aurrean	2006/11/14	J
	1143/2006/20	Irakasle baten aurkako eraso	2006/10/30	JG
	1197/2006/20	Hezkuntza-eskaintza. Itunpeko ikastetxea	2006/12/20	JG
	1203/2006/20	Hezkuntza-laguntzako espezialistak	2006/10/30	J
1235/2006/20	Hezkuntza-premia bereziak	2006/11/09	J	
1402/2006/20	Aholkulari plaza baten titularrarekin izandako arazoak	2006/12/14	JG	
1423/2006/20	Elikagai anitzekiko jasanezintasuna duen ikaslea	2006/12/20	JG	
1426/2006/20	Doktoratu ondoko beka ordaintzea	2006/12/14	JG	
Ogasuna eta Herri Administrazioa	335/2006/20	Haurra zaintzeko lanaldi murrizketako baimena	2006/05/03	J
	444/2006/20	2000ko LEP. Esperientzi balorazio desberdina	2006/06/08	J
	959/2006/33	Lan poltsak. Beste administrazio batzuetako esperientzi balorazioa	2006/10/03	J
Industria, Merkataritza eta Turismoa	585/2006/20	Elektronikako ingeniari titulua aitortzea	2006/12/14	JG
Herrizaingoa	287/2005/21*	Atxilotuei eragindako tratu txarrak ez ikertzea	2006/02/10	J
	530/2005/19*	Udalzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko deskoordinazioa	2006/02/09	J
	580/2005/19*	ADNrako lagin biologikoak legez kontra lortzea	2006/02/08	J
	727/2005/31*	Nazionalitatea aipatzea delituen gaineko informazioetan	2006/02/10	J
	951/2005/21*	Atxilotuei eragindako tratu txarrak ez ikertzea	2006/02/10	J
	1413/2005/20	Haurra izateagatik lanaldi murrizketako baimena	2006/02/23	J
	199/2006/20	Segurtasun enpresarekin izandako lan gatazka	2006/05/31	J
	349/2006/19	Manifestazioan Ertzaintzak neurrigabe jardutea	2006/09/29	J

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Herrizaingoa	953/2006/20	Laneko jazarpen morala	2006/09/29	J
	1033/2006/18	Trafikoko seinaleak eta euskara	2006/09/25	J
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	684/2005/16	Semea edo alaba jaiotzeagatik edo haurra adoptatzeagatik familia bati emandako laguntzak. Zenbatekoa	2006/09/25	J
	1264/2005/19	Deustuko Ertzaintzaren komisariako aldageletan lan segurtasunaren arloko gabeziak	2006/06/08	J
	1286/2005/20	Laneko jazarpen morala	2006/05/03	J
	321/2006/16	Familia bati emandako laguntzak. Informazioa eta epeak	2006/06/22	J
	505/2006/16	Bitarteko funtzionario bati eszedentziagatik laguntza ematea	2006/06/22	J
	522/2006/18	Ezinduen laneratzea	2006/06/29	J
Osasuna	1285/2005/18	Txertaketa eta kanpo osasuna	2006/05/19	J
	45/2006/18	Osasun pribatuan arreta jasotzeko baimena	2006/06/29	J
SVS / Osakidetza	413/2005/18*	Antzutasunaren aurkako tratamendua jasotzeko gehiegi itxarotea	2006/02/22	J
	1201/2005/18*	Ondare erantzukizuna	2006/02/22	J
	1295/2005/18*	Itxaron zerrenda eta hori prestatzen izandako akatsa	2006/02/22	J
	346/2005/20	Psikologo klinikoak	2006/05/03	J
	1459/2005/18	Igerilekuaren baldintzak	2006/04/05	J
	117/2006/18	Adingabeari ebakuntza egiteko itxaron behar izan den denbora	2006/05/04	J
	271/2006/20	Kontratazio zerrendetatik kanpo uztea	2006/06/27	J
	271/2006/20	Kontratazio zerrendetatik kanpo uztea	2006/09/21	J
	317/2006/18	Traumotologian itxarondako denbora	2006/05/03	J
	583/2006/20	Goi mailako kalitate teknikarien poltsan sartzeko egindako azterketa ez baloratzea	2006/06/27	J
	594/2006/20	LEPan postua esleitu izana jakinarazi ez izatea	2006/11/22	J
	594/2006/20	LEPan postua esleitu izana jakinarazi ez izatea	2006/06/26	J
	597/2006/20	Bitartekoen kontratazio zerrendetatik aldi baterako kanpo uztea	2006/07/17	J
	745/2006/18	Ondare erantzukizuna	2006/09/05	J
	795/2006/18	Arreta kaskarra: errespetu falta	2006/09/05	J
	812/2006/20	Titulurik ez izateagatik kontratazio espezifikotik kanpo uztea	2006/07/07	J
	812/2006/20	Titulurik ez izateagatik kontratazio espezifikotik kanpo uztea	2006/12/14	JG
	855/2006/25	Ondare erantzukizuna	2006/09/27	J
	915/2006/33	2006ko LEP. Famili medikua. Galdera-multzo itxia	2006/10/03	J
	915/2006/33	2006ko LEP. Famili medikua. Galdera-multzo itxia	2006/12/14	J
1059/2006/18	Itxaron zerrendak	2006/09/14	J	
1165/2006/18	Itxaron zerrendak	2006/11/06	J	
Eusko Trenbideak	1186/2005/22*	Ondare erantzukizuna	2006/03/07	J
	1081/2005/22	Ondare erantzukizuna	2006/04/18	J
	89/2006/22	Salmenta-makinekin izandako arazoak	2006/12/19	JG
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	625/2005/30*	Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako etxebizitza eskuratzeko eskakizunak	2006/02/10	J
	701/2005/30*	Hirugarrenen aurkako salaketari erantzunik eman ez izatea	2006/02/10	J
	1261/2005/17*	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	2006/02/27	J
	1382/2005/29*	Garajeetan ura sartzea	2006/03/07	J
	1382/2005/29	Garajeetan ura sartzea	2006/09/14	J
	386/2006/23	Etxebizitza-eskaera Etxebideren Eskatzaileen Erregistrotik kanpo uztea	2006/06/27	J
	458/2006/17	BOEak egokitzeko txosten teknikoak egin behar izatea	2006/06/22	J
	939/2006/17	Irisgarritasun falta	2006/10/18	J

**B) Foru aldundiak****- Arabako Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gizarte Gaiak	141/2006/31	Egoitza publikoetan sartzeko itxaron zerrenda	2006/05/05	J
	454/2006/17	Eraikinaren irisgarritasunik eza	2006/06/22	JG
	797/2006/31	Administrazioaren isiltasuna	2006/10/31	JG
	916/2006/09	Bi adingabeen arteko ustezko jarduera okerra	2006/11/07	J
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	455/2006/17	Arabako urtegiatiko aisialdi parkeen irisgarritasuna	2006/06/22	J

**- Bizkaiko Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gizarte Ekintza	626/2006/20	EEP: hizkuntza eskakizunak	2006/06/29	J
Herri Administrazioa	986/2006/33	Antolakuntzako teknikari probetarako titulazioa	2006/10/03	J
	626/2005/16*	Likidazioak bertan behera uzteko eskaera	2006/03/23	J
Ogasuna eta Finantzak	540/2006/16	Bidegabe jasotako zenbatekoa eskatzea	2006/09/25	J
	1338/2005/16	Katastroarekin izandako arazoak	2006/03/23	J
Herri Lanak eta Garraioak	948/2005/23*	Ondare erantzukizuna	2006/02/10	J
	1163/2003/17	Irisgarritasun falta	2006/03/22	J
	73/2006/23	Industri sektorearen hirigintzako garapena	2006/03/06	J
	462/2006/22	Mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarritasuna	2006/09/11	J
	830/2006/17	Hondakinen isuri kontrolatugabeak	2006/09/05	J

**- Gipuzkoako Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Lurralde Antolaketa eta Sustapena	1276/2005/23*	Lurzoru urbanizaezinean antena instalatzea	2006/02/08	J

## C) Udalak

## - Arabako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Alegria-Dulantzi	913/2006/20	Haur eskolan onartzea	2006/08/21	J
Artziniega	1261/2006/29	Herri lurraz azpierzarentan ematea	2006/12/14	JG
Laguardia	367/2006/25	Ondare erantzukizuna	2006/05/15	J
	367/2006/25	Ondare erantzukizuna	2006/09/27	J
Lapuebla de Labarca	399/2006/22	Ur kontsumoari dagokion gehiegizko ordainagiria	2006/06/28	J
Legutiano	768/2006/22	Etxebizitzaren inguruan ur beltzen emokadura eta azaleratzeak	2006/09/28	J
Llodio	169/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	170/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	171/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	172/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	173/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	174/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	176/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	177/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	178/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	179/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	180/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	181/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	182/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	183/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	185/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
Ribera Baja Erribera Beitia	1444/2005/23	Betearazpen subsidiarioko agindua ez betetzea	2006/05/18	J
Urkabustaiz	61/2006/29	Arau subsidiarioen plan barruko aldaketa	2006/04/25	J
Vitoria-Gasteiz	1385/2004/22*	Hegoaldeko seminarioaren area erabat urbanizatu ez izatea	2006/04/04	JG
	1287/2005/23*	BOE eskuratzeko eskakizunak	2006/02/08	J
	308/2005/19	Behar bezala aparkatutako ibilgailua bidetik kentzea	2006/09/21	JG
	1256/2005/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/09/04	J
	1271/2005/17	Zaborra biltzean eragindako zarata gogaikarriak	2006/04/06	J
	1302/2005/16	OHZko titularkidetasuna	2006/09/25	J
	1360/2005/31	Oinarritzko errenta etetea	2006/05/05	J
	1415/2005/20	Udalak zerbitzu aktibora itzultzeko baimenik ez ematea	2006/06/14	J
	1423/2005/31	Oinarritzko errenta etetea	2006/05/05	J
	1429/2005/31	GLL eta oinarritzko errenta etetea	2006/05/05	J
	62/2006/18	Administrazio kontratuko baldintzen agiria	2006/04/05	J
	254/2006/17	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/10/19	J
	324/2006/17	Irigarritasun falta	2006/06/22	J
	325/2006/17	Autobusen ordutegi eta ibilbideari buruzko informazioa	2006/06/22	JG
	326/2006/17	"Upelen ibilbideari" buruzko liburuxka	2006/06/22	J
	327/2006/17	Udal bulegoetan jarritako "Ez erre" kartelak	2006/06/22	J
	329/2006/17	Alde kromatikoari dagokionez legea urratzea	2006/06/22	J
	330/2006/17	Udalaren tutoretzako apartamentuetako seinaleak	2006/06/22	J
	762/2006/29	Salmenta ibiltaria baimendutako jarduerekin bateragarri egitea	2006/11/06	J
	666/2006/18	Euskararen erabilera	2006/07/14	J
703/2006/29	Zumetzuko bide publikoa	2006/11/06	JG	
944/2006/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/10/02	J	
962/2006/24	Ondare erantzukizuna	2006/11/13	J	
973/2006/33	Analisi mikrobiologikoko zuzendari teknikoa kontratatzea	2006/11/17	J	
1142/2006/22	Autobus geltokietako seinaleak	2006/11/20	JG	
Zigoitia	511/2005/22*	Errotuluen esleipena	2006/05/19	J

**Administrazio batzarrak**

Batzarra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Ocio	1294/2005/22*	Bide publikoko tarte bat ez egokitzea	2006/03/07	R
San Román de San Millán	285/2006/29	Kale estu publiko batean eraikina egitea	2006/06/06	R

**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)	
Alonsotegi	654/2006/18	Erretzeko debekua	2006/09/05	JG	
Amorebieta-Etxano	184/2005/23	Auzotar batek beste partikular baten lur eremuan egindako lanak	2006/05/08	JG	
	186/2005/23	Administrazioaren isiltasuna	2006/03/06	JG	
Balmaseda	408/2005/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/01/03	J	
Barakaldo	859/2005/23*	Bizilekua etxebizitza berrian emateko eskaera	2006/02/09	J	
	1527/2004/18*	Igerilekuko uraren kalitateari buruzko informazioa	2006/02/22	J	
	1178/2005/23	Karrerapeen erabilera publikoa	2006/03/06	J	
	1252/2005/25	Hiri-lurrean sailkatutako jarduerak	2006/10/24	JG	
	1458/2005/16	TMIZ. Ibilgailuari baja ematea eta gehiegi ordaindutakoa itzultzea	2006/03/07	J	
	1018/2006/23	Udalari lurak eskatzea	2006/11/23	JG	
	284/2006/20	Udalak epaia ez betetzea	2006/05/03	J	
	385/2006/23	Udalak igogailua jartzeko baimena ukatzea	2006/08/04	J	
	589/2006/19	Udalerriko eremu batean bide segurtasuna bermatuta ez egotea	2006/09/21	J	
	Basauri	369/2006/20	Haurrak eskolatzeko iruzurrak	2006/06/29	J
Bedia	40/2006/29	Administrazioaren isiltasuna	2006/06/29	J	
Berriz	73/2006/23	Industri sektorearen hirigintzako qarapena	2006/03/06	J	
Bilbao	301/2004/25*	Ondare erantzukizuna	2006/02/10	J	
	906/205/25*	Ondare erantzukizuna	2006/02/10	J	
	1260/2005/22*	Administrazioaren isiltasuna	2006/03/07	J	
	1315/2005/22*	Administrazioaren isiltasuna	2006/03/07	J	
	1345/2005/25*	Ondare erantzukizuna	2006/02/10	J	
	1389/2005/24*	Egoliarrentzako aparkalekuaren bereizgarria ematea eta isunak ordaintzea	2006/02/21	J	
	1482/2001/16	Hilobien gaineko hileta-eskubideen kalifikazio juridikoa	2006/06/22	J	
	1163/2003/17	Irisgarritasun falta	2006/10/18	J	
	1389/2004/25	Ondare erantzukizuna	2006/06/26	J	
	1430/2004/29	Ibilgailuei behin betiko baja ematea eraman eta gero	2006/05/26	J	
	530/2005/19	Udaltzaingoa eta Ertzaintzaren arteko deskordinazioa	2006/05/22	J	
	844/2005/19	Administrazioaren isiltasuna	2006/09/21	J	
	100/2006/31	Administrazioaren isiltasuna	2006/12/12	JG	
	207/2006/16	Panteoiak zaintzeagatik tasekin bat ez etortzea	2006/09/25	J	
	253/2006/19	Udaltzainak atzeritarrekin gehiegikeriaz jokatzeko	2006/06/08	J	
	293/2006/25	Ondare erantzukizuna	2006/05/15	J	
	495/2006/01	Adinekoak egoitzetan sartzeko laguntzak	2006/07/14	J	
	500/2006/25	Ondare erantzukizuna	2006/06/26	J	
	722/2006/31	Gizarta behar larrietarako laguntza telefonoz ukatzea	2006/08/02	J	
	1034/2006/31	Hutsegitearen ondoriozko erroldatzearen ziurtagiria	2006/05/05	J	
	Durango	195/2005/23	Kaleen izenak	2006/03/06	J
		1114/2005/16	Zabor bilketari eta estolda-sareari buruzko erroldan barneratzea	2006/03/23	J
	Erandio	1213/2000/19	Aparkalekuetan irisgarritasun arauak urratzea	2006/03/15	J
817/2004/28		Ostalaritza-establezimenduen okerreko funtzionamendua	2006/04/26	J	
1403/2004/28		Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/04/26	J	
1339/2005/20		Musika-eskolarako garraiorik ez egotea	2006/03/07	J	

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Ermua	314/2005/18*	Legezketasun printzipioaren aurkako jarduera	2006/02/22	J
Galdakao	1279/2006/20	Haur eskolako instalazioen egoera	2006/11/09	J
Gemika-Lumo	402/2006/29	Eusko-Trenek etkolaren kokapena aldatzeko egindako eskaera	2006/06/08	J
Getxo	121/2006/19	Kale bateko trafikoaren antolamenduak bide segurtasunean eragina izan dezake	2006/09/21	JG
	851/2006/25	Ondare erantzukizuna	2006/11/14	J
Gordexola	4/2006/28	Garaje batean txoko jarduera garatzea	2006/06/19	J
	684/2006/22	Bide publikoa egokitueta ez egotea	2006/09/06	J
Igorre	446/2006/17	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/10/18	J
Karrantza Harana / Valle de Carranza	826/2006/29	Bidalitako informazioarekin bat ez etortzea	2006/09/14	J
Laukiz	299/2006/23	Animaliak abandonatzeagatiko salaketa	2006/11/07	J
Lekeitio	983/2005/29	Lurzoru urbanizaezinean etxebizitza birgaitzeko emandako lizentziarekin bat ez etortzea	2006/08/09	JG
	912/2006/17	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/10/18	JG
Muskiz	10/2005/23	Ukuiilu batean egindako etxebizitzak	2006/05/18	J
	48/2006/28	Abeltzaintzako jardueraren legez kontrako egoera	2006/05/03	JG
	90/2006/28	Abeltzaintzako jardueraren legez kontrako egoera	2006/05/06	JG
Ondarroa	1304/2005/23*	Administrazioaren isiltasuna	2006/02/20	J
Ortuella	716/2005/23	Lurzatién eraikigarritasuna	2006/05/19	J
Plentzia	772/2006/34	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	2006/11/28	JG
	1054/2006/29	Urbanizazio lanak egiteko eskaera	2006/11/06	JG
Portugalete	1297/2005/20*	Musika-eskola: hizkuntz normalizazioa	2006/02/10	J
	984/2002/17	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/06/22	J
	113/2004/17	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/03/22	J
	1061/2005/25	Ondare erantzukizuna	2006/09/14	J
	411/2006/20	Ikasleen onarpena	2006/06/14	J
Santurtzi	1393/2005/19	Administrazioaren isiltasuna	2006/11/14	JG
Sestao	938/2005/31	Erroldatzeko zailtasunak	2006/12/19	JG
	160/2006/31	Oinarrizko errenta etetea	2006/04/05	J
	188/2006/31	Gizarte eta hiri berrikuntzarako prozesua	2006/03/29	J
	577/2006/23	Administrazioaren isiltasuna	2006/08/04	J
	876/2006/34	Alokairuan hartutako akastun udal etxebizitza	2006/10/26	J
	954/2006/23	Aparkaleku plaza	2006/11/21	JG
Sondika	222/2006/23	Aparkaleku plaza	2006/05/18	J
	499/200616	TMIZ ez ordaintzeagatik kontua bahitzea	2006/09/25	J
Sopelana	70/2005/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/09/25	JG
	70/2005/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/12/14	JG
	222/2005/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/09/25	JG
	222/2005/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/12/14	JG
Trucios-Turtzioz	1116/2005/20	Ordu-tegiak. Alaba zaintzeko lanaldi murizketa	2006/03/06	J
Urduliz	102/2005/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/12/18	JG
Valle de Trápaga- Trapagaran	397/2006/23	Lanen betearazpen subsidiarioa	2006/08/04	JG
Zamudio	856/2005/22	Auzotarren txakurrek sortutako eraozpenak	2006/09/18	JG
Zaratamo	231/2005/22*	Txabola osasungaitza	2006/05/19	JG
Zeanuri	99/2006/23	Ukuihua legez kontra erabiltzeagatiko salaketa	2006/10/04	J
Zierbena	843/2006/29	Etxe baten fatxadan jarritako kale-argi publikoa	2006/10/04	J

**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (hexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Anoeta	528/2006/16	TMIZn ezgaitasunagatik salbuespena aplikatzea	2006/06/22	J
Antzuola	765/2005/16	TMIZaren salbuespena ez aplikatu izana	2006/03/23	J
Arrasate-Mondragón	830/2005/19*	Bi udaltzainen abusuzko tratua	2006/02/08	J
	1400/2005/22	Administrazioaren isiltasuna	2006/12/19	JG
	544/2006/29	Truke kontratua betetzea	2006/08/09	J
Ataun	877/2006/22	Bidearen egokitzapena	2006/12/18	JG
Azkoitia	881/2003/17*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/07/26	JG
	374/2005/23*	Baserrirako sarbidea	2006/02/09	J
	1386/2005/20	Azpiofizial plaza betetzeko eskakizunak	2006/03/07	J
Bergara	1383/2005/29	Txabolak. Udalak ezer egin ez izana	2006/03/07	J
	1383/2005/29	Txabolak. Udalak ezer egin ez izana	2006/08/09	J
Donostia-San Sebastián	865/2004/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/01/03	J
	479/2005/30*	BOEen kupoa adimen urritasuneko senide baten ardura dutenentzat	2006/02/10	JG
	791/2005/28*	Ostalaritza-establezimenduaren okerreko funtzionamendua	2006/02/08	J
	803/2005/17*	Irigarritasun arazoak	2006/02/27	J
	926/2005/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/02/27	J
	1130/2005/23*	Hegalen irristatzea	2006/02/09	J
	1276/2005/23*	Lurzoru urbanizaezinean antena jartzea	2006/02/08	J
	829/2004/23	Extebizitza eraikitzeo lizentzia	2006/11/22	J
	165/2005/20	Udal eskoletan onartzeko irizpideak	2006/03/15	J
	957/2005/22	Fidantza itzultzea	2006/04/10	JG
	1099/2005/19	Kalez kale saltzerakoan salgaiak konfiskatzea baimenik ez izateagatik	2006/03/08	J
	1130/2005/23	Hegalen irristatzea	2006/08/04	J
	9/2006/29	Informazio batzordeetako parte-hartzea	2006/05/24	J
	56/2006/23	Lizentziak	2006/05/18	JG
	609/2006/20	Lan egoera	2006/09/21	J
	794/2006/20	LEPerako eskakizunak	2006/10/19	J
	847/2006/23	Ikastetxe baterako sarbidea	2006/11/22	J
	874/2006/29	Kristina Enea parkean garatutako jardunekin bat ez etortzea	2006/09/14	J
Eibar	622/2006/23	Antolamendutik kanpoko auzoa	2006/08/04	J
Errenteria	512/2006/29	Behar ez bezala landa-bidetik kamioiak igarotzen zirela ikusita neurririk ez hartzea	2006/08/09	J
Eskoriatza	937/2006/17	Kutsadura akustikoa	2006/10/18	J
Hernani	682/2006/20	Kontratazio politsetako ordena aldatzea	2006/06/29	J
	682/2006/20	Kontratazio politsetako ordena aldatzea	2006/09/04	J
Hondarribia	1402/2005/19	Administrazioaren isiltasuna	2006/05/19	J
	930/2006/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2006/10/18	J
	995/2006/29	Administrazioaren isiltasuna. Abiadurari eta zaratari aurre egiteko neurriak hartzea	2006/11/06	J
Ibarra	993/2003/19*	Oinezkoen eremuan ibilgailuak uztea	2006/02/08	J
	1026/2005/23*	Extebizitza legezatu gabeko erabilera jartzea	2006/02/09	JG
Irun	1280/2005/19*	Poliziak adingabea behar bezala ez tratatzea	2006/02/08	J
	868/2005/19	Alardean segurtasun neurririk ez egotea	2006/05/19	J
	1188/2005/17	Solteko zerealak siloetara husterakoan sortutako hauts lainoak	2006/06/22	J
	635/2006/20	Udalekuetan jasotako tratua	2006/07/17	J
	1025/2006/23	Ondare erantzukizuna	2006/11/23	JG
Iruña	932/2006/25	Administrazioaren isiltasuna	2006/09/27	J
	933/2006/29	Administrazioaren isiltasuna. Udal ezkutua aldatzeko eskaera	2006/11/06	J
	934/2006/22	Trinketea zaintzeko lanak	2006/11/06	JG
Pasaia	18/2006/29	Lur eremu baten titulartasunaren gaineko eztabaida	2006/06/08	J
	18/2006/29	Lur eremu baten titulartasunaren gaineko eztabaida	2006/12/14	JG
	897/2006/31	Erroldatzea	2006/11/29	J
	1034/2006/17	Pasaiaiko portutik etorritako zarata	2006/10/18	JG
	1079/2006/23	La Herreraren hirigintzako egoera	2006/11/23	JG
1257/2006/29	Donibaneko itsas ertzaren narriadura	2006/12/14	JG	

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Tolosa	233/2006/23	Ur hornikuntza	04/08/2006	J
Usurbil	715/2006/29	Administrazioaren isiltasuna. Errekastoaren inguruak garbitzea	14/09/2006	JG

#### D) Beste erakunde publiko batzuk

	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Arabako Abokatuen Elkargoa	454/2005/21*	Administrazioaren isiltasuna	2006/02/13	J
	192/2006/32	Administrazioaren isiltasuna	2006/04/18	J
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	1117/2006/32	Abokatuaren ordainsaria	2006/12/29	JG
Legelarien Euskal Kontseilua	588/2005/21*	Atzerapena prozedura zigortzaile batean	2006/02/13	J
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	948/2005/23	Ondare erantzukizunak	2006/11/22	JG
Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola Fundazioa	1348/2006/20	Modelo ikastaroko matrikula	2006/12/14	J
Haurreskolak	977/2006/20	"Mina del Morro" haur eskolako instalazioen egoera	2006/10/30	J
Mebisa-Bilboko Metroa	314/2006/25	Ondare erantzukizuna	2006/06/12	J
Euskal Herriko Unibertsitatea	244/2006/20	Praktikak baliozkotzea	2006/07/17	J
	263/2006/20	Medikuntzako lizentziadunik ez egotea	2006/05/03	J
	401/2006/25	Kalifikazioa berrikusteko erabakiarekin bat ez etortzea	2006/07/03	J
	464/2006/18	Arkitektura teknikoko ikasketak euskaraz ezin egin izatea	2006/06/12	J
	585/2006/20	Elektronikako ingeniari titulua aitortzea	2006/09/21	J
	828/2006/20	Gasteizko enpresa-eskoletako eskola-egunen egutegia	2006/09/21	J
	828/2006/20	Gasteizko enpresa-eskoletako eskola-egunen egutegia	2006/12/20	JG
	1023/2006/20	Gratuondoko ikasketak egin ahal izatea	2006/09/21	J
	1264/2006/25	Matrikula ez ordaintzearen ondorioak	2006/12/15	J
1381/2006/20	Barne sustapena. Administrazio eta zerbitzuetao langileak	2006/12/20	JG	



## **VIII. ATALA**

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK  
ZENBATERAINO BETE DIREN



Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak –otsailaren 27koak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: “*Dagokien ihardutze-sailei, herrilanaiei edo hoi lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriazko egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko*” (sic). Kexak bideratzeko lana garatzean, batzuetan administrazio-jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugu, bai herritarren eskubideak urratu direlako, bai ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak bete ez direlako, bai aztertutako administrazio-jokaera hobea izan daitekeelako, ikuspegi bermatzaileago batetik, edo eraginkorragoa, zerbitzu publiko baten helburu propioak betetzean. Kasu horietan, Arartekoak gomendio bat bidaltzen du kexak eragindako administraziora, jokaera alda dezan eskatzeko.

Hala ere, komeni da zehaztea beti ez dela beharrezkoa gomendia egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezotasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregularitasunak antzeman dituzten 308 administrazio-jokaera gomendiorik egin gabe konpondu dira.

Nolanahi ere, egindako gomendioak betetzeari bakarrik lotuko gatzaiakio: 2006. urtean egindako 28 gomendioetatik eta 2005eko txosteneko datuen arabera erabakitzeke zeuden beste 7 gomendioetatik, 8 onartu egin dira; 18 ez dira onartu, 7 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daude eta 2 bertan behera utzi dira, auzitegira eraman direlako.

Emaitza horiek baloratzerakoan, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendioak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola herri-administrazioetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arrazoitzeke beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeke irizpide batzuk aldatzeke eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisisetan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzeke eta gure argudioak errepikatzeke, gure gomendioak eta gogorarazteke oharrak betetzeke orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeke dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatu ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzeke eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzeke dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio-jokaera bat aldatzeke gomendatzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteke arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela. Administrazioaren

desadostasun juridikoa gertatzekotan, erakunde honek bere gomendioari eutsiko dio, hala badagokio, eta urteko txostenean ez dela onartu agertuko du.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendia onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendia ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartutzat joko dela gomendia, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean. Erakundeen artean begirune eza erakusten duen jarrera horrek eragotzi egiten du gomendia ez onartzeko arrazoiak jakitea, eta, askotan, besterik gabe, hartutako administrazio erabakiak ez duela oinarri juridikorik azaldu beharra saihesten du.

Gure ustez, gomendia eragin duten espedienteak amaitzeko beste modu desgoki bat gomendia ez onartzea da, eragindako administrazioak kontrako jokaera hori oinarritzen duten argudioak azaldu gabe.

Uste dugu jokaera horiek –erantzun nahi ez izatea edo arrazoitu gabeko ezezko erantzuna ematea– urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokaera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde eskubidebermatzaile batera babes eske joan diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorarazi behar da onartu gabeko gomendio bakoitzak, erakunde honen bermatze-lanerako oztupoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Atal honetan 2006an egin diren eta 2005eko abenduaren 31n behin betiko erantzunaren zain zeuden gomendioen egoera aipatuko dugu. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak eta 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioaren behin betiko erabakiaren zain daudenak.

## 1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

\* **369/2006/20 espedientea (24/2006 Gomendioa)**. Laguntza publikoez mantentzen diren ikastetxeetako ikasleak onartzeko prozesuetan, familiek adierazitako bizilekuak errealitatearekin bat etortzea indartzeko neurriak susta zitezela gomendatu zen.

### B) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

#### **ARABAKO UDALAK**

##### **Gasteizko Udala**

\* **172/2005/19 espedientea (10/2006 Gomendioa)**. “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorrean jasotako parametroen arabera ikerketa egin eta horren emaitzen berri eman zedila gomendatu zen.

\* **6/2006/310 espedientea (12/2006 Gomendioa)**. Beharrezko jarduerak burutu zitezela gomendatu zen, udalerrri horretan larriki baztertuta, burua nahastuta eta alkohola edo drogak modu eraginkorrean hartuz bizi diren pertsonak beren arazoari dagokion arreta jaso zezaten.

#### **BIZKAIKO UDALAK**

##### **Amorebieta-Etxanoko Udala**

\* **1216/2006/16 espedientea (23/2006 Gomendioa)**. Helbideratutako ur ordainagiri bat kobratzeko hasitako premiamendu prozedura berrikusi eta ordainagiriak banku bidez helbideratzeari buruzko araudia alda zedila gomendatu zen.

#### **GIPUZKOAKO UDALAK**

##### **Donostiako Udala**

\* **744/2004/23 espedientea (21/2006 Gomendioa)**. Ondare erantzukizuneko erreklamazioa ezesten zuen ebazpena atzera bota zedila gomendatu zen eta beste bat eman zedila hiri bideak antolatzeko udal zerbitzuaren ezohiko funtzionamenduak eragindako kaltearen zenbatekoa ordaindu beharra adierazteko.

**Lasarte-Oriako Udala**

\* **22/2005/22 espedientea (7/2005 Gomendioa)**. Kexa aurkeztu zuen interesdunak agiri batzuk lortzeko egindako eskaera berariaz ebatz zedila gomendatu zen.

**Oiartzungo Udala**

\* **459/2005/31 espedientea (12/2005 Gomendioa)**. Interesdunak udal erroldan sartzeko egin zuen eskabidea onar zedila gomendatu zen.

**Orioko Udala**

\* **634/2002/24 espedientea (2/2006 Gomendioa)**. Kalteengatiko ordaina jasotzeko eskabide bat bidera zedila gomendatu zen.

## 2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **1306/2003/24 espedientea (21/2005 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri ikastetxeetako irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko argibideak ezarriz, eta legeriak onartutako prozedurazko berme guztiak betez, zerrendatik kanpo utz zitezela argibideetan agertzen ziren espezialitateetarako berariaz aurreikusi ziren titulazioak ez zituzten pertsona guztiak.

\* **1086/2004/20 espedientea (6/2006 Gomendioa)**. EAeko funtzio publikoan ahalmen urriko pertsonak erabat integratuko zirela bermatzen ahalegintzeko konpromisoa hartu behar zela gomendatu zen.

\* **858/2005/20 espedientea (11/2006 Gomendioa)**. Bi adingaberi onartutako eskola-garraiorako laguntzak edo diru-kopuruak berriz azter zitezela gomendatu zen.

### B) FORU ADMINISTRAZIOA

#### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

##### Gizarte Ekintza Saila

\* **1263/2005/31 espedientea (18/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: tutoretzapean zuen adingabe bat babes zedila, egoitza-baimena ukatu ondoren, eta inongo jarduera edo erabakik adingabearen segurtasuna arriskuan jar zezan zain zedila, bereziki, aberriratze erabakiei zegokienez.

### C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

#### ARABAKO UDALAK

##### Aramaioko Udala

\* **1093/2005/29 espedientea (7/2006 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: zegokion bidea erabiliz, ken zedila Aramaioko Plangintzako Arau Subsidiarioetatik nekazaritza-tresnak gordetzeko txabolak eraikitzeke exijitzen zen erroldatze baldintza eta, hala bazegokion, jarrai zezala txabola legezatzeko asmoz interesdunak eskatu zuen hirigintza-lizentzia izapidetzen, plangintza berri horrek baimenduko zituen erabileren arabera.

## Bastidako Udala

\* **457/2004/28 espedientea (8/2005 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: eska zekiola taberna baten titularrari hilabeteko epe luzaezinean aukera zezala, behin betiko, 2004ko apirilaren 1eko 38/2004 Dekretuan proposatu ziren bi aukeretatik bat, eta ohartaraz zieziola hori egin ezean taberna itxiko zela, zuhurtasunezko neurri gisa.

## Gasteizko Udala

\* **107/2004/24 espedientea (16/2006 Gomendioa)**. Trafikoko prozedura batean ezarritako zigor bat nahitaez betearazteko premiamendu bidea indarrrik gabe utz zedila gomendatu zen.

\* **1226/2005/24 espedientea (17/2006 Gomendioa)**. Trafiko arloko zigor prozedura bat indarrrik gabe utz zedila gomendatu zen.

\* **1287/2005/23 espedientea (15/2006 Gomendioa)**. Udal horrek sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzetarako irispidean bost urtez erroldatuta egoteko baldintza berriz azter zedila gomendatu zen.

## BIZKAIKO UDALAK

### Atxondoko Udala

\* **383/2003/23 espedientea (3/2006 Gomendioa)**. Lurzati bat itxeari buruz hirigintzako legezkotasuna berreskura zedila gomendatu zen eta, horretarako, neurri gokiak har zitezela.

### Bilboko Udala

\* **1323/2003/24 espedientea (1/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: baliorik gabe utz zitezela herritar baten kontra trafiko arloan izapidetu ziren bigarrenko eta horren ondorengo zigor prozedurak, aparkatze ekintza bakar batengatik elkarrekin jarraian egin ziren salaketek eragindakoak.

### Muxikako Udala

\* **88/2005/17 espedientea (13/2006 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65. artikuluan aurreikusitako lege araubidea aplikatu zedila lizentziarik gabeko jardueretarako eta, berehala, beharrezko ikuskapen teknikoak egin zitezela, instalazioaren funtzionamenduak inguruko biztanleen oinarrizko eskubideak urra zitzaketan eragin negatiborik ba ote zuen egiaztatzeko.

### Ortuellako Udala

\* **1231/2004/31 espedientea (20/2005 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: udal zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuko zuen jarduera-protokolo



bat egin zedila, ijitoak diren herritar berriei harrera hobea egiteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak aintzat hartuz; parte hartzeko neurriak har zitezela, herritar berrien integrazioa errazteko eta haien gizarte bazterkeria eragozteko; eta mugakide dituen udalekin batera, erantzun koordinatuak hitzartu zitezela, biztanle etorkinak artatzean eta hartzean lurraldeen arteko desorekak saihesteko.

### **Portugaleteko Udala**

\* **1176/2004/31 espedientea (18/2005 Gomendioa)**. Hauxe gomendatu zen: berariazko ebazpen baten bidez erantzun ziezaietela udal erroldan izena emateko eskabideei, eta benetan herrian bizi diren pertsonak errolda zitezela; eta lehentasuna eman ziela, beste jarduera batzuen aurretik, ostaturik ezari aurre egiteko gizartean esku hartzeari, gizarte zerbitzuen alorrean duen eskumena erabiliz.

\* **1231/2004/31 espedientea (19/2005 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: udal zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuko zuen jarduera-protokolo bat egin zedila, ijitoak diren herritar berriei harrera hobea egiteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak aintzat hartuz; parte hartzeko neurriak har zitezela, herritar berrien integrazioa errazteko eta haien gizarte bazterkeria eragozteko; eta mugakide dituen udalekin batera, erantzun koordinatuak hitzartu zitezela, biztanle etorkinak artatzean eta hartzean lurraldeen arteko desorekak saihesteko.

## **GIPUZKOAKO UDALAK**

### **Hondarribiko Udala**

\* **320/2006/30 espedientea (22/2006 Gomendioa)**. Hondarribiko biztanleentzat, emakumeentzat nahiz gizonentzat, berdintasunezko eremu bat ahalbidetzea ekarriko duen jai politika egitea gomendatu zen.

### **Irungo Udala**

\* **620/2006/30 espedientea (19/2006 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: Irungo biztanleentzat, emakumeentzat nahiz gizonentzat, berdintasunezko eremu bat ahalbidetzea eta udalak, nola materialki hala sinbolikoki, emakumeei berdintasunezko baldintzetan parte hartzen uzten ez zien alarde tradizionala izeneko jarduera pribatua babesteari utz ziezaiola.

### **Urnietako Udala**

\* **337/2005/20 espedientea (5/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: berriz defini zitezela ezinbestekoak iruditzen zitzaizkion langile beharrak, enplegu sustapenean eta giza baliabideen kudeaketan gauzatu nahi dituen jarduera eta zereginak zuzen betetzen ahalegintzeko, eta, behin horiek definituta, Konstituzioko berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipio ezagunetara egokitu zedila langile beharrak betetzeko moduan.

### 3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK

#### A) EUSKO JAURLARITZA

##### **Kultura Saila**

\* **351/2006/23 espedientea (28/2006 Gomendioa)**. Donostiako gas fabrika zaharrean kalifikatutako ondasunak ezarrita dauden babes irizpideei jarraiki gordeko zirela berma zedila gomendatu zen.

##### **Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila**

\* **88/2005/17 espedientea (14/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: INAMA, S.A. enpresaren instalazioan antzeman ziren 22 isurpen guneak araupeztzeko derrigorrezkoak ziren neurriak har zitezela eta enpresak atmosferara egiten zituen isurpenen gainean kontrol jarduerak egin zitezela.

#### B) FORU ADMINISTRAZIOA

##### **ARABAKO FORU ALDUNDIA**

##### **Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

\* **893/2006/16 espedientea (25/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia familia ugaria izateagatik eskaturiko % 50eko murrizketa gaitzesteko erabilitako administrazio egintza baliogabe zedila; Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailearen 71. artikulua 4. atalean ezarritako baldintza esanguratsuak betetzen zirela baieztatu ondoren, administrazio egintza berria egin zedila eskaeraren alde eginez eta bidegabe jasotako kopuruak itzul zitezela.

##### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

##### **Gizarte Politikarako Saila**

\* **333/2006/32 espedientea (26/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: txosten psikosozialean oinarrituta, egokitasun ziurtagiria ukatzeko erabakia berriro azter zedila, erakunde honen iritziz, ezin esan baitzitekeen interesdunen adina muga zenik laugarren seme-alaba gisa adoptatuko luketen mutil edo neska behar bezala garatzeko.

## C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

### BIZKAIKO UDALAK

#### Derioko Udala

\* **598/2005/29 espedientea (27/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: bide publikoan mahaia eta aulkiak jartzeko ordenantza arautzailea bete zedila eta, horretarako, lurzoruaren titularrei baimena eska zekiela, legezko eran; eta, hala baze-gokion, kasuan kasuko espedientea izapidetu zedila leku horretan terraza instalatzeko eman zen baimenean ezarritako baldintzak ez betetzearen inguruan aurkeztu ziren salaketak egiaztatzeko.

#### Portugaleteko Udala

\* **1110/2002/24 espedientea (20/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: berraztertze errekurtso bat berariaz ebatz zedila, herri bidean gertatutako erorketa batek erreklamatzaileri eragindako lesioei zegokienez tokiko administrazioak bere ondare erantzukizuna onar zezan, eta behar zen kalte-ordaina eman zedila, legezko arauak aplikatuta.

### GIPUZKOAKO UDALAK

#### Legazpiko Udala

\* **890/2005/23 espedientea (8/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: elkarte gastronomiko baten titularrari eska zekiola, hilabeteko epe luzaezinean, kalifikazio txostenean jasotako neurriak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuaren neurri zuzentzaileak behin betiko hartzeko, eta era berean ohartaraz zekiola, hori horrela beteko ez balitz, establezimendua itxi egingo zela, kautelazko neurri gisa.

#### 4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO

##### TOKIKO ADMINISTRAZIOA

##### GIPUZKOAKO UDALAK

###### Adunako Udala

\* **8/2006/31 espedientea (9/2006 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: onar zedila interesdun bat eta bere bi semeak udalerrian erroldatzeko eskabidea, eta horiek udal erroldan inskriba zitezela; eta, orobat, beharrezko jarduerak burutu zitezela haurren hezkuntzarako eskubidea bermatzeko.

###### Ordiziako Udala

\* **547/2005/23 espedientea (4/2006 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Oianguren eraikinaren eta horren jabetzen aprobetxamendu eta ustiapenerako emakida esleitzeko sinatu zen kontratua baliogabetu zedila, zehazki, proiektuaren hautabide edo aldaera bezala aurkeztutako zatia; eta, beharrezkotzat joz gero, behin Plan Berezia eta IEA legeak agindu bezala bideratzen zirenean, aisialdi eta atsedenerako instalazio eta erabilpen berriak gauzatzeko eta ustiatzeko proiektua esleitzeko araudiak aurreikusten duen lege prozedura erabil zedila.

## **IX. ATALA**

ONDORIOAK.  
ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK



Otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikulua, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko egina bera, honako hau erabakitzen du: *“Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio”*.

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta bere jarduteko eremuan barneratzen diren euskal erakunde publikoek (hots, Autonomia Erkidegoko Administrazio nagusiak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki-Administrazioak) hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da.

2006. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan-esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Hala ere, aipatu behar da, Arartekoak ezin esku har dezakeen arren ETAK eta bere inguruak giza eskubideak larriki urratzen dituztela ikusita, bereziki, bizitzeko, osotasun fisikorako eta askatasunerako eskubideak, elkartasuna adierazi nahi diela terrorismoaren biktimei eta erabat gaitzesten dituela eskubide oinarritzkoenak urratzen dituzten jardunbide horiek.

Beharrezkoa da euskal gizarte osoak guztiz eta modu kontsekuentean bereganatzea balio demokratikoak eta euskal morala leheneratzea.

Kapitulu honetan egiten den balorazioak, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen jarduerak eta jarduera horietan izan litekeen eskubide-urratzea izango ditu hizpide.

Kapitulua Konstituzioaren testuaren lehenengo goiburuan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 9. artikuluan bildutako eskubideen azterketan oinarrituz egituratzen da, horien defentsa esleitzen baitaio Ararteko erakundea araupetzen duen Legearen 1.1. artikuluan.

Kapitulu honetan egindako balorazioaz gain, txosten honetako I. Kapitulua hitzurreetako bakoitzean administrazioaren jardueraren esparru desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura xehatuta aztertzen dira.

Aurkeztutako kezarik gehienak gizarte eskubide deritzanen ondorioz jarri dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua urratze posibleen ondorioz ere –artikulu horretan administrazio publikoei eraginkortasunaren printzipioari adituz eta legearen eta zuzenbidearen erabat mende, interes orokorre objektibotasunez zerbitzatuz jokatzeko ezartzen zaie–.

Hala ere, badira oinarritzko eskubide eta askatasun publiko deritzen eskubideetako- ren bat ustez bete ez dela dioten kezak ere.

Ararteko erakundeak uste du Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak babesteko egoera baloratzeko funtsezko erreferentea dela Konstituzioaren 10. artikulua. Agindu hori I. tituluaren atartea da. Bertan jaso eta arautzen da gizon-emakumeen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Artikulu horrek hauxe dio lehenengo atalean: “*Ordena politikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea*”. Hortaz, gizabanakoaren duintasuna da oinarrizko zutabea, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta norberaren bizitza egiteko eta garatzeko eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera, elkarrenganako errespetu osoz. Eta horren gainean eusten dira oinarrizko eskubide guztiak. Gainera, eskubideen sistema osoan islatu beharko dira lehenengo artikuluan jasotako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiak daude, hau da, askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluraltasun politikoa. Ararteko erakundearen jarduera guztien helburua pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak errotik zaintzea da.

Beste kasu batzuetan ere adierazi dugu herritarrek administrazio on bat izateko eskubidea dutela, eta, hori, gai publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubidearekin lotuta dagoela; hori guztia administrazio publikoen jardunbidea arautzen duen legerian jasota dago. Herritarrek 2006an aurkeztu zituzten kexetako askok oro har administrazio ona izateko eskubidea izendatu duguna osatzen duten alderdien inguruak izan dira. Administrazio publikoek sarriagotan entzun behar lituzkete herritarrak, hobetu egin behar lituzkete informazio bideak, eta, batez ere, parte hartzeko benetako bide eraginkorrak ahalbideratu behar lituzkete.

## 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

### • Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua

*“Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako bereizkeria ezin da nagusi izan.”*

### • Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua

*“Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta denena batera osotzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezen; baita galerazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.”*

Berdintasunaren eta giza duintasunarekiko errespetuaren balioak direla medio, arreta berezia eskaintzen diogu beren eskubideak urratzeko arrisku handiagoa duten pertsonen egoerari: atzeritarrak, adinekoak, adingabeak, ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak, gaixo kronikoak, gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonak...

Kasu horietan, jada egiaztatu da bai arloen arabera aukeratutako kexei eskainitako kapituluetan bai lehentasunezko arretako taldeei dagozkien jardueri eskainitako kapitu-



luan gabezia asko daudela, berdintasun materialak euskal herritar askok bete beharreko helburua izaten jarraitzen duela eta beharrezkoa dela pertsona eta talde guztien benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak ezabatzea.

Askok dira zuzenean zein zeharka berdintasun printzipioaren balizko urratzearekin zerikusirik izan lezaketen kekek.

Erakunde hau, bere esku-hartzeetan, konstituzioaren testuan mugatutako zioetako edozeinengatik baztertzaila den herri botereen jarduerarik gerta ez dadin saiatu da.

Zehaztu behar dugu sarritan berdintasun printzipioa urratzea beste eskubideetako edozeinekin lotu behar dela eta, horregatik, kasu horiez egiten den azterketan, batzuetan, printzipio hori ere hizpide izaten da.

Joan den urtean, **gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako** eskubi-dea aztertzerakoan, adierazi genuen, lehenengo eta behin, arau garrantzitsu bat aipatu behar zela: Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 18an onetsi duen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Legea. Bai eremu publikoan bai pribatuan, lege horrek parekotasuna sustatu nahi du eta emakumezkoek jasaten dituzten bereizkeriak ezabatu.

Lege honek bereizkeriaren aurkako zuzenbidea deritzonaren kategoria eta nozio juridikoak argitzen ditu, eta erakunde publikoentzat eta euren funtzio desberdinei dago-kienez (kasu askotan modu hertsian) benetako eta eraginkortasunezko berdintasunaren agindua gauzatzen du (Konstituzioko 9.2 artikuluan jasotakoa), administrazioen jarduketa ezaren aurrean oinarritzko printzipio bezala.

Lege horretan bildutako aurreikuspenen zati handi baten aplikazio eraginkorra atzeratuta zegoen, kasu askotan geroago arauzko garapena egitea beharrezkoa baitzen.

Ildo horretatik, beharrezkoa da azpimarratzea Eusko Jaurlaritzaren sail guztiek, Hezkuntza eta Osasun Sailek izan ezik, organo bat ezarri dutela sail bakoitzean, lege horretan eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Berdintasunerako Planean jasotakoa gauzatzeke lanak koordinatu, bultzatu eta batera garatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren 2006ko irailaren 26ko Erabakia oso garrantzitsua da; horren bidez, EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana onartu da, Euskadin berdintasun politikak izan beharko duten orientazio estrategikoaren oinarriak ezarri dituen datoen urteetarako. Era berean, azpimarratu behar dugu aztertzen ari garen 2006. urtea amaitu zertxobait lehenago, 261/2006 Dekretua onartu zela, abenduaren 26koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordea ezartzekoa.

Jakina den moduan, esparru pribatua da emakumeen aurkako bereizkeria-egoera gehien jasotzen dituen arloa. Horregatik, oso garrantzitsua legearen azken xedapenetako bederatzigarrena; horren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan edo programa bat izan behar duten enpresa pribatuak zein diren zehaztu behar da, bai eta horien gutxienezko edukiak eta jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak zeintzuk izan behar duten ere.

Enpresetan berdintasun plan eta programen benetako ezarpen eraginkorra atzeratu egin da arauetan aurreikusitakoa kontuan hartuta, enpresaren eremuan esku hartzen duten gizarte eragile guztien artean adostasuna aurkitu nahian baitabilta. Ados jartzea erabakigarria den arren berdintasunaren arloan aplikatzen diren eskakizun berriek arrakasta izan dezaten, funtsezkoa da neurri horiek al bait arinen abian jartzea.

Bestalde, administrazio publikoen jarduera guztietan berdintasuna erabat ezar dadin, oso garrantzitsua da generoaren arabera eraginaren ebaluazioa bezain tresna berritzailearen bidez araupetzea.

Azkenik, beharrezkoa da baita ere, legeak dioen bezala, organo bat sortzea, publizitatearen inguruan aholku eman eta hori azter dezan. Organo horren arduraren izango da, halaber, hedabide publikoek emandako edukiei dagozkien kode etikoak egotea zaintzea. Behar hori emakumeen duintasuna iraintzen duten publizitate sexistako kasuen inguruko kexak jasotzen ditugunean geratzen da agerian.

Genero arazoak direla-eta ematen den bereizkeriarik larriena, indarkeria sexistaren fenomeno kezagarria da, eta emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisikoaren aurkako eraso onartezina da.

Botere publikoek tratatu txarrak jasandako emakumeen beharrei eman behar dieten erantzunak diziplina ezberdinak uztartu behar ditu, besteak beste, jarduera judizialak, laguntza juridikoa, gizarte eta abegi zerbitzuen funtzionamendua, eta etxebizitza bat izateko aukera lotuz.

Indarkeriaren aurrean erakundeek ematen duten erantzunaren eraginkortasuna hainbat faktoreen arabera da, hala nola: fenomenoaren ezagutza egokia izatea, zerbitzuak etengabe ebaluatzea eta zerbitzuak diagnostiko berrietara egokitzea, erantzunaren arintasuna, azkartasuna edo berehalakotasuna, zerbitzuen alde aurretiko planifikazioa Autonomia Erkidegoko lurralde osorako edo zerbitzu guztien arteko koordinazioa (herrietakoak barne). Ildo horretatik, azpimarratu beharrezkoa da Eudelek sustatu duen euskal udalen sarearen (Berdinsarea) sorrera; Berdinsareak euskal udalerrri guztien arteko harremana sortu nahi du, berdintasunaren eta genero indarkeriari emandako erantzunaren alorrean.

Lehenik eta behin, erakundeen erantzun planifikaturik ez zegoela aipatzen genuen, hau da, genero indarkeriaren arazoaren beharrei eta larritasunari egokitutako erantzunik ez zegoela.

Idatziz jasota utzi behar da zenbait administrazio publikori bereizkeria egotzi dioten erreklamazioak egon direla. Behin eta berriro errepikatzen diren eta oraindik konpontzeke dauden auzi horiek kulturaren, kirolaren eta herriko jaien esparruari eragiten diete batez ere. Dagoeneko adierazi dugu, zuzeneko bereizkeriak edo agerikoak harreman pribatuen esparruan gertatzen direla gehienbat. Hala ere, agintaritzaren publikoei egoera horiek aldatzeko dagokien eginkizun berezia nabarmendu behar dugu, hau da, harreman horiek aldatzeko eginkizuna. Hain zuzen ere, benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko agintaritzaren horiek duten oinarrizko erantzukizunari dei egin diogu, eta inhibizio edo pasibitateko jokabidearekin amaitzeko beharra nabarmendu dugu. Izan ere, gehiegitan, bereizkeriak betikotzea ahalbidetzen du, pribatuak direnez, estalita daudelako.

Horrela, derrigorrean aipatu behar dugu berriro emakumeek jasaten duten bereizkeria Irungo eta Hondarribiko alardeetan, eta EAEko herrietako beste hainbat jai ospakizunetan.

**Atzerritarrak eta kultur gutxiengoak** dira, beren eskubideen urrakortasun aukera gehiago dituztenak.

Gogorarazi behar dugu 2005. urtean bi jarduera oso garrantzitsu gauzatu zirela atzerriko pertsonen egoeraren eta horien eskubideen esparruan:

- atzerriko pertsonen normalkuntza juridikorako ezohiko prozedura eta
- bizileku baimen iraunkorra ez duten atzerriko pertsonen erroldatzearen balio-galtzearen inguruko legezko aurreikuspena indarrean sartu izana 2005eko abenduan.

Dokumentazio prozesuan, udalen esku-hartzea garrantzitsua izan da, bai ohiko dokumentazio prozesuan –sustraitze arrazoiak direla-eta bizileku baimena lortzeko gizarte txostenak eginez–, eta baita ezohiko dokumentazio prozesuan ere –bertan bizi izana justifikatzeko erroldatze ziurtagiriak emanez–.

Errotze arrazoiengatik aldi baterako egoitza-baimena izapidetzeko prozeduran, udalek atzerritarra lan kontratua behar izatetik salbuestea gomendatu dezakete, baldin eta bizitzeko baliabide nahikoak dituela ziurtatzen badu; hori, ordea, gutxitan gertatzen da hala.

Garrantzitsua da txostenak al bait lasterren ezarritako arautegira egokitzea erro-tze prozeduraren izapidetzea errazteko eta, egoki iritziz gero, aldi baterako baimena lortzeko.

Atzerriko pertsona askoren ardua nagusia, beren egoera juridikoaren normalkun-tza da.

Erroldak garrantzi handia izan du azken urteotan eskubideak erabiltzeko orduan, eta horrek erakundearen esku-hartze asko eragin ditu, pertsona atzerritarren eskubi-deak babesteko. Horri dagokionez, beharrezkoa da araudia eskubideak bermatzearen ikuspegitik aztertzea, eta gainera, gomendio orokorra landu zen EAEko udaletarako, Udalek errolda-inskripzioa nahiz horren iraungitasuna eta Europatik kanpoko perso-na atzerritarren datuen lagapena (administrazio publikoei) erabakitzeko prozedurari buruzkoak.

Prozedura hori gauzatzeko moduaren jarraipena egiterakoan erroldaren inguruko jardunbideak udaletik udalera oso desberdinak direla ikusi ahal izan dugun arren, oso positibotzat hartzen dugu atzerritarrei erroldatzeko aukera ematea.

Erakunde hau kezkatuta egon da erroldatzearen iraungipena alde zurretik entzunaldia eskaini gabe egin daitekeela jakinda. Ia udal guztiek gutxienez erroldatik baja eman baino lehen iraungipenaren berri emateko sistema ezarri duen arren, kontuan izanik joan den urtean jasotako informazioaren arabera guztira 4.245 pertsonari eman zitzaie la baja erroldatzea iraungi egin zelako, berriz ere adierazi behar dugu ezinbestekoa dela prozedura honetan ahalik eta berme neurri gehienak ezartzea.

Jokabide diskriminatzaile asko eremu pribatuan agertzen dira; zoritxarrez, badira zenbait pertsona atzerritarrekiko jokabide xenofoboak eta baztertzailak dituztenak.

Jokabide horietan, batzuetan oso errotuta dauden aurreiritzien eta estereotipoen eragina dago, atzerritarrak delituak egitearekin erlazionatzen baitituzte.

Hedabideek atzerritarrei buruzko berriak behar bezala tratatzeak etorkizunen ikuspegi gutxiesgarria ez izaten lagun dezake.

Horregatik, uste dugu garrantzitsua dela 2004ko txostenean argitaratu zen “Polizi kidegoek inmigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamenduari buruzko” gomendio orokorra betetzea.

Administrazioek kontu handia izan behar dute informazioaren tratamenduan eta sentsibilizazio kanpainak sustatu behar dituzte, pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen bizikidetzaren eredu lortzen laguntzeko.

Ildo horretatik hitz egin du Eusko Legebiltzarrak ere, ez-legezko proposamena onartu baitu inmigrazioaren eta gizarteratzearen eremuan hizkeraren erabilerari buruz diharduena. Zorritzarrez, eta ez-legezko proposamena hau eta aipatu gomendioa egin diren arren, berrietan oraindik herritartasuna, etnia, azalaren kolorea edo erlijioa aipatzen da.

Ijito etniako pertsonak oso laidoztatu dira historikoki eta zerbitzu, baliabide eta gizarte aukeren onuradun izateko aukera gutxiago izan dituzte.

Jaso ditugun kexetako askok tokiko administrazioek eta/edo herriko auzotarrek eta ijitoek elkar ulertzeko arazoekin dute zerikusia. Pertsona horiek duten arazo nagusietako bat etxebizitzarena da, zailtasunak baitituzte auzotarrek onar ditzaten.

Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Plana jaso genuen, Euskal Herrian gizarteratze politika aktibo baten baitan egindako lehen urrats gisa. Ezarritako neurriek, berriz, betetzea bermatzen duten baliabideen zuzkidura behar dute. Bereizkeriaren aurkako borroka funtsezkoa da gizarte desberdintasunak gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuen prebentzioa egiteko. Horrenbestez, administrazioek esfortzu handiagoak egin behar dituzte diskriminaziozko jarduketak ekiditeko.

Administrazioek gauzatutako jarduera gehienak, gizarte bazterkeriaren aurkako ikuspegitik egin dira. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da horretaz gain tratu berdintasunarekin, kultura nortasunaren onarpenarekin edo esparru komunetan parte-hartzerekin lotutako ekimen publikoak martxan jartzea.

Bestalde, ezgaituek ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte gainerako biztanleekin izateko berdintasuna lortzeko orduan, bai lan merkatura sartzeko, bai eguneroko bizitzan, kasu askotan garraibiderik erabiltzerik ez dutelako, edo hirigintzako eta arkiteturako oztopo ugari daudelako.

Homofobiak eta heterosexismo baztertzailak gizarte bazterkeria izugarria ekarri dute mendeetan. Horrez gain, estigmatizazioa eta bereizkeria ekarri dute pertsona homosexual, gay eta lesbianen aurka, bai eta nortasun transexualekoen eta transgenerokoen aurka, legerian aurrerapauso erraldoiak egin diren arren. Adierazi behar dugu gaur egun ere gizon-emakume homosexual asko ez dela ausartzen bere maitasuna askatasun eta duintasun osoz bizitzen. Beraz, lanean jarraitu behar dugu, oraintsu pertsona horientzat lortu den berdintasun formalarekin batera, albait lasterren, benetako berdintasun soziala lor dadin, oraindik berdintasun horri eragozpenak jartzen dizkioten elementu boteretsuak baitaude.

Transexualek ere genero nortasuna legez aitor dadin eskatzen dute, sexuz aldatzeko ebakuntza kirurgikoa egin dela aintzat hartu gabe. Herriak genero nortasuna onartzeko, beharrezkoa litzateke pertsonen eskubideei eta izena eta ezaugarriak erregistro zibilean jasotzeari lotutako alderdiak arautzen dituzten lege zibilak aldatzea.

Espero dugu Gorte Nagusiek laster onartuko dutela genero nortasunaren legea; une honetan, Legebiltzarreko izapidetze fasean da.

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

### 2.1. BIZITZEKO ETA OSOTASUN FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua**

*“Guztiek dute bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”*

Bizitza eta osotasun fisikorako eskubidearen babesa Ararteko erakunde honen lehentasuneko arduratako bat da.

Era berean, ETA talde terroristak eskubide horiei egiten dien zapalketa beti gaitzetsi izan dugu.

Zoritxarrez, 2006an ETAk heriotzak eragin dituen atentatuak egin ditu berriz ere; horietan, bi gazte hil dira, Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio.

Beharrezkoa da gure elkartasuna adieraztea terrorismoaren biktima horienegatik eta erabateko gaitzespena halako jardunbide terroristen aurrean. Gainera, ezin ahaztu dezakegu hiritar asko bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxupean bizi direla, eta beren askatasuna mugaturik dagoela. Herritar asko estortsio ekonomikoaren mende daude oraindik ere, eta beren askatasun eta ondasunen kontrako ekintza terroristak jasaten dituzte.

Egoera horrek bere horretan dirauen bitartean, Ararteko erakundeak bere idatzi ofizial guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3. artikulua testua ipintzen jarraituko du *“Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea”*, ETArrik EZ leloarekin batera.

Emakumeen kontrako indarkeriak bizitzarako eta osotasun pertsonalerako eskubidearen urratze larrienetarikoa izaten segitzen du, eta erakunde bermatzaile honek derrigorrez eman behar dio erantzuna.

Gure iritziz, pertsona guztien arteko benetako berdintasunak bakarrik ekarriko duen arren genero indarkeriaren amaiera, agintari publikoen erantzuna egokia izan behar da tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen beharizanetarako.

Oraindik ere ez dago erakundeen erantzun planifikaturik, hau da, genero indarkeriaren arazoaren beharrei eta larritasunari egokitutako erantzunik ez dago. Zerbitzu publikoetako asko hain larria den arazoaren aurrean inprobisazioaren eta boluntarismoaren fruitua dira eta, beraz, jarduteko irizpide homogeneorik ere ez dago.

Beharrezkoa da azpimarratzea **tortura** giza eskubideen urratze larrienetarikoa dela; hori dela eta, Ararteko erakundea beti ahalegindu da pertsona guztien osotasun fisiko eta morala bermatzen: zigorraren beldurrik gabe bidegabekeriak egiteko aukera eman dezaketena aldi eta leku ilunak argitzeko neurriak proposatu izan ditu.

Bestalde, tortura ekiditeko neurrien artean, gogoratu behar dugu 1999an Ararteko erakundeak Herrizaingo Sailari, prebentziorako asmoz, ziegen eremuan korridoreetan jarritako kameren bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol sistema ipin zezan gomendatu ziola, atxilotutako pertsonen eskubideak bermatzeko neurri gisa. Aurreko

txostenetan azpimarratu genuen, orokorrean sistema jarrita eta funtzionamenduan dagoen arren, zenbait komisariatuan –zehazki inkomunikatutako atxilotetak egindakoetan– bi ziega zona ezberdin daudela elkarrengandik banandurik, baina grabazio sistema bietako batean bakarrik dagoela erabiltzeko moduan.

2006an Herrizaingo Sailak adierazi digu bideo grabaketan sistema ezarri zuela Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko atxiloteta zentroetan eta deklarazioak hartzen diren lekuetara hedatu duela. Era berean, kamerak atxilotuak ziegen eremuan ibiltzen direneko leku guztiak kontrolatzen dituztela jakinarazi digu, komunak eta ziega barruak izan ezik. Adierazi digunaren arabera, sistemak eguneko 24 orduetan funtzionatzen du, kamerak hartzen duten eremuan mugimenduren bat hautematean automatikoki grabatzen du, eta ez du kamerak deskonektatzeko aukerarik ematen, ez eta grabaketak eteteko ere.

Erakunde honek oso onuragarritzat jotzen du Ertzaintzak egiten dituen atxiloteta guztiak grabatzea eta sistema aitortpena hartzen den bakoitzean erabiltzea. Behin eta berriz adierazi dugun bezala, gure ustez, bi neurri horiek aurrerapauso handia dakarte atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideen prebentzioan, eta tresna egokia da eremu horretan izan daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko.

Hala ere, gomendioaren zenbait alderdi oraindik ez dira bete edo partzialki bete dira. Ez dira sistematikoki berrikusten atxilotetei dagozkien grabaketak. Ez dago erregistorrik grabaketak ikustean antzeman daitezkeen gorabeherak jasotzeko.

Herrizaingo Sailari azaldu genion epe orokorra ezarri behar zuela grabatutako materiala grabatutako jardunen ondoriozko erantzukizun administratibo eta penal posibleak preskribatzeko gehieneko epean gordeko zirela bermatzeko eta, orobat, kontuan hartu behar zuela giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeek (besteak beste, Ararteko erakundeak) esku hartzeko duten epea.

Hala ere, giza eskubideak larriki urratzen dituen tortura desagerraraztea erakunde honen etengabeko arreta piztu du. Horregatik, Arartekoak 2004ko abenduaren 21ean arlo honen inguruan egin zuen adierazpen publikoa berretsi du eta horren edukia erabat indarrean dagoela azaldu du. Bereziki azpimarratu nahi dugu tortura erausteko borrokaren oinarrietako bat arrazoizko edozein salaketa edo zantzu berehala eta inpartzialki ikertzea dela. Ildo horretatik, honako ideia hau berretsi behar dugu: *“eremu honetan ikerketa judizialaren eginkizuna ezinbestekoa eta funtsezkoa den arren, berriz ere aipatu behar dugu beharrezkoa dela segurtasun gorputz eta indarrek eurek torturaren aurka egiteko konpromiso sendoa hartzea eta, horretarako, ahalegina egitea debekuaren arloan jaus litezkeen polizi jardueren inguruko edozein salaketa edo susmo erabat argitzeko, beharrezkoa izanez gero, ofizioz ere jardunez. Ildo horretatik, Arartekoak berretsi egin du ‘Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako’ izeneko gomendio orokorra (Eusko Legebiltzararentzako 2003ko ohizko txostena). Gomendio hori onartzeak argitzeko barne eginbideei ofizioz hasiera ematea dakar, baldin eta arrazoizko zioak badaude legez kanpoko egintzaren bat gertatu dela pentsatzeko eta, ondorio horretarako, herritarrek aurkezten dituzten kexak edo salaketak edozein kasutan ikertu beharra izateko lehen zantzu gisa onartu behar dira eta inoiz ezin dira zuzenean baztertu”*.

## 2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua

*“1. Pertsona guztiak dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulua honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.*

*2. Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritzaren judizialaren eskuetan uzteko askatuko da*

*3. Atxilotu guztiak jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxiloketaren arrazoiak, eta ezin dira aitortzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio diligentsia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.*

*4. ‘Habeas corpus’ prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko.”*

Hainbat kexa jaso dira poliziaren bidegabeko tratua edo indarraren neurrigabeko erabilpena salatuz, poliziaren egoitzatik kanpo. Datu kezkarria da kexa horietako batzuk bereziki ahulak diren bi taldek adierazitakoak izatea, besteak beste, atzerritarrak.

Erakunde honek beti esan izan du poliziak indarra erabili behar izan duen kasuak dagokion erregistroan jasotzea; horrek, erabilitako indarraren kontrola egitea eta egun indarrean dagoen araudira egokitzea ahalbidetuko duelako.

Halaber gomendatu da polizi arduradunek agenteek pertsonen kanpoko ezaugarrietan edo estereotipoetan soilik oinarrituta esku-hartzeak egitea prebenitzera bideratutako mekanismoak ezarri behar zituztela, hala nola, agiri bidez behar bezala jasotzea kasu bakoitzean polizi jarduera justifikatzen duten arrazoi zehatzak, eta agenteek beren lanbide identifikazioko zenbakia edo bestelako gakoak (zeinen esanahia publikoa ez den) eman behar izatea hiritarrak hala eskatuz gero.

Hainbat kexa jaso dira Ertzaintzari nahis Bilboko Udaltzaingoari buruz; horien araber, arraza beltzeko pertsona atxilotzerakoan indarra neurrigabe erabili zen. Indarra behar ez bezala erabiltzeagatik edo tratu desegokia emateagatik jaso ditugun kexetan erakunde honek hainbatetan aipatu dituen arazoak jarri dira agerian, besteak beste, indarraren erabilera kontrolatu beharra, epaileak hasieratik hutsegitez hartzen dituen jokabideez baliatuta atxiloketak egitea, agenteei desobeditzeagatik salaketa polizi jarduera zalantzan jartzen delako edo kritikatzeko delako aurkeztu dela pentsatzea eta atxilotuari gorputz miaketa egiteko modua.

Atxiloketetan indarraren erabilera beti azken baliabide gisa hartu behar da eta egokitzapen eta proportzionaltasun printzipioak errespetatuz.

## 2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua

*“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia izateko eskubidea bermatzen da.”*

- **Espainiako Konstituzioaren 18.4 art.**

*“Legeak informatikaren erabilera mugatuko du herritarren ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea eta beren eskubideez erabat baliatzeko aukera bermatzeko.”*

Aipatu dugun bezala, atxilotuak osorik biluztea norberaren intimitaterako eskubidea murrizten duen neurria da; ezin justifika daiteke joera orokorra izatea eta behar-beharrezkoa denean bakarrik onartu ahal izango da.

Intimitaterako eskubidearen inguruan azpimarratu nahi dugun ikuspegi berria sortu da. Hala, epaileen adierazpen batzuetan, norberaren etxean kanpotiko zaratak sortzen dituen eragozpenek intimitaterako eta etxearen bortxaezintasunerako eskubidea, besteak beste, urratzen dituztela baieztatu izan da.

Kexa aurkeztu da, ustez, **norberaren irudirako eskubidea** urratu delako, pertsona batek erakunde publikitateko kartel batean bere familiaren irudia azaltzen baitzen, haien baimenik eskatu gabe. Kasu honetan, udalak uste zuenez zela norberaren eskubideetan kalterik egon, erreklamatzailerak agertzen ziren argazkiaren hedatzea era duinean egiten baitzen, bizitza pribatuaren eremuan eragin gabe (bide publikoan baitzeuden). Gainera, edonola ere, argazkian bere irudiak duen presentzia osagarri bat besterik ez dela adierazten zen, irudiaren tamainagatik nahiz argazkiaren behealdean dagoen pertsona-kopuruagatik.

Hala, administrazioaren jarduera kasu honetan urratze gisa hartu ezin badugu ere, aipatu nahi dugu beste inguruabar garrantzitsu batzuk ere badaudela, hala nola: ez zitzairela baimenik eskatu argazkia egiterakoan bertan agertzen ziren pertsonen beren irudia erabiltzeko, eta kaltetuek berariaz eskatu zutela kartela kentzeko.

Hala, norberaren irudirako eskubidearen erabateko babesa bermatzeko, Arartekoaren iritziz, administrazio horrek, erreklamatzaileraren desadostasun adierazia kontuan hartuta, ez zukeen bere irudia erabili behar, edo, behinik behin, lausotu egin zezakeen, batez ere, adingabeak azaltzen diren heinean.

Herritarrek gero eta ozenago eskatzen dute administrazioek erabiltzen dituzten **datu pertsonalen babeserako eta intimitaterako** eskubidea bermatu dadila. Zentzuzkoa da datuak isilpean eduki daitezela eskatzea, asko eta asko direlako datu pertsonalak dituzten fitxategiak. Berdin da tresna informatikoekin lantzen diren datuak edo babes bereziko datuen multzoan sailkatutakoak izan nahiz ez.

Administrazio publikoek beren informazio sistemak isilekotasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri ez eze, datuen tratamenduko zerbitzuetan hirugarrenek ere esku har lezaketela ere kontuan hartu behar dute.

Kexa aurkeztu da Ertzaintzak adingabeen harrera-zentroan egindako esku-hartzei buruzko datuak jendaurrean jartzearen inguruan; datu horiek Langraiz Okako alkateari helarazi zizkion Herrizaingo Sailak. Datu horiek herriko leku publiko desberdinetan jarri ziren jendaurrean, Arabako herri horretan adingabeen harrera-zentroa jar zedin ekiditeko.

## 2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua**

*“Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.”*



Erakunde honek ahaleginak egiten ditu EAEko administrazio publikoek berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak errespetatu dituzten. Konstituzioak hala aginduta, printzipio horiek gailendu behar dute lanpostu publikoetarako sarreran.

2006. urtean, hainbat gai azpimarratu behar dira kontu horri dagokionez.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2000ko LEPEko hautapen prozesuak jada ebatzi dira luze geratuta egon ondoren, eta horrek ez du kexa berezirik eragin. Zenbait oposizogilek adierazi dute, oro har, ez direla zabaldu EAEko Administrazio Orokorrean, foru administrazioan eta toki administrazioan egindako zerbitzuak eta gainerako administrazio publikoetan egindakoak desberdin baloratu izanaren inguruan emandako zenbait epairen ondorioak. Epai horiek adierazi zuten balorazio irizpide hori diskriminatzailea zela. Kasu honetan, segurtasun juridikoko arrazoiek eragotzi dute ondorioak zabaltzea.

Duela gutxi egin den Osakidetzaren 2006ko LEPEk kexa ugari eragin ditzake. Zehazki, zalantza jarri dira hautapena batzuk diseinatzeke moduaren inguruko zenbait alderdi; hots, kategoria batzuetarako (besteak beste, famili medikuarenerako) aurretik ezarritako galdera-sortak.

Beharrezkoa da azpimarratzea aurretiko esperientzia eskaintako lanpostu guztietara sartzeko betekizun gisa hartzeak eta ez merezimendu gisa funtzio publikoan berdintasunezko baldintzetan sartzeko printzipioa urratzen du, Auzitegi Konstituzionalak berak adierazitakoaren arabera. Aurretik egindako zerbitzuak hautapen prozesu batean parte hartu ahal izateko betekizun baztertzailerik gisa hartzen denean, inolako justifikaziorik gabe eragozten zaie betekizun hori betetzen ez duten hautagaiei hautapen prozesu horretan parte hartu ahal izatea.

Erakunde honek pentsatu zuen Donostiako Sustapena sozietatearen hautapen prozesu batek funtzio publikoan berdintasunezko baldintzetan sartzeko printzipioa urratzen zuela, ez baitzen arrazoizkoa aurretiko esperientzia betekizun gisa hartzea. Betekizun hori hautagai posible asko kanpo uzten zituen bereizkeria-faktore bihurtu zen.

Aipatu beharrezkoa da baita ere Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUF) lan eskaintza publikoa. Horri dagokionez, erakunde horrek ondorioztatu du euskara jakiteko derrigorrezko betebeharra bat zetorrela aurretik finkatutako hizkuntza normalizazio mailekin eta, beraz, lanpostu publikoetan sartzeko ustez bereizkeria egin izana gairatu zen.

Orobat, aipatu beharrezkoa da derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko lanpostuetarako ordezkogaien zerrendetan sartzeko baldintzei buruzko kexen izapidetzeaz hitz egitea. Arautegi orokorarekin bat etorritik, plaza horietan aritzeko beharrezkoa da lizentziatura edo baliokidea izatea, aurretik ziklo horretan aritu ziren irakasleen kidegoko karrerako funtzionarioen kasuan izan ezik. Hala ere, euskal hezkuntzaren eremuan ordezkapenen arloa arautzen duen ebazpenak, irakasle titulua baino egiaztatzen ez duten pertsonen plazak eskaintzen eta titulu horrekin zerrendetan sartzen uzten jarraitzeaz gain, lizentziadunek izena ematea eragotzi ere egiten du, plazan legezko hartzaileak horiek izan arren.

## 2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIOA

### • Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua

*“1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.”*

*“2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, norik bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere.*

*Senidetetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean erabakitze arauak jarriko ditu legeak.”*

Azken urte hauetan oso kexa gutxi jaso izan ditugu prozedura judizialak ebazterakoan luzapen edo atzerapenak emateagatik. Hala eta guztiz ere, ikus daiteke hiritarren ustea Administrazioaren funtzionamendu normalaren epe eta denborei dagokienez, luzeegiak izatearena dela.

Hala ere, **atzerapen judizialei** buruzko kexa asko aurkeztu dira aurreko urtean, Justizia Administrazioako langileen greba dela-eta. Hala eta guztiz ere, jurisdikzio gehien-gehienetan atzeman ahal izan da hobekuntza orokorra epaitegietako eta auzitegietako liskarren epeetan, eta hori beharrezko bitarteko material eta giza baliabideen hornitzeko egin den ahaleginaren ondorioa izan da.

Bi jurisdikziotan, halere, izapideak egiterakoan izandako atzerapenak bereziki kezagarriak dira. Horietako bat familiaren jurisdikzioa da, eta horri dagokionez oraindik ere kexak iristen ari zaizkigu, neurriak hartzerakoan, frogak egiterakoan eta epaia emateko epeetan izandako atzerapen onartezinaren inguruan; bestea, berriz, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa da.

**Trafikoko zehapen prozeduren** esparruan, jarraitzen diren prozeduretako izapideak pertsona bakoitzari jakinarazteko erabilitako modua, eta prozeduretako arau-petutako izapidetzeak jarri dira behin eta berriro zalantzan.

Berriz ere egiaztatu dugu jakinarazpen pertsonala egiteko bigarren saiakera ez dela beti lehenengoaren ordu desberdinean egiten, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua agintzen duen bezala, eta posta bidez egiten den jakinarazpena alferrikakoa bada, administrazio espedienteak ez du ziurtatzen bigarren saiakera horren oharra hartzailearen postontzian utzi denik arauak ezarri bezala.

Horrek eramaten gaitu, batetik, gomendio orokorraren edukia, hots, “Posta bidez egindako jakinarazpenak administrazio zehapen prozeduran, trafikoa, motor ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasuna gaietan: horiek behar bezala ulertzeko baldintzak ez daudenetan saiatu egingo dira” berriro ere aipatzera, 2002. urteko ohiko txostenean (VI. kapitulu) jaso bezala; eta bestetik, gaiarekin zerikusia duten administrazio guztiei aipatutako eskakizunak betetzeko orduan arreta berezia jarriko dutela eskatzera, horrela babesgabetasun suposamenduak ekidingo direlako.

Bestalde, jakinarazpen pertsonalak Correosen bitartez egiten diren kasuak aipatu behar dira berriz ere. Zehapen administrazioari dagokio espediente adieraztea bigarren

jakinarazpenak ere huts egin duela. Kexak izan dira, baita ere, Administrazioak zehapen prozedurari hasiera emateko egintza jakinarazteko behar izan duen denboraren inguruan. Pertsonak arin jakiten baldin badu arauak urratu dituela, modu eraginkorragoan bete daiteke zehapenek izan behar duten funtzio pedagogiko eta prebentziozkoa.

Aurten ere, kexak jaso ditugu zehapen prozedurak aurrez ezarritako ereduak jarraituz, legeak eskatzen dituen berme materiala errespetatu gabe egin direlako.

**Etxebizitza babestuen eskuratzeko prozeduran**, azpimarragarria da BOE eskatzen duten pertsonen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak herritar horiekiko harremanetarako erabiltzen dituen jakinarazpen eta komunikazio moduen ondorioz, sortzen zaizkien defentsa gabeziaren gaineko kexak zenbat gehitu diren. Arazo honen inguruan dugun kezka berri eman diogu Eusko Jaurlaritzako Sail horri, eta erantzun digute hurrengo Etxebizitzarako 2006-2009ko Plan Zuzendariaren esparruan kontuan hartu eta aztertzeke asmoa daukatela.

Uste dugu bereziki garrantzitsua dela, interesdunaren egoera aldatuko den kasu guztietan, horren berri behar bezala formalizatutako banakako jakinarazpenen bidez ematea. Gure ustez, gutxieneko prozedura-bermeen ikuspegitik ezinbestekotzat jotzen dugu horiei entzutea kargak ezartzen dituen zerga-egintza eman aurretik, bereziki, horrek Erregistrotik baja ematea edo kanpo uztea badakar; alegazioak aurkezteko aukera aurretik eskaini behar zaie –beharrezkoa izanez gero, ebazpena ematerakoan bizi duen benetako egoera egiaztatzen duten datuak ekarrita–. Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zaigu, oro har, argitasun handiagoz jokatea interesdunari zuzendutako informazioetan eta horiekiko harremanetan eta sailak arreta handiagoa eskaintzea funtsezko betekizunak betetzeari, egintzak mantentzeko printzipioa aplikatuta, ondoren inskripzio eskaera berriak eta pertsona berdinei buruzko espediente berriak eragingo dituzten bajak ez ebazteko; izan ere, horrek kalteak dakartzkie interesdunari eta Administrazioa hedapen burokratiko handiagoa egitera behartzen du.

## 2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua

*“Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarritzko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere.”*

Beharrezkoa da aipatzea askatasunaz gabetzen duten zigorrak berriro gizarteratzerara bideratuta egon daitezen Konstituzioan jasotako betebeharrak botere publikoei guztiei eragiten die. Erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du espetxeen arloko eskumena osatzen duten eginkizunak eskualdatzearen aldekoa dela, kudeaketaren hurbiltasunak espetxeetako zerbitzu batzuk koordinatzea eta sare komunitarioan sartzeari ahalbidetu baitezake, besteak beste, osasun, hezkuntza, gizarte laguntza... Hala ere, eskualdatze hori gertatu artean, euskal administrazio publikoek konpromiso irmoa

izan behar dute euskal espetxeetan zigorra bete duten edo betetzen ari diren pertsonen arazoei eta gabeziei erantzuteko, ahultasun egoera berezian dauden eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonak baitira.

Askatasun gabetzeak hala eskatzen duten kasuetan azken irtenbidea izan behar du, baina, horretarako, beste zigor batzuk aplikatzearen aldeko apustu garbia egin behar da; horretarako, botere publikoek konpromisoak hartu behar dituzte haiek gauzatu ahal izateko, haiek abian jartzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartuta, askotan, aurrekontuari lotutakoak.

Kezka handia eragin dute 2006an zenbait presok beren buruaz beste egin izanak. Estatuari dagokion arren askatasunik ez duten pertsonen segurtasuna bermatzea, duten lotura bereziko harremanean, ezin ondoriozta daiteke hori nahitaez Administrazioaren erantzukizuna denik, gauzatu beharreko eginbiderik egin ez dela frogatu ezean. Alabaina, arrazoiak eman behar ditu espetxean hain maiz halako heriotzak gertatzearen inguruan.

## 2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua

*“1. Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.*

*2. Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.*

*3. Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.*

*4. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.*

*5. Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.*

*6. Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.*

*7. Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzaturako ikastegien kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.*

*8. Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*

*9. Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*

*10. Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera.”*

Hezkuntzarako eskubidea prestazio jakin bat jasotzeko eskubidea da. Horregatik, beharbada, egokiagoa izango zatekeen gizarte eskubideen atalean aztertzea. Hala ere, Konstituzioaren testuan duen kokaera eta aukeraturako metodoa kontuan izanik, atal honetan jorratuko dugu gai hori.

2006. urtean, hezkuntza programazio edo plangintzarekin zerikusia duten keak bideratzen jarraitu dugu.

Horri dagokionez, espero dugu Eusko Legebiltzarrak eskola-mapari buruz egindako ez-legezko proposamenak oinarritzkoa eta funtsezkoa den plangintza estrategikorako tresna gisa erabiliko dela, ia hezkuntza-baliabide guztiak artikulatu ahal izateko.

Bestalde, bereziki eztabaidagarria izan da ikasleen onarpenaren arloan, zehazki, Basauriko Arizko Ikastolan, hori gauzatzera eroldako datuak neurrigabe erabili direla ikusi ahal izan baitugu. Garrantzi berezia izan dute eskola-garraioko zerbitzu osagarriari buruz jasotako kexek.

Hezkuntza-premia berezien eskainitako erantzunari edo arretari dagokionez, kezka sorrarazi digu, kasuren batean, arreta berezia behar duen gaitzen batek jotako adingabeek eskolatzeko zailtasunak izan dituztela ikusteak. Hala izan denetan, Arartekoak, ohiko jarduerari jarraiki, gogorarazi du haur txikienezko hezkuntza-eskaintzak Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak agindutakoari heldu behar diola; alegia, jatorrizko desberdintasunak (horien artean, osasun behar espezifikoak) orekatuko dituzten diskriminazio positiboko neurrien bidez benetako aukera-berdintasuna ziurtatu behar duela.

Era berean, beharrezkotzat jo da diskriminazio positiboko neurriak hartzea bereziki egoera ahulean dauden ikasle gehiago dituzten ikastetxeei baliabideak esleitzerakoan. Horri dagokionez, Hezkuntza Sailak hezkuntza-errefortzuak, hezkuntza-erlazio espezifikoko proiektuak eta esku hartzeko proiektu orokorrak arbitratu ditu. Beharrezko da, orobat, “eskola-guettoak” ekidingo dituzten eta hezkuntza-premia bereziko ikasleak (zehazki, ezgaitasunen bat duten ikasleak, ikasle etorkinak edo ikasle ijitoak) modu orekatuan banatuta egongo direla bermatzen duten neurriak hartzea.

Ikasle ijitoei dagokienez, kezkarria da eskola-porrotaren adierazleak hain altu ikustea. Funtsezkoa da eskola-arrakasta lortzeko zein zailtasun dauden detektatzea eta zailtasun horiek gainditzeko irtenbideak jartzea.

Hainbat arazo sortu dira ikastetxeetako bizikidetzaren inguruan. Eskolako indarkeria edo jazarpen kasuak (“bullying”) azaltzen dituzten kexa gehiago iritsi zaizkigu. Askotan, ez da errealitate horren berri izatea eta ez dugu horren benetako garrantzia ikusten, gertatzen diren kasuetako batzuk baino ez baitira azaleratzen; hala ere, fenomeno hau gizartean eta hedabideetan hartzen ari den garrantziak “ikusgai” jartzea ahalbidetu du. Hala ere, kontu honi tratamendu sentsazionalista emateak ez du hain konplexuak diren arazoei erantzun eraginkorra eta egokia aurkitzen laguntzen.

Halaber, gero eta ohikoagoa da ikasleek edo ikasleen gurasoek irakasleak erasotzea. Kasu askotan, irakasleek adierazi dute hezkuntza-administrazioak ez duela berehalako erantzun eraginkorrik ematen. Indarkeriazko adierazpenak eteteko, funtsezkoa da erasotzaileak zigorrik gabe geratu direlako sentsazioak sor daitezen ekiditea.

Hori guztia dela medio, gero eta bistakoagoa da eskubideen eta betebeharren dekretua aldatu behar dela, erakunde honek hainbatetan adierazi duen moduan.

### **3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIOAK**

- **Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua**

*“1. Herritar guztiak lagunduko dute gastu publikoei eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, ber-*

*dintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.*

*2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.*

*3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat baka- rrik ezarri ahal izango dira.”*

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak eragin izan ditu beti kexa gehien, nahiz eta horien edukia gero eta zabalagoa eta konplexuagoa den. Aplikazioko lehen urteetan antzeman ziren gabeziak asko pixkanaka konpondu dira. Une honetan, kexek nagusiki zerga erregulatzen duten arauekin dute zerikusia, kudeaketarekin baino.

Erreklamazio gehien eragiten duten arazoetako bat guraso bakarreko unitateei dagozkien zergak dira, bereziki, ezkontza-banantzea edo dibortzioa, seme-alabengatiko kenkaria, elikadura pentsioagatiko kenkaria... daudenean.

Zerga-administrazioek, askotan, oso irizpide murriztaileak erabiltzen dituzte edo arauak jaso gabeko betekizunak ezartzen dituzte arreta bereziko pertsoneri edo taldeei zuzendutako **salbuespenak edo murrizketak** aplikatzerakoan. Horrela, matrikula- zio zerga izenekoan, ezgaitasunagatiko salbuespena edo familia ugariagatiko kenkaria emateko, zergadunak aurretik eskatu behar ditu eta Administrazioak onartu egin behar du. Gainera, inolako lege oinarririk gabe, bai eskaera bai onarpena ibilgailua matriku- latu aurretik egitea eskatzen da. Zirkulazio zerga izenekoan ere (TMIZ) ezgaitasunen bat duten pertsoneri salbuespena aplikatzerakoan zenbait udalek murriztu egin nahi izan dute oinarriko legeetan jasotako betekizunak zorrozuta eta, hala, Konstituzioko printzipioak urratu dituzte, besteak beste, lege erreserba edo ezgaitasunen bat duten pertsonen babesa.

Bestalde, berrikusketa katastralek eztabaidak eragin ohi dituzte, Ondasun Hi- giezinen gaineko Zergaren kuotak nabarmenki handitzea dakartelako. Horiek, neurri handi batean, berrikusketa baten eta hurrengoaren artean egon ohi den denbora tarte luzearen ondorio dira.

Gainera, udal tasa eta prezio publikoei dagozkien zenbait kuota handitzeak, hainbat kexa eragin ditu baita ere.

## 3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua

*“1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.*

*2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.*

*3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera.”*

Lurzoruaren hirigintzako antolamenduak udal plangintzen aldaketekin ados ez dauden taldeek edo herritarren erreklamazioak eragiten jarraitzen du. Erreklamatu di-

tuzten aldaketen bidez lurzoruen erabilerak aldatzea baimendu da, eta pertsona horiek ez daude ados aldaketekin, hainbat arrazoiengatik.

Planean aurreikusitako erabilera-aldaketekin ados ez egoteko arrazoi hauek ere badituzte herritarrek: proiektuaren ondorio sozialak, ingurumenekoak edo bizilagunen eta albokoen ondare onuraren galera ere, plangintza-aldaketa justifikatzen duena.

Aurten, berritasun nagusia hainbestetan eskatu den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen onarpena izan da.

Arau honen helburu nagusia beste politika publiko batzuekin bateragarria den hirigintzako sistema ezartzea da, bereziki, etxebizitza-sustapenarekin eta ingurumenaren babesarekin bateragarria izango dena. Hiri konpaktuaren garapen ereduaren aldeko apustua egin da, lurzoru urbanizaezina modu arrazionalen zaindu eta erabiltze aldera.

Horrela, legeko xedapen baten arabera, udalek, ordenantza onartu ondoren, jabetza horizontal bateko elementu pribatiboak desjabetu ahal izango dituzte eraikinen barruan trabak kentzeko, funtsean, igogailuak jarrita. Herritarrek aukera hori ordenantzetan barnera dadila eskatzen diote beren udalei.

Bestalde, beharrezkoa da azpimarratzea administrazio publikoek oso andeatuta zeuden auzoak biziberritzeko garatu dituzten jarduerak, Sestaon gertatu den bezala; horiek infraetxeak ezabatzea dakar eta kaltetuei (askotan, gizarte bazterkeriako egoeran daudenak) bizilekua berriro ematea.

Administrazio publikoek ez dute onartu nahi eragindako kalteen ordainaren izaera objektiboak ez dakarrela herri zerbitzuen jardueran edo ez-jardueran errurik edo axolagabekeriarik izan behar izatea, zeren nahikoa baita zerbitzu publikoen funtzionamendu normal zein anormalaren eta eragindako kaltearen artean kausazko lotura dagoela frogatzea.

Administrazio publikoek, oro har, erreparatu handiak izaten dituzte eragindako kalteengatik duten erantzukizuna onartzeko eta, sarritan, erantzuteko duten betebeharraren izaera objektiboa gogorarazi behar izaten zaie.

## 4. GIZARTE ESKUBIDEAK (GIZARTE ETA EKONOMI POLITIKAREN PRINTZIPIO GIDARIAK)

### 4.1. FAMILIAREN BABESA. ADINGABEEN ESKUBIDEEN BABESA

- **Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikulua**

*“1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute.”*

*“4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babesak izango dute.”*

Adingabeak zuzenbidezko subjektuak dira, baina gainera, beren ezaugarriengatik, biztanleriako alor bereziki ahula dira, bermatu behar diren berariazko eskubideak dauzkaten pertsonak. Horregatik, Ararteko erakundeak lehentasunez aditu beharreko taldetzat ditu.

Adingabekoen taldearen barruan badaude zenbait talde arrisku egoeran daudenak beren eskubideen errespetuaz ari garenean: babesik gabeko haur eta nerabeak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; adingabe arau-hausleak; hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak; osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeak, edo atxilotutako adingabeak.

**Familiaren babesik gabeko haur eta nerabeei** dagokienez, arazo desberdinak antzeman dira “**topaleku**” izenekoen funtzionamenduan, bereziki Gipuzkoan. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Euskadiko topaleku guztietara adingabeen lehentasunezko interesari erantzuten dioten funtzionamendu irizpide komunak zabal daitezten ahalbidetu beharko luke.

Bestalde, **adopzioaren** arloan, foru aldundiek akordioa egin dute eta, horren arabera, adopzio hartzailea egokia dela ziurtatzeko, beharrezkoa da adopzio hartzaileen eta adopziogaiaren arteko adin tarte 42 urtetik gorakoa ez izatea. Gure ustez, desiragarria litzateke adin tarte hori betekizun baztertzaille gisa ez hartzea, baizik eta, adinaren faktoreaz gain, banakako analisiaren bidez kasu bakoitzean dauden gainerako inguruabarrak neurtzea.

2006an, **bakarrik dauden adingabe atzerritarrei** dagozkien arazoetako asko antzeman dira: harrera-baliabideen saturazioa, eskolatzeko edo beren beharretarako egokitutako hezkuntzako esku-hartzea egiteko zailtasunak, dokumentazio izapideen moteltasuna...

Etengabe adingabeak heltzeak gizarte eztabaida sortzen ari da horiek hartzeko gure ahalmenaren inguruan; gatazkaren irudia proiektatzen ari da eta horrek, kasu askotan, baliabideak sortzeari uko egitea dakar. Gainera, behar besteko bermeak eskaintzen ez dituzten aberriratzeko prozesuak egiten dira. Egoera benetan kezkarria da adingabe horien eskubideei eta horiek behar bezala betetzeari dagokionez.

Kasu hauetan, adingabearen interesik onenak bat etorri behar du administrazio jarduerak bideratzen dituen irizpidearekin. Adingabeak ezin dira jatorrizko bere herrialdeetara aberriratu, jatorrizko famili nukleora itzultzeak adingabearen interesik onena bermatzen duela ziurtatu ezean. Gure artean dauden bitartean, harrera-zentroek espazio, osasun eta hezkuntzaren aldetik egokiak direla bermatu behar dute.

**Adingabe arau-hausleei** dagokienez, aipatu behar da, neurririk erabiliena komunitatearen onurarako prestazioek izaten jarraitzen duten arren, deigarria eta kezkarria dela internatzeen edo asteburuetako egonaldien moduko neurriak nabarmen gehitu direla eta horrek adingabeen epaitegien jarduerak joera-aldaketa izan duela adierazten duela.

Beharrezkoa da aipatzea, orobat, ez dela egia sistemak adingabeen delituzko ekintzen aurrean ezer ez egitea, baizik eta izugarrizko atzerapenarekin egiten duela; horrek ondorio negatiboak dakarkie adingabeei eurei, beren biktimei eta gizarteari oro har.

Oraindik ez da arauz garatu Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea, 2005eko otsailekoa, zerbitzuak arautzeari dagokionez, nahiz eta badauden protokoloak, barne agiriak edo jarduteko eskuliburuak.

Erakunde hau kezkatuta dago, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak berak honakoa adierazi baitu: “*jokabide arazoak dituzten gazte atzerritarrek eta tutoretzapekoek ez diete beren beharrei erantzun egokia aurkitzen sisteman eta egoera hori larriagotu egin da 2006an, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako harrera-zerbitzuak beteta baitaude*”.



Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, ikasleria horren banaketa orekatua bermatzeko neurriak hartzea eskatu dugu, bereziki, ikasle ezgaituen, etorkinen eta ijitoen kasuetan, horrela, “eskola-ghettoak” eratzea ekidingo delako.

Berriz ere gehitu egin da eskolatutako ikasle etorkinen kopurua, azken urteotako joerari eutsiz.

Bestalde, gehitu egin da itunpeko ikastetxeetan eskolatutako ikasle atzerritarren proportzioa eta, gainera, “A eredu” den arren nagusia, B eta D eruedetako eskolaztea ere gehitu egin da. Aurreikuspenen arabera, ikasle atzerritarren fenomenoak gero eta eragin handiagoa izango du euskal hezkuntza-sisteman.

Ikasle ijitoei dagokienez, Hezkuntza Sailak uste du une honetan garrantzitsuena ez dela zein ikastetxetan eskolatu den, baizik eta zergatik diren hain baxuak eskola-arrakastako beren adierazleak.

Gure arreta-sistemak ez du baliabiderik **burutik gaixo dauden haur edo nerabeei** erantzuna emateko edo argi eta garbi nahikoa ez den erantzuna ematen du adingabeek buruko gaixotasunen bat edo toxikomaniak dituztenean edo jokabide arazo larriak daudenean (bereziki, adinekoen artean). Horren ondorioz, egoerarik larrienean, gure autonomi erkidegotik kanpo kokatutako baliabideetara edo zerbitzu pribatuetara jo behar izaten dute.

Bestalde, ikusi ahal izan da komisaria batzuetan oraindik ez dagoela eremurik **atxilotutako adingabeak** hartzeko.

2006an **eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak** jaso dira. Arazo konplexua da eta, sistema judizialera desbidera daitezkeen oso kasu larriak kenduta, hezkuntza-sistemak berak eman behar die erantzun egokia arazo horiei.

## 4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua

*“1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.*

*2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez*

*3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute.”*

Itxaron zerrendek kontsultak eta kexak eragin dituzten 2006an, nagusiki, tratamendu edo espezialitate batzuen inguruan. Herritarrek egiten dituzten eskaera behar bezala baloratu ahal izateko, kontu hau ezin da banaka aztertu; hau da, beharrezkoa da euskal osasun sistemako gaixoei oro har duten egoera kontuan hartzea.

Osakidetzako 2003-2007rako Plan Estrategikoak kalitate estandar batzuk finkatzen ditu eta kontuan hartzeko moduko zenbait adierazle ezartzen ditu espezialisten kontsultetarako eta kirurgia programaturako.

**Buru osasunaren** arloan, kezagarria da kasu askotan eskizofrenikoak izaten diren buru gaixo kronikoen egoera, beren tratamendua eteten baitute. Horietako kasu askotan derrigorrezko tratamendu ambulatorioa izan daiteke irtenbide onargarria. Beharrezkoak lirateke egoitza-baliabideak, errehabilitazio psikosozialeko zentroak, orientazio zentroak eta arreta taldeka eskaintzeko programak.

**Laguntza soziosanitarioaren** garapena gauzatu beharreko erronka handietako bat da. Beharrezkoa da Euskadin arreta soziosanitarioa garatzeko plan estrategikoan jasota dauden aurreikuspenak tinko bultzatzea. Ezinbestekoa da baliabide nahikoak sortzea gero eta ugariagoak diren beharrei erantzun ahal izateko. Abiarazitako zenbait neurri, besteak beste, erabiltzaileen mendekotasuna baloratzearena gero orientazioa eskaini ahal izateko edo gaixo psikiatrikoak berriro kokatzea, bide onetik doaz.

Immigrazioaren fenomenoak ere eragina du osasunaren eremuan eta, beraz, osasun sistemak **etorkinen osasun** eskaerei erantzun behar die.

Izan ohi dituzten arazoetako bat osasun zerbitzuetan harremanetan jari ahal izateko hizkuntz zailtasuna da. Oso positibotzat hartu behar da Osasun Saila abiarazten ari den esperientzia pilotua; horren baitan, "Lehen kontsulta zazpi hizkuntzatan" izeneko agiria prestatzen ari da eta larrialdietako zerbitzuetako galderarik ohikoenak biltzen dira.

Osasun sistemak duen beste arazo bat **gaixo kronikoak** dira. Hauek, gero eta gehiago, elkarteen bidez babesten dituzte beren eskubideak. 2006an epidermiolisi bullosa, bizkarrezur bifidoa eta hidrozefalia, fibromialgia edo neke kronikoa bezala gaixotasunak dituzten pertsonen egoera aurkeztu da. Kasu batzuetan, dituzten gastu ikaragarriak finantzatzeko arazoen berri eman dute eta beste batzuetan, berriz, gaixotasunaren tratamenduari edo profesionalen prestakuntza-planei buruzko kontuak aipatzen dira.

HIES duten edo GIB eramaile diren pertsonak, nagusiki, kirurgia estetikoko prestazioak eta ugalkortasun tratamenduei buruzko prestazio teknikoak lortzeko aukera eskatu zuten. Hezkuntza Sailaren erantzun positiboari esker, 2006an ez dugu kontu horien inguruko kezarik jaso.

### 4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua**

*"1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea, baita hura zaintzeko betebeharra ere.*

*2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.*

*3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute."*

Ingurumenaren arloan, aipatu behar dugu, izan duen garrantziagatik, berriki onartu den uztailaren 18ko 27/2006 Legea aipatzea (horren bidez, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dira). Lege honek Aarhuseko Hitzarmena berretsi zenean hartutako erabakiak onartuko dituen esparru juridikoa ezarri nahi du; halaber, gai horri buruzko zuzentarauak barne ordenamenduan jasotzen dira.

Ingurumenaren esparruan, kexa gehienak herritarrek sailkatutako jarduerak deitzen direnen zaratengatik, usainengatik eta kearengatik dituzten eragozpenen ondorio dira. Jarduera horiek udal baimenen erregimenaren menpe daude.

Alde horretatik, adierazi dezakegu ostalaritzako establezimenduen funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren eragozpenen inguruko kexak izan direla gatazkatsuenak. Kexa horietan, aipatutako jarduerak sortzen dituzten zaratek ekarritako eragozpenak salatu dituzte. Honakoak dira zaraten arrazoiak: lokalak ez daude akustikoki isolatuta edo musika-kateak gehiegi erabiltzen dira, musika-kate horietan instalatuta dauden potentzia mugatzaileak edo ainguraketa-sistemak manipulaturak.

Azken urteotako joerari eutsiz, lonja komertzialak biltzeko lokal gisa erabiltzen dira eta, bertan, musika-kateak, telebistak, etab. jartzen dira, horretarako behar den bezala egokituta ez dauden arren, eta, hala, auzotarrei eragozpen larriak sortzen dizkiete, batez ere, zaraten eraginez.

Instituzio honek tramitatutako kexa-espedituetan, gai honetan inplikaturak dauden udalei gomendatu diegu lonja horiek ixtea, ikusten bada salatu diren jarduerak ez dutela jarduerak egiteko nahitazeko lizentziarik eta ez badira legeak ezarritako prozeduraren arabera legalizatzen.

Bestalde, eta joan den urtean bezala, kutsadura atmosferikoak eta akustikoak sortutako kalteengatik jaso ditugun salaketak aipatu behar ditugu. Kutsadura hori industria-jarduerak sortutakoa da. Esate baterako, 24 orduetan lan egiten duten galdaketa-enpresek sortutako eragozpenengatik jaso diren salaketak aipatu ditzakegu. 24 orduetan lan egiteak larriagotu egiten ditu enpresa horiek inguruan bizi direnengan sortzen dituzten bistako eragozpenak, batez ere gauez.

Industri instalazio horietako askok ez dute jarduera-lizentziarik. Errealitate horren adibide gisa, Muxikan enpresa batek duen funtzionamendua aipa dezakegu; horren jarduerak zarata sortzen zuen gauez eta etengabeko emisioak atmosferara. Enpresa horrek ez ditu kasuan kasuko udal lizentziarik eta, beraz, ez zaio administrazio kontrolirik egiten.

Halaber, aipatu beharrekoa da, duen garrantziagatik, Txingudin hiri hondakinen erraustegia jartzeko proiektua. Gogoratu behar da, kasu horietan, garrantzitsua dela hiri hondakinen kudeaketa eraginkorra eta ingurumen egokia izateko eta pertsonen osasunerako eskubideak batera joatea. Gainera, aipatu behar da herritarrek parte hartzeko bideak ere jarri behar direla herritarrek benetako eragina izan dezaten era honetako proiektuei buruzko bukaerako erabakietan.

#### 4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua**

*“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorrarekin bat arautuz, espekulazioa galarazteko.*

*Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”*

Eztabaidazina da gaur egun, Euskadin, biztanle askok zailtasun objektiboa dutela etxebizitza eskuratzeko. Botere publikoek ere onartu dute hori eta, hala, gero eta gehiago ari dira sustatzen kasuan kasuko esku-hartze publikoa, bai etxebizitza babestuak eginez bai merkatu librean sar ezin daitezkeenei etxebizitza eskuratzeko aukera ematera zuzen-

dutako beste neurri batzuen bidez. Garbi dago etxebizitzari buruzko politika publikoek etxebizitza duin eta egokia eskura izatea errazten saiatu behar dutela, etxebizitzaren premiarik handiena duten biztanle sektoreak lehenetsiz.

Azpimarragarria da, lurzoruaren gaian esku hartzeko bitartekoak berez ez direla nahikoak etxebizitza beharrari aurre egiteko eta, alde horretatik, guztiz ezinbestekoa da etxebizitzari buruzko berariazko politikak artikulatzea.

**Etxebizitzako politika zuzenei** dagokienez, azpimarratu behar dugu gure autonomi erkidegoan arlo honetan esku hartzeko politika aktiboa dagoela, indar handikoa, eta, horren baitan, 2006an babes ofizialeko etxebizitza ugariri eman zaie hasiera.

Alokairuaren arloan ekimenak badaudela onartu arren, ikus dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza babesteari dagokionez garatzen den jarduerak funtsean salmenta duela helburua, nola jabetza-erregimenean hala azalera-eskubidean. Gogoan izan behar da ezinbestekoa dela alokairu erregimenera bideratutako etxebizitza-kopurua gehitzea. Herritar askok adierazi dute babes ofizialeko zenbait etxebizitzaren alokairu prezioak gehiegizkoak direla beren soldata eskasarako.

**Hirigintza-politikari** dagokionez, adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen onarpena denbora luzez eskatu den gertaera gogoangarria dela. Etxebizitzaren arazoari dagokionez, bere helburua horri buruz buru aurre egiten dio, etxebizitza babestuetarako lurzoruaren erreserba-sistema finkatuta, etxebizitza babestuaren tipologiak gehituta eta horiek guztien kalifikazio iraunkorra eginda, horiek sustatzen dituen administrazioa edozein dela ere.

Oso onuragarritzat jotzen dugu Lurzoruaren Legeak jendaurrean bultzatu eta sustatu behar den formula gisa alokairuaren alde egiten duen apustua. Beharrezkoa da printzipioen adierazpen hori programa zehatzen bidez eta etxebizitzari dagokionez indarrean dauden arauak lege berriko aurreikuspenetara egokituta gauzatzea.

Garrantzitsua da etxebizitza-politikak harmonikoak izatea eta lurralde desberdintasunik ez sortzea.

Bestalde, adierazi behar da premiazkoa dela lege estaldura nahikoarekin etxebizitza-politika koherenteak abiarazten lagunduko duen etxebizitzari buruzko legea ateratzea.

Gainera, ezinbestekoa da ezgaitu fisikoen edo burutik gaixo daudenen taldeari lehenetasuna emango dion etxebizitza babestuak esleitzeko modalitatearen bat artikulatzea, kasu askotan, gizarte bazterkeriako egoeretan gera ez daitezen.

Gazteak dira etxebizitza-eskatzaille nagusiak eta, horregatik, 2006an, biztanle talde horri zuzendutako politika publikoei buruzko txostena egin dugu.

Zenbait gazte taldek zailtasun bereziak dituzte etxebizitza eskuratzeko, besteak beste, gazte etorkinek, droga-mendekotasunekin zerikusia duten arazoak dituzten gazteek edo baztertuta dauden edo hala geratzeko arriskuan dauden pertsonak; azken kasu honi dagokionez, gizarte behar larrietarako laguntzek (GLL) oso eginkizun garrantzitsua dute gero eta biztanle gehiago barne hartzen dituen taldeak etxebizitza eskuratzeko.

#### 4.5. URRITU FISIKOEN, SENTIMENEZKOEN ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK (EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK)

##### • Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua

*“Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaitze eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.”*

Ezgaitasunen bat duten pertsonak eguneroko bizitzan zailtasun handiak izaten jarraitzen dute hori berdintasunezko baldintzetan garatu ahal izateko, arazoak baitituzte hirian ibiltzeko, erabilera publikoko eraikinetara sartzeko, garraioa erabiltzeko edo lanpostua eskuratzeko.

**Garraioaren** arloan, tamalez oraindik ere adierazi behar dugu gure garraio publikoek ezgaitasunen bat duten pertsonak beren kabuz moldatu ahal izateko oztopoak ezabatu gabe jarraitzen dutela.

Egia da **hiri garraioan** duela urte asko hasi zirela neurriak hartzen eta, hala, pixkanaka, behe plataformadun autobus egokituak jarri direla linea guztietan; horrela, flota horietan egokitzapen maila handiak lortu ahal izan dira. Hala ere, oraindik ez da lortu horiek erabat egokitzea.

Hiriko autobus egokituen eskaintzak ez dienean ezgaitasunen bat duten pertsonak mugitzeko dituzten beharrei erantzuten, zerbitzu publikoan erabil dezaketen aukera bakarra **taxia** da. Hala ere, zerbitzu horrek ere ez du ahalbidetzen mugikortasun arazo larriak dituzten pertsonak mugitzeko dituzten beharrei erantzun egokia ematea, gure hirietako taxi egokituen eskaintza ez baita nahikoa.

Arazo nagusia hiri arteko garraioan dago, bereziki, errepidez egiten denean.

Inbertsio handiak egin diren arren, trenbide garraioa ere ez dago eskuragarri eta ezgaitasunen bat duten pertsonak oraindik ere arazo larriak dituzte tren erabiltzeko. Tren geltokietan (EuskoTren) hainbat oztopo dagoela ere ikus daiteke.

**Hirigintzaren arloan**, hainbestetan aipatu den Lurzoruaren Legeari esker, udalek, ordenantza onartu ondoren, elementu pribatiboak desjabetu ditzakete jabetza horizontalean igogailuak instalatu ahal izateko.

Adierazi da beharrezkoa dela hiri altzarien irisgarritasunari buruzko arautegia betetzea ezgaitasunen bat duten pertsonak dagokienez. Horrela, hiru euskal hiriburuei eskatuko diegu birziklapen eta zabor edukiontzia ezgaitasunen bat duten pertsonentzat irisgarriak izan daitezela.

Azpimarratu nahi dugu Eusko Legebiltzarrak kontuan hartu duela txakur gidariei buruzko 17/1997 Legea aldatzea, ezgaitasunen bat dela medio **laguntza-txakur** batekin ibili behar duen pertsona orori aplikatu dakion.

Beharrezkoa da **ikastetxe** askotan irisgarritasun arazoak konpontzea; horiek ez diete soilik hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eragiten, baizik eta baita mugitzeko urritasunak dituzten irakasleei ere. Hezkuntza Saila arazo horiek konpontzeko inbertsioak egiten ari den arren, ezinbestekoa da beharrezko lanak modu planifikatuan garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sare publikoan dauden lehen nahiz bigarren

hezkuntzako irakaskuntza-zentroen irisgarritasun egoerari buruzko maparen bidez; mapa hau oraindik bidean da.

Bestalde, aipatu beharrekoa da abenduaren 14ko 39/2006 Legea, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta horiei eskaintzen zaien arreta sustatzekoa. Beste zenbait konturen artean hurrengoak azpimarra ditzakegu: mendekotasun egoeran dauden pertsona guztientzat laguntza hori eskuratzeko eskubidea unibertsala izatea; familien papera, etxean mendekotasun egoeraren bat jasaten duen norbait izatea ahalbidetzeko laguntza emanaz, eta administrazioen arteko lankidetzaren beharrezkoa dela adieraztea, mendekotasun egoeran dauden pertsonen beren beharretara hobekien egokitzen zaizkien gizarte eta osasun prestazioak eskura ahal izan ditzaten.

**Zergen arloan**, ezgaitasunen bat duten pertsonen berriz ere adierazi dute udalek zailtasunak jartzen dituztela trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergen salbuespena aplikatzeko.

Etxebizitzaren arloan, oso onuragarritzat jotzen dugu 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriak adimen urritasuna duten pertsonentzat edo burutik gaixo daudenentzat berariazko kupo edo erreserba sortzea alokairu erregimenean esleitzen diren sustapenetan; izan ere, adierazi dugun moduan, neurri hori luze eskatu du erakunde honek.

Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legean aurreikusten diren tresna desberdinak aplikatzeari dagokionez, berriz ere azpimarratu behar da administrazio publikoek eta, bereziki, euskal udalek, ez dituztela tresna horiek behar bezainbeste erabili eta, batzuetan, argi eta garbi urratzen dituzte arauetako aginduak. Sustapen politikak eta kontrol jarduerak ez dira nahikoak eta ez da zehatzeko esku-hartzerik gauzaten.

Bestalde, ezgaitasunen bat duten pertsonen oraindik ere zailtasunak dituzte erreserbatutako aparkaleku plazak erabiltzeko, erreserba-eskubiderik ez dutenek elkartasunik erakutsi gabe hartzen baitituzte.

Azkenik, adierazi nahi dugu oraindik bide luzea dagoela ezgaitasunen bat duten pertsonen erabateko **laneratzea** lortzeko eta, beraz, administrazio publikoek pertsona horiek lan merkatuan sartzeko estrategiak diseinatu behar dituzte.

## 4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua

*“Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espezifikoak konpontzeko.”*

2005ean erakunde honek Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zion “Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn” izeneko ezohizko txostenean agerian geratu zen euskal biztanleen artean zahartze tasak gora egin zuela; hortaz, beharrezkoa zen adinekoen zuzendutako zerbitzuen plangintza egiterakoan errealitate demografiko hori kontuan hartzea.

Ezohizko txostenean jasotako datuen eguneratzeak agerian uzten du Arabako Lurralde Historikoan nabarmen gehitu direla bai egoitza-zentroak bai banakako plazak.

Gehikuntzarik handiena plaza pribatuetan izan den arren, lurralde historiko honetan zentro publikoetako plaza gehiago dago. Eguneko zentroetako eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuko plazak ere gehitu egin dira.

Bizkaian estaldura-tasa, guztira, egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta etxez etxeko laguntza barne, nabarmen handitu da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan egoitzei dagokien estaldura-tasa oso gutxi hazi da. Hala ere, eguneko zentroetako plazak modu ikusgarrian gehitu dira. Alderantziz, etxez etxeko laguntzan erabiltzaile kopurua gehitu egin da, baina behera egin du horiei eskaintzen zaien ordu kopuruak.

2006ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean Bizkaian mendeko adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautzen duen dekretua.

Gure iritziz, onuragarria da familiei laguntza ematea adinekoak zaintzeko eta hizkuntz eskubideak aitortzea.

Alderantziz, eztabaida handia eragin du, adinekoei zuzendutako gizarte zerbitzuen eskatzaile den pertsonaren ahalmen ekonomikoa baloratu ahal izateko, ohiko etxebizitza ere barneratu behar dela eta zorraren onarpena finantzaketa-berme gisa hartuko dela dioen arauak.

Zorionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 22ko 152/2006 Foru Dekretu berriak, pixkanaka, ezabatu egiten du, plaza bat eskuratu ahal izateko, baliabide ekonomikorik ezin izan zitekeela ezartzen zuen betekizuna, erakunde honen ustez, hori diskriminatzailea baitzen. Sarbidea unibertsala izango da; nolana ere, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zerbitzua finantzatzen parte hartzea baldintzatu ahal izango du.

Onuragarritzat jotzen da Bizkaiko Foru Aldundiak “Zainduz” programa onartu izatea, famili ingurunean mendeko adinekoa zaintzen duten familiei laguntzeko. Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Gasteizko Udalak aspalditik du horrelako programa bat.

Bilboko Udalak 2006an jarri du abian “Zaintzea” plana.

2006an ere Bizkaiko eta Gasteizko Plan Gerontologikoa onartu da.

Era berean, gero eta ohikoagoa den baliabide baten inguruko arau berriak ezarri dira, hots, tutoretzapeko apartamentuen ingurukoak.

195/2006 Dekretuak tutoretzapeko etxebizitza horien inguruko arauak bestelako baliabideak behar ez dituzten adinekoei zuzendutako gizarte zerbitzu gisa erabiltzeko xedera egokitu nahi du.

Azkenik, beharrezkoa da gogoraraztea ezinbestekoa dela laguntza-zerbitzuak adineko erabiltzaileen ingurune naturaletik gertu egotea.

## 5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren beharrezko balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Konstituzioak onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da, baina ondorioen atal bat izanik, ez ditu, noski, Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak agortu nahi.

Balorazio osatuago batek beste atalen segimendu bat egitea eskatuko du, batez ere I. atalarena, sarreran esparru material bakoitzaren benetako balorazioak agertzen baitira, eta atal honetan ez dira kasu guztiak jasotzen.

Era berean, bereziki behartsuak diren eta eskubideak urratzea errazago gerta dakiekeen zenbait kolektibori ukitzen dieten gaiak ere aztertu ahal izango dira, txosten honetako IV. atala aztertzean.

I. ataleko kexen laburpenek eta II. ataleko gomendioek 2006an zehar sortutako kasurik garrantzitsuenak zeintzuk diren ikusten laguntzen digute.

Bestalde, III. atalak zenbait eskubide aztertzen laguntzen digu, 2005ean egindako txosten monografikoen bitartez, baita lehenago aurkeztutakoen segimendua egiten ere.

Edozein modutan, atal honetan eta txosten guztian agertzen den diagnostikoa aginte publikoentzat baliagarria izatea espero besterik dugu egingo, hiritarren eskubideak babesteko neurri zehatzak hartzeko.



# **I. ERANSKINA**

KEXA-ESPEDIENTEEI DAGOZKIEN  
GOMENDIOEN ZERRENDA



Azken urteotan, urteko txostenaz gain, beste argitalpen bat ere ateratzen genuen, txosten hori osatzeko. Argitalpen horretan, Ararteko erakundeak urtean zehar egindako gomendio guztien zerrenda jasotzen zen, kronologikoki ordenatuta, eta zenbaki eta datarekin.

Interesgarritzat jotzen zen gomendio horien eduki osoa argitaratzea.

Hitzak berak aditzera ematen duenez, ez dago "gomendio" horiek nahitaez bete beharra, eta, horregatik, ahalegin handia egin behar da arrazoi juridikoak ematerakoan. Arrazoiok interesgarriak izan daitezke gure urteko txostena aztertuko dutenentzat.

Zerrenda horretan biltzen dira, beraz, Arartekoaren esku-hartzeari amaiera eman dioten ebazpen guztiak, administrazioaren jardunbidea aldarazi nahi dutenak, legeriarekin bat ez datorrelakoan edo eskubideak urratzen dituelakoan.

2005eko txostenean, egokia iruditu zitzaigun gomendioen bilduma hori argitalpen autonomo ez izatea, urteko txostenean bertan txertatzea.

Horregatik, atal honetan sartuko dugu 2006. urtean egindako gomendio guztien zerrenda. Orain, ordea, gaiaren arabera ordenatuko ditugu alorrez alor, ez orain arte egin dugun bezala, zorrozki orden kronologikoari jarraituz. Hala ere, alor bakoitzaren barruan, ordena kronologikoa izango da. Gomendioak ordenatzeko modu berri horri esker, irakurleak errazago eta modu sistematikoagoan bilatu ahal izango ditu kontsultatu nahi dituen gomendioak.

## 1. GIZARTE EKINTZA

**9/2006 Gomendioa, martxoaren 23koa, Adunako Udalari egina, herritar bat eta bere bi semeak erroldan sar ditzan eta bi adingabeen hezkuntzarako eskubidea berma dezan. Bertan behera utzi da.**

### Aurrekariak

1. (...) Adunan bizi da bere bi semeekin, partikular baten lurrean kokatutako karabana batean, lurraren jabearen baimenarekin.
2. Adunako Udalak, urtarrilaren 3an, ez zuen onartu kexagilea eta bere bi semeak erroldatzeko eskabidea, ez baitzuen helbidetzat hartzen karabana bat; gainera, karabana hori handik kentzea erabaki du, (...) baserriko lurretan kokatzea legez kontrakoa delako.
3. Kexa hau behar bezala bideratzeko asmoz, Arartekoak informazioa eskatu zion udalari, hain zuzen, pertsona horiek erroldatzea zergatik ez zuen onartzen galdetu zion. Udalak erantzun zuen ukapenaren arrazoiak karabanaren kokalekua zela, eta hauxe adierazi zuen: *“Hain zuzen ere, interesatuak udalerrri honetako beste edozein lekutan erroldatu nahi balu –Adunako etxebizitzaren batean litzateke egokiena, baita (...) baserrian bertan ere–, Udal honek ez luke inolako eragozpenik izango eskatutako erroldatzea onartzeko”*.

Udalaren esanean, bi karabanak eta etxola aurrefabrikatua kokaturik dauden lurra lur urbanizaezin gisa sailkatuta daude, eta Adunan lur urbanizaezinerako indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioen 26. artikulua hauxe ezartzen du: *“Inguru honetan ez da inolako urbanizaziorik onartuko, ezta kanpin edo kanpaketa indibidual edo kolektiborako tokirik ere”*. Era berean, udalak bi karabanak eta etxola aurrefabrikatua kentzeko eskatu dio lurraren jabeari, eta hilabeteko epea eman dio horretarako. Eskatutakoa bete ezean, udalak haren ordeztu betearaziko du, interesdunaren kontura. Horregatik, erroldatzeak ez duela zentzurik alegatzen du.

Beste alde batetik, udalak dioenez, ez litzateke bidezkoa, erroldatze-eskaera egin duen pertsonaren egoera dela-eta, *“karabana bat bizileku iraunkor gisa onartzea, hirigintza legeriak berak ez baitu horrelakorik onartzen. Bestela, udalerrian makina bat familia jarriko litzateke bizitzen, ez osasun baldintza egokirik ez zerbitzurik; eta Udalak ez luke izango premia horiei erantzuteko modurik”*.

Informazio hori eta kexagileak alegatu dituen gainontzeko zertzeladak kontuan izanik, eta horien edukia aztertu ondoren, beharrezkoa iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea.

### Gogoetak

1. Arartekoak askotan esku hartu izan du honelako kasuetan, alegia, etxebizitza bat okupatzeko legitimotasunik ez zuten, karabanetan bizi ziren edo aterperik ez zuten pertsonak –etxerik gabekoak, kasu– erroldatzeko eskabideei zenbait udalkek ezezkoa eman dienean edo erantzun ez dienean. Kasu horietan guztietan, erakunde honek garbi bereizi ditu, batetik, etxebizitza okupatzeko legitimotasuna izateak ala ez izateak dituen legezko ondorioak, edo bizilekutat adierazitako tokiak bizigarritasun baldintzak izatea ala ez izatea, eta bestetik, benetan bizi diren udalerrian erroldatzeko eskubidea. Erroldari buruzko araudiak baldintza bakarra jartzen du herri jakin batean erroldatzeko: benetan herri horretan bizitzea. Horrela, Toki Araubi-dearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (TAOL) ezartzen duenez: *“Españian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar du bere burua”* (TAOLen 15. artikulua).

2. Erroldan izena emateak ez du esan nahi lurra okupatzeari edo lurra modu desegokian erabiltzeari legezko babesa ematen zaionik. Errolda erregistro administratiboan da, ez juridikoa –erregistro zibila den bezala, adibidez–. Erroldako datuek ez dute eskubiderik sortzen. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak berariaz aurreikusten duenez, *“Atzerritarrek udal-erroldan inskribatuta egotea ez da Espainian legezko bizilekua izatearen frogara, eta ez die emango indarrean dagoen legediak ematen ez dien inolako eskubiderik, bereziki Espainian dauden atzerritarren eskubideen eta askatasunen arloan”* (TAOL, 18. artikulua). Beraz, garbi berezi behar dira pertsona orok bizi den herrian erroldatzeko duen eskubidea eta betebeharra, batetik, eta etxebizitza bat okupatzeko legitimotasuna edo etxebizitzaren bizi-garritasun baldintzak, bestetik. Erroldaren kudeatzaileak eskatzailearen identitatea eta hori egiaz herrian bizi dela bakarrik egiaztatu behar du. Lurra okupatzeko gaitasuna edo lurra erabileraren legezkoak ote diren egiaztatzeko, berriz, beste prozedura batzuk daude. Hortaz, ez dira erroldatzea ukatzeko moduko arrazoiak ez karabana batean bizi izatea, ezta ere herriko hirigintza-planeamenduaren arabera lurra erabileraren desegokia izatea, legerian bai baitira beste zenbait tresna juridiko ondasun pribatuak edo herri jabarikoak legez kontra okupatzeari edo lurra erabileraren desegokiei aurre egiteko.
3. Beste hau ere ez da erroldatzea ukatzeko arrazoi bat: *“Bestela, udalerrian makina bat familia jarriko litzateke bizitzeko, ez osasun baldintza egokirik ez zerbitzurik; eta Udalak ez luke izango premia horiei erantzuteko modurik”*. Herri-administrazioak legerari eta zuzenbideari erabat men eginez jardun behar du, eta ez subjektibotasunetan edo usteetan oinarrituta. Konstituzioak herri-aginteen arbitrariotasunaren debekua bermatzen du; horregatik, legeraren nagusitasunaren mende jarri behar da edozein jardura.
4. Esan dugun bezala, erroldak administrazio-erregistroaren izaera du. Bere helburu bakarra udalerrian batean bizi diren pertsona guztien helbidea eta zertzeladak islatzea da. Herriko erroldan izena ematean lortzen da auzotar izaera (TAOLen 15. artikulua). Ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emeleak izango dira administrazio-ondorio guztietarako (TAOLen 16. artikulua). Bestalde, gai horren gainean ere aurkez daitezke kontrako frogak. Bada jurisprudentziarik errolda benetako bizilekua frogatzeko beste bide bat dela ezartzen duenik (Auzitegi Gorenen 1984ko ekainaren 11ko eta 1985eko azaroaren 11ko Epaia): *“El padrón municipal es instrumento público fehaciente para todos los efectos administrativos y la inscripción prueba plenamente la condición de que se trate. No obstante, cabe la prueba en contrario que desvirtúe la presunción que el padrón proclama, puesto que el efecto probatorio privilegiado, que cabe atribuirles respecto del dato de la residencia, que es el propio de los documentos públicos –arts. 53.3 de la LBRL y 89 del RPDT– únicamente se produce con plenitud si se presenta aislado, pero no como acontece en el caso que se enjuicia, si su eficacia es contrastada con otros medios de prueba susceptibles de provocar el convencimiento de la falta de concordancia del contenido del padrón con la realidad”*. Hau da, ziurtagiriek frogatzeko bide gisa duten balioari indarra ken dakioke, baldin eta errealitatearekin bat ez badator.
5. Erroldak udalerrian bateko biztanleria osatzea du helburu (TAOLen 15.2 artikulua). Zerbitzu publikoen plangintza egingo bada, ezinbestekoa da udalerriko benetako biztanleria zein den jakitea. Udalak arduratzen dira errolda osatzeaz, eta beren erroldak eguneratuta edukitzeko beharrezkoak diren jarduerak eta ekintzak burutu behar dituzte, haietan agertzen diren datuak errealitatearekin bat etor daitezke (TAOLen 17. artikulua). Araudiak ez du desegokitasunik onartzen erroldaren eta udalerrian bizi diren pertsonen errealitatearen artean, eta horiek biak egokitzeko asmoz, ofiziozko alta edo baja aurreikusi ditu (Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren –BLMA– 72 eta 73. artikulua). Beste alde batetik, Estatistikako Institutu Nazionalak udalerrian bizi diren pertsonen koordinazio-lanak egiten ditu, eta hainbat jarraibide eman dira bikoiztasunak, behar ez bezalako altak edo bajak ekiditeko. Horrela, Estatistikako Institutu Nazionalak lehendakari andreak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren 1997ko apirilaren 1eko Ebazpenak –horren bidez udalerrian bizi diren pertsonen kasuetan, udal erroldaren kudeaketa eta berrikusketaren gainean– egin ezagatik alta emateko aukera aurreikusten du, normalean udalerrian bizi arren, udalerriko erroldan inskribatuta ez dauden pertsonen kasuetan. Xedapen horien guztien helburua erroldak benetako biztanleria isla dezan lortzea da. Legeriak zigortzeko aukera ere xedatzen du, Estatuan bizi diren pertsonen erroldan izena emateko orriak ez bete nahi izatearen kontra (BLMAren 107. artikulua).
6. (...) eta (...) bere semeak Adunan bizi dira eta erroldan izena emateko eskubidea egin dute. TAOLen 16. artikuluan eta BLMAren 57 eta 59 bitarteko artikuluetan arautzen dira bete behar dituzten baldintzak. BLMAren 59. artikulua honela dio: *“El Ayuntamiento podrá comprobar la veracidad de los datos consignados por los vecinos, exigiendo al efecto la presentación del documento nacional de identi-*

dad o tarjeta de residencia, el libro de familia, el título que legitime la ocupación de la vivienda u otros documentos análogos”.

Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakari andreak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak elkarrekin emandako 1997ko apirilaren 1eko Ebazpenean –horren bidez udalei jarraibide teknikoak eman zaizkie, udal erroldaren eguneratzearen gainean–, 3. jarraibidean, berariaz hauxe adierazten da:

*“La posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda (art. 59.2 del Reglamento), no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamiento urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado.*

*Por ello, este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.) o incluso, no existir en absoluto (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada. En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (Informe de la Policía Local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o Tribunales competentes, que nunca serán los gestores del padrón”.*

Aurrerago, ebazpen horrexetan, bizigarritasun-baldintzak aipatzen dira, 4. jarraibidean:

*“Como se ha indicado en la norma anterior, el Padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio. Siempre que se produzca esa realidad debe hacerse constar en el padrón. Y de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio.*

*En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas etc. E incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón, ya que la realidad es en ocasiones así”.*

Ebazpen hori bat dator erroldak administrazio-erregistro gisa duen izaera eta helburuarekin, erroldaren helburua Espainian bizi diren pertsonen bizilekuak islatzea baita. Are gehiago, gizarte-zerbitzuen parte-hartzea ere aurreikusten du, udalerrian bizi den pertsonak erroldan inskribatzeko helbide baliozkorik ez izatea bezalako egoerei aurre egiteko. Gizarte-zerbitzuek zerbitzuaren beraren helbidea adieraz dezakete, eta herri-administrazioaren baten komunikazioaren bat jasotzean, interesdunari jakinarazteko ahalegina egingo dutela hitz eman behar dute.

7. Erroldatzea ukatzen denean, auzotar izaera lortzea eragozten da, baita TAOLen 18. artikuluan xedatutako eskubide eta betebeharrak gauzatzea ere. Norberaren bizilekua erroldan inskribatzea hainbat eskubide gauzatzeari lotuta dago, eta horietako batzuk oinarritzkoak dira: parte hartzeko eskubidea, batetik bestera aske ibiltzeko eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, gizarte-zerbitzuak jasotzekoa, osasun-laguntza izateko eskubidea. Eskubide horien mugak, berriz, funtsezko edukia errespetatzen duen lege batean bildu behar dira, Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 8ko 11/1981 Epaian egiten den moduan. Aztertzen ari garen kasu honetan ez dago legearen babesik, bada, ikusi dugunez, erroldatzeko araudiak erroldatze-eskatzailaren identitate eta hura benetan udalerrian bizi dela egiaztatzea besterik ez du exijitzen, ez du bestelako mugarik ezartzen.

Gainera, erroldatzea eskatu duen pertsonak bi haur ditu, eta erroldatze-ukapena kalteak ekartzen ari zaizkie adingabe horiei, nahiz eta herri-agintean legezko betebeharrak bat adingabeak babestea den, inolako bereizkeriarik egin gabe (Adingabeen Babes Juridikorako Lege Organikoaren 1, 11 eta 12. artikulua eta Haurrak eta Nerabeak Artatzeko eta Babesteko Euskal Legearen 50. artikulua). Bai gizarte-zerbitzueta-rako sarbidea, bai eskolatzeko edo osasun-laguntza anbulatorioa izateko aukera ere errolda-ziurtagiriaren mende daude.

8. Azken batean, garrantzitsua da eroldaren eta errola-kudeatzaileen helburua beste eztabaida juridiko batzuetatik bereiztea, bada, eztabaida horietarako, legeriak nahikoa baliabide ditu beren egokitasun juridikoa baliarazteko, kasu honetan bezalaxe. Egiaz udalerri batean bizi diren pertsonen ezin zaie errolatzea ukatu errolatzeko araudiarekin, eroldaren izaerarekin eta helburuarekin zerikusirik ez duten arazoietan oinarrituz, batez ere errolatzeak eskubideak gauzatzeari eta adingabeak babesteari eragiten badie.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**9/2006 GOMENDIOA, martxoaren 22koa, Adunako Udalari egina**

Onar dezala (...) eta (...) bere bi semeak udalerrian errolatzeko eskabidea, eta horiek udal erroldan inskriba ditzala.

Beharrezko jarduerak burutu ditzala (...) haurren hezkuntzarako eskubidea bermatzeko.

**12/2006 Gomendia, maiatzaren 30koa, Gasteizko Udalari egina, patologia duala duten pertsonen ematen zaien arreta hobetu dezan eta Aterpeko araudia administrazioen zigor-ahalmena arautzen duen prozedurara egokitu dezan. Onartu da.**

Aurrekariak

1. Hedabideek (Diario de Noticias de Álava, 2006ko otsailaren 7a, asteartea) Gasteizen etxerik gabeko pertsona bat hil zela nabarmendu zuten, eta hildakoak ez zuela gizarte laguntzarik jasotzen zehaztu zuten. Horregatik, gertakari horren gaineko informazio zehatza eta nahikoa eskatu genion udalari.
2. Erantzun gisa, udalak gizarte txosten bat bidali zigun, eta pertsona hark -(...) izena omen zuen- zer-nolako laguntza jaso zuen adierazi zigun bertan.

Txosten horren arabera, (...) jaunak gizarte-laguntza jasotzen zuen urte batzuk lehenagotik. 2004ko urriaren 13an Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuarekin harremanetan jarri zen. Hala ere, horren aurretik, Iparralde gizarte-etxean dagoen oinarriko gizarte zerbitzuaren erabiltzaile izan zen.

Adierazi zigutenez, 2004ko abendutik 2005eko martxoa bitartean, (...) jauna Herrera Sozialerako Udal Zentroan (HSUZ) ostatu hartuta egon zen. Martxoan bertan bota zuten, indarkeriazko gertakari bat zela medio. Patologia duala zuen, buru-osasuneko arazoak, eta alkohola nahiz drogak hartzen zituen; horrek, batzuetan, bizikidetasuna zailtzen zuen. Orduz geroztik, horren antzeko gertakariak sarritan jazo zirenez gero, hainbat tokitatik bota zuten: Aterpe gaueko zentrotik, Estrada eguneko zentrotik, Casa Abierta-tik... Joan den neguan gizon horri "ateak zabalik" programan arreta eman ziotela gaineratu zen txostenean. Gero, antzekoa zen beste egoera batean, HSUZra igorri zutela, beste tokietan izan zituen arazoengatik. Erabaki hori hartu zen arren, (...) jauna 2006ko urtarrilaren 14an eta 25ean bakarrik joan omen zen zentro horretara, eta aparteko gertakiririk gabe artatu omen zuten.

3. Espedientea bideratzeko orduan gizon hura nor zen jakin genuenean, lehenago Arartekora etorria zela egiaztatuta genuen. Hain zuzen, 2005eko azaroaren 28an etorri zen erakunde honetara eta jarduteko eskatu zigun, udalak ez baitzion ematen Osakidetzaren desintoxikazio programa batean sartzeko beharrezkoa zuen ostatzuko eta janarizko baliabide bat, eta baldintza hura ezinbestekoa zen onartua izateko (... zerbaki espedientea). 2006ko urtarrilaren 26ko goizean, (...) jauna berriro Arartekoaren bulegoan izan zen, bere espedienteaz arduratuta. Aterpetxean, ez ziotela ohean lo egiten uzten eta ez ziotela janari-txartelik ematen adierazi zigun, eta aterpetxeko langileek eman zioten tratuarekin ez zegoela konforme. Egun hartan hil zen, daukagun informazioaren arabera.

Espediente honetako zertzeladak ikusita, erakunde honek gogoeta eta gomendio hauek egin ditu, patologia duala duten pertsonenganako arreta hobea sustatzeko eta gizarte-baliabideetan zigor-prozedurak hobetzeko asmoz.

Gogoetak

1. "Etxerik gabeko pertsonen" piztutako kezka dela eta, Gasteizko Udalak hainbat hitzaldi, eztabaida eta azterketa egin ditu. Ontzat jotzen ditugu kezka hori, egindako lana eta talde horrekin burutzen den jarduera etengabe ebaluatzea. Talde horren egoerak erakunde hau ere kezkatzen du. Horregatik, txosten berezi bat prestatu dugu, *Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* izenburuarekin, eta aurki aurkeztuko diogu Eusko Legebiltzarrari.



Etterik gabeko pertsonen profila aldatu egin da. Jada ez dira beren gauzak hartu eta batetik bestera ibiltzen diren adin ertaineko behin-behineko egoiliarak, baizik eta, besteak beste, honako ezaugarriok aldatu dira: orain gazteagoak izaten dira, askotan eremu normalizatuetatik etorri ohi dira eta toki berean egoten dira. Gainera, sarritan patologia duala izaten dute –gaitz hori buru nahasmenduarekin eta kontsumo aktiboekin lotu ohi da–, eta halako pertsonak bizikidetasun gatazkak sortzen dituzte psikiatriaren ikuspegitik egonkor ez daudenean. Gatazka horiek, gehienetan, gizarte-baliabideen ahalbideak gaintzen dituzte.

Patologia duala duten etxerik gabeko pertsonen arreta emateko, gizarte- eta osasun-baliabideak behar dira, biak batera, izan ere, arazo horri alkohola eta drogak neurritz gain hartzeak dakarren arazoa gehitzen zaio. Aipaturiko txostena egiten lagundu zuten lan-taldek beren kezka erakutsi ziguten, gero eta gehiago baitira patologia duala duten pertsonak. Arazo horrengatik, askotan bota egiten dituzte gizarte-baliabideetatik, eta, beraz, oinarritzko beharrak ase ezinik geratzen dira edo oso ibilbide nahasiak dituztela, baliabideetan sartuz eta irtenez, eta horrek eragotzi egiten du beraien bilakaera etengabe aztertzekeo gizarte-lana.

2. Espediente hau etxerik gabeko pertsonekin jarduteak sortzen dituen zailtasunen erakusgarri da, baina baita pertsona horien beharren eta beren egoera latzak ekar ditzakeen ondorioena ere.

Lehen aipatu bezala, (...) jauna erakunde honetara etorri zen 2006ko urtarrilaren 26an eta kexu agertu zen jasotzen ari zen arreta eskasagatik (ez zioten uzten ohean lo egiten eta ez zioten janari-txartelik ematen). Orobat, ia urtebete egoerarik txarrean bizi zuten zeramala esan zigan. Arartekoari laguntza eskatu zion (... zenbakiko espediente), alkohol mendekotasuna gaintzitzeko tratamendu bat hasterik izan ez zuelako, estali gabe baitzituen gutxienezko beharrak (ostatua eta jatekoa). Kasu honetan paradoxa bat gertatu zen: kaleko hezitzaileek, beren gizarte-lana egiten ari zirela, esku hartu zuten eta desintoxikazio tratamendua hastera animatu zuten gizon hori. Horrengatik, kexagileak bere harridura erakutsi zigan, ez baitzen zentzuzkoa, ostatu eta jatekorik ez izateagatik, kaleko hezitzaileek proposatu zioten tratamendua egiterik ez izatea. Beraz, koordinazio falta izan zen osasun alorraren eta gizarte alorraren artean, baita pertsona horiek gizarteratzeko lanean diharduten gizarte-baliabideen beren artean ere, bada kaleko hezitzaileek ere ez zuten pertsona horri baliabide egokirik eskaintzerik izan. Hortaz, espediente honetan agerian geratu dira diru-bitartekorik gabeko pertsonen gizarte- eta osasun-beharrak asetzekeo dauden zailtasunak. Horri gaineratu behar zaio gizarte-zerbitzuek 2004ko urria baino lehenagotik zekitelako pertsona horren arazoaren berri. Azken batean, eskura zeuden baliabideekin ez zen lortzerik izan ez hura gizarteratzea, ez haren osasuna hobetzea edo egonkortzea.

3. Bestalde, hainbat akats antzeman dira gizarte-baliabideak, zehazkiago esanda, Aterpe erabiltzen duten pertsonak botatzeko prozeduran (“exijentzia gutxiko zentro” deritzenetakoa da hori). Akatsok zerikusi zuzena dute etxerik gabeko pertsonentzako gizarte-baliabideei buruzko araudi faltarekin. Orain bertan ez dago arreta emateko eredurik gure autonomia erkidegoan, ezta zerbitzu horrek izan behar dituen baldintzak arautzen dituen araudirik ere, ez baliabideei dagokienez (plazak, gutxienezko ekipamendua, irisgarritasuna, langileen ratioa, profesionalen taldea, besteak beste), ez –zehazki– arau-hauste eta zigorren arabide juridikoari dagokionez. Urriaren 18ko 5/1996 Legeak –gizarte zerbitzuei buruzkoak– xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak du gizarte-zerbitzuak antolatzekeo eskumena, honako hauek arautuz: zentro eta zerbitzuak ireki, aldatu, jardun eta ixteko baldintzak; langileen gaitasuna; eta edozer baimendu, hitzartu, homologatu eta ikuskatzeko arauen ezarpena. Denbora luzea igaro den arren, oraindik araudi asko daude onartzeke, adibidez, etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei dagokiena. Horrengatik, baliabide bakoitzak bere jarduerarako barne-araudia sortu du, kasu honetan gertatu den moduan.

Alde batetik, Aterperen jardura erregulatzen duten arauetan kontuan hartzen da gizarte-baliabidea dela; horrengatik, beste baliabide batzuen helburu bera du: erabiltzaileak gizarteratzea. Beste alde batetik, exigentzia gutxiko zentroa izanik, pertsona horiei lotarako toki bat ematea da bere berehalako helburua. Erabiltzaileek bete behar dituzten baldintzek batik batik toki komunak partekatzearekin dute zerikusia. Horren ondorioz, Aterpeko jardura araudia oso oinarritzkoa da:

- “1.- No se admitirá violencia alguna contra las personas o los equipamientos y el uso de la misma será objeto de expulsión inmediata”.
- 2.- No se permitirán consumos de drogas, incluido el alcohol, dentro del mismo recinto.
- 3.- Se deberá respetar el uso diferenciado de los espacios (de estar y de pernoctar), no molestándose mutuamente.

- 4.- *La estancia en el espacio de pernoctación no deberá superar una semana, como criterio general, al existir recursos municipales suficientes para ser alojados en los mismos”.*

Erakunde honen iritiz, araudi horretan ez daude behar bezala mugatuta zentrotik botatzea eragin dezaketen portaerak, ezta ere botatze hori nolakoa izango den edo zenbat iraungo duen, hau da, betiko ala aldi baterako izango den, eta azken kasu horretan, zenbat denborarako.

Botatzeko erabaki horiek zentzoko langileek ahoz jakinarazten dituzte, egintza zigorgarriak gertatzen ari diren unean edo horiek bukatu bezain laster. Ondoren, Gizarteratzeko Zerbitzuaren Balorazio Batzordea biltzen da eta han portaera balioztatuz eta pertsona hori zenbat egunetarako botako duten erabakitzen da. Geroago, ebazpena ematen da, eta interesdunari jakinarazterik ez dagoenez gero –ez baitu bizilekurik– aipamen bat argitaratzen da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (ALHAO). Hala ere, ez da hartzailearen izenik agertzen, ezta zenbat denborarako egotzi duten ere, 30/1992 Legearen 372. artikuluan onartutako intimitate-eskubidea babesteko asmoz, argitaratutako ebazpenetan adierazten denez. Horrela, zigortuak zigorraren berri izan nahi badu (zenbat denboran ez duen baliabide hori erabiltzerik izango), aipaturiko gizarte-zerbitzura joan beharko du informazio eske. Baliteke aurreikuspen horiek zenbait kasutan nahikoak izatea, baina ez guztietan, izan ere, zigorraren berri izateko, pertsona zigortu horrek nahitaez gizarte-zerbitzuetara joan beharko du berriro, eta erabiltzaile batzuen egoera eta profilak ezagututa, baliteke halakorik ez gertatzea eta, hortaz, hark informazio hori ez eskuratzea.

Erakunde honen ustez, Aterpeak, udalaren gizarte-zerbitzua denez, administrazioaren zigor-ahalmena arautzen duen araudira egokitu behar du, erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, batez ere ahalmen hori erabiltzeak berekin dakartzan ondorioek pertsonen oinarrizko beharretan –janari eta ostatuan, kasu-eragiten badute. Ildo horretan, gomendagarria izango litzateke zentrotik botatzeko prozedura otsailaren 20ko 271998 Legean ezarritako administrazioaren zigor-prozedurara moldatzea. Horretarako, tipifikatuta egon beharko lukete arau-haustetzat jotzen diren portaerak, maila ezberdinetan sailkatuta (oso larriak, larriak eta arinak), eta zigor zehatzak aurreikusi beharko lirateke, arau-hausteak eragin dituzten egintza eta portaeren arabera. Arau-hausteak egintzak gertatu baino lehen egon beharko lukete zehaztuta edo mugatuta. Era berean, beharrezkoa izango litzateke instrukzio-aldia eta erabakitze aldia organo beraren esku ez egotea. Zigortzeko prozedurari egokitzea berme bat da erabiltzailearentzat, baina baita administrazioarentzat ere, horrela indarreko legeria betetzen du eta. Araudi horrek agintzen duenez, atzeratu ezineko presako arrazoiak daudenean, prozedura hasteko eskumena duen organoak edo organo instrukzio-egileak beharrezkoak diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, epaitutako egintzek edo antzekoek bere horretan jarrai ez dezaten edo berriz gerta ez daitezten, edo haiek sortutako kalteak ez irauarazteko edo kalteok arintzeko. Beraz, badira legezko zenbait aurreikuspen une jakin batzuetan gerta daitezkeen bizikidetasun gorabehereri aurre egiteko. Bestalde, neurri horiek berme batzuk izan behar dituzte, besteak beste, ezingo dira luzatu kautelazko helburuak edo proportzionaltasun irizpideari buruzkoak betetzeko ezinbestekoa den denbora baino gehiago. Gainera, behin-behineko neurriok interesdunei ezin die sortu kalte konponezin edo konpongaitzik, edo legeek babestutako eskubideak urratzea dakarrenik.

Kontuan izan behar da zigor-prozedura orotan funtsezkoa dela interesdunari entzunaldia bermatzea, hari ebazpen proposamena jakinaraziz. Proposamen horretan egintzak arrazoi bidez finkatuko dira eta argi zehaztuko dira bai frogatutzat jo diren egintzak eta horiek eragindako arau-haustea, halakorik bada, bai ezarri nahi den zigorra eta organo instrukzio-egileak hartu dituen behin-behineko neurriak. Alegazioak egin ahal izan ditzaten jakinarazi behar zaie interesdunei ebazpen proposamena. Pertsonok bizilekurik izaten ez dutenez gero (ezta jakinarazpenak egiteko ere), beste jakinarazpen modu bat aurreikusi beharko litzateke; esate baterako, ebazpen proposamena jasotzera helbide jakin batera joateko esan beharko litzateke, Aterpera bertara edo erreferentziako gizarte-zerbitzura. Gauza bera ebazpenari dagokionez.

Azkenik, aipaturiko elementuak eta administrazioaren edozein ebazpen eraginkorra izan dadin aurreikusitako edukia ez ezik, honako hauek adierazi behar dira ebazpenean: frogen balioztatpena, erantzulea, egindako arau-haustea eta ezarritako zigorra. Beraz, esan dugunez, otsailaren 20ko 2/1998 Legeari egokitu beharko litzaioteko prozedura, horrek arautzen baitu autonomia erkidegoan erabiltzen den zigor-ahalmena. Egokitze horretarako bete behar diren baldintzetako batzuk goraxeago laburtu ditugu, baina jurisprudentzia eta administrazio jarduera ugaritan, administrazioaren zigor ahalmenaren printzipioak eta araudia biltzen dira, kasuan kasuko zerbitzu edo jarduerara moldatuta. Araudi hori dago indarrean erakunde komunek araugintza eskumen osoak edo –kasu honetan bezala– araudia garatzekoak dituzten alorretan.

Baliabide horiek egiten duten lana oso garrantzitsua da, bada nora joanik eta oinarritzko beharrak asetzetik ez daukaten pertsonen bizimodua duin bihurtzen saiatzen dira. Hala ere, gizarte-zerbitzuek, zenbaitetan, beren eskumena gainditzen duten eragozpenei egiten behar diete aurre, adibidez, pertsona horiek osasunarekin lotutako arazoak dituztelako –droga edo alkohola modu eraginkorrean hartzearen ondorioz–, osasun mentalari buruzko arazoak edo ezgaitasunen bat. Horren ondorioz, baliabiderik ez dagoela-eta, pertsona batzuk beren arazoa konpontzeko gizarte- edo osasun-laguntza egokirik gabe geratzen dira. Horregatik, aipatutako txostenean adierazten den bezala, erakunde honek ere uste du pertsona horiek ezin direla arreta egokirik gabe utzi, eta ahaleginak egin behar direla oinarritzko beharrei erantzuteko baliabideak lortzeko, batez ere neguan. Edonola, botatzeko zigorra ezarri amaitzen diren zigor-prozeduretan, legezko bermeak beteko direla bermatu behar da, baita administrazioaren zigor-araubideak oinarritzat dituen printzipioak ere.

4. Azkenik, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizun eta kexen araubidea. Gutun horren IV. kapituluaren aurreikusita dago gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek horien funtzionamenduan parte hartuko dutela.

Garrantzizkoa da erabiltzaileek kexak eta iradokizunak egin ditzaketela jakitea, eta horiek bideratu ahal izatea, aipatutako araudiak xedatzen duen moduan. Dekretu horren xedea gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen harremanak eta eskubide-betebeharrak arautzea da. Orduan, gatazkei erantzun egokia emateko bermea dira. Dekretu horren 13. artikuluan berariaz xedatzen da pertsona horiek eskubidea izango dutela bertan arautu diren iradokizun- eta kexa-prozedurei buruzko informazioa jasotzeko, baita indarreko araudiak aurrez ikusi dituen errekurtsoei buruzkoa ere, horiek aurkezteko formularioak eskueran izateko, eta eskumena duen administrazioaren erantzuna jasotzeko, kasu bakoitzean dagokion epearen barruan.

5. Azken batean, erakunde honen aburuz, administrazioak pertsona horien oinarritzko beharrei erantzun behar die, osasun-arazoei aurre egin behar die eta gizarte-lana garatu behar du haiek gizarteratzen laguntzeko. Nahiz eta erantzukizun hori beste administrazio batzuekin –esaterako, Osakidetzarekin– partekatzen den, udalak ere ahaleginak egin behar ditu udalerrian bizi diren pertsonak beren beharrak asetzeko arreta egokia jasoko dutela bermatzeko, eremu soziosanitario bat garatuz eta, zehazki, horretarako beharrezkoak diren baliabideak abiaraziz. Halaber, gizarte-baliabideen funtzionamenduarekin lotutako zigor-ahalmena erabiltzean, funtsezkoa da zigor-prozedurari buruzko araudia bete dadin eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak betetzen aurrera egin dadin.

Aurreikuspen horiek guztiak bete egin behar dira, erabiltzaileen eskubideen berme gisa eta administrazioak nahitaez bete beharrekoak direlako. Eskubide sozialek, historian barrena, ezaugarri nagusi hau izan dute: beroriek onartzeak berekin zekartzan betebeharreko anbiguotasuna. Oraindik ere gehiago zehaztu behar dira, baina garrantzitsua da nahitaez bete behar den indarreko araudia betetzen aurrera egitea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **12/2006 GOMENDIOA, maiatzaren 30ekoa, Gasteizko Udalari egina**

1. Beharrezko jarduerak burutu ditzala udalerrri horretan larriki baztertuta, burua nahastuta eta alkohola edo drogak modu eraginkorrean hartuz bizi diren pertsonak beren arazoari dagokion arreta jaso dezaten. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin koordinatuta, baliabide soziosanitarioak abiaraztea sustatu behar du.
2. Udalak gizarte-baliabideetan erabiltzen duen zigor-ahalmena bat etor dadila herri-administrazioen zigor-prozedurari buruzko araudiarekin eta printzipioekin.
3. Aurrera egin dadila Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, baita iradokizun eta kexen araubidea ere betetzen, erabiltzaileen parte-hartzea eta beraiei dagozkien prozeduren berri izateko eskubidea betetzea sendotuz.

**18/2006 Gomendioa, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari egina, (...) tutoretzapeko adingabea babestean jarrera eraginkorra izan dezan. Ez da onartu.**

Aurrekariak

1. Bilbo Etxezabal elkarteak, hau da, Bizkaian atzerritarrak hartzen dituen elkarteak, erakunde honetara jo zuen, kezkatuta baitzegoen Gobernuaren Bizkaiko Azpiordezkaritzak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei egoitza-baimena ukatzen dielako eta, zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokion zereginagatik, (...) adingabe atzerritarraren legezko tutore denez. Elkarteak adierazi zigunez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen egoitza-baimena ukatzearen kontra egingo, eta, horrela, adingabearen interesei kalte egiten zien.
2. Espedientea bideratzerakoan, Bizkaiko Foru Aldundiari galdetu genion ea zein irizpide erabiltzen dituen, legezko tutore gisa, Gobernuaren Bizkaiko Azpiordezkaritzak tutoretzapeko adingabeek aldi baterako egoitza-baimena lortzeko eskabideak onartzen ez dizkienean.

Erantzunean adierazi zigunez, 2005eko irailaren 29an jakin zuten (...)ri ez ziotela onartu hasierako egoitza-eskabidea. Horren arrazoia, ukapen-ebazpenean ezarritakoaren arabera, adingabe hori hamaika aldiz atxilotu dutela dioen polizia-txostena da. Ebazpenean honako araudia aipatzen da ukapena arrazoitzeko: abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuaren 53.1j)<sup>1</sup> artikulua, 35.5 artikuluekin lotuta (horren bidez onartu zen urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren araudia, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horiek gizarteratzeari buruzkoa).

Zabaloetxe zentroa (Gizartekintza Sailarekin elkarlanean aritzen da zentro hori, eta aldundiak zentroko zuzendariaren gain uzten du adingabea zaintzeko ardura), baimenaren ukapenaren berri izan eta gero, Bilbo Etxezabal elkartearekin harremanetan jarri zen, administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jartzeko, beste zenbaitetan bezalaxe. Elkarte horrek jakinarazi zion jada ez dutela zerbitzu hori kudeatzen; horregatik, zentroak doako laguntza juridikoa eskatu zuen.

Aldundiak, errekurtsorik ez jartzea justifikatzen duten arrazoitzat, hauexek aipatzen ditu bere idazkian: adingabeak babesteak horien ordezkari izatea dakarrela berekin, baina ez, ordea, adingabeak prozesu judizialean babestea, horretarako abokatua esku hartu behar baitu. Honela dio: *“Ello no quiere decir que en el ejercicio de su cargo de tutor, la Diputación foral no realice todos aquellos trámites necesarios para procurar el adecuado ejercicio de todos los derechos de las personas tuteladas, como en este caso, a través del centro colaborador, gestionar la asistencia jurídica gratuita para iniciar el proceso contencioso-administrativo”*. Foru Aldundiaren Lehendakaritza Saileko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak aldundia defendatzen omen du, ez tutoretzapeko adingabeak, eta interes-gatazkak sor omen daitezke adingabeak aldundiaren ebazpen baten kontra errekurtsoa jartzen duen kasuetan.

Haurren babes-sistemaren osotasun printzipioa ere aipatzen du, alegia, erkidegoko baliabide, zerbitzu eta administrazio guztiak, beren eginkizun eta eskumenen eremuan, sistema bat osatzen duten zatitzat hartu behar direla, eta sistema horren helburua haurrak babesik gabe daudenean beharrezko zerbitzu guztiez hornitzea dela. Beraz, baliabide bakar batek ezin ditu, bereiz, adingabeen behar guztiak estali. Sarean eta era koordinatuan lan egin behar da; horregatik jo zuen zentroak kexa egin duen elkartera, eta gero doako laguntza juridikorako zerbitzura.

<sup>1</sup> Aldundiaren erantzunean aipatutako j) atalak akatsa dirudi, izan ere, i) atalean adierazten da egoitza-baimenak eta besteren konturako lan-baimenak ukatzeko arrazoi dela aurretiaz Gobernuaren kontrako txosten bat egotea.

Halaber, aldundiak alegatzen du Gobernuaren Azpiordezkaritzek eta Ordezkaritzek dutela egoitza-baimena emateko eskumena, eta aldundiak kudeatzen dituela, tutore eta ordezkari moduan, beharrezkoak diren agiri guztiak; hortaz, aldundiak aurkezten du egoitza-baimenaren eskabidea. Aldundiak gaineratzen duenez, lankidetzeta eta koordinazio printzipioen arabera [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa– 4 eta 18. artikulua, eta otsailaren 18ko 3/2005 Legearen –Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babestekoa– 5.ñ) eta 7 artikulua], administrazioaren jardueraren printzipio nagusietako bat zera da: *“promover la colaboración y coordinación entre las diferentes administraciones al objeto de garantizar todos los derechos que asisten a los niños, niñas y adolescentes, y en este sentido se han iniciado reuniones técnicas de coordinación entre la Subdelegación de Gobierno en Bizkaia, y ese Servicio de Infancia”*.

Azkenik, administrazioak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko balu, errekurritu daitekeen ebazpenean ezarritakoa legezkotasunari egokitzen zaion eta, ororen gainetik, adingabearen interes gorena betetzen duen hartuko omen da oinarritzat errekurtsoa jarri ala ez erabakitzerakoan.

3. Jasotako erantzuna ikusirik, beste informazio-eskaera bat bidali genuen, errekurtsoa egin ala ez egin erabakitzeke alegatzen duen azken arrazoia zehaztu zezan. Hain zuzen ere, zein araudi hartzen den erreferentziatzat ebazpen bat legezkotasunera egokitzen den ala ez ulertzeko, eta, bere ustez, zein den adingabearen interes gorena egoitza-baimenik gabe dauden adingabe atzerritarren kasuan.

Hauxe erantzun digu: *“en el hipotético caso que se dictara una resolución administrativa sobre un niño, niña, adolescente por alguna administración y fuera posible recurrirla directamente por la Diputación foral, se tendría en cuenta la sujeción a la legalidad y el interés superior de la persona menor de edad afectada”*. Baita beste hau ere: *“el Servicio de Infancia pone en marcha todos los mecanismos necesarios para que se respeten los derechos de las personas menores de edad, siendo uno de ellos, que se resalta en este informe por afectar al tema que lo motiva, el derecho de toda persona extranjera menor de edad a que la administración competente para ello le documente debidamente”*.

4. Bilbo Etxezabal elkarteak, bere aldetik, adierazi du Bizkaiko Abokatuen Elkargoan atzerritartasunari buruzko txanda berezia abiarazi zenetik, gutxi gorabehera 1999. urtetik, ez dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkezten, baizik eta berariazko ofiziozko txandara bidaltzen dituztela.

#### Gogoetak

1. Zaintza-lanak berekin dakar adingabea zaindu eta jagon beharra, hari janaria, heziketa eta prestakuntza osoa eman beharra (Kode Zibilaren 154. artikulua). Beraz, adingabeak beharrezko laguntza moral eta materiala izan behar ditu. Babesteko lan hori egin behar duten pertsonak faltatuz gero, edo lan hori egiten ez badute edo modu desegokian egiten badute, administrazioak gauzatu behar du, eta administrazioari exijitu behar zaio zeregin hori egoki bete dezan.

Espainiako Defensor del Pueblo-k 2004. urteko txostenean adierazi duenez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazo nagusiak honako hauek dira: aberriratzeari ematen zaion automatismoa eta egoitza-agiriak izapidetzen gertatzen diren atzerapenak, aberriratzea nekez gertatuko dela egiaztatzen denean.

Erakunde honek ere, *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* txosten berezia prestatzean, adingabeen agiriei dagozkien espedienteen tramitazioa atzeratu egiten dela egiaztatzen zuen. Zehazki, espediente-lagin bat aztertu zen, izapideen datak begiratu ziren eta aldundien eskumeneko jarduerak atzeratu egiten direla egiaztatzen zuen.

Aipaturiko txostenean ikusi zen atzerapen horrek garrantzi handia duela hezkuntza-prozesurako eta gizartean eta lan munduan sartzeko, eta hainbat gomendio egin ziren adingabeen erregularizazio administrazioa bizkortu beharrari buruz:

- Egoitza- eta lan-baimenak bideratzean arduraz jokatzeta (18. gomendioa).
- Baimenen tramitazioen jarraipena egitea eta emaitzak ebaluazio-adierazle gisa erabiltzea (19.a).
- Beharrezkoa den babes juridikoa eskaintzea (20.a).
- Jaioterrira itzultzekotan, adin txikikoaren interesaren arabera egiten dela bermatzea (21.a).

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera aztertzean zera egiaztatu genuen: adingabeen arloan, badagoela aldea herri-erakundeen jarduera eraizten duten araudi, printzipio eta irizpideen (beraien jarduera azaltzen duten planetan eta beste agiri batzuetan agertzen dira horiek) eta adingabe horiei egiaz ematen zaien arretaren artean. Ziur asko, babes-zentroak kolapsatzeko beldurraren ondorioz, adingabe horien itxaropenak ez betetzen saiatzen dira, eta horrek, zenbaitetan, kalte egiten die haien hezkuntza-prozesuari, baita gizartean eta lan munduan sartzeko prozesuari ere.

2. Adingabeei egoitza- eta lan-baimena ematea arautzen duen araudia ez da helduentzako xedatutakoa bezalakoa. Beraz, abenduaren 30eko 2.393/2004 Errege Dekretuaren 53. artikuluan ezarritako araudia (horretan oinarrituta ukatu du Gobernuaren Azpiordezkaritzak egoitza-baimena, foru aldundiak adierazi duenez) atzerritar helduei aplikatu beharko litzaieke, ez bakarrik dauden adingabe atzerritarrei.

Ez dator zuzenbidearekin bat babes-erakunde baten tutoretzapeko adingabe bati egoitza-baimena ukatzea, adingabea bere familiarekin edo jaioterrira itzultzea ezinezkoa dela egiaztatu eta gero. Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoaren 35.4 artikulua ezartzen du babesik gabe dauden adingabe atzerritarren arloan erabili beharreko araudia: *“se considerará regular a todos los efectos la residencia de los menores que sean tutelados por una Administración pública. A instancia del organismo que ejerza la tutela y una vez que haya quedado acreditada la imposibilidad de retorno con su familia o al país de origen, se le otorgará una autorización de residencia, cuyos efectos se retrotraerán al momento en que el menor hubiera sido puesto a disposición de los servicios de protección de menores”*. Araudi horren arabera, adingabearen eskubideari ezin dio katerik egin poliziaren txosten batek edo ordena publikoari eragiten dioten egintzek, baizik eta hura bere familiarekin edo jaioterrira ezin itzuliaren mende dago. Jurisprudentzia ugarik adierazten du administrazio baten tutoretzapeko adingabeak egoitza-baimena lortzeko eskubidea duela, eta adingabearen portaerak ez duela zerikusirik hori lortzeko (besteak beste, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren 2005eko irailaren 23ko Epaia, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren 2003ko otsailaren 28ko Epaia). Araudiak xedatu duenez, babesik gabe dauden adingabeei egoitza-baimena eman behar zaie, baldin eta, hura bere familiarekin edo jaioterrira aberriaritzen ahalegindu ondoren, hori ezinezkoa bada. Araudi horrek zehaztu beharra dauka berorrek eragindako administrazioen jarduera (hau da, Gobernuaren Azpiordezkaritza eta Ordezkaritza eta foru aldundiena), alde batera utzita babes-zentroak beteta dauden ala ez edo adingabeen portaera.

Aldundiaren jokoera –alegia, adingabea Bizkaiko Abokatuen Elkargoko laguntza juridikorako zerbitzura bidaltzea– ez da nahikoa, erakunde honen iritzi, adingabearen tutore gisa aldundiak duen babesteko betebeharraren edukia eta atzerritartasun arloan ezarri beharreko araudia kontuan hartzen badira. Bizkaiko Foru Aldundiak modu eraginkorragoan jardun behar zuen adingabearen interesak babesten, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarritz.

3. Bere erantzunean, aldundiak bi administrazioen arteko (hau da, Gobernuaren Azpiordezkaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko) lankidetzarako eta koordinaziorako bilerak aipatu ditu. Ontzat jotzen ditugu bilera horiek, baldin eta aldundiaren tutoretzapeko adingabeei egoitza-baimena emateko epea laburtzea errazten badute, edo adingabearen egoera pertsonala, gizartekoa edo familiarakoa hobeto eza-gutzen laguntzen badute. Horrela, garrantzitsua da gogoraraztea berdintasun printzipioa bermatu behar dela. Horretarako, *“bereizkeria oro eragotzi eta ezabatuko da, jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo haurren (...) egoera edo ezaugarri pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik gerta daitekeen bereizkeria oro, hain zuzen ere”* (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko euskal Legearen 5. artikulua eta Haurren Babes Juridikorako Lege Organikoaren 3. artikulua). Bilera horietan komenigarria izango litzateke adingabearen zaintza bere gain duen erakundearen ordezkari batek, Ministerio Fiskalak eta, beharrezkoa izanez gero, adingabearen legezko ordezkariak parte hartu ahal izatea. Bestalde, espedienteak ebaluatzean, adingabeari esateko duena entzun beharko litzaioke, eta bere iritzia aintzat hartu beharko litzateke, bere adinaren eta heldutasunaren arabera, erabakiak hartzeko orduan. Entzuna izateko eskubidea haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren 12. artikuluan agertzen da, baita ere Adingabearen Babes Juridikorako Lege Organikoaren 9. artikuluan eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko euskal Legearen 16. artikuluan, 2. atalean: *“Bermatu egingo da haurrek eta nerabeek, nahikoa ezagumen dutenean, iritzia beren kabuz edo berek ordezkari izendatutakoan bitartez adierazi ahal izatea; hala ere, ezin denean edo adingabearen intereserako komeni ez denean, haren legezko ordezkarien bitartez jakin ahal izango da haren iritzia –baldin eta legezko ordezkari horiek ez badira*

*alderdi interesatu, eta adingabearen interesen aurka doan interesik ez badute–, edo lanbideagatik edo adingabearekin duten konfiantza bereziarengatik haren iritzia era objektiboan eman dezaketen pertsonen bitartez”.*

4. Bizkaiko Foru Aldundiak, adingabearen tutore denez, funtsezko eginkizuna du adingabea zaintzean. Adingabeari laguntza moral eta materiala emateak esan nahi du haren ordezkarri izan behar dela eta, erakunde honen iritzian, hura defendatu behar dela, baldin eta, adingabearen interesen kontrako jarduera edo erabaki baten ondorioz, hark kalteak jasan baditzake. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak–, 4. artikuluan eta hurrengoetan, erakunde arteko leialtasunaren printzipioa eta laguntzeko betebeharrak ezartzen ditu Estatuko administrazio orokorraren eta autonomia erkidegoetako administrazioaren arteko harremanetan, eta lankidetzarako tresnak eta prozedurak xedatzen ditu. Printzipio eta tresna horiek ezin dituzte indarririk gabe utzi erakundeek –adingabe horien tutore gisa– dituzten betebeharrak. Babes-erakundeek beharrezkoak diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte (Kode Zibilaren 172. artikulua eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko euskal Legearen 57. artikulua). Administrazioak tutoretza-lanak hartzen ditu bere gain, tutoretza hori eragin zuten arrazoiek bere hartan dirauten bitartean. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko euskal Legearen 62. artikuluan adierazten dira tutoretza amaitzeko arrazoiak:

*“c) Tutoretza ezartzea eragin zuten arrazoiek indarra galdu dutela eta, administrazio-ebazpena ematea tutoretza bertan behera uzteko.*

*d) Administrazio-ebazpena tarteko, adingabea beste babes-erakunde baten esku uztea. Horrelakotan, entzun egin behar zaio alde zuzenetik adingabeari eta, ahal dela, joango den leku horretan arretoa eta babes neurriak egokiak direla egiaztatuko da.*

*e) Epailearen ebazpen irrimoaren bidez, adopzioa edo tutoretza arrunta ezartzea, edo babesgabezia-egoera amaitu dela adieraztea.”*

Bizkaiko Foru Aldundiak, beraz, adingabea babestu behar du tutoretza eragin zuten arrazoiak mantentzen diren eta haren tutoretza duen bitartean. Adingabearen zirkunstantziak zehazki ebaluatu eta gero, neurri hura eragin zuten arrazoiak jada desagertu direla egiaztatzen denean eta adingabeari esateko duena entzun ondoren soilik amaitu liteke tutoretza.

Adingabearen Babes Juridikorako Legeak, 11.b) artikuluan, administrazio-ekintzaren printzipio gidarizat jotzen du adingabea bere jatorrizko familia-inguruan mantentzea, beraren intereserako komenigarria ez denean izan ezik. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko euskal Legearen 48.d) artikulua, administrazioen babes-lanari dagokionez, hauxe agintzen du: *“Beharrezkoa bada, haur eta nerabeei beren familiez besteko baliabideak eskainiko zaizkie, beren garapen integrala lortzeko behar duten inguru egokia eta beren nortasunaren bilakaera taxuzkoa bermatuko dutenak, ...”*. Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren 20. artikulua, berriz, zera dio: *“Estatuaren babes eta laguntza bereziak izango dituzte aldi baterako edo betiko beren familia ingurutik aparte bizi behar duten haurrek, edo beren interesagatik inguru hartan ez egotea ezinbestekoa dutenek”*. Orduan, babesik gabe dauden adingabeen kasuan, babesteko betebeharrak lehentasuna du familiarekin berriz elkartzeko printzipioaren aurretik. Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunaren azterketatik ez da ondorioztatzen adingabe horren egoera ebaluatu denik, aldundiak babesteko duen betebeharrak saihestu ahal izateko.

5. Administrazioak adingabea babestu eta haren eskubideak bermatu behar ditu. Eskubide horien artean daude adingabeek esateko dutena entzun dakien, baita babeserako eskubidea ere. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko euskal Legearen 17. artikulua hauxe ezartzen du: *“Haur eta nerabe guztiek izango dute, beti, beren eskubideak defendatzeko eskubidea, beren kabuz, legeak uzten badie, edo beren legezko ordezkarriaren bitartez, non eta legezko ordezkarriak ez diren alderdi interesatu edo ez duten adingabearen interesekin bat ez datorren interesik; beste pertsona batzuen bitartez ere defenda ditzakete, baldin eta pertsona horiek, lanbidea dela-eta edo konfiantzazko harreman berezia dutela-eta, iritzia objektiboki eman badezakete. Bestalde, guraso-ahala, tutoretza edo zaintza bere gain duten pertsonen babestu eta zaindu egin beharko dituzte eskubide horiek, eta eskumena duten herri-administrazioek behar bezala erabiltzen direla begiratu behar dute eta helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren mekanismoak abiarazi.”*

Espainiako Defensor del Pueblo-ren *Asistencia Jurídica a personas extranjeras* izenburuko 2005eko txostenean, “*Buenas prácticas en la asistencia jurídica a menores extranjeros*” deritzan atalean, abokatuak adingabe atzerritarrek modu egokian defendatzeko zein eginkizun bete behar dituzten adierazten da. Eginkizun horietako asko babes-erakundeei dagozkie. Xedapen horiek ez lirateke beharrezkoak izango babes-erakundeek beren legezko betebeharrak beteko balituzte. Orobat, ez litzateke beharrezkoa izango defentsari judizialak izendatzea, Madrileko Administrazioarekiko Auzitarako 14. Epaitegiaren autoaren bitartez egin den bezala, giza eskubideei buruzko 1/2006 Prozeduran. Auto horretan, epaitegiak defentsari judizial bat izendatu du, epaitegiak uste baitu interesen arteko gatazka edo interes kontrajarriak daudela Madrileko Autonomia Erkidegoko Adingabea Zaintzeko Batzordearen (tutoretza-organo gisa, adingabearen ordezkari da eta hura aberriatzearekin konforme dago) eta adingabearen artean (aberriratzearen kontra dago). Bere hirugarren arrazoi juridikoan honako hau adierazi du: “*Por tanto, pudiendo darse en el supuesto que nos ocupa tales intereses opuestos respecto de un asunto que afecta a la esfera personal y social del menor, debiendo primar el interés superior de los menores sobre cualquier otro interés legítimo que pudiera concurrir, debiendo ser interpretadas de forma restrictiva las limitaciones a la capacidad de obrar de los menores, todo ello a tenor del art. 3 de la Ley Orgánica 1/1996, Ley ésta última que deberá interpretarse de conformidad con los Tratados Internacionales de los que España sea parte y, especialmente de acuerdo con la Convención de los Derechos del Niño de las Naciones Unidas, de 20 de noviembre de 1989, debiendo los poderes públicos garantizar el respeto de los derechos de los menores y adecuar sus actuaciones a dicha Ley y a la normativa internacional, se está en el caso de nombrar Defensor Judicial al menor XXXXX, designando al efecto al Letrado respecto del que ha mostrado interés para su designación XXXXX. Y ello sin que en modo alguno afecte a la tutela que ostenta la Comisión de Tutela que únicamente se ve afectada por el presente procedimiento en los términos indicados*”.

Babes-erakundeei edo defentsari judizialei dagozkien eginkizunak dituzten ofiziozko abokatuak izendatu beharra, agerikoa denez, gaur egun Estatuan adingabe atzerritarrek bizi duten egoeraren adierazgarri da, eta ez da batere mesedegarria adingabeen heziketa eta garapen pertsonalerako. Arlo horretan ez luke egon behar tutoreen kontra defentsari judizial bat eta legezko ordezkari bat izendatzera behartzeko moduko interes kontrajarriak, bada adingabeen gaineko araudiak herri-administrazio guztiak lotesten ditu.

Babes-erakundeek izan behar dute adingabeen ordezkari eta defentsari. Adingabe atzerritar batzuk babesik gabe daude, legez kanpoko egoeran dauden pertsona heldutzat hartzen baitituzte; jokaera horrek bereziki kezkatzen du erakunde hau, adingabe bezala dituzten eskubideetan dituen ondorioengatik. Horregatik, jarraian aipatuko ditugun jarduerak egitea proposatzen dugu.

Aldundiak eskura izan behar ditu (...) adingabearen egoera pertsonala, familiara eta gizartekoa zehazki azaltzen duten txosten fidagarriak, haren babesgabezia-egoera egiaztatzeko eta ezein jarduera edo erabakik haren segurtasuna arriskuan ez jartzeko.

Nahiz eta adingabea bere herrira itzultzeko edo hemen geratzeko erabakia administrazio zentralak hartu behar duen, aldundiaren ardura da adingabea identifikatzen duten lehen datuak bilatzea eta hark bere familiar berriz txertatzeko dituen aukeraz aurretiazko txosten bat egitea. Aldundiaren parte-hartzea funtsezkoa da, bera baita adingabearen egoerari buruzko txostena egin eta proposamena idazteko ardura-duna. Erakunde honen ustez, txosten hori egiterakoan ez dira kontuan hartu behar adingabearen interes gorenarekin zerikusirik ez duten gaiak, hala nola, zentroen saturazioa, “dei efektua” deritzana saihestu nahia edo adingabearen portaera. Babes-erakundeak tutoretzapeko adingabe bakoitzaren azterketa xehea egin behar du eta familiakoekin berriz elkartzeko komenigarria den ala ez erabaki behar du, adingabearen familia- eta gizarte-egoera edo hura behar bezala babes dezakeen zerbitzurik badagoen kontuan hartuta. Adingabea identifikatu eta babesik behar duen erabakitzeke orduan, hark esateko duena entzun behar da, haren adina eta zirkunstantzia pertsonal eta kulturalak balioztatuz, esate baterako, adingabe batek modu desberdinean adierazten dituela bere beldurra edo bere familiara gorabeherak, edo oso gutxi ezagutzen duela bere jatorrizko herrialdeko egoera.

Azken batean, erakunde honen aburuz, Bizkaiko Foru Aldundiak duen babesteko betebeharrak berekin dakar Gobernuaren Bizkaiko Azpiordezkaritzak egoitza-baimena ukatzen duenean adingabea babestea, araudiaren arabera hura bere familiararekin elkartzeko komeni ez den kasuetan. Adingabe atzerritarak, adingabe direnez, “estatutu juridiko erabilezina” osatzen duten eskubideen jabe dira –1978ko Espainiako Konstituzioa, haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena, haurren eskubideen gaineko



Europako Karta, Adingabearen Babes Juridikorako Lege Organikoa eta, gure erkidegoan, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko euskal Legea. Adingabeen alorrean araudi hori hartu behar dute oinarritzat administrazioek beren jardueretan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**18/2006 GOMENDIOA, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari egina**

1. (...) adingabearen tutore denez, hura defenda dezala, aplikatu beharreko araudiak egoitza-baimena ematea xedatzen duenean baimen hori ukatu bazaio, ukapenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarritz.
2. Begira dezala inongo jarduera edo erabakik adingabearen segurtasuna arriskuan jar ez dezan. Horretarako, txosten zehatz bat prestatu behar du adingabearen egoera pertsonal, familiarako eta gizartekoaren gainean, hura babesik gabe dagoela egiaztatzeko eta, hala badagokio, adingabea aplikatu behar den araudian ezarritako berrimeekin aberriratzeko ezinezkoa dela proposatzeko. Txosten hori egitean adingabeari esateko duena entzungo diotela bermatu behar da, eta kontuan hartu behar dira haren adina eta ezaugarri pertsonal eta kulturalak.

**26/2006 Gomendia, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuari egina, berriz hausnar dezan kexagileei, ezarritako adin mugaren irizpidean oinarrituta, adoptatzeko egokitasun ziurtagiria ez emateko erabakia.**

Aurrekariak

1. (...) eta (...) senar-emazteek Arartekora jo zuten Gizarte Politikarako Departamentuak 2006ko uztailaren 10ean emandako foru aginduarekin bat ez zetozela adierazteko; horren bidez, Txinan hirugarren haur bat adoptatzeko egokitasun ziurtagiria ukatu zitzaien.

Erreklamatzailleak 1953-09-05ean eta 1955-11-30ean jaio ziren, hurrenez hurren, eta, gaur egun, hiru alaba dituzte: (...), 31 urtekoa, irakaslea eta bere kabuz bizi dena; (...), 2000-09-08an jaioa eta 2002ko urtarrilean adoptatua; eta (...), 2002-02-25ean jaioa eta 2004ko maiatzean adoptatua. 2005eko abenduan Txinan beste adopzio bat egiteko eskabidea aurkeztu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuan. Eskabideari aipaturako foru aginduaren bidez egin zitzaion uko, departamentu horretako zerbitzuek 2006-05-22an egindako txosten psikosozialean oinarrituta.

(...) senar-emazteen ikuspegitik, foru erakundearen erabakia, batetik, ez zen legeetara egokitzen, beren ustez, inolako lege oinarririk gabe, adopzio-hartzailearen eta adopziogaiaren arteko adin tarte gehienez 42 urtekoa izan behar zuela zioelako. Bestalde, kontraesankorra iruditu zitzaien beren adinagatik hiru urteko neskatoa adoptatzeko egokitasuna ukatu izana, faktore hori ez baitzen oztopo izan egun, hurrenez hurren, bost eta lau urte dituzten bi neskato adoptatzerakoan egokitzen hartuak izateko. Orobat, adierazi zuten oraindik ez zela igaro eman zitzaien azken ziurtagiriaren lau urteko balio denbora; horren bidez, adoptatzeko egokitasuna onartu zitzaien 2003an. Azkenik, zalantzan jarri zuten ebazpenaren oinarri zen txostenak zioena; alegia, horien eta hiru urteko haurren arteko adin tarteak haurren garapen egokian arriskua eragin dezakeela.

2. Erakunde honi egoki iruditu zitzaion departamentu horri gai honen inguruko informazioa eskatzea. Bere erantzun azkar eta zehatzak erreklamatzaileren adina dela-eta erabilitako irizpideen oinarriak ezagutzea ahalbidetu digu, baita, eragina duten inguruabar guztien testuinguruan, espediente honen xede den ebazpenaren irizpide horiek izan duten garrantzia ere.

Departamentuak adoptatzeko egokitasuna erregulatzen duten arauetan oinarritzen du bere ebazpena eta, zehazki, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legearen 83.1 artikuluko k) atalean. Honek ondoko baldintza ezartzen du horretarako:

*83. artikulua. 1.k) "Adopziogaiaren garapen egokirako mugapena izan daitekeen adinik ez edukitzea adoptatzaileak edo adoptatzaileek."*

Xedapen horri jarraiki, Foru Aldundiak Gipuzkoan adin txikikoak adoptatzeko funtzionamendu irizpideak ezarri zituen 2005-05-27ko 355 Foru Aginduaren bidez, gainerako Lurralde Historikoetako aldundiekin hala adostu ondoren. Irizpide horiekin bat etorritik, adin txikikoa adoptatu nahi duten pertsonen adopziogaiak baino 42 urte gehiago izango dituzte gehienez (bikotekide gazteenaren adina aintzat hartuta); adopziogaiak, gainera, seme edo alaba biologikoak edo aurretik adoptatutakoak baino gazteagoa izan behar du, familian seme-alaben ordena naturala alda ez dadin. Erreklamatzaillei dagokienez, haurra beren alaba gazteena baino gazteagoa izan dadin, hark gehienez hiru urte izan behar ditu.

3. Hala ere, Foru Aldundiaren ebazpenak dio erreklamatzailleak eskatutako adopzioarako ezegokiak izateak ez duela zerikusirik adopziogai baino 42 urte zaharragoak izatearen baldintza ez betetzearekin, 3/2005

Euskal Legearen 83.1 k) artikuluan jasotzen den irizpidea betetzen ez dela esateko, (...) medikuak eta (...) andreak 2006ko maiatzaren 22an egindako txosten psikosoziala hartu baita oinarri gisa.

Txosten horrek erreklamatzailen inguruabar psikosozial guztien aldeko balorazioa egiten du, baita beren alaba biologikoaren inguruabarrena ere; honi buruz dio beharrezko baliabideak eta gaitasunak dituela bere gurasoek adopta dezaketen haurren tutoretza bere gain hartzeko, eta halaxe egiteko prest agertu da, beharrezkoa izanez gero. Horren guztiaren ondorio gisa adierazten du egokiak direla nazioarteko adopzioa egiteko, nahiz eta egokitasun hori ez den baliozkoa adopzio mota guztietarako. Zehazki, aipatzen du beren alaba (...) baino gazteagoa den haurra adoptatzeak bere garapenerako arrisku faktorea izango litzatekeela; alegia, etorkizunean beraren eta gainerako adopzio gaien arteko adin tarteko eragin negatiboa izango lukeela: urteen poderioz pertsonen ahalmen fisikoak eta psikikoak lermatu egiten dira; desordena emozionalak pairatzeko arriskua du, belaunaldi arteko etenaren eta ulertezintasunaren ondorioz; eta haurra oraindik heldugabea izanik adopziozko gurasoak galtzeak bere guraso biologikoek bakarrik utzi zutenaren trauma ekar diezaiokie berriz ere gogora. Hausnarketa horietan guztietan oinarrituta, txostenak honakoa ondorioztatzen du:

*“Gure iritziz, eskatzaileek adopzioari aurre egiteko ezaugarri pertsonalak eta soziofamiliarak badituzten arren, horiek ez lirateke nahikoak izango eskatzen duten adopzio motarako; alegia, lau urte baino gutxiagoko haurra adoptatzeko. Laburbilduz, eta adinagatik bakarrik, ikuspegi psikologiko eta sozialetik begiratuta eta aipatutako argudioak direla medio, ez dugu uste (...) jaun-andreak egokiak direnik eskatutako ezaugarriak dituen haurra adoptatzeko.”*

4. Azkenik, Foru Aldundiak 2003ko maiatzean erreklamatzaileri eman zien egokitasun ziurtagiria kontuan hartzeko aukerari dagokionez, departamentuak dio hori bidean zen adopzio prozesurako bakarrik zela baliozkoa eta, beraz, hori bukatuta, beharrezkoa da, beste adopzio bat egin nahi izanez gero, famili unitate berriaren balorazio psikosoziala egitea. Erantzun horren oinarrian 3/2005 Euskal Legearen 83.1 artikulua dago; horren arabera, egokitasun ziurtagiriaren balio denbora “edozein unetan berrikusi ahal izatearen kaltetan izan gabe ezartzen da, adopzioa egiteko beren burua eskaintzen dutenen inguruabar pertsonalak edo familiakoak aldatuz gero”.

#### Gogoetak

1. Eskatutako egokitasuna ukatu egin da, aurreikuspenen arabera, erreklamatzailen eta adoptatu nahi duten haurren arteko adin tartea muga izan daitekeelako bere garapen egokirako. Egia da, aipatu dugun bezala, departamentuaren ezapenaren arabera, ondorio hori txosten psikosozialean adierazitako arrazoietan oinarrituta aterata dela, eta (...) jaun-andreak Gipuzkoako Foru Aldundiak gehieneko adin tarte onargarri gisa ezarrita duen 42 urteko muga gainditzen duten ala ez kontuan hartu gabe. Hala ere, arrazoi horiek aztertuta, ondoriozta daiteke horiek ez dutela behar bezala agertzen, gure ustez hala egin beharko luketen arren, zergatik esaten den (...) familiaren kasuan adoptatu nahi den haurrarekiko adin tartek horren garapena arriskuan jar dezakeela.

Arrazoi horiek txosteneko 9. orrialdetik aurrera ematen dira, a)-tik f)-ra bitarteko sei gogoetetan. Lehenengo hiruretan hausnarketa orokorrak egiten dira egun hiru urte izango litzuzkeen neskatoaren guraso izatearen erantzukizunari etorkizunean aurre egite aldera erreklamatzailerek besteko adina izateak, modu abstraktuan, eragin ohi duen arrisku handiagoaren inguruan. Gogoeta horietatik ondoriozta daiteke adina, noski, kontuan hartu beharrezkoa dela, baina inolaz ere ezin esan daiteke sine qua non baldintza denik. d) gogoetan, ordea, arrazoi horiek familia honen kasu zehatzean aintzat hartu beharreko gainerako aldagaiekin alderatzen dira:

*“d) Aunque estamos de acuerdo en que los solicitantes se encuentran en un momento vital de alta competencia para desempeñar labores parentales, inferimos que su deterioro físico y psíquico les llegará a una edad similar que al resto de su población de referencia. Es demostrable que la edad, el paso del tiempo, afecta inexorablemente, física y psíquicamente a todas las personas de forma similar”.*

Ikuspegi zientifiko edo estatistikotik txosten psikosozialaren ondorio hori ziurtzat jo daitekeen ala ez alde batera utzita, ez dago zalantzarik Administrazioak, arrazoibide hori bere eginda, iuris et de iure presuntzio bihurtzen duela erreklamatzailen eta hiru urteko neskatoaren artean dagoenaren moduko adin tartek,

beti eta inolako salbuespenik gabe, 3/2005 Euskal Legearen 83.1 k) artikuluan ezarritako baldintza bete-za eragotzen diola edozein adopzio-hartzaileri. Hori dela-eta, eta kasu honetan emandako ebazpenaren oinarrietan hala jasotzen ez den arren, arrazoitzearen barne logikak euskarri gisa soilik honako ideia hau du: presuntzio hori ezin hutsal dezaketela ez kasu zehatz honetan ez beste kasu batzuetan dauden inguruabar espezifikoek. Gure ustez, automatismo horren bitartez, segurtasun juridikoa lortu nahi da, eta hori zentzuzkoa iruditzen zaigu, baina uste dugu hori ez dela bateraezina adin tartea, kasu honetan, eta txosten hori ikusita, hain aldeko balorazioa jaso duten beste faktore batzuekin batera aztertzearekin.

- 3/2005 Legearen zirriborroari buruzko eztabaidan agerian jarri ahal izan genuen bezala, onartu beharra dago, ikuspegi abstraktu eta orokorrean, adopziogaiaren eta adopzio-hartzaileen arteko adin tartea hiru aldundiek elkar hartuta ezarri duten gehieneko muga onargarria baino handiagoa ez izateak abantailak izan ditzakeela adopziogaiaren hezkuntza eta zaintzarako. Baina egia da baita ere, kasu askotan, lortutako heldutasunak, eta gurasotasuna hartzeko erabakia sakon hausnartu izanak esparru segurua eta egokiagoa eskaintzen dutela adoptatuaren nortasuna erabat garatzen laguntzeko. Nolanahi ere, agerikoa da adin biologikoaren ondorioak guttiz desberdinak direla kasu batzuen eta besteen artean. Bestalde, bistakoa da, gure gizartearen, amatasun biologikoa nabarmen atzeratzen ari dela eta, beraz, sarri, gurasoen eta ondorengoaren arteko adin tartea 42 urtetik gorakoa da, batez ere, bigarren edo hirugarren seme-alabarekiko, edo, kasu honetan bezala, laugarrenarekiko. Hori guztia dela-eta, esan behar da zenbait egoeratan adopzio jakin bat egitearen abantailak parte biologikoaren desabantailak gainditzen dituztela eta horrek zalantza egitea dakar kexaren xede den ebazpena emateko oinarritzat hartu den irizpidearen erabateko lehentasunaren inguruan.

Are gehiago, azpimarratu behar dugu pertsona baten gaitasunak soilik bere adin biologikoa aintzat hartuta mugatzea diskriminatuzailea izan daitekeela. Egia da legeek, batzuetan, adinean oinarritutako baldintza zehatzak ezartzen dituztela, baina horren helburua zenbait eskubidez baliatzeko edo betebeharrak onartzeko beharrezko gaitasunak bermatzea da. Berdintasun printzipioarekin bat ez datorrena –eta, beraz, debekatuta dagoena– gehieneko adina ezartzea da eta horren gainetik gaitasun hori desagertu egiten dela pentsatzea. Erakunde honek adinekoen eskubideei buruz egindako argitalpenaren izenburuak dioen bezala, *“eskubideak ez dira adinarekin iraingitzen”*. Horrela, adibidez, legeak 65 urtetan jartzen du erretiro adina, baina ez dugu ahaztu behar, adin horretan erretiro pentsio osoa jasotzea ahalbidetzen duen arren, ez dela muga lanerako gaitasunerako. Hori dela-eta, komeni da gogoraraztea Langileen Estatutuko 5. xedapen gehigarria, hasieran eman zen moduan, Konstituzioaren aurkakotzat hartu zela Auzitegi Konstituzionalaren osokoak uztailaren 2an eman zuen 22/1981 epaiaren bidez, 69 urtetik aurrera lan egiteko gaitasunik ez dagoela eta, ondorioz, lan kontratua zuzenean eta baldintzarik gabe iraingitzen dela ezartzen zuelako.

Gaur egun pil-pilean dagoen gaia da eta horren inguruan Senatuak hausnarketa sakona egin zuen duela hiru urte, nazioarteko adopzioaren problematikari buruz sakon eztabaidatzeko eraturako batzordearen esparruan. Gai horren inguruko hainbat adituk kontu zehatz horri dagokionez egindako ekarpenen artean, gehienek adierazi zuten komeni zela kasu bakoitzaren inguruabarrak banan-banan eta automatismorik gabe aztertzea, nahiz eta kontrako iritzia ere egon ziren. Madrilgo Erkidegoko Adingabearen Defendatzailearen ustez, adibidez, gehieneko adin tartea ezartzea justifikatuta dago haur abandonatuaren beharrak eta horiei ongien erantzuten dien famili inguru izateko eskubidea beste edozeren gainetik jartzearen ikuspegitik begiratzu gero, eta horrek beharrezkoa egiten du adopzio-hartzaileen egokitasuna ezartzen duten irizpideak teknikoki definitzea. Nolanahi ere, batzordearen bukaerako ondorioek eta gomendioek, Osokoak 2003ko abenduaren 10ean onartuek, defendatzen dugun malgutzearen ildotik jo zuten:

*“CONCLUSION 2ª: Se observa también la existencia de un gran debate social en el mundo de la adopción relacionado con la edad máxima de los adoptantes, puesto que las Comunidades Autónomas tienden a establecer límites de edad para la adopción de menores por personas de 40 años como máximo, cuando biológicamente se puede superar esa edad para ser padre o madre.*

*RECOMENDACIÓN 2.4: Revisión de los criterios por los que se establece el límite de edad de los solicitantes de adopción internacional en 40 años, en los casos en que éste sea de aplicación.”*  
(GKAO, SENATUA, I. SERIEA, 2003KO ABENDUAREN 9A, 775 ZK.)

Honi dagokionez, argitu behar da, batzordearen aktetatik ondorioztatzen den bezala, bere lanetan aipatutako eztabaida sozialaren xede den 40 urteko mugak ez diola soilik adopzio-hartzailearen adinari eragiten, baizik eta baita horren eta adopziogaiaren arteko aldeari ere, eta, beraz, gomendio hori bi alderdiei buruzkoa dela ulertu behar da. Halaxe interpretatu du Balearretako Gomendioak famili harreraren, adopzioaren

eta egokitasuna zehaztearen inguruko prozedurei buruzko apirilaren 21eko 40/2006 Dekretuan: zioen azalpenean berariaz adierazten du, gomendio horren ondorioz, egokitasunerako baldintza gisa ezabatu egin dela behin betiko testutik adopzioa eskatzen duenaren eta adopziogaiaren arteko belaunaldi tartearen gehieneko muga.

Eztabaidak jurisprudentzian ere izan du oihartzuna; bertako pronuntziamentuak arrazoi beragatik egokitasuna ukatuta zuten pertsonak auzitegiaren egindako inpugnazioen ondorioz etorri dira. Hori dela-eta, eta bestela ezin izan zitekeen bezala, emandako epaietan, belaunaldi arteko aldeaz gain, tartean diren gainerako faktoreek kasuan kasu hartzen duten garrantziak izan du eragina eta horrek, batzuetan, epaitzaren zentzua Administrazioaren aldekoa izatea dakar eta beste batzuetan, berriz, errekurtsio-jartzaileen aldekoa izatea. Nolanahi ere, aniztasunaz haratago, ebazpen judizialek adingabearen interesaren edukian sakontzen dute; interes horrek, lehenetasuna duenez, kasuan kasu bermatu egin behar den dimentsio bikoitza du: alde batetik, adopzio-hartzailearen egokitasuna aztertzerakoan zorrotz jokatu beharri dagokiona; eta, bestetik, familia jakinik ez duen edota bakarrik nahiz instituzionalizazio egoeran dagoen adingabeari adopzioak berez dakarkion onura agerian jartzen duena. Baldintza horietan planteatzen du gaia Valentziako Probintzi Auzitegiak 2004-11-22an emandako bere epaian. Honek Lleidako Probintzi Auzitegiak 1999-03-19ko auto bidez emandakoetan eta Balearretako Probintzi Auzitegiaren 4. sekzioak 2002-06-06an emandakoetan ezartzen den ildoari jarraitzen dio:

*“A partir de la anterior situación de hecho, entiende la Sala que no cabe hacer de la idoneidad un concepto en tal forma estricto y excluyente que conduzca a condicionar y limitar la posibilidad de adopción de modo que, frustrando las respetables expectativas de los aspirantes a adoptar, vengan a la vez a producir un perjuicio en los menores susceptibles de ser adoptados, cuya situación de desamparo exige la adopción de un remedio”.*

3. Zehazki, hizpide dugun azterketa egin ahal izateko, legelariak erabaki zuen 3/2005 Legearen behin betiko testutik kentzea Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bidaliko zirriborroan jasotako baldintza; alegia, adopzio-hartzailearen eta adopziogaiaren arteko adin tartea muga jakin bat ez gainditzea, zirriborroaren arabera 40 urteen muga. Horrekin batera, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra egin dako gomendioa erantsi zuen; kontseilu horrek 2003ko irailaren 10ean egindako txostenean, aipatutako legearen aurreproiektuaren inguruan, honakoa adierazi zuen muga horri buruz hitz egiterakoan:

*“Este Consejo sigue teniendo dudas acerca de la corrección técnica de tal previsión. La realidad nos demuestra que hoy la edad en que se llega a la paternidad o maternidad es cada vez más elevada, siendo normal encontrar a personas que son padres o madres por primera vez con 40 o más años, sin que razonablemente se entienda la razón por la que una persona cuya diferencia de edad con el adoptado/a sea superior a 40 años no puede desempeñar correctamente su función, siempre obviamente que reúna los demás requisitos de idoneidad”*

Egia da oraindik ez dela arauz garatu 3/2005 Euskal Legea. Baina bistakoa da, gehiegizko adin tartea adopziarako elementu kaltegarritzat hartzen duen arren, baldintza absolutu gisa gehieneko aldea jartzea saihestu nahi izan duela eta, beraz, kexa honen xede den egokitasuna ukatzeko horretan oinarritzea, gure iritziz, legean legelariak esan nahi izan ez duena jasotzen dela esatea bezala da.

Esku artean dugun kasuan, talde psikosozialak gainerako aldagaiak hain modu positiboen balaratu izanak agerian uzten du adoptatzeko egokitasuna onartze aldera gehieneko adin tartearen baldintzak termino absolutuetan disfuntzioak sortzen dituela. Horrek berretsi egiten du gure iritzia; alegia, Aldundiak malgutu egin beharko litzukeela bere irizpideak: gehieneko adin tartea ez gainditzea ez litzateke ezinbesteko baldintzat hartu behar adopzioan hartzeko egokitasuna emate aldera. Aitzitik, aldeko elementu gisa hartu beharko litzateke eta hori adopzio-hartzaileen gainerako ezaugarri pertsonalekin batera aztertu beharko litzateke iritzi oso eta banakatuaren esparruan.

4. Baina, gure ustez, baldintza hori jartzeak Erkidegoko arauetan oinarririk ez duen bezala, dirudienez Estatuko legeriarekin ere ez dator bat, kasu honetan Kode Zibilaren 175.1 eta 176.1 artikuluetan jasotakoarekin. Egia da artikuluko horiek ez dutela ez dagoen “adoptatzeko eskubidea” arautzen eta, beraz, horien aurreikuspenak hasiera batean ez direla oztopo Administrazioak adopzioa eskatzen dutenei egokitasun baldintza jakinak ezarri ahal izan diezazkien. Baldintza horiek jartzeak eskubidea badagoela adierazten du eta lehenetasuneko arreta eskaini behar zaio, baita adingabeak duen eskubideari ere, adopzioak bere

garapenean eragin negatiborik izan ez dezan. Hala ere, Kode Zibilaren 176.1 artikulua zehazki eskubide horri egiten dio aipamena eta, bertan jasotzen denez, baldintza bakarra adopzio-hartzailea guraso ahalaz baliatzeko egokia izatea baino ez du ezartzen. Hortaz, Adingabearen Babes Juridikorako urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 25.2.b) artikuluari jarraiki kasuan kasuko egokitasun ziurtagiriak emateaz Foru Aldundiak arduratu behar duen arren, egia da baita ere, eginkizun horiek betez, Administrazioak ere ezin onar dakiokela legeak baimentzen duena oztopatzea.

Adoptatzeko egokitasunaren arloan Kode Zibilaren eta Erkidegoko arauen artean dagoen bateraezintasunari buruzko eztabaida hau arau hierarkiaren nahiz eskumenen ikuspuntutik aztertu da azken urteotan. Lehen horren adibide Gaztela eta Leongo prokuradore nagusiaren 2005eko txostena dugu:

*“La única limitación por razón de edad que establece dicho texto legal (se refiere al Código Civil) es que el adoptante sea mayor de veinticinco años y, en todo caso, que tenga al menos catorce años más que el adoptando, sin hacer mención a límite alguno más allá del cual se excluya la posibilidad de acceder a la adopción. Lo que excluiría la posibilidad de imponer tal limitación a través de una norma reglamentaria. Parecía, entonces, conveniente (aun cuando pudieran existir suficientes razones que justificaran la oportunidad de establecer una diferencia de edad máxima que imposibilita para la adopción) que tal circunstancia se efectuara a través de una modificación del Código Civil.*

*Si mediante las importantes reformas legislativas producidas en materia de adopción (especialmente la llevada a cabo con la Ley 21/1987) se habían ido ampliando las personas que pueden acceder a este tipo de medida de protección a la infancia, no parecía posible que dicho acceso pudiera ser limitado a través de la normativa autonómica, vulnerando el principio de jerarquía normativa recogido en el art. 9.3 CE.”*

Ondorio bera atera du Gaztela-Mantxako Ekonomi eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, baina beste ikuspegi batetik, eskumen kontuetan jartzen baitu arreta. Adingabeen adopzioa arautzen duen dekretu proiektuari buruzko 8/2004 irizpenak, 2004ko irailaren 15ekoak, honakoa dio horren inguruan:

*“El hecho de que el artículo 176 (del Código Civil) no impida adoptar a los que tengan más de 45 años de diferencia de edad con el adoptado, ha de entenderse como opción legislativa que permite esta eventualidad, por lo que la Comunidad Autónoma no puede prohibirla con carácter general. No se trataría, sin embargo, de un problema de ‘jerarquía normativa’, sino de una cuestión atinente al ‘principio de competencia’.*

*Es cierto que el requisito de edad ha sido establecido en prácticamente todas las Comunidades Autónomas, pero si se examinan a fondo cada una de sus normas, en esas Comunidades no se ha configurado nunca como criterio que permita rechazar ‘a priori’ las solicitudes de idoneidad. Es expresamente considerado ‘criterio de puntuación o baremación’ de la solicitud de adopción en Andalucía, Baleares, Canarias, Cantabria, Castilla y León, Extremadura y La Rioja. En Madrid, superar la edad máxima sólo significa que la solicitud de adopción no se priorice sobre otras. Y, en fin, aquellas Comunidades que parecen exigirlo como requisito de la solicitud, oponen, sin embargo, una excepción para el caso de menores con características especiales lo que significa, en la práctica, que dichas limitaciones no afectan a la solicitud de idoneidad sino a las de adopción que estarán condicionadas a que exista un menor de estas características para surtir sus efectos”.*

5. Azkenik, eta adin tartea 42 urtetik gorakoa ez izatearen baldintza jasotzen duen xedapen orokorra moldatu beharraz gain, erakunde honek eskatzen duen malgutzea, kasu honi dagokionez, erreklamatzaileri beren hirugarren alaba adoptatzeko prozesuan Foru Aldundi horrek 2003ko maiatzaren 6an jada onartu zien egokitasuna kontuan hartuta zehaztu ahal izango zatekeen, horren indarraldia, otsailaren 17ko 63/1998 Foru Aginduak ezarritako irizpideetatik ondoriozta daitekeenez, lau urtekoa baita. Departamentuak erantzun du aurretik emandako egokitasunak soilik bigarren alaba adoptatzeko balio zuela eta, beraz, ezin zela a posteriori erabili, nahiz eta Foru Agindu horren 3.3 atalak berariaz honakoa dioen:

*“3.3 atala.- Egokitza hartzen diren eta aurretik adingabea adoptatu duten pertsonen dagokionez, ez da beharrezkoa beste balorazio psikosozial bat egitea balorazio baten eta bestearen arteko denbora tartea ez bada lau urtetik gorakoa; nolana ere, ezarritako gainerako irizpideak nahitaez bete behar dira.”*

Ildo horretatik, espedientean ez dago inolako elementurik 2004an (...) hartzeak famili unitatean eragin zuen aldaketak orduan egokitzat jotzea eragin zuten inguruabarrak aldatu direla adierazten duenik; alderantziz, hobekuntza egon da, beren alaba biologikoa den (...) bere burua eskaini baitu tutore gisa. Arrazoi hori dela eta, eta Foru Aldundiak idazki honen 4. aurrekarian adierazitako alegazioari dagokionez, ez dirudi 3/2005 Euskal Legearen 83.1 artikuluko azken paragrafoan jasotako berrikuspenak 2003ko maiatzean emandako ziurtagiriaren baliozkotasuna berrestea eragotziko duenik. Hori guztia, garai hartan ere bai (...) jaunak bai (...) andreak bere alaba (...)rekiko 42 urteko muga gainditzen zutela alde batera utzita, orduan ere inguruabar horrek ez baitzuen oztopatu hura adoptatzeko egokitzat hartuak izatea eta, beraz, kontraesankorra litzateke departamentu horrek pertsona berdinei ondorio bererako ezartzen dizkien baldintzekin.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**26/2006 GOMENDIOA, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuari egina**

Foru Aldundi horretako Gizarte Politikarako Departamentuak berriro azter dezala erreklamatazileek eskatu zuten egokitasun ziurtagiria ukatzeko bere erabakia eta horren inguruan beste ebazpen bat eman dezala, txosten psikosozialak familia horren inguruan aipatzen dituen inguruabar guztiei buruzko iritzi oso eta banakatuaren esparruan, betiere, 3/2005 Euskal Legearen 83.1 k) artikuluan ezarritako baldintza betetzen ote duten egiaztatze aldera; inguruabar horiek ikusita, gure iritzi, ezin esan daiteke (...) jaunaren eta (...) andreak adina, ustez, muga denik laugarren seme-alaba gisa adoptatuko luketen mutil edo neska behar bezala garatzeko.

## 2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

**19/2006 Gomendia, ekainaren 27koa, Irungo Udalari egina, helburu hauekin:**

- 1. Irungo herritarrentzat berdintasunezko jai esparru bat lor dezan eta beharrezkoak diren ekintza positiboko neurri guztiak zuzen ditzan, formalki eta materialki. Neurri horien artean dago berdintasunean oinarritutako jai-egitaraua zabaltzea.**
- 2. Bertan behera utz dezan alarde tradizional deritzan jarduera pribatuari era material edo sinbolikoan laguntzeko edozein udal ekintza, alarde horrek ez baitu emakumeen partaidetzarik onartzen. Ez da onartu.**

### Aurrekariak

1. Argiri, Hiru Kanale eta Alarde Zalea taldeek, Irungo Alardean emakumeek berdintasun egoeran parte hartzearen alde daudenak, kexa adierazi zuten erakunde honetan 2006ko maiatzaren 29ko 1669 Alkatetza Ebazpenaren aurka. Horren arabera, beraiek 2006ko martxoaren 27an eginiko eskaerari ezezkoa eman zitzaion. Eskatutakoa, 2006ko Alardea udalak antolatzea zen.

Beren eskaera idazkian, kexa honen adierazle diren pertsonak udalari proposatu zioten 2006ko Alardearen antolaketa bere gain hartzeko, gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna bermatuko zuten esparru gisa. Horretarako, beharrezkotzat jo zuten udalak berdintasunezko alardea bere jardura propio gisa hartzea, horren bidez berdintasunezko jai esparrua lortzea posible bilakatzeko. Egun, Alardea elkarte pribatu batek antolatzen du. Modu berean erreklamazio egileek adierazi zuten, antolaketa hori udaleko administrazioari egotzeko egongo litzatekeen ezarpen legaletik haratago joanez, benetan jokoan egongo litzatekeena udal erakundearen borondatea izango litzatekeela. Izan ere, udalak baliabide politiko eta material egokiak ditu gizonetzkoen eta emakumezkoen berdintasunezko alardea sustatu, mantendu eta bermatzeko Irunen.

Zure erantzunean, 2006ko maiatzaren 29ko 1669 Alkatetza Ebazpenean jaso zena, Irungo Udalak berdintasunezko alardea antolatzeko ezezkoa horretarako derrigortasun legalik ez egotean oinarritu zuen. Horrela, udal horrek joan den urtean abokatu bati eskaturiko txosten juridikoaren bidez erakunde honi jada adierazitako arrazoi berak agertu zituen. Bertan, udalaren jarrera berresten zen San Martzialeko Alardearen aurreko edizioan emakumeak sartzearen kontuaren inguruan.

2. 2006ko ekainaren 2an udal horrengana jo genuen informazio eske. Alardea antolatzeko ezarpen legala egotearen edo ez egotearen gaineko kontutik haratago, udal horrek berdintasunezko alarde publikoa antolatu nahi ez izateko zituen arrazoiak ezagutu nahi izan genituen. Horren bidez, gainera, herritar guztien kulturaren ondarearen zatia den elementua berreskuratuko zatekeen, izan ere, ekitaldi horren antolaketa esku pribatueta igaro zen Irungo Udala derrigortu zenean hark antolaturiko alardean emakumeen parte-hartzea ahalbidetzera berdintasunezko egoeran –EAEANen 1998ko urtarrilaren 16ko eta Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 19ko epaietatik eratorritakoa–.

Gure informazio idazkian azpimarratu genuen, gainera, ez geundela ados udal horrek berdintasunezko alardearen alde inolako neurririk ez hartzeko oinarritzat jarri zuten tesiarekin. Horretarako, udal horri berari zuzenduriko 6/2005 Gomendia adierazitako argudioak heldu genituen. Horrela, labor esanda, berdintasunezko jai esparrua lortzeko betebeharrak legala Konstituzioaren 9.2 artikulutik datorrela adierazi genuen lehenik eta behin. Eusko Legebiltzarreko Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legeak (EAEko Berdintasun Legea) kontzeptu hori modu xehatuagoan garatzen du, emakumeek kulturaren



esparuan bizi duten egoera diskriminatzaileekin bukatzeko jarduera positiboak egiteko betebeharrak ezartzen dienean botere publikoei.

Modu berean, gure idazkian adierazi genuen udalak ezin erabil zezakeela onartu zaizkion eskumenen boterea Irungo emakumeen diskriminazioa ekarriko duen jai politika mantentzen jarraituko duten jardunbide edo jarduera administratiboak eratzeko. Zentzu horretan adierazi genuen, Irungo Udalak, batetik, emakumeekiko diskriminatzailea den alardea ekitaldi publiko bezala onartzen duela eta, bestetik, berdintasunezko jai esparua eratzeko balio izango duen alarde publiko antolatzeako ardura bere gain hartzeko eskaerari uko egiten diola; horrek guztiak, berdintasun printzipioaren aurka doan jai eredia sortzeaz gain, Konstituzioaren 9.2 artikulua eta EAeko Berdintasun Legearen lehenengo paragrafoaren aurka ere egiten du.

Halaber, Irungo Udalarik jakinarazi genion gai honetan dituen eskumenek arau horretan jasotako betebeharrak martxan jartzeko moduari eragingo diotela, baina aukeratzen den sistema aukeratzeko delak ere –eta hori administrazio horren eskumenen esparrutik kanpo geratzen da–, herri horretako emakumeentzat diskriminatzailea izango ez den jai politika bermatu behar da. Horregatik gogorazi genion, berriro ere, Irunen existitzen den diskriminazio egoera deuseztatzeko ekimen positiboko neurriak ez hartzea ezin etor daitekeela bat Konstituzioaren 9.2 artikulua eta Berdintasun Legearen 25.1 artikulua lehenengo paragrafoarekin.

3. 2006ko ekainaren 16an emaniko erantzunean, Irungo Udalak ez zion inolako aipamenik egin aurreikusitako edo martxan jarri ahal izandako neurri positiboei 2006ko edizioan berdintasunezko jaien alde egiteko. Modu berean, ez ziren argitu berdintasunezko alarde publiko antolatzeako eskaerari uko egiteko egon ziren arrazoiak eta juridikoki antolaketa bere gain hartzerako derrigorturik ez dagoela adierazi besterik ez zuen egin. Horren guztiaren oinarri gisa adierazi zitzaigun ez zegoela udal horrek deuseztatu beharreko sexu diskriminaziorik, Berdintasun Legeak ez lukeelako berdintasunaren “*maila konstituzionala*” aldatuko, 3.1 c) artikuluan tratamendu ezberdina argitzeko “justifikazio objektibo eta arrazoizkoaren” konstituzioaren jurisprudentzia nozioa hitzez hitz jasoko lukeen klausula eranstea. Suposamendu horretatik abiatuz, udal horrek uste zuen 4/2005 Legearen eduki osoak, diskriminazioaren gaineko derrigortasunei eginiko aipamen eta ezarritako derrigorrek barne, bere eragina galduko lukeela suposamendu honetan. Horren ondorioz, udalak azpimarratu zuen, batetik, tradizionaltzat hartzen den eta emakumeak berdintasunezko egoeratik kanpo uzten dituen alardearen antolatzaileei 2006rako emaniko baimena egokia eta legitimoa zela, eta bestetik, desegokia zela egungo egoera aldatuko luketen ekimen positiboko neurriak hartzea, batez ere emakumeekiko diskriminaziorik ez zegoela adierazi zelako. Modu berean azpimarratu zen, ez zegoela udaleko botere publikoak deuseztatu beharreko inolako berdintasun ezeko oztoporik.
4. Ondorenean, kexa espediente horren esparuan bertan, erreklamazioa aurkeztu zuten taldeek jakinarazi ziguten udalak Irungo jai-egitarauen banaketa (2006) bertan behera uztea erabaki zuela, berdintasunezko alardearen aldeko publizitatea eransteagatik, antza –udalaren prentsa oharrak jakinarazi zuenaren arabera–, “*Alardearen inguruan antzeman zitezkeen sentikortasun ezberdinak zauritu zitezkeen.*” Publizitate horrek emakume eta gizonezkoen irudiak agertzen zituen alarde misto eta berdintasunezkoan. Irudien lema bakarra “*Iragana eta etorkizuna, en el Alarde también iguales. Gora Irun, gora San Martzial*” zen.

Arrazoi hori dela-eta, berriro ere Irungo Udalarengana jo genuen 2006ko ekainaren 15ean, hartutako neurriengatik erakunde honek zuen kezka sakonaren berri emateko. Izan ere, uste izan genuen pertsonen eskubideen urradura izan zitekeela, botere publiko den heinean udalak bere kontu dituen betebeharren haustura nabarmena izateaz gain, udal erakunde horrek benetako berdintasun eraginkorra sustatu behar zuelako Irungo hirian. Gure idazkian azpimarratu genuen, udalak berdintasunezko alardearen ekintzak jai-egitarauaren barneratzeari uko egin zionez, eta aurreko urteetako egitarauaren beti alarde tradizionalaren argazkiak bakarrik jarri izan direnez, erreklamazio egileek esandakoaren arabera, publizitate hori dela berdintasunezko alardearen sustatzaileek ekimen hori biztanle guztien artean zabandu eta ezagutarazteko duten bide bakarra. Gaur egun, Irunen ekimen horrek baino ez du bermatzen jaiek ez dutela zapalduko emakumeek duten eskubidea beren herriko ekitaldirik garrantzitsuenetan gizonen baldintza beretan parte hartzeko. Udalak ez duenez inolako laguntzarik eman ekimena sustatu eta zabaltzeko eta uko egin dienez eskubide hori bermatzen duen alarde publiko antolatzeari, berdintasunezko alardea da, gaur egun, emakumeek Alardean parte hartzeko duten modu bakarra. Arrazoi hori dela-eta uste izan genuen, udalak ekimen hori babestu behar zuela eta ez oztopatu.

Zehazki gogorazai genizuen, Konstituzioaren 9.2 artikuluan eta nazioarteko beste tresna batzuetan jasotakoari jarraiki eta, udal horri dagokionez, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Euskal Legearen 7.1 artikuluko b), f) eta l) letretan eta 25.1 artikuluko lehen paragrafoan ezarritako eginbehar zehatzak aintzat hartuta, botere publikoa den heinean, udal horren betebeharra dela berdintasunerako oztopoak kentzea eta, horretarako, ekintza positiboko neurriak hartzea, Irunen emakume eta gizonentzat berdintasunezko jaiak lortzeko.

Azkenik, udal horri eskatu genion adierazitako testuinguru legalean, Irungo Udalak neurri hori oinarritzeko izan zituen arrazoen berri guri emateko eta, horrekin batera, adierazteko kontuan izan ote den, jai-egitaraua argitaratzen duen enpresarekiko udalak duen harremana arautzen duen kontratu administratiboaren esparruan, iragarkiak jarri nahi dituzten pertsonen eskubideak urratu ahal izan direla.

5. Azken informazio eskaera horri erantzunez, Irungo Udalak aurreko erantzun idazkian emandako arrazoiak berretsi zituen eta adierazi, ez zuela uste emakumeen diskriminaziorik egon zenik eredu tradizionalako alardea antolatzerakoan. Suposamendu horretatik abiatuz baieztatu zen, ez zela alarde tradizionalaren alde egin, ekitaldi hori Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas-jarduerak arautzeko 4/1995 Legearen esparruan baimendu zelako. Modu berean adierazi zen ez zegoela deuseztatu beharke oztoporik emakumeek parte hartuko duten beste alarde bat antolatzeko. Izan ere, beste alarde horrek ez luke publizitate edo ezagutzera emateko beharrik eta, beraz, indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin bat datorrela uste da berdintasunezko alardearen aldeko publizitatea erantsi zuen jai-egitaraua kentzea.

#### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, eta berriro ere, **kantinerak salbu emakumerik gabeko Alardean sexu arrazoiengatiko diskriminazioa badagoen ala ez dagoen** aztertu behar da. Irungo Udalak diskriminaziorik ez dagoela adierazten du gaitik kanpo kokatzeko oinarri gisa, hau da, ez dagoela berez Konstituzioaren 14. artikulua urraduririk, ezta, beraz, Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legearen xedapenen zapalketarik ere emakumeek kantinera gisa bakarrik parte hartzen duten Alardea antolatzerakoan. Udalak adierazitako tesia oinarritzeko ematen dituen arrazoiak bi dira nagusiki: bate-tik, antolaketa pribatua dela, eta bestetik, emakumeak gutxiesten edo haien duintasunaren aurka doan jarduerarik gauzatzen ez denez, ez duela ezarpen konstituzionalaren 14. artikulua urratzen, EAEANen 496/2002 epaiarekin bat etorritz. Horren arabera, baimena eman zitzaion alarde tradizionalari 2001erako, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas-jardueren 4/1995 Legearen esparruan. Irungo Udalaren arrazoibide horretan partikularren berdintasun printzipioaren eraginkortasun gutxitua antzemango litzateke, Herri Administrazioaren aurrean beharko lukeen erabateko eraginkortasunaren aurrean. Eskubide hori EAEANk eta Auzitegi Gorenak onartu zuten 1998 eta 2002ko epaietan, hurrenez hurren, eskubide osoz baliogabetzat jo zutenean emakumei berdintasunezko egoeran parte hartzea galarazten zien udaleko jardueraren administratiboa. Garai hartan Irungo Udala zen ekitaldia antolatzen zuena gertakari juridiko-publiko gisa. Zentzu horretan, hau da, ekitaldi juridiko-pribatua aipatuz bakarrik eutsi dezake Irungo Udalak –gure informazio eskaerari erantzuten dion azken idazkian egiten duen moduan– jurisprudentzia konstituzionalak eginiko eta Berdintasunerako Euskal Legearen 3.1 c) artikuluan modu berean jasotako *justifikazio objektibo eta arrazoizkoak* erabateko egokitasuna topatzen duela udalak baimenduko lukeen ekitaldi pribatuaren esparruan. Ekitaldi hori gauzatzeak ez luke galaraziko emakumeak onartzen litzuketean izaera pribatuko beste ekitaldi batzuk antolatzea, eta gainera ez litzuke emakumeak gutxietsiko, ezta haien duintasunaren aurka egingo ere. *Justifikazio objektiboa eta arrazoizkoaren* nozioa jasotzen duen Berdintasunerako Euskal Legearen 3.1 c) artikulua erabateko hitze hitzeko idazketak, udalak dioenaren arabera, “*maila konstituzionala*” izenekoa ez aldatzea berretsiko luke; udalaren ustez, horrek esan nahi du, diskriminaziorik ez egotean ez dagoela zertan arau horren ezarpenak aipatu beharrik Irungo Alardearen kasuan edozein motatako diskriminazioa deuseztatzeko. Horrela, Irungo Udalak emakumeen erabateko parte-hartzerik gabe antolatzen den alardea gauzatzeko urtero ematen duen baimenak partikularrek jai ekitaldi baten antolaketa askea egiteko aukera besterik ez luke onartuko, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas-jarduerak arautzeko 4/1995 Legearen esparruan. Ekitaldi hori Irungo kaleetan zehar garatuko litzateke, eta beste hainbat ekitaldiren artean beste bat baino ez da, udalaren ustetan. Horrek ez luke galaraziko udalak –halakorik eskatuko balitzaio– emakumeek berdintasunezko egoeran parte hartzen duten beste alarde batzuk baimentzea.

Modu horretan, Irungo Udalak hitzez hitz adierazi ditu 2005eko San Martzialeko Alardearen edizioan gure esku-hartzea behar izan zuen udaleko jardueragatik bideraturiko espedientearen agerturiko arrazoiak. Esku-hartze horren ondorioz, Arartekoaren 6/2005 Gomendia etorri zen, eta bertan udalaren jarrera-

ren azterketa egin zen modu zabalean. Une hartan sexu arrazoiengatik diskriminazioaren existentziaren gainean adierazitakoa berretsi beharrean gaude, kontuan hartuta gainera udal horrek ez dituela, antza, bere diskriminazio ezeko tesiaren gaineko erantzun eta hausnarketak identifikatu.

Hala, bada, 6/2005 Gomendioan honakoa azpimarratu genuen (modu errazagoan uler dezazun, gure arrazoibidearen punturik garrantzitsuenak azpimarratu ditugu):

“(… …) Horregatik, puntu honetan udal horrek agindutako txosten juridikoak hizpide duen argudioa aztertu behar dugu, legeak (berdintasunerako euskal legeak) lehenagoko egoera juridikoa ezertan aldatzerik duenik ukatzen baitu, eta argudio horretaz baliatzen baitira arau berri honetatik datorren edozein agindu baztertzeko. Jarrera teoriko horri heltzen dio udalak, gai honetan inbobilismo jarreraren tematze eta, horrek, gure iritziz, konponbiderik gabeko blokeora eramanez gaitzake, berdintasunerako duten eskubidea urtero-urtero urratzen zaiela ikusten duten Irungo emakumeei eskubide hori materialki inoiz aitor dakien ikusmirarik eskaini gabe.

Horrela, “abokatuaren txostena” lege honen 3.1. c artikuluan oinarritzen da, non, emakume eta gizonentzako tratu ezberdineko neurriak onartzen direnean, betiere “justifikazio objektiboa eta zentzuzkoan” oinarritzen badira, lehenago Konstituzio Auzitegiaren (KA) eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) jurisprudentziak garatuta daukan nozio bat jasotzen ariko bailitzateke eta, hortik –txostenak on-dorioztatzen duenez– aterako litzateke EAEko berdintasun legeak ez duela konstituzioaren listoa aldarazi eta, hartara, arau honen aurreko esparru juridikoak indarrean segitzen duela, eta esparru horretan udala gorago aipatu dugun agindu bikoitzari jaramonik egin barik ari litekeela, txostenaren esanetan.

Zehaztu behar dugu konstituzioko doktrinak eta jurisprudentziak “justifikazio objektibo eta zentzuzkoaren” nozioa emakume eta gizonentzako tratu ezberdina, Konstituzioaren 14. artikulua urratu gabe, definizioz murriztailea den zein esparrutan gerta daitekeen mugatzeko baliatzen dutela. Doktrina eta jurisprudentzia horiek kontzeptu hori garatu dute, ezohiko modura eta funtsik izatekotan, sexu batentzako neurri ezberdinak onartzeko eta, bereziki, ekintza edo bereizketa positibo deritzen neurriak onartzeko, neurri horien azkeneko helburua gizartean gutxietsitako emakumeen kolektiboari laguntzea baita, hots, emakumeentzat gizonentzat baino onuragarriagoa den tratua ekarriko duten neurriak justifikatzea. Neurri horiek objektiboki eta arrazoituz justifikatu behar dira, zeren tratu berdintasuneko arau orokorraren salbuespena baitira. Emakumeak Alardetik emakume direlako soilik baztertzeko ezin da, inola ere, nozio horretan sartu, ez baitago hori justifikatuko duen inolako funts objektiborik. Izan ere, horretan sartzeko ahalegina ezetsi zuten jada auzitegiek auzia planteatu zen administrazioarekiko auzi bideko prozesuetan (ikus Udalaren eta haren laguntzailekide “Irungo Betiko Alardearen Aldekoak” elkartearen defentsaren idatzia, Auzitegi Gorenerako Irunerako 2241/1998 kasazio errekurtsioan), eta ez du ondoren ere ezertarako balio izan Alardearekin zerikusirik daukan inolako auzitegitako epairik oinarritzeko. EAEko berdintasun legearen 3.1.c) artikulua nozio hau aipatzen duenean arauaren goiburuan adierazten den tratu berdintasun edo bereizkeriarik ezaren arauaren salbuespena justifikatzeko dela zehazten du eta, gainera, ekintza positiboko neurrien bi kasu ere jasotzen ditu. Esanguratsua da, nolana ere, Udalak ez duela, inola ere, eta jaso ditugun idatzietako batean ere, zein den emakumeak Irungo Alardetik kanpo uzteko dagoen justifikazio objektibo eta arrazoitu hori argitu.

Edonola ere, EAEko 4/2005 Legeak ezin du inoiz ere legegilearentzat xedatzerik ez dagoen, eta Udalaren txostenean hizpide den konstituziozko berdintasunaren “konstituzioko listoirik” jaitzarazi, baina badauka, ordea –eta horixe da, hain zuzen, bere zeregin nagusia–, konstituziozko printzipio hori erabat eraginkorra izan dadin, betebeharrak zehazten legezko araubidea eratu, zelan artikulatu behar den zehazteko eskumena eta, horrela, doktrinaren eta jurisprudentziaren legezketasunaren parametro berri eta ezinbestekoa eta, ondorioz, epairako funts izango dena erabakiko du. Horrela, Irungo Udala ezin da jada berdintasun printzipioaren zehaztasunik ezean babestu (ez eta lege araubide honen jomuga den beste ezin herri-agintari ere); printzipio horren birtualtasuna ahalmen eta eskubide guztien berri ematea da, baina, horregatik hain zuzen, ez dago organikoki beren beregi garatuta, gainerako oinarriko eskubideak bezala. Gerorako jurisprudentziak, halaber, bere nozioak lege honen xedapenetara doitu beharko ditu; ezin izango du Konstituzioak ezarritakoa inola ere murriztu, baina bai finkatu ahal izango du Konstituzioko determinazioak zehazki zelan gauzatuko diren.

EAEko berdintasun legea, EAEn zein estatuaren esparruetan etorkizunean eman litezkeen gainerako berdintasun legeak bezala, lehenik eta behin herri aginteengana zuzenduko diren betebeharrak finkatzera

xedatzen da, baina partikularrengana ere bideratzen da, lege antolamenduan, Konstituzioan, Europako Batasunean eta nazioarteko antolamenduan jasotzen den gizonen eta emakumeen berdintasuna izatez gauza dadin, benetan lor dadin berma dezaten, herri erakunde guztiek aktiboki inplikatu behar duten prozesu baten azken emaitza modura. Betebeharren araubide hori sortzen den unetik, zilegi da legearen hartzaileei agindu horiek betearaztea, eta horixe da, hain zuzen, EAEko berdintasun legeak Udal horri, Alardeari dagokionez, dakarkion gauza berria, hots, modu jakin batean jokatzeko eskatu ahal zaiola, baldin eta lege antolamendua urratu nahi ez badu, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62 eta 63. artikuluetan aurreikusten den zehapena jaso nahi ez badu.

(... ..)

Gure erakundeak, legea aldarrikatu denetik aurrera, herri erakundeek zein oinarri juridiko berriren mende aritu behar duten aztertzeko prestatu duen "Berdintasunerako Legearen analisisan" jasotzen den moduan, Irungo Udalak betiko Alardea, hots, emakumeei berdintasunez parte hartzea ukatzen diena antolatzeko eman duen baimena zeharkako bereizkeriako egintza da, lege horren 3.1.b) artikuluan dioenez, eta lege bereko 25.1 artikuluaen bigarren lerroaldea zeharo urratzen du. Horregatik, baimen hori, gure iritziz, baliogabea da, erabateko eskubidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 62.1 a) artikuluaen arabera.

EAEko berdintasun legearen 3.1. artikulua, herri aginteen jardura gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorren artean, tratu berdintasunaren printzipioa finkatzen du, eta printzipio horren urraketen balizko bi kategoria bereizten ditu, zuzeneko bereizkeria modura gerta daitekeena [3.1. artikuluaen a) atala] eta zeharkako bereizkeria modura gauza daitekeena [3.1. artikulua bereko b) atala]; hona hemen artikulua hori, hitzez hitz:

### **3.1 artikulua - Tratu berdina**

*Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.*

*Lege honen ondoreetarako:*

(...)

- b) *Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.*

Artikulu horren arabera, zeharkako bereizkeria neurria izango litzateke tratu berdintasunaren haustura dena delako egintzan edo xedapenean –egintza edo xedapena itxuraz neutrala litzateke– esplicituki barik, egintza edo xedapen horren ondorioen eraginez gertatzen denean.

Legearen bereizketa horrek ikuspegi berria ematen du administrazioaren egintza juridiko bat bereizkeriazko egintza modura kalifikatzeko garaian. Irungo Udalak emakumeak baztertzten dituen Alardea baimendu izana legezkoa den ala ez aztertzeko, administrazioaren egintza horren ondorioz, emakumeek bazterketa ondorenerik jasaten duten egiaztatzera behartzen duen parametro berri bati aditu behar zaio. Hala erabaki zuten. Irungo Alardeari dagokionez, EAEko Auzitegi Nagusiak eta Auzitegi Gorenak 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko irailaren 19ko epaietan, hurrenez hurren, epaiketako gaia, zalantzarik gabe, Udalaren egintza bat, hau da, administrazio egintza bat zenean, Irungo Udalak administrazio jardura baliouduna dela oinarritzeko aipatzen dituen EAEko Auzitegi Nagusiaren 496/2002 epaiak (Irunerako) eta 588/2002 epaiak (Hondarribirako), ez dute orduan inongo arautan idatziz jaso barik zegoen baina kasu honetan zuzenean aplikagarria den zeharkako bereizkeriaren nozioaren arabera epaitzen, eta epaiaren mamia baimenpean jartzen den jardura pribatura bideratzen dute. Ebazpen horiek, nolana ere, errekurrituta daude Auzitegi Gorenean, eta Auzitegiak, Konstituzioaren 14. artikuluari begira, EAEko jendaurreko ikuskizunaren eta gozamenerako jardueren 4/1995 Legearen 18 a) artikuluan, oinarritzko eskubideak urratzen dituzten jendaurreko ikuskizunaren debekuaren eraginkortasunaren gaineko epaia oraindik emateko dauka.

Irungo Udalak puntu honetan zera azaltzen du: baimena partikularren esparrura proiektatzen dela, partikularrek baitira emakumeen berdintasunezko partaidetzarik gabeko Alardea antolatzen dutenak eta, ondorioz, hori berdintasun printzipioaren eragimenerako aringarria dela. Ez gara azkeneko hori eztabaidatzen hasiko, konstituziozko doktrina sendo eta homogineoan oinarritzerik ez dagoela uste dugun arren, zeren Konstituzio Auzitegiak berak hainbat eta hainbat epaitan Bundesverfassungsgericht (Alemaniako Konstituzio Epaitagia) delakoaren doktrina jaso baitu; “Drittwirkung” izeneko doktrinaz ari gara, hots, oinarritzko eskubideen erabateko aurkagarritasunaz, partikularren aurrean. Bai interesatzen zaigu, ordea, Irungo Udalak Alardetik emakumeak baztertzeko dituztenei eman dien baimena azpimarratzea, Berdintasunaren Legearen 3.1.b) artikulua definizioak barnean hartzen duen egintza modura, hots, zeharkako bereizkeriako egintza modura, zeren baimen horrek auzi honen muina eta, ondorioz, erabaki beharreko gaia egintza juridiko publiko baten balioan ala baliorik ezean birkokatzen baitu, egintza juridiko horretatik eratorritako direlako emakumeentzako bereizkeriazko ondoreak. Horrek, beraz, berdintasunaren printzipioaren proiektzioa Alardeen auziaren jatorrizko esparrura, hots, esparru publikora darama berriro; ezin dugu ahaztu esparru publiko hori utzi bada, Alardean emakumeei lekurik emateko betebeharra, Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 19ko epaitik datorrena, saihesteko helburu bakarraz utzi dela. Oro har onartzen da, alde horretatik, berdintasun printzipioak erabateko eragimena duela herri aginteen aurrean.

Udalak, halaber, baimena araututa dagoela aipatzen du, berak, lege ezarritako baldintzak betetzen diren ala betetzen ez diren arabera, egin dezakeen bakarra baimena eman ala ukatzea dela argudiatzeko. Komeni da gogoratzea baimenak gaikuntza juridikoak direla, eta beren zeregin nagusia egin nahi den jardura lege antolamendura egokitzen dela bermatzea dela. Alardearen kasuan, Udalak, baimena emateko, funtsezko legezkotasun baldintza bat, hots, oinarritzko eskubideen errespetua bete dadin eskatu behar du. Gai horri heltzen dio, zuzenean, Berdintasun Legearen 25.1 artikulua bigarren lerroaldeak. Xedapen honek bete-betea hartzen du Alardea, espazio publiko batean zehar doan kultura egintza izanik, ez baitie emakumeei berdintasun parte hartzen lagatzen; hara zelan jasotzen den halako jardura baten debekua:

*“Debekatu egiten da emakumeek gizonekiko berdintasunaren parte hartzea onartzen ez duten edo oztotatzen duten kultura jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.”*

“Berdintasunerako legearen analisian” luze eta zabalago azaldu dugun moduan, agindu hori legea legebiltzarrean tramitatzen ari zen bitartean sartu bazen, espresuki Irun eta Hondarribiko emakumeek Alardeak ospatzen direnean urtero pairatzen duten bereizkeria arazoa konpontzeko borondatez sartu zen. Ikuspegi horretatik, Alardea, legegilearentzat, 25.1 artikuluan jasotako debekua aplikatu behar zaion egitate prototipikoa da. Horrela, analisi horretan jada genioenez, “klausula horrek debeku moduan adierazten du gune publikoetan ezin direla emakumeak diskriminatu. Hortaz, egintza jakin bat baimentzeko ahalmena duen administrazioak egintza diskriminatzailea debekatu behar du, berariazko eta arau horretan oinarrituriko jardura baten bidez. Ofizioz debeka dezake –arauaren deskribatuta dagoen egitatezko kasua gerta litekeela pentsarazten duten zantzuak antzemango balitu administrazioak berak (“emakumeek gizonekiko berdintasunaren parte hartzea onartzen ez duten edo oztotatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan)– edota alderdi batek eskatuta. Bigarren kasuan, hau da, udalari aurreikusitako egintza edo egintzak debeka ditzala eskatzen badiote, eskaera oinarritzeko balio duen arauaren xedea aintzat hartuz ebatzi beharko du udalak”.

Azaldutako arrazoi horietatik, Irungo Udalak “Betiko Alardeko Agintarien Batzarrari” emandako baimena lege antolamendura eta, bereziki, 4/2005 Legearen 3.1.b) eta 25.1 artikuluetatik ondorioztatzen diren eskakizunetara egokitzea behartuta dago, Arartekoaren iritzi eta, hartara, eskatzaileei, emakumei egintza horretan berdintasun parte hartzeko aukera eskain diezaieten agindu behar diete edo, bestela, baimen hori baliogabetu.

Horregatik baieztatu behar dugu, labur esanda, ez gatzela bat udalaren tesiarekin. Horren arabera, udalak alarde tradizionala deritzonaren existentzia ahalbidezkoa ez litzateke izango emakumeentzat eragin diskriminatzaileak dakartzan jardura. Erantsi behar dugu, gainera, ezin daitekeela udalaren jardura epaitu jaien antolaketari dagokionez, kontuan hartzen ez bada udalak alde batera utzi duela emakumeen berdintasunezko parte-hartzea erraztu, sustatu eta babesteko ardura adierazitako jaietako jardura nagusienean. Parte-hartze hori bakarrik gauzatzen da berdintasunezko alardea egiteko konpromisoa hartu duten talde batzuk badirelako. Horiek, ondorenean azalduko dugun bezala, ez dute inolako babesik udalaren aldetik,

erakunde horrek emakumezkoentzat berdintasunezkoa ez den alardeari laguntza ematen badio ere, ondorenean ere agertuko dugun moduan.

2. Bigarrenik, **Irungo Udalak –botere publiko den heinean– bere gain hartu behar duen paperaren gaia** jorratu behar dugu, **udalerrri horretako biztanleen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzerako garaian**. Egia esan, Konstituzioak ezartzen duen derrigorra da hau, eta EKren 9.2. artikulutik aurrera, botere publiko guztiak lotzen ditu. Hala eta guztiz ere, ezarpen horren intentsitatea are nabarmenagoa da, eta are galdagarriagoa bilakatzen da publikoki onarturiko diskriminazio nabarmena dagoenean, esku artean dugun kasuan gertatzen den bezala. Ondorioz, Irunen emakumezkoentzat diskriminatzailea den egoera baten aurrean gaudela kontuan hartuz –euskar gizarateak hainbatetan onartu izan duena erakunde esanguratsuenen bidez, Eusko Legebiltzarra kasu–, erabateko garrantzia dute Berdintasun Legearen xedapenek, horien helburua konstituzioaren ezarpenak zehaztea baita, erabateko berdintasuneko egoera lortzeko agertzen diren oztipoak deuseztatzeko jarduera positiboak ekarriko dituzten neurriak hartzearen bidez.

Irungo Udalak puntu honetan uste du arau horretan ezarritako neurri positibo horiek ez direla beharrezkoak, deuseztatu beharreko diskriminazio egoerarik ez dagoelako, antza. Modu horretan, Irungo Udala defendagarri eta legitimoak diren bi jarreraren artean edo erdian kokatuko litzateke: jaiak emakumeen erabateko berdintasuneko parte-hartzerik gabe “ulertzen” dituzten horien jarrera, eta herritar guztiak onartu behar dituen esparrua defendatzen duten horien artean, sexu, arraza edo dena delako baldintzaren arabera ez dena, hain zuzen. Hala eta guztiz ere, herritar guztiek ezin hauta dezakete jai kontzeptu bat nahiz bestea, udalak nahi bezala. Izan ere, emakumeak beren presentzia onartzen duen alardera bakarrik joan ahal izango dira, gizonetakoek bi alardeen arteko aukeraketa egin ahal izango duten bitartean.

Erdiko jarrera horretan, gainera, antzematen da alarde tradizionalaren alde egiteko joera eta nahia dagoela, sistema demokratikoaren esparruan onartezina den jarrera defendatzen duenaren aldeko egiteko nahia, alegia. Ekitaldi horretan emakumeak kanpo uzten dira, emakume izateagatik, besterik gabe. Erakunde honek harriduraz baieztatu ahal izan du, hain zuzen ere, Irungo Udalak sinbolikoki eta materialki babesten duela aipaturiko alarde hori, eta ez bakarrik urtero horixe ospatzea ahalbidetzen duen baimena emanez. Horrela, ikus daiteke Irungo Udalak udaletxeko balkoian itxaroten duela emakumeak kanpo uzten dituzten tropen etorrera, baina berdintasuneko ekitaldian ez dela agertu ere egiten. Modu berean, San Martzial mendian egiten den botoarekin konplizkeko ordua eta tokia bateratzen ditu, ekainaren 30a 12:00tan, eta hara udaleko kide guztiak joan ohi dira modu ofizialean, horixe adieraziz gainera jai-egitarauan. Horrela, udaleko korporazioa eta alarde tradizionala bateratu egiten dira tokian eta denboran, eta horrek sinbolikoki adierazten du ez bakarrik jai kontzeptu horri babesten dela, baizik eta baita udaleko kideak horrekin identifikatzen direla ere. Irungo Udalak, gainera, harriduraz baieztatu ahal izan dugun moduan, aukera ematen du web orrialdean –egun, Irungo jaiak ditu lehenengo orrian– emakumerik gabeko alardea sustatu eta defendatzen taldeetan web orrialdeetan zuzenean sartzeko. Modu horretan gure sistema demokratikoan onartezinak diren tesietara –adierazitako lotura orrian agerturikoak– atxikitzen zaizkio.

2006 urte honetan bereziki larria dena, ordea, Irungo Udalak berdintasuneko alardea sustatzen duten taldeek hiriko jai-egitarauan legitimoki kontrataturiko publizitatearen aurrean izandako jarrera da. Gainerako gaiei dagokionez, mota guztietako iragarkiak onartzen dira finantzatzeko. Aurrekarietan adierazi dugun bezala, udalak jai-egitarau horren banaketa bertan behera uztearen erabakia hartu zuen, bertan aipaturiko iragarkia antzeman zuenean. Horrela, berdintasuneko alardearen irudiak “*Iragana eta etorkizuna. En el Aralde también iguales. Gora Irun. Gora San Martzial*” lemapean jasotzen zituen aipaturiko publizitate orrialde hori deuseztatu zuen –udaleko prentsa oharrean berariaz eta publikoki adierazi zena– programa berria helarazi zuen. Beraz, Alardean berdintasuna sustatzen zuen iragarki bat zen eta jantzi tradizionalak jantzirik gizon eta emakumeen irudiak erabiltzen ziren Irungo kaleetan zehar berdintasuneko egoeran desfilatuz. Udalak emaniko arrazoiak erabaki hori hartzeko, *Alardearen inguruan antzeman zitezkeen sentikortasun ezberdinak zauritu zitezkeela* izan zen. Zein alarderen ingurukoak, ordea? galdetzen dugu, are gehiago kontuan hartzen badugu aurreko edizio batzuetan –2005eko esate baterako– udal horrek eginiko jai-egitarauak alarde tradizionalaren irudi ugari eta errepikatua erabili dituela aparteko eragozpenik izan gabe. Egia da 2006ko egitarauak alarde tradizionalaren irudiak jasotzen dituela nahiz eta neurri batean ebakirik edo lausoturik agertzen diren. Hala eta guztiz ere, nabarmena da irudi horietan gizonetakoak bakarrik agertzen direla.

Kontu horri dagokionez, informazio eskaera egin genuen eta horri erantzunez, udalak Alardearen antolaketa jarduera publiko gisa bere gain ez hartzeko erabilitako arrazoi berdinak aipatu zituen. Alarde tradizionalan

diskriminaziorik ez dagoenaren oinarritik abiatu zen eta adierazi zuen ez zela alarde tradizionala faboratu, baimena eman besterik ez zelako egin; halaber, jakinarazi zigon emakumeek parte hartuko duten beste alarde bat antolatzeke ez zegoela inolako oztoporik. Horrek ez luke publikitate edo barreiapenik behar; izan ere, herritarrek “oso ondo ezagutzen dute Alardearen inguruan antolatutako jardueren eraketa (gizon eta emakumeak) eta gainerako ezaugarriak. Gertakari horri erantzen badiogu antolaketa udal-letik kanpo kokatzen dela, nahikoa da (eta ez da beharrezkotzat jotzen ere) horrelako gizarte ekimen baten aipamena bakarrik egitea, besterik gabe.” Azken ñabardura horrekin adierazi nahi da, egitarauan egiten den aipamenaren arabera, Alardea gizarte ekimenean ondotik antolatzen dela.

Gure idazkietan azpimarratu genuen, udal horrek bereziki Berdintasun Legearen 25.1 (lehenengo paragrafoa) eta 7 1) artikuluetatik eratorritako neurri positiboak martxan jartzeko betebeharra zuela, horien bidez, Irungo jaietan berdintasuneko helburua lortzen laguntzeko. 7 1) artikulua udalak behartzen ditu diskriminaziozko egoerak antzematean, egoera horiek deuseztatzeke beharrezkoak diren neurriak hartzera. 25.1 artikulua lehenengo paragrafoak, berriz, honako beharra agertzen du: “(...) sexu arrazoiengatik edozein diskriminazio ekiditeko, eta jarduera kultural guztietan emakumezkoen eta gizezkoen arteko parte-hartze orekatua sustatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.”

Ezarpenera jasotzen dena, azken batean, Irungo Udalak berdintasuneko jai politika garatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko duen betebeharra da. Horrela, udal horrek ezin utz dezake alde batera berdintasuneko jai esparrua lortu nahi duten gizarte ekimenean aldeko neurriak hartzearen ezarpena eta, beraz, bere eskumenetatik kanpo geratzen da emaitzatzen Irunen dagoen diskriminazio egoeraren luzapena edo mantentzea duen jai politika garatzea.

Kontu horri dagokionez, ondorenean adieraziko duguna azpimarratu genuen jada 6/2005 Gomendioan (garrantzitsuenaz azpimarratu dugu):

**Betebehar hori.** Irungo jai politikari dagokionez, **nola artikulatuko den udalak erabaki behar du, bai, betiere hautatzen duen sistemarekin emakumeak baztertuko ez dituen jai politika bermatzen bada.** Gure lege antolamenduan inolako lekurik ez duena, ordea, Irungo Alkateak egun, emakumeak baztertzen dituen Alardearen ospakizuna baimentzen duenean, eta Irungo emakumeentzat berdintasuneko jai esparrurik gaitzeko inolako neurririk abiarazten ez duenean, edo Alarde mistoa antolatu nahi duten herritarren ekimenek aurrera egin dezaten eragozten duenean atontzen duen jai politika da.

Izan ere, Irungo Udala 2005 urterako jai eredu zehatz bat moldatzen ari da, Alkateak betiko alardea baimentzea ebatzi duenean, eta herri Alarde bat antolatzeari uko egin dionean; ikusteko dago, oraindik, ea Alarde mistoa antolatzeke baimen eta dirulaguntzen eskariak ere ukatuko dituen ala ez, iaz berdintasuneko Alardea antolatzeke eskaria ezetsi zuen bezala. Hala egingo balu, ebazpen horien bidez, izatez, emakumeak baztertzen dituen jai politika moldatzen ariko litzateke, formalki autonomoki gertatzen diren arren, materialki, helburu eta eduki bakarrak, hots, Irungo jaiak emakumei Alardean berdintasuneko parte hartzea ukatuz artikulatu nahi izateak lotzen dituzenez, jarraipenezko multzoa osatzen duten egintza ezberdinen bitartez. Horrek guztiak udalaren jarrera azaleratzen du, udalak, oztopoak desagerrarazi eta emakume eta gizonak, 4/2005 legeak dioen moduan, erabateko berdintasunean bizi daitezten errazteko neurriak hartzera begira ez-aktiboa den eta, gainera, helburu horretara xedatutako beste edozein ekimen aktiboki eragozten duen jarrera hartzen baitu.

Jai politika baztertua da eta, ondorioz, legearen kontrakoa; ez dago horretan administrazioaren zuzentzeriarako printzipioaren babesterik, Udalak aukera ezberdinen artean hautatzeko duen askatasunak ez baitio bereizkeria betikotzea ekarriko duen aukerarik eskaintzen. Aukera hori Zuzenbidearen aurkakoa da eta, horregatik, Alkatezaren ebazpenek itxuraz heldu nahi dioten egokitasun politikoaren esparrutik kanpo geratzen da.

Hara, bada, **Arartekoak behin eta berrito proposatu du, oinarrituko eskubideak errespetatuko dituzten jaiak izatera begira, Alardea udalak herri ospakizun modura antola dezan berreskuratzea, horixe baita, gure iritziz, jaietan berdintasuneko parte hartzea lortzea ongien bermatuko duen eta, aldi berean, herritar guztiena den ondarea lehengoratzea ziurtatuko duen aukera.** Gainera, Irungo historiari eta jai tradizioari izugarri lotuta zihon formula izan da, harik eta udalak ordura arte zeregin modura zeukana utzi bide hori hautsi zuen arte, udalak auzitegiek garai hartan herri Alardea zen hartan emakumei parte hartzen lagatzeko eman zituen agindua saihestu nahi zuela agerian utziz. Udal horrek oraindik ez dio gure erakundeari azaldu, ez eta eskariak ezetsi zaizkion jendeari ere, zergatik ez duen –legez behartuta ez dagoela esatetik harantzago– Alardea herri ospakizun modura antolatzea berritu nahi,

zergatik erabaki duen herri Alarderik ez antolatzea, eta zergatik uzten duen pribatuen eskuetan urtetan herritar guztien ondare izan dena. Udalak bere borondatea argudiatzeko motibazioirik edo arrazoirik ez daukanez, honako hau ondorioztatu behar dugu: udalbatza horrek horrela jokatzeko badu –eta zaila litzaioke benetan zergatia argi eta garbi adieraztea–, herri Alarde baten esparruan, Irungo emakumeei berdintasunez parte hartzeko aukera eskaini behar izateari aurre egin nahi ez diolako da.

Zoritxarrez azken ideia hori azpimarratu behar dugu, aurten ere ez zaigulako nahikoa arrazoi eman Alardea ekitaldi publiko gisa antolatzeari emaniko ezezkua argitzeko, ardura hori udalak bere gain hartzeko ezarpen legalik ez egotea ez bada, behinik behin. Horrela, bada, oraindik ez zaio erakunde honi argitu zergatik uste duen udalak Irungo hiriaren interes orokorraren onurarako izango dela jai esparruen egungo banaketa, kontuan hartuz, gainera, horietako batean ezingo dutela Irungo emakumeek parte hartu, nahi hori izanda ere.

Modu berean adierazi behar dugu ez zaigula onargarria iruditzen udalak duen balizko neutraltasun jarrera eta, gainera, azpimarratu nahi dugu jada adierazi dugunarengatik, ez dela adierazi bezain neutrala. Berdintasunaren sustapeneko betebeharrak konstituzionalaren parte da emakumeen kanporatze eta diskriminazio egoeraren aurrean, hurrengo ekainaren 30ean Irunen berdintasuneko jai esparrua lortu nahi duten ekimenak esplizituki babestea, eta udalak –botere publiko den heinean– horixe bete behar du. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu udalak tradizionala deritzon alardearen babes material edo sinbolikoa ekiditea eta berdintasuneko alardearen jakinarazpena eta antolaketaren alde egitea.

Irunen bizi den egoera udaleko botere publikoaren borondate esplizituari esker aldatuko da bakarrik, herritar guztiak berdintasun egoeran hartzen dituen jaiak antolatuz, sexu bazterkeriak alde batera utziz. Udal erakundearen zeregina, helburu hori lortzeko dagokionez, aldaketa prozesuaren buruan egotea litzateke, berdintasuneko kultura demokratikoa txertatzen lagunduz, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuneko alardea babesten duela adierazi eta gauzatu eta, azken batean, ideia hori sustatu eta barreiatzen lagunduko duten ekimen guztien alde eginez.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **19/2006 GOMENDIOA, ekainaren 27koa, Irungo Udalari egina**

1. Irungo Udalak herritar guztientzat berdintasuneko jai esparrua lortzeko ardura bere gain har dezala. Horretarako, udalak iragarritako alarde publikoa antola dezala, edo bestela, berdintasuneko alardearen antolaketaren alde egin dezala formalki eta materialki, emaitza hori lortuko duten taldeen alde eginez, eta behar izan daitezkeen neurri positibo guztiak hartuz. Neurri horien artean, berdintasuneko alardeari buruzko iragarkia jasotzen duen jai-egitarauaren banaketa egongo litzateke, udalak deuseztatu nahi izan duena.
2. Udalak tradizionala deritzon alardearen jarduera pribatuari ematen dion babes material edo sinbolikoarekin amaitzea, emakumeen berdintasuneko parte-hartzea oztopatzen duen heinean.



**22/2006 Gomendia, abuztuaren 29koa, Hondarribiko Udalari egina, Alarde publiko ez diskriminatzailearen antolakuntza dei dezan, edo, nolana ere, baimendutako alardean Jaizkibel konpainia mistoa integratzea berma dezan, eta baimena emateko baldintza gisa ezar dezan datorren irailaren 8rako aurreikusitako alardean Jaizkibel konpainia barne hartzea. Ez da onartu.**

Aurrekariak

1. Joana Mugarrietakoa eta Jaizkibel Konpainia kolektiboek, Hondarribiko Alardean emakumeek berdintasunez parte hartzearen aldekoek, kexa aurkeztu zuten erakunde honetan, Udalak 2006ko edizioan Alardea ekitaldi publiko gisa antolatu ez duelako. Era berean, beren kezka azaldu ziguten zenbait pertsonak udal horri 2006ko edizioan alardea era tradizionalan, hau da, emakumeen berdintasunezko parte-hartzerik gabe antolatzeo eginiko eskaeraren inguruan. Horregatik, gure esku-hartzea eskatu zuten 2006ko irailaren 8an Hondarribin emakume eta gizonentzako berdintasunezko alardea egin dadin.

Kexa-idazkian, aurkeztu zutenek planteatzen zuten udal horrek 2006. urteko Alardea Hondarribin gizon eta emakumeen berdintasuna bermatuko duen jai-ekitaldi gisa antolatzea komeni dela. Hala, helburu horrekin, erreklamazio egileentzako garrantzitsua da Udalak bere ardurapeko ekitalditzat hartzea berdintasunezko alardea, gaur egun elkarte pribatu batek antolatzen baitu, eta emakumeei ez baitie berdintasunez parte hartzeo aukerarik ematen. Horrez gain, erreklamazio egileek honakoa planteatzen zuten: antolaketa lan hori udal administrazioaren ardura izateko beharraz haratago, jokoan legoke Hondarribin gizon eta emakumeentzako berdintasunezko alardea sustatu, babestu eta bermatzeko beharrezko diren baliabide politiko eta materialak dituen erakunde publiko baten borondatea.

2. 2006ko uztailaren 10ean, udal horretara jo genuen, emakumeek berdintasunez parte hartzeo aukerarik ematen ez duen *alarde tradizionala* deiturikoa antolatu nahi duten pertsonak ekitaldi publiko antolatzeo eginiko baimen-eskaera zertan den jakiteko informazio eske. Era berean, udalari –alarde antolatzeo legezko betebeharra izan ala ez– galdetu genion zein arrazoi dituen berdintasunezko alarde publiko bat antolatu nahi ez izateko, eta, azken batean, zergatik ez duen alardea ondare publiko gisa berreskuratu nahi, urteetan zehar Hondarribiko herritar guztien ondare izan dena, eta zergatik uzten duen pribatu esku. Horrez gain, 2006an Hondarribin berdintasunezko alardea egitearen aldeko ekintza positiboko jai-politika eratzeo, Udalak, oro har, zein neurri hartu dituen azaltzeo ere eskatu genion.

Gainera, informazio eskaeraren gure idazkian Ararteko erakundearen jarrerari eusten genion gai horri dagokionez. Jarrera hori ongi islatu zen 2005eko alardearen edizioari buruz udal horri bidalitako 15/2005 Gomendioan. Gure gomendioan honakoa egitearen garrantzia nabarmentzen genuen: udalbatzak, berdintasunezko jai-giroa lortzeo bidea bermatze aldera, baimena emateko baldintzatzat ezartzeo berdintasunezko parte-hartzearen kanonetara egokitzeo, edota bestela, gaur egun elkarte pribatu batek antolatzen duen berdintasunezko Alardearen ardura Udalak bere gain hartzeo –gure iritziz azken bide horrek hobeto eta gehiago babestuko luke interes publiko–.

Alde horretatik, alarde tradizional deiturikoa emakumeei berdintasunez parte hartzeo aukerarik ematen ez dien ekitaldi publiko gisa baimentzearen inguruan erakunde honek duen jarrera gogorazten genuen. Baimen hori –udal horrek dakien bezala– diskriminatzailea dela iruditzen zaigu, Eusko Legebiltzarraren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako (BL) 4/2005 Legearen 3.1. b) artikuluari dagokionez, izan ere, ondorio diskriminatzaileak eragiten baititu, eta, horrez gain, Berdintasunerako Legearen 25.1. artikuluko bigarren paragrafoan eta Ikuskizun publikoei eta Jolas jardueri buruzko 4/1995 euskal Legearen 18. artikuluan berariaz debekaturiko jarduera publikoki antolatzeo baitakar.

Bestalde, Alardea antolatzeko ekimena berriro Hondarribiko Udalak hartu behar lukeela adierazi genuen, Udala baita jarduera hori herritarren interesaren mende jarriko dela hoberen bermatzen duena. Eta, hain zuzen ere, herritarren interesen arabera, alde batetik, jai-ekitaldi horrek hondarribitarren ondarea izan behar du –ondare hori babestu egin behar da, horren jabetza ez dezaten partikular batzuek eskuratu– eta, bestetik, berdintasun printzipioa bete behar da, eta, horrekin batera, Hondarribiko biztanle guztientzat, gizon nahiz emakumeentzat, berdintasunezko jai-giroa sortu behar da, non ez den sexuaren araberrako bazterketarik onartzen.

Horrez gain, gure idazkian adierazten genuen Udalak ezin duela bere eskumeneko boterea erabili zenbait administrazio jardueren edo egintzen bitartez Hondarribiko biztanle diren emakumeak gizonen herritarren aldean diskriminatuta egotea eragiten duen jai-politikarekin jarraitzeko. Alde horretatik, hau azaltzen genuen: alde batetik, emakumeak diskriminatzen dituen alardea ikuskizun publiko gisa antolatzea baimentzearekin eta, bestetik, berdintasunezko jai-giroan gauzatuko den alarde publikoa antola dadin ez sustatzearekin, Hondarribiko Udalak berdintasun printzipioaren aurkako jai-eredua prestatzen du, eta Konstituzioaren 9.2. artikulua eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen (Berdintasunerako Euskal Legea) 25.1. artikuluko lehenengo paragrafoa zuzenean urratzen ditu.

Azkenik, Udalarri jakinarazi genion, gure iritziz, Udalak gai honetan duen eskumenak zerikusi zuzena duela Berdintasunerako Euskal Legearen azken manuan jasotako ekintza positiborako betebeharra gauzatzeko moduarekin, baina aukeratutako sistemak, edonola ere, –eta hau administrazio horren eskumeneko alorretik kanpo gelditzen da– herri horretako emakumeekiko diskriminatzailea ez den jai-politika bermatu behar duela. Horregatik, beste behin ere, Udalarri gogorarazi genion Hondarribiko diskriminazio egoera errotik ateratzea helburu duten ekintza positiboko neurririk ez hartzea ez dato-rrrela bat Konstituzioaren 9.2. artikulua eta Berdintasunerako Euskal Legearen 25.1. artikulua lehenengo paragrafoarekin.

3. Gure idazkiaren ildotik, ez dugu Hondarribiko Udalaren erantzunik jaso. Hala ere, eta Udal horri, euskal administrazio publikoek erakunde honek eskatutako informazio guztia emateko duten betebeharrari dagokionez, Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legearen xedapenekiko errespetua eskatzen jarraitu behar izateaz aparte, jarraian zehazturiko gomendioa egin behar dugu, kontuan hartuta kexa-espediente honetan irtenbide bat eman behar dela 2006ko irailaren 8an Hondarribin Alardea egin aurretik. Hori dela eta, Hondarribiko Udalak 2006. urte honetan ere gai honen inguruan alkateak 2005eko ekainaren 9an eginiko elkarrizketa pertsonal batean Arartekoari azalduko jarrera bera izaten jarraitzen duela ulertarazten zaigu. Jarrera hori 248/05 Alkatezaren Dekretuan ere jasota gelditu zen; dekretu horren bidez, 2005eko edizioan, *Alarde Fundazioa* kolektiboari baimena eman zitzaion *alarde tradizionala* deiturikoa antolatzeko, eta, bestalde, baita 2005eko apirilaren 26ko Gobernu Batzordearen Ebazpenean ere, zeinak gaitzetsi egin zuen Udalak alarde publikoa antolatzeko eskaera. Adierazpen guzti horietatik ateratako argumentuak 15/2005 Gomendioan jasota gelditu ziren (gertaeraren 6. aurrekaria), eta haiei lotzen gataizkie. Gure gogoeten artean gai honetako funtsezkoenari helduko diogu berriz ere, eta, beraz, 2006an eginiko informazio eskaeraren erantzunik jaso ez dugunez, aipaturiko argumentazioa hartuko dugu abiapuntutzat.

#### Gogoetak

1. Lehenik, eta beste behin, funtsezko gaiari heldu behar diogu: emakumeek berdintasunez parte hartzeko aukerarik ez duten alardean sexuarengatik diskriminaziorik baden ala ez.

Hondarribiko Udalak, aurtan erakunde honi eskuartean dugun gaiaren inguruko iritzirik azaldu ez dion arren, honakoa planteatzen du gai honetan duen esku-hartze ezaren oinarri gisa –eta ondorio hori atera daiteke 2005. urtean eginiko adierazpenetatik ere, zeinak gomendio honen 3. aurrekarian aipatzen ditugun–: ez dagoela diskriminaziorik, hau da, ez dela Konstituzioaren 14. artikuluan ezarritakoa urratzen, eta, beraz, ezta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen xedapenak ere, emakumeek soilik kantinera gisa parte hartzen duten Alardea antolatzean. Udalak honako arrazoi hauetan oinarritzen du aipaturiko tesia: antolaketa izaera pribatua duela eta, emakumeentzako kalterik edo tratu iraingaririk ez dakarrenez, ez duela arau konstituzionalaren 14. artikuluko berdintasun printzipioa urratzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2001eko alarde tradizionala ikuskizun publikoen eta Jolas jardueren 4/1995 Euskal Legearen esparruan baimentzearen inguruko 588/2002 epaiaren arabera. Hondarribiko Udalaren argumentazio horren azpian dagoena da berdintasun printzipioaren eraginkor-

tasun arintzat hartzea partikularrei dagokionez, eta, bestalde, erabateko eraginkortasuna Administrazio Publikoari dagokionez, hala onartu baitzuten Euskal Atunomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak eta Auzitegi Gorenak –1998ko eta 2002ko beren epaietan, hurrenez hurren-, orduan Udalak ekitaldi juridiko eta publiko gisa antolatzen zuen alardean emakumeek berdintasunez parte hartzeko aukera ukatzen zuen udal administrazio-egintzaren erabateko eskubidearen baliogabetasuna adieraztean. Soilik zentzu horretan, hau da, egintza juridiko eta pribatu bati dagokionez, sostenga dezake Hondarribiko Udalak jurisprudentzia konstituzionalak prestaturiko *justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa* kontzeptua eta aipaturiko Berdintasunerako Euskal Legearen 3.1. c) artikuluan era horretantxe jasota dagoenak egokitasun osoa duela –Udalaren baimenaren menpeko– egintza pribatu batean, zeinak ez lukeen izaera pribatuko beste ekitalde batzuk antolatzea eragotziko, non eta emakumeak beren lerroetan onartuko lituzketen, emakumeentzako iraingarritasun edo duineztasunik gabe. Berdintasunerako Euskal Legearen 3.1. c) artikulua hitzez hitzeko idazkerak, zeinak *justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa* kontzeptu testuala jasotzen duen, Udalaren tesiaren arabera, honakoa berretsiko luke: lege horrek ez duela “*listoi konstituzional*” deiturikoa aldatzen, eta horrek esan nahi du, diskriminaziorik ezean, Hondarribiko Alardearen kasuan, ez dagoela zertan edozein diskriminazio mota deusezteko helburua duten arau horren manuak argudiatu. Hala, Hondarribiko Udalak urtero alarde hori emakumeen erabateko parte-hartzerik gabe, ikuskizun publiko gisa –Ikuskizun publikoan eta Jolas jardueren 4/1995 Legearen esparruan– antolatzeko baimena ematearekin, partikular batzuei jai-ekitaldia era askean antolatzen uzten die; ekitaldia hiriko kaleetan zehar egiten da, egintza hori ulertzeko moduarekin bat etorritik. Beste egintza posible askoren artean bat litzateke hori, eta ez luke eragotziko –hala eskatuz gero– Udalak beste alarde batzuk baimentzea, non eta emakumeek berdintasunez parte hartzeko aukera izango luketen.

Irungo Alardeari buruzko 6/2005 eta Hondarribiko Alardeari buruzko 15/2005 gure gomendioetan luze eta zabal jasotzen da Udalen jarreraren azterketa (bat datoz bi Udalen jarrerak), eta sexuarengatik diskriminaziorik baden ala ez gaiaren inguruan dituzten argumentuak errepikatu behar ditugu, Udalak, antza denez, aurten ere jarrera berberari eusten diola ikusita.

Alarde tradizionalak kantinera gisa ez doazen emakumeak baztertzea ahalbidetuko lukeen justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izan nahiari dagokionez, horri buruz jardun ginen Irungo Alardeari buruzko gure 6/2005 gomendioan, eta honakoa nabarmendu genuen (funtsezko argumentuak azpimarratu ditugu):

“Hala, “abokatuaren txostena” lege honen (berdintasunerako legea) 3.1. c) artikuluan oinarritzen da, zeinak, gizon eta emakumeentzako tratu desberdineko neurriak onartzean, “justifikazio objektibo eta arrazoizko” batean oinarrituta baldin badaude, aurrez Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak eta Giza Eskubideen Europar Auzitegiak garatutako kontzeptua jasoko lukeen, eta hortik –ondorioztatzen du txostenak– dator Berdintasunerako Euskal Legeak listoi konstituzionala aldatu ez izana, eta, beraz, indarrean jarraitzen da arau horren aurretiazko esparru juridikoak, non eta Udalak goian aipaturiko agindu bikoitzarekin bete beharrik gabe jardun dezakeen.

Adierazi behar dugu “*justifikazio objektibo eta arrazoizkoa*” kontzeptua baliagarri zaiela doktrinari eta jurisprudentzia konstituzionalari definizio murriztaile bidez esparrua mugatzeko, eta, bertan, tratu desberdina izan daiteke gizon eta emakumeentzako, horrekin Konstituzioaren 14. artikulua urratu gabe. Doktrina eta jurisprudentzia horiek kontzeptu hau garatu dute salbuespen gisa eta behar bezala oinarrituta sexuatariko batentzako tratu desberdineko neurriak onartzeko eta, bereziki, ekintza edo diskriminazio positiboko neurriak onartzeko; horien helburua gizartean gutxietsita dagoen emakumeen kolektiboaren alde egitea da, gizonen alde baino gehiago emakumeen alde egiten duen tratua dakarten neurriak justifikatzeko. Neurri horiek modu objektiboan eta arrazoizkoan justifikatu behar dira, tratu berdintasuneko arau orokorraren salbuespenak baitira. Alardeetan emakumeak, emakume direlako soilik, baztertzearen kasua ezin da inolaz ere kontzeptu horrekin lotu, ez baitu hori justifikatzeko moduko oinarri objektiborik. Berez, horretarako ahalegina baztertu egin zuten administrazioarekiko auzietako prozesuetako auzitegiek (ikus Udalaren eta alarde tradizionalaren aldeko “Irungo Betiko Alardearen Aldekoak” alderdi laguntzailearen defentsaren idazkiak, Auzitegi Gorenaren Irunerako 2241/1998 kasazio-errekurtsoan), eta gerora ez du balio izan Alardearekin loturiko erabaki judicialik oinarritzeko. Berdintasunerako Euskal Legearen 3.1. c) artikuluan kontzeptu hori aipatzen da manu horren goiburuan adierazten den tratu berdintasuneko edota diskriminaziorik gabeko arauaren salbuespenetat hartzeko justifikazio gisa, eta, horrez gain, ekintza positiboko neurriei dagozkien bi kasu ere jasotzen ditu. Adierazgarria da, edonola ere, Udalak inola ere ez azaltzea, jaso ditugun idazkietako bakar batean ere, zertan datzan Irungo Alardean emakumeak baztertzeko justifikazio objektibo eta arrazoizko hori.

Nolanahi ere, 4/2005 Euskal Legeak, jakina denez, ezin du inoiz jaitsi legegilearentzat ezinbestekoa den eta Udalaren txostenean aipatzen den berdintasun konstituzionalaren "listoi konstituzionala", baina bai –eta horixe da, hain zuzen, bere eginkizun nagusia– printzipio konstituzional hori erabateko eraginkortasunerako nola eratu behar den zehaztu, lege araubideko betebeharrak zehatzak ezarri, eta, hartara, legeriko parametro berri eta beharrezkotzat jarri eta, horregatik, epaitzekoa, doktrinarako eta jurisprudentziarako. Horrela, ez Irungo Udala, ez lege araubide horren hartzaile diren botere publikoak ezin dira berdintasun printzipioaren zehaztasun faltaz baliatu, zeinaren birtualtasuna ahalmen eta eskubide guztien berri ematea den, baina, hain zuzen ere horregatik, ez du lege garapen organiko zehatzik, gainerako oinarriko eskubideen kasuan gertatzen den bezala. Etorkizuneko jurisprudentziak ere bere kontzeptuak lege honen xedapenetara egokitu behar izango ditu, zeinak ezin duen inolaz ere Konstituzioan ezarritakoa mugatu, baina bai zehaztapen konstituzionalak gauzatzeko modu zehatzak finkatu.

Berdintasunerako Euskal Legeak, etorkizunean autonomia edo estatu esparruan eman daitezkeen berdintasunerako beste legeek bezala, lehentasunez botere publikoei zuzenduriko betebeharrak, baina baita partikularrei zuzendurikoak ere, eratzeko xedea izaten dute, materializazio eraginkorra bermatze aldera, hau da, ordenamendu juridikoan, konstituzionalean, Europako Batasunean eta Nazioartekoan ezarritako gizon eta emakumeen arteko berdintasuna benetan gauzatzeko, erakunde publiko guztiek aktiboki garatu behar duten prozesuaren azken emaitza gisa. Betebeharrak araubidea sortuz geroztik, hartzaileei hori betetzea exijitu behar zaie, eta hori da berdintasunerako euskal legeak Udalarari Alardearen inguruan duen jarreraren ildotik ekartzen dion elementu berria, modu jakin batean jokatzera behartua izateko aukera, ez badu ordenamendu juridikoaren arau-hauste bat egin nahi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 62. eta 63. artikuluetan ezarritako dagokion isuna ondorio duela.

(... ..)

Bestalde, gure 15/2005 gomendioan Hondarribiko Udalarari honako hausnarketaren berri eman genion emakumeek berdintasunez parte hartzeko aukera ukatzen duen alardea egiteko Udalak emaniko baimena dela eta:

Erakunde honek –erakunde publikoek beren jardueran kontuan eduki beharreko oinarri juridikoak aztertzeko xedez– prestaturiko "Berdintasunerako Legearen azterketa dokumentua" n jasotzen den bezala, lege hori aldarrikatuz geroztik, Hondarribiko Udalak Alardea modu tradizionalan, hau da, emakumeen berdintasuneko parte-hartzerik gabe antolatzeko baimena ematea, gure iritziz, zeharkako diskriminazio ekintza bat da aipaturiko legearen 3.1. b) artikulua zentzuan, eta arau horren 25.1. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa zuzenean urratzen du. Horregatik, gure ustez, ekintza hori erabateko eskubidearen baliogabetasunaren pean erortzen da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 62.1. a) artikulua arabera.

Berdintasunerako Euskal Legearen 3.1. artikulua, botere publikoen jardura zuzendu eta orientatu behar duten printzipio orokorren artean, tratu berdintasunaren printzipioa ezartzen du, eta printzipio horren urraketek dagokien bi kategoria bereizten ditu: zuzeneko diskriminazioa [3.1. artikulua a) idatz-zatia] eta zeharkako diskriminazioa [3.1. artikulua b) idatz-zatia], eta hauxe dio, hitzez hitz:

### **"3.1. Artikulua - Tratu berdintasuna**

*Debekatuta daude pertsonen sexuan oinarrituriko diskriminazio mota guztiak, bai zuzenekoak, bai zeharkakoak, horretarako erabiltzen den bidea edozein izanik ere.*

*Lege honen ondoretarako:*

(...)

*b) Zeharkako diskriminazioa egongo da itxuraz neutrala den egintza juridiko, irizpide edo praktika batek sexu bereko kide gehienei kalte egiten badie, eta egintza juridiko, irizpide edo praktika hori egokia eta beharrezkoa ez bada, eta sexurekin loturarik ez duten irizpide objektiboekin justifikatu ezin bada.*

Manu horren arabera, zeharkako diskriminazioko neurri baten aurrean geundeko tratu berdintasunaren haustura esplizituki dagokion egintzan edo xedapenean egiten ez denean –zeinak itxurazko neutraltasuna agertuko lukeen-, baizik eta egintzaren edo xedapenearen ondorioetan.

Lege bereizketa horrek ikuspegi berri bat dakar Administrazioaren egintza juridiko bat egintza diskriminatzaile gisa kalifikatzeko orduan. Hondarribiko Udalak emakumeak baztertzan dituen Alardea baimentzeko egintzaren legaltasunaren azterketa, beraz, parametro berri baten menpe jarri behar da, eta egiaztatu egin behar izango da ea egintza administratibo horrek ondorio diskriminatzaileak dakarren ala ez. Hori izan zen, Hondarribiko Alardeari dagokionez, Auzitegi Gorenak 2002ko irailaren 13ko bere Epai irmoan iritzi zuena, 2239/1998 kasazio-errekurtsoan (ikus, era berean, Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 19ko Epaiak, Irunerako 2241/1998 kasazio-errekurtsoan), epaitzeko helburua, zalantzarik gabe, Udalaren egintza bat, hau da, administrazio egintza bat zenean. Euskal Atunomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 588/2002 Epaiak, Hondarribiko Udalak Alarde Fundazioari emaniko baimenaren balioa oinarritzeko orain aipatzen duenak, ez du auzipetzen zeharkako diskriminazio kontzeptuaren arabera, orduan ez baitzen idatzizko eta kasu honetan zuzenean aplikatzeko araurik, eta epaitzeko helburua baimentzearen menpeko jarduera pribatura aldatzen du. Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu Udalak aipaturiko ebazpena ez dela irmoa, Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztu baita, eta oraindik erabakia hartzeko baitago, oinarritzeko eskubideak urratzen dituzten ikuskizun publikoak debekatzearen eraginkortasunaz, zeina Ikuskizun publikoen eta Jolas jardueren 4/1995 Euskal Legearen 18 a) artikuluan jasota dagoen, Konstituzioaren 14. artikulurekin lotuta.

Hondarribiko Udalak puntu horretan planteatzen du baimen ematea partikularren esparruan proiektatzen dela, eta partikular horiek direla emakumeen berdintasuneko parte-hartzerik gabeko Alardea antolatzen dutenak, eta ezin dela hori inolako diskriminaziotzat hartu, berdintasun printzipioa esparru pribatuan gordeta gelditzen baita, Alardea osatzea emakumeentzako duineza edo iraingarria ez den heinean. Ez gara azken hori –antza, Udalak, aipatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaitik, ondorio hori atera du– eztabaidatzen hasiko, nahiz eta uste dugun tesi hori ezin dela behar bezala sostengatu doktrina konstituzional sendo eta homogeneo batean, Auzitegi Konstituzionalak berak hainbat epaitan jaso baitu Bundesverfassungsgericht-en (Auzitegi Konstituzional alemaniarra) “Drittwirkung” deituriko doktrina, edo oinarritzeko eskubideen erabat aurkakoa izatea partikularrei dagokienez. Aldiz, honako hau nabarmentzea interesatzen zaigu: Hondarribiko Udalak Alardean emakumeak baztertzan dituztenei emaniko baimena Berdintasunerako Legearen 3.1. b) artikulua definitzeko parte den egintza gisa, hau da, zeharkako diskriminazioko egintza gisa hartzeak eztabaidaren eta, beraz, epaitzeko helburuaren gunea berriz ere egintza juridiko publikoaren balioan edo baliorik ezean kokatzen du, eta hortik datoz emakumeentzako ondorio diskriminatzaileak. Beraz, horrek berdintasun printzipioaren proiektzioa berriz ere jatorriz Alardean gain sortzen den esparrura eramatera garamatza, hau da, esparru publikora, soilik –ez dezagun ahaztu– hain zuzen ere emakumeak Alardean hartzeko betebeharra (Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 13ko Epaiaren ondorioa) berariaz saihesteko abandonatua. Alde horretatik, baketsua da berdintasun printzipioak erabateko eraginkortasuna izatea botere publikoei dagokienez.

Udalak alarde tradizionalaren antolatzaileei eman dien baimenari zuzenbidez haratagoko baldintzak (conditio non iuris) inposatzeko ezintasuna ere aipatzen du. Komeni da gogoraraztea gauzatu nahi den jarduera ordenamendu juridikora egoki dadin bermatzea eginkizun nagusitat duten gaikuntza juridikoak direla baimenak. Alardearen kasuan, Udalak, ahal izateaz gain, baimena emateko baldintza gisa ezarri behar du emakumeek berdintasunez parte hartu ahal izatea, eta oinarritzeko eskubideak errespetatu daitezela exijitu behar du. Baldintza hori ez da inolaz ere conditio non iuris, baizik eta gutzit kontrakoa; sistema juridikoaren oinarriari berari eragiten dion oinarritzeko legaltasun baldintza da, berdintasuna oinarritzeko eskubideak den aldetik. Gai hori azpimarratzen du zuzenean Berdintasunerako Legearen 25.1. artikuluko bigarren paragrafoak. Xedapen hori Alardeari dagokio bete-betean, eremu publikotik igaroz, emakumeei berdintasun baldintzetan parte hartzeko aukera ukatzen dien kultur ekintza gisa, eta antzeko jarduera baten debekua jasotzen du:

*“Debekatua dago eremu publikoan emakumeei gizonen berdintasun baldintza berberetan parte hartzeko aukera ukatzen dieten edo eragozten dieten kultur jarduerak antolatzea eta egitea”.*

(...)

Azalduriko arrazoiak direla eta, Arartekoaren iritziz, Hondarribiko Udalak Alarde Fundazioa erakundeari emaniko baimena ordenamendu juridikora egokitzeko betebeharrak legala du, eta bereziki 4/2005 Legearen 3.1. b) eta 25. 1. artikuluetan jasotako exijentziak, eta eskaera egiten duten pertsonen ekitaldian emakumeen ere berdintasunez parte hartzeko aukera ematea exijitu behar die, eta, baldintza hori bete ezan, ez die baimenik eman behar.

Horregatik guztiagatik, laburbilduz, gure desadostasuna baieztatu behar dugu Udalak *alarde tradizionala* izeneko babesteko duen jarrerarekiko. Udalak jarrera hori hartzerakoan oinarri gisa hartzen du *tradizional* izendapena duen alardea ahalbidetzen duen udalaren jarduera ez dela emakumeentzat eragin diskriminatzaileak sortzen dituen jarduera bat. Hortaz gain, esan behar dugu jaiak antolatzeko Udalak aurrera eramaten duen jarduera ezin dugula epaitu, baldin eta ez badugu kontuan hartzen Udalak erabat urruntzen duela bere burua jai horien ekitaldirik garrantzitsuenean emakumeek berdintasunez parte har dezaten aktiboki erraztu, bultzatu, sustatu eta laguntzeko orduan. Emakumeen parte-hartze hori emakumeen kolektibo batzuk soilik sustatzen dute, Udalaren inolako laguntzarik gabe, eta alardetik bereizita ikusten da beren parte-hartzea, Jaizkibel konpainia mistoaren bitartez, berdintasunezko alarde bat sortu ahal izateko berau osatzen duten emakume eta gizonen konpromiso ausartari esker. Pertsona horiek ez dute Udalaren inolako babesik jasotzen, eta Udalak, horrela, emakumeentzako berdintasunik gabeko alardeari mesede egiten dio. Hori dela-eta, beharrezkoa da Udalak honako baldintza hau jartzea: alarde tradizionala antolatzen dutenek hori egiten jarraitu ahal izango dute baldin eta datorren irailaren 8rako aurreikusitako ekitaldian Jaizkibel Konpainiak parte hartzea onartzen badute.

2. Bigarrenik, zehaztasun handiagoz jorratu behar dugu **Hondarribiko Udalak herriko jaiak antolatzeko rakoan hartu behar duen papera botere publikoa den heinean, udalari hortako herritarren berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko orduan.**

Izan ere, hori sustatzea betebeharrak konstituzional orokorra da, eta Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan arabera, botere publiko guztiei eragiten die. Gainera, betebeharraren sendotasuna are handiagoa eta zorrotzagoa izango da diskriminazio guztiarentzako bistakoa eta ezaguna denean, eta hori da, hain zuzen, gure gaiaren kasua. Ondorioz, Hondarribin emakumeen diskriminazio egoera pairatzen dela ikusirik eta egoera hori euskal gizarte guztiak bertako erakunde garrantzitsuenean bitartez, hala nola, Eusko Legebiltzarra, ezagutzen duenez, Berdintasunerako Euskal Legeko xedapenak guztiz eraginkorrak dira. Xedapen horien helburua da betebeharrak konstituzional hori zehaztea, eta horretarako, dauden oztopoak aktiboki ezabatuko dituzten jarduera positiboko neurriak ezarri behar dira erabateko berdintasuna lor dadin.

Hondarribiko Udalak arau horretan ezarritako ekintza positiboko neurriak ez duela behar uste du, orain arte ezer ere egin ez duela ikusirik, ezabatu beharreko diskriminazio-egoerarik ez dagoela ulertzen baitu. Hala, jaiak emakumerik gabe ospatzea ahalbidetzen duen isiltasun aktiboko jarrera bat hartzen du Udalak, eta udalerriko zaindariaren jaiak antolatzen paper aktibo eta protagonista izan nahi duten emakumeak urtero-urtero festetako ekitaldi nagusitik at gelditzera kondenatzen ditu. Hori, finean, herritar gisa pairatzen duten bazterketaren adierazpen sinbolikoa da.

Behin baino gehiagotan adierazi dugu dagoeneko erakunde honen iritziz Alardea antolatzeko ekimena Hondarribiko Udalak hartu beharko lukeela berriro, Udala baita jarduera hori herritarren interesaren mende jarriko dela hoberen bermatzen duena. Eta, hain zuzen ere, herritarren interesen arabera, alde batetik, jai-ekitaldi horrek hondarribitarren ondarea izan behar du –ondare hori babestu egin behar da, horren jabetza ez dezaten partikular batzuek eskuratu– eta, bestetik, berdintasun printzipioa bete behar da eta, horrekin batera, Hondarribiko biztanle guzti-guztientzat berdintasunezko jai-giroa sortu behar da, non ez den sexuaren araberako bazterketarik onartzen.

Gure aburuz, berdintasunean oinarritutako jaiak ahalbidetzeko lege-betebeharra, hasiera batean, Konstituzioaren 9.2 artikulutik eratorzen da. Betebeharrak hori, gero, Berdintasunerako Euskal Legeak zehetasun handiagoz garatzen du, kulturaren eremuan emakumeen diskriminazioarekin amaitzeko ekintza positiboak abian jartzea botere publikoentzat baitezpadakoa dela jasotzen baita, eta, horrela, euskal administrazio publikoen lege-parametroak zehazten dira.

Beste alde batetik, Arartekoak uste du Udalak bere eskumeneko boterea gaintzen duela Hondarribiko biztanle diren emakumeak gizonezko herritarren aurrean diskriminatuta egotea eragiten duen jai-politika-rekin jarraitzen badu administrazioak egiten dituen jarduera edo ekintzen bitartez. Hondarribiko Udalak

emakumeak diskriminatzen dituen alardea ikuskizun publiko gisa antolatzea baimendu eta berdintasunezko jai-giroa osatuko duen alarde publikorik ez duenez antolatzen, berdintasun printzipioaren aurka doan jai-eredua proposatzen du, Konstituzioaren 9.2 artikulua eta Berdintasunerako Euskal Legeko 7 1) eta 25.1 (lehen paragrafoa) artikulua zuzenean urratzearekin batera.

7 1) artikulua, diskriminazio egoerak atzematen direnean, egoera horiek erazteko beharrezko neurriak hartzea behatzen ditu udalak. 25.1 artikuluko lehen paragrafoan egin behar honetaz hitz egiten da: “*beharrezko neurri guztiak hartu behar dira sexua dela eta edozein motatako diskriminazio saihesteko eta kultur jarduera guztietan emakumeen eta gizonezkoen arteko parte-hartze orekatua sustatzeko*”. Manu horietan, azken batean, Hondarrabiko Udalak berdintasunezko jai-politika garatzeko beharrezko neurriak zehazteko duen betebeharra jasotzen da, eta ezinezkotzat jotzen da udalek berdintasunezko jai-giroa ezartzea bilatzen duten gizarte-ekimenak bultzatzen dituzten jarduerak egiteko inolako neurririk ez hartzeko polika garatzea. Hondarrabin bizi den diskriminazio-egoeraren gisakoak luzatzea edo betikotzea eragingo lukeen jai-politika egiteak eskumeneko boterearen mugak gainditzea ekarriko luke. Eskumeneko botere horiek, oro har, kultur arloko politikaren inguruko udal jarduerak babesten dituzte.

Udal horrek arlo honetan duen eskumenaren barruan, manu horretan jasotako betebeharra nola gauzatu behar duen ere sartzen da, baina aukeratutako sistemak, edonola ere, herri horretako emakumeentzat jai-politika ez diskriminatzailea bermatu beharko du, eta hori administrazio horren eskumenen eremutik at dago. Jaizkibel Konpainia mistoa pertsona pribatu batzuen ekimenari esker sortu zen Hondarrabin, eta konpainia hori da, hain zuzen, datorren irailaren 8an emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zati batean eta zailtasun handiekin bermatu dezakeen jai-elementu bakarra. Pertsona horiek, gainera, berdintasuna bermatzea zailtzen duten oztopoak kentzeko orduan Udalaren babes faltaz gain, beren lan aipagarri eta demokratikoa bultzatzeari udal horrek egiten dien berariazko bazterketarekin egiten dute topo.

Oinarrizko eskubideak bermatzen dituen erakunde honek berriz ere adierazi behar dizu inibizio hori ez datorrela bat Konstituzioaren 9.2 artikuluan eta Berdintasunerako Euskal Legeko 7 1) eta 25.1 (lehen paragrafoa) artikuluetan xedaturikoarekin.

Erakunde honen iritzi, Hondarrabiko Alardearen antolaketa atzera Udalak berreskuratzea berdintasunezko jai-eremua bermatu ahal izateko aukera bereziki gomendagarria da, oso ondo lotuko bailitzateke jai-tradizioarekin, zeina, hain zuzen, eten egin zen Hondarrabiko alardean berdintasun baldintzetan emakumeek parte hartzeko beharri irizuri egiteko (garai hartan Hondarrabiko Udalak antolatzen zuen alardea). Behar hori, lehenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1998ko Epaietik eta, ondoren, 2002ko irailaren 13ko Justizia Auzitegiaren Epaietik eratoritzen da. Alarde publikoa berreskuratzeak tradizio bat berreskuratzea esan nahi du, berdintasun-eremu bat positiboki gaitzea, bai eta nagusitu den desberdintasunarekin amaitzeko neurri positibo bat aktibatzea ere, eta, hala, salbuespenik gabe, jurisdikzio-organu gorenaren agindua beteko litzateke azkenean.

Gai hori bera jorratu genuen gure 15/2005 gomendioan, eta hau aipatzen genuen gai horri buruz zehazki:

“(…) Udalarri dagokio, hain zuzen ere, Hondarrabiko jai-politikaren esparruan **betebehar hori nola gauzatuko den erabakitzea, betiere aukeratutako sistemarekin emakumeentzako jai-politika ez diskriminatzailea bermatzen bada**. Gure ordenamendu juridikoan, baina, Hondarrabiko alkateak gauzatzen duen egungo jai-politika ez da inolaz ere ontzat hartzen, emakumeak baztertzan dituen alardea ospatzea baimentzen baitu eta jaietan Hondarrabiko emakumeek berdintasunez parte hartzea ahalbidetzen duen neurririk ez baitu martxan jartzen.

Horregatik, hain zuzen, Hondarrabiko Udalak 2005erako jai-eredu zehatz bat itxuratu du dagoeneko Alkatezaren ebazpenaren bitartez, zeinak alarde tradizionala baimentzen duen; hortaz gain, alarde publiko bat antolatzeko ardurari uko egiten dio. Bi ebazpenen bitartez emakumeak diskriminatzen dituen jai-politika ari da gauzatzen. Izan ere, formalki autonomoak diren jarduerak martxan jarri dira, baina, egiazki, “*continuum*” bat osatzen dute jarduera horiek, helburu eta eduki bakar bati loturik baitaude: Hondarrabiko jaiak ospatzea, baina emakumeek alardean berdintasunez parte har dezaten saihestea. Horren atzean Udalaren jarduera nabari daiteke, ez soilik jarduera pasiboa oztopoak kendu eta gizonen eta emakumeen artean erabateko berdintasuna ahalbidetzeko neurriak abiarazteko unean (4/2005 Legeari jarraiki), baizik eta helburu hori duen edozein ekimen aktiboki oztopatzen duen jarrera hartzen du Udalak.

Udalak egiten duen jai-politika diskriminatzailea da eta, ondorioz, legearen kontrakoa, eta ez dago administrazio-eskumenaren printzipioaren atzean babesterik, izan ere, aukera ezberdinen artean hautatzeko Udalak duen askatasuna ez da iristen diskriminazioa betikotzea eragiten duen aukera arte. Aukera hori Zuzenbidearen kontrakoa da eta, arrazoi hori dela bide, Alkatetzaren ebazpenak aldatu nahi diren aukera politikoaren eremutik at gelditzen da.

Bada, oinarritzko eskubideak errespetatzen dituzten jaiak gauzatzeari begira, Arartekoak behin eta berriz proposatu du **alardearen antolakuntza Udalak berreskuratu behar duela ekitaldi publiko gisa, hori baita, gure iritziz, jai ospakizunetan berdintasuna lortzea hobe bermatuko duen neurria eta, hortaz gain, herritar guztiei dagokien ondarea berreskuratzea bermatuko duena**. Bide hori, gainera, Hondarrabiko historiari eta jai-tradizioari estuki lotuta egon da eta ordura arte bere egin beharra izan zenari Udalak uko egin zionean soilik hautsi zen. Hala, garai hartan publikoa zen alardean emakumeen parte-hartzea bermatzeko auzitegiek jarritako betebeharra saihesteko nahia agerian jarri zuen Udalak.

Oraindik ez du azaldu Udalak zein den arrazoa alardea herri ospakizun gisa berriro antolatu nahi ez izateko, legezko betebeharra ba ote dagoen edo ez dagoen eztabaidatit at, eta zergatik erabaki duen herri alardearik ez antolatzea eta zergatik uzten duen pribatuen eskuetan urteetan herritar guztien ondarea izan dena. Udalak bere jarrera defendatzeko motibaziorik edo arrazoirik ez duenez, ondorioztatu behar dugu udal horrek horrela jokatzeko badu –eta zaila litzaioke benetan zergatia argi eta garbi adieraztea–, herri Alarde baten esparruan, Hondarrabiko emakumeei berdintasunez parte hartzeko aukera eskaini behar izateari aurre egin nahi ez diolako dela.

Haatik, Hondarrabiko Udala herriko ospakizun nagusiaren antolakuntza pribatuen eskuetan uztea aukeratzen ari dela ikusirik, berriz ere gogoratu beharra dago udal administrazioa ez dela horregatik jaien antolakuntzan berdintasun printzipioa bermatzeko beharretik at gelditzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 1999ko urriaren 7ko Epaian aipatu zituen polizia-eskumenak erabili behar dituela, kasu honetan, bete egin behar duela Berdintasunerako Euskal Legeko 25.1 artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren buruzko Euskal Legearen 18. artikuluan ezarritako agindua.

Hondarrabin, emakumeen eta gizonen parte-hartze parekatua defendatzen duen ekimen herritarra konpainia misto baten eraketaren bidez gauzatu da (Jaizkibel Konpainia), herriko emakumeei berdintasunean oinarritutako eremu bat ahalbidetzen dien formula errealista dena. Aldi baterako edo behin-behineko tresna gisa sortu da konpainia, emakumeak alarde osoan, hau da, konpainia guztietan eta beste unitate guztietan, erabat sartzea pixkanaka lortuko den arte balioko duena. Udalak, beraz, berak baimendutako Alardeen konpainia misto horrek parte har dezan bermatzeko aukera dauka, baina berau baimentzeko aukera izango du baldin eta irailaren 8rako aurreikusitako den alardean Jaizkibel Konpainia onartzen bada. Hartara, gero eta hobeto elkar ulertzeko bidea abiaraziko luke, bada gainerako konpainia eta unitateak ekintza hortatik ez bailirateke kaltetuta aterako. Udal sinestarazio nahi digu Hondarrabiko kaleetan zehar igarotzen den jaia eta Hondarrabiko herritarrek beren kultur nortasunaren adierazgarri gisa hartzen duten gertakari historikoa ospatzen duen jaia pertsona multzo baten –jaiaren antolatzaileen– ondare pribatutzat jo daitekeela, eta Udalak –horretan babestuz– Alardean esku hartzeari utz diezaiokeela, nahiz eta horrek funtsezko legezkoatasuna larriki urratzen duen. Jai-politika eta bere gauzatzeko zehatz udalaren eskumen dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu behar du eskumen horrek; betebehara hori ez betetzea oinarritzko eskubideak urratzen dituen administrazioaren jardura ez da.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren arabera, Hondarrabiko Udalak nahitaez berdintasuneko eremu bat ahalbidetuko duen jai-politika egin behar du bere herriko biztanleentzat, emakumeentzat nahiz gizonentzat. Hori gauzatzeko alarde publiko ez diskriminatzailea deitu dezake –biderik onena, erakunde honen ustetan– edo Udalak irailaren 8rako baimendu duen Alardean Jaizkibel Konpainia sartzea ahalbidetu diezaioko herritarren ekimenari. Konpainia horren parte-hartzeak udal horren berriarazko laguntza formal eta material nahikoa izan beharko du gauzatzeko eraginkorra bermatu dadin.”

Aurreko testuan azpimarratu genuen alardearen antolakuntza ekitaldi publiko gisa ez berreskuratzeke Udalak aintzat hartu dituen arrazoiak zein izan diren oraindik ez dituela azaldu. Tamalez, behaketa hori errepikatu egin behar dugu, aurten ere ez baitigut Udalak inolako arrazoirik eman alardea ekitaldi publiko



gisa ez antolatzeko, zehazki hortara behartzen duen arau juridikoetatik haratago. Hala bada, erakunde honi oraindik ez dio argitu Udalak zergatik hartzen duen hobetzat gaur egungo egoera interes orokorarentzat, kontuan hartuta emakume batzuk, hala nahi dutenek, ezin dutela oraindik herriko gizonezkoek bezala beren festaz gozatu; eta hori, dudarik gabe, herritar gisa dituzten eskubideen mugatze bat da, sistema demokratikoetan guztiz onartezina dena.

Udalak alardea ekitaldi publiko gisa ez antolatzea erabakitzen duen kasuan, *tradizional* deituriko alarde baimenduan Jaizkibel Konpainiak parte har dezan bermatu beharko du edonola ere. Baina, ororen gainetik, gure aburuz onartezina dena Udalaren inhibizio jarrera da. Emakumeen bazterketa eta diskriminazio egoera baten aurrean, datorren irailaren 8an berdintasunezko jai ospakizuna lortzea lagun dezaketen ekimenak esplizituki eta ausardiaz bultzatzea udal horrek duen betebeharraren parte da, botere publiko gisa berdintasuna sustatzeko duen betebeharraren parte. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu, halaber, *alarde tradizional* deiturikoari laguntza material edo sinboliko oro ematea saihestea, Jaizkibel Konpainia alardean sartzea bultzatzen ez duen bitartean, behinik behin.

Herritar guztiak maila berean –sexuarengatik bazterketarik gabe– barne hartzen dituen festak antolatzeko udalerriko botere publikoaren borondate esplizituarekin soilik alda daiteke gaur egun Hondarribin dagoen egoera. Udal erakunde horren esku dago berdintasunezko kultura demokratikoa ezartzea erraztuko lukeen aldaketa-prozesu bat martxan jartzeko papera hartzea helburu hori lortu ahal izateko. Era berean, emakume eta gizonentzat berdintasunezko alardeari bultzada ematen diotela adierazi eta laguntza eman beharko liokete garbiri eta, ondorioz, ideia hori sustatu eta zabaltzen duten ekimen guztiak lagundu beharko lituzkete.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **22/2006 GOMENDIOA, abuztuaren 29koa, Hondarribiko Udalari egina**

Hondarribiko biztanleentzat, emakumeentzat nahiz gizonentzat, berdintasunezko eremu bat ahalbidetzea ekarriko duen jai-politika egitea. Horretarako bi bide aurreikusten dira: alarde publiko ez diskriminatzailea deitzea –bide onena, erakunde honen iritziz– edo, hala badagokio, datorren irailaren 8rako Udalak baimendu duen alardean Jaizkibel Konpainiaren parte-hartzea bermatuko duen bitarteko material eta formalak jartzea, alarde tradizional deiturikoa ospatzeko emandako baimenean ekitaldian emakumeek berdintasunez parte hartu ahal izan dezaten baldintzarekin.

**28/2006 Gomendia, abenduaren 27koa, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari egina, Donostiako gas fabrika zaharrea kalifikaturiko ondasunak ezarrita dauden babes-irizpideei jarraiki gordeko direla berma dezan.**

Aurrekariak

1. Adierazitako erakundeak Arartekora jo zuen bere kezka agertzeko Donostiako Udalaren aurreikuspenen gainean –egun, hura da Gas Fabrikako instalazioetan kokaturiko instalazioen jabea–. Antza, udaleko zentral elektrikoaren eraikinaren eta gasomotorraren egungo kokapenak aldarazi nahi ziren.

Elementu horiek espresuki jaso zituen Eusko Jaurlaritzak abenduaren 10eko 290/2002 Dekretuan ezarritako babes erregimenaren baitan. Ondorioz, kultura-ondasun gisa kalifikatu ziren, monumentu mailan, Udal Fabrikari kokaturiko gasometroa eta gasomotorra.

Halaber, ondare eta kultura balioko elementu horiek babesteko beharra Donostiako Udalak berretsi du udaleko planeamenduan, Hiri Antolamendurako Egitamu Orokorraren (HAEO) aldarazpenarekin –Gipuzkoako Foru Aldundiak 1999ko maiatzaren 11n behin betiko onarturikoa–. Une horretatik aurrera, gasometroa, gasomotorra eta zentral elektrikoaren eraikina gprdetzeko betebeharra erantsi zen, Eusko Jaurlaritzak kultura-ondasuntzat behin behineko kalifikaturiko elementuak baitira. Horrekin batera, udalak multzo berean kokaturiko bulego eraikina babesteko borondatea ere zehaztu zen. Planeamenduak beharrezkoa dela dio elementu horien babesa eta jarduketa esparru horretan kokatuko den ikastetxe berriaren kokapena bateratzea. Halaber, ekimen publikoko 500 etxebizitza eraikitzea aurreikusi zen. Ondorenean, HAEOa aldarazi egin zen –2005eko uztailaren 26an–, eta horren xedea etxebizitza kopurua 584ra igotzea izan zen (Basozabaleko eremuan babes ofizialeko etxebizitzaren parametroekin betetzeko). Edonola ere, lehen adierazitako antolamendu irizpideak mantendu egin ziren.

Zentzu horretan, HAEOaren azken aldarazpenak AM 09 Morlans Beherako eremuaren Barne Erreformatarako Plan Berezia (BEPB) jaso zuen eranskinean –behin betiko onartua 2003ko urtarrilaren 13an–. Garapen plan horrek bulego eraikinaren eta zentral elektrikoaren sendotzea mantentzen ditu, eremu horretako hirigintza antolamenduko irizpide gisa. Gasomotorra eta gasometroa ere antolamendu berria gorde beharreko elementutzat ezartzen dira, balio kultural garrantzitsua dutelako. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari elementu horiek kontserbatzeko modua defini zezatela eskatu behar zitzaie zehaztu zen.

la aldi berean, 2003ko otsailaren 28an, Udalak BEPBaren “testu eraldatua” aurkeztu zuen. Dokumentu hark plan bereziko gas fabrikaren partzelari buruzko zehaztapenak zuzendu zituen eta abenduaren 10eko 290/2002 Dekretuarekin bat etorri, euskal filmotekaren proiektura egokitu zuen (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin koordinatuz garatutako proiektua). Horretarako, G-2 partzela erantsi zen ekipamendu komunitario gisa. Bertan, gordetzeko gai gisa, zentral elektrikoaren eraikuntza –egin beharreko jarduerak kultura-ondasunaren kalifikazioari buruzko dekretuan zehazturikoak dira– eta bulego eraikineko elementu esanguratsu batzuk zehaztu ziren.

Azkenik, Donostiako Udalak Morlans eremuko BEPBa berri ere aldarazi zuela antzeman genuen. Dokumentu horren behin betiko onarpenak –zuzenketa teknikoko zuzenkizun bidezkoa– BEPBaren aurreko testuaren antolamenduko zehaztapenak mantentzen ditu G-2 partzelan. Aitzitik, lehenengo aldiz eremu horretan bildutako kultur ondareko elementuak lekuz aldatzeko aukera jasotzen du, betiere, bi baldintza betetzen badira: eremu horretarako aurreikusitako ikastetxearen kokapenarekin bateraezina izatea, eta eskumenak dituen kultura administrazioaren aurretiko baimena izatea, 290/2002 Dekretuak ezarritako

moduan. Erakunde honek jakin ahal izan duena kontuan hartuta, ez dirudi Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari BEPB berria helarazi zaionik, ezta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denik ere.

2. Aurkezturiko erreklamazioari dagokionez, informazioa eskatu genien bai Donostiako Udalarri, bai Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari. Horren bidez, adierazitako monumentuaren babes erregimenari eta, ondorenean lekuz aldatzeko, desmuntatu eta eraikinaren eraispena aurreikusten dituen antolamenduarekiko bateragarritasunari buruzko informazioa lortu nahi genuen.

- 2.1. Donostiako Udalak, hasiera batean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eginiko eskaeraren berri eman zigun, hark zentral elektrikoaren eraikinaren eta gasomotorraren lekualdaketa baimen zezan inguruko kokapen batera, hirigintza partzela berdinarean barruan. Horretarako arrazoia egun ondare hori jasotzen duen partzela ikastetxeko ekipamendu gisa kalifikatzea izan zen, ikastetxe publiko bati kokapen berria emateko. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak lekualdatze proiektuari baimena eman zain zeuden.

Ondorenean, Udalarri berriro galdetu genion zein zen izapideturiko lekualdatze proiektuaren egoera eraikin bakoitzaren kasuan. Halaber, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailek eman beharreko baimenen egoera ezagutu nahi izan genuen, eta Donostiako HAEOK berak jasotako babes erregimenarekin babesturiko eraikinetarako aurreikusitako jardueren egokitzapenari buruzko informazioa ere eskatu genuen.

Bigarren txosten horrek AIU 09 Morlans Beherako HAEOn hirigintza planeamenduko baliabideen xehetasun gehiago eman zizkigun, 2006ko urtarrilaren 31n behin betiko onaturiko BEPBA helaraztearekin batera –GAOn argitaratu zain–.

Helarazitako txostenaren arabera, bi ondasun mota daude: kultura-ondasun gisa kalifikaturiko ondasunak (gasometroa, gasomotorra eta zentral elektrikoaren eraikina) eta, antza, benetan babes erregimenik ez duen bulego eraikina. Kasu horretan dagoena *“udalaren huraxe gordetzeko eta birgaitzeko nahiaren erabakia da, bai egun duen kokapenean, bai inguruan”*.

Ikastetxearen beharrei dagokienez, Donostiako Udalak Hezkuntza Sailaren txosten bat transkribatu zigun. Bertan, *“ikastetxea proiektatzen ari da, gasomotorra gordetzen duen eraikina egungo kokapenean mantentzen saiatuz”* adierazten da. Aitzitik, hezkuntza administrazioak bulego eraikina lekuz aldatzeko beharra ikusten du, horixe mantentzeak ikastetxe erabilerarako utzitako partzela erabiltzea galarazten duelako.

Adierazitakoa gorabehera, Udalak bi eraikinak desmuntatu eta berreraikitzeko proiektua aurkeztu du. Lehenengoaren kasuan –zentral elektriko–, ikastetxe erabilerako partzelaren barruan eta bigarrenarenean –bulego eraikina–, kirol ekipamenduko partzelan.

Horretarako, Udalak jakinarazi digu katalogaturiko ondasunekin aurreikusitako jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak baimendukoak direla, 2006ko irailaren 15eko ebazpen bidez. Bere aldetik, Udalak jakinarazi digu 2006ko azaroaren 3an zentral elektrikoaren eraikina desmuntatu eta berreraikitzeko proiektua helarazi ziotela Eusko Jaurlaritzari, adierazitako esku-hartzea baimen zezan.

BEPBan aurreikusitako lekualdatze esku-hartzea HAEOn irizpide eta zehaztapenen arabera egokitzeari dagokionez, Udalak, aparteko argibiderik eman gabe, honakoa dio: *“Agerikoa eta nabarmena da, beraz, ez da txosten juridiko zehatzik egin”*.

- 2.2. 290/2002 Dekretuak aurreikusitako babes erregimenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait txosten helarazi dizkigute, erakunde honek eskatu ondoren.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin izandako esku-hartzearen xedea onartutako udal antolamenduaren aurrean jarraitu zen prozedura ezagutzea zen. Halaber, zalantzan jarritako BEPBan jasotako proposamena baloratzeko balio izan zuten txosten teknikoak eta gainerako agiriak ere ezagutu nahi genituen. Zehazki, proposamenak zentral elektrikorako eta gasomotorrerako aurreikusitako

lekualdatzea eta birgaitzea; desmuntatzea eta neurri bateko eraispena lekuz aldatu ezin daitezkeen elementuen kasuan, eta berreraikitze filologikoa ekarriko luke.

Kultura Sailak zenbait txosten helarazi dizkigu eta gasomotorraren eta zentral elektrikoaren eraikinaren lekualdatzea justifikatu dira, betiere, 290/2002 Dekretuan jasotako zehaztapenak betetzen badira. Eraikinari buruzko azken txostenak onartu egiten du babes erregimenean “*ez dela eraikina desmuntatzea eta ondorenean berreraikitzea zehazten*”. Dekretuak, aldiz, bai ematen duela aukera interpretatzeko babesaren arrazoia ez dela balio arkitektonikoko elementua izatea, baizik eta gasomotorrari lotutako elementua izatea, edukitzaile eta edukiaren arteko lotura islatzeko ahalmena edukitzean.

Baimenerako izapideturiko espediente administratiboari dagokionez, Kultura Sailak prozesua 2006ko apirilaren 4an hasi zela adierazi du txostenetako batean, Kultura sailburuordeak Udaleko Hirigintza zinegotziari helarazitako idazki baten bidez. Idazki horretan eraikina lekuz aldatzearen aukera jasotzen zen eta hainbat baldintza exijitzen zituen, adierazitakoaren arabera, 290/2002 Dekretuak ezarritakoak. Erakunde honek idazki hori aztertzeko aukerarik izan ez badu ere, Kultura Sailak helarazitako txostenean baldintza horien edukia transkribatu zen. Horrela, posible zen eraikina lekuz aldatzea partzela berdinararen barruan, gasometro eta guzti, lekualdatzearen eta behin betiko kokapenaren proiektua aurretik aurkeztzen bazen, zaharberritze proiektu moduan. Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunaren aldeko txostena jaso beharko zuen.

Ondorenean, gaian parte hartzen duten administrazioek jakinarazi digutenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak eraikina eta gasomotorra desmuntatzeko eta berreraikitzeko obrak egiteko baimena eman du, leku berri batean kokatzeko.

- 2.3. Erakunde honek informazioa eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari, existitzen den babes erregimenaren esparruan emaniko baimenari buruz. Foru organo horrekin egindako bilera batean, administrazio horrek egindako jardueren berri eman zitzaigun. Hasiera batean, gasomotorra desmuntatu eta lekuz aldatzeko proiektua aztertzea mugatu da, kasu honetan, foru administrazioa, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko sailburuordearen idatzitik eratorzen den leku-aldatze baimenetik abiatuta.
3. Kultura Sailak eta Donostiako Udalak bideratutako jarduera horiek gorabehera, kexaren adierazleek desadostasunean jarraitzen dutela adierazi dute, zentral elektrikoaren eraikinaren lekualdatzearekin bereziki. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak bere garaian onarturiko babes erregimena ez dela errespetatzen uste dute desmuntatzea eta elementuren baten berreraikitzea baimentzen bada, eraikina beste kokapen ezberdin batean berreraikiz. Halaber, erabilera berriko proiektua zentral elektrikoaren elementu laguntzaileek behar duten babesarekin bateragarria izatea zalantzan jarri dute. Elementu horiek beharrezkoak izango lirateke eratzten duten produkzio prozesua ulertu ahal izateko.
4. Azkenik, erreklamazio honi behar bezalako tratamendua emateko, idatziz zuzendu gatazkie aipaturiko administrazioei, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean kultura-ondasunaren kalifikazio administratiboko txostena aztertu dugu.

#### Gogoetak

1. Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearen (IOHLEE) eskaeraren xede nagusia Arartekoaren esku-hartzea eta azterketa lortzea da, kultura-ondasunaren defentsan eskudun diren administrazioek behar bezala jardun duten ikusteko udalaren proposamenean. Horren arabera, Donostiako zentral elektrikoaren eta gasomotorra jasotzen duen gas fabrikaren eraikinak gertuko kokapen batera eramango lirateke eta ezarritako erabilera berriak emango litzaizkieke.
2. Aurretik, erakunde honen jarduketa eremua zein den zehaztu behar dugu adierazitako gaian. Zentzu horretan, erakunde honek garatu beharreko eskumenak, besteak beste, jardun publikoaren xede egokia bermatzea, antzeman ahal izan daitezkeen gabeziak zuzentzen saiatzea eta, behar izango balitz, administrazioei beren eskumen publikoak gara ditzatela eskatzea izango lirateke. Gure esku-hartzetik kanpo geratuko lirateke eskumenerako kontuak, horiek ordezkaritza organo egokiei dagozkielako.

Esku artean dugun kasuan, Eusko Jaurlaritzak, edo udaleko hirigintza antolamenduko baliabideek, onarturiko euskal kultur ondarearen babes erregimenaren barruan jarri behar gara, orokorrean euskal kultur ondarearen edo bere garaian gas fabrikaren multzoaren balio kulturalak zeintzuk izan behar zutenaren eztabaida teknikoan sartu gabe. Izan ere, kalifikazio erregimena aldatzeko eskumenaren edo dekretuan ager daitezkeen zenbait hutsune interpretatzeko aukeren kaltetan izan gabe, Eusko Jaurlaritzak bere garaian hartutako erabakia egintza irmoa da, eta Jaurlaritza nahiz gainerako administrazioak lotesten ditu Konstituzio espainiarraren 9. artikulua eragatik.

3. Kalifikaturiko kultura-ondasunaren helmen eta edukia Euskal Kultur Ondarea arautzen duen uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoak dira. Kultura-ondasun baten kalifikazioaren deklarazioak hurrengo datu hauek bildu behar ditu –12.1 artikulua–: ondasunaren, edo erutzen duten ondasunen, deskribapen argia, horiei dagozkien elementu edo osagarriak barne. Halaber, c eta d ataletan adierazitako moduan, *“ondasuna behar bezala babesteko eta hari balioa emateko, beharrezkoak izan daitezkeen mugak eta inguruak zehaztu beharko dira, horretarako izandako arrazoiak zehaztearekin batera”*. Kontu hori bereziki garrantzitsua da, *“mugaturiko inguruak kalifikaturiko ondasunaren zati izatearen ezaugarria izango duelako lege honen eraginetarako”*. Halaber, kalifikaturiko ondasunaren babes erregimena definitu behar du, egin ahal izango diren jarduerak eta debekaturik daudenak zehaztuz.

Esparru legal horrek erabaki publiko batean kontuan hartu beharreko interes publiko ezberdinak haztatzeko ere balio du, eraginkortasun handiagoa ematen diolako kultur ondarearen babesari kultura-ondasunaren kalifikazioaren xede izaterakoan, beste administrazio batzuk hirigintza antolamenduko eskumenpean hartutako erabakien aldean. Horregatik, udalaren planeamenduak kultura-ondasunen kalifikazioan aurreikusitako babes erregimena jaso eta babestu beharko du. Horretarako, prozedura bikoitza ezarri du. Behin kalifikazio dekretua onartuta, Eusko Jaurlaritzak eskudun diren udal administrazioak presatu behar ditu, hirigintzako planeamendua erregimen horri egokitzeko –Euskal Kultur Ondarea arautzen duen Legearen 12.2 artikulua–. Bestalde, planeamenduko baliabide guztiak kalifikaturiko ondasun higiezinaren babeserako erregimenari egokitu behar zaizkio –28. artikulua–. Kultura Sailaren aldeko txostena ere izan beharko dute.

4. Zentzu horretan, abenduaren 10eko 290/2002 Dekretuak kalifikaturiko kultura-ondasuntzat jotzen ditu gasometroa eta gasomotorra, eta haien pieza laguntzaileak, monumentu mailan. Horiek guztiak Donostiako Udal Gas Fabrika bildutakoak dira.

Dekretu horrek higigarri deklaritzen ditu gas fabrika monumentu bezala jasotako bi ondasun, gasomotorra eta gasometroa hain zuzen. Halaber, elementu higiezin bat jartzen du babespean espresuki (arrazioen azalpeneko laugarren paragrafoa): zentral elektrikoaren eraikina.

Zentral elektrikoaren eraikina gasomotorra bezala kalifikaturiko kultura-ondasunaren elementu gisa sartzea Eusko Jaurlaritzaren borondatek dator hain zuzen, kalifikazio dekretuan adierazitakoa hura. Horretarako, kontuan izan behar da 2. artikuluan eginiko mugaketaren hitzez hitzeko zentzua I. eranskinarekiko, II. eranskinen eginiko ondasunaren deskribapena eta 3. artikulua ezarritako ondasunaren babeserako erregimena, III. Eranskinarekiko.

- \* Dekretuaren I. eranskinen zehazten da gasomotorrari egokitutako mugaketa gasomotorra jasotzen duen udal zentralaren eraikinaren proiektiotik eratorritakoa dela, eta *“elementuaren zati bereizte zintzat”* hartzen da. Eraikinaren eta gasomotorraren kokapenak ez dute inolako zalantzarik agertzen, espresuki azaltzen baita marraztuta udal zentralaren eraikinaren egungo kokapenean sartutako planoan. Horrela, azpimarratu behar da –Euskal Kultur Ondarea arautzen duen Legearen 12.1 c) artikulua– mugaturiko tartek ere baduela kalifikaturiko ondasunaren zati izatearen izaera.

Eranskinak honakoa adierazten du: *“ezarritako mugaketak babestu beharreko instalazio mekanikoak eta horien estaldura behar bezala gordetzen direla bermatu nahi du, horiekin batera jatorriko kokapena gordez testuinguru historikoarekin batera. Hori dela-eta, muga fisikoak gasomotorrari atxikitako Udal Zentral Elektrikoaren proiektioari egokitzen zaizkio”*. Kokapen fidela mantentzeko betebeharra ez da bakarrik transkribaturiko deskribapenaren hitzez hitzeko interpretazioetik ulertzen. Izan ere, gasometroari bai onartzen zaiola kokapen berri posible batean jarduteko tartea izatea, betiere, inguruaren barruan.

- \* Kultura-ondasunaren deskribapenak elektrizitatea sortzeko zentralaren eraikina ere zehazten du espresuki, modu argian eta zehatzean. Garrantzitsua da nabarmentzea, eraikina sartzeak 2002ko urriaren

7ko ebazpena ekarri zuela. Horren bidez, kalifikatutako kultura-ondasunaren deklarazio espedientearen izapidetzea aldatzen zen. Kalifikazio espedientearen gas fabrikaren instalazioen ondare balorazioaren txosten teknikoa jaso zen –2002ko ekainaren 6koa–, eta hori arrazoibide gisa erabili izan du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak honakoa ondorioztatzeko: *“udal zentral elektrikoa elementu adierazkorrena da kontserbatzen diren eraikuntzen artean, bai banakako balioengatik, bai babesturiko makineriari lotetsitako edukitzaille izateagatik”*.

Azkenik, babes erregimena ezarri egiten da, bai instalazio mekanikoetarako (gasomotorra eta gasometroa), bai zentral elektrikoaren eraikinerako. Horrela, babes bereziko elementu moduan hiru jasotzen dira: gasomotorraz eta gasometroaz eraturako makineria bere osotasunean, gasomotorrak beharrezkoak dituen elementu laguntzaileak produkzio prozesua ulertu ahal izateko eta Udal Zentral Elektrikoaren eraikina, gasomotorrari lotetsitako elementu gisa.

Babesturiko multzoan sartzeko arrazoiak gasomotorra jasotzen duen elementua izatea da hain zuzen (eta horrekin batera, baita aurreko puntuan adierazitako gainerako balio zehatz guztiak ere). Horrek ez du esan nahi inolaz ere, III. eranskineko III. kapituluaren zehazturiko esku-hartze irizpide zehaztutara mugatu behar ez duenik. Erregimen horrek zehatz-mehatz ezartzen du eraikinari egin dakioken guztia eta espresuki adierazten –9. artikulua–, esku-hartze irizpide zehaztutara ezarri ez dena debekaturik geratuko dela. Horrela, erreforma lanak egiteko aukera ematen du bakarrik –10.2 artikulua–, abenduaren 30eko indarreko 317/2002 Dekretuak ezarritako moduan. Halaber, eraikineko zati batzuk filologikoki berreraikitzeo aukera ematen du, horiek eraitsi edo lurrera erortzen direnean –11.a) artikulua–. Aitzitik, ez da ezartzen zentral elektrikoa edo gasomotorra desmuntatu edo lekuz alda daitekeenik. Dekretuak ahalbidetzen duen gauza bakarra gasomotorrari kokapen berria ematea da, jada existitzen den zentralaren eraikinaren mugen barruan.

Udal zentral elektrikoaren eraikinean jarraitu beharreko esku-hartze irizpide orokor eta zehatzen kaltetan izan gabe, Dekretuaren 5.3 artikulua dio babesturiko ondasuna erabat edo neurri batean eraitsi ahal izateko Euskal Kultur Ondarea arautzen duen Legearen 36. artikulua zehazturikoa bete behar dela. Zentzu horretan, babesturiko elementuak erabat edo neurri batean eraitsi ahal izateko, badirudi neurri egokiena artikulua horrek ezarritakoaren arabera jardutea izango litzatekeela –ondasuna desafektatzea eta aurretiko auri-deklarazioa izatea–.

Ondorio modura adierazi behar dugu abenduaren 10eko 290/2002 Dekretuaren arabera, zentral elektrikoa gasomotorraren elementu banaezina dela, eta kalifikaturiko kultura-ondasunaren parte dela. Halaber, eraikinaren kokapena eta okupatzen duen ingurua espresuki mugaturik geratzen dira kalifikaturiko ondasunaren zati gisa. Bestalde, babeserako dekretuak ez du espresuki jasotzen kokapena beste batengatik aldatzeko aukera, ez baitu espresuki horrelakorik adierazten gasomotor eta eraikinarentzat; bai, ordea, beste elementu batentzat, gasomotorrentzat hain zuzen, eremuko hirigintza beharrek horixe eskatzen dutenean.

5. Gasomotorrentzat eta higiezinarentzat definituriko kultura-ondasunaren kalifikazio erregimen horrek ondorio juridiko garrantzitsuak ditu onarpenaren unetik bertatik hasita. Ondasunaren kalifikazioa indarrean dagoenetik aurrera, ezinezkoa da botere publikoek edo partikularrek hori alde batea uztea edo babes erregimena modulatzeko beste interes batzuen izenean.

Euskal Kultur Ondarea arautzen duen Legearen arabera, ondasun bati kalifikazioa ematen zaionetik aurrera, horren eraginkortasuna berehalakoa dela eta, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiari eta Udalari eragiten die. 290/2002 dekretuak berak ezartzen du, III. Eranskineko 4. artikuluan, babes erregimen horren izaera loteslea dela, eta erregimen horretako ezarpenek hirigintza planeamenduaren baliabideak lotesten dituztela.

Ondasuna Kalifikaturiko Kultura Ondasunen Erregistroan jasotzen da. Bertan, hari eragiten dioten jarduera juridiko guztiak jakinarazi behar dira, kalifikazioko dekretuan jasotako datuetan jasotako aldarazpenak bezalaxe. Jabeak behartuta daude ondasuna behar bezala gordetzera, elementuaren osotasuna bermatzeko eta galera edo hondamena ekiditeko.

Modu berean, Donostiako 2. zenbakiko Jabetza Erregistroan, dagokion finakaren ohar marjinalan, kalifikazio dekretuaren eta bereziki babesturiko elementuen berri eman da, horien artean zentral elektrikoaren

eraikina ere bai. Halaber, higiezin horri aplikatu dakiokkeen planeamenduak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren aldeko txostena behar duela zehazten da.

Horregatik guztiatik, beharrezkoa da, batetik, udaleko planeamendua babes erregimenera egokitzea eta, bestetik, edozein motatako aldarazpen edo garapen –eremu horretako BEPBa, kasu– egiteak Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko txosten loteslea izatea. Halaber, kalifikaturiko ondasunen gainean egiten diren esku-hartzeek Foru Aldundiaren organo eskudunen baimena behar dute, babes erregimenera egokitzen direla baieztatze aldera. Edonola ere, erregimenaren aldarazpena edo ondasun baten eraispenak deskalkifikazioa behar du aurretiko urrats gisa –15. artikulua–, eta eraispenaren kasuan auri-deklarazioa jasotzea ere beharrezkoa da –36. artikulua–.

6. Horrela, bada, kasu honetan, beharrezkoa da aztertzea kultura-ondasuna babesteko erregimena betetzen dela bermatzeko jarraitu den prozesua, arlo horretan udal plangintzak onartu dituen ordenazioei dagokienez.

Lehenik eta behin, kultura-ondasunaren kalifikaziotik hasita jarraitu zen prozedurak barne hartzen zuen –12.2 artikulua– Eusko Jaurlaritzak Donostiako Udalarari HAEOn aldaketa eskatzea, hain zuzen ere, gasomotorraren eta zentral elektriko eraikinaren babes-zehaztapenak egokitzeko. Hori eskatzeak babes erregimenaren berehalako eraginkortasuna bermatzeko balioko zukeen, bai eta administrazioen artean koordinazio eta lankidetzak egokia izateko eta hirigintza antolamenduak zaindu nahi dituen interesen arteko gatazkak saihesteko ere.

Edonola ere, arestian aipatu dugun moduan, bigarren egiaztapen bat ere badago. Izan ere, 28.1 artikulua ezartzen duenez, eremu horri eragiten dion edozein udal plangintzako tresnak aldeztu aurretiko txosten loteslea izan beharko du, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egindakoa.

Ildo horri jarraiki, erakunde honen arabera, 290/2002 Dekretua indarrean jartzeak ez du Morlanseko eremuan HAEO aldatzea eragin. Edonola ere, HAEO testuak, 1999ko aldaketan (2005ean onartu zenak aldaketa hori gordetzen du), barne hartzen zuen –kultura-ondasunaren deklarazio espedienteak hasi baino lehen–, antolamendu irizpide gisa, bulegoen eraikina eta zentral elektrikoak kontserbatzea.

Bestalde, 2003ko otsailaren 28ko BEPBren “testu aldatuak” lehenago onartutako BEPBren zehaztapenak zuzentzen ditu, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin elkarlanean aurkeztutako euskal filmotekaren proiektua kalifikatutako kultura-ondasun zehaztapenetara egokitzeko, hain zuzen.

Baina azken BEPBk –2006ko urtarrean behin betiko onartu zenak– aldatu egin zuen ondasun horien babes-irizpidea. Izan ere, zentrala lekuz aldatzeko aukera barne hartu zuen, eta esku-hartze aukera hori ez da azaltzen 290/2002 Dekretuaren babes erregimenean eta, beraz, HAEOn.

Bada, horri dagokionez, erakunde honetan jakin ahal izan dugunez, Kultura Sailak ez du inolako informazioarik eman BEPBk sartzen duen antolamendu irizpide berriaren inguruan, hain zuzen, zentral elektrikoaren eraikina lekuz aldatzea ahalbidetzen duenaren inguruan.

Beraz, HAEO 2002/290 Dekretuan ezarritako erregimenera egokitzea eskatuko du Euskal Kultur Ondarea arautzen duen Legeak. Halaber, AM 09 Morlans Behera eremuko BEPBren aldaketek, batez ere 2006ko urtarreko aldaketak (izan duen eragina dela-eta), Kultura Sailaren txosten loteslea eskatzen dute. Txostenak garapen planeamenduen zehaztapenak aztertu beharko ditu eta, azken BEPBren kasuan, eraikinaren kokapena aldatzeko aukeraren inguruan informatu. Txosten hori ez digu erakunde honetara bidali gai honen inguruan zerikusia duen administrazio batek berak ere.

7. Kultura-ondasun hirigintza antolamendu egokia bermatzeko euskal kultur ondarea babesteko Legearen prozedura aipatu ondoren, guri dagokigun gaian jarraitu den prozedura aztertuko dugu.

Espedientearen bildutako informazioari dagokionez, ikusi ahal izan dugunez, plangintza kultura-ondasunak babesteko erregimenera egokitzeko lehen aipatu dugun prozedura jarraitu ordez, alderantzizko prozedura jarraitu da. Hala, Kultura Sailari eskatu zaio eraikinaren leku-aldatzea eta erabilera aldaketa onartzeko, AM 09 Morlans Beherako BEPBn aurreikusitako antolamendua baliozkotzeko.

Jarraitu den administrazio prozedura, gure aburuz, ez zaio guztiz ondo atxikitzen Euskal Kultur Ondarea arautzen duen Legeari. Eusko Jaurlaritzaren erabakia, babestutako eraikina lekuz aldatzeari buruzkoa, ez da 29. artikuluan aurreikusitako esku-hartzea, ez eta 36. artikulua deskalkifikazioa eta aurre-deklarazioa, edo, hala badagokio 15. artikulua ahalbidetzen duen babes erregimenaren aldaketa bat ere.

Administrazio espedienteak Kultura sailburuordearen idatzi bati egiten dio erreferentzia. Sailburuaren iritziz, aldaketa egitea posible da, aukerak egon badaudelako, baina ez da sartzen 290/2002 Dekretuaren beraren babes erregimenean baimendutako eta debekatutako esku-hartzeetan.

Baimentze egintzaren erari dagokionez, ez dugu iritzi elementurik administrazio egintzatat, txosten lotesletzat edo bestelako administrazio egintzatat kalifikatzeko. Hala ere, baimen hori 290/2002 Dekretuko kalifikazio erregimena aldatzen ari da, eta bera ez da hori egiteko organo eskuduna. Gainera, 15. artikulua ezartzen duenaren arabera, hori egiteko oinarrizko betebeharrak ez ditu betetzen.

Funtsari dagokionez, erakunde hau interpretazio horren arrazoiak eta irismena zein diren jakiten ahalegindu da, bai eta interpretazio hori egiteko kontuan hartu dituen txosten teknikoak edo juridikoak ezagutzen ere. Hala ere, Kultura Sailak aurreko txostenera jotzen du, eta txosten horretan interpretatzen du eraikinak duen balio arkitektonikoak esku-hartze hori ahalbidetzeko balio duela, nahiz eta eraikina desmuntatzea eta gero berriro berreraikitzea babes erregimenaren barruan ez dagoela onartzen duen.

Hala, berriro ere nabarmendu behar dugu zentral elektrikoaren eraikinaren kultur interesa baloratzeari buruzko aukera elementu oro aintzat hartu behar zela kalifikazio espedienteetan. Eta, hain zuzen ere, hori egin zen ebazpen honek oinarrizkatzen dituen txosten teknikoetan –berezi 2002ko ekainaren 6koan–. 4. puntuari adierazi dugun moduan, eraikinaren balio arkitektonikoak eragin zuen eraikina 2002ko urriaren 7ko ebazpenaren barruan sartzea. Ebazpen horren bidez, kalifikatutako kultura-ondasunaren deklarazio espedientearen hasiera aldatu zen.

Orain, kultur administrazioak –Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak nahiz Foru Aldundiko organo eskudunak– onartutako babes erregimena betetzen dela bermatu eta zaindu beharko du, edo, bestela, aldatu egin beharko du. Ezin da inolaz ere kultura-ondasun kalifikatutakoaren babesa aplikatu gabe utzi edo legerian aurreikusi gabeko prozedura baten bidez aldatu.

Horrek Kultura Sailaren esku-hartzea eskatzera garamatza, Foru Aldundiko organo eskudunari, eta, hala badagokio, Udalarai Euskal Kultur Ondarea arautzen duen Legearen 20. artikuluan oinarrituta eraikina eta gasomotorra desmuntatu eta lekuz aldatzeko obrak bertan behera utz ditzan eskatzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **28/2006 GOMENDIOA, abenduaren 27koa, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari egina**

1. Txosten arrazoitu bat egin behar duzu 2006ko urtarrilean onetsitako AIU Morlans Beheraren BEPBn aurreikusita dagoen hirigintza antolaketaren gainean, eta, beraz, bermatu egin behar duzu Donostiako gas fabrika zaharrean kalifikaturiko ondasunak 290/2002 Dekretuaren III. eranskinean ezarritako babes-irizpideak betez gordeko direla, batez ere gasomotorra eta hura dagoen eraikina lekuz aldatzea eragozten duten jarduerak debekatuei dagokienez.

Baldin eta Kultura Sailari kultur ondasunen babes-erregimena aldatzea beharrezkoa iruditzen bazaio –gasomotorra eta hura dagoen eraikina lekuz aldatzeari dagokionez–, berariaz bete behar ditu Euskal Kultur Ondarea arautzeko 7/1990 Legeak 15 eta 36. artikuluetan xedatutako irizpideak.

2. Lanen sustatzaileak esku hartzeko proiekturako baimena duenez gero (horrek eraikin babestua lekuz aldatzea ahalbidetzen du), Kultura Sail horrek zera eskatu behar dio Gipuzkoako Foru Aldundiari: Euskal Kultur Ondarea arautzeko uztailearen 3ko 7/1990 Legeak 20.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, badaezpada, geldiaraz ditzala eraikina desmuntatu eta lekuz aldatzeko lanak, harik eta, 290/2002 Dekretuko babes-erregimenean adierazten diren murrizketak kontuan izanik, sail horren jarduerak balioztatzen dituen arte.



### 3. HEZKUNTZA

**11/2006 Gomendioa, maiatzaren 16koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina, Langraiz Okan bizi eta Gasteizko (...) BHIn, D ereduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari diren adingabeei onartutako eskola-garraiorako laguntzak edo diru-kopuruak berriz azter ditzan. Ez da onartu.**

#### Aurrekariak

1. 2004ko urtarrilaren 13an, Ararteko erakundeak gomendio bat egin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari (1/2004 Gomendioa), Langraiz Okan bizi eta Gasteizko (...) BHIn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza D ereduan ikasten ari ziren adingabeei eskola-garraiorako zerbitzu osagarria onar diezaien.
2. Hezkuntza administrazioak orduan emandako erantzunek ulertarazi ziguten ez zuela gomendioa onartu, eta, hortaz, erakunde honi laguntzarik ez ematearen adibidetzat jo genuen Eusko Legebiltzarrari egiten diogun urteroko txostenean. Hala ere, hezkuntza-administrazioak gomendioa ez betetzeko adierazi zituen eragozpenek zerikusi handiagoa zuten formazko kontuekin berez gomendioaren edukiarekin baino. Horregatik, erakunde honek zera adierazi zion kexagileari: garraiorako laguntza-eskabidea (2003-2004 ikasturteari zegokiona) ukatzen zuen berariazko ebazpena eska zezala, administrazioiko justizia-bide egokiak erabili ahal izateko (administrazio helegiteak).

Interesdunak, erakunde honen aholkuei jarraiki, Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordeari idazki bat helarazi zion helburu horrekin, 2005eko otsailean. Hezkuntza-administrazioak, ordea, bazirudien ez zuela bete nahi berariazko ebazpena emateko eskaera hori; horregatik, berriz jardun behar izan genuen, isiltasunezko jarrera hori bukarazteko. Horrek bigarren kexa-espeditente hau bideratzea eragin du.

3. Bigarren jarduera honetan, 2006ko urtarrilaren 2an, Administrazio eta Zerbitzuetarako oraingo sailburuordearen ebazpenen kopiak jaso genituen erakunde honetan, 2005eko abenduaren 16koak. Ebazpen horien bidez, ikasleak garraiatzeko banan-banako diru-laguntzak ematea ebatzi zen. Haatik, kexa egindako familiarekin harremanetan jarri eta gero, gai horren gainean ez zutela jakinarazpenik jaso egiaztatu genuen.

Beraz, norberari jakinarazteko izapide hori nahitaez bete behar zuela gogorarazi behar izan genion hezkuntza-administrazioari, funtsezkoa baitzen artean geratzen ziren administrazio-justiziako bideak erabiltzeko.

Orobat, gure ustez, ebazpen horietan arrazoirik ez zela ematen nabarmendu genuen, hauxe baino ez baitzen adierazten *“el alumno solicitante cumple los requisitos”* eta *“la cuantía de la asignación sufragará el importe del transporte más económico”* laguntza-ematea ebazteko, kopurua nola kalkulatu zen azaldu gabe, nahiz eta familiak, bere laguntza-eskabidea justifikatzeko, argudiatzeko ahalegin handia egin zuen eta ibilgailu partikularra erabiltzetik sortu ziren gastuak ordain zitezela eskatu zuen.

4. Aurreko horri erantzunez, Administrazio eta Dirubideen zuzendari andreak idazki bat bidali dio erakunde honi. Honela dio:

*“2005eko abenduaren 16ko Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordearen Ebazpenaren bidez 2003/2004 ikasturterako eskola-garraiorako banakako dirulaguntzak eman zitzaizkien (...) eta (...) anaia-arrebei. Ebazpena 2006ko otsailaren 16an jakinarazi zitzaion familiari. Halaber, hilabete horretan (...) BHIk aipatutako bi ikasleen dirulaguntzen zenbatekoa jaso zuen.*

*Bi ikasleentzat banakako laguntzak ebazten dituen abenduaren 16ko Ebazpenari dagokionez, azalpen-zatian argi adierazten da dirulaguntza emateko aplikatzen den irizpidea, 'ikaslearen helbidearen eta ikastetxearen arteko garraiorik ekonomikoena'. Gure ustez, irizpide hori oso argia da, kasu honetan treneko txartelaren prezioaren menpe baitago, eta ez inolako kalkulurik egitearen menpe.*

*Irailaren 9ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduak, eskola-garraiorako banakako dirulaguntzak deitzen dituenak, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, 'ikaslearen helbidearen eta ikastetxearen artean garraio-zerbitzu publikoa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoak garraiorik merkeena ordainduko du. Horretarako sortuko den Balorazio Batzordeak erabakiko ditu irizpide orokorraren salbuespena diren kasuak'.*

*Ari garen kasua ez da irizpide orokorraren salbuespentzat jo, ikasle horiek bizi diren Okako Langraizeko (...) BHLren hezkuntza-eskaintzak eskolatzearen premiei erantzuna ematen diela baloratzen da eta.*

*Aukeratu duten ikastetxera joateko ikasleek erabiltzen duten denbora luzeari dagokionez, hauxe besterik ez dugu esango: Arabako Hezkuntza Ordezkaritzatik, herrietako haurrak, ikastetxea dutenean, bertan eskolatzearen aldeko apustua egiten baitu, (...)BHLra joateko aukera eman zitzaion familiari.*

*Dena den, 2006ko martxoaren 9an (...) jaunak eta (...) andreak gorako helegitea jarri zuten 2005eko abenduaren 16ko Administrazio eta Zerbitzuetarako Ebazpenaren, 2003/2004 ikasturterako (...) ikasleei eskola-garraiorako banakako dirulaguntzak ematea ebazten zutenaren, kontra. Helegitea une honetan ebazteko dago Sail honetako Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritzan."*

5. Bestalde, era berean, kexagileak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2006ko apirilaren 4ko Aginduaren kopia bat eskuratu digu, horren bidez ebatzi baita berak bere seme-alaben izenean jarri zuen gora jotzeko errekurtoa.

Azken ebazpen horren oinarrietatik, interesgarria iruditzen zaigu honako hauek azpimarratzea:

*"Sin embargo, de la regulación que realiza el artículo 3 de la citada Orden convocatoria no podemos deducir que exista un derecho de opción a favor de los beneficiarios de las ayudas, entre el transporte público o el vehículo particular. Dicho precepto, ha de interpretarse en el sentido de que si existiera servicio público en el que se pueda realizar el transporte diario, la ayuda consistirá en sufragar el importe del transporte público más económico, si bien no se excluye la posibilidad de que los casos que supongan una excepción, sean decididos por una Comisión de Valoración. En este sentido, la Comisión de Valoración en base a su discrecionalidad técnica, no ha considerado la existencia en el caso que nos ocupa de datos que puedan tildarse de excepcionales.*

(...)

*Segundo.- Don (...) y doña (...) alegan el gran inconveniente que supone para sus hijos el tener que trasladarse al IES (...)BHL de Vitoria-Gasteiz, tanto en tren por la gran pérdida de tiempo que supone la adecuación de horarios como en vehículo particular por la peligrosidad de salir a la carretera a diario, especialmente en condiciones climatológicas adversas.*

*En este sentido es destacable la importante apuesta que viene realizando la Delegación Territorial de Educación de Álava en el sentido de que los niños y niñas que residen en los pueblos se escolaricen en sus propias localidades cuando disponen de centro docente. En este sentido de los datos obrantes en el expediente, es significativo que a Don (...) y doña (...), se les informó de la oferta educativa en el IES (...) de Nanclares de la Oca, sito en la localidad de residencia de estos alumnos."*

### Gogoetak

1. Urtarrilaren 13ko 1/2004 gure aurreko Gomendioan adierazi genuenez, gure hezkuntza-sistema berezia da. Horren ondorioz, EAEn, bi zertzelada hauek baldintzatzen dute ikasleak garraiatzeko zerbitzu osagarria izatea edo onartzea: alde batetik, bizitokiko eragin-eremuan irakaskuntza maila jakin baterako hezkuntza-eskaintza nahikorik ez izateak –oro har gertatzen denez–, eta bestetik, aukeratutako hizkuntza-ereduko hezkuntza-eskaintzarik ez izateak.

Euskal hezkuntza-sistemaren antolaketak (Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea, otsailaren 19koa), irakaskuntzako hizkuntza-ereduak arautzean (hizkuntza ofizialak egiaz ezagutuko direla ziurtatzeko eta euskararen erabilera normalizatzea sustatzeko tresna edo baliabide gisa), hiru eredu desberdin bakarrik aurreikusi ditu, A, B eta D ereduak deritzenak, curriculum funtsean gaztelaniaz, euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz irakasten den. Testuinguru horretan, egia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzeko prozesuak ikastetxeei beren curriculum proiektuak garatzeko aukera eman diela, eta ikastetxeek zehazten dutela erabiliko duten hizkuntza-trataera, batez ere B ereduko taldeetan. Horrexegatik daude eredu indartuak, irakasleen hizkuntza-gaitasunaren mailen arabera. Aukera horrek, azken batean, euskaraz irakasgai gehiago irakastea errazten du.

Alabaina, hizkuntzaren trataeran ikastetxeei onartzen zaien malgutasun-tarte hori (batez ere B ereduko taldeetan) eta ikasleak beren bizitokitik deserrotzea eragozteko asmo txalogarria gorabehera, ezin da, inolaz ere, alde batera utzi edo baztertu –kasu honetan hezkuntza-administratioak egin nahi duen bezala– EAEko ikastetxeetan eskolatutako ikasleek hizkuntza-eredua aske aukeratzeko duten eskubidea. Horrela, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak ez du inolako tarterik onartzen zera exijitzen duenean: hizkuntza-ereduen plangintza egitean, ziurtatu egin behar dela gurasoek eta ikasleek nahi dituzten ereduak aukeratzeko eskubidea gauzatuko dela, eta aukera hori libreki egingo dela bermatzeko administratio-tresnak garatuko direla. Ez da eztabaidan jartzen sail horrek kalitateko hezkuntza-eskaintza egin nahi duela landa-eremuan ere, han bizi diren ikasle guztiak barne hartuko dituena, B ereduko taldeetan hizkuntzaren trataera indartuz. Hala ere, jokaera horrek ezin du berekin ekarri errealitatean hizkuntza-eredua libreki aukeratzeko eskubidea ukatzea edo mugatzea.

Horregatik, harritu egin gaitu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila jada gainditutaz jotzen genituen argudio horiek berriz erabiltzen saiatzea, are gehiago ikasle horietan, hurrengo ikasturteetan, eskola-garraiorako zerbitzu osagarria onartu zaiela ikustean, taxi zerbitzu baten bidez beraiantzako ibilbidea ezarri baita.

2. Edonola, aurreko hori zehaztea komeni bada ere, uneotan hezkuntza-administratioarekin hasitako eztabaidak gai zehatza honi heldu behar dio: gazte horiek 2003-2004 ikasturtean beren gain hartu behar izan zituzten garraio-beharrak ordaintzeko asmoz, ikasle horiei onar dakiekeen diru-kopuru edo laguntza mota zehatza finkatzen ahalegindu behar da.

Lerro batzuk gorago idatzi dugunez, sailburuaren 2006ko apirilaren 4ko azken Aginduan zera adierazten da: deialdian egindako erregulazioak ez duela ahalbidetzen laguntza-onuradunek garraio publikoaren edo ibilgailu partikularren artean aukeratzeko eskubidea dutela ondorioztatzea.

Administratio eta Dirubideen zuzendari andreak ere gauza bera eman du aditzera.

Egia esan, deialdian [2003ko irailaren 9ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleak garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.] argi adierazten da: *“Ikaslearen etxetik ikastetxera zerbitzu publikoren bat egonez gero, garraibiderik merkeena ordaintzeko izango da diru-laguntza”*. Alabaina, beste aukera hau ere onartzen da: *“Aipatu den irizpide orokorretik kanpo geldi daitezkeen kasuetan horretarako osatuko den Balorazio Batzordeak hartuko du erabakia”*.

Oso argi geratzen ez den arren, aztertzen ari garen kasua irizpide orokorren salbuespentzat ez jotzeko erabakia, dirudienez, berariaz horretarako sortutako balorazio-batzorde batek hartu du, eta, bestalde, hezkuntza-administratioak, duda egin gabe, erabakitze ahalmen edo diskrezionalitate tekniko handia ematen dio batzorde horri.

Erakunde honek inolako eragozpenik gabe onartzen du administrazio horrek nabarmendu nahi duen aske erabakitzeko ahalmen zabal hori. Hala ere, aldi berean, kontuan hartu behar da deialdi-aginduak Balorazio Batzordeari ematen dion erabakimena modu egokian gauzatzeko bada, behar bezala arazoitu behar duela bere lana, agian arbitrariotasunez jokatu dela pentsaraz dezakeen edozein arrasto bere erabakietatik urrunarazi eta baztertzeko.

3. Orduan, premisa horietatik abiatu eta kasu honetako gertakariak kontuan hartzen badira, erakunde honen iritziz, Balorazio Batzordeak familia horren eskabideaz azkenean hartu duen erabakiak ez du bazterrarazten arbitrariotasuna aurpegiratzea –hori da, azken batean, aztertzen ari garen kexa-espedientearen mamia.–, izan ere, erakunde honek hainbat aldiz eskatu arren, ez digute gutxienezko arrazoirik eman familia horrek bere eskabidea oinarritzeko erabili dituen argudio hauek balio gabetu ahal izateko:

*“En cuanto a la exigencia de utilización de **transporte ferroviario, la convocatoria no es en absoluto categórica.** Habrá que valorar en cada caso, las posibilidades ciertas que ofrece el transporte público en atención al objetivo que se pretende: **TRASLADO DE ALUMNOS A LOS CENTROS EDUCATIVOS,** y por lo tanto **similitud de horarios,** etc... Les adjuntamos los horarios de entrada y salida al centro escolar, así como los horarios del servicio público ferroviario para que puedan comprobar que no son en nuestro caso factibles.*

**HORARIO DE ENTRADA:** 08:45      **HORARIO DE SALIDA:** 17:45  
**HORARIO TREN MAÑANAS:** 07:41      **HORARIO TREN TARDES:** 19:00

*Desde el **Departamento de Educación** respondiendo, o más bien eludiendo valorar la cuestión que se les plantea desde el **Ararteko**, uno de los problemas que según ellos tiene el transporte escolar, es el **cansancio**, originado porque los alumnos tienen que levantarse muy temprano para acogerse a los horarios del transporte y al regreso, el mismo problema, sin discutir por supuesto, el peligro que conlleva salir a la carretera todos los días y máxime cuando las inclemencias del tiempo son adversas.*

*Pues en nuestro caso con el servicio ferroviario nos ocurre lo mismo, mis hijos habrían llegado al centro escolar, casi una hora antes de su apertura y al regreso dos horas más tarde de su salida de clase. Ahora bien, les traslado mi pregunta **¿SIGUEN PENSANDO QUE EL SERVICIO FERROVIARIO DE QUE DISPONEMOS ES EL MÁS ADECUADO PARA QUE MIS HIJOS ACUDAN A CLASE?** Espero que su respuesta sea **NO** porque de lo contrario, seguiré pensando, que para **Ustedes es más importante la parte monetaria que la humana.**”*

Horren aurrean, Hezkuntza Sailak orain arte erabili duen argudio bakarrak –familia hori bizi den aldean dagoen hezkuntza-eskaintzarekin zerikusia duenak– ez du beste iruzkinik merezi, lehen puntuan luze-zabal egin ditugun gogoetak aintzat hartuta.

Are gehiago, hezkuntza-administrazioak ondorengo ikasturteetan izan duen jokaeran bertan –taxi zerbitzuaren bitartez ibilbide bat antolatzea– inplizituki onartzen da adingabe horien kasua apartekoa dela, bada, bestela, tren zerbitzu publikoa beren benetako beharretara egokituko balitz –behar horiek modu egokian aintzat hartuta–, zerbitzu hori erabiltzen jarrai zezaketen, zerbitzu osagarri gisa, hezkuntza-aukera berberak izango zituztela bermatzeko.

Horrela bada, ez dugu ulertzen administrazioak zergatik ez duen onartzen familia horri ibilgailu partikularra erabiltzeagatik ordaintzea, deialdi-aginduaren hirugarren artikuluko 3.2 atalean adierazten den moduan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **11/2006 GOMENDIOA, maiatzaren 16koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina**

Berrikus ditzala (...) eta (...) adingabeei eskola-garraiako onartu zitzaizkien laguntzak edo diru-kopuruak –adingabe horiek, Langraiz Okan bizi diren arren, 2003-2004 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak egin zituzten Gasteizko (...) BHIn, D ereduan–, eskura zituzten garraio-bideak modu arazoituan balioztatuz eta, hortaz, ibilgailu partikularra erabiltzera behartuta zeudela aintzat hartuz.

**24/2006 Gomendioa, urriaren 30ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina, familiek adierazitako bizilekuak errealitatearekin bat etortzea indartzeko neurriak susta ditzan, laguntza publikoez mantentzen diren ikastetxeetako ikasleak onartzeko prozesuetan. Onartu da.**

Aurrekariak

1. Erakunde honetan zenbait kexa jaso genituen, Basauriko Ariz ikastolan ikasleak onartzeko erabili zuten prozedura zela-eta. Kexa horietan salatu zenez, familia askok oker eta gehiegikeriaz jarduten zuten, bada benetan bizi ez ziren helbidea adierazten zuten errolda-ziurtagiriak aurkezten zituzten, onarpen-eskaerak balioztatzean bizilekuaren hurbiltasunari ematen zaion puntuazioa lortzeko asmoz.

Bagenekien kaltetutako familia horietako batzuk Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari jokaera hori salatu ziotela. Horregatik, gure lehen jardueran, sail horren arduradunei laguntza eskatu genien; zehazki, txosten bat bidaltzeko eta bertan familia horiek salatutakoaz hezkuntza-administrazioak zuen iritzi arrazoitua adierazteko eskatu genien.

Hasieran, sail horrek erakunde honi ikasleen onarpena arautzen duen araudian ezarritakoa adieraziz erreakzionatu zuen:

*“...‘bizilekuko hurbiltasuna’ atalari dagokion puntuazioa eman dezaten, ikaslearen guraso edo tutore legalen erroldatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dela.*

*Erroldako kudeaketa Udalei dagokie, eta horiek horretarako ziurtagiria egiten dute.*

*Lurralde Ordezkaritzak ez dauka batere eskuduntzarik erroldari dagokionez, eta hori dela medio ez ditu inoiz ere jartzen zalantzan eskumena daukan administrazioak ziurtatzen dituen datuak.*

*Arizko Ikastola LHko zuzendaritzari galdera eginda, berretsi egin dute udalak egindako erroldatzeko ziurtagiriak balioetsi zituztela.”*

2. Edonola ere, aldi berean, erakunde honek jarduera bat hasi zuen Basauriko Udalarekin. Jarduera horri esker, gertakariei buruzko zenbait izapide egin ondoren, honako datuok egiaztatu genituen, Alkatetzak berak emandako informazioen arabera:

*“Salatuak izan diren, (...) gaur egun ez daude erroldatuta BIGE-k adierazi zigun eta matrikulazio garaian haiek adierazi zuten helbidean. Horrek erakusten digu helbide aldaketa bat gertatu dela adierazpena egin zenetik. Horregatik, pertsona horien aurka ofiziozko baja espedienterik ezin da ireki.*

*Bestalde, salatutakoen artean batzuk adierazitako etxebizitzan 2003, 2004 edo 2005 urteetan erroldatu zirela esan nahi dugu. Beraz, helbide aldaketak ez ziren egin matrikulazio garaian.*

*Nolanahi ere, arestian aipatutakoen salbuespenarekin, salatutako gainerakoen ofiziozko baja espedienteari hasiera eman zaio. Espedientea amaitzean, dagokion txostena bidaliko dugu.”*

3. Jakina, Basauriko alkatearen erantzuna irakurri eta gero, erakunde honek berehala eta dudarik gabe ekin zion berriro Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin jarduteari, eta honako gogoetok helarazi zizkion:

“Ikusten duzunez, Basauriko alkateak egiaztatu digu bost haurren familiek errolda-datuak gaizki erabili dituztela, gaur egun jada ez baitira bizi ikasleen onarpenerako prozesurako adierazi zuten helbidean. Aldi berean, ofizioz baja emateko zenbait espediente hasi dituela ohartarazi digu.

Horrela bada, kexak bideratzean puntu honetara iritsita, erakunde honi behar-beharrezkoa iruditzen zaio hezkuntza-administrazio horrek datu berri horiek kontuan izanik zerbait egitea, Basauriko Ariz ikastolan ikasleak onartzeko prozesua irizpide objektiboak zorrozki betez egin dadin, interesdun guztiei benetan aukera berak emango zaizkiela ziurtatzeko.

Ez dakigu zer-nolako administrazio-erabakiak hartu diren orain arte onartze eta matrikulatze prozesu horretan, hau da: ea familia interesdunek administrazioko justizia-bideak erabili ote dituzten erabaki horiek irmotzat eta onartutzat erabil ez daitezten.

Nolanahi ere, hala gertatu ez bada, datu horiek hain garrantzitsuak dira non hezkuntza-administrazio horrek gogoeta egin beharko bailuke prozesu hori ofizioz berraztertzeo ekintzak hasteko beharraz.

Edonola, aztertzen ari garen kexei buruzko azken erabakia hartu baino lehen, laguntza eskatzen dizut. Beraz, arren, helaraz iezazkiguzu lehenbailehen Ariz ikastolako ikasle-onarpenak eragin duen egoeraz egin dituzun balorazio arrazoituak.”

4. Gure jarduera hori lehenbailehen gauzatu nahi genuen arren, bi errekerimendu egin behar izan ziren, azkenean, 2006-2007 ikasturtea hastear zegoela, erakunde honetan Bizkaiko plangintza unitatearen txosten bat jaso arte. Txosten hartan, jarraian aipatuko ditugun araudiko aurreikuspenak transkribatu besterik ez zen egiten:

*“Bizilekutik ikastetxerako hurbiltasunaren irizpidea balioesteari dagokionez jasotako berrien arabera, ‘erroldatzeko ziurtagiria’ da ikasleak onartzeko prozeduraren arautegi erregulatzailak horretarako eskatzen duen dokumentua.*

*Horri dagokionez, zera esan behar da Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikuluari jarraiki: ‘El Padrón municipal es el registro donde constan los vecinos de un municipio. Sus datos constituyen prueba de la residencia en el municipio y del domicilio habitual en el mismo. Las certificaciones que de dichos actos se expidan tendrán carácter de documento público y fehaciente para todos los efectos administrativos’.*

*Hori dela eta, ikasleak onartzeko prozesuan aurkeztutako ziurtagiria ikusita, dagokion puntuazioa esleitzeari ekin diote ‘bizilekuaren hurbiltasuna’ aintzat hartuta.”*

5. Azken erantzun horren edukia kontuan hartuta, Arartekoak berehala jo zuen berriro Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarengana, halako jarrera saihekorrek eragozpen larriak sortzen dituztela eta, azken batean, eskubideak babesteko eman diguten lana arriskuan jartzen dutela ohartarazteko.

Izan ere, uneotan 2006-2007 ikasturtea hasia denez gero, erakunde honek ez du egindako kexak konponetzen saiatzeko erabakirik hartzerik izan. Dena den, Hezkuntza sailburuari berari honako hau adierazi diogu berriz ere: erakunde honen ustez, kexak bideratzean behar bezala egiaztatuta geratu dela familia batzuek modu desegokian erabili dituztela errolda-datuak, hezkuntza-administrazioak ezin duela gertakari hori bazter utzi, eta nolabait jardun behar duela. Hala eta guztiz ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gai horretaz azalpenik eman gabe jarraitzen du.

#### Gogoetak

1. Aurrekarietan agerian jarri nahi izan dugu hezkuntza-administrazioak, gure iritziz, jarrera saihekorraz heldu diola erakunde honi azaldu dizkioten kexetan aipatzen den kontuzko gai hau: ikasleak onartzerakoan, erroldako datuak gehiegikeriaz erabiltzea.

Basauriko Udalak zentsua edo errolda ikuskatzeko lana bete eta gero, Ariz ikastolako ikasleen onarpenaz ezustean sortu den egoeraren berri izanda, hezkuntza arduradunek inoiz ere ez digute, gure aburuz, erabateko laguntzarik eman, jarduteko zein aukera zegoen zehaztu ahal izateko. Horren erakusgarri, idatziz

jasota utzi nahi izan ditugu behin eta berriz egin dizkiogun eskaerei emandako erantzunen zehaztasunik eza eta formaltasuna, baita atzerapenak ere, ohartuki helburu hau bilatu baitu, guk uste: eskola-ikasturtea hasi baino lehen, erabili den onarpen-prozesuaren balizko irimotasuna lortzen laguntzea.

Eusko Legebiltzarrari urtero egiten dizkiogun txostenetan sarritan aipatu dugunez, horrelako erantzun saihekor eta arrazoitu gabeak dira, hain zuzen, eskubideak babesteko eman diguten lana arriskurik handienez jartzen dutenak, izan ere, ez digute aukerarik ematen, beharrezko epeetan, jokoan dauden interes guztiak aintzat hartuz oinarritutako erabakiak hartzeko, eragindako administrazioekin benetan lankidetzan arituz egindako tramitazioan zehaztutako iritzien arabera.

Aurtengo ikasturtea horren adibide argia da, bada, 2006-2007 ikasturtea hasi da eta erakunde honi ez diote utzi ikastetxe horretan ikasle gisa sartu nahi zuten eta eskubide handiagoa zuten beste adingabe batzuen interesak babesten. Espedientearen biderapenak irau duen denbora osoan, hezkuntza-administrazioak ez du argitu ea interesa zuten familietakoren batek administrazio-justiziaren bidea erabili duen, ikasleen onarpen-prozesuaz hartutako erabakiek irimotasuna lor zezaten eragozteko. Are gutxiago agertu da prest jarduera hori ofizioz berriz aztertzeko balizko jarduera bat bideragarria ote zen haztatzeko.

Horrela bada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lankidetzarik ezak eragotzi egin digu, esaten ari garenez, 2006-2007 ikasturtean beren seme-alabak Ariz ikastolan eskolatzen hastea nahi zuten familien salaketen gainean erakunde honek esku hartzeko zituen aukera guztiak agortzea. Alabaina, eragozpen horrek are argiago ikusarazi digu gomendio orokor bat egitea komeni dela, etorkizuneko prozesuei begira.

2. Behin hori adierazita, bestelako gogoeta batzuk egingo ditugu orain. Gomendio honen abiapuntu diren aurrekariak nahiko ondo erakusten dute, gure ustez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zer-nolako jarrera aldagaitzari eutsi dion espediente honen biderapenean: etengabe aipatu ditu 2006-2007 ikasturterako EAEko ikastetxe publiko eta itunpekoetan ikasleak onartzeko eman diren jarraibideak (horietan espresuki adierazten da gurasoek edo tutoreek errola-ziurtagiria aurkeztu behar dutela, bizilekuarekiko hurbiltasunari dagokion baremoko atala aplikatu ahal izateko), baita toki araubideko legeria ere (horrek, jakina denez, ohiko bizilekuaren ezin gezurtatzeko frogaren balioa ematen die ziurtagiri horiei).

Agerikoa denez, erakunde honek ondotox daki hori, eta, horregatik, ez du ukatu nahi zentsu edo errola ziurtagiri horiek adierazitako helbidean bizi izatearen presuntzioa dakartela berekin. Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaigu presuntzio horren irismena edo norainokotasuna azpimarratzea, izan ere, berori indargabetu daiteke, errealitatearekin bat ez datorrela egiaztatzen denean. Horren adibide, Auzitegi Gorenak 1984ko ekainaren 11n eta 1985eko azaroaren 11n azaldutako iritzia aipatuko ditugu. Honela diote: *“El padrón municipal es instrumento público fehaciente para todos los efectos administrativos y la inscripción prueba plenamente la condición de que se trate. No obstante, cabe la prueba en contrario que desvirtúa la presunción que el padrón proclama, puesto que el efecto probatorio privilegiado, que cabe atribuirles respecto del dato de la residencia, que es el propio de los documentos públicos –arts. 53.3 de la LBRL y 89 del RPDT– únicamente se produce con plenitud si se presenta aislado, pero no como acontece en el caso que se enjuicia, si su eficacia es contrastada con otros medios de prueba susceptibles de provocar el convencimiento de la falta de concordancia del contenido del padrón con la realidad.”*

3. Halaxe da, bai, familia batzuek, beren seme-alabek ikastetxe publiko eta itunpeko jakin batzuetan sartzeko dituzten aukerak sendotu nahian, zentsu edo errola datuak gehiegikeriaz erabili dituztela egiaztatu da (gainera, jokaera hori ohikoa eta hedatua dagoenaren pertzepzioa dago, oro har). Hori egiaztatu ondoren, gure iritzian, hezkuntza-administrazioak zerbait egin behar du nahitaez, onartu egin behar du badaezpada neurri guztiak muturreraino eraman behar direla, ahal den neurrian, familiek adierazten dituzten helbideak errealitatearekin bat etor daitezen, diru-laguntza publikoek mantentzen diren ikastetxeetako ikasleen onarpen-prozesuetan bizilekuaren hurbiltasuna aintzat hartu eta balioztatzeko.
4. Gai horren gainean, Estatuko beste hezkuntza-administrazio batzuek ikasleen onarpenaz onartu dituzten jarraibideak arretaz irakurtzen badira, elkarrekin alderatuz, zera ikus daiteke: nahiz eta administrazio horietako gehienek, EAEko hezkuntza-administrazioak bezalaxe, interesdunei errola-ziurtagiriak aurkezteko besterik eskatzen ez dieten, beste batzuek, aldiz, ekimen berragoak abiarazi dituzte, esaterako, egoitzaren ziurtagiria ez ezik, beste baldintza batzuk ere exijitzen dituzte, edo frogatzeko beste bide batzuk ezarri dituzte zuzen-zuzenean. Horrela, adibidez:

- Gaztela-Mantxa (2004ko martxoaren 12ko Agindua, ikasleak onartzeko prozesua garatzekoa – DOCM, otsailaren 15ekoa)

*“Certificación específica, expedida por el Ayuntamiento respectivo, en la que figure el domicilio de la unidad familiar, y, en su caso, los movimientos residenciales en el año natural anterior al que se solicita plaza escolar.”*

- Kantabria (Martxoaren 8ko EDU/9/2006 Agindua, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzeko oinarriak onartzekoa – BOC 57/2006, martxoaren 22koa)

*“El domicilio familiar se acreditará mediante certificación expedida por el Ayuntamiento respectivo y por cualquier otra documentación que determine, en su caso, la Administración educativa.”*

- Kanariak (2006ko otsailaren 20ko Erabakia. Horren bidez finkatu dira ikasleak onartzeko prozesurako egutegia, eskabide-eredua eta argibide osagarriak – BOCAC 47/2006, martxoaren 8koa)

*“El domicilio se acreditará mediante cualquiera de los siguientes documentos:  
- fotocopia del DNI del alumno o de los padres  
- certificado de residencia en el que conste el domicilio  
- certificado de empadronamiento  
- tarjeta censal de los padres”*

- Balearrak (2006ko martxoaren 6ko Agindua, ikasleak onartu eta matrikulatzeko prozesua arautzekoa – BOIB, martxoaren 11koa)

*“La proximidad del domicilio se acreditará mediante el certificado de empadronamiento del alumno expedido por el Ayuntamiento y con expresión de la antigüedad en la última variación padronal.”*

- Aragoi

*“La proximidad domiciliar se acreditará mediante la aportación de una copia del certificado de empadronamiento expedido por el órgano municipal correspondiente, o documento equivalente que, a juicio del órgano competente en materia de admisión de alumnos, sirva para acreditar fehacientemente esta circunstancia.”*

- Valentzia (1998ko apirilaren 3ko Agindua, ikasleak onartzeko prozesua arautzen duena – GOGV, apirilaren 8koa)

*“El domicilio familiar se acreditará mediante la presentación del DNI del padre/madre o tutor y de un recibo reciente de agua, luz o teléfono o contrato de alquiler. Si existiera discrepancia entre ambos documentos se podrá requerir un certificado de residencia librado por el Ayuntamiento.”*

- Kalalunia

*“b) Proximitat del domicili de l'alumne o alumna  
Original i fotocòpia del DNI de la persona sol·licitant o de la targeta de residència on consta el NIE en el cas de persones estrangeres.  
Només quan el domicili familiar que s'al·lega no coincideix amb el del DNI de la persona sol·licitant o de la targeta de residència on consta el NIE en el cas de persones estrangeres, certificat o volant municipal de convivència de l'alumne o alumna on hi ha de constar que conviu amb la persona sol·licitant i resguard de la renovació del DNI o comunicació amb registre d'entrada del canvi de domicili a la Delegació del Govern en cas de persones estrangeres. En el moment de la matrícula cal presentar el DNI renovat amb la nova adreça.”*



5. Erakunde honek ez daki egiaz nolako indarra lor dezakeen, beste hezkuntza-administrazio batzuen ku-deaketa-esparruan, helbidea ziurtatzeari buruzko datu osagarriak (zentsu-antzinatasuna, eta abar) exijitzeak. Agian, datu horiek zantzu gisa erabiliko dira, geroago familiaren egoitza frogatzeko beste bide batzuen exijentzia oinarritzeko. Hori uste dugu behintzat.

Bestalde, ez gara ziurtasun osoz honako hau baieztatzen: beste froga-agiri batzuk erabiltzea (esate baterako, nortasun agiria, hezkuntza-administrazio batzuek erabiltzen baitute) orain antzemandakoa bezalako gehiegikeriak ekiditeko erabateko bermea dela.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, beharbada, agiri ezberdinen arteko informazio-gurutzaketa erraztea litzateke zuhurrena, eta agiri horiek elkarri egokituko ez balitzaizkio, froga gehiagoren exijentzia oinarritzeko zantzu gisa erabil litezke, ikasleen onarpenerako adierazi den helbidea errealitatearekin bat datorren ala ez egiaztatzeko.

Horren haritik, ikasleen onarpen prozesuetako mekanikaren beraren ondorioz, baremoko beste atal batzuei dagozkien agiriak eman behar izaten dira (adibidez, zerga arloko agiriak), eta agiriok lehen proposatu dugun agiri-alderatzea egiteko erabil daitezke.

6. Nolanahi ere, bukatzeko, erakunde honi behar-beharrezkoa iruditzen zaio zera azpimarratzea: badaezpadako neurri horiek guztiak gorabehera, horietatik bakar batek ere ez du birtualtasun nahikorik izango, baldin eta neurriokin batera hezkuntza-administrazio horrek, horrelako gertakariak eten eta geldiarazteko jarrera irmorik erakusten ez badu, izan ere, lerro batzuk gorago adierazi dugunez, jokaerok gaur egun ohikotzat, zabaldutzat eta onartutzat jotzen dira.

Beraz, hezkuntza-administrazio horrek konpromiso berezi bat onartu eta bereganatu behar du, diru-laguntza publikoek mantentzen diren ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuak modu egokian kudea daitezen zaintzeko, eta ez du utzi behar egindakoa bezalako gehiegikeriak ikasturtea hasi eta gero sendotu daitezen, batik bat erakunde honek izapidetutako kexak sortarazi dituzten salaketak tartean badira.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**24/2006 GOMENDIOA, urriaren 30ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina**

Diru-laguntza publikoek mantentzen diren ikastetxeetako ikasleak onartzeko prozesuetan, bizitokiaren hurbiltasuna aintzat hartu eta balioztatzeko orduan, beharrezko neurriak har ditzala familiek adierazten dituzten helbideak errealitatearekin bat etortzea indartzeko, etorkizunean ez dadin gerta, berriz ere, Basauriko Ariz ikastetxe publikoan 2006-2007 ikasturtean erabili den onarpen-prozesuan gertatu dena bezalako egoerarik.

#### 4. FUNTZIO PUBLIKOA

**5/2006 Gomendia, otsailaren 23koa, Urnietako Udalari egina, enplegu sustapenaren arloan jarduerak garatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion langile-beharrak berriz defini ditzan, eta behar horiek betetzeko modua Konstituzioko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara egokitu dezan. Ez da onartu.**

##### Aurrekariak

1. Erakunde honetan esku hartzeko eskaera bat jaso genuen, Urnietako Udalak itxuraz hartu nahi zituen erabaki batzuk zirela-eta. Erabaki horiek enplegua sustatzeko eta giza baliabideak kudeatzeko arloan zeuden beharrak betetzeari zegozkion.

Erakunde honi eskuratu zizkieten aurrekarien arabera, Urnietako Udalak, aspalditxo, pertsona bat kontratatu zuen Urnieta Eraiki S.A. enpresa publikoaren bitartez (UE S.A., hemendik aurrera). Pertsona hari enplegua sustatzeko lanpostuak berezko dituen zereginak eman zizkieten.

Hala ere, kexa egin zen unean, badirudi haztatzen ari zirela udalaren lanpostuen zerrenda berriz definitzeko edo berriz egituratzeko beharra. Kexan azaldu ziguten bertsiolari jarraiki, udalak UE S.A.-ren bidez kontratatutako pertsonari ematen zitzaizkion zereginak gehitzeko asmoa zuen, langileen kudeaketa-lanak hark egin zitzaizkion, nahiz eta, edonola ere, lanok udalaren plantillako langile bati legezkoiekeen.

Horrela, kexagileen ustez, jokaera horri eutsiz gero, lan publikoetara iristeko nahitaezko bidea saihesten ari zirela-eta, kontuan hartu behar dira Konstituzioko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, bai publikitate printzipioa ere- eta, aldi berean, beste funtzionario edo udal langile batzuei kendu egingo litzaizkieke mugitzeko edo mailaz igotzeko dituzten bidezko itxaropenak.

2. Behin kexa hau bideratzeko onartuta, erakunde honek hainbat aldiz eskatu zion laguntza Urnietako alkatari. Egindako gestioei esker, honako aurrekari hauek zehaztu genituen:
  - 2.1. UE S.A. sozietate publikoaren estatutuak  
UE S.A.-ko estatutuen arabera, "sozietateak helburu hauek ditu, Urnietaren eta bertako herritarren onerako: hirigintza eta lurralde antolamendua sustatzea; urbanizatzea eta eraikitzea, eta lurzoruak nahiz eraikinak egoitza-erabileretarako eta mota guztietako zerbitzuetarako erosi, saldu, trukatu, alokatu edo beste edozein eratan lagatzea".
  - 2.2. UE S.A. sozietate publikoaren langileak  
Sozietateko langileei buruzko eranskinean –Udalak 2005eko otsailaren 24an Osoko Bilkuran onarturiko lanpostuen zerrendarekin batera agertzen da–, lanpostu bat aipatzen du "enplegu sustapena" izenarekin eta "obra" iraupenarekin.
  - 2.3. (...) jaunarekin sinatutako obra-kontratua  
Egiaztatu da 2000ko otsailaren 14an pertsona bat kontratatu zela (...), "Urnietan aldean enplegurako aholkularitzan jarduteko", kontratuan adierazten denez.
  - 2.4. Eginkizunak  
UE S.A.-k kontratatutako langileak betetzen dituen eginkizunetatik batzuk ez datoz bat hura kontratatzea justifikatu nahian erabiltzen den "obra"ren definizioarekin. Hala da honako arrazoi hauengatik:

- \* Egiaztatu da langile horrek betetzen dituen lan batzuek Toki Agenda 21ekin zerikusia dutela, baina onartzen da, aldi berean, agenda horren ardura ez dagokiola UE S.A. sozietateari; bestalde,
- \* Egiaztatu da, halaber, langileak badituela zereginak langileen alorrean ere, baina ez da zehazten zein diren eginkizun horiek. Gai horren gainean, bakar-bakarrik adierazten da, azalpen handirik eman gabe, INEMen bidez egiten diren kontratuez arduratzen dela, eta elkarlanean jarduten duela LANGAlk Urnietan duen zentroarekin.

3. Aurrekariak aztertuz zenbait balorazio egin ahal izan genituen eta Urnietako alkateari helarazi genizkion, udalaren arduradun nagusiak onartu eta bere egingo zituelako ustean.

Balorazio horiek bat datoz, funtsean, gomendio hau egiteko oinarri hartu ditugun gogoetekin. Beraz, alferrikako errepikapenak saihestuko ditugu azken horien edukira joz.

4. Hala ere, Urnietako alkateak, erakunde honen proposamenari jaramonik egin gabe, ez du bere iritzirik eman nahi izan aurreratu genizkion balorazioen gainean. Hauxe baino ez du adierazi:

*“2004ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Urnietako udaleko Herriko Gobernu Batzarrak, Urnietako Udalaren antolamendua eta funtzionamendua optimizatzeko neurriak ezartzeko kontratazioa onartu zuen.*

*Urnietako udaleko organu agintariak Udaleko kide guztien aurrean, (...) enpresak Urnietako udalaren funtzionamendua eta bere sozietate publikoena aztertu ondoren eta bertako langile guztien partehartzearekin buruturiko Urnietako Udalaren antolamendua eta funtzionamendua optimizatzeko estudioa aurkeztu zuen.*

*Aurkezturiko estudioak, kudeaketa modu berri bat ahalbidetuz, ez zuen gainontzeko udal taldeen onarpena jaso, azken hauek Urnietako Udalaren antolamendua eta funtzionamendua optimizatzeko neurri ororen ezarpena ekidinez.*

*Hauen izan dira egun arte harturiko neurriak, ez delarik izan posible momentuz behintzat, besterik hartzea, Udalbatzarreko kide dire taldeen arteko adostasun faltan.” (sic)*

#### Gogoetak

1. Aurreko atalaren bigarren puntuan berariaz aipatu ditugun aurrekarien arabera, agerikoa da UE S.A. sozietate publikoarentzat jardungo zuen langile bat kontratatzeako arrazoiak (enplegurako aholkularitza) ez daukala zerikusirik sozietate horren estatutuetan azaltzen den helburuarekin. Izan ere, sozietate hori herriko hirigintza-ekimenak sustatzeko eratu zen, hasieran adierazi dugunez.

Beraz, enpleguaz aholkatzeako kontratatu den pertsona baten zereginak nekez uztar daitezke sozietateak berezkoa duen jarduera alorrarekin.

Arrazoi horregatik bakarrik, begi-bistakoa da berriz aztertu eta egokitu behar dela hirigintzako sozietate publiko horretarako onartu den langile-zerrenda, bai behintzat “enplegurako aholkularitza” izeneko lanpostu zehatz horri dagokionez.

2. Gauza jakina da obra-kontratua zerbitzu jakin batzuk betetzeko egiten dela, eta zerbitzu horiek, hain zuzen ere, bi modutan moldatzen dutela kontratuaren nolokotasuna: alde batetik, kontratua aldi baterako izateko arrazoiak dira, eta bestetik, kontratuaren iraupena zehazteko irizpidea, iraupena ezezaguna delako, baina aldi berean zehaztua ere bai.

Obra-kontratuaren ezaugarriak eta (...)ren kontratatuaren kasuan gertatutakoa kontuan harturik, erraz ulertzen da kexak agertzea, ez bakarrik langileari egokitutako zereginak aldi baterakoak izateagatik, baita horiek kontratuan ageri den helburuarekin duten zerikusiatatik ere.

Hala ere, alde batera utzita langileak bere desadostasunagatik balia litzakeen bideak edo ekimenak, Urnietako Udalak jakin beharko luke zer dioen Auzitegi Gorenak doktrina bateratzearen eman duen jurisprudenzian. Horren arabera, administrazio publiko batek bere langileak kontratatzeakoan aldi baterako kontratua justifikatzen duten betebeharrak betetzen ez baditu, langilearen alde gerta daitezkeen ondorioak moldatu beharko ditu, Konstituzioak funtzio publikoan sartzeko agintzen dituen berdintasun, merezimendu

eta gaitasun betebeharrei jarraiki. Beraz, langilea ezin da, besterik gabe, langile finko bihurtu [ildo horretan, 1998ko urtarrilaren 20ko (RJ 1998, 1000) eta 1999ko azaroaren 10eko (RJ 1999, 7843) Epaia].

3. Dena den, aurreko gogoetetan aipatu ditugun kongruentziarik eza eta irregulartasunak gorabehera, ez dago ukatzerik UE S.A.-k kontratatutako pertsona askotariko lanak egiten aritu dela eta lanok modu egokian adierazi behar direla udalaren langile-beharrak zehazterakoan. Orobat, badirudi udalak langileen kudeaketa-lanak egiteko langileen kopurua gehitu nahi duela, nolabait.

Horretarako, udalak oinarritzko eta funtsezko tresna bat du, udalaren lanpostu-zerrenda hain zuzen, eta, gainera, bitarteko funtzionarioak ere izenda ditzake, aldi baterako programak burutu ditzaten.

Orduan, Urnietako Udalak berriz definitu behar ditu, nahitaez, beharrezkoak iruditzen zaizkion langile-beharrak, arduraz gauzatu nahi dituen jarduerak eta gainontzeko zereginak behar bezala bete daitezen ahalegintzeko. Gero, (...) bezalako langileekin dituen zerbitzu-harremanak egokitu behar ditu.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### **5/2006 GOMENDIOA, otsailaren 23koa, Urnietako Udalari egina**

- Berriz defini ditzala ezinbestekoak iruditzen zaizkion langile-beharrak, enplegu sustapenean eta giza baliabideen kudeaketan gauzatu nahi dituen jarduera eta zereginak zuzen betetzen ahalegintzeko.
- Behin horiek definituta, Konstituzioko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio ezagunetara egokitu dezala langile-beharrak betetzeko modua –Konstituzioak berariaz agintzen baitu printzipio horiek nagusitu behar dutela enplegu publikoetara iristeko bidean–, bereziki uneotan udal horrek eta (...)k duten zerbitzu-harremana.

**6/2006 Gomendia, martxoaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina, ahalmen urriko pertsonak EAEko irakasleen funtzio publikoan erabat integratuko direla ziurta dezan. Ez da onartu.**

Aurrekariak

1. Jasotako keak.

Azken hilabeteotan, irakasle funtzionario batzuek erakunde honi esku hartzeko eskatu diote, helburu hau lortzen ahalegindu gaitezen: hezkuntza-administrazioak, erabakimenez, ahalmen urritasunen bat duten irakasleak lanean erabat integra daitezen errazteko konpromisoa bere gain har dezan.

Irakasle horietatik zenbait ahalmen urriko pertsonentzat gordetako kuota-erazpena bezalako neurri positiboek esker sartu dira sisteman. Beste zenbait, aldiz, ezustean gertatutako ezintasun-egoerei aurre egin behar dieten funtzionarioak dira, beraien ahalmen urritasuna irakaskuntzako funtzio publikoan sartu ondoren gertatu baitzen.

Kexok sustatu dituzten irakasle funtzionario gehienek ez dute mugitzeko gaitasunik. Gure ustez, EAEko ikastetxeetako irisgarritasun-baldintzek azaltzen dute zergatik diren kaltetu horiek, beren egoeraren aurrean, hezkuntza-administrazioaren erreakzioa lortzen gehien saiatzen ari direnak. Hala ere, bestelako ezgaitasunak dituzten beste funtzionario batzuek ere jo dute gugana. Horiek ere benetako aukera-berdintasuna bultzatzea nahi dute irakasle gisa egiten duten lanean.

Irakasle horiek azaldutako keak direla medio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin jarduera bat gauzatzea erabaki dugu (1086/2004/20 zenbakikoa), eta atera ditugun ondorioen berri eman nahi duguliz.

2. EAEen heziketarako erabiltzen diren eraikinen irisgarritasun baldintzak.

2.1. 2003ko uztaillean, erakunde honek txosten bat argitaratu zuen, *EAEen erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna* izenburuarekin. Orduan jada azpimarratu ahal izan genuen hezkuntzarako erabiltzen ziren eraikinak zirela irisgarritasun-berme eskasena ematen zutenak. Horregatik, irakaskuntza-instalazioak bere baitan hartzen dituzten eraikinetan irisgarritasuna lortzeari lehentasunik handiena emateko gomendatu genuen (bosgarren eta zazpigarren gomendioak). Gauza bera gomendatu genuen –arkitektura oztopoak ken zitezela, alegia– 2001eko ekainean aurkeztu genuen txosten honetan: *EAEko hezkuntza-premia berezietan emandako erantzuna*.

2.2. Txosten berezietan gainean egiten dugun jarraipen-lanean, urteak daramatzagu gure eragozpenak azaltzen hezkuntza-administrazioak EAEko ikastetxeetako irisgarritasuna sustatzeari buruzko konpromiso-mailaren gainean (horren adibide gisa, Eusko Legebiltzarrari 2004. urteaz egin genion ohiko kostenean adierazitakoari gagozkio. 1.1.10. atala).

Orain dela gutxi, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunekin egindako bilera batean, 2006. urterako aurreikusita dauden finantza-konpromisoak ezagutu ahal izan ditugu. Konpromiso horiei esker, oztopoak eta beste traba batzuk kenduko dira beste 24 ikastetxetan, nahiz eta arduradunek nabarmendu izan nahi duten beste obra handi batzuk ere aprobetxatzen direla ikastetxeak irisgarriak izan daitezen lortzeko.

Bestalde, lurraldeetako teknikariak, datuak bilduz, ikastetxe eta eraikin bakoitzeko irisgarritasunezko fitxa batzuk egiteko lanean aurrera doazela adierazi digute. Lan hori bukatzean, baliagarria izango

da mapa oso bat erdiesteko edo egoera zertan den deskribatzeko, baina lan hori epe laburrean nekez bukatuko dutela ere azpimarratu dute.

Horrela, hezkuntzako arduradunek berriro diote ikastetxeetatik %100ean irisgarritasuna lortzeko helburuari eusten zaiola, baina, egia esan, oraindik ez dago ikastetxeen errealitatea modu eraginkorrean egiaztatzen abiatuta, irisgarritasun orokorra ziurtatzeko helburu hori lortzeko epe benetakoa iragartzea ahalbidetuko duen programazio lanik.

### 3. EAEko funtzio publikoaren sektorean ahalmen urriko pertsonen lana ematea.

- 3.1. Erakunde honek hainbat ekimen gauzatu ditu ahalmen urriko pertsonak lanean integratzeari buruz. Horren erakusgarri aipatuko ditugu: 2002ko urteko txostenean egin genuen gomendio orokorra –“Gordetako kuota: pertsona ezgaituak EAEko enplegu publikora heltzeko sustapen neurria”– eta 2003ko maiatzean argitaratu zen txosten berezia, *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* izenburukoa.

Egia da ekimen horiek helburu orokorra zutela eta, horregatik, ez zaizkiola bereziki EAEko irakas-kuntzako funtzio publikoari zuzendu. Alabaina, berriro ere, eskuarki egin ohi dugun jarraipen-lanari esker egiaztatu dugu EAEko hezkuntza-administrazioak oso interes gutxi duela ahalmen urritasuna duten pertsonak lanean integratzeko sustapen-lana egiten. Horixe iruditu zaigu behintzat elkarren segidan egin dizkiogun informazio-errekimenduei emandako erantzunak irakurrita, jarraian azalduko dugunez.

- 3.2. Egiaz, errealitate hori ofiziozko espediente bat bideratzen ari ginela (44/2003/200 zenbakikoa) antzeman genuen lehen aldiz. Espediente hartatik atera genituen ondorioen berri eman genuen 2004. urteari buruzko urteko txostenean (1.1.13 atala).

Orduan adierazi genuen (ondorio haietan) komenigarria zela ahalmen urriko langileei buruzko datuen jarraipen eta tratamendu sistema bat ezartzea, pertsona ezgaituak lanean erabat integra daitezten errazteko proposatu ziren ekimenak egiaz zenbateraino bete ziren jakin ahal izateko.

Hala ere, EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunari buruzko txosten bereziaren jarraipena dela-eta, oraintsu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eman digun erantzuna ikusita, honako hau baieztatu dezakegu: lehen egindako iradokizunen inguruan inolako aurrerapenik ez gertatzeaz gain, (gordetako kuota irakasleen ordezkapenetako alorrera ere zabaltzea, e.a.), hezkuntza-administrazioak ez dirudiela irakasle ezgaituen taldeari ematen zaion tratua hobetzeko neurri berriak hartzeko joera berezirik duenik.

- 3.3. Izatez, lehen aurrekarian espresuki aipatu ditugun keak direla-eta burutu dugun jardueraren bitartez, saiatu gara ahalmen urriko irakasleek aurkitzen dituzten oztopoetako batzuk kentzeko neurri positiboak onartu eta indartzea komeni dela azaltzen, hezkuntza arloko ingurua guztiz irisgarria izatea erdietsi arte. Baina gure jarduera horren aurrean, iradokitako proposamenak onartzeko borondate gutxi ikusi dugu, eta arrazoi horrexek bultzatu gaitu gomendio hau egitera.

### Gogoetak

#### 1. Irisgarritasun unibertsala.

Ahalmen urritasuna ulertzeko eta aztertzeko moduan gertatu diren aldaketan ondorioz, gaur egun bide bakarra dago ahalmen urriko pertsonen benetako aukera-berdintasuna lortzeko azken xede hori ziurtatzeko: irisgarritasun unibertsalaren printzipioa erabat geure gain hartzea, irisgarritasun hori inguruek, prozesuek, ondasunek, produktuek, objektu eta tresnek, lanabes eta gailuek bete behar duten baldintza gisa ulertuta, horiek guztiak gizaki ororentzat ulergarriak, erabilgarriak eta egingarriak izan daitezten, segurtasunez, erosotasunez eta ahalik eta modurik autonomo eta naturalenean. Horrelaxe bakarrik erraz daiteke, gure ustez, pertsona horiek erkidegoan modu eraginkorragoan parte har dezaten.

Abenduaren 2ko 51/2003 Legeko zioen adierazpena –Ahalmen urriko pertsonen aukera berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa da lege hori– oso argigarria da, ahalmen

urrituak berdintzeko politikei bultzada berria emateko balio dezaketen ikuspegi eta estrategia berri horiei dagokienez. Ildo berari jarraitzen zaio abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzekoa, gure erkidegoan lehenago eman zena.

Onartu beharra dago hezkuntza-administrazioak ez dituela bazter uzten irisgarritasunari buruzko betebeharrak, batez ere hezkuntzarako erabiltzen diren eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzeari dagokienez. Hala ere, bigarren aurrekariaren bigarren puntuari aurreratu dugunez, beharrezkoa iruditzen zaigu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikastetxeetako benetako egoera modu eraginkorrean egiaztatuta eta gero, programazio-lan bat has dezan, irisgarritasun unibertsala ziurtatzeko helburu hori lortzeari bultzada irmoa eman ahal izateko.

## 2. Ahalmen urriko pertsonak lanean integratzea

Aurreko gogoetan aipatu dugun ahalmen urritasuna ulertzeko modu berri horrek ez du esan nahi uko egin behar zaienik ezgaituak lanean –baita enplegu publikoaren alorrean ere– erabat integratzea eragozten duten oztopoak kentzeko neurri positibo gisa lehenagotik finkatuta dauden estrategiei.

Aitzitik, estrategia horiek bete-beteko indarra dute oraindik bereizkeriaren kontrako borroka-ekintza gisa, eta horiei esker ulertzen dira eta dute zentzua EAEko lan-merkatu arruntean ezgaituak sartzeko Plana (2004-2006) bezalako ekimenek. Plan hori Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eskatuta sustatu da, zenbait betebeharrari erantzuteko, besteak beste, ahalmen urriko pertsona talde batzuen artean enplegu publikoa arautu eta bultzatzeko gizarte-betebeharrari.

Orduan, plan horren helburua jarduera-esparru bat ezartzea da, euskal administrazio publikoari –hezkuntza administrazioari ere bai– bere eskumenak erabiltzeko orduan, ezgaituak integratzeko politika eraginkorrak diseinatu eta definitzea ahalbidetzeko.

Plan horretan berariaz aipatzen diren ekintzen artean, herri-administrazioei dagokien atalean, erakunde honek 2002. urteari buruzko ohiko txostenean egindako gomendio orokorrean adierazi zituen ekintzetatik bat baino gehiago azaltzen dira. Hain zuzen, zera adierazi genuen orduan: EAEn bermatu beharra dagoela ahalmen urriko pertsonak enplegu publikoetara irispidea izatea, gordetako kuota betetzea, hauta-probak egiteko egokitzapenak ezartzea, e.a.

EAEko hezkuntza-administrazioak nekez utz ditzake alde batera ekintza horiek, lege-mailako betebeharrak bihurtu baitira, baina, gehienetan, administrazioak betebeharrak bete besterik ez duen egiten, neurri positibo horiek ezgaituak ahalik eta ondoan integratzeko eskaintzen dituzten aukera guztiak agortu gabe. Esate baterako, lerro batzuk gorago adierazi dugunez, erreserba-portzentaje bat aplikatzeko aukera, baita aldi baterako enpleguetara iristeko bidean ere.

Alabaina, ahalmen urritasuna ulertzeko modu berri horren arabera benetako aukera-berdintasuna lortzeko ardura horrek bultzatuta, beste mota bateko ekintzak ere bildu dira plan horretan, honako hauek adibidez:

- Irizpideak finkatu behar dira eta prestakuntza nahiz irisgarritasuneko neurriak ezarri, herri-administrazioaren barruan ahalmen urriko pertsonen lanbide-garapena eta sustapena errazteko, eta
- Erabateko edo zati bateko ahalmen urritasuna ezustean etorri zaien pertsonen dagokienez, herri-administrazioek laneko arriskuei aurrea hartzeko legeria beteko dutela bermatu behar da; beraz, haien lanpostuak egokitu behar dira.

## 3. Kexak sortarazi dituztela eta, erakunde honek aztertu dituen neurri edo ekintzak

Gure iritziz, ildo horretan kokatzen da, hain zuzen, erakunde honi kexak egin dizkioten ahalmen urriko irakasleek eskatutako bitartekotza, izan ere, ekintza positibo berriak nahi dituzte, irisgarritasun-neurriak har daitezela, irakasle gisa duten lanbide-ibilbidea garatu eta sustatu ahal izateko; ikuspegi horretatik baloratu behar da, gure aburuz, haiek egindako proposamenetako batzuk bidezkoak diren ala ez.

### 3.1. Mugikortasun prozeduretan –esaterako, lekualdaketa-lehiaketetan– lehentasuneko trataera eskatzea.

Lanpostuak betetzeari dagozkion hainbat araudi –Estatukoak nahiz autonomikoak– irakurri eta gero, zera baieztatu daiteke, erakunde honen ustez bederen: herri-administrazioek, neurri edo ekintza positibo gisa, eskatutako lanpostua edo lanpostuak gero egokitzeak erabakia hartu dutela, enplegu publikoetan sartzeko baldintzak errazteko asmo argiaz, eta ez dutela ahalmen urriko langileen mugikortasuna erraztu bakarrik egingo. Horrela, EAEn, aipatu beharra dago euskal administrazio publikoetako funtzionario lanpostuak betetzeko araudiaren 36.4 artikulua (190/2004 Dekretua, urriaren 13koa).

Horregatik, irakasle ezgaitu horien kexak direla-eta hasitako jardueran, erakunde honek eragozpenik gabe ulertu du hezkuntza-administrazioak lekualdaketa-lehiaketetan irakasle horiek lehentasunez tratatzeko proposamena hausnartzeari kontra egitea, nahiz eta kontraktotasun formal hutsa erakutsi duen. Horren haritik, lekualdaketa-lehiaketek indarrean dauden araudiak kontuan izanik, horrelako tratuera emateko behar den babes juridikorik ez dagoela adierazi digu, baina ez du adierazi irakasle horien proposamena bidezkoa iruditzen zaion ala ez, ahalmen urriko pertsonen lanean benetako aukera-berdintasuna ziurtatzen ahalegintzearen ikuspegitik.

### 3.2. Zerbitzu-betekizunak ematea:

Beraz, mugikortasun prozesuetan –adibidez, lekualdaketa lehiaketetan– ahalmen urriko irakasleei lehentasunezko tratua emateko aukera baztertu den arren, erraz bururatzeko zaizkigu irakasle horiek arkitektura-oztopoak edo bestelakoak direla medio kalteturik gerta daitezkeen hainbat egoera, batez ere oraingo bezalako une batean, oraindik asko falta baita irisgarritasun unibertsaleko egoera lortzeko.

Agian horregatik, administrazioek berek ez dute baztertu mugitzeko balio dezaketen beste bide batzuk erabiltzea, hala nola, zerbitzu-betekizunetako deialdiak. Izatez, irakaskuntzako funtzio publikoan, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak –irakasleen kidegoetako lanpostuak betetzeko Estatuko lekualdaketa-lehiaketak arautzen dituenak– hauxe ezarri du berariaz bere lehen xedapen gehigarrian: ahalmen fisiko, psikiko eta zentzumenezkoak nabarmenki urrituak dituzten funtzionarioak aldi baterako beren destinoaz bestelako lanpostuetara atxiki ahal izango dituztela herri-administrazioek, baita ofizioz ere, zerbitzu-betekizunetan, beraien kidegoari dagozkion lanak egiteko, betiere ahalmen urritasun hori ezintasun iraunkorraren adierazpena eragiteko modukoa ez bada.

EAEn ezagunak dira irakasle funtzionarioen zerbitzu-betekizunak arautzen dituzten urteko erabakiak, plaza edo ikastetxe desberdinetan lan egin dezaten. Erabaki horietan aintzat hartzen da, betekizunok ematea babesten duen arrazoi pertsonal berezi gisa, osasun kontuei dagokien arrazoa, eta osasun emate horien artean bideratzen dira ahalmen urritasunen bat duten irakasleek egindako eskabideak.

Hain zuzen ere 1086/2004/20 zenbakiko kexa-espeditentia dela-eta burutu dugun jarduerak zerbitzu-betekizunei buruzko jarduera-lerro hori izan du ardatz nagusi. Horrela, erakunde honek agerian jarri nahi izan ditu zerbitzu-betekizunak orain bideratzen diren moduaren ondorioz izatez sor daitezkeen hainbat eragozpen.

3.2.1. Une hauetan, esan dugun bezala, ahalmen urriko irakasleei zerbitzu-betekizunak arautzen dituen urteko deialdiaren barruan ematen zaizkie zerbitzu-betekizun horiek, eta horri buruzko erabakian, eskatutako zerbitzu-betekizuna eman den ala ez bakarrik adierazten da. Geroago, betekizun hori eman zaien irakasleek ikasturte hasierako kokatze-prozesuetan parte hartu behar izaten dute. Prozesuetan, beste egoera batzuetan dauden funtzionarioen atzetik kokatzen dituen lehentasun-ordenari jarraiki (gaizki atxikitakoak, kendutakoak,...), irakasleok une horretan hutsik dauden destinoetatik edozein aukeratu behar izaten dute.

3.2.2. Alabaina, komeni da honi erreparatzea: neurri positibo horiek –esaterako, zerbitzu-betekizunenak– beren eraginkortasun osoa lor dezaten, ezinbestekoa da aldi berean lanpostu hutsen erreserba bat egitea edo irisgarriak diren ikastetxeetako lanpostuetan interesatuta dauden funtzionarioak aldi baterako atxikitzea ahalbidetuko duen beste neurriren bat hartzea. Osterantzean, neurri osagarririk hartzen ez bada, zera gerta daiteke: osasuna dela-eta zerbitzu-betekizun bat onartu bada ere, ez dela bermatzen irakaskuntza-lanak normalki



gauzatuko direnik, aldi berean ez baita ziurtatzen irakaslea inguru irigarri batean kokatutako lanpostuari atxikiko zaionik.

Horren erakusgarri, hizpidera ekarri nahi dugu, adibide konparatu moduan, ahalmen urriko pertsonak enplegu publikoan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duen Estatuko antolamenduan ezarri den neurria (abenduaeren 3ko 2271/2004 Errege Dekretua). Antolamendu horretan, lanpostuen esleipena aipatzen denean, ahalmen urriko pertsonen plazarak aukeratzeko lehentasun-ordena aldatzea eskatzeko aukera ematen zaie norberaren mendekotasunagatik, mugitzeko arazoak dituztelako edo beste arrazoi batzuegatik; horrela, ahalmen urriko pertsona lanpostura irits dadin ahalbidetzen da (9. artikulua).

- 3.2.3. Hala eta guztiz ere, erakunde honek zerbitzu-betekizunak kudeatzeko oraingo sistemari buruz inolako neuririk hartzen ez bada disfuntzioak sor daitezkeela behin eta berriz ohartarazteko ahaleginak egin dituen arren, hezkuntza-administrazioak ez du hausnartu nahi izan neurri osagarriren bat hartzeko aukera –lehen aipatu dugunaren haritik–, eta, horretarako, argudio formal hau erabiltzen du aitzakiatzat, oker, gure ustez.: Konstituzioaren 9 eta 103. artikuluetan ezarritako aginduen arabera bete behar duen lege-esparruak, bere esanean, eragotzi egiten dio aparteko modu berezian tratatzea zerbitzu-betekizun bat ematen zaizen ahalmen urriko irakasleak.

\* \* \*

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**6/2006 GOMENDIOA, martxoaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina**

Bere gain har dezala EAEko funtzio publikoan ahalmen urriko pertsonak erabat integratuko direla bermatzen ahalegintzeko konpromisoa,

- ikastetxeetan irisgarritasun unibertsalerako baldintzak sustatuz
- neurri positiboak aplikatuz, EAEko hezkuntza-administrazioan lan egiten duten irakasleen benetako aukera-berdintasuna lortzen saiatzeko, bai enplegua lortzeko bidean, bai lan-baldintzetan, eta
- ekintza positibo horiek eraginkorrak izango direla ziurtatuz; bereziki neurri osagarriak hartuz, ahalmen urritasunagatik emandako zerbitzu-betekizunak destino irigarrietan gauzatuko direla bermatzeko, irakasle interesatuak lanean erabat integra daitezen.

## 5. OGASUNA

**23/2006 Gomendioa, irailaren 20koa, Zornotzako Udalari egina, helbideratutako ur ordainagiri bat kobratzeko erabili den premiamendu prozedura baliorik gabe utz dezan eta ordainagiriak banku bidez helbideratzeari buruzko araudia alda dezan, herritarrentzat argiak eta ezagunak diren eskaeren ondorioen muga-egunak ezarriz. Onartu da.**

### Aurrekariak

1. Biztanle batek Ararteko erakundearen esku-hartzea eskatu zuen. Bere ustez, Zornotzako Udalak oker jardun zuen, ez baitzuen 2004. urteko laugarren hiruilekoari dagokion ur eta zabor tasen kobrantza kudeatu helbideratze kontuaren bidez.

Kexan interesdunak dio tasa horiek borondatezko epean ordaintzeko aldia hasi baino lehen, hots, 2005eko apirilaren 8an, bankuko helbideratze kontua aldatzeko eskatu zuela. Horretarako, udal bulegoetan bertan eman zioten inprimakia bete zuen, baina han ez zioten ohartarazi laster zenbait ordainagiri kobratuko zirela eta horiei ez zela eraginik egingo eskatu zuen helbideratze kontuaren aldaketak.

Bestalde, udalak 2005eko apirilaren 5ean argitaratu zen iragarki bidez jakinarazi zuen 2004ko laugarren hiruilekoan fakturatutako ordainagiriak kobratzeko borondatezko aldia 2005eko apirilaren 15ean hasi eta ekainaren 15ean amaituko zela.

2. Udal administrazioa aldi horretako ordainagiria interesdunari zorduntzen saiatu ziren helbideratze kontu zahararen bidez, baina hau dagoeneko bertan behera utzi zen.

Borondatezko aldiak ordaindu ez zenez, udalak zegokion premiamenduzko erabakia izapidetu zuen.

Interesdunak errekurtsua aurkeztu zuen erabaki horren aurka eta adierazi zuen ez ordaindu izanaren errua udalari berari leporatu behar zitzaioela, helbideratze kontu zaharra erabili baitzuen, berriaren ordean. Ildo horretatik, azpimarratu zuen, besterik ezar zezakeen arau espezifikorik ezean, helbideratze kontua aldatzeko bere eskaerak 2004ko laugarren hiruilekoko ordainagiriari nahiz ondorengoei eragin beharko liekeela, borondatezko aldia hasi baino lehen egin baitzen.

Hala ere, udalak erabat baztertu zituen erreklamazio egilearen alegazioak eta bere irizpideari eutsi zion; alegia, sortu diren baina ordaindu gabe dauden aldiatarako helbideratze eskaeren ondorioen muga data dagokion errolda onesten denekoa izatea, kasu honetan, apirilaren 5a.

3. Guk egindako lehen informazio eskaerari erantzunez, udalak txostena helarazi zigun eta bertan zenbait arrazoi adierazi zituen bere alde eginez. Lehenik eta behin, Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskaritzako Ordenantza Orokorraren 27. artikuluko azken paragrafoa aipatu zuen; horren arabera, udalak unean-unean ezarriko du helbideratze eskaerak onartzeko muga data edo horiek ondorioak izaten hasteko aldia. Era berean, txostenak kategorikoki zioen udalak kasuan kasuko errolda edo kobratze zerrenda onesten zenekoa ezarri zuela, nahiz eta ez zehaztu non eta nola ezarri zuen. Azkenik, udal txostenak adierazi zuen, normalean eta honen moduko egoerak ekidite aldera, udaleko Diruzaintza eta Diru-bilketako Zerbitzuak beti ematen diela alderdi horren berri helbideratze kontua aldatzeko eskaera egiten duten pertsonen.
4. Berriz ere udalari eskatu genion adieraz ziezagula zein formula erabili zen aukeratutako formula ituntzeko nahiz biztanleen artean zabaltzeko eskaerak onartzeko muga data errolda onesten denekoa dela. Era

berean, erabilitako inprimaki eredia bidaltzeko eskatu genuen, azalpen edo zehaztapen interesgarririk ba ote duen ikusteko.

Gure eskaerari erantzunez, beste txosten bat jaso genuen eta, honekin batera, eskaera ereduaren kopia etorri zen. Honek, ordea, ez zuen muga data ezartzearen inguruan eskatu genuen datua ematen.

5. Eskaera-inprimakiaren eredia aztertu ondoren, oharra ikusi dugu eta honek, hitzez hitz, honela dio: *“Helbideratze-agindu honek ez du ondoriorik izango jada eman diren ordainagiritan”*. Hori horrela, udalari galdetu genion ea zer ulertzen duen “ordainagiriak ematearekin”; egiaztatu ahal izan genuen bezala, errolda onetsi eta diru-bilketako erakunde laguntzaileari datuak bidaltzen zaizkion unearekin identifikatzen zuen.

Kontra egin genion udalaren irizpideari eta azpimarratu genuen izapide horietako bat bera ere ez dela berez jasotzaileengana heltzen. Zentzu berean, azpimarratu genuen ezinezkoa dela biztanleek errolda noiz onetsi den jakitea, dagokion alkate-dekretua argitaratzen ez den bitartean; orobat, biztanleek ez dakite, ezta ere, udalak noiz helarazten dizkion datuak erakunde laguntzaileari.

6. Udalak, berriz ere, bere iritzia berretsi zuen, baina orduan ere ez zuen inolako aipamenik egin biztanleei, edozein jardura burutu aurretik, horiek izan zitzaketen ondorio guztien berri emateko duen betebeharra gauzatu zuen moduaren inguruan.

#### Gogoetak

1. Zornotzako Udalaren Kudeaketa, Ikuskaritza eta Diru-bilketako Zerga Ordenantzaren 27. artikulua, 2005eko indarreko idazketan, honakoa zioen: *“Udalak unean-unean ezarriko du helbideratzeko eskaera onartzeko muga data edo horiek ondorioak izaten hasteko aldia”*.

Ordenantza hori udal ebazpen zehatzei ere aplikatu dakieke, betiere muga gisa behin-behineko kaltetu edo jasotzaileen artean argitaratzen den unea izanik. Hau da, udalak eskaera mota jakin bat onartzeko muga data ezartzen duen xedapen zehatzak legezko betekizun guztiak bete behar ditu, baita jakinarazpenari dagozkionak ere, administratuentzat ondorioak izan ditzan.

Esku artean dugun kasuan, badirudi ez dela eman aipatutako betekizunak betetzen dituen inolako ebazpenik horren inguruan.

Gainera, udalak, praktikan, eskaerak onartzeko muga gisa hartzen duen data –errolda edo kobrantzen zerrenda onesten denekoa– ezin ezagut dezake garaiz biztanleak. Errolda onesten deneko data kasuan kasuko alkate-dekretua argitaratu ondoren jakiten da. Bestalde, biztanleek ere ez dakite udalak noiz bidaltzen dizkion kobrantzari buruzko datuak erakunde laguntzaileari.

2. 2005eko abenduaren 23an onetsi zen eta 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagoen Kudeaketa, Ikuskaritza eta Diru-bilketako Zerga Ordenantzaren 27. artikuluari eman zaion idazketa berriak azken paragrafoa aldatzea ekarri du; honela dio:

*“Udalak unean-unean ezarriko du helbideratzeko eskaera onartzeko muga data edo horiek ondorioak izaten hasteko aldia; nolana ere, oro har, hamabost eguneko epea emango du errolda onetsi baino lehen”*.

Agindu honi dagokionez, esan behar dugu, batetik, kasu honetan ez dela aplikagarria, ondoren sartu baita indarrean. Gainera, erantsi behar dugu arau berri horiek jasotzaileei ez diela inolaz ere laguntzen, ezta informazio osagarririk ematen ere, aurretik zeuden arauekin alderatuta; izan ere, biztanleek ezin badute jakin errolda onesten deneko data, ezin kalkula ditzakete ezta ere aurreko hamabost egunak.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**23/2006 GOMENDIOA, irailaren 20koa, Zornotzako Udalari egina**

Bertan behera utz dezala 2005ean ura, zaborra, estolderia eta saneamendua direla-eta (...) zk.ko ordainagiria kobratzeko irekitako prozedura betearazlean interesdunari aplikatutako errekgua eta itzul diezazkiola horren zioz bildutako kopuruak.

Alda ditzala ordainagiriak banku bidez helbideratzeari buruzko arauak eta biztanleentzat nabariak eta ezagunak diren eskaeren ondorioen muga datak ezar ditzala.

**25/2006 Gomendioa, azaroaren 17koa, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari egina, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari buruz orain erabiltzen duen interpretazio-irizpidea bazter dezan. Irizpide horri jarraiki, aldundiak garraiobidea matrikulatu aurretik egiten diren eskabideak bakarrik jotzen ditu bideragarritzat ez zergapetzea, zerga-salbuespena edo zerga-murrizketa onartzeko.**

#### Aurrekariak

1. (...) andreak erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen Arabako Foru Ogasunaren jardunbidearekin ez zegoelako ados. Izan ere, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziatik (aurrerantzean ZGZB) ordaindutako gehiegizko kopurua itzultzea ukatu zion.

(...) matrikulako ibilgailu berria erostean, interesdunak aipaturiko zerga ordaindu zuen inolako onurarik aplikatzea eskatu gabe. Hori dela-eta, ez zuen familia ugariari aplikatu ohi zaien %50eko murrizketaz gozatu, nahiz eta familia ugaria izan.

Akatsa antzematean, likidazioa aurkeztu eta zegokion kuota ordaindu eta egun gutxi batzuk ondoren hain zuzen, interesdunak Zerga Administrazioari erreklamatu zion ordaindutako gehiegizko kopurua itzul zie-zaiola. Izan ere, baieztatu ahal izan zuenaren arabera, zergaren araudiak ezarritako baldintza esanguratsu guztiak betetzen zituen aipaturiko murrizketaz gozatu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, Foru Ogasunak interesdunaren eskariari uko egin zion. Emaniko ebazpenak, lehenik eta behin, Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailearen 71. artikulua 4. atala aipatu zuen. Horrek ZGZBaren murrizketa arautzen du familia ugariagatik, eta ondorio gisa honakoa adierazi zen: *“beraz, adierazitako murrizketaz gozatu ahal izateko, beharrezkoa da irizpide formal bat betetzea, hain zuzen ere, Zerga Administrazioak onura hori onartzea ibilgailua behin betiko matrikulatu aurretik. Kasu honetan, matrikulazioa 2006ko martxoaren 31n egin zen. Arrazoi hori dela-eta, ezinezkoa da oinarri zergapegarriaren gaineko murrizketa aplikatzea, behin ibilgailuaren matrikulazioa eginda bada.”*

2. Agerturiko kasua eta aplika daitekeen araudia xehetasun osoz aztertu ondoren, erakunde honek Arabako Foru Ogasunera jo zuen, interpretatzeko izandako irizpidea zalantzan jarriz. Hitzez hitzekoegitza jo genuen, eta arauaren benetako espiritu eta xedetik oso urruntzat (familia babestea, kasu honetan). Testuinguru horretan, administrazioari eskatu genion interpretaziorako irizpide zabalago eta malguagoak hartzeko, kasu ohikoan ez ezik (hots, zerga ordaindu behar duenak ibilgailua erosi aurretik daki onura existitzen dela eta, beraz, hori eskatu eta beharrezko dokumentazioa aurkezten du), hain ohikoak ez diren baina, hala ere, interesgarriak diren kasuak ere barneratzeko. Azken horietan, zergaren subjektu pasiboak arauan ezarritako baldintza esanguratsu guztiak betetzen ditu, baina, arrazoi ezberdinengatik, ez du aipaturiko murrizketa eskatzen zerga likidatzerakoan, hau da, ibilgailua matrikulatu baino lehenago; aitzitik, eskaera ondorenean egiten da.
3. Arabako Foru Ogasunak txostena helarazi zion erakunde honi, gure planteamendua erabat baliogabetuz, eta bere hasierako jarrera berretsi zuen, Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailearen 71. artikuluko 4. atalaren interpretazioari zegokionez. Horretarako, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak emaniko ebazpenetan adierazitako irizpideetan oinarritu da; honela dio, hitzez hitz: *“oinarri zergapegarriaren gaineko salbuespen/murrizketa eskaerak matrikulazioaren aurretikoa izan behar du, hori aurretik onartzea aipaturiko zerga onuraren baldintza osagarria delako, eta ez adierazpenekoa bakarrik”*. Irizpide horren babesle osagarri gisa, txostenak, gainera, Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi

Nagusiaren epai bat (JT 1998\1080) eta Murtziakoarenaren beste bat (JT 2001\1428) aipatu zituen. Halaber, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiaren ebazpen bat aipatu zen, 2001/11/28koa, hain zuzen.

#### Gogoetak

1. Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailearen 71. artikuluko 2. eta 4. atalak ezintasunagatik salbuespenari eta familia ugaria izateagatik murrizketari buruzkoak dira, hurrenez hurren. Horietan bietan, ezarpen komuna antzeman daiteke: “aplikazioa Zerga Administrazioak aurretik horren berri izatearen menpe egongo da, araudiak ezarritako moduan”.

Paragrafoa mantso irakurritz gero, antzeman dezakegu legegileak ezarpenean exijituriko ezagutza ez dela ezindu edo familia ugari izatearen baldintzarena, baizik eta salbuespen/murrizketarena berarena. Zerga Administrazioak ez du eskumenik, ez teknikorik ez formalik, pertsona bati ezindu izaera onartzeko edo familia bati ugaria izatearen titulua emateko. Ondorioz, aztertzen ari garen arauko onarpenak ezin du salbuespen/murrizketarena ez den beste ezerena izan.

Ildo bera jarraitzen du Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiak ere 1618/2002 Epaian:

*“Lo que el precepto quiere decir, únicamente, es que la Administración tributaria no es la competente para el reconocimiento de la concurrencia en una determinada persona de un cierto grado de minusvalía; ni tiene la competencia técnica ni la competencia formal, que hoy está en manos de las Comunidades Autónomas. No significa pues que la resolución por la que se reconoce el grado de minusvalía deba ser previa a la realización del hecho imponible, sino simplemente que Hacienda no puede reconocer la exención sin que exista una resolución previa (previa al reconocimiento de la exención, no previa a la realización del hecho imponible) de la Administración competente. Por lo tanto, lo único exigible es que el interesado, en el momento de la matriculación del vehículo, tenga efectivamente solicitada la condición de minusválido, y que finalmente esa condición le sea reconocida”*.

Hala eta guztiz ere, antzeman daiteke zenbait justizia-auzitegik (Gaztela-Mantxa eta Murtziakoa kasu, Foru Ogasunak bere txostenean adierazitako epaietan) modu ezberdin batean interpretatzen dutela gaia, eta uste dute, arauak exijitzen duen onarpena ezindu izatearen baldintzarena dela (Estatuko 38/1992 Legearen 66. artikulua, Arabako Lurralde Historikoko Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailearen parekoa). Horrek ondorio okerrak ateratzea dakar, eta ezin dira kontuan izan atal honen hasieran jada adierazitako arrazoiengatik.

2. Salbuespen/murrizketaren aurretiko onarpena baldintza formal bezala agertzen da arauan, eta, gainera, ezinbesteko bezala. Hori dela-eta, ezinezkoa da zergaren ordainketa deuseztatzea edo gutxitzea salbuespena edo murrizketa aplikatuz, aurretik Administrazioak ez badu aitortu edo onartu halakorik dagoenik.

Derrigorrezko onarpen hori da, hain zuzen ere, Zerga Administrazioari baldintza betetzen dela baieztatzea ahalbidetzen diona, interesdunak aipaturiko onuretakoren bat (salbuespena edo murrizketa) aurretik jasotzeko aukera izan dezan.

Kataluniako Auzitegi Nagusiak 148/2000 Epaian zuzenki azpimarratzen duen moduan:

*“Así pues, el reconocimiento previo de la exención por la Administración es un requisito esencial de aplicación, que afecta a su validez y eficacia. Se trata de una garantía de aplicación a fin de que ningún sujeto pasivo matricule el vehículo sin liquidar el impuesto amparado en la exención, sin antes haber solicitado y obtenido el reconocimiento de la misma por la propia Administración, ya que de ello depende una correcta comprobación de los requisitos esenciales que capacitan para su disfrute, debiendo —«no pudiendo»— otorgar la Administración el reconocimiento de la exención si el petionario reúne y aporta los requisitos que afectan a cada exención recogidos en las letras a), b), d), f), i) y k) del apartado 1. En atención a lo expuesto, el reconocimiento es un acto administrativo declarativo del derecho a disfrutar de la exención, ya que la Administración únicamente ha de comprobar su existencia”*.

3. Zerga Administrazioaren aurretiko onarpenaren izaera nahiz edukia definituta, beharrezkoa da onarpena denboran kokatzea, hau da, jakin behar dugu Arabako Foru Ogasunak adierazitako moduan, arauak une zehatzik edo epemugarik ezartzen duen Administrazioak salbuespena/murrizketa onartzeko, edo, alderantziz, inolako muga zehatzik jarri ez duen. Horretarako, xehetasunez aztertuko dugu aipaturiko salbuespena/murrizketa aplikatzeko prozedura formala jasotzen duen araudia. Azterketa horri esker, Arabako Foru Ogasunak exijituriko matrikulazioaren aurretiko onarpena kasu honetan indarrean dagoen araudira egokitzen den edo, aldiz, araua oker interpretatzearen ondorioa den jakin ahal izango dugu azkenean.

Legeak, berariaz, araudiari utzi dio tokia bigarren hori izan dadin salbuespena/murrizketa izateko prozedura formala zehaztuko duena (Arabako Lurralde Historikoko Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailearen 71. artikuluko 2. eta 4. atalak).

Zehazki, zergapean ez egoteko eta salbuespeneko suposamenduetan, ZGZBaren Erregelamenduak, hain zuzen 94/1995 Foru Dekretuaren 1. artikulua, hasieran zehazten du aplikazioa Zerga Administrazioak aurretik onartzearen menpe egongo dela, foru dekretu honetan ezarritako moduan. Artikulu berdinaren amaieran, ordea, honakoa ezartzen da: *“garraiobidearen behin betiko matrikulazioa egiterakoan, Zerga Administrazioaren aurretiko onarpenaren ziurtagiria aurkeztu beharko zaio matrikulazioaren esparruan eskumenak dituen organoari”*.

Bestalde, 133/2003 Foru Aginduak 007 eredu onartu zuen zergapean ez egoteko, salbuespeneko eta murrizketako suposamendu guztietarako, eta zazpigarren atalean honakoa ezartzen du eskaera eredu hori aurkezteko epeari dagokionez: *“garraiobidea behin betiko matrikulatu baino lehen aurkeztuko dira eta ezin izango da, inolaz ere, garraiobidea behin betiko matrikulatu zerga onura dagokiola onartu baino lehen”*.

Horrela, bada, ikus daiteke bi testu arautzaileek denbora erreferentzia berria ezarri dutela, oinarriko arauan erabili ez dena: matrikulazioaren unea. 38/1992 Legeak (Arabako Lurralde Historikoaz ari bagara, Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailea) ez du ezartzen, eta ezta ere esplizituki nahiz inplizituki argitzen, Administrazioaren onarpena ibilgailua matrikulatu aurretik egin behar denik, baizik eta onura aplikatu aurretik.

Egoera hori kontuan hartuta, gogorazki beharrezkoa da araudiaren eskumenak interpretazio tartea duela, eta beti onartu behar zaiola Administrazio gauzatzaileari (AGE, 1970eko ekainaren 30ekoa). Hala eta guztiz ere, ezin dira inolaz ere *“Legeak berak onarturiko eskubideak, eskumenak edota jarduteko aukerak mugatu”* (AGE, 1973ko ekainaren 1ekoa). Egoera horretan, beharrezkotzat jotzen dugu interpretazioan ahalegina egitea, ahal den neurrian araudi hierarkiaren printzipioarekin uztarturiko balorazio konplexuagoetan sartzea ekiditeko. Horrela, matrikulazioaren denbora erreferentzia inkardinatuko da, legearen beraren edukia mugatzen ez izateko.

Zentzu horretan, geratzen den aukera bakarra honakoa interpretatzea da; hau da, ZGZBaren Erregelamenduak eta 133/2003 Foru Aginduak salbuespen/murrizketaren onarpena ibilgailuaren matrikulazioaren aurretik egin behar dela exijitzen dute, subjektu pasiboak onura horietakoren baten aplikazioa eskatu dueneko kasuz ari baitira. Kasu horietan, hain zuzen ere, matrikulazioa Zerga Administrazioak salbuespen/murrizketa onartu ondorengoa izango da. Izan ere, modu horretan bakarrik justifikatu ahal izango zaio Trafikori, ZGZBarengatik ordaindutako kuota benetan ordaintzea dagokion dela, eta ez altuagoa izan daitekeen beste bat. Horrek, ordea, ez du galarazten bestelako kasurik egotea, Erregelamenduan eta Foru Aginduan jasotakoetatik ezberdinak. Horietan egokia izango litzateke ZGZBaren salbuespen/murrizketa onartzea, ibilgailua matrikulatuta eta zerga ordainduta egonda ere.

Illo beretik abiatuz, eta erregelamenduaren eta foru aginduaren zurruntasunaren aurrean, beharrezkoa da onartzea, praktikan, ibilgailu baten matrikulazioa salbuespen/murrizketaren aurretiko onarpenarekin edo gabe egin daitekeela. Ezberdintasun bakarra Trafiko Burutzan aurkeztu beharreko dokumentazioa izango litzateke. (Kontuan hartu behar da matrikulatuko den ibilgailuaren titularrari ZGZBa ordaindu izanaren, salbuespena jaso beharraren edo zergapean ez egotearen ziurtagiria aurkezteko exijitzen zaiola).

Horrela, ateratzen dugun ondorioa da, Zerga Administrazioak ibilgailuaren matrikulazioa gauzatu aurretik nahiz ondoren onar dezakeela salbuespen/murrizketa onar dezakeela, baina beti onura aplikatu aurretik. Irizpide horren bidez bakarrik mantenduko da legeak eta gauzatze eta garapenerako ezarritako xedapen

arautzaileek exijituriko harmonia. Modu horretan, araudi hierarkiaren printzipioa errespetatzen da, eta baita legearen helburu materiala lortu ere (legalki familia ugariaren izaera duten familien alde egitea).

4. Zergatik salbuesteko edo murrizketa izateko bideei dagokienez, esan dezakegu araudiak ezarritako prozedura nahikoa dela, subjektu pasiboa salbuespen/murrizketa eskubidea alegatu eta frogatzeko moduan badago, ibilgailua matrikulatu aurretiko zerga izapideak egiterakoan.

Araudi horrek ez du berariaz zehazten bestelako biderik dagoenik zergaren onurak lortzeko, interesdunak eskubidea erabili nahi duenean matrikulazioa egin eta gero. Hala eta guztiz ere, ez dugu uste berariaz adierazi behar denik, horrelakoetan behar ez bezala kobraturiko dirua itzultzeko prozedura agertuko litzatekeelako. Prozedura hori martxoaren 5eko 178/1991 Foru Dekretuan zehazten da.

Ildo bera jarraitzen du lehen aipaturiko Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 148/2000 Epaiairen Zuzenbideko Hirugarren Oinarriak:

*“El que actúe como condición previa a su aplicación, según lo dispuesto en la propia ley a los efectos y con la finalidad antes mencionada, no obsta a su petición y reconocimiento con posterioridad al pago del Impuesto, ya que de resultar el hecho imponible exento –por mero reconocimiento de la Administración– la cuota satisfecha correspondiente a un hecho exento de tributación deviene un ingreso indebido respecto al que procede su devolución. La prevención legal del apartado 2 del art. 66 funciona como una llave de cierre a posibles fraudes y aplicaciones indebidas y unilaterales de la exención y no al revés –como sucede en el presente supuesto– que en lugar de aplicarse la exención se ha aplicado el pago del tributo. El propio recurrente expone que por no estar informado a tiempo ingresa el impuesto, a pesar de reunir las condiciones para quedar excluido de tributación. El recurrente no ha hecho uso de la aplicación de la exención, de tal manera que cuando lo solicita, aunque sea posteriormente al pago del impuesto, sigue figurando el reconocimiento de la exención de la Administración como previo a su aplicación y disfrute. Sin duda se cumple también el requisito legal, con la única peculiaridad de que una vez reconocida y aplicada la exención, la consecuencia subsiguiente es que el ingreso efectuado con anterioridad se ha demostrado indebido, y por tanto procede su devolución”.*

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **25/2006 GOMENDIOA, azaroaren 17koa, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari egina**

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian familia ugaria izateagatik interesdunak eskaturiko %50eko murrizketa gaitzesteko erabilitako jarduera administratiboa baliogabe dezala, eta Zerga-premiaza 1/1999 Dekretu Arautzailearen 71. artikulua 4. atalean ezarritako baldintza esanguratsuak betetzen dituela baieztatu ondoren, jarduera administratibo berria egin dezala eskaeraren alde eginez.

Martxoaren 5eko 178/1991 Foru Dekretua aplikatuz, 441,05 euroko kopurua itzul diezaiola interesdunari, aipaturiko zerga behar ez bezala ordaindu izanagatik.



## 6. HERRIZAINGOA

**1/2006 Gomendia, urtarrilaren 31koa, Bilboko Udalari egina, baliorik gabe utz ditzan herritar baten kontra izapidetu ziren bigarrenko eta horren ondorengo trafikoko zigor-prozedurak, aparkatze-ekintza bakar batengatik elkarren jarraian egin ziren salaketek eragindakoak. Ez da onartu.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek erakunde honetara jo zuen, Bilboko Udalak, bederatzi egun ezberdinetan egindako salaketen ondorioz –2002ko azaroaren 11 eta 25 bitartean–, beraren kontra bideratu zituen hamar zigor-prozedura eztabaidatzeko. Kexagilearen ibilgailua, egoiliar txartela baliozkoa zen TAO gunean aparkatuta egon ordez, beste gune batean egon zelako egin ziren salaketak (zehazki, honako erreferentzia-zenbakiak zituzten: (...))

Bere testigantza arabera, oraintsu egindako berregituratzean sortu diren TAO gune berriak oker seinaleztatuta daudelako gertatu da lege-haustea, eta nahi gabe gertatu zenez gero, ez zen lege-hausteaz ohartu lehenengo salaketa jaso zuen arte. Une hartantxe kendu zuen autoa, baina ordurako beste bederatzi salaketa eginak ziren, eduki berberekin.

Bilboko Udalarekin harremanetan jarri ginen lehen aldian, kale jakin bat dagokion TAO guneak dela edo gune batetik besterako aldaketa nola frogatzen diren azaltzeko eskatu genion.

Gainera, xehetasun bat azpimarratu genuen, hain justu, oso denbora-epe laburrean hamar salaketa ezberdin egin zirela arrazoi beragatik eta egintza beragatik, eta horrek, itxuraz behintzat, zera iradokitzen zuela: administrazio-jardueran ez zela aintzat hartu aparkatze bakarria izan zela eta ibilgailua ez zela toki beretik mugitu etengabe salatua izan zen denboraldi osoan.

Horrela, aurreratu genionez, ezagutzen ez ziren zertzelada berriak adierazi ezean, hauxe ondorioztatu behar harko litzateke: bigarrenko eta horren ondorengo espedienteek ez zutela, egiaz, lehenengoan jada zigortu zen ekintza eta portaera bera zigortu baino egiten, eta, horrexegatik, ez zutela inolako oinarririk; gainera, neurritz gaineko esku-hartzea eragin zutela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– 133. artikuluan ezarritakoaren kontrakoa, artikulua horrek non bis in idem printzipio orokorra onartzen baitu.

2. Udalak egiaztatu zigan TAO sistemaren aldaketa kexan kontatutako gertaera jazo baino hilabete batzuk lehenago egin zela, baina horren garrantzia gutxiagotu zuen, gune berrietara egokitze denbora nahikoa utzi zutela adieraziz.

Gure gainontzeko oharrei buruz, erantzunean baieztatu zen TAOri dagokion araudia aparkaldi mugatuko ordutegiak ez betetzeagatik hausten dela eta, hortaz, horietako bakoitzak lege-hauste berria eragiten duela.

Ildo horretan, Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako 4. Epaitegiaren epai baten zati bat igorri zigan, aurrekaririk ezagutzen ez dugun beste kasu bati buruzkoa. Honela zioen: *“Procede desestimar la alegación de inexistencia de infracción toda vez que el recurrente tenía estacionado el vehículo el día 14-2-2003 en un sector marrón sin ticket ni tarjeta de residencia y ello es reconocido por la propia parte demandante. Si el día anterior el recurrente cometió otra infracción por tener aparcado el vehículo en el mismo sitio sin ticket ni tarjeta de residencia resulta indiferente a los efectos ahora debatidos.*

*Hay que tener en cuenta que se trata de días distintos y, además, que nos encontramos ante un lugar en el que el aparcamiento está limitado temporalmente por periodos de tiempo inferiores al día, incluso para residentes”.*

Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako 4. Sailaren 2002ko uztailaren 15eko Epaia ere aipatu zuen. Hortik atera zuen bere argudiaketaren zati bat, adierazi baitzuen aparkaldi mugatuari buruzko arauak hausteak kaltea sortzen dietela herriko bide publikoak erabiltzen dituzten gainontzeko pertsoneri, mugatutako gune publiko baten erabilera blokeatzen delako, erabiltzaile bakar baten zerbitzura jarri baimendutakoa baino denbora luzeagoan.

3. Agiri horiek aztertu eta gero, Bilboko Udalarari beste idazki bat bidali genion, gure azterketaren arabera, horrela jokatzuz zigor alorrak berezko dituen bermeak urratzen zirela adierazteko; udal hori ez zegoen ados guk ateratako ondorioarekin eta bere lehengo interpretazioari eutsi zion.

#### Gogoetak

1. Espediente hau aztertzean ezin dira alde batera utzi zenbait printzipio orokor, horiek bermatzen baitute zigortzeko ahalmena zuzen erabiliko dela eta kaltetutako pertsonaren banakako eskubideak errespetatuko direla. Printzipio orokor horiek prozeduretan zuzenean aplikatzen dira, arau juridiko positibo gisa gauzatzen direlako.

Horrela, zigor alorrean, orain indarrean dagoen kodeak argibide zehatzak finkatzen ditu kasu hauetan zigorra arintzeko moduz: egintza bakar batek bi lege-urratze edo gehiago eragiten dituenean, edo ekintza askok, alde aurretik pentsatutako plan bat gauzatu edo aukera bat aprobetxatu, arau berbera edo antzekoak diren arauak hausten dituztenean. Argibide horiei jarraiki, ekintza horien arduradunari ez zaizkio ezartzen zehaztu ahal izan diren lege-hauste guztiei dagozkien zigorrak, baizik eta soil-soilik lege-hausterik larrienerako ezarrita dagoena.

Bestalde, administrazio-zuzenbidearen alorrean, prozesu penalak berezko dituen bermeak lekuz aldatzeko eta egokitzeko aukera egonda ere, honako bi arauok sistematizatu dituzte printzipio haiek: azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– eta zigortzeko ahalmena erabiltzeko prozedurari buruzko Araudiak –abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuak onartua–. Honela, hain justu:

- Ez dago administrazio-erantzukizuna exijitzerik egintza berberengatik zigorra edo administrazio-zehapena jarri dela egiaztatuta dagoenean, betiere subjektua eta funtsa berberak badira (legearen 133. artikulua eta araudiaren 5.1. artikulua).
  - Lege-urratze batek ezinbestean beste bat edo batzuk eragiten baditu, egindako lege-urratzerik larriengatik bakarrik ezarriko da zigorra (araudiaren 4.4. artikulua).
  - Aurrez pentsatutako plan bat gauzatzeko asmoz edo aukera bera aprobetxatzeko asmoz administrazio-arau berbera edo antzekoak hautsiz ekintza edo ez-egite asko burutzen badira, zigorra ezarri ahal izango da, etengabeko arau-hauste gisa (araudiaren 4.6. artikulua).
  - Ezin izango da zigor-prozedura berririk hasi lege-hausleak etengabe burutzen dituen eta arau-hauste gisa sailkatuta dauden egintza edo portaerengatik, harik eta, egintza horiengatik, betearazi beharreko lehen zigor-ebazpena ematen den arte (araudiaren 4.6. artikulua).
2. Aztertzen ari garen kasuan, interesdunaren ekintza bakarrari –bere ibilgailua behin bakarrik aparkatzea–, hamar zigor kateatu zaizkio elkarren jarraian. Emaizta hori justifikatzeko, udalaren txostenean adierazten da ziur daudela ordutegi-urratze bezainbat arau-hauste gertatu direla, ekintza material ugariaren ondorio izan ala ez, eta inolako mugarik eta neuririk gabe. Gure ustez, zigortzeko ahalmenak ulertzeko modu horretan ez dira aintzat hartu goian aipatu ditugun printzipioak.

Proporzionaltasunaren ikuspegi soiletik begiratuta, argiro kontraesankorra da ekintza bakar batek behin eta berriz burututako ekintza-multzo batek bezalako zigorra jasotzea. Bi portaera horiek merezi duten gaitzespenak desberdina izan behar du, bada lege-hauste bat nahita etengabe errepikatzen duen pertsonak

araudiarekiko erakusten duen mespretxu nabarmena ez da erakusten beste kasu horretan. Hala ere, administrazioaren tesiari jarraituz gero, bi portaerak izango lirateke prozedura eta zigor askoren sortzaile.

Aitzitik, erakunde honen ustez, aztertzen ari garena bezalako aparkatze-ekintza batek ez zituzkeen eragin behar hamar espediente ezberdin, izan ere, portaera bakar bati dagozkio (eta, interesdunaren alegazioak onartzuz gero, portaera hori ezingo litzateke engainagarritzat jo, baizik eta oker baten ondorio, interesdunak bere egoiliar txartelak ustez baimendutako tokian aparkatu baitzuen) eta, horrez gain, berberak dira portaera hori azaltzen duten elementuak (subjektua, egintza eta funtsa). Hori kontuan izanik, neurrigabetzat jo behar dugu, gehiegizkoa baita, ezarritako isun guztiak batuz lortzen den azken isuna, hamarrez biderkatzen baitu legez kontra aparkatzeari dagokion zenbatekoa.

Horrela ulertu dute justizia epaitegiek ere honen antzeko gaietan, bada, jarduera osoan zehar funtsezko lotura zegoela iritzita, ez dute onartu lege-hauste bat baino gehiago egozte, denboran banandutako ekintza asko bereizten ziren arren.

Horren adibide dugu Auzitegi Gorenaren 1987ko ekainaren 23ko Epaia (RJ 1987\4267), lan-ordutegia hausteagatik kontu batean, zigorra errepikatzeak legezko bermeak urratu zituela ondorioztatu baitzuen. Honela zioen:

*“Como evidencia la sentencia apelada el Acta, antes aludida, que determinó las Resoluciones impugnadas constata los mismos hechos que la levantada por la citada Inspección el 26 de Julio de 1983, bajo el número S. 123/83 no haber solicitado la autorización reglamentaria de la Dirección General de Trabajo para la modificación llevada a cabo en el horario de personal que presta sus servicios en el Almacén Central de Villaverde Bajo, y en virtud del cual ‘no se reconoce para el presente año 1983 el beneficio en favor de dicho personal de que hace mención en el acta de infracción número 47/82 de 14 de octubre de 1982’, reconociéndolo así, como hace notar la sentencia apelada, el informe de la Inspección, de 15 de Diciembre de 1983, en el que se dice ‘comprobado que para el año 1983, la empresa se empecina en transgredir la legislación citada, se levanta en fecha 26 de Julio de 1983 acta de infracción n.º 123/83 con propuesta de sanción de 200.000 pesetas, confirmada por Resolución de esa Dirección en 25 de noviembre de 1983, y advertencia de que se comunique al inspector actuante el cumplimiento de lo requerido por lo que no se aplica el grado de reincidencia. Por último, en fecha 4 de octubre de 1983, se comprueba la denuncia de que la empresa lejos de remediar la situación ilegal, a juicio de esta Inspección, mantiene el incumplimiento de lo requerido en las actas citadas’; por ello, acierta el Tribunal ‘a quo’ al entender que al tratarse de actas y resoluciones que inciden sobre su único y concreto hecho, idéntico en ambas Actas, se produjo la vulneración del principio ‘non bis in idem’ con las Resoluciones impugnadas dado que no puede admitirse que siga engendrando nuevas infracciones, que sean motivo de levantar nuevas Actas por parte de la Inspección de Trabajo con nuevas propuestas de sanción el hecho de no solicitar la Renfe autorización reglamentaria para la modificación llevada a cabo en el horario del personal...”*

Edo, ildo beretik, Andaluziako Auzitegi Nagusiak, 2001eko martxoaren 1eko Epaian (RJCA 2001\708), argudio hauek erabiltzen ditu eta:

*“En la sentencia de fecha 19-11-1999 dictada en recurso de la Sección Segunda de esta Sala con el núm. 266/1997, interpuesto contra resolución de la Consejería de Trabajo e Industria (confirmatoria de otra de su Delegación Provincial de Huelva), dijimos (y repetimos ahora) en cuanto a la posibilidad de que la Administración haya incurrido en infracción de la prohibición de enjuiciar dos veces la misma conducta, que lo que se conoce por el axioma ‘non bis in idem’, expresamente contemplado en el art. 133 de la Ley 30/1992, aunque las actas ‘se refieran a trabajadores distintos y a días y horas igualmente diferentes, es evidente que la Inspección no puede caprichosamente levantar diversas actas por hechos que podrían constituir una sola infracción, dado que se trata de ampliación de horarios, impuestos unilateralmente por la empresa, en una misma época y con motivo de cubrir informativamente un evento cultural determinado’. Decíamos también (lo que es aplicable a este caso), ‘que parece dejarse a criterio del señor Inspector la formulación de una o varias actas, de uno o varios reproches por la denuncia de unos hechos cuyo conocimiento podían substanciarse en unidad de actuación’, y agregaba ‘que ha de entenderse que la actuación debió ser una sola y una sola la sanción sancionadora’. Y sin entrar en el conocimiento de la*

*cuestión de fondo, estimaba el recurso con la anulación de la resolución impugnada. Esta Sala, de acuerdo con la sentencia antes dicha y sin necesidad, como en aquélla, de entrar en el examen de las otras cuestiones suscitadas en la litis, ha de estimar sustancialmente el presente recurso contencioso-administrativo, por vulneración del principio 'non bis in idem'...*”.

- Bestalde, udalaren definizioak zenbait galdera sortzen ditu arau-hauste motak sailkatzeari buruz. Esate baterako, zer-nolako denbora-mugak gainditu behar dira arduradunari arau-hauste berri bat leporatu ahal izateko? Alderdi hori erabakigarria da, izan ere, erantzunaren eta arau-hauste motaren arabera, elkarren jarraian zigorrak ezartzeko aukera ere emango luke, aparkatzeko gehieneko denbora-mugara iristen ez diren denboraldiengatik.

Gure aburuz, ez dago onartzerik gaitzetsitako portaera zehazteko hain garrantzitsua den alderdi hori trafikoko agintarien erabaki zehatz baten mende geratzea, aldeaz aurretik legeriak horretaz ezer adierazi gabe.

Ildo horretan, ez trafikoko araudi orokorrean, ez orduan indarrean zegoen udal araudian ere (Bilbo Hiriko Trafiko eta Aparkamenduko Ordenantza, Udalbatzak 2002ko urtarilaren 31n egindako ohiko bileran onartua) ez dugu aurkitu eztabaidatzen ari garen interpretazioa ontzat jotzen eta hala azaleratzen duen aipamenik.

Izatez, ordenantzan arau-hausteez egin zen karakterizazioa interpretazio horren kontrakoa zen, bada, egoerari edo ibilgailuari buruzko esamoldeak erabili beharrean, “estazionatu”, “aparkatu” edo “erabili” bezalako hitzak baliatzen zituen, eta horrek, gure iritziz, ekintza zehatz, banakako eta autonomoa exijituko luke arau-hauste bakoitzerako. Halaber, bereizi egiten zituen, alde batetik, beharrezko baldintzak bete gabe ibilgailua berriro gune berean aparkatzea, eta bestetik, aparkatuta egon daitekeen denbora gainditzea –azken arau-hauste mota horretan ez zuen zehazten gehieneko muga– (“ordubetez edo gehiagoz gainditzea...”).

Bilboko Uriko Araupeko Aparkamendurako Zerbitzuari buruzko Ordenantza berriak, 2005eko ekainaren 14an onartutakoak, ildo horri eusten dio, arau-hausteak ekintza indibidualak aipatuz taxutzen baititu –ekin-tzok ez dute aukerarik ematen arau-hausteetan ibilgailuaren egonaldiari buruzko eskenatokitik onartzeko (“aparkatu”, “berriro aparkatu” edo “erabili” aipatzen baititu)–, eta aparkaldia luzatzeari buruzko arau-hauste motan ez du berariaz ezartzen gehieneko denborarik (“bi ordutik gorako epean aparkatzea”).

Baina, gainera, 66. artikuluan xedapen bat ezartzen du salaketen zenbatekoak aurretiaz ordaintzeari buruz. Xedapen horretan, ez bakarrik ez da adierazten administrazioak espediente honetan aldeztu duen ikuspuntuaren ondorio zuzena, (hau da, ibilgailua hainbat bider zigortu daitekeela), baizik eta, aitzitik, ibilgailuak gero ere gune horretan jarraitzen badu, “*ibilgetu edo bide publikotik atera ahal izango dela*” dio.

Hori guztia kontuan hartuta, gure ustez, administrazioak egin duen interpretazioak (alegia, ibilgailua aparkatuta egote hutsak arau-hauste ugari eragiten dituela) ez dauka legearen babesik, legeak dioenari kontrajartzen baitaio.

- Prozedurari dagokionez, Bilboko Udalak baztertu egin du etengabeko arau-hausteari buruzko irizpideak aplikatzea; lehen esan dugunez, irizpide horiek eragotzi egiten dute zigor-espediente berriak hastea, baldin eta aldeaz aurretik betearazi beharreko lehen zigor-ebazpena eman ez bada.

Administrazio horrek eskaini digun prozeduren laburpenean idatzita agertzen denez, hamar salaketa horietatik lau interesdunari bidali zitzaizkion 2002ko azaroaren 22an, beste bost, 2002ko abenduaren 2an, eta azkena, 2002ko abenduaren 9an. Bestalde, zigor-erabakiek 2002ko abenduaren 30eko data dute guztiek, batek izan ezik, hori hamar egun geroago hartu zelako.

Oro har, auzitegiek ebatzi dutenez, inork jarduera bati behin eta berriz eusten dionean eta arau-hausteen artean autonomiarik ez dagoenean ezarri behar da etengabeko arau-haustearen figura, eta horixe gertatzen da gure ustez kasu honetan, lehen adierazi dugun bezala.

Adibide gisa, lanaren alorreko arau-hauste bat den arren, Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiak 1999ko azaroaren 30ean emandako Epaia dugu (RJCA 1999\4028): arau-hauste bakarra gertatu zenez gero, jarraiko arau-haustea zela ulertu zuen, nahiz eta ekintzak lau urteko denboraldian gertatu ziren, eta administrazioaren tesiaren kontra gainera, hark urte bakoitzeko arau-hauste bat zehaztu nahi baitzuen:

*“SEGUNDO.- Que la principal cuestión objeto de la litis, se centra en la posible viabilidad del argumento planteado por la recurrente, quien alega la existencia de una sola infracción y no cuatro, una por período que le impone la Administración en base al principio de autonomía de las infracciones por cada período liquidatorio.*

*Consideramos que no basta con invocar el artículo 31.5 del Texto Refundido de la LGSS (RCL 1974\1482 y NDL 27361), que se refiere a la acumulación en un solo Acta y por razones de procedimiento, de la liquidación y de la infracción a la que diera lugar, para justificar la imposición de cuatro sanciones, una por cada período de liquidación, tratándose de una sola acción infractora, que por error se prolongó hasta que detectado por la propia parte, sin necesidad de requerimiento alguno, modificó voluntaria y unilateralmente el epígrafe de cotización dando lugar a la inpección.*

*TERCERO.- Hemos de partir de que como reconocen las Sentencias del Tribunal Constitucional (...), el derecho administrativo sancionador participa de los mismos principios informadores del derecho penal.*

*CUARTO.- Hemos de considerar, que estamos ante una infracción continuada de supuestos típicos semejantes, con lo que es de aplicación la teoría del delito continuado actualmente recogido en el art. 74.1 del actual CP debiendo imponerse la sanción señalada para la infracción más grave en su mitad superior.”*

Madrilgo Auzitegi Nagusiak ere, 2003ko irailaren 30eko Epaian (JUR 2004\136170), iritzi bera du: alegia, antzekoak diren hainbat ekintza zigortzeak indarreko legeria urratzen duela, baldin eta betearazi beharreko ebazpenaren bidez lehenbiziko espedienteak ebatzi ez bada:

*“El artículo 4.6 del Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, señala que ‘no se podrán iniciar nuevos procedimientos sancionadores por hechos o conductas tipificados como infracciones en cuya comisión el infractor persista de forma continuada, en tanto no haya recaído una primera resolución sancionadora de los mismos, con carácter ejecutivo’. Señala, y existe, el recurrente que se ha infringido dicho precepto y tal consideración debe ser admitida toda vez que consta, a través de las resoluciones aportadas, que los dos últimos expedientes se incoaron sin que hubiera recaído resolución sancionadora con fuerza ejecutiva, siendo, además, los hechos tipificados de igual manera y ejecutados con escaso intervalo de tiempo, por lo que sólo cabe continuar el presente recurso frente al expediente nº NUM001.”*

Iritzi bera du Gaztela-Mantzako Auzitegi Nagusiak 2004ko maiatzaren 20ko Epaian (JUR 2004\189373), zera dio eta:

*“...las Resoluciones recurridas han hecho uso de la figura de la infracción continuada de forma total y absolutamente correcta, ya que responde a la necesidad de tratamiento unitario desde el punto de vista procedimental y de benevolencia punitiva, cuando aun apreciándose diferentes actos que infringen el tipo se dan no obstante una serie de rasgos comunes que hacen necesario ese tratamiento. Se proyecta así al Derecho Administrativo sancionador una figura o institución muy conocida en el Derecho Penal aplicada ya en numerosas ocasiones por esta Sala y que ha tenido su recepción positiva en el artículo 4 punto 6 segundo párrafo del Reglamento para el ejercicio de la potestad sancionadora, aprobado por Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto cuando señala que, será sancionable, como infracción continuada, la realización de una pluralidad de acciones u omisiones que infrinjan el mismo o semejantes preceptos administrativos, en ejecución de un plan preconcebido o aprovechando idéntica ocasión.”*

5. Ados gaude ibilgailu bat araudian ezarritako baldintzak bete barik aparkatzeak antolamendu-sistema nahasten duela eta, gainera, kalte handia sortzen diela hiri-bideak erabil ditzaketan gainontzeko herritarrei.

Hala ere, aipatutakoaren antzeko egoerek sortzen duten nahastea kontuan izanda, Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legeak, 71. artikuluan, aparkatuta dauden ibilgailuak kentzeko aukera ematen du ordutegi mugatuko aparkalekuetan, han aparkatzea baimentzen duen berezgarria jarri ez bada edo ordaindu den denboraren bikoitza gaintzen bada.

Erregulazio horrek tresna bat eskaintzen die udalei sistema urratzean sortzen diren eragozpenak eta arazoak geldiarazteko, eta, gainera, guztiak ezagutzen dute, trafikoko araudi orokorrean ez ezik, alor hori arautzen duten udal testuetan beretan ere xedatuta dagoelako (Trafiko eta Aparkamendurako Ordenantzak aipaturiko artikulura jotzeko adierazten zuen, eta Araupeko Aparkamendu Zerbitzuaren Ordenantza berriak, berriz, artikulua hori baliatzen du salaketaren zenbatekoa ordaindu eta gero ibilgailua aparkalekuan egotearen ondorioak adieraztean).

Udalak bere erantzunean erabiltzen duen Auzitegi Gorenaren 2002ko uztailaren 15eko Epaiak antzeko zerbait dio, uztartu egiten baititu administrazioak aipatzen dituen argudioak eta udalerriei herri-bidetik ibilgailuak kentzeko ahalmena ematea:

*“Consiguientemente, aquellas conductas que, sin causa justificada alguna, bloquean los espacios públicos acotados, poniéndolos al servicio exclusivo de unos pocos usuarios durante un tiempo superior al permitido, personal y unilateralmente determinado, causan así un claro perjuicio –esto es, perturban o entorpecen– a quienes circulan por las vías públicas de la ciudad con la legítima aspiración de encontrar un lugar para el estacionamiento temporal. De esa ‘perturbación’ o ‘entorpecimiento’ se desprenden «habilitaciones normativas» a que a continuación nos referimos. (...)*

*Cuando el uso de las zonas públicas reservadas al estacionamiento con horario limitado vulnera la reglamentación municipal, incidiendo en un supuesto tipificado en la Ordenanza como infracción por tener entidad suficiente para alterar el funcionamiento del servicio público montado con esa legítima y específica finalidad ordenadora del tráfico y repartidora con equidad de los limitados espacios de estacionamiento disponibles, la Ley, en este caso el artículo 71.1.a) del Texto Articulado, habilita también para la retirada del vehículo, debiendo ponderarse, entre otros factores, la exigencia insita en los principios de proporcionalidad o congruencia, así como el cumplimiento de las previsiones legales a que se refieren los artículos 1, 2.1.c), 127 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.”*

6. Beraz, kontuan izanik ibilgailua aparkatu zenetik ez zela mugitu, interesdunari ezin zaio leporatu berezko funtsa duten hainbat ekintza autonomo, desberdin burutu izana, eta ezin da horietako bakoitza zigortzeko arrazoi bihurtu.

Alabaina, pertsona horren ekintza bakar batek agian zenbait arau-hauste sortu zituela onarturik ere, guztiak unitate bat osatzen dute, lehen aipatutako bermeak aplikatzearen ondorioz zehaztutako funtsezko loturaren arabera. Unitate horrek eragotzi egiten du arau-hauste horiek bereiz zigortzea eta zigor-prozedura berriak hastea, harik eta betearazi beharreko lehen zigor-ebazpena eman arte.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **1/2006 GOMENDIOA, urtarrilaren 31koa, Bilboko Udalari egina**

Baliorik gabe utz ditzala kexagilearen kontra izapidetu ziren bigarrenko eta horren ondorengo zigor-prozedurak, aparkatze-ekintza bakar batengatik elkarren jarraian egin ziren salaketek eragindakoa.

**10/2006 Gomendioa, apirilaren 4koa, Gasteizko Udalari egina, kexak sortarazi dituen polizi jarduera iker dezan eta kexagileek jarduera hori salatuz udalaren bulegoetan aurkeztu zituzten idazkiei erantzun diezaien. Onartu da.**

Aurrekariak

1. Gasteizko ikastetxe bateko bi ikaslek kexa-idazki bana aurkeztu zuten erakunde honetan, kexu baitziren Gasteizko Udaltzaingoak eman zien tratuagatik –bien ustez, gehiegizkoa eta neurritik kanpokoa–. Adierazi zigutenez, jardueraren hasieran, bi ikasleetako batek oinezkoen pasagune batetik bidea korrika gurutzatu zuen ikastetxearen sarreretako baterantz, une hartan hori egitea galarazten zuen seinalea errespetatu gabe, eta bukaeran, ikasle hori atxilotu egin zuten, udaltzainetako bati buru egiteagatik, ez obeditzeagatik eta iraintzeagatik.

Atxilotutako gazteak gertakariez eman zigun bertsioaren arabera, gurutzatzea bukatu zuenean, konturatu zen toki hartan itxuraz trafikoa erregulatzen ari zen aipaturiko Udaltzaingoko agente bat berarengana zetorrela, eta oihuka galdetzen ziola ea ez zuen entzun gelditzeko eman zion agindua. Gaztea ahalegindu zen azaltzen eskolara berandu zihoalako jokatu zuela horrela, eta toki hartan orduan autorik ez zebilela ikusi ondoren gurutzatu zuela bidea. Bere esanean, udaltzainak ez zien bere azalpenei kasurik egin, eta bultzaka hasi zitzaion, oldarka eta urduri.

Kexan adierazi digunez, gazteak jasotako tratuagatik protesta egin zion udaltzainari eta ikastetxearen sarrerarantz jarraitu zuen. Orduan, udaltzainak berriro bultzatuta egin zion eta identifika zedila eskatu zion, baina hori egin baino lehen, udaltzainak buelta eman zuen. Kexagileak, beti bere bertsioaren arabera, identifikazio-aginduaren deuseztatze gisa ulertu zuen keinu hori, ulertu baitzuen udaltzaina, beraren jokaragatik errieta egin ostean, trafikoa erregulatzen ari zen tokira itzultzera zihoala. Horregatik, oinez jarraitu zuen, eskuak saketan eta eskolako motxila bizkarrean, baina orduan ohartu zen udaltzaina bere atzetik gainera oldartu zitzaiola, lepotik heldu ziola eta lurrera bota zuela, non, dirudienez, mugitu ezinik eduki zuen, polizi kidego bereko beste agente batzuk iritsi ziren arte.

Gazteak adierazi digunez, udaltzain iritsi berriek ere ez zioten jaramonik egin gertatutakoaz eman nahi zizkien azalpenei, eskuburdinak ipini zizkioten, poliziaren bereizgarriak zituen ibilgailu batean sartu eta polizi etxera eramane zuten.

Pertsona horrek kexan kontatu zuenez, une bakar batean ere ez zion udaltzainari buru egin, eta polizi jarduera hori toki hartan zebiltzan oinezkoen aurrean gauzatu zen.

Beste gazteak, bere aldetik, zera adierazi zigun: gertatzen ari zena ikusirik, bere ikasketa-lagunarengatik arduratu zela, eta, horren ondorioz, udaltzainek identifikazioa eskatu ziotela, aurpegia paretaren kontra jari ziotela eta haztatu egin zutela. Haren esanean, udaltzainek eskuburdinak jartzeko keinua egin zuten, baina haien nagusi bat heldu zen eta aske uzteko agindu zien.

Lekuko horrek bere ikaskideak adierazitakoa bera berretsi zuen, alegia, hark ez ziola udaltzainari buru egin eta udaltzainaren jarrera oldarkorra eta urduria izan zela.

Bi ikasleak bat zetozen, halaber, udaltzainen jarduera neurritik kanpokoa izan zela baieztatzean, eta beren ustez, bietako batek agian administrazioko lege-hauste simple bat egin izanak –bidea trafiko-arauak bete gabe gurutzatzea– ezin zuten justifikatu salatzen ari ziren polizi erantzuna, izan ere, jokaera horrek eragotzi nahi zena baino askoz kalte handiagoa sortarazi zuela iruditzen zitzaion. Beren aburuz, erantzun

horrek erakusten zuen, azken batean, udaltzainen jarduera neurrigabea izan zela eta ez zutela egoera kontrolatzen jakin.

Gazteek adierazi zigutenez, erakunde honetara jo baino lehen, Gasteizko Udaltzaingoa bertan salatu zuten poliziaren jarduera hori, zegozkion idazkiak Erregistro Nagusian aurkeztuz. Idazki horien kopiak ekarri zizkiguten.

2. Bi kexen artean funtsezko berdintasuna zegoela iritzita, biak batera izapidetzea erabaki ondoren, laguntza eskatu genion Gasteizko Udalari.

Udalak, gure eskaerari erantzunez, Udaltzaingoko komisario nagusiaren txosten bat igorri zigun. Txostenan adierazitakoari jarraiki, gertakarietan parte hartutako udaltzainek "Udaltzaingoko agente bati aurre egiteagatik, larriki ez obeditzeagatik eta iraintzeagatik" atxilotu zuten lehenbiziko gaztea, eta gau eta eguneko epaitegira bidali zuten atxiloteta zela-eta bideratu zen argitze-agiria. Era berean, jakinarazi zigun prozedura horretatik eratortzen ziren zigor-zuzemenei emaitzaren baldintzapean jarriko zuela gazteek salatutako egintzak ikertu ala ez ikertu.

3. Erantzun hori ikusirik, Ararteko erakundeak horrelako kexak ikertu beharraz zein iritzi duen gogorarazi genion udalari, eta gure gomendio orokor honen kopia bat helarazi genion: "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako" (2003. urteari dagokion Eusko Legebiltzarrarentzako ohiko txostena, 451. orrialdea eta hurrengoak). Gomendio horretan zehatz-mehatz adierazten da gure ikuspuntua eta berorren justifikazioa.

Udalari adierazi genion, gure iritziz, bi gazteen kexen trataera gomendio horretan aipatutako parametroei egokitu behar zitzaie eta, han agerian jarri genuen moduan, zigor-zuzemenei egotea ez zela oztopo polizi jarduera hori ikertzeko, ezta ere berori diziplinaren eta bete beharreko portaera-jarraitibideetara moldatzearen ikuspuntutik aztertzeko.

Gainera, honako hau zehaztu genion: esku artean genuen informazioaren arabera, ez genuela ikusten bat etortzerik jurisdikzio penalari ezagutarazitako egintzen eta bi kexak sortarazi zituzten artean. Informazio horretatik ondorioztatu genuenez, epaitegian kexagileetako baten portaera bakarrik epaituko zen, "Udaltzaingoko agente bati aurre egiteagatik, larriki ez obeditzeagatik eta iraintzeagatik" egindako akusazioari zegokionez, akusazio hori agertzen baitzen gertakarietan esku hartutako agenteek egintzen ondorioz bideratu zuten argitze-agirian, baina ez zen epaituko bi gazteek udaltzainengandik jaso omen zuten tratu desegokia, hain zuzen, kexetan salatu zutena.

Gogoeta horietan oinarrituta, udalari egintzak ikertzeko eta udaltzainen portaera egokia izan ote zen egiaztatzeko eskatu genion. Orobat, ikerketaren edukia eta emaitza jakinaraz ziezazkigun eskatu genion.

4. Udalak hasieran ez zion jaramonik egin eskaera horri, ez ondoren bidali behar izan genizkion errekerimenduei ere -hiru formalki, eta laugarrena, berriz, Udaltzaingora beste arrazoi batengatik egin genuen ikustaldia aprobetxatuz-. Eskaera egin genuenetik zortzi hilabete baino gehiago igaroak zirenean erantzun zigun, guk gestio baten bidez honako hau jakinarazi eta gero: isiltasunari eusten bazion, formalki ohartarazpen bat bidali beharko geniola, bere laguntzarik ezak Zigor Kodearen 502.2 artikuluan tipifikatutako delitua berekin ekar zezakeela jakinarazteko. Udaltzaingoko komisario nagusiaren beste txosten baten bitartez erantzun zigun. Honela justifikatu zuen erantzuteko atzerapena: *"no hay otra excusa a la demora de este escrito que el hecho de haberse archivado, equivocadamente, el expediente como si se hubiese finalizado y creyendo que se había dado respuesta en su día"*.

Kexaren mamiari dagokionez, txostenaren hasieran, Udaltzaingoa kexa bat jasotzen duenean erabiltzen dituen portaerazko jarraitibide orokorren berri eman zigun. Honela: *"el procedimiento habitual que sigue el Servicio de Policía Local ante la queja que pudiera formular un ciudadano por una actuación policial, es, en primer lugar, la petición, por el Jefe responsable del agente cuya actuación es motivo de queja, del correspondiente informe relativo a la misma, a fin de conocer los detalles de lo ocurrido. Recibida esa información, y contrastada, bien con otros agentes, con circunstancias que pudieran concurrir en los hechos, o con la propia información que proporciona el ciudadano, se le da contestación a éste, bien escrita, bien telefónicamente, sobre la intervención producida, su razón de ser o su excusa, según proceda, y ello, sin perjuicio, del expediente interno que se tramite si hubiera lugar"*.



Txosten horretan argitu zigun, halaber, zein jarraibide bete behar diren agenteek lege-urratzeren bat egon daitekeela uste duten jardueri dagozkien kexetan: *“nada se tramita respecto a ellos en tanto no haya lugar un pronunciamiento judicial, habida cuenta que, además, en muchos de los casos, se da la circunstancia de ser los agentes a la vez, denunciantes y denunciados, con lo que es el juez quien dirime la responsabilidad última de agente/s y ciudadano/s en unos hechos concretos”*.

Kasu zehatz honen gainean, zera adierazi zuen: *“en los expedientes que aquí se trata, en efecto, así se actuó en principio, y si bien posteriormente, tras escrito del Ararteko de fecha 5 de mayo de 2005, se retomó el asunto, resultó que leído el atestado, observado que en el mismo se indicaba un testigo que corroboraría lo acaecido, y dado el tiempo transcurrido desde que habían ocurrido los hechos, se estimó más adecuado esperar al pronunciamiento judicial que, a fecha de hoy, desconocemos”*.

Eta bukatzeko: *“En cualquier caso, por esta Jefatura se toma nota de la recomendación efectuada en el escrito de referencia en orden a actuaciones futuras y al análisis de las quejas que se nos deriven”*.

### Gogoetak

1. Arartekoari dagokion lan-esparruan –herritarren eskubideen kontra gauza daitezkeen jardueri aurrea hartzea–, erakunde honek gomendio zehatzak egin dizkie euskal administrazio publikoen menpe dauden polizi kidegoei. Besteak beste, kidego horien arduradunek egintzak ikertzeko barne-prozedura bat hasi behar dutela ofizioz, agenteren batek agian oker jokatu duela jakiten duten aldi orotan, zer gertatu den argitzen saiatzeko, jokaera hori behar bezala gauzatu den egiaztatzeko, eta, hala badagokio, bidezko neurriak hartzeko, diziplinazkoak edo bestelakoak.

“Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” izenburuko gomendio orokorrak, aurreko idazpuruan aipatu dugunak, xeheki adierazten du gai horretaz dugun iritzia, berorren oinarriak eta, gure ustez, poliziaren arduradunek bete behar dituzten portaerazko jarraibideak, poliziaren portaera akaso legez kanpokoa izan dela jakiten dutenean.

Espediente honek sortu dituen eztabaida-gaiei dagokienez, gomendio hartan adierazi genuen poliziaren arduradunek lehen zantzutza hartu behar dituztela kexa horiek, beti ikertu eta argitu behar dituztela, argiro gezurrezkoak edo sinesgaitzak direnean izan ezik.

Honako hau ere azpimarratu genuen: gure iritiz, zigor prozedura bat egotea ez dela oztopo, ez ikerketa egiteko –nahiz eta berbera izan kexaren mamia eta zigor prozesuarena–, ezta polizi administrazioak, diziplinaren eta bete behar diren jarraibideetara egokitzearen ikuspegitik, agenteen portaera aztertzeko ere.

Era berean, gure ustez, salatutako egintzen ikerketa ez dago mugatzerik, besterik gabe, egintzetan parte hartu zuten agenteen bertsioa ontzat jotzera edo haiek gertatutakoaz egiten duten kontakizuna jasotzera, hori kexa erabat errefusatzearen parekoa izango bailitzateke.

Azkenik, gure aburuz, eragindako agenteenari kontrajartzen zaion bertsio bat egoteak edo poliziaren argitze-agiria salatutako egintzekin bat ez etortzeak ez dute balio behar, berez, kexa ez onartzeko, beste ikerketaren bat egiteko aukera baztertzeko edo poliziaren jardueraren egokitasunari buruzko iritzi bat horretan bakarrik oinarritzeko.

2. Erakunde honek badaki kexa sortarazi duen polizi jarduera berberarekin zerikusia duten egintzengatik zigor prozesu bat gauzatzeak zenbait muga jartzen dizkiola administrazioaren esku-hartzeari: adibidez, prozesu horretan epaitzen ari diren portaerak zigortzeko debekua, epailearen erabakiaren zain egon beharra zigor erabaki bat eman ahal izateko, eta frogatutza hartu beharra jurisdikzio horren epai irmoan halakotzat jo diren egintzak.

Alabaina, gure ikuspegitik, zertzelada horrek ez dio eragozten administrazioari salatutako polizi jarduera ikertzea, ezta ere, beharrezkoa bada, dagokion diziplina prozedura bideratzea, betiere prozedura horren ebazpena epai irmoa eman arte atzeratzen badu.

Uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak, Euskal Herriko Poliziari buruzkoak bermatzen du hemen aldezen ari garen interpretazioa, hauxe ezartzen baitu 91.5 artikuluan, zigor prozedura agenteen kontrakoa

den kasuetarako: *“Euskal Herriko Poliziako kideen kontra zigor-legezko prozedura hasteak ez du galeraziko egintza berengatik alde aurreko informazioa edo dagokion diziplinazko espedienteak izapidetzerik, eta, hala badagokio, espedientepekoai aldi baterako geldialdia ezarriko zaie eta egoki diren bestelako bermezko neurriak ere hartuko dira. Hala ere, aipatutako prozedura horiek zigor-legez emandako epaia sendetsia denean bakarrik erabaki ahal izango dira, aipatzen dituen ekintza frogatuen adierazpenak Administrazioa lotzen duela”*.

3. Gure iritzian, zigor prozedura bat egotea ere ez da oztopo –Arartekoa sortu zuen legearen 13. artikulua ikuspuntutik begiratuta– erakunde honek espediente honetan egin duen moduan esku hartu ahal izateko, hain zuzen, polizi arduradunei kexetan salatutako portaerak iker ditzatela eta ikerketaren edukia eta emaitza jakinaraz diezazkigutela eskatuz.

Otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikulua ezarritakoaren arabera, Arartekoak *“ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezkeen arrenkurak banaka aztertzen hasiko”* (sic).

Guk ulertzen dugunez, xedapen horrek zigor epaibidean azaltzen diren gai zehatzak aztertzea eta horietaz dugun iritzia ematea debekatzen digu, baina ez digu debekatzen prebentzio-alarrean jardutea (alor horretan kokatu dugu gure jardura kexotan), alde batetik, polizi arduradunei zera eskatuz, agenteen portaera jakin bati buruzko kexaren bat jasotzen dutenean, lehen aipaturiko gomendio orokorrari jarraiki, gure iritziz bete behar dituzten jarraibideen arabera jardun dezatela; eta, bestetik, gomendio hori bete den egiaztatuz.

Gure ikuspuntutik, aipaturiko xedapenak ez digu eragozten prozesu judizialaren mami ez diren kexen beste alderdi batzuk aztertzea, ezta ere erakunde honek egindako beste gomendio orokor batzuk kasu horretan bete diren egiaztatzea.

Behin puntu honetara iritsita, nahitaez errepikatu behar dugu orain aztertzen ari garen bi kexen kasu zehatzean, daukagun informazioaren arabera, ez dagoela, gure iritziz, erabateko bat etortzerik kexagileek erakunde honi salatu zioten polizi jardueraren eta, azalpen ofizialen arabera, izapidetzen ari den prozedura judizialaren artean. Bi kexotan salatzen den gaia –gogora dezagun– udaltzainek gazteei emandako tratua da, baina udal arduradunek eman dizkiguten azalpenetatik ondorioztatu dugunez, poliziaren argitze-agiritik eratorri den zigor prozeduran, kexagileetako baten portaera epaituko da.

4. Kexagileek gure iritziaren jarritako egintzak ez ikertu izana oinarritu nahian Gasteizko Udaltzaingoko komisario nagusiak eman dizkigun azalpenak ezin dute justifikatu, gure aburuz, jokaera hori.

Lehen ere aipatu dugunez, polizi arduradun horrek jakinarazi digu arau orokor gisa udalak ez duela parte hartzen gertakarietan esku hartutako agenteek zigor prozesu bat izapidetzea eragingo duen argitze-agiri bat egiten dutenean, eta arrazoi horrengatik ez zutela hasieran ikertu udaltzainen portaera kexa hau eragin duen kasuan. Era berean, erakunde honek bere iritzia eusten ziola ikusirik, nolabaiteko ikerlana egin zutela adierazi digu, baina ez zutela jarraitu, egintzak gertatu zirenetik igarotako denbora kontuan izanik, azkenean, epailearen erabakiaren zain geratzea erabaki zutelako.

Orobat, aurrekarietan agerian jarri dugunez, udal administrazioak eman dizkigun datuen arabera, ikerketa hori honela gauzatu zen: poliziaren argitze-agiria berriz irakurri zen, eta agiri horretan lekuko bat zegoela aipatu zela egiaztatzen, agiriko bertsioa lekukoak berrets zezakeelako, guk uste.

Ezin dugu justifikazio hori onartu. Berrito diogu, eztabaidaturiko portaera izan zuen udaltzainak berak egindako argitze-agiria aztertzea mugatzen den ikerketa bat ez zaigu aski iruditzen, argi eta garbi, eta horrela jokatzeko –ikerketa osagarriak gauzatzeko ezintasunaz gutxienezko arrazoiak eman ezean– kexa errefusatzearen pareko zerbait da praktikan. Ez daukagu ahazterik, halako kasuetan, agintaritzaren agentei beren eginkizunak betetzean onartzen zaizkien alderdikeriak eza eta objektibotasuna arras ahulduta geratzen direla, gai horretan duten interes pertsonalagatik.

Deigarria iruditzen zaigu, bestalde, ikerketa atzerarazi duen udalak berak gero denboraren joana alegatu izana ikerketarik eza zuzitzeko funtsezko argudio gisa.

Azalduta geratu den bezala, zortzi hilabete baino gehiago igaro ziren udal administrazioari gure gomendio orokorrean (“Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako”) ezarritako parametroak erabiliz egintzak iker zitzala eskatu genionetik, eskaera hura betetz erantzuna jaso genuen arte. Hilabete horietan udala isilik egon da, besterik gabe, jarraian eta etengabe bidali dizkiogun errekerimenduei entzungor eginez.

Udaltzaingoko komisario nagusiak bere txostenean adierazi digunez, beren geroko jarduerak gure gomendio orokorrean ezarritakora egokitzeko konpromisoa hartu dute. Erabaki hori oso egokia iruditzen zaigu, baina ezin du justifikatu, gure ustez, orain aztertzen ari garen kasu zehatzean gomendio hori ez bete izana.

5. Halaber, ezin ditugu onartu udalak, gure laguntza-eskaerari erantzuteko hartu duen denbora luzea zurrizteko, eman dizkigun azalpenak, alegia, espediente artxibatu zutela, eskaera hori erantzunda zegoela oker uste izan zutelako.

Aski da gogoratzea udal administrazioak gure eskaerari erantzuteko hartu dituen zortzi hilabete pasatxo horietan, esan dugunez, etengabe errekerimenduak bidali dizkiogula –hiru, hain justu–, eta gai horren berri galdetu dugula Udaltzaingoaren bulegoetan beretan, aurrez aurre eta zuzenean, inolako erantzunik lortu barik; eta, azkenean, udalaren titularrari Zigor Kodearen 502.2 artikuluan ezarritakoaren arabera delitua egin zezakeela zioen ohartarazpen formala bidali baino lehen egin genuen beste gestio baten ondorioz jaso genuela erantzuna.

Errespetu osoz, zera uste dugu: espediente hori hasieran oker artxibatu izan balitz, gero udalari informazioa esan bezala bidal diezagun eskatzeko egin genizkion errekerimenduek nahitaez balio behar zutela hutsegite hura antzemateko eta zuzentzeko.

Gure iritzian, jokaera hori ez dator bat erakunde hau arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak 23. artikuluan ezarritakoarekin: alegia, euskal administrazio publikoetako organoek lehentasunez eta lehenbait lehen bidali behar dituztela Arartekoak eskatzen dizkien datu, agiri, txosten edo argibide guztiak.

Gainera, jokaera horrek errespeturik eza erakusten duela iruditzen zaigu, bai guri eman diguten kontrol-eginkizunarekiko, bai gure legeriak eskubideak babesteko eskura jarri dizkien bitartekoetatik bat erabiliz, erakunde eskubide-bermatzaille honi babesa eskatzen dioten pertsonekiko ere.

6. Udaltzaingoko komisario nagusiak bidali digun azken txostenean –dirudienez– inplizituki onartzen duen moduan, guk ere uste dugu ikerketa berehala egitea erabakigarria dela horrelako edozein ikerketa-tresnak arrakastarako gutxienezko bermeekin bete dezan bere helburua: gertatutakoa argitzea.

Gaia horrela ulertzeak bultzatu gaitu, hain zuzen, zera adieraztera: polizi arduradunek kexak ikertzeko barne-prozedura bat hasi behar dutela kexen berri izan bezain laster, horiek argi eta garbi funsgabeak ez badira behintzat.

7. Komisario nagusiaren txosten berean azaltzen denez, Udaltzaingoak erantzun egiten die, oro har, herritarren kexei, eta hori ontzat jotzen dugu. Alabaina, espediente honetan, guk dakigula, ez da horrela jokatu, izan ere, esku artean dugun informazioaren arabera, oraindik ez da erantzunik jaso kexagile gazteok udalaren bulegoetan egin zituzten erreklamazioen gainean.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **10/2006 GOMENDIOA, apirilaren 4koa, Gasteizko Udalari egina**

Iker ditzala, gehiago atzeratu gabe, kexagileek salatutako egintzak, horretarako “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” izenburuko gomendio orokorrean ezarritako parametroak erabiliz, eta jakinaraz diezazkigula horren gainean burutzen dituen jarduerak eta berorien emaitzak.

Erantzun diezaiela, oraindik egin ez badu, kexagile gazte horiek udal bulegoetan azaldu zituzten kexei.

**16/2006 Gomendioa, ekainaren 22koa, Gasteizko Udalari egina, trafiko arloan zigor bat nahitaez betearazteko premiamendu bidea indarrik gabe utz dezan, horregatik jaso dituen diru-kopuruak itzul ditzan eta preskripziozko arauak aplikatzeari buruz iritzia eman dezan. Ez da onartu.**

#### Aurrekariak

1. Hiritar batek Arartekoaren balorazioa eskatu zuen Gasteizko Udalak zehapen prozedura izapidetzeko izandako moduaren inguruan. Prozedura (...) zenbakiarekin identifikatzen da.

Adierazi zuenaren arabera, 2002ko urriaren 22an salatu egin zuten debekaturiko biraketa egiteagatik. Buletina sinatu ondoren, ordea, ez zuen salaketa horren berri gehiagorik izan 2003ko azarora arte. Orduan, “zorraren epemugaren jakinarazpena” iritsi zitzaion eta, horren bidez, zigorra ordaintzeko epe exekutiboaren berri jaso zuen. Horren kontra errekurtsioa jarri zuen, zehapen ebazpenaren jakinarazpen faltan oinarrituz. Udalak, ordea, ezezkia eman zion zigorra “ezarritako prozedura jarraiki jakinarazi zitzaiolako interesdunari.”

2. Guk eginiko informazio eskaerari erantzunez, eta errekerimendu osagarriaren ondoren, espediente administratiboa osatzen zuten dokumentu batzuen kopia jaso genuen Diru-bilketa Zerbitzuko buruaren txostenarekin batera. Bertan, gauzaturiko jardueren berri eman zen eta adierazi zen bai jakinarazpen pertsonalak egiteko saiakerak bai ondorenean horiek ediktu bidez jakinaraztekoak arau legalean ezarritako prozeduraren bidez gauzatu zirela.

Hala eta guztiz ere, saiakera horien datu zehatzak ez zirenez aipatzen eta horiekin lotura izan zezaketen dokumentuen kopia ere ez zenez erantsi, beste informazio eskaera bat luzatu behar izan genuen horiek lortzeko eta kexa bideratu ahal izateko.

Azkenean jakin ahal izan genuenaren arabera, zehapen ebazpena interesdunaren etxean jakinarazteko saiakerak 2003ko martxoaren 27 eta 31n egin ziren, 12:10ean eta 12:16an hurrenez hurren. Saiakera hori alferrekoa izan zen, jakinarazpena jaso zezakeen inor ez zegoelako bertan. Hori dela-eta, ebazpen hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 19koan, argitaratu zen. Espedienteak ez du baieztatzen jakinarazpena hartu-abisua postontzian utzi zenik, ezta pertsona hori bizi den udalerriko udaletxeko iragarki oholean jarri zenik ere.

3. Datu horien azterketak hainbat okertasun utzi zituen agerian adierazitako jakinarazpena egiteko garaian eta horren berri eman genion Gasteizko Udalari. Horretarako gure planteamendurako berariazko balorazioa eskatzen zuen idazkia bidali genuen eta, horrekin batera, ezarritako isunaren nahitaezko exekuzioa eraginik gabe uzteko beharra azpimarratu genuen.

Beste errekerimendu osagarri bat behar izan zen Diru-bilketa Zerbitzuko buruaren beste txosten bat eskuratu ahal izateko. Bertan, gure jarrerarekin bat ez zetorrela adierazi zigun. Izan ere, gure jarrera babestuko lukeen Auzitegi Gorenaren Epaia aztertutako gertakariaren ondoren eman zen. Horren arabera, bi jakinarazpen ezberdinen arteko ordu aldea hirurogei minutukoa izan behar da gutxienez.

Bestalde, posta zerbitzura zuzendu zela adierazi zuen, interesdunaren postontzian hartu-abisua utzi zela eta hori jakinarazpen zerrendan jaso zela baieztatu ziezaioten. Hala eta guztiz ere, horren inguruan erantsitako txostenaren arabera, ezinezkoa zen jada eskaturiko baieztapena egitea.

4. Horrela bada, beste mezu bat bidali genuen gure planteamendua azpimarratzeko eta udal administrazio horri gogorarazteko aplikazioa zalantzan jartzen zen epaian ez zela doktrina aldaketarik eman. Izan ere,

prozedura administratiboaren araudi orokorraren azterketan oinarritzen zen ikuspuntua berretsi zuen eta, modu horretan, behin betiko sendoturik utzi zuen.

Hala eta guztiz ere, eta berariaz bidali behar izan zen errekerimenduaren ondoren, Gasteizko Udalak epaia argitaratu zen data bakarrik jarri zuen hark sendotzen duen interpretazioa ekiditeko aitzakia gisa. Horrela, gure eskaera funtsatzen zuten gainerako arrazioen aipamena alde batera utzi zen.

### Gogoetak

1. Izaera orokorrekarekin eta kexa hau aztertu aurretik, gogorarazi nahi dugu ordenamendu juridikoaren errespetuak hiritarrak nahiz botere publikoak lotzen dituela.

Ezarpen hori trafikoa arauetara ere luzatzen da, interes hori egungo gizarte-bizitzaren oinarritzko aldeetako bat bilakatu baitira.

Horregatik, printzipioen eta helburuen onarpen orokor eta normalizatuak ez du bakarrik hiritarren kontzientziario lan etengabea eskatzen, baizik eta baita urratze suposamenduen gaitzespen egokia eta garaiz eginikoa ere.

Modu berean, zehapen prozedura baten izapidetzetik eratorritako ondorioek legearen formaltasunei arreta ematea eskatzen dute. Izan ere, formaltasun horiek ez dituzte helbururik ez duten baldintzak besterik gabe gehitzen; aitzitik, herritarrek administrazioaren zigorraren aurrean duten bermerik garrantzitsuena dira.

Ildo horretatik jarraituz, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak printzipio orokor gisa ezartzen du Herri Administrazioen zehapen eskumena horretarako ezarritako prozedura aplikatuz gauzatu beharko dela, beraz, ezingo da zigorrak jarri ezarritako moduan bideratzen ez den bitartean.

2. Erakunde honek 2002an Eusko Legebiltzarrera eraman zuen txostenak trafiko, ibilgailu motordunen eta bide segurtasuneko zehapen prozeduretan postaz eginiko jakinarazpenek bete behar dituzten baldintzak aztertzen dituen izaera orokorreko gomendioa jaso zuen, horiek behar bezala jasotzeko inor ez dagoen kasuan. Horren edukia heltzen dugu kexa honen erreferentziako esparru orokor bera delako.

3. Zehapen prozedura batean, jakinarazpenaren izapideak ezohiko garrantzia hartzen du, araudiak ezarritako betebeharrak guztiak zehatz-mehatz beteta, interesdunak prozeduraren berri baduela eta, ondorioz, defentsarako eskubidea erabiltzen dutela bermatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak hainbatetan eman ditu gai horren inguruko ebazpenak. Horrela, urtarilaren 13ko 1/1983 zenbakiko Epaian (RTC 1983\1) honakoa baieztatu zuen:

“Alde ezberdinekin harremanetan jartzearen gaiari zuzentzen zaizkion prozedura lege guztien ezarpenetatik (jakinarazpenak, zitazioak, deiak) eta “in procedendo”-ak eragindako akatsak konpontzera zuzenduriko inpuignazioko bideetatik ondoriozta dezakegunez, legegilearen helburua legeei eskubideen eta interesen defentsarako bermeak ematea da. Hala, jakinarazpen, zitazio edo deiak bere helburua beteko du; alegia, hori eragin duen jardueraren edo ebazpenaren berri emanez, jakinarazpen, zitazio edo dei horren jasotzaile denak behar duena izatea bere eskubide edo interesak prozesu horretan defendatzeko. Horren ondorioz, komunikazio faltarik edo gabezia horri pareka dakiokkeen baliogabetasunik sortuko balitz, interesdunak bere defentsarako behar dituen bitarteko legalak martxan jartzeko ezintasuna etor liteke.”

Edo orain dela gutxi emanikoan, 2002ko urriaren 28ko Epaian (RTC 199\2002) honakoa adierazi zuen:

“...Prozedura legeek deiak, zitazioak edo jakinarazpenak egiteko exijitzen dituzten baldintzak betetzeak garrantzia konstituzionala du eta kaltetuak jarduera edo ebazpen horren berri izan eta bere defentsarako eskubidea behar bezala gauzatzeko aukera izango duela bermatzen dute.”

Arrazoi hori dela-eta, justizia auzitegiek ardura berezia eskatzen dute prozedura mezuak helarazteko garaian. Izan ere, prozedura legeek ezartzen dituzten arauak ez dira forma exijentziak bakarrik, babesgabetasuna ekiditeko ezinbesteko atala ere badira, eta baita Konstituzioaren 24. artikuluan onarturiko eskubidearen bermea ere.

Zentzu horretan, eta jakinarazpenaren helburua jorratzen den jardueraren ezagutza pertsonala eta zuzena ahalbidetzea dela kontuan hartuta, administrazioak horretarako behar den ardura eta baliabide guztiak jarriko ditu martxan, zentzuzko esparru batean, helburu hori lortzea posible egiteko.

Hala eta guztiz ere, araudia bera da gutxieneko jarduerak ezartzen dituen jakinarazpen pertsonala hobetzeko. Izan ere, horixe da interesdunaren jarreraren defentsa bermatzeko metodorik egokiena, eta kontuan hartu beharrekoa da alde batera ezin utziz.

4. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua honakoa adierazten du: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez den beste ordu batean, berriz saiatuko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.”*

Antzerako ezarpen bat jasotzen da posta zerbitzuak arautzen dituen Araudiaren 42. artikuluan (abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretua).

2004ko urriaren 28ko Auzitegi Gorenaren Epaiak (R/J 2004\6594) doktrina legaltzat jo zuen ondorenean jasoko dugun exegesia, jakinarazpen saiakeren arteko ordutegi aldeari dagokionez:

*“Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak eraldatzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua betearazteko asmoarekin, ordu ezberdinaren adierazpena egokituz joko da lehenengo jakinarazpena egin zen unearen eta bigarrena egin zenaren artean hirurogei minutuko aldea dagoenean gutxienez.”*

Estatuko Aldizkari Ofizialak 2004ko abenduaren 27an argitaratu zuen epai hori, Gasteizko Udaleko Diru-bilketa Zerbitzuko buruak baieztatzen duen bezala, eta Administrazioarekiko Auzietako Eskumenak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 100.7 artikuluekin bat etorritik, hori da eskumen gutxiago dituzten epaile eta auzitegi guztiak lotuko dituen data.

Hala eta guztiz ere, baieztapen hori egiteak ez du esan nahi aurreko tarteetan gaiaren inguruko edozein jardura administratibo onargarritzat jo daitekeenik, esku artean dugun kasuan bezala adierazitako jarrerari kontrajartzen zaizkionean gainera. Hori dela-eta uste dugu kexan azalduko gaiaren azterketa ezin daitekeela epaiaren funtsa eratzen duen arrazoibidetik kanpo utzi, ezta, azken batean, haren edukitik kanpo ere.

Horrela, alde batetik artikulua testuaren idazketa ez da ia aldatu eta aztertzen ari garen suposamen-duari aplikatu dakioket modu berean; beraz, ez luke zentzu gehiegirik izango une honetan Auzitegi Gorenak emaniko ebazpenarekin zerikusirik ez duen eta bat ez datorren interpretazioa egitea.

Bestalde, aipatu dugun ebazpen judiziala gauzatu arte justizia auzitegiek nahiz gaian aditu diren tratatu-idazleek –edo eskubideen bermatzaile diren erakundeek– xedapen arautzaile hori hainbat modutan ulertu izan bazuten ere, kontua da ez zegoela balio zezakeen eta guztiak onartzen zuten interpretazio bakarra. Azken hori orain ezarri da eta, horrek dioenaren arabera, legearekin desadostasunean daude ezarpen horren ezberdinak diren gainerako aukera guztiak.

Are gehiago, epai hori eman aurretik erakunde honen jarrera nabarmenki argia zen, bai gomendio zehatzetan bai lehen aipaturiko izaera orokorrekoan. Azken horretan honako hausnarketa hauek egin genituen: *“aztertu ditugun kasuetan jakinarazpen-ahalegin biak egiteko orduen artean ez dugu alde handirik ikusi eta, beraz, ahalegin horiek ez dira egokiak eskakizuna behar bezala betetzeko; izan ere, jakinaraztearen helburua da pertsona interesdunak zuzen eta bertatik bertara ezagutu dezala jakinarazten zaion ekintzaren edukia; jakinarazpena egiteko funtsezkoa da hori, askotan esan du-*

*gun bezala. Gure ustetan, helburu hori bigarren ahaleginean ardua bereziz jokatzen bada bakarrik lortuko da; bigarren saiakerak lehenak bezala kale egin ez dezan, ikuspegi materialetik formalki ezberdina baina antzerakoa den edo denboran aurrekoari alde gehiegirik ateratzen ez dion ordu batean egin behar da...”.*

Dokumentu horrek berak antzerako ebazpenak ematen zituzten epaiak aipatu zituen, adibidez, Sevilako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiko 2001eko otsailaren 1ekoa (RJCA 2001\275), edo Errioxako Justizia Auzitegi Gorenaren 1998ko abenduaren 12koa (RJCA 1998\4679). Azken horren arabera, 10.22ak eta 9.37ak “*ordu bera dira birtualki*” interesdunaren etxean jakinarazpen pertsonala egiteari dagokionez.

- Bestalde, posta zerbitzuak arautzen dituen Erregelamenduak adierazten du, posta zerbitzuak eginiko jakinarazpen saiakerak ez badute arrakastarik izan, jakinarazpena zerrendan jarri beharko dela hilabetez gehienez eta bere etxebizitzari dagokion postontzian jakinarazpen hori hartu-abisua utziko dela. Bertan, jakinarazpena egongo den egoitza, hori jasotzeko dagoen epea eta bigarren saiakerari dagozkion ezau-garriak jaso behar dira.

1997ko abenduaren 12ko Auzitegi Gorenaren epaiak (RJ 1998\2264) honakoa dio: “*ezinbestekoa da jakinarazpena emateko bi saiakera egin direla eta hartu-abisua jaso dela frogatzea. Abisu hori postontzian edo dagokion kutxan sartu behar da eta hori egin dela frogatzea posta zerbitzuari berari dagokio.*” Gainera, behin jakinarazpena itzultzen denean irautsi egin delako, administrazioak, besteak beste, “*posta zerbitzuaren ziurtagiria eskatu eta sartu behar du espediente administratiboan (...) bertan ziurtatuz (...) Hartu-abisua utzi zen eguna eta ordua, eta hartzailea edo baimenduriko inor ez zela joan posta zerbitzuaren bulegora gutuna hartzera.*” Azkenik adierazten da, administrazioak gertakari horiek frogatzen dituenean bakarrik onartu daitekeela iragarki bidezko jakinarazpena.

- Goian aipaturiko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua ediktuaren bidea erabiltzea onartzen du jakinarazpen pertsonala gauzatu eta helburua lortu ez bada.

Hori dela-eta, alde batera ezin utz daitekeen suposamendua da ediktu bidezko jakinarazpena egin aurretik arauak ezarritako moduan betebeharrak formal eta materialak betetzea. Horregatik, betebeharrak horiek behar bezala ez direla gauzatu antzematen bada, jakinarazpena baliogabetzat jo behar da.

Artikulu horren arabera, gainera, jakinarazpena udaleko ediktuen ohelean iragarki jarri, interesdunaren azken helbidean (eta) dagokion aldizkari ofizialean iragarriz egingo da, eta jarduera horiek ere espediente administratiboan jaso beharrekoak izango dira.

- Aztertu dugun kasuan, zehapen prozeduraren jakinarazpen pertsonalek ez zituzten baldintza legalak errespetatu. Izan ere, alde batetik bi saiakeren orduen arteko aldea 6 minutukoa izan zen; eta, bestetik, ez zen frogatu posta zerbitzuko langileak derrigorrezkoa den hartu-abisua postontzian utzi zuenik.

Saiakera horiek, beraz, ez ziren araudiak ezarritako esijentziak bete egin; horrek ediktuaren baliabidea erabiltzearen zuzentasuna zalantzan jartzera eramaten gaitu zehapen ebazpena ezagutzeari dagokionez. Gainera, alde batera uzten dugu udaleko iragarki ohelean argitaratu izana ala ez.

Horren ondorioz, jakinarazpen horren izaera irregularrak zehapen prozeduraren amaierari eragiten dio, jardueraren preskripzioagatik zigorra jartzeko ahalmenari berari bezala, eta, beraz, baita ondorenean isunaren kobrantza exekutibo gauzatzeko izapidetutako premiamenduzko prozedurari ere. Izan ere, azken horrek ez zituen beharrezkoak diren funtsak izan hasi eta garatzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **16/2006 GOMENDIOA, ekainaren 22koa, Gasteizko Udalari egina**

(...) erreferentzia pean izapidetutako trafiko prozeduragatik ezarritako zigorraren nahitaezko exekuziorako erabiltzen ari den premiamenduzko bidea eraginik gabe utz dezala, eta horregatik jaso ahal izan diren diru-kopuruak itzul daitezela, preskripzioaren arauak aplikatuz erator daitezkeen ebazpen guztiekin batera.

**17/2006 Gomendia, ekainaren 26koa, Gasteizko Udalari egina, trafikoko zigor prozedura bat indarrik gabe utz dezan eta, hala badagokio, horregatik kobratutako dirukopuruak itzul ditzan. Ez da onartu.**

Aurrekariak

1. Pertsona batek, enpresa baten izenean eta hura ordezkatzuz, Arartekoaren balorazioa eskatu zuen Gasteizko Udalak (...) erreferentziarekin identifikatzen den zehapen prozedura izapidetzeko moduaren inguruan. Prozedura hori enpresaren aurka bideratu zen, "ibilgailuaren titularra den heinean, arau-haustearen erantzule den gidariaren datuak ez helarazteagatik."

Adierazi zuenaren arabera, horren inguruan izan zuen lehenengo berria betebeharrak hori ez betetzeagatik hasi zen zehapen prozeduraren jakinarazpena bera izan zen. Data horretara arte ez zuen izan hasiera batean salaturiko arau-haustearen inguruko berririk, ezta datu horiek helarazteko adierazten zion eskaerarik ere.

Horixe bera adierazi zuen prozeduran zehar aurkezturiko hainbat idazkitan. Horietan azpimarratu zuen, besteak beste, adierazitako helbidean jaso beharreko errekerimenduaren jakinarazpenak ez zuela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan ezarritakoa bete. Izan ere, eginiko bi saiakeren arteko ordu aldea 23 minutukoa zen.

Udalak alegazio horiei uko egin bazien ere, gure lehen informazio eskaeran adierazi genuen, interesdunaren adierazpena baieztatuko balitz, pertsona hori zuzen ibiliko litzatekeela bere adierazpenean, alegia, jakinarazpenak ez zuela ezarpen legala bete, eta, beraz, ibilgailuaren gidaria identifikatzeko betebeharra ez betetzetik eratorritako arau-haustearen egozpenak ez luke oinarririk izango.

2. Erantzun gisa jaso genuen espediente administratiboaren kopiaren arabera, 2004ko apirilaren 16an udaltzain batek kalteturiko enpresa baten jabetzako ibilgailua salatu zuen gelditzea debekaturik zegoen toki batean aparkaturik zegoelako. Arau-hauslea ezezaguna zenez, udalak mezua bidali zion enpresa horri, pertsona hori identifika zezan eskatzeko. Errekerimendu horren jakinarazpenak adierazitako helbidean egin ziren 2004ko ekainaren 9 eta 10ean, 9:10ean eta 9:33an, hurrenez hurren. Saiakera hori alferrekoa izan zen, inork ez baitzuen mezua jaso. Horren ondorioz, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abuztuaren 6an. Espedienteak ez du baieztatzen jakinarazpenaren hartu-abisua postontzian utzi zenik, ezta enpresak egoitza duen udalerriko udaletxeko iragarki oholean jarri zenik ere.

Dokumentazio horrekin batera, administrazioak Diru-bilketako Zerbitzuaren buruaren txostena helarazi zitzaigun. Bertan, gauzaturiko jardueren berri eman zen eta adierazi zen bai errekerimenduaren jakinarazpen pertsonalen saiakerak bai ondorenean ediktu bidez eginiko jakinarazpena legeak adierazitako moduan eginikoak izan zirela. Dokumentu horrek, gainera, Auzitegi Gorenaren epai bati egiten zion aipamen. Epai hori kasuan aztertutako ezarpenen interpretazioarekin zuen zerikusia. Horren arabera, bi jakinarazpen saiakeren arteko ordu aldea hirurogei minutukoa behar du izan, baina horren argitalpena gertakariaren dataren ondorengo denez, txostena sinatu zuenaren ustetan hori aplikatzea einezkoa zen. Zirudenez, pertsona horrek udalaren jardunbidea berresten zuen.

3. Testuinguru horretan, beste mezu bat bidali genuen gure planteamendua azpimarratzeko eta udal administrazio horri gogorarazteko adierazitako epaian, gure idazkiak aipatu ere egiten ez zuena, ez zela doktrina aldaketarik egon. Erakunde honek aurretik ere azpimarratu izandako ikuspegia berretsi besterik ez zuen egin prozedura administratiboaren araudia orokorraren azterketan oinarrituz. Modu horretan behin betiko sendotu zen ikuspegi hori.



Hala eta guztiz ere, Gasteizko Udalak epaia argitaratu zen data bakarrik jarri zuen hark sendotzen duen interpretazioa ekiditeko aitzakia gisa. Horrela, gure eskaera funtsatzen zuten gainerako arrazoen aipamena alde batera utzi zen.

#### Gogoetak

1. Izaera orokorrarekin eta kexa hau aztertu aurretik, gogorarazi nahi dugu ordenamendu juridikoaren errespetuak hiritarrak nahiz botere publikoak lotzen dituela.

Ezarpen hori trafiko arauetara ere luzatzen da, interes hori egungo gizarte-bizitzaren oinarritzko aldeetako bat bilakatu baitira.

Horregatik, printzipioen eta helburuen onarpen orokor eta normalizatuak ez du bakarrik hiritarren kontzientziario lan etengabea eskatzen, baizik eta baita urratze suposamenduen gaitzespen egokia eta garaiz eginikoa ere.

Modu berean, zehapen prozedura baten izapidetzetik eratorritako ondorioek legearen formaltasunei arreta ematea eskatzen dute. Izan ere, formaltasun horiek ez dituzte helbururik ez duten baldintzak besterik gabe gehitzen; aitzitik, herritarrek administrazioaren zigorraren aurrean duten bermerik garrantzitsua dira.

Ildo horretatik jarraituz, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak printzipio orokor gisa ezartzen du Herri Administrazioen zehapen eskumena horretarako ezarritako prozedura aplikatuz gauzatu beharko dela, beraz, ezingo da zigorrak jarri ezarritako moduan bideratzen ez den bitartean.

2. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen 72.1 artikuluan, esparru horretan norberaren ekintzengatik erantzukizun pertsonalaren printzipioa ezartzen da (*“Lege honetan xedatutakoaren kontrako arau-hausteen erantzukizuna arau-haustea dakarren egintza gauzatu duenarena izango da”*).

Araututa ez dagoen tokian aparkatzeagatik jasotako salaketen kasuan, kexa honetan aztertzen den kasuan bezala, ibilgailua gidatzen zuenak egin behar die aurre bere ekintzatik eratortzen diren ondorioei. Hori dela-eta, zehapen administrazioari gidaria ezezaguna bazaio, ibilgailuaren titularrari errekerituko dio identifikaziorako datuak helarazteko. Horrela, pertsona hori ezagutzean, haren kontra zuzendu ahal izango da espedientearen izapidea.

Ordenamendu juridikoak modu horretan benetako elkarlan betebeharra ezartzen du. Agindu horrekin ez betetzeak –justifikaziorik ez badago– arau-hauste berri eta aske bat eratzen du, eta ibilgailuaren titularrari egotzi ahal izango zaio.

Hala eta guztiz ere, derrigortasun hori eratzeko, ezinbestekoa da errekerimendua bere garaian eta behar bezala gauzatu izatea, goian adierazitako legearen 72.3 artikulua idazketak ezarri bezala (*“Arau-hausteen erantzule den gidaria identifikatu beharra dauka ibilgailuaren titularrak, behar bezala eskatzen zaionean. Baina dena delako prozeduran, arrazoi garbirik izan gabe, betebeharrak bete gabe uzten badu, diru-zigorra ezarriko zaio hutsegite larria egiteagatik”*). Horren ondorioz, errekerimenduak ez luke inolako birtualtasunik izango jakinarazpenean irregulartasunen bat antzemango balitz.

3. Erakunde honek 2002an Eusko Legebiltzarrera eraman zuen txostenak trafiko, ibilgailu motordunen eta bide segurtasuneko zehapen prozeduretan postaz eginiko jakinarazpenek bete behar dituzten baldintzak aztertzen dituen izaera orokorreko gomendioa jaso zuen, horiek behar bezala jasotzeko inor ez dagoen kasuan. Horren edukia heltzen dugu kexa honen erreferentziako esparru orokor bera delako.
4. Zehapen prozedura batean, jakinarazpenaren izapideak ezohiko garrantzia hartzen du, araudiak ezarritako betebeharrak guztiak zehatz-mehatz beteta, interesdunak prozeduraren berri baduela eta, ondorioz, defentsarako eskubidea erabiltzen dutela bermatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak hainbatetan eman ditu gai horren inguruko ebazpenak. Horrela, urtarilaren 13ko 1/1983 zenbakiko Epaian (RTC 1983\1) honakoa baieztatu zuen:

“Alde ezberdinekin harremanetan jartzearen gaiari zuzentzen zaizkion prozedura lege guztien ezarpenetatik (jakinarazpenak, zitazioak, deiak) eta “in procedendo”-ak eragindako akatsak konpontzera zuzenduriko inpugnazioko bideetatik ondoriozta dezakegunez, legegilearen helburua legeei eskubideen eta interesen defentsarako bermeak ematea da. Hala, jakinarazpen, zitazio edo deiak bere helburua beteko du; alegia, hori eragin duen jardueraren edo ebazpenaren berri emanez, jakinarazpen, zitazio edo dei horren jasotzaile denak behar duena izatea bere eskubide edo interesak prozesu horretan defendatzeko. Horren ondorioz, komunikazio faltarik edo gabezia horri pareka dakiokkeen balio gabetasunik sortuko balitz, interesdunak bere defentsarako behar dituen bitarteko legalak martxan jartzeko ezintasuna etor liteke.”

Edo orain dela gutxi emanikoan, 2002ko urriaren 28ko Epaian (RTC 199\2002) honakoa adierazi zuen:

“...Prozedura legeek deiak, zitazioak edo jakinarazpenak egiteko exijitzen dituzten baldintzak betetzeak garrantzia konstituzionala du eta kaltetuak jarduera edo ebazpen horren berri izan eta bere defentsarako eskubidea behar bezala gauzatzeko aukera izango duela bermatzen dute.”

Arrazoi hori dela-eta, justizia auzitegiek ardura berezia eskatzen dute prozedura mezuak helarazteko garaian. Izan ere, prozedura legeek ezartzen dituzten arauak ez dira forma exijentziak bakarrik, babesgabetasuna ekiditeko ezinbesteko atala ere badira, eta baita Konstituzioaren 24. artikuluan onarturiko eskubidearen bermea ere.

Zentzu horretan, eta jakinarazpenaren helburua jorratzen den jardueraren ezagutza pertsonala eta zuzena ahalbidetzea dela kontuan hartuta, administrazioak horretarako behar den ardura eta baliabide guztiak jarriko ditu martxan, zentzuzko esparru batean, helburu hori lortzea posible egiteko.

Hala eta guztiz ere, araudia bera da gutxienezko jarduerak ezartzen dituen jakinarazpen pertsonala hobetzeko. Izan ere, horixe da interesdunaren jarreraren defentsa bermatzeko metodorik egokiena, eta kontuan hartu beharrekoa da alde batera ezin utzi.

5. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua honakoa adierazten du: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientearen, eta, horrez gain, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez den beste ordu batean, berriz saiatuko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.”*

Antzerako ezarpen bat jasotzen da posta zerbitzuak arautzen dituen Araudiaren 42. artikuluan (abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretua).

2004ko urriaren 28ko Auzitegi Gorenaren Epaia (RJ 2004\6594) doktrina legaltzat jo zuen ondorenean jasoko dugun exegesia, jakinarazpen saiakeren arteko ordutegi aldeari dagokionez:

“Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak eraldatzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua betearazteko asmoarekin, ordu ezberdinaren adierazpena egokitze joko da lehenengo jakinarazpena egin zen unearan eta bigarrena egin zenaren artean hirurogei minutuko aldea dagoenean gutxienez.”

Estatuko Aldizkari Ofizialak 2004ko abenduaren 27an argitaratu zuen epai hori, Gasteizko Udaleko Diru-bilketa Zerbitzuko buruak baieztatzen duen bezala, eta Administrazioarekiko Auzietako Eskumenak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 100.7 artikulua erekin bat etorritik, hori da eskumen gutxiago dituzten epaile eta auzitegi guztiak lotuko dituen data.

Hala eta guztiz ere, baieztapen hori egiteak ez du esan nahi aurreko tarteetan gaiaren inguruko edozein jardura administratibo onargarritzat jo daitekeenik, esku artean dugun kasuan bezala adierazitako jarrerari kontrajartzen zaizkionean gainera. Hori dela-eta uste dugu kexan azaldiriko gaiaren azterketa ezin daitekeela epaiaren funtsa eratzen duen arrazoibidetik kanpo utzi, ezta, azken batean, haren edukitik kanpo ere.

Horrela, alde batetik artikulua testuaren idazketa ez da ia aldatu eta aztertzen ari garen suposamenduari aplika dakioke modu berean; beraz, ez luke zentzu gehiegirik izango une honetan Auzitegi Gorenak emaniko ebazpenarekin zerikusirik ez duen eta bat ez datorren interpretazioa egitea.

Bestalde, aipatu dugun ebazpen judiziala gauzatu arte justizia auzitegiek nahiz gaian aditu diren tratatu-idazleek –edo eskubideen bermatzaile diren erakundeek– xedapen arautzaile hori hainbat modutan ulertu izan bazuten ere, kontua da ez zegoela balio zezakeen eta guztiak onartzen zuten interpretazio bakarra. Azken hori orain ezarri da eta, horrek dioenaren arabera, legearekin desadostasunean daude ezarpen horren ezberdinak diren gainerako aukera guztiak.

Are gehiago, epai hori eman aurretik erakunde honen jarrera nabarmenki argia zen, bai gomendio zehatzetan bai lehen aipaturiko izaera orokorrekoan. Azken horretan honako hausnarketa hauek egin genituen: *“aztertu ditugun kasuetan jakinarazpen-ahalegin biak egiteko orduen artean ez dugu alde handirik ikusi eta, beraz, ahalegin horiek ez dira egokiak eskakizuna behar bezala betetzeko; izan ere, jakinaraztearen helburua da pertsona interesdunak zuzen eta bertatik bertara ezagutu dezala jakinarazten zaion ekintzaren edukia; jakinarazpena egiteko funtsezkoa da hori, askotan esan dugun bezala. Gure ustetan, helburu hori bigarren ahaleginean arduratuta bereziz jokatzen bada bakarrik lortuko da; bigarren saiakerak lehenak bezala kale egin ez dezan, ikuspegi materialetik formalki ezberdina baina antzerakoa den edo denboran aurrekoari alde gehiegirik ateratzen ez dion ordu batean egin behar da...”*.

Dokumentu horrek berak antzerako ebazpenak ematen zituzten epaiak aipatu zituen, adibidez, Sevilako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitetikiko 2001eko otsailaren 1ekoa (RJCA 2001\275), edo Errioxako Justizia Auzitegi Gorenaren 1998ko abenduaren 12koa (RJCA 1998\4679). Azken horren arabera, 10.22ak eta 9.37ak *“ordu bera dira birtualki”* interesdunaren etxean jakinarazpen pertsonala egiteari dagokionez.

6. Bestalde, posta zerbitzuak arautzen dituen Erregelamenduak adierazten du, posta zerbitzuak eginiko jakinarazpen saiakerak ez badute arrakastarik izan, jakinarazpena zerrendan jarri beharko dela hilabetez gehienez eta bere etxebizitzari dagokion postontzian jakinarazpen hori hartu-abisua utziko dela. Bertan, jakinarazpena egongo den egoitza, hori jasotzeko dagoen epea eta bigarren saiakerari dagozkion ezauzgarriak jaso behar dira.

1997ko abenduaren 12ko Auzitegi Gorenaren epaiak (RJ 1998\2264) honakoa dio: *“ezinbestekoa da jakinarazpena emateko bi saiakera egin direla eta hartu-abisua jaso dela frogatzea. Abisu hori postontzian edo dagokion kutxan sartu behar da eta hori egin dela frogatzea posta zerbitzuari berari dagokio.”* Gainera, behin jakinarazpena itzultzen denean irautsi egin delako, administrazioak, besteak beste, *“posta zerbitzuaren ziurtagiria eskatu eta sartu behar du espediente administratiboan (...) bertan ziurtatuz (...) Hartu-abisua utzi zen eguna eta ordua, eta hartzailea edo baimenduriko inor ez zela joan posta zerbitzuaren bulegora gutuna hartzera.”* Azkenik adierazten da, administrazioak gertakari horiek frogatzen dituenean bakarrik onartu daitekeela iragarki bidezko jakinarazpena.

7. Goian aipaturiko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua ediktuaren bidea erabiltzea onartzen du jakinarazpen pertsonala gauzatu eta helburua lortu ez bada.

Hori dela-eta, alde batera ezin utz daitekeen suposamendua da ediktu bidezko jakinarazpena egin aurretik arauak ezarritako moduan betebeharrak formal eta materialak betetzea. Horregatik, betebeharrak horiek behar bezala ez direla gauzatu antzematen bada, jakinarazpena baliogabetzat jo behar da.

Artikulu horren arabera, gainera, jakinarazpena udaleko ediktuen ohelean iragarki jarri, interesdunaren azken helbidean (eta) dagokion aldizkari ofizialean iragarri egingo da, eta jarduera horiek ere espediente administratiboan jaso beharrekoak izango dira.

8. Aztertu dugun kasuan, identifikazio errekerimenduen jakinarazpen pertsonalek ez zituzten baldintza legalak errespetatu. Izan ere, alde batetik bi saiakeren orduen arteko aldea 23 minutukoa izan zen; eta, bestetik, ez zen frogatu posta zerbitzuko langileak derrigorrezkoa den hartu-abisua postontzian utzi zuenik.

Saiakera horiek, beraz, ez ziren araudiak ezarritako exijentziak betez egin; horrek ediktuaren baliabidea erabiltzearen zuzentasuna zalantzan jartzera eramaten gaitu errekerimendua ezagutzeari dagokionez. Gainera, alde batera uzten dugu udaleko iragarki oholean argitaratu izana ala ez.

Horren guztiaren ondorioz, jakinarazpen horren izaera irregularrak prozedura modu egokian gauzatu zela onartzea galarazten du eta, ondorioz, azkenean enpresari isuna jartzea ekarri zuen identifikatzeko betebeharra sortu izana ere zalantzan jartzen da.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**17/2006 GOMENDIOA, ekainaren 26koa, Gasteizko Udalari egina**

(...) erreferentzia pean izapidetu den trafikoko zehapen prozedura eraginik gabe utz dezala eta horren ondorioz bildu ahal izan den dirua itzul dezala.

## 7. INGURUMENA

**13/2006 Gomendioa, ekainaren 20koa, Muxikako Udalari egina, industri jarduera bat legezta dezan eta beharrezko ikusketak egin daitezen, kautelazko neurririk hartu behar den ala ez erabakitzeko. Ez da onartu.**

**14/2006 Gomendioa, ekainaren 20koa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari egina, industri jarduera bateko isurpen-gune batzuk araupetzera behartu dezan, eta horien gainean beharrezko kontrol jarduerak egin daitezen.**

### Aurrekariak

1. Kexaren xedea Muxikako Astelerra, Zabale eta Txakele auzoetako bizilagunek jarduera horrek eragindako zaratengatik jasan behar dituzten eragozpenak ziren, gauez batez ere. Horrekin batera, enpresak atmosferara egiten dituen isurketak ere aipatu zituzten. Gainera, administrazio horrek agerturiko permisibitate eta pasibotasunarengatik haserre daudela adierazi ziguten, izan ere uste dute, azken hamabost urte hauetan jarri izan dituzten salaketak jarrita ere, adierazitako kontuei konponbidea bilatu baino enpresari instalazioak eta garatzen duen jarduera zabaltzeko aukera eman zaiola. Horretarako ordea, ez dira eduki derrigorrezkoak diren baimenak eta ondorioz, ez dira ezta funtzionamendu zuzena bermatzeko beharrezkoak diren kontrolak egin.
2. SOS MUXIKA plataformak helarazitako dokumentazioa aztertuta, antzeman ahal izan dugu 1995ean jada INAMA, S.A. enpresak kaltetzen zituen auzotarrek Udal Erakunde horrengana jo zutela ondorenean adieraziko dugun moduan, instalazioak kogenerazio planta jarriko zuela jakinarazi zitzairenean:

*“...ILOGIKOA da egurrezko taula aglomeratuak egiten dituen enpresa batek, INAMA, S.A. izeneko enpresa bezala, bertan sortzen duen HAUTSA sortuta ere, erabat irekita egotea azalera osoan zati bat salbu. Horrek etengabeko hautsa eta kamioien trafikoa astuna dakar. Horrela, inguruko auzotarrok ezin dugu gure etxebizitzetako ezta leiho bat ere ireki etxebizitza partikularrak aireztatzeko. Alde batera uzten dugu gainera, gure ibilgailuetan, lursailetan, etxeetan eta abarretan pilatzen den hautsa. Kontuan hartuta enpresatik gertu asmatiko gaixo dezente bizi dela, enpresa horrek sorturiko hautsak gaixotasuna larriagotzen die (komenigarria litzateke aztertzea ea zergatik dauden horrenbeste pertsona bronkioetako gaixotasunekin enpresatik gertu bizitzean). Hautsak ez du inolako oztoporik aurkitzen inguruko eraikinetatik ibiltzeko, batez ere enpresaren egoera zein den kontuan hartzen bada: kanpoalderantz erabat irekia dago (...).*

*(...) Egunean zehar dagoen zarata jasangaitza bada ere, ez du alderik gauean antzeman daitekeenarekin, batez ere txanda aldaketa ematen denean. Txanda berria goizeko 6etan hasten da lanean, eta enpresaren makineriaren zati bat jartzen dute martxan, eta horien artean zuritzaila (etengabeko kolpe biratzaileen bidez, egurraren azala kentzea lortzen duen makina) aurki daiteke. Ez da beharrezkoa adieraztea zein izan daitekeen funtzionatzen goizeko 6etan hasten den makina horren zarataren efektua. Zonaldean inor ez da gai lo hartzeko...”*

3. Hamar urte geroago, SOS MUXIKA plataforma eratzen duten auzotarrek erakunde honengana jo zuten adieraziz, egun oraindik zarata, dardara, usai, ke, hauts, etab. arazo berak jasan behar dituztela, eta horiek larriagotu egin direla emaniko zabalkuntzaren ondorioz. Zabalkuntza instalazioetan, jardueretan nahiz funtzionamendu ordutegian eman zen.
4. Erreferentziako jardueraren egoera administratibo zein urbanistikoaren inguruko informazio zehatza izateko helburuarekin, Muxikako Udalari nahiz Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailera jo

genuen. Halaber, hainbat elkarrizketa izan ditugu bi administrazioetako arduradunekin ahal bazen argibide zehatzagoak lortzeko kasuan ematen diren gertakarien inguruan jarraitutako jardueren gainean.

### Gogoetak

Azpitarratu behar dugu esku artean duguna bezalako jarduera bat funtzionamenduan jartzeko beharrezkoak diren baimen administratiboak anitzak badira ere, inguruak bizi duen ingurumenaren hondatzea eta zuzenean jasan behar dituzten gaixotasunak kontuan hartu ditugula, eta ondorioz, INAMA, S.A. enpresaren egoeraren legaltasuna aztertzen saiatuko garela aplikatu daitezkeen ingurumen araudia kontuan hartuta.

Zentzu horretan adierazi behar dugu, gure Euskal Autonomia Erkidegoan, Ingurumenaren babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Legea dela mota horretako instalazioak legalizatzeko prozedura zehazten duena.

Lege hori indarrean jarri aurretik, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen gaineko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretua zen (IGOKA hemendik aurrera) derrigorrezko udal lizentziak ematearen erregimen zehatza ezartzen zuena, jarduerak ingurumenean izango zuen eragina aztertzea ahalbidetuko zuen tresna gisa.

Bestalde, atmosferaren kutsadurari dagokionez, aplikatu daitezkeen arloko arau nagusia Ingurune Atmosferikoa babesten duen abenduaren 22ko 38/1972 Legea, eta horixe garatzen duen otsailaren 6ko 833/1975 Dekretua dira.

Jarduera horiek prozedura zehatz batera makurtzeko arrazoiak jardueraren funtzionamendua eragin kaltegarri edo eragozpen eta ezerosotasunak sor ditzakeela aurreikustea da. Horrela, jardueraren garapen normala ezarpen hertsia goetara egokitzeak interes orokorra babestu nahi du. Kasu honetan, interes hori kalitatezko ingurumena izateko eskubidearekin eta bereziki kutsatzaileak diren instalazio hauen inguruan bizi diren pertsonen osasunarekin identifikatzen da.

Adierazitako esparru juridikotik abiatuta eta helarazi zaigun dokumentazio eta informazioa kontuan hartuta, honako gogoeta hauen berri eman nahi dizugu:

1. 1964tik, gutxi gorabehera, funtzionamenduan diharduen enpresa bat da. Hasiere batean zerratoki tailer txiki bat bezala hasi bazen ere, ondorenean eta pixkanaka handituz joan da, eta egun partikula txikien taula aglomeratuak egiten dituzte egurra erabiliz. Gainera jarduera horrek kogenerazio planta dauka, gutxi gorabehera, 1995etik aurrera.

1994ra arte jarduerak erantsitako zabalkuntzak ez ziren IGOKAk ezarritako prozeduraren arabera legalizatu, eta horixe zen gure EAEn aplikatu beharreko araudia Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Legea onartu arte.

Zentzu horretan, enpresaren gaurkotzearen legalizazio prozedurarekin hasi aurretik, instalazioaren une hartako egoera juridikoa zehazteko asmoz, egokia iruditzen zait 1994ko uztailaren 11n Bizkaiko Ingurumeneko Lurralde Ordezkariek helarazitako txostena hitzez hitz jasotzea. Txosten hori Muxikako Udalarik zuzendurikoa zen, INAMA, S.A. enpresak eragindako hauts eta zarata eragozpenengatik aurkezturiko salaketengatik eginiko ikuskapen bisitaren ondoren. Horrela, adierazitako txostenak honakoa dio:

*“1994ko ekainaren 20an Ingurumen Sailburuordetzari helarazitako ofizioaren esparruan, (...) udalerririk horretan kokatzen den INAMA, S.A. enpresak isuritako hauts eta zarategatik aurkezturiko salaketa erantsiz, jakinarazi nahi dizut ikuskapen bisita egin zitzaiola enpresa horri urte honetako uztailaren 8an. Bisita hori Sailburuordetza honi atxikitzen zaion teknikariak egin zuen (...) Alkateordearekin eta (...) udaleko aparejadorearekin batera. Enpresako ordezkariekin izandako bileraren ondoren erabaki da, INAMA, S.A. enpresak jarduera guztiaren proiektu osoa aurkeztu behar duela birkalifikatua izan eta egungo egoerari egokitu behar duela neurri zuzentzaileak ezartzeko. Izan ere, jardueraren egungo lizentzia 1964koa da, eta ordudunik erabateko aldaketa eman da prozesuan.*

*Hori dela-eta, enpresari eskatu beharko diozu 60 eguneko epean jardueraren osotasunaren proiektu tekniko gaurkotua aurkezteko. Bertan, laster egingo den KOGENERAZIOA erantsi beharko da...”*

Horrekin adierazi nahi duguna da, une hartan enpresak klandestinitatean ziharduela. Halaber, gauzatzen ari zen jardueraren eta 1964an emaniko lizentziaren arteko lotura faltaren inguruko zalantzak ere argi geratu ziren.

Une horretatik aurrera, eta adierazitako udal errekerimenduaren aurrean, enpresak kogenerazio plantaren legalizazioari zegokion eskaera aurkeztu zuen, eta baita une horretara arte gauzatzen ari ziren jarduera ezberdinen eguneratze proiektua. Hori guztia 1994ko urrian eman zen gutxi gorabehera.

Izapideturiko legalizazio espedientetik ateratako frogen bidez baieztatu ahal izan dugu, prozedura hori amaitzeke dagoela oraindik orain, eta INAMA, S.A. enpresak ez duela taula aglomeratuak egiteko eta kogenerazio instalazioa ireki eta funtzionamenduan izateko lizentziarik.

Baieztapen hori ziurtatzeko eta helarazi zaigun dokumentazioak ahalbidetzen digun heinean, udaleko agintaritzak aipaturiko IGOKA prozedurarekin bat etorritz gauzatu ahal izan dituen izapideak zehazten saiatuko gara.

Lehenik eta behin baieztatu dugu 1994ko azaroaren 3ko udaleko txosten teknikoaren bidez eginiko legalizazio eskaera izapidetzea onartu zela. Bideraturiko udal espediente jendaurreko erakustaldian jarri zen 1995eko urtarrilaren 13ko 9. BAO, eta kaltetuak izan daitezkeenei jendaurreko erakustaldiaren fasearen hasieraren berri eman zitzaion.

1995ean instalazioak kaltetzen zituen 79 pertsonak sinaturiko alegazio idazki bat jaso zen Muxikako Udalean.

1995eko martxoaren 14an Udaleko Teknikariak aldeko informazioa eman zuen jarduera proiektuaren gainean, eta 1995eko abuztuaren 7an aldeko informazioa eman zen ere Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean.

Erakunde honi helarazitako espedientearen kopian ez bada jasotzen ere Korporazioaren txosten ziurtatuaren edo garai hartan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila zenari bidali aurretiko txosten juridikoaren kopia, Sail horrek 1996ko otsailaren 8an emaniko kalifikazio txostenaren aurrekari zerrendan antzeman daiteke bi txostenak aldekoak izan zirela.

Modu berean zehaztu nahi dugu deigarria iruditzen zaigula udaleko espedientearen alegazio fasean 79 sinatzailek aurkezturiko idazkia jasotzea, eta kalifikazio txostenean proiektuaren aurkakotasunik ez zela egon adieraztea.

Bestalde, txostenak jarduera hori gogaikarri, osasungaitz eta arriskutsu gisa sailkatu zuen eragiten zituen zarata, usai eta gas isurketen ondorioz, eta baita material sukioiak eta erregaiak sortzeagatik. Horren guztiaren ondorioz, instalazioak, funtzionamendu egokia bermatzeko, bete beharreko neurri zuzentzaileak ezarri ziren.

Ezarritako prozedura jarraituz, Udaleko Osoko Bilkurak, 1997ko abenduaren 18an eginiko ezohiko bileran, jarduerari derrigorrezkoa zaion baimen edo lizentzia ematea adostu zen, horren bidez taula aglomeratuak egin ahal izan zituzaten, eta kogenerazio instalazioa jarri zezaten. Horretarako, honako baldintza hauek jarri ziren:

“...A) Baldintzak:

1. Instalazioak lehen aipatu diren aurkezturiko eskaera eta proiektuetara egokitu beharko du.
2. Aldeko egiaztapen-akta lortzeko, eskatzaileak Udalarri eskatu beharko dio dagokion egiaztapen bisita egiteko, IGOKAren 34. artikuluan ezarritakoa betez. Eskaerarekin batera, instalazioak lizentzian ezarritakoa betetzen duela adierazten duen obra eta instalazioen Teknikari Zuzendariaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
3. Egiaztapen bisita egin aurretik makina edo instalazioen funtzionamendua ziurtatu beharko balitz, titularrak horixe jakinarazi beharko dio Alkatetzari probak egin baino bost egun lehenago, horien iraupena eta inguruari kalterik eragingo ez zaiola eta pertsonentzat edo ondasunentzat arriskurik sortuko ez dela bermatzeko hartutako neurriak zehaztuz. Proba horietara Udalak egokitzat jotzen dituen teknikariak joan ahal izango dira...”

Une horretatik aurrera enpresaren titularrak zegozkion lizentziak eskatu behar zituen kogenerazio fabrikarako aurreikusitako instalazioa jartzeko obrak egiteko, eta gainerako instalazioak ezarritako neurri zuzentzaileetara egokitze lanak gauzatzeko.

Hala eta guztiz ere, udaleko espedientean bertan baieztatu daiteke, instalazio lizentzia hori eman aurretik, udaleko agintaritzak emana zuela jada aurreikusitako kogenerazio instalazio berria jartzeko obrak egiteko lizentzia. Are gehiago, zehaztu behar dugu lizentzia horren emakida GOKA espedientearen izapidetzearekin hasi aurretik gauzatu zela, 1994ko urriaren 13an eginiko Udalaren Osoko Bilkuraren bidez. Legalizaziorako proiektu teknikoaren aurkezpena ordea, 1994ko azaroan egin zen.

Azkenik azpimarratu behar dugu, IGOKAren 34. artikulua honakoa zehazten duela:

*“Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arrisksutzat jotzen den jarduera baterako instalazio lizentzia lortuta, ezingo da jarduera martxan jarri eskumenak dituen teknikariak horren funtzionamendua baieztatu aurretik, ez bakarrik den jarduera izateagatik, baita eragin daitezkeen kalteen izaeragatik ere. Udalak horrelako funtzionariorik izango ez balu, dagokion Organo probintzialari eskatu ahal izango dio.”*

Zentzu horretan adierazi dezakegu, 2001eko abuztuaren 3an udaleko espedientean udaleko teknikariak eginiko egiaztapen akta bat jaso zela egurra tratatzeko, aglomeratuak egiteko eta kogenerazio instalazioaren gainean. Bertan, 2000ko azaroan eginiko ikuskapen bisitan honakoa antzeman zela jaso zen:

*“Lizentzian ezarritako babeserako neurri guztiak bete dira; suteetako ur-hartune ekipatuen kokagunea bakarrik aldatu da, pabiloiaren ate nagusien ondoan kokatuz.*

*Neurri zuzentzaileetan adierazitakoa baino ahalmen handiagoa duen ur depositua instalatu da.*

*Azkenik, neurri zuzentzaileen funtzionamendua baieztatu da horien eraginkortasuna zehazteko eta indarrean dagoen araudiak adierazitako erreferentziako irizpide edo baloreen babesa bermatzeko nahikoak diren baieztatzeak. Horrela ziurtatzen da zuzenak eta nahikoak direla.”*

Udaleko teknikariak berak ezarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna bermatzen dela baieztatzen badu ere, honakoa zehaztu zuen modu berean: *“ez dira 78. eta 14. neurri zuzentzaileak baieztatu, udaleko zerbitzuak ez dituztelako atmosferara isuritako partikulak neurtzeko (mg/Nm<sup>3</sup>) beharrezkoak izango liratekeen neurtzaileak, eta beraz, Ingurumen Sailburuordetzako teknikariak izan beharko dira ezarpen horien baieztapena egiten dutenak.”*

Hala eta guztiz ere, erabaki hau hartzen du: “INAMA, S.A. enpresa adierazitako erreferentziako jarduerarekin hasi daiteke, ezarpen hauetara egokitzen bada:

- *Enpresak gaitasuna duen teknikariak idatzi eta sinaturiko, eta dagokion Elkargoak onetsitako obra zuzendaritzaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi instalazioak proiektuari egokitzen zaizkiola, eta ezarritako neurri zuzentzaileen arabera jarri direla.*
- *Gaian aditu den enpresak eginiko atmosferara isuritako partikulen neurketa aurkeztuko da, edo bestela Muxikako Udalaren bidez Ingurumen Sailburuordetzako teknikariari eskatuko zaie neurketa egiteko.”*

Azkenik, zarata mailen baieztapenari dagokionez jakinarazi zen, 2001eko ekainaren 7an Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariarekin batera neurketa egin zela, eta lortutako mailak ez zituela Ingurumen sailburuordetzak ezarritako gehieneko mugak gainditzen. Baieztapen hori lortutako emaitzak, neurketa egiteko modua, neurtutako soinu iturriak zeintzuk izan ziren, kontuan hartutako isurketa guneak, ... aipatu gabe egin zen. Informazio gabezia horrek ezinezko bilakatzen du ondorenean inolako baieztapenik egitea lortutako emaitza horien gainean. Gainera, beharrezkoa da adieraztea eginiko ikuskapen bisita ez zela behar bezalako zorrotasunez egin. Izan ere, neurketa egiten emaniko denbora aztertuz gero, soinu neurketa 12,30 eta 13,00ak artean egin zen, eta hori ez da nahikoa enpresaren instalazioen neurriak kontuan hartuz gero.



Udaleko txosten teknikoaren edukia irretza emanaz, ondoriozta dezakegu argi dagoela ikuskapen aktak ez dituela IGOKaren 34. artikuluan jasotako ezarpenak betetzen. Izan ere, instalazioak jarduera lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen dituen behar bezala ez frogatzeaz gain, horien eraginkortasunaren baieztapena ere alde batera uzten da. Arauak ezarritako moduan aurretik egin beharreko ikuskapena ez da bakarrik gauzatu behar zer jarduera mota denaren arabera, baizik eta baita ere eragin daitekeen kaltearen arabera. Gainera, ezinezkoa da beste interpretaziorik egitea arauak ondorenean egiteko ezartzen duen ikuskapen jarduera (35. artikulua eta hurrengoak) aurretik ezarritako zuzenketa bideen eraginkortasuna kontuan hartuta gauzatzen bada (38. artikulua).

Dena dela, baieztatu daiteke egiaztapen-akta horrek ez zuela irekiera lizentzia ematea ekarri, aztertu dugun udaleko espedientearen antzeman dugulako baimen hori ez dela inoiz eman izan.

Izapideturiko udaleko prozeduran antzemandako irregulartasunak ikusita, eta kontuan hartuta jarduera edo instalazio lizentzia izateak ez duela inoiz justifikatzen sailkatutako jarduerak ireki eta martxan jartzea aurretik ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla ez bada baieztatzen, martxan jartzeko baimenak ekarri behar duen baieztapena alde batera utzita, adierazi dezakegu INAMA, S.A. enpresak une honetan 1994an zuten klandestinitate egoera berean funtzionatzen jarraitzen duela. Kasu honetan gainera larrigarri bat aurki daiteke, enpresak garapen garrantzitsua izan duelako instalazioetan, eta horiek ez dute indarrean dagoen legeak ezarritako esku-hartzea izan udaleko agintaritzaren partetik.

Baieztapen horri erantsi diezaikegu, Auzitegi Gorenaren doktrina dela adieraztea, denbora igarotzeak, zergak ordaintzeak, edo udalaren tolerantziak ez duela lizentzia isilean ematearen ekintza justifikatzen. Modu berean, lizentziarik gabe egiten den jarduera klandestinatuta jotzen da, denboraren igarotzeak legitimatzen ez duen iraupen mugagabeko egoera irregularra, alegia.

Ez dago zalantzarik baieztatzean lizentziak araututakoak direla, eta ez dutela eskubiderik onartzen horiek titularraren ondasunean aurkitzen direlako. Hala eta guztiz ere, modu berean da egia lizentziek administrazioaren esku-hartzea suposatzen dutela, eta haren baimena beharrezkoa dela eskubidea erabiltzeko. Aipaturiko jarduera gauzatzeko, horixe burutzeko tokiak, gauzatzearen baldintzak eta ereduak, ordenamendu juridikoak arautzen ditu, eta bertan jasotako ezarpenetara makurtu beharrekoak dira. Dagokion instalazioaren gaineko baieztapen jarduera hori zuzenbidera moldatzen dela baieztatu behar izango duena administrazioa izango da.

Bestalde, lehen zehaztu bezala, udaleko jardunbideari une oro falta izan zaio koherentzia ikuskapenak egiteko garaian. Izan ere, legalizazio espedientearen izapidetzearekin hasi bazen ere, udaleko agintaritzaren partetik ez da sekulan inolako borondaterik antzeman prebentzioaren printzipioaren alde egiteko, jarduera lizentzien teknikak horixe zehaztu arren.

Horri dagokionez, nahikoa da gogoraraztea zegokien obra lizentziak eman izan direla eskaera horiek egun indarrean dagoen araudiak ezarritako ingurumen baimenaren prozeduratik pasatzea beharrezkotzat jo izan gabe. Esate baterako, 2. fasean zerrautsa, txirlora, ezpalak metatzeko eta suteen aurkako ura gordetzeko biltegi berriaren instalaziorako, eta balio erantsiko instalazioa jartzeko pabilioia kokatzeko (1997ko abenduaren 18ko alkatetza Dekretua); 5. Lineako pabilioi handituaren proiektua zabaltzeko eta Hm eta Pallmans mailuen errota jartzeko instalaziorako (2001eko abenduaren 26ko Alkatetza Dekretua). Eta 2005eko urtarrilaren 12an aurkeztu zuten enpresak azken instalazio hori gauzatzeko jarduera lizentziarako eskaera.

2. Bigarrenik azpimarratu behar dugu atmosferarentzat bereziki kutsagarri bezala katalogaturik dagoen jarduera baten aurrean gaudela, otsailaren 6ko 833/2975 Dekretuaren II. Eranskinean ezarritakoaren arabera. Dekretu horren bidez, ingurune atmosferikoaren babeserako abenduaren 22ko 38/1972 Legea garatzen da.

Zentzu horretan, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak helarazitako informazioaren arabera, zehaztu dezakegu jarduera hori 3.9.2 atalean jasotzen dela, hau da, taula aglomeratuen eta zuntzekoen fabrikazioaren atalean, eta beraz, aipaturiko II. Eranskineko C Taldean katalogatzen da. Gainera, zenbait instalazio osagarri B Taldean sailkatu daitezke.

Araudia horrek instalazioa behartzen du derrigorrezkoa den baimen administratiboa izapidetzera, industria jarduerak eragindako atmosfera kutsadurari aurre hartu eta irtenbideak bilatzeko 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. Kapituluak ezarri bezala.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arlokoak finkatu zituen Dekretua aldatzen duen irailaren 17ko 19/2001 Dekretuak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ezartzen dizkio ondorenean adieraziko ditugun esparruetako funtzioak:

- a) Lurralde eta itsasertzeko ordenamendua.
- b) Ingurumena.
- c) Urak.
- d) Ubide eta soro ureztatuak.
- e) Baliabide naturalen ordenamendua eta baso zerbitzua, eta naturaren mantentze lanez arduratzea.
- f) Legeen eta araudien arabera, erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta Sailari atxikitako edo haren menpe dauden sozietateak zuzentzea.
- g) Legeak eta araudiek ezartzen dizkien gainerako eskumenak.

Horretarako, azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren antolaketa organikoa ezartzen du, eta 13. artikuluan jasotzen Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendariak eskumenak dituela atmosferara eginiko isurketen eta zaraten sorburuen kontrola egiteko.

Hori dela-eta, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari zuzendu gintzaizkion, besteak beste, kontu hauen inguruko informazioa eskatzeko:

1. Aipaturiko instalazioa atmosfera kutsatu dezakeen jarduera izaki, ingurune atmosferikoaren babeserako abenduaren 22ko 38/1972 legea garatzen duen otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak egiten duen sailkapenaren arabera, derrigorrezkoa zen baimena zuen atmosferarako isurketak egingo zituzten guneak martxan jartzeko. Modu berean jarduera sailkatzen den taldearen berri izan nahi genuen, otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta.
2. Imana S.A. enpresak horrelako industriei araubidez eskatzen zaizkien aldizkako neurketak egiten zituen ala ez, eta atmosfera kutsatzen duten isurketen gaineko baieztapenak egiteko beharrezkoak diren azpiegiturak bazituen.
3. Instalazioak ezarritako baldintza edo neurri zuzentzaileak betetzen zituen ala ez. Halaber, atmosferarako isurketen maila ezartzeko xedearekin egin ahal izan ziren bisita guztietatik eratorritako txostenen kopia jaso nahi izan genuen.

Adierazitako galderei erantzunez, Sail horrek jakinarazi zigun 2003ko maiatzaren 19an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzako Aire eta Zarata Zerbitzuaren buruak, 2002ko uztailaren 1etik aurrera gai horien espedienteak izapidetzeko ardura zuen heinean, enpresari jakinarazi ziola industria jarduerak eragindako atmosfera kutsadurari aurre hartu eta irtenbideak bilatzeko 1976ko irailaren 18ko Aginduaren III. Kapituluaren ezarritako izapidea eskatu behar zuela. Horretarako, hiru hilabeteko epea ezarri zitzaion Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzaren aurrean proiektu zehatza aurkezteko.

Helarazitako txostenean honakoa erantsi zen: *“ondorenean, eta INAMA, S.A. enpresari emaniko epea igarota ingurumen organoak eskaturiko proiektuaren aurkezpena jaso izan gabe, 2003ko urriaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzako Aire eta Zarata Zerbitzuaren Buruak bere garaian enpresari eginiko errekerimendua berretsi zuen, atmosferaren kutsaduraren gaian indarrean dagoen araudiak legezatzeko eskatzen duen dokumentazioa aurkezteko eskatuz. Modu berean, INAMA, S.A. enpresari gogorarazi zitzaion ingurune atmosferikoaren babeserako abenduaren 22ko 38/1972 Legearen 3. artikulua arabera, atmosfera kutsatzen duten sorburuen titularrak, horien izaera dena delakoa ere, derrigortuta daudela Gobernuak aurretik eta izaera orokorrez ezarritako isurketa maila errespetatzera.*

*2003ko abenduaren 2an bilera bat egin zen Muxikako Udaletxean, eta bertan Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoko teknikariek hartu zuten parte udaleko agintaritzaren eta INAMA, S.A. enpresaren ordezkariekin batera. Bilera horretan hainbat akordio lortu ziren enpresak, epe zehatz batzuk betez, dokumentuak aurkez zitzaion atmosferaren kutsaduraren gainean indarrean dagoen araudiak ezarritakora egokitzeko.*

*Hala eta guztiz ere, eta kontuan hartuta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan ez zela eskatutako dokumentazioa jaso, 2004ko martxoaren 9an aipaturiko organoak berriro ere eskatu zion INAMA, S.A. enpresari hilabeteko epean proiektu zehatza aurkezteko ingurune atmosferikoaren babeserako abenduaren 22ko 38/1972 Legea garatzen duen otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuan, eta industria jarduerak eragindako atmosfera kutsadurari aurre hartu eta irtenbideak bilatzeko 1976ko urriaren 18ko Aginduan adierazitako moduan. Muxikako Udalari adierazitako idazkiaren kopia bat bidaltzeko eskatu zitzaion.*

*2004ko ekainaren 8an Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari atxikitako zerbitzu teknikoek ikuskaritza bisita egin zieten Muxikako udalerrian kokatzen den INAMA, S.A. enpresaren instalazioei. Bertan, atmosferara isurketak egin zitzaizketen 22 gune antzeman zituzten, eta argazki erreportajea egin. Ikuskaritza bisita horretan eginiko Aktaren kopia erantsi dut.*

*INAMA, S.A. enpresak 2004ko ekainaren 16an jakinarazi zion Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari goian adierazitako ikuskaritza bisitan antzemandako guneak legalizatzeko beharrezkoa zen dokumentazioa prestatzen ari zela.”*

Egun, eta sail horrek helarazitako informazioaren arabera, azpimarra dezakegu INAMA, S.A. enpresak ez duela oraindik aurkeztu antzemandako atmosferarako isurketen 22 guneak legalizatzeko beharrezkoa den dokumentazioa.

Harrigarria iruditzen zaio erakunde honi enpresaren jarrera hain kontrakoa izanda instalazioan antzemandako isurketa guneen funtzionamendurako baimena lortzeko dokumentazioa aurkezteari dagokionez, derrigorrezkoa den zehapen espediente bideratu ez izana. Araudiak eskumenak onartzen dizkie Herri Administrazioei zigorrek ezartzeko eta Auzitegiek adierazi izan dutenaren arabera, eskuduntza horiek ez dira apetzakoak, Herri administrazioen eskumen esparruan eman daitezkeen jardunbide edo arau-hausteak galarazi behar izatetik baitatortzen. Arau-hauste administratibo baten aurrean, administrazioak ez du espediente administratiboa bideratu edo ez bideratu erabakitzeko eskumenik; zentzu horretan jarduteko derrigorra du, eta horrela izango ez balitz, ordena publikoko betebeharren utzikeriaren aurrean egongo ginatke.

Esparru honetako betebeharra urratzen ari den sektore araudiak indartzen du. Araudia horrek inguruan bizi diren hiritarren osasuna babestu nahi du, eta horrekin batera ingurumena defendatu jarduerak atmosferara egin ditzakeen isurketetatik. Horregatik, administrazio horrek ilegaltasun egoera denboran luzatzea ekiditeko beharrezkoak diren neurriak ez baditu hartzen, babestu behar dituen ondasun juridikoak arrisku egoeran egotea onartzen ariko da.

4. Azkenik, zalantzan jarritako jardueraren funtzionamendua ilegala dela baieztatzean, eta hori gure ustez gai honen esparruan administrazio guztiek babestu beharreko prebentzio printzipioaren hauste nabarmena da, udaleko administrazioak Muxikako auzotarrek azken 15 urteetan aurkezturiko kexengatik gauzaturiko jarduerak zehaztu nahi ditugu. Kexa horiek INAMA, S.A. enpresak sorturiko gehiegizko giroko zaratagatik eta atmosferara isuritako substantzia kutsagarriengatik aurkeztu izan dituzte.

Lehenik eta behin, aurkeztu izan diren zarata eragozpenengatik erreklamazioei dagokienez, baieztatu dezakegu 2004ean izan zela Muxikako Udalak INAMA enpresak eragindako zaratak inguruko etxebizitzetan zuten inpaktu akustikoa aztertzeko enpresa espezializatu bati eskatu zion lehenengo aldia. Ekintza hori gainera, jarduerak kalteturiko pertsonen eragindako presioagatik gauzatu zen, enpresak instalazioaren giroko zarata maila aztertzeko ikerketa zehatza aurkeztu ondoren. Ikerketa horretan orde, ez ziren kalteturiko etxebizitzetako inmisio mailak kontuan hartu.

Horrela, hamar urte igaro ondoren zegozkien erreklamazioak aurkeztuz, etxebizitzetan barruan ematen ziren soinu mailen baieztapena egin zen, eta horren ondorioz antzeman ahal izan zen neurketa egin zen bederatzi etxetatik zazpitan Eusko Jaurlaritzako ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak gauko tarterako onarturiko muga gainditu egiten zela (30 dBA).

Lorturiko emaitzen ondotik, Muxikako Udalak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari aipaturiko txostenean jasotako gomendioak eta enpresak aurkezturiko inpaktu akustikoko proiektu edo azterketa kontuan hartuko zituen txostena egiteko eskatu zion.

Aipaturiko Sail horrek jakinarazi zigun, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak Muxikako Udalari jakinarazi ziola, zerbitzu teknikoek eginiko azterketen emaitzak aztertu ondoren, lortutako ondorioak, neurri handi batean, bat zehazki izan zuten. Zentzu horretan adierazi zuten, egokitzat jotzen zituztela jarduerak eragindako zarata maila zuzentzeko adierazitako neurri zuzentzaileak. Horregatik Udalari eskatu zioten enpresari eskatzeko hilabeteko epean adierazitako txostenetan proposaturiko neurriak hartzeko, eta zehazki, zenbait gune gutxitzeko neurriak hartzeko.

Orain dela gutxi, Muxikako Udalak enpresak aurkezturiko txosten tekniko bat helarazi digu: *“Muxikan (Bizkaia) kokaturiko FINSA Taldeko INAMA enpresaren instalazioen inguruan eragindako giroko zarata mailen eguneratzea. 2005 urtea”* dokumentua, hain zuzen ere.

Azterketa horretatik ateratako ondorioetatik badirudi eginiko ebaluaketaren bidez instalazio horren inpaktu akustikoaren eguneratzea gauzatu nahi dela, instalazioetako zarata gune batzuen inguruan eginiko hobekuntza jarduerari arreta emanaz. Adierazi beharrea gure asmoa ez dela lortutako emaitzak baloratu edo zalantzan jartzea. Gustatuko litzazuke azpimarratzea ordea, aipaturiko txosten teknikoa parte txostentzat hartu behar dela, enpresaren eskaeraren ondotik egin zelako, eta bere garaian plantak eragindako soinu mailari zegokion ebaluaketa eta beharrezkoak ziren neurri zuzentzaileak adierazi zituen enpresa berak gauzatu zituelako. Azterketa horrek udaleko administrazioa lotzen ez badu ere, hau da, txosten horrek ezin du udalaren baieztapen lana ordezkatu, udalak bai eskatu behar izan zuela ebaluaketa berri bat. Are gehiago jarduerak eragindako zarata berean mantentzeagatik egoera salatzeari utzi ez dioten auzotarren ekitea bertan eta aldaketarik izan gabe mantentzen bada. Dakigunaren arabera ordea, udaleko agintaritzak ez zuen ezer egin, eta jardunbide pasiboa mantendu du aurkeztu izan zaizkion erreklamazioen aurrean.

Erakunde honek hainbatetan azpimarratu izan du, indarrean dagoen araudiaren arabera, mota horretako jardueren jarraipena, ikuskaritza eta kontrola udalek bere gain hartu beharreko beste derrigorrezko zerbitzu bat dela, eta berebiziko garrantzia duela eragozpenak eragiten zaizkien hiritarrentzat. Izan ere, kalteak pertsonen bizi kalitatean du eragin argia.

Horregatik, Arartekoak uste du horrelako instalazioen funtzionamenduaren azterketa egiteak kualifikaturiko langileak eta baliabide material egokiak izatea eskatzen duela. Materiala egoera onean mantendu beharrekoa da, eta langileak libre egon behar dira kontrol bisitak egiteko.

Badakigu udal erakunde guztientzat ez dela beti posible izaten beharrezkoak diren baliabideak izatea industria jarduera baten funtzionamenduaren baieztapen eta ikuskapen lan guztiak egiteko. Dena dela, Muxikako Udalak ezin uka dezake nahikoa baliabide ekonomiko dituela enpresa espezializatu bati zerbitzu hori egiteko eskatzeko. Garrantzia maila horretako instalazio bat herri batean kokatzeak onura ekonomiko garrantzitsuak dakartza, eta diru hori enpresak garatzen duen jarduerak kaltetu ditzakeen auzotarren interesen babes bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak emateko ere erabili beharko litzateke. Babes hori instalazioetatik gertu bizi diren auzotar bakoitzean zehazten da.

Bigarrenik, atmosfera kutsatzen duten isurpenengatik jarritako salaketei dagokienez, baieztatu ahal izan dugu 2004ko irailaren 3an jazotako gertakari kutsatzailearen aurrean Muxikako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari eskatu ziola INAMA, S.A. enpresaren inguruko airearen kalitatearen ebaluazioa egiteko. Gertakari horrek plantaren inguruan bizi diren hainbat auzotarren arnasbidean kalteak eragin zituen. Arrazoi hori dela-eta, unitate mugikorrek bertaratu ziren laginketa egiteko.

Datuak jasotzeko kanpaina 2004ko azaroaren 10a eta 2005eko ekainaren 8a bitarte egin zen.

2005eko ekainaren 21ean eginiko Aire Kontroleko Teknikariaren txostenean jasotako emaitzetatik, honakoa ondorioztatu zen: *“Lortutako datuetatik abiatuz, (lortutako datuak 365 egunetara estrapolatuz, egungo mugak aplikatu ahal izateko) s/E.D. 1073/2002-ko limite legalak gainditzen dira bakarrik 10 ugr-ko ebaketa partikulen kutsatzailerako (behin balio osoak zuzendu ondoren 1,2-ko zuzenketa faktorearen bidez, eta Saharako sarrerak kenduta). Zehazki, 1. eta 3. kokapenean antzeman dira gainditzeak. Horrela, lehenengo kokapenean (Astelarra auzoa) egun kopurua gainditzen denean eguneko legez onarturiko muga gaindituz, hirugarren kokapenean (San Roman auzoa) urterako ezarritako muga gainditzen da.”*

Jarduerak eragindako isurketek araudiak ezarritako muga legalak gainditzen dituztela baieztatuta ere, kasu honetan eskumenak dituen administrazioak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak alegia, ez du egokitzat jo balizko arau-hauste batengatik zehapen espediente bat bideratzea. Balizko arau-haustea Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 110.1 artikularekin lotura duen 109 b) artikulua zehazten du.

Horri dagokionez, gogorazi nahi dugu Justizia Epaitegiek azpimarratu ohi dutela: *“eskumenak dituzten agintaritzek, industria edo lokal batek eragindako zarata, usai, dardara, eta abarrekin indarreko araudia betetzen ez dutela antzeman bezain laster, horixe galarazteko betebeharrak dute egokiak diren neurriak hartuz. Horrelakorik egingo ez balu, arau-haustearen erantzukizun bera izango luke.* (Bestak beste, Valentziako Komunitatearen Justizia Auzitegi Gorenaren 1426/1998 Epaia, azaroaren 18koa).

Puntu honetara iritsita, beharrezkotzat jotzen dugu nahikoa frogaturik geratu diren gertakariak laburki gogoraraztea ondoren zehaztuko dugun moduan:

1. Enpresak ez du taula aglomeratuak eta kogenerazio planta ireki eta martxan jartzeko udaleko lizentziarik.
2. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak hainbat errekerimendu egin arren, enpresak ez du proiekturik izapidetu atmosfera kutsatu dezakeen jarduerak gisa. Hori dela-eta, ezin izan dira atmosferara isuritako 22 guneen martxan jartzea ikuskatu.
3. Udaleko agintaritzak INAMA, S.A. enpresak inguruko etxebizitzetan duen inpaktu akustikoaren gainean eginiko baieztapen bakarretik ondoriozta daiteke, araudiak ezartzen dituen parametroak gainditu egiten direla. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak airearen kalitatearen gaineko ebaluazioan atmosferan antzemandako PM 10-eko mailak aplikatu daitezkeen araudiak ezarritako gehieneko muga gainditzen duela baieztatzen da.
4. Udaleko espedientearen izapidetzean bi gertakari antzeman ahal izan dira. Batetik, enpresa jardueraren indarrean dagoen araudira egokitzearekiko iheskor dabilela. Bestetik, eskumenak dituzten administrazioek jarrera pasiboa eta permisiboa agertu dutela kalteturikoek aurkezturiko salaketan eta industria jardueraren funtzionamendutik baieztaturiko klandestinitate egoeraren aurrean.

Administrazioaren jarduerak eza frogaturik geratu da, eta horregatik adierazi behar dugu EKren 45. artikulua ingurumena berreskuratzeko gain, administrazio publikoek babes lana ere ezartzen diela ingurumenarekiko. Hau da, mantentze lanak eta babestekoak gauzatu behar ditu. Horrek mota honetako instalazioetan esku-hartzeko beharrezkoak diren baliabideak izatea suposatzen du, behar izan daitezkeen prebentzio, prestazio eta zerbitzu lanen bidez. Horretarako, ezinbestekoa da EKren 53.3 artikulua jasotako ezarpena betetzea. Ezarpen horren arabera, botere publikoek gizarte eta ekonomia politikaren oinarriko printzipioak babesteko betebeharrak juridikoki dute, eta kasu honetan osasunaren babeserako eskubidearekin eta jardueraren kokapenetik gertu bizi diren pertsonen ingurumen egokiaz gozatzeko duten eskubidearekin bat dator.

Horrela, eskumenak dituzten administrazioek, ingurumenarentzat kaltegarriak diren jarduerak antzematean, ezin gera daitezke pertsona edo ondasunen gaineko kalteetan bihurtu zain. Beharrezkoa da administrazioaren esku-hartzea gauzatzea arrisku egoerarekin amaitzeko, eta horretarako neurri zuzentzaile egokiak hartu beharko dira edo zuzenean erantzukizuna duten horiei adierazitako neurriak gauzatzeko eskatu. Ez dugu ahaztu behar ingurumenaren babesaren xedea ez dela amaitzen eragindako kalteen konponketarekin, elementu eratzaileen mantentze lanak ere eman behar direlako.

Gainera, azpimarratu nahi dugu Auzitegi Konstituzionalak gai honen inguruan eman duen doktrinari berrienak ezartzen duela, administrazioak esku artean dugun jarduerak bezalako kasuetan eragindako ingurumen kalteen aurrean tolerantzia eta adostasuna agertzen badu, nahiz eta pertsonen osasunerako arriskurik ez ekarri, osotasun fisiko eta moralerako oinarriko eskubideen (KE 15. art.), pertsonen eta familien intimitatearen (KE 18.1 art.) eta etxebizitzaren mugiezintasuna (KE 18.2) urratzea dakarrela ondorio gisa.

Horren aurrean, Auzitegi Konstituzionalak esku-hartze administrazioaren jarduna exijitzen du ingurumen lizentziaren teknikaren bidez. Jarduera horrek ingurumen politika guztiak izan behar duen prebentzio

printzipioaren oinarrian egon behar du. Ondorenean, jardueraren bizitza osoan zehar, beharrezkoak diren kontrol neurriak hartu beharko dira une oro bermatu ahal izateko aipaturiko eskubideak ez direla urratzen.

Une honetara arte adierazitakoa kontuan hartuta, Arartekoak uste du ezin dela gehiagoz onartzen eta jasaten jarraitu jarduera horien inguruan bizi diren familiek beren etxebizitzak utzi behar izatea, edo justifikatu ezin diren bestelako neurriak hartu behar izatea gutxieneko bizi kalitatea lortu ahal izateko. Kontuan hartu behar da gainera, indarrean dagoen araudiaren arabera Muxikako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari dagokiela egoera hori galarazteko erantzukizun zuzena bere gain hartzea. Esku artean dugun kasuan aplikatu daitezkeen araudiak ez ditu bakarrik partikularrak makurtzen ezarpenak betetzera, administrazio bera ere lotzen du. Legaltasun printzipioaren arabera, botere publikoaren jarduera guztiak ezagutzera eman behar dira.

Dena dela, adierazi nahi dugu erakunde honek badakiela INAMA, S.A. enpresako titularrek instalazioa zabaltzeko dokumentazioa aurkeztu duela eta Muxikako Udalak 2006ko apirilaren 11n eginiko osoko bilkuran Muxikako Arau Subsidiarioen Aldarazpen Zehatza "SAU ASTELERRA" industrialia urbanizatzekeo lur urbanizagarria bilakatzeko. Industria de Madera Aglomerada, S.A.-INAMAREN sustapena eta Astelarra Auzoko fabrika zabaltzeko hiri lur industrialak lortzeko nahia". Hala eta guztiz ere, ezin da zalantzan jarri enpresak urte guzti hauetan indarrean zegoen araudira egokitzearen aurrean izandako kontrako jarrera baieztatuta, egun derrigorrezkoa dela eskumenak dituzten administrazioek zalantzan jartzen ari den jardueran esku-hartzea. Horretarako, berehalako eraginkortasunez hartu beharko lirateke indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera beharrezkoak suerta daitezkeen neurriak, garatzen den jarduerak kaltetzen dituen pertsonen duten osasuna eta ingurumen egokia izateko eskubidearen arabera.

\* \* \*

Horregatik guztiagatik, gomendio hauek egin genizkien kasu honetan eskumenak dituzten administrazioei, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **13/2006 GOMENDIOA, ekainaren 20koa, Muxikako Udalari egina**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko martxoaren 27ko 3/1998 Legearen 65. artikulua ezarritako erregimen legala aplikatu dezala. Lege horrek honakoa ezartzen du lizentziarik gabe garatzen diren jardueretarako:

*'Dagozkien zigorrak kalterik gabe, alkateak jarduera batek beharrezko lizentziarik gabe funtzionatzen duela jakiten duenean, honako jarduketak hauek burutuko ditu:*

*a) Jarduera legeztatzekeo modukoa baldin bada, bere titularra errekerituko du egoera arauen barruan jar dezan. Horretarako epea emango zaio, eta epea, behar bezala justifikatuko ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, sei hilabetekoa baino luzeagoa ez da izango. Gainera, jarduera itxi egin ahal izango da egoerak hori egokia dela erakusten badu interesdunari entzun ondoren.*

*b) Indarrean dauden sektoreko arauak edo dagozkion udal-ordenantzak betetzen ez direlako jardura legeztatzerik ez balego, itxi egin behar da, interesatuari entzun ondoren.'*

2. Beharrezkoak diren ikuskapen teknikoak berehala egin ditzala, instalazioaren funtzionamenduak inguruan bizi diren auzotarren oinarrizko eskubideen urraketa suposa dezaketen ondorio negatiboak dakartzan baieztatzekeo. Lortzen diren emaitzak kontuan hartuta, arrisku egoera hori luzatzen jarraitzea ekiditeko beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartzeko aukera hausnar dezala, jardura behar bezala garatzen dela bermatzen duen legalizazio espedientearen behin betiko ebatzi bitartean.

**14/2006 GOMENDIOA, ekainaren 20koa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari egina**

1. INAMA, S.A. enpresaren instalazioan antzeman diren 22 isurpen guneak araupetzeko derrigorrezkoak diren neurriak har ditzala.
2. Enpresak atmosferara egiten dituen isurpenen gainean kontrol jarduerak egin ditzala, ingurumen atmosferikoaren babeserako 38/1972 Legea garatzen duen otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak jasotzen dituen ezarpenekin bat etorriz.

## 8. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

**2/2006 Gomendia, otsailaren 10ekoa, Orioko Udalari egina, kalteengatiko ordaina jasotzeko eskabide bat bidera dezan, lege ezarritako prozeduraren arabera eta berme guztiak betez. Onartu da.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek erakunde honetara jo zuen, gai hau azter genezan: bere ibilgailuari eragindako kalteengatik, ordainketa-eskabide bat egin zion udalari, izan ere, bere iritziz, udalaren jarduerari leporatu behar zitzaizkion kalteak, baina ez zegoen konforme eskabidea tratatzeko moduarekin.

Bere testigantzen arabera, 2001eko uztailaren 31n, zegokion tasa ordaindu ondoren, Orioko Udalak aparkaleku gisa gaitu duen gune batera sartu zen bere ibilgailuarekin, eta han, autoa partzelak banatzen zituen goma batera eta, azken batean, berearen aurrean aparkatuta zegoen autora erabat arrimatzerara behartu zuen udaltzain batek.

Autoaren bila joan zenean, goma hark kapotaren pintura hondatu zuela ikusi zuen, eta, horregatik, udaltzain bat eta arduradun bat jakinaren gainean jarri zituen. Arduradunak datuak hartu zizkion, parte bat egiteko, eta egintza hura udalari jakinarazi behar ziola adierazi zion. Beraz, udalari erreklamazioa egin zion, bere aseguru-konpainiarekin bitartez eta elkarrizketa pertsonal nahiz telefonozkoen bitartez.

Hilabete batzuk geroago, inolako izapiderik burutu ez zen arren, udalaren ordezkari batek ahoz esan zion udalak ez zuela bere gain hartuko kalteen erantzukizuna, eta ez ziela egintzak ikusi zituzten udaltzainei testigantzarik eskatuko, udarako kontratatatu ziren langileak zirelako.

2. Udalari bidali genion lehen idazkian, honako hauek adierazteko eskatu genion: kexan azaldutako gaiari buruzko zertzelada garrantzitsuak, ondare erantzukizuna zehazteko espediente bat bideratzeko aukerarik ba ote zegoen, eta ea erreklamazio hori onar zitekeen.

Erantzunik jaso ez genuenez gero, hiru errekerimendu bidali behar izan genizkion, baita telefonoz zenbait gestio egin ere, alferrikakoak guztiak. Hori dela-eta, orduko alkate andreari udalaren geldotasunak gure lana betetzeko sortzen zizkigun eragozpenak eta legeriak halako kasuetarako ezartzen dituen ondorioak jakinaraztea erabaki genuen.

Azkenean, eskaera egin eta ia urtebete geroago, udalaren komunikazio bat hartu genuen. Han adierazi zigunez, udalaren zerbitzu teknikoek eta Udaltzaingoak egindako txostenak aintzat hartu ostean, erreklamazioa ez onartzea erabaki zuen, bere ustez, kalteak kaltetuaren beraren erruz soilik gertatu behar izan zutelako, eta, edonola, administrazio horren erantzukizunarekin zerikusirik ez zuten arrazoi batzuegatik, bada, bere esanean, aparkalekua mugatzeko gomek ibilgailuei ezin ziezaieketen, berez, inolako kalterik sortu.

3. Agiri hori aztertu ostean, gure iritzia helarazi genion Orioko Udalari, alegia, gure ustez, ez zirela bete administrazioaren balizko ondare-erantzukizuna gaitzat duten prozedurak bideratzean bete behar diren legezko aginduak. Orobat, honako hauek bidaltzeko eskatu genion: espedientean agertzen ziren agiri guztien kopia bat (besteak beste, erantzunean aipatu zituen txostenena), gure gogoeten balorazioa eta egitekoak ziren jardueren aurreikuspena.

Ostera hiru errekerimendu, ohartarazpen bat eta beste hainbat izapide behar izan ziren, azkenean, joan den abenduan, udalak idazki bat helaraz ziezagun. Bertan, lehenago bidalitako erantzunean adierazitakoa



berretsi baino ez zuen egin, berriro adierazi zuen kaltea, argi eta garbi, kaltetuaren beraren erruz bakarrik sortu zela, eta, arrazoi horrexegatik, ez zuela beharrezkotzat jo ondare-erantzukizuneko espedienterik hastea eta, dirudienez, ezin zigula informazio osagarriarik igorri.

### Gogoetak

1. Ezer baino lehen, azpimarratu behar dugu kexa honen biderapena dezente atzeratu dela, Orioko Udalak gure eskaerei ezin ulertuzko atzerapen izugarriaz erantzun dielako. Izan ere, behin eta berriz eskatu behar izan diogu erantzuna, baita bi ohartarazpen egin ere, laguntzarik eza zela-eta.

Jokaera hori otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 23. artikuluan ezarritakoaren kontrakoa da, artikulua horrek zera agintzen baitu: euskal administrazio publikoetako organoek lehentasunez eta berehala bidali behar dituztela Arartekoak eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide guztiak.

Gainera, Eusko Legebiltzarrari 2004. urteaz egin genion txostenean adierazi genuenez, atzerapen horiek agerian jartzen dute “*axolarik eza, erakunde honek kontrolaren arloan duen eginkizuna eta, ondorioz, erreklamazioak jartzen dituzten herritarren eskubideak gutxiesten dituen jarrera, alegia*”. Portaera hori ezin da bateratu, gure ustez, ikuskera honekin –legezko ikuskerarekin–: administrazioa herritarren zerbitzurako erakundea dela eta pertsona kaltetuen banakako eskubideak bermatuko dituen prozedura baten barruan jarduten duela.

2. Erakunde honek sarritan adierazi izan du administrazioak nahitaez erantzun behar diela interesdunek azaltzen dizkieten gaiak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– ezarritakoaren arabera.

Izan ere, lege horren helburuetako bat zera da: herritarrek azaldu dituzten gai guztien erantzun arrazoitua jaso dezaten, epe barruan gainera. Horregatik, 42.1 artikuluko prozedura guztietan berariazko ebazpena eman eta jakinarazteko betebeharra ezartzen dio administrazioari.

Gainera, legezko testu horrexek arautzen du administrazioaren isiltasunaren erregimena. Administrazioaren isiltasuna ez du taxutzen arau juridiko arrunt gisa, baizik eta bermatzeko figura gisa, legeak berak diseinatu duen administrazioaren jokaera zuzenarekin zerikusirik ez duten jardueren ondorioz, norbanakoen eskubideak edukirik gabe gera ez daitezten. Jarduera zuzen hori prozeduran sortu diren gai guztiak berariaz eta idatziz ebaztea da, baliabideak eta horien ezaugarriak adieraziz.

Isiltasuna erabiltzeak berekin dakarren komunikazio ezak eragotzi egiten du administrazio-organismoak egin duen balorazioa ezagutzea eta, beraz, oinarritzat baliatu dituen arrazoiak ezagutzea; horren ondorioz, interesdunek traba nabarmenak izaten dituzte beren asmoak modu eraginkorrean aldezteko. Horregatik, interesdunek dituzten eskubideak bermatzearen, ezin da onartu isiltasuna jokaera moduan erabiltzea, hori zuritu nahian hainbat arrazoi alegatzen badira ere.

3. Legeriak berariazko jarraibideak ezartzen ditu administrazioaren ondare erantzukizunari dagozkion eskabideak bideratzeko.

Esate baterako, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 142. artikulua eta, bereziki, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretua, prozedura orokor bat diseinatzen baitu. Prozedura hori erabiliz, elkarren segidan alegazio, ikerketa, frogak, entzunaldi eta baloraziozko jarduerak burutuz zehazten da ea erantzukizunik badagoen –eta, orduan, kaltea nola ordaindu behar den– edo, aitzitik, erantzukizunak administrazioaren jarduerarekin zerikusirik ez duen.

Erreklamazioaren eduki materiala gorabehera, arau horiek betetzea saihestezina da herri-administrazio guztientzat, eskabideak bideratu eta baloratu behar baitituzte, eta interesdunei erantzun egokia eman, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 139. artikuluan zehaztutako figura definitzen duten irizpideen arabera.

Horrela, prozedura hasteko eskabidea jaso ondoren, administrazio-organismo eskudunak ezin dio esku hartzeari eta eskabidea aipaturiko araudiaren argitan aztertzeari uko egin, erantzukizuna administrazioari leporatzeko

beharrezkoak diren premisak ez direla agertzen aitzakiatzat jarritz, izan ere, ondorio hori, bidezkoa bada, espediente bideratu eta amaitu ostean aterako da, ez tramitazioko edozein fase igaro baino lehen.

Nabarmena denez, are onartezinagoa da erabaki hori interesdunari ere ez jakinaraztea, erabili diren argudioen berri ematen duen idazki baten bidez, erabakiaren kontra jo ahal izan dezan.

Horregatik, onartezinak iruditzen zaizkigu Orioko Udalaren adierazpenak, bada, gure azterketa ezagutzen duen arren, hauxe esaten jarraitzen du: *“el Ayuntamiento en ningún momento ha considerado necesaria la incoación de expediente de responsabilidad patrimonial.”*

4. Horrelako prozeduren funtsezko ezaugarrietako bat kontra egin ahal izatea da. Horregatik, kexagileak, eskabidea egiteaz gain, tramitazioan esku hartzeko aukera du, azken erabakia hartzeko erabakigarriak diren alderdiak eta agiriak ezagutuz, bere eskubidea gauzatzeko komeni zaizkion probak proposatzeko eta bidezko alegazioak egiteko.

lido horretan, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak agintzen duenez, zerbitzu baten jarduerak, ustez, ordain daitekeen kalte bat sortu badu, zerbitzu horren txosten bat eskuratu behar da. Halaber, interesdunari espedientearen berri eman diezaiotela xedatzen du, dauden agirien zerrenda baten bidez, agirion kopia bat lortu ahal izan dezan eta alegazioak eta agiri osagarriak aurkeztu ahal izan ditzan.

Orioko Udalak hainbat txosten zituela adierazi zigun. Hori ondorioztatu genuen behintzat 2003ko ekainaren 16ko bere idazkitik, orduko alkate andreak zera adierazi baitzigun: *“el Ayuntamiento de Orio, (...) tras tomar en consideración los informes emitidos por los Servicios Técnicos Municipales y la Policía Municipal de este Ayuntamiento, resolvió desestimar la reclamación”*.

Ez dugu agiri horien edukia aztertzeko paradarik izan, bada, eskatu ditugun arren, ez dizkigute bidali. Dena den, garrantzitsua zera da: interesdunak ere ez duela, guk uste, horien berri izan.

Kaltetuak eskatutako probei dagokienez, bere erreklamazioetan adierazi zuen zenbait udaltzaini (hain justu, 10, 4 eta 9 zenbakidunei) jakinarazi zela gertatutakoa, eta aparkatzeko guneak mugatzen dizuen gomak bere ibilgailuari eragindako kalteak egiaztatu ondoren, udalaren bulegoan zegokion txostena entregatzeko konpromisoa hartu zutela bere gain.

Udalaren langile horien deklarazioa funtsezkoa bihurtzen da erabaki arrazoitu bat hartzeko, udaltzain horien testigantza baita kexagileak bere bertsioa egiazkoa dela eta kaltea udal zerbitzuaren funtzionamenduak sortu zuela frogatzeko duen aukera bakarra.

Haatik, ondoren bidalitako idazkietan ere baieztapen horixe egin zuen arren, pertsona horiei ez zitzaien deitu, ez azalpenik eskatu, eta froga gisa zuten balioa berariaz ezetsi zen edo ez zen bidezkotzat jo.

Azkenik, lehen adierazi dugun bezala, prozedurarik ezak eragotzi egin zuen nahitaezkoa den entzundialdian izapidea gauzatea; horregatik, ez ziren iritziak kontrajartzera iritsi, nahiz eta horrelako espedienteen bereizgarri nagusia iritziak kontrajartzea den.

5. Udalaren lehen txostenean adierazitakoaren arabera, udalak zera erabaki zuen: *“desestimar la reclamación de responsabilidad patrimonial (...), por ausencia de un funcionamiento normal o anormal de ningún servicio público.”*

Kexa honen biderapenean ez digute bidali hori ziurtatzeko agiririk, eta, horregatik, ez dugu egiaztatzetik izan erabaki hori baliabideren bat erabiliz islatu zen ala ez, ezta ere baliabide hori martxoaren 26ko Errege Dekretuaren 13. artikuluan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89. artikuluan agindutakoari egokitzen zaion ala ez. Ez interesdunak ez administrazioak ez dute inolako datarik aipatu, ezta erabakiaren kontrako errekurtsorik jarri zenik ere. Zertzelada horrek ondorio hau aterarazi digu: agian ez dagoela halako erabakirik, erabaki gisa, edo ez direla bete legezko baldintza guztiak.

6. Beraz, udalaren erabakia prozedurazko arau egokiak bazter utzita hartu zela ondorioztatu behar dugu, eta, horrela, kexagileak galdu egin zituela arauzko prozedura baten tramitazioari datxezkion bermeak, bai bere

eskabidea gauzatu eta defendatzeari dagokionez, bai jarduerak, azken erabakia eta horren kontra agian gauzatu diren errekursoak zertan diren jakiteari dagokionez.

7. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritakoaren arabera, prozedura erabat eta guztiz alde batera utzita burututako egintzak deusezak dira, edota deuseztagarriak, baldin eta formazko funtsezko akatsen bat badago edo interesdunak babesik gabe utzi baditu; zertzelada horietatik gertatu dira, gure iritziz, kexa hau eragin zuen Orioko Udalaren jardueran.

Orduan, administrazio horrek bere erabakia berrikusi behar duela uste dugu, eta ondare erantzukizuneko espedientearen tramitazioan atzera egin behar duela, legezko aginduak betetzeari utzi zitzaion unera iritsi arte, handik aurrera prozedura agindu horiek ezarritako moduan jarrai dadin.

Ohartzeko hain denbora luzea igaro izanak zailtasun handiak sortuko dituela egintzei buruzko edozein ikerlan egitean eta, bereziki, herritar horren interesa babesteko itzaropenetan. Beraz, lan zehatza egin beharko da, legezko bermeak gehiago kaltetzea galarazteko.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **2/2006 GOMENDIOA, otsailaren 10ekoa, Orioko Udalari egina**

Bidera dezala kexagileak kalteengatik ordaina jasotzeko egin zuen eskabidea, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egin dezala hori.

Horretarako, besteak beste, ustezko kalte ordaingarria gertatu zen eskumen-eremuko udal zerbitzuak txosten bat egin dezan eskatu beharko du gutxienez. Txosten horretan, modu arrazoituan eta kongruentziaz aztertu beharko dira egintzak nahiz eskabidearen eta administrazioaren jardueraren oinarriko alderdiak; kalteen berri eman zitzaizen udaltzainen testigantza-froga egin beharko da; kexagileak proposaturiko gainontzeko frogak –egin daitezkeenak– eta alegazioak baloratu beharko dira; kexagileari prozeduraren berri eman beharko zaio entzunaldiaren izapidean eta, azkenik, berariazko erabaki bat hartu eta jakinarazi beharko da, egiaztaturiko egintzak eta haien kausak baloratu ondoren. Erabaki horretan, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 13. artikuluan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89. artikuluan xedatutako alderdi garrantzitsu guztiak aipatu beharko dira, baita errekurtsua jartzeko bideak ere.

**20/2006 Gomendioa, uztailaren 3koa, Portugaleteko Udalari egina, berraztertze-errekurtso bat berriaz ebazteko, herri-bidean gertatutako erorketa batek eragindako lesioei dagokienez bere ondare-erantzukizuna onartzearen eta behar den kalte-ordaina ordaintzearen.**

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoaren babesa eskatu zuen 2001eko abenduaren 21ean Portugaleteko Udalean aurkeztu zuen ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazio bat dela-eta. Herritarraren esanean, pare bat egun lehenago kaleko espaloi batean izandako istripu baten ondorioz, hainbat lesio jasan zituen, zuhaitzen babeserako sareta baten egoera txarra dela-eta.

Herritarraren testigantzen arabera, ordutik ia urtebete pasa zen behin baino gehiagotan eskaera berregin arren, gai horri buruzko berririk jaso gabe.

2. Gure lehenengo informazio-eskaeraren erantzunean, ondare-erantzukizuna zehazteko espedientea ireki zutela esan zigun udalak. Espedienteari, gainera, Udal Zerbitzuen baitezpadako txostena erantsi behar ziotela adierazi ziguten, bai eta epe laburrean erreklamazio-jartzaileari agiri osagarriak aurkeztea eskatuko ziotela ere.

Geroago, beste idazki bat bidali zigun udalak, eta bertan erreklamazio-jartzaileak zenbait agiri aurkeztu zituela eta poliza bat zuen aseguru etxe batekin harremanetan jarri zela adierazten zen.

Azkenik, 2003ko maiatzaren 29ko Gobernu Batzordearen Erabaki baten kopia bidali zigun, erreklamazioa atzera bota zutela esaten zuena. Izan ere, Udal Zerbitzuek eta aseguru etxeak egindako txostenen arabera, gertatutakoa istripu soil baten ondorioa izan zen, erreklamazio-jartzailearen beraren hutsegite baten ondorioa.

3. Prozedura aztertu eta gero, zenbait gogoeta zuzendu genizkion udal administrazio horri, alderdi formalen nahiz hartutako erabakiaren arrazoi sakonen inguruan.

Alderdi formalei dagokienez, azpimarratu nahi izan genuen azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 142. artikulua eta, bereziki, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ondare-erantzukizunen prozedurei ematen dieten kutsu kontraesankorra. Izan ere, erreklamazioa egiten duenak, eskabide bat egin behar izateaz gain, aukera izan behar du tramitazioan parte hartzeko, azken erabakia hartzerakoan eragina izan duten arrazoi eta agiriak zein diren jakiteko eta dagozkion alegazioak aurkezteko.

Kasu honetan, egiaztatu ahal izan genuenez, interesdunak ezin izan zuen gorago aipatzen dugun Erabakian zehaztutako txostenen edukia ezagutu eta, hortaz gain, ez zen nahitaezko entzunaldiaren izapiderik egin. Hori guztia dela-eta, ez zuen aukerarik izan bere uzia berme guztiekin egin eta defendatzeko. Arrazoi hori dela medio, eskabidearen gaitzespena berrikusi beharra zegoela pentsatu genuen, eta espedientearen tramitazioa lege-aginduak betetzen utzi zireneko unera itzuli behar zela erabaki genuen.

Bestalde, aztertutako suposamenduan administrazioak nolabaiteko erantzukizuna zuela erakusten zuten zenbait elementu ikusi genituen, eta elementu horiek dira, funtsean, gomendio honen oinarriak. Geroago aipatu eta aztertuko ditugu elementu horiek.

4. Hiru eskaera gehigarri egin ondoren, Portugaleteko Udalaren mezu bat jaso genuen ondorengo hau adieraziz: udaleko Gobernu Batzordeak erreklamazio-jartzaileari 15 eguneko entzunaldi izapidea eskaintzea

onartu zuen administrazio-espeditentea aztertu eta zegozkion alegazioak egiteko. Hori izan zen, hain zuzen, erreklamazio-jartzaileak egin zuena, eta ordutik aurrera prozedurak ohiko tramitazioa izango zuela uste zuen.

Baina hilabete batzuk geroago, eta, berriz ere, inolako berririk jasotzen ez zuenez, kexa jarri zuenak beste bitartekaritza bat eskatu zuen; eskabide bat, hain zuzen, prozeduraren tramitazio-egoerari eta gai honen funtsaren inguruan igorri genizkion oharrei buruzkoa.

5. Orduan ere, bi aldiz gehioz eskatu behar izan zuen erantzun adierazia eman ziezaioten, baina, azkenean, udal Gobernu Batzordearen Erabakia ezagutu ahal izan genuen, 2005eko apirilaren 5ean onartu zena eta aurreko aldiko arrazoi berberak erabiliz erreklamazioa gaitzesten zuena. Hau adierazten zen bertan: *“de acuerdo con la documentación obrante en el expediente de referencia, los [hechos denunciados] se han debido a un accidente casual y como consecuencia de la falta de previsión o por descuido del propio reclamante, lo cual se considera que quiebra la relación de causalidad que debe existir entre la acción u omisión administrativa y el hecho dañoso denunciado, máxime cuando la creación del peligro por ésta es mínima, por tratarse de un obstáculo perfectamente visible y con posibilidad de ser evitado por los ciudadanos, si van pendientes de por donde transitan...”*.

Erabaki horren aurka, erreklamazio-jartzaileak birjartze-errekurtsoa jarri zuen, zeina egun oraindik ez den ebatzi, nahiz eta arautegiak horretarako ezartzen duen epea aspaldi gaintitu zuen.

#### Gogoetak

1. Administrazioaren jarduerak Konstituzioaren 9.3. artikuluan eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean jasotako printzipio orokorrak errespetatu behar ditu. Lege hori aplikatzerakoan, administrazio-prozedurak herritarren eskubideak bermatu behar ditu.

Horrela, interesatuen eskubideen erabateko eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea eskatzen du aipatutako legeak, bai eta prozeduren tramitazioan edonolako eragozpenak ezabatzea ere. Hori dela-eta, helburu gisa hartzen du interesatuek ezarritako epearen barruan erantzun adierazia jaso ahal izan dezatela.

Horregatik, lege horren 42. eta hurrengo artikuluetan administrazioak prozedura guztietan erantzun adierazia eman eta jakinaraztea baitzepadakoa dela xedatzen da, eta administrazioaren isiltasunari buruzko arubidea arautzen da ere, baina araubide hori ez dute institutu juridiko normalizat hartzen, baizik eta berme soil gisa. Legeak berak diseinatutako administrazioaren funtzionamendu egokia izan beharko lukeenetik at geratzen diren jardueren ondoriozko norbanakoen eskubideen edukia hustea eragozten du berme horrek. Administrazioaren funtzionamendu egokiak, halaber, aurkeztutako arazo guztiak eta prozeduratik datozen arazo guztiak ere ebatzi beharko litzuke, eta jarri daitezkeen errekurtsoak eta horiek jartzeko modua eta epeak adierazi beharko litzuke.

Administrazio batek informazio argirik ez ematearen ondorioz edo prozeduren tramitazioak atzeratzearen ondorioz, interesatuek beren uziaren defentsa egiteko desabantailan aurki dezakete beren burua. Horregatik, administrazioaren isiltasunaren erabilpena baztertzeaz gain, edozein direla ere hori justifikatzeko erabili nahi diren arrazoiak, zalantzan jartzera iritsi gaitzeste ea egoera horietan interesatuei dagozkien eskubideak bermatzen diren ala ez.

Kasu honetan, denbora tarte oso luzea igaro da, arrazoizko epe guztiak gaintzeraino (lau urte baino gehiago interesatuak lehen eskaera egin zuenetik gaur egun arte, eta oraindik errekurtsoa ebatzteko dago), eta hori horrela izatearen arrazoiak, gainera, ez du interesatuarekin zerikusirik. Ondorioz, egindako eskaera argiari erantzunez, udalari eskatzen diogu ahalik eta azkarren eta premia handienaz buka dezala prozedura.

2. Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 139. artikuluan hau xedatzen da: *“Los particulares tendrán derecho a ser indemnizados por las Administraciones Públicas correspondientes, de toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, salvo en los casos de fuerza mayor, siempre que la lesión sea consecuencia del funcionamiento normal o anormal de los servicios públicos.”*

Aztertu dugun kasuan, ordenamendu juridikoak kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dagoela aitortzeko baldintza guztien artean, eztabaidatu den bakarra zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eta salatutako gertaeren arteko kausaltasun-erlazioa da eta, horri dagokionez, udalak, alde batetik, erlazio hori ez dela egiaztatuta esaten du eta, bestetik, kaltea erreklamazioa egin duenaren hutsegite batek eragin zuela.

3. Lehenengo arrazoi horrek eragindako kalteak zerbitzu publikoen arloari esleitzearen aukera aztertzea eramaten gaitu. Horretarako, kontuan hartu behar da administrazioaren esku-hartzeak duen galdagarritasun-maila, etorkizunean erantzukizun posible bat zehaztu ahal izateko. Galdagarritasun-maila hainbat baldintzaren arabera da eta, oro har, baldintza horiek honekin duten zerikusia: gertaera zehatzak aztertzen direneko tokiaren eta garaiaren errealitate sozialarekin eta testuinguru horretan administrazioari buruz dagoen ideiarekin, doktrina juridikoak “zerbitzuaren errendimendu-estandarrak” deiturikoen eta justizia auzitegiek “kontzientzia sozialaren arabera nahitaezkoak diren segurtasun-estandarrak” deiturikoen arabera [adib.: 1997ko abenduaren 16ko Auzitegi Gorenaren Epaia (RJ 1997\8786)].

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bide publikoaren zolatzelanak udalerrien eskumen direla zehazten du. Ildo horretatik, eta aipatutako markoaren barruan, udal administrazioek kaleak eta espaloiak egoera onean egoteaz arduratu behar dute, herritarrek erabil ahal izan ditzaten baldintza egokitan daudela zaindu behar dute eta ohar-seinaleen bidez adierazi egin behar dute bideetan irregulartasun edo arazoren bat badago, pertsonentzako arrisku-egoerak saihesteko; azkenik, nabaritzen dituen hutsuneak edo akatsak ahal bezain azkar konpondu beharko ditu.

Ikusi ahal izan dugun administrazio-espeditentearen zatiari erreparatu ondoren jakin ahal izan dugu gertaera eztabaidaez in moduan hartu behar dela erreklamazioa egin duenak kalteak jasan zituen egunean espaloitako zuhaitzen babeserako saretetako bat gaizki jarrita zegoela eta agerian zegoela egoera txarrean zegoela. Gainera, toki horretan egon behar zuen zuhaitza bere tokitik erauzia zegoen.

Horrela azaltzen dute bai interesatuak bai eta berak eraman zituen lekukoek, eta aipatutako saretak “hautsita, bere egituratik aterata eta zuhaitzik gabe”, “barrurantz sartuta” eta “hondoratuta eta egoera txarrean” zegoela baieztatzen dute. Adierazpen eta baldintza horiei inoiz ez die kontra egin Portugaleteko Udalak; aitzitik, kaltetuak egindako alegazio bat gaitzestera iritsi zen, eremua konpontzeko egindako obren data espeditentean sartzeari buruzkoa. Hau izan zen udalaren arrazoibidea: *“el estado en que se encontraba el lugar donde ocurrieron los[hechos] no ha sido cuestionado en ningún momento del procedimiento.”*

Administrazioak, beraz, ezin du bere erantzukizuna itzuri istripua eragin zuen arrazoietatik. Izan ere, esan bezala, elementu ezohiko eta arrotz bat zegoen, oinezkoentzako bide batean espero ezin litekeena, oztopo arriskutsua izan litekeena bide publikoaren arrazoizko erabileran eta alegatu den kaltea sor lezakeena. Ondorioz, istripua gertatu zen espaloia egoera udalaren jardueraren barruan dagoela ulertzen da, eta sortutako arriskua ekiditeko nahikoa neurri hartu ez zituela.

Ildo horri jarraiki, oinezkoei kalteak sortu zizkieten antzeko kasuetan jurisprudentziak udalari esleitu izan ohi dio ondare-erantzukizuna.

Hala, 1999ko apirilaren 9ko Auzitegi Gorenaren Epaia (RJ 1999\3451), inolako babesik gabe irekita zegoen galtzadako estolda batek eragindako istripu bati dagokionez, honela arrazoitu zuen:

*“En definitiva, no se ha acreditado culpa alguna en la víctima sino que, por el contrario, el evento se produjo por un mal funcionamiento del servicio de mantenimiento de dicha alcantarilla, al no adoptarse las debidas medidas de seguridad para evitar el riesgo que constituía estar al descubierto la boca de dicha alcantarilla.”*

Bestalde, galtzadan zegoen orban baten erruz erorikoa izan zuen pertsona baten kasuan (tartean zegoen administrazioak errua kaltetuarena berarena bakarrik zela defendatzen zuen), hau adierazi zuen Auzitegi berak, 2002ko abenduaren 16ko Epaian (RJ 2003\583):

*“No podemos compartir esta tesis de la Administración por cuanto de lo que no cabe duda es de la caída de la peatón a consecuencia de que el pavimento estaba deslizante por efecto del aceite,*

*lo que de suyo constituye un anormal funcionamiento de los servicios municipales, que deben vigilar por el buen estado de las vías públicas, pero, aun aceptando que el aceite hubiese sido derramado por un tercero, a cuya negligencia o dolosa conducta debiera atribuirse la responsabilidad de lo sucedido, tal eventualidad no rompe la relación de causalidad entre la actuación del servicio público y la caída de la demandante al suelo, ya que, como con todo acierto señala el Tribunal «a quo» en la sentencia recurrida, no se adoptaron todas las precauciones hasta que desapareciese el riesgo.»*

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak alde berdinerako izan du hainbat epaietan. Horren adibideetako bat da ondorengo hau:

*“...siendo competencia del Ayuntamiento la pavimentación y conservación de las vías públicas urbanas [artículo 25. d) Ley 7/1985, de Bases del Régimen Local], lo que le obliga al mantenimiento de las condiciones mínimas y elementales de seguridad de las calles locales, sin que resulte permisible que presenten dificultades u obstáculos a la normal circulación peatonal, y toda vez que el accidente vino motivado por el deficiente estado de la acera, y en concreto de la repetida arqueta que sobresalía 2 cm. aproximadamente, deviene notorio el defectuoso funcionamiento del servicio público y correcta la imputación del perjuicio a la Corporación.” (2001eko abenduaren 14ko Epaia [RJCA 2002\353])*

*“Indiscutida la realidad del daño, cuyo alcance, objeto de controversia, fijaremos en los párrafos siguientes, procede analizar la existencia del imprescindible nexo causal entre el funcionamiento del servicio público municipal y el resultado dañoso, cuya concurrencia en el presente caso no ofrece dudas, habida cuenta que, siendo competencia del Ayuntamiento la pavimentación y conservación de las vías públicas urbanas (artículo 25. d) Ley 7/85, de Bases del Régimen Local) y presentando la acera en cuestión una deficiencia de relevancia, que afecta a los estándares medios exigibles a las Administraciones Públicas, se colige que si el Ayuntamiento hubiese procedido a su reparación, o al menos hubiese señalado el defecto, cumpliendo así su deber de mantener en buen estado las vías públicas, la caída no se habría producido.” (2003ko irailaren 12ko Epaia [JUR 2003\242808])*

*“El tribunal a la vista de los anteriores elementos probatorios estima que la acera en que se produjo la caída del recurrente no cumple los estándares de seguridad exigibles para un funcionamiento eficaz del servicio público que determinan la estimación de la existencia de relación causal entre el daño invocado y el funcionamiento de la Administración demandada, al resultar factible de la apreciación conjunta de la prueba el mecanismo productor de la caída expresado por el recurrente en su demanda, esto es, que al caminar normalmente por la acera introdujo el pie en la depresión formada por el paso de carruajes, que invadía la acera resultando lesionada; siendo responsabilidad de la Administración demandada mantener en estado adecuado las aceras de su titularidad, y siendo llano que la depresión del terreno se produce en zona de acera, invadiendo la misma.” (2005eko urriaren 14ko Epaia [JUR 2006\59486])*

*“Siendo competencia del Ayuntamiento la pavimentación y conservación de las vías públicas urbanas (artículo 25. d) Ley 7/85, de Bases del Régimen Local) y presentando la acera una deficiencia de relevancia, afectante a los estándares medios exigibles a las Administraciones Públicas, y susceptible de generar un riesgo de caída, que se consumó en la persona de D<sup>a</sup> Alicia, no ofrece dificultad establecer el imprescindible nexo causal entre el funcionamiento anormal del servicio público municipal y el resultado dañoso, dado que si el Ayuntamiento hubiese reparado la acera, o al menos señalado el defecto, cumpliendo así su deber de mantener en buen estado las vías públicas, la caída no se habría producido.*

*No empee a esta conclusión la causa de la rotura de la baldosa, que se ignora en todo caso, en tanto que ya sea fruto del desgaste o envejecimiento, o bien debida a un esfuerzo de compresión por un vehículo, tesis del Ingeniero municipal, no queda eximido el Ayuntamiento de sus obligaciones de mantenimiento y conservación, en este caso incumplidas.” (2005eko urriaren 28ko Epaia [JUR 2006\58820])*

4. Ikuspegi teorikotik, ezin da ukatu edozein gertaera pilaturiko hainbat arrazoiren ondorioa dela pentsatzeak duen bertualtasuna, arrazoi bakoitzak eragin handiagoa ala txikiagoa izango zuen. Beraz, baita administrazioaren ondare-erantzukizunaren eskaera bat ekarri duten kasuetan ere.

lido horretatik, jurisprudentziak bilakaera nabaria izan du. Aurrez jarduera administratiboaren eta eragindako kaltearen arteko kausa eta ondorio erlazio zuzena, berehalakoa eta eskusiboa zenean kalte-ordaina jasotzeko eskubidea soilik onartzen zuen, kanpoko elementuek kausazko loturan eragiteko eta hori aldatzeko esku-hartzerik gabe. Gaur egun, aldiz, eskubide hori onartzen du, baita kaltea eragite horretan beste faktore batzuk ere badirenean.

Faktore horien artean kaltetutako pertsonaren jokabidea bera aipatu behar da, zeina, oro har, auzitegiek adierazitakoaren arabera, haren dolua eta arduragabekeria larria elkartzen direnetan kausazko lotura hausteagatik soilik ezaba daiteke administrazioaren erantzukizuna, eta gainerako kasuetan, zehazki aztertu behar izango dira bere gaitasuna eta emaitza kaltegarrian izan duen esku-hartze maila, gainerako eragileekin batera, hala badagokio, bakoitzari dagokion erantzukizuna bereizteko eta neurtzeko.

Auzitegi Gorenak horrela azaltzen du honelako erabakietan:

*“En el caso enjuiciado no parece difícil establecer el nexo de causalidad existente entre el accidente productor del daño y la actividad administrativa, especialmente si tenemos en cuenta que, con arreglo a la más reciente jurisprudencia, entre las diversas concepciones con arreglo a las cuales la causalidad puede concebirse, se imponen, en materia de responsabilidad patrimonial de la administración, aquéllas que explican el daño por la concurrencia objetiva de factores cuya inexistencia, en hipótesis, hubiera evitado aquél (Sentencia de 25 enero 1997), por lo que no son admisibles, en consecuencia, restricciones derivadas de otras perspectivas tendentes a asociar el nexo de causalidad con el factor eficiente, preponderante, socialmente adecuado o exclusivo para producir el resultado dañoso, puesto que –válidas como son en otros terrenos– irían en éste en contra del carácter objetivo de la responsabilidad patrimonial de las administraciones públicas (Sentencias de 5 junio 1997 y 16 diciembre 1997). La consideración de hechos que puedan determinar la ruptura del nexo de causalidad, a su vez, debe reservarse para aquéllos que comportan fuerza mayor –única circunstancia admitida por la ley con efecto excluyente– (Sentencia de 11 julio 1995), a los cuales importa añadir el comportamiento de la víctima en la producción o el padecimiento del daño, o la gravísima negligencia de ésta, siempre que estas circunstancias hayan sido determinantes de la existencia de la lesión y de la consiguiente obligación de soportarla en todo o en parte (Sentencias de 11 abril 1986, 27 abril 1996 y 7 octubre 1997).” (1998ko apirilaren 21eko Epaia [RJ 1998 4045])*

*“El recurrente sostiene en su recurso que el accidente en el que se produce la muerte a la esposa del recurrente vino motivado exclusivamente por la conducta de la víctima, exceso de velocidad del vehículo que conducía, lo que determina la ruptura del nexo causal entre la actuación de la Administración, responsable del estado de conservación de la vía, y el resultado producido, por cuanto, afirma el recurrente, la jurisprudencia exige que el resultado dañoso sea consecuencia directa, inmediata y exclusiva del actuar administrativo.*

*En primer lugar hemos de destacar que la tesis de la exclusividad en los términos en que viene proclamada por el recurrente no es admisible por cuanto la Jurisprudencia ha venido atemperando tal criterio en el sentido de que la potencial negligencia de la víctima no quiebra el nexo de causalidad, ya que la interconexión de la acción y omisión administrativa con el resultado dañoso no tiene necesariamente que ser exclusiva, pues la potencial coparticipación de la víctima o de un tercero, incluso de forma copulosa, cuando es un mero aditamento no esencial de la conducta básica que revela, no rompe dicha conexión, ya que para que se exonere a la Administración de su responsabilidad es necesario que se acredite la existencia, junto a la causa derivada directa o indirectamente del actuar del servicio público o actividad administrativa productora de la lesión patrimonial, de otra concausa producida por persona ajena a la administración que se interfiera significativamente con entidad suficiente para producir «per se» el daño o perjuicio en el patrimonio del reclamante, sin cuya concausa aquél no se hubiera producido.” (1999ko maiatzaren 13ko Epaia [RJ 1999 4807])*



*“El motivo no puede prosperar por cuanto la doctrina de la relación exclusiva entre el actuar de la Administración y el resultado dañoso ha sido abandonado por la jurisprudencia de esta Sala pudiendo remontarnos a las sentencias de 15 de noviembre y 8 de marzo de 1967 y 29 de enero y 8 de octubre de 1969, siendo suficiente que el actuar de la Administración haya contribuido a la producción del daño siquiera sea de forma mediata aunque sí necesaria.*

*En estos supuestos de concurrencia de conductas en la causación del daño la solución jurisprudencial es la moderación de la responsabilidad imputable a la Administración en base a la concurrencia de culpas.” (2003ko martxoaren 20ko Epaia [RJ 2003\2820])*

Edonola ere, gertaera bat eragiten duten kausak edozein direla ere, norbaitek bere intereserako erabili nahi baditu, kausa horiek badaudela egiaztatu behar du, eta ez da nahikoa izango, eragina izan dezaten, horien aldarrikapen soila egitea.

Hori dela-eta, kaltetutako pertsona zerbitzu publikoen funtzionamendua eta kaltea erlazionatzen dituen kausazko lotura frogatzera behartuta dagoen bezala, administrazioak ere frogatzeko beharra dauka, ezinbesteko egoera bada edo biktimaren jarreraren arabera, baldin eta horiek gertaeran eragina izan dutela pentsatzen badu eta horrekin bere erantzukizuna izuri edo txikitu nahi badu.

Hori baieztatu du behin eta berriz Auzitegi Gorenak hainbat epaietan. Hona hemen horren adibide bat, hain zuzen ere, 2002ko apirilaren 9ko epaiarena (RJ 2002\3461):

*“...la alegación acerca de la ruptura del nexo causal como consecuencia de la actuación del propio capitán del buque ha de resolverse de acuerdo con la doctrina de esta Sala conforme a la cual el carácter objetivo de la responsabilidad de la Administración impone que la prueba de la concurrencia de acontecimientos de fuerza mayor o circunstancias demostrativas de la existencia de dolo o negligencia de la víctima, suficientes para considerar roto el nexo de causalidad, corresponde a la Administración, pues no sería objetiva aquella responsabilidad que exigiese demostrar que la Administración que causó el daño procedió con negligencia, ni aquella cuyo reconocimiento estuviere condicionado a probar que quien padeció el perjuicio actuó con prudencia (Sentencia de 15 de febrero de 1997). En análogo sentido se expresan la Sentencia de 15 de marzo de 1999, y las que en ella se citan, y 6 de abril de 1999 conforme a las cuales en caso de alegación de culpa de la víctima, la carga de la prueba pesa sobre la Administración.”*

Gure arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenak ildo berdinari jarraitu dio, gorago aipatutako epaien moduko bidez. 2001eko abenduaren 14ko epaian, adibidez, baztertu egiten da erorikoa zuzenean kaltetutako pertsonaren beraren kausen ondorioz gertatu izana (ibiltzen ari zen modua, erabiltzen dituen oinetakoak eta noraezean axolagabe ibiltzea), frogak falta direla pentsatzen baita. Ildo beretik, 2005eko azaroaren 25eko epaiak hau adierazten du:

*“En suma, y a tenor de los datos expuestos, forzoso se hace concluir con que el origen de la caída ha de situarse en un defectuoso e inadecuado funcionamiento del servicio público de la Administración demandada que fue lo que provocó en una relación de causa a efecto las lesiones cuya reparación aquí se postula.*

*Conclusión ésta que no cabe entender alterada por la alegada desatención o negligencia en la manera de conducirse de la víctima al no existir indicio, ni menos sustento probatorio, de que la caída en dicho lugar se produjera como consecuencia de una falta de diligencia en la conducta de la lesionada.”*

Aztertu dugun kasu honetan ez zaigu inolako elementurik erakutsi kaltea erreklamazioa jarri duenaren hutsegite batek eragindakoa izan dela guttiz frogatzeko edo hori horrela izan dadin lortzeko saiakerarik egin denik prozeduran zehar. Horregatik, aipatutako jurisprudentiaren arabera, eta kontsiderazio horiek lehenago ere Portugalteko Udalean azaldu izan direla dakigunez eta guk dakigunez udalak ez duenez horri lotutako inolako jarduerarik egin, alderdi-baieztapen soil gisa hartu behar dugu, eta dagozkion kalte-ordainak gutxitzeko ez du baliorik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**20/2006 GOMENDIOA, uztailaren 3koa, Portugaleteko Udalari egina**

Udal Gobernu Batzordeak 2005eko apirilaren 5eko bilkuran onartu zuen Erabakiaren aurka interesatuak jarritako birjartze-errekurtsoa espresuki ebatz dezala, bide publikoan gertatutako eroriko baten ondorioz erreklamazio-jartzaileak jasandako lesioei eta kalteei lotuta udal administrazioari dagokion ondare-erantzukizuna onar dezala udalak eta erreklamazio-jartzaileari, lege-arauak aplikatu, eta dagozkion kalte-ordainak ordain diezazkiola.

**21/2006 Gomendioa, uztailaren 19koa, Donostiako Udalarari egina, alde zaharrerako sarbidean dagoen gontza batek kalteuaren ibilgailuan sortu zituen kalteengatik hark egin duen ondare erantzukizuneko erreklamazioa onar dezan eta sortutako kaltearen zenbatekoa ordain diezaion. Onartu da.**

#### Aurrekariak

1. 2003ko martxoaren 27ko idazkiaren bidez, kexaren sustatzaileak erreklamazioa aurkeztu zion Donostiako Udalarari bere jabetzakoa den ibilgailuak Soraluze kalean Alde Zaharrerako sarbidea arautzeko galtzadan zegoen gontza jo eta jasan zituen kalteengatik. Gontz barneragarria ez zen lurraren arrasera jaitsi eta, ondorioz, bide horretatik igarotzean, bere ibilgailuari kalteak eragin zizkion. Erreklamazio egilearen ustez, kalteak udalarari egotzi behar zitzaizkion, bera izaki bidearen titularra eta kaleak eta hiri-bideak mantentzeko zerbitzu publikoak eta horietan barrena behar bezala zirkula daitekeela bermatzeaz arduratzen dena.
2. Dagokion administrazio espedientea egin ondoren, udalak, 2005eko urtarrilaren 25eko ebazpenaren bidez, erreklamazioa ezestea erabaki zuen, bere ustez, aipatutako gertakariak ezin egotz zekizkiokeelako udalarari, ez zelako frogatu kaltearen eta udal zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren arteko kausalitate-erlazioa. Era berean, udalarekin zerikusirik ez zuen enpresa pribatu bat tartean izan zela adierazi zuen.
3. Ararteko erakundeak aurretiazko zenbait gogoeta helarazi zizkion Donostiako Udalarari, erreklamazioa ezestearen inguruan, mantentze-zerbitzua emateko kontratatatu den enpresaren esku-hartzea izanez gero egin behar den prozeduraren inguruan eta kaltea ordainduko dela bermatzeko hartu beharreko neurrien inguruan.
4. Gure idazkiari erantzunez, udalak egindako administrazio espedientearen kopia baino ez digu bidali, mahai gainean jarritako kontuei inolako erantzunik eman gabe. Espedientean, udalak ez du erreklamazioa onartzen, ez baita behar bezala egiaztatzen aipatutako kaltearen eta udal zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren arteko kausalitate-erlazioa. Nolanahi ere, azaldu du ezbeharra udalak Alde Zaharrerako sarbideen kontrol-sistema mantentzeko kontratatatu zuen Sainco Tráfico, S.A. merkataritzako enpresaren funtzionamenduak eragin duela.

#### Gogoetak

1. Espediente honen xedea erreklamazio egilearen asmoaren oinarri juridikoa aztertzea da. Erreklamazio egilearen ustez, alegatutako kalteak Donostiako Udalarari egotz dakizkioke, horiek hiri-bideak mantendu eta ibilgailuen trafikoa antolatzeko udal zerbitzuaren funtzionamenduak eragin baititu.

Aurretik, komenigarria da zehaztea zein lege-esparrutan barneratzen den administrazioaren ondare-erantzukizuna. Konstituzioak 106.2 artikuluan dio hiritar guztiek dutela beren ondasun eta eskubideetan jasaten dituzten kalteengatik ordaina jasotzeko eskubidea –ezinbesteko kasuetan izan ezik-, betiere, kaltea zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren ondorioa bada.

Araubide hori jada Konstituzioaren aurreko beste arau batzuetan ere jasota zegoen eta Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen bidez garatu da. Arauzko xedapen horrek dio partikularrek administrazio publikoaren aldetik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela beren ondasun eta eskubideetan jasaten dituzten kalteengatik, betiere, kaltea zerbitzu publikoaren ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorioa bada.

Kalte-ordaina jasotzeko eskubideak bermatzeko ezartzen diren eskakizunak lege-testutik bertatik datoz, baita Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia oparotik ere.

Horrela, beraz, honako alderdi hauek egiaztatu behar dira: kaltea benetan gertatu dela egiaztatzea; kaltea ekonomikoki ebaluatzeko modukoa eta pertsona edo pertsona-talde batekin erlazioan egotea; erreklamazio egileari eragindako ondarezko kaltea udal zerbitzuen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorioa izatea eta zuzeneko eta berehalako kausa-efektu erlazio eskusiboan egotea, kausazko lotura aldatzea eragin dezaketen elementu bitxirik gabe; ezinbestetik ez egotea; eta erreklamazio egileak bere jokabidearen ondorioz era zentzudunean eragindako kaltea jasateko betebeharrak juridikorik ez izatea. Era berean, gertakariak izan zirenetik urtebeteko epean erreklamatzeko eskubidea iraungita ez egotea eskatzen da.

Konstituzioak ezartzen duen ondare-erantzukizuneko araubidea objektiboa edo emaitzetan oinarritutakoa da eta ez du ezer aipatzen udal zerbitzuen jardun edo ez-egitean errurik edo arduragabekeriarik egon behar duenik.

Administrazioen erantzukizun objektibo horren oinarria da pertsonak ez dituztela zertan bere gain hartu behar, besteak beste, interes orokorra lortzea helburu duen administrazio jardunaren ondorio kaltegarriak.

Hori dela-eta, administrazio organoak erreklamazio eskaeraren aldeko ebazpena eman beharko du udal zerbitzuen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren eta eragindako kaltearen arteko kausalitate-erlazioa onartzen denean.

2. Tokiko administrazioek, beste zenbait eskumenen artean, hiri-bideak ahalik eta segurtasun-baldintza onenetan mantendu behar dituzte ibilgailuak zirkulatu eta oinezkoak bertatik ibil daitezzen, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 57.1 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 26.1.a) artikulua ezartzen dutenarekin bat etorritik.

Trafikoa antolatzeko zerbitzu publikoak baldintza egokietan emateko betebeharrak berekin dakar zenbait kaleetarako sarrera debekatu edo mugatzeko erabiltzen diren gailuek gidariei edo horien ibilgailuei kalterik eragin diezaien ekiditea.

Horretatik ondoriozta dezakegunez, kaltea egozteko arrazoia da udalak ez duela trafikoa kontrolatu eta antolatzeko zerbitzua baldintza egokietan eskaini gidariei dagokienez. Hori guztia trafikoa galarazteko erabiltzen diren gailuak mantentzeko zerbitzua zuzenean edo zeharka kudeatzearen kaltetan izan gabe.

Azalpen gisa besterik ez, ildo horretatik doaz Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenak ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren aurka emandako maiatzaren 5eko 400/2004 eta 0904/05 epaiak. Erreklamazio hori ere ibilgailu batek jasandako kalteengatik aurkeztu zen, kale batetik igarotzerakoan bertan kokatutako mutiloia automatikoki igo baitzen. Epai horien arabera:

“Kasu honetan, arestian aipatutako betekizun guztiak antzeman daitezke. Izan ere, alde batera utzita kalea trafikoari irekita zegoen ala ez eta auzi-jartzaileak trafikoko araudia urratu zuen ala ez, hori ez baita behar bezala ziurtatu, kontua da horrek ez duela zerikusirik errekurtsio egileak izandako istripuarekin; bertan, ordu jakin batzuetan trafikoa debekatzeko kalean jarritako mekanismoak huts egin zuen eta kalteak eragin zizkion auzi-jartzailearen jabetzakoa den ibilgailuari. Horrek esan nahi du zerbitzu publikoan ezohiko funtzionamendua gertatu dela, Konstituzioaren 106.2 artikuluan eta 30/1992 Legearen 139. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den moduan, eta, beraz, bidezkoa dela errekurtsio hau onestea...”

3. Nolanahi ere, komenigarria da egiaztatzea bide-zerbitzuaren funtzionamenduaren eta erreklamazio egileak jasandako kalteen artean kausalitate-erlazioa dagoela ziurtatu ote den.

Horrela, udalak bere ebazpenean adierazi du ez dagoela nahikoa frogarik erreklamaturakoaren eta zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren artean kausalitate-erlazioa dagoela esateko.

Hori gorabehera, espedientea irakurri ondoren ikus dezakegu gai honi dagokionez garrantzitsuak izan daitezkeen zenbait inguruabar aipatzen direla. Erreklamazio egileak 2003ko martxoan egin zuen eskaeran,

bi pertsona aipatzen dira gertakarien lekuko gisa eta, horrekin batera, udaltzain batek egindako atestaturak ekarri zuen, horrek gertakariak ikusi eta ibilgailuak jasandako kalteak idatziz jaso baitzituen. Kalte horiek bat datoz erreklamazio egileak aurkeztutako konponketa-fakturarekin, 170,57 eurokoa.

Datu horiek administrazio espedientean barneratu ziren arren, Donostiako Udalak ez zuen onartu, ezta gauzatu ere, dagokion lekuko bidezko frogara, Herri Administrazioek Ondare-erantzukizunaren arloan garatzen dituzten Prozeduren Arautegia onesten duen martxoaren 23ko 429/1993 Errege Dekretuaren 9. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik. Bestalde, instrukzio organoak ez zuen inolako frogarik egin gertakariak egiaztatu edo ukatzeko; esate baterako, udaltzainaren txostena eska zezaken. Are gehiago, 429/1993 EDaren 10. artikulua ezartzen duen moduan, txostenik ere ez zion eskatu zerbitzuari, ordaintzeko modukoa den ustezko kaltea zerbitzuaren funtzionamenduak eragin ote zuen ikusteko.

Frogaren zamari dagokionez, alderdi bakoitzak bere alde dauden ondorio juridikoak dakartzan arauaren egitatezko baldintza frogatu behar du. Hala ere, printzipio horrek ez du instrukzio organoa eztabaidatutako egitatean gaineko frogara-materiala lortzerakoan zehatza izatetik salbuesten; horretarako, ofiziotzko frogaren egokietara ere jo behar du.

Aurrekoen ildotik, udalak lekuko bidezko frogara egitea onartu behar du, horixe baita erreklamazio egileak gertakariaren benetakotasuna egiaztatzeko eta horien kausa udal zerbitzuaren funtzionamendua, besteak beste, mantentze-lanak egiterakoan, okerra izan dela frogatzeko duen aukera bakarra, batez ere erreklamazio ezesteko arrazoi nagusia gertakari horien frogarik ez izatea dela kontuan hartuta.

Horri dagokionez, komenigarria da gogoan izatea Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 80.2 artikulua, 429/1993 EDaren 7. artikuluaekin lotuta. Horrek honela dio hitzez hitz: *“Administrazioak ezin dituen egiazkotzat hartu interesdunek alegatutako gertakariak edo prozeduraren izaerak berak hala eskatzen duenean, horren instrukzio egileak frogaldia irekiko du, gehienez 30 egunekoa eta gutxienez 10ekoa, egoki irizten diren frogak guztiak egin daitezten”*.

Arrazoi horiek ikusita, aintzat izan behar dugu ezin dela erreklamazioa ezetsi, *“ez baita behar bezala frogatu”*; gainera, espedientearen instrukzio organoa bera da lekuko bidezko aitortpenaren frogara onartzeaz arduratzen dena. Bestalde, eztabaidatutako gertakariak zehatz-mehatz azaltzeko edo horiek ukatzeko, udalak kasuan kasuko txostenak eskatu behar ditu, gutxienez, funtzionamendu okerraren ondorioz ordaintzeko modukoa den ustezko kaltea eragin duen zerbitzuarena.

Nolanahi ere, erreklamazio egileak aurkeztutako frogak (nagusiki, bere aitortpena, udaltzainaren atestaturak eta gastuen faktura) aztertu ondoren, ikus dezakegu behar bezala eta modu koherentean adierazten dutela kalteak Alde Zaharrerako sarrera-gontzak eragin zituela. Udalak, gainera, ez ditu frogak horiek ukatu.

4. Bestalde, erreklamazioa ezesteko bigarren arrazoiak da beharbada udalak kontratatutako enpresa pribatuak nolabaiteko zerikusia izan duela kaltearekin.

Horren ildotik, ikus dezakegu udaleko Mugikortasun Atalak txostena helarazi ziola Sainco Tráfico, S.A. merkataritzako enpresari. Udalak enpresa hori kontratatu zuen Alde Zaharrera sartzeko dauden gontzak mantentzeko zerbitzua kudeatzeko. Enpresa hori, beraz, udalaren emakidadun enpresa da. Errekerimendu horren bidez, epea eman zitzaion zegozkion alegazioak aurkez zitzaion eta, horrez gain, *“ohartarazi zitzaion, epe barruan erantzun ezean, erreklamazioa izapidetzeko erantzukizuna bere gain hartzen duela ulertuko zela”*. Errekerimenduari jaramonik egin gabe, zerbitzuaren ustiapen enpresak ez zuen alegaziorik aurkeztu eta ez zion udalak egindako errekerimenduari ere erantzun.

Enpresak lankidetzarako gogo gutxi erakutsi arren, udalak ez zien jarraipenik eman enpresa kontratistak hirugarrenei eragindako kalteen inguruko prozedurari buruz kontratazio-araudian aurreikusten diren jardunei.

5. Gure alegazio-idazkian adierazi genuen bezala, kasu honetan –udal espedientean bertan ere halaxe azaltzen dena– burutu beharreko administrazio prozedura Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluan jasotakoa da.

Artikulu horrek dio kontratistak ordaindu behar dituela hirugarrenei eragindako kalteak, ez badago zuzeneko agindurik edo obra-proiektuan akatsen bat ez badago. Horretarako, erreklamazio egileek kontratazio organoari eska diezaioke berariaz adieraz dezala, kontratistari entzun ondoren, nori dagokion kalteen gaineko erantzukizuna.

Esku artean dugun kasuan, udal zerbitzua eskaintzen duen enpresari entzunaldiaren izapidea egin ondoren, udalak merkataritzako enpresarengana jo zuen, baina honek, udal errekerimenduari jaramonik egin gabe, ez zuen horren inguruan alegaziorik egin.

Hori ez da eragozpena udalak zerbitzuaren funtzionamendua ohikoa edo ezohikoa izan den eta horren erantzukizuna nori legokiokeen adieraz dezan. Ebazpenean udalak ez du ukatzen gontzaren funtzionamenduak ondarezko kaltea eragin duenik, baina adierazten du, nolahi ere, hori enpresa pribatuaren erantzukizuna izango litzatekeela.

Hala ere, aipatutako artikuluak ezartzen duenarekin bat etorritik, kontratazio organoak, kontratistari entzun ondoren, bere iritzia eman beharko zukeen kalteen erantzukizuna zein alderdi kontratugileri dagokion finkatzeko.

Lege-agindu horretan zehazten denaren kontra, Donostiako Udalak ez du horren inguruan ezer zehatzik esaten. Administrazioak ez jarduteak, erreklamazio egilea kaltetzeaz gain, emakidadun enpresak lankidetzarako erakutsi duen gogo gutxia bultzatzen du.

Horretan guztian oinarrituta, ondoriozta dezakegu udalak nahitaez ebatzi behar duela hiritarrak aurkeztutako erreklamazioa eta erantzukizunik ba ote dagoen, kalterik eragin ote den eta, hala bada, nork ordaindu behar duen adierazi behar duela.

Ondorio hori 1989ko maiatzaren 9ko epaiatzaren 9ko epaiatzaren geroztik Auzitegi Gorenak jarraitu duen jurisprudentzia iraunkor eta oparoaren isla da. Auzitegi Gorenaren 1998ko martxoaren 31ko Epaiak (RJ 1998\2904) eta 1998ko urriaren 20koak (RJ 1998\8842) erantzukizuna egozteko eskakizunen artean honako hau aipatzen dute: *“kausa-efektu erlazioa egotea zerbitzuaren funtzionamenduaren eta kaltearen artean, ezinbesteko kasua izan gabe; gogoan izan behar da beti **administrazioak ezin dituela alde batera utzi emakidadunak eragiten dituen eta zuzenean berari egotz dakizkiokeen kalteak**”*.

Hori dela-eta, administrazio kontratugileak esku hartu behar du kontratistak bere eginkizuna betetzen ez badu; horrela, kalteak ordaintzeko eskatu ahal izango dio, subsidiarioki erantzun ahal izango du edo administrazio kontratua bertan behera utzi ahal izango du.

Kalteen erantzulea zerbitzua emateko kontratatu den enpresa bada, administrazioak, kontratatutako zerbitzuaren titularra den heinean, jarraipen-lanak egingo ditu obra publikoak burutzeko kontratatu den enpresak sor izan lezakeen behin-behineko ondare-erantzukizuna ordaintzearen inguruan. Horri dagokionez, udalari gure aurreko txostenean adierazi genion moduan, aipatutako kontratazio-araudiak 59.1 artikuluan dio kontratazio-organok, beste zenbait eskumenen artean, administrazio kontratuak interpretatzeko eta horiek betetzerakoan sor litezkeen zalantzak argitzeko eskumena duela. Araudi horren 43.2 artikuluan dio enpresak eraturako behin betiko bermea bat datorrela kontratuak dakartzan betebeharrekin eta, beraz, ez dela bidezkoa hori bertan behera uztea, behar bezala betetzen ez den bitartean.

\* Azken batean, kontuan izan behar dugu trafikoa antolatzeko eta, zehazki Alde Zaharrera sartzeko dauden gontzak mantentzeko zerbitzu publikoaren funtzionamendua izan zela ibilgailuak jasandako kalteen arrazoi nagusia eta, beraz, Donostiako Udalak, zerbitzu publiko horren titularra den heinean, horrek eragin izan ditzakeen kalteen ardura hartu beharko luke, gastuak emakidadun enpresara bihurtzeko duen ahalmenaren kaltetan izan gabe.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**21/2006 GOMENDIOA, uztailaren 19KOA, Donostiako Udalari egina**

Donostiako Udalak atzera bota beharko luke Mugikortasun Ataleko eta Bide Publikoen Zerbitzuko zinegotziaren ebazpena (horren bidez, ezetsi egin zen (...) andreak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa, bere ibilgailuak Alde Zaharrera sartzeko dagoen gontza jo eta jasan zituen kalteengatik). Izan ere, bideratutako administrazio prozeduratik ondoriozta daiteke erreklamazio egilearen ibilgailuak jasandako kalteak hiri-bideak antolatzeke udal zerbitzuaren ezohiko funtzionamenduak eragin zituela.

Aurrerago, beste ebazpen bat eman beharko litzateke, udalak eragindako kaltearen zenbatekoa ordaindu behar duela adierazteko.

**27/2006 Gomendioa, abenduaren 20koa, Derioko Udalari egina, herri-bidean mahaiak eta aulkiak jartzea arautzen duen ordenantza bete dezan.**

Aurrekariak

1. Derioko herritar bat erakunde honi zuzendu zitzaion, esanez udalak ez zuela ezer egiten, 2003tik salaketa bidez etengabe hala eskatu zaion arren, udal arautegia betetzeko 1. solairuan dagoen bere etxe ondoko barruko plazan jarri den mahai eta aulkidun terrazari dagokionez.

Kexak zioen bide publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeko ordenantza arautzaileak leku horretan mahai eta aulki errenkada bat jartzea baino ez duela baimentzen. Jardueraren titularrak ez ditu baldintza horiek betetzen, parkerantz bi altzari errenkada edo gehiago jarri baititu. Horrek zarata handiagoa eta eragozpenak eragiten dizkie auzotarrei, hain eremu mugatuan pertsona asko biltzen baitira.

Behin kexa izapidetzea onartuta, erakunde honek informazioa eskatu zion idatziz Derioko Udalari 2005eko maiatzaren 25ean. Jasotako erantzunak zioenez, “*erabilera publikoko eremu pribatua*” da eta horretara 80 etxebizitzak ematen dute. Arrazoi beragatik ez omen da beste kexarik egon eta plazako bertako auzotarrak, famili taldeak gehienak, izaten omen dira instalazio horiek erabiltzen dituztenak.

Mahaiak eta aulkiak “*jabari publikoan*” jartzeko baimena 2003ko irailaren 11n eman zuen udalak, zenbait baldintzaren pean, bide publikoan aulkiak, mahaiak, terrazak eta mahai hankabakarrak jartzeko udal ordenantza arautzailearekin bat etorritz.

Beste zenbait baldintzen artean, baimenak zioen mahai errenkada bakarra jarriko zela, beren aulkiekin, eta horrek ezin zezakeela establezimenduaren fatxadaren luzera gainditu. Halaber adierazi zuen baimena bera, indarraldia eta instalaziorako baimendutako ordutegia behin-behinekoak zirela.

2. Aurrekari hauek aztertuta, zenbait balorazio egin ahal izan genituen eta horiek Derioko alkateari helarazi genizkion, udalak onartu eta bere egingo zituelakoan.

Erreklamatzailak helarazi zigun dokumentazioaren arabera, udalbatzako arkitekto tekniko aholkulariak 2005eko maiatzaren 18ko txostenean adierazi zuen, hainbat kexaren berri izan ondoren eta inguruko bi tabernetan terrazak ustiatzeko baldintzak ez betetzearen inguruko hainbat salaketa aztertu ostean, beharrezkotzat jo zuela terrazek har zezaketen espazioa mugatzea.

Bestalde, Udaltzaingoaren 2004ko abuztuaren 5eko txostenak aipatu zuen, zenbait egunetan eta ordu desberdinetan establezimendua ikuskatu ondoren, “kasuren batean” udal ordenantza ez zela betetzen ikusi ahal izan zela. Hala ere, azpimarratu zuten ikuskapena soilik eskola-egunetan egin zela eta, beraz, ez zekitela terraza horrek asteburutan eta jaiegunetan zuen jarduera.

Hain zehaztasun gutxi duen txostenean aipatzen denetik, honakoa ondoriozta zitekeen:

- Ikuskapena egin zen egunetan, eguna eta ordua zehaztu ez arren, ordenantzaren 7. artikulua urratu zela egiaztatu zuten.
- Ez zen zehaztu zer urratze mota zen, ezta zein mailakoa ere, nahiz eta behin baino gehiagotan gertatu zela interpreta zitekeen, inoiz edo behin egin zela aipatzen baitzen.
- Ez zekiten asteburutako egoera zein zen, kaltetuaren arabera, horixe izan arren gogaikarriena, eta, beraz, salatutako jarduera ez zen unerik gogaikarrienean ikertu eta alderatu.



Aipatutako gabeziak gorabehera, txostenean baimenaren baldintzak betetzen ez direla frogatu zen. Hala ere, alkateak, urriaren 27ko 1012/2004 Dekretuaren bidez, erabaki zuen kaltetuari eskatzea **bere salaketaren baldintzak eta arrazoia zehatz zitzala**, Udaltzaingoaren txostenetatik ezin ondoriozta baitaiteke *“behar besteko funtsa duen arau-hausterik”*.

Jasotako dokumentazioan ez zen azaltzen interesdunari ebazpen horren berri eman zitzaionik. Nolanahi ere, izapide horrek ere ez lukeen justifikaziorik izango, Administrazioaren eskumena baita salatutako gertakarien egiazkotasuna modu arrazoituan zehaztea, nahiz eta, ordenantza horrekin bat etorritik, hori ez den oztopo prozedurak aurrera egin ahala arau-haustearen funtsa eta kasuan kasuko zigorra argitzeko, ordenantzaren 23. artikulua dioenaren arabera.

3. Hala ere, Derioko alkatearen erantzunak honakoa aipatzen zuen:

- Erabilera publikoko zortasuna zuen jabari pribatuko plaza zela berretsi zuen eta hori zaintzea eta babestea udalari zegokiola, bere eskumenari ezarritako legezko muga barruan.
- Baimenean “jabari publikoa” agertzen zen, baina hori eredu okerra erabilitezagatik egindako hutsegitea izan zela onartu zuen.
- Bertan instalatutako terrazak eremutan banatuta eta mugatuta daude eta, alkatetzak zekienez, erabiltzaileek behar bezala errespetatzen zuten.
- Adierazi zuen, tamalez, eta etorkizunean egoera hori aldatzeko neurriak hartzea aurrekusi zuten arren, udalbatzak ez zuela udaltzaingorik asteburutan.

Erantzun hori ikusita, udalari azaldu genion mahaiak eta aulkiak jartzeko baimenak jabari pribatuko eta erabilera publikoko zona ukitzen zuela eta, beraz, ordenantzaren 14. artikuluekin bat etorritik, interesdunak, beharrezko gainerako dokumentazioarekin batera, lurzoruaren titularren baimena ere aurkeztu beharko lukeela, hori ezinbestekoa baita kasuan kasuko lizentzia emateko. Nolanahi ere, ez genuen argi baldintza hori bete zenik.

Erreklamatzailak eta kaltetutako beste auzotar batek ekarri zuten dokumentazioak –argazki-materiala– eta salaketek zioten lizentzian ezarritako baldintzak ez zirela sistematikoki betetzen; horren inguruan ez da aipatzen alderdi horiek zehazteko espedienterik izapidetu zenik, ezta zein egun eta ordutan ikuskatu ziren ere jarduera horiek, kaltetutakoek dokumentu bidez frogatutakoa alderatu eta, hala bazegokion, ezeztatzeko.

Egoerarik larriena asteburutan antzematen den arren (gainera, udalak orduan ez du udaltzaingorik), kontua da, dirudienez, urratzeak astean zehar ere gertatzen direla eta orduan ez lukeela eragozpenik egon behar ikerketa-lana egiteko, ezta salatzaileak ekarritako datuak (nagusiki, asteburuen ingurukoak) aztertu eta baloratzeko ere.

Ildo horretatik, aurreko gure idazkietan esandakoa berretsi genuen; alegia, kasuan kasuko aldeko espedientearen bidez salaketak alderatzeko lanak egin zitezela, salatutako gertakarien egiazkotasuna modu arrazoituan zehazte aldera.

4. Udalak berriro erantzun zigun eta jakinarazi zigun, erabilera publikoko espazio pribatuetan terrazak eta mahai hankabakarrak jartzeko baimena ematerakoan, ez zuela inoiz lurzoruaren titularren baimena eskatu. Halaber adierazi zigun terrazen mugapena ordenantzako aurreikuspenekin bat etorritik egin zen. Gainera, aipatu zuen Udaltzaingoak edo Bulego Teknikoak egindako txostenetatik bakar batean ere ez zuela beste urratzerik egiaztatu, okupatutako espazioaren mugapenari dagokiona izan ezik, eta hori ere, gainera, gaez bakarrik gertatzen zela, argazkietan bertan ikus daitekeen moduan.
5. Azkenik, kexa aurkeztu zuen pertsonak adierazi zigun egoerak aurreko ekitaldikoaren berdina izaten jarraitzen zuela. Apirilaren 29an eta 30ean eta maiatzaren 1ean, berriro instalatu ziren mahaiak eta aulkiak eta horrek auzotarrei pentsarazi zien jarduerak ez zuela beharrezko baimena. Orobat, terrazen mugapena ere urratu zen. Pertsona horrek eta kaltetutako beste auzotar batek egoera hori salatu zuten Derioko Udalean, maiatzaren 4an aurkeztutako idazkiaren bidez, eta bertan eskatu zuten, halakorik izanez gero, emandako baimenaren berri eman ziezaiela, espedientearen interesa zuten alderdi gisa. Aurrekoetan bezala, orduan ere salatutako gertakarien argazkiak ekarri zituzten, froga sinesgarri gisa.

Horren aurrean, 2006ko uztailaren 10ean, aurreko gure idazkietan ere aipatu genituen arrazoiak azaldu genituen eta, jasotako azken erantzuna aztertuta –aurreko atala–, egiaztatuz genuen udalak onartzen zuela baimendutako baldintzak urratu zirela, horren inguruko neurririk hartu ez zuten arren.

Azken komunikazioan, 2006ko abuztuaren 4an jasotakoan, udalak jakinarazi zigun terraza jartzeko lizentzia 2006ko apirilaren 28an eskatu zela eta kasuan kasuko baimena 2006ko ekainaren 19an eman zela (ebazpen horren berri uztailaren 24an eman zitzaizen salatzaileei).

Bestalde, Udal Bulego Teknikoak instalazioaren mugak zehaztu zituen eta oraingoz ez da irregularitasunen bat egon denik adierazi, erreklamatzailerak salaketa gehiago eta, froga gisa, dagozkien argazkiak aurkeztu dituen arren.

### Gogoetak

1. Nahitaez laburbildu egin behar izan dugun zerrenda luze horren bidez izapidetutako kexa-espedituearen aurrekariak adierazi ostean, 2003az geroztik erreklamatzailerak jasan behar izan dituen gorabeherak irudikatu ahal izateko, udal jarduera ordenamendu juridikora egokitzen ote den aztertuko dugu.

Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak 77. artikuluan dio jabari publikoko ondasunei ohiko erabilera komun berezia emateko lizentzia eskatu behar dela jabariaren izaera, hori xedemateko eta erabilera publikorako uzteko egintzak eta izaera orokorreko aginduak aintzat hartuta. Bide publikoak mahaiak eta aulkiak jartzea jabari publikoaren erabilera komun berezia da.

Bide publikoan aulkiak, mahaiak, terrazak eta mahai hankabakarrak jartzeko ordenantza arautzaileak, 1991ko uztailaz geroztik indarrean dagoenak, honakoa dio zioen azalpenean:

*“Araupetzea eskainitako zerbitzuaren izaera eta, zerbitzua eskaintzeari dagokionez, gizarte eskakizunak eta gehiengoaren nahiak aintzat hartuta egingo da.*

*Bide espazioa modu arrazionalen erabiltzea onuragarria izan daiteke udallerriarentzat, zerbitzua lortzeaz gain, gertakari kultural gisa, inolaz ere erdeinatu ezin den biltzeko eta eztabaidatzeko gunea sor baitaiteke; hortaz, zentzuzkoa dirudi bide espazioa helburu hori lortzeko erabiltzen uztea.*

*Hala ere, bide espazioaren erabilera hori modu ordenatuan egin behar da, honakoak bermatuz: ahalik eta pilaketarik txikiak, irisgarritasun egokia, oinezkoen zirkulazio egokia eta bai erabiltzaileen bai jarduerak dituen trazatuari eta ezaugarriei lotutako pertsonen eta jardueren eskubideen eta ondasunen errespetua.”*

Hortaz, espazio publikoaren erabilera instalazio mota honekin bateragarria izateak udalaren ustez dakartzan onurak baloratu gabe, ordenantzak abiapuntu gisa dio beharrezkoa dela bide espazioa erabiltzaileen eta pertsonen eskubideak eta ondasunak errespetatuz ordenatzea.

Ordenantzaren 3. artikulua aplikazio eremua arautzen du. Horrela, dio ordenantza erabilera publikoko espazio guztietan dela aplikagarria, horiek jabetza publikokoak edo pribatukoak izan.

Guri interesatzen zaizkigun ondorioetarako, 14. artikuluan interesdunak lizentzia-eskabidearekin batera aurkeztu behar duen dokumentazio osagarria ezartzen da eta, zehazki, agintzen du *“Erabilera publikoko eta jabetza pribatuko lurzoruan jarri beharreko instalazioei dagokienez, **lurzorua**ren titularren **baimena**”* ekarri behar dela.

Bestalde, 23. artikulua emandako baimenaren baldintzak edo ordenantzako aginduak ez betetzearen inguruan dihardu eta kasuan kasuko zigorrak arautzen ditu. Isunaz gain, honakoa ere aurreikusten du:

*“b) Lizentzia baliogabetzea eta instalazioa kentzea, udal errekerimendua betetzen ez bada edo baldintzak behin baino gehiagotan betetzen ez badira.*

*c) Aurreko atalean aipatutakoari jarraiki, lizentzia baliogabetzen bada, establezimendua gaitasungabetu egingo da, gehienez ere bi urtez, etorkizunean ordenantza honetan ezartzen diren baimenak lortzeko.”*

Ordenantza arautzaileaz gain, kontuan hartu beharrekoa da baita ere zehatzeko ahala erregulatzen duen arautegia –Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea–, prozedurak aurrera egin ahala, urratzearen funtsa eta kasuan kasuko zigorra zehatzeko, ordenantzaren 23. artikulua dioenaren arabera.

Azkenik, kontuan hartu behar da gainera tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak ekarri duen legezko gaikuntza. Zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 139. artikulua berriak dio, toki intereseko bizikidetzako harremanak eta horiei dagozkien zerbitzu ekipamendu, azpiegitura, instalazio eta espazio publikoen erabilera behar bezala antolatzeko, toki erakundeek, arloko arautegi espezifikorik izan ezean, arau-hausteen motak finkatu ahal izango dituztela eta zigorrak ere ezarri ahal izango dituztela kasuan kasuko ordenantzetan jasotako betebeharrak, debekuak edo mugak betetzen ez badira.

## 2. Arauzko testuinguru honetan, Derioko Udalaren jarduna aztertu behar dugu.

Udalak, behin eta berriro, ordenantza arautzailearen 14. artikulua urratu du, erakunde honi helarazi dizkion jakinarazpenetan berriaz onartu duen bezala. Erabilera publikokoa eta titulartasun pribatukoa den plaza dela ikusita, lurzoruaen titularren baimena eskatu beharko luke, hala badagokio, eskatutako instalaziorako baimena emateko. Erabilera publikoko zortasuna duen espazio horretako jabekideen komunitateak kasuan kasuko baimena eman beharko luke, legez eraturako bere organoen bidez.

Hala ere, udalak ez die jaramonik egin bere ordenantzei, 2006ko ekainaren 19an eman zen azken lizentzia ikus daitekeen bezala.

Bestalde, behin eta berriro eta froga gisa ekarritako argazkien bidez erreklamatzailerak eta kaltetutako beste auzotar batek salatu dute ez direla betetzen aulkiak, mahaiak, terrazak eta mahai hankabakarrak jartzeko baimenean jasota dauden baldintzak. Salaketa horien aurrean, udalak ez du espedienterik bideratu salaketa horiek egiaztatuz eta horren arabera jarduteko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **27/2006 GOMENDIOA, abenduaren 20koa, Derioko Udaleri egina**

Bide publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeko ordenantza arautzailearen 14. artikulua bete dezala eta, horretarako, lurzoruaen titularrei baimena eska diezaiela, legezko eran, Bestorrene kaleko X.aren ondoan terraza jartzeko.

Hala badagokio, kasuan kasuko espedientea izapidetu dezala leku horretan terraza instalatzeko eman zen baimenean ezarritako baldintzak ez betetzearen inguruan aurkeztu diren salaketak egiaztatzeko, ordenantza horren 23. artikuluaekin bat etoriz.

## 9. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

**3/2006 Gomendioa, otsailaren 20koa, Atxondoko Udalari egina, lurzati bat itxeari buruz hirigintzako legeria beteko dela bermatzeko neurri egokiak har ditzan. Ez da onartu.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek itxitura bat jarri zuen bere jabetzako orubean, Arrazola auzoko (...)n, horretarako behar den hirigintza-baimenik izan gabe.

Kexagileak salatu egin zuen landarezko itxitura hori, era naturalean hazten baita eta planeamenduan ezarritako xedapenak gainditzen baititu. Udalak, ikuskatzeko bisita bat egin ondoren, hauxe eskatu zion luraren jabeari 1998ko urtarrilean: heskai hori baimenduta dagoen gehienezko altuerara egokitu zezala, hau da, 1,50 metrotara, harrizko edo hormigoizko horma itsua bazen, eta 2 metrotara, konbinatutako hesia edo landarezkoa bazen.

Eskaera hori egin arren, luraren jabeak ez zuen itxitura egokitu; horregatik, alkateak –2002ko urriaren 7ko Alkatetza dekretu bidez– ostera eskatu zion bete zezala Atxondoko Udalaren arau subsidiarioetan lurzoru urbanizazineko itxiturez ezarrita dagoen araudia.

Kexagilearen behin eta berriz dio ez dela udalaren eskaera bete, baina inon ez dago idatziz jasota udalak hirigintzako araudia beteko dela bermatzeko neurririk hartu duenik.

2. Kexa hau behar bezala bideratzeko asmoz, hirigintzako legezketasuna berreskuratzeko burutu zituen jardueren gaineko informazioa eskatu zion Arartekoak udalari, baita bideratutako espedientearen kopia bat ere.

Informazio hori lau bider eskatu eta gero, azkenean, Atxondoko Udalak txosten labur bat igorri zigun. Bere ustez, administrazio horrek ez zuen betearzterik izan lanen sustatzaileari egin zion eskaera, bada, dekretua hari jakinarazteko hainbat ahalegin egin ostean, udalak ez baitzekien ziur hark udal erabakia jaso zuen ala ez.

3. Informazio hori ikusirik, udalari berriz idatzi eta adierazi genion udal administrazio horrek badituela nahikoa bitarteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean xedatutakoak, herritarren prozedurazko eskubideak kaltetu gabe administrazioaren erabakiak betearazteko.

Erakunde honen iritziz, udalak administrazio-erabakiak betearaziko zirela –dekretua, kasu honetan– bermatu behar zuen, itxitura hirigintzako araudira molda zedin. Bazituen horretarako bitartekoak, esate baterako, nahitaezko betearazpena, baldin eta zegokionak jarduten ez bazuen, 30/1992 Legearen V. kapituluak ezartzen duenaren arabera.

Hirigintzako legezketasuna berreskuratzeko burutu zituen jardueri buruzko argibideak eskatu genizkion berriz udalari. Halaber, bideratutako administrazio-espedientearen kopia bat bidaltzeko eskatu genion, eta han ager zitezela jakinarazpen-ahaleginen ziurtagiriak eta jakinarazpena egitea ezinezkoa gertatu zela adierazten zuena.

Administrazio horrek, berriro ere, erantzuna bidaltzeko denbora gehiegi luzatu zuenez gero, erakunde honek lau aldiz eskatu behar izan zion hura bidal zezan. Era berean, Arartekoak agerian jarri behar izan zion udal horrek jarrera oztopatzailea zuela, eta jarrera horren ondorioez ohartarazi behar izan zion.

Aurrekoa gorabehera, alkateak hauxe besterik ez zioen txosten bat igorri zuen: “*les comunicamos que esta Administración no ha realizado gestiones posteriores a lo comunicado en escrito de referencia n° 303/2003*”.

Informazio hori eta kexagileak alegatutako gainontzeko zertzeladak ikusirik, eta horien edukiak aztertu ondoren, beharrezkoa iruditu zaigu zuri gogoeta hauek helaraztea:

#### Gogoetak

1. Ezer baino lehen, herri-erakundeek hirigintzako diziplina betearazteko duten jarduera-eremua zehaztu behar dugu. Eskumen horren oinarrian, herri-administrazioek –batik bat udalek– administratuek lurrean egindako edozein jarduera kontrolatzeko duten ahalmena dago.

Kontrol hori honetan datza: dagozkien zerbitzuei udalaren baimena eskatu behar zaie lanak hasi baino lehen edo erabilerara bat aldatu aurretik. Hirigintzako baimen hori egintza arautua da, eta horren bidez administrazioak bakar-bakarrig egiaztatzen du obraren proiektuan aurreikusitako lanak hirigintzako planeamendura egokitzen diren ala ez, 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuak 178.2 artikuluan xedatutako prozeduraren arabera.

Beste alde batetik, lurzati batean lehen erabilerarako eman zen baimenarekiko eraikuntza berri bat edo erabilerara-aldaketa bat egin nahi bada, era berean, udalaren nahitaezko baimena behar da.

Legez kontrako eraikuntza-lanak edo erabilerarik baldin bada, udalak esku hartu beharra dauka, hirigintzako legezkotasuna babeste aldera. Horretarako, 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuak 185. artikuluan ezarri du zein prozedura erabili behar den baimenik gabeko edo baimenean ezarritako aginduei doitzen ez zaizkion bukatutako lanak daudenean, betiere lanak bukatu zirenetik lau urte igaro ez badira. Artikulu horretan agindutakoaren arabera, alkateak zera eskatu behar dio lanen sustatzaileari: bi hilabeteko epean, beharrezko baimena eska dezala edo lanak baimenera molda ditzala. Baldin eta lanen sustatzaileak baimenik eskatzen ez badu, baimena ukatzen bazaio edo erabilerara egokitzeko lanik egiten ez bada, udalak lanak botatzeko agindua eman behar du, interesdunaren kontura, eta behin betiko galarazi behar ditu lan horiek eragindako erabilerak.

2. Erakunde honi aztertzeko azaldu zioten kasuan, zera eztabaidatzen zen: udalak ez zuela jarduten Arrazola auzoko (...) kaleko (...)n egindako itxitura-lanak Atxondoko planeamenduko xedapenetara egokitu zirela bermatzeko.

Inguruko auzokide batzuek jarritako salaketen ondoren, Atxondoko Udala toki hura ikuskatzera joan zen eta lursailaren jabeari adierazi zion (1994ko maiatzaren 16ko txostena) zein xedapen ezartzen dituzten planeamenduko arau subsidiarioek urbanizagarria ez den lurzorian egindako itxiturez. Geroago, hesiaren jabeak kasurik egin ez zuenez gero, beste hainbat salaketaren ostean, alkateak erabaki bat hartu zuen 1998ko urtarrilaren 23an. Erabaki hartan, landatutako heskaiak baimendutako gehienezko altuera gainditzen zuela adierazi zuen, eta, horregatik, planeamenduan xedatutako altuerara egokitu zezala eskatu zion jabeari. Aldi hartan ere jabeak ez zuen itxitura legeriara egokitu, eta errekerimendua ere ez zuen bete. Erakunde honek ez dauka udalaren erabakia betearazteko administrazio-neurriren bat hartu zela erakusten duen agiririk. 2002ko urriaren 8an, ostera Alkatetzaren ebazpen bat eman zen, eta orube hartan lurzatiak itxeri buruzko araudia hausten ari zela adierazi zen bertan; horregatik, jabeari eskatu zion itxitura legeriara molda zezala edo bere eskubidearen alde egoki iruditzen zitzaiona alega zezala. Ebazpen hartan ohartarazi zitzaion, bai horixe, eskatutakoa hamabost eguneko epean bete ezean, udalak berak betearaz zezakeela, interesdunaren kontura.

Alabaina, erakunde honek ez dauka idatziz jasota lanen sustatzaileak itxitura legezkotasunera egokitu duenik, ezta udalak agindutakoa betearazteko neurririk hartu duenik ere.

3. Itxitura-lanen nolokotasuna eta eraiki zenetik igaro den denbora gorabehera, Atxondoko Udalarik gogorazti behar diogu egindako lanak modu frogagarrian legeztatu ditazatela eskatu behar dietela udal administrazioek interesdunei. Horretarako, lehen aipatu dugunez, lanen sustatzaileek epe jakin bat dute hirigintzako baimena eskatzeko edo lanak berriz lehengo egoeran jartzeko (1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 185. artikulua eta Hirigintzako Diziplinako Araudiaren 31. artikulua).

Kasu honetan, udalak hainbat txostenetan ondorioztatu du itxitura-lanak ez datozela bat Atxondoko planeamenduko arau subsidiarioekin, ez lehengoekin, ez azaroaren 18ko 729/1998 Foru Aginduaren bidez onartutakoekin ere. Orobat, landarezko itxitura hori etengabe haziz doan neurrian lege-haustea jarraitua denez gero, administrazio horrek oraindik baditu esku hartzeko aukerak, administrazioak denbora luzean jardun ez badu ere.

Administrazio horrek, errekerimendu hori eta jakinarazpen-ahaleginak egin ondoren, legez kontra erakitakoa eraitsi behar zuen, lanen sustatzaileak agindutakoa betetzeko borondaterik ez zuela ikusita, lan horiek ezin baitziren legezatu.

4. Udalak ez du, ordea, horren ondoren inolako jarduerarik burutu itxitura hirigintzako legeriarekin bat datorren ala ez egiaztatzeko. Udalak, bere jarduerarik eza justifikatzeko, Alkatetza dekretua jabeari benetan jakinarazterik ez zuela izan alegatzen du.

Lehen adierazi ahal izan genuenez, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– 59. artikuluan adierazten du nola eta zein prozedura erabiliz egin behar diren administrazio-egintzen jakinarazpenak. Udalak ez dio erakunde honi administrazio-espeditente hori bidali eta ez daki jakinarazpena egin zen edo, bestela, hura ez zen onartu. Orobat, ez digu adierazi jakinarazpena udalaren ediktu-taulan jarri zuenik edo Bizkaia Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuenik. Informazio hori eskatu diogun arren, ez dakigu zergatik ez zen jakinarazpen hori egiterik izan, ezta nori lepora lekiokkeen jakinarazpena prozedurak ezarritakoaren arabera egiterik ez izatea. Edonola ere, azaldu genion Administrazio Prozeduraren Legeak nahikoa baliabide dituela jakinarazpenak betearazteko eta administrazioen beharrezko eraginkortasunaren kontrakoak diren atzerapenak saihesteko, betiere herritarrek prozedura eskubide bermatzailea izateko duten eskubidearekin bateragarriak badira.

5. Bukatzeko, zera adierazi behar dugu: udala ezin dela ezer egin gabe egon legeria hausten dutenen jarduerarik eza ikusirik, eta, une oro, administrazio-erabakiak beteko direla bermatu behar duela, adibidez, itxitura hori hirigintzako araudira egokitzeko agindu zuen dekretua.

Horregatik, interesduna lanak legezatzera behartu ez zuenez, edo lan horiek hirigintzako legeriarekin bat ez zetozela uste zuenez gero, une hartan bertan lanak erauts zitezen agindu behar zuen –horretarako aparteko ahalmena baitu– eta agindua nahitaez betearaz zezakeen, 30/1992 Legeak V. kapituluaren ezartzen duen bezala.

Halaber, komeni da aipatzea udalak berariaz ebatzi behar dituela administrazio-prozedura guztiak, 30/1992 Legearen 42 eta 44. artikuluetan xedatutako moduan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **3/2006 GOMENDIOA, otsailaren 20koa, Atxondoko Udalarri egina**

Hirigintzako legezketasuna berreskura dezala (...) auzoko lurzatian egin diren itxitura-lanei dagokienez, 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuak 185. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, hala badagokio, nahitaez betearazteko neurri egokiak hartu beharko ditu, hirigintzako ordena lehengoratu dela bermatzeko, eta betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legean –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan– xedatutako prozedura erabili beharko du.

**4/2006 Gomendia, otsailaren 22koa, Ordiziako Udalari egina, helburu honekin:**

**Oianguren eraikinaren eta horren jabetzen aprobetxamendu eta ustiapenerako emakida esleitzeko sinatu zen kontratua baliogabetu dezan, zehazki, proiektuaren hautabide edo aldaera bezala aurkeztutako zatia.**

**Aisialdi eta atsedenerako instalazio eta erabilpen berriak gauzatzeko eta ustiatzeko proiektua esleitzeko araudiak aurreikusten duen lege prozedura erabil dezala, behin plan berezia eta IEA legeak agindu bezala bideratzen direnean. Bertan behera utzi da.**

Aurrekariak

1. Herritar plataforma batek erakunde honetara jo zuen ez zegoelako ados Ordiziako Udalak hartutako erabakiekin, zehazki, gaur egun jendearentzat orokorrean doako sarrera duen landa parkearen ustiapenaren esleipenarekin eta parke hori etorkizunean ordaindutako aisialdi gune mugatua bilakatzearekin.

Kexak azaltzen zuen Ordiziako Udalak onartutako esleipenak, beren ustez, Oianguko landa parkea 40 urtez ustiatzeko emakida zekarrela berekin, eta era berean, natura eta paisai balioak babestu gabeko guneetara iristeko muga jartzen zuela jendearentzat. Gaur egun parke horri ematen zaion erabilerarekiko aldaketa erradikal hau inolako informazio prozedurarik edo herritarren parte-hartzerik gabe onartu zen, eta aurretik derrigorrezkoa den Plan Berezia eta Ingurumen Eraginari buruzko Azterlana –IEA bezala ezagutu ohi dena– bideratu izan gabe.

Kexak era berean azpimarratzen zuen lizitazio eta esleipen prozeduran hainbat irregulartasun zeudela, eta horiek onartutako esleipen kontratua baliorik gabe uzten zutela.

2. Erakunde honi helarazi zaizkion aurrekarien arabera, Ordiziako Udalak kontratazio espediente bat bideratu zuen aipatutako ondasun publikoen emakida kontratua esleitzeko.

Aprobetxamenduaren esleipena arautzen zuen baldintza ekonomiko eta administratiboen pleguak, besteak beste, honako klausulak ezartzen zituen:

- **Xedea:** gutxieneko zerbitzu bezala ezartzen da eraikinaren ustiapena (bizitokia eta taberna-jatetxearen ustiapena) eta Oianguren finkaren –edo haren inguruko lurren zaintza eta mantentzea. Pleguak azpimarratzen zuen gutxieneko zerbitzu horiek bermatuta zeudenean, ingurumena hobetzearekin eta mantentzearekin bat egiten zuten aisialdi edota kirol edota turismo edota atsedenleku hautabideak jasotzen zituzten proiektuak baloratuko zirela.
- **Araubide juridikoa:** kontratu administratibo berezia, izaera publikoa duten ondasunen aprobetxamendu pribatiboa izateagatik. Beraz, zehazten zuen kontratua lehenik baldintza agiriaren beraren bidez arautuko zela; bigarrenik, ondasun publikoen aprobetxamenduari buruzko toki araubidearen bidez; eta hirugarrenik, aplikatu dakizkiokkeen kontratazio arauen bidez.
- **Emakidaren iraupena:** 10 urte kontratua formalizatzen zen unetik; epe hori 50 urtera arte luzatu dezakete lizitatzailak, esleipendunak aurreikusten duen inbertsioaren arabera.
- **Kanona:** 30.000 euro urteko. Hala eta guztiz ere, lizitatzailak proposa ditzaketan inbertsioen arabera, aukera egongo litzateke hori aldatzeko.
- **Parte hartzeko aukera:** pleguak ez zuen zehazten kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala frogatzeko biderik.
- **Bermea:** urteko esleipenaren zenbatekoaren %4.

3. Emakida kontratua, 2005eko apirilaren 29an formalizatu zena, aurkeztu zen erantzukizun mugatuko sozietate bakarrari esleitu zitzaion, honako baldintza hauekin:

- **Xedea:** gutxieneko zerbitzuaz gain, 1.800.000 euroko zenbatekoa izango duen aisialdi proiektu baten gauzatu eta ustiatzea. Obrak, bi urteko epean hasi beharko dituzte eta beste urte beteko luzapen justifikatua emango da. Hori guztia aurretik Plan Bereziaren eta IEAren tramitazioaren baldintzapean egongo da.
- **Iraupena:** 40 urte.
- **Kanona:** hamabigarren urtean 1.500 euroko kanon baten ordaintzen hasten da, 31. urtera iritsi arte, eta ondorengoetan 30.000 euroko kanona izango da.
- **Behin betiko bermea:** 1.200 euro.
- **Kontratuaren lagapena:** aipatutako emakidaren ustiaketarako kontratuaren lagapena sei hilabeteko epean eratuiko den enpresa berri bati emango zaio.
- **Abal osagarria:** 120.000 euroko zenbatekoa, eta udalak esleipendunak eskatutako emakidaren hipoteka baimendu aurretik.
- **Lursailen erabilgarrtasuna:** proiektu osoa gauzatzeko, beharrezkoa da emakidan sartzen ez diren lursailak okupatzea. Hala eta guztiz ere, udalak –horiek lortuko balitu– esleipendunaren eskura jartzeko konpromisoa hartzen du emakidaren erreskatearen arabera kalkulaturako kanonarekin.

4. Behin udalak helarazi zigun dokumentazioa aztertu genuenean, erakunde honek egin zuen hausnarketa azaldu genuen. Legearekin bat ez zetozen zenbait jarduera antzeman genituen, batez ere, kontratuaren tramitazioari eta esleipenari dagokienez. Horregatik, Administrazioari espedientea ofizioz berrikusteko eskatu genion, zerbitzua ematen jarraitzea oztopatu gabe, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina –APKLTB bezala ezagutzen dena– onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 LEDen 22. artikulua ezarri bezala.

Balorazio horiek bat datoz funtsean honako gomendio honek oinarritzat hartzen dituen iritziekin. Horregatik, behar ez diren errepikapenak ekidindo ditugu azken horien edukira lotuz.

5. Udalak uko egin die erakunde honek azaldutako iritziei. Besteak beste, kontratuaren izaerari eta baldintzen pleguaren edukiari buruzkoak ziren eta, era berean, esleitutako proposamenaren estaldura eta hautabideen mugaketa jasotzen zituen. Laburbilduz, honako gai nagusi hauei buruz du udalak iritzi ezberdina:

- Uste du pleguan behar bezala mugatzen direla esleipendunak –1.800.000 euroko zenbatekoarekin– aurkeztutako proiektua ahalbidetzen duten hautabideak.
- Ukatu egiten du Udak Korporazioen Ondasunen Araudiari lotzen zaion herri-jabariko emakida bat denik, eta uste du Kontratuei buruzko Legea aplikatu behar dela zuzenean, kontratu administratibo berezien esparrura moldatzen delako.
- Egin beharreko inbertsioak emakidaren ezaugarrien aldaketa justifikatzen duela uste du, baldintzen pleguak ahalbidetzen zuen bezala.
- Uste du erakunde honek kontratazio espedientea eta Plan Bereziaren onarpena izango dena nahasten dituela.

Onartzen du nolabaiteko hutsunea egon daitekeela kontratuaren arautzeari dagokionez, batez ere aurkeztutako erabilpen hautabideei eta horien arautzeari dagokionez, gutxieneko zerbitzua bakarrik kudea daitekeen denboraldian. Horren ondorioz, proposaturako ustiapen proiektutik aterako diren betebeharrei eranskin bat gehitzeko konpromisoa hartzen du udalak. Hori ere, baldintzen pleguak ahalbidetzen duen aukera da.

Bestalde, Ordiziako Udalak harridura azaldu zuen erakunde honek horrelako gai batean esku hartu izanagatik. Izan ere, benetan irregulartasunik egon balitz, beste lizitatzailer bati egin diezaioketen kalte –kasu honetan ez da halakorik gertatu–, baina inolaz ere ez gure laguntza eskatu zuen plataformari.

#### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, eta gaiaren funtsean sartu aurretik, derrigor aipatu behar dugu erakunde honen esku hartzearen izaera, administrazioen jardunbidearen kontrolerako organoa denez.



Arartekoaren esku-hartzearen oinarria, jakina denez, administrazioaren jardunbidea ordenamendu juridikora egokitzen dela objektiboki kontrolatzea da, partikular batek kexa bat adierazi duen edo ez kontuan hartu gabe. Horrela, erakunde honen ikerketa kontrol helburu hori lortzeko bideratzen da, bertan aurki daitezkeen interesak –prozedura hasi duten pertsonenak ere bai– prozesu horretatik kanpo utziz.

Partikular batek prozedura administratibo batean parte hartzeko duen bidezko interesa –arauek exijitzen duten baldintzen arabera– modu malguan eta mugarik gabe ulertu behar da parlamentuko ordezkarien kexen bideratze-prozedurei dagokienez, horiek gure ordenamenduan sartzen direlako Administrazioaren ohiko kontrol bideen bitartez bete ezin diren esparruak betetzeko.

Horregatik, Arartekoak esku har dezake, baita ofizioz ere, edozein jarduera administratiboren aurrean, ordenamendu juridikoarekin bat datorren aztertzeko, eta erakunde hau sortu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak ezartzen dituen mugak bakarrik ditu.

Erakunde honen esku-hartzearen zentzia eta arrazoia azalduta, hurrengo ataletan aurrekarietan aipatu ditugun kontuak aztertuko ditugu, kontratazio espedientetik eratorritako kontuak hain zuzen.

2. Baldintzen pleguak –eta, batez ere, aurkeztutako proposamenak eta esleitutako kontratuak– azaltzen zuen lehenengo kontua kontratuaren xedea mugatzearena zen, eta aldaerak onartzeko ematen zuen aukera, gutxieneko zerbitzua bermatu ondoren.

Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduak (OE) –ekainaren 13ko 1372/1986 ED– 80 artikulua 1. eta 2. klausuletan zehazten du emakidaren eta hartzen dituen mugen xedea jasoko dela, eta interesdunak obrak edo instalazioak egin beharko balitu, horiek ere bertan jasoko lirakekeela.

Udalari bere garaian helarazi genion hausnarketan azpimarratu genuen baloratuko ziren hautabideak kontratuaren xedearekin hertsiki lotutakotzat jo behar zirela. Izan ere, ezin ahatz daiteke kontratuaren xedea eraikin batek dituen zerbitzuen ustiapena eta parkea mantentzea zela. Beraz, proposa zitezkeen aldaerak jarduerekin edo balizko hobekuntzekin lotutakoak zirela ulertu behar zen, eta jada bertan dauden instalazioetan gauzatu beharrekoak izango lirakeke, eta ez erabilpen edo instalazio berrietan, horrela izango balitz kontratuaren xedea mugagabea izango bailitzake.

Interpretazio hori zertzelada honetan oinarritzen zela gaineratu genuen: kontratuaren xedea aplikatu beharreko araudiak onartutako erabilpenen araberakoa zen, eta pleguak kontratu horren xedea zehazten zuen. Erabilpen onargarrien araudia ordea –Plan Bereziaren eta IEAren aurkezpenak baldintzatzen duena– ezin onar zitezkeen baimendutako erabilpen bezala lizitazioaren unean, eta horixe zen, hain zuzen ere, guk gaineratzen genuena. Hori horrela ez balitz, bideratu gabeko Plan Berezi baten gauzatzea esleitutako litzateke, erabilpen edo/eta instalazio berriak jartzeko dauden baldintzen edo ezaugarrien inolako berririk izan gabe. Horrela, hasiera batean, ez zen posible emakidadunak bere gain hartu behar zituen betebeharrak eta eskubideak zehaztea, horren garapenerako planteamendua onartzeke egon zitekeelako.

Ulertzen dugunaren arabera, onartutako baldintzen pleguak bai zehazten zuela xede zehatz bat, gutxieneko zerbitzua hain zuzen, baina lizitatzailerek aurkeztu zitzaizketen hautabideak gaur egun dauden instalazioetan gauzatu beharreko jarduera edo hobekuntzak bakarrik izan zitezkeen, eta ez aisialdi, turismo edo atsedenerako hautabiderik. Are gehiago horrelakoek proiektu baten zehaztapen propioa eta Plan Berezi baten bideratzea behar dutenean, aurreko atalean azaldu dugun bezala.

Udalak aisialdi, kirol, turismo edo atsedenerako hautabideak baloratuko direla dioen aipamen espresuaren inguruan dio horrek esleitutako “proiektua” jasotzen duela, baina kontraesanean dago Ondasunen Erregelamenduaren 80. artikuluaekin, APKLTBren 13. artikuluaekin, eta horren Erregelamenduaren 2. artikuluaekin, bertan zehazten baita ezingo direla kontratuak egin kontratistaren zerbitzu ematea ondoren onartuko diren ebazpen edo irizpideetara lotzen bada, proiektuaren idazketarako eta obra gauzatzeko kontratu mistoak ez badira behintzat.

Salbuespenezko izaera duten kasu horietarako ere, araudiak ezartzen du administrazioak dagokion aurre-proiektua edo pareko dokumentua idatzi behar duela, eta interes publikoko arrazoi justifikatuak daudenean bakarrik idatziko dira egokitu beharreko proiektuaren oinarri teknikoak.

Ikuspegi sistematiko batetik, aldaerei dagokienez, kontuan hartu beharko litzateke APKLTBren araudia ere, Ondasunen Erregelamenduak ez duelako ezer ezartzen kontu horren inguruan. APKLTBren 87. artikulua ezartzen du pleguak zehaztu egingo duela ze elementu eta ze baldintzatan baimenduko den aldaera edo hautabideen aurkezpena. Pleguaren hitzez hitzeko edukiak ez du aukerarik ematen hautabideak kontuan hartzeko eskakizunak zehaztu direla ulertzeko. Bestalde, aukera hori lizitazio iragarkian ere ez zen agertzen, artikulua horren 2. atalak nahitaez exijitzen duen bezala; beraz, jendeari ez zaio aukera hori ezagutarazi, eta horrek garrantzi handiagoa du proiektuaren esleipenaren emaitza zabalaz ikusita.

Gainera, lizitatuak aurkeztutako eskaintza aztertu eta gero, ikusi ahal izan dugu ez zaiola pleguan ezarritakoari egokitu, ez delako behar bezalako banaketa egon oinarritzko eskaintzaren eta aldaeren artean. Ez dugu ahaztu behar aldaera horiek, beren izaera dela eta, balora daitezkeela eta kontratazio organoak kontuan har ditzakeela ala ez, eta, horregatik, kontratuaren gutxieneko edukiari buruzko proposamen bat egon beharko lukeela, bestelako hautabideak aurkeztu arren.

Horrela, ez da posible ezagutzea lizitatuak aurrera jarraituko ote lukeen edo ez Udalak bere "proiektua" kontuan hartu izan ez balu, ez baitu aurkeztu bermatu beharreko gutxieneko zerbitzutik aparteko eskaintzarik.

Horregatik guztiagatik, uste dugu baldintzen pleguak ez duela bermatzen kontratazio organoak onartutako "proiektua" aldaera bezala onartzea esleipen jardueran, hau da, gutxi gorabehera 1.800.000 euroko zenbatekoa duten inbertsioak ez dira bermatzen egin nahi denaren azalpen txosten batean oinarrituz bakarrik. Horri gehitu egin behar zaio, onartutako aldaera ez dela egungo plangintzara egokitzen, eta neurri batean, udal jabegokoa den finka bat hartzen duela. Finka hori udal jabegokoa izan arren, gaur egun ez dago erabiltzeko moduan emakidan esleitura dagoelako, horren erreskatea noiz eta zein kasutan gerta daitekeenaren aurreikuspenik gabe.

3. Kontratuaren erregimen juridikoari eta kalifikazioari dagokienez, udalak ukatu egiten du Tokiko Erakundearen Ondasunen Erregelamenduak araututako herri-jabariko emakidazko kasu baten aurrean gaudenik, ulertzen baitu APKLTBk araututako kontratu administratibo berezi bat dela.

2. aurrekarian azaldu dugun bezala, baldintzen pleguak espresuki zehazten du kontratuak –jabari publikokoak diren ondasunen aprobetxamendu pribatiboa den heinean– izaera administratibo berezia izango duela.

Baldintzen pleguan egiten den kontratuaren kalifikazio hori –kontratuaren legea da– zuzentzat jo behar da. Abiapuntutzat hartzen dugu jabari publikoko ondasun bat dela eta horren aprobetxamendu pribatiboa administrazio emakidari lotuta dagoela, eta bestalde, APKLTBren 5. artikulua biltzen dituen kasuetakoren batean sartu beharra dago emakidaren esleipendunarekin formalizatuko den kontratua.

5.1 artikulua ezartzen du Administrazioak gauzatzen duen kontratu oro izaera administratibo edo pribatukoa izango dela. 2. atalak administratibotzat hartu behar diren kontratu ezberdinak zehazten ditu, eta kontratu zehatzen mota ezberdinak –obra, zerbitzu kudeaketa, horniketa...– aipatu eta gero, era berean administratibotzat hartu behar diren kontratuen kategoria berezi bat ezartzen du, hau da, administrazioaren jardunbideari dagozkion kontratuak, helburu publiko bati berehalako irtenbidea bilatzen diotelako.

Jabari publikoko ondasun baten aprobetxamendu pribatiboaren emakida, beraz, izaera berezia duen administrazio kontratua da, bi termino horiek kontraesankorrak direla arrazoitzea posible ez dela, biek kontratuaren erregimen juridikoa osatzen baitute –baldintzen pleguak zehaztu bezala–.

Kontratu administratibo hauek lehentasunez beren neurri propioen bidez arautuko dira –7.1 eta 8.1 artikulua–. Erreferentzia hori, gure ustez eta zalantzarik gabe, ondasun publikoen kasuan tokiko erregimena arautzen duen araudiari lotzen zaiola ulertu behar da.

Udalak artikulua berak aipatzen baditu ere, ondorio hau ateratzen du: kontratua esleitzeko kontuan hartu behar den araudia Herri Administrazioen Kontratuen gaineko Legean ezarritakoa dela, eta ez Ondasunen Erregelamenduak jasotzen duen prozedura. Beren ustez, pleguak azken hori zenbaitetan aipatzen du lizitazioaz bestelako gai batzuetarako.

Gu ez gaude ados arrazoibide horrekin, gure ustez hori ez baitator bat baldintzen pleguaren eta ezarri beharreko araudiaren azterketa sistematiko eta bateratuarekin.

Ondasunen Erregelamenduaren 78. artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen erabilpen pribatiboa esleipen administratiboari lotzen zaio, eta esleipen hori aurretik lizitazioa eginez lortuko da, ondoren datozen artikuluen arabera eta udalen kontratazioa erregulatzen duten araudiaren arabera.

Beraz, baldintzen pleguak berak zehazten duenaz aparte, lehenik eta behin ondasunei dagokienez berariazko araudiak ezarritakoa hartu beharko da kontuan, eta bigarrenik, kontratu administratibo bereziei dagokien APKLTBren I Liburua ezarri ahal izango da. Gure iritziz, oro har ez dira aplikatu beharko kontratu mota bakoitza (obrak, obra publikoaren emakida, zerbitzuak, e.a.) arautzen duten artikulua, baizik eta, bakar-bakarrik OEn araututa ez dagoen guztian eta kontratu orokorreari aplikatu dakizkiekeen I. Liburuko artikulua, eta hori betiere emakida motari behar bezala egokituz.

Ondasunen Erregelamenduaren 80. artikulua emakida onartzeko bete beharreko gutxieneko klausulak zehazten ditu. Era berean, kontuan hartu beharko da APKLTBren 8.2 artikulua ezartzen duen gutxieneko edukia, kontratu administratibo berezien kasuan. Orokorrean, bat dator edo osatu egiten du OEK ezarritakoa.

Udalak, interpretazio sistematiko horri zuzenean kontra eginez –berriro adierazi behar dugu interpretazio hori baldintzen plegutik beretik ateratzen dela–, ez du ezarri nahi, inolaz ere, ondasun publikoen aprobetxamendu pribatiboaren emakida arautzen duen araudia. Araudi horrek, lehen aipaturiko OEren 80. artikulua gain, partikular batek jabari publikokoa den ondasun baten okupazio pribatibo normala edo ez normala egin nahi duenerako prozedura ezartzen du.

OEren 82.1 artikulua honako hau dio:

*“Pertsona batek, bere ekimenez, jabari publikoko ondasun baten okupazio pribatibo normala egiteko asmoa duenean, horren erabileraren eta helburuen azalpen txosten bat aurkeztu beharko du, eta horien komenigarritasuna eta normaltasuna azaldu beharko du, erabili nahi den jabariaren destinoari dagokionez. Korporazioak eskaera aztertuko du, eta interes publikoa kontuan izanda, izapidetzeko onartuko du edo baztertu egingo du”.*

Okupazioa komenigarria dela onartzen bada, proiektuen lehiaketa bat iragarriko du, edo bere teknikariei dagokion proiektua idatz dezaten eskatuko die. Behin hori onartzen denean, lizitazio bat iragarriko da hura esleitzeko, emakidarako oinarri izan behar duen proiektuari buruz OE 87. artikuluan azpimarratutakoa bereziki aipatuz, alegia: behin-behineko bermea, 30 eguneko epean eman beharreko informazio publikoa edo lizitazioan aipatu behar diren balorazio irizpideak.

Puntu honetan, idatzitako proiektuaren informazio publikoaren izapide horrek duen garrantzia azpimarratu behar dugu, alegazioak edo iradokizunak aurkeztu nahi dituztenentzat izapide hori ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioengatik.

Azpimarratutakoa da, era berean, okupatu nahi den jabari publikoaren balioaren eta egin beharko liratekeen obren aurrekontuaren %3ko behin betiko bermea eskatzen duen baldintza. Kasu horretan, esleitutako jabari publikoaren balioa ez ezagututa ere, esleipendunak egin nahi dituen obrak –gutxi gorabehera 1.800.000 eurokoak– 54.000 euroko behin betiko bermea ekarriko lukete, eta hori esleipenean eskatutakoa –1.200 euro– baino askoz gehiago da.

Orain arte azpimarratutakoaren ondorioz, gure ustez, baliogabetzat jo behar da emakida kontratua, bai lizitatzailak proposaturiko aldaeraren arabera esleitutako kontratuaren xedea ez dagoelako argi, eta baita ere ez direlako betetzen OEren 82. artikuluan eta ondorengoetan ezartzen diren formaltasunak gauzatu beharreko proiekturako, eta horietan ezartzen ez diren alderdiei buruz, Toki Erakundearen kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoa, OEren 81. artikuluan zehazten den bezala.

4. Horretaz guztiaz gain, esleitutako xedearen zehaztasun ezak –Kontratuen gaineko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 2. artikulua adierazitako zentzuan– zenbait ondorio ditu kontratuan, gutxienez azaletik aztertu beharrekoak.

Horrela, esate baterako, 3. klausulak emakidaren **epea** aipatzen du, eta 10 urteko epea ezartzen du, 50 urtera luzatu badaiteke ere, esleipendunaren inbertsio eskaintzen arabera.

Pleguan ez da inolaz ere zehazten kontratazio organoak nola baloratuko duen aukera hori eta zein irizpide erabiliko dituen epearen luzapena ezartzeko. Horrela, kuantifikatu gabeko inbertsioetan oinarritzen den esleipen proposamena –dagozkion eraikuntza eta urbanizatze proiektuak ez daudelako– 40 urtera luzatzen du esleipenaren epea, inolako desbiderapen edo gertakaririk aurreikusi gabe, nahiz eta, plangintzaren kon-tuetan sartu gabe ere, aldatu nahi den lursaila ez dagoela osorik erabiltzeko moduan egiaztatuz dugun.

Era berean, pleguan ez da aipatzen zein irizpideren arabera arautuko diren aplikatuko diren **tarifak -be-  
rorien** faktore osagarriak bereiziz-, etorkizunean berrikusketak egiteko oinarri bezala erabiltzeko (OEren 80.5 artikulua), egia bada ere esleipen jardueran gutxieneko konparazio aurreikuspen batzuk egiten direla beste instalazio batzuen prezioak kontuan hartuz, lizitatzailak aurkeztutako eskaintzaren gainean.

**Kanonari** dagokionez, pleguak ezartzen du 30.000 eurokoa izango dela, baina lizitatzailen esku uzten du hori aldatzeko aukera, aurkezten dituzten aldaeren arabera. Lizitatzailak aurkeztutako eskaintzak proposatzen du kanonaren ordaintzaren hasiera hamabigarren urtera arte atzeratzea –egia esan, urte horretan 1.500 € ordainduko lirateke eta 30. urtera arte ez litzateke ordainduko lizitazioaren oinarritzko kanonaren baliokidea– proposatzen dituen inbertsioen arabera. Inbertsio horiek egiteko 2 urteko epea jartzen du, nahiz eta epe hori urtebete gehiago luza daitekeen. Jaso dugun dokumentazioan ez dago proposamen honen justifikazioaren baloraziorik. Proposamen hori proposaturiko inbertsioen ondorioz esleitzen den kontratuaren 30 urteko luzapenari lotu behar zaio.

Udalak justifikazioa hauxe dela argudiatzen du: pleguan agertzen zela: aurreko emakidari zegokion 30.000 euroko kanona, eta hark ez zuela eskatzen inbertsio ekonomiko handirik egitea, baina, “*esleipendunak proposaturiko kanona justifikatua dagoela, ordezko proiektua gauzatzea posible denean, egiteko asmoa duen inbertsio garrantzitsua delako (1.800.000 eurotakoa)*”.

Hau da, esleipenaren unetik, emakidaduna kanona ordaintzetik aske utzi dute, aurreikusitako inbertsio guztiak egin izan balitu bezala. Hori horrela izanik ere, ez dakigu inbertsio horiek noiz eta zein abiaduratan egingo diren-, ezta ere inbertsio horiek azaldutako baldintzetan gauzatuko balira, beroriei dagozkien agiri teknikoetatik zein aurrekontu aterako den.

Horri dagokionez, Udalak dio esleipendunak bere eskaintzan lehen urtetik hartzen zuela bere gain zelaia mantentzearen kostua, 9.616 eurotan, eta hori hartzen zela “ekarpen edo kanon” bezala. Hori ordea, ezin da kanonaren parte bezala hartu, formalizatutako kontratutik beretik ondorioztatzen denez. Izatekotan, administrazioak onartutako hobekuntza hautabide bat izango litzateke.

Egia da kontratuaren araudiak izan ditzakeen hutsune edo hutsarteak udalak iragartzen duen pleguaren eranskinaren bidez bete daitezkeela, bertan finkatzen baitira lehiaketaren esleipendunaren eskaintza alternatiboarekin lotutako kontu guztiak. Hala ere, hori guztia kontratua bera formalizatzerakoan gehitu beharrekoa zen.

Kontratua formalizatu ondoren egin daitezkeen aldaketak –horiek kontratuan eraginik badute– indarrean dagoen araudiari egokitu beharko zaizkio, eta 3. klausulan adierazten den baldintzak berrikusteko aukera ezingo da erabili itundutako baldintzak alde bakar batek aldatzeko ahalmen gisa, ikuskaritza eta jarraibideak ezartzeko ahalmena kontratuaren klausulen esparruan bakarrik gauza baitaiteke.

5. Era berean aipatu behar ditugu lizitatzailak lehiaketan parte hartzeko aukera izateko baldintzak. OEK zehazten duen gauza bakarra zera da: edozein pertsonak hartu ahal izango duela parte lizitazioan; beraz, APKLTBra jo behar dugu gai hau aztertzeko.

Enpresa esleipendunak obra egiteko duen ahalmenari dagokion dokumentazioa helarazi digu udalak, eta, horrekin batera, kaudimen tekniko eta ekonomiko azaltzen duen dokumentazioa ere bidaltzen digula adierazi digu.

Pleguaren 5. klausulak ez ditu zehazten kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala frogatzeko irizpideak, eta hori lizitazioaren iragarkian zehaztu beharrekoa zen (APKLTBren 15.3 artikulua).

Hori horrela izanik ere, irizpiderik ez ezarri izana honela uler likete: lizitatzailleek, gainontzeko kontratuetan, 16. (kaudimen ekonomiko eta finantzarioa) eta 19. (kaudimen tekniko edo profesionala) artikuluetan aurreikusitako justifikazioetatik edozein aurkezteko aukera balute bezala.

Zehazki, lizitatzailleak, informazioa zabaltzeko, berak “*jarduerek garapen onena izan zezaten eskura izan-go zituen baliabide tekniko eta pertsonalak*” deitu zituenak aurkeztu zituen. Hau da, pertsona kopuruaren zerrenda bat –beren maila eta kontratazio forma zehaztuz–, eta jateixe, golf eta jolas esparruetan aditu diren profesional batzuen aholkularitza. Hori guztia aurkeztutako hautabide eskaintzan adierazi zen.

Zerrenda hori nekez har daiteke APKLTBren 19 c) artikulua agintzen duen kontratuaren talde teknikoaren eta parte hartuko duten unitate teknikoaren deskribapen gisa. Izan ere, besteak beste, ez du proiektuaren zuzendaritza bere gain hartuko duen talde teknikoa zehazten, eta berriro ere nolabaiteko nahasketa dago gutxieneko zerbitzuen eta hautabide eskaintza izan daitekeenaren artean.

Bestalde, aipatzen den arren, ez da ezer aurkezten lizitatzaillearen kaudimen ekonomikoaren inguruan. APKLTBren 16. artikulua zehazten duenez, aipatzen dituen bideetatik bat edo bat baino gehiago erabili daitezke kaudimena frogatu ahal izateko: finantza erakundeen txostena, edo pertsona juridikoen kasuan, urteko kontuak edo negozio guztien eta enpresak azken hiru ekitaldietan egindako obra, hornitze, zerbitzu edo lanen zifra orokorrari dagokion deklarazioa.

APKLTBren 22. artikulua ezartzen du obrak egiteko ahalmena edo kaudimena ez duten pertsonen alde esleitutako kontratuak baliogabeak izango direla eskubide osoz, kontratazio organoak enpresariari kontratu gauzatzan jarraitzeko baimena eman badiezaioke ere, klausula berdinekin eta beharrezkoa den denboran zehar, horrekin interes publikoa kaltetzea ekiditen badu.

APKLTBren 62. artikulua zehazten du kontratua baliogabea dela, besteak beste, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 62.1 artikuluan zehazten diren kasuak gertatzen direnean, eta obra egiteko ahalmena edo kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala falta dela behar bezala frogatzen denean.

Puntu honetan zera pentsa liteke: baldin eta lizitatzaille bakar bat egongo balitz eta arazoa, kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional edo teknikorik ez izatea baino gehiago, horiek behar bezala frogatzea balitz, ez al litzatekeen posible izango hori guztia ondoren konpontzea, azken finean, udalak ez baitzuen aparteko baldintzarik jarri kontratuaren xedea zela eta.

Dena den, aipatu beharra dago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 62.1 artikulua aurreikusten dituen baliogabetzeko arrazoien artean aipatzen duela zenbait egintza legez ezarritako prozedura erabat baztertuz burutzea. Gure ustez, hipotesi hori kasu honetan gertatzen dena da, arestian emakida administratiboen araubide juridikoaren inguruan egindako hausnarketak kontuan hartzen baditugu.

APKLTBren 64. artikuluan azpimarratzen da kontratuak APKLTBren 62. artikuluan jasotako arrazoiengatik baliogabetzea kontratazio organoak erabaki dezakeela, bai ofizioz bai interesdunek horrela eskatuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 102. artikuluan ezarritako baldintza eta epeekin bat etorritik.

6. Laburbilduz, ondorioztatu behar dugu Oianguren eta horren jabetzen gutxieneko zerbitzuak –ustiapena eta existitzen diren instalazioak mantentzea–, oro har eta azaldu bezala betebeharrak batzuk bete gabe egon arren onargarriak izan badaitezke ere, 1.800.000 eurotan aldaera gisa onartu den proiektua baliogabetzat hartu behar dela. Izan ere, ezarritako prozedura erabat alde batera utziz esleitu da; beraz, Udalak indarririk gabe utzi beharko luke.

Hori guztia hala izanik ere, egoki baderitzozo, aurreikusitako Plan Berezia eta IEA tramita ditzakezu, eta behin azken hori onartuta, O Eren 82. artikulua eta hurrengoek ezarritako prozedura jarrai dezakezu, eta udalbatzak behar bezala onartutako proiektua oinarritzat duen lizitazioa iragarri.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**4/2006 GOMENDIOA, otsailaren 22koa, Ordiziako Udalarari egina**

Oianguren eraikinaren eta horren jabetzen aprobetxamendu eta ustiapenerako emakida esleitzeko sinatu zen kontratua baliogabetu dezala, zehazki, proiektuaren hautabide edo aldaera bezala aurkeztutako zatia.

Aisialdi eta atsedenerako instalazio eta erabilpen berriak gauzatzeko eta ustiatzeko proiektua esleitzeko araudiak aurreikusten duen lege prozedura erabil dezala, behin Plan Berezia eta IEA legeak agindu bezala bideratzen direnean.

**7/2006 Gomendia, martxoaren 16koa, Aramaioko Udalari egina, planeamenduko arau subsidiarioetatik ken dezan nekazaritza tresnak gordetzeko txabolak eraikitzeke exijitzen den erroldatze-baldintza. Ez da onartu.**

Aurrekariak

1. Gasteizko bizilagun batek erakunde honetara jo zuen bere desadostasuna azaltzeko nekazaritzako tresnak gordetzeko txabola bat legalizatu ahal izateko Aramaion erroldatu behar izatearen ezarpenaren inguruan.

Kexan adierazten zenez, interesdunaren jabegokoak ziren lursailetan, orain dela 20 urte baino lehenagotik txabola bat zegoen, eta nekazaritza lanak egiteko legezatu nahi zuen txabola hori. Pertsona honek ordea, ezin zuen erroldatze baldintza bete, ez zuelako etxebizitzarik Aramaion.

2. Behin kexaren izapidetzea onartu genuenean, erakunde honek Aramaioko Udalari informazio eskaera luzatu zion. Jaso genuen dokumentazioan, nekazaritza-tresnak gordetzeko txabolak baimentzeko udal planeamenduan ezarrita dauden baldintzak agertzen ziren.

Horrela, arkitekto aholkulariak adierazten zuen (...) jauna eraikitzen ari zen txabola bat legeztatzea zela kontua, arkitektoak zehaztutako proiektuaren arabera. Eraikina 3.946 m<sup>2</sup>-ko lursail batean kokatuta dago, basoak babesteko lurzoru urbanizaezinean, eta udal Planeamenduko indarreko Arau Subsidiarioen 69.3.c eta 120.3.c artikuluek arautzen dute.

Nekazaritza lanetarako tresnak eta animalia txikiak gordetzeko txabolak eraikitzeke dauden baldintzak –besteak beste eta une honetan aztertzen ari garen kasurako garrantzia dutenak– honako hauek dira:

- Gutxieneko lursaila: 2.000 m<sup>2</sup>. Txabola bakarra onartuko da lursail eta jabe bakoitzeko.
- Eskatzaileak txabola nekazaritza ustiapenekin lotzen dela eta jarduera horrekin zerikusia duela frogatu beharko du.
- Arauak banaketa neurriak mantendu behar direla agintzen du, bai lursail mugakideekiko, bai bide, etxebizitza kolektiboko eraikin edo errepideekiko.
- Lizentzia eskatzearekin batera, besteak beste, Aramaion erroldaturik egotearen dokumentua aurkeztu beharko du.

3. Hiru aurrekari horiek aztertzeak zenbait balorazio egitea ahalbidetu zigun, eta horiek Aramaioko alkateari helarazi genizkion, hark kontuan hartu eta bereak egingo zituelakoan.

Zehazki hauxe azpimarratu genuen: Aramaion egun indarrean dauden Arau Subsidiarioek ezartzen duten erroldatze-baldintza hori, gure ustez, udalak eraikitzeke eta lurzoruaren erabileran esku-hartzeko dituen eskumenetatik kanpo geratzen dela, eta horregatik, baldintza hori legediari egokitzen ez zitzaioela onartu eta planeamendu orokorreko dokumentutik ezabatu beharko luketela, horretarako egokientzat jotzen zuten prozeduraren bidez.

4. Hala eta guztiz ere, Aramaioko alkateak bere erantzunean adierazi zuen ez zela inolako aldaketarik aurreikusitako horretarako Arau Subsidiarioetan. Honako arrazoioak eman zituen:

*“Aramaioko udalerrian mota honetako txabola bat eraikitzeak, lursailaren jarduerak duen beharri erantzuten dio, batetik. Hots, txabola horretan lursaila lantzeko eta mantentzeko tresnak*

*gordetzen baitira. Beraz, eraikuntzak lursailarekin zuzeneko lotura du, eta bata bestearen ondoren dator eta ez alderantziz.*

*Bestetik, mota honetako txabolak udalerrri osoan zehar non nahi eta edonola eraiki ez zitezen, Aramaioko Udalak Arau Subsidiarioak eratzerakoan, zenbait baldintza jarri zituen, besteak beste, udalerrian erroldatua egotea. Eta Arau hauek Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren onespena dute.”*

Gainera, beste arrazoi hau gaineratu zuen:

*“Mota honetako txabola bat, lursailak hala eskatzen duelako eraikitzen da, behar bat dagoelako, ez aisialdirako leku edo txoko bezala.”*

#### Gogoetak

1. Arestian aipaturiko aurrekariak kontuan hartuz, orain zera aztertuko dugu: ea nekazaritza tresnak eta animaliak gordetzeko txabolak eraikitzeke Aramaioko Udalak ezarri duen erroldatze-baldintza egungo legeriara egokitzen den.
2. Lurzoruaren eta Balorazioen Erregimenari buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 20.1 artikulua adierazten du lurzoru urbanizaezinaren jabeen eskubidea dela bere jabeagoko lursailak erabili, horietaz gozatu eta jabetzan edukitzea –betiere lursailen izaerarekin bat etorritik–, eta nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, ehiza edo naturaren baliabideen erabilpen egokiari lotzen zaizkion bestelako jardueretarako erabili behar direla. Legeek eta planeamenduak ezarritako mugak errespetatuko dira une oro.

Bestalde, aipatutako Legearen 9.2 artikulua zehazten du lurzoru urbanizaezintzat hartuko direla, besteak beste, planeamendu orokorrean babestu beharrekotzat jotzen diren lursailak, bai naturaren baliabideen erabilpen egokiak aginduta denean, eta baita hirigintza araudiak ezarritako lur eremu edo hirigintza irizpide objektiboak ematen direnean ere.

Azkenik, Hirigintza Planeamenduaren Araudiaren 93. artikulua aipatu behar dugu –2159/1978 ED, ekainaren 23koa–. Horrek zehazten ditu Arau Subsidiarioek lursail urbanizaezinei buruz ezarritako dituzten xedapenak. Besteak beste, babes bereziko zonaldeak adierazi eta mugatu egingo dira, eta gune horietan eraikitzearen eta urbanizatzearen aurkako gutxieneko defentsa arauak ezarritako ditu.

3. Araitutako testuinguru honetan, planeamendu orokorrak behar diren hirigintza ebazpenak ezarri behar ditu, irizpide objektiboak eta urbanizaziozkoak erabiliz, lur mota hori babesteko asmoz eta zenbait eraikuntza onartuko diren kasuak mugatuz.

Kasu honetan hauxe aztertu behar da: Aramaioko Planeamenduko Arau Subsidiarioetan ezarri den baldintza hori –herrian erroldaturik egon beharra–, urbanizazio prozesutik lur hori babesteko duen hirigintza-xedapen bat den, eta xedapen horrek, besteak beste, lursail hori nekazaritzarako erabiliko dela bermatzen duen.

Jasotako informazioaren arabera, planeamendu orokorrak zenbait hirigintza irizpide ezarri ditu, araudi orokorrak zehazten duen eta helburu mugatuak dituen mota horretako eraikinetarako:

- Erabilera: nekazaritza tresnak eta animalia txikiak gordetzeko bakarrik egingo dira halako eraikinak, etxebizitza edo kanpamendu erabilerak kanpoan utziz. Eskatzaileak, eraikina nekazaritza ustiapenarekin lotutako lanetarako erabiliko duela frogatu beharko du.
- Eraikinaren ezaugarriak: 25m<sup>2</sup>-ko lurrazal eraikia soilik ahalbidetzen du.
- Hartzen duen lurrazala: 2000 m<sup>2</sup>-ko gutxieneko lursaila ezartzen da.
- Titulartasuna: Txabola bakar bat onartzen da jabe bakoitzeko (nahiz eta beste batzuek aurkeztutako eskaerak onartzen diren, lursailaren jabea ados badago) eta lursailaiko.

Horiek guztiak hirigintza parametrotzat hartu behar dira, eta lur mota horretan eraikitzeke kasuak zentzuz mugatzeaz gain, lursail jakin bat aurreikusen jarduerarako erabiliko dela bermatzen dute.



Pertsona batek bizilekua Aramaion izatea, ordea, hirigintza parametroetatik kanpo geratzen da, eta zertzelada horrek ez du bermatzen lursaila aurreikusitako jarduerarako erabiliko denik. Erroldatzea, hiritar guztiek beren etxebizitza kokatzen duten etxe eta herrian erregistratzeko duten betebeharra da, eta herri batekin horrelako lotura ez izatearen ondorioz ezin dira mugatu hirigintza arauditik eratorritako eskubide eta betebeharrak.

Laburbilduz, herrian erroldatuta egotea ez da parametro bat lurzoru mota horretan egiten diren eraikinak baimendutako erabilera izan dezaten.

Gainera, irizpide hori bizilekua askatasun osoz aukeratzeko eskubidearen aurkakoa da –Konstituzioaren 19. artikulua–. Izan ere, udalak norik bere bizilekua askatasun osoz aukeratzeko eskubidea duela alegatzen duen arren, kontua da pertsona horri arau bakar batek ere babesten ez duen erroldatze-baldintza exijitzen zaiola nekazaritza jarduerak egin ahal izateko.

#### 4. Udalak laugarren aurrekarian azaldutako arrazoiek ez dute bestelako ondoriorik ateratzea ahalbidetzen.

Erakunde honi helarazitako erantzun-idazkiaren edukian, badirudi nolabaiteko kezka ageri dela horrelako eraikinak baimendutako ez bestelako erabileretara destinatuko ote diren, eta txabola horiek lursailean garatuko diren jardueren beharrei erantzungo ez dieten.

Kezka horri eta halako egoerei aurre egiteko, Udalak eskumen zabalak ditu. Edozein momentutan ikuska-penak egin ditzake, eraikin bat baimendutako helburuari egokitzten zaiola bermatzeko, eta hori bete ezean, hirigintza-diziplinan dituen eskumenak erabil ditzake baimenduta gabeko erabilerak galarazteko.

Planeamendu orokorrak berak helburu horiek bermatzeko babesak ezarri ditu, bigarren gogoetan aipatu bezala. Hala eta guztiz ere, Udalak zeharka azaltzen dituen arrazoiak –eraikuntza benetan ezarritako helburuetarako erabiltzearen inguruko zalantzak– ez datoz bat kexagileak helarazitako dokumentazioarekin.

Horrela, 2005eko urtarrilaren 4ko idazki batean, Udalak pertsona horri nekazaritza tresnak gordetzeko txabola bat legeztatze bide behar zituen baldintzak jakinarazi zizkion. Orain aztertzen ari garek kasurako, honakoak irateke aipagarrienak:

- Eraikina nekazaritza ustiapenarekin lotutako jardueretarako erabiliko dela ziurtatzen duen agiria (AFAk ematen duena).
- Aramaion erroldaturik dagoela egiaztatzen duen agiria.

Hala ere, 2005eko martxoaren 15eko idazkiaren bidez zera jakinarazi zitzaion: behin dokumentazio osagarria aztertuta, Aramaion erroldatuta dagoela ziurtatzen duen agiria beharrezkoa dela.

Eskatzaileak eskabideari eutsi zionez gero, berriro Hirigintza Batzordeak 2005eko irailaren 27an hartutako “erabakia” jaso zuen, erroldatze-agiria aurkez zezan, eta ohartarazi zitzaion hala egin ezean, txabola lege kontrakoa zenez, Aramaioko Udalak bota egingo zuela.

Idazki horietatik –gero adieraziko dugunez, ez baitira formaz ebazpenak– ondorio argia ateratzen da: interresdunak eraikinarene eta nekazaritza ustiapen lanen arteko lotura adierazi zuela, eta eraikina legeztatze baldintzetatik bete ez zuen baldintza bakarra herri horretan erroldatuta egotea zela, eta gure ustez, eskakizun hori ezin har daiteke lege balioa duen betebehartzat, aurreko gogoetan azaldu ditugun arrazoiengatik.

Gai honen mamiaren azterketan tarte bat eginez, adierazi behar dugu Udalak interresdunari bidalitako “erabakiek” ez dituztela betetzen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89. artikulua ebazpen administratiboetarako ezarritako baldintzak. Gainera, ebazpenak emateko eskumenik ez duen organo batek eman ditu –organo horrek kontsultatzeko eta proposatzeko ahalmena besterik ez du–, horrek dituen ondorio juridikoekin.

#### 5. Labur esanda, egindako gogoeten arabera, Aramaioko Planeamenduko Arau Subsidiarioek ezartzen duten erroldatze baldintza legezkotasunarekin bat ez datorrela adierazi behar da, eta ondorioz, planeamendu orokorreko agiririk ezabatu behar dela, mota honetako aplikazio orokorreko agiriei dagokien prozeduraren bidez.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**7/2006 GOMENDIOA, martxoaren 16koa, Aramaioko Udalari egina**

Dagokion bidea erabiliz, ken dezala Aramaioko Planeamenduko Arau Subsidiarioetatik nekazaritza tresnak gordetzeko txabolak eraikitzeke exijitzen den erroldatze-baldintza.

Hala badagokio, jarrai dezala txabola legeztatzeke asmoz interesdunak eskatu zuen hirigintza-lizentzia izapidetzen, planeamendu berri horrek baimenduko dituen erabileren arabera.

**8/2006 Gomendia, martxoaren 23koa, Legazpiko Udalari egina, elkarte gastronomiko baten titularrari zaratak sorturiko eragozpenak saihesteko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak har ditzala eska diezaion.**

Aurrekariak

1. Aipatutako higiezineko auzotar batek, erakunde honengana jo du bere etxean jasaten dituen eragozpen larriak salatzeke. Eragozpen horiek, etxebizitza horren azpian kokatzen den (...) elkarte gastronomikoak eragiten ditu. Kexak salatzen duena, udalak arazoa konpontzeko agertzen duen jarduera eza da.
2. Auzotar horrek dioenaren arabera, elkarte gastronomikoak 1996. urtetik aurrera garatzen du aisialdi jarduera hori. Hori horrela izanik ere, elkarteak ez ditu derrigorrezkoak diren udal lizentziak, eta zaratak eragindako eragozpenak ekiditeko isolamendu neurririk ez du.
3. Erreklamazio egileak adierazitako salaketen ondorioz, garai hartan Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentua zenak lokal horretarako jarduera espediente bat bideratzea proposatu zuen, horren bidez, indarrean zegoen araudira molda zedin eta lokal osoa 60dB(A)-tan intsonorizatzeke. Txosten horrek, jardueraren behin behineko itxiera proposatzen zuen lokalak segurtasun eta isolamendu akustikorako gutxieneko neurriak bete arte.
4. Udalak, 1999ko uztailaren 6an hilabeteko epea ematea erabaki zuen jarduera proiektu berri bat aurkezteko, lokala behar bezala egokitu ezean itxiera oharra emanez.

Tarte hori igarota, jardueraren sustatzaileek elkarte gastronomikoa egokitzeko proiektu bat aurkeztu zuten –1999ko urriaren 20an–, eta horretarako Legazpiko Udalari eskatu zioten jarduera gauzatzeko baimena emateko.

Udalak –Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak jasotzen dituen sailkatutako jardueren baimenen izapidetze prozeduraren barruan– garai artan Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentua zenari bidali zion proiektua. Erakunde horrek, txosten lotesle bat bidali zuen, kalifikatutako jardueratzat hartuz eta horri hainbat neurri zuzentzaile jarritz. elkarte gastronomiko hori martxan jartzeko beharrezkoak ziren neurrien artean, honakoak jasotzen zituen: laugarren atalean, lokalaren intsonorizaziorako neurri egokiak hartzea, 30 eta 40 dB(A)-ak (jarraian Leq.60-s gainditu gabe) gainditzea galaraziz; eta seigarren atalean, lokalaren erabateko isolamendua inguruan dituen etxebizitzekiko 60dB(A)-koa izatea. 1999ko abenduaren 9ko txosten horretan, espresuki adierazten zen jarduera ezingo zela martxan jarri adierazitako neurri zuzentzaileak hartu arte.

5. 2000ko urtarrilaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Saileko zerbitzu teknikoek bisita bat egin zioten lokalari, eta adierazi zutenaren arabera, une hartan zegoen intsonorizazioa ez zen nahikoa eskatutako 60 dB(A)-ko isolamendua lortzeko. Arrazoi hori dela-eta, 2000. urteko martxoaren 10ean kontrako iritzia eman zen sailkatutako jarduera horren funtzionamendua hastearekiko.

Halaber, 2000. urteko urriaren 31n, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak –jardueraren sustatzaileek aurkeztutako alegazio bati erantzunez– berriro ere azpimarratu zuen jarduera horrek ez zituela ez kalifikazio txostenaren 6. neurria betetzen, ezta neurri zuzentzaileak ere. Arrazoi hori dela-eta, honakoa adierazi zuen espresuki: *“Jarduera ezin izango da martxan jarri, adierazitako neurri zuzentzaileak hartu arte.”*

6. Neurri zuzentzaileak betetzen direnaren ziurtagiria izan ez arren, eta irekiera lizentzia izan gabe, aipatzekoa da jarduera horrek martxan egon izan dela lizentziaren izapidetze prozesu guztian zehar.

Hiru urte igaro dira udalak, ingurumenaren inguruko araudia bete dadin, neurririk hartu gabe, eta kexaren adierazleak berriro ere salaketa bat aurkeztu du jardueraren gehiegizko zarata dela-eta.

Horri erantzunez, Udalak ikuskaritza bisita bat egin zuen, eta berriro ere baieztatu eskatutako isolamendua ez zela betetzen. Horregatik, sukaldeko ke-eruzgailua ez erabiltzea proposatu zuen. Era berean, 2003ko apirilaren 11n alkateak ebazpen bat onartu zuen, eta bertan, jarduera horrek derrigorrezkoa zuen irekiera lizentzia ez zuela jasotzen zen. Hala eta guztiz ere, jarduera horren sustatzaileei berriro ere denbora tarte bat eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Zenbait luzapen eta gero, proiektu berri bat aurkezten da lokaleko intsonorizazioa hobetzeko.

Legazpiko Udalak, 2004ko martxoaren 10ean jakinarazi zion salatzaileari, Foru Aldundiak uste zuela aurkeztutako proiektua ez zela nahikoa lokalaren isolamendua hobetzeko neurrietara egokitzeko. Arrazoi hori zela-eta, jardueraren sustatzaileei eskatu zien, hilabeteko epe luzaezinean, intsonorizazio lanetarako proiektu tekniko berri bat aurkezteko, edo bestela, jardueraren amaiera gauzatzeko.

Aurkeztutako proiektua eta Foru Aldundiaren erantzuna kontuan hartuz, erreklamazio egileak –jardueraren ilegaltasun egoera jakinaraziz– elkarre gastronomikoaren berehalako itxiera eta amaiera eskatu zituen, 2003ko azaroaren 12ko eta 2004ko martxoaren 12ko idazkien bidez.

7. Ondoren, erreklamazio egileak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri zuen alkateak emandako ebazpenaren aurka, bertan ez zelako (...) elkartearen itxiera eskaera kontuan hartzen. Erreklamazio egileak helarazitako informazioan oinarrituz, errekurtso hori administrazioarekiko auzietako auzitegiak ukatu izango zuen gaiaren funtsean sartu gabe, errekurritutako ebazpena ez zelako ez behin betikoa, ez errekurritzeko modukoa.
8. Erreklamazio honi behar bezalako tratamendua emateko helburuarekin, Ararteko erakundeak Legazpiko Udalarengana jo zuen hartutako udal neurriei buruz galdetzeko. Informazio eskaera horri erantzunez, Legazpiko Udalak bideratutako espediente administratiboaren kopia bat besterik ez digu bidali.

Hala eta guztiz ere, ez da inolako erantzun garbirik agertzen adierazitako gainontzeko kontuen inguruan: (...) elkarre gastronomikoa 1996. urtetik aurrera, zergatik egon izan den irekita ia beti lizentziarik izan ez arren; Udalak zer egin duen, adierazitako neurri zuzentzaileak benetan betetzen zirela bermatzeko edo bestela elkarre behin behinekoan ixteko, edo Ingurumena Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ezartzen dituen zigorrak jartzeko.

Udal erakunde horrek helarazitako erantzuna eta kexaren adierazleak aurkezturiko gainontzeko alegazioak kontuan hartuz, Ararteko erakunde honek beharrezkoa jotzen du honakoa adieraztea:

#### Gogoetak

1. Ezer baino lehen, suposamendu honetan erreklamazio egileak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jartzeak (...) elkarre ixteko eskaera kontuan hartzen ez zuen alkatetzaren ebazpenaren aurka– izan dezakeen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikulua honakoa dio: *“Arartekoa ez da sendetsitako epaia, edo epaia izan zain dauden kexak aztertzen hasiko. Arartekoak, behin izapidea hasita, bere esku-hartzea etengo du interesdunak salaketa edo errekurtsoren bat jarriko balu auzitegi arrunten batean, edo Auzitegi Konstituzionalean.”*

Egia da kasu honetan, erreklamazioa egin duen pertsonak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri duela, Udalarri egindako eskaera baten –sustatzaileen jarduera ezaren aurrean esku har zezan– aurka. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar dugu gure jardueraren xedea zabalagoa dela, izan ere, jarduera legaltasunari egokitzea nahi dugu, eta bereziki, ezarritako neurri zuzentzaileei egokitzea. Kasu horretan, epaitegiak adierazi zuen –kontuaren funtsean sartu gabe–, errekurtsoa ezin onar zitekeela, izapide bat besterik ez

zelako. Beraz, Epaileak ez zuen gure jardunbidearen gaiaren xedea baloratu, hau da, une honetara arte udalaren esku-hartzea zuzena zen ala ez aztertzea.

Horrela, ez dago inolako arrazoirik erakunde honek ez esku-hartzeko kexa honetan adierazitako arazoaren behin betiko ebazpenean.

2. Lehenik eta behin, gure esku-hartzearen xedeak, Legazpiko Udalak, (...) elkarte gastronomikoaren jardueraren funtzionamendutik eratorritako eragozpenen aurrean, izan duen jardunbidea hartzen du kontuan. Jarduera horrek ez zuen derrigorrezkoa den irekierarako udal baimena, eta era berean ez zituen hirugarren batzuk kaltetzeagatik ezarri zitzaizkion neurri zuzentzaileak betetzen.

Sailkatuta dauden jarduerak, indarrean dagoen ingurumen araudira egokitzen direla kontrolatu eta egokitzeko herri administrazioek duten betebeharra, ez da hautazko kontua; ordenamendu juridikoak herri administrazioei onartutako eskumenen erabilpena suposatzen du, horien bidez interes orokorra babesteko eta ingurumenaren arauditik eratorritako betebeharrekin konplizten dela bermatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, 55. artikuluan, derrigorrezkotzat jotzen du eragozpenak sor ditzaketen jarduerak irekiera baimena izatea funtzionamenduan hasi aurretik. Horren arrazoiak honakoa da: jarduera martxan jarri aurretik, ingurumenari egin dakioken kaltea murrizteko lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileekin betetzea.

Arrazoi hori dela-eta, Udala derrigortuta dago une oro ingurumen arau horretan ezarritako xehetasunak betetzeko eskatzera. Zentzu horretan, udal administrazioek ezin onar dezakete jarduera bat martxan jartzea derrigorrezkoa den irekiera lizentzia izan gabe, eta are gutxiago espediente horrenbeste atzeratzea, jardueraren sustatzaileak, legediak jarduera horretarako ezarritakora egokitu denaren itxaropenean.

Baiezatzeko bazenute jardueraren sustatzaileek ez dutela jarrera aldatzen, edo ezarritakoa betetzeari uko egiten diotela, neurri eraginkorrek badaude ingurumenaren inguruko araudiaren, eta hirugarren batzuen eskubideen errespetua mantentzeko.

Administrazioak baiezatzaten badu jarduerak ez duela derrigorrezkoa den baimena, 7/1998 Legearen 65. artikulua honakoa adierazten du:

*“Dagozkien zigoren kalterik gabe, alkateak jarduera **batek beharrezko lizentziarik gabe** funtzionatzen duela jakiten duenean, honako jarduketa hauek burutuko ditu:*

**1. Jarduera legeztatuko modukoa baldin bada, bere titularra errekerituko du egoera arauen barruan jar dezan.** Horretarako epea emango zaio, eta epea, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, **sei hilabetekoa baino luzeagoa ez da izango.** Gainera, jarduera **itxi** egin **ahal** izango da egoerak hori egokia dela erakusten badu, **interesatuari entzun ondoren.**

**2. Indarrean dauden sektoreko arauak edo dagozkien udal-ordenantzak betetzen ez direlako jarduera legeztatzerik ez badago, itxi egin behar da, interesatuari entzun ondoren.”**

Irekiera lizentzia izanda ere –ez da kasu honetan gertatzen dena– dagozkien udal zerbitzuak ikuskaritza bisitak egin behar ditu, jarduera, araudia teknikoak ezarritakoaren arabera gauzatzen dela baiezatzeko, eta hirugarren batzuei eragin dakizkiekeen eragozpen eta arriskuak ekiditeko. Kasu horietan, alkateak jardueraren titularrari eskatuko dio antzemandako gabeziak zuzentzeko horretarako adierazten dion epean. Epe hori, bestelako justifikaziorik ez badago, ezin izango da 6 hilabetetik gorakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 64.2 artikulua adierazi bezala.

3. Eskuartean dugun kasuan arreta jarriz, Gipuzkoako Foru Aldundiko edo Udaleko zerbitzu teknikoek eginiko ikuskaritzetatik ateratako emaitzen arabera, ondoriozta daiteke (...) elkarte gastronomikoak garatzen duen jarduera –Alkatetza dekretu bidez emandako epe ezberdinak luze gaintu izan arren– modu irregularrean garatzen ari dela, ez baitzuen funtzionamenduan hasi aurretik derrigorrez behar zuen baimena.

Era berean, Udalak helarazitako dokumentazioan nahikoa argi ikusten da jarduerak ez dituela Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako isolamendu neurriak betetzen.

Bestalde, legalizazio espedientea hasi zenetik –orain dela bost urte baino gehiago– denbora luzea igaro izan arren, ez da establezimenduen arduradunen aldetik, ezarritako neurri zuzentzaileak bermatuko direla adierazten duen inolako jarduerarik antzematen, borondate oneko konpromisoak izan ezik.

Ezin adierazi daiteke ezta ere, denbora iragate soila jardueraren erregularizaziorako nahikoa arrazoi izatea. Auzitegi Gorenak, behin baino gehiagotan adierazi du –besteak beste 1997ko otsailaren 27an emandako epaian (RJ 1996\ 1658)– honako hau: *“eragozpenak eragin ditzakeen jarduera bat egiteko derrigorrezkoa da baimena izatea, eta horregatik, baimen hori izan arte ez dago jarduera hori mar-txan jartzeko eskubiderik. Izan ere, gauza bat da baimena eskuratzeko eskubidea izatea, eta beste bat baimena behar izan duen jarduera garatzeko eskubidea izatea. Horrela, baimena eskuratzeko eskubidea, arauak ezarritako egoerak ematen direnean gertatzen da, eta Administrazioak errealitate hori baieztatu besterik ezin egin dezake. Lizentzia behar duen jarduera garatzeko eskubidea ordea, baimena izatetik eratorzen da eta horrek ezarritako baldintzetan bete beharrezkoa da, eta are gehiago aztertzen ari garen autoen kasuan. Izan ere, jarduera hori deserosoa izatean, baldintzen eta neurri zuzentzaileen helburua, enpresarako eskubidea, eta kaltetutako hiritarrena –atsedena hartzeko, etxebizitzaz gozatzeko, elkarbizitza egokia izateko, eta baimenduta dauden zarataz gain gehiago ez jasotzeko eskubideak– nolabait moldatzearena da.”*

Horregatik guztiagatik, ateratzen dugun ondorioa da, une honetara arte, Udalak ez dituela poliziaren eskumena, eta zigorrak ezartzeko erabili, eta horiek erabiltzeko aukera du ordenamendu juridikoa betetzen dela ziurtatzeko eta interes orokorra defendatzeko.

4. Beharrezkoa da azpimarratzea, udalak –aurkeztutako salaketa ugarien eta Udalak berak helarazitako datuen arabera– jarduerarik gauzatu ez izanak, benetako eragozpenak eragiten dizkiela auzotarrei, eta zehazki, kexaren adierazleari.

Ezin daiteke alde batera utzi erreklamazio egileak adierazitako arazoaren garrantzia. Jarduera publikoen funtzionamendu irregularrak zuzenean kaltetzen du lokal horien inguruan bizi diren pertsonen bizi kalitate, horiek eragiten dituzten zarategatik, usaiengatik,... Auzotarrek ordea, ez dute zertan eragozpen horiek jasan beharrik. Horretarako, herri administrazioek arazoari aurre hartu behar diete, eta pertsonen zinegotza edo asaldura eragin dezaketen jarduerak martxan jartzea galarazi.

Udalek, jarduerak instalazio lizentzian ezarritako neurri zuzentzaile eta mugetara egokitzen direla baieztatu eta bermatu behar dute une oro, horiek, baimendutako instalazioek ezarritako parametro eta mugetara eramanez. Hiritarren atsedean eta kalitatezko ingurumenarekin errespetu gutxiko jardunbide edo jarrerak deuseztatzeko zehapen neurriak hartzea beharrezkoa suertatzen bada, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak bide horiek ezartzen ditu hiritarren interes orokorra babesteko.

Argi dago, mota horretako establezimenduen jarduera behar bezalako araubide tekniko-juridikoaren menpe jartzen ez bada, lokal horien titularren interes partikularraren –beren aisialdi jarduera garatzea barruan–, eta jendearen interes orokorraren –establezimendu horren inguruan bizi diren auzotarrek duten intimitate eta segurtasun eskubidearekin lotzen da, pertsona horiek ezin bizi daitezkeelako etengabeko asaldura egoeran lokalek eragindako eragozpenengatik– arteko arazoak sor daitezkeela, eta sortzen ari direla jada.

Badakigu instalazioen ikuskaritza eta kontrol funtzioak betetzea lan zaila dela; zentzu horretan uste dugu oreka bilatu behar dela merkataritza eta zerbitzu jardueren, eta auzotarren eskubideen artean, hau da, atsedean hartzeko eskubidea, eta kalitatezko eta soinu eragozpenik gabeko ingurumenaz gozatzeko eskubidea.

Aurreko hausnarketak kontuan hartuz, udal administrazio hori adierazi behar diogu ezinbestekoa dela, berehala, beharrezkoak diren baliabide eta prozedurak martxan jartzea (...) elkartearen inguruan bizi diren pertsonen eskubideak –intimitate eta segurtasun eskubideak– benetan errespetatzea lortzeko.

Ez dugu ahaztu behar justizia epaitegiek, hartutako azken erabakietan, adierazitakoa. Horrela, Auzitegi Konstituzionalaren maiatzaren 29ko 119/2001 epaiak adierazten du, etxeetan eragozpenak sortzen dituzten zaratek Konstituzio Espainolaren 15, eta 18.1 eta 18.2 artikulua urratu ditzaketela. Artikulu horiek, bizitza, osotasun fisiko eta morala (15. artikulua), intimitate pertsonala eta familiarrena (18.1 artikulua), eta etxebizitzaren bortxaezintasun eskubideak (18.2 artikulua) jasotzen dituzte.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak, 2004ko azaroaren 16ko epaian (Gaia: Moreno Gomez c. Espainia), pertsonen etxebizitza eta bizitza pribatuaren errespetua izateko eskubidearen urraketa jasotzen da –udal administrazioak zaraten inguruko araudia behin eta berriro ez betetzea onartu zuen suposamendu batean–, horrela, Giza Eskubideen eta Funtsezko Askatasunen babeserako onartutako Europako Hitzarmenean jasotako 8. artikulua urratuz.

Hori dela-eta, udal erakundeek beharrezkoak diren babes neurriak hartu behar dituzte eskubide horiek urratzen ez direla bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzeako– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **8/2006 GOMENDIOA, martxoaren 23koa, Legazpiko Udalari egina**

(...) elkarte gastronomikoaren titularrari eskatzea, hilabeteko epe luzaezinean, kalifikazio txostenean aurreikusitako neurriak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak behin betiko hartzeko, eta era berean titularrari jakinarazi hori horrela beteko ez balitz, establezimendua kautelazko neurri gisa itxi egingo dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen 3/1998 Legearen 105. artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik.

## 10. ETXEBIZITZA

**15/2006 Gomendia, ekainaren 20koa, Gasteizko Udalari egina, udal horrek sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzetarako irispidean berriz azter dezan gutxienez bost urtez errol-datuta egoteko baldintza. Ez da onartu.**

### Aurrekariak

1. Kexan zalantzan jartzen du etxebizitza eskatzaileak onartzeko zeuden baldintzetako baten aldarazpena. Zehazki, udalari horrek udal sustapeneko babes ofizialeko etxeen esleipen prozesuetan parte hartu ahal izateko exijitzen duen gutxieneko errol-datze tartea dute hizpide.

2006rako onarturiko oinarriek ezartzen dute etxebizitzaren titular izango denetako batek Gasteizko udalerrian bizi dela baieztatu beharko duela, eta 2005eko azaroaren 11n bost urtez udalerrian errol-daturik egon izatea eskatzen da. Baldintza hori betetzen ez den kasuan, egoitzaren baldintza une horretan errol-daturik egotearekin justifikatu ahal izango da, pertsona bat azken hamar urteetatik bost urtez egon bada bertan errol-daturik, eta azken urtean udalerrian lanean jardun izana frogatzen badu.

2. Kexaren adierazleek diote, udalerriko auzotar direla eta ondorioz bertan daudela errol-daturik, baina ezinezkoa zaiela udaleko agentziak 2006an egingo dituen zozketetan sartzea ez dutelako udal horrek onarturiko baldintzetatik 5 urteko errol-datze tartea izatearena betetzen. Jakinarazi digute une honetara arte udalak udalerrian bizitzea eskatzen zuela, eta babes ofizialeko etxeen zozketan sartu ahal izateko hiru urteko errol-datze tartea eskatzen zuela. Beren ustetan, Gasteizko Udalak, egoitza baldintza horren oinarri berria onartzean, neurrigabekoa bilakatu du udalerrian erroturik egon behar diren baldintza, babestutako etxebizitzaren sustapenetan parte hartzeari dagokionez. Baldintza berri horrek diskriminazio negatiboa ekar dezake. Beren arrazoibidea oinarritzeko adierazten dute, udalari horretako auzotar izanda eta horrek ekartzen dizkien baldintzak beteta –besteak beste, hiria mantentzen laguntzen dute zergen ordainketaren bidez–, gainerako auzotarrek dituzten eskubide berdinak eduki behar lituzketela, alde batera utziz udalerrian bizi izandako denbora. Halaber azpimarratu dute, etxebizitzaren sustapenetan parte hartzeko itxaropena zutela aurreko baldintzetan ezarritako 3 urteko irizpidea betetzen zutelako, eta itxaropen hori antzutu egin dela araudi berriarekin. Pertsona hauek beren alegazioan diote Eusko Jaurilaritzako sustapen publikoko zein pribatuko gainerako babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko baldintzak arautzen dituen araudiak –315/2002 Dekretua– urtebeteko errol-datze epea eskatzen duela.
3. Talde horrek aurkezturiko erreklamazioaren gainean udalak zuen iritzia ezagutzeko asmoz, informazioa eskatu genuen baldintzetan ezarritako egoitza epearen igoera justifikatzen zuten zergati eta arrazoiaren gainean.

Etxebizitzako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiko zuzendari kudeatzailearen erantzunean bi gauza azpimarratu besterik ez zen egin. Udalek parte hartzen duten BOEn esleipen prozedurak arautzen dituen araudiaren arabera, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza sailburuaren 2004ko abuztuaren 21eko Aginduak aukera ematen die Udalei jarraitu behar izango diren errol-datze irizpideak modu askean ezartzeko. Bestalde jakinarazi zitzaigun, udaleko sozietate anonimo horren Administrazio Kontseiluak 2005eko azaroaren 27ko bileran baldintza berri hori ezartzea erabaki zuela zozketen baldintzen gainerako ezarpenekin batera.

Ondorenean, udalaren irizpide aldaketa justifikatzen zuten arrazoiak berriro ere azpimarratzerakoan, erreklamazio egileen nahia modu egokian aztertu ahal izateko ezinbestekoa zena, zuzendari kudeatzaileak txostena bidali zigun honakoa adieraziz: *“hamahiru urteko errol-datze epea gainditzen duten eskatzaile ugari egotea izaki baldintzaren aldarazpenaren arrazoia, ezaugarri horren egokitzapena egitea adostu*



*da Gasteizen inguruan kokaturiko beste herri batzuetan bezala; kasu horietan etxebizitza eskatzaileei hamar urteko erroldatze epea baino gehiago eskatzen zaie”*

Udalak bidalitako informazioa eta erakunde honek lorturiko gainerako dokumentazio eta informazioak kontuan hartuta, honako gogoeta hauen berri eman beharrean gaude.

#### Gogoetak

1. Gure esku-hartzearen xedea pertsona eta talde batzuek aurkezturiko erreklamazioetan adierazitako errol-datze baldintza berria, udaleko babes publikoko etxebizitzak lortzeari dagokionez, egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin bat datorren baieztatzea da. Zehazki, aldarazpen horrek azken bost urteetan errolaturiko auzotarren eta Gasteizko udalerrian ezarritakoa baino denbora gutxiagotik aurrera bizi diren gainerako pertsonen arteko tratamendu bereiztua dakarren ala ez ikusi nahi dugu.

Zalantzan jarritako jarduera administratiboa Gasteizko Udalaren edo dagokion sozietate publikoaren jabetzakoak izan diren lursailetan eraikitako babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko baldintzak arautzen dituen araudia da. Babes ofizialeko etxebizitza horien sustapenetan, udalak etxebizitzaren esleipenaren benetako kontrola hartzen du bere gain, etxegilearen eta eroslearen ondorengo salerosketa kontratuaren oniritziaren kaltetan izan gabe.

Lehenik eta behin antzeman dugu, udalak sustaturiko etxebizitza horiek babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenak kalifikatu eta lotzen dituela. Etxebizitzaren esparruko eskumen guztiak Autonomia Erki-degoak ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.31 artikulua arabera. Modu horretan, Eusko Legebiltzarra da babestutako etxebizitza gisa kalifikatutako etxebizitzak lortzeko baldintzen araudi orokorra ezartzeko eskumenak dituen, lursailaren jabea edo sustapenaren titularrak izan ala ez alde batera utzita. Une honetan legeak ez du esparru propiorik gai horri dagokionez –31/1978 Legegintzako Errege Dekretuaren indarreko xedapenak salbu–, Eusko Jaurlaritzak bide arautzailea garatu baitu abenduaren 30eko 315/2002 babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko dekretuaren bidez.

Gauzak horrela, komenigarria da azpimarratzea une honetan udaletxeek ez dutela gaikuntza legalik babes ofizialeko etxebizitzetarako erregimen zehatza ezarri eta arautzeko. Horixe jasotzen du Auzitegi Gorenak 2004ko maiatzaren 25eko epaian (RJ 2004\4035), zehazki honakoa adieraziz: *“Udalek ez dute ahalmenik etxebizitzaren sustapen publikoa ordenatu, eratu edo arautzeko, eta sustapenaren bidetik gara daitezkeen jarduerak Estatuak eta Autonomia Erkidegoek ezarritakora egokitu beharko dira, gaian eskumenak dituztenak baitira.”*

Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena, bai sustapen publikokoa bai pribatukoa, autonomiako administrazioak ezarri beharreko arau eta exijentzien arabera gauzatu behar da. Zentzu horretan, aipaturiko 315/2002 Dekretuak iazera orokorrean ezartzen du, babes ofizialeko etxebizitza baten esleipenduna izateko, beharrezkoa dela gutxienez urte bete eramatea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolaturik.

Hala eta guztiz ere, dekretu honen garapen araudiaren arabera, baldintza hori alda daiteke babes ofizialeko etxeak udal korporazioen edo beren sozietate publikoaren jabetzakoak edo haiek sustatutakoak diren kasuan, etxegile pribatuekin hitzarmenak sinatu dituzten suposamenduan.

Hain zuzen ere, Gasteizko Udalak bere txostenean adierazi bezala, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sail-buruaren 2004ko abuztuaren 21eko Aginduak udalen parte-hartzea duten babes ofizialeko etxeen esleipen prozesuen inguruan honakoa ezartzen du 2.2 artikuluan: *“Udalek askatasun osoz finkatuko dituzte errol-datze-erloko baldintzak, agindu honetan aipatutako babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak eskuratzeko direnak. Salbuespen bat izango da, ordea: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekiko laguntza-hitzarmena duten sustapenak, kasu horretan errol-datze-aldiak ezin izango baitu sustapenen behin-behineko kalifikazioaren dataren aurreko 3 urteko epea gainditu.”*

Zentzu horretan, ateratzen den lehenengo ondorioa da –udalaren jabetzakoak diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenen kasuan, enpresa pribatuek hitzartu edo sustatutakoak direnean– indarrean dagoen etxebizitza araudiak ez duela muga zehatzik jartzeko udalek esleipendun izan daitezkeen horiei ezar

dakiekeen erroldatze baldintzen gainean, eta BOEen sustatzaile diren udal administrazioek ezarritako araudira bidaltzen gaitu.

2. Dena dela, beharrezkoa da azpimarratzea udalei kontu hau arautzeko ematen zaien eskumen administratiboa ez dela udalaren eskumen mugagabea –sailburuaren aginduaren 2.2 artikulua hitzez hitzeko testutik atera daitekeen bezala–, eta ez diela udal administrazioei ahalbidetzen eskatzaileei edozein erroldatze epe ezartzeko aukera.

Jakina den bezala, eskumenak dituzten organoek erabil ditzaketen eskumen administratiboak mugaturik daude beti eta une oro, eta ordenamendu juridikora egokitzea beharturik daude. Konstituzio Espainiarraren 9.1 eta 103.1 artikuluek ezarritako gaia da.

Orokorrean, administrazioek administrazioaren beraren ondasunetara edo zerbitzu jakin batera –etxebizitza kasu– sartzeko baldintzak ezartzeko dituzten araudia eskumenak eskuduntza esparru zabal baten barruan gauzatu daitezke. Eskuduntza esparruak hainbat aukeraren barruan hautatzeko balio du, baina une oro eskatzen du araudiaren, kongruentziaren eta baliabideen helburuekiko egokitzapenaren errespetua mantentzea. Hori horrela gauzatzeko ez balitz, Konstituzioaren 9.3 artikulua jasotzen duen botere publikoen arbitrariotasunaren galarazpenaren printzipioak ezarritakoaren aurka joango litzateke, eta administrazioaren jardunbideak –baita araudizkoak ere– ezin du arbitrarioa izan edo Zuzenbidearen printzipio orokorren aurka egin. Horrela, kasu honetan baloratu beharreko beste parametrotako bat –maila konstituzionalakoa hau– berdintasun printzipioari egokitu eta huraxe errespetatu behar izatea da, diskriminazio eza mantenduz. Horixe da Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen dena eta erreklamazio egileek aipaturikoa. Bertatik antzeman daiteke beharrezkoa dela tratamendu ezberdina eman dezaketen erabakiak behar bezala arazoitzea, ondorenean zehaztuko dugun bezala.

3. Testuinguru juridiko horretan komenigarria da aztertzea ea Gasteizko Udalak Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiaren bidez eta BOEen esleipenen oinarrietan erantsitako baldintza berdintasun printzipioarekin eta botere publikoen arbitrariotasunaren galarazpenaren printzipioarekin bat datorren baieztatzea. Erantsitako baldintza hori errola ziurtagiriaren bidez frogatu beharreko bost urteko egoitza da.

Legean eta legearen aurrean dagoen berdintasun printzipioak, Auzitegi Konstituzionalak hainbatetan adierazi bezala, hiritarrak modu berean tratatu behar direla esan nahi du, Legean bertan eta legea aplikatzen den izateko kasu zehatzetan. Hortik dator legearen xedapenen batean edo administrazioaren jardueraren batean jasotako bereizkeriak edo ekintza arbitrario edo neurrigabeak galarazteko beharra, horiek justifikazio objektibo eta arrazoizkoak ez dutenean. Horretarako, Auzitegi Konstituzionalak arrazoizko ustearen parametroa ezarri zuen, horren bidez arauak exijituriko aldeak aztertu eta baloratu ahal izateko (Auzitegi Konstituzionalaren 29/1987, 114/1987 eta 209/1988 epaiak, besteak beste).

Legearen aurrean izan beharreko berdintasunari dagokionez, Auzitegi horrek adierazi du eskubide horrek pareko egoera juridikoetan daudenei tratamendu bera emateko derrigorra ezartzen diela ordenamendu juridikoa aplikatzen duten horiei. Tratu ezberdindu onartzen da, ordea, zalantzan jarritako arauaren helburuarekin bat etorriz, ezberdintasun horren justifikazio objektibo eta arrazoizkoa ematen denean.

Era berean, 75/1983 KAEk, 2. oinarri juridikoan, honakoa adierazten du: *“araudiaren bereizitasunak diskriminatzailetzat ez jotzeko, ezinbestekoa da justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izatea, orokorrean onarturiko irizpide eta balio-judizioen arabera. Horien exigentzia hartutako neurriaren helburuaren eta eraginaren arabera aplikatu beharrezkoa izango da. Horregatik, erabilitako bideen eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasun lotura arrazoitua eman behar da eta Legegileari utzi, azken batean, bereizi eta tratamendu ezberdina eman beharreko egoerak hausnartzeko lana.”*

Halaber, beste epai batek, 209/1988 KAEk, honakoa dio 6. oinarri juridikoan: *“araudiaren aniztasunak berdintasunaren arabera araberakoak dira, labur esanda, ezberdintasuna ekarri duten arauak estruktura koherentea agertzen dute proportzioan eta lortu nahi den helburuarekiko. Hori dela-eta, norberaren borondatez bereizten den araua nahiz helburu legitimoa lortzeko izateko suposamendua edo egozten zaizkion ondorio juridikoak eratan dituen modu berean dira berdintasunaren aurkakoak, horiek neurrigabeak izan edo proportzionaltasunarekiko mantendu beharreko lotura horri atentziorik eman gabe ere.”*

Funtsean, Auzitegi Konstituzionalak hainbat irizpide ezarri joan da jarduera publikoen egokitasuna epaitzeko helburuarekin, bereziki izaera arautzailea duten horiek berdintasun printzipioaren arabera aztertzeko. Auzitegiak hainbat baldintza betetzeko exijitu dio legegileari, horien artean araudiak ezarritako tratamendu ezberdinaren legitimitasun konstituzionalaren estaldura. Horretarako, “berdintasun judizioa” deitu izan zaion prozeduraren aurreiritzia gainditu behar da eta arrazoibidea, kongruentzia eta proportzionaltasuna aztertu. Judizio edo azterketa horretan, kantitateak –elementu kuantitatiboak, alegia– berebiziko garrantzia izan dezake proportzionaltasuna zehazteko garaian.

4. Puntu horri dagokionez adierazi behar dugu, ez dugula udal horren erantzun finkorik antzeman udal sustapeneko BOEetara iristeko irizpide aldaketaren helburuaren gainean.

Udalari baldintzetan hiru urteko erroldatze epean ezarrita zegoen egoitza irizpidea bost urtetara luzatu izana justifikatzen duten zergati eta arrazoiei buruz galdetu izan diogunean, hark erabaki hori Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia sozietatearen administrazio kontseiluak hartutako erabakian oinarritu zela jakinarazi digu, etxebizitza araudiak onartzen dion erroldatze baldintza ezartzeko eskumenen esparruan.

Ondorenean, beste txosten bat jaso genuen eta bertan, bi gertakari aipatzen ziren justifikazio gisa; batetik, hiru urte baino gehiago erroldaturik daramaten eskatzaile ugari daudela; eta, bestetik, inguruetak beste udalerrri batzuetan aplikatzen diren irizpideak ere antzekoak direla.

Arrazoi horien garrantzia aztertzeko –justifikazio objektiboa, arrazoizkoa eta neurrizkoa–, oinarritzat hartu beharko dugu, Auzitegi Konstituzionalak adierazi bezala, posible dela Gasteizen bizi diren hiritarren arteko tratamendu bereiztua ezartzea etxebizitza duina lortzeko duten eskubideari dagokionez. Dena dela, tratamendu ezberdin horren zergatia udalak lortu nahi duen helburuak argitu behar du eta, modu berean, hartutako neurriak lortu nahi den helburuarekiko proportzionala izan behar du.

Horrela, udalerrian bizitzen denbora gehiago ematearen eta erroldatzearen suposamenduari dagokionez, tratamendu ezberdina udalerrian erroturik denbora gehiago eramaten dator.

Udalaren esanetan ordea, neurri horren zergatiak hiru urte baino gehiago erroldaturik daramaten eskatzaile ugari egotea eta irizpide hori beste hainbat herrietan ere erabiltzea dira.

Hala eta guztiz ere, BOE baten eskatzaile diren eta hiru urte baino gehiago erroldaturik daramaten auzotar ugari egoteak ez du justifikatzen, besterik gabe, diskriminazio positiboko neurri hori hartzea. Izan ere, neurri horren helburua zein den zehaztea falta da.

Horri dagokionez espekulatu dezakegu, udalerrian etxe eske denbora gehien daramaten pertsonen alde egiteko nahia badago, posible dela eskatzaileen erregistroan antzinatasun gehien daukaten horientzat kupo berezia ezartzea –Etxebideko erregistroan lau urteko antzinatasuna dutenen kupoarekin gertatzen den bezala–. Udalarentzat garrantzitsua dena, ordea, ez da itxaroten daramaten denbora edo etxebizitza beharra, baizik eta Gasteizen erroldaturik daramaten tartea. Hiru urte baino gehiagoz erroldaturik egoteak ez du justifikatzen talde horrek duen etxebizitza beharra udalerrian bizitzen geroago jarri denarena baino handiagoa izatea. Bestalde, horrek ez du ezta ere balio, beraz, sustapenetatik kanpo eta besterik gabe hiri horretan etxeen eskatzaile gisa denbora gutxien daramatenak alde batera uztea justifikatzeko.

Beste udalerrri batzuetan antzeko irizpideak exijitzen direnaren arrazoiri dagokionez, azpimarratu behar da Gasteizko inguruetan –Arabako hiriburuaren makrozefalia ezaugarriarengatik– udalerrri gutxitan egin direla, beren tamaina eta hiritar kopuru edo baliabide propioengatik, udal sustapeneko etxebizitzak. Dena dela, elkarrekikotasun irizpide horrek ez du *per se* justifikatzen erroldatze exijentzia hori tratamendu ezberdintasuna ekarriko duen edozein neurri orokorrean exijitzen zaizkion irizpide objektibo, arrazoizko eta proportzionala egokitzea.

Udaleko bigarren txostenetik ateratako arrazoen arabera, ezin ondoriozta dezakegu helarazitako dokumentaziotik, udalak justifikazio egokirik ematen duenik hiru urtetik bost urterako erroldatze exijentziaren aldarazpena erabakitzeko.

Zentzu horretan, justifikaziorik ez egoteak eta baldintza aldatu izanak –erroldaturik egon behar izandako tartea hiru urtetik bost urtera igotzea– ez du galarazten balizko tratamendu diskriminatzailearen, neurriaren

arbitrariotasunaren edo irizpide aldaketaren elementu kuantitatiboaren inguruko ondorioak ateratzea. Izan ere, azken hori ezinbestekoa da neurri bat, duen helburuarekiko, proportzionala den ala ez zehazteko.

5. Dena dela, ondorio horrek ezin galaraz diezaiokie erakunde honi orokorrean BOEak eskuratzeko erroldatze tarte zehatzaren exijentziaren gaineko azterketa egitea, edota azterketa hori beste udal batzuetara ere luzatzea.

Errotze baldintza horrek izaera bikoitza du: batetik, ohiko bizilekua udalerrian dagoela baieztatze beharra ezartzen da; eta, bestetik, bizileku horretan neurri bateko antzinatasuna edo errotzea eskatzen da. Gasteizko Udalaren kasuan, ezarpen hori hiru urtetik bost urtera igaro da.

Baldintza horrek lortu nahi duen helburua aztertze, eta arrazoizkoa eta neurrizkoa izatea baieztatze, kontu honen gainean Auzitegi Konstituzionalaren edo beste auzitegi batzuen irizpidea zein den aztertu behar dugu.

Horrela, komenigarria litzateke Auzitegi Konstituzionalak, herriko ondasun batzuen aprobetxamendu soila justifikatzeko, ohiko bizilekuaren eta errotze egonkorren baldintza ezartzeko aukeraren gainean ebaztitakoa aipatzea. 308/1994 epaian, auzitegi horrek ezarri zuen herri aprobetxamenduaz gozatzeko ez zela nahikoa auzotar izatea baieztatzea edo benetan bertan bizitzea frogatzea; izan ere, beharrezkotzat jo zuen *“errotze egonkorra, erreala eta benetakoa udalerrian.”* Zenbait taldeekiko mugatzailea den neurri horren helburua udal erakundearen herri ondasunak mantendu eta iraunaraztetik dator.

Kasu horretan, Auzitegi Konstituzionalak arrazoizkotzat jo zuen benetan udalerrian bizi behar izateaz gain, udalerrian bizitzan sarturik egotea, herriko ondasun batzuen aprobetxamendurako.

Ebazpen horretatik atera nahi dugun lehen ondorioa da, argi dagoela herri ondasunen eta bestelako ondasunen izaera ezberdina dela. Azken horien kasuan udal etxebizitzak edo babeseko etxebizitzak sustapen zerbitzua egongo lirateke eta hori da, azken batean, suposamendu honetan agertzen dena. Bestalde, udalerrian ematen den errotze etorkizunean bertan bizi izateko nahia kontuan hartuta neurtu beharko litzateke; izan ere, ez du zerikusirik lehen bertan bizi izanak, egoitza antzinatasunaren baldintzak horixe ezarri arren.

Dena dela, epai honetatik estrapolatu daiteke ohiko bizilekua ezartzeko beharra edota erroldaturik denbora tarte batean egotea onar daitekeen baldintza izan daitekeela botere publikoek udalerrian bizi izateko errealitate demografikoaren arabera baliabide planifikazioa eta esleipena egin ditzaten. Bestalde, pertsonak udalerrian batetik bestera mugitzea ekiditen da, udal sustapeneko BOEen existentziagatik bakarrik egiten denean.

Azken batean esan dezakegu, arrazoizkoa izan daitekeela udalerrian ohiko bizilekua baieztatze beharrezkoa eta udal eskaintako etxebizitzak zerbitzu hori lortu ahal izateko ezarritako gutxienezko tarteari irizpidea.

Kontua da helburu horrek zentzu argia eta zehatza duela, eta ezin dela “mugarik gabe” luzatu momentu bakoitzaren nahi edo aukera politikoen arabera, edo gehiegizkoak edo lortu nahi den helbururako neurri-gabekoak izan daitezkeen tarteari jarri, nahiz horiek mugatuak izan.

6. Horri dagokionez, neurri horiek arrazoizkoak eta proportziozkoak diren baloratu ahal izateko, bidezkoa da azpimarratzea denbora tarte jakin batean errotzearen edo erroldaturik egotearen irizpideak eragina izan dezakeela aske joan eta etortzeko eta toki batean aske egoteko eskubideak erabiltzerakoan diskriminatua izateko debekuan.

Horrela, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak Estatu kideren batean egoitza izatea ziurtatu beharrik ekar ditzakeen derigorrak aztertu ditu zenbait ebazpenetan laguntza edo gizarte diru-laguntzaren baten onuradun izateko. Hori guztia Europako Erkidegoa ezartzeko Itunak 12. artikuluan ezarritako diskriminazioaren debekuaren ondotik aztertu zen. 2004ko martxoaren 23ko C-138/2002 Collinns Epaiak honakoa dio:

*“Horrelako egoitza baldintza bat arrazoi objektiboetan oinarritzen den kasuan bakarrik justifikatuko litzateke, kalteturiko pertsonen nazionalitatea alde batera utzita eta nazioko zuzenbideak duen helburu legitimoarekiko proportzionalak izanda (1998ko azaroaren 24ko Epaiak, Bickel eta Franz, C-274/96 Gom., 1-7637 orr., 27. atala). (...) Hala eta guztiz ere, egoitza irizpidea egokia*

*bada hasiera batean aipaturiko lotura hori bermatzeko, proportzionala izateko ez du behar dena baino haratago joan behar helburua lortzeko. Zehazkiago adierazita, agintari nazionalak horixe aplikatu behar dute irizpide argietan eta aurretik ezagunak direnetan oinarrituz, eta jurisdikzio inpugnazioa egiteko bidea egon behar da. Dena dela, baldintza hori betetzeko egoitza tartea existitzen bada, agintari nazionalak ez dute behar baino haratago joan behar interesdunak harrerako Estatu kidearen lan munduan lan bat bilatzen duela benetan bermatzeko.”*

Arrazoi horrek hiritarren mugimendu interesatuak ekidin nahi ditu, eta horrek gutxieneko errotze edo antzinasasun tartea exijitzea justifikatzen du.

Hala eta guztiz ere, ebazpen horrek azpimarratzen du jada epe horren proportzionaltasunaren garrantzia, eta gehiegizko errotze epearen esijentziak ondorio kaltegarriak izan ditzakeela zenbait talderentzat.

7. Atera daitekeen ondorioa da, gutxieneko erroldatzearen esijentzia ezin dela bihurtu oztopo baten praktika –edo antzeko eraginak izango dituen neurrian– egungo gizartearen eta lanaren ezaugarriengatik edo askatasunez batetik bestera ibiltzeko eskubidean oinarrituz herriz edota Estaturik aldatzen diren hiritarren horien aurka eginez.

Pertsona horiek ezin kaltetu daitezke hasiera batean benetako bizilekua frogatu eta udalerrian bizitzen jartzeko inolako asmorik ez duten pertsonen iruzurrezko erroldatzeak ekidin nahi dituen neurri batekin. Irizpide horrek ezin ditu praktikan inolaz ere kaltetu udalerririk batean jatorrizkoak ez direnak edo bertan bizitzen tartea adierazgarria ez daramatenak.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da suposamendu horretan araudi bakoitzean udalerrian bizi izateko nahia justifikatzeko eska daitekeen erroldatze tartea proportzionaltasun printzipioari egokitzea.

Lehen ere adierazi dugun bezala, Eusko Jaurlaritzako sustapen ofizialeko etxebizitzaren araudiak beraiek in adostutako sustapenetan hiru urtera luza daitezkeen urtebeteko erroldatze tartea ezartzen du eta udalei beren sustapenetan tartea hori modu autonomoan ezartzeko aukera ematen zaie. Horrela, bada, hiru urteko tartea hori nahikoa eta neurritzkoa izango litzateke edozein hiritarrek zenbait onura jasotzeagatik bakarrik erroldatzea ekiditeko.

Tarte hori hiru urte baino gehiagora luzatzeak, Gasteizko Udalak nahi bezala, gure ustez errotze neurri horrek lortu nahi duen helburuarekiko neurrigabekoa litzatekeen egoeraren aurrean jarriko gintuzke. Hiru urteko tartea luzatzeak, justifikazio objektiborik edo arrazoi zehatzik ez badago, gure udalerrira auzotar berri gisa etortzen diren pertsona talde batzuk diskriminatzea ekar dezake, gehiegizko denbora tartea itxaron behar izanez udal sustapeneko babes ofizialeko etxe bat lortzeko itxaropena izaten hasteko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **15/2006 GOMENDIOA, ekainaren 20koa, Gasteizko Udalari egina**

Udal horrek gutxienez bost urtez Gasteizko udalerrian errolaturik egon izana ziurtatu behar diren irizpidea berrazter dezala udal sustapeneko babes ofizialeko etxeen sarbideari dagokionez. Izan ere, neurri horrek diskriminazio negatiboa dakar udalerrian orain dela hiru urtetik hona bizi diren eta Gasteizen bizitzen jarraitzeko nahia duten pertsonentzat.



## **II. ERANSKINA**

GARRANTZI BEREZIA DUTEN  
ARARTEKOAREN BESTE  
EBAZPEN BATZUK





**ARARTEKOAREN EBAZPENA, 2006ko AZAROAREN 6koa. HORREN BIDEZ, SESTAOKO UDALARI, EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILARI ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN UDAL HARREMANETAKO ETA HIRIGINTZAKO DEPARTAMENTUARI JAKINARAZI ZAIZKIE SESTAO BIRGAITZEKO PROZESUARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.**

Aurrekariak

Ararteko erakundearen esku-hartzea Sestaoko Alde Berri auzo-elkarteak eta Iniciativa Gitana elkarteak adierazitako kexen ondorioz hasi zen. Ondorenean, Sestaoko Txabarri Garbi auzo-elkarteak ere, kexa bat adierazi zion erakunde honi. Idazki horien guztien edukia honakoa da:

1. Alde Berri auzo-elkarteak erakunde honengana jo zuen kexa bat adierazteko, erakunde ezberdinek ez zitelako arretarik ematen Sestaoko gizarte eta hiri birsorkuntzarako hartutako konpromisoei. Horrekin batera, Los Baños eta Simondrogas zonaldeek aspalditik hona bizi duten hirigintza hondameneko prozesua salatu zuten, eta auzo horiek jasaten duten gizarte gatazkako egoera adierazi.
2. Agertu zuten gainera, Udalak ez zuela udaleko etxebizitzaren egoera kontrolatzen, ezta errentatzaile guztiek alokairu kontratuko klausula guztiak betetzen zituzten edo jabeakide komunitateari eska zekizkion eta Los Baños zonalderako beharrezkoak ziren bizikidetzara arauak errespetatzen zituzten ere. Hiritarren segurtasun eza antzeman daitekeela erantsi zuten, eta zonaldean poliziaren presentzia urritzat jo zuten. Modu berean, bide segurtasunaren araudia betearazteko arduragabekeria salatu zuten.
3. Iniciativa Gitana elkarteak erakunde honengana jo zuen, auri deklarazioen ondorioz edota bestelako hirigintza jardueren ondorioz, ijito familiak etxebizitzetatik aterarazten ari zirelako. Pertsona horiek egoera zailean geratzen dira, bizileku duina topatzeko zailtasunak dituztelako, edo erroldatzea ezinezkoa zaielako. Modu berean, kezka agertu ziguten adin txikikoei eskola utzi beharrak ekar diezazkiekeen ondorioengatik, eta Administrazioek pertsonen beste bizileku bat emateko jarritako baldintzengatik.
4. Txabarri Garbi elkarteak Alde Berri elkarteak adierazitako kontuak berretsi zituen. Modu berean, bazterturiko taldeentzako –ijitoentzat batez ere– ezarritako gizarte esku-hartzeko politikaren eraginkortasun falta nabarmendu zuten, eta Sestaoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Plan Zuzentzailea gaizki aplikatzen zutela azpimarratu, ez zelako hirigintza eta gizarte birsorkuntzarik garatzen ari. Horren arrazoiak hirigintza jarduera batzuen eraginkortasun eza eta familiei udalerritik kanpo bizilekua emateko ekintzarik ez egotea izango lirateke. Halaber, auzotar komunitateei bizileku berrien edo hirigintza jarduerak harrapatzen zituzten pertsonen eskubideen gaineko informaziorik ez zietela ematen salatu zuten. Azkenik erantsi zuten, aurreikusitako jarduerak gauzatzeko atzerapenek segurtasun eza zekartela, eta beren auzoko egoera are larriagoa ari zela bihurtzen.

Aurreko kexak zirela-eta, Ararteko erakundeak egoeraren gaineko ikerketa hasi zuen, Sestaon garatzen ari zen gizarte eta hiri birsorkuntzarako prozesua gertutik ezagutzeko. Eginiko ikerketaren ondorioz, gure esku-hartzearen arrazoiak zabaldu egin ziren, in situ ikusi ahal izan genuelako Sestaoko auzotarrei eragiten zieten arazoak agertzen ari zirela, eta Administrazio ezberdinen jardunaren edo ez-egitearen ondorioz eskubideak urratzen ari zirela. Arartekoaren funtzioen artean, pertsona guztien eskubideen alde egitearena dago, inolako bereizketarik egin gabe, eta modu berean, Administrazioaren jarduna indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin eta interes orokorarekin bat datorrela bermatu behar du. Funtzio horiek bere iritzia arabera eta legeekin bat etorri garatzen ditu, eta helburua hiritarren interes legitimoaren defentsari gehien gerturatzeko zaizkien konponbideak eskaintzea da, Administrazioa interes orokorari egokitzeko zaiola bermatzearekin batera. Lan horiek kontuan hartuta, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen txosten bat egitea eta bertan, erakunde honek antzemaniko arazoak aztertzea, aurreko kexek adierazitakoez gain. Ondorioz, txosten honen xedea honakoa da:

- Sestaoko birsorkuntzarako Plan Zuzentzailearen zenbait ezarpen, Sestaon bizi diren familiak udalerrira utzi behar izatea, udalerrira utzi behar duten familiak zeintzuk izango diren zehazteko irizpideak, edo bertan bizileku berri bat izateko hamabost urtez erroldaturik egon izanaren betebeharra.
- Auri deklarazioengatik nahiz hirigintza jarduerengatik etxeak utzi beharra dakarten hirigintza jarduerak, desjabetzeak kasu.
- Udaleko etxebizitzaren egoera Los Baños zonaldean.
- Sestaon antzematen den gizarte kohesio faltaren egoera.
- Hirigintza birsorkuntzarako garaturiko prozesua, Administrazioak kalteturiko pertsonekin harremanetan jartzeko izandako modua.

Martxan jarritako esku-hartzearen helburua informazioa lortzea izan da, horren bidez hainbat gomendio eta proposamen egiteko. Horiek aztertutako egoera hobetzeko balio izango dute, zuzenbidearen ikuspegi bermatzailetik. Horixe da hain zuzen ere, erakunde honi dagokiona.

Lan honen hartzaileak Sestaoko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Saila dira, nagusiki parte hartzen duten Administrazioak direlako, eta horiekin batera baita Bizkaiko Foru Aldundia ere. Halaber, keax adierazi dituzten taldeak eta Eusko Legebiltzarra bera ere hartzaile izango dira. Arartekoak azken horri aurkezten dizkio eginiko txostenak. Gomendioen atalean ere, Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuei ere proposamenak egingo zaizkie, horien garapenean eskumenak izan ditzaketelako. Horien artean, Hezkuntza, Osasun, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza eta Industria Sailak egongo lirateke.

## • Arartekoaren jarduerak

Informazioa biltzeko erabilitako metodologia erakunde honek normalean garatzen duena izan da. Kasu honetan Eusko Jaurlaritzari, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Sestaoko Udalari eta Sestao Berri Sozietateari eginiko informazio eskaerak izan dira. Halaber, elkarrizketak izan dira alkatearekin eta Udaleko taldeko kideekin, udaletxeko langileekin, Sestao Berri Sozietateko pertsonekin, Ijitoen Idazkaritza Fundazioarekin eta Sestaon lan egiten duten erakunde eta elkarte batzuetako kideekin, horien artean, Alde-Berri auzotar elkarte.

Ondorenean, bildutako informaziotik txostenaren xederako interesgarria den informazioa bilduko dugu:

### a) Erakundearen eremuan:

**Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak** Txabarri-El sol esparruaren jardueretarako nagusiki sinaturiko hitzarmena aipatu zuen bere erantzunean. Jarduera horiek, adierazi zen moduan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailaren jardueretan aplikatu beharreko araudira atxikirikoak izango dira, bizileku berriaren eskubidea agertzerakoan. Jarduera horiek babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren inguruko finantza-neurriei buruzko 315/2002 Dekretuaren bidez arautzen dira.

Modu berean jakinarazi zigun, Sestao Berri S.A. enpresak bizileku berri guztien kudeaketaren ardura hartuko zuela bere gain, hirigintza jarduera ezberdinen sustatzaileen baimena lortu ondoren. Halaber, familien akonpainamendu eta gizarte laguntza, eta integrazio funtzioak garatuko lituzke, izan ere, haiek okupaturiko etxebizitzak eraitsi egingo ziren, udalerriko hirigintza jarduera ezberdinak zirela bide. Salbuespen gisa Txabarri-El Sol esparrua aipatu zen.

Sestao Berri, S.A. Sozietatea indarrean dagoen araudi orokorrera atxiki beharko zaio. Araudi hori Lurzoru Erregimena eta Hiri Ordenamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 26ko 1/1992 ED Legegilearen Laugarren Xedapen Gehigarriak eratuko luke, desjabetze jardueretan bizileku berria izateko eskubidea, eta errentarien itzulera eskubidea jasotzen duelako, eraikuntza berriak egin badira eta desjabetzerik izan ez duten jarduera isolatu kasurako. Modu berean, onartuko den Lurzoru Legearen zehaztapenetara eta etxebizitzarik izan ez eta diru-sarrera urriak dituztenei babesten dien araudian ezarritako muga orokorretara atxiki beharko zaie.

Bere erantzunean, **Bizkaiko Foru Aldundiak** esfortzu osagarria egiteko konpromisoaren berri eman zuen, garai batean jasandako krisi ekonomiko larrietan gehien pairatu zuten zonaldeetako garapena ahalbidetzeko, Nerbioi itsasadarraren aldeetan birsorkuntzarako jarduerak zuzenean garatuz. Krisialdian bereziki kalteturiko udalerrien artean Sestao egon zen, Bizkaia zati garrantzitsu baten ardatz ekonomiko antolatzailerak izan zelako.

Foru Aldundia 2003 urtean hasi zen Sestaoko Udalarekin elkarrizketak izaten, modu horretan, udalerrian gizarte eta hiri birsorkuntzarako jarduera ezberdinak garatzeko lankidetzara hitzarmena sinatzeko.

2004ko azaroaren 4an Esparru Hitzarmena sinatu zen Sestaon gizarte eta hirigintza jarduera ezberdinak garatu eta martxan jartzeko. Hitzarmen hori Sestaoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkailur, S.A. foru sozietate publikoak sinatu zuten. Bertan, ondorenean zehaztuko diren helburuak izango zituzten jarduerak bildu ziren:

- Iparraldeko industrialdearen berrindustrializazioa, Hiri Ordenamenduko Plan Orokorrean zehaztua, “Naval” 19. zenbakiko banaketako aldearen eremuan.
- Bizkaiko Foru Aldundiak Ballonti ardatza eratzen duen foru bideen korridoreko El Carmen-Kueto tartea gauzatzea ahalbidetzea.

Halaber, sozietate bat eratu zen: Sestao Bai. Partaidetzaren % 50a Sestaoko Udalarena izango zen, eta beste horrenbeste Bizkailur S.A. foru Sozietate publikoarena.

Sozietate horrek garatutako jarduerari dagokienez, txosten honen xedeari eragiten diotenak bilduko ditugu nagusiki, nahiz eta Ballontiko bide ardatzaren eraikuntzaren inguruan dauden aurreikuspenen berri ere eman zitaigun. Azken hori 2007rako aurreikusi zen eta zubi berria eraikitzea suposatzen zuen. Modu berean, Simondrogas-Kueto tartea eraikitzea ere aurreikusi zen. Horretarako beharrezkoak diren azterketa teknikoak eskatu dira jada.

Hirigintza jardueren xede ziren etxebizitzetarako dagokienez, eman zitaigun informazioa honakoa da:

*“Sestaoko Hiri Ordenamenduko Plan Orokorrearen aldarazpenaren arabera, Iparraldeko Industrialdeko Zonaldean eta Nerbioi Ibarreko eta Galindo Banaketako Aldean, Rivas kaleko 52, 54, 58, 60, 62 eta 64 zenbakietako eraikinak ez datoz bat hirigintza ordenamenduarekin, eta beraz, horiek eraistea aurreikusten da.*

*Rivas kaleko 62. eta 64. eraikinak “La Navaleko” 19. zenbakiko Banaketako Aldearen 8. Exekuzio Unitatean sarturik daude, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenak 2005eko otsailaren 18an emaniko epai irmoa dago adieraziz, higiezin horiek aurrerantzean egoeran daudela. Beraz, horiek eraistea aurreikusita dago. Eraispentak ekarriko dituen gastuen ordainketa higiezinen jabeek dagokie legalki. Sestao Bai S.A. sozietateko Administrazio Kontseiluak, 2006ko martxoaren 29an eginiko bileran, aipaturiko eraikinen eraispentari dagozkion gastuak bere gain hartzea erabaki zuen. Aurreikusitakoaren arabera, egun kopuru hori 145.007,74 €-koa izango litzateke.*

*Lurzoruaren balioarengatik jabeek dagozkien indemnitazioen zenbatekoak zatiketa berriaren proiektuaren likidazioan jasotzen dira. Proiektu hori orain dela gutxi onartu zuen Sestaoko udalak.*

*Rivas kaleko 52, 54, 58, 60 eraikinak Sestao Bairen exekuzio unitate berrian sarturik daude. Jabeek eman beharrek indemnitazioen zenbatekoak gauzatze fasean dagoen Zatiketa Berriko Proiektuaren likidazioaren kontuan islatuko dira.*

*Sestao Bai, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak espresuki erabaki du 52, 54, 58, 60, 62 eta 64 eraikinetako auzotarrei emango zaien bizileku berria Plan Zuzentzailearen esparruan hartutako konpromisoen arabera egingo dela, eta horien kudeaketa Sestao Berri 2010 S.A. Sozietateari egokitu zaiola.*

*Bestalde, nabarmentzekoa da proposamen bateratua egin dela Sestao Bai S.A., Sestao Berri 2010 S.A., Orubide S.A., Sestaoko Udala, eta Plan Zuzentzailearen idazkaritza teknikoaren (funtziokoa) artean, Plan Zuzentzailearen Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko. Bertan, irizpide komunak ezarritza proposatzen da, Sestaoko hirigintza birsorkuntzako jarduera ezberdinetan sartutako higiezinak baloratzeko”.*

**Sestaoko Udalak** emaniko erantzunean jakinarazi zigun, Sestao birsortzeko asmoarekin garaturiko jarduerak ahalik eta trauma gutxiena eraginez ari zirela garatzen, eta modu berean, kalteturiko pertsona eta/edo familien gizarteratzea sustatzen saiatzen ari zirela. Horretarako, Sestao barruan eta kanpoan bizilekua erraztu zaie horretarako eskubide legala dutenei. Horrekin guztiarekin batera, beharrezkoa den jarraipen eta kontrola egin da familia horiek bizileku berrira behar bezala egokitzen direla bermatzeko, toki hartzailean ahalik eta gizarte inpaktu txikiena eraginez. Horretarako, bi enpresa sortu ziren, Sestao Berri (Eusko Jaurlaritzaren partaidetzarekin) eta Sestao Bai (Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetzarekin). Enpresa horiek garatu zituzten jarduerak honako hauek izango lirateke:

- Sestao Berri:

Garatu duten jarduera, lehenik eta behin, pertsonala kontratatzea izan da. Zuzendari baten, finantza arduradun baten, gizarte teknikari baten eta administratzaile baten lanpostuak betetzeko langileak kontratatu

dira. Gainera, gizarte langileen laguntza teknikoak kontratatu da bizileku berrirako, akonpainamendurako eta gizarte orientabiderako ezarritako lan ezberdinak garatzeko.

Bestalde, auri egoera deklaraturaz epai irmoak dituzten familien lehenengo kanporaketak egiteari ekin zaio.

Azkenik, kokapen berrien lehenengo esku-hartze zonaldea zehaztu da Kale Nagusiaren luzapenarekin.

- Sestao Bai:

Helarazi zitzaigun informazioaren arabera, enpresak garaturiko jarduerak honakoak dira:

- Industria lurren karakterizazio azterlanak egin dira.
- La Aurrera izeneko industria aurria eraitsi da.
- La Navalen zatiketa berrirako proiektua aurkeztu da.
- Sestao Bairen zatiketa berrirako proiektua aurkeztu da.
- Hirigintza proiektua kontratatu da.

Erantzunean ere adierazi zen, koordinazioa dagoela oinarrizko gizarte zerbitzuekin aipaturiko jardueren jarraipena eta kontrola egiteko. Gainera, segurtasunerako jardura protokoloa ere garatu dela jakinarazi zitzaigun “bertako segurtasuna areagotzeko eta delituak egin aurretik prebentzioko neurriak hartzeko.” Horretarako, delituak egiteko susmagarritzat jotzen ziren pertsonen eginiko jarraipena areagotu egin zen, modu horretan segurtasun ezeko egoerak ekiditeko.

Hiritarrek eskaturiko informazioari dagokionez adierazi zitzaigun, Plan Zuzentzailean parte hartzeko aukera eman zitzaizela parte hartzeko prest zeuden elkarte guztiei. Halaber azpimarratu zitzaigun, Plan Zuzentzailearen zuzendaritza kontratatu bezain laster, elkarte ezberdinekin eta auzotarrekin izandako harremanak berreskuraturiko direla bere erantzukizunen barruan beharrezkoak diren kontuen berri emateko, haientzat eraginik izan badezakete.

Amaitzeko, honakoa nabarmendu zen: *“garatzen ari den lana neurri eta konplexutasun handikoa da, erakunde eta agente sozial ezberdinen jardura koordinatua behar duelako, eta nagusiki, Bizkaian garatzen den mota honetako lehenengo jardura delako, alegia, legea errespetatuz, pertsona guztien eskubideekiko errespetua izanez eta aurretiko negoziazioa eginez burutzen den lehenengoa. Horren bidez, familiei kokapen berria bilatuko zaie, kasu honetan Sestaon bertan edo beste tokiren batean. Izan ere, udalerriak ezin du ezinbestekoa duen birsorkuntza prozesua sustatu herri barruan bizileku berriak emanez bakarrik. Ekintza horrek bizitoki duina bermatzen die ez-etxeetan bizi diren hirurehun familiari gutxi gorabehera. Horietatik heren bat ijitoak dira.”*

## **b) Bilerak gizarte taldeekin**

Bilerak izan ditugu zenbait talderekin, gure esku-hartzearen sustatzaileak izateagatik edo udaleko gizarte programetan parte hartzeagatik. Ondorenean, adierazi zizkiguten kontuen laburpena adieraziko dugu:

- Alde Berri auzotar elkarteak bere kezka agertu zigun, Los Baños zonaldeko auzotarrek pairatu beharreko gizarte bizikidetzako zailtasunengatik. Zonalde horrek hirigintza degradazio oso larria jasan du, eta egun hobekuntzak egiten ari zaizkio, nahiz eta oraindik ez diren nahikoak. Los Bañoseko zonaldean udaleko etxebizitzak pilatzen direla agertu zuten, eta horietatik batzuk hondamen garrantzitsua jasan dutela errentatzaileek modu desegokian erabili izan dituztelako eta Udalak ez duelako kontrolik egin kontratuen baldintzen betetze mailaren gainean. Halaber erantsi zuten, Udalak ez ziela arretarik eman auzotar komunitate ezberdinen bizikidetzako zailtasunei buruzko errekerimenduei. Salaketak udaleko etxebizitzaren erabilpenean oinarritu ziren batez ere, eta zonalde berdinean gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonen pilaketak ere adierazi zituzten. Halaber, pertsonen eta bideen segurtasuneko kontuak azpimarratu zituzten, eta baita Udalak hiritarrak babesteko duen funtzioaren utziera nabarmendu ere.
- Caritasek eta Ijitoen Idazkaritza Fundazioak biztanle ijitoek zituzten etxebizitza arazoak agertu zizkiguten, etxebizitzaren auri deklarazioen ondotik etorritako etxebizitzak husteko beharrezko ondorioz eratorritakoak. Modu berean, zenbaitetan udaleko gizarte zerbitzuen aldetiko ezagutza edo esku-hartze falta salatu zuten, familia horien kanporatzeen aurrean. Halaber, gizarteak ijito familienganako eta erakunde horienganako duen gutxiespenaren berri eman ziguten. Jakinarazi zigutenaren arabera, Udalaren jarrerak ez ditu ijito familiak edo ijito familien babeserako gizarte programak modu tinko eta erabakigarri defendatu izan zenbaitetan.

### Arartekoaren hausnarketak Sestaoko birsorkuntza prozesuari buruz

1. Aurrekari gisa garrantzitsua da aipatzea, Eusko Legebiltzarrak legezkoa ez zen proposamena onartu zuela 2002ko azaroaren 8an, Sestaoko udalerrian berehalako jarduerak garatzeko beharrenean gainean. Data horretan erakunde ezberdinekin izandako harremani ekin zitzairen, hirigintza nahiz gizarte edo ekonomia-  
ren sustapenerako jarduerak martxan jartzeko. Onartu zen Sestaok ez zuela nahikoa baliabiderik zituen beharrei aurre egiteko, beraz, erakundeen arteko lankidetzak oso beharrezkoa zela. Lankidetzak hori Eusko Jaurlaritzak nahiz Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako konpromisoetan zehaztu da, azken horren kasuan Sestao Bai S.A. eta Sestao Berri S.A. sozietateen eraketaren bidez. Lankidetzak udalerriarren gizarte eta hiri birsorkuntzarako Plan Zuzentzaile baten bidez ere islatu da.
2. Gure esku-hartzea testuinguruan kokatzeko helburuarekin, komenigarria da Sestaoko udalerriko zenbait ezaugarri azpimarratzea:
  - XX. mendearen bigarren erdialdean biztanleriaren hazkundera bizi izan zuen udalerria da, siderurgiako industriak eta ontziolak eskulana behar zutelako. Industria horiek Bizkaiko hazkundera ekonomikoan lagundu zuten. Industria horiek XX. Mendearen azken bi hamarkadetan izandako krisiak Sestaoko langileen galera ekarri zuten, eta gizarte eta ekonomia sareko agente ekonomiko eta instituzionalek ere alde batera utzi zuten orain dela gutxi arte.
  - Ikuspegi sozioekonomikotik aztertuta, baztertuak izateko arriskuan dauden pertsona kopuru handia du, gizarte bazterkeriarekin loturiko arazoengatik, besteak beste: ez-etxeak, gizartean parte hartzeko zailtasunak, lan merkatuan sartzeko zailtasunak, prestakuntza maila baxua edo osasun arazoak. Bilboko metropoliko adierazle sozial eta ekonomiko negatiboak agertzen ditu.
  - Azken urte hauetan hirigintza, ekonomia eta gizarte hondamen garrantzitsua bizi izan duten auzoak ditu, orain dela gutxi arte birgaitzeko hirigintza jarduerarik izan gabe edo gizarte ekipamenduetan inbertsiorik ezagutu gabe. Bizigarritasunak eskaturiko baldintza guztiak betetzen ez dituen etxebizitza kopuru garrantzitsua dago (azpiegiturako elementuetan kalteak dituzten etxebizitzak edo oinarriko ekipamenduak falta dituztenak). Askok aurrerik deklarazioa jaso dute jada, edo jasotzeko izapide fasean daude.
  - Inguruko udalerriek baino jito populazio handiagoa du ehunekotan aztertuz gero.
  - Sestaoko biztanleen aldetik gizarte bazterkeria eta marjinazio egoerek, eta existitzen diren gizarte aurreiritziek komunitatearen eta udalerriko auzotar batzuen bizitza zailteza ekarri duen gizarte kohesio falta suposatzen dute.
  - Bazterkeria egoeran dauden pertsonak pilotzen diren beste auzoetan gertatzen den moduan, gizarte alarma ekartzen duen segurtasun ezeko sentimendua agertzen da hiritarren aldetik.
  - Auzotar eta elkarte dinamismo handia duen udalerria da.
  - Aipatutako gizarte eta hirigintza arazoak deuseztatzeko asmoz, Sestaoko Udalak Plan Zuzentzaile bat du 2003ko martxoetik aurrera, hiria eta gizarte birgaitzeko. Plan horretan hiriaren eta gizartearen diagnostikoa, soziala eta sozioekonomikoa aurki daitezke, eta esku hartzeko eremu ezberdinak, planak eta proiektuak ezartzen ditu, horren guztiaren kostu ekonomikoarekin eta ebaluaziorako proposamenekin, besteak beste.
  - Plan Orokorren aldarazpen bat ere onartu zen 2003ko apirilean, Iparraldeko Industrialderako.
  - Gainera, Sestaoko Udalak bi hitzarmen sinatu ditu Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Horietan, erakundeek Sestaoko birsorkuntza prozesua garatzeko konpromisoa hartu zuten.
    - a) 2005eko apirilaren 6an, lankidetzak hitzarmen bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietan Sailaren eta Sestaoko Udalaren artean. Horren bidez, Galindo Ibarra eta Txabarri-El Sol eremuen hiri eta gizarte birsorkuntza programa garatuko zen. Modu berean, La Navalerako programa, Kale Nagusiaren luzapena, Ballonti ardatza eta ACBren zabalkuntza garatzeko bidean jarri ziren. Dokumentu horretan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietan Sailak bizileku berriaren kudeaketa zuzena bere gain hartzeko konpromisoa onartu zuen, Txabarri-El Sol eremurako aurreikusitako hirigintza kudeaketaren ondorioz bizileku berria behar duten bizikidetzak unitate legalen kasuan. Horretarako Sestao Berri, S.A. sozietatea sortu zen.
    - b) Halaber, 2004ko azaroaren 4an Esparru Hitzarmen bat sinatu zen Sestaoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean, Sestaon hiri eta gizarte jarduera ezberdinak garatu eta gauzatzeko. Hitzarmen horren xedea Sestaoko udalerriarren birsorkuntza prozesuan lagunduko zuten jarduerak sustatu eta garatzea zen, bereziki "La Naval" 19. zenbakiko banaketako aldean, baina modu berean, baita El Carmen-Kueto tartea gauzatea ahalbidetzea ere, alegia, Ballontiko ardatza eratzen duen foru bideen korridorea.

3. Sestaon agertzen diren gizarte erreklamazioak oso ezberdinak dira, eta ondorioz, erakunde honi adierazitako kezak ere mota askotakoak izan dira. Jarrera eta helburu aniztasun horren aurrean, Arartekoak egin dituen hausnarketak bere funtzioetan oinarriturikoak izan dira. Funtzio horiek Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 1. artikulua zehazturikoak dira. Honako txosten hau, beraz, hiritarren oinarrizko eskubideak defendatzeko eta babesteko funtzioen izenean egin da.
4. Txostenak Sestaoko Udalak eginiko eta Eusko Jaurilaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak onarturiko Plan Zuzentzailea aztertzen du, eta horrekin batera, baita birsorkuntza prozesuarekin betetzeko garatzen ari diren jarduerak ere, bertan Administrazio ezberdinek konpromisoak dituztelako:

Sestaoko Udalak Plan Zuzentzaile bat egin zuen 2003ko martxoan, hiriaren eta gizartearen birsorkuntza antolatzeko. Horretarako Txabarri, Urbinaga, Rivas-Simondrogas eta Los Baños auzoetan sarturiko jarduerak bideratu ziren.

Erakunde honen ustetan, ezaugarri horiek dituen Plan bat aukera ona da Administrazio ezberdinen konpromisoak eta jarduerak bateratzeko, eta gizartearen parte-hartzea sartzeko. Plan horrek, esan den moduan, inplikaturiko hiru mailen nahiak biltzen ditu.

Plana bi zatitan banatzen da. Lehenengo zatiak irizpide filosofikoak, helburuak eta gizarte, hiri eta ekonomia diagnostikoak biltzen ditu.

Hasiara batean, idatzitako irizpideek eta filosofiak hiri eta gizarte birsorkuntza xedetzat dituen Planak jarraitu beharreko ildo nagusiak biltzen dituzte:

- Ez-etxeetan bizi diren pertsonen kanporatze-lekualdatze sozialeko prozesuen ikuspegi osoa izatea. Horrek bizilekuari uztarturiko gizartearen parte-hartzearen sustapena suposatzen du.
- Talde ahulenen gizarte bazterkeriaren prebentzioa, kalteturiko zonaldeetan bizikide diren pertsona guztien taldeko garapena eta udalerrri osoaren garapen ekonomikoa, kokapen berriko prozesuarekin bat etorritz.
- Erantsitako jarduerak kalteturiko pertsonen eta taldeen oinarrizko beharrak asetzeko joera dute, nagusiki etxebizitzarekin, osasunarekin, lanean edo prestatzen hastearrekin, hezkuntza jasotzearekin, gizartearen parte-hartze eta sartzearrekin eta gutxieneko diru-sarreraren bermearrekin uztarturiko gaietan.
- Genero, etnia, kultura edo erlijio ezberdintasuna alde batera utzita, eskubide eta betebeharren errespetu eta sustapenaren bermea. Horrekin batera, hiritar guztiak bizikidetzat positiboaz gozatzeko duten eskubidea ere babestea, beren inguruan edo ohiko bizilekuan.
- Erantzukizun publikoko printzipioak, Administrazio publiko ezberdinen arteko koordinazioa, eta baita gizarte ekimeneko, planifikazioko, gizarte parte-hartzeko, garapenerako lankidetzako, jardueren eta zeharkakotasunaren integrazioko ekimenak garatzen dituzten erakundeen erantzukizuna ere.

Hala eta guztiz ere, Planaren idazketan jasotako printzipio eta filosofia horiek alde batera utzita, programak egin eta garatzerakoan ez dira erabat bete izan, aurrerago aztertuko dugun moduan.

Gainera, Planak diagnostiko bat jasotzen du, eta bertan auzoen gizarte, hiri eta ekonomia ezaugarriak aztertzen ditu xehetasun osoz. Azterlan horrek zonaldearen eta bertan antzeman daitezkeen arazoenguruko balorazioa egitea ahalbidetzen du. Balorazioan ez-etxeen eta/edo aurrerago eagoan dauden etxebizitzaren arazo nabarmenak da Sestaoko arazo nagusienetako bat bezala.

Planean ahultasun gisa antzematen da beste erakunde batzuen babesa jasotzeko beharra, eta horien artean Eusko Jaurilaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia egongo liriteke. Garatuko diren neurrien garrantziak erakunde ezberdinen arteko lankidetzat eskatzen du, lehen ere adierazi dugun moduan.

Lehenengo atal hori Plana eratzerakoan agertzen ziren baliabideen balorazioarekin eta Sestaok hezkuntzan, sustapen ekonomikoan, hiri ekipamenduan, menpeko, adineko edo adin txikiko pertsonentzako programa eta zerbitzuetan, edo talde ahulekin lanean dihardutenen eginkizunaren agertzen diren beharren adierazpenarekin amaitzen da.

Planaren bigarren zatiak ekintza zehatzak biltzen ditu. Planak sei esparru ditu, zortzi helburu estrategiko, hamaika plan eta hogeita hamabi proiektu. Txosten honetan bi eremu bakarrik aztertuko ditugu, hiri eta gizarte eremua, eta gizarte eta komunitatearena, txostenaren xedearekin lotura gehien dutenak izateagatik eta gure ustez, berrikuspen beharra duten elementu batzuk agertzeagatik:

Gizarte eta hiri eremuari, eta gizarte eta komunitate eremuari dagokienez, helburu estrategikoak hirigintza eta gizarte jarduerak modu bateratuan egitea, eta esku-hartze eta jarraipen pertsonalizaturako sistema diseinatu eta garatzea dira, hurrenez hurren. Bizigarritasun baldintza oso txarretan dauden Sestaoko zonalde batzuk berriro hiritzea izango litzateke. Horretarako aurreikusita dago, eraikin horietan bizi diren pertsonak etxeak uzten joatea, eta aldi baterako edo behin betiko bizileku berrirako proposamen batzuk egiten ditu, etxebizitzan egindako denborarekin (eskubidea modu argian onartzeko, bertan 15 urtez eroldaturik egon

izana eskatzen da) eta familien jatorri etnikoarekin zerikusia duten baldintza batzuk betetz gero. Izan ere, asmoa Sestaon bizileku berria izango duten familiak ijitoen etniakoak ez izatea da.

5. Gure esku-hartzearen xede nagusiak hiri eta gizarte eremuarekin du zerikusia, eta bereziki, aurreikusitako jardueren eta printzipio orokorren arteko bateragarritasuna, parte-hartze printzipioa, edo legearen aurrean berdina izateko eskubideari egokitzea, adibidez. Eraitsi beharreko etxebizitzetan bizi diren familien bizileku berrirako planei eta Sestaotik kanpo kokatu beharreko familiei buruz ari gara. Horrela, neurri hori gauzatzeko zenbaitetan aurreikusitako modua aztertzea komenigarria litzateke, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa errespetatzen duen ala ez, edo pertsona ahulenen sustapenerako eta ezberdintasun egoerak gainditzeko hartutako konpromisoak betetzen diren ala ez.

Bizileku berrien kontua proiektu ezberdinen bidez gauzatzea aurreikusten da, adibidez, Sestaon babes ofizialeko etxebizitzak eraikiz, Los Baños zonaldean etxebizitzak birgaituz, aldi baterako lekualdatzeetarako desjabeturiko etxebizitzak birgaituz, udaleko etxebizitzak egokituz lekualdatze larrietarako Sestaon eta Sestaotik kanpo, bertan bizi ez diren jabeen desjabetzeak gauzatzuz, Sestaotik kanpoko bizilekuak emanez, eta azkenik, auri egoeran dauden etxebizitzetan bizi direnak kanporatuz eta/edo aldi baterako lekuz aldatuz.

Proiektuak bere horretan positiboak izan arren hirigintza hobekuntzak dakartzatelako, bizileku berria emateko ezarritako irizpideak, kalteturiko familiak identifikatzeko erabilitako modua, Sestaotik kanpoko bizilekuetarako eginiko aurreikuspenak eta Sestaon auri egoerako espedienteak kalteturiko familien bizileku berrirako ezarritako hamabost urteko erroldatzeak, gure ustez, tratamendu ezberdinak dakartzate jatorri etnikoaren arabera. Horiek ez dira behar bezala justifikatu izan, eta horregatik, diskriminazio egoerak ekar ditzakete.

Hona hemen nabarmenduko genituzkeen elementuak:

- 5.1. **Bizileku berrietarako irizpideei** dagokienez. Planak *“pilaketa ekidin behar dela adierazten du, oinarrizko errentak jasotzen dituzten familien, ijito etniako familien eta azarokak eta gatazkak sorrarazten dituzten familien kasuan”*.

Konstituzio Espainiarraren (KE) 14. artikulua berdintasun printzipioa jasotzen du: *“Espainiarrak legearen arabera berdina dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”* Administrazioak legearen eta Zuzenbidearen arabera jardun behar du, eta baldintzak sustatzeko eta oztopoak deuseztatzeko betebeharra du, pertsonen eta horiek eraturiko taldeen askatasun eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan daitezen (KEaren 103. eta 9. art.). Administrazioek garatu beharreko politikak gizarte sustapenekoak dira. Txirotasuneko egoerak eremu berean pilatzeak ez du gizarte eta ekonomia sustapenaren alde egiten, baina egoera hori ekiditeko kontua ez da ahulena banatzeko politikak garatea, baizik eta banakako pertsonentzat nahiz gizartearentzat erantzunak proposatzea, ekonomikoki hobetzeko eta gizartearen kohesioa areagotzeko, beti ere berdintasun printzipiotik abiatuz. Administrazioak interes orokorarentzat egokientzat jotzen duen biztanleriaren banaketa zehatza sustatu dezake (beti ere behar bezala justifikatuz), baina horretarako ezin du, inolaz ere, tratu ezberdina eman pertsonari, etnia edo aberastasun irizpideetan oinarrituz. Izan ere, jokabide hori erabat kontrajartzen zaio berdintasun printzipioari, eta beraz, beste bide batzuk erabili behar dira.

Laneko merkatuan sartzeko zailtasunek, txirotasunak, gizarte bazterkeriak edo bizikidetzako gatazkak egoteak herri Administrazioen parte-hartzea eskatzen dute. Haien helburua ezin izan daiteke horrelako familiak kopuru handitan pilatzea galaraztea konponbiderik eman gabe edo haien beharrak kontuan hartu izan gabe. Horregatik, bizilekurako irizpideak proposatu ahal izateko, beharrezkoak da pertsona horien eta beren zailtasunen inguruabar pertsonal eta sozialak aztertzea eta diagnostikatzea. Udaleko gizarte zerbitzuek oso ondo ezagutzen dute haien egoera, izan ere, pertsona horiek zerbitzuen erabilzaile dira, eta beraz, azterketa eta diagnostikoa egitea posible da.

Edozein hautapen prozesuk gainera, diskriminazio positiboko bideak ezarri beharko litzuzke. Horrela, gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen beharrak kontuan hartuko beharko lirateke. Etxebizitza, laguntza ekonomiko eta lan munduan sartzeko edo prestakuntza eta hezkuntza beharrak dituzten familia jakinak dira, horrelakorik ez dutelako gizarte bazterkeriaren ondorioz. Horrela, txirotasunak edo talde ahulenen pilaketak gizarteratzea ahalbidetzen duen ala ez alde batera utzita, botere publikoek ez lukete inoiz hirigintza jarduera bat erabili behar mekanismo diskriminatzaile gisa, auzo edo udalerritako batetik ijito etniako pertsonak bezalakoak urruntzeko. Egin beharko litzatekeena familia zehatz horien gizarte egoera kontuan hartzea da, zailtasunak, beharrak eta borondatea ezagutu, eta destinoko komunitatearen berri izan. Irizpide eta baldintza horiek kontuan hartuz bakarrik proposa daitezke bizileku berria.

Horregatik, uste dugu "oinarrizko errentak jasotzen dituzten familien, ijito etniako familien eta aza-roak eta gatazkak sorrarazten dituzten familien kasuan pilaketak ekidin behar izateak" ezin duela irizpide bat izan, zonalde batean kokatzea edo beste batean ez kokatzea diskriminatzailea izango litzatekeelako arrazoi horiengatik.

- 5.2. Plan Zuzentzailea egiteari dagokionez, erakunde hau kezkatzen duen beste kontuetako bat **familiak identifikatzeko erabilitako modua** izango litzateke. Familiak honako datuak bezalakoekin bidez ezaugarritzen dira: oinarritzko errentak jasotzea, ijito etniakoak izatea edo arazoak eta gatazkak sortzen dituztenetakoak izatea. Horrek gizartea iraindua sentitzea ekar dezake, ez dituelako giza eta gizarte errealitateak, bizitzen historiak edo lan munduan eta gizartean sartzeko dituzten edo izan dituzten kanpoko oztopoak kontuan hartzen. Gure iritziz, inguruabar horiek ez dute inolako informaziorik eransten, eta ezin erabil daitezke Sestaotik ateratzeko justifikazio gisa. Gainera, jatorri etnikoaren edo gizarte familien arabera identifikatzeko eta zerrendatzeko modu hori beren ohore eta intimitate personal eta familiararen aurka doa. Gainera, horietako datu batzuk bereziki babesturikoak dira, eta beraz, horien tratamenduak izaera pertsonaleko datuen babeserako 15/1999 LOak ezarritakoa bete behar du.
- 5.3. **Sestaotik kanpo bizileku berria emateko ezarpena.** Planak hainbat familia Sestaotik kanpo kokatzea aurreikusten du, baina ez du zehazten prozesu hori gauzatzeko modua zein izango den edo kalteturiko familekin akordio batera iristeko emango diren urratsak zeintzuk izango diren. Familia bat Sestaotik kanpo kokatzeko erabakia familiarean adostasunarekin hartu behar da, eta pertsona bakoitzaren ezaugarriak eta laneko inguruabarrak kontuan hartuta, adin txikikoen kasuan hezkuntza inguruabarrak. Planak ez du zehazten zer bide erabiliko den familiarekin adostasunera iristeko, eta hori bereziki garrantzitsua da, izan ere, azken batean pertsonen egoitza modu askean aukeratzeko duten eskubideari eragiten dio (KE 19. art.).
- 5.4. Auri espedienteak kalteturiko pertsonak berriro Sestaon kokatzeko 15 urtez eroldan egon behar izanaren proposamena. Proposamen horrek udalerrian errozte maila zehatza izatea exijitzen du, nahiz eta horretarako argibide egokirik ez egon. Arartekoaren ustez, irizpide hori ez dago justifikatuta. Ez da bidezkoa 15 urteko eroldatzea eskatzea familiak Sestaon kokatzeko berriro. Zonaldeko gizarte eta hiri birsorkuntzarako neurriak ezartzean datza. Baldintza horrek Sestaon denbora luzea bizitzen daraman jende asko kanpoan uzten du. Ez dator bat ez Plan Zuzentzailearen printzipioekin, ezta haren filosofiarekin ere. Planak gizartearen garapena lortu nahi du, kalteturiko zonaldean bizi diren pertsona guztiena, eta horrekin batera, baita udalerriko garapen ekonomikoa ere. Zonalde bateko birsorkuntza ezin da egin Sestaon bizi diren familiak kanpo utziz, Sestaon bertan edo beste tokiren batean bizitza duina izatea ahalbidetuko dien inolako konponbiderik eskaini gabe. Administrazioak modu berean tratatu behar ditu pertsona guztiak. Zentzu horretan, garrantzitsua da zerga, administrazio eta gizarte neurriak arautzen dituen abenduaren 30eko 62/2003 Legean bildutako diskriminazioaren aurkako borrokarri buruzko xedapenak gogoraraztea. Bertan, zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioaren kontzeptuak biltzen dira. Legegileak debekatu egiten du tratu gutxietsgarria ematea arraza edo etnia, erlijio edo sinesmen, ezintasun, adin edo sexu orientazioko arrazoiengatik xedapenetan, kontratuetan, erabakietan... nahiz eta horiek neutroak iruditu, beti ere helburu legitimoari erantzuten ez badiote eta bideak egokiak eta beharrezkoak ez badira. Legearen definizio hori bat dator Auzitegi Konstituzionalak 145/1991 epaian agerturiko doktrinarekin. Kasu hartan sexu arrazoiengatik diskriminazio suposamendu bati aplikatu bazitzaion ere, uste dugu garrantzitsua dela hemen aipatzea, lehenengo aldiz diskriminazio zuzeneko printzipioa sartzen duelako: *"Pertsona bati sexu arrazoiengatik tratu ezberdina emateari dagokionez, komenigarria da gogoraraztea, Auzitegi honek adierazi duen moduan, «KEaren 14. artikulua*ren ahalmena ez dela agortzen edukiarri hasiera ematen aldie berdintasuneko klausula orokorrarekin. Modu berean, historikoki oso barneraturik dauden zenbait alde debekatzeko helburua du. Joera horiek botere publikoaren jardunaren nahiz gizartearen praktikaren ondorioz errotoz dira, eta biztanleen talde handiak egoera desabantailatsuetan ez ezik pertsonen duintasunaren aurkakoak direnetan ere kokatu dituzte. Duintasun eskubide hori KEaren 10. artikulua jasotzen du.» -AKE 19/1989 (RTC 1989\19), 4. oinarri juridikoa. Baieztapen horrek tradizionalki bazterturiko taldeentzako onuragarri ziren neurri arautzaile batzuk KEaren 14. artikuluari egokiturikoak direla adieraztera eraman du - Auzitegi Konstituzionalaren 128/1987 Epaia (RTC 1987\128) eta 19/1989 Epaia-, eta modu berean, eragin garrantzitsuak ditu talde horientzako gutxietsgarria den ezberdintasun bat KEaren 14. artikulua ezarpenarekin bat datorren ala ez epaitzerakoan.
- Pertsonaren ezaugarriengatik eta bereziki sexu arrazoiengatik diskriminatzeko debeku konstituzionala berdintasuneko nozioarekin uztartzen da. Kasu horretan egongo litzateke adibidez emakumea, historikoki gutxietsgarritasun soziala, ekonomikoa eta juridikoa jasan duen taldearen kide izateagatik. Horrek diskriminazioaren nozioa zabaldu eta aberastea ahalbidetzen du, zuzeneko diskriminazioaren nozioa ez ezik, zeharkako*



*diskriminazioarena ere eransten duelako, hau da, sexu arrazoiengatik eta sexuaren ezaugarria zuzenean kontuan hartzen den kasuan ematen den tratu gutxiesgarria ez ezik, formalki diskriminatzaileak izan gabe sexu ezberdintasunagatik langileen arteko aldeak dakartenak ere sartzen dira. Horien ondorioak kasu bakoitzean ezberdinak izango dira, formalki tratamendu berdina jaso arren praktikan tratamendu ezberdina jasotzen dutelako, eta arrazoi bakarra sexu ezberdina izatea da.*

*Horrek esan nahi du, organo judizial batek aipaturiko ezarpenak diskriminatzailetzat jotzen dituen ezaugarrietan oinarrituriko tratu ezberdintasuna aipatzean –kasu honetan, sexu ezberdintasunak–, eta aipamen hori hain zuzen ere tradizionalki zigor hori jaso duen taldeko pertsona batek egiten badu –kasu honetan emakumeen taldea–, organo judizialak ezingo duela bakarrik tratu ezberdintasunak justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa duen baloratu modu abstraktuan. Formalki arrazoizko ezberdintasun gisa agertzen denak KEaren 14. artikulua erurkako diskriminazioa estaltzen duen edo estal dezakeen aztertu beharko luke zehazki (AKE 145/1991).*

Kasu honetan, hamabost urteetako irizpidea diskriminatzailea den ala ez aztertu beharko litzateke, adierazitako araudia eta Auzitegi Konstituzionalak berdintasun printzipioaren inguruan egiten duen interpretazioa aplikatuz gero. Planak hamabost urteko tartea ezartzen du Sestaon bizileku berrirako aukera izateko. Hamabost urte eskatzeak lortu nahi duen helburua ez da modu argian jasotzen eta Planaren irakurketatik ere ezin uler daiteke. Hala eta guztiz ere, laneko saioetan garrantzitsutzat jozen Sestaon “betiko” pertsonak geratzea sustatzea, beraz, helburu ezberdinak egon daitezke: Sestaon denbora gehien bizitzen daramaten auzotarrei etxebizitza bat eskaintzea, edo oinarritzko errentak jasotzen dituzten familien, edo ijitoen etniakoan edo arazoak eta gatazkak sortzen dituztenen pilaketak ekiditea, Plan osoan jaso den moduan. Erakunde honen ustetan, jada adierazi den moduan, bigarren helburu hori ez dator bat ordenamendu juridikoarekin, KEaren 14. artikulua erurkako diskriminazioa estaltzen duelako, beste ezarpen arautzaileen artean. Sestaon denbora gehien bizitzen daramaten pertsonari etxebizitza bat emateari dagokionez, hasiera batean helburua legitimoa da, baina horretarako jarritako baliabideak ez dira egokiak xede horretarako. Uste dugu eroldan hamabost urtez egon izana frogatu beharrek ez duela inolako proportzionaltasun loturarik Sestaoko udalerriaren erroturiko auzotarrei etxebizitza bat emateko xedearekin. Toki batean urte gutxiagoz bizi izanarekin erroturik egotea eta udalerriari bizitzeko nahia argi eta garbi frogatzen dira. Ez da bidezkoa erroldatzeko horrenbeste urte eskatzea. Administrazioak legearekin eta Zuzenbidearekin erabat bat etorri jardun behar du (KEaren 103.1 art.), eta espresuki debekatzen da arbitrariotasuna (KEaren 9.3 art.). Horrela bada, udala botere publiko den heinean, legearen aurreko berdintasun printzipioari atxiki behar zaio, eta horrek tratu berbera ematea suposatzen du egoera berdinetan. Auzitegi Konstituzionalaren martxoaren 8ko 34/2004 Epaia dio: “Auzitegi honek hainbatetan adierazi izan duen moduan, tratu ezberdintasun guztiek ez dute Konstituzio Espainiarraren 14. artikulua urratzen. Berdintzat har daitezkeen egoeren artean aldeak sartzen duen ezberdintasunak urradura dakar, horretarako justifikazio objektibo eta arrazoizkoa ez badago. Beste era batera esanda, berdintasun printzipioak izateko suposamendu berdinei ondorio juridiko berak aplikatzea exijitzen du. Bi egoera berdintzat hartuko dira ezberdintasunerako elementuak modu arbitrarioan edo arrazoirik gabe sartu direnean.” Eroldan 15 urtez egon behar izanaren baldintzak ez du arrazoirik, eta beraz, Auzitegi Konstituzionalaren doktrina aplikatuz, erabakia arbitrarioa da.

Halaber, parekotasunagatik, Auzitegi Konstituzionalaren doktrina jasoko dugu berdintasun printzipioaren gainean, kasu honetan araudira aplikatuta: “Berdintasun printzipioak ez du esan nahi kasu guztietan berdintasuneko tratamendu legala emango denik, garrantzia juridikoko edozein elementu bereizletik aldenuz. Horrela, esparru jakin bateko erregulazioari dagokionez, araudia aplikatuz ematen diren tratu ezberdintasun guztiak ez dira KEaren 14. artikuluan bildutako ezarpenaren urratzaileak. Horietatik urratzaileak izango dira berdintzat jotzen diren egoeretan ezberdintasunak sartzen dituztenak horretarako inolako justifikazio objektibo eta arrazoizkorik eman gabe. Beraz, arau orokor gisa esan daiteke, berdintasun printzipioak izateko suposamendu berdinei ondorio juridiko berdina aplikatzea exijitzen duela, eta ondorioz, arbitrariotzat edo arrazoizko justifikaziorik ez duten elementu bereizleak sartzea debekatzen du. Labur adierazita, berdintasun printzipioak galarazten duena justifikaziorik gabeko edo maltzurkeriaz erantsitako aldeak dira, orokorrean onaturiko balio irizpide edo iritzien arabera. Modu berean, tratu ezberdintasuna konstituzionalki posible izateko, beharrezkoa da alde horretatik eratorritako ondorio juridikoak lortu nahi den helburuarekiko proportzionalak izatea, modu horretan zailegiak edo neurritz kanpokoak diren emaitzak ekiditeko” Auzitegi Konstituzionalaren maiatzaren 20ko 119/2002 Epaia. Kasu honetan, hamabost urteko exijentzia egitean, elementu bereizle bat topatzen dugu, horretarako arrazoizko justifikaziorik egon gabe, eta horrek neurritz kanpoko emaitzak dakartza. Familia batzuk Sestaon geratzen dira etxebizitza batekin, eta beste batzuk joan egin behar dute oso argi izan gabe bizilekua izateko aukera izango duten ala ez. Horregatik, erakunde honen ustez, planak ez du berdintasun printzipioa errespetatzen 15 urteko erroldatze tartea eskatzean, horrek tratamendu ezberdina suposatzen duelako parekoak diren bi

egoeratan. Tratu ezberdintasun hori ez da irizpide objektibo eta arrazoizkoetan oinarritzen, orokorrean onarturiko balio irizpide edo iritziak kontuan hartuta.

- 5.5. Plan Zuzentzailean antzemaniko beste arazoetako batek Sestaoko Iparraldeko Industrialdea bezala ezagutzen den eremuko okupatzaile legal guztiek **bizileku berria izateko eskubidearen eraketari** ematen dio arreta.

Sestaoko Plan Zuzentzaileak familia kopuru garrantzitsua ateratzea aurreikusten du hirigintza berriko prozesuak harrapatzen duen zonaldeetik –ikus 4.8 grafikoa, 113. orr.–, zehazki 417 familia. Arrazoi hori dela-eta, planak etxebizitza kopuru bera lortzeko beharra ezartzen du helburutzat, horien bidez, familiei bizileku berri bat eman ahal izateko. Horretarako, 417 familien bizileku berriei eragiten dieten konponbide ezberdinak ezartzen ditu: Sestaon behin betiko bizilekua ematea, Sestaotik kanpo behin betiko bizilekua ematea, eta aldi baterako bizilekua ematea. Azken horretarako 20 etxebizitza gehiago jartzen dira.

Garrantzitsua da azpimarratzea, Plan Zuzentzaileak eraikinen eraispenak kaltetzen dituen familia guztiei bizileku berria izateko eskubidea onartzen diela. Beste kontu bat da, bizileku berriko prozesu hori garatzeko erabiliko den modua, horietako kasu batzuk udalerritik kanpo gertatuko direlako. Kasu zehatzak aurrerago zehaztuko ziren Plan Zuzentzailearen Zuzendari Batzordeak ezarritako irizpideetan oinarrituz –2003ko martxoaren 3ko bileran–. Zehazki, Simondrogaseko 125 familia izango ziren. Horietatik % 50a ijito etniakoa da, eta % 80ak gizarte laguntzak jasotzen ditu eta 15 familia “arazo anitzekoak” dira.

Plan Zuzentzailean jarritako helburuak, ijito etniako biztanleak edo oinarritzko errentak jasotzen dituztenak sakabanatzearena, horrek ijitoen taldean eragin dezakeen ondorio kaltegarria kontuan izan gabe hain zuzen, ezin baldintza ditzake okupatzaile legalek dituzten beste eskubide batzuk edo hirigintza legearen edo planeamenduaren izenean urratu. Ez dugu ahaztu behar, 7. orrialdean honakoa adierazten dela: “*Planaren filosofia legeak hiritar guztientzat onarturiko eskubide eta betebeharren errespetu eta sustapenean oinarritzen da.*”

Planak utzarzteentzako eta ondorengo bizileku berrientzako ezarritako helburuak aztertuta, hiru maila daudela antzeman dugu: desjabetzearen ondorioz sustaturiko jarduerak, beste jarduera sistema batengatik sustaturiko esku-hartzeak eta auri deklarazioa jaso duten edo jasotzekotan dauden eraikinetan bizi diren familien egoera.

Planak argi eta garbi jasotzen du eraikinen okupatzaile legalen bizileku berrirako eskubidea, hirigintza desjabetzen eraginak jaso behar badituzte. Beste kontu bat da, Rivas-Simondrogasen bizi diren familientzat B-1 helburuak ezarritako moduan udalerrian geratu ahal izateko ezarritako tratu ezberdintasuna.

Bestalde, kudeaketa sistema ezberdinen bidez garatuko diren hainbat hirigintza jarduera daude; “La Naval” izeneko ordenamendu zuzeneko eremua, 50etik 64rako eraikinei eragiten diena, eta Nerbioi Ibarreko BEPBa. Bertan Rivas 68 eta 66 eraikinen sartuko lirateke.

Horrelako kasuetan, esku artean dugun informazioaren arabera, okupatzaile legalen bizileku berrirako eskubidea ezarri da. 2/2006 Legea onartu baino lehen bizileku berriaren esijentziak ager zitzakeen zalantzen kaltetan izan gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan, hirigintzaren esparruan, 2006ko irailaren 20tik aurrera indarrean dagoen esparru arautzaile berriak etxebizitzaren eta merkataritza jardueren okupatzaile legalei bizileku berria emango zaiela bermatzea esijitzen du. Zentzu horretan, La Navaleko ordenamendu zuzeneko esparruaren 1 EUaren konpentsazio proiektuaren hasierako onarpenean, Udalak Rivas kaleko 56.eko okupatzaile legalei beste bizileku bat ematea bermatzea esijitzen du.

Halaber, auri prozeduran sarturik dauden edo auri deklarazioa jaso duten eraikinen kasuak ere biltzen dira. Kasu horietarako, Plan Zuzentzaileak –B 7 proiektuan– kanporaketak eta/edo aldi baterako lekualdatzeak aurreikusten ditu Simondrogaseko familia batzuetarako, aurriko udal deklarazioek harrapaturikoak badira. Suposamendu horretan 15 urtez erroldaturik egon diren okupatzaile legalen –nagusiki udalerrian barne kokatzen dituzte– eta denbora gutxiago daramatenen arteko ezberdintasuna egiten da. Azken horientzat, Planak udalerritik kanpo beste bizileku bat emateko aukera jasotzen du.

Horrela antzeman dugu, egoerak 63 familiari eragiten diela. Horretarako, Planak 15 urte baino gehiago erroldaturik egon diren 17 familiak bertatik atera eta Sestaon bertan tokiz aldatzeko –aldi baterako– helburua ezartzen du, eta gainerakoak kanpoan kokatuko lirateke. Bestalde adierazten da, bizileku berriaren emakida aldi baterako izango dela 31 familiaren kasuan, eta behin betiko 32ren kasuan. Azken batean, Planeko aipaturiko beste atal batzuetan –43. orrialdea– adierazitakoaren eta udaleko planeamenduan aurreikusitakoaren kontra, antzeman dugu ez dela modu argian jaso familia horiek bizileku berria izateko duten eskubidea. Ondorioz, eskubide hori egoitza irizpide bat betetzearen menpe geratzen da, eta ebazpen honetan adierazi dugun moduan, irizpide hori ez dago inolaz ere

justifikaturik. Gainera, bizileku berriaren emakida negoziazio prozesupean geratzen da.

Hasiera batean, kalteturiko eraikinak Simondrogasen kokatzen ziren. Planaren arabera, eta dokumentu hau idazterakoan, Ibar Berriko 5. eraikinak, Rivaseko 5, 62 eta 64.ak aurri deklarazioa jaso dute, eta Rivas 26 eta 50.aren aurri egoera izapidetze bidean dago.

Suposamendu horren baitan, etxebizitzaren okupatzaile legal ziren zenbait familia aurki zitekeen, baina eraikinak hondamen egoera duenez eta denbora pasa arren Galindo Ibarreko Exekuzio Unitatea ez denez hartxan jarri, Udalak aurri deklarazioa eman dio eraikinari eta beraz, kanporatze agindua eman. Zehazki, gutxienez Ibar Berria kaleko 7. ean bizi den familia bat higiezin horretatik atera dute 2006ko martxoaren 1eko berehalako utzarazte agindu bat gauzatzeko. Horrekin batera ordea, ez zen inolako laguntzarako jarduera administratiborik edo etxebizitza duin batean aldi baterako geratzeko eskubidea babestera zuzendurikorik egon.

Orokorrean, hirigintza jarduerengatik kaltetzen diren pertsonen bizileku berria izateko duten eskubidea Hirigintza Erregimenaren eta Lur Balorazioen Eraberritzeari buruzko uztailaren 25eko estatu mailako 8/90 Legeak sartu zuen konfigurazio legalekoa da. Ondorenean, Lurzoru Erregimenari eta Hiri Ordenamenduari buruzko Legearen Testu Bateginaren Bigarren Xedapen Gehigarriak mantendu zuen, ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legegileak, hain zuzen. Lege horrek ohiko bizilekutik eta hirigintza jardueren ondorioz, beren higiezinetatik atera behar duten pertsona guztiei bizileku berria izateko eskubidea bermatzen die.

Xedapen legal horrek adierazitakoaren arabera, eskubide hori bermatu beharrekoa izango zen, plana gauzatzeko aukeraturiko jarduera sistema zein zen alde batera utzita. Horrela, desjabetzea gauzatuko zuen Administrazioari edo desjabetze bidez jarduten zen kasuan onuradunari edo parte hartzen zuen Administrazioari gainerako kasuetan, bizileku berria emateko derrigortasuna edo betebeharra ezartzen zitzaion.

Etxebizitza berriaren baldintzei dagokienez, araudiak adierazitako gauza bakarra zen, kalteturiko okupatzaileen eskura babes publikoari atxikitakoen kasuan indarrean zeuden salmenta edo alokairu baldintzatan etxebizitzak jarri beharko zirela, baina ez du aparteko zehaztasunik eransten.

Ondorenean, testu arautzaile horri Auzitegi Konstituzionalak martxoaren 20an emaniko 61/1997 epaiak eragin zion. Arrazoia eskumenen helmenean zen, izan ere adierazi zen, Estatuak eskumenak zituela nahitaezko desjabetzea arautzeko, baina ez gainerako kudeaketa sistemetan esku hartzeko. Arrazoi hori dela-eta, Auzitegiak konstituzioaren aurkakotzat jo zuen gainerako hirigintza jardueretan etxebizitza berria izateko eskubidea arautzen zuen bigarren atala (konpentsazioa eta kooperazioa).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Lurzoru eta Hirigintzako uztailaren 30eko 2/2006 Legea orain dela gutxi onartu arte ez denez inolako arauketa autonomikorik egon etxebizitza berriaren eskubidea arautzeko, tarte horretan paradoxa bat aurkitu dugu: modu argi eta zorrotzean ezarritako etxebizitza berria izateko eskubidea, legalki okupaturiko eraikina eraisteko beharrezkoa den hirigintza jarduera gauzatzeko aukeraturiko jardueraren menpe egongo zen.

Edonola ere, Arartekoak hainbatetan adierazi izan du, beste kudeaketa sistema batzuen kasuan etxebizitza berria emateko eskubiderako araudi-ekarpenak falta arren, herri Administrazioek beharrezko esfortzua egin beharko luketela bermatzeko, pertsona bat hirigintza jarduera baten ondotik kalteturiko etxebizitza batean legalki bizi denean, etxebizitza bat izateko eskubidea duela, aukeraturiko kudeaketa sistema zein den alde batera utzita.

Hala eta guztiz ere, bizileku berria izateko eskubidea arautu egin zen gure Autonomia Erkidegoan, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurririk buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren bidez.

Araudia horretatik komenigarria da azpimarratzea, bizileku berria izateko eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eginiko hirigintza jarduera guztietarako onartzen duela kasu hauetan: erakunde desjabetzailea bada, desjabetzearen onuraduna bada, administrazio jardulea bada edo sinaturiko Hitzarmen baten ondotik bizileku berria eman behar bada. Beste era batera esanda, ez da mugatzen desjabetze sistematik eratorritako jardueretara, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak esku hartzen edo parte hartzen duen hirigintza jarduera ia guztietara zabaltzen da. Hori guztia 34. artikulua jasotzen du.

Bestalde, eskubide hori babes ofizialeko etxebizitzak okupatzaile legalen eskura jarri gauzatzen da. Hori salmenta edo alokairu erregimenean emango litzazkieke, familia bakoitzaren etxebizitza beharra, diru-sarrera ekonomikoak, kaltetuen familia eraketa, eta abar kontuan hartu ondoren. Horretarako, Dekretuak oso irizpide zehatzak biltzen ditu bizileku berria emateko: pertsona onuradunak, bizileku berriaren eredu, prozedura, eta abar. Zehazki, 35.1 artikulua honakoa adierazten du: *“Birralokatzeko eskubidea izango dute eragindako etxebizitzaren legeko okupatzaile direnek eta beren benetako bizilekua horietan dutenek. Bertan bizi direla erroldatze-ziurtagiriaren bidez*

*egiazatu beharko dute. Horrez gain, eragindako etxebizitza hori, okupatu aurreko akta edo, hala badagokio, finka okupatzea ahalbidetzen duen titulua jaso baino lehenagoko bi urteetan gutxienez okupatu dutela egiazatu beharko dute.*"

Azkenik komenigarria da aipatzea, Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 Lege berriak hirigintza jarduerengatik kalteturiko eraikinetan bizi diren okupatzaile legalek bizileku berria izateko eskubidea jasotzen duela bigarren xedapen iragankorrear. Orokorrean, Legeak bizileku berria izateko eskubidea bermaratzen dio hirigintza jarduera orenen sustatzaileari, etxebizitzetan ohiko bizilekua duten okupatzaile legalak bertatik ateratzea beharrezkoa denean. Zentzu horretan, desagertu egiten da hirigintza desjabetzeko kasuetan bakarrik bizileku berria bermatzeko betebeharra, eta hainbat arau ezartzen dira eskubidea gauzatzeko bi kasuetan.

Hiri ordenamenduko ikuspegi batetik aztertuta, kontuan hartu behar dugu hirigintza berriko prozesuan sartutako eraikinak Iparraldeko Industrialdeko Hiri Ordenamenduko Plan Orokorrean Aldarazpenean ezarritako hirigintza jarduera baten ondorioz kaltetu direla, Nerbioi Ibarra eta Galindo Banaketako Eremuan. Aldarazpen hori behin betiko onartu zen 2003ko apirilaren 1eko dekretu bidez (2003ko abuztuaren 14ko BAO). Komenigarria da gogoraraztea, planeamenduko baliabide horrek izaera arautzaile duela, eta partikularrak nahiz Administrazioak behartzen dituela –1992ko Lurzoru Legearen Testu Bateginaren 134. artikulua eta Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 euskal Legearen 88. artikulua–.

Zentzu horretan, planeamenduak espresuki kokatzen ditu ordenamendu espresetik kanpo Rivas kalearen bi aldeetan kokaturiko eraikinak (50etik 64ra eta 66tik 70era) eta horiek in batera, baita Simondrogaseko auzoan kokaturikoak ere. Arrazoiak eraikinen hondamen garrantzitsua, batzuk auri egoeran gainera, zonaldearen berrantolaketa eta azpiegitura eta sistema orokor eta tokikoak eraikiko direla dira.

Edonola ere, garrantzitsua da azpimarratzea, "hirigintza informazioko" atalean Sestaoko hiri ordenamenduko plan orokorrak honakoa adierazten duela espresuki: "zonalde horretan bizi diren pertsonen bizileku berria ematea aurreikusten da, Simondrogaseko biztanleei eta desagertzea aurreikusten den etxebizitza guztietan bizi diren pertsonen ematea aurreikusten den bezalaxe." Existitzen den eraikin zerrendaren barruan, planeamenduak ordenamenduak kalteturiko eraikin guztiak biltzen ditu –bai eraikinen zerrendan, baita bizileku berria izan behar duten etxebizitzetako balorazioan ere–, hau da, kudeaketa sisteman edo auri deklarazioen aurrean bereizketarik egin gabe. Horrela, La Navaleko ordenamendu zuzeneko eremuan Rivas 62-64 eraikina kokatzen da, 19 okupatzaileekin, eta Ballonti sistema orokorrean berriz Rivaseko 5.a, 6 familiarekin.

Horren irakurketatik ondoriozta dezakegu, alde batetik planaren asmoa zonaldean ordenamenduen aurkakoak izan eta segurtasun eta osasungarritasun baldintza eskasetan dauden eraikin guztiak deuseztatzea dela, eta bestetik, zonalde horretan legalki bizi diren familiei bizileku berria ematea dela.

Planeamendua arautzailea da izaera orokorreko xedapen gisa, eta Plan Zuzentzaileak berriz programa izaera du arautzailea beharrean. Edonola ere, hirigintza planeamendutik eratorritako eskubideak mantendu egiten dira, edo bestela, dagokion lurzoru araudia aplikatzen da. Arrazoi hori dela-eta, kontraesankortasunik edo zehaztasun eza egongo balitz Plan Zuzentzailearen bizileku berriko eskubidearen inguruan edo batzorde zuzentzailearen irizpidearen inguruan, eskubidea planeamendutik uler badaiteke, orduan azken horrek adierazten duenari atxiki beharko zaio.

Zentzu horretan, eta Sestaoko HAPOaren aldarazpenaren testuan oinarrituz –2003ko abuztuaren argitaratu zenetik indarrean dago–, orokorrean ulertu behar da Plana onartu zenetik, eraispenak kalteturiko okupatzaile legalei bizileku berrirako eskubidea onartzen zaiela. Kasu horien barruan sartzen dira auri deklarazioak edo auri deklarazioa izapidetze bidean duten eraikinak.

Eskubide horren baldintza bakarrak hirigintza araudian ezarritako zehaztapenak izango dira, eta ez Plan Zuzentzailean jasotako helburu eta iritziak, ezta Plan Zuzentzailearen Zuzendaritza Batzordeak lortu ahal dituen akordioak ere. Konpromiso horien eragin juridikoan eta helmenean sartu gabe, ezin dira inoiz ordenamendu juridikoaren kontrakoak izan.

Bestalde, Etxebizitza eta Gizarte Gaietan Sailak eta Sestaoko Udalak 2005ean sinaturiko Lankidetzaren Hitzarmena eta Eusko Jaurlaritzak sustatzaile gisa hartutako konpromisoak kontuan hartuta, abenduaren 30eko 315/2002 Dekretua, eta bertan erroldatze antzinatasunerako ezarritako baldintzak, aplikatzeko modukotzat hartu beharko lirarteke.

- 5.6. Plan zuzentzaileak agertzen duen beste arazoetako bat **ijitoen komunitateari emaniko tratamendua** da. Beste ezer baino lehen ez da ahaztu behar, ijito herriak tratatu diskriminatzailea jaso izan duela Administrazioaren aldetik orain dela oso gutxi arte, zehazki 1978ko Konstituzioa onartu zen arte. Konstituzioak eskubide osoko hiritartzat hartzen ditu. Gainera, Europako eta Espainiako his-

torian zehar, nagusi zen kulturaren aldetik tolerantzia ezeko eta gutxiespeneko egoerak gertatu dira ijito biztanleekiko. Diskriminazio egoera hori 1999ko abenduaren 17an eginiko txosten batean jaso zen. Txostena Diputatuen Kongresuak ijito herriak dituen arazoak aztertzeo duen Azpibatzaordeak egin zuen. Txosten horretan xedapen arautzaile ezberdinak aipatzen dira, pragmatika errealetatik hasi eta XX. mendera iristen den araudira iritsi arte, eta guztiek tratu nabarmenki diskriminatzailea agertzen dute. Modu berean pertsona horiek topatzen dituzten zailtasunak biltzen dira, kultura eta nortasun kulturalaren esparruan, etxebizitzan, lanean, hezkuntzan eta prestakuntzan, osasunean, gizarte ekintzan, emakumeen eremuan, hedabideetan, arrazakerian eta parte-hartzean. Adierazitako txostenean agerturiko ijito herriaren arazoak berean dirau oraindik ijitoentzat orokorrean, eta Sestaon bizi direnentzat zehazki.

Ijito herriaren egoera, bazterkeria eta gizarte kanporatze arazoak, gizarte eta politika parte-hartze falta, eta etxebizitzaren arazoa konpontzeo martxan jarritako neurri askoren eraginkortasun falta komunak dira Espainian nahiz Europan. Azken arazo horrek gainera, etxebizitzarenak alegia, ezau-garri zehatzak agertzen ditu talde honen kasuan. Ondorioz, lehenik eta behin eta barne araudiaz gainera, komenigarritzat jo dugu nazioarte mailan sinaturiko betebeharrak gogoraraztea, eta giza eskubideen babeserako eta historikoki diskriminaturiko talde txikien bizi-baldintzen hobekuntzan lanean diharduten erakundeek eginiko hausnarketa eta gomendioen berri ematea. Talde txiki horien artean ijitoena egongo litzateke.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da Konstituzio Espainiarraren 9.2 eta 14. artikulua aipatzea. Xedapen horietan administrazioak esku hartzeo duen betebeharra zehazten da, modu horretan pertsonen eta horiek eratzen dituzten taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izatea lortzeo. Gainera, diskriminazioa debekatzen da. 9.2 artikulua honakoa dio zehazki: *“Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere”*. 14. artikulua berriz honakoa dio: *“Espainiarrak legearen arabera berdinarak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”*

Ekintza positiboek lotura oso estua dute diskriminazioaren aurkako borrokarekin, talde bat gizartetik baztertzean, benetako berdintasuna zaildu edo galarazi egiten delako. Lotura horren ondorioz, ijito herriaren sustapenarekin lotura izan dezaketen xedapen guztiak hartu behar dira kontuan, diskriminazioaren aurka borrokatzeo xedea dutenak bezalaxe.

Ekintza positiboak martxan jartzeo xedapenei dagokienez, garrantzitsua da Espainiak hartutako konpromisoak gogoraraztea, gutxiengo nazionalen babeserako Esparru Hitzarmenean. Dokumentu hori Strasburgon sinatu zen 1995eko otsailaren 1ean eta Espainiak berretsi egin zuen 1995eko uztailaren 20ko instrumentu bidez (1998ko urtarrilaren 23ko BOE). Estatuak, Hitzarmen hori berrestean, ijito herriaren babesaren ardura bere gain hartzeo konpromisoa hartu zuen, nahiz eta gutxiengo nazional gisa ez onartu. Xedapenak zuzenean ezin aplika badaitezke ere Esparru Hitzarmen bat izateagatik, Estatuak derrigortu egiten dute, diskriminazioaren eta gizartetik kanporatzearen aurkako borrokaren konpromisoa delako. Egoera hori ijito herriaren zati garrantzitsu batek bizi du.

Esparru Hitzarmenean jasotako ezarpenen artean, honakoa azpimarra daiteke:

*“Aldeek konpromisoa hartzen dute gutxiengo nazionalerako pertsonen legearen aurreko berdintasuna bermatzeko, eta legearen aldetiko berdintasunezko babesa ziurtatzeko. Horrela, gutxiengo nazional batekoa izateagatik diskriminazioa debekatuko da.*

*2. Aldeek, beharrezkotzat jotzen denean, neurri egokiak hartzeo konpromisoa hartzen dute, bizitza ekonomiko, sozial, politiko eta kulturaleko esparru guztietan erabateko berdintasun eraginkorra sustatzeko gutxiengo nazionalerako taldean eta gehiengoarenean artean. Horri dagokienez, gutxiengo nazionalerako pertsonen ezaugarri zehatzak hartuko dira kontuan.*

*3. 2. atalarekin bat etorritik hatutako neurriak ez dira diskriminazioko ekintzat hartzen” (4.2 art.).*

Europako Kontseiluko Kontsulta Batzaordeak eginiko azken txostenean (2003ko azaroaren 27koa), Espainiak artikulua hori betetzen zuen aztertzerakoan, esfortzu handiagoa egiteko beharra azpimarratu zen diskriminazioari aurre egiteko, eta kezka agertu zen ijito herriaren eta gainerako biztanle gehieneko egoera sozio-ekonomikoarengatik.

Agerturiko zenbait kezka Sestaoko egoerari ere aplikatu dakizkio. Horrela, etxebizitzaren arazoa nabarmendu zen, proposaturiko konponbideek egoera ez dutela hobetu adieraziz. Halaber, zenbait ijito herri batzuetan finkatzean antzemaniko gutxiespen fenomenoak oso larritzat hartzen da, batez ere tokiko agintariak biztanleen talde baten alde jarri badira. Ondorioz, agintari guztiei arreta izatea eskatzen die, beren eskumenen esparruan horrelakoak ekiditeko.

Lehenik eta behin adierazten du, gizartetik kanpo inor ez uzteko eta bazterkeria saihesteko hartutako neurriak ez direla eraginkorrak izan. Eragiten dieten kontuetan parte-hartzea hobetzeko hartutakoek ere ez dute egoera konpondu.

Azkenik, Hitzarmenaren 16. artikulua ere nabarmendu nahi genuke, Sestaon Plan Zuzentzailea onartu zenetik azalatu den egoerari aplikatu dakiokeelako: *“Gutxiengo nazionalerako pertsonak bizi diren eremuetako biztanle proportzioak aldaraztean, aldeek ez dituzte Esparru Hitzarmen honetan jasotako printzipioetatik eratorritako eskubide eta askatasunak gutxitzeko neurririk hartuko.”* Artikulu horrek espresuki ezartzen du ijitoek okupaturiko zonaldeetako biztanle proportzioak ez aldarazteko betebeharrak dagoela, horren bidez Esparru Hitzarmenean onartutako konpromisoetatik eratorritako eskubide eta askatasunak mugatzen badira.

Ondorioa izango litzateke, aipaturiko araudia aplikatuz, Sestaoko erakunde guztiak garatutako jarduerak ezin dituztela ijito herriaren pertsona proportzioak aldarazi, horren bidez zutena baino egoera okerragoan utziko badira, eta horixe da hain zuzen ere, bizileku egokia ez izatea edo adin txikikoak eskolara ez joatea.

Espainiak 2006ko martxoan bidali zuen bere bigarren txostena. Bertan, 2001-2005 tartean betebeharrarekin betetzeko eginko jarduerak aipatu ziren. Jardueren artean honakoak adierazi ziren: aurrerago ere aipatuko dugun diskriminazioaren aurkako araudia, gizarte erakundeei gizarte programak finantzatzea, “Ijito Herriaren Estatu Kontseilua” izeneko parte-hartze organoaren eraketa eta hezkuntza, osasuna edo etxebizitzaren esparruko jarduerak. Modu berean, erkidegoetako Administrazioek eginko jardueren berri eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Ijitoen Kontseiluaren sorrera (azaroaren 25eko 289/2003 Dekretua), eta ijito herriaren erabateko sustapenerako eta gizartearen parte hartzeko Planaren eraketa. Europako Kontseiluko Kontsulta Batzordeak ez ditu oraindik Esparru Hitzarmena betetzeari buruzko bigarren txostenaren inguruko bere hausnarketak argitaratu.

Zuzenbide komunitarioaren esparruan, beharrezkoa da Europako Parlamentuaren 2005eko apirilaren 28ko Ebazpena aipatzea. Dokumentu hori ijitoen egoerari buruzkoa zen Europar Batasunean, eta bertan, Estatu Kideei neurriak hartzea eskatu zitzaizkien hezkuntza, sentsibilizazio, gizarte zerbitzu, ... esparruetan. Etxebizitza esparruan (19) espresuki adierazi zen: *“Europar egun antzeman daitezkeen ghettoak onartezinak dira, eta Estatu Kideei neurriak hartzea eskatzen zaie egoera horri amaiera emateko, etxebizitzaren eskaintzan joera diskriminatzaileei aurre egiteko eta ijitoei laguntzeko bestelako bizilekuak bilatzen osasungarritasun baldintza onekin.”*

Azkenik, ijitoen giza eskubideek Europako Kontseiluko Estatu Kideetan bizi zuten egoera aztertu zuen Txostena ere aipatu beharrezkoa da. Álvaro Gil Roblesek eginkoia izan zen, Europako Kontseiluko Ordezkaria giza eskubideetarako. Txostenak etxebizitza, hezkuntza, lan eta osasun esparruetan bizi den diskriminazio egoera aztertu zuen. Etxebizitzari dagokionez, indar berezia jarri zuen bizileku ezberdinetan antzematen diren arazoetan, eta azpiegiturak hobetzeko programak martxan jartzean. Askotan, ijitoak ez diren biztanleen aldetik haiek udalerritik kanporatzeko presioak egoten direla baieztatzen zuten, eta horrek bizi baldintzak hobetzeko inbertsioak egitea galarazten du. Horregatik, gomendio ezberdinen artean proposatzen dute beste agintari batzuk izatea horrelako programak garatzen dituztenak, giza eskubideak errespetatzen direla bermatzeko duten erantzukizunagatik. Eskubide horien artean, etxebizitza duina izatearena edo bizi baldintza egokiak izatearena egongo lirateke.

Ijito herriari buruz hitz egiterakoan, nahitaez bizi duten diskriminazioaz hitz egin behar da, eta ondorioz, elementu hori deuseztatzeko martxan jarri diren mekanismoez eta araudiaz ere bai. Diskriminazioaren aurkako borroka lotura estua du ekintza positiboekin eta kanporaketan aurka borrokatzeko bideekin, lehen ere adierazi bezala, baina baliabide propioak ere baditu. Horien artean, duen garrantziagatik, derrigorrez aipatu behar da Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2000/43/CE Zuzentaraua, eta Kontseiluaren 2000ko azaroaren 27ko 2000/78/CE Zuzentaraua. Horiek gure ordenamendu juridikoan sartu ziren zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez. Araudiak etnia edo arraza arrazoiengatik diskriminazioa debekatzen du bizitzaren oinarritzko esparruetan, esate baterako, lana, lanerako prestakuntza, hezkuntza, etxebizitza, gizarte babesa, gizarte onurak eta produktu eta zerbitzuetara iristea eta horien horniketa. Aplikatzeko jasotzen dituen definizioak garrantzitsuak dira (28. art.).1. *Kapitulu hau betetze aldera, honako definizioak ezartzen dira:*

- a) *Tratu berdintasuneko printzipioa: diskriminazio zuzen nahiz zeharkakoaren erabateko desagperena, arraza edo etnia, erlijioa edo sinesmenak, ezintasuna, adina edo pertsona baten sexu orientazioagatik.*
- b) *Zuzeneko diskriminazioa: pertsona bat hain onuragarria ez den moduan tratatzen denean arraza edo etnia, erlijioa edo sinesmenak, ezintasuna, adina edo sexu orientazioa bezalako faktoreak agertzen ez diren egoeran jasoko lukeen tratamenduaren aldean.*
- c) *Zeharkako diskriminazioa: legezko xedapen edo xedapen arautzaile batek, hitzarmen edo kontratu bateko klausulak, banakako paktu batek edo alde bakarreko erabakiak, agerian neutroak izanda, eragozpena ekartzen dionean pertsona bati gainerakoan aldean arraza edo etnia jatorriagatik, erlijio edo sinesmenengatik, ezintasunagatik, adinagatik edo sexu orientazioagatik, beti ere helburu legitimoari erantzuten ez badiote eta bideak egokiak eta beharrezkoak ez badira.*

Gai honetan ere, garrantzitsua da Espainiak Nazioarteko Konbentzioan, 1965eko abenduaren 21ean, hartutako konpromisoak aipatzea, arraza diskriminazioko modu guztiak deuseztatzeko. Batzordearen Azken Hausnarketetan, Espainiako arrazakeria deuseztatzeko eginkoetan (CERD/C/64/CO/6, 2004ko apirilaren 28koa), Administrazioek egin beharreko esfortzuak ere aipatzen dira, tolerantzia sustatzeko eta aurreiritzi eta estereotipo negatiboak gainditzeko. Hausnarketa horiek Konbentzioaren betebeharrak betetzeari buruz eskuragarri dagoen informazioarekin osatzen dira. Gainera, diskriminazioko jarreak agertzeagatik kezka agertzen du, batez ere ijitoen, Afrika iparraldeko pertsonen, musulmanen eta latinoamerikarren aurkakoa.

Arazakeria eta intolerantziaren aurkako Europar Batzordeak (ECRI) Espainiari buruz eginiko Hirugarren Txostenean –2005eko ekainaren 14koa–, besteak beste, neurri osagarriak hartzeko gomendioa luzatu zien agintari espainiarrei, modu horretan, ijito komunitateen egoera konpontzeko hezkuntzaren, lanaren, etxebizitzaren, eta osasunaren alorrean. Modu berean, azkartasun ez erreakzionatzeko eskatu zien ijito komunitateen aurkako indarkeria adierazpen guztien aurrean. Modu berean, parte-hartzea hobetzera zuzenduriko estrategiei buruzko gomendioak ere egiten dira.

Azkenik, auzitegien aldetik arraza diskriminazioaren existentziari buruz adierazi izan dena agertzeko, garrantzitsua da aurrekari moduan 1988ko urtarrilaren 13ko AGren epaia aipatzea. Izan ere, espresuki adierazi zuen arraza diskriminazioa zegoela ijito herriaren aurka. Epaia horrek adierazi zuen, administrazio batek, Madrilgo Udalak hain zuzen, arraza diskriminazioa egin zuela ijitoak bizi ziren txabola zonaldean hainbat jarduera garatzean: *“Adierazi den guztia kontuan hartuta ondoriozta daiteke, gure konstituzioan jasotako berdintasun printzipioa urratu egin dela hainbat jarduera administratibo direla bide. Izan ere, txabola zonalde batean bizi ziren ijito etniako pertsonen mugapen, kontrol eta abarrek neurriak jarri zaizkie. Ijitoak gure lurraldera Hindustango penintsulatik eta Europan zehar XV. Mendeko lehenengo hamarkadetan iritsi ziren asiarrak izan ziren, eta haiei neurri horiek aplikatzeko arrazoia delituzko jarduerak prebenitzea izan da. Horrek modu berean, erregabetasun presuntzioa urratzen du, testu konstituzionalaren 24. artikuluan jasotakoa, zonaldeko hiritar guztiei eta ezberdintasunak eginez aplikatzen zaielako. Madrilgo gainerako tokietan ez da antza horrelakorik aplikatzen, ez landa esparruan ezta hirian ere. Jokabide diskriminatzaile hori aurreiritzietan oinarritzen da, eta Konstituzioak zigortu eta debekatu egiten ditu, eta gainera komunitate horrentzako tratu ezberdin oso larria dakar, eta horren ondotik bizi kalitate okerragoa, alfabetizazio eskasa datoz. Gainera, talde horrek Espainiako gainerako biztanleek baino krisi ekonomiko larriagoa bizi du. Jokabide diskriminatzaile hori arrazan oinarritzen da, horretarako justifikaziorik izan gabe, eta beraz, tratu ezberdintasuna dakar. Horrek oinarritzeko eskubide hau ez ezik –sistema sozial eta zuzenbideko sistema demokratikoan agertzen diren gainerakoan oinarrian dagoena–, beste batzuk ere harrapatzen ditu...”*.

Azken batean, ijito herriaren diskriminazio egoera hainbat txostenek jaso dute azken urte hauetan, eta aipaturikoa bezalako epaitegi adierazpenetan ere agertzen da. Azken urte hauetan garaturiko bazterkeria egoera larriak eta jokaera diskriminatzaileak oso antzekoak izan dira toki guztietan. Ohiko praktika horietako askok etxebizitzaren zailtasunarekin eta auzotarrek ijitoak beren udalerrian kokatzearekin agerturiko kontrakotasunarekin dute zerikusia. Horregatik, Estatuak giza eskubideen esparruan hartutako konpromisoak betetzen direla bermatzeko ardura duten erakundeek gomendioek oinarri komuna dute: ekintza positiboko neurriak martxan jartzea, eta diskriminazioaren aurka borroka egitea sakabanaketaren aldeko praktikak ekiditeko. Horrelakoak batzuetan ordezkarri politikoei babesten dituzte, toki administrazioetan gehien bat.

Sestaoko Plan Zuzentzaileak ez ditu ez araudiak ezarritakoak, ez gaian aditu diren erakundeek eginiko gomendioak betetzen. Izan ere, zehaztapen orokorretan eta irizpide gisa, ijito izatearena ezartzen du. Pilaketak ekiditeko eta zonaldearen birsorkuntza lortzeko esku-hartze jakina beharko dela adierazten da. Hori, lehen ere adierazi dugun moduan, Konstituzio Espainiarraren aurka doa, abenduaren 30eko

62/2003 Legean diskriminazioaren kontra jasotako ezarpenen aurka, eta gutxiengo nazionalen babeserako Esparru Hitzarmenean bildutako betebeharren aurka edo diskriminazio modu guztiak deuseztatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioaren aurka, eta kasu guztietan ezarritakoa betetzen dela bermatzen duten erakundeek eginiko gomendio eta hausnarketan kontra.

Esparru guztietan neurriak proposatzen dituen plana (hirigintza, hezkuntza, ekonomia,... esparruak), bazterkeriaren eta hiri degradazioaren aurkako borrokaren filosofia eta gizarte printzipioak dituen plana, ezin daiteke bat etorri pertsonen aukeraketarekin, edo hamabost urtez toki batean bizitzen aritu izanaren ezarpenarekin bizileku berria Sestaon emateko, edo Sestaotik kanpo familiak kokatzearekin, haien beharrak kontuan ez badira hartzen edo erabaki hori helbidez aldatu behar dutenen nahiaren aurka hartzen bada. Lehengo porrota da, Plan honek ez duela ez-etxeen arazoa edo Sestaoko auzotarrek bizi duten pobrezia egoera modu osatuan aztertzen. Ezaugarri horiek dituen plan batek ezin ditu batzuk kanpoan utzi. Hiru Administrazioek (Eusko Jaurlaritza, Aldundia, Udala) beren eskumenen arabera aurreikusitako neurriek ezin dute biztanleriaren zati bat kanpo utzi.

- 5.7. **Hiritarren parte-hartzea.** Plan Zuzentzailea egiterakoan esfortzu garrantzitsua egin den arren elkarte eta agente sozial kopuru handiak parte har zezan, eta informazio, jarraipen eta parte-hartze mahaia sortu bada ere, esfortzuak mantendu egin behar dira hiritarren parte-hartze eskubidea edukiz betetzeko. Hiritarren parte-hartzea ere Konstituzio Espainiarraren 9.2 artikuluan jasotzen da. Artikulu hori ezinbestekoa da Estatu sozialaren, demokratikoaren eta Zuzenbidekoaren printzipioak ulertzen dituelako, eta gizartea eraldatzeko nahia agertzen duelako askatasuna eta pertsonen eta haiek eraturiko taldeen berdintasun eraginkorra sustatuz. Modu berean, parte-hartzerako onarpen orokorra egiten du: *“Botere publikoei dagokie... hiritar guztiei bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzeko aukera bermatzea.”* Gobernu modernizatzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak dio garrantzitsua dela parte-hartze aukerak sendotzea, eta hiritarren eragina indartzea toki gobernuetan, eta modu berean, gutxieneko helburu batzuk ezartzen ditu parte-hartze erregelamenduak egiteko.

Parte-hartzea gobernu onak egun duen erronkatarako bat da. Parte-hartzeak informazioa, kontrola, negoziazioa eta erabakiak elkarrekin hartzea esan nahi du. Administrazioak parte-hartzea sustatzeko joera izan behar du, 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiaren Europako Gutunak edo Europako Kontseiluko Ministro Kontseiluak Estatu Kideei eginiko Gomendioan (2001) ezarri bezala. Gomendioa hiritarrek toki mailako bizitza publikoan parte hartzeari buruzkoa zen.

Parte-hartze demokratikoko politikaren oinarriko printzipioen artean *“hiritarrek informazio argia eta osatua izateko duten eskubidea bermatzea, eta beren etorkizunari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko aukera izatea”* edo *“agintari publikoen eta hiritarren arteko komunikazioari ezinbesteko garrantzia ematea, eta toki arduradunei hiritarren parte-hartzearen alde egiteko eskatzea, haien eskariak eta nahiak arretaz aztertuz agertzen dituzten beharrei erantzun egokiak emateko”* egongo lirakeke. Printzipio horiek betetzeko, hainbat neurri ezartzen dira, esate baterako, erakundeen eta tokiko Administrazioen funtzionamendua gardena izatea, edo hiritarrek beren bizi baldintzen eta udaleko jardueren gainean duten eragina areagotzea udalerriko zonalde ezberdinetan. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeko gomendioak hezkuntza, informazio, eta ordezkaritza esparruko jarduerak proposatzen ditu. Horiek oso positiboak dira tokiko bizitza publikoan parte-hartze kultura sortzeko, eta beraz, udalerriko gizartearen kohesioa hobetzeko.

Ijito biztanleei dagokienez, lehen adierazi dugun moduan, bai araudian bai nazioarteko erakundeek eginiko hausnarketa edo txostenetan ere, ijito komunitateen ordezkariak parte hartzea garrantzitsutzat jotzen da, komunitate horietako kideen egoera hobetzera zuzenduriko estrategiak egin, aplikatu, ebaluatu eta ezartzekoan. Gutxiengo nazionalen babeserako Esparru Hitzarmenaren 15. artikulua ezartzen du *aldeek gutxiengo nazionalen kide diren pertsonen parte-hartze eraginkorrerako beharrezkoak diren baldintzak jarriko dituztela, bizitza kulturean, sozialean eta ekonomikoan parte hartzeko, kontu publikoetan bezalaxe, bereziki, eragiten dieten kontuetan.* Beraz, kontu publikoetan ijitoen parte-hartzea sustatzeko betebeharra dago. Europako Kontseiluko Kontsulta Batzordearen ustez, jada existitzen diren egiturak eta mekanismoak berraztertu egin beharko lirakeke, bizitza sozialean, ekonomikoan eta kulturean parte-hartzea eraginkorra izatea lortzeko.

Txosten honetako gomendioak, aurrerago adieraziko direnak, zentzu horretan adierazitakoak dira. Parte-hartzea politika publikoen ondorioz kalteturiko/interesaturiko pertsonen parte hartzen duten prozesua bezala ulertu behar da, kasu honetan Sestaoko Txabarri, Urbinaga, Simondrogas, Rivas eta Los Baños auzoetako auzotar guztiak, salbuespenik gabe. Gainera, kalteturiko pertsonak bizileku berriak topatzearen prozesuan parte hartzea beharrezkoa da, ekintzaren arrakasta bermatu ahal izateko.



### 5.8. Planak hiri eta gizarte birsorkuntza antolatzeko duen helburua, adierazitako auzoetan barneraturiko jardueren bidez.

Sestaoko auzo horietako etxebizitzetara eta bertan bizi diren familiei buruzko diagnostiko oso xehatua dago. Hala eta guztiz ere, faltan botatzen da aurretik eraginpeko ondasun eta eskubideen deklaraziorik ez egotea, eta ondorioz, kanporatuko diren eta bizileku berria izango duten familien zerrendarik ez egotea. Modu berean, ez dago epe konpromisorik hirigintza jardueretarako, beraz, desjabetzea aurreikusitako zonaldeetan aurrerago eraikinak deklaratu dira, bai udalaren aldetik bai bide judicialaren bidez. Ziurrenik, Sestaotik alde egin behar duten familiak egoteak edo portzentaje edo kupoak ezarri izanak garatuko diren jarduerak argitzea galarazi du.

Erakunde honen ustez, plana kalteturiko etxebizitzetara eta familien definizio eta zehaztapen falta izateagatik ezaugarritzen da. Modu berean ez da ezer adierazten konpromisoak garatzeko epean inguruan. Horrekin batera adierazi behar da, udaleko informazio bulegoak eginikoa salbuetsita, ez dela informazio saioken aurrera egin Planeko programen aplikazioari dagokionez. Hori dela-eta, gizarte agenteez ez dute informaziorik eta horrek espekulazioak eta gizarte ezinegona sorrazten ditu. Horrek Txostenaren hasieran adierazi ditugun esku-hartze arrazoietan eragina izan du:

Aurri deklarazioen ondorioz nahiz desjabetzeak bezalako hirigintza jardueren ondorioz, kanporatzeak dakartzaten hirigintza jarduerak.

- Los Baños zonaldeko udaleko etxebizitzetara egoera.
- Sestaok bizi duen gizarte kohesio faltaren egoera.
- Hirriaren birsorkuntza garatzeko bideratutako prozesua, Administrazioak kalteturiko pertsonen harremanetan jartzeko izan duen modua.

Kalteturiko etxebizitza eta familien definizio eta zehaztapen ezak eta konpromisoak garatzeko epeko ondorio garrantzitsuak ekarriko dituzte hirigintza jardura horrek kalteturiko etxebizitza edo higiezinetan bizi diren familientzat. Plana aplikatzeko hasiera datan atzerapena izateagatik edo prozesu honekin zerikusirik ez duten arazoengatik, pertsona batzuen etxeak aurrerago deklarazioa jaso dute. Indarrean dagoen araudiaren arabera, aurrerago deklarazioak jabeen eskubide eta betebeharrak baliogabetzea dakar, eta berehalako aurrerago kasuetan, eraikina eraisteko betebeharra ere badakar. Hala eta guztiz ere, aurrerago deklarazioak ezin dira zonalde horretan bizi diren pertsonen eskubideak urratzeko balioko duten baliabideak izan, lehen ere adierazi dugun moduan. Izan ere, bizileku berria izateko eskubidea ezin da etorkizuneko aurrerago deklarazioen menpe geratu, horrek eraikinaren berehalako desagertzea fisikoa ekarriko duelako. Modu berean, eskubide hori ezin egon daiteke Plana gauzatzen hastean menpe.

6. Azkenik, **Los Baños zonaldeko udaleko etxebizitzetara egoera** dago. Auzotarrek beren kezka agertu ziguten errentarietara etxebizitzak erabiltzeko zuten moduegaitik. Udala, adierazitako etxebizitza horien jabe den heinean, bizikidetzara arauak betetzea exijitzeko erantzukizuna du, eta horrekin batera, sinaturiko kontratuak betetzen direla bermatu behar du, bai alokairuaren prezioari dagokionez, baita horiei ematen zaien erabilpenari dagokionez ere. Halaber, etxebizitzak egoera onean mantentzen direla bermatzeko neurriak hartu behar ditu. Erakundeek ez diete arretarik eman auzotarrek eginiko zenbait eskariri, eta horietako batzuk bizikidetzara arazoei buruzkoak ziren, etxebizitza sozialei emaniko erabilpenegaitik edo hirritaren segurtasunegaitik. Ondorioz, gizarte kohesio falta agertzen duten adierazpenak ikusi ahal izan dira auzotarren partetik. Antzemaniko zailtasunen ondorioz, Arartekoak uste du esfortzu handiagoa egin behar dela auzotarren kezkei arreta emateko, modu horretan gizarte kohesio handiagoa lortuko delako eta gizarte segurtasuna behar bezala bermatuko delako. Beste era batera esanda, auzotar guztien osotasun fisikoa eta morala bermatuko dira, haien askatasunarekin batera. Txosten osoan zehar esan den moduan, pertsonen berdintasunerako baldintzak sustatzen diren eta pertsonen eta taldeen integrazioa eraginkorra den aldi berean garatu beharrekoak dira.

Horregaitik guztiagaitik, Sestaoko egoerak hobera egiteko, Arartekoak honako gomendio hauek proposatzen ditu txosten honen bidez:

#### 1. Adostasun politikoa berritzea beharra

Sestaon antzematen den etxebizitzaren arazoak erakunde publikoak eta Sestaoko auzotarrak kezkatzen ditu, beraz, beste edozein ikuspegiaren gainetik kontu horri heldu behar zaio. Horregaitik, indar politikoa

guztien arteko paktua berritzea gomendatzen dugu, horren bidez guztiek aurre egiteko moduko esku-hartze eredu onartzeko, eta jardunbide argiak lortzeko. Jada lorturiko konpromisoetatik abiatu beharko litzateke, txostenean zehar modu zehatuan adierazitako Estatu demokratikoaren printzipioak errespetatuz beti. Sestaok beharrezko dituen jardueren konplexutasunak ezinbestekoa egiten du adostasun beharra.

## 2. Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Sestaoko Udalaren arteko lankidetzaz

Lankidetzarako esparru zintzoa, koherentea eta nahikoa ezarri behar da, Sestaoko auzo horietako hiri eta gizarte birsorkuntzako beharrei aurre egiteko.

Arazo nagusia ez-etxeena da, beraz, esfortzu garrantzitsua egin behar da pertsonen bizileku egokia emateko bakoitzaren egoera ezberdinei arreta eskainiz. Eusko Jaurlaritza eta Sestaoko Udala dira eskumenak dituztenak oinarritzko behar hori asetzeko beharrezkoak diren hautabideak proposatzeko.

Sinaturiko bi hitzarmenak urrats garrantzitsua izan dira. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da lankidetzaz esfortzu handiagoa egitea, etxebizitza egokiak eskuragarri jartzeaz gain gizarte akonpainamenduko prozesuetan, hezkuntzaren egoera hobetzean, lana aurkitzera zuzenduriko zerbitzuetan edo udalerriko sustapen ekonomikoan ezarritako helburuak ere betetzeko. Zonaldeko garapen sozialak konpentsazio programak martxan jartzea eskatzen du parte-hartzaile diren Administrazio guztien partetik, eta horrekin batera, beharrezkoa da gizarte ekipamenduetan, aisialdiko baliabideetan, teknologia informatikoan eta abar inbertitzea. Horretarako, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailaren lankidetzaz gain, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen lankidetzaz ere behar da, esate baterako, Hezkuntza, Osasun, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza edo Industria bezalako Sailena, edo Bizkaiko Foru Aldundiarena. Azken batean, zonaldeko inbertsio sozialak auzo horietako pertsonen gizarteratzean lagunduko du.

## 3. Plan Zuzentzailearen berrikuspena

Ezaugarri horietako Plan batek zonaldean bizi diren pertsona guztien arazoez arduratu behar du. Helburu estrategikoak ezin du izan *“mota eta egoera horretan dauden pertsonen egungo kontzentrazioa gutxitzea eta maila sozioekonomiko ertaineko familia eta/edo gazteak ekartzea.”* Auzotarren egoerari aurre egin behar dio ikuspegi osotik abiatuz, pertsona guztien zailtasun eta beharrak kontuan hartuta eta bazterkeria egoeran dauden pertsonak gizarteratzea sustatuz, udalerriko gizarte kohesioa lantzen den aldi berean.

Oinarritzko errentak jasotzen dituzten baliabide gutxiko pertsonen kontzentrazioa, edo ijito etniako familien kopuru handia edo gizarte arazo garrantzitsuak dituzten familiak diagnostikoaren datuak besterik ez dira, eta beharrezkoak dira ezaugarri hauek izango dituen planaren jarduerak diseinatzeko. Zentzu horretan beharrezkoa da Planaren filosofia berreskuratzea, zehazki honakoa aipatzen zuen: *“Talde ahulenak gizarretik kanpo geratzea prebenitzea, kalteturiko zonaldeetan bizi diren pertsona guztien garapen komunitarioa edo erabiltzen diren politikak eta jarduerak genero, etnia, kultura edo erlijio ezberdintasunak errespetatuko dituztela bermatzea, hiritar guztiek beren ohiko bizilekuan bizikidetzaz positiboaz gozatzeko eskubidea dutela onartzea, edo udalerriko auzotar guztientzat ondorio onuragarriak izango dituen Plana diseinatzea...”* Filosofia hori kontuan hartzeko da Planaren misioa, ikuspegia eta helburu estrategikoak berrikusterakoan.

Planaren berrikuspenean koherentzia lortu behar da filosofien eta plan osoaren artean: sustatzen diren misioa, helburu estrategikoak, neurriak, programak eta proiektuak. Gainera, arreta berezia jarri behar da helburu estrategikoak jasotzen dituen proposamen teknikoaren zatian. Horren ondorioz, hainbat proiektu garatu dira gizarte eta hiri esparruan, esate baterako, B6: Sestaotik kanpoko bizilekuak eta B7: kanporatzeak eta/edo aldi baterako lekualdatzeak aurrigo egoerako etxebizitzetan bizi diren pertsonentzat, eta horiek ez zaigu iruditzen berdintasun printzipioa errespetatzen dutenik. Horretarako proposatzen dugu, Planaren berrikuspenean honako printzipio hauek kontuan hartzea:

- Argi ezartzea zeintzuk diren kalteturiko pertsona eta etxebizitzak, berdintasun printzipioa errespetatuz.
- Kalteturiko pertsona guztien etxebizitza arazoari konponbidea ematea.
- Hiri eta gizarte azpiegiturak hobetzea.
- Hiritarrek parte hartzeko prozesua irekitzea fase guztietan.

Beharrezkoa da argi uztea zeintzuk diren zehazki kanporatzeek harrapatzen dituzten familiak eta baldintzak bete ez arren eta arazoi ezberdinengatik (adinagatik, ezintasunagatik,...) gizarte esku-hartzea behar duten pertsonen bizileku egokiak ematea. Irizpide horiek argiak izan behar dute eta nahikoa aurrerapenarekin

ezarri. Gainera, prozedura bat ezarri behar da horiek ebazteko, une oro bermatuz harturiko erabakiak gardenak direla. Zonalde horietan agertzen den gizarte arazoa ezin da alde batera utzi, are gehiago lurzoruari emango zaion erabilera hirirako azpiegitura berriak egitea eta/edo etxebizitza normalak eraikitzea izango bada gehienak higiezin merkatuan saltzeko.

Erroldan 15 urte egin izana baieztatzea eskatzen duen irizpidea berrikusi egin behar da ez-etxeen kasuan, Sestaon bizileku berria lortu ahal izateko. Udaletxeek parte hartzen duten babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen prozeduren parekoak izateagatik (Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailburuak 2004ko abuztuaren 21ean emaniko Agindu bidez arautuak), gehienez hiru urteko exijentzia ezartzea proposatzen da. Hala eta guztiz ere, ez-etxeetan bizi diren pertsonen etxebizitza arazoa konpontzeko bestelako hautabideak proposatu beharko liriateke, lehen ere adierazi bezala. Horretarako, helburu estrategikoak eta hiri eta gizarte esparruko proiektuak berrikusi beharko liriateke, modu horretan Konstituzio Espainiarrean, Estatuak sinaturiko Hitzarmen eta Nazioarteko Konbentzioetan eta araudian orokorren onarturiko eskubideak errespetatzeko. Horiek guztiek betebeharrak ezartzen dizkiete herri Administrazioei, bai ahultasun egoeran dauden pertsonen bizi baldintzak hobetzea sustatzeko, bai diskriminazio modu guztiak debekatzeko.

Azken batean, Administrazioek ordenamendu juridikoarekin bat etorri jardun behar badute ere, ezaugarri hauek dituen plan baten garrantziak beharrezkoa egiten du berrikuspena, dokumentu berri batean helburuak eta konpromisoak jasotzeko, Administrazio ezberdinen jarduerak lotuz. Dokumentu horretan txosten honetako ondorioak hartu beharko liriateke kontuan.

#### **4. Eraitsitako eraikinetan edo eraitsi beharrekoetan bizi diren pertsona guztiei bizileku berria izateko eskubidea bermatzea**

Beharrezkoa da herri Administrazioak gehiago inplikatzeko pertsonen bizileku duina emateko, bazterkeria egoeran dauden taldeentzat alokairuko etxebizitza sozialak egotea sustatuz, etxebizitzak birgaitzen lagunduz, azken batean, pertsona guztiei bizileku egokia eskainiz. Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak eta Sestaoko Udalak eskumenak dituzte etxebizitza esparruan, beraz, formula ezberdinak proposatu behar dituzte pertsonen egoera kontuan hartuta, haiei bizileku egokia eskaintzeko.

Zehazki proposatzen dugu, Iparraldeko Industrialdearen hiri birsorkuntzak lehenik eta behin Galindo Ibarreko Hiri Ordenamenduko Plan Orokorraren aldarazpenean eta Plan Zuzentzaileen jasotako helburu nagusiarekin betetzea, hau da, aldarazpena onartu aurretik Simondrogas zonaldean bizi ziren pertsona okupatzaile legal guztiei bizileku berria ematea. Eskubide hori kudeaketa sistema eta deklaraturako edo deklaratzeko bidean dagoen auri egoera alde batera utzita onartu behar da. Etxebizitza emateak familia Sestaotik kanpo kokatzea esan nahi izan dezake. Erabaki hori familiaren inguruabar sozialak eta kideen hezkuntza beharrak kontuan hartuta, eta beren nahia ezagututa baloratu behar da. Garrantzitsua da erabaki horren ondotik ghetto berriak ez sorraraztea, edo gizartearen gutxiespeneko mobilizazioak ez ekartzea. Horretarako, bestelako neurriak ere hartu beharko dira, esate baterako, gizarte akonpainamendukoak edo gizarte sentsibilizazioko lan bateratua.

#### **5. Udaleko etxebizitzaren erabilera egokia eta gizartearen segurtasuna bermatzea**

Errentari batzuk udaleko etxebizitzak erabiltzean sortzen dituzten arazoak edo bizikidetzaren gatazka kontuan hartu behar dira gizarte kohesioaren hondamen handiagoa ekiditeko. Administrazioek, jabeak diren heinean, etxebizitzak egoera onean mantendu behar dituzte, eta kontratuak betetzen direla ikuskatu. Gure ustez, pertsonak bakean eta segurtasunean bizitzeko nahia dute, eta herri Administrazioek baldintzak ezartzeko betebeharrak dute auzo bateko auzotarrek modu baketsuan bizitzeko aukera izan dezaten, hiriko segurtasun ezeko arazorik izan gabe.

Hiri azpiegiturretan eta gizarte baliabideetan inbertitzeak eta ekonomia sustatzeak zonaldeko bizi baldintzak hobetzen lagun dezake, baina horiek batera osasun esparruko prebentzio neurriak (drogamenpekotasunari aurre hartzea) eta hezkuntzaren esparrukoak ere beharrezkoak dira gizarte bizikidetzaren hobetzeko.

Sestaoko udalerriak oso ratio altuak ditu, gizarte langile bakoitzak laguntzen duen pertsona kopuruari dagokionez. Langile taldea sendotu egin beharko litzateke, modu horretan gizarte esku-hartzea hobetzeko eta laneko profil berriak sartzeko. Horretarako, beharrezkoa da gizarte zerbitzuen esparruan eskumeneko diren beste Sail batzuk ere esku hartzea, bai Eusko Jaurlaritzarenak bai Bizkaiko Foru Aldundiarenak. Izan ere, profesionalak eta gizarte behar zehatzetarako egokituriko baliabideak behar dituen udalerria da. Behar horien artean, besteak beste, honakoak kokatuko liriateke: luzaroan langabezia egon diren pertsonak, prestakuntza maila txikia dutenak, gizarte eta osasungarritasun ohiturak falta dituztenak, osasun edo kontsumo arazoak dituztenak, lan merkatuan diskriminazioa bizi dutenak...

Gizartearen segurtasuna balore garrantzitsua da, auzoetako kideen arteko harremanen garapena ahalbidetzen duelako, eta pertsonen bizitzarako oso beharrezkoa den konfiantza pertsonaleko faktorea delako. Administrazioek segurtasun hori bermatzeko erantzukizuna dute. Auzotarrek beren auzoak segurutzat hartzeko, beharrezkoa da bestelako neurriak hartzea polizienak edo bide segurtasunaren zaintzaz haratago. Hirigintza neurriak behar dira: kaleak asfaltatzea, beharrezkoa den argia jartzea, kaleak maiztasunez garbitzea edo programa sozial edo kulturalak martxan jartzea, horien bidez auzoetako bizitza soziala eta kulturala sendotu egingo delako.

## 6. Gizarte sentsibilizazioa sustatzea

Garrantzitsua da gizarte sentsibilizazioa sustatzea arrazakerian edo arrazarengatiko diskriminazioaren gain. Eztabaida publikoa bultzatu behar da giza eskubideen ikuspegitik abiatuz, eta diskriminazioaren-tzako ahulenak diren taldeen parte-hartzea ahalbidetuz. Erakundeak modu argi eta tinkoan kokatzea edozein motatako diskriminazioaren aurrean, ezinbestekoa da berdintasuneko kultura sustatzeko. Modu berean, beharrezkoa da gizarte politikak lortzeko baldintzen inguruko informazioa hobetzea, eta baita laguntza horiek jasotzeko aukera duten pertsonen egoera hobetzea ere. Komenigarria litzateke Sestaoko auzotarren ezagutza areagotzea gizarte politiken zentzuaren, hartzaile izango diren pertsonen gizarte arazoan, garatzen duten funtzioaren eta gizarte bazterkeria eta zailtasunak bizitzeko dituzten arrazoien gainean. Horien artean ere jasaten dituzten diskriminazio egoerak egongo liriteke. Horren bidez, gizarte kohesioa eta ulermena hobetuko litzateke gizartearen gutxietsita dauden pertsona horiekiko.

## 7. Hiritarren lankidetzak, informazioa eta parte-hartzea hobetzea

Auzotarren bizitzari horrenbeste eragingo dien plana hiritarren parte-hartzearekin egin beharrezkoa da. Kalteturiko auzoetako arazoak hobekien ezagutzen dituztenak auzotarrak berak dira. Horregatik, geroz eta garrantzitsuagozat jotzen da tokiko gobernuetan auzotarren parte-hartzea ahalbidetzeko bideak jartzea, modu horretan eragiten dieten erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Horretarako formula ezberdinak daude, bai informalak eta baita formalak ere. Informalen artean, auzoetako ordezkariekin lan egitea egongo litzateke, eta formalen artean adibidez, hiritarren parte-hartzerako azpiegiturak sortzea, toki gobernuak modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak ezartzen duen moduan.

Garrantzitsua da parte-hartze prozesua antolatzea, Toki Autonomiaren Gutun Europarra, 1985eko urriaren 15eko, edo Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Estatu Kideei eginiko Rec Gomendioa (2001) bezalako baliabide arautzailetan ezarritako printzipioak errespetatuz. Azken horrek hiritarren parte-hartzearen gaia jorratzen du, toki mailako bizitza publikoan.

Hiritarren lankidetzak eta informazioak, eta hiri birsorkuntzako prozesuan parte hartzeak gizarte kohesioaren alde egiten dute. Parte-hartze eraginkorra lortzeko, garrantzitsua da bi aldeak, alegia, erakundeena eta gizartearena, elkar onartu eta errespetatzea. Gizartearen bitartekariak ezagutu eta haien eskaerak bideratzea izango litzateke helburua, modu horretan benetako eragina izateko aukera posible izan dadin prozesuari eragiten dioten erabakiei dagokienez.

Sestaon garatzen ari dena bezalako prozesu batek hiritarren sinesmena eta parte-hartzea behar ditu. Horretarako garrantzitsua da zailtasunak eta neurriak gauzatzeari eragiten dioten inguruabarrak ezagutzea, kontu guztiak aztertuz eta gardentasuna mantenduz. Zentzu horretan, beharrezkoa da informazioa eta komunikazioa hobetzea. Zonaldeko datuak eta adierazle ezberdinak ezagutzeak hiritarren informazio eta komunikazioa erraztuko luke. Adierazle horien artean, gizartearena, hezkuntzarena, osasunarena, hirigintza proiektuena, salaketena eta gizarte segurtasunaren esparruan egiten diren ekintzena, edo zerbitzu publiko ezberdinetara iristearena egongo liriteke. Modu berean, jada sorturiko azpiegiturak hobetu beharko liriteke, esate baterako, informazio bulegoa. Modu horretan, pertsonen beharretara gehiago hurbilduko litzateke eta koordinazio handiagoa antzemango litzateke ere gizarte zerbitzuekin.

## 8. Lankidetzak hobetzea gizarte agenteekin

Ezinbestekoa da ekimen pribatuko erakunde sozialei babes ematea, auzoetan betetzen duten funtzio oso garrantzitsua delako, bai gizakiaren ikuspegitik bai gizartearen sentsibilizazioarenetik ere. Horretarako, eta haien proiektuen sendotasuna aztertu eta gero, beharrezkoa da babes finantzariora eta/edo lokal publikoak haien eskura jartzea, edo erakundeen jardura erraztea proiektu ezberdinak egin ahal izan ditzaten. Adierazitako erakundeen gertutasuna eta pertsonen benetako beharrei erantzun emateko

ahalmena ezinbestekoak dira Sestaok bizi duen prozesuan. Gizartearekin egiten duten lana gizalegezko jokabidearen adibide da, eta ezinbestekoa da horixe onartzea.

Sestaok auzotar elkarrekin ditu, auzotarren kezka eta parte-hartzea erakusten dituelako, eta hori oso positiboa da. Garrantzitsua da botere publikoek gizarte erantzukizun hori aprobetxatzea eta horien parte-hartzea sustatzea auzoetako kide guztien bizitzak hobetzeko antolatutako programetan.

### **9. Sestao Berri S.A. sozietateak egiten duen lana babestea**

Sestao Berri sozietatea garatzen ari den lana oso garrantzitsua da, gizarteratze prozesuekin zerikusia duelako. Prozesu horiek oso konplexuak dira eta neurri eta akordioak behar dituzte Administrazio ezberdinen partetik. Horretarako, beharrezkoa da Sestao Berri S.A. sozietateari nahikoa ahalmen eta baliabide ematea, esate baterako, kanporatzeak eta aldi baterako nahiz behin betiko bizileku berriak ahalbidetzeko etxebizitzak jartzea, eta etxebizitzaren okupatzaileei bizileku berria emateko irizpideak ezartzea, jardueren sustatzaileen erabaki espresagatik horixe gomendatzen den hirigintza kudeaketen esparruan. Zentzu horretan, ezinbestekoa da Sestao Berri S.A. sozietatearen esku etxebizitzak jartzeko ahalmena duten Administrazioek, hau da, Sestaoko Udalak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, gutxienez aurretik sinaturiko konpromisoak mantentzea, martxan jarritako prozesuari konponbide ona ematea lortzeko.

## TXINGUDI INGURUAN HIRI-HONDAKINEN ERRAUSKETA-INSTALAZIOA JARTZEKO PROIEKTUAREN GAINEKO KEXA-ESPEDIENTEEI AMAIERA EMATEN DION EBAZPENA.

### I- Aurrekariak

1. Txingudin (Gipuzkoa) hondakinen erraustegia jartzeko proiektuaren aurkako hiru kexa aurkeztu dituzte erakunde honetan hiru kolektibok (*Txingudi Bizirik* ingurumenaren defentsako hiritarren plataformak, Hendaia hiritarren defentsarako eta ordezkapenerako kolektibo batek eta erraustegi horren aurka dauden mediku eta osasun saileko langileen kolektiboak), eta erakunde honek, erakunde arduradunekin zenbait bilera egin ondoren, 2005eko azaroaren 8an dokumentu bat bidali zuen. Bertan jaso genituen kolektibo horiek gaiaren inguruan planteaturiko hausnarketa nagusiak, eta, horrez gain, proiektu horrekin zerikusia duten toki administrazioei zenbait galdera egin genizkien.
2. Dokumentu hori aipaturiko administrazioei eta kexak aurkeztu zituzten kolektiboiei bidali zitzaizen, eta Txingudi Zerbitzuak SAK, Hondarribiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak erantzun dute, gure dokumentuaren alderdi ezberdinak azpimarratuz. Halaber, kexa aurkeztu zuten kolektiboen erantzuna ere jaso dugu, eta, bertan, denek ere azalpen gehiago eta oparagoak eman dituzte beren kexak arrazoitzeko.
3. Erakunde honetan irekitako espedientea *sine die* luza liteke, inplikaturiko aldeek proiektuaren inguruan dituzten beren iritzi eta irizpideak azaltzen jarraitzeko duten aparteko interesa kontuan hartuta, eta, gure iritziz, proiektuak eztabaidarako bide handia ematen duela erakusten du horrek. Beste erakunde bateraino ere iritsi da, eta, beraz, orain arte erabilitako parte-hartze bideen eraginkortasun praktikorik eza agerian gelditu da. Hala ere, azken ebazpenaren idazki honen bidez, amaitutzat eman nahi dugu gai honetako esku-hartzea, eta, bertan, hausnartutako gaiari buruzko gure behin betiko ondorioak azaldu nahi izan ditugu.
4. Horretarako, berriz ere jasota utzi nahi ditugu aurretiazko bi kontu, jarraian hobeto azalduko ditugunak: alde batetik, Arartekoaren ebazpen izaera ez loteslea. Ebazpen horien helburua, ordenamendu juridikoan oinarrituta, legaltasun irizpideak ez ezik –horien inguruan erabaki ahal izango dute organo eskudunek, haiengana joz gero– gai publikoa eta ordenamendu juridikoak aitorturiko eskubideen babesa hobeto administratzeko irizpideak finkatzea da. Bestalde, nabarmendu nahi dugu ez dela egokia erakunde hau horrelako eztabaida baten hartzaile izatea. Berez, aipaturiko proiektua sustatu eta gauzatzeko baimena ematearen arduradun diren administrazio eta erakundeen artean bideratu beharreko gaia da.

### II- Kontsiderazioak

#### II.1. Aurretiazko kontsiderazioak:

1. Kexa aurkeztu zuten kolektiboek eta dagokien erakundeek bidalitako erantzunak aztertu ondoren, lehenik eta behin, aurretiazko kontu bezala, idazki honetan egingo ditugun ñabardurekin, berretsi eta errepikatu egin behar dugu aurrez 2005eko azaroaren 8an eginiko dokumentuaren edukien baliozkotasuna. Dokumentu hartan, Txingudin erraustegia jartzeko proiektuak merezi duen hausnarketaren oinarriak finkatu genituen, eta, beraz, aurrez azalduko arrazoiak ez errepikatzeko, hari lotzen gatzazkiko *in genere*.
2. Bestalde, jakinarazi nahi dizuegu azken dokumentu honekin amaitutzat eman nahi dugula gai honetako esku-hartzea, eta, sintesia egiteko eta aurrez azaldu genituen arrazoiak ez errepikatzeko, garrantzitsuen iruditzen zaizkigun eta, gure ustez, proiektuaren etorkizunaren inguruko erabakiak hartzerakoan dagokien erakundeen jarduera bideratu behar duten alderdiak azpimarratuko ditugu oraingoan. Zentzu horretan, aurreko dokumentuan inplikaturiko aldeek planteaturiko ñabardura, eragozpen eta zehaztasunen artean, gure behin betiko jarrera argitzeko funtsezkoak edo bereziki garrantzitsuak direnei bakarrik emango diegu berariazko erantzuna.
3. Era berean, beste behin ere, Ararteko erakundearen izaera berezia gogorarazi behar dugu, hiritarren eskubideen defentsara bideratua baitago, ez administrazio publikoen defentsara; azken horiek badituzte

beren jardueren defentsarako behar adina babes-baliabide propio. *Ombudsman* modura, Herriaren Defendatzaile modura, erakundera jotzen duten pertsonekin eta entitateekin bereziki harkorraz izateko eta haien argumentuak ordenamendu juridikoaren printzipio eta arauekin, eta, bereziki, eskubideei dagozkienekin kontrastatzeko betebeharra dugu, hiritarrak administrazio publikoen neurrigabekieretatik, gehiegikerietatik, isiltasunetik, irregulartasunetik eta urritasunetik babesteko berme-sistema etengabe hobetzen laguntzeko helburuarekin. Ondorioz, Arartekoaren posizioa, izaera eta prozedurak, *ombudsman* moduko beste erakundeak bezala, ezin dira organo eskudunekin parekatu, ezta prozesu judizialekin ere.

4. Hori esanda, Konstituzioaren 43. eta 45. artikuluen testuinguruan, osasunerako eta ingurumen egokirako eskubideak aitortzen baitituzte hurrenez hurren, jarraian gure ustez arreta berezia merezi duten hiru kontu jasoko ditugu. 1.- gizartearen parte-hartze eraginkorra Txingudin hiri hondakinen erraustegia jartzeari buruzko erabakia hartzeko prozesuan, 2.- formalki eta materialki Europar Batasunean hiri hondakin solidoak kudeatzeari buruz erkidegoan finkaturiko helburuak betetzea, eta 3.- prozedura horrek ardura printzipioa hartzea Konstituzioak aitorturiko ingurumen eta osasun eskubideei dagokienez.

## II.2. Funtsezko kontsiderazioak:

### 1. Gizartearen parte-hartze eraginkorra Txingudin hiri hondakinen erraustegia jartzeari buruzko erabakia hartzeko prozesuan.

2005eko azaroaren 8ko dokumentuan, aipamen zabala egin genion gai honi, eta aplikagarri den arautegitik abiatuta, Aarhuseko Hitzarmenaren aurreikuspenak jasotzen dituen erkidegoko arautegitik, hain zuzen, bertan finkaturiko kanonak prozesuan nola doitu diren aztertu genuen. Eusko Jaurlaritzak, Hondarribiko Udalak eta Txingudi Zerbitzuak sozietateak gai honi buruz azaldu genizkien hausnarketei bidalitako erantzunak aztertu ondoren, egun Eusko Jaurlaritzan aribidean dagoen prozedurak preskribaturiko alegazioen izapideak formalki bete dituela onartzen dugun arren, administrazio horiek ahalegin handiagoa egiteko beharra eta komenentzia berresten jarraitzen dugu, jendearen parte-hartzea (Aarhuseko Hitzarmenaren ondorio den arautegiaren hiru oinarrietako bat, ingurumenari buruzko informaziorako eta justiziarako eskubideekin batera) kontzeptuari eduki erreala eta eraginkorra emateko, *azken erabakian eragin erreala izateko gaitasun* modura ulertuta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/35/CE Zuzentarauaren 3. eta 4. artikuluen arabera prozeduraren hasierako fasean txertatzen dena, jendeari benetan parte hartzeko aukera eman ez soilik. Horrela, erkidegoaren ordenamendura pasatzen da Aarhuseko Hitzarmenaren 6.4. artikuluan xedaturikoa. Horren arabera, jendearen parte-hartzeak “*aukerak eta konponbideak oraindik posible direnean eta publikoak benetan eragin dezakeenean hasi behar du*”.

Alde batetik, Txingudi Zerbitzuak sozietateak eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak, parte-hartze printzipioa orain arte proiektuari oniritzia emateko jarraituriko *iter*-aren bidez behar bezala bete dela baieztatu dutela ikusita, orain Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailean aribidean dagoen baimen integratuaren eta ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioaren prozedurak jendea informatzeko legeak aurreikusitako izapideak formalki egin dituen aparte utzita, hau esan behar dugu: Europako legeriaren argitara izan behar dugun prozeduraren hasierako faseko parte-hartze errealean ikuspegitik, *ez* da ikusten jendeak materialki horrela parte hartzeko aukerarik izan duenik, eta, beraz, *azken erabakian eragin erreala izateko* kontzeptuak ez du, gure iritziz, materialki behar adinako isla izan prozeduran. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak gure dokumentuaren erantzun gisa bidalitako idazkian adierazten duen eran, prozedura ez da amaitu, eta, beraz, oraindik pentsa dezakegu ebazpenak azkenean kontuan hartuko duela aurkezturiko alegazioen edukia, eta, hartara, jendeak hartuko den azken erabakian eragin erreala izan duela ulertuko da.

2003/35/CE Zuzentarauan aurreikusitako xedapenak indarrean jartzearen eta prozedura honetan aplikatzearen *dies a quo* kontuaz haratago, edonola ere, erkidegoaren araua indarrean dagoen eta eraginkorra den epean ebartzeko baita (aurreko dokumentuan azaldu genuen hori, eta irizpide bat ekarri genuen, horren inguruan sor daitekeen eztabaida, hala badagokio, auzitegietan jartzeko kalterik gabe), gure ustez, arautegi horren izpirituak bizirik egon behar du EAEn ingurumenaren gainean hartu beharreko erabaki garrantzitsu guztietan, oraingoan, kasu. Horregatik, prozeduran aurreikuspen hori bete nahi izan den edo bete nahi den jakin nahi genuke, hau da, ea administrazio publiko arduradunak prest dauden jendeari azken erabakian eragin erreala izaten uzteko, alternatibean ugaritasunera zuzenduriko planteamenduetatik –eta ez aurretiaz aukera edo konponbide bakarra zehazten duten planteamenduetatik– abiatutako eztabaida onartuz.

Gure ustez, parte-hartze hori poluzioaren kontrol integratuaren baimena eskatu aurretik eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedura hasi aurretik egin zitekeen. Gaur egun hori guztia aribidean dago Eusko Jaurlaritzan, hondakinen erraustegiaren proiektu zehatzarekin lotuta. Hasiera batean, konponbide eta aukera guztiak ziren posible, eta Irungo eta Hondarribiko Udaletan zein Txingudi Zerbitzuak sozietatean jendeak

parte hartzeko mekanismoak antola zitezkeen, hiritarren iritziarekiko sentikortasun handiagoko erakunde baten ikuspegitik eta erabakiaren legimitate demokratiko handiagoaren mesedetan.

Txingudiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (PIRUAT) kanpoko aholkularitza-entresa baten esku utzi zen, eta horren ondoren, alegazioei dagokien izapidetze formalarekin, udal autoritateek onartu egin zuten, planaren aurreikuspenei buruzko eztabaida zabala egiteko aukera ekarriko zukeen parte-hartze biderik eskaini gabe. Nahiz eta gaur egun ingurumenaren gaineko erabakietarako jendearen parte-hartze handiagoa eskatzen duten lege-parametroak indartu diren, jakina da horrelako gaiiei buruz hiritarrek duten iritziarekiko sentikortasuna garrantzitsua izan daitekeela erakundeek gizartearen aurrean duten irudiarentzat eta etorkizunean aurrera atera nahi den proiektua legitimatzeo –ingurumenarekin loturiko beste proiektu batzuetan gertatu den bezala–, hiritarren babes zabala lortu ezean, gizarteak zalantzan jar baititzaie.

Txingudi Zerbitzuak sozietateak, bere idazkian, luze eta zabal azaltzen ditu hiritarrei hiri hondakinaren erraustegiaren proiektua ezagutarazteko egin dituen jarduerak (*proiektuaren aurkezpenak*, gehienak), eta horri esker hasierako faseetik jendeak informazioa jaso duela eta parte hartzeko aukera izan duela berresten du. Hala ere, ez gatoz bat baieztapen horrekin, izan ere, jardueren azalpena ikusita eta sozietate horrek eta kexa aurkeztu duten kolektiboek ekarritako dokumentuak aztertuta, ondorioztatzen dugu erakunde horrek erraustegiaren proiektua zabaltzeko jarduera handia egin duela, hain zuzen, jendea proiektu horren onurez konbentzitzeko helburu garbiarekin.

Txingudi Zerbitzuak sozietateak abiarazitako jarduerak ez dituzte, gure ustez, zenbait talde edo pertsonen sozietate horri eginiko informazio eskaerak asetzen (aurreko dokumentuan azaldu genituen zehatz-mehatz egindako eskaerak), oraindik ez baitiete erantzunik eman eskaera horiei, eta ez baitute ez erantzutearen zergatia jakinarazi. Ingurumenari buruzko informazioa ukatzeak zerbitzu erakundeak aipatzen duen 38/1995 Legearen 3.3. artikuluan bakarrik aurki dezake estaldura, dagokien administrazioak edo erakunde publikoak manu hori aplikagarritzat hartzeko benetako arrazoiak azalduta, kontuan hartuz modu murriztailean jardun behar duela horrek. Txingudi Zerbitzuak-en idazkiak ongi azaltzen duen eran, arau orokorrari murriztutako salbuespena baita. Harrigarria da informazioa behin baino gehiagotan arrazoi zehatzik eman gabe ukatu dela egiaztatzea, eta, horrez gain, zehaztasun gutxiko terminoak erabili dituzten kasuetan, eginiko informazio eskaerak ez direla zuzendu ikusteak.

Gizartearen parte-hartzearekin loturiko gai horri dagokionez, komeni da gogoratzea zenbait kolektibok eta, horien artean, kexa aurkeztu dutenetakoren batek, eskualdeko jendeak proiektuari buruz duen iritzia ezagutzeko kontsulta edo galdeketa antolatzeko eremu publikoa erabiltzeko egin duen ahaleginaren inguruko behin-behineko gogoetak bidali dizkiegula udalei, 251/05/23 kexa-espeditentearen esparruan, eta, bertan berresten dugu, eskatutako erabilera egiteko baimena Udalak ukatzea, gure ustez, ez dagoela behar bezala justifikatuta eta ez datorrela bat eskaera egin duen kolektiboaren asmoarekin. Era berean, Irungo eta Hondarribiko Udalei gogorazten genien nazioarteko bitartekoetan jasotako printzipio programatikoekin bat etorritik, hiri plataformen parte-hartzea babestu behar luketela, hiritarren iritzia modu baketsuan jasotzeko balio duten galdeketak edo prospektibak egin. Legezko eintza horretarako erakundeek babesik ez izateaz gain, udal azpiegiturak erabiltzeko kolektibo horien ahalegina eragotzi egin zen. Horregatik Irungo eta Hondarribiko Udalei 2005eko uztailaren 8ko datarekin bidalitako idazkiei lotzen gataizkie, baita laster izango den espeditentearen ebazpenari ere, orain arte soilik Irungo Udalak eman duen erantzuna ikusita.

Bestalde, oso positibotzat hartu ditugu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren adierazpenak, prozedura hori oraindik irekita dagoela eta 2003/05/CE Zuzentarauan xedaturikoa betetzeko berriazko borondatea azaltzen baitute. Beraz, egin diren hainbat eta hainbat alegazioak (14.776, sail horrek adierazten duenez) aztertu eta oraindik nolabait jendearen planteamenduak jasoko dituen ebazpena aterako dela pentsatu nahi dugu; garrantzia ez du soilik jendearen eragin kuantitatiboak, baizik eta baita prozeduran duten inplikazio kualitatiboarengatik, eta horrek eskualdeko hiritarrentzat interes berezia duela erakutsi da.

Testuinguru horretan, aurreko dokumentuan aurreratu genuen eta, gure iritziz, oinarritzko postulatu demokratikoetan aurrera egin eta sakontzeko gizarte postindustrialetan ezinbesteko erreferentzia izan behar duen *ingurumen-demokrazia* kontzeptuari edukia emate aldera, hiritarren parte-hartzerako organo bat sortzeko proposamena berretsi nahi dugu, zeinaren helburua hondakinak kudeatzeko erraustegiaren prozeduraren eta etorkizuneko funtzionamenduen jarraipena den, azkenean edozein tipologia duela ere. Parte-hartzean oinarrituriko organoa (balio beza eredu modura aurreko dokumentuan aipatzen genuen hondakinaren errausketa arautzen duen azaroaren 13ko 11/2000 Lege katalanaren 8. artikuluan aurreikusitakoak) lehenbailehen jarri beharko litzateke abian, hiritarrei, eta, jakina, ingurumenaren defentsan antolatu diren kolektiboek, gaur egun ez duten ordezkaritza eta ahotsa bermatzeko.

Bestalde, jaso ditugun idazki guztietan prozedurazko akatsa egin zela onartzen da, eta horrek Hondarribiko Udalak sailkaturiko jardueren lizentzia prozedura hastea ekarri zuen. Prozedura egokia gerora aribidean jarritakoa zela onartzen da, hau da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko ingurumen-baimen integratuarekin loturikoa. Hondarribiko Udalak hasitako prozeduran planteatu ziren alegazioak, gure iritziz, egungo prozedu-



ran hausnartu behar dira. Bestela, alegazioak aurkeztu zituztenei pertsonalki jakinarazi behar zaie egindako akatsa, eta ohiz kanpoko epea eman orain aribidean dagoen prozeduran beste alegazio batzuk aurkez ditzaten. Bestela, administrazio jarraibideak defentsarik gabe utz litzake aurrez akats batengatik hasitako prozeduran fede onez alegazioak aurkeztu zituztenak, zeinei ez zitzaien behar bezala jakinarazi akats bat egon zela, eta alegazio horiek gerora Eusko Jaurlaritzan aribidean jarri den prozeduran berriz aurkeztu behar dituztela. Beraz, hasieran egin zituzten alegazioak autoritate eskudunak proiektua baimentzeari buruzko ebazpenean kontuan hartuko dituela pentsatzen jarrai dezakete. Ez da gure asmoa inongo administrazioari akatsaren errua egozte, eta, idazkietan garbi azaltzen zaigun eran, sekula ez da akatsa ukatu izan. Nahi duguna akats horrek izan litzakeen ondorioak, hala nola, interesaturiko pertsonen defentsarik eza, modu eraginkorrean zuzentzea da, inplikaturiko administrazioek ez baitituzte ondorio horiek kontuan hartu. Hondarribiko Udalak bere akatsa administrazioei eta gure erakundeari onartu arren, ez dio hori adierazi horren berri izateko aparteko interesa duen kolektiboari, hau da, desegokia zela jakin gabe prozeduran alegazioak aurkeztu zituzten pertsonari. Ezin da esan alegazio horiek gerora hasitako prozeduran berriz ere aurkez zitezkeela, ez baitzen berari azaldu aurrez Hondarribiko Udaleko prozeduran aurkezturiko alegazioak ez zirela kontuan hartuko, ezta prozedura hori okerra zelako artxibatua egin zela ere. Beraz, prozedura hartan agertu ziren pertsonen erraustegiaren proiektuaren inguruan alegatu zutena hor dagoela pentsa dezakete. Horregatik, gure ustez, aurreko dokumentuan adierazi genuen eran, bi konponbide daude, lehenengo prozeduran agertu ziren pertsonentzako bereziki ohiz kanpoko epe bat jartzea alegazioak aurkezteko, edo Eusko Jaurlaritzak hartuko duen azken ebazpenean berriazko arreta eskaintzea Hondarribiko Udalean aurkeztu ziren eta udal horrek Eusko Jaurlaritzara bidali dituen alegazioei.

Azkenik, Hendaia hiritarrei dagokienez, informaziorako eta parte-hartzerako bideak jartzeko ahalegina egin dezaten eskatu behar diegu dagokien administrazioei, proiektuak erasaten duen erkidego horretako hizkuntza behar eta berezitasunei egokitu. Erakunde honi euskal administrazioen funtzionamendua egokia den ikuskatzea dagokio, beren jardueren estatuaren mugetatik kanpo ondorioak dituzten aparte utzita. Euskal esparruko administrazioak eginiko jardueraren funtzionamendu egokiaren ikuspegitik eta erasandako jendeari behar adinako eta kalitatezko arreta ematearen ikuspegitik, berriaz eskatu nahi dugu aribidean dagoen prozedura behar horietara egoki dadin, hain zuzen ere frantsesa sartuz, prozeduran erabiltzen diren gaztelaniarekin eta euskararekin batera.

## **2. Hiri hondakin solidoen kudeaketaren inguruan erkidegoak ezarritako helburuak formalki eta materialki betetzea.**

Azaldutako oinarriari lotuta, berriro aipatu nahi dugu gure aurreko dokumentuan adierazitakoa, PIRUAT planeko helburuak egokitzeko beharra, alegia. Alde batetik, helburuak 2016rako ezarri dira, eta hori ez dator bat 2004/12/CE Zuzentarauaren 1.5 artikuluan xedatutakoarekin (Zuzentarau horrek 94/62/CE Zuzentaraua, ontzien eta ontzien hondakinei buruzkoa, aldatzen du). Izan ere, 2007ko abenduaren 31a baino lehen, erkidegoko erakundeek 2009-2014 urteetarako helburuak jar ditzaten eskatzen du 2004/12/CE Zuzentarauak, hori dena 2008rako ezarritako helburuak lortzen estatu kideek jasotako praktika, bai eta ebaluaziorako ikerketa zientifiko eta teknikoak ikusirik ere. Aurreikuspena adierazitako helbururik gabe geldituko da erreferentzia-epea (2009-2014) aurreko plan baten helburuek beren barne hartzen badute, ezin baitira aurreikusitako 2007ko abenduaren 17a baino lehen erkidegoko erakundeek helburu berri gisa izendatuko dituztenak. Beste alde batetik, PIRUAT planean aukera estratejiko moduan ezarritako helburuak ez datoz bat aipatutako 2004/12/CE Zuzentarauaren 1.1 artikuluko 2008rako ezarritako asmo handiko helburuekin. Plana eguneratuz asmo handiko helburuetara egokitu beharko lirateke helburuak, nahiz eta planak ez dituen betetzen 2006rako Hondakinzentzako Plan Nazionalak ezarritako helburuak.

Edonola ere, behin betiko onartu zen PIRUAT plana arautegi berrira egokitu beharko litzateke etengabe, erraustegia jartzeko proiektuak jasotzen duen planifikazioa egiteko tresna den heinean. Alabaina, plana orain dela bost urte onartu zenetik ez dela berrikusi egiaztatu dugu, nahiz eta bitarte horretan edukiari zuzenean eragiten dieten arau-aldaketak gertatu diren.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak erraustegia *balorizazio* kategorian kontzeptuaren barnean sartzen du, eta, horri dagokionez, adierazi nahi dugu erabat baliozkoak direla gure aurreko dokumentuan (horri lotzen gatazka) egin genuen azterketa eta atera genituen ondorioak. Txingudi Zerbitzuak sozietatearen agirian esaten den moduan, ondorioak ez daude inolaz ere lausotuta jurisprudentzia horren zati batek estatu batetik bestera hondakinak eramateari erreferentzia egiten diolako. Aipatutako epaietan, eta bereziki C 458/00 kasuaren barruan emandako (Erkidegoa Luxemburgoren aurka) 2003ko otsailaren 13ko epaian, *balorizazio* kontzeptuaren inguruko azalpenak ematen dira. Izan ere, kontzeptu horrek hondakinak leku batetik bestera eramatearen kontuan eragin handia izan zezakeen, baina Auzitegiak kontzeptua nola ulertu behar den argitu zuen, eta logikoa den moduan, kontzeptu horren eraginpeko arazo eta kasu guztietan

ondorioak ekarri ditu. Dударik gabe, erkidegoko arategiak ezarritako hondakinei buruzko *balorazio*-helburuak betetzen diren ikusteko ere egin zuen hori. Beste era batera esanda, erkidegoko arategiaren baliozko interpretazio aplikagarriaren monopolioa duenak, hau da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, guztiz argitu, azaldu eta interpretatu du *errautegiari lotutako balorizazio* kontzeptua. Horrela bada, arategiak Erkidegoko Zuzenbidea betetzen dela segurtatzeko ardura duen jurisdikzio-organu gorenak zalantzarik gabe ezarritakoan soilik izango du eragina, kontzeptu hori jasotzen duten eta egun indarrean dauden testuetan Auzitegiak argitutako esanahia ez den bestelako esanahiren bat ere sartuz arategiaren erreformarik egiten ez bada behintzat, eta oraingoz behintzat ez da horrelakorik gertatu. 2004/12/CE Zuzentarau berriaren 6.1. artikulua, ontzei eta ontzien hondakinei buruzkoak, ez dio kontrarik egiten. Izan ere, *balorizazioa eta energia-balorizazioa duten hondakinak erretzea* desberdintzen ditu (*edo* juntagailuaren bidez), eta, hala, balorizazio-helburuak betetzeko xedea izanik, energia *balorizatzen* duten errautegiak ere balorizazio mota baten barruan hartzen ditu. Gainera, aipatutako Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziari jarraiki, energia *berreskuratzen* duten errautegi *guztiak* ez lirateke energia balorizatzen duten errautegiak izango, helburu nagusi gisa energia sortzea, eta ez hiri hondakin solidoak kudeatzea helburu dutenak bakarrik baizik. Horregatik, manu honek ez du inolaz ere Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren kontrakoa esaten. Alderantziz, Europako Auzitegi Gorenak emandako epaiekin bat etorritz ulertu behar da, eta Auzitegiak ezarritako doktrinaren indargarri gisa ikusi behar da.

Horrekin guztiarekin, PIRUATen helburuak 2004/12/CE Zuzentarauaren 6.1. artikuluan jasotzen diren aurreikuspenetara egokitzeko beharra dagoela iruditzen zaigu, eta pentsatutako errautegia balorizazio moduan ikustea baztertzeko dugu. Horrez gain, ezabatze kontzeptuaren barnean sartzen dugu proposamena, planak proposatutako helburu guztiak egokitzei edo moldatzei dagokionez horrek dakartzan ondorioekin.

### **3. Ingurumen arloko arretaren printzipioak prozedura honetan duen garrantzia eta konstituzioaren bitartez ezarritako osasunerako eskubidearekin duen lotura**

Gai honi dagokionez, gure aurreko dokumentuan adierazten genuen –hartara jotzen dugu arrazoitze sakonagoa eta zehatzagoa lortzeko, hemen laburpena baino ez baitugu egiten– nabarmen gelditzen dela errautegiak metal astunak, dioxinak eta furanoak emititzea, eta horrela islatu da hondakinen errautegietatik datozen emisioak arautzen dituen arategian. Horregatik plantzatzeko genuen errausketari buruzko berariazko arategia erkidegoko estrategia zabalago baten testuinguruan kokatzeko beharra, ingurumenean egon daitekeen dioxina, furano eta poliklorobifeniloen (konposatu organiko iraunkorrek) kopurua mugatuko lukeen estrategiaren barnean. Hala, bada, ingurumena eta gizakion osasuna babestea izango luke helburu gisa. Substantzia horien emisioa onartuko lukeen proiektu bat ezarri ala ez erabakitze orduan (hala nola, errautegi hau), testuinguru horren barnean adierazten genuen guztiz beharrezkoa dela kontuan hartzea Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/85/CE Arautegiaren 6.3. artikulua, poluitzaile organiko iraunkorrei buruzkoa. Izan ere, produktu kimiko horiek askatzen dituzten prozesuak erabiltzen dituzten eraikitze-lanen proposamenak aztertzerakoan, hau kontuan hartzea behar izango du arau horrek: antzekoak diren prozesu, teknika edo praktika alternatiboei lehentasuna ematera, betiere alternatibek arau horren II. eranskinean jasotako substantziak sortzea eta askatzea saihesten badute. Beraz, ondorio hori azpimarratu nahi genuke, eta substantzia horiek emitituko ez litzaketen proiektu alternatiboei lehentasuna emateari garrantzia eman nahiko genioke.

Emisio horiek gizakion osasunean duten eraginaren arazoa Europako Batzordeak jorratu du 2001eko urriaren 24ko Adierazpenean, non *dioxina, furano eta poliklorobifeniloek buruzko erkidegoko estrategia* jasotzen den. Bertan, substantzia horiek immunitate-sistemari, nerbio-sistemari, sistema endokrinoari eta ugaltze-funtzioei eragin daktiekien kaltea aipatzen da, bai eta “*substantzia horiek minbizia eragin dezaketelako ustea dagoela*” eta “*substantzia hauek umekiei eta jaioberrie eragiten dietela gehienbat*” ere. Batzordeak atera dituen ondorioek oinarri zientifiko zabalak dute, eta horietan oinarritzen da Batzordea ondorio horien berri ematerako garaian. Europako Batzordeak oinarri zientifikoa duen dokumentu ofizialean publikoki arrisku horiek badaudela onartu eta jakinarazten duenez gero, gizakion osasunean substantzia horiek duten *eragin kualitatiboak* oinarri sendoak dituela uste dugu. Horregatik pentsatzen du Europako Batzordeak arretaren printzipioa aplikatu behar dela errautegiak instalatzei dagokionez.

Guztiz bestelako kontua da, ordea, substantzia horiek gizakion osasunean duten *eragin kuantitatibo*arena, hau da, gure osasunean arrisku garbiak sor ditzaketen kopuruen kontua. Azken horri dagokionez, Txingudi Zerbitzuak sozietateak adierazten duen moduan, egia da substantzia horientzat emisio-muga ezartzen duela erkidegoko 2000. urteko arategiak, hondakinak errauteari buruzko 2000/76/CE Zuzentarauaren bidez, hain zuzen ere. Halaber, maiatzaren 30eko 653/2003 Errege Dekretuaren II c) 1.3 Eranskinean ere jasota dago muga hori: 0,1 ng/m<sup>3</sup>. Hala, muga horien betetzeak arlo honetan arretaren printzipioa kontuan hartzen dela bermatu beharko luke, Europako erakundeek uste dutenaren arabera. Ondorioz, aurreikuspen hori betetzen

duten proiektuei ezin izango zaie inondik inora leporatu ilegalak izatea. Hala ere, ulertzen dugu beharrezkoa litzatekeela elementu gehiago kontuan hartzea egungo estatus quo juridikoari dagokionez arretaren printzipioak duen eraginkortasunari buruzko balorazio neurtu bat egiteko. Betiere kontuan hartu behar da ingurumen-arautegiak, teknologikoki aurrera egiten dugun heinean, eskakizun-maila, oro har, igo egiten duela, eta, kasu askotan *ex post*, ikerketa zientifikoen emaitzak ere jasotzen dituela, bereziki aurretiazko esperientzia eskatzen duten oinarri empirikoa dutenen ondorioak –osasun arloaz ari gara zehazki-, esperientziak jarduera poluitzaile zehatz bat ezartzeak ingurune jakin bateko gizakien osasunean dituen eraginak zein diren jakiteko balio baitu. Ildo horri jarraituz, adierazgarria da goian aipatutako dioxina, furano eta poliklorobifeniloei buruzko erkidegoko estrategia errausketari buruzko Zuzendaraua atera eta lau urte geroago planteatu izana.

Gainera, emisio-mugen betetze minimo eta legala baino haratago doazen beste faktore batzuk neurtzea beharrezkoa da gure iritziz, besteak beste, aukeratutako kokapena, inguruan dituen biztanleak (kontuan hartu behar da talde batzuingan, haurrengan, esaterako, substantzia horiek eragin handiagoa dutela) eta emisio poluitzaileen bestelako foku posibleak, zeinak, pentsatutako jarduerari batuta, *de facto* igo dezaketen atmosferara isuritako emisioen maila, bai eta ingurumenean eta gizakion osasunean duten eragina ere. Hori guztiori ikusi ondoren baieztatu dezakegu, arretaren printzipioaren berri emateko, nahitez behar dela emisioak eta inmisioak kontuan hartuko dituen inpaktu atmosferikoaren azterketa zorrotz bat, ingurumen-inpaktua ebaluatzeke arautegiak ezartzen duenari jarraiki. Gai horri lotuta, Eusko Jaurlaritzak bere idazkiaren bitartez jakinarazten digu 2004ko uztailean proiektuaren sustatzaileari eskatu zitzaiola, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzaren txosten baten bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren inguruko dokumentazioa zabal zezala. Txosten horretan, dokumentazioa gehitzearen eskaera egiten zen; besteak beste, inmisioen kontrolaren inguruko dokumentazioa gehitzea eskatzen zen. Horretarako, eskualde hortako emisioen inbentario bat eskatzen zen, gertu duen Pasaiko zentral termikoaren emisioak barne hartzen zituen, bai eta lehenago kontuan hartu gabeko poluitzaileen analisia ere, adibidez, berunarena, bentzenoarena eta dioxina eta furanoena. Inbentarioan, horrez gain, igoera gorena egon zela kontsideratzen zen eskualdeetan aurreikusitako inmisio-maila ere azaldu beharko zen. Gainera, erraustegia martxan jarri baino lehenago inmisioen kontrola egin izana egiaztatzen zuen dokumentuak ere eskatzen ziren, poluitzaile atmosferikoen iraupen-maila egiaztatu ahal izateko, erraustegiaren eraikitze-lanak hasi baino gutxienez 18 hilabete lehenago. Gai horrekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak baieztatu duenez, eskatutako azalpenak behar bezala jasotzen dira proiektuaren sustatzaileak bigarren auzialdian aurkeztu duen betebeharraren inguruko dokumentuetan, eta, beraz, poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko eta hondakinak errausteari buruzko arautegiak erabakitakoa betetzen da. Hala eta guztiz ere, erreklamazioa egin duen kolektiboetako batek, Txingudi Bizirik plataformak, hain zuzen, zalantzan jartzen du Eusko Jaurlaritzak baieztatu duena, aipatutako arautegiei dagokien proiektua bideragarria denentz frogatzeko dokumentu horiek nahikoa ez direla uste baitute plataformako kideek. Horren argudiaketa egiteko, arrazoi hau erabiltzen du, besteak beste: airearen kalitatea neurtzeko egungo maila nahiz etorkizunean erraustegiak sortutako emisioek airean izango duten eragina ezartzeko erabili diren datuak ez datoz bat erraustegia egin nahi den lekuarekin, eta, horrez gain, ziurgabetasun handia dago datu horien inguruan. Planteamendu honen oinarri teknikoak administrazio eskudunek hobeto ezagutu ditzaten ona litzateke Txingudi Bizirik talde erreklamatzailerak gai honi buruzko dokumentazioa, zeina erakunde honetara igorri baitzuen, administrazio horiei helerazariko balie.

Ararteko erakundeak ez du nahikoa baliabide aipatutako gaiei buruzko aparteko azterketa zientifiko bat egiteko, baina gure eginkizunen barnean sartzen da gizarte-erakundeetatik iritsi zaizkigun argudioen berri ematea, ondoren, kontuan har daitezela eskatzeko edo, oinarririk ez badute, bazter daitezela eskatzeko. Edonola ere, inpaktu atmosferikoaren azterketa horretan, egun, hau da, erraustegia oraindik martxan ez dagoen honetan, aireko substantzia poluitzaileen onargarritasun-maila noizbehinka eta kopuru txikitzen gaintzen dela onartzeak kezkatu egiten gaitu (beste foku batzuek ere eragiten baitute), nahiz eta erraustegia martxan jartzearen simulazioek maila horiek ere gehiago igotzea ez duten eragingo. Bestalab, erraustegi batek martxan daraman denboran zehar izan dezakeen emisio gorakadaren aukera posiblea azteketa horretan behar bezala ez analizatzeak ere kezkatzen gaitu. Izan ere, hondakinetan aurki daitezkeen hainbat metalek katalizadore lana egiten dutela dirudi, eta, hala, erreakzio kimikoak sorrarazten dira. Erreakzio horiek eta temperatura altuak, gero, beste substantzia batzuk sortzea eragiten dute, hala nola, SO<sub>2</sub> eta HCl, zeinak erraustegiko instalazioetan korrosioa eragiteaz gain, ustezko eraginkortasuna mugatzen duten.

Erreklamazioa egiten duten kolektiboek behin eta berriz adierazi dituzten zalantzak ikusirik, bai proiektuan jasotzen den substantzia poluitzaileen emisioen aurreikuspenek duten fidagarritasunaren inguruan, bai ingurumen-inpaktuari buruz egindako azterketaren inguruan, ulertzen dugu guztiz beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak orain aribidean dagoen prozeduraren ebazpenean kontuan har ditzala ingurumen-inpaktuari buruzko azterketari jarritako oztupoak orain egin diren alegazioetan, eta, horrez gain, arlo horretan planteatu diren gai guztiak erabat eta zehaztasunez konpondu behar direla. Gogoan hartu behar da, halaber, 1983ko *“Txingudiko ingurune fisikoaren azterketa”* izeneko dokumentu teknikoan, gaur

egun aukeratu den tokian keak emitituko lituzketen fokua kokatzea *ez dela batere gomendagarria* esan zuela Eusko Jaurlaritzako orduan Lurralde Politika eta Garraioak Saila zenak. Hala, ingurumen-inpaktuaren azteketak are erantzukizun handiagoa dauka aurkeztutako zalantza eta oztopo guztiei interbidea bilatzen alegazioei erantzuna emateko.

Era berean, ezin dugu ahaztu dioxina, furano eta metal astunek (errautsuek emititutako substantziak) gizakion osasunean duten eraginaren gaineko eztabaida zientifikoan gaur egungo egoera. Gai hori gure erakundeari aurkeztu zaio, medikuen kolektibo batek egindako keaxaren ondorioz, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kaleratutako txostenak jasotzen dituen ondorioekin bat ez datozela jasotzen da. Kolektibo horrek, administrazio bidetik, errekurtsioa aurkeztu du sail horren aurrean, txostenaren objektibitate falta dela eta, gaur egun Ingurumen Sailak jorratzen duen poluzioaren kontrol integratuaren prozedurari gehitu zaion neurrian. Pentsatutako errautsuek gisako batek sortzen dituen emisioek eragin kaltegarri nabarmena dutela defendatzea ahalbidetzen duen azterketa eztabaia ezinik ez egoteak, aipatutako txostenean jasotzen den moduan, sortzen du desadostasuna, batez ere. Horrela jasotzen genuen gure aurreko dokumentuan, non txostenaren ondorio hori adierazten genuen. Hala eta guztiz ere, gure dokumentuari erantzun moduan, nazioarteko komunitate zientifikoak aintzatetsitako argitalpenetan kaleratutako dokumentu ugari aurkeztu zizkigun medikuen kolektiboak, eta, dokumentu horietan, errautsuek inguruan bizi diren pertsonen osasunean duen eragina kaltegarria dela baieztatzen da. Gainera, oso kezkatuta daudela adierazten dute proiektuaren eraginpeko eremuan ikastetxeak eta ospitale bat dagoelako, Bidasoa eskualdeko ospitalea, hain zuzen ere.

Medikuen eta osasun saileko langileen kolektiboak bildutako informazio batzuk, nazioarteko aldizkarietan argitaratutako azterketa zientifikoetan oinarritutakoak, kezka sortu dezaketela uste dugu. Aipatu informazioek indarra ematen diote mediku kolektiboaren tesiari, zeinak gisa honetako errautsuek inguruan bizi diren biztanleen osasunean errautsuek eragin kaltegarria dutela defendatzen duen. Arartekoak ez du peritu baliabiderik iritzi zientifiko propio bat oinarritzeko eta, hartaz, ezin dugu aipatzen ditugun substantzien emisioen eta gizakion osasunaren artean kausazko harremana ezarriko duten baieztapen segururik egin. Baina, edonola ere, gure iritzi agintari eskudunek ahalegin berezia egin beharko lukete aipatu informazioei erantzun zientifiko zehatza emateko, errausgailu plantak bere osasunean izan dezakeen eraginari buruz populazioaren zati batek duen kezka desagertarazteko helburuz. Testuinguru horretan, garrantzitsua litzateke 2004/85/CE Arautegiaren 6.3 artikuluan xedatu dena berriro ere mahaira ekartzea. Izan ere, substantzia poluitzaile horien emisioa saihesteko duten hondakinen tratamendu alternatiboan proposamenei lehentasuna ematera behartzen baita bertan. Hiri hondakinen kudeaketa-ereduaren barnean errausketa azken baliabidez hartzea ekarriko luke horrek, eta horrela, alde batetik, hondakinen kudeatzeko irizpideen hierarkia errespetatuko litzateke eta, bestetik, substantzia horiek emitituko ez lituzkeen sistema ixteko bestelako baliabideak analizatuko lirateke. Edonola ere, Txingudin azkenean errautsuek jartzearen proiektua aurrera ateratzen bada, proiektua babestu beharko litzateke erkidegoko arautegiak xedatutakoaren arabera.

### III. Ondorioak

Azken finean, aurreko gure dokumentuan atera ditugun ondorioak guztiz baliozkoak direla berretsi nahi dugu. Ondorio horiek idazki honen bidez helarazten dizkiogu errautsuek proiektuaz arduratzen diren administrazioei, bai eta erreklamazioa egin duten kolektiboari ere. Hortaz, administrazio eskudunei bideratutako **gomendio** gisa, honela laburtu ditugu ondorioak:

1. Erakunde publiko eskudunek hiri hondakin solidoen kudeaketari ekin behar diote, Bidasoaldean, ingurumen-estrategia iraunkorrak erabiliz. Estrategiok, hainbat printzipio izan behar dituzte kontuan, edozein kudeaketa eredu izan behar duen printzipioen hierarkiarekin bat etorrira, hala nola, prebentzioa, jatorrian gutxiago erabiltzea, berrerabiltzea, balorizazioa (lehenengo birziklapena eta gero berreskurapen energetikoa), eta, azkenik, hondakinok desagerraraztea, ingurumenari ahalik eta kalte gutxien eraginda. Kudeaketa integratuko testuinguru horretan, errausketak azken baliabidea izan behar du, eta erabiltzen bada, behar bezala arrazoitu behar da, Europar Batasuneko erkidego arautegiarekin bat etorrira.
2. Parte hartzen duten administrazio guztien objektibotasun betebeharra eskatu behar dugu, errautsuek proiektuak gizakion osasunerako izan ditzakeen ondorioak aztertzerakoan. Era berean, proiektu honetan parte hartzen duten erakunde publikoek konposatu organiko iraunkorrak gutxitzeko eta desagerrarazteko nazioartean dauden konpromisoekin duten erantzukizuna aipatu behar dugu. Testuinguru horretan, garrantzi handiagoa hartzen du errausketaren aurrean proposatutako alternatibak seriotasunez aztertu beharrak, gai horri buruzko europar arautegia ikusita. Beharizan hori jasota dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 850/2004 EB Arautegiaren 6.3 artikuluan, eta, horren eragin-kortasunak erabatekoa izan behar du prozedura honetan.

3. PIRUATen helburuak berregokitu beharra planteatu behar dugu, ontzien eta ontzien hondakinen gaineko erkidego arautegian jasotako helburuak eta epeak egokituz; horretarako, desagerrarazi beharreko hondakinen bolumen osoa gutxitu beharko da, PIRUATen, gaur egun, jasota dauden aurreikuspenak baino harago joanda. Halaber, balorizazioa lehenetsi behar da, errausketari dagokionez Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak oraintsu garatu duen nozioaren arabera.
4. Agerian geratu zaigu, gaur egun, Txingudirako asmotan dagoen erraustegia baimentzeko prozedura herritar batzuen hizpide izan dela eta parte hartu egin nahi dutela eskualdeko hondakinen kudeaketa eredua antolatzerakoan. Horregatik, gure iritziz, behar-beharrezkoa da ingurumen arloko elkarteek eta herritarrek egindako objektioak eta iradokizunak behar bezala aztertzea, aribidean dagoen prozedurari egindako alegazio eran, batez ere, ingurumen eraginari buruzko azterlana zuzentzeari eta nahikoa izateari dagokionez.
5. Hondarribiko Udalak prozedura hasieran aukeratzean izandako errakuntzari dagokionez, gure iritziz, arrazoi horregatik ezin dira, inola ere, prozedura horretan alegazioak fede onez aurkeztu zituzten herritarren mesederako diren parte-hartze publikorako eskubideak kaltetu. Horregatik, kalte hori gerta ez dadin, bi irtenbide proposatzen ditugu: alegazioak egiteko ohiz kanpoko beste epe bat irekitzea lehenengo prozeduran aurkeztu zirenentzat, edo, bestela, Eusko Jaurlaritzak emango duen azken ebazpenean Hondarribiko Udalari aurkeztutako eta udal horrek Jaurlaritzari bidalitako alegazio horiek berariaz kontuan hartzea.
6. Era berean, Europako araudia ikusita, bitartekoak jarri behar dira, nahitaez, Hendaia edo Frantziar Estatuok beste herri batzuetako bizilagunek aribidean dagoen prozeduran egoki irizten dizkieten alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, horiek ere Txingudiko erraustegiaren substantzia kaltegarrien eta kutsagarrien emisioen ondorioak jasateko benetako aukera ikusten badute. Aldi berean, proiektua egingo den Estatuok bizilagunek parte hartzeko dituzten bitarteko berberak jarri behar dira, maila eta eragin berarekin. Horretarako eta proiektuak kaltetutako kolektibo horrekiko komunikazio bideak hobetzeko, gaztelaniarekin eta euskararekin batera, prozedura hizkuntzatzat frantsesa ere sartzea iradokitzen dugu.
7. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak zorrotz aztertu behar du, oso garrantzitsua baita, proiektuaren sustatzaileak aurkeztu duen atmosferaren gaineko eraginari buruzko azterlana, kontuan izanik erreklamazioa jarri duten kolektiboen objektioak zein Sail horri bidalitako alegazioak. Hala badagokio, horiek kontuan izango dira ingurumen eraginari buruzko adierazpena egiten denean. Gure iritziz, Txingudiko proiektuak aukeratutako kokapenak beste arazo batzuk ere baditu, esaterako, gehitu egingo dira atmosfera-poluzioaren kontzentrazioak eta kalteak eragin ditzake habitat naturaletan zein bereziki ahulak diren kolektiboetan; izan ere, hainbat ikastetxeren eta eskualde mailako ospitale baten inguruan kokatuko da. Eragin horiek behar bezala aztertu beharko lirateke eta aribidean dagoen ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena egiteko ardura duten administrazioek kontuan izan beharko lituzkete. Gainera, adierazpen horretan behar bezala arrazoitu beharko da holako proiektu bat kokatzeko teknikoki egon den aukeraren inguruan izan den administrazio-irizpidearen aldaketa zertan oinarritzen den.
8. Ingurumen alorreko erkidego-araudiek herritarren parte hartzea eta protagonismoa agintzen dute holako prozedura bat hasten denetik; horrek herritarren benetako eragina ahalbidetzen du, administrazio eskudunek legitimitatez hartzen dituzten erabaki guztietan. Gure ustez, eskakizun horrek ez du erantzun egokirik jaso orain arte eramandako prozeduran. Edonola ere, gure ustez, herritarren parte hartze organoa sortzea komeni da –azaroaren 13ko 11/2000 Lege katalanean oinarrituta-; horren helburua prozeduraren jarraipena egitea izango litzateke, bai prozesua burutzeko dauden faseei, bai horren ondorioz egingo den hondakinak kudeatzeko lantegiak izango duen funtzionamenduari dagokionez, edozein delarik bere izaera edo tipologia. Organo horrek parte hartzeko aukera emango du, eta herritarrei (eta, batez ere, ingurumenaren eta osasunerako eskubidearen alde antolatutako kolektiboek) ordezkartza eta etengabeko informazio iturria bermatuko dizkie, azkenean abiatuko den hondakinak tratatzeko lantegiak izan dezakeen eraginaren gainean etengabeko jarraipen soziala egin ahal izateko.

## **IRADOKIZUNA, 2006KO AZAROAREN 8koa, PLENTZIAKO UDALARI EGINA, HELBURU HAUEKIN:**

- **iradokizun honetan helarazi dizkiogun funtsezko gogoetak onar ditzala: alegia, udalaren etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzan, babes publikoko etxebizitza guztientzat, eskuratzeko baldintza komun batzuk finkatu beharra dagoela, eta**
- **gainontzeko herri-administrazio eskudunekin batera, babes publikoko etxebizitzentzat adostutako araudi komuna zehazteko balizko prozesuan parte har dezala.**

### Aurrekariak

Plentziako Talde Independentek Plentziako Udalerriko Gaminizko orubean udal babes publikoko 18 etxebizitza esleitzeko baldintzen inguruan aurkezturiko ke-xari buruz bidali zenigun dokumentazioa aztertu ondoren, zuregana zuzentzen natzaizu, Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren babesean, eginiko ikerketen ondorioen berri emateko eta, iradokizun gisa, honako ebazpen honen edukia helarazteko:

2006ko martxoaren 31n Plentziako Talde Independentearen ordezkariak eginiko kexa-idazkia jaso genuen erakunde honetan, Gaminizko mojen kolegio zaharraren orubean udal babes publikoko 18 etxebizitza zozketa bidez salmentarako esleitzea arautzen duen Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agiriaren baldintzei buruzkoa.

Kexa-idazki horretan, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuten, Plentziako Udalak sustaturiko babes publikoko 18 etxebizitzetara sarbidea izateko baldintzetatik bidegabekeria-egoera ezberdinak erator zitezkeela iruditzen baitzitzairen. Zehazki, etxebizitzen esleipenerako agiri arautzailearen lau alderdirekin zeuden desadostasunean: eskatzen den errolatze epea, gehieneko diru-sarrerren maila altua, gutxieneko diru-sarrera mailarik eza, eta etxebizitza eskuratu eta handik 10 urtera hura saltzeko aukera. Baldintza-multzo horrek, eta, bereziki, etxebizitza eskuratu eta handik 10 urtera hura libreki saldu ahal izateak (behin betiko babes publikoko araubidera lotuta egon gabe) zalantzan jartzen zuen, Zinegotzien Talde Independentearen iritziz, udalaren jardueraren helburu soziala.

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17. artikuluan eta hurrengoetan kexak izapidetzeko ezarritako prozedurarekin jarraituz, Plentziako Udalarri udal babes publikoko 18 etxebizitza esleitzeko baldintzen inguruko zenbait argibide ematea eskatu zitzaion, eta udalbatzako alkateak sinatutako idazki bat jaso genuen erantzun gisa; bertan, espedienteak behar bezala izapidetu zela berresten zen, araudiarekin eta ezarritako prozedurarekin bat etorritz.

Plentziako Udalaren ordezkari gorenaren iritziz, Talde Independentearen ordezkariak izan duten jarrerak ez du ez funtsik, ez justifikaziorik, eta "iritzia-aren edo komenentziaren araberrako irizpideetan" oinarritua dago, eta udaleko gehiengoa ez dator bat irizpide horiekin, izan ere, udalbatzaren % 82k aldeko botoa eman baitzuen Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agiriaren berariatzko baldintzak onartzeko bozketan. Plentziako Udaleko alkateak adierazi duenez, aipaturiko agiri onartu zen garaian ez zegoen udal babes publikoko etxebizitzak arautzeko lege autonomikorik, eta, beraz, udalak erabateko eskumena zuen etxebizitza mota horren esleipen baldintzak ezartzeko. Testuinguru horretan, alkatearen idazkian, Plentziako Talde Independentek zalantzan jarritako alderdi bakoitzaren erregulazio zehatza justifikatzen duten arrazoiak ere azaltzen ziren (errolatze epea, exijitzen den gehienezko diru-sarrera maila, diru-sarrerren gutxieneko maila eta etxebizitza erosi eta handik hamar urtera merkatu librean saltzeko aukera).

### Gogoetak

Hala, aurrekariak laburbilduta, planteatutako funtsezko gaia aztertzeari ekin behar diogu, gure jarrera azaltzeko lagungarri izan daitezkeen bi alderdi bereiztuz. Lehenik, Klausula Ekonomiko-Administratiboen

Agirian ezarritako erregulazioak lege-urraketarik egiten duen aztertu behar da, eta, zehazkiago, ea udalak neurria gainditu duen etxebizitzaren arloan dituen eskumenen erabileran, babes lokaleko etxebizitzak eskuratu eta jabetzan hartzeko araubide desberdin bat ezarri baitu, babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren neurri finantzarioei buruzko 315/2002 Dekretuan ezarritako araubide orokorrrarekin alderatuta, baita Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurei -non udalek esku hartzen duten- buruzko 2004ko abuztuaren 21eko Aginduan ezarritakoarekin alderatuta ere. Bigarrenik, Talde Independentek zalantzan jarritako agiriaren baldintzak Plentziako udalerriko biztanle guztiak etxebizitza duina eta egokia izateko eta udal lurzorua, interes orokorraren arabera, espekulazioa saihesteko erabiltzeko duten eskubidearen eraginkortasuna bermatzeko zenbateraino diren egokiak aztertuko dugu.

1. Lehenengo gaiari dagokionez, aldeetako bat berak ere ez du zalantzan jartzen tokiko erakundeak udal babes publikoko etxebizitzak sustatzeko duen eskumena, eta ez da eztabaidatzen tokiko erakundea 2004ko abuztuaren 21eko aipaturiko Aginduan ezarritako esleipen-prozeduraren menpe jarri ez izana, ez baitatza, zorrozki, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenean (halakotzat kalifikatuta eta aipaturiko 315/2002 Dekretuan ezarritako ezaugarri tekniko eta ekonomikoekin bat etorritik). “Etxebizitza tasatuak” edo “udal babes publikoko etxebizitzak” sustatzen datza kasu hau, eta duela gutxi arte ez zegoen horientzako araudirik. Horrek, praktikan, tokiko erakunde batzuek, tokiko oinarritzko legerian ematen zaizkien eskumenak erabiliz eta beren irizpideekin bat etorritik, udal babes publikoko etxebizitzari buruzko udal ordenantzak onartzea ekarri du, edota horien burutzapena sustatzea, legezko irizpide irmoen menpe egon gabe, eta, batzuetan, oro har, auzadi autonomikoetan babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako funtsezko alderdien erregulaziotik aldentuz (etxebizitzaren prezioa, erroldatze epea, tanteo-eskubidea edota atzera eskuratzeko eskubidea, etab.).

Udal etxebizitzaren erregulazio edota sustapen desberdin hau -babes ofizialekoak ez bezala-, erabat zilegi den arren, hiritarrentzat ulertezina gerta liteke, ez baitute ulertzen nolatan, oinarritzko eskubide bati dagokionez, hori bermatzeko betebeharrak duten administrazioen aldetik irizpide desberdinak egon daitezkeen.

Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari (2003. urtea eta 2005. urtea) bidali dizkion ohiko azken txostene-tako batzuetako etxebizitzaren esparruaren inguruko ondorioetan adierazi du lege izaera duen arau bat ateratzeko beharra, lege erreserbaren printzipioari lotuta egon daitezkeen zenbait esparrutan eragiten duten jarduerari behar adinako estaldura eman diezaien, eta, zentzu horretan, arazo hauek konponduko dituen Etxebizitzari buruzko Euskal Lege bat ematea komeni dela aldarrikatu da. Duela gutxi indarrean jarri den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Zortzigarren Xedapen Gehigarrian (“*Babes publikoko etxebizitzak: babes ofizialeko etxebizitzak eta udal etxebizitza tasatuak*”) argi pixka bat ekarri du zenbait gai garrantzitsuri dagokienez: babes publikoko etxebizitzaren tipologia (etxebizitza tasatuen kategoria lege mailara igoz), udal etxebizitza tasatuak arautzen dituzten ordenantzen gutxieneko edukia, edo babes publikoko edozein araubideri lotzen zaizkien etxebizitza guztiak etxebizitza babestu deklaratzeko modu iraunkorrean.

Azken finean, 2/2006 Legearen aurreikuspen horrek, gure ustez, ez du Etxebizitza Babestuari buruzko Lege bat emateko beharretik salbuesten, baizik eta are nabarmenagoa egiten du, eta etxebizitzaren gaineko eskumenak dituzten administrazio publiko guztiatarako komuna den arau-esparru baten beharra berresten du, euskal herritarrentzat berdintasuneko baldintzetan etxebizitza duina eta egokia sustatu ahal izateko.

Horiek horrela, eta eztabaidatutako lehenengo gaiaren laburpen gisa, adierazi behar dugu Plentziako Udalak 18 udal etxebizitza esleitzeko Klausula Ekonomiko-Administratiboan Agiria onartu zuen garaian udal etxebizitza tasatuak arautzen zituen berariazko araurik ez zegoenez, Tokiko Araubide-Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.d) artikulutik eratorritik diren etxebizitzaren sustapenari eta kudeaketari dagozkien eskumenekin bat etorritik, eta eskumeneko ahalmena erabiliz, legitimoki onartu zituen babes lokaleko etxebizitzak eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak. Horrez gain, adierazi behar dugu alkateak erakunde honi bidalitako idazkian udalbatzak etxebizitzaren esleipena finkatzeko berariazko baldintzak aukeratzekoan kontuan hartu zituen arrazoiak azaldu direla. Baina hori ez da oztopo arrazoi horiek udalak bere eskumeneko ahalmenak zuzenki erabili dituen kontrolatzeko elementu gisa aztertzeke, ezta azterketa horretatik udalak ezarritako neurriak edo irizpideak -aipaturiko etxebizitzak eskuratu ahal izateko betekizunei dagokienez- udalaren jarduera bideratu behar duen interes publikoko helburura gehiago edo gutxiago egokitzen diren ondorioztatu ahal izateko ere.

2. Lehenengo gaia argituta, planteatu den beste intereseko gaia aztertu behar dugu, udal etxebizitzak esleitzeko agiriko baldintzak zenbateraino diren egokiak udal jarduera publikoa bideratu behar duen helburua betetzeko; hiritarrek etxebizitza duina eta egokiaz gozatzeko duten eskubidea gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko, hain zuzen. Puntu honetan, eta erakunde honen aurreko adierazpenak kontuan

hartuta, bat egiten dugu Plentziako zinegotzien Talde Independentek aurkezturiko kexan planteatzen diren erreklamazio batzuekin, eta ez dugu uste udal etxebizitzak esleitzeko ezarritako betekizun batzuk eraginkorrak direnik.

### **Plentziako udalerrian erroldatuta egotea, segidako 12 urteko antzinasunaz, gutxienez:**

Hain zuzen ere, udal babes publikoko etxebizitzak eskatzeko exijitzen den erroldatze-epa gehiegizkoa da, eta, zentzu horretan, erakunde honek Gasteizko Udalarri zuzenduriko ekainaren 20ko 15/2006<sup>1</sup> Gomendioan ezarritako argudioak mahaigaineratzen ditugu, eta, ondorioetan, etxebizitza babestuak sustatzerakoan exijitu beharreko erroldatze-epa doitzeko beharra nabarmentzen zen Gasteizko udalerrian bizitzeko borondatea justifikatzeko.

Hala ere, adierazi behar dugu gomendio honek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko abuztuaren 21eko Aginduaren menpe dauden babes ofizialeko etxebizitzetara egiten diela erreferentzia, hor zehazten baitira udalek esku hartzen duten babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak, eta haien oinarriak, oro har, udal etxebizitza tasatuatarako ere kontuan har daitezke.

### **Gehienezko eta gutxieneko diru-sarrerak:**

Gutxieneko diru-sarrera maila bat egiaztatzea, oro har, babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko eskatzen den betekizun bat da, eta etxebizitzaren ordainketari aurre egiteko pertsona esleipendunaren kaudimen-berme gisa hartzen da. Horrela, adibidez, babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitza eta lurzoru gaietako neurri finantzarioei buruzko 315/2002 Dekretuak jabetzan zein alokairuan hartzeko exijitzen du hori, eta bereziki ahulak diren bi kolektibori zuzendutako bi salbuespen baino ez ditu jasotzen (mugikortasun murriztua duten elbarriak alokairuko etxebizitzetarako eta genero indarkeriaren biktimak diren kolektiboko emakumeak). Etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izateko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatuta beharri dagokionez, kontuan hartu behar da erakunde honen gomendioa<sup>2</sup>, Eusko Jaurilaritza bidalitako 2004. urteko Ohiko Txostenean jasotakoa. Bertan, hau ondorioztatzen zen: *“badaude alokairu araubidean babes ofizialeko etxebizitzetarako sarbidea izateko, aurrez, gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea beharrezkoa ez dela uste izateko argudioak, kontratuko betebeharrak betetzeko beste berme-mekanismoen kalteetan izan gabe”* eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dei egiten zitzaion *“zentzu horretan babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitza eta lurzoru gaietako neurri buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 18.2 artikuluan jasotako aurreikuspena alda dezan”*. Horregatik, eta kontratuko betebeharrak betetzeko beste berme-mekanismo batzuk eskatzeko kalteetan izan gabe, erabat justifikatuta legoke etxebizitza babestuetara alokairuan sarbidea izateko kasuetarako gutxieneko diru-sarrera mailarik ez eskatzea. Hala ere, jabetza araubidean hartzeko etxebizitza babestuen kasuan ez litzateke hain ulergarria izango, hartzen den jabetza-konpromisoa dela-eta, nahiz eta, behar diren bermeekin, ez legokeen zertan baztertu.

Nolanahi ere, diru-sareren betekizunari dagokionez, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agirian deigarri egin zaigun beste gai bati heltzea interesatzen zaigu. Plentziako Udalak, alde batetik, gutxieneko diru-sarrera mailarik eza justifikatzeko *“diru aldetik behartsuenak direnak ez baztertzeko”* helburuan oinarritzen dela dio, eta, bestetik, onartutako gehienezko diru-sarrera maila 45.778 euro/urte-ra igo egin du (babes ofizialeko etxebizitzaren maximoa 33.100.000 euro/urte-n dago). Irizpide bikoitz horretan koherentzia falta antzematen da agiriaren baldintzetan, eta ez dago onuradun posibleen hautaketan etxebizitzaren behar handiena duten pertsonen lehentasuna emateko mekanismo garbirik. Besterik ezean, diru-sareren betekizunaren aukerak zabaltzea erabaki da, zozketan parte har dezaketen pertsona kopurua handituz, baina behar bereziki inguruabarrak egiaztatzen dituzten pertsonen udal etxebizitzaren esleipenean lehentasuna emateko irizpide garbirik gabe. Horregatik, irizpide horiek ez dira, gure ustez, egokiak hiritarrek etxebizitza duina eta egokia izateko duten eskubidea gauzatzeko helburu publikoari erantzuteko. Etxebizitza beharrendaren kontzeptuarekin lotu behar da, gai honetako esku-hartzeko publikoa justifikatzen duen azken eta funtsezko kausa modura, eta kasu honetan ez dirudi behar bezala egiaztatuta dagoenik.

<sup>1</sup> Gomendio horren helburua Gasteizko Udalarri dei egitea da, sustapen lokaleko babes ofizialeko etxeetarako sarbidea izateko gutxienez bost urtez erroldatuta egoteko betekizuna berrikus dezan (ikusi I. eranskina).

<sup>2</sup> Ikusi [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) (2004ko Ohiko Txostena)



**Eskuratutako etxebizitza erosi eta handik 10 urtera merkatu librean saldu ahal izateko aukera:**

Etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra tresna eraginkorra da etxebizitza babestuen ondarearekin espekulatzea saihesteko eta horien mugikortasuna errazteko, une bakoitzean beharra dutenen etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzera bideratuz. Babes ofizialeko etxebizitzaren araudiari eta etxebizitza arloko neurri finantzarioei buruzko 315/2002 Dekretuaren onarpenarekin, EAeko babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra ezarri zen, eta horrenbestez, babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdaketak EAeko Administrazioaren mesedetan lehentasunezko eskuratze eskubidearen menpe jarri ziren, 7/1988 Legean eta hori garatzen duen araudian (maiatzaren 22ko 140/1990 Dekretua) ezarritakoaren arabera.

Duela gutxi onartu eta indarrean jarri da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, eta horrek udal etxebizitza tasatuetara ere zabaldu egin du babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra. Neurri hori 2/2006 Legearen helburu orokorrean kokatu behar da: *“babes publikoko esparru juridikoa eratzea babes ofizialeko tradiziozko esparru eskusiboaren aurrean”*. Era horretan, agerian jarri da legegilearen nahia; etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra botere publikoek etxebizitza duina izateko eta, espekulazioa geldiarazteko xedez, lurzoruaren interes orokorraren arabera erabiltzeko eskubidea gauzatzeko beharrezko diren baldintzak susta ditzaten baliagarriak diren mekanismoetariko bat bezala egokia dela berresteko nahia, hain zuzen.

Arau-esparru honen ondorio praktikoa da irailaren 20az geroztik babes publikoko etxebizitza guztiak, salbuespenik gabe (babes ofizialekoak eta udaleko zein autonomiako tasatuak), modu iraunkorrean, gutxieneko eskualdatze-prezioaren eta lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzearen menpe daude, jardun duen administrazioaren alde, eta horren ordez, EAeko Administrazioaren alde. Horrek Plentziako zinegotzien taldeak azalduko kezka partekatuz garamatza udalak sustaturiko etxebizitzak eskuratu eta handik 10 urtera merkatu librean saldu ahal izateko aukerari dagokionez, eta horrez gain, benetan nahigabetzen gaitu udalak, jatorriz ondare publikoa izandakoa azkenean partikularren interesen onurarako izatea saihesteko xedez, etxebizitza horien eskualdaketa udalaren beraren lehentasunez erosteko eskubidearen menpe jartzeko modurik aurkitu ez izanak.

**IRADOKIZUNA, 2006ko azaroaren 8koa, Plentziako Udalari egina**

Aurreko gogoetak kontuan hartuta, erakunde honek hau ondorioztatu du: Plentziako Udalak udal babes publikoko 18 etxebizitzaren zozketaren baldintzak arautzerakoan ordenamendu juridikoa urratu ez duen arren, jarduerak eraginkortasun handiagoz berma zezakeen hiritarrek etxebizitza duinaz eta egokiaz gozatzeko duten eskubidea, gizartearen egungo eskaerarekin bat etorritik, eta beste administrazio batzuek erabilitako irizpide eta jardunbideen ildotik, helburu horretara hobeto doitzen baitira.

Horiek horrela, eta Plentziako udalerrian (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian udalerri berariaz ematen zaien eskumenaz baliatuz) udal etxebizitza tasatua ezarri eta arautuko duen udal ordenantzaren etorkizuneko onespenezarekin irekitzen den aukera berriaren aurrean, **honako iradokizun hauek helarazten dizkiogu Plentziako Udalari, hausnar ditzan:**

1. Udalek beren udalerrietako udal etxebizitza tasatua ezarri eta arautzeko duten eskumena ez dago mugetatik salbuetsita, eta beraz, muga arrazionalak gainditu gabe gauzatu jardun behar da, kausa interes publikoaren helburuari dagokionez arrazoizkoak, objektiboak eta proportzionalak diren eduki eta zehaztasunekin justifikatuz. Izan ere, bestela, botere publikoen arbitrariotasunaren galarazpen printzipioa urratu ahal izango litzateke.
2. Erakunde honetatik, eta (etxebizitza arloan EAeko Administrazioari eta Udalei eskumen arautzaile eta exekutiboak ematearen alde egiten duen) 2/2006 Legearen erregulazio berrian ezarritako aukera legegilearekiko erabateko errespetuz, babes publikoko etxebizitzak arautzeko eskumena duten administrazio guztientzat komuna den gutxieneko bat ezartzeko beharra aldarrikatzen da. Esparru komun hau EAEn etxebizitza duina eta egokia eskuratu ahal izateko berdintasun printzipioari zuzenean eragiten dioten araudiaren alderdiek eratuko lukete, eta etorkizuneko Etxebizitzari buruzko Legean edo, halakorik ezean, gai honen inguruan dagokien administrazioek hartutako erabakietan jasoko litzateke.
3. Horregatik, babes publikoko etxebizitzak arautzeko esparru komun hau osatzen duten alderdiak zein izango diren dagokien administrazio guztien artean erabakitzea komeni da, udal autonomiaren printzipioari bere garrantzia emanda. Gure ustez esparru komun hori osatu behar duten baldintzatariko baten batzuk jada bermatuta daude Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zortzigarren xedapenaren beraren edukian:

- a) babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedura; publizitatearen, lehiaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatu behar izango ditu nahitaez, eta
- b) babes publikoko edozein araubideri lotzen zaizkion etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra, modu iraunkorrean eskualdaketarako gehienezko prezio batekin eta administrazioaren alde lehenetasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak gauzatuz.

Hala ere, administrazio eskudunek ere gutxieneko eduki batzuk adostea komeni da euskal hiritar guztien etxebizitza eskubidea gauzatzeko funtsezko beste alderdien erregulazio -berdina ez bada ere- homogenea edo, behintzat parekidea ziurtatze aldera. Alderdi horien artean ditugu, besteak beste, etxebizitza babes-tuak eskuratu ahal izateko betekizunak (eskatzen diren diru-sarrerak eta errolatze urteak). Era horretan, hiritarrek politika objektiboa eta koherentea jasoko dute Konstituzioaren bidez babesturiko eskubide bat gauza dadin bermatzeko ardura duten administrazioen aldetik.


4. Azkenik, era berean, komenigarria litzateke Plentziako Udalak babes publikoko etxebizitzak arautzeko esparru komuna adostasunez zehazteko aldi bateko prozesuan parte hartzea, eta, nolana ere, udalbatzak kontuan hartzea, gai honetako etorkizuneko erregulaziorako, babes publikoko etxebizitzak eskuratu ahal izateko betekizunei buruz ebazpen honetan helarazitako funtsezko gogoetak.

### **III. ERANSKINA**

#### GRAFIKOAK




## ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN JARDUERA OKERRA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2006an BURUTUTAKO KEXETAN



### 1. DIAGRAMA


## ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBAITERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA

KONPONDU GABEKO JARDUERA OKERRA  
(gomendioa ez da onartu)



### 2. DIAGRAMA


### ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2006)



1 545ek kexa berdinen multzoa osatzen dute.  
 2 1.143k kexa berdinen 2 multzo osatzen dituzte.  
 3 62k kexa berdinen multzo bat osatzen dute.  
 4 264k kexa berdinen 2 multzo osatzen dituzte.


3. DIAGRAMA

### 2006an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




4. DIAGRAMA

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




5. DIAGRAMA

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA



6. DIAGRAMA


### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA



- 1 Hezkuntza
- 2 Osasuna
- 3 Etxebizitza
- 4 Funtzio Publikoa
- 5 Herrizaingoa
- 6 Gizarte Ekintza
- 7 Kultura eta Elebitasuna
- 8 Herri Lanak eta Zerbitzuak
- 9 Lana eta Gizarte Segurantzza
- 10 Justizia
- 11 Hirigintza eta Lurralde Antolamendua
- 12 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
- 13 Ingurumena
- 14 Animalien Babesa
- 15 Ogasuna

#### 7. DIAGRAMA

### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




- 1 Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa
- 2 Osasuna
- 3 Etxebizitza eta Gizarte Gaiak
- 4 Herrizaingoa
- 5 Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza
- 6 Ogasuna eta Herri Administrazioa
- 7 Ingurumena eta Lurralde Antolamendua
- 8 Kultura
- 9 Garraioak eta Herri Lanak
- 10 Industria, Merkataritza eta Turismoa
- 11 Lehendakaritza
- 12 Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura
- 13 Lehendakariordetza

#### 8. DIAGRAMA




### FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




9. DIAGRAMA

### UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA



10. DIAGRAMA


### LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2006)



	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
<b>BIZKAIA</b>	288	828	293	332	376	349	528	746	915	1.471	649	645	651	643	646	730	712	834
<b>GIPUZKOA</b>	188	195	244	241	250	234	281	448	663	905	372	295	375	294	318	457	412	398
<b>ARABA</b>	97	284	158	201	182	160	328	446	371	764	311	256	444	268	322	271	275	367

#### 11. DIAGRAMA

### LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2006)



1 Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

2 Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.


3 Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

4 Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.


5 Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

#### 12. DIAGRAMA


### JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA





### JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




### JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO ERAREN ARABERA




### 2006an ARRETA ZUZENeko BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)




### BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA



**KEXA BILAKATUTAKO BISITAK****19. DIAGRAMA**

### OFIZIOZKO JARDUERAK (2006)


#### BANAKETA ALORREZ ALOR



- 1 Gizarte Ekintza
- 2 Hezkuntza
- 3 Herrizaingoa
- 4 Osasuna
- 5 Etxebizitza
- 6 Hirigintza eta Lurralde Antolamendua
- 7 Funtzio Publikoa
- 8 Bestelako Gestioak
- 9 Justizia
- 10 Gizarte Arazoak

20. DIAGRAMA



#### ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA



21. DIAGRAMA



## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?



22. DIAGRAMA



### 2. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?



23. DIAGRAMA



## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?



**24. DIAGRAMA**

### 4. Zure ustez, kexa eragin zuen arazoa:




**25. DIAGRAMA**




**ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ  
EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)**

**5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak...)**



**26. DIAGRAMA**


**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**



**27. DIAGRAMA**


**ARAZOA “ez da konpondu” EDO “nahiko txarto konpondu da”  
ERANTZUN DUTEN KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAK IZANDAKO  
ESKU-HARTZEARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA**

**5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak...)**



**28. DIAGRAMA**

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**



**29. DIAGRAMA**

# **GAIEN AURKIBIDEA**



**A****Abokatu en eta prokuradore en elkargoak, 179**

- Bidegabeko atzerapenak
  - Diziplina espedienteak, 179
- Espedientea ikusteko aukera, 183

**Adin muga**

- Adopzioa, 289, 420, 642, 664, 690

**Adinagatiko bereizkeria**

- Adinekoak, 670

**Adinekoak, 388, 670**

- Berdintasunerako eskubidea, 648
- Egoitza-zentroak
  - Zor konpromisoa, 388
- Egoitzak, 41, 55, 388
  - Betekizunak, 53
  - Foru prezio publikoak, 44, 59
  - Zor konpromisoa, 63
- Eguneko zentroak, 388
- Etkez etxeko laguntza, 388
- Etkez etxeko laguntza-zerbitzua, 45
- Familia, 42
- Gizarte taldeak, 537
- Gizarte zerbitzuak, 670
- Laguntzak, 58
- Osasun prestazioak, 670
- Parte hartzeko eskubidea
  - Gizarte Zerbitzuak, 388
- Prestazio soziosanitarioak, 670
- Tutoretzapeko apartamentuak, 44
- Zerbitzu soziosanitarioak
  - Unitate psikogeriatrikoak, 42

**Adingabe atzerritarrak**

- Giza eskubideak, 546
- Hezkuntza-premia bereziak, 472, 546

**Adingabeak, 415, 663**

- Adingabe atzerritarrak, 415, 547, 661
  - Hezkuntza-premia bereziak, 472, 546
- Adingabeko lege hausleak, 455, 664
  - Barneratze zentroak, 460
- Adopzioa, 289, 420, 642, 664, 690
  - Erregistro zibila, 186
- Atxilotuak, 655
- Atxilotutako adingabeak, 483
- Atzerritar adingabeak
  - Hezkuntza-premia bereziak, 472
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 420, 639, 664, 684
- Datu pertsonalak, 140, 153

- Babesik gabeko adingabeak, 416, 664
  - Amen aurkako indarkeria, 418
  - Topalekuak, 664
- Balioak, 340
- Berdintasunerako eskubidea, 648
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 479
- Burutik gaixo daudenak, 665
- Datu pertsonalak
  - Erregistro zibila, 193
- Eskola-garraioa, 84, 90
  - Hizkuntz ereduak, 82, 639, 721
- Eskola-mapa, 80, 81, 92, 660
- Ezgartasunen bat duten pertsonak
  - Hezkuntza-premia bereziak, 472
- Eskolako indarkeria (bullying), 83, 327, 485, 490, 661
- Giza eskubideak, 492
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 492
- Gizarte taldeak, 491
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak
  - Hezkuntza-premia bereziak, 475
- Hezkuntza-instalazioak, 83
- Hezkuntza-plangintza, 80, 81, 92, 660
- Hizkuntz ereduak, 82, 639, 721
- Ijitoak, 661
- Ikasleen onarpena, 86
  - Errolda, 81, 637, 660, 725
- Legegintzaren beharra, 493
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 465, 665
- Sexuaren arabera banatutako hezkuntza, 83
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza
  - Hezkuntza-premia bereziak, 469, 472, 475, 546, 664
- Adingabeko lege hausleak, 455, 664**
  - Barneratze zentroak, 460
- Administrazio egintza**
  - Itundutako amaiera, 226
- Administrazio egokia**
  - Herri defendatzaileak, 560
- Administrazio erregistroak**
  - Eskatzaileen Erregistroa
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 272
- Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea**
  - Arrazoitu beharra, 72
  - Zehapen prozedura
    - Trafikoa, 659
- Administrazio hizkera**
  - Prozedura administratiboa, 72
- Administrazio instrumentala**
  - Prozedura administratiboa
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 271
- Administrazio kontratazioa, 644, 799**
  - Azpikontratazioa
    - Funtzio publikoa, 105
- Administrazioarekiko auzia**
  - Prozedura judiziala
    - Bidegabeko atzerapenak, 178, 658

**Administrazioaren erantzukizuna**

- Jabetza pribaturako eskubidea, 662
- Kalte-ordainak, 218, 226, 637, 638, 643, 663, 776, 780, 787
- Polizia, 138, 168
- Osasun laguntza, 239

**Administrazioaren isiltasuna**

- Laguntzak
- Etxebizitza libreak, 278

**Administrazioaren kontrola**

- Polizia, 137, 157, 637, 654, 751

**Administrazioen gaineko kontrola**

- Herri defendatzaileak, 550
- Ombudsmana, 550

**Adopzioa**

- Adin muga, 289, 420, 642, 664, 690

**Agiriak konpultsatzea**

- Lehia-prozedura, 283

**Alardeak**

- Sexuagatiko bereizkeria
- Emakumeak, 365, 641, 650, 696, 705

**Amatasuna**

- Espetxeratuak, 189

**Amen aurkako indarkeria**

- Babesik gabeko adingabeak, 418

**Anbulantziak**

- Zaratak, 212

**Animaliak edukitzea**

- Animalien babesak, 231

**Animalien babesak**

- Animaliak edukitzea, 231
- Gizarte taldeak, 537
- Gune zoologikoak, 230
- Jendaurreko ikuskizunak, 231
- Kaleko salmenta, 232

**Antzutasunaren aurkako tratamendua, 236****Aparkalekuak**

- Legezketasun printzipio zigortzailea, 131, 640, 745
- Trafikoa eta bide segurtasuna, 131

**Arkitektura ondarea, 642, 714****Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 220****Arkitekturako eta hirigintzako irisgarritasuna, 220****Arreta bereziko taldeak**

- Burutik gaixo daudenak
- Unitate psikogeriatrikoak, 42

**Artelan bat galtzea**

- Epaitegien funtzionamendua, 187

**Atmosferako kutsadura**

- Industriak, 200, 204, 640, 642, 667, 765

**Atxiloguneak**

- Atxilotuak, 174

**Atxilotuak**

- Adingabeak, 483, 655
- Atxiloguneak, 174
- Gizarte taldeak, 537

Inkomunikazioa, 157, 183  
 Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 655  
 Tortura, 653  
 Tratu txarrak, 653  
 Ziegak, 174

### **Atxilotutako adingabeak, 483**

#### **Atzerritarrak, 505, 546**

Adingabeak, 420, 472, 546, 664, 676  
 Babesik gabeko adingabeak, 639, 684  
 Berdintasunerako eskubidea, 648  
 Erregistro zibila  
     Hizkuntz oztupoak, 186  
 Errolda, 641, 650  
 Espetxeratuak  
     Gurasotasuna, 187  
 Giza eskubideak, 546  
 Gizarte taldeak, 537  
 Gizarte zerbitzuak, 641  
     Erolda, 47, 505, 546, 644, 676  
 Gizarteratzea, 641  
 Jatorriagatiko bereizkeria  
     Polizia, 141, 650, 655  
 Normalizazio juridikoa, 650  
 Osasun prestazioak, 666  
 Polizia, 133, 142

## **B**

### **Babes bereziko taldeak**

Adinekoak, 388, 670  
     Berdintasunerako eskubidea, 648  
     Egoitzak, 41, 44, 53, 55, 59, 63, 388  
     Eguneko zentroak, 388  
     Etxez etxeko laguntza, 388  
     Etxez etxeko laguntza-zerbitzua, 45  
     Familia, 42  
     Gizarte taldeak, 537  
     Gizarte zerbitzuak, 670  
     Laguntzak, 58  
     Osasun prestazioak, 670  
     Parte hartzeko eskubidea, 388  
     Prestazio soziosanitarioak, 670  
     Tutoretzapeko apartamentuak, 44  
     Unitate psikogeriatricoak, 42  
 Adingabeak, 415, 663  
     Adingabe atzerritarrak, 415, 472, 546, 547, 661  
     Adingabeko lege hausleak, 455, 460, 664  
     Adopzioa, 186, 289, 420, 642, 664, 690  
     Atxilotuak, 655  
     Atxilotutako adingabeak, 483  
     Babesik gabeko adingabeak, 416, 418, 664  
     Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 140, 153, 420, 664  
     Balioak, 340  
     Berdintasunerako eskubidea, 648  
     Burutik gaixo dauden adingabeak, 479



- Burutik gaixo daudenak, 665
- Datu pertsonalak, 193
- Eskola-garraioa, 82, 84, 90, 639, 721
- Eskola-mapa, 80, 81, 92, 660
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 472
- Giza eskubideak, 492
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 492
- Gizarte taldeak, 491, 537
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 475
- Hezkuntza-instalazioak, 83
- Hezkuntza-plangintza, 80, 81, 92, 660
- Hezkuntza-premia bereziak, 469, 472, 664
- Hizkuntz ereduak, 82, 639, 721
- Ijitoak, 661
- Ikasleen onarpena, 81, 86, 637, 660, 725
- Legegintzaren beharra, 493
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 83, 327, 485, 490, 661
- Osotasun fisiko eta moralerako eskubideak, 485, 490
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 465, 665
- Segurtasun fisiko eta moralerako eskubidea, 83, 327, 485
- Sexuaren arabera banatutako hezkuntza, 83
- Atxilotuak
  - Adingabeak, 483, 655
  - Atxiloguneak, 174
  - Bideo grabaketak, 148
  - Datu pertsonalak, 140
  - Gizarte taldeak, 537
  - Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 655
  - Ziegak, 174
- Atzerritarrak, 505, 546, 641
  - Adingabeak, 420, 472, 546, 664, 676
  - Babesik gabeko adingabeak, 639, 684
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Errolda, 546, 650
  - Espetxeratuak, 187
  - Gizarte taldeak, 537
  - Gizarte zerbitzuak, 47, 505, 546, 641, 644, 676
  - Jatorriagatiko bereizkeria, 141, 650, 655
  - Migraziorako eskubidea, 639, 684
  - Normalizazio juridikoa, 650
  - Osasun prestazioak, 666
  - Polizia, 133, 142
  - Tratu txarrak, 655
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 639, 684
  - Migraziorako eskubidea, 639, 684
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 319, 518
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 48, 295, 502, 523
  - Gizarte behar larrietarako laguntzak, 47, 295
  - Gizarte taldeak, 537
  - Harrera-zentroak, 39, 50, 519, 637, 680
  - Ijitoak, 516, 652

- Kotizazio gabeko pentsioak, 65
- Oinarrizko errenta, 47, 64, 65, 68, 279, 295
- Sexuagatiko bereizkeria, 380
- Burutik gaixo daudenak
  - Adingabeak, 479
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 271, 502
  - Gizarte taldeak, 537
  - Osasun prestazioak, 40, 238, 665
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 238
- Emakumeak
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Emakumeen kontrako indarkeria, 184, 356, 418, 650, 653
  - Giza eskubideak, 546
  - Gizarte taldeak, 537
  - Herri defendatzaileak, 561
  - Legeria, 381
  - Lesbianak, 546
  - Prozedura judiziala, 184
  - Sexuagatiko bereizkeria, 184, 283, 355, 356, 365, 368, 369, 373, 376, 379, 380, 546, 641, 649, 650, 696, 705
- Espetxeratuak, 529, 659
  - Barneratzearen ordezko hautabideak, 531
  - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 529, 659
  - Diziplina-erregimena, 531
  - Emakumeak, 189
  - Espetxean hiltzea, 190
  - Espetxeetako eskumenak, 530
  - Gizarte taldeak, 530, 537
  - Gose greba, 189
  - Gurasotasuna, 187
  - Jakinarazpenak, 188
  - Komunitatearen onurarako lanak, 546
  - Zigorra non bete, 531
- Etorkinak
  - Hizkuntz irisgarritasuna, 234
  - Osasun prestazioak, 234
- Ettxerik gabeko pertsonak
  - Gizarte taldeak, 537
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495, 652, 669
  - Aparkalekuak, 131
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 670
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Bereizkeria, 47, 501
  - Elbarritasunaren kalifikazioa, 47, 52, 501
  - Gizarte taldeak, 537
  - Gizarteratzea, 669
  - Hezkuntza-premia bereziak, 472
  - Hirigintzako eta arkitekturako irisgarritasuna, 96, 256, 495, 503, 639, 733
  - Irisgarritasun unibertsala, 220, 221, 228, 496, 669
  - Irisgarritasuna, 669
  - Laguntza-txakurrak, 495, 669
  - Lana, 670

- Laneratzea, 247
- TMIZ, 113, 120, 122, 496, 662
- Familia, 663
  - Matrikulazio zerga, 111, 642, 662, 741
- Frankismoaren biktimak
  - Gizarte taldeak, 537
- Gaixo kronikoak, 533
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Bizkarrezur bifidoa eta hidrozefalua, 235
  - Epidermiolisis bullosa, 234
  - Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea, 236
  - Osasun prestazioak, 234, 666
- Gazteak
  - Alkoholismoa, 349
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 264, 337, 668
- Guraso bakarreko familiak, 662
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak
  - Asentamenduak, 640, 641
  - Gizarte zerbitzuak, 640, 641
- Hiesa duten gaixoak
  - Gizarte taldeak, 537
- Homosexualak, 527, 652
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Lesbianak, 527, 546
- Ijitoak, 516, 640, 641, 652
  - Adingabeak, 475
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 516
  - Gizarte taldeak, 537
  - Gizarte zerbitzuak, 516
  - Hiria biziberritzea, 517
  - Kulturagatiko bereizkeria, 517
- Kultur gutxiengoetako pertsonak, 516, 652
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak
  - Egoitzak, 41
  - Familia, 42
  - Legeria, 35, 499
- Migraziorako eskubidea
  - Atzerritarrak, 641
- Sasoikako langileak
  - Adingabeak, 465, 665
- Terrorismoaren biktimak
  - Gizarte taldeak, 537
- Transexualak, 527, 652
  - Herritarra izateko eskubidea, 527
  - Onarpen zibila, 527

### **Babes ofizialeko etxebizitzak, 668**

- Adjudikazioa, 668
- Administrazio instrumentala
  - Prozedura administratiboa, 271
- Betekizunak, 668
  - Berdintasun printzipioa, 269, 640, 816, 854
  - Erroldatzea, 269, 640, 816
  - Koordinazio printzipioa, 269, 640, 816, 854
  - Lankidetz-printzipioa, 269, 640, 816, 854

- Errentamendua, 268
  - Bizigune, 277
  - Errentak garestitzea, 276
- Eskatzaileen Erregistroa, 272
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 668
- Etxebizitza eskuratzeko prozedura, 659
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 670
- Hirigintza-politika
  - Lurzoru erreserba, 268, 668
- Jakinarazpenak, 659
- Legegintzaren beharra, 269
- Mantentzea, 281
- Prezioak, 275
- Prozedura administratiboa, 659
- Zerga-politika, 270
- Babeserako eskubidea**
  - Jakinarazpenak, 217, 658, 659
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 420, 639, 664, 684**
  - Datu pertsonalak, 140, 153
- Babesik gabeko adingabeak, 416, 664**
  - Amen aurkako indarkeria, 418
  - Topalekuak, 664
- Bakezaleak**
  - Gizarte taldeak, 537
- Banantzea eta dibortzioa**
  - Prozedura judiziala
    - Bidegabeko atzerapenak, 184
    - Emakumeak, 184
- Barne ikerketak**
  - Polizia, 137, 157, 637, 751
- Barneratze zentroak**
  - Adingabeko lege hausleak, 460
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 319, 518**
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Gizarte behar larrietarako laguntzak, 47, 295
    - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 48, 295, 523
  - Gizarte taldeak, 537
  - Ijitoak, 516, 652
  - Kotizazio gabeko pentsioak, 65
  - Oinarrizko errenta, 47, 64, 65, 68, 295
    - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 48, 295, 523
    - Udal etxebizitzak, 279
  - Sexuagatiko bereizkeria
    - Emakumeak, 380
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 39, 50, 519, 637, 680
- Bekak eta laguntzak, 84**
- Berdintasun printzipioa**
  - Adopzio hartzaileak
    - Adin muga, 664
  - Adopziogileak
    - Adin muga, 289, 420
  - Atzerritarrak
    - Polizia, 141, 142, 650, 655

- Emakumeak, 381
  - Alardeak, 365, 650
  - Banantzea eta dibortzioa, 184
  - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 380
  - Danborrada, 368
  - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, 649
  - Emakumezkoen kirol taldeak, 369
  - Irudi sexistak, 283, 373
  - Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 376
  - Mendeko pertsonen zaintza, 379, 546
  - Publizitate sexista, 373
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 97, 355
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 47, 501, 652
  - Irigarritasun unibertsala, 256, 503
- Lizentziak eta baimenak
  - Salmenta ibiltaria, 69
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak
  - Legeria, 35, 499

### **Berdintasunerako eskubidea, 648**

- Adopzio hartzaileak
  - Adin muga, 664
- Adopziogileak
  - Adin muga, 289, 420, 642, 690
- Atzeritarrak
  - Polizia, 133, 141, 142, 650, 655
- Emakumeak, 381
  - Alardeak, 365, 641, 650, 696, 705
  - Banantzea eta dibortzioa, 184
  - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 380
  - Danborrada, 368
  - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, 649
  - Emakumezkoen kirol taldeak, 369
  - Irudi sexistak, 283, 373
  - Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 376
  - Mendeko pertsonen zaintza, 379, 546
  - Publizitate sexista, 373
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 97, 355
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 47, 495, 501, 652, 669
  - Irigarritasun unibertsala, 256, 503
- Lizentziak eta baimenak
  - Salmenta ibiltaria, 69
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak
  - Legeria, 35, 499

### **Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 96, 495, 639, 733
- Funtzio publikoa, 108, 657
- Sozietate publikoak, 96, 641, 730

### **Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea, 648**

- Adinagatiko bereizkeria
  - Adinekoak, 670
- Ezgaitasunagatiko bereizkeria
  - Laneratzea, 247
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 47, 495, 501, 652, 669

- Jatorriagatiko bereizkeria
  - Atzeritarrak, 133, 142, 186
- Kondizioagatiko bereizkeria
  - Izatezko bikoteak, 193
- Kulturagatiko bereizkeria
  - Ijitoak, 517
- Mendekotasunagatiko bereizkeria
  - Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 35, 499
- Sexuagatiko bereizkeria
  - Alardeak, 365
  - Emakumeak, 184, 355, 368, 369, 373, 381, 641, 696, 705
  - Emakumeen kontrako indarkeria, 184, 356
  - Homosexualak, 527, 652
  - Irudi sexistak, 283
  - Publizitate sexista, 79
  - Transexualak, 527, 652
- Bereizkeriazko hizkera**
  - Atzeritarrak
    - Polizia, 141
- Berriro bizilekua ematea**
  - Hiria biziberritzea, 254, 258, 825
  - Ijitoak, 517
- Berriro gizarteratzeko eskubidea**
  - Espetxeratuak, 529, 659
- Bide publikoen erabilera, 219, 643, 792**
- Bidegabeko atzerapenak**
  - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak
    - Diziplina espedienteak, 179
  - Jakinarazpenak
    - Epaitegien funtzionamendua, 188
  - Prozedura judiziala
    - Administrazioarekiko auzia, 178, 658
    - Banantzea eta dibortzioa, 184
    - Familia, 177, 184, 658
- Bideo grabaketak**
  - Polizia
    - Atxilotuak, 148
- Biltokiak**
  - Zaratak, 667
- Bizigune**
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 277
- Bizitzeko eskubidea**
  - Emakumeak, 184, 356
    - Emakumeen kontrako indarkeria, 418, 650, 653
  - Espetxeratuak, 190
  - Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647, 653
- Bizkarrezur bifidoa eta hidrocefalia, 235**
- Boluntarioak**
  - Espetxeratuak, 530
- Burutik gaixo daudenak**
  - Adingabeak, 479, 665
  - Berdintasunerako eskubidea, 648
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 271, 502
  - Gizarte taldeak, 537

- Osasun prestazioak
  - Derrigorrezko tratamendu anbulatorioa, 40, 238, 665
- Zerbitzu soziosanitarioak, 238
  - Unitate psikogeriatrikoak, 42

**D****Danborrada**

- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 368

**Datu pertsonalak, 656**

- Atxilotuak, 140
- Eliza Katolikoa, 285
- Epaitegien funtzionamendua, 186

**Defentsarako eskubidea**

- Jakinarazpenak, 129, 172, 640, 756, 760
  - Epaitegien funtzionamendua, 188

**Desagertutako pertsonak**

- Polizia, 141

**Desjabetzeak**

- Jabetza pribaturako eskubidea, 219

**Diziplina espedienteak**

- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak
  - Bidegabeko atzerapenak, 179

**Droga-mendekotasuna**

- Gazteak
  - Alkoholismoa, 349
- Tabakismoa
  - Ostalaritza establezimenduak, 239

**E****EBeko Konstituzioa, 546****Egiazkotasun presuntzioa**

- Zehapen prozedura, 659

**Egoitza-zentroak**

- Adinekoak
  - Zor konpromisoa, 388

**Egoitzak**

- Adinekoak, 41, 388
  - Betekizunak, 53
  - Foru prezio publikoak, 44, 59
  - Laguntzak, 55
  - Zor konpromisoa, 63
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 41

**Eguneko zentroak**

- Adinekoak, 388

**Ehiza**

- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 69
- Intimitaterako eskubidea, 69
- Lizentziak eta baimenak
  - Ebatzi beharra, 69
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 69

**Elbarritasunaren kalifikazioa, 47, 501**

- Ebatzi beharra, 52

**Eliza Katolikoa**

- Datu pertsonalak, 285

**Emakumeak**

- Alardeak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 365, 641, 650, 696, 705
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 380
- Berdintasunerako eskubidea, 648
- Danborrada
  - Sexuagatiko bereizkeria, 368
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna
  - Legeria, 381
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea
  - Sexuagatiko bereizkeria, 649
- Emakumeen kontrako indarkeria, 184, 356, 418, 650, 653
- Giza eskubideak, 546
- Gizarte taldeak, 537
- Herri defendatzaileak, 561
- Irudi sexistak, 283, 373
- Kirola
  - Sexuagatiko bereizkeria, 369
- Kultur adierazpenak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 365, 368, 641, 650, 696, 705
- Lanbidea eta familiako bitziza bateratzea
  - Sexuagatiko bereizkeria, 376
- Lesbianak, 546
- Mendeko pertsonen zaintza
  - Sexuagatiko bereizkeria, 379, 546
- Ombudsmana, 561
- Prozedura judiziala
  - Banantzea eta dibortzioa, 184
- Publizitate sexista, 373

**Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 355, 649**

- Arartekoa, 355
- Lanbidea eta familiako bitziza bateratzea, 97
- Legeria, 381
- Lesbianak, 546
- Prozedura judiziala
  - Banantzea eta dibortzioa, 184
- Publizitate sexista, 79

**Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea**

- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 649

**Emakumeen kontrako indarkeria, 184, 356, 418, 650**

- Emakumeak, 653
- Prozedura judiziala
  - Zigor prozedura, 184

**Emakumezkoen kirol taldeak**

- Gizarte komunikabideak, 369

**Epaitegien funtzionamendua**

- Artelan bat galtzea, 187
- Bidegabeko atzerapenak
  - Jakinarazpenak, 188
- Datu pertsonalak, 186

**Epidermiolisis bullosa, 234****Erabat biluztea**

- Atxilotuak, 137



**Erlijio askatasunerako eskubidea**

- Datu pertsonalak
  - Eliza Katolikoa, 285
- Erlijio sinboloak
  - Hauteskundeak, 283

**Erlijio sinboloak**

- Hauteskundeak, 283

**Erraustegiak**

- Hiri hondakinak, 201, 846

**Erregistro zibila**

- Seme-alabatasunak
  - Ziurtagiriak, 190, 193

**Erreklamazio ekonomiko-administratiboak**

- Udal zergak, 305

**Errekurtsorako eskubidea**

- Erreklamazio ekonomiko-administratiboak
  - Udal zergak, 305
- Zergen alorreko prozedura
  - Erreklamazio ekonomiko-administratiboak, 305

**Errentak garestitzea**

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 276

**Errepideak, 220**

- Herri lanak, 225
- Trafikoa eta bide segurtasuna, 227

**Errolda**

- Atzerritarrak, 641, 650
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 269, 640, 816
- Gizarte zerbitzuak, 47, 60, 61, 505, 644, 676
  - Atzerritarrak, 546
- Ikasleen onarpena, 81, 637, 660, 725
- Izena emateko prozedura, 638
- Txabolak eraikitzea, 639, 807
- Udal zerbitzu publikoak, 217

**Errugabetasun usterako eskubidea, 244****Errugabetasun-ustearen printzipioa, 658****Eskola-garraioa, 84, 90**

- Hizkuntz ereduak, 82, 639, 721

**Eskola-mapa, 80, 81, 92, 660****Eskolako indarkeria (bullying)**

- Adingabeak, 83, 327, 490, 661

**Espedientea eskuratzea, 638**

- Prozedura administratiboa, 71

**Espedientea ikusteko aukera, 216, 224**

- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 183
- Polizia, 167

**Espetxeak**

- Barneratzearen ordezkotako hautabideak, 531
- Diziplina-erregimena, 531
- Espetxeetako eskumenak, 530
- Gizarte taldeak, 530
- Zigorra non bete, 531

**Espetxeetako eskumenak, 530****Espetxean hiltzea, 190**

**Espetxeratuak, 529, 659**

- Barneratzearen ordeko hautabideak, 531
- Berriro gizarteratzeko eskubidea, 529, 659
- Boluntarioak, 530
- Emakumeak
  - Amatasuna, 189
- Espetxean hiltzea, 190
- Espetxeetako erregimena, 531
- Espetxeetako eskumenak, 530
- Gizarte taldeak, 530, 537
- Gose greba, 189
- Gurasotasuna, 187
- Jakinarazpenak, 188
- Komunitatearen onurarako lanak, 546
- Zigorra non bete, 531

**Estatua bizidunak**

- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak, 142

**Etika-batzordeak**

- Gizarte zerbitzuak, 46

**Etorkinak**

- Osasun prestazioak, 234

**Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 263, 667**

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 668
  - Adjudikazioa, 668
  - Betekizunak, 269, 640, 668, 816, 854
  - Errentamendua, 268, 276, 277
  - Erroldatzea, 269, 640, 816
  - Eskatzaileen Erregistroa, 272
  - Etxebizitza eskuratzeko prozedura, 659
  - Hirigintza-politika, 268
  - Legegintzaren beharra, 269
  - Mantentzea, 281
  - Prezioak, 275
  - Zerga-politika, 270
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 48, 295, 523
- Berriro bizilekua ematea
  - Hiria biziberritzea, 254, 258, 825
  - Ijitoak, 517
- Burutik gaixo daudenak, 271, 502
- Etxebizitza libreak
  - Laguntzak, 278
- Gazteak, 264, 668
- Ijitoak, 516
- Udal etxebizitzak
  - Betekizunak, 279

**Etxebizitza eskuratzeko prozedura**

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 659

**Etxebizitza libreak**

- Laguntzak, 278

**Etixerik gabeko pertsonak**

- Gizarte taldeak, 537

**Etxez etxeko laguntza**

- Adinekoak, 388

**Etxez etxeko laguntza-zerbitzua**

- Adinekoak, 45

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

- Hizkuntz normalizazioa, 76
- Ikerketako bekadunak
  - Gizarte babeserako eskubidea, 99
- Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa
  - Administrazio karrera, 95

**Euskara eta administrazio publikoa**

- Funtzio publikoa, 75
- Hizkuntz normalizazioa
  - Funtzio publikoa, 101
- Justizia administrazioa, 75

**Euskara eta gizartea**

- Helduen euskalduntzea, 76

**Euskara eta hezkuntza**

- Hizkuntz ereduak
  - Eskola-garraioa, 82, 639, 721

**Euskara eta irakaskuntza**

- Euskal Herriko Unibertsitatea, 76

**Ezgaitasunagatiko bereizkeria**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495, 669
- Laneratzea, 247

**Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495, 669**

- Aparkalekuak, 131
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 670
- Berdintasunerako eskubidea, 648, 652
- Bereizkeria, 47, 501
- Elbarritasunaren kalifikazioa, 47, 52, 501
- Gizarte taldeak, 537
- Gizarteratzea, 669
- Hezkuntza premia bereziak, 472
- Hirigintza
  - Irigarritasun unibertsala, 256, 503
- Ikusmen urrituak, 220
- Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa
  - Irigarritasun unibertsala, 96, 495, 639, 733
- Irigarritasun unibertsala
  - Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 220
  - Garraioak, 221, 228, 496, 669
  - Zentzumen oztopoak, 220
- Irigarritasuna, 669
- Laguntza-txakurrak, 495, 669
- Lana, 670
- Laneratzea, 247
- TMIZ, 113, 120, 122, 496, 662

**F****Familia, 663**

- Adinekoak, 42
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 42
- Prozedura judiziala
  - Bidegabeko atzerapenak, 177, 184, 658

**Familia ugaria**

- Matrikulazio zerga, 111, 642, 662, 741

**Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea, 236**

**Foru prezio publikoak**

Egoitzak

Adinekoak, 44, 59

**Foru zergak**

Matrikulazio zerga

Kenkariak, 662

Murrizketak, 111, 642, 741

PFEZ, 111, 662

Guraso bakarreko familiak, 662

Kenkariak, 116, 118

**Frankismoaren biktimak**

Gizarte taldeak, 537

**Funtzio publikoa**

Administrazio egoerak

Eszedentzia, 96

Azpikontratazioa, 105

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 108, 657

Hizkuntz normalizazioa, 75

Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 100

EHU, 95

Erretiroak, 99

Justizia administrazioko funtzio publikoa

Lanaldia, 98

Lan eskaintza publikoa, 94

Hizkuntz normalizazioa, 101

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 97

Laneko jazarpena (mobbing), 99

Osasunaren alorreko funtzio publikoa, 95

Ordainsariak, 98

Poliziaren alorreko funtzio publikoa, 106

Sarbidea

Azterketa psikoteknikoak, 95

Sarrera

Hizkuntz normalizazioa, 75

Sozietate publikoak

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 96, 641, 730

**G****Gainbalio zerga**

Balio katastrala, 112, 662

**Gaixo kronikoak, 533**

Berdintasunerako eskubidea, 648

Bizkarrezur bifidoa eta hidrozefalia

Osasun prestazioak, 235

Epidermiolisis bullosa

Osasun prestazioak, 234

Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea

Osasun prestazioak, 236

Osasun prestazioak, 234, 666

**Garraioak**

Irisgarritasun unibertsala, 221, 496, 669

**Garraioetako irisgarritasuna, 221, 228, 496****Garraioetako oztopoak, 221, 228, 496****Gasteizko sindikoa, 563**

**Gastuak itzultzea**

Osasun tratamenduak, 239, 241

**Gazteak**

Alkoholismoa, 349

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 264, 337, 668

**Gertutasun printzipioa**

Gizarte zerbitzuak, 43

**Giza eskubideak, 647**

Adinekoak, 42

Egoitzak, 41

Familia, 42

Adingabe atzerritarrak, 546

Adingabeak, 415, 492

Adingabe atzerritarrak, 415, 547

Atxilotuak

Datu pertsonalak, 140

Atzerritarrak, 546

Errolda, 650

Normalizazio juridikoa, 650

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 319, 518

Bekak eta laguntzak, 546

Berdintasunerako eskubidea, 648

Atzerritarrak, 133, 141, 142, 650, 655

Emakumeak, 365, 381, 546, 641, 649, 650, 696, 705

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 355

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea

Funtzio publikoa, 657

Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea, 648

Adinagatiko bereizkeria, 670

Atzerritarrak, 133, 141, 142, 650, 655

Emakumeak, 355, 546, 641, 649, 650, 696, 705

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 652

Sexuagatiko bereizkeria, 355, 356, 365, 368, 369, 373, 381

Berriro gizarteratzeko eskubidea

Espetxeratuak, 546

Bizitzeko eskubidea

Emakumeak, 418, 650, 653

Terrorismoaren biktimak, 653

Burutik gaixo daudenak, 40, 42, 238, 665

Emakumeak, 546

Errugabetasun usterako eskubidea, 244

Espetxeratuak, 529, 659

Etorkinak

Hizkuntz irisgarritasuna, 234

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea

Ijitoak, 516

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495, 652, 669

Gaixo kronikoak, 234, 666

Herri defendatzaileak, 548, 550

Hezkuntzarako eskubidea, 660

Hezkuntza-premia bereziak, 82, 660

Hirigintza iraunkorra, 548

Herri defendatzaileak, 552

- Hizkuntz eskubideak, 77
- Ijitoak, 516, 652
- Ingurumen egokia izateko eskubidea
  - Herri defendatzaileak, 552
- Intimitaterako eskubidea, 656
  - Datu pertsonalak, 656
  - Ehiza, 69
  - Kutsadura akustikoa, 656
- Kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea
  - Terrorismoaren biktimak, 647
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak
  - Egoitzak, 41
  - Familia, 42
- Migraziorako eskubidea, 639, 684
  - Adingabe atzerritarrak, 415, 547
  - Atzerritarrak, 505, 546, 641
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
  - Adingabeak, 83, 327, 485, 490, 661
  - Atxilotuak, 655
  - Atzerritarrak, 133, 142
  - Ehiza, 69
  - Emakumeak, 418, 650, 653
- Ombudsmana, 550
- Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea
  - Adingabeak, 485, 490, 661
  - Atxilotuak, 655
  - Atzerritarrak, 655
  - Emakumeak, 418, 650, 653
  - Identifikatu gabeko pertsonak, 135, 163
  - Terrorismoaren biktimak, 653
- Segurtasun fisiko eta moralerako eskubidea
  - Adingabeak, 83, 327
- Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 658

#### **Giza eskubideen aldeko hezkuntza**

- Adingabeak, 492

#### **Gizarte behar larrietarako laguntzak**

- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 47, 295
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 48, 295, 523

#### **Gizarte eskubideak, 647**

- Adineko pertsonak
  - Osasunerako eskubidea, 42
- Adinekoak, 388, 670
  - Egoitzak, 41, 44, 53, 55, 59, 63, 388
  - Eguneko zentroak, 388
  - Etxez etxeko laguntza, 388
  - Familia, 42
  - Gizarte zerbitzuak, 670
  - Laguntzak, 58
  - Osasun prestazioak, 670
  - Prestazio soziosanitarioak, 670
  - Tutoretzapeko apartamentuak, 44

- Adingabeak, 415, 663
  - Adingabe atzerritarrak, 415, 472, 546, 547
  - Adingabeko lege hausleak, 455, 460, 664
  - Adopzioa, 289, 420, 642, 664, 690
  - Atxilotutako adingabeak, 483
  - Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 420, 664
  - Babesik gabeko adingabeak, 416, 418, 664
  - Balioak, 340
  - Burutik gaixo dauden adingabeak, 479
  - Gizarte taldeak, 491
  - Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 475
  - Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 465, 665
- Atzerritarrak, 505, 546, 641
  - Errola, 47, 505, 546, 644, 676
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 319, 518
  - Gizarte behar larrietarako laguntzak, 47, 295
  - Harrera-zentroak, 39, 50, 519, 637, 680
  - Kotizazio gabeko pentsioa, 65
  - Oinarrizko errenta, 47, 64, 65, 68, 295
  - Udal etxebizitzak, 279
- Burutik gaixo daudenak
  - Osasunerako eskubidea, 40, 42, 238, 665
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 238
- Etorकिनak
  - Osasunerako eskubidea, 234
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 263, 667
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 268, 281, 659, 668
  - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 48, 295, 523
  - Berrito bizilekua ematea, 258, 517
  - Burutik gaixo daudenak, 271, 502
  - Etxebizitza libreak, 278
  - Gazteak, 264, 337, 668
  - Ijitoak, 516
  - Udal etxebizitzak, 279
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495, 669
  - Aparkalekuak, 131
  - Gizarteratzea, 669
  - Hezkuntza-premia bereziak, 472
  - Irisgarritasun unibertsala, 220, 221, 228, 256, 496, 503, 669
  - Irisgarritasuna, 669
  - Laguntza-txakurrak, 495, 669
  - Laneratzea, 247
  - TMIZ, 113, 120, 122, 496, 662
- Familia, 663
  - Matrikulazio zerga, 111, 642, 662, 741
- Gaixo kronikoak
  - Osasunerako eskubidea, 234, 666
- Gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak
  - Berrito bizilekua ematea, 254, 825
- Gizarte zerbitzuak
  - Errolatzea, 47, 60, 61, 505, 644, 676
  - Etika-batzordeak, 46

- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 640, 641
- Herri defendatzaileak, 561
- Hirigintza iraunkorra
  - Herri defendatzaileak, 552
- Homosexualak, 527, 652
- Ijitoak, 516, 652
  - Errola, 516
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 666
  - Atmosferako kutsadura, 200, 204, 640, 642, 667, 765
  - Erraustegiak, 201, 846
  - Herri defendatzaileak, 552
  - Informaziorako eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846
  - Kutsadura akustikoa, 198, 199, 200, 203, 206, 208, 211, 212, 213, 640, 643, 667, 811
  - Legeria, 196
  - Parte hartzeko eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846
  - Tutoretza judiziala izateko eskubidea, 196, 548, 552
- Legeria, 35, 499
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak
  - Egoitzak, 41
  - Familia, 42
  - Legeria, 35, 499
- Osasunerako eskubidea, 665
  - Adinekoak, 42, 670
  - Antzutasunaren aurkako tratamendua, 236
  - Burutik gaixo daudenak, 40, 42, 238, 665
  - Erraustegiak, 201, 846
  - Etorkinak, 234
  - Gaixo kronikoak, 234, 533, 666
  - Gizarte eta osasun zerbitzuen plangintza, 233
  - Itxaron zerrendak, 237, 665
  - Lagunduriko giza ugalketa, 237
  - Ortodontziak, 236
  - Tabakismoa, 239
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 38, 238, 348, 666
- Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647
- Transexualak, 527, 652
- Gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak, 647**
  - Adinekoak, 388, 670
    - Egoitzak, 41, 44, 53, 55, 59, 63, 388
    - Eguneko zentroak, 388
    - Etkez etxeko laguntza, 388
    - Etkez etxeko laguntza-zerbitzua, 45
    - Familia, 42
    - Gizarte zerbitzuak, 670
    - Laguntzak, 58
    - Osasun prestazioak, 670
    - Osasunerako eskubidea, 42
    - Prestazio soziosanitarioak, 670
    - Tutoretzapeko apartamentuak, 44
  - Adingabe atzerritarrak, 547
  - Adingabeak, 415, 663
    - Adingabe atzerritarrak, 415, 472, 546



- Adingabeko lege hausleak, 455, 460, 664
- Adopzioa, 289, 420, 642, 664, 690
- Atxilotutako adingabeak, 483
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 420, 664
- Babesik gabeko adingabeak, 416, 418
- Balioak, 340
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 479
- Gizarte taldeak, 491
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 475
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 465, 665
- Atzerritarrak, 505, 546, 641
  - Errolda, 47, 505, 546, 644, 676
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 319, 518
  - Gizarte behar larrietarako laguntzak, 47, 295
  - Harrera-zentroak, 39, 50, 519, 637, 680
  - Kotizazio gabeko pentsioa, 65
  - Oinarrizko errenta, 47, 64, 65, 68, 295
  - Udal etxebizitzak, 279
- Burutik gaixo daudenak
  - Osasunerako eskubidea, 40, 42, 238, 665
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 238
- Etorकिनak
  - Osasunerako eskubidea, 234
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 263, 667
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 268, 281, 659, 668
  - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 48, 295, 523
  - Berrito bizilekua ematea, 254, 258, 517, 825
  - Burutik gaixo daudenak, 271, 502
  - Etxebizitza libreak, 278
  - Gazteak, 264, 337, 668
  - Ijitoak, 516
  - Udal etxebizitzak, 279
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495, 669
  - Aparkalekuak, 131
  - Gizarteratzea, 669
  - Hezkuntza-premia bereziak, 472
  - Irisgarritasun unibertsala, 220, 221, 228, 256, 496, 503, 669
  - Irisgarritasuna, 669
  - Laguntza-txakurrak, 495, 669
  - Laneratzea, 247
  - TMIZ, 113, 120, 122, 496, 662
- Familia, 663
  - Matrikulazio zerga, 111, 642, 662, 741
- Gaixo kronikoak
  - Osasunerako eskubidea, 234, 666
- Gizarte babeserako eskubidea
  - Ikerketako bekadunak, 99
- Gizarte zerbitzuak
  - Erroldatzea, 47, 60, 61, 505, 644, 676
  - Etika-batzordeak, 46
  - Gertutasun printzipioa, 43
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 640, 641
- Herri defendatzaileak, 561

- Hirigintza iraunkorra
  - Herri defendatzaileak, 552
- Homosexualak, 652
- Ijitoak, 516, 652
  - Errolda, 516
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552, 666
  - Atmosferako kutsadura, 200, 204, 640, 642, 667, 765
  - Ehiza, 69
  - Herri defendatzaileak, 552
  - Informaziorako eskubidea, 196, 201, 548, 846
  - Kutsadura akustikoa, 198, 199, 200, 203, 206, 208, 211, 212, 213, 640, 643, 667, 811
  - Legeria, 196
  - Parte hartzeko eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846
  - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 196, 548, 552
- Legeria, 35
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak
  - Egoitzak, 41
  - Familia, 42
  - Legeria, 35, 499
- Osasunerako eskubidea, 665
  - Adinekoak, 42, 670
  - Antzutasunaren aurkako tratamendua, 236
  - Burutik gaixo daudenak, 40, 42, 238, 665
  - Erraustegiak, 201, 846
  - Etorkinak, 234
  - Gaixo kronikoak, 234, 533, 666
  - Gizarte eta osasun zerbitzuen plangintza, 233
  - Itxaron zerrendak, 237, 665
  - Lagunduriko giza ugalketa, 237
  - Ortodontziak, 236
  - Tabakismoa, 239
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 38, 238, 348, 666
- Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647
- Transexualak, 527, 652

### **Gizarte eta osasun zerbitzuen plangintza, 233**

#### **Gizarte komunikabideak**

- Emakumezkoen kirol taldeak, 369

#### **Gizarte taldeak, 537**

- Adinekoak, 537
- Adingabeak, 491
- Animalien babesa, 537
- Atxilotuak, 537
- Atzerritarrak, 537
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 537
- Burutik gaixo daudenak, 537
- Emakumeak, 537
- Espetxeratuak, 530, 537
- Etixerik gabeko pertsonak, 537
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 537
- Frankismoaren biktimak, 537
- Hiesa duten gaixoak, 537
- Ijitoak, 537
- Terrorismoaren biktimak, 537

**Gizarte zerbitzuak**

- Adinekoak, 41, 44, 45, 53, 55, 59, 63, 670
  - Etkez etxeko laguntza-zerbitzua, 45
- Atzerritarrak, 641
  - Errolda, 47, 505, 546, 644, 676
- Egoitza-zentroak
  - Zor konpromisoa, 388
- Egoitzak
  - Adinekoak, 41, 44, 53, 55, 59, 63, 388
  - Foru prezio publikoak, 44, 59
  - Laguntzak, 55
  - Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 41
  - Zor konpromisoa, 63
- Eguneko zentroak
  - Adinekoak, 388
- Erroldatzea, 47, 60, 61, 505, 644, 676
- Etika-batzordeak, 46
- Etkez etxeko laguntza
  - Adinekoak, 388
- Etkez etxeko laguntza-zerbitzua
  - Adinekoak, 45
- Gertutasun printzipioa, 43
- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak
  - Harrera-zentroak, 39, 50
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 640, 641
- Harrera-zentroak
  - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 39, 50, 519, 637, 680
- Ijitoak
  - Errolda, 516
- Lana, 345
- Legeria, 35, 499
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 41, 42
- Tutoretzapeko apartamentuak
  - Adinekoak, 44
- Zehapen prozedura, 39, 50
- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak**
  - Harrera-zentroak, 39, 50
- Gizarteratzeko eskubidea**
  - Espetxeratuak, 546
- Golf zelaia**
  - Hirigintzako plangintza, 256
- Grebarako eskubidea**
  - Gutxienerako zerbitzuak, 247
- Gune zoologikoak**
  - Animalien babesak, 230
- Guraso bakarreko familiak**
  - PFEZ, 662
- Gutxienerako zerbitzuak**
  - Grebarako eskubidea, 247
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak**
  - Hezkuntza-premia bereziak, 475
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak**
  - Asentamenduak, 640, 641
  - Gizarte zerbitzuak, 640, 641
  - Gizarteratzea
    - Koordinazio printzipioa, 640, 641

**H****Harrera-zentroak**

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 39, 50, 519, 637, 680

**Hauteskundeak**

Erljio sinboloak, 283

**Helduen euskalduntzea**

Hizkuntz normalizazioa, 76

**Herri defendatzaileak**

Administrazio egokia, 560

Administrazioen gaineko kontrola, 550

Emakumeak, 561

Gasteizko sindikoa, 563

Giza eskubideak, 548, 550

Gizarte eskubideak, 561

Hirigintza iraunkorra, 552

Informaziorako eskubidea

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552

Ombudsmana, 561

Parte-hartze eskubidea

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552

**Herri lanak**

Errepideak, 220, 225

**Herritarra izateko eskubidea, 547**

Transexualak, 527

**Herritarren eskubideak eta betebeharrak**

Gurasotasuna

Espetxeratuak, 187

Herritarren parte-hartzea

Hirigintzako plangintza, 256, 261

Udal organoak, 217

Informaziorako eskubidea

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 183

Espedientea eskuratzea, 71, 638

Espedientea ikusteko aukera, 167, 216, 224

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846

Jabetza pribaturako eskubidea, 219, 662

Administrazioaren erantzukizuna, 662

Artelan bat galtzea, 187

Herri lanak, 220, 225

Hirigintzako plangintza, 662

Saillkapenak, 663

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak

Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 72

Osakidetzako erabiltzaileen eskubideak

Administrazioaren erantzukizuna, 239

Gastuak itzultzea, 239, 241

Kexatzeko eskubidea, 244, 245

Laguntzak, 242

Medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, 245

Parte hartzeko eskubidea

Gizarte zerbitzuak, 388

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846

Prozedura administratiboko eskubideak  
Administrazio errekurtoa jartzeko eskubidea, 72, 659  
Zergen arloko berdintasuna, 661

**Herritarren parte-hartzea**

Hirigintzako plangintza, 255, 261  
Golf zelaia, 256  
Udal organoak, 217

**Herritarren segurtasuna**

Kultur adierazpenak, 171

**Hezkuntza-instalazioak, 83****Hezkuntza-plangintza, 80, 81, 92, 660****Hezkuntza-premia bereziak, 469, 664**

Adingabe atzerritarrak, 472, 546, 661  
Curriculum dibertsifikazioa, 82, 660  
Ezgaitasunaren bat duten pertsonak, 472  
Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 475  
Ijitoak, 661  
Itunpeko ikastetxe pribatuak, 82, 660  
Osasun premiak, 82, 660  
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 469, 472, 475, 546, 664

**Hezkuntzarako eskubidea, 660**

Adingabe atzerritarrak, 547, 676  
Hezkuntza-premia bereziak, 472, 546  
Adingabeak  
Hezkuntza-premia bereziak, 469, 664  
Gutxiengo kulturaletako adingabeak  
Hezkuntza-premia bereziak, 475  
Hezkuntza-premia bereziak, 82, 660

**Hiesa duten gaixoak**

Gizarte taldeak, 537

**Hiri hondakinak**

Erraustegiak, 201, 846

**Hiria biziberritzea, 254, 825**

Berriro bizilekua ematea, 254, 258, 825  
Ijitoak, 517  
Hirigintzako kudeaketa  
Ijitoak, 517

**Hirigintza iraunkorra, 548**

Herri defendatzaileak, 552

**Hirigintza- eta arkitektura-oztopoak, 669**

Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 495  
Irigarritasun unibertsala, 256, 503

**Hirigintzako antolamendua**

Hirigintzako plangintza  
Herritarren parte-hartzea, 255, 256, 261  
Zuhurtziarakotasun teknikoa, 255, 260  
Saillapenak, 663

**Hirigintzako diziplina**

Ebatzi beharra, 254, 640, 796  
Hirigintzako lizentziak, 257

**Hirigintzako eta arkitekturako irigarritasuna, 669**

Igogailuak, 504  
Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 495

**Hirigintzako eta eraikinetako irisgarritasuna**

Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 96, 639, 733

**Hirigintzako kudeaketa**

Hiria biziberritzea, 254, 825

Berriro bizilekua ematea, 254, 258, 825

Ijitoak, 517

**Hirigintzako lizentziak, 257****Hirigintzako plangintza**

Herritarren parte-hartzea, 255, 261

Gol zelaia, 256

Jabetza pribaturako eskubidea, 662

Zuhurtziarakotasun teknikoa, 255, 260

**Hirigintzako trabak eta traba arkitektonikoak**

Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 96, 639, 733

**Hizkera**

Prozedura judiziala, 179

**Hizkuntz ereduak**

Eskola-garraioa, 82, 639, 721

**Hizkuntz eskubideak, 77****Hizkuntz irisgarritasuna**

Etorkinak, 234

**Hizkuntz normalizazioa**

Euskara eta administrazio publikoa

Funtzio publikoa, 75

Justizia administrazioa, 75

Euskara eta gizartea

Helduen euskalduntzea, 76

Euskara eta hezkuntza

Hizkuntz ereduak, 82, 639, 721

Euskara eta irakaskuntza

Euskal Herriko Unibertsitatea, 76

Funtzio publikoa, 101

**Hizkuntz oztopoak**

Erregistro zibila, 186

Etorkinak, 234

Osasun prestazioak, 666

Prozedura judiziala, 179

**Homosexualak, 527, 652**

Berdintasunerako eskubidea, 648

Lesbianak, 527, 546

**Hutsik dagoen etxebizitzaren errentamendua**

Kenkariak, 118

**I****Igogailuak**

Hirigintzako eta arkitekturako irisgarritasuna, 504

**Ijitoak, 516, 640, 641, 652**

Adingabeak, 475

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 516

Gizarte taldeak, 537

Gizarte zerbitzuak

Errolda, 516

Hiria biziberritzea

Berriro bizilekua ematea, 517

Kulturagatiko bereizkeria, 517  
 Kultur gutxiengoetako pertsonak, 652

**Ikasleen onarpena, 84, 86**

Errolda, 81, 637, 660, 725

**Ikerketako bekadunak**

Gizarte babeserako eskubidea, 99

**Industriak**

Hautsa, 200, 204, 640, 642, 765  
 Keak eta usainak, 667  
 Zaratak, 200, 203, 667

**Informaziorako eskubidea**

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 183  
 Espedientea eskuratzea, 638  
 Espedientea ikusteko aukera, 167, 216, 224  
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846  
 Udal tasak, 115

**Ingeniaritza elektronikoa**

Titulazioak, 70

**Ingurumen egokia izateko eskubidea, 666**

Atmosferako kutsadura  
 Industriak, 200, 204, 640, 642, 667, 765  
 Ehiza, 69  
 Erraustegiak, 201, 846  
 Herri defendatzaileak, 552  
 Informaziorako eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846  
 Kutsadura akustikoa  
 Anbulantziak, 212  
 Biltokiak, 667  
 Industriak, 200, 203  
 Kanpai hotsak, 213  
 Lonjak, 198, 208, 643, 811  
 Obrak, 199  
 Ostalaritza establezimenduak, 198, 206, 640, 667  
 Supermerkatuak, 211  
 Legeria, 196  
 Parte hartzeko eskubidea, 196, 548, 552  
 Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 196, 548, 552

**Intimitaterako eskubidea**

Atxilotuak  
 Datu pertsonalak, 140  
 Babesik gabeko adingabe atzerritarrak  
 Datu pertsonalak, 140, 153  
 Datu pertsonalak, 656  
 Eliza Katolikoa, 285  
 Ehiza, 69  
 Epaitegien funtzionamendua  
 Datu pertsonalak, 186  
 Kutsadura akustikoa, 656  
 Industriak, 200  
 Norberaren irudirako eskubidea  
 Udal liburuxkak, 222, 656

**Irakaskuntza ez aratuak**

Ikasleen onarpena, 84

**Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa**

- Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 96, 495, 639, 733
- EHU
  - Administrazio karrera, 95
- Erretiroak, 99
- Ordezkapenak, 99, 100
- Sustituciones
  - Titulazioak, 639

**Irisgarritasun unibertsala**

- Arkitekturako eta hirigintzako irisgarritasuna, 220
- Garraioetako irisgarritasuna, 221, 228, 496
- Hirigintzako eta arkitekturako irisgarritasuna, 256, 503, 669
  - Igogailuak, 504
  - Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 495
- Hirigintzako eta eraikinetako irisgarritasuna
  - Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 96, 639, 733
- Hizkeraren ulergarritasuna
  - Erregistro zibila, 186
  - Prozedura judiziala, 179
- Hizkuntz irisgarritasuna
  - Etorkinak, 234
- Hizkuntz ulergarritasuna
  - Osasun prestazioak, 666
- Laguntza-txakurrak, 495, 669
- Laneratzea, 670
- Teknologia berriak
  - Erregistro zibila, 193
- Zentzumen irisgarritasuna, 220

**Irisgarritasuna**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 669

**Irudi sexistak**

- Emakumeak, 283, 373

**Itxaron zerrendak, 237, 665**

- Kateterismo probak, 239

**Izatezko bikoteak**

- Seme-alabatasunak
- Ziurtagiriak, 193

**J****Jabari publikoa**

- Bide publikoen erabilera, 219, 643, 792

**Jabetza pribaturako eskubidea, 662**

- Administrazioaren erantzukizuna, 662
- Artelan bat galtzea, 187
- Desjabetzeak, 219
- Herri lanak
  - Errepideak, 220, 225
- Hirigintzako plangintza, 662
- Sailkapenak, 663

**Jakinarazpenak**

- Babeserako eskubidea, 217
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 659
  - Trafikoa eta bide segurtasuna, 658



Defentsarako eskubidea

Trafikoa eta bide segurtasuna, 129, 172, 640, 756, 760

Espetxeratuak, 188

Ostalaritza establezimenduak, 143

### **Jarduera sailkatuak**

Biltokiak

Zaratak, 667

Industriak, 200, 203, 204, 667

Lonjak

Zaratak, 198, 208, 643, 811

Ostalaritza establezimenduak

Zaratak, 198, 206, 640, 667

Supermerkatuak

Zaratak, 211

### **Jatorriagatiko bereizkeria**

Atzerritarrak

Hizkuntz oztopoak, 186

Polizia, 133, 141, 142, 650, 655

### **Jendaurreko ikuskizunak**

Animalien babesa, 231

### **Justizia administrazioa**

Hizkuntz normalizazioa, 75

Ziurtagiriak

Erregistro zibila, 190, 193

### **Justizia administrazioko funtzio publikoa**

Lanaldia, 98

## **K**

### **Kaleko salmenta**

Animalien babesa, 232

### **Kalte-ordainak**

Administrazioaren erantzukizuna, 218, 226, 637, 638, 643, 663, 776, 780, 787

Polizia, 138, 168

### **Kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea**

Terrorismoaren biktimak, 647

### **Kanpai hotzak**

Zaratak, 213

### **Kateterismo probak**

Itxaron zerrendak, 239

### **Kexatzeko eskubidea, 244, 245**

### **Kirola**

Emakumezkoen kirol taldeak, 369

### **Kondizioagatiko bereizkeria**

Izatezko bikoteak

Seme-alabatasunak, 193

### **Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak**

Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 72

### **Koordinazio printzipioa**

Babes ofizialeko etxebizitzak

Betekizunak, 269, 640, 816, 854

Garraioetako irisgarritasuna, 221, 496

Gutxiengo kulturaletako pertsonak

Gizarteratzea, 640, 641

**Kotizazio gabeko pentsioak**

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 65

**Kultur adierazpenak**

Herritarren segurtasuna, 171

Sexuagatiko bereizkeria

Emakumeak, 365, 368, 641, 650, 696, 705

**Kultur gutxiengoak, 516****Kultur gutxiengoetako pertsonak**

Gizarteratzea, 652

Ijitoak, 652

**Kultura ondarea**

Arkitektura ondarea, 642, 714

**Kulturagatiko bereizkeria**

Ijitoak, 517

**Kutsadura akustikoa**

Anbulantziak, 212

Biltokiak, 667

Industriak, 200, 203

Intimitaterako eskubidea, 656

Kanpai hotsak, 213

Lonjak, 198, 208, 643, 811

Obrak, 199

Ostalaritza establezimenduak, 198, 206, 640, 667

Supermerkatuak, 211

**L****Lagunduriko giza ugalketa, 237****Laguntza-txakurrak, 495, 669****Laguntzak**

Adinekoak, 58

Egoitzak

Adinekoak, 55

Etxebizitza libreak, 278

**Laguntza-txakurrak, 495****Lan eskaintza publikoa, 94**

Hizkuntz normalizazioa, 101

Osasunaren alorreko funtzio publikoa, 95

**Lana**

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 670

Gizarte zerbitzuak, 345

Herritarra izateko eskubidea, 547

Laneko ordezkariak, 248

**Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea**

Funtzio publikoa, 97

Sexuagatiko bereizkeria

Emakumeak, 376

**Laneko jazarpena (mobbing)**

Funtzio publikoa, 99

**Laneko ordezkariak**

Negoiazio kolektiboa, 248

**Laneratzea**

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 247

**Lankidetza-printzipioa**

- Babes ofizialeko etxebizitzak
  - Betekizunak, 269, 640, 816, 854
- Garraioetako irisgarritasuna, 221, 496
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak
  - Gizarteratzea, 640, 641

**Legegintzaren beharra**

- Adingabeak, 493
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 269

**Legeria**

- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 196
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 35, 499

**Legezkotasun printzipio zigortzailea**

- Jakinarazpenak, 131, 640, 745

**Legezkotasun printzipioa**

- Lizentziak eta baimenak
  - Udal instalazioak, 77

**Lehia-prozedura**

- Agiriak konpultsatzea, 283

**Lesbianak**

- Homosexualak, 527, 546

**Lizentziak eta baimenak**

- Udal instalazioak, 77

**Lonjak**

- Zaratak, 198, 208, 643, 811

**Lurzoru erreserba**

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 268, 668

**Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legea, 251, 503, 663****M****Manifestazioak**

- Polizia, 145

**Matrikulazio zerga**

- Kenkariak
  - Familia ugaria, 662
- Murrizketak
  - Familia ugaria, 111, 642, 741

**Medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, 244, 245****Mendeko pertsonen zaintza**

- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 379, 546

**Mendekotasun egoeran dauden pertsonak**

- Egoitzak, 41
- Familia, 42
- Legeria, 35, 499

**Merkataritza**

- Espedientea eskuratzea, 71

**Merkataritzako jardueraren plangintza**

- Espedientea eskuratzea, 71

**Migrazioarako eskubidea**

- Adingabe atzerritarrak, 415, 547
- Atzerritarrak, 505, 546, 641
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 639, 684

**N****Negoiazio kolektiboa**

Laneko ordezkaritza, 248

**Neurriak hartzeko printzipioa**

Erraustegiak, 201, 846

**Non bis in idem**

Aparkalekuak, 131, 640, 745

**Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea**

Adingabeak

Eskolako indarkeria (bullying), 83, 327, 485, 490, 661

Atxilotuak, 133, 655

Erabat biluztea, 137

Gorputz miaketak, 135, 656

Inkomunikazioa, 157

Atzerritarrak

Tratu txarrak, 133, 142

Ehiza, 69

Emakumeak

Emakumeen kontrako indarkeria, 418, 650, 653

Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647

Zigorra betetzea

Gehieneko muga, 191

**O****Norberaren irudirako eskubidea**

Udal liburuxkak, 222, 656

**Obrak**

Zaratak, 199

**Ohiko etxebizitza**

Kenkariak, 116

**OHZ**

Balio katastrala, 111, 120

Titularkidetasuna, 118

**Oinarrizko errenta**

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 47, 64, 65, 68, 295

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 48, 295, 523

**Oinarrizko eskubideak, 647**

Adingabeak, 415

Adingabe atzerritarrak, 415, 547

Balioak, 340

Atxilotuak

Datu pertsonalak, 140

Atzerritarrak, 546

Babeserako eskubidea

Jakinarazpenak, 217, 658, 659

Berdintasunerako eskubidea, 648

Adopzio hartzailak, 664

Adopziogileak, 289, 420, 642, 690

Atzerritarrak, 133, 141, 142, 650, 655

Emakumeak, 184, 365, 381, 546, 641, 649, 650, 696, 705

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 97, 355

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 47, 256, 495, 501, 503, 652, 669

Lizentziak eta baimenak, 69

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 35, 499

- Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 96, 495, 639, 733
  - Funtzio publikoa, 108, 657
  - Sozietate publikoak, 96, 641, 730
- Berriro gizarteratzeko eskubidea
  - Espetxeratuak, 546, 529, 659
- Bizitzeko eskubidea
  - Emakumeak, 184, 356, 418, 650, 653
  - Espetxeratuak, 190
  - Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647, 653
- Defentsarako eskubidea
  - Jakinarazpenak, 129, 172, 188, 640, 756, 760
- EBeko Konstituzioa, 546
- Erlijio askatasunerako eskubidea
  - Datu pertsonalak, 285
  - Hauteskundeak, 283
- Errugabetasun usterako eskubidea, 244
- Espetxeratuak, 529, 659
- Grebarako eskubidea
  - Gutxieneko zerbitzuak, 247
- Herritarra izateko eskubidea, 547
  - Transexualak, 527
- Hezkuntzarako eskubidea, 660
  - Adingabe atzerritarrak, 472, 546, 547, 676
  - Adingabeak, 469, 664
  - Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 475
  - Hezkuntza-premia bereziak, 82, 660
- Homosexualak, 527, 652
- Ijitoak, 516, 652
- Intimitaterako eskubidea
  - Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 140, 153
  - Datu pertsonalak, 285, 656
  - Ehiza, 69
  - Epaitegien funtzionamendua, 186
  - Kutsadura akustikoa, 200, 656
  - Norberaren irudirako eskubidea, 222, 656
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
  - Adingabeak, 83, 327, 485, 490, 661
  - Atxilotuak, 133, 135, 137, 157, 655, 656
  - Atzerritarrak, 133, 142
  - Ehiza, 69
  - Emakumeak, 418, 650, 653
  - Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647
  - Zigorra betetzea, 191
- Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea
  - Adingabeak, 485, 490, 661
  - Atxilotuak, 133, 135, 137, 148, 157, 183, 653, 655, 656
  - Atzerritarrak, 133, 142, 655
  - Emakumeak, 184, 356, 418, 650, 653
  - Espetxeratuak, 190
  - Identifikatu gabeko pertsonak, 135, 163
  - Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647, 653
- Segurtasun fisiko eta moralerako eskubidea
  - Adingabeak, 83, 327
  - Laneko jazarpena (mobbing), 99

- Transexualak, 527, 652
  - Onarpen zibila, 527
- Tutoretza judiziala
  - Espedientea ikusteko aukera, 183
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 658
  - Espedientea eskuratzea, 638
  - Ingurumen egokia izateko eskubidea, 196, 548
  - Jakinarazpenak, 129, 172, 217, 640, 658, 659, 756, 760
  - Zigorra jaso duten pertsonak, 659
- Tutoretza judiziala izateko eskubidea
  - Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552

### **Ombudsmana**

- Administrazio egokia, 560
- Administrazioen gaineko kontrola, 550
- Emakumeak, 561
- Gasteizko sindikoa, 563
- Giza eskubideak, 548, 550
- Herri defendatzaileak, 561
- Hirigintza iraunkorra, 552
- Informaziorako eskubidea
  - Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552
- Parte hartzeko eskubidea
  - Ingurumen egokia izateko eskubidea, 552

### **Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa**

- Gizarte eskubideak, 561

### **Ordenamendu juridikoaren printzipio gidariak, 647**

- Berdintasun printzipioa, 648
  - Adopzio hartzailak, 664
  - Adopziogileak, 289, 420
  - Atzeritarrak, 141, 142, 650, 655
  - Emakumeak, 184, 365, 381, 546, 649, 650
  - Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 355
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 256, 501, 503, 652
  - Lizentziak eta baimenak, 69
  - Mendekotasun egoeran dauden pertsonak, 35, 499
- Berdintasunerako eskubidea
  - Adopziogileak, 642, 690
  - Emakumeak, 641, 696, 705
- Berdintasunerako printzipioa
  - Atzeritarrak, 133
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 47
- Errugabetasun-ustearen printzipioa, 658
- Legezketasun printzipio zigortzailea
  - Non bis in idem, 131, 640, 745
- Legezketasun printzipioa
  - Lizentziak eta baimenak, 77
- Neurriak hartzeko printzipioa
  - Erraustegiak, 201, 846

### **Ordenamendu juridikoko printzipioak**

- Berdintasun printzipioa
  - Emakumeen eta gizonen berdintasuna., 97

### **Ortodontziak, 236**

**Osakidetzako erabiltzaileen eskubideak**

- Administrazioaren erantzukizuna, 239
- Gastuak itzultzea
  - Osasun tratamenduak, 239, 241
- Kexatzeko eskubidea, 244, 245
- Laguntzak, 242
- Medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, 244, 245

**Osasun laguntza**

- Administrazioaren erantzukizuna, 239

**Osasun prestazio osagarriak, 242****Osasun prestazioak**

- Adinekoak, 670
- Burutik gaixo daudenak
  - Derrigorrezko tratamendu ambulatorioa, 40, 238, 665
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 238
- Etorkinak, 234
  - Hizkuntz irisgarritasuna, 234
- Gaixo kronikoak, 234, 666
  - Bizkarrezur bifidoa eta hidrozeftalia, 235
  - Epidermiolisis bullosa, 234
  - Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea, 236
- Hizkuntz oztopoak, 666
- Itxaron zerrendak, 237, 665
- Osasun tratamenduak
  - Antzutasunaren aurkako tratamendua, 236
  - Gastuak itzultzea, 239, 241
  - Kateterismo probak, 239
  - Lagunduriko giza ugalketa, 237
  - Ortodontziak, 236, 243

**Osasun tratamenduak**

- Antzutasunaren aurkako tratamendua, 236
- Gastuak itzultzea, 239, 241
- Kateterismo probak, 239
- Lagunduriko giza ugalketa, 237
- Ortodontziak, 236, 243

**Osasun zerbitzuak**

- Osasun laguntza
  - Administrazioaren erantzukizuna, 239
- Osasun prestazio osagarriak, 242
- Osasun prestazioak
  - Burutik gaixo daudenak, 40, 238, 665
  - Etorkinak, 234
  - Gaixo kronikoak, 234, 666
  - Itxaron zerrendak, 237, 239, 665
  - Osasun tratamenduak, 236, 237, 241, 243

**Osasunaren alorreko funtzio publikoa**

- Lan eskaintza publikoa, 95
- Ordainsariak
  - Psikologia klinikoa, 98

**Osasunerako eskubidea, 665**

- Adinekoak, 670
  - Unitate psikogeriatrikoak, 42
- Antzutasunaren aurkako tratamendua, 236

- Burutik gaixo daudenak
  - Derrigorrezko tratamendu ambulatorioa, 40, 238, 665
  - Unitate psikogeriatricoak, 42
  - Zerbitzu soziosanitarioak, 238
- Erraustegiak, 201, 846
- Etorrinak, 234
  - Hizkuntz oztupoak, 234
- Gaixo kronikoak, 234, 533, 666
  - Bizkarrezur bifidoa eta hidrocefalia, 235
  - Epidermiolisis bullosa, 234
  - Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea, 236
- Gizarte eta osasun zerbitzuen plangintza, 233
- Itxaron zerrendak, 237, 665
- Lagunduriko giza ugalketa, 237
- Ortodontziak, 236
- Tabakismoa
  - Ostalaritza establezimenduak, 239
- Zerbitzu soziosanitarioak, 38, 348, 666
  - Burutik gaixo daudenak, 238

### **Osorik biluztea**

- Atxilotuak, 656

### **Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea**

- Adingabeak
  - Eskolako indarkeria (bullying), 485, 490, 661
- Atxilotuak, 133, 148
  - Adingabeak, 655
  - Arakatu eta gorputz miaketak egitea, 135
  - Erabat biluztea, 137
  - Inkomunikazioa, 157, 183
  - Osorik biluztea, 656
  - Tortura, 653
  - Tratu txarrak, 653
- Atzeritarrak
  - Polizia, 133, 142
  - Tratu txarrak, 655
- Emakumeak, 184, 356
  - Emakumeen kontrako indarkeria, 418, 650, 653
- Espetxeratuak
  - Espetxean hiltzea, 190
- Identifikatu gabeko pertsonak
  - Tratu txarrak, 135, 163
- Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647, 653

### **Ostalaritza establezimenduak**

- Tabakismoa, 239
- Zaratak, 198, 206, 640, 667
- Zehapen prozedura, 143

## **P**

### **Parte hartzeko eskubidea**

- Gizarte zerbitzuak
  - Adinekoak, 388
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 196, 201, 548, 552, 846

### **PFEZ**

- Foru zergak, 111, 662
  - Guraso bakarreko familiak, 662



- Kenkariak
  - Hutsik dagoen etxebizitzaren errentamendua, 118
  - Ohiko etxebizitza, 116

### **Polizia**

- Administrazioaren kontrola, 137, 157, 637, 654, 751
- Atxiloguneak, 174
- Atzerritarrak
  - Hizkera diskriminatzailea, 650
  - Jatorriagatiko bereizkeria, 655
- Barne ikerketak, 137, 157, 637, 654, 751
- Bereizkeriazko hizkera
  - Atzerritarrak, 141
- Bideo grabaketak
  - Atxilotuak, 148
- Datu pertsonalak
  - Atxilotuak, 140
  - Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 140, 153
- Desagertutako pertsonak, 141
- Espedientea ikusteko aukera, 167
- Manifestazioak, 145
  - Administrazioaren erantzukizuna, 138, 168
- Tortura
  - Atxilotuak, 653
- Trafikoa eta bide segurtasuna, 144, 146
- Tratu txarrak, 133
  - Arakatu eta gorputz miaketak egitea, 135
  - Atxilotuak, 653
  - Atzerritarrak, 133, 142, 655
  - Erabat biluztea, 137
  - Identifikatu gabeko pertsonak, 135, 163
  - Osorik biluztea, 656
- Ziegak, 174

### **Poliziaren alorreko funtzio publikoa**

- Sarbidea, 106

### **Prestazio soziosanitarioak**

- Adinekoak, 670

### **Prozedura administratiboa**

- Administrazio hizkera, 72
- Administrazio instrumentala
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 271
  - Administrazio kontratazioa, 644, 799
- Administrazioaren erantzukizuna
  - Itundutako amaiera, 226
  - Kalte-ordainak, 138, 168
  - Kalte-ordainak, 218, 226, 637, 638, 643, 663, 776, 780, 787
  - Osasun laguntza, 239
- Administrazioaren isiltasuna
  - Laguntzak, 278
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 659
- Desjabetzeak, 219
- Ebatzi beharra, 110, 638
  - Elbarritasunaren kalifikazioa, 52
  - Hirigintzako diziplina, 254, 640, 796
  - Lizentziak eta baimenak, 69

- Espedientea eskuratzea
  - Merkataritzako jardueraren plangintza, 71
- Hirigintzako diziplina
  - Ebatzi beharra, 254, 640, 796
  - Hirigintzako lizentziak, 257
- Itundutako amaiera, 226
- Izena emateko prozedura
  - Errolda, 638
- Jakinarazpenak
  - Babeserako eskubidea, 217
- Prozedura administratiboaren printzipio gidariak
  - Koordinazio printzipioa, 221, 269, 496, 640, 641, 816, 854
  - Lankidetzaren printzipioa, 221, 269, 496, 640, 641, 816, 854
- Prozedura administratiboko eskubideak
  - Administrazio erregistroak, 272
  - Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 72
  - Errekurtsorako eskubidea, 305
  - Espedientea eskuratzea, 71
  - Espedientea ikusteko aukera, 183
  - Gizarte zerbitzuak, 39, 50
  - Herritarren parte-hartzea, 217, 255, 256, 261
  - Informaziorako eskubidea, 115, 167, 216, 224
  - Kexatzeko eskubidea, 244, 245
  - Ziurtagiriak, 190, 193
- Zehapen prozedura
  - Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 659
  - Egiazkotasun presuntzioa, 659
  - Gizarte zerbitzuak, 39, 50
  - Jakinarazpenak, 143, 658
  - Preskripzioa, 72
  - Prozedura tipoa, 659
  - Prozedurako interesduna, 249
- Zehapen prozedura administratiboa
  - Jakinarazpenak, 129, 172, 640, 756, 760
  - Non bis in idem, 131, 640, 745
- Zergen alorreko prozedura
  - Erreklamazio ekonomiko-administratiboak, 305
- Zergen alorreko prozedura administratiboa
  - Banku kontuko abonua, 114
  - Epe barruan ebatzea, 110
- Ziurtagiriak
  - Seme-alabatasunak, 190, 193
- Prozedura administratiboaren printzipio gidariak**
  - Koordinazio printzipioa
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 269, 640, 816, 854
    - Garraioetako irisgarritasuna, 221, 496
    - Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 640, 641
  - Lankidetzaren printzipioa
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 269, 640, 816, 854
    - Garraioetako irisgarritasuna, 221, 496
    - Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 640, 641
- Prozedura administratiboko eskubideak**
  - Administrazio erregistroak
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 272

- Administrazio errekurtoa jartzeko eskubidea, 659
  - Arrazoitu beharra, 72
- Ebatzi beharra
  - Lizentziak eta baimenak, 69
- Epe barruan ebaztea, 110
- Errekurtsorako eskubidea
  - Erreklamazio ekonomiko-administratiboak, 305
- Espedientea eskuratzea, 71, 638
- Espedientea ikusteko aukera, 183
- Gizarte zerbitzuak
  - Harrera-zentroak, 39, 50
- Herritarren parte-hartzea
  - Hirigintzako plangintza, 255, 256, 261
  - Udal organoak, 217
- Informaziorako eskubidea
  - Espedientea ikusteko aukera, 167, 216, 224
  - Udal tasak, 115
- Kexatzeko eskubidea, 244, 245
- Ziurtagiriak
  - Seme-alabatasunak, 190, 193

### **Prozedura judiziala**

- Bidegabeko atzerapenak
  - Administrazioarekiko auzia, 178, 658
  - Banantzea eta dibortzioa, 184
  - Familia, 177, 184, 658
- Emakumeak
  - Banantzea eta dibortzioa, 184
- Emakumeen kontrako indarkeria
  - Zigor prozedura, 184
- Hizkera, 179

### **Publizitate sexista**

- Emakumeak, 373
- Sexuagatiko bereizkeria, 79

## **S**

### **Salmenta ibiltaria**

- Lizentziak eta baimenak
  - Berdintasunerako eskubidea, 69

### **Saneamendua**

- Udal tasak, 124
  - Banku helbideratzea, 637, 738

### **Sasoikako langileak**

- Adingabeak, 465, 665

### **Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 465, 665**

### **Segurtasun fisiko eta moralerako eskubidea**

- Adingabeak
  - Eskolako indarkeria (bullying), 83, 327
- Laneko jazarpena (mobbing)
  - Funtzio publikoa, 99

### **Sexuagatiko bereizkeria**

- Emakumeak, 355
  - Alardeak, 365, 641, 650, 696, 705
  - Banantzea eta dibortzioa, 184

- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 380
- Danborrada, 368
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, 649
- Emakumeen kontrako indarkeria, 184, 356, 650
- Emakumezkoen kirol taldeak, 369
- Irudi sexistak, 283, 373
- Kultur adierazpenak, 365, 368, 641, 650, 696, 705
- Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 376
- Legeria, 381
- Mendeko pertsonen zaintza, 379, 546
- Publizitate sexista, 373
- Homosexualak, 527, 652
- Publizitate sexista, 79
- Transexualak, 527, 652
- Onarpen zibila, 527

### **Sexuaren arabera banatutako hezkuntza, 83**

#### **Sindikatuak**

- Prozedurako interesduna, 249

#### **Sozietate publikoak**

- Berdintasuneko baldintzetan sartzeko eskubidea, 96, 641, 730

#### **Supermerkatuak**

- Zaratak, 211

## **T**

#### **Tabakismoa**

- Ostalaritza establezimenduak, 239

#### **Terrorismoaren biktimak, 343, 526, 647, 653**

- Gizarte taldeak, 537

#### **Titulazioak**

- Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa, 639

#### **TMIZ**

- Banku kontuko abonua, 114
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 113, 120, 122, 496, 662

#### **Topalekuak, 664**

#### **Tortura**

- Atxilotuak, 653

#### **Trafikoa**

- Zehapen prozedura
- Prozedura tipoa, 659

#### **Trafikoa eta bide segurtasuna, 129**

- Aparkalekuak, 131
- Errepideak, 227
- Gidabaimenak, 132
- Polizia, 144, 146
- Zehapen prozedura
- Jakinarazpenak, 658
- Zehapen prozedura administratiboa
- Jakinarazpenak, 129, 172, 640, 756, 760
- Non bis in idem, 131, 640, 745

#### **Transexualak, 527**

- Herritarra izateko eskubidea, 527
- Onarpen zibila, 527

#### **Tratu txarrak**

- Atxilotuak, 653

- Atzerritarrak, 655
- Polizia, 133
  - Arakatu eta gorputz miaketak egitea, 135
  - Atzerritarrak, 133, 142
  - Erabat biluztea, 137
  - Identifikatu gabeko pertsonak, 135, 163
  - Osorik biluztea, 656

### **Tutoretza judiziala**

- Espedientea ikusteko aukera
  - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 183

### **Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 658**

- Espedientea eskuratzea, 638
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 196, 548, 552
- Jakinazpenak, 129, 172, 217, 640, 658, 659, 756, 760
- Zigorra jaso duten pertsonak
  - Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 659

### **Tutoretzapeko apartamentuak**

- Adinekoak, 44

### **Txabolak eraikitzea**

- Betekizunak
  - Erroldatzea, 639, 807

## **U**

### **Udal etxebizitzak**

- Betekizunak, 279

### **Udal instalazioak**

- Lizentziak eta baimenak, 77

### **Udal tasak**

- Informaziorako eskubidea, 115
- Saneamendua, 124
  - Banku helbideratzea, 637, 738
- Ur kontsumoa, 127

### **Udal zerbitzu publikoak, 219**

- Baserialdeak, 219
- Errolda, 217
  - Ikasleen onarpena, 81, 637, 660, 725
  - Izena ematea, 638
- Informaziorako eskubidea
  - Udal tasak, 115
- Saneamendua
  - Udal tasak, 124, 637, 738
- Soinu semaforoak
  - Zentzumen irisgarritasuna, 220
- Trafikoa eta bide segurtasuna
  - Errepideak, 227
- Udal aldizkariak
  - Zentzumen irisgarritasuna, 220
- Ur kontsumoa
  - Udal tasak, 127
- Zaborrontziak, 228

### **Udal zergak**

- Erreklamazio ekonomiko-administratiboak, 305
- Gainbalio zerga
  - Balio katastrala, 112, 662

**OHZ**

Balio katastrala, 111, 120  
 Titularkidetasuna, 118

**TMIZ**

Banku kontuko abonua, 114  
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 113, 120, 122, 496, 662

**Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza**

Eskola-garraioa, 84, 90  
 Hizkuntz ereduak, 82, 639, 721  
 Eskola-mapa, 80, 81, 92, 660  
 Hezkuntza-instalazioak, 83  
 Hezkuntza-plangintza, 80, 81, 92, 660  
 Hezkuntza-premia bereziak, 469, 664  
 Curriculum dibertsifikazioa, 82, 660  
 Itunpeko ikastetxe pribatuak, 82, 660  
 Osasun premiak, 82, 660  
 lkasleen onarpena, 86  
 Errolda, 81, 637, 660, 725  
 Sexuaren arabera banatutako hezkuntza, 83

**Unibertsitateko hezkuntza**

Bekak eta laguntzak, 84  
 Dantza, 83  
 Eskola-egutegia, 84  
 Praktikak, 88  
 Titulazioak  
 Ingeniaritza elektronikoa, 70

**Ur kontsumoa**

Udal tasak, 127

**Z****Zaborrontziak, 228****Zaratak**

Anbulantziak, 212  
 Biltokiak, 667  
 Kanpai hotsak, 213  
 Lonjak, 198, 208, 643, 811  
 Obrak, 199  
 Ostalaritza establezimenduak, 198, 206, 640, 667  
 Supermerkatuak, 211

**Zehapen prozedura**

Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 659  
 Egiazkotasun presuntzioa, 659  
 Gizarte zerbitzuak, 39, 50  
 Jakinarazpenak  
 Babeserako eskubidea, 658  
 Ostalaritza establezimenduak, 143  
 Preskripzioa, 72  
 Prozedura tipoa, 659  
 Prozedurako interesduna  
 Sindikatuak, 249

**Zehapen prozedura administratiboa**

Jakinarazpenak  
 Defentsarako eskubidea, 129, 172, 640, 756, 760

Non bis in idem

Aparkalekuak, 131, 640, 745

**Zentzumen irisgarritasuna**

Soinu semaforoak, 220

Udal aldizkariak, 220

**Zentzumen oztopoak**

Soinu semaforoak, 220

Udal aldizkariak, 220

**Zerbitzu soziosanitarioak, 38, 348, 666**

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, 39, 50, 519, 637, 680

Burutik gaixo daudenak, 238

Osasun prestazioak

Hizkuntz oztopoak, 666

Unitate psikogeriatrikoak

Adinekoak, 42

Burutik gaixo daudenak, 42

**Zerbitzu soziosanitarioen plangintza, 38, 348**

**Zergen alorreko prozedura**

Erreklamazio ekonomiko-administratiboak, 305

**Zergen alorreko prozedura administratiboa**

Banku kontuko abonua, 114

Epe barruan ebaztea, 110

Informaziorako eskubidea

Udal tasak, 115

**Zergen arloko berdintasuna, 661**

**Zergen kudeaketa**

Udal zergak

Banku kontuko abonua, 114

**Ziegak**

Atxilotuak, 174

**Zigor prozedura**

Prozedura judiziala

Emakumeen kontrako indarkeria, 184

**Zigorra betetzea**

Gehieneko muga, 191

**Zigorra non bete, 531**

**Zor konpromisoa**

Egoitzak

Adinekoak, 63

**Zorraren onarpena**

Gizarte zerbitzuak

Adinekoak, 388